



## **BIBLIA (III)**

**Jose Antonio Uriarte**

Iturria: *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa).  
CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala.  
Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/U/UriarteBibliaIII.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **SAN MARKOSEN EBANJELIOA**

### **LENBIZIKO KAPITULUA**

1. Jesukristo, Jaungoikoaren semearen Ebanjelioaren asiera.
2. Isaias profetagan eskribatua dagoan bezela: Ona emen non nik zure aurrean bialtzen dedan nere aingerua, zeñak zure aurretik zure bidea prestatuko duen.
3. Au da eremuan deadar egiten duenaren boza: Jaunaren bidea prestatu ezazute, bidetxidorrak zuzenak egin zaiozkazute.
4. Joan zegoan eremuan bataiatzen ari zala, eta penitenziako bataioa predikatzen zuela bekatuen barkaziorako.
5. Eta ateratzen ziran beragana Judeako alderri guztia, eta Jerusalem guztiak, eta berak bataiatuak ziraden Jordango errekan, beren bekatuak konfesatzen zituztela.
6. Eta Joan zebillan gameluaren illez jantzia, eta larruzko gerriko bat zerabillan gerrian, eta langostak eta basa ezta jaten zituen. Eta predikatzen zuen, esaten zuela:
  7. Nere ondoren dator ni baño almentsuago bat, zeñaren aurrean auzpeztzeko diña ni ez naizan, bere oñetakoetako lokarriak askatzeko.
  8. Nik urarekin bataiatu zaituztet, berak berriz, Espiritu Santuarekin bataiatuko zaituzte.
  9. Eta gertatu zan, egun aietan etorri zan Jesus Galileako Nazarethtik, eta Jordanean Joanek bataiatua izan zan.
  10. Eta bereala, uretik irtetzen zala, zeruak idikiak ikusi zituen, eta Espiritu Santua jetxitzen zala usoaren irudian, eta bere gañean gelditzen zala.
  11. Eta zeruetako boz au aditua izan zan: Zu zera nere seme maitea, zuga gozatzen nago.
  12. Eta bereala Espirituak eremura eraman zuen.



13. Eta egon zan eremuan berrogei egunean, eta berrogei gautan, eta Satanasek tentatua izaten zan, eta abereakin bizi zan, eta aingeruak serbitzen zuten.

14. Eta Joan karzelan jarria izanda gero, etorri zan Jesus Galileara, Jaungoikoaren erreinuko Ebanjelioa predikatzen zuela,

15. Eta esaten zuela: Kunplitu da onezkero denbora, eta Jaungoikoaren erreñua alderatu da, argatik penitentzia egin ezazute, eta Ebanjelioari sinistu zaiozute.

16. Eta Galileako itsasoaren erriberatik iragotzen zala, ikusi zituen Simon eta bere anaia Andres, sareak itsasora aurtikitzen ari ziradela, (zeren arraitzaleak ziraden).

17. Eta Jesusek esan zien: Nere ondoren atozte, eta nik egingo det, gizonen arraitzaleak izatera etorri zaitezela.

18. Eta berak agudo, sareak utzitzen zituztela, jarraitu zioten.

19. Eta iragorik andik piska bat aurrerago, ikusi zituen Santiago Zebedeoren semea, eta Joan bere anaia, oiek ere ontzian sareak adobatzen.

20. Eta bereala ots egin zien. Eta utzitzen zutela ontzian Zebedeo beren aita alogerekoakin, jarraitu zioten.

21. Eta gero Kafarnaumen sartu ziran, eta bereala Jesus, larunbatean sarturik sinagogan, berai erakutsiak ematen ari oi zan.

22. Eta aditzalleak bere dotrinarekin arrituak zeuden, zeran berak zeukan erakusteko era zan eskubidea zeukan lagun batena bezelakoa, eta ez Eskribaena bezelakoa.

23. Eta bazegoan beren sinagogan espiritu zikiña zeukan gizaseme bat, eta deadar egin zuen,

24. Esaten zuela: Zer daukagu guk zurekin zer ikusi, o Jesus Nazarenoa? Gu galtzera etorri al zera? Badakit nor zeran, Jaungoikoaren Santua.

25. Baña Jesusek keñatu zuen, esaten ziola: Gelditu adi mututua, eta gizon orregandik atera adi.

26. Orduan espiritu zikiña, kiskurketa andiakin oñazetzen zuela, eta deadar andiak egiten zituela, gizon huragandik irten zan.

27. Eta guztiak mirestuak gelditu ziran, alako moduan, non, elkarri galdetzen zioten: Zer da au? Ze dotrina berri da au? Berak espiritu zikiña ere gogortasunarekin agintzen die, eta obeditzen diote.

28. Eta bere otspea Galileako alderri guzitik bereala zabaldu zan.

29. Eta sinagogatik irten ziradenean, bereala joan ziraden Santiago eta Joanekin, Simon eta Andresen etxera.

30. Simonen amagiarraba oeratua zegoan sukarrarekin, eta laster bere gañean itz egin zioten.

31. Eta alderatzen zala beragana, eskutik artu zuen, eta jaso zuen. Eta bereala sukarrak utzi zion, eta jarri zan berak serbitzen.

32. Arratsaldean berriz, eguzkia sartu zanean, eri guziak, eta demonioak zeuzkaten guziak beragana ekartzen ziozkaten,

33. Eta erri guztia atearen aurrean bildu zan.

34. Eta asko lagun, asko eratako gaitzak in atsekabetuak zeudenak sendatu zituen, eta asko demonio aurtiki zituen, eta etzien itzik egiten utzitzen, zeran baziakiten nor zan.

35. Eta goizean txit goiz atera zan kanpora, toki eremu batera, eta an orazioan zegoan.

36. Eta Simonek, eta berarekin zeudenak jarraitu zioten.

37. Eta arkitu zutenean, esan zioten: Guziak zure billan dabilta.

38. Eta esan zien: Aldeko ballera eta errietara goazen, nik ere aietan predikatu dezadan, zeran onetarako etorri naizan.

39. Bazijoan bada Jesus, predikatzen zuela beren sinagogetan, eta Galilea guzitik, eta demonioak aurtikitzen zituen.

40. Eta etorri zan beragana lepratsu bat, mesede bat eskatzera, eta belauniko jartzen zala, esan zion: Zuk nai badezu, sendatu nazakezu.

41. Eta Jesusek, berarekin urrikaltzen zala, eskua luzatu zuen, eta ukitzen diola, esaten dio: Nai det, izan zaite sendatua.

42. Eta oiek esan zituenean, bereala leprak beragandik alde egin zuen, eta sendatua gelditu zan.

43. Eta Jesusek keñatu zuen, eta beragandik bialdu zuen bereala,

44. Eta esaten dio: Begira ezazu, ez dizaiozula iñori ere esan; baizik zoaz, eta apaizen prinzipeari agertu zatzakio, eta eskeñi ezazu sendatu zeralako, Moisesek agindua daukana, au berentzat testigantza izan dedin.

45. Baña bera irten zanean, asi zan predikatzen, eta esaten nola izan zan sendatua, alako moduan, non, onezkero errian agirian etzitekean sartu, eta ala kanpoetatik, toki bakarretatik zebillan, eta aldamen guzietatik beragana zijozen.

## BIGARREN KAPITULUA

1. Eta egun batzuek iragota, berriz Kafarnaumen sartu zan.

2. Eta aditu zuten etxean zegoala, eta asko bildu ziran, alako moduan, non, atearen aurrean ere etziran kabitzen, eta berak Jaungoikoaren itza adiratzten zien.

3. Eta etorri ziraden beragana, gizon elbarritu bat zekarrenak, zeñ lauen artean zeramaten.



4. Eta nola ezin jarri zuten Jesusen aurrean, inguruan zegoan jendezagatik, idiki zuten tellatua Jesus zegoan aldamentetik, eta zulotik beera jetxi zuten, elbarridun gizona zetzan oetxoa.

5. Eta ikusi zuenean Jesusek aien fedea, elbarrituari esan zion: Ene semea, zure bekatuak barkatuak zazkitzu.

6. Eta Eskribaetatik batzuek zeuden an eserita, eta gogorazio oiek beren biotzetan zerabiltzabela:

7. Zer da onek esaten duena? Blasfematzen du. Nork, Jaungoikoak bakarrik baizik, bekatuak barkatu ditzake?

8. Eta Jesusek, au bereala ezaguturik bere espirituarekin, onelako gogorazioak zerabiltzabela beren artean, esaten die: Zergatik darabiltzkitzute zuen biotzetan onelako gogorazioak?

9. Zer da errazago, esatea gizon elbarrituari: zure bekatuak barkatzen zazkizu, ala esatea: Jaiki zaite, zure oetxoa artu ezazu, eta ibilli zaite?

10. Jakin dezazuten bada, gizonaren semeak badaukala eskubidea lurreen bekatuak barkatzeko, (esan zion gizon elbarrituari).

11. Zuri esaten dizut: Jaiki zaite, zure oetxoa artu ezazu, eta zure etxera zoaz.

12. Eta bereala jaiki zan hura, eta arturik oetxoa, joan zan guztiak ikusten zutela, alako moduan, non, guztiak zeuden mirarituak, eta gloriatz betetzen zuten Jauna, esaten zutela: Beñere ez degu onelakorikan ikusi.

13. Eta berriz irten zan itsasorontz, eta jendetza guztia beragana zetorren, eta berak erakutsiak ematen ziezten.

14. Eta iragotzen zala, ikusi zuen Lebi Alfeoren semea kotizen maiean eseria, eta esan zion: Darraidazu. Eta jaikitzen zala, jarraitu zion.

15. Eta gertatu zan, onen etxean maiean eseria zegoala, publikano eta pekatari asko zeuden batean eseriak, Jesus eta bere ikasleekin, zeren jarraitzen ziotenak ere, asko ziraden.

16. Eta Eskribak eta Fariseoak ikusirik publikano eta bekatariakin jaten zuela, bere ikasleai esaten zion: Zergatik zuen Maisuak publikano eta bekatariakin jaten eta edaten du?

17. Au aditurik Jesusek esan zion: Osasunarekin daudenak ez daukate sendatzallearen premiari, eririk daudenak baizik, zeren ez nintzan etorri justoi, baizik bekatariak ots egitera.

18. Eta Joanen ikasleak, eta Fariseoak barau egiten zaleak ziraden; eta etorri ziraden, eta esaten diote: Zergatik Joanen ikasleak, eta Fariseoak barauak egiten dituzte; zure ikasleak berriz, ez dute baraurik egiten?

19. Eta Jesusek erantzun zien: Nola izan ditekete eztaietako semeak barau egitea, esposoa berakin dagoan artean? Esposoa berakin daukaten artean, ez ditzakete berak baraurik egin.

20. Etorriko dirade egunak, zeñatan esposoa kendua izango zaioten, eta orduan, egun aietan, barautuko dira.

21. Ez du iñork ere jositzen oial berrizko txatal bat, soñeko zar batean, bestela ipinki berriak zarra urratzen du, eta etendura andiagoa egiten da.

22. Eta iñork ez du ipintzen ardo berria zagi zarretan, bestela ardoak zagiak urratuko ditu, eta ardoa isuriko da, eta zagiak galduko dirade. Argatik ardo berria zagi berrietan ipiñi bear da.

23. Eta berriz gertatu zan zijoala Jauna larunbateko egun batean garitza batzuen aldetik, bere ikasleak aurreratu ziran, eta asi ziran galburuak artzen.

24. Eta Fariseoak esaten zioten: Nola zure ikasleak larunbatean zillegi ez dana egiten dute?

25. Eta esan zion: Beñere ez al dezute irakurri zer egin zuen Dabidek, premian arkitu zanean, eta bera ta berarekin zeudenak gose izan zira-denean?

26. Nola sartu zan Jaungoikoaren etxean, Abiatar apaiz buruaren denboran, eta proposiziooko ogiak jan zituen, zeñatatik etzaien zillegi jatea, apaizai baizik, eta beretatik eman zion laguntzen ziotenai?

27. Eta gañera esan zion: Larunbata gizonarentzat egin zan, eta ez gizona larunbatarentzat.

28. Eta gizonaren semea larunbataren ere jabea da.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta berriz ere Sinagogan sartu zan, eta zegoan an, esku txangua zeukan gizon bat.

2. Eta azeloan zeuden, larunbatean sendatzen ote zuen, bera salatzeko.

3. Eta esku sikatua zeukan gizonari esan zion: Jaiki zaite, eta jarri zaite erdian.

4. Eta berai esaten die: Zillegi al da larunbatean on, edo gaitz egitea? Norbaiti bizia salbatu, edo kentzea? Eta berak ixillik zeuden.

5. Eta aserrearekin begiraturik berai inguruan, eta tristeturik beren biotzeko itsutasunagatik, esaten dio gizonari: Zure eskua luzatu ezazu. Eta luzatu zuen, eta sendatua gelditu zitzaion.

6. Fariseoak bada, irtetzen ziradela, bereala Herodianoekin batzarrea egin zuten bere kontra, nola galduko ote zuten.



7. Eta Jesusek bere ikasleakin alde egin zuen itsasondoko ordekaeta-  
ra, eta Galileatik, eta Judeatik jende askok jarraitu zion,
8. Eta Jerusalemetik, eta Idumeatik, eta Jordango beste aldamenetik,  
baita Tiro eta Sidongo mugetakoak ere, talde andietan, etorri ziran bera  
ikustera, egiten zituen gauzak aditurik.
9. Eta bere ikasleai esan zien, iduki zezatela prestatua ontzitzo bat,  
jendetza andiatatik ito etzetzaten.
10. Zeren asko sendatzen zituen, alako moduan, non, gaitzen  
batzuek zeuzkaten guztiak, aurtikitzen ziran elean beragana, berari uki-  
tzeko.
11. Eta espiritu zikiñak zeuzkatenak ere, ikusten zutenean, belauni-  
kotzen ziran, eta deadar egiten zuten, esaten zutela:
12. Zu Jaungoikoaren semea zera. Baña berak keñada andiak egiten  
ziezten, agertu etzetzaten.
13. Eta igotzen zala mendira, beragana ots egin zien berak nai zitue-  
nai, eta beragana joan ziraden.
14. Eta amabi autu zituen berarekin egoteko; eta predikatuzera bialtzeko.
15. Eta eman zien eskubidea eriak sendatzeko eta demonioak aurti-  
kitzeko.
16. Eta jarri zion izena Simoni Pedro:
17. Eta Santiago Zebedeoren semea, eta Juan Santiagoren anaia, eta  
jarri zien izenak Boanerjes, au da, turmoiaren semeak.
18. Andres, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeoren  
semea, Tadeo, eta Simon Kanaantarra.
19. Eta Judas Iskariote, saldu zuena bera.
20. Eta etorri ziran etxera, eta berriz jendetza bildu zan, alako  
moduan, non, ogirik ere ezin jan zuten.
21. Eta bereak aditu zutenean, irten ziran berari eltzera, zeren esaten  
zuten: Zoratu zaio.
22. Eta Jerusalemetik jetxi ziran Eskribak esaten zuten: Beelzebub  
dauka, eta demonioen prinzipagan demonioak aurtikitzen ditu.
23. Eta Jesusek, berak biltzen zituela, paraboletan esaten zien: Nola  
Satanasek Satanas aurtiki dezake?
24. Eta baldin erreinu bat beragan berezitzen bada kontrako zatietan,  
erreinu ark ez dezake iraupenik iduki.
25. Eta baldin etxe bat badago berezitua elkarren kontra, ez diteke  
etxe hura oñean egon.
26. Eta baldin Satanas bere kontra jaikitzen bada, zatitua dago, eta ez  
dezake iraun; bere atzena aldean da.

27. Sendoaren etxean ez diteke iñor ere sartu bere etxeko gauzak  
arrapatuzera, lenago sendoa lotzen ez badu, eta orduan bere etxeko gauzak  
arrapatu ditzake.
28. Egiaz esaten dizutet, bekatu guztiak barkatuak izango zaieztela  
gizonen semeai, baita esaten dituzten blasfemiak ere,
29. Baña Espiritu Santuaren kontra blasfematzen duenak, ez du  
beñere barkaziorik izango, baizik betiko juizioaren diña izango da.
30. Zeren esaten zioten: Espiritu zikiña dauka.
31. Eta bere ama eta anaiak etorri ziran, eta kanpoan zeudela bialdu  
zuten mandatua berari ots egitera.
32. Eta bere inguruan jendetza andia eseria zegoan, eta esaten diote:  
Begira ezazu, zure amak, eta zure anaiak kanpoan billatzen zaituztela.
33. Eta erantzuten ziela, esan zuen: Zeñ da nere ama, eta zeñ dirade  
nere anaiak?
34. Eta begiraturik bere inguruan eserita zeudenai, esan zuen: Ona  
emen nere ama, eta nere anaiak.
35. Zeren Jaungoikoaren borondatea egiten duena, au nere anaia, eta  
nere arreba, eta nere ama da.

## LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta berriz erakutsiak ematen itsasoaren ondoan jarri zan, eta alako  
jendetza beragana bildu zan, non, sarturik ontzi batean itsasoan, eseria  
zegoan, eta jendetza guztia leorreatan itsasoaren aldean zegoan.
2. Eta asko gauza paraboletan erakusten zien, eta berak zeukan era-  
kusteko eran, esaten zien:
3. Aditu ezazute, Ona non ereille bat ereitzeraz atera zan.
4. Eta ereitzen ari zala, zati bat bidearen aldean erori zan, eta zeruko  
egaztiak etorri ziran, eta jan zuten.
5. Beste zati bat berriz, arritzaren gañean erori zan, non lur gizenik  
etzeukan, eta bereala erne zan, zeren lurraren altuerarik etzeukan.
6. Eta eguzkiak berotu zuenean, igartu zan, eta nola sustrairik etzeu-  
kan, leortu zan.
7. Eta beste zati bat erori zan arantzen artean, eta arantzak azi ziran,  
eta ito zuten, eta etzuen fruturik eman.
8. Eta beste zati bat lur onean erori zan, eta ematen zuen frutu gor-  
tu, eta azia, eta zekarren batek, bateko ogeita amar, besteak bateko iruro-  
gei, eta besteak bateko eun.
9. Eta esaten zien: Belarrikir daukanak aditzeko, aditu dezala.



10. Eta gero bakarrik zegoala, berarekin zeuden amabiak galde egin zioten parabolaren gañean.

11. Eta berak esaten zien: Zuei eman zazute Jaungoikoaren erreinu-ko misterioa ezagutzeko; kanpoan dauden berriz, guztia parabolatan adirazten zaie:

12. Ikusten dutela, ikusi dezaten, eta ez dezaten ikusi, eta aditzen dutela, aditu dezaten eta konprenditu ez dezaten, konbertitu ez ditezen, eta bekatuak barkatuak izan etzaiezen.

13. Eta esan zien: Parabola au ez dakizute? Eta, nola parabola guztiak konprendituko dituzute?

14. Ereillea, Jaungoikoaren itza ereitzen duena da.

15. Bidearen aldean ereinak dirade gizon aiek, zeñakgan itza ereitzen dan, eta aditzen dutenean, bereala dator satanas, eta beren biotzetan ereindako itza arrapatzen du.

16. Eta onelakoak dirade arrizetan ereinak, zeñak itza aditzen dutenean, bozkarioz artzen duten bereala.

17. Baña ez dute berakgan sustrairik botatzen, eta ala gutxi irautzen dute, eta gero itzagatik atsekabe edo persekuzioren bat datorrenean, bereala eskandalizatzen dirade.

18. Eta beste batzuek dirade arantzen artean ereitzen diradenak. Oiek dirade itza aditzen dutenak,

19. Baña munduko arazoak, eta aberastasunen lilluramenduak, eta gañerako gurari bidegabeko sartzen diradenak, itotzen dute itza, eta frutu gabea gelditzen da.

20. Eta lur onean ereinak dirade, itza aditzen dutenak, eta artzen dutenak, eta frutua ematen dutenak, batek bateko ageita amar, besteak irurogei, eta besteak eun.

21. Eta esaten zien: Argi bat ekartzen al da, lakariren baten azpian ipintzeko, edo oearen azpian? Ez al da kandelero baten gañean ipintzeko?

22. Ez dago bada ezerere, gauza ezkuturik, agertua izan bear ez danik, ez gauzarik batere, egiten danik estalian egoteko, baizik agirian egoteko.

23. Inork baldin badauzka belarriak aditzeko, aditu dezala.

24. Eta esaten ere zien: Zaudete arretaz aditzera zoaztena, Nolako neurriarekin neurtzen dezuten, zuek ere artan beratan neurtuak izango zerate, eta gañerakoakin emango zazute.

25. Zeren daukanari emango zaio, eta ez daukana, daukanaz ere gabetua izango da.

26. Eta esaten zuen: Jaungoikoaren erreñua da gizon baten antzekoa, zeñak bere soroan ereitzen duen.

27. Eta naiz lo datzala, naiz bellan egon dedilla gau ta egun, alea moteak emanaz, eta aziaz dioa, berak jakin ere gabe.

28. Zeren lurra berez frutua ematen du, lenengo belarra, gero galburua, eta atzenean ale betea galburuan.

29. Eta frutua zoritua dagoanean, bereala igitaia ezartzen zaio, zeren ebakitzeko denbora allegatua dan.

30. Eta jarraitzen zion esateari: Jaungoikoaren erreñua zeñ gauzarekin irudituko degu? Edo, zeñ parabolarekin begien aurrean jarriko degu?

31. Da moztaza ale baten antzekoa, zeñ lurrean ereitzen danean, lurrean dauden azi guztien artean txikiena dan,

32. Baña ereitzen danean, igotzen da, eta barazki guziak baño andiago egiten da, eta errama ain andiak ematen ditu, non, zeruko egaztiak bere itzalaren azpian atsedeten egon ditezke.

33. Eta predikatzen zien itza alako parabola askorekin, bakoitza aditzeko gai nola zan.

34. Eta parabolatan baizik etzien itzik egiten, berezian berriz, bere ikasleai, guztia azaldatzen zien,

35. Eta egun artan, onezkeru berandu zala, esan zien: Aurkez dagoan erriberara irago gaitezen.

36. Eta jendetza utzitzen zutela, zegoala Jesus, zegoan bezela ontzian, joan ziran itsasoz, eta beste ontzi batzuek zijoazen berari laguntzen ziela.

37. Eta jaiki zan orduan aizezko ekaitz andi bat, zeñak bagak ontzian sartzen zituen, alako moduan, non, ontzia urez bete zan.

38. Bitartean bera lo zetzan popan oaburuko baten gañean: esnatzen dute bada, eta esaten diote: Erakuslea, ez dijoakizu zuri ezerere, gu galtearekin?

39. Eta berak, jaikitzen zala, keñatu zuen aizea, eta itsasoari esan zion: ixillikan ago, mututu adi. Eta aizea gelditu zan, eta itsasoa bare bare gelditu zan.

40. Eta esan zien: Zeren beldur zerate? Oraindikan ere federik ez al daukazute? Eta txit beldurtu ziran, eta elkarri esaten zioten: Zeñ ote da aizeak eta itsasoak ere obeditzen dioten au?

## BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta etorri ziran itsasoaren beste aldamera, Jerasenoen lurrera.

2. Eta irtetzen zala ontzitik, bereala bidera irten zitzaion, espiritu zikiña zeukan gizon bat obietatik aterata,





3. Zeñak zeukan bizilekua obietan, eta kateakin ere onezkero iñork ere etzitzakean geldirik iduki:
4. Zeren maiz, zegoala grilloakin eta kateakin lotuta, urratu zituen kateak, eta zatitu grilluak, eta iñork ere etzetzakean ezitu.
5. Eta beti gau ta egun obietatik, eta mendietatik zebillan deadarrez, eta arriakin bera urratzen zala.
6. Eta ikusirik urrutitik Jesus, korrika joan zan, eta adoratu zuen.
7. Eta deadar eginik boz goratuarekin, esan zuen: Zer daukat nik zer ikusi zurekin Jesus, Jaungoiko txit goratuaren semea? Jaungoikoaren beraren izenean txit gogotik erregututzen dizut, ez nazazula arren oñazetu.
8. Zeren Jesusek esaten zion: irten adi, espiritu zikiña, gizon orre-gandik.
9. Eta Jesusek galdetu zion: Zeñ dek ire izena? Eta berak erantzun zuen: Taldea da nere izena, zeren asko geran.
10. Eta txit erregu andiakin eskatzen zion, alderrri artatik kanpora etzetzala aurtiki.
11. Txerri talde andi bat zegoan, aldeko mendi bateko egian, bazkatzzen.
12. Eta infernuko espirituak erregututzen zioten, esaten ziotela: Bialdu gaitzatzu txerrietara beretan sartu gaitezen.
13. Eta Jesusek bereala utzi zien. Eta irtetzen ziradela espiritu zikiñiak, txerrietan sartu ziran, eta sumintasun andiarekin txerri talde guztia, zeñak ziraden bi milla bezelatsu, korrika joan zan itsasora aurtikitze-ra, non guztiak ito ziran.
14. Beren zaitzalleak berriz iges egin zuten, eta errian eta baserrietan berriak eman zituzten. Jendea berriz atera zan, gertatu zana ikustera,
15. Eta Jesus zegoan tokira allegatu ziradenean, len demonioak oñazetzen zuena ikusten dute eserita, jantzita, eta zentzu osoarekin, eta arri-tuak gelditu ziran.
16. An arkitu ziradenak kontatu ziezten demonioa iduki zuenari gertatu zitzaiozkanak, eta txerrien gertakaria.
17. Eta kalte berrien beldurrarekin asi zitzaiozkan erregututzen beren mugetatik alde egin zezala.
18. Eta Jesus ontzira igotzera zijoanean, demonioak oñazetua izan zana asi zitzaion erregutuzen, artu zezala berarekin.
19. Eta etzuen artu Jesusek, baizik esan zion: Zoaz zure etxera zureakgana, eta esan zaiozkazu Jaunak nolako mesede andiak egin dizkizun, eta nolako urrikaltasuna zurekin iduki duen.

20. Eta joan zan, eta Dekapolin asi zan predikatzen, nolako mesede andiak Jesusek egin ziozkan, eta guztiak miresten ziraden.
21. Eta iragorik berriz Jesus ontzian, itsasoaren beste aldamenera, jendetza andia beragana bildu zan, eta itsasoaren aldean zegoan.
22. Eta etorri zan beragana Jairo izena zuen sinagogako agintari bat, eta ikusi zuenean, bere oñetan auzpeztu zan.
23. Eta txit erregu andiak egiten ziozkan, esaten zuela: Nere alaba dago atzeneko asnasetan. Atoz, bere gañean eskua jarri ezazu, sendatu dedin, eta bizi dedin.
24. Eta joan zan Jesus berarekin, eta jendetza andiak berari jarraitzen zion, eta estututzen zuten.
25. Eta amabi urtean odol jarioa zeukan emakume batek,
26. Eta sendakina askok asko sufrituerazi ziotenak, eta zeukan guztia kastatu zuenak, obasunik, batere iduki gabe, baizik oraindik txartoa-goago (sic) zegoanak.
27. Aditurik Jesusen ospea, etorri zan jendetzaren ostetik, eta bere soñekoari ukitu zion,
28. Zeren esaten zuen: Baldin ukitu bat bederik bere soñekoari egiten badiot, sendatuko naiz.
29. Eta bere odolezko iturria bereala leortu zan, eta sentitu zuen bere gorputzean, bere gaitzetik onezkero sendatua zegoala.
30. Eta bereala Jesusek ezagaturik beragan, beragandik irten zan bertutea, itzulirik jendetzagana, esaten zien: Nere soñekoari nork ukitu dio?
31. Eta bere ikasleak esaten zioten: ikusten dezu nola jendetzak aldamen guzietatik estututzen zaituen, eta esaten dezu, nork ukitu dizun?
32. Eta aldamen guzietara begiratzen zuen, au egin zuen emakumea ikusteko.
33. Emakumea berriz beldurturik, eta ikaturik, jakinik beragan gertatu zana, etorri zan, eta bere aurrean auzpeztu zan, eta egia guztia esan zion.
34. Jesusek orduan esan zion: Ene alaba, zure fedeak sendatu zaitu. Zoaz ordu onean, eta zure gaitzgabetua gelditu zaitte.
35. Oraindikan izketan ari zala etorri ziran sinagogako agintariaren etxeokak oni esatera: Zure alaba il da, Zergatik onezkero Erakusleari gogaiterazitzen diozu?
36. Jesusek berriz, aditurik esaten zutena, sinagogako agintariari esan zion: Etzaitte beldurtu, bear dana da bakarrik fedeak iduki dezazula.
37. Eta etzion utzi jarraitzen iñori ere, baizik Pedrori, eta Santiagori, eta Juan Santiagoren anaiari.



38. Eta etortzen dira sinagogako agintariaren etxera, eta ikusten du nastea, eta jendearen negarrak, eta suspirio andiak.

39. Eta sarturik, esaten die: Zergatik alako moduan atsekabetzen zerate, eta negar egiten dezute? Neskak ez dago illa, baizik lo datza.

40. Eta irri egiten zioten. Berak berriz, aurtikirik guztiak kanpora, artu zituen neskatxaren aita eta ama, eta berarekin zeudenak, eta sartzen da neskatxa zetzan tokian.

41. Eta eldurik neskatxaren eskuari, esan zion: Talitha kumi (zeñak esan nai duen) Neskak, (zuri esaten dizut) jaiki zaite.

42. Eta bereala neskatxa jaiki zan, eta asi zan ibiltzen. Eta zeuzkan amabi urte: eta txit arrituak gelditu ziran.

43. Eta txit gogortasun andiarekin agindu zien, iñork ere etzetzala au jakin, eta esan zuen neskatxari jaten eman zizaiotela.

### SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta andik alde egiten zuela, bere errira joan zan, eta bere ikasleak jarraitzen zioten.

2. Eta larunbata allegaturik, asi zan Sinagogan erakutsiak ematen, eta aditzalleetatik askok, bere jakinduriarekin miratuta, esaten zuten: Nondik oni gauza guzti oiek? Eta emana izan zitzaion jakinduria au, nolakoa da? Eta, nondik anbeste mirari, egiten dituenak?

3. Ez al da au langille hura, Santiagoren, eta Joserren, eta Judasen, eta Simonen anaia? Eta bere arrebak emen, gure artean ez al dirade bizi? Eta eskandalizatzen ziraden beragan.

4. Jesusek berriz, esaten zien: Egia da profetarikan batere ez dala bizi onrarikan gabe, baizik bere errian, bere etxean, eta bere aideen artean.

5. Eta etzetzakean an mirari andirik egin, eta eri gutxi batzuek baka-rrik, eskuak gañean jartzen zitzaieztela, sendatu zituen.

6. Eta aien sinisgogortasunagatik miresten zan, eta inguruetakoa errietatik zebillan erakutsiak ematen.

7. Eta amabiai ots egin zien, eta binaka bialtzen asi zan, eta espiritu zikiñen gañean eskubidea ematen zien.

8. Eta agindu zien ezerere ez eramateko bidean, baizik eskumakilla; ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik gerriualean.

9. Oñetako ualdun batzuekin, eta bi tunika ez zitzatela jantzi.

10. Eta esaten zien: Etxean sartzen zeratenean edozeñere tokitan, an egon zaitezte erri artatik irten zaitezten artean.

11. Eta artzen etzaituzten, eta aditzen etzaituzten edozeñere tokitan, ateratzen zeratela andik, zuen oñetakoetako autsa astindu ezazute beren kontrako testigantzan.

12. Eta ateratzen ziradela, predikatzen zuten penitentzia egin zezatela,

13. Eta asko demonio aurtikitzen zituzten, eta olioarekin igortzitzen zituzten asko eri, eta sendatzen zituzten.

14. Eta aditurik gauza oiek Herodes erregeak (zeren Jesusen izena otspatsua egin zan) esaten zuen: Noaski Juan Bautista illen artetik biztu da, eta argatik mirariak egiteko indarra dauka.

15. Beste batzuek esaten zuten: Ez da, Elias baizik. Beste batzuek berriz, esaten zuten: Au da profeta bat, profetetatik bat bezelakoa.

16. Herodesek, au aditurik, esan zuen: Juan, nik lepo mostu nuena, au illen artetik biztu da.

17. Zeren Herodesek berak bialdu zituen mandatariak, eta arrapatu zuen Juan, eta lotuta, jarri zuen karzelan, Herodias, bere anaia Filiporen emazteagatik, zeñarekin ezkondu zan.

18. Zeren Juanek Herodesi esaten zion: Ez dezu zillegi zure anaiaren emaztea idukitzea.

19. Herodiasek berriz, Juani azeloak jartzen ziozkan, eta nai zuen il, baña ezin zuen.

20. Zeren Herodes Juanen beldur zan, jakinik gizon justu, eta santu bat zala, eta lotsaz begiratzen zion, eta berak esanda asko gauza egiten zituen, eta gogotik aditzen zion.

21. Eta zegokion eguna allegatu zanean, Herodesek bere jaiotzako egu-  
nean eman zien afari bat prinzipelai, eta tribunoai, eta Galileako andizkiai.

22. Sartu zan Herodiasen alaba, dantzan egin zuen, Herodesen eta berarekin batean eseriak zeudenen ain gogo osora, non, erregeak neska-  
txari esan zion: Eskatu zadazu neri nai dezuna, eta emango dizut.

23. Eta gañera juramentu eginda esan zion: Emango dizut eskatzen didazun guztia, nere erreñuaren erdia balitza ere.

24. Eta irtenik neskatxa, bere amari esan zion: Zer eskatuko det? Eta amak esan zion: Juan Bautistaren burua.

25. Eta sarturik agudo, arin, bereala erregea zegoan tokira, eskatu zuen esaten zuela: Nai det bereala eman dizadazula Juan Bautistaren burua.

26. Eta erregea tristetu zan, baña juramentuagatik, eta elkarrekin ese-  
rita zeudenen begiruneagatik, etzuen neskatxa tristetu nai izan.

27. Baizik bialdurik soldadu morroi bat, agindu zion ekarri zizaiola Juan Bautistaren burua platera batean. Eta karzelan lepoa ebaki zion,





28. Eta ekarri zuen bere burua platera batean, eta eman zion neskatxari, eta neskatxak eman zion amari.
29. Au aditurik, bere ikasleak etorri ziran, eta bere gorputza artu zuten, eta obi batean ipiñi zuten.
30. Eta bildurik Apostoluak Jesusekin, esan ziozkaten egin zituzten gauza guztiak, eta nolako erakutsiak eman zituzten.
31. Eta Jesusek esan zien: Atozte nerekin toki eremu eta bakar batera, eta piskatxo bat atsedean ezazute. Zeren zetoztenak eta zijoazenak asko ziran: eta jateko ere astirik etzeukaten.
32. Eta sarturik ontzi batean, toki berezi, bakar, eremu batera joan ziraden.
33. Eta zijoazela, askok ikusi zituzten, eta ezagutu zituzten, eta leorrez eta oñaz erri guzietatik ara joan ziran, eta allegatu ziran berak baño lenago.
34. Eta Jesusek, ontzitik irtetzen zala, jendetza andia ikusi zuen, eta berakin urrikaldu zan, zeren artzairik ez daukaten ardiak bezela zeuden, eta berai asko erakutsi ematen asi zan.
35. Baña nola txit berandutu zitzaioten, bere ikasleak beragana alderatu zitzaiozkan esaten zutela: Toki eremua da au, eta onezkero berandu da.
36. Bialdu itzatzu, joaten diradela aldeetako ballera eta errietara, jana-ria erosi dezaten jateko.
37. Eta berak erantzuten ziela, esan zien: Eman zaiezute zuek berai jaten. Eta berak esan zioten: Goazen bada, eta berreun dirurekin ogiak erosi ditzagun, eta berai jaten emango diegu.
38. Eta Jesusek esan zien: Zenbat ogi dauzkazute? Zoazte, eta begiratu ezazute. Eta ezagutu zutenean, esaten dute: Bost, eta bi arrai.
39. Eta agindu zien, eseri erazi zitzaizela belar berdearen gañean, taldeetan.
40. Eta onela eseri ziran eunetik euneko, eta berrogeita amarretik berrogeita amarreko taldeetan.
41. Eta arturik bost ogiak eta bi arraiak, begiratzan zuela zerura, bedeikatu zituen, eta ogiak zatitu zituen, eta bere ikasleai eman ziezten, jarri zitzaiezten beren aurrean, eta orobat bi arraiak ere beren artean partitu zituen.
42. Eta guztiak jan zuten, eta ase ziraden.
43. Eta gelditu zanetik bildu zituzten amabi saski ogi zatiz eta arraiz beteak.
44. Jan zutenak berriz, bost milla gizon ziran.

45. Eta bereala bere ikasleai ontzira igoerazi zien, bera baño lenago itsasoaren beste aldamenera Betsaidara joan zitezen, berak erriko jendea bialtzen zuen artean.
46. Eta bialdu zituenean, mendira joan zan orazio egitera.
47. Eta berandu zanean, ontzia itsasoan zegoan, bera berriz bakarrik lurrean.
48. Eta ikusi zituenean arraunean nekatuak ari ziradela (zeren aizea beren kontrakoa zan) gauaren laugarren beillako garaiean, etorri zan berakganontz itsasoaren gañean zebillala, eta aurrera joango balitza bezela egin zuen.
49. Berak berriz, ikusi zutenean itsasoaren gañean zebillala, uste izan zuten iratxoren bat zala, eta deadar egin zuten.
50. Zeren guztiak ikusi zuten, eta nastuak gelditu ziraden. Eta bereala itz egin zuen berakin, eta esan zien: itxedon ezazute, ni naiz, etzaitezte beldur izan.
51. Eta sartu zan berakin ontzian, eta aizea gelditu zan: eta beren artean asko geiago arritu ziran,
52. Zeren ogien miraria etzuten konprenditu; beren biotza oraindik lilluratu zegoalako.
53. Eta igarorik itsasoa aldamen batetik bestera, Jenesaretko lurrera etorri ziran, eta an kanpora irten ziran.
54. Eta ontzitik atera ziradenean, bereala ezagutu zuten.
55. Eta alderri guzi artatik zebiltzala, asi ziran jendeak ateratzen andetan eri guztiak, eramaten zituztela, gelditzen zala aditzen zuten tokietara.
56. Eta sartzen zan toki guztietan, errietan, edo balleretan, edo irietan, karrikaetan eriak ipintzen zituzten, erregutuzten ziotela, bere soñekoaren ertzari bederik ukitzen utzi zitzaizela. Eta ukitzen zioten guztiak, sendatuak gelditzen ziraden.

## ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta alderatu ziraden Jesusgana Fariseoak, eta Eskribaetatik batzuek, Jerusalemik etorriak.
2. Eta ikusi zutenean bere ikasleetatik batzuek, esku zikiñakin, au da, eskuak garbitu gabe, jaten zutela, augatik gaizki esan zuten.
3. Zeren Fariseoak, Judu guztiak bezela, ez dute jaten, maiz eskuak garbitu gabe, beren asabetatik etorritako erakutsiari jarraitzen diotela.
4. Eta plazan egon badirade, ez dute jaten, lenengo garbituak ez badirade, eta beste gauza asko dirade asabak erakutsita gordetzen dituz-



tenak, nolakoak diran edanontziak, pitxarrak, eta metalkiak, eta oak garbitzea.

5. Eta Fariseoak eta Eskribak galdetzen zioten: Zergatik zure ikasleak ez dituzte zaitzen anziñakoen erakutsiak, baizik eskuak garbitu gabe jaten dute?

6. Eta berak erantzuten zuela, esan zien: O hipokritak! Ongi profetizatu zuen zuegatik Isaiasek, eskribatua utzi zuen gauza onetan. Erri onek ezpañakin onratzen nau, baña beren biotza nigandik urrutian dago.

7. Alperrikan bada onratzen naute, gizonen dotrinak eta aginteak erakusten dituztela.

8. Zeren zuek Jaungoikoaren agintea utzitzen dezutela, gizonen anziñako erakutsiak zaitzen dituzute, pitxarrak eta edanontziak garbitzean, eta egiten dituzuten, oien irudiko beste gauza askotan.

9. Eta gañera esaten zien: Ederki desegiten dezute Jaungoikoaren agintea, anziñakoetatik daukazuten erakutsia zaitzeagatik.

10. Zeren Moisesek esan zuen: Onratu itzatzu zure aita eta zure ama. Eta: Aita edo ama madarikatzen duena, illa izan bedi.

11. Eta zuek esaten dezute: Gizonak aitari, edo amari esango balio: Nigatik Jaungoikoari eskeñtzen diodan edozeñere Korban, (au da, doañ) zure onerako izango da.

12. Onenbesterekin ez dauka ezerere egin bearrik bere aitaren, edo bere amaren alde ta onean,

13. Onela utsean utzitzen dezutela Jaungoikoaren itza, zuek zerok asmatutako erakutsi batgatik, eta onen irudira beste gauza asko ere egiten dituzute.

14. Orduan ots eginik berriz erriari, esaten zien: Aditu nazazute guztiok, eta ongi konprenditu ezazute.

15. Kanpotik gizonaren barrenen sartzen dan gauza batek ere, ez dezake gizona zikindu; gizonagandik ateratzen diran gauzak berriz, oiek dirade gizona zikintzen dutenak.

16. Baldin iñork badauzka belarriak aditzeko, aditu beza.

17. Eta jendeagandik alde egin, eta etxean sartu zanean, bere ikasleak galdetzen zioten, parabola onek zer adirazten ote zuen.

18. Eta berak esan zien: Zer! Zuek ere aditza ain gutxi daukazute? Ez al dezute konprenditzen, kanpotik gizonagan sartzen dan gauzaetatik batek ere, ez dezakeala bere zikindu,

19. Zeren ez dan sartzen bere biotzean, baizik sabelera dijoan, eta toki izkutuan irtetzen dan, janari guztiak garbitzen dituela?

20. Eta esaten zuen, gizonagandik irtetzen diraden gauzak, aiek gizona zikintzen dutela.

21. Zeren gizonaren biotzaren barrerik irtetzen dirade gogorazio gaiztoak, adulterioak, aragizko bekatuak, gizoniltzeak,

22. Lapurretak, zikoizkeriak, biurrikeriak, engañoak, zikinkeriak, ondamuak, blasfemiak, urgulleria, zentzugabetasuna.

23. Gauza gaizto guzti oiek barrerik irtetzen dirade, eta gizona zikintzen dute.

24. Eta andik alde egiten zuela, Tiro eta Sidongo mugetara joan zan, eta etxe batean sarturik, nai zuen iñork ere etzetzala jakin an zegoala, baña ezin ezkutatu zan.

25. Zeren aditu zueneko andre batek, zeñaen alabak espiritu zikiña zeukan, bereala sartu zan, eta bere oñetan auzpeztu zan.

26. Zeren andre au zan jentilla, Sirofenisako erreinukoa. Eta erregututzen zion, arren bere alabagandik demonioa aurtiki zezala.

27. Jesusek esan zion: itxedon ezazu, aurrena semeak ase ditezela, zeren ez dan ongi egiña, semeen ogia artu, eta txakurrai aurtikitzea.

28. Eta andreak erantzun zuen, eta esan zion: Ala da, Jauna; baña txakurtxoak ere, maiaren azpian semeai erortzen zaiezen ogi apurrak jaten dituzte.

29. Eta Jesusek esan zion: Esan dituzun, itzakgatik zoaz, zeren demonioa zure alabagandik irten dan.

30. Eta bere etxera joan zanean, arkitu zuen neskatxa zetzala oearen gañean, eta demonioa irten zala.

31. Eta berriz, irtenik Tiroko alderrietatik, etorri zan Sidondik Galileako itsasora, Dekapolisko lurretik iragotzen zala.

32. Eta gizon gor, eta mutu bat eramaten diote, eta erregututzen zioten, arren bere eskua bere gañean jarri zezala.

33. Eta alde erazitzen ziola jendetzagandik, bere beatzak belarrietan sartu ziozkan, eta istuarekin gizonaren mingañari ukitu zion.

34. Eta zerura begiratzen zuela, suspirio bat egin zuen, eta esan zion: Effeta, zeñak esan nai duen, idiki zaitetze.

35. Eta bereala bere belarriak idiki zitzaiozkan, eta askatu zitzaion mingañan zeukan eragozketa, eta argiro itz egiten zuen,

36. Eta agindu zien, iñori ere etzitzaiotela esan. Baña zenbat geiago agintzen zien, anbat geiago zabaltzen zuten:

37. Eta anbat geiago miresten ziran, esaten zutela: Guztia ongi egin du: gorrai adituerazi die, eta mutuai itz eginerazi.



## ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Egun aietan berriz, jendetza andi bat Jesusen inguruan arkiturik, eta ez idukirik zer janik, ots eginik bere ikasleai, esan zien:
2. Jendetza onekin urrikaltzen naiz, zeren onezkero iru egun dirade nerekin daudela, eta zer janik ez daukate.
3. Eta beren etxeetara baraurik bialtzen badituzte, bidean desalaituko dirade, zeren beretatik batzuek urrutitikan etorri dirade.
4. Eta bere ikasleak erantzun zioten: Nola iñork ere bakartade onetan jendetza oiek ogiz ase ditzake?
5. Eta berak galdetu zien: Zenbat ogi daukazute? Berak erantzun zioten: Zazpi.
6. Orduan agindu zion Jesussek jendetzari, lurraren gañean eseri zedilla. Eta arturik zazpi ogiak, eskerrak ematen ari zala, zatitu zituen, eta bere ikasleai ematen ziezten jendetzarentzat, eta berak jendetzari eman ziezten.
7. Arraitxo gutxi batzuek ere bazeuzkaten, eta bedeikatu zituen, eta agindu zuen jendetzari emateko.
8. Eta jan zuten, eta ase ziran, eta gelditu ziran zatiakin zazpi saski bete zituzten.
9. Eta jan zutenak lau milla bezelatsu izan ziran, eta bialdu zituen.
10. Eta bereala sarturik ontzian bere ikaslakin, Dalmanutako aldamenetara etorri zan.
11. Eta atera ziran Fariseoak, eta asi ziran elean berarekin eskatzen ziotela, egin zitzaizela zeruko mirariren bat, tentatzen zutela.
12. Baña Jesussek bere biotzaren barreratik zizpuru bat eginik, esan zuen: Gizon arraza onek mirari bat zergatik eskatzen ote du? Egiaz esaten dizutet, jende orri miraria etzaiola emango.
13. Eta utzitzen zituela, berriz ontzian sartu zan, eta itsasoaren beste aldamenera joan zan.
14. Eta ogiak artzea aztu zitzaizoten, eta ogi bakar bat baizik berakin ontzian etzeukaten.
15. Eta kontuan ipintzen zituen Jesussek, esaten zuela: Begiratu ezazute, eta Fariseoen legamitik, eta Herodesen legamitik alde egin ezazute.
16. Eta berak beren artean gogorazioak zerabiltzeten, esaten zutela: Alaxe dek, etziagu ogirik.
17. Ezaguturik au Jesussek, esan zien: Zertarako daukazute gogorazioak, ogirik ez daukazutela? Oraindik ez al dezute ezagutzen, ez konprenditzen? Oraindik zuen biotza illundua al daukazute?
18. Begiak daukazutela ez al dezute ikusten? Belarriak daukazutela ez al dezute aditzen? Ez al zerate ere oroitzen,

19. Nola bost ogi txikitu nituen, eta bost milla gizoni eman niezten? Zenbat saski, gelditu ziran ogi zatiz beteak bildu ziniituzten orduan? Berak esaten diote: Amabi.

20. Eta zazpi ogi lau millaen artean partitu nituenean, zenbat saski, gelditu ziran ogi zatiz bete zinduzten? Esaten diote: Zazpi.

21. Eta esaten zien: Nola ez dezute konprenditzen esaten nizutena?

22. Eta Betsaidara etortzen dirade, eta itsu bat eramaten diote, eta erregutuzten zioten ukitu zaiola.

23. Eta itsuaren eskuari eldurik, erritik kanpora atera zuen, eta istua begietan aurtigirik, bere eskuak gañean jarririk, galdetu zion, ezerere ikusten ote zuen.

24. Eta begiraturik, esan zuen: ikusten ditut dabiltzala gizon batzuek, zeñak zuaitzak bezelakoak iruditzen zazkidan.

25. Gero berriz jarri ziozkan bere eskuak bere begien gañean, eta asi zan ikusten, eta itzuli zitzaion alako moduan, non, gauza guztiak argiro ikusten zituen.

26. Eta bere etxera bialdu zuen, esaten ziola: Zoaz zure etxera, eta errian sartzen bazera, iñori ere etzaiozu esan.

27. Eta atera ziraden Jesus, eta bere ikasleak Filiporen Zesareako errietara, eta bidean bere ikasleai galdetzen zien, esaten ziola: Zeñ naizala ni gizonak esaten dute?

28. Berak erantzun zioten, esaten zutela: Batzuek esaten dute zerala Juan Bautista, beste batzuek Elias, beste batzuek berriz, anziñako profetaetatik bat bezelakoa.

29. Orduan esan zien: Zuek berriz, zeñ naizala ni esaten dezute? Pedrok erantzuten zuela, esan zion: Zu Kristo zera.

30. Eta txit gogorgiro galerazi zien, onelakorik beragatik iñori ere esatea.

31. Eta asi zan berai erakutsiak ematen, nola bear zan gizonaren semeak atsekabeak iragotzea, eta izan bear zala zarrak, eta apaizburuak, eta Eskribak aurtikia; eta izan bear zala illa, eta iru egunen buruan berriz biztua izan bear zala.

32. Eta onen gañean txit argiro itz egiten zuen. Eta arturik Pedrok Jesus berezian, errierta egiten asi zitzaion.

33. Baña Jesussek itzulirik Pedroren kontra, eta bere ikasleai begiraturik, errierta andiak egin ziozkan Pedrori, esaten zuela: Kendu akit aurretik Satanas, zeren ez aizan gozaten Jaungoikoaren gauzaetan, gizonenentan baizik.



34. Gero bildurik jendetza bere ikasleakin, esan zien: Baldin iñork jarraitu nai badit, ukatu bedi bera, eta bere gurutzea artu beza, eta jarraitu bizat.

35. Zeren bere anima salbatu nai duenak, galduko du; nigatik eta ebanjelioagatik bere anima galtzen duenak berriz, salbatuko du.

36. Zeren, zer balioko dio gizonari mundu guztia irabazteak, bere animari kalte egiten badio?

37. Eta bein galtzen badu, zeren trukadan berriz bere anima beretu-ko du?

38. Nigatik eta nere dotrinagatik lotsatzen dana, erreñu adultero eta pekatari onen erdian, orobat gizonaren semea berarekin lotsatuko da, ain-geru santuak lagun dituela bere Aitaren glorian datorrenean.

39. Eta gañera esaten zien: Egiaz esaten dizutet, emen daudenetatik batzuek ez dirala ilko, Jaungoikoaren erreñuaren etorrera bere anditasu-nean ikusi dezaten artean.

### BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta sei egun geroago artu zituen Jesusek berarekin Pedro, eta Santiago eta Juan, eta eraman zituen bakarrik mendi goratu batera, toki bere-zi batera, eta beren aurrean beste irudi bat artu zuen.

2. Alako moduan, non, bere soñekoak agertu ziran txit argitsuak, eta zuritasunik andienarekin elurra bezela; ain zuriak, non, munduko lisibera eta garbitzallak ez ditzakean ain zuri jarri.

3. Eta agertu zitzaizoten Elias Moisesekin, eta Jesusekin itzketan ari ziran.

4. Eta izketan asirik Pedro, Jesusi esan zion: Jauna, ongi da gu emen egotea, eta egin ditzagun iru bizileku, zuretzat bat, eta Moisesentzat beste bat, eta Eliasentzat beste bat.

5. Zeren etziekien zer esaten zuen: zeren beldurrez ikaratuak zeuden.

6. Eta onetan egin zan odei bat, zeñak estali zituen, eta odeitik eto-rrri zan boz bat, esaten zuena: Au da nere seme txit maitea, bera aditu eza-zute.

7. Eta bereala aldamen guztietara inguruan begiratzen zutela, etzuten ikusi berakin iñor ere, Jesus bakarrik baizik.

8. Eta berak menditik jexitzen ziradela, Jesusek agindu zien, iñori ere etzaiozkatela kontatu ikusi zituzten gauzak, baizik gizonaren semea illen artetik biztutzen zanean.

9. Eta itza berakgan gorde zuten, eta zebiltzan jakin nairik zer adi-tzen ote zuten itz oiek: illen artetik biztutzen danean.

10. Eta galdetzen zioten, esaten zutela: Nola bada Eskribak eta Fari-soak esaten dute, Eliasek lenago etorri bear duela?

11. Eta berak erantzun zien: Elias egiaz etorriko da nere bigarren eto-rrera baño lenago, eta gauza guztiak beren tokietan jarriko ditu, eta gizo-naren semeagatik eskribatua dagoan bezela, asko padezituko du, eta gutxitan idukia izango da.

12. Baitaere esaten dizutet Elias etorria dala (eta berarekin nai zuten guztia egin zuten) beragatik eskribatua dagoan bezela.

13. Eta bere ikasleakgana etorriko, jendetza andi bat beren aldean ikusi zuen, eta Eskribak berakin ezbaian.

14. Eta bereala erri guztia, Jesus ikusirik arritu zan, eta izutu ziraden, eta korrika beragana joanik, diosal egiten zioten.

15. Eta berak galdetu zien: Zeren gañean zuen artean ezbaian ari ziñaten?

16. Eta jendetzako batek erantzuten zuela, esan zuen: Erakuslea, eka-rrri det zugana nere seme, espirtu mutua daukana:

17. Zeñak arrapatzen duen edozeñere tokitan lurraren kontra aurti-kitzen du, eta aotik bitsa dariola jartzen du, eta ortzkarraskotska ari oi da, eta sikatuaz dijoa, eta zure ikasleai esan nien demonioa aurtiki zezatela, eta ezin aurtiki izan zuten.

18. Jesusek erantzuten ziela, esan zien: O jende sinisgogorra! Noiz-arteraño zuekin egongo naiz? Noizarteraño sufrutuko zaituztet? Nigana ekarri zadazute.

19. Eta ekarri zuten. Eta Jesusek ikusi zueneko, bereala espirtuak mutilla nastu zuen, mugimendu gogorretan zerabillala; eta aurtikirik lurraren kontra, bitsa zeriola jiran zebillan.

20. Eta Jesusek bere aitari galdetu zion: Zenbat denbora da berari au gertatzen zaiola? Eta berak esan zuen: Aur denboratik,

21. Eta maiz sutara eta uretara aurtiki du, bera galtzeko, baño baldin ezertxoere badezakezu, lagundu zaguzu, gurekin urrikaltzen zerala.

22. Eta Jesusek esan zion: Sinistu badezakezu, sinistzen duenak gauza guztiak egin ditzake.

23. Eta bereala mutillaren aita negarrez deadar egiten zuela, esaten zuen: O Jauna! Nik sinistzen det. Nere sinisgogortasunari zuk lagundu zaiozu.

24. Eta ikusirik Jesusek jendetza zetorrela, keñatu zuen espirtu zikiña, esaten ziola: Espirtu gor, eta mutua, nik agintzen dikat, mutil one-gandik irten adi, eta ez adi berriz beronegan sartu.



25. Eta deadar andi bat eginik, eta txit izugarrero gaztea oñazetzen zuela, beragandik irten zan, illa bezela utzitzen zuela, alako moduan, non, askok esaten zuten: illa zeagok.

26. Baña Jesusek bere eskutik eltzen ziola, jaso zuen, eta jaiki zan.

27. Eta Jauna etxean sartu zanean, bere ikasleak isiltxorikan galdeztzen zioten: Zergatik guk ezin aurtiki izan degu?

28. Eta esan zien: Arraza au ezerekin ere ezin irten lezake, orazioarekin eta barauarekin baizik.

29. Eta andik joaten ziradela, irago zuten Galileako lurra; eta etzuen nai inork ere ezagutu zezala.

30. Eta bitartean bere ikasleak erakutsiak ematen ziozkaten, eta esaten zien: Gizonaren semea gizonen eskuetan jarria izango da, eta ilko dute, eta ilda gero irugarren egunean biztuko da.

31. Berak berriz, etzuten konprenditzen egiten zien izketa, eta beldur ziran berari galdetzen.

32. Eta Kafarnaumera allegatu ziran. Eta etxean zeudenean, galdegin zien: Bidean zeren gañean itz egiten zenduten?

33. Berak berriz, isillikan zeuden; zeren bidean beren artean ezbaia iduki zuten, beretatik zeñ andiagoa ote zan.

34. Orduan Jesusek eseritzen zala, ots egin zien amabaiak, eta esan zien: Baldin inork nai badu, lenengoa izan, guztien atzenengoa, eta guztien mendekoa izango da.

35. Eta artzen zuela mutiltxo bat, beren erdian jarri zuen, eta beroni laztan bat eginda, esan zien:

36. Aur oietatik bat nere amorioz artzen duenak, ni artzen nau, eta ni artzen nauenak, ez nau ni artzen, baizik ni bialdu ninduena.

37. Erantzun zion Juanek, esaten zuela: Erakuslea, ikusi degu, guri jarraitzen ez digun gizon bat, zure izenean demonioak aurtikitzen ari dala, eta galerazi diogu.

38. Eta Jesusek esan zion: Etzaiozute galerazi, zeren nere izenean mirariak egiten dituenak, ezin esango du gaizki laster nigatik.

39. Zeren zuen kontra ez dagoana, zuen alde dagoan.

40. Eta nere izenean baso bete ur zuei ematen dizutenak, Kristorenak zeratelako, egiaz esaten dizutet, bere ordaña ez duela galduko.

41. Eta nigan sinisten duten aurtxo oietatik bat bakararra ere eskandalizatzen duenari, obe litzαιο, asto batek mugitzen duen errotarri bat bere lepoan lotu, eta itsasora aurtikiko balute.

42. Eta baldin zure eskuak eskandalizatzen bazaitu, ebaki ezazu. Obe dezu esku txanguarekin betiko bizitzan sartzea, bi esku daukazula joatea baño infernura, itzali ez ditekean sutara,

43. Non beren arra ez dan iltzen, eta sua ez dan itzalitzen.

44. Eta baldin zure oñak eskandalizatzen bazaitu, ebaki ezazu. Obe dezu maki zaudela sartu zaitezela betiko bizitzan, bi oin daukazula itzali ez ditekean suzko infernura aurtikia izatea baño,

45. Non beren arra ez dan iltzen, eta sua ez dan itzalitzen.

46. Eta baldin zure begiak eskandalizatzen bazaitu, atera ezazu. Obe dezu begi batekin Jaungoikoaren erreinuan sartzea, bi begi daukazula suzko infernura aurtikia izatea baño,

47. Non beren arra ez dan iltzen, eta sua ez dan itzalitzen.

48. Zeren guztia suaz gazitua izango dan, eta doañ guztia gatzarekin gazitua izango dan.

49. Gatza ona da, baña baldin gatza gezatzen bada, zerekin gazituko da? iduki ezazute gatza zuekgan, eta zuen artean pakea iduki ezazute.

## AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta andik alde egiten zuela, Judeako mugetara, Jordango beste aldamera etorri zan, eta berriz ere jendetzak beragana bildu ziran, eta egin oi zuen bezela, berriz ere erakutsiak ematen ari oi zan.

2. Eta alderatzen ziradela Fariseoak, galdetzen zioten: Zillegi al zaio senarrari emaztea utzitzea? Bera tentatzen zutela.

3. Eta berak erantzuten zuela, esan zien: Moisesek zer agindu zizuten?

4. Berak erantzun zuten: Moisesek laketu zuen, utzitakoaren agiria eskribuz eman, eta utzitzea.

5. Zeñai erantzuten ziela Jesusek, esan zuen: Zuen biotzeko gogortasunagatik eskribatu zizuten aginte au.

6. Baña asieran Jaungoikoak egin zituenean, gizon bakar bat, eta andre bakar bat egin zituen.

7. Argatik gizonak utziko ditu bere aita, eta bere ama, eta bere emaztearekin bilduko da,

8. Eta aragi batean bi izango dirade. Alako moduan, non, onezkero ez dirade bi, baizik aragi bat.

9. Jaungoikoak bada bildu zuena, ez beza gizonak berezitu.

10. Eta etxean berriz bere ikasleak gauza onen beronen gañean galdetu zioten.





11. Eta berak esan zien: Bere emaztea utzi, eta beste batekin ezkonzen danak, bere andrearen kontra adulterioko bekatua egiten du.
12. Eta emazteak bere senarra utzitzen badu, eta beste gizon batekin ezkontzen bada, adultera da.
13. Eta aurrean jartzen zaiozkaten aurtxoak, berai ukitu zitzairen. Ikasleak berriz ekartzen zituztenai errieta egiten zien.
14. Zeñak Jesusek ikusi zituenean, gaizki eraman zuen, eta esan zien: Utzi zaiezute aurtxoai nigana etortzen, eta etzaiezute galerazi, zeren Jaungoikoaren erreñua alakoena dan.
15. Egiaz esaten dizutet, artzen ez duena Jaungoikoaren erreinua aurrak bezela, ez dala an sartuko.
16. Eta laztantzen zituela, eta beren gañean eskuak ipintzen zituela, bedekatzten zituen.
17. Eta atera zaneko bidean jartzeko, etorri zan korrika gizaseme bat, eta bere oñetan belaunikoturik, galdetu zion: Erakusla ona, zer egin bear det betiko bizitza iritxitzeko?
18. Eta Jesusek esan zion: Zergatik ona esaten didazu? Ez dago inor ere onik, Jaungoikoa bakarrik baizik.
19. Aginteak badakizkizu: Ez ezazu adulterioko bekatuak egin, ez ezazu inor il, ez ezazu lapurretarik egin, etzaiozu inori gezurrik asmatu, etzaiozu inori gaitzik egin, zure aita eta ama onratu itzatzu.
20. Eta berak erantzuten zuela, esan zion: Erakuslea, gauza guzi oriek nere gazte denboratik zaitu ditut.
21. Eta Jesusek, jarririk adi adi berari begira, maitatu zuen, eta esan zion: Oraindikan beste gauza bat bear dezu: zoaz, daukazun guztia saldu ezazu, eta beartsuai eman zaiezu, eta zeruan tesoro bat idukiko dezu: eta atoz gero, eta darraidazu.
22. Zeñ tristeturik itz onekin, txit atsekabetua joan zan: zeren ondasun andien jabe zan.
23. Eta ezarririk Jesusek begirakune bat bere inguruetara, bere ikasleai esan zien: zer nekez ondasun andiak dauzkatenak Jaungoikoaren erreinuan sartuko ote diraden!
24. Ikasleak, alako itzak adituta arrituak gelditu ziran. Baña Jesusek, berriz izketan asita, esan zien: Nere semetxoak, zer gauza gaitza dan, diruetan itxedotzen dutenak Jaungoikoaren erreñuan sartzea!
25. Errazago da gamelu bat jostorrazt baten zulotik iragotzea, aberats bat Jaungoikoaren erreñuan sartzea baño.
26. Onenbesterekin geiago miresten ziran, beren artean esaten zutela: Zeñ ote da bada, salbatu ditekeana?

27. Eta Jesusek begiratzten ziela, esan zuen: Gizonentzat au eziña da, baña ez Jaungoikoarentzat, zeren Jaungoikoak gauza guztiak egin ditzake.
28. Eta Pedro asi zitzaion esaten: Ona non guk gauza guztiak utzi ditugu, eta jarraitu dizugu.
29. Jesusek erantzuten zuela, esan zuen: Egiaz esaten dizutet, inor ere ez dagoala utzi duenik etxea, edo anaiak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo semeak, edo kanpolurrak nigatik, eta Ebanjelioa gatik,
30. Zeñak orain mundu onetan, eta persekuzioen artean artzen ez duenik eunetan anbat, utzi dituen etxeak, eta anaiak, eta arrebak, eta gurasoak, eta semeak, eta soroakgatik, eta beste munduan betiko bizitza.
31. Baña lenengoak izan diraden asko, izango dirade atzenekoak; eta atzenekoak izan diraden asko, izango dirade lenengoak.
32. Eta zeuden bidean Jerusalemara igotzen ziradela, eta Jesus aurreratutzen zitzairen, eta bere ikasleak arrituak bezela zeuden, eta beldurrez beterik jarraitzen zioten: Eta berriz arturik berezian amabiak, asi zan berai esaten, zertzuk gertatuko zitzaiezten.
33. Gu, esan zien, goaz, ikusten dezuten bezela, Jerusalemara, non gizonaren semea izango dan, apaizburuen, eta eskribaen, eta zarren mendean jarria, zeñak eriotzara kondenatuko duten, eta jentillai emango die.
34. Eta iseka egingo diote, eta istua aurtikiko diote, eta azotatuko dute, eta bizia kenduko diote, eta irugarren egunean biztuko da.
35. Eta orduan alderatzen dira beragana Santiago eta Juan Zebedeoren semeak, esaten dutela: Erakuslea, nai degu eskatzen dizugun guztia egin dizaguzula.
36. Eta berak esan zien: Zer nai dezute, egin dizazutedan?
37. Eta esan zuten: Eman zaguzu bata zure eskuiean, eta bestea zure eskerrean eseriak egon gaitzela zure glorian.
38. Jesusek berriz, esan zien: Ez dakizute zer eskatzen dezuten, edan badezakezute nik edaten dedan kaliza, edo ni bataiatua naizan bataioarekin, bataiatuak izan bazintezke?
39. Eta berak esan zioten: Badezaguke. Jesusek berriz esan zien: Nik edaten dedan kaliza, edango dezute, eta ni bataiatua naizan bataioarekin bataiatuak izango zerate;
40. Esertzea ordea nere eskuiean, edo ezkerrean, ez dagokit neri ematea zuei, baizik prestatu zaiotenai.
41. Eta aditurik au amarrak, asi ziran Santiago eta Juangatik aserretzen.
42. Jesusek berriz, ots egiten ziela, esan zien: Badakizute, erreinuai agintzeko eskubidea daukatenak, aiek mendean dauzkatela, eta beren prinzipeak beren gañean agintaritzatza daukatela.





43. Zuen artean berriz, ez da alan izan bear; baizik andiagoa izan nai duena, zuen serbitzaria izango da.

44. Eta zuen artean lenbizikoa izan nai duena, guztien mendekoa izango da.

45. Zeren gizonaren semea ere etzan etorri bera serbitua izatera, baizik serbitzera, eta askoren erredenzioagatik bere bizitza ematera.

46. Eta etorri ziran Jerikora, eta irtetzen ziradela Jerikotik bera, eta bere ikaslak, eta jendetza andi bat, Bartimeo itsua, Timeoren semea, zegoan eseria bidearen aldean eskaletzan.

47. Aditurik bada onek, Jesus Nazarenoa zala zetorrena, asi zan deadarrez, eta esaten: Jesus Dabiden semea, nizaz urrikaldu zaitte.

48. Eta askok errierta egiten zion ixildu zedin. Berak berriz, deadar andiagok egiten zituen, esaten zuela: Dabiden semea, nizaz urrikaldu zaitte.

49. Eta zegoala Jesus zutik geldirik, agindu zuen ots egin zaiela. Eta ots egiten diote itsuari, esaten diotela: Poztu zaitte, jaiki zaitte, ots egiten dizu.

50. Bera, aurtikirik bere kapa, bereala zutik jarri zan, eta etorri zan Jesusgana.

51. Eta Jesusek esan zion: Zer nai dezu egin dizazudan? Eta itsuak esan zion: Erakuslea, nik ikusi dizadala.

52. Eta Jesusek esan zion: Zoaz, zure fedea da sendatu zaituena. Eta bereala ikusi zuen, eta bidetik jarraitzen zion.

### AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta alderatu ziradenean Jerusalemenera, eta allegatu ziradenean Betaniara Oliboen mendi ondoan, bialtzen ditu bere ikasleetatik bi,

2. Eta esaten die: Zoazte zuen aurkez dagoan etxadi orretara, eta an sartzen zeratela, bereala arkituko dezute lotuta astotxo bat, zeñaen gañean oraindano inor ez dan eseri. Askatu ezazute, eta ekarri zadazute.

3. Eta inork ere esango balizute: Zer egiten dezute? Esan zaiozute, Jaunak onen premia daukala eta bereala onara ekartzen utziko dizute.

4. Eta joaten ziradela arkitu zuten asto bat lotuta kanpoan ate baten aurrean bibida batean, eta askatu zuten.

5. Eta an zeudenetatik batzuek esan zien: Zer egiten dezute astoa askatzen dezutela?

6. Berak erantzun zien Jesusek agindu zien bezela, eta utzi zien eramaten.

7. Eta ekarri zuten astoa Jesusgana, eta beren soñekoak astoaren gañean jarri zituzten, eta Jesus bere gañera igo zan.

8. Eta askok beren soñekoak bidean zabaltzen zituzten, eta beste batzuek zuaitzetako adar ostodunak ebakitzen zituzten, eta aurtikitzen zituzten bidean.

9. Eta aurretik zijozanenak, eta berari jarraitzen ziotenak deadar egiten zuten, esaten zutela: Hosanna.

10. Bedekatua Jaunaren izenean datorrena, bedekatua gure aita Dabiden erreinu, datorrela ikusten deguna, hosanna zeruetako tokirik goratuenetan.

11. Eta joan zan Jerusalemenera eta sartu zan tenploan. Eta ikusirik inguru artako gauza guztiak, ordu berandua nola zan, amabiakin Betaniara irten zan.

12. Eta beste egunean Betaniatik irtetzen ziradela, gose izan zan.

13. Eta ikusirik urrutitikan piku, ostoak zeuzkan bat, zuzendu zan beraganontz, ikusteko ezerere arkitzen ote zuen, eta pikora allegaturik etzuen ezerere arkitu, ostoak baizik, zeren piku denbora etzan.

14. Eta itz egiten ziola pikuari, esan zion: Onezkero inoizere inork igandik fruturik ez al dik jango. Eta bere ikasleak aditzen zuten.

15. Eta Jerusalemenera etorri ziraden. Eta tenploan sartu zanean, asi zan aurtikitzen, tenploan saltzen eta erosten zeudenak, eta diru ganbarien maiak, eta usoak saltzen zituztenen esertokiak zatitu zituen.

16. Eta etzuen utzitzen inork ere tenploan eraman zezala ezerere aldamen batetik bestera.

17. Eta erakutsiak ematen ziezten, esaten ziela: Ez al dago eskribitua, nere etxeari jende guziak orazioko etxearen izenarekin deituko diotela? Zuek berriz, lapurren ezkutatoki egin dezute.

18. Au aditurik, apaizburuak eta Eskribak, bera nola galduko ote zuten asmazioetan zebiltzan, zeren bere beldur ziran, zergatikan jendetza guztia bere dotrinarekin mirestua zegoan.

19. Eta berandutu zanean, erritik irten zan.

20. Biaramon goizean ikasleak ikusi zuten, pikua sustraiz igartu zala.

21. Eta oroitzen zala Pedro, esan zion: Erakuslea, ona non zuk mada-rikatu zenduen pikua, igartu dan.

22. Eta Jesusek erantzuten ziela, esan zien: Jaungoikoagan itxedope-na iduki ezazute.

23. Egiaz esaten dizutet, edozeñek esango balio mendi oni: Ken adi ortikan, eta itsasora aurtiki adi, bere biotzean zalantzan ez badago, baizik sinistzen badu, esaten duen guztia, egingo dala, ala egingo zaio.



24. Argatik esaten dizutet, orazioan eskatzen dezuten guztia, sinistu ezazute artuko dezutela, eta guztia emango zazutela.

25. Eta orazioan zaudetenean, norbaiten kontra ezertxoere badaukazute, aurrena barkatu zaiozute, zuen Aita zeruetan dagoanak ere, zuen bekatuak barkatu ditzatzuten.

26. Zeren baldin zuek barkatzen ez badezute, zuen Aita zeruetan dagoanak ere, zuen bekatuak ez dizkizute barkatuko.

27. Eta berriz Jerusalemara etorri ziran. Eta tenploan zebillala, apaizburuak, eta Eskribak, eta zarrak alderatu zitzaizkan,

28. Eta esaten diote: Zer eskubiderekien oiek egiten dituzu? Eta nork eman dizu eskubide au, gauza oiek egiteko?

29. Eta Jesusek erantzuten zuela, esan zien: Nik ere zuei galde bat egingo dizutet, eta artara erantzun zadazute, eta gero esango dizutet, zer eskubiderekien gauza oiek egiten ditudan.

30. Juanen bataioa, zerutikoa zan, ala gizonakgandikoa? Erantzun zadazute.

31. Eta berak beren artean gogorazioetan zeuden, esaten zutela: Esaten badiogu, zerutikoa, esango du: Zergatik bada etziñioten sinistu?

32. Esaten badegu, gizonakgandikoa, erriaren beldur gera, zeren guztiak sinistzen zuten, Juan profeta egiazkoa izan zala.

33. Eta erantzuten zutela, Jesusi esaten diote: Ez dakigu. Eta erantzuten zuela Jesusek, esan zien: Bada nik ere ez dizutet esango, zer eskubiderekien gauza oiek egiten ditudan.

### AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta asi zan berai paraboletan itz egiten: Gizon batek masti bat ipiñi zuen, eta esiz ingurutu zuen, eta aitzurtuta, egin zuen an dolare bat, eta dorre bat egin zuen, eta maizter batzuei bereñgan eman zien, eta urrutira joan zan.

2. Eta bere denboran morroi bat bialdu zuen maizterrakgana, mastiaren frututik maizterrakgandik errenta artzeko.

3. Berak eltzen ziotela, makillaka zauritu zuten, eta bialdu zuten esku utsakin.

4. Eta berriz beste morroi bat berakgana bialdu zuen, eta au ere buruan zauritu zuten, eta bete zuten irriz.

5. Irugarren aldiz beste morroi bat bialdu zuen, eta au il zuten, eta onen ondoan beste asko ere, batzuek zauritzen zituztela, beste batzuek iltzen zituztela.

6. Oraindikan bada, idukirik seme bakar bat txit maitatzen zuena, hura ere atzenean berakgana bialdu zuen, esaten zuela: Nere semeari bederik lotsaz begiratuko diote.

7. Maizterrak ordea ikusi zutenean bazetorrela, elkarri esan zioten: Au nagusiaren oñordekoa dek, ots, il dezagun, eta ondadea guretzat izango da.

8. Eta arrapatzen zutela, il zuten, eta mastitik kanpora lendanaz atera zuten.

9. Zer egingo du bada mastiaren jabeak? Etorriko da, eta maizterrak galduko ditu, eta beste batzuei mastia emango die.

10. Ez al dezute irakurri Eskritura santak esaten duen au: Etxea egiten ari ziradenak aurtiki zuten arria, gai etzalakoan, arkantoin nagusiena izatera etorri zan.

11. Jauna da ori egin zuena, eta alako miraria gure begiakik ikusten gaude?

12. Eta bera arrapatzeko asmazioetan zebiltzan, baña erriaren beldur ziran, zeren ezagutu zuten berakgana parabola au zuzendu zuela, eta utzirik bera, joan ziran.

13. Eta bialdu zituzten beragana Fariseoetatik, eta Herodestarretik batzuek, itzen batean arrapatu zezaten.

14. Zeñak etortzen diradela, esaten diote: Erakuslea, guk badakigu egiatia zerala, eta bakoitza zeñ dan ez dezula begiratzen, eta ez oi zera ere egoten gizonen arpegia ikusten, baizik Jaungoikoaren bidea egian erakusten dezu, zillegi al da kotiza Zesarri ematea, ala ez diogu emango?

15. Jesusek jakinik aien gaiztakeria, esan zien: Zergatik tentatzen nazute? Ekarri zadazute dirua, ikusi dezadan.

16. Eta berak ekarri zioten, eta Jesusek esan zien: Zeñaena da irudi au, eta zeñaenak letra oiek? Esaten diote: Zesarrenak.

17. Eta Jesusek erantzuten zuela, esan zien: Pagatu zaiozute bada Zesarrena dana, Zesarri; eta Jaungoikoarena dana Jaungoikoari. Eta onegatik miresten ziran.

18. Eta etorri ziraden beragana Sadduzeoak, zeñak esaten duten ez dagoala biztutze berririk, eta galdetzen zioten, esaten zutela:

19. Erakuslea, Moisesek agindu zigun eskribuz, norbaiten anaia iltzen bada, bere emaztea Semerikan gabe utzitzen duela, bere anaiak artu dezala il zan anaiaren emaztea, bere anaiaren jatorria biztu dezan.

20. Baziraden bada zazpi anaia. Nagusiena ezkondu zan, eta il zan semerikan utzi gabe.



21. Eta bigarren anaiak artu zuen lenbizikoaren emaztea, eta il zan, eta onek ere etzuen semerik utzi. Orobat irugarrenari gertatu zitzaion.
22. Eta orobat zazpi anaiak ezkondu ziran emakume arekin. Eta batek ere etzuen semerik iduki. Guztien atzenez andrea il zan.
23. Orain bada, biztutze berrian, berriz biztutzen diradenean, oieta-tik zeñaren emaztea izango da? Zeren andrea zazpiren emaztea izan zan.
24. Eta erantzuten zuela Jesusek, esan zien: Ez al dezute ikusten argatik uts egiten dezutela, ez dakizutelako eskriturarik, eta ez daukazute-lako Jaungoikoaren eskubidearen berririk?
25. Zeren illen artetik biztutzen diradenean, ez gizonak artuko dute emazerik, ez emakumeak senarrik, baizik zeruetan aingueruak bezela izan-go dirade.
26. Orain bada, biztuko diraden illen gañean, ez al dezute irakurri Moisesen liburuan, nola Jaungoikoak itz egiten zuela berarekin sasia, esan zion: Abrahamen Jaungoikoa, eta Isaaken Jaungoikoa, eta Jakoben Jaungoikoa ni naiz?
27. Ez da illen Jaungoikoa baizik biziena.
28. Izketa oiek aditzen egon zan Eskribaetatik bat, ikusirik zeñ ongi erantzun zien, alderatu zan Jesusgana, eta galdetu zion, aginte guztien artean aurrena zeñ ote zan.
29. Eta Jesusek erantzun zion: Aginte guztien artean aurrena au da: Aditu ezazu, o Israel, zure Jaun Jainkoa, Jaungoiko bakarra da,
30. Eta ala maitatuko dezuz zure Jaun Jainkoa zure biotz guztitik, eta zure anima guziarekin, eta zure indar guziakin. Lenengo agintea au da.
31. Bigarrena berriz, onen antzekoa da: Maitatuko dezuz zure lagun urkoa zu zerori bezela. Oiek baño aginte andiagorik besterik ez dago.
32. Eta Eskribak esan zion: Ongi Erakuslea, egia guziarekin esan dezuz, Jaungoikoa bat bakarra dala, eta bera baño besterik ez dagoala.
33. Eta maitatzeak bera biotz guztitik, eta anima guziarekin, eta indar guziakin, eta maitatzeak lagun urkoa norbera bezela, holokausto eta eskeñtza guztiak baño geiago balio duela.
34. Ikusirik Jesusek, jakintzuro erantzun zuela, esan zuen: Jaungoi-koaren erreinutik etzera urrutian arkitzen. Eta onezkero iñor ere etzan ausartzen berari galderik egiten.
35. Eta Jesusek tenploan izketan ari zala, eta erakutsiak ematen zitue-la, esaten zuen: Eskribak nola esaten dute, Kristo Dabiden semea dala?
36. Zeren Dabidek berak Espiritu Santuak arkituta, esaten du: Jaunak nere Jaunari esan zion, nere eskuian eseri zaite, aliketa zure etsiak zure oñetako oloinpe eginik jarri ditzadan bitartean.

37. Baldin bada Dabidek bere Jauna ots egiten badio, nondik edo nola bere semea da? Eta jendetza andiak bozkarioz aditzen zion.
38. Eta bere erakutsietan esaten zien: Alde egin ezazute kontuz Eskribakgandik, zeñak nai duten ibilli soñeko ederrakin, eta plazan dio-salak egin dizaiezuela,
39. Eta sinagoketan lenbiziko tokietan eseri, eta jateketetan aurrene-ko esertokietan egon,
40. Zeñak andre alargunen etxeak iresten dituzten, berakgatik erregu luzeak egiten dituztelako aitzakiarekin. Oiek gogortasun andiagorekin kastigatuak izango dirade.
41. Eta zegoala bein batean Jesus eseria eskeñtzen kutzaren aurkez, begiratzen zuen nola jendeak dirua kutzara aurtikitzen zuen, eta asko abe-ratsek diru asko botatzen zuen.
42. Eta etorririk andre alargun beartsu bat, bota zituen bi zuriko, zeñak ardit bat egiten duten,
43. Eta bere ikasleai ots eginik, esan zien: Egiaz esaten dizutet, andre alargun beartsu onek beste guztiak baño geiago, eskeñtzen kutzara bota duela.
44. Zeren beste guztiak, ugari zeukatenetik bota dute; andre onek berriz, bere premian zeukana, berak jateko bear zuen guztia bota du.

### AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta tenplotik ateratzen zala, bere ikasleetatik batek esan zion: Era-kuslea, begiratu ezazu nolako arriak, eta nolako paretak oiek.
2. Eta erantzuten zuela Jesusek, esan zion: ikusten dituzuz, pareta andi, eta eder guzti oiek? Ez da utziko arririk arriaren gañean, desegiaña izan gabe.
3. Eta zeudela eserita oliboen mendian, tenploaren aurkez, Pedrok, eta Santiagok, eta Joanek, eta Andresek galdetzen zioten:
4. Esan zaguzuz: noiz gertatuko dirade oiek? Eta zer siñale egongo da, gauza guzti oiek kunplitzeko zorian daudela jakiteko?
5. Eta erantzuten ziela Jesusek, asi zan berai esaten: Begiratu ezazu-te iñork ere engañatu etzaitzate.
6. Zeren nere izenean asko etorriko dira, esaten dutela: Ni Mesias naiz, eta mirari gezurrezkoakin asko engañatuko dituzte.
7. Aditzen dezutenean, izan bear dutela gerrak, eta dabiltzala gerra otsak, etzaitzete argatik nastu: egia da oiek eginak izan bear dutela; baño oraindik ez da berakin bukaera allegatu.



8. Zeren lendanaz jaikiko da jendea jendearen kontra, eta erreinua erreinuaren kontra, eta toki askotan lurdardarak eta gosea izango dirade. Oiek oñazeen asiera dirade.

9. Bitartean zaudete kontuan zuek zuen gañean, zeren batzarretara eramanak izango zerate, eta sinagogetan azotatuak, eta gobernatzalleen, eta erregeen aurrean egongo zerate nigatik, beren aurrean nere, eta nere dotrinaren testigantza emateko.

10. Baña lenago erreñu guztiai Ebanjelioa predikatua izan bear zaiote.

11. Allegatzen danean bada denbora zuek eramanak izateko, beren eskuetan jarri zaitzaten, etzaitzete lendanaz gogorazioetan egon zer esango ote dezuten, baizik ematen zazutena esan ezazute ordu artan, zeren orduan etzerate zuek itz egiten dezutenak, Espiritu Santua baizik.

12. Orduan anaiak anaia, eta aitak semea eriotzarako emango du, eta semeak gurasoen kontra jaikiko dirade, eta bizia kenduko diote.

13. Eta zuek nere izenagatik mundu guztiak gorrotatuak izango zerate. Baña atzeneraño fedean sendo irautzen duena, au izango da salbatua.

14. Ikusten dezutenean berriz, ondamenaren nazka, bear ez dan tokian dagoala (au irakurtzen duenak, konprenditu beza), orduan Judean daudenak, mendietara iges egin bezate,

15. Eta sabaiaren gañean arkitzen dana, ez bedi etxera jetxi, eta ez bedi ere sartu, bere etxetik zerbait artzera,

16. Eta kanpoan dagoana, ez bedi atzera itzuli bere soñekoa artzera.

17. Ai aurdun daudenen, eta aurrak azitzen dituztenen doakabeak egun aietan!

18. Argatik erregutu zaiozute Jaungoikoari, gauza oiek neguan ez ditezela gertatu.

19. Zeren egun aietako atsekabeak izango dirade alakoak, nolakoak ikusi ez diraden Jaungoikoak mundua egin zuenetik, orain arteraño, eta ikusiko ere ez dirade.

20. Eta Jaunak egun aiek laburtu ez balitu, gizonik batere etzan salbatuko, baña berak autu zituen eskojituakgatik, laburtu ditu.

21. Orduan iñork esango balizute: Ona emen non dagoan Kristo, ona an, etzaiozute sinistu.

22. Zeren jaikiko diraden Kristo gezurrezkoak, eta profeta gezurrezkoak, zeñak egingo dituzten mirariak, eta gauza arrigarriak engañatzeko, al balitza, autuak berak ere.

23. Argatik zuek kontuan zaudete, ikusten dezute nola guztia lendanaz esan dizutedan.

24. Eta atsekabeko egun aiek iragota gero, eguzkia illunduko da, eta illargiak ez du bere argitasuna emango.

25. Eta zeruko izarrek erorian egongo dirade, eta zeruetan dauden potestadeak, dardaraz ariko dirade.

26. Eta orduan ikusiko dute gizonaren semea datorrela odeietan eskubide eta gloria andiarekin.

27. Eta orduan bialduko ditu bere aingeruak, eta bilduko ditu bere autuak munduaren lau aldamenetatik, lurraren atzeneko ertzetik, zeruko gorengo tokiraño.

28. Eta pikuagandik, parabola ikasi ezazute. Bere erramak bigunak daudenean, eta erne diradenean bere ostoak, uda aldean dala ezagutzen dezute.

29. Ala zuek ere ikusten dezutenean gauza oiek egiztatzten diradela, jakin ezazute gizonaren semea aldean, ateetan dagoala.

30. Egiaz esaten dizutet, gizaldi au ez dala iragoko, gauza guzti oiek kunplitu baño lenago.

31. Zeruak eta lurak uts emango dute, nere itzak berriz, ez dute utsik emango.

32. Egun aren, edo ordu aren gañean berriz, iñork ere ezerere ez daki, ez zeruan aingeruak, ez Semeak, baizik Aitak.

33. Begiratu ezazute bada, zaudete beillan, eta erregutu ezazute, zeren ez dakizuten denbora noiz izango dan.

34. Gizon baten gisara, zeñak urrutira joanik bere etxea utzi zuen, eta bere morroietatik bakoitzari izendatu zion zer lan egin bear zuen, eta ate-zaiari agindu zion bellan egon zedilla.

35. Zaudete bada, zuek ere beillan (zeren ez dakizuten etxearen jabea noiz etorriko dan, izango ote dan arratsaldean, ala gauaren erdian, ala ollarraren kantuan, ala egusentian).

36. Batbatean etorririk, lotan arkitu etzaitzaten.

37. Zuei esaten dizutedana berriz, guztiai esaten diet. Beillan zaudete.

## AMALAUARREN KAPITULUA

1. Bi egunen ondoan zan Pazkoa, noiz legamigabeak asitzen diraden, eta apaizburuak, eta Eskribak asmazio zerabiltzaten, nola Jesus saldukeriaz arrapatuko zuten, eta kenduko zioten bizia.

2. Eta esaten zuten: Ez jai egunean, errian naspillaren bat jaiki ez dedin.

3. Eta zegoala Jesus Betanian, Simon legenartiaren etxean, eta maiean eserita zegoala, sartu zan emakume bat alabastrozko ontzi oken-



duz beteriko, narduburuarekin egindako, prezio andiko batekin; eta ausirik ontzia, Jesusen buruaren gañean balsamua isuri zuen.

4. Zeuden berriz an batzuek, gaizki zeramatenak beren artean, eta esaten zutenak: Zergatik okendu au alperrik galdu da?

5. Zeren irureun diruan baño geiagoan okendu au saldu zitekean, eta dirua beartsuai emana izan litzakioten. Eta emakumearen kontra orroaka ari ziraden.

6. Baña Jesusek esan zien: Pakean utzi zaiozute emakume orri, zergatik atsekabetzen dezute? Zeren nerekin egin duen obra, ona da.

7. Zeren beartsuak beti zuekin dauzkazute, eta nai dezutenean berai ongi egin ziñitzakiekete; ni berriz beti ez naukazute.

8. Emakume onek bere eskuan zeukana egin du, nere gorputza obirako igortzi du lendanaz.

9. Egiaz esaten dizutet, mundu guztitik Ebanjelio au predikatzen dan toki guztietan, emakume onen oroipenean, orain egin duena ere kontatuko da.

10. Eta Judas Iskariote amabietatik bat, apaizburuakgana joan zan, berai Jesus saltzeko asmazioakin.

11. Zeñak aditu zutenean txit bozkariotu ziran, eta dirua emango ziotela eskeñi zioten. Eta Judas zebillan Jesus aien eskuetan ipintzeko era on baten billan.

12. Eta legamigabeen lenbiziko egunean, zeñatan Pazkoako bildotsa il, eta eskeñtzen zan, ikasleak esaten diote: Nora joan gaitezela nai dezu, Pazkoako afaria zuretzat prestatzera?

13. Eta bere ikasleetatik bi bialtzen ditu, eta esaten die: Zoazte errira, eta arkituko dezute pegar bat ur daraman gizon bat, jarraitu zaiozute.

14. Eta sartzen dan edozeñere tokitan, etxeko nagusiarri esan zaiozute: Erakusleak bialtzen gaitu zuri esatera: Non da sala, zeñean nere ikasleakin Pazkoako afaria egingo dedan?

15. Eta berak erakutsiko dizute apaltoki bat, andia ederki apaindua, eta an prestatu zaguzute.

16. Eta bere ikasleak joan ziran, eta allegatu ziran errira, eta Jesusek esan zien bezela arkitu zuten, eta Pazkoa prestatu zuten.

17. Eta eguzkia sartu zanean, joan zan Jesus ara amabiakin.

18. Eta maiean eseriak zeudela, eta jaten ari zirala, Jesusek esan zuen: Egiaz esaten dizutet, zuetatik, nerekin jaten duen batek, salduko nauela.

19. Eta berak asi ziran tristetzen, eta berari esaten bata bestearen ostean: Jauna, ni ote naiz?

20. Berak esan zien: Nerekin plateran eskua sartzen duen amabietatik bat da.

21. Egia da, gizonaren semea, beragatik eskribatua dagoan bezela badijoala, baño ai! zeñ doakabea dan gizon hura, zeñean bitartez gizonaren semea eriotzarako emana izango dan! Obe izango zan alako gizonarentzat, jaio ez balitza.

22. Eta berak jaten ari ziradela, Jesusek artu zuen ogia, eta bedekaitzen zuela zatitu zuen, eta eman zien, eta esan zien: Artu ezazute, nere gorputza au da.

23. Eta artzen zuela kaliza, eskerrak ematen zituela, eman zioten: eta guztiak beratatik edan zuten.

24. Eta esan zien: Au da nere odola, testamentu berrikoa, askogatik isuria izango dana.

25. Egiaz esaten dizutet, gaurdandik ez dedala berriz matsaren frutu onetatik edango, Jaungoikoaren erreñuan berria edan dezadan egunaren bitartean.

26. Eta himnoa esanik, oliboen mendirontz irten ziran.

27. Eta Jesusek esan zien: Guztiok eskandalizatuko zerate nigan gau onetan, zeren eskribatua dagoen: Zaurituko det artzaia, eta ardiak barreiatuko dira.

28. Baña berriz biztzen naizanean, Galilean zuen aurkez jarriko naiz.

29. Eta Pedrok esan zion: Guztiak zugan eskandalizatzen badira ere, ni ez.

30. Eta Jesusek esan zion: Egiaz esaten dizut, zuk gaur gau onetan bertan, ollarrak bi alditan kantatu dezan baño lenago, iru alditan ukatuko nazula.

31. Eta berak berriz ere itz egiten zuen, esaten zuela: Zurekin batean illa izan bear banintza ere, etzaitut nik ukatuko. Eta orobat guztiak esaten zuten.

32. Eta badijoaz Jetsemani izena duen baserri batera. Eta bere ikasleai esan zien: Eseri zaitezte emen, nik orazio egin dezadan bitartean.

33. Eta artzen ditu Pedro eta Santiago eta Juan berarekin, eta asi zan beldurtzen eta atsekabetzen.

34. Eta esan zien: Nere anima eriotzako antsietan dago. Itxedon ezazute emen, eta bellan zaudete.

35. Eta piskatxo bat aurrerago joaten zala, lurraren gañean auzpeztu zan, eta erregututzen zuen, al baldin bazan, ordu hura beragandik urrutiratu zedilla.



36. Eta esan zuen: Ene Aita! Zuk gauza guztiak egin ditzakezu, eta ala kaliza oni nigandik alde erazi zaiozu, baña nik nai dedana ez dedilla izan, baizik zuk nai dezuna.

37. Eta badator, eta lotan arkitzen ditu. Eta Pedrori esan zion: Simon, lotan zaude? Ordu batean beillan ezin egon al izan zera?

38. Beillan zaudete, eta orazio egin ezazute, tentazioan erori etzaitzen. Egiaz espiritua prestatua dago, baña aragia argala da.

39. Eta berriz joanik orazio egin zuen, lengo itzak berak esaten zituela.

40. Eta itzulirik, berriz lo zetzala arkitu zituen (zeren beren begiak txit logaletuak zeuden) eta berari zer erantzun etziakiten.

41. Eta irugarren aldiz etorri zan, eta esan zien: Onezkero lo egin ezazute, eta atsedean zaitetzete. Asko da, ordua allegatua da, ona emen non gizonaren semea pekatarien eskuetan jarria izango dan.

42. Jaiki zaitetzete, goazen. Ona emen non ni salduko nauena, aldean dagoan.

43. Eta, oraindik bera izketan ari zala, etorri zan Judas Iskariote ama-bietatik bat, eta berarekin jendetza andia ezpatakin, eta makillakin Apaizburuak, eta Eskribak, eta zarrak bialduta.

44. Eta saltzalleak siñale bat eman zioten, esaten zuela: Nik musu ematen diodana, hura da, eldu zaiozute, eta kontuz eraman ezazute.

45. Eta etorri zanean, bereala Jesusgana alderaturik esan zion: Jainkoak gorde zaitzala, ene Maesua. Eta musu eman zion.

46. Eta berak eskuak egotzi ziozkaten, eta eldu zioten.

47. Eta inguruan zeudenetatik batek, ezpata ateratzen zuela, apaizburuaren morroi bat zauritu zuen, eta belarri bat ebaki zion.

48. Eta Jesusek izketan asitzen zala, esan zien: Ezpatakin eta maki-llakin lapur bat banintza bezela ni arrapatzera atera zerate:

49. Egunoro nengoan zuekin tenploan erakutsiak ematen, eta ez ninduzuten arrapatu. Baña Eskriturak kumplitu bear dirade.

50. Orduan bere ikasleak, utzitzen zutela bera, guztiak iges egin zuten.

51. Baña mutil gazte batek, bere aragiak maindire bakar batekin estaliak zeuzkala, jarraitzen zion, eta eldu zioten.

52. Baña berak, aurtikirik maindirea, larrugorrian berakgandik iges egin zuen.

53. Eta Jesus apaiznagusiagana eraman zuten, eta apaiz, eta Eskriba, eta zar guztiak bildu ziran.

54. Pedrok berriz, urrutitik jarraitu zion, apaizburuaren atariko barreneraño; eta morroiakin suaren ondoan eserita zegoan, eta berotzen zan.

55. Apaizburuak berriz, eta batzarre guztia, Jesusen kontra testigantza baten billan zebiltzan bera eriotzara kondenatzeko, baña etzuten arkitzen.

56. Zeren askok testigantza gezurrezkoak esaten bazituzten ere bere kontra, testigantzak etziraden egokiak.

57. Eta batzuek jaikitzen ziradela bere kontra, gezurrezko testigantza au esaten zuten:

58. Guk aditu diogu esaten: Nik desegingo det eskuz egindako tenplo au, eta iru egunean eskuz egin gabeko tenplo bat jasoko det.

59. Baña beren testigantza au ere etzan egokia.

60. Eta apaizburua batzarrearen erdian jaikitzen zala, galdetu zion Jesusi, esaten zuela: Oiek zure kontra esaten dituzten gauzetara, ezerere ez dezu erantzuten?

61. Jesus berriz ixillik zegoan, eta ezerere etzuen erantzun. Berriz apaizburuak galdetu, eta esan zion: Kristo Jaungoiko bedekatuaren semea zu al zera?

62. Eta Jesusek esan zion: Ni naiz, eta ikusiko dezute gizonaren semea Jaungoikoaren anditasunaren eskuetik eseria, eta zeruko odeien gañean datorrela.

63. Eta apaizburuak bere soñekoak urratzen zituela, esan zuen: Onezkero testiguak zertarako bear ditugu?

64. Blasfemia aditu dezute. Zer deritzatzute? Berak guztiak kondenatu zuten, esaten zutela, eriotzaren diña zala.

65. Eta asi ziran batzuek berari istua aurtikitzen, eta bere arpegia estalitzen, eta berari otsak ematen, esaten ziotela: Profetizatu ezak. Eta morroiak masallekoak ematen ziozkaten.

66. Eta zegoala Pedro atarian, bean, apaizburuaren neskameetatik bat etorri zan,

67. Eta ikusi zuenean Pedro berotzen zegoala, begiratzen ziola, esan zion: Zu ere Jesus Nazaretkoarekin zeunden.

68. Eta berak ukatu zuen, esaten zuela: Nik ez det ezagutuzten ere, eta zer esaten dezun ere ez dakit. Eta irten zan kanpora atariaren aurrera, eta ollarrak kantatu zuen.

69. Eta berriz ikusi zuenean neskameak, inguruan zeudenai asi zan esaten: Ziortoro au aietatikoa da.





70. Eta Pedrok berriz ukatu zuen. Denbora piskatxo bat geroago, an zeudenak berriz Pedrori esaten zioten: Egiaz aietatikoa aiz, zeren Galileatarra aizan.

71. Bera berriz, asi zan bere buruari madarikazioak aurtikitzen, eta juramentuarekin esaten: Ez dedala nik ezagutzen gizon au, zeñgatik itz egiten dezuten.

72. Eta ollarrak berriz bereala kantatu zuen. Eta Pedro oroitu zan Jesusek esan zion itzarekin: Ollarrak bi aldiz kantatu baño lenago, iru aldiz ukatuko nazu. Eta negar egiten asi zan.

### AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Eta bereala goizean goiz batzarrea eginik apaizburuak zarrakin, eta Eskribakin, eta biltzarre guztiarekin, lotutzen zutela Jesus, eraman zuten, eta Pilatosi eman zioten.

2. Eta Pilatok galdetu zion: Juduen erregea zu al zera? Eta Jesusek erantzuten zuela, esan zion: Zuk esaten dezu.

3. Eta apaizburuak asko gauzatan salatzen zuten.

4. Eta Pilatok berriz galdetu zion, esaten ziola: Ezerere ez dezu erantzuten? ikusi ezazu zenbat gauzatan salatzen zaituzten.

5. Eta Jesusek ezertxoere geiago etzuen erantzun, alako moduan, non, Pilato arritua zegoan.

6. Eta jai egunagatik libratu oi zien lotuta zeudenetatik bat, eskatzen zuten edozeñ.

7. Eta bazegoan Barrabas izena zuen bat, zeñ iskanbillariakin zegoan lotuta, zeñak iskanbilla batean gizon bat il zuen.

8. Eta igo zanean jendetza, asi zan erreguak egiten, beti egin oi zien bezela.

9. Eta Pilatok erantzun zien, eta esan zien: Juduen erregea zuei askatuta ematea nai al dezute?

10. Zeren baziakien apaizburuak, ondamuz bere eskuetan jarri zutela.

11. Apaiznagusiak berriz zirikatu zuten jendetza, esaten ziela, obe zala berai Barrabas askatuta ematea.

12. Eta Pilatok berriz itz egiten ziela, esan zien: Zer bada, nai dezute Juduen erregearekin egin dezadan?

13. Eta berak berriz deadarrez esan zuten: Gurutziltzatu ezazu.

14. Pilatok berriz esaten zien: Zer gaitz bada egin du? Eta berak indar andiagoarekin deadarrez esaten zuten: Gurutziltzatu ezazu.

15. Eta Pilatok erriaren guraetara oben egin nairik, utzi zien Barrabas, eta eman zien Jesus, azotatu erazita gero, gurutziltzatua izan zedin.

16. Eta soldaduak pretorioko atarira eraman zuten, eta gerraridi guztia an biltzen dute.

17. Eta granazko mantu bat jantziten diote, eta arantzakin korroa bat eorik, egiten zutela ipintzen diote.

18. Eta asi ziran berari agurrak egiten, esaten zutela: Jainkoak salbatu aikala Juduen erregea.

19. Eta kañabera batekin bere buruan jotzen zuten, eta berari istuka ari ziran, eta belauniko jarrita adoratzen zuten.

20. Eta bera irriz bete eta gero, granazko mantua kendu zioten, eta bere soñekoak ipiñi ziozkaten, eta atera zuten gurutziltzatzeko.

21. Eta alogorean artu zuten baserri batetik zetorren gizon bat, Simon Zirenetarra zeritzana, Alejandro eta Ruforen aita, Jesusen gurutzeta eraman zezan.

22. Eta onela daramate Golgota izena duen toki batera, zeñak Kalbario, edo ezurtokia esan nai duen.

23. Eta ematen zioten edaten ardo mirratua, eta etzuen artu.

24. Eta gurutziltzaten zutela, bere soñekoak partitu zituzten, beren gañean txotx egiten zutela, zeñak zer artuko zuen.

25. Eta terziako ordua zan, eta gurutziltzatu zuten.

26. Eta bere eriotza zergatik zan zegoan onela eskribatua: Juduen erregea.

27. Eta berarekin gurutziltzatu ere zituzten bi lapur, bata bere eskuetik eta bestea ezkerretik.

28. Eta onenbesterekin kunplitu zan Eskritura, esaten zuena: Gaizkigilleen artean jarria izan zan.

29. Eta zijoazenak eta zetoztenak blasfematzen zuten, beren buruak mugitzen zituztela, eta esaten zutela: Kaishio, Jaungoikoaren tenploa desegiten dekana, eta iru egunean berriz egiten dekana,

30. Salbatu adi i erori, gurutzetik jetxitzen aizala.

31. Orobat apaizburuak ere, iseka egiten ziotela, Eskribakin, elkarri esaten zioten: Beste batzuek salbatu zizkik, bera ezin salbatu dek.

32. Kristo Israelko erregea jetxi dedilla orain gurutzetik, ikusi dezagun, eta sinistu dezagun. Berarekin gurutziltzatuak zeudenak ere, irainak egiten ziozkaten.

33. Eta sestako orduan, lur guztia illuntasunez estali zan nonako orduraño.

34. Eta nonako orduan deadar eginik Jesusek boz andiarekin, esan zuen: Eloi, Eloi, lamma sabaktani? Zeñak esan nai duen: Nere Jaungoikoa, nere Jaungoikoa, zergatik utzi nazu?



35. Inguruan zeudenetik batzuek, au aditurik, esaten zuten: Ona non onek Eliasi ots egiten ziokan.

36. Eta beretik batek korrika joanik, eta buztitzen zuela arroki bat ozpiñean, eta ipiñirik kañabera baten puntan, inguruan, edaten ematen zion, esaten zuela: Ots, zaudete, utzi ezazute, ikusi dezagun Elias ote datorren berau gurutzetik jaxtitzera.

37. Eta Jesusek, boz andi bat eginik, eman zuen atzeneko asnasa.

38. Eta tenploko beloa goitikan beera bi zatitan urratu zan.

39. Eta ikusirik, an aurkez zegoan Euntariak, onelako deadar andia eginda, atzeneko asnasa eman zuela, esan zuen: Egiaz Jaungoikoaren semea zan au.

40. Baziraden ere an emakume batzuek urrutitikan begira zeudenak, zeñan artean zeuden Maria Magdalena, eta Maria Santiago txikiaren eta Joseran ama, eta Salome.

41. Eta Galilean zegoanean, jarraitzen zioten eta serbitzen zuten, baita ere beste emakume asko, berarekin batean Jerusalemendik igo ziradenak.

42. Eta onezkero berandututa (zalako egun hura paraszebe, zeñ dan larunbataren aurrekoa)

43. Etorri zan Jose Arimateako, gizon argitsua, zeñak ere Jaungoikoaren erreñua itxedotzen zuen, eta ausardiarekin sartu zan Pilatogana, eta Jesusen gorputza eskatu zuen.

44. Eta Pilato arritua zegoan ain laster il bazan. Eta ots eginik Euntariari, galdetu zion il ote zan.

45. Eta Euntariak baietz esanik, Jesusen gorputza eman zion Joseri.

46. Eta Josek, maindire bat erosita, eta gurutzetik Jesus jaxirik, maindieran bildu zuen, eta ipiñi zuen aitz batean egindako obi batean, eta ipiñirik bere kontra arri andi bat, sarrera zarratu zuen.

47. Eta Maria Magdalena, eta Maria Joserena, zeuden begira non ipintzen ote zuten.

### AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta larunbata irago zanean, Maria Magdalenak, eta Maria Santiagoren amak, eta Salomek erosi zituzten aromak Jesus igortzitzera joateko.

2. Eta txit goiz astearen lenbiziko egunean allegatu ziran obira, eguzkia onezkero irtenda zegoala.

3. Eta elkarri esaten zioten: Obiaren sarrerako arria, nork kenduko digu?

4. Eta begiratzen zutela, ikusi zuten arria kendua zegoala. Zan egiaz txit andia.

5. Eta sartzen ziradela obian, ikusi zuten galai gazte bat eskuiean eseria, soñeko zuri batekin jantzita, eta arrituak gelditu ziran.

6. Baña berak esan zien: Etzaitzete beldurtu, Jesus Nazaretkoa, gurutziltzatua izan zana billatzen dezute. Biztu zan onezkero, ez dago emen, ona emen tokia, zeñatan bera ipiñi zuten.

7. Baña zoazte, eta esan zaiezute bere ikasleai, eta Pedrori, zuen aurretik Galileara joango dala. An ikusiko dezute, esan zizuten bezela.

8. Berak ateratzen ziradela obitik, korrika joan ziran, zeren beldurtu eta izutu ziran, eta iñori ere etzioten ezerere esan. Alakoa zan beren ikara.

9. Eta Jesus berriz bizturik goiz, astearen lenbiziko egunean, lenbizi agertu zitzaion Maria Magdalenari, zeñagandik zazpi demonio aurtiki zituen.

10. Eta Magdalena joan zan bereala berriak ematera, berarekin ibilli ziradenai, zeñak aspertu gabe negarrez ta suspirioz zeuden.

11. Eta berak aditu ziotenean esaten bizi zala, eta berak ikusi zuela, etzioten sinistu.

12. Eta oiek iragota, agertu zitzairen beste irudi batean beretik biri, zeñak kanpoetxe batera bidean zijoazen.

13. Eta berak, agudo zijoazela, besteai eman ziezten berriak: baña aiek ere etzien sinisterik eman.

14. Atzenean, zeudela amaikak maiean eseriak, agertu zitzairen, eta beren sinisgaitzasunarekin, eta biotzeko gogortasunarekin arpegian eman zien, bera biztuta ikusi zutenai sinisterik etzielako eman.

15. Eta esan zien: Mundu guztira joaten zeratela, gizaseme guztiai Ebanjelioa predikatu zaiozute.

16. Sinistzen duena, eta bataiatua dana, salbatua izango da. Sinistzen ez duena berriz, kondenatua izango da.

17. Sinistzen dutenai berriz, mirari oiek jarraituko die, nere izenean demonioak aurtikiko dituzte, izkuntza berrietan itz egingo dute,

18. Sugeak eskuetan erabilliko dituzte, eta gauza iltzalleren bat edaten badute ere, ez die gaitzik egingo, erien gañean eskuak ipiñiko dituzte, eta sendatuak geldituko dirade.

19. Eta Jauna Jesus egiaz, berai itz egin eta gero igo zan zerura, eta Jaungoikoaren eskuiean dago eseria.

20. Eta bere ikasleak, joaten ziradela, aldamen guztietan predikatu zuten, Jauna beren alde zutela, eta laguntzen zien mirariakin beren dotrina sendotzen zuela.



## SAN MATEOREN EBANJELIOA-1

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Jesukristoren, Dabiden semearen, Abrahamen semearen jatorriko liburua.
2. Abrahamgandik sortua izan zan Isaak. Eta Isaakgandik sortua izan zan Jakob. Eta Jakobgandik sortuak izan ziraden Judas eta bere anaiak.
3. Eta Judasgandik sortuak izan ziran Tamarregan Fares eta Zara. Faresgandik sortua izanzan Eson. Eta Esrongandik sortua izan zan Aram.
4. Eta Aramgandik sortua izan zan Aminadab. Aminadabgandik sortua izan zan Naason. Naasongandik sortua izan zan Salmon.
5. Salmongandik sortua izan zan Booz Rahabgan. Boozgandik sortua izan zan Obed Rutgan. Obedgandik sortua izan zan Jese. Jesegandik sortua izan zan Dabid erregea.
6. Eta Dabid erregeagandik izan zan sortua Salomon, Uriasena izan zanagan.
7. Eta Salomongandik sortua izan zan Roboam. Roboamgandik sortua izan zan Abias. Eta Abiasgandik sortua izan zan Asa.
8. Eta Asagandik sortua izan zan Josafat. Eta Josafatgandik sortua izan zan Joram. Eta Joramgandik sortua izan zan Ozias.
9. Eta Oziasgandik sortua izan zan Joatam. Eta Joatamgandik sortua izan zan Akaz. Eta Akazgandik sortua izan zan Ezekias.
10. Eta Ezekiasgandik sortua izan Manases. Eta Manasesgandik sortua izan zan Amon. Eta Amongandik sortua izan zan Josias.
11. Eta Josiasgandik sortuak izan ziran Jekonias eta bere anaiak, Babiloniara juduak eramanak izan ziran denboratsuan.
12. Eta Babiloniara eramanak izanda geroago, Jekoniasgandik sortua izan zan Salatiel. Salatielgandik sortua izan zan Zorobabel.
13. Eta Zorobabelgandik sortua izan zan Abiud. Eta Abiudgandik sortua izan zan Eliazim. Eta Eliazimgandik sortua izan zan Azor.
14. Eta Azorgandik sortua izan zan Sadok. Eta Sadokgandik sortua izan zan Akim. Eta Akimgandik sortua izan zan Eliud.
15. Eta Eliudgandik sortua izan zan Eleazar. Eta Eleazargandik sortua izan zan Matan. Eta Matangandik sortua izan zan Jakob.

16. Eta Jakobgandik sortua izan zan Jose, Mariaren senarra, zeñgan-dik jaio zan Jesus, Kristo izena duena.

17. Eta Abrahamgandik Dabiderañoiko gizaldi guztiak, amalau dirade, eta Dabidgandik Juduak Babiloniara eramanak izan ziraden denboraraño, amalau gizaldi, eta Babiloniara eramanak izanda gero ere Kristo-araño, amalau gizaldi.

18. Kristoren jaiotza berriz, onela izan zan: Zegoala ezkondata bere ama Maria Joserekin, elkartu baño lenago, sabelean Espirituaren egitez sortua zegoala arkitu zan.

19. Jose bere senarrak berriz, nola zan justoa, eta etzuen bera lotsatu nai, ixltxorikan bera utzitzea nai zuen.

20. Gogorazio oietan bera zegoala, ona emen non Jaunaren aingeru bat agertu zitzaion amesetan, esaten zuela: Jose Dabiden semea, etzaite beldur izan Maria zure emaztea zure etxean artzen, zeren bere sabelean sortu dana Espiritu Santuaren lana da.

21. Eta ala egingo du aurseme bat, zeñi Jesus izentzat jarriko diozun, zeren berak bere erria beren bekatuetatik salbatuko duen.

22. Au guziau berriz, egiña izan zan, kunplitu zedin Jaunak esan zuena profetaren bitartez, zeñak esan zuen:

23. Ona emen non donzella baten sabelean sortuko dan, eta bera aur seme batez erdiko dan, zeñi izentzat ipiñiko dien Emmanuel, zeñak, itzulirik, Jaungoikoa gurekin esan nai duen.

24. Onenbesterekin Josek, esnatu zanean, Jaunaren aingeruak agindu ziona egin zuen, eta bere emaztea artu zuen.

25. Eta etzuen ezagutzen, bere seme lenbisisortuaz erdi zan arteraño, eta Jesus izentzat jarri zion.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Jaio zanean bada Jesus Judako Belenen, Herodes erregearen erregetzako egunetan, ona emen non Mago batzuek sortaldetik Jerusalemara etorri ziraden,

2. Galdetzen zutela: Juduen errege jaio dana, non dago? Zeren guk bere izarra sortaldean ikusi genduen, eta bera adoratzera gatoz.

3. Eta aditurik au Herodes erregeak, izutu zan, eta berarekin Jerusalem guztia.

4. Eta biltzen zituela apaizen prinziipe guztiak, eta erriko Eskribak, galde egiten zien, non jaioko ote zan Kristo.

5. Eta berak erantzun zioten: Judako Belenen, zeren onela dago Profetak eskribitua.



6. Eta zu Belen Judako lurra, ziertoro etzera txikiena Judako erririk andienen artean, zeren Israel nere erria zuzenduko duen gjalaria, zугandik irtengo dan.

7. Orduan Herodesek, ixiltxorik Magoai ots egiten ziela, arretaz jakin zuen, zeñ denboratan izarra agertu zitzaien.

8. Eta bialtzen zituela Belenera, esan zien: Zoazte, eta arretaz jakin ezazute aur seme orren gañean dagoana, eta arkitzen dezutenean, adirazi zadazute, ni ere bera adoratzera joan nadin.

9. Erregeari au aditu ziotenean, bereala joan ziraden, eta ona emen non sortaldean ikusi zuten izarra, beren aurrean zijoan, aliketa aurra zegoan tokiaren gañera allegaturik, gelditu zan artean.

10. Eta ikusirik izarra, bozkario txit andia artu zuten.

11. Eta etxean sartzen ziradela, arkitu zuten aurra bere ama Mariarekin, eta auzpeztzen ziradela, adoratu zuten; eta beren kutxak idikitzen zituztela, urrezko eta inzensuzko, eta mirrazko doañak eskeñi ziozkatzen.

12. Eta amesetan idukirik zeruko argitasun bat, esaten ziena, Herodesgana etzitezela itzuli, beste bide batetik beren alderrira biurtu ziran.

13. Oiek alde egin zutenean, Jaunaren aingeru bat Joseri amesetan agertu zitzaion, esaten ziola: Jaiki zaite, artu itzatzu aurra eta bere ama, eta Ejiptora iges egin ezazu, eta zaude an aliketa nik itzultzeko esan dizazudan artean. Zeren gertatuko dan Herodes ibiltzea aurraren billan, bera galtzeko.

14. Jaikitzen zala Jose, artu zituen aurra, eta bere ama gauaz, eta Ejiptora alde egin zuen;

15. Eta an egon zan, Herodes il zan artean, kunplitu zedin Jaunak, profetaren bitartez esan zuena: Nik, nere semeari, Ejiptotik ots egin nion.

16. Orduan Herodes, ikusirik Magoak irri egin ziotela, txit aserretu zan, eta agindu zuen, Belenen eta bere inguru guztian zeuden, bi urtetik beerako aur guztiak illak izan zitezela, Magoakgandik jakin al izan zuen denboraren araura izarraren agerketaren gañean.

17. Ikusi zan orduan kunplitua Jeremias profetak esan zuena, esaten zuela:

18. Raman adituak izan ziraden bozak, negar eta alarau andiak. Da Rakel, bere semeakgatik negar egiten duena, ez duela nai bozkariotua izatea, onezkero munduan ez daudelako.

19. Herodes il, eta gero, andikan laster, Jaunaren aingeru bat Ejipton Joseri amesetan agertu zitzaion,

20. Esaten ziola: Jaiki zaite, eta artu itzatzu aurra, eta bere ama, eta Israelko lurrera zoaz, zeren aurrari bizia kendu nai ziotenak, illak diraden.

21. Jaikitzen zala Jose, artu zituen aurra, eta bere ama, eta Israelko lurrera etorri zan.

22. Baña aditurik Arkelao zegoala erregetzan Judean bere aita Herodesen lekuan, ara joaten beldur izan zan, eta izanik adirazia amesetan, Galileako aldamenetara alde egin zuen.

23. Eta Nazaret izena duen erri batera egotez bizitera etorri zan; onela profetaen bitartez esan zana kunplitu zedin: Nazarenoaren izenaz ots egingo zaio.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta egun aietan etorri zan Juan Bautista, Judeako eremuan predikatzen zuela,

2. Eta esaten zuela: Penitentzia egin ezazute: zeren zeruetako erreñua aldean dagoan.

3. Au da hura, zeñgatik Isaias profetak esan zuen: Eremuan deadar egiten duenaren boza da, esaten duela, Jaunaren bidea prestatu ezazute; bere bidetxigorak zuzenak egin itzatzute.

4. Joanek berak berriz, gameluen illezko soñeko bat zerabillan, eta bere gerrian larruzko ual bat, eta bere janaria larrapoteak eta basoko eztia ziran.

5. Orduan bazijoazen beragana Jerusalengo, eta Judea guztiko, eta Jordango erribera guztiko jendeak;

6. Eta berak Jordanen bataiatzen zituen, beren bekatuak konfesatzen zituztela.

7. Baña ikusirik Fariseoetatik eta Sadduzeoetatik asko bere bataiora zetoztela, esan zien: Suga biboraen arraza! Nork erakutsi dizute, azalke-riakin bakarrik, keñatzen zaituzten aserretik iges egin ditzakezutela?

8. Penitentiaren diñako frutuak bada egin itzatzute.

9. Eta ez ezazute esan zuen barrenen: Gure aitatzat Abraham daukagu, zeren nik esaten dizutet, almentsua dala Jaungoikoa, arri oietatik Abrahamen semeak jaio erazitzeke.

10. Begiratu ezazute, aizkora onezkero zuaitzen sustraietan jarria dagoala, eta frutu ona ematen ez duen zuaitz guztia, izango dala ebakia, eta sutara aurtikia.

11. Nik egiaz urarekin bataiatzen zaituztet penitentiara mugitzeko; baña nere ondoan etorriko dana, ni baño almentsuagoa da, eta bere oñetakoak eramateko bederik diña ez naiz ni; bera da Espiritu Santuagan eta suan bataiatuko zaituztena.



12. Berak sardetxea bere eskuetan dauka, eta bere larraña ederki garbituko du; eta bere garia aletegian sartuko du, lastoak berriz, itzali ez ditekian su batean erreko ditu.

13. Denboratsu onetan etorri zan Jesus Galileatik Jordanera, berak bataiatua izateko.

14. Juan ordea onetara aurkeztzen zan, esaten zuela: Nik izan bear nuke zuk bataiatua, eta nigana zu zatoz?

15. Eta Jesusek erantzuten zuela, esan zion: Utzi zadazu egiten orain, zeren onela bear dan guk justizia guztia kunplitu dezagula. Juanek orduan berari oben egin zion.

16. Bataiatua izan zanean bada Jesus, irten zanean uretik, bereala zeruak idiki zitzaiozkan, eta ikusi zuen Jaungoikoaren Espiritua, jaxkitzen zala uso baten gisara, eta bere gañean gelditzen zala.

17. Eta aditu zan zeruko boz bat, esaten zuena: Au da nere seme mai-tea, zeñgan nere atsedean guzia jarria daukadan.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Orduan Jesus Espirituak eremura eramana izan zan, deabruak tentatua izateko.

2. Eta barau eginik berrogei egunean, eta berrogei gautan, gero gose izan zan.

3. Eta alderatzen zala beragana tentatzallea, esan zion: Jaungoikoaren semea bazera, esan ezazu, arri oiek ogi egin ditezela.

4. Baña Jesusek erantzun zion: Eskribitua dago, gizona ogi utsarekin ez da bizi, baizik Jaungoikoaren aotik irtetzen dan itz guziarekin.

5. Orduan deabruak artu zuen, eta eraman zuen erri santura, eta tenploko gallurraren gañean jarri zuen,

6. Eta esan zion: Jaungoikoaren semea bazera, emendikan beera aur-tiki zaite. Zeren eskribatua dagoan: Zu zaitzeko agindu diotela aingeruai, eta eskuetan artuko zaituzte, zure oñak arriren baten kontra beaztoporik egin ez dezan.

7. Jesusek esan zion: Baita eskribatua ere dago, zure Jaun Jainkoa ez dezu tentatuko.

8. Oraindikan ere artu zuen deabruak, eta eraman zuen mendi txit goratu batera, eta erakutsi ziozkan munduko erreñu guztiak, eta beren gloria,

9. Eta esan zion: Gauza guzi oiek emango dizkizut, auzpeztzen zera-la nere aurrean, adoratzeko banazu.

10. Orduan Jesusek esan zion: Utikan Satanas, alde egin ezak ortik. Zeren eskribitua zeagok: Zure Jaun Jainkoa adoratzeko dezu, eta bera bakarrik serbituko dezu.

11. Orduan deabruak utzi zuen; eta ona emen non aingeruak alde-ratu ziran eta serbitzen zuten.

12. Eta Jesusek, aditu zuenean Juan karzelan sartua izan zala, Galileara alde egin zuen.

13. Eta Nazaretko erria utzitzen zuela, joan zan egotez bizitera Kafarnaum, itsasaldeko erri, Zabulon eta Neptaliren mugetan zegoanera.

14. Kunplitu zedin Isaias profetak esan zuena:

15. Zabulongo erriak, eta Neptaliko erriak, nondik dagoan itsasora-ko bidea, Jordango beste aldamenean, jentillen Galileak

16. Illuntasunetan zetzan erri onek, argi andi bat ikusi du, argi bat, eriotzako itzaletako alderrian bizi ziradenak argitutzera etorri dana.

17. Denbora artatik asi zan Jesus predikatzen, eta esaten: Penitentzia egin ezazute; zeren zeruetako erreñua aldean dagoan.

18. Zijoala egun batean Jesus Galileako itsasoko erriberatik, ikusi zituen bi anai, Simon, Pedro izena zuena, eta bere anaia Andres, itsasoan sarea aurtikitzen ari ziradela (zeren arraitzaleak ziraden),

19. Eta esan zion: Darraidazute, eta nik egingo det, gizonen arrapa-riak izan zaitzela.

20. Eta berak, sareak utzitzen zituztela bereala, jarraitu zioten.

21. Eta iragotzen zala aurrerago, ikusi zituen beste anaia bi, Santiago Zebedeoren semea, eta Juan bere anaia, ongitzen zituztela beren sareak txalupa batean beren aita Zebedeorekin; eta ots egin zion.

22. Eta berak bereala, utzitzen zituztela sareak eta aita, jarraitu zioten.

23. Eta Jesus zijoan ibilliaz inguruan Galilea guzitik, beren sinagoge-tan erakutsiak ematen zituela, eta zeruko erreñuko Ebanjelioa predika-tzen zuela, eta errikoetan gaitz guzia, eta eritasun guzia sendatzen zuela.

24. Eta onekin bere otspea Siria guzitik zabaldu zan, eta bere aurrean jartzeko ziozkatzen eririk zeuden guztiak, eta gaitz eta oñazeakin zeudenak, gaizkindunak, alditsuak, elbarridunak; eta sendatzen zituen.

25. Eta Galileako, eta Dekapoliko, eta Jerusalemgo, eta Judeako, eta Jordanen beste aldameneko jendetza txit andi batek jarraitzen zion.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusirik Jesusek jendetza andi au, igo zan mendi batera, non, eseria zegoala, bere ikasleak alderatu zitzaiozkan,



2. Eta bere aoa idikitzen zuela, erakutsiak ematen ziezten, esaten zuela:
3. Zorionekoak gogozko beartsuak, bada zeruetako erreinua oiena da.
4. Zorionekoak berenez bigunak, bada berak lurraren jabe izango dirade.
5. Zorionekoak negar egiten dutenak, bada berak poztuak izango dirade.
6. Zorionekoak zuzentasunaren gosea eta egarria daukatenak, bada berak aseak izango dirade.
7. Zorionekoak urrikaltzuak, bada berak urrikaltasuna iritxiko dute.
8. Zorionekoak biotz garbikoak, bada berak Jaungoikoa ikusiko dute.
9. Zorionekoak paketsuak, bada Jaungoikoaren semeak deituko zaie.
10. Zorionekoak zuzentasunagatik atsekabeak daramazkitenak, bada zeruetako erreinua berena da.
11. Zorionekoak zerate nigatik madarikatzen zaituztenean, eta persegitzen zaituztenean, eta gaitz mota guziaz gezurrarekin zuen kontra esaten dutenean:
12. Poztu zaitezte orduan, eta gozatu zaitezte, zeren zeruetan itxeditzen dizuten ordaña txit ugaria dan; era berean zuek baño lenago izan diran profetak ere persegitu dituzte.
13. Lurreko gatza zuek zerate, eta baldin gatza gezatzen bada, zerekin gazituko da? Ezertarako ez da onezkero gai, baizik izateko aurtikia, eta gizonak zapaldua.
14. Zuek munduko argia zerate. Mendi baten gañean egiten dan erri bat ez diteke estali.
15. Eta ez da ere irazekitzen argia lakari baten azpian jartzeko, baizik kandelero baten gañean, etxean dauden guziaz argi egin dizaien.
16. Zuen argiak gizonen aurrean argi egin beza alako moduan, non, zuen obra onak ikusi ditzatela, eta zeruetan dagoan zuen aita, gloriar bete dezatela.
17. Ez ezazute uste izan ni etorri naizala legearen erakutsi, ez profetaena desegitera; ez naiz etorri bera desegitera, baizik berari betetasuna ematera.
18. Zeren egiaz esaten dizutet, zeruak eta lurra lenago uts emango dutela, legean dagoan guztia jota bat, edo puntu baterañokea osotoro betetasuna iduki gabe geldituko dan baño.
19. Eta ala autsitzen duena aginte oietatik bat, edo bat, danik txikie-  
na izan arren, eta gizonai ala egiten erakusten diena, zeruetako erreinuan

txikienentzat idukia izango da; baña zaitu, eta erakusten dituen, au zeruetako erreñuan anditzat idukia izango da.

20. Zeren nik esaten dizutet, zuen justizia Eskriba eta Fariseoena baño ugariagoa ez bada, zeruetako erreinuan etzeratela sartuko.

21. Aditu dezute anziñakoai esan zizaitela: Ez dezu iñor ere ilko, eta iñor iltzen duena, juizioan eriotzara kondenatua izango dala.

22. Nik berriz, esaten dizutet: Bere anaiarekin aserretutzen dan guztia, juezak kondenatua izateko diña dala. Eta raka deitzen diona, batzarrak kondenatua izateko diña dala. Txorrea deitzen diona berriz, infernuko suaren errudun izango da.

23. Baldin bada zure doña aldarean eskeñitzen badezu, eta an oroituko baziña, zure anaiak zure kontra zerbañt daukala,

24. Utzi ezazu zure doña an aldarearen gañean, eta zoaz lenago zure anaiarekin adiskidetutza, eta orduan etortzen zerala, zure doña eskeñiko dezu.

25. Egin itzatzu pakeak bereala zure etsaiarekin, berarekin bidean zauden artean; etsaiak juezaren eskuetan jarri etzaitzan, eta juezak aguazillarenetan ipiñi etzaitzan, eta karzulan sartu etzaitzaten.

26. Egiaz esaten dizut, etzerala andikan irtengo atzeneko ardita pagatu dezazun artean.

27. Aditu dezute anziñakoai esan zitzaiela: Ez dezu adulterioko bekatu-  
turik egingo.

28. Nik berriz, esaten dizutet: Begiratzen dionak emakume bati, beraganako gura gaiztoarekin, bere biotzean adulterioko bekatua egin duela.

29. Baldin zure eskuiko begiak ematen badizu bekatu-  
rako bidea, atera ezazu, eta aurtiki ezazu zugandik kanpora, zeren obe da zuretzat zure gorputzeko zentzunetatik bat galtzea, zure gorputz guztia infernura aurtikia izatea baño.

30. Eta baldin zure eskuiko eskua bada bekatu-  
rako bidea ematen dizuna, ebaki ezazu, eta aurtiki ezazu zugandik urrutira, zeren obeago dan zuretzat zure gorputzeko zentzunetatik bat galdua izatea, zure gorputz guztia infernura joatea baño.

31. Esana izan da: Bere emaztea utzitzen duen guztiak, utziaren agi-  
ria eman bizaio.

32. Baña nik esaten dizutet: Bere emaztea utzitzen duen guztiak, adulterioko bekatuagatik ez izanik, adulterioko bekatuan erortzeko bidea ematen diola, eta andre utziarekin ezkontzen danak, adulterioko bekatua egiten duela.





33. Aritu ere dezute, anziñakoai esana izan zizaiela: Ez dezu gezurarekin juramenturik egingo, baizik Jaunari egindako juramentuak kunplituko dituzu.

34. Nik berriz, esaten dizutet, iñolaere ez dezazutela juramenturik egin, ez zeruagatik, zeren Jaungoikoaren esertokia dan;

35. Ez lurragatik, zeren bere oñen jarlekua dan; ez Jerusalemagatik, zeren errege andiaren erria dan;

36. Ez dezu ere juramenturik egingo zure burua gatik, zeren ille bakar bat zuria, edo beltza egitea zure eskuan ez dagoan.

37. Izan bedi bada zuen izketa, bai, bai, edo ez, ez, zeren oiek baño ugariago dana, gaitzetik dator.

38. Aritu dezute esana izan zala: Begia begia gatik, eta ortza ortzagatik.

39. Nik berriz, esaten dizutet, ez zatzakizkiola aurkeztu gaitzari; baizik baldin norbaitek zure eskuiko masallan jotzen bazaitu, bestea ere eman zaiozu.

40. Eta zurekin auzitan egin nai duenari, eta zure tunika kendu nai dizunari, kapa ere utzi zaiozu.

41. Eta batek beartzen bazaitu, zamatuta milla pausoan joatera, zoaz berarekin beste bi ere.

42. Eskatzen dizunari, eman zaiozu, eta ordañetan zuk zerbait ematea nai duenari, ez arpegia itzuli.

43. Aritu dezute esana izan zala: Zure lagun urkoa maitatuko dezu, eta zure etsaiari gorroto idukiko diozu.

44. Nik berriz, esaten dizutet: Zuen etsaiak maitatu itzatzute; gorrotatzen zaituztenai, on egin zaiozute, eta zuek persegitzen zaituztenakgatik, eta gezur andiak asmatzen dizkizutenakgatik, erregutu ezazute.

45. Zuen aita zeruetan dagoanaren semeak izan zaitezten, zeñak bere eguzkiari onen eta gaiztoen gañera irtenerazitzen dion, eta justoen eta biurrien gañera euria egiten duen.

46. Zeren ez badituzte maitatzen, zuek maitatzen zaituztenak baño, zeñ ordañ idukiko dezute? Publikanoak ere ez al dute ala egiten?

47. Eta zuen senideai bakarrik diosal egiten badiezute, zer geiago egin dezute? Jentillak ere ez al dute au egiten?

48. Izan zaitezte bada zuek osoz onak, zuen aita zerukoa ere osoz ona dan bezela.

## SEIGARREN KAPITULUA

1. Ez ditzatzutela gero egin zuen obra onak gizonen aurrean, berak ikusiak izan zaitezten, bestela zuen Aita zeruetan dagoanak ez dizute ordañik emango.

2. Eta ala, limosna egiten dezunean, ez ezazu agertu tronpeta otsarekin hipokritak egiten duten bezela sinagogetan eta karrikaetan, onratuak izan ditezen. Egiaz esaten dizutet, beren ordaña artu zutela.

3. Zuk berriz, limosna ematen dezunean, ez beza jakin zure ezkerreko eskuak, zure eskuikoak zer egiten duen.

4. Zure limosna ezkutuan egon dedin, eta zure aita, ezkutuko gauzak ikusten dituenak, saria emango dizu.

5. Eta orazioa egiten dezutenean, etzaitezte izan hipokritak bezelakoak, zeñak nai izan oi duten zutik orazio egitea sinagogetan, eta karrikaetako kantoietan, gizonak ikusiak izan ditezten; egiaz esaten dizutet, beren ordaña artu zutela.

6. Zu berriz, orazio egiten dezunean, sartu zaite zure gelan, eta itxirik atea, erregutu zaiozu zure aitari ezkutuan; eta zure aita, ezkutuko gauzak ikusten dituenak, ordañduko zaitu.

7. Orazioan zaudetenean berriz, ez ezazute itz asko egin, jentillak bezela, zeren uste duten, itz asko eginda adituak izango diradela.

8. Etzaitezte bada beren antzekoak izan, zeren zuen aita zerukoak badaki, zuek zeren premia daukazuten, zuek berari eskatu baño ere lenago.

9. Zuek bada, onela orazio egingo dezute: Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena.

10. Betor gugana zure erreinua. Egin bedi zure borondatea, nola zeruan, ala lurrean.

11. Egin iguzu zure egunoroko ogia.

12. Eta barka zazkiguzu gure zorrak, guk gure zordunai barkatzen dieztegun bezela.

13. Eta etzatzakigu utzi tentazioan erortzen; baizikan libratu gaitzatzu gaitzetik. Amen.

14. Zeren baldin zuek gizonai zuen kontra egiten dituzten ezbearrak barkatzen badieztezute, zuei ere zuen Aita zerukoak zuen bekatuak barkatuko dizkizute.

15. Baña baldin zuek gizonai ez badiezute barkatzen, zuen Aitak ere zuen bekatuak ez dizkizute barkatuko.

16. Barau egiten dezutenean, etzaitezte triste jarri, hipokritak egiten duten bezela; oiek itxusitzen dituzte beren arpegiak, gizonai erakusteko, barau egiten dutela. Egiaz esaten dizutet, oiek beren saria artu zutela.



17. Zuk bada, barautzen dezunean, zure burua usaitu, eta zure arpegia garbitu itzatzu,
18. Gizonak jakin ez dezaten barautzen dezula, baizik zure Aita ixilla dakienak, eta zure Aita, ixilleko gauza ere dakianak, ordaña emango dizu.
19. Ez itzatzute montoitu tesoroak zuentzat lurtean, non erdoiak eta sitsak galtzen dituzten eta nondik lapurrak atera, eta ostutzen dituzten.
20. Baizik montoitu itzatzute tesoroak zuentzat zeruan, non erdoiak eta sitsak ez dien gaitzik egiten, eta nondik lapurrak ez dituzten ateratzen, ez ostutzen.
21. Zeren zure tesoroa non dagoan, zure biotza ere an dago.
22. Zure begiak zure gorputzeko argiontzia dirade; zure begia garbia balego, zure gorputz guztia argitua egongo da.
23. Zure begia ordea gaiztoa balitza, zure gorputz guztia illuna egongo da. Eta baldin zugar argia izan bear duena illuntasunak badirade; illuntasunak berak, zeñ andiak izango dirade?
24. Iñork ere bi nagusi serbitu ez ditzake; zeren edo batari gorroto izango dio, eta bestea maitatuko du, edo bataren mendean egongo da, eta bestea me preziatuko du. Jaungoikoa eta aberastasunak serbitu ez ditzakezute.
25. Argatik esaten dizutet, ez dezazutela ardura geiegirik iduki zuen bizitzagatik zer jango dezuten, ez zuen gorputzagatik zer jantzirekin estaliko dezuten. Bizitza, janaria baño geiago ez al da, eta gorputza jantzia baño geiago?
26. Begiratu zaiezute zeruko egaztia, nola ez duten ereiten, ez itaitzen, ez ganbaraetan bildutzen, eta zuen aita zerukoak bazkatzen ditu. Ez al dezute zuek aiek baño asko geiago balio?
27. Eta zuetatik zeñak, bere gogoko asmazioakin bere gorputzeko luzeerari, beso bat geitu dizaioke?
28. Eta jantziagatik, zergatik orrenbat ardura? Begiratu ezazute nola larra larioak azitzen diraden; berak ez dute lanik egiten, ez iruten.
29. Alaere esaten dizutet, Salomon bere anditasun guztian ere, etzala jantzi, oietatik bat bezin ederki.
30. Baldin bada, kanpoko belar, gaur jaiotzen dana, eta biar labe sutura aurtikiko dana, Jaungoikoak ala jantzitzen badu, zenbat geiago zuek fede gutxiko gizonok?
31. Ala bada, etzaitzete antsiatuak egon, esaten dezutela: Zer jango degu, edo zer edango degu, edo zerekin estaliko gera?
32. Zeren oien guzioen billan jentillak dabilzian. Zeren zuen Aita zerukoak badaki, zuek oien guzioen premian zaudetela.

33. Aurrena bada, Jaungoikoaren erreñua billatu ezazute, eta oiek guziok gañera itsatsiak izango zazkizute.

34. Etzaitzete antsiatuak ibilli, biarko eguna gatik, zeren biarko egunak beretzat ardurarik asko ekarriko duen; egun bakoitzari bere arazoa aski zaio.

## ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Ez itzatzute besteak juzgatu, zerok juzgatuak izan etzaitzeten.
2. Zeren besteak juzgaten dituzuten juizioarekin, juzgatuak izango zerate, eta zuek besteak neurtzen dituzuten neurriarekin berarekin, zuek ere neurtuak izango zerate.
3. Zergatik bada, zuk zure anaiaren begian samartxoak ikusten dezu, eta zure begian aga ez dezu ikusten?
4. Edo, nola zure anaiari esaten diozu; Ots, zaude geldirikan, zure begiko samartxoak aterako det; zuk zure begian aga bat daukazunean.
5. Gaitz estaltzalea! Zure begiko aga lenengo atera ezazu, eta orduan ikusiko dezu, nola zure anaiaren begitik samartxoak aterako dezun.
6. Gauza santak txakurrai etzaitzete eman, ezta zuen perlak ere txerrien aurrera bota; beren oñakin ostikopetu ez ditzaten, eta zuetarontz itzulita, triskatu etzaitzaten.
7. Eska ezazute, eta emango zatzute; billa ezazute, eta arkitu dezute; jo ezazute, eta idikiko zatzute.
8. Bada eskatzen duen guztiak, artzen du; eta billatzen duenak, arkitzen du; eta jotzen duenari, idikiko zaio.
9. Zuen artean iñor ere bai al dago, bere semeak ogi bat eskatzen dionean, arri bat emango dionik?
10. Edo arrai bat eskatzen badio, suge bat emango dionik?
11. Baldin bada zuek, izanik gaiztoak, zuen semeai gauza onak ematen badakizute, zenbat geiago zuen Aita zerukoak gauza onak emango diezte, eskatzen diozkatena?
12. Eta ala zuek beste gizonai egin zaiezute, berak zuei egitea nai dezuten guztia. Zeren au dan legeak eta profetak agintzen duten guztia.
13. Ate estutik sartu zaitzete, zeren galmenera daraman atea andia dan, eta bidea zabala; eta asko dira emendik sartzen diranak.
14. O zein ate estua dan eta bide mearra bizitzara daramana; eta gutxi dirade, bera arkitzen dutenak!
15. Kontuz zabilzate gezurrezko profetak, zeñak zuekgana ardien jantziakin datozten; barrendikan berriz, otso amorratuak dirade.



16. Beren fruetatik ezagutuko dituzute. Elorrietatik matsik, eta larraetatik pikurik atxitzen al dute?

17. Ala zuaitz on guziak frutu onak ematen ditu, eta zuaitz gaiztoak, frutu gaiztoak ematen ditu.

18. Zuaitz on batek, frutu gaiztoak ez ditzake eman, ezta zuaitz gaizto batek ere frutu onak ez ditzake eman.

19. Frutu ona ematen ez duen zuaitz guzia, ebakia, eta sutara aurtikia izango da.

20. Beren fruetatik bada ezagutuko dituzute.

21. Neri Jauna, Jauna esaten didan guztia, ez da argatik bakarrik zeruetako erreinuan sartuko, baizik nere Aita, zeruetan dagoanaren borondatea egiten duena, hura zeruetako erreinuan sartuko da.

22. Askok egun artan esango didate: Jauna, Jauna, ez al degu guk zure izenean profetizatu; eta zure izenean ez al ditugu demonioak aurtiki; eta zure izenean asko mirari ez al degu egin?

23. Eta nik esango diet: Beñere etzaitzudet ezagutu; alde egin ezazute nigandik, gaitzakeriaren langilleak.

24. Nere itz oiek bada aditzen, eta kunplitzen dituen, bere etxea arkaitz baten gañean egin zuen gizon jakintsu baten antzekoa izango da.

25. Eta euriak erori ziran, eta ibaiak anditu ziran, eta aizeak irten ziran, eta indar guziarekin jo zuten etxe hura, eta erori etzan, arkaitz gañean egiña zegoalako.

26. Eta nere itz oiek aditu, eta kunplitzen ez dituen guztia, bere etxea ondarraren gañean egin zuen gizon ero baten antzekoa izango da.

27. Euri jasa erori zan, eta ibaiak azi ziran, eta aizeak irten ziran, eta etxe hura indarrez jo zuten, eta erori zan, eta bere ondarena andia izan zan.

28. Eta gertatu zan atzenean; Jesusek itz oiek bukatu zituen, jendetzak bere dotrinaren gañean arrituak zeuden.

29. Zeren eskubidea zeukanak bezela, eta ez beren Eskriba eta Fari-seoak bezela, erakutsiak ematen ziezten.

### ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta Jesusi, menditik jetxi zanean, jendetza andiak jarraitu zion.

2. Eta ona non soraio bat bazetorrela, adoratzeko zuen, esaten zuela: Jauna, nai badezu, garbitu nazakezu.

3. Eta luzaturik Jesusek eskua, ukitu zion, esaten zuela: Nai det. Garbitua gelditu zaite. Eta bereala bere legendarretik garbitua izan zan.

4. Eta Jesusek esan zion: Begira ezazu, ez dizaiozula iñori ere esan; baizikan zoaz, Apaizari erakutsi zatzakio, eta Moisesek agindu zuen doña eskeñi ezazu, berentzat agiri bat izan dedin.

5. Eta sartu zanean Kafarnaumera, alderatu zan beragana Euntari bat, erregutuzten ziola,

6. Eta esaten ziola: Jauna, nere morroi bat datza etxean elbarritua, eta gaizki oñazetua.

7. Eta Jesusek esan zion: Ni joango naiz, eta sendatuko det.

8. Eta Euntariak erantzuten ziola, esan zuen: Jauna, ni ez naiz, zu nere etxean sartu zaitezten diña; eta ala, itz bat bakarra esan ezazu, eta nere morroia sendatua geldituko da.

9. Zeren nik ere, besteen mendean nagoan gizon bat baizik ez naizan onek, nola nere agindura soldaduak dauzkadan, esaten diot bati: Joan adi, eta badijoa; eta besteari: Atoz, eta badator; eta nere morroiari: Egin ezak au, eta egiten du.

10. Aditu zuenean au Jesusek, miraritu zan, eta berari jarraitzen ziotenai, esan zien: Egiaz esaten dizutet, fede ain andirik ez dedala Israelen arkitu.

11. Ala nik adirazten dizutet, asko etorriko diradela Sortaldetik eta Sartaldetik, eta egongo diradela maiean Abraham, Isaak eta Jakobekin zeruetako erreinuan.

12. Erreinuko semeak berriz, kanpora, illuntasunera aurtikiak izango dirade; an negarra eta ortzkarraskotsa izango da.

13. Gero Jesusek Euntariari esan zion: Zoaz, eta sinistu dezun bezela, ala gertatu dakizula. Eta morroia ordu artan beratan sendatua gelditu zan.

14. Joanik gero Jesus Pedroren etxera, ikusi zuen onen amagiarraba, sukarrarekin oean zetzala.

15. Eta ukitu zion bere eskuan, eta sukarrak utzi zion, eta jaiki zan, eta berak serbitzen zituen.

16. Eta etorririk arralsaldea, ekarri ziozkaten demonioak zeuzkaten asko; eta bere itzarekin aurtikitzen zituen espiritu gaiztoak, eta gaizki zeuden guztiak sendatu zituen.

17. Egiztatzen zala onekin, Isaias profeta santuak lendaraz adirazi zuena, esaten zuela: Berak gure gaitzak artu zituen eta gure eritasunak bere gañean eraman zituen.

18. Eta ikusirik Jesusek bere inguruan jendetza andiak, itsasoaren beste aldamenera joateko agindu zuen.



19. Eta alderatzen zitzaiola Eskriba bat, esan zion: Erakuslea, joaten zeran edozeñere tokitara jarraituko dizut.

20. Eta Jesusek esan zion: Azeriak lurpean ezkutatokiak dauzkate, eta zeruko egaztiak kabiak; gizonaren semeak berriz, burua non etzin ez dauka.

21. Bere ikasletatik beste batek esan zion: Jauna, utzi zadazu joan nadin lenago nere aita obiratzera.

22. Eta Jesusek esan zion: Darraidazu, eta utzi zaiezu illai, beren illak obiratu ditzatela.

23. Eta igotzen zala bera txalupatxo batera, bere ikasleak jarraitu zioten.

24. Eta ona non jaiki zan itsasoan ekaitz ain andi bat, non bagak txalupa estalitzen zuten; Jesus berriz, lotan zegoan.

25. Eta bere jarraitzaileak alderatu zitzaiozkan, eta esnatu zuten, esaten zutela: Jauna, salbatu gaitzazu, bada galduak gera.

26. Eta esan zion Jesusek: O gizon fede laburrekoak, zeren beldur zerate? Orduan zutik jartzen zala, agindu zien aizeai eta itsasoari, eta bare bare gelditu zan itsasoa.

27. Orduan gizonak miretsi ziran, esaten zutela: Nolakoa ote dek, aizeak eta itsasoak obeditzen diozkaten au?

28. Eta etorri zanean itsasoaren beste aldamenara, Jerasenoen alderria, bidera irten zitzaizkieten demonioak zeuzkaten bi, ateratzen ziradela bizi ziran obietatik, alako moduan suminduak, non, iñor ere bide artatik etzitekean irago.

29. Eta ona non deadarrez asi ziran, esaten zutela: Zer daukagu guk zurekin zer ikusi, o Jesus Jaungoikoaren semea? Denbora baño lenago gu oñazetzerara onara etorri al zera?

30. Eta andikan ez urrutian, txerri talde andi bat zegoan bazkatzen.

31. Eta demonioak erregututzen zioten onela: Botatzen bagaituzu emendikan, txerri talde orretara bialdu gaitzatzu.

32. Eta berak esan zien: Zoazte. Eta berak irtetzen ziradela, txerrietan sartu ziran, eta ona emen non txerri talde guztia korrika eta sumintasunez betea joan zan, amiltoki batetik Jenesaretko itsasora aurtikituzera, eta uretan itoak gelditu ziran.

33. Txerriazaiak berriz, iges egin zuten, eta etorririk errira, adirazi zituzten gauza guztiak, eta batezere demonioak iduki zituztenenak.

34. Eta ona non erri guztia Jesusi bidera irten zitzaion, eta ikusi zuteanean, erregututzen zioten, arren beren alderritik alde egin zezala.

## BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta txalupara igotzen zala, berriz joan zan itsasoaren beste aldamenara, eta beste errira etorri zan.

2. Eta ona non aurrean jarri zioten gizon elbarritu, oean zetzan bat. Eta ikusirik Jesusek bere fedea, gizon elbarrituari esan zion: itxedon ezazu, ene semea, zure bekatuak barkatzen zaskizu.

3. Eta ona non Eskribaetatik batzuek beren barrenetan esan zuten: Au blasfemiak esaten ari dek.

4. Eta ikusi zituenean Jesusek beren gogorazioak, esan zuen: Zergatik zuen biotzetan gogorazio gaiztoak daukazute?

5. Zeñ da gauza errazagoa, esatea: Zure bekatuak barkatzen zaskizu; ala esatea: Jaiki, eta ibilli zaite?

6. Jakin dezazuten bada, gizonaren semeak badaukala lurpean bekatuak barkatzeko eskubidea, orduan esan zion elbarrituari: Jaiki zaite; zure oea artu ezazu, eta zure etxera zoaz.

7. Eta jaiki zan, eta bere etxera joan zan.

8. Ikusirik au jendetzak, beldurrez jarri ziran, eta gloriariz bete zuten, gizonai alako eskubidea eman zien Jaungoikoa.

9. Eta alde egin zuenean andik Jesusek, ikusi zuen Mateo izena zuen gizon bat, petxa biltzaleen aulkian eseria. Eta esan zion: Darraidazu. Eta jaikitzen zala, jarraitu zion.

10. Eta gertatu zan zegoala Jesus maiean Mateoren etxean, ona non publikano eta pekatari asko etorririk, zeuden eserita jaten Jesusekin, eta bere ikaslakin.

11. Eta ikusirik au Fariseoak, Jesusen ikasleai esan zien: Zergatik zuen Erakusleak publikano eta bekatariakin jaten du?

12. Eta Jesusek au aditu zuenean, esan zuen: Ez daukate sendatzailearen premiarik osasunarekin daudenak, eriak baizik.

13. Zoazte bada ikastera zer adirazten duen. Urrikaltasuna nai det, eta ez eskeñtza. Zeren ez naizan etorri justoi, baizik bekatariak ots egitera.

14. Orduan jarri ziran Jesusen aurrean Juanen ikaslak, eta esan zioten: Zergatik guk, eta Fariseoak maiz barau egiten degu; eta zure ikasleak berriz, ez dute baraurik egiten?

15. Eta Jesusek erantzun zien: Esposoaren adiskideak atsekabetuak ibilli al ditezke, esposoa berakin dagoan artean? Etorriko dirade egunak zeñtuetan esposoa arrapatua izango zaioten, eta orduan barau egingo dute.



16. Eta iñork ere ez dio jartzen oial berrizko adobakirik soñeko zar bati, zeren kentzen du jantzitik bere osotasuna, eta etendura gaiztoagoa egiten dan.

17. Ez dute ere ipintzen ardo berria zagi zarretan, bestela urratzen dira zagiak, eta ardoa isurtzen da, eta zagiak galtzen dira. Baizik ardo berria zagi berrietan ipintzen dan, eta onela ala bata, nola besteak irautzen dute.

18. Bera oiek esaten aiei ari zala, ona emen non prinzipe bat alderatu zan, eta adoratzen zuela, esan zuen: Jauna, nere alaba arestian il da; baña atoz, bere gañean zure eskua jarri ezazu, eta biziko da.

19. Eta jaikitzen zala Jesus, jarraitzen zion, baita bere ikasleak ere.

20. Eta ona non, amabi urtean odol jarioaren gaitza zeukan emakume bat, alderatu zan ostetik, eta bere jantziaren ertzari ukitu zion.

21. Zeren bere artean esaten zuen: Bere jantziaren ertzari bederik, ukitzen badiot, sendatua izango naiz.

22. Eta Jesusek beragana itzultzen zala, eta begiratzen ziola, esan zion: iduki ezazu itxedopena, ene alaba, zure fedea sendatu zaitu. Eta ordu artatik emakumea sendatua gelditu zan.

23. Eta etorri zanean Jesus prinzipearean etxera, eta ikusi zituenean txirola jotzalleak, eta jendetzaren naspilla, esaten zuen:

24. Alde egin ezazute, zeren neskata ez da il, baizik lo datza. Eta iseka egiten zioten.

25. Eta jendetza kanpora aurtikia izan zanean, sartu zan, eta eskutik eldu zion, eta neskata jaiki zan.

26. Eta gertakari au alderri guzi artatik barreatu zan.

27. Eta toki artatik Jesusek alde egiten zuela, jarraitu zioten bi itsuk, deadar egiten zutela, eta esaten zutela: Dabiden semea, erruki gaitzatu.

28. Eta etxera allegatu zanean, alderatu zitzaizkan itsuak. Eta Jesusek esan zien: Sinistzen dezute, eskatzen dezutena nik egin dezakedala? Berak esaten diote: Bai, Jauna.

29. Orduan ukitu zien beren begietan, esaten zuela: Zuen fedearan araura, ala egiña izan dizakezutela.

30. Eta beren begiak idikiak izan zizaizkaten; eta keñatu zituen Jesusek, esaten zuela: Kontu gero, begiratu ezazute, iñork ere ez dezala jakin.

31. Berak ordea andik ateratzen ziradela, alderri guzi artan zabaldu zuten.

32. Eta oiek irten ziradenean, ona non aurean jarri zioten gizon mutu, demonioa zeukan bat.

33. Eta aurtikia izanik demonioa, itz egin zuen mutuak, eta jendetzak mirestu ziraden, esaten zutela: Egundaño ez da Israelen onelako gauzarik ikusi.

34. Fariseoak berriz esaten zuten: Demonioen Prinzipearean arteakin, demonioak onek aurtikitzen ditu.

35. Eta Jesus zebillan erri eta iri guztiak ingurututzen zituela, beren sinagogetan erakutsiak ematen zituela, eta Jaungoikoaren erreñuko ebanjelioa predikatzen zuela, eta gaitz guztia, eta eritasun guztia sendatzen zuela.

36. Eta ikusirik jendetzak, berakin txit urrikaldu zan, zeren gaizki zeuden, eta etzinda artzai gabeko ardiak bezela.

37. Orduan bere ikasleai esan zien: Uzta egiaz andia da, langilleak berriz, gutxi dirade.

38. Erregutu zaiozute bada uztaren jabeari, bere uztara langilleak bialdu ditzala.

## AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta bildurik bere amabi ikasleak, eman zien eskubidea espiritu zikiñen gañean, berak aurtiki zitzaten, eta gaitz guztia, eta eritasun guztia sendatu zezaten.

2. Eta amabi Apostoluen izenak oiek dirade. Lenbizikoa, Simon, izengoitiz Pedro, eta Andres bere anaia.

3. Santiago Zebedeoren semea, eta Juan bere anaia, Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo publikanoa, Santiago Alfeoren semea, eta Tadeo.

4. Simon Kanaantarra, eta Judas Iskariote, gero saldu zuena bera.

5. Amabi oiek bialdu zituen Jesusek, erakutsi oiek ematen ziezutela. Etzaitzete orain joan jentillen lurrera, eta Samariako errietan ere etzaitzete sartu.

6. Baizik zoazte lenago, Israelko etxeko ardi, galdu ziradenean billan.

7. Zoazte, eta predikatu ezazute, esaten dezutela: Zeruetako erreinua alderatzen dala.

8. Eriak sendatu itzatzute, illak biztu itzatzute, legenartiak garbitu itzatzute, demonioak aurtiki itzatzute; doan artu dezutena, doan eman ezazute.

9. Ez ezazute eraman urrerik, ez zillarrik, ez dirurik zuen zizkuetan.

10. Ez zakutorik biderako, ez bi jantzirik, ez oñetakorik, ez makillarik; zeren lanean ari dana, bere janariaren diña dan.



11. Eta sartzen zeraten edozeñere iri, edo erritan, galdetu ezazute zeñ dan bertan zuek ostatuz idukitzeko diña; eta zaudete an, irtetzen zeraten bitartean.

12. Etxean sartzen zeratenean, agurra egingo diozute, esaten dezute-la: Etxe onetan pakea izan dedilla.

13. Eta baldin etxea diña balitza, zuen pakea artara etorriko da; baldin berriz diña ez balitza, zuen pakea zuekgana itzuliko da.

14. Baldin berriz, nortzukbait artu nai ez bazaituzte, eta zuen itzak aditu ere ez badituzte nai, irtetzen zeratela kanpora alako etxe, edo erritik, zuen oñetako autsa astindu ezazute.

15. Mene menetan esaten dizutet, Sodoma, eta Gomorra gogortasun gutxiagorekin tratatuak izango diradela juizioko egunean, alako erria baño.

16. Ona non nik bialtzen zaituztedan, ardiak otsoen erdian bezela. Izan zaitzte kontuzkoak sugeak bezala, eta tolesgabeak usoak bezala.

17. Gizonakgandik berriz gorde zaitzte. Bada Tribunaletara eramango zaituzte, eta beren Sinagogetan azotatuko zaituzte.

18. Eta nigatik gobernarien eta erregeen aurrera eramana izango zerate, berai eta erreinuai testigantza emateko.

19. Berakgana eramaten zaituztenean berriz, etzaitzte buruak ausitzen egon, gogoratzen, nola edo zer esango dezuten; zeren ordu artan esango dezutena emana izango zatzute.

20. Etzeraten ezkeroz zuek orduan itz egiten dezutenak, baizik zuen Aitaren Espiritua da, zuen bitartez itz egiten duena.

21. Orduan anaia batek bere anaia eriotzara eramango du; eta aitak semea; eta semeak jaikiko dirade gurasoen kontra, eta illeraziko dituzte:

22. Eta zuek izango zerate, guztiak gorrotatuak nere izenagatik; baña atzeneraño irautzen duena, au salbatuko da.

23. Erri onetan persegituak bazerate, beste batera iges egin ezazute. Egiaz esaten dizutet, Israelko erri guztiak ez dituzutela onduko, gizonaren semea datorren arteraño.

24. Ez da ikaslea bere erakuslea baño geiago, ez mendekoa bere nagusia baño geiago.

25. Ikasleari asko zaio, bere erakuslea bezelakoa izatea. Familien aitari Beelzebub deitu bazioten, zenbat geiago bere etxeokoi?

26. Baña argatik ere etzaitzte bere beldur izan. Zeren ez dagoan gauza estalirik, agertuko ez danik; ez gauza ezkuturik, jakingo ez danik.

27. Illuntasunetan esaten dizutedana, argitan esan ezazute; eta belarri esaten dizutedana, tellatuetatik predikatu ezazute.

28. Eta gorputza iltzen dutenen, baña anima il ezin dutenen beldur etzaitzte izan, baizik anima eta gorputza infernura botata galdu ditzakeanaren beldur izan zaitzte.

29. Ez al dirade bi arditatik bi txori saltzen, eta alaere oietatik bat bakarra ere zuen Aitaren baimena gabe lurrera eroriko ez da?

30. Zuen buruko illerañoakoak, guztiak zenbatetuak daude.

31. Etzaitzte bada beldur izan, zeren txori askok baño geiago balio dezuten.

32. Gizonen aurrean bada aitortzen nauen guztia, nik ere nere Aita zeruetan dagoanaren aurrean aitortuko det.

33. Ukutzen nauena berriz gizonen aurrean, nik ere nere Aita zeruetan dagoanaren aurrean ukatuko det.

34. Ez ezazute uste izan ni lurrera etorri naizala pakea ekartzera; ez naiz etorri ekartzera pakea, baizikan ezpata.

35. Zeren etorri naiz berezitzera semea bere aitagandik, alaba bere amagandik, eta erraña bere amagiarrabagandik.

36. Eta gizonaren etsaiak bere etxeokak izango dirade.

37. Aita edo ama ni baño geiago maitatzen dituen, ez da nere diña, eta semea edo alaba ni baño geiago maitatzen dituen, nere diña ez da.

38. Eta bere gurutzea artu, eta ez darraidana, nere diña ez da.

39. Bere animaren kostuan bere bizia gordetzen duenak, galduko du, eta bere anima nigatik galtzen duenak, arkituko du.

40. Zuek artzen zaituztenak, ni artzen nau, eta ni artzen nauenak, artzen du ni bialdu ninduen.

41. Profeta profetaren izenean artzen duenak, profetaren ordaña artuko du, eta justoa justoarenean izenean artzen duenak, justoarenean ordaña artuko du.

42. Eta ematen dion edozeñek txikitxo oietatik bati baso bete ur otz, bakarrik nere ikaslea dalako; egiaz esaten dizutet, bere saria ez duela galduko.

## AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan, bukatu zituenean Jesusek bere amabi apostolui eman ziozkaten erakutsiak, joan zan andik, beren errietan erakutsiak eman, eta predikatuzera.

2. Baña Juanek, itxian zegoala, aditurik Kristoren egite arrigarriak, bere ikasleetatik bi bialdu zituen berari galdetzera,

3. Onela esaten ziola: Zu al zera Mesias etorriko dana, edo beste bat itxedon bear al degu?





4. Eta Jesusek erantzuten ziela esan zien: Zoazte, eta adirazi zaiozute Juani aditu eta ikusi dezutena.
5. Itsuak ikusten dute, errenak badabiltza, legenardunak garbituak gelditzen dirade, gorak aditzen dute, illak berriz biztutzen dirade, eta beartsuak ebanjelioa adirazten zaie.
6. Eta doatsua, nigandik gaitzerako bidea artzen ez duena.
7. Oiek joan ziradenean, asi zan Jesus Juangatik itz egiten, eta erriari esan zion: Eremuan zer ikustera atera zerate? Aizeak darabillan kañaberaren bat?
8. Baña, zer ikustera atera zerate? Soñeko biguñakin jantzia zegoan gizonen bat? Badakizute soñeko biguñakin jantziten diradenak erregeen jauregietan daudela.
9. Baña, zer ikustera atera zerate? Profetaren bat? Ori bai, nik esaten dizutet, eta profeta baño ere geiago dana.
10. Zeren berau dan, zeñgatik eskribatua dagoan. Begira ezazu, nik zure aurretik bialduko dedala nere aingerua, zeñ joango dan zure aurretik zuretzat bidea prestatuaz.
11. Egiaz esaten dizutet, ez dala jaiki andragandik jaiotako semeen artean, Juan Bautista baño andiagorik; alaere zeruetako erreñuan txikiena dana, hura baño andiagoa da.
12. Eta Juan Bautistaren egunetatik onaraño zeruetako erreñua indarrez irabazten da, eta beren buruai indar egiten dienak, arrapatzen dute.
13. Zeren profeta guztiak, eta legeak Juaneraño, etorkizunak lenda-naz adirazi zituzten.
14. Eta aditu nai badezute, bera da Elias etorriko dana.
15. Belarriak aditzeko dauzkanak, aditu beza.
16. Baña, zeñen antzekoa dala gizon arraza au uste izango det? Da plazan eseriak dauden mutillen antzekoa, zeñak beren ideko lagunai
17. Esaten dien: Kantatu dizkizugu bozkariozko kantak, eta ez dezute dantzarik egin; kanta tristeak, eta ez dezute negarrik egin.
18. Zeren Juan etorri zan etzuela jaten, ez edaten, eta esaten dute: Demonioa zeaukak.
19. Etorri da gizonaren semea jaten duela, eta edaten duela, eta esaten dute: Ona emen tripontzi, eta ardo edale bat, publikanoen eta bekatarien adiskidea.
20. Orduan asi zan errierta egiten, bere mirariatatik txit asko egiñak izan ziraden erriai, penitenziarik etzutelako egin.

21. A, zure doakabea Korozaim! Ai zure doakabea Bethsaida! Zeren baldin Tiron, eta Sidonen egiñak izan balirade zuekgan egin diraden mirariak, denboratsu da penitenzia egingo zutela, autsez eta zilizioz estalita.

22. Argatik esaten dizutet, Tiro eta Sidon juizioko egunean zuek baño gogortasun gutxiagorekin tratatuak izango diradela.

23. Eta zuk Kafarnaum, zeruraño zerori altxatzea uste al dezu? izango zera, bai, infernuraño beeratua; zeren baldin Sodomak eginak izan balirade, zuegan eginak izan diraden mirariak, aurki gaurko egunean Sodoma desegiña izan gabe egongo zan.

24. Argatik esaten dizutet, Sodoma juizioko egunean zu baño gogortasun gutxiagorekin kastigatua izango dala.

25. Denbora artan erantzuten zuela Jesusek esan zuen: Nik gloriatz betetzen zaitut, o Aita, Zeru eta lurreko Jauna, ezkutatu dieztezulako oiek jakintsu eta zentzudunai, eta agertu dieztezulako txikitxoai.

26. Bai, Aita, zuk ala izatea nai izan dezulako.

27. Nere Aitak nere eskuetan gauza guztiak jarri ditu. Eta ez du inork ere ezagutzen Semea, Aitak baizik, eta ez du ere inork ezagutzen Aita, baizik Semeak, eta Semeak agertu nai dionak.

28. Atozte nigana nekatuak zabiltzatenak, eta zamatuek zaudetenak, eta nik gozatuko zaituztet.

29. Artu ezazute zuen gañean nere uztarria, eta ikasi ezazute nigan-dik, bada otsana, eta biotzez umilla naiz, eta zuen animentzat atsedena arkituko dezute.

30. Zeren nere uztarria leuna, eta nere zama ariña dan.

## AMABIGARREN KAPITULUA

1. Denbora artan zijoala Jesus larunbateko egun batean alor batzuen aldetik, bere ikasleak, nola gose ziran, asi ziraden galburuak arrapatzen, eta gari aleak jaten.

2. Eta Fariseoak ikusi zituztenean, esan zioten: Ona non zure ikas-lak, larunbatetan zillegi ez dana egiten duten.

3. Berak berriz esan zien: Ez al dezute irakurri zer egin zuen Dabidek, bera eta berarekin zeudenak gose ziradenean;

4. Nola sartu zan Jaungoikoaren etxean, eta jan zituen proposizioko ogiak, zeñak jatea zillegi etzaien berari, ez bereai, baizik apaizai bakarrik?

5. Edo ez al dezute legean irakurri, nola apaizak tenploan larunbatean lanean ari diran, eta alaere ez dutela bekatuak egiten?

6. Bada nik esaten dizutet, tenploa baño andiagoa dan bat emen dagoala.



7. Baldin bazenekite zuek zer dan. Urrikaltasuna nai det, eta ez eskeñtza; obengabeak beñere etziñituzten kondenatuko.
8. Zeren gizonaren semea larunbataren ere Jauna dan.
9. Eta andik alde eginik, beren sinagogan sartu zan,
10. Non zegoan gizon bat, esku bata txangua zeukana, eta galdetu zioten Jesusi, bera salatzeke, larunbatetan iñor ere sendatzea zillegi ote zan.
11. Berak berriz, esan zien: Zeñ gizon egongo da zuen artean, ardi bat daukana, eta au larunbateko egun batean zulo batera eroriko balitza, berari eskuarekin elduko ez diona, eta kanpora aterako ez duena?
12. Zenbat obeago ez da gizona ardia baño? Beraz larunbatetan on egitea zillegi da.
13. Orduan gizonari esan zion: Luzatu ezazu zure eskua. Eta luzatu zuen, eta beste eskua bezin sendatua gelditu zan.
14. Fariseoak berriz, kanpora ateratzen ziradela, batzarrea egin zuten bere kontra, nola galduko ote zuten.
15. Jesusek ordean, au jakinik, andik alde egin zuen, eta jarraitu zioten askok, eta guztiak sendatu zituen.
16. Agintzen ziela etzetzatela agertu.
17. Kunplitu zedin Isaias profetak esan zuena, zeñak esan zuen:
18. Ona emen nere serbitzaria, zeñ nik autua daukadan; nere maitatua, zeñagan nere anima osotoro gozatu dan. Nere espiritua bere gañean jarriko det, eta justizia erreñuai adiraziko die.
19. Ez da iñorekin ere elean ariko, eta ez du ere deadarrez jardungo, eta ez du ere iñork bere boza plazaetan adituko.
20. Ez du ausiko kañabera zartatua, eta ez du ere itzaliko kea darion metxa; justizia garai jarri dezan artean.
21. Eta bere izenean jendeak itxedongo dute.
22. Orduan ekarri zioten demonioa zeukan gizon itsu eta mutu bat, eta sendatu zuen, alako moduan, non, itz egiten zuen, eta ikusten zuen.
23. Eta jendetza guztia arritua gelditu zan, eta esaten zuen: Dabiden semea ote da au?
24. Baña Fariseoak, aditu zutenean, esan zuten: Onak ez ditu aurtikitzen demonioak Beelzebub demonioen prinzipearen bitartez baizik.
25. Orduan Jesusek, jakinik beren gogorazioak, esan zien: Bere kontra berezitua dagoan erreinu guztia, arrasatua izango da, eta bere kontra berezitua dagoan erriak, edo etxeak, ez du iraungo.
26. Eta baldin Satanasek Satanasek aurtikitzen badu, bere kontra berezitua dago; nola bada, bere erreñuak iraungo du?

27. Eta baldin nik Beelzebubgan demonioak aurtikitzen badituzten, zuen semeak zeñgan aurtikitzen dituzte? Argatik berak zuen juezak izango dirade.

28. Baldin berriz nik Jaungoikoaren espirituagan demonioak aurtikitzen badituzten, Jaungoikoaren erreinua zuekgana allegatu da.

29. Edo nola norbait sartu diteke sendoaren etxean, eta bere ondasunak ostu ditzaiozkake, lenago sendoa lotzen ez badu? Orduan bere etxeko gauzak arrapatu alko diozka.

30. Nerekin ez dagoana, nere kontra dago, eta nerekin biltzen ez duenak, barreatzen du.

31. Argatik esaten dizutet: Bekatu guztia, eta blasfemia guztia gizonari barkatua izango zaiote, Espirituaren kontrako blasfemia berriz, ez da barkatuko.

32. Eta gizonaren semearen kontra itzen bat esaten duen edozeñi, barkatuko zai; baña Espiritu Santuaren kontra itz egiten duenari, bizitza onetan, ez bestean etzaio barkatuko.

33. Edo egin ezazute zuaitz ona, eta bere frutua ona, edo egin ezazute zuaitz gaiztoa, eta bere frutua gaiztoa; zeren zuaitza frututik ezagutzen dan.

34. O biboren arraza! Nola zuek gauza onak esan ditzakezute, izanik, zeraten bezela, gaiztoak? Zeren aoak biotzaren ugaritasunetik itz egiten duen.

35. Gizon onak tesoro onetik gauza onak ateratzen ditu, eta gizon gaiztoak tesoro gaiztotik gauza gaiztoak ateratzen ditu.

36. Eta nik esaten dizutet, gizonak esaten duten itz alper guziagatik, bere kontua juizioko egunean emango dutela.

37. Zeren zure itzetatik justotua izango zera, eta zure itzetatik kondenatua izango zera.

38. Orduan Eskriba eta Fariseoetatik batzuek erantzun zuten, esaten zutela: Erakuslea, mirariren bat egiten ikusi nai zaitugu.

39. Berak erantzuten zuela, esan zien: Arraza gaizto eta adultera onak mirari bat billatzen du, eta miraririk etzaio emango, Jonas profetaren miraria baizik.

40. Zeren nola Jonas egon zan balearen sabelean iru egunean eta iru gautan, ala gizonaren semea egongo da lurraren barrunen iru egunean eta iru gautan.

41. Ninibeko gizonak jaikiko dirade juizioan gizon arraza onen kontra, eta kondenatuko dute, zeren berak Jonasen predikazioarekin penitentzia egin zuten. Eta ona emen Jonas baño geiago dana.



42. Egoeko erregiña jaikiko da juizioan gizon arraza onen kontra, eta kondenatuko du, zeren lurraren ertzetatik etorri zan Salomonen jakinduria aditutzeroa. Eta ona emen Salomonen baño geiago dana.

43. Espiritu zikiña irtetzen danean gizonen batgandik, toki leorretatik dabil, atsedeneren billan, eta ez du arkitzen.

44. Orduan esaten du: itzuliko naiz nere etxera, nondik irten naizan. Eta etortzen danean arkitzen du utstua, ongi garbitua, eta apaindua.

45. Orduan badijoa, eta artzen ditu berarekin beste zazpi espiritu, bera baño gaiztoagoak, eta sartzen diradela, an egotez bizi dira. Eta gizonaren atzenak, lengoak baño gaiztoagoak dira. Gizon arraza txit gaizto oni ere ala gertatuko zaio.

46. Oraindikan bere jendetzai izketan ari zala, ona emen non bere ama, eta anaiak kanpoan zeuden, berarekin itz egin nai zutela.

47. Eta batek esan zion: Ona emen non zure ama eta zure anaiak kanpoan dauden zure billan.

48. Baña berak erantzuten ziola itz egin zionari, esan zion: Nere ama zeñ da, eta nere anaiak zeñ dirade?

49. Eta eskua luzatzen zuela bere ikasleakganontz, esan zuen: Ona emen nere ama, eta nere anaiak.

50. Zeren nere Aita, zeruetan dagoanaren borondatea egiten duena, au nere anaia, arreba, eta ama da.

### AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Egun artan ateratzen zala Jesus etxetik, itsasoaren aldean eserita zegoan.

2. Eta bildu ziraden beragana jendetza andiak, alako moduan, non, igitzen zala ontzitxo batera eseri zan, eta jendetza guztia erriberan zegoan.

3. Eta esan ziezten asko gauza paraboletan, esaten zuela: Ona non irten zan ereitzen duena ereitzera.

4. Eta ereitzen ari zala, azi batzuek erori ziran bidearen aldean, eta etorri ziran zeruko egaztiak eta jan zituzten.

5. Beste batzuek erori ziran arrizetan, non lur gutxi zegoan, eta bereala erne ziran, lur zakonik etzeukatelako.

6. Baña eguzkia irten zanean, erre ziran, eta igartu ziran, sustrairik etzeukatelako.

7. Beste batzuek berriz, arantza artean erori ziran, eta arantzak azi ziran, eta ito zituzten.

8. Beste batzuek berriz, lur onean erori ziran, eta ematen zuten frutua, batzuek bateko eun, beste batzuek irurogei, eta beste batzuek ogeita amar.

9. Belarriak dauzkanak aditzeko, aditu beza.

10. Eta alderaturik ikaslak esan zioten: Zergatik paraboletan itz egiten diezu?

11. Berak erantzuten zuela, esan zien: Zeren zuei zeruetako erreñuko misterioak ezagutzea eman zazuten; aiei ordea etzaiote emana izan.

12. Zeren daukanari, emana izango zaio, eta ugari idukiko du; ez daukanari ordea, daukana ere kenduko zaio.

13. Argatik paraboletan itz egiten diet, zeren ikusten dutela, ez dute ikusten; eta aditzen dutela, ez dute aditzen, ez konprenditzen.

14. Eta kunplitzen da berakgan Isaiasen profetia, zeñak esaten duen: Zuen belarriakin adituko dezute, eta ez dezute konprendituko; eta zuen begiak begiratu dezute, eta ez dezute ikusiko.

15. Zeren erri onek bere biotza gogortu du, eta bere belarriak itxi ditu, eta bere begiak estali ditu, begiak ikusi ez dezan, eta belarriakin aditu ez dezan, eta biotzarekin konprenditu ez dezan, eta nigana biurtu ez ditezten, eta sendatu ez ditzadan.

16. Zuen begiak berriz, doatsuak dirade ikusten dutelako, eta zuen belarriak aditzen dutelako.

17. Egiaz esaten dizutet, profeta eta justo askok nai izan zituztela ikusi zuek ikusten dituzutenak, eta etzituzten ikusi; eta aditu, zuek aditzen dituzutenak, eta etzituzten aditu.

18. Zuek bada, ereitzen ari danaren parabola aditu ezazute.

19. Edozeñek aditzen duenean erreñuko itza, eta ez badu konprenditzen, badator gaiztoa, eta bere biotzean erein zana arrapatzen du; au da bidearen aldean erein zana.

20. Arritzaren gañean erein zana berriz, au da itza aditzen duena, eta bereala bozkarioarekin artzen duena.

21. Baña ez dauka beragan sustrairik, baizik denbora gutxikoa da; eta datorrenean gero atsekabea eta persekuzioa ebanjelioagatik, bereala eskandalizatzen da.

22. Arantzen artean ereina berriz, au da itza aditzen duena; baña mundu onetako ardurak, eta aberastasunen lilluramenduak, itotzen dute itza, eta fruturikan eman gabe gelditzen da.

23. Lur onean erein zana berriz, au da itza aditu eta konprenditzen duena, eta frutua ematen duena, batek bateko eun, besteak irurogei, eta besteak ogeita amar.



24. Beste parabola bat ipiñi zien, esaten zuela: Zeruetako erreñua da, bere kanpoan azi ona ereitzen duen gizon baten antzekoa.
25. Baña gizonak lo zetzatela, etorri zan bere etsaia, eta erein zuen gañetik lolloa garitzaren erdian, eta joan zan.
26. Eta belarra azi zanean, eta frutua eman zuenean, orduan lolloa ere agertu zan.
27. Eta familiako aitaren morroiak beragana alderatzen ziradela, esan zioten: Jauna, ez al zenduan zure kanpoan azi ona erein? Nola bada lolloa dauka?
28. Eta esan zien: Gizon etsaiak au egin du. Morroiak berriz esan zioten: Nai dezu joan gaitzeta, eta bildu dezagula?
29. Eta esan zuen: Ez, lolloa biltzen dezutela, berarekin garia ere atera ez dezazuten.
30. Utzi zaiezute biai azi ditezuela uztako denboraraño, eta uztako denboran esango diet igitariak: Atxitu ezazute aurrena lolloa, eta egin itzatzute berakin sortak erretzeko, garia berriz, nere aletokirako bildu ezazute.
31. Beste parabola bat ere ipiñi zien, esaten zuela: Zeruetako erreinua da mostaza ale baten antzekoa, zeñ artu zuen gizon batek bere eskuan, eta bere kanpoan erein zuen,
32. Zeñ egiaz azi guztien artean txikiena dan; baña azitzen danean, barazki guztien artean andiena da, eta zuaitz egiten da, alako moduan, non, zeruko egaztiak etortzen dirade, eta bere besangetan egon oi dirade.
33. Beste parabola bat ere esan zien: Zeruetako erreinua da legamiaren antzekoa, zeñ artu zuen emakume batek, eta iru sato iriñekin nastu zuen, aliketa guztia legamiztatua gelditu zan arteraño.
34. Gauza guzti oiek esan ziezten Jesusek jendetzai paraboletan; eta parabola gabe etzien itz egiten.
35. Kunplitu zedin profetak esan zuena: Nere aoa paraboletan idiki-ko det, munduaren asieratik ezkutatuak egon diran gauzak agertuko ditut.
36. Orduan, utzirik jendetzak, etxera etorri zan, eta bere ikasleak beragana alderatu ziran, esaten zutela: Kanpoan ereindako lolloaren parabola azaldu ziguzue.
37. Berak erantzuten zuela, esan zien: Azi ona ereitzen duena, gizonaren semea da.
38. Kanpoa mundua da. Azi ona erreinuko semeak dirade. Lolloa gaiztoaren semeak.
39. Berak erein zituen etsaia berriz, deabrua da. Uzta, munduaren atzena da. Igitariak berriz, aingeruak dirade.

40. Eta nola lolloa biltzen dan, eta sutan erretzen dan, ala izango da munduaren atzenean.
41. Gizonaren semeak bere aingeruak bialduko ditu, eta gaitzerako bidea ematen duten guztiak, eta gaiztakerian ari diraden guztiak bere erreinutik kenduko ditu.
42. Eta suzko labe batera aurtikiko dituzte. An izango da negarra, eta ortzarraskotsa.
43. Orduan justoak beren aitaren etxean eguzkiak bezela argi egingo dute. Aditzeko belarriak dauzkanak, aditu beza.
44. Zeruetako erreinua da, kanpoan ezkutatua dagoan tesoro baten antzekoa, zeñ arkitzen duen gizonak, estalitzen du, eta bozkarioz beteta arkitu duenagatik, badijoa, eta dauzkan gauza guztiak saltzen ditu, eta kanpo hura erosten du.
45. Zeruetako erreñua da, gizon merkatari, perla fiñen billan dabillanaren antzekoa.
46. Eta arkitu zuenean perla fiñ bat, joan zan, eta zeuzkan gauza guztiak saldu zituen, eta perla erosi zuen.
47. Berriz zeruetako erreñua da, txinga baten antzekoa, zeñiak aurtikirik itsasoan, arrai mota guztia biltzen duen.
48. Zeñ, bete dagoanean, ateratzen duten arraitzaleak, eta itsasbaterrean eserita, onak autu, eta ontzietan ipintzen dituzte, gai ez diradenak berriz, kanpora aurtikitzen dituzte.
49. Ala izango da munduaren bukaeran, aterako dirade aingeruak, eta gaiztoak justoen erditik berezituko dituzte,
50. Eta suzko labe batera aurtikiko dituzte; an negarra eta ortzarraskotsa izango da.
51. Gauza guzi oiek ongi aditu dituzte? Bai, Jauna, erantzun zioten.
52. Esan zien orduan: Erakusla jakintsu guztia zeruetako erreinuari dagozkion gauzetan, da, familiako aita baten antzekoa, zeñiak gauza berriak eta zarrak bere gordelekutik ateratzen dituen.
53. Eta gertatu zan, bukatu zituenean Jesusek parabola oiek, andikan alde egin zuen.
54. Eta etorririk bere errira, beren sinagogetan erakutsiak ematen ziezten, alako moduan non, miresten ziraden, eta esaten zuten: Nondik etorri zaio oni alako jakinduria, eta alako mirariak egiteko eskubidea?
55. Ez al da au arotzaren semea? Bere ama Maria izena duena ez al da? Santiago, Jose, Simon, eta Judas bere anaiak ez al dirade?
56. Eta, bere arrebak, guztiak ez al dirade gure artean bizi?



57. Eta eskandalizatzen ziraden beragan. Eta Jesusek esan zien: Ez dago profetarik onrarikan gabe bere errian, eta bere etxean baizik.

58. Eta etzituen an mirari asko egin beren sinisgogortasunagatik.

### AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Denbora artan Herodes Tetrarkak Jesusen otspea aditu zuen.
2. Eta bere jauregitarrak esan zien: Au da Juan Bautista, illen artetik biztu dana, eta argatik mirariak egiteko eskubideak anbeste argitasun beragan botatzen du.
3. Zeren Herodesek eldu zion Juani, eta lotu zuen, eta sartu zuen kartzelan bere anaiaren emazte Herodiasgatik.
4. Zeren Juanek esaten zion: Ez dezu zillegi andre hura idukitzea.
5. Eta Juan iltzea nai bazuen ere, erriaren beldur izan zan, zergatikan ezik, profeta bezela zeukaten.
6. Herodesen jaiotegunean bada, Herodiasen alabak erdian dantzan egin zuen, eta Herodesi txit ongi iritzi zitzaion.
7. Argatik juramentuarekin eskeñi zion, berari eskatzen zion edozeñere gauza emango ziola.
8. Eta berak, bere amak lendanaz adirazia izanda, esan zuen: Eman zadazu emen plater batean Juan Bautistaren burua.
9. Eta erregea tristetu zan; baña juramentuagatik, eta berarekin maiean eseriak zeudenen begiruneagatik, agindu zuen, emana izan zizaio-la.
10. Eta bialdu zuen, eta kartzelan Juani lepoa ebaki zion.
11. Eta Juanen burua plater batean ekarria izan zan, eta neskatzari emana, eta onek bere amari eraman zion.
12. Eta etorririk bere ikasleak, bere gorputza artu zuten, eta obiratu zuten; eta joanik Jesusgana berria eman zioten.
13. Jesusek au aditu zuenean, alde egin zuen andik ontzitxo batean, erriatik kanpora zegoan toki eremu batera; eta jendetzak aditu zutenean, errietatik irtetzen ziradela, oñaz jarraitu zioten.
14. Eta Jesusek, ontzitxotik irtetzen zala, ikusi zuen jendetza andi bat, eta berakin urrikaldu zan, eta beren eriak sendatu zituen.
15. Eta arratsaldearen bukaeran, bere ikasleak beragana alderatu ziran, esaten zutela: Tokia eremutua da, eta iragoa da onezkeroz ordua, eta ala utzi zaiezu jendetza oriei, errietara joan ditizen, eta zer jan erosi dezaten.
16. Jesusek berriz esan zien: Ez daukate joanaren premiarik; zuek berai jaten eman zaiezute.

17. Berak erantzun zioten: Ez daukagu emen bost ogi, eta bi arrai baizik.

18. Jesusek esan zien: Onara ekarri zazkidazute.

19. Eta agindurik eseri zedilla jendetza belarraren gañean, arturik bost ogiak, eta arrai biak, bedeikatu zituen, zatitu zituen, eta ogiak eman ziozkaten ikasleai, eta ikasleak jendetzai.

20. Eta guztiak jan zuten, eta ase ziran, eta artu zituzten kondarrak, zeñakin gelditu ziraden amabi saski zatiz beteak.

21. Jan zutenak berriz, izan ziran bost milla gizon, emakumeak eta aurrak zenbatu gabe.

22. Eta bereala Jesusek bere ikasleai ontzitxora igoerazi zien, eta joanerazi itsasoaren beste aldamera, an berari itxedotzera, berak jendetzak bialtzen zituen artean.

23. Eta bialdurik jendetza, igo zan bakarrik mendira orazio egitera. Eta gaututa ere, bakarrik an zegoan.

24. Ontzitxoari berriz, itsasoaren erdian bagak gogorki erasoten zioten, zeren aizea kontrakoa zan.

25. Eta gauaren laugarren beillan, etorri zan Jesus berakganontz itsasoaren gañean zebillala.

26. Eta ikusi zutenean itsasoaren gañean zebillala, arritu ziran, eta esan zuten: iratxo bat da. Eta beldurrez beterik, deadarrez asi ziran.

27. Eta bereala Jesusek itz egin zien, esaten zuela: Alaitu zaitezte, ni naiz, ez ezazute beldurrik iduki.

28. Eta Pedrok erantzuten zuela, esan zuen: Jauna, zu bazera, agindu zadazu zukanontz uren gañetik joan nadilla.

29. Eta berak esan zion: Atoz. Eta Pedro jetxirik ontzitxotik, bazijon ibilliaz uren gañetik Jesusgana allegatzeko.

30. Ikusirik berriz aize sendoa zerabillala, beldurtu zan, eta ondatzen asi zanean, deadar egin zuen, esaten zuela: Jauna, salba nazazu.

31. Eta bereala Jesusek, luzaturik eskua, eldu zion, eta esan zion: Fede gutxio gizona, zergatik zalanzan jarri zera?

32. Eta ontzitxora igo ziradenean, aizea gelditu zan.

33. Ontzitxoan zeudenak berriz, etorri ziran, eta adoratu zuten, esaten zutela: Egiaz zu Jaungoikoaren semea zera.

34. Eta iragorik itsasoaren aldamen batetik bestera, Jenesaretko lurrera etorri ziran.

35. Eta nola an bizi ziradenak ezagutu zuten, bialdu zien berria alde-ri guzi artakoai, eta eri guziak ekarri ziozkaten.





36. Eta eskatzen zioten mesedez, bere soñekoaren ertzari bederik ukitzea. Eta ukitu zioten guztiak, sendatuak gelditu ziran.

### AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Garai onetan Jerusalemik etorri ziran Eskriba eta Fariseo batzuek, beragana alderatu ziran, esaten zutela.

2. Zergatik zure ikasleak ausitzen dituzte anziñakoetatik etorri zazkigun oiturak? Zeren ez dituzte beren eskuak garbitzen jatera dijoazenean.

3. Eta berak erantzuten ziela, esan zien: Eta zergatik zuek, daukazuten anziñatik etorritako oituragatik, Jaungoikoaren agintea ausitzen dezute? Zeren Jaungoikoak esan zuen:

4. Onratu itzatzu aita eta ama; eta Aitari, edo amari añenekoren bat botatzen diona, illa izan dedilla.

5. Zuek berriz, esaten dezute: Aitari edo amari esaten dionak, nik eskeñtzen dedan doaña zure onerako izango da.

6. Eta ez du, bere aita edo bere ama onratu bearrik idukiko, eta utsera bota dezute Jaungoikoaren agintea, anziñakoetatiko erakutsi, zuek daukazutena gatik.

7. Hipokritak! Ongi profetatu zuen zuekgatik Isaiasek, esaten zuela:

8. Erri onek españakin onratzen nau; baña bere biotza nigandikan urrutian dago.

9. Alperrik onratzen naute, gizonen doctrina eta aginteak erakusten dituztela.

10. Eta beragana ots eginik jendetzai, esan zien: Aditu nazazute, eta konprenditu zadazute.

11. Aotik sartzen dana, ez da gizona zikintzen duena, baizik aotik irtetzen dana, au da gizona zikintzen duena.

12. Orduan ikasleak beragana alderatzen ziradela, esan zioten: Bada-kizu, Fariseoak, itz au adituta eskandalizatu diradela?

13. Jesusek berriz erantzuten zuela, esan zuen: Nere aita zerukoak ipiñi ez duen landare guztia, sustraiz ateratua izango da.

14. Utzi zaiozute,itsuak dirade, eta itsuen gjalariak, eta itsu bat bada beste itsu baten zuzentzallea, biak kobara eroriko dirade.

15. Eta Pedrok erantzuten ziola, esan zion: Parabola au azalduzu zaguzu.

16. Eta Jesusek esan zuen: Oraindikan ere zuek adimentu gabe zaudete?

17. Ez dezute aditzen, aoan sartzen dan guztia sabelera dijoala, eta toki ezkutuetan aurtikitzen dala?

18. Aotik ateratzen diradenak berriz, biotzetik irtetzen dirade, eta oiek gizona zikintzen dute.

19. Zeren biotzetik irtetzen dirade gogorazio gaiztoak, gizon iltzeak, adulterioak, fornikazioak, lapurretak, gezurrezko testimonioak, blasfemiak.

20. Oiek dirade gizona zikintzen dutenak. Eskuak garbitu gabe jateak berriz, ez du gizona zikintzen.

21. Eta alde eginik andik Jesusek, Tiro eta Sidongo alderrietarontz joan zan.

22. Eta ona non Kanaango emakume bat, alderri aietatik irtenda, deadarrez asi zan, esaten zuela: Jaun, Dabiden semea, nerekin urrikal zaite, nere alaba demonioak portitzki oñazetua da.

23. Jesusek etzion itzik ere erantzun. Eta bere ikasleak alderatzen ziradela beragana, erregutuzten zioten, esaten zutela: Eman zaiozu eskatzen duena, joan dedin, zeren gure ondoren deadarrez datorren.

24. Berak berriz, erantzuten zuela, esan zuen: Ez naiz ni bialdua izan Israelko etxeko ardi, galdu ziradenetara baizik.

25. Alaere emakumea etorri zan, eta adoratu zuen, esaten zuela: Jauna, lagundu zadazu.

26. Berak, erantzuten zuela, esan zuen: Ez da on semeen ogia artu, eta txakurrai aurtikitzea.

27. Emakumeak berriz, esan zuen: Ala da Jauna; baña txakurtxoak beren nagusien maietik erortzen diran ogi apurrak jaten dituzte.

28. Orduan erantzuten zuela Jesusek, esan zion: O emakume! Zure fedea andia da; nai dezun bezala, ala egin dakizula. Eta bere alaba ordu artatik sendatua izan zan.

29. Eta alde eginik andik Jesusek, Galileako itsasoaren erriberara etorri zan, eta igotzen zala mendira, an eserita zegoan.

30. Eta alderatu ziraden beragana jendetza andiak, berakin zeuzkatenak mutuak,itsuak, errenak, elbarrituak, eta beste asko; eta bere oñetara aurtiki zituzten, eta sendatu zituen.

31. Alako moduan non, jendetzak miresten ziraden ikusten zituztenean mutuak itz egiten, errenak bazebiltzala,itsuak ikusten zutela, eta Israelko Jaungoikoa alabatzen zuten.

32. Jesusek berriz, bildurik bere ikasleak, esan zuen: Jendetza onen urrikaltasuna daukat, zeren iru egun dirade onezkero nerekin daudela, eta zer janikan ez daukate; eta baraurik ez ditut bialdu nai, bidean desmaiatuta gelditu ez ditezen.





33. Eta ikasleak esan zioten: Nola arkitu dezakegu toki eremu onetan, jendetza ain andia asetzeko adiña ogi?

34. Eta Jesusek esan zien: Zenbat ogi daukazute? Eta berak esan zuten: Zazpi, eta arraitxo batzuek.

35. Eta agindu zion jendetzari, lurraren gañean eseri zedilla.

36. Eta berak artzen zituela zazpi ogiak, eta emanik eskerrak, zatitutu zituen, eta bere ikasleai eman ziezten, eta ikasleak jendetzari eman ziezten.

37. Eta guztiak jan zuten, eta asetuak gelditu ziraden. Eta gelditu ziraden zatiakin zazpi saski bete zituzten.

38. Jan zutenak lau milla gizon ziraden, kopuru onetan aurrak eta emakumeak sartu gabe.

39. Eta utzirik jendetza, ontzixora igo zan, eta Majedango alderrietara joan zan.

### AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta alderatu zaiozkan Fariseoak eta Sadduzeoak tentatzen zutela, eta erregutu zioten, zeruko mirariren bat ikusierazi zizaiela.

2. Eta berak erantzuten ziela, esan zioten: Gaua allegatzera dijoanean esaten dezute: Egunaldi ona egingo du, zeren zerua osgorritua dagoan.

3. Eta goizean: Gaur ekaitzak izango dirade, zeren zerua estalia eta irazekia dagoan.

4. Beraz zeruaren iruditik juzgatzen dakizute, eta denbora oietako siñaleak ez ditzakezute jakin? Arraza gaizto eta adultero onek mirari bat eskatzen du, eta miraririk etzaio emana izango, Jonas profetaren miraria baizik. Eta utzitzen zituela oiek, joan zan.

5. Eta bere ikasleai, zetoztela itsasoaren beste aldamenetik, ogia artzea aztu zitzaieten.

6. Eta Jesusek esan zioten: Zaudete kontuan, eta alde egin ezazute Fariseoen eta Sadduzeoen legamitik.

7. Eta berak beren arteko gogorazioetan ari ziran esaten zutela: Au esaten du, ez degulako ogirik ekarri.

8. Eta ezagaturik au Jesusek, esan zien: Fede gutxiko gizonak: Zergatik zaudete zuen arteko gogorazioetan, ogirik ez daukazutelako?

9. Oraindikan ezagera gabe al zaudete, eta etzerate ere oroitzen, nola bost ogi bost milla gizoni emanak izan zitzaiezten, eta zenbat saski ogi zati artu zenduten?

10. Ezta ere zazpi ogiakin ere lau milla gizonentzat, eta zenbat zumezka bildu zenduzten gelditu zanetik?

11. Nola ez dezute ezagutzen, ogiagatik ez dizutedala esan: Alde egin ezazute Fariseoen eta Sadduzeoen legamitik?

12. Orduan aditu zuten etzitzaiotela esan alde egin zezatela, ogian ipintzen dan legamitik, baizik Fariseoen eta Sadduzeoen dotrinatik.

13. Etorririk gero Jesus Filiporen Zesareako aldamenetara, bere ikasleai galde egiten zien, esaten zuela: Zeñ dala gizonaren semea esaten dute gizonak?

14. Eta berak erantzun zuten: Batzuek esaten dute dala Juan Bautista, beste batzuek berriz Elias, eta beste batzuek Jeremias, edo profetetik bat.

15. Jesusek esan zien: Zuek berriz, zeñ naizala ni, esaten dezute?

16. Erantzuten zuela Simon Pedrok, esan zuen: Zu zera Kristo, Jaungoiko biziaren semea.

17. Eta Jesusek erantzuten zuela, esan zion: Zorionekoa zera Simon Jonaren semea, zeren aragiak eta odolak ez dizun agertu, baizik nere Aita zeruetan dagoanak.

18. Eta nik esaten dizut, zu zerala Pedro, eta arri onen gañean jasoko dedala nere eliza, eta infernuko atea bere kontra ez dirade garai jarriko.

19. Eta zeruetako erreñuko giltzak zuri emango dizkizut. Eta lurraren gañean lotzen dezun edozeñere gauza, zeruan ere lotua izango da, eta lurraren gañean askatzen dezun edozeñere gauza, zeruan ere askatua izango da.

20. Orduan agindu zien bere ikasleai, iñori ere etzitzaiotela esan bera Jesus Kristo zala.

21. Eta andikan laster asi zan Jesus bere ikasleai agertzen, nola berak joan bear zuen Jerusalemenera, eta an asko irago bear zuela zarren, eta Eskribanen, eta apaiz buruen aldetik, eta illa izan bear zuela, eta irugarren egunean biztu bear zuela.

22. Eta Pedro, bera berezian artzen zuela, asi zan berari errierta egiten, esaten zuela: Ez arren orrelakorik zuri, o Jauna; ez, ez da orrelakorik zure gañera etorriko!

23. Baña Jesusek beragana itzulita, esan zion Pedrori: Zoaz nere aurretik, Santanas, eskandalizatzen nazu, zeren ez daukazun Jaungoikoren guzaen gustorik, gizonen gauzaena baizik.

24. Orduan Jesusek bere ikasleai esan zien: Baldin iñork nere ondo-rean etorri nai badu, bere burua ukatu beza, eta bere gurutzeta artu beza, eta berraikit.

25. Zeren bere bizia salbatu nai duenak, galduko du; nigatik bere bizia galzten duenak, berriz, arkituko du.



26. Zeren zer balio dio gizonari mundu guztia irabazteak, bere animak kaltea artzen badu? Edo, zer emango du gizonak bere animaren trukadan?

27. Zeren gizonaren semea etorriko dan bere Aitaren glorian, bere aingeruakin, eta orduan emango dio bakoitzari bere egiteen araura.

28. Egiaz esaten dizutet, badaudela emen batzuek, ilko ez diradenak, gizonaren semea bere erreinuan agertzen ikusi dezaten artean.

### AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta sei egunen ondoan, artu zituen Jesusek Pedro, eta Santiago, eta Juan bere anaia, eta eraman zituen berezian zegoan mendi goratu batera.

2. Eta beren aurrean bestiruditu zan. Eta bere arpegiak eguzkiak bezela argi egin zuen; bere soñekoak berriz, zurituak jarri ziraden, elurra bezela.

3. Eta ona non agertu zitzaiezen Moises, eta Elias berarekin itz egiten zutela.

4. Eta Pedrok, izketan asitzen zala, esan zion Jesusi: Jauna, on da gu emen egotea; nai badezu, egin ditzagun emen iru bizeleku, zuretzat bat, Moisesentzat bat, eta Eliasentzat bat.

5. Oraindikan Pedro izketan ari zala, ona emen non, odei argitsu batek estali zituen. Eta ona non odeitik irten zan boz bat, esaten zuena: Au da nere seme maitea, zeñagan nere gozotasun guztiak dauzkadan.

6. Eta aditu zutenean au ikasleak, auzpez erori ziran, eta txit beldur-tu ziran.

7. Eta Jesus berakgana alderatu zan, eta ukitu zien, eta esan zien: Jaiki zaitezte, eta etzaitezte beldur izan.

8. Eta beren begiak jasotzen zituztela, iñor ere etzuten ikusi, Jesus bakarrik baizik.

9. Eta berak menditik jetxitzen ziradela, agindu zien Jesusek, eta esan zien: Ez diozute iñori ere esango ikusketa, aliketa gizonaren semea illen artetik biztu dedin artean.

10. Eta ikasleak galdetu zioten, esaten zutela: Nola bada Eskribak esaten dute, Eliasek lenago etorri bear duela?

11. Eta berak erantzuten zuela, esan zien: Ala da, Elias etorriko da, eta gauza guztiak berriz zuzen jarriko ditu.

12. Nik berriz esaten dizutet, Elias etorri zala, eta etzutela ezagutu, baizik berarekin, nai zuten guztia egin zutela. Ala berak gizonaren semea-ri ere padezitu eraziko diote.

13. Orduan konprenditu zuten ikasleak, Juan Bautistagatik itz egin ziela.

14. Eta etorri zanean jendetzagana, alderatu zan beragana gizon bat, belauniko jarririk bere aurrean, esaten ziola: Jauna, nere semearekin urrikaldu zaitte, zeren alditsua da, eta oñaze asko daramazki; zeren maiz sutara, eta sarri uretara aurtikitzen da.

15. Eta eraman diet zure ikasleai, eta ezin izan dute sendatu.

16. Eta erantzuten zuela Jesusek, esan zuen: O arraza sinisgogor eta gaiztoa! Noizarteraño zuekin egongo naiz? Noizarteraño sufrituko zaituztet? Onara ekarri zadazute.

17. Eta Jesusek demonioari errierta egin zion, eta mutillagandik irten zan, eta ordu artatik mutilla sendatu zan.

18. Orduan ikasleak alderatu ziran Jesusgana ixillean, eta esan zioten: Zergatik guk ezin aurtiki izan degu?

19. Jesusek esan zien: Zuen sinisgogortasunagatik, zeren egiaz esaten dizutet, mostaza ale bat adiñako fedea bazeneukate, esango diozute mendi oni, oa emendikan ara, eta joango da, eta ezerere ezinik ez da zuentzat izango.

20. Eta gañera, arraza mot au, orazioaren eta barauaren bitartez baizik ez da aurtikitzen.

21. Eta berak Galilean zeudela, Jesusek esan zien: Gizonaren semea gizonen eskuetan jarria izango da.

22. Eta ilko dute, eta irugarren egunean biztuko da. Eta txit tristetu ziran.

23. Eta Kafarnaumera etorri ziranean, alderatu ziraden Pedrogana bi drakmako kotizaren biltzalleak, eta esan zioen: Zuen Maisuak bi drakmak ez al ditu pagatzen?

24. Bai, erantzun zuen. Eta etxean sartu zanean, Jesusek aurrea artu zion, esaten ziola: Zer deritzazu, Simon? Lurreko erregeak norgandik artzen dute kotiza, edo petxa? Semeakgandik, ala arrotzak gandik?

25. Eta berak esan zuen: Arrotzakgandik. Jesusek esan zion: Beraz semeak ez daukate pagatu bearrik.

26. Baña alaere eskandalizatu ez ditzagun, zoaz itsasora, eta amua bota ezazu, eta lenengo irtetzen dan arraia artu ezazu, eta aoa idikitzen diozula, lau drakmako bat arkituko dezue, eta artzen dezula, nigatik eta zugatik eman zaiezu.



## EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Ordu artan alderatu ziran ikasleak Jesusgana, esaten zutela: Zeñ, ueste dezu, zeruetako erreinuan andiena izango dala?
2. Eta Jesusek, ots eginik beragana mutiko aur bati, beren erdian jarri zuen,
3. Eta esan zuen: Egiaz esaten dizutet, itzultzen ez bazerate, eta egi-ten ez bazerate aurren antzekoak, zeruetako erreinuan etzerate sartuko.
4. Mutiko aur au bezela bada umillatzen dana, au zeruetako erre-  
nuan andiena izango da.
5. Eta artzen duenak alako aur semetxo bat nere izenean, ni artzen nau.
6. Nigan sinistzen duten aurtxo oietatik bati berriz, gaitzerako bidea ematen dionari, obe lizaioke, jarriko balitzaioke lepotik zinzilika, asto batek darabillan errotako arri oietatik bat, eta ala itsasoaren barrenen ondatua izango balitza.
7. Ai munduaren doakabea eskandaloakgatik! Zeren premiazkoa bada ere eskandaloak etortzea; alaere, ai gizon aren beragatik eskandalua datorrenaren zorigaiztokoa!
8. Eta baldin zure eskuak, edo zure oñak gaitzerako bidea ematen badizu, atera ezazu, eta zugandik aurtiki ezazu, zeren obe dezun sartzea betiko bizitzan txangu, edo erren, bi esku, edo bi oin-rekin betiko sutara aurtikia izatea baño.
9. Eta baldin zure begiak gaitzerako bidea ematen badizu, atera ezazu, eta bota ezazu zugandik, zeren obe dezu, begi batekin betiko bizi-  
tzan sartzea, bi begi dauzkazula suzko infernura aurtikia izatea baño.
10. Begiratu ezazute txikitxo oietatik bat ere ez dezazutela mezpre-  
ziatu, zeren esaten dizutet, oien aingeruak zeruetan beti ikusten dutela, nere Aita, zeruetan dagoanaren arpegia.
11. Zeren gizonaren semea, galdu zana salbatzera etorri zan.
12. Zer deritzazute? Baleuzka norbaitek eun ardi, eta beretatik bat galduko balitza, ez al ditu utzitzen larogeita emeretzia mendietan, eta ez al dijoa galdu danaren billan?
13. Eta gertatuko balitza arkitzea, egiaz esaten dizutet, beragatik bozkario andiagoo artuko duela, galdu etziraden larogeita emeretziakgatik baño.
14. Ala ez da zuen Aita zeruetan dagoanaren borondatea, txikitxo oietatik bat ere galdu dedilla.

15. Eta baldin zure anaiak zure kontra bekatu egingo balu, zoaz, eta errierta egin zaiozu zure eta bere artean bakarrik: aditzen bazaitu, zure anaia irabazi izango dezu.
16. Baldin berriz aditzen ez bazaitu, oraindikan artu itzatzu zurekin lagun bat, edo bi, testigu bi edo iruen aoan egon dedin itz guztia.
17. Oiei aditzen ez badie, elizari esan zaiozu; eta baldin elizari aditzen ez badio, jentilla eta publikanoa bezela iduki ezazu.
18. Egiaz esaten dizutet, lurraren gañean lotzen dezuten guztia, zeruan ere lotua izango dala; eta lurraren gañean askatzen dezuten guztia, zeruan ere askatua izango dala.
19. Berriz esaten dizutet: zuetatik bi elkartzen badirade beren artean lurraren gañean, zerbait eskatzeko, dana dala, nere Aita zeruetan dagoa-  
nak emango die.
20. Zeren non dauden bi, edo iru bilduta nere izenean, an nago ni beren erdian.
21. Orduan Pedrok, alderatzen zala beragana, esan zion: Jauna, zen-  
bat aldiraño barkatu bearko ote diot nere anaiari, nere kontra bekatu egi-  
ten duenean? Zazpi aldiraño ote?
22. Jesusek esan zion: Ez dizut esaten zazpi aldiraño; baizik iruro-  
geita amazapiraño.
23. Argatik zeruetako erreinua da, bere morroiai kontuak artu nai ziezten gizon errege baten irudikoa.
24. Eta asi zanean berai kontuak artzen, aurrean jarri zitzaioten bat, zeñak berari amar milla talentu zor ziozkan.
25. Eta nola etzeukan onek zerekin pagatu, bere nagusiak agindu zuen, salduak izan zitezela bera, eta bere emaztea, eta semeak, eta zeukan guztia, eta zorra pagatua izan zekiola.
26. Morroi hurak berriz, auzpeztzen zala bere oñetan, erregututzen zion, esaten ziola: itxedon zadazu, eta guztia pagatuko dizut.
27. Eta urrikaldurik nagusia morroi arekin, utzi zuen askatuta, eta zorra ere barkatu zion.
28. Eta irten zanean morroi hura, arkitu zuen bere morroi laguneta-  
tik bat, zeñak eun denario zor ziozkan; eta eltzen ziola itotzen zerabillan, esaten ziola: Pagatu ezak zor dekana.
29. Eta bere morroi lagunak, auzpeztzen zala bere oñetan erregutu-  
tzen zion, esaten ziola: itxedon zadazu, eta guztia pagatuko dizut.
30. Berak ordea etzuen nai; baizik joan zan, eta sartu erazi zuen kar-  
zelan, zorra pagatu arteraño.



31. Eta ikusirik bere morroi lagunak nolako gertakariak iragotzen ziraden, txit tristetu ziraden; eta joan ziraden beren nagusiagana, eta irago ziraden gauza guztiak kontatu ziozkaten.

32. Orduan ots egin zion bere nagusiak, eta esan zion: Morroi gaiztoa, nik zor guztia barkatu nikan, erregutu idakalako.

33. Eta i ere ire morroi lagunagaz errukitu bear ez intzakan, ni izaz errukitu nindukan bezela?

34. Eta aserreturik bere nagusia, jarri zuen borreroaren eskuetan, zor guztia pagatu arteraño.

35. Nere Aita zerukoak ere ala egingo dizute, bakoitzak bere anaiari biotzetik barkatzen ez badio.

### EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan Jesusek izketa oiek bukatu zituenean, alde egin zuen Galileatik, eta etorri zan Judeako mugetara, Jordanen beste aldame-nera,

2. Eta jendetza andiak jarraitu zioten, eta an eriak sendatu zituen.

3. Eta alderatu ziran beragana Fariseoak, tentatzen zutela, eta esaten ziotela: Ote zaio zillegi gizon bati, edozeñere gauzagatik bere emaztea utzitzea?

4. Jesusek erantzuten zuela, esan zien: Ez al dezute irakurri, asieran gizona egin zuenak, gizona, eta emakumea egin zituela?

5. Argatik gizonak aita eta ama utziko ditu, eta bere emazteaganatu-ko da, eta aragi batean bi izango dirade.

6. Ala bada onezkero ez dirade bi, baizik aragi bat. Jaungoikoak bada elkartu zuena, gizonak ez beza berezitu.

7. Berak esan zioten: Zergatik bada Moisesek agindu zuen, utziaren agiria emateko, eta utzitzeko?

8. Jesusek esan zien: Zeren Moisesek zuen biotzeko gogortasunaga- tik eman zizuten baimena, zuen emazteak utzitzeko; asieratik ordea etzan ala izan.

9. Ala bada esaten dizutet, bere emaztea utzitzen duenak, fornika- zioagatik ez izanenean, eta beste batekin ezkontzen danak, adulterioko bekatua egiten duela; eta utziarekin ezkontzen danak, adulterioko bekatua egiten duela.

10. Bere ikasleak esaten diote: Orrela izan bear badu gizonak emaz- tearekin, ez da ezkondu bear.

11. Jesusek esan zien: itz au egiztatzeko gai ez dirade guziak, emana izan zaienak baizik.

12. Zeren badirade txikiratuak, amaren sabeletik ala jaino ziradenak; eta badirade txikiratuak, gizonak eginak izan ziradenak; eta badirade txi- kiratuak, berak txikiratu ziradenak zeruetako erreñuagatik. Arrapatu dezakeanak, arrapatu beza.

13. Orduan aurrean jarri ziozkaten aur batzuek, bere gañean eskuak ipiñi zitzaizkien, eta orazio egin zezan. Ikasleak ordea errierta egiten zien.

14. Jesusek ordea esan zien: Utzi zaiezute pakean aurrai, eta nigana etortzea etzaiezute galerazi, zeren zeruetako erreñua, berak bezelakoak diradenena dan.

15. Eta berai eskuak buruen gañean jarri ziozkatenean, joan zan andik.

16. Eta ona emen non alderatzen zitzaizkion bat, esan zion: Erakusla ona, nolako obra onak egin bear ditut, betiko bizitza iritxitzeko?

17. Berak esan zion: Zergatik ona ots egiten didazu? Jaungoikoa bakarrik da ona. Betiko bizitzan sartu nai badezu berriz, mandamentuak gorde itzatzu.

18. Mutillak esan zion: Zer mandamentu? Eta Jesusek esan zion: Ez dezu inor ilko. Ez dezu adulterioko bekatuak egingo. Ez dezu lapurretari- rik egingo. Gezurrezko asmaziorik ez dezu esango.

19. Zure aita, eta zure ama onratu itzatzu; eta zure projimoa, zu zero- ri bezela maitatu ezazu.

20. Galai gazteak esaten dio: Oiek guziok nere gazte denboratik zaitu ditut; zer besterik bear det?

21. Jesusek esan zion: Osoz ona izan nai badezu, zoaz, eta saldu ezazu daukazun guztia, eta beartsuai eman zaiezu, eta zeruan tesoro bat idukiko dezu; gero atoz, eta darraidazu.

22. Galai gaztea berriz, itz oiek aditu zituenean, tristetua joan zan, zeren gauza askoren jabe zan.

23. Eta Jesusek bere ikasleak esan zien: Egiaz esaten dizutet, aberats batek txit gaitz izango duela, zeruetako erreinuan sartzea.

24. Eta berriz esaten dizutet: Gamelu bat jostorrazaren begitik iga- rotzea errazago da, aberats bat zeruetako erreinuan sartzea baño.

25. Gauza oiek aditurik, ikasleak txit miraritzen ziraden, esaten zute- la: Nor bada salbatu al diteke?

26. Eta Jesusek berai begiratzen ziela, esan zien: Gizonentzat au ez ditekean gauza da; baño Jaungoikoak gauza guztiak egin ditzake.

27. Orduan Pedrok erantzuten ziola, esan zion: Ona emen non guk, gauza guztiak utzi giñituen, eta jarraitu dizugu; zer izango da bada gurekin?



28. Eta Jesusek esan zien: Egiaz esaten dizutet, zuek, jarraitu didazu-tenak, biztze berriko egunean, Gizonaren semea bere anditasuneko tokian esertzen danean, zuek ere eseriko zeratela amabi esertokiren gañean, Israelko amabi tribuak juzgatzeko.

29. Eta utzitzen dituen guztiak etxea, edo anaiak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo semeak, edo soroak nere izenagatik, eunetan anbat artuko du, eta betiko bizitzaren jabe izango da.

30. Eta lelenagoak ziraden asko izango dirade atzenekoak, eta atzenekoak lenengoak.

### OGEIGARREN KAPITULUA

1. Zeruetako erreñua da, goizean goiz bere mastirako langilleen eske irten zan etzeko-buruaren antzekoa.

2. Eta langilleak eta berak ajustea eginik eguneko diru bat emango ziela, bere mastira bialdu zituen.

3. Eta ateratzen zala irugarren orduaren aldean, ikusi zituen beste batzuek plazan alperrik zeudela,

4. Eta esan zien: Zuek ere nere mastira zoazte, eta bidezko dana emango dizutet.

5. Eta berak joan ziran. Berriz ere bi alditan seiretako, eta bedera-tzietako orduaren aldean irten zan; eta orobat egin zuen.

6. Eta amaikagarren ordurantz irten zan, eta arkitu zituen beste batzuek zutik zeudela, eta esan zien: Nola zaudete emen egun guztian alpe-ririk?

7. Esaten diote: iñork ere ez gaituelako alogerean eraman. Esan zien: Zuek ere nere mastira zoazte.

8. Eta eguzkia sartu zanean, mastiaren jabeak bere maiordomoari ots egin zion, eta esan zion: Ots egin zaiezu langilleai, eta alogera pagatu zaiezu, asitzen zerala atzenekoetatik, eta lenbizikoetatik bukatzen dezula.

9. Etorri ziradenean amaikaetako orduaren aldean etorri ziranak, bakoitzak diru bat artu zuten.

10. Etorri ziradenean bada lenengoak, uste zuten geiago artuko zute-la, eta berak ere bakoitzak diru bat artu zuten.

11. Eta artzen zutenean gaizki esaka ari ziran etxekoburuaren kontra,

12. Esaten zutela: Oiek atzenekoak ordu bateko lana baizik ez dute egin; eta berdindu dituzu gurekin, egunaren eta beroaren zama eraman degunakin.

13. Baña berak beretatik bati erantzuten ziola, esan zion: Adiskidea, ez dizut bidegabetasunik egiten; ez al ziñan nerekin diru batean ajustatu?

14. Artu ezazu bada zurea dana, eta zoaz; nik berriz, atzeneko oni ere zuri bezela eman nai diot.

15. Edo, ez al dezaket nik nai dedana egin? Edo zure begia gaiztoa izango al da, ni ona naizalako?

16. Ala izango dira atzenak lenengoak, eta lenengoak atzenak, zeren asko dirade deituak, berriz gutxi autuak.

17. Eta igotzen zala Jesus Jerusalemenera, artu zituen berezian amabi ikasleak eta esan zien:

18. Ona non igotzen geran Jerusalemenera, non gizonaren semea izango dan apaizburuen eta Eskribaen eskuetan jarria, eta eriotzara kondena-tuko dute,

19. Eta jentillai emango die, izan dedin isekatua, eta azotatua, eta gurutziltzatua, eta irugarren egunean biztuko da.

20. Orduan alderatu zan beragana Zebedeoren semeen ama, bere semeakin, eta adoratu zuen, agertzen zuela zerbaite eskatu nai ziola.

21. Jesusek esan zion: Zer nai dezu? Berak esan zion: Esan ezazu nere seme bi oiek eseri ditezela, bata zure eskuian, eta bestea ezkerrean, zure erreinuan.

22. Erantzuten zuela Jesusek, esan zien: Ez dakizute zer eskatzen dezuten. Edan badezakezute, nik edango dedan kaliza? Esaten diote: Badezaguke.

23. Eta esan zien: Nere kaliza bai edango dezute; baña esertzea nere eskuian, edo ezkerrean, ez dagokit niri ematea zuei, baizik nere Aitak prestatu dienai.

24. Eta aditurik oiek amarrak, bi anaien kontra aserretu ziran.

25. Eta Jesusek ots egin zien beragana, eta esan zien: Badakizute erreñuetako prinzipiak beren erriak mendean dauzkatela, eta bere andiz-kiak gogortasunarekin agintzen diela.

26. Ez da zuen artean ala izango; baizik zuen artean andiena izan nai duena, zuen morroia izan bedi.

27. Eta zuen artean lenengoak izan nai duena, zuen mendekoa izango da.

28. Nola gizonaren semea ere etzan etorri serbitua izatera, baizik ser-bitzera, eta askoren erredenziorako bere bizia ematera.

29. Eta irtetzen ziradela berak Jerikotik, jendetza andi batek jarraitu zion.

30. Eta ona non bidearen aldean eseriak zeuden gizon itsu bik, aditu zuten Jesus iragotzen zala, eta deadar egin zuten, esaten zutela: Jauna, Dabiden semea, guzaz errukitu zaite.





31. Jendetzak berriz, errierta egiten zien, ixildu zitezen. Baña berak geiago deadar egiten zuten, esaten zutela: Jauna, Dabiden semea, guzaz errukitu zaite.

32. Eta gelditu zan Jesus, eta ots egin zien, eta esan zien: Zer nai dezute egin dizazutedan?

33. Berak esaten diote: Gure begiak idikiak izan ditezela.

34. Eta errukiturik Jesus berakin, beren begiai ukitu zien. Eta berea-la ikusten zuten, eta berari jarraitu zioten.

### OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Eta alderatu ziradenean Jerusalemenera, eta etorri ziradenean Betfajera, Olibeteko mendira; orduan Jesusek bialdu zituen bi ikasle,

2. Esaten ziela: Zoazte zuen aurkez dagoan errira, eta bereala arkituko dezute asto eme bat lotuta, eta berarekin astokume bat; askatu itzaztute eta ekarri zazkidazute.

3. Eta baldin inork ezerere esango balizute, erantzungo diozute, Jau-nak oien premia daukala, eta bereala utziko dizkizute.

4. Au guziau gertatu zan, kunplitu zedin Profetak esan zuena:

5. Esan zaiozute Siongo alabari, ona emen non zure erregea datorren zugana otsantasunez betea, asto eme baten gañean eserita, eta bere astokumea, uztarrira oitua dagoanaren astokumea da.

6. Eta joanik ikasleak, Jesusek agindu zien bezela egin zuten.

7. Eta ekarri zituzten asto emea, eta astokumea, eta beren soñekoak beren gañean jarri zituzten, eta berari gañean eseri erazi zioten.

8. Eta jendetza andi batek beren soñekoak bidean zabaldu zituzten, beste batzuek berriz, zuaizetako ostoaikin adarrak ebakitzen zituzten, eta bidean ipintzen zituzten.

9. Eta bere aurretik zijoazen jendetzak, eta berari jarraitzen ziotenak, deadarrez ari ziran, esaten zutela: Hosanna Dabiden semeari, zorionekoa Jaunaren izenean datorrena, hosanna txit goietan.

10. Eta Jerusalemenera sartu zanean, erri guztia mugitu zan, esaten zuela: Zeñ da au?

11. Eta jendeak esaten zuen: Au da Jesus, Galileako Nazaretko profeta.

12. Eta sartu zan Jesus Jaungoikoaren tenploan, eta bota zituen tenploan saltzen eta erosten ari ziradenak, eta ganbialarien maiak, eta usoak saltzen zituztenen sillak zatitu zituen.

13. Eta esan zien: Eskribatua dago, nere etxeari orazioko etxea deituko zaio; zuek berriz, lapurren koba egin dezute.

14. Eta alderatu ziraden beragana itsuak eta errenak tenploan, eta sendatu zituen.

15. Eta ikusirik apaizburuak eta Esribak, egin zituen mirariak, eta aurrak deadarrez ari ziradela tenploan, eta esaten zutela: Hosanna Dabiden semeari; aserretu ziran,

16. Eta esan zioten: Aditzen dezu oiek zer esaten duten? Eta Jesusek esan zien: Bai. Beñere ez al dezute irakurri, txikitxoek eta bularreko aurren aotik zure alabantza artu zenduen?

17. Eta utzirik aiek, joan zan erritik kanpora Betaniara, eta an egotez egon zan.

18. Biaramon goizean berriz, errira itzultzen zala, gose izan zan.

19. Eta ikusirik piku zuaitz bat bidearen aldean, joan zan beragana, zeñean etzuen ezerere arkitu, ostoaik baizik, eta esan zion: Arren bada, beñere ez al dek igandik fruturik jaioko. Eta bereala piku ondoa igartu zan.

20. Eta ikusirik au ikasleak, miraritu ziran, esaten zutela: Nola bereala igartu da?

21. Eta Jesusek erantzuten zuela, esan zuen: Egiaz esaten dizutet, fedea bazeneukate, eta ez baziñate zalanzen egongo, ez bakarrik egingo dezute piku ondoarena, baita ere esango baziñote mendi oni: Atera adi, eta aurtiki adi itsasora, egingo da.

22. Eta orazioan eskatzen dezuten guztia, sinisten dezutela, artuko dezute.

23. Eta tenplora etorri zanean, alderatu ziraden beragana, erakutsiak ematen ari zala, apaizburuak, eta erriko zarrak, esaten zutela: Zer eskubiderekina gauza oiek egiten dituzu? Eta eskubide au, nork eman dizu?

24. Jesusek erantzuten zuela, esan zien: Nik ere galde bat egin bear dizutet, eta baldin artara erantzuten badidazute, nik ere esango dizutet, ze eskubiderekina gauza oiek egiten ditudan.

25. Juanen bataioa nongoa zan? Zerutikoa, ala gizonakgandikoa? Eta berak beren artean zeuden gogorazioetan, esaten zutela:

26. Esaten badegu zerutikoa zala, esango digu. Zergatik bada ez dezute beragan sinistu? Erantzuten badegu gizonakgandikoa, erriaren beldur izan bear gera; zeren guztiak Juan profeta bezela zeukaten.

27. Eta erantzuten ziotela Jesusi, esan zuten: Ez dakigu. Eta berak esan zien: bada nik ere ez dizutet esaten, ze eskubiderekina gauza oiek egiten ditudan.





28. Eta zer deritzazute? Gizon batek bi seme zeuzkan, eta alderaturik lenengoagana, esan zion: Ene semea, zoaz gaur, nere mastian lanean aritzera.

29. Berak berriz, erantzuten zuela, esan zuen: Ez det nai. Gero berriz, damututa, joan zan.

30. Eta alderaturik besteagana, berdin esan zion: Eta berak erantzuten zuela, esan zuen: Banoa, Jauna, eta etzan joan.

31. Bietatik zeñek egin zuen aitaren borondatea? Esaten diote: Lenengoak. Jesusek esan zion: Egiaz esaten dizutet, publikanoak eta galotsak Jaungoikoaren erreinurako zuek baño aurrerago izango diradela.

32. Zeren Juan etorri zan zuekgana justiziako bidetik, eta etziñioten sinistu; publikanoak eta galotsak berriz, sinistu zioten; baño zuek, au ikusita ere, etziñaten gero penitenziara mugitu, beragan sinistzeko.

33. Beste parabola bat aditu ezazute. Bazan gizon etxe jaun bat, zeñak ipiñi zuen masti bat, eta esiz ingurutu zuen, eta aitzurtuta, dolare bat egin zuen, eta dorre bat ere jaso zuen, eta gero maizter batzuei eman zien, eta toki urruti batera joan zan.

34. Eta frutuen denbora allegatu zanean, bere morroiak maizterrak-gana bialdu zituen, bere frutuak artzeko.

35. Eta maizterrak, erasorik bere morroiak, batari makillaka egin zioten, beste bat il zuten, beste bati berriz arrika egin zioten.

36. Berriz bialdu zituen beste morroi batzuek lenengoak baño geiago, eta berai orobat egin zien.

37. Eta atzanean bialdu zuen berakgana bere semea, esaten zuela: Nere semeari bederik lotsaz begiratuko diote.

38. Maizterrak ordea ikusirik semea, beren artean esan zuten: Au nagusiaren oiñordekoa da, ots, atozte, il dezagun, eta bere ondadea idukiko degu.

39. Eta eltzen ziotela, bota zuten mastitik kanpora, eta il zuten.

40. Datorrenean bada mastiaren jabea, maizter aiekin zer egingo du?

41. Berak esaten diote, gaiztoak gaizki galduko ditu; eta bere mastia emango die beste maizter beren denboretan frutuak emango dieztenai.

42. Jesusek esan zion: Beñere ez al dezute Eskriturretan irakurri, etxe egilleak txartzat eman zuten arria, au kantoiaeren buru egiña izan da? Jau-nak au egin du, eta gure begietan miragarria da.

43. Argatik esaten dizutet, zeruetako erreinua kendua izango zatzutela, eta bere frutuak egiten dituen jendeari emana izango zaiola.

44. Eta arri onen gañera erortzen dana, zatitua izango da: eta bere gañera erortzen zaiona berriz, txeatuko du.

45. Eta apaizburuak, eta Fariseoak bere parabolak aditu zituztenean, ezagutu zuten berakgatik itz egiten zuela.

46. Eta berari eldu nai bazioten ere, erriaren beldur ziran: zeren profeta bezela zeukatzen.

## OGETA BIGARREN KAPITULUA

1. Eta Jesusek jarraiturik izketari, berriz ere parabolatan itz egin zion, esaten zuela:

2. Zeruetako erreinua, semea ezkontzeko eztaiak prestatu zituen errege baten antzekoa da.

3. Eta bialdu zituen bere morroiak, lendanaz esanda zeudenai ots egitera eztaietara, eta etziran etorri nai.

4. Berriz beste morroi batzuek bialdu zituen, esaten ziela: Esan zaiezute konbidatuai: Ona non nere jateketa prestatu dedan, nere txalak eta abere gizenduak illak dirade, eta guztia prest dago, atozte eztaietara.

5. Berak ordea mezpreziatu zuten, eta joan ziran bata bere sorora, bestea berriz, bere saldu erosira.

6. Gañerakoak berriz, arrapatu zituzten morroiak eta isekaz bete, eta gero il zituzten.

7. Aditu zituenean oiek erregeak, aserretu zan, eta bialdurik bere martiztiak, galdu zituen eralla aiek, eta beren erriari su eman zion.

8. Orduan esan zion bere morroiak: Eztaiak prestatuta daude, esan zitzaientzen ordea etziraden diña.

9. Zoazte bada bidegurutzetara, eta arkitzen dituzuten guziaz, eztaietara ots egin zaiezute.

10. Eta ateratzen ziradela bideetara bere morroiak, arkitu zituzten guztiak bildu zituzten, onak, eta gaiztoak; eta eztaietarako jarri zituzten maiak bere ziran.

11. Eta sartu zan erregea, maiean zeudenak ikustera, eta ikusi zuen an gizon bat, eztaiko soñekoarekin jantzi gabea.

12. Eta esan zion: Adiskidea, nola onara sartu zera eztaiko soñeko gabe? Eta bera mututu zan.

13. Orduan esan zion erregeak bere serbitzariak: Eskuak eta oñak lotuta, aurtiki ezazute kanpora, illuntasunetara; an izango da negarra, eta ortz karraskotsa.

14. Zeren asko diraden deituak, gutxi berriz autuak.

15. Orduan, alde eginek Fariseoak, batzarrea egin zuten, nola arrapatuko ote zuten esaten zituen itzetan.



16. Eta bialtzen diozkate beren ikasleak Herodianoakin, esaten ziotela: Maisua, badakigu egiatia zerala, eta Jaungoikoaren bidea erakusten dezula egia garbiaren araura, iñoren ere begirune gabetanik; zeren ez dezun zeñ, zeñ dan begiratzen.

17. Esan zaguzu bada arren, zer deritzazu, zillegi da Zesarri kotiza ematea, ala ez?

18. Eta ezagaturik Jesusek beren gaiztakeria, esan zuen: Zergatik tentatzen nazute, hipokritak?

19. Erakutsi zadazute kotiz dirua. Eta berak diru bat eman zioten.

20. Eta Jesusek esan zien: Zeñanek dirade irudi au eta letra oiek?

21. Esaten diote: Zesarrenak. Orduan esan zien: Bada eman zaiozute Zesarrena dana, Zesarri; eta Jaungoikoarena dana, Jaungoikoari.

22. Eta oiek aditu zituztenean, miraritu ziran, eta utzitzen zutela bera, joan ziran.

23. Egun artan alderatu ziran beragana Sadduzeoak, zeñak esaten duten ez dagoala biztutzerik; eta galdetu zioten.

24. Esaten zutela: Erakuslea, Moisesek esan zuen, norbait ilko baltza semerik iduki gabe, bere anaia ezkondu dedilla aren emaztearekin, bere anaia jatorria emateko.

25. Baziraden gure artean zazpi anai, eta lenengoa ezkondu, il zan; eta nola etzuen familiarik utzi, bere emaztea bere anaia utzi zion.

26. Orobat gertatu zitzairen bigarrenari eta irugarrenari zazpigarrene-raño.

27. Eta guztien ondoan, andrea il zan.

28. Orain bada, biztutze berrian, zazpiretatik zeñaena izango da emaztea? Zeren guztiena izan zan.

29. Eta Jesusek erantzuten ziela, esan zien: Uts egiten dezute, ez dakizkizutela Eskriturak, ez Jaungoikoaren eskubidea.

30. Zeren biztutze berrian, ez gizonak artuko dute andrerik, ez andreak senarririk; baizik zeruan Jaungoikoaren aingeruak bezelakoak izango dirade.

31. Illen biztutzearen gañean berriz, ez dezute irakurri Jaungoikoak esan dizutena:

32. Ni naiz Abrahamen Jaungoikoa, eta Isaak-en Jaungoikoa, eta Jakoberen Jaungoikoa? Ez da illen Jaungoikoa, baizik biziena.

33. Eta oiek aditu zituenean erriko jendeak, bere dotrinarekin miraritua zegoan,

34. Fariseoak berriz, aditurik Sadduzeoak ixillik utzi zituela, bildu ziran batean.

35. Eta beretatik batek, lege erakusleak, tentatzen zuela, galdetu zion:

36. Erakuslea, zeñ da legean aginterik nagusiena?

37. Jesusek esan zion: Zure Jaun Jainkoa maitatuko dezute zure biotz guztitik, eta zure anima guziarekin, eta zure adimen guziarekin.

38. Au da aginterik andiena, eta lenengoa.

39. Bigarrena onen antzekoa da. Maitatuko dezute zure lagun urkoa, zu zerori bezela.

40. Bi aginte onetan daude sartuta lege guziak, eta profetak.

41. Zeudela emen Fariseoak bilduta, Jesusek egin zien galde au.

42. Esaten ziela: Zer deritzazute zuei Kristogatik? Zeñen semea da? Esaten diote: Dabidena.

43. Esan zien: Nola bada Dabidek profeten espirituan ots egiten dio bere Jauna, esaten duenean:

44. Jaunak nere Jaunari esan zion: nere eskuian eseri zaite, zure oinpeko oltzat zure etsaiak jartzen ditudan artean?

45. Baldin bada Dabidek bere Jauna ots egiten badio, bere semea nola da?

46. Eta iñork ere itzik erantzun ez lizakion, eta egun artatik iñor ere etzan ausartu berriz galderik egiten.

## OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Orduan Jesusek itz egin zien jendetzai, eta bere ikasleai.

2. Esaten ziela: Eskribak eta Fariseoak Moisesen erakustokian eseriak daude.

3. Esaten dizkizuten gauza guztiak bada zaitu eta egin itzatzute; beren obraen araura berriz ezitatzute egin, zeren esaten dute, eta ez dute egiten.

4. Zeren zama andi eta sufritu ezinak lotzen dituzte, eta gizonen bizkarretan ipintzen dituzte; ez dituzte nai berriz beren beatz batekin ere mugitu.

5. Beren obra guziak berriz egiten dituzte, gizonak ikusiak izan dituzten; argatik zabaltzen dituzte beren larru ualak, eta apaintzen dituzten soñekoen ertzetako zintak.

6. Nai dituzte ere lenengo esertokiak jateketetan, eta lenengo sillak sinagogetan.

7. Eta plazan agurrak egin dizaietzela, eta gizonak Erakusleen izena eman dizaiela.

8. Zuek kontrara; ez dezute naiko Erakuslaen izenarekin besteak ots egitea, zeren bat dan zuen Erakuslea, eta zuek guziok anaiak zerate.



9. Ez diozute ere iñori lurraren gañean aita ots egingo; zeren bat bakarra da zuen Aita, zeñ zeruetan dagoan.
10. Ez dezute ere bear elkarri Erakuslea ots egin; zeren Kristoa dan zuen Erakusle bakarra.
11. Zuen artean andiena dana, zuen serbitzaria izango da.
12. Goratutzen dana berriz, beeratua izango da, eta beeratzen dana goratua.
13. Ai berriz zuen, Eskriba eta Fariseo hipokritaen doakabeak! Zeruetako erreinua gizonentzat itxitzen dezutenenak; zeren zuek etzera-te sartzten, eta sartzera dijoazenai ez diezute utzitzen.
14. Ai zuen, Eskriba eta Fariseo hipokritaen doakabeak! Zeñak iretsitzen dituzuten andre alargunen etxeak, orazio luzeak egiteko aitzakia-ekin; argatik sententzia gogorragoa artuko dezute.
15. Ai zuen, Eskriba eta Fariseo hipokritaen, doakabeak! Zeren itsa-soak eta lurra ingurututzen dezuten jentil bat konbertitzeko, eta konber-titzen dezutenean, zuek baño bi alditan anbat, infernuaren diñago egiten dezute.
16. Ai zuen, gialari itsuen, doakabeak! Zeñak esaten dezuten: Jura-mentu egiteak batek tenplokatik, utsa da; baño juramentu egiten duena tenploko urreatatik, kunplitzera beartua dago.
17. Zentzugabe eta itsuak! Zeñ da andiago, urrea, ala urrea santutu-tzen duen tenploa?
18. Eta baldin norbaitek aldareagatik juramentu egiten badu, ezerere ez da; juramentu egiten duenak berriz aldarearen gañean dagoan eskeñ-tzagatik, zor du.
19. Itsuak! Zeñ da andiago, eskeñtza, ala eskeñtza santututzen duen aldarea?
20. Aldareagatik juramentu egiten bada, juramentu egiten du beraga-tik, eta bere gañean ipintzen diraden gauza guztiakgatik.
21. Eta tenploagatik juramentu egiten duenak, juramentu egiten du beragatik, eta bertan dagoan Jaunagatik.
22. Eta zeruagatik juramentu egiten duenak, juramentu egiten du Jaungoikoaren esertokiagatik, eta bertan eseria dagoanagatik.
23. Ai zuen, Eskriba eta Fariseo hipokritaen doakabeak! Mendaren, ezamilluaren, eta kuminoaren amarrena pagatzen dezutenenak; eta pisua-goak diradenak utzi dituzute izanik legeak aginduak, zuzentasuna, erru-kia, eta fedea. Oiek egin bear zenduzten, eta aiek ez utzi.
24. O gialari itsuak, eltxo bat irazitzen dezutenak, eta gamelu bat ire-tsitzen dezutenak!

25. Ai zuen, Eskriba eta Fariseo hipokritaen, doakabeak, garbitzen dituzutenak kanpotik kopa eta platera, eta barrendik lapurretaz, eta zikin-keriaz beteak zaudetenak!
26. Fariseo itsua, garbitu itzak aurrena barrendik kopa eta platera, kanpokoa garbia izatea nai badek.
27. Ai zuen, Eskriba eta Fariseo hipokritaen, doakabeak, zeren obi zurituen antzekoak zeraten, zeñak kanpotik gizonai ederrak deritzaten, baño barrendik illen ezurrez, eta zikinkeria mota guziaz beteak dauden.
28. Ala zuek ere kanpotik gizonai justoak agertzen zatzaiezte; barren-dik berriz hipokresiak, eta gaiztakeriaz beteak zaudete.
29. Ai zuen, Eskriba eta Fariseoen, doakabeak, zeñak egiten dituzu-ten profeten obiak, eta apaintzen dituzuten justoen egoleku ederrak,
30. Eta esaten dezute: Gure gurasoen denboran bizi izan bagaña, pro-fetaen odolean ez giñan beren lagunak izango.
31. Ala zuek zerok aitortzen dezute, profetak il zituztenen semeak zeratela.
32. Eta zuek zuen gurasoen neurria bete ezazute.
33. Sugeak, bibora arrazak, nola iges egin dizaiokezute, infernuko sutara kondenatuak izateari?
34. Argatik ona emen non nik bialtzen ditudan zuekgana profetak, eta jakintsuak, eta eskribak, eta beretatik ilko dituzute, eta gurutziltzatuko dituzute, eta beretatik azotatuko dituzute zuen sinagogetan, eta erritik erri persegituko dituzute.
35. Etorri dedin zuen gañera odol justo guztia, lurraren gañera isuria izan zana, Abel justoarene odoletik asita, Zakarias, Barakiasen semearen odoleraño, zeñ tenploaren eta aldarearen artean il zenduten.
36. Egiatz esaten dizutet, oiek guziok gizaldi onen gañera etorriko diradela.
37. Ah Jerusalem, Jerusalem, profetak iltzen dituzuna, eta zugana bial-duak izan ziradenai arrika egiten diezuna, zenbat alditan nai nituen zure semeak bildu, olloak bere txitoak egoen azpian biltzen dituen bezela, eta ez dezu nai izan?
38. Ona emen non zuen etxea eremutua geldituko dan.
39. Eta ala esaten dizutet, ez nazutela berriz ikusiko, aliketa esan dezazuten artean: Bedeikatua, Jaunaren izenean datorrena.

## OGETA LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta Jesus tenplotik ateratzen zala, bazijoan. Eta alderatu ziraden beragana bere ikasleak, tenploak zeuzkan aldamenak erakusteko.



2. Eta berak esan zien: ikusten dituzute gauza guzi oiek? Egiaz esaten dizutet, ez dala geldituko emen arririk arriaren gañean, desegitua izan gabe.

3. Eta zegoala bera eserita Olibeteko mendiaren gañean, alderatu ziraden beragana ikasleak ixilleak, esaten zutela: Esan zaguzu, noiz gertatuko dirade oiek? Eta zeñ izango da zure etorreraren, eta munduaren bukaeraren siñalea?

4. Eta Jesusek erantzuten zuela, esan zien: Begiratu ezazute inork ere etzaitzela engañatu.

5. Zeren asko nere izenean etorriko dirade, esaten dutela: Ni naiz Kristoa, eta asko engañatuko dituzte.

6. Adituko ere dituzute gudaen berriak, eta gerraen ospeak. Begiratu ezazute etzaitzela nastu; oiek egitak izatea premiazkoa da, baña oraindik ez da bukaera.

7. Zeren jaikiko da erria erriaren kontra, eta erreinua erreinuaren kontra, eta izurriak, eta goseteak, eta lurdardak toki askotan izango dirade.

8. Oiek guziok alaele oñazeen asierak baizik ez dirade.

9. Orduan emanak izango zerate, atsekabetuak izateko, eta ilko zaituzte; eta nere izenagatik jende guziak gorrotatuak izango zerate.

10. Eta orduan asko eskandalizatuko dira, eta elkar salduko dute, eta elkarri gorroto izango diote.

11. Eta gezurrezko profeta asko agertuko dira, eta asko engañatuko dituzte.

12. Eta nola gaiztakeria ugari izango dan, askoren karidatea otzituko da.

13. Berriz atzeneraño irautzen duena, au salbatuko da.

14. Eta Jaungoikoaren erreñuko Ebanjelio au mundu guztian predikatuko da, erreñu guzien aitorrerarako; eta orduan atzena etorriko da.

15. Ikusten dezutenean bada toki santuan jarria dagoala, Daniel profetak lendaaz esan zuen: nazka ondatzalea, irakurtzen duenak, ongi begiratu beza.

16. Orduan Judean daudenak, mendietara iges egin bezate.

17. Eta sabaian dagoana, ez bedi jetxi bere etxeko gauzarik artzera.

18. Eta kanpoan dagoana, ez bedi itzuli bere tunika artzera.

19. Baña, ai, egun aietan aurdun, eta aurak azitzen daudenen doaka-beak!

20. Erregutu ezazute bada, zuen igesa neguan edo larunbatean ez dedilla izan.

21. Zeren orduko atsekabea andia izango da; nolakorik munduaren asieratik onara izan ez dan, eta izango ere ez dan.

22. Eta egun aiek laburtuak izango ez balirade, inor ere ez liteke salbatuko, baña autuakgatik egun aiek laburtuak izango dirade.

23. Orduan inork esango balizute: Ona non Kristoa dago emen, edo an, etzaiezute sinistu.

24. Zeren Kristo gezurrezkoak, eta profeta gezurrezkoak agertuko dira, eta siñale eta mirari andiak egingo dituzte, alako muduan, non, autuak berak ere (al balitza) uts egingo lukete.

25. Ikusten dezute, lendaaz esan dizutedala.

26. Ala esaten badizute ere, ona emen Mesias eremuan dagoana, etzaitzete ara joan; edo etxearen barrendieneko tokian dago, etzaiezute sinistu.

27. Zeren nola tximista irtetzen dan sortaldetik, eta ikusi erazitzen dan sartalderaño, gizonaren semearen etorrera ere ala izango da.

28. Eta gorputza arkitzen dan edozeñere tokitan, agilak an bilduko dira.

29. Eta egun aietako atsekabearen ondoan bereala eguzkia illunduko da, eta illargiak bere argia ez du emango, eta izarrak zerutik eroriko dira, eta zeruko bertuteak dardaraz egongo dirade.

30. Eta orduan agertuko da zeruan gizonaren semearen siñalia, eta orduan lurreko tribu guziak negarrez egongo dira, eta ikusiko dute gizonaren semea datorrela zeruko odeietan indar eta anditasun goratu batekin.

31. Eta bialduko ditu bere aingeruak tronpetarekin eta boz andiakin, eta bilduko dituzte bere autuak lau aizeetatik, zeruen gorenetik, beren bukaeraraño.

32. Piku zuaitzetik ikasi ezazute parabola; bere erramak samurrak daudenean, eta ostoak erretzen diradenean, uda aldean dala ezagutzen dezute.

33. Ala zuek ere, gauza guzi oiek ikusten dituzutenean, jakin ezazute aldean, atetan dala.

34. Egiaz esaten dizutet, ez dala gizaldi au iragoko, gauza guzi oiek egiztatu ditezen artean.

35. Zerua eta lurra pasatuko dira; nere itzak ordea ez dute utsik emango.

36. Egun aren berririk berriz inork ere ez daki, ezta zeruetako aingeruak ere, baizik Aitak bakarrik.

37. Noeren egunetan gertatu zana, gizonaren semearen etorreran ere, ala gertatuko da.



38. Zeren nola ugoaldea baño lenagoko egunetan zeuden gizonak jaten eta edaten, ezkontzen ziradela, eta beren semeak ezkontzarako ematen zizutela, Noe kutxan sartu zan eguneraño.

39. Eta etzuten ezagutu aliketa ugoaldea etorri eta guziak arrapatu zituen artean; gizonaren semearen etorreran ere, ala gertatuko da.

40. Orduan kanpoan egongo dirade bi; bata izango da artua, eta beste utzia.

41. Bi emakume egongo dirade kotzen errotan; bata izango da artua, eta bestea utzia.

42. Zaudete bada beillan, zeren ez dakizuten zeñ ordutan zuen Jauna etorriko dan.

43. Au jakin zazute, baleki etxeke jaunak zeñ ordutan lapurra etorriko dan, ziortoro bellan egongo liteke, eta ez luke utziko, bere etxea azpitik zulatua izan dedilla.

44. Argatik zuek ere, prestatuak egon zaitezte, zeren ez dakizuten orduan, gizonaren semea etorriko da.

45. Zeñ uste dezu dala serbitzari leial eta zentzuduna, bere jaunak bere familiaren gañean jarria, bakoitzari janaria bere denboran emateko?

46. Doatsua serbitzari hura, zeñ, bere nagusiak, datorrenean, arkitzen duen bere eginbearrak kunplitzen dituela.

47. Egiaz esaten dizutet, bere etxeke gauza guztien zuzenbidea emango diola.

48. Baldin berriz serbitzari gaizto hurak esango balu, bere biotzean. Luzatzen zaio nere nagusiari etortzea.

49. Eta asiko balitza bere serbitzari lagunak jotzen, eta ordiakin jaten eta edaten.

50. Itxedotzen ez duen egunean, eta ez dakian orduan, serbitzariaren nagusia etorriko da.

51. Ordugaiztoan aurtikiko du, eta hipokriten pena emango dio; an negar egitea eta ortzkarraskotsa izango da.

### OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Orduan zeruetako erreñua amar birjiñaren antzekoa da; zeñak, arturik beren kriseluak, esoso eta esosa ezkonberriei bidera irten zien.

2. Zeñaetatik bost ziran zoroak, eta beste bost zintzoak.

3. Bost zoroak berriz, arturik kriseluak, etzuten oliorik berakin artu.

4. Zintzoak berriz beren ontzietan kriseluakin olio artu zuten.

5. Eta nola esosoari etortzea luzatzen zitzaion, guztiak logaletu ziran, eta loak artu zituen.

6. Eta gauaren erdian aditu zan boz bat, deadarrez esaten zuena: Ona emen non esoso badatorren, berari bidera irten zaiozute.

7. Orduan birjiña guzi aiek jaiki ziran, eta beren kriseluak prestatu zituzten.

8. Orduan zoroak zintzoai esan zien: Zuen oliotik eman zaguzute, zeren gure kriseluak itzaltzen diran.

9. Zintzoak erantzun zien, esaten zutela: Daukaguna gertzat eta zuentzat gutxi izan ez dedin, obe da joan zaitezte salbatzalleakgana, eta erosi dezazutela bear dezutena.

10. Oiek eroatera zijoazen bitartean, esoso etorri zan, eta prestatuak zeudenak, sartu ziran berarekin eztaietara, eta atea itxi zan.

11. Atzenean gañerako birjiñak ere etorri ziran, esaten zutela: Jauna, Jauna, idiki zaguzu.

12. Eta berak erantzuten zuela, esan zuen: Egiaz esaten dizutet, etzaitzudet ezagutzen.

13. Esnai egon zaitezte bada, ez dakizuten ezkeru ez eguna, ez ordua.

14. Urrutira dijoan gizon batek bezela, zeñak ots egin zien bere morroiari, eta bere ondasunak eman ziezten.

15. Eta batari bost talentu eman ziozkan, besteari berriz bi, eta besteari bat, bakoitza gai zanaren araura, eta bereala joan zan.

16. Joan zan bada bost talentu artu zituena, eta irabazian jarri zituen, eta atera zituen beste bost.

17. Berebat, bi talentu artu zituena ere, beste bi irabazi zituen.

18. Talentu bat artu zuenak berriz, joanik, egin zuen zulo bat lurtean, eta bere nagusiaren dirua ezkutatu zuen.

19. Denbora askoren buruan berriz, morroi aien nagusia etorri zan, eta kontuak artzera ots egin zien.

20. Eta alderatzen zala bost talentu eman zaiozkana, beste bost talentu aurrean jarri zitzaiozkan, esaten zuela: Jauna, bost talentu eman ziñizkidan, ona emen beste bost berakin irabazi ditudanak.

21. Bere nagusiak esan zion: Ederki morroi on, eta leiala, gutxian leiala izan zeran ezkeru, askoren gañean jarriko zaitut, zure Jaunaren bozkarioan sartu zaite.

22. Bi talentu artu zituena ere alderatu zan, eta esan zuen: Jauna, bi talentu eman ziñizkidan, ona emen non beste bi irabazi ditudan.

23. Bere nagusiak esan zion: Ederki morroi on, eta leiala, gauza gutxian leiala izan zeralako, askoren gañean jarriko zaitut, zure nagusiaren bozkarioan sartu zaite.





24. Talentu bat artu zuena ere alderaturik, esan zuen: Jauna, nik bada-  
kit gizon gogorra zerala, igitaitzen dezula, erein ez dezun tokian; eta bil-  
tzen dezula, zabaldu ez dezun tokian.

25. Eta beldurrez joan nintzan, eta lurrean zure talentua ezkutatu  
nuen; ona non daukazun zurea dana.

26. Eta bere nagusiak erantzuten zuela, esan zion: O morroi gaizto  
eta nagia, zuk baziñiekien nik erein ez dedan lekuan ebakitzen dedala, eta  
zabaldu ez ditudan lekuan, biltzen ditudala.

27. Beragatik bada nere dirua irabazian ipiñi bear zenduen, ni etor-  
tzen nintzanean artu nezan nerea irabaziakin.

28. Kendu zaiozute bada berari talentua, eta amar talentu dauzkana-  
ri eman zaiozute.

29. Zeren daukan guztiari emango zaio, eta ugari idukiko du; ez dau-  
kanari ordea, daukala uste duena ere kenduko zaio.

30. Eta ezertarako ere gai ez dan morroia, kanpoko illuntasunetara  
aurtiki ezazute; an negarra, eta ortzkarraskotsa izango da.

31. Etortzen danean berriz gizonaren semea bere anditasunean, eta  
berarekin aingeru guztiak, orduan bere anditasuneko tronuaren gañean  
eseriko da.

32. Eta erreñu guziak bere aurrean bilduko dira, eta berezituko ditu  
elkargandik, artzaiak antxumeak ardietatik bezela.

33. Eta jarriko ditu ardiak bere eskuian, eta antxumeak ezkerrean.

34. Orduan erregeak bere eskuian egongo diradenai esango die:  
Atozte nere Aitaren bedeinkatuok, munduaren asieratik zuentzat presta-  
tua dagoan erreinuaren jabe izan zaitezte.

35. Zeren gose nintzan, eta jaten eman ziñidaten; egarri nintzan, eta  
edaten emen ziñidaten; arrotza nintzan, eta etxean artu ninduzuten.

36. Billosa nengoan, eta estali ninduzuten; eririk nengoan, eta bisita-  
tu ninduzuten; itxian, eta ikuskor etorri zintzaskidaten.

37. Orduan justoak erantzungo diote, esaten dutela: Jauna, nola  
ordea gosetua ikusi zindugun, eta jaten eman giñizun, egarritua eta eda-  
ten eman giñizun?

38. Eta noiz bideantez ikusi zinaugun, eta etxean artu zindugun; edo  
billosik, eta estali zindugun?

39. Edo noiz ikusi zindugun eririk, edo itxian zeundela, eta zugana  
etorri giñan?

40. Eta erantzuten ziela erregeak, esango die: Egiaz esaten dizutet,  
nere anaiatxo oietatik bati egin ziñiotenean, niri egin ziñidaten.

41. Orduan ezkerreko aldamentean egongo diradenai ere esango die:  
Nigandik zoazte, madarikatuok, deabru eta bere aingeruentzat prestatuta  
dagoan su betikora.

42. Zeren gose izan nintzan, eta etziñidaten jaten eman; egarri izan  
nintzan, eta etziñidaten edaten eman.

43. Arrotza nintzan, eta ez ninduzuten etxean artu; billosa nengoan,  
eta ez ninduzuten estali; eri eta itxian eta ez ninduzuten bisitatu.

44. Orduan berak ere erantzungo diote, esaten dutela: Jauna, noiz  
ikusi zindugun gosetua, edo egarritua, edo arrotza, edo larrugorrian, edo  
eri, edo itxian, eta ez giñizun lagundu?

45. Orduan erantzungo die, esaten diela: Txikitxo oietatik bati egin  
etziñiotenean, neri ere etziñidaten egin.

46. Eta oiek oñaze betikoetara, eta onak betiko bizitzara joango dirade.

### OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan, Jesusek itzketa guzi oiek bukatuak, bere ikasleai  
esan zien:

2. Badakizute emendikan bi egunera Pazkoa zelebratuko dala, eta  
gizonaren semea emana izango da gurutziltzatua izan dedin.

3. Orduan bildu ziran apaiz buruak, eta erriko zarrak, sazerdoteen  
prinzipe, Kaifas zeritzanaren atarian.

4. Eta batzarra egin zuten, Jesus marroz artu, eta iltzeko.

5. Eta esaten zuten: Jai egunean ez, errian iskanbillaren bat jaiki ez  
dedin.

6. Zegoala Jesus Betanian Simon lepratsuaren etxea.

7. Allegatu zan beragana emakume bat, alabastrozko ontzi, balio  
andiko, okenduz betetako bat zeukan batekin, eta isuri zuen Jesusen  
buruaren gañean, zeñ zegoan maiean etzinik.

8. Eta ikusirik ikasleak, aserretu ziran, esaten zutela: Zertarako gal-  
men au?

9. Zeren saldu zitekean garesti, eta beartsuai emana izan.

10. Eta jakinik Jesusek, esan zien: Zergatik gogaiterazitzen diozute  
emakume oni? Zeren lan on bat dan, nerekin egin duena.

11. Zeren beti daukazute beartsuak zuekin; ni berriz ez naukazute  
beti.

12. Eta isuririk berak okendu au nere gorputzaren gañera, ni obira-  
tzeko egin du.

13. Egiaz esaten dizutet, ebanjelioa predikatua dan edozeñere toki-  
tan, mundu guztian, esango ere da, onek nere oroipenean egin duena.





14. Orduan amabietatik bat, Judas Iskariote zeritzana, joan zan apaiz-buruakgana.
15. Eta esan zien: Zer nai didazute eman, eta nik zuen eskuetan jarriko det? Eta izendatu ziozkaten ogeita amar diru zillarrezko.
16. Eta andikan aurrera zebillan era on baten billan, saldukeria egiteko.
17. Eta ...been lenbizio egunean, joan ziran ikasleak Jesusgana, esaten ziotela: Non nai dezu prestatu dizazugun Pazkoa jateko?
18. Eta Jesusek esan zien: Zoazte errira urliairen etxera, eta esan zaiozute: Erakusleak esaten du: nere denbora aldean da, banoa zure etxera nere ikasleekin Pazkoa zelebraztera.
19. Eta ikasleak egin zuten Jesusek agindu zien bezela, eta Pazkoa prestatu zuten.
20. Eta illun abarrean maiean eseria zegoan bere amabi ikasleekin.
21. Eta jaten ari ziradela, esan zuen: Egiaz esaten dizutet, zuetatik batek salduko nauela.
22. Eta txit tristetuta bakoitza, asi zan esaten: Ni ote naiz, Jauna?
23. Eta bera erantzuten zuela, esan zuen: Nerekin bere eskua plateran sartzen duenak, ark salduko nau.
24. Egiaz gizonaren semea badijoa, beragatik eskribatua dagoan bezela; baña a! gizon aren, bere bitartez gizonaren semea saldua izango danaren, zorigaiztokoa! Obe izango zitzaion onelakoari, beñere jai ez balitza.
25. Eta erantzuten zuela Judasek, zeñak saldu zuen, esan zuen: Ni ote naiz, Erakuslea? Jesusek esan zion: Zuk esan dezu.
26. Berak afaritan ari ziradela, Jesusek ogia artu zuen, eta bedeikatu zuen, eta ebaki zuen, eta eman zien bere ikasleai, eta esan zuen: Artu ezazute, eta jan ezazute; au da nere gorputza.
27. Eta arturik kaliza, eskerrak eman zituen, eta eman zien, esaten zuela: Guztiok onetatik edan ezazute.
28. Zeren au da nere odola, testamentu berrikoa, askogatik isuria izango dana bekatuen barkaziorako.
29. Eta esaten dizutet, ez dedala berriz edango matsaren frutu onetatik, nere Aitaren erreinuan berria zuekin edan dezadan egun artaraño.
30. Eta esanik himnoa, Olibeteko mendirontz irten ziran.
31. Orduan esan zien Jesusek: Zuek guztiok eskandalizatuko zerate nigatik gau onetan. Zeren eskribatua dagoan: Artzaia zaurituko det, eta artalaeko ardiak sakabanatuko dira.
32. Baña berriz biztutzen naizanean, zuen aurretik Galilean joango naiz.

33. Erantzuten zuela Pedrok, esan zion: Guztiak zugan eskandalizatzen badira ere, ni inoiz ere ez naiz eskandalizatuko.
34. Jesusek esan zion: Egiaz esaten dizut, gau onetan ollarrak kantatu dezan baño lenago, iru alditan ukatuko nazu.
35. Pedrok esan zion: Zurekin ni iltzea bear balitza ere, etzaitut ukatuko. Beste ikasleak ere orobat esan zuten.
36. Orduan etorri zan Jesus berakin Jetsemani deritzan baratza batera, eta bere ikasleai esan zien: Eseri zaitezte emen, ara joan, eta orazio egin dezadan artean.
37. Eta arturik Pedro, eta Zebedeoren bi semeak, asi zan tristetzen eta antsiatzen.
38. Orduan esan zien: Triste dago nere anima eriotzaraño; iraun ezazute emen, eta beillan zaudete nerekin.
39. Eta ...urik piskatxo bat, auzpeztu zan bere arpegiraño, orazio eginen zuela, eta esaten zuela: Nere aita, al baldin bada, irago bedi nigandik gauza au; baña alaere, ez bedi egin nik nai dedan bezela, baizik zuk.
40. Eta etorri zan ikasleakgana, eta lo arkitu zituen, eta Pedrori esan zion: Ordu betean ere nerekin esnai ezin egon izan zerate?
41. Kontuan zaudete bada, eta orazio egin ezazute tentazioan erori etzaitzeten. Espiritua egiaz prest dago, baña aragia argala da.
42. Berriz bigarren aldiz joan zan, eta orazio egin zuen, esaten zuela: Ene Aita, ezin irago baliteke kaliza au, nik esan gabe, egin bedi zure borondatea.
43. Eta etorri zan berriz, eta lo arkitu zituen; zeren begiaz estunak zeuden.
44. Eta berak utzitzen zituela, berriz joan zan, eta irugarren aldiz orazio egin zuen, lengo itzak berak esaten zituela.
45. Orduan etorri zan bere ikasleakgana, eta esan zien: Onezkero lo egin, eta atsedan ezazute; ona emen non alderatu dan ordua, eta gizonaren semeak bekatarien eskuetan jarria izan bear du.
46. Jaiki zaitezte, goazen, ona non alderatu dan bekatarien eskuetan jarriko nauena.
47. Oraindikan bera izketan ari zala, ona non Judas amabietatik bat etorri zan, eta berarekin jendetza andia ezpatakin, eta makillakin, apaizen buruak, eta erriko zarrak bialduta.
48. Saldu zuenak berriz, eman zien siñalea, esaten ziela: Nik laztantzen dedana, hura da, eldu zaiozute.
49. Eta bereala alderatzen zala Jesusgana, esan zion: Agur Maisua. Eta musu eman zion.



50. Eta Jesusek esan zion: Adiskidea, zertara etorri zera? Orduan alderatu ziran beragana, eta eskuak ezarri ziozkaten Jesusi, eta arrapatu zuten.

51. Eta ona non Jesusekin zeudenetatik batek, luzaturik eskua, atera zuen bere ezpata, eta apaiz buruaren morroia zauritzen zuela, belarri bat ebaki zion.

52. Orduan Jesusek esan zion: Biurtu ezazu zure ezpata bere tokira; zeren ezpata artzen duten guztiak, ezpataz illak izango dirade.

53. Ala uste al dezu ez al dizaiokedala erregutu nere Aitari, eta bereala emango dizkidala amabi lejio aingeru baño geiago?

54. Nola bada kunplutuko litezke Eskriturak, onela egin bear dala esaten dutenak?

55. Ordu artan Jesusek jendetzai esan zien: Lapur batgana bezela atera zerate ezpatakin, eta makillakin, ni arrapatzera; egunoro zuekin nen-goan tenploan eserita erakusten, eta etziñidaten eldu.

56. Au guziau berriz egiña izan zan, profetak eskribitu zituzten gauzak kunplitu zitezten. Orduan ikasle guztiak, bera utzita, iges egin zuten.

57. Eta Jesus arrapatu zutenak, eraman zuten kaifas apaizburuaren jauregira, non Eskribak eta zarrak bilduak zeuden.

58. Eta Pedrok urrutitikan jarraitzen zion apaizburuaren jauregiarño. Eta sarturik barrenen, eserita zegoan serbitzariakin, ikusteko zertan gelditzen ote ziraden oiek.

59. Apaiz buruak berriz, eta batzarre guztia gezurrezko testimonio baten billa zebiltzan Jesusen kontra, bera eriotzara kondenatzeko.

60. Eta etzuten arkitu gezurrezko asko testigu joan baziraden ere. Eta atzanean gezurrezko bi testigu etorri ziran,

61. Eta esan zuen: Onek esan zuen: Nik Jaungoikoaren tenploa desegin dezaket, eta iru egunean berriz egin.

62. Eta apaiz buruak, jaikitzen zala, esan zion: Ez dezu ezerere erantzuten, testigu oiek zure kontra esaten dutenera?

63. Baña Jesus ixillik zegoan. Eta apaizen buruak esan zion: Nik Jaungoiko biziaren izenean galdetzen dizut, esan zaguzula, Kristo Jaungoikoaren Semea zu ote zeran.

64. Esan zion Jesusek: Zuk esan dezu; baitaere esaten dizutet, ikusiko dezutela laster gizonaren seme au, Jaungoikoaren anditasunaren eskuiean eseria, eta zeruko odeietan datorrela.

65. Orduan apaizburuak soñekoak urratu zituen esaten zuela: Zertarako ditugu onezkero testiguak? Ona non orainxe aditu dezuten añenekoa.

66. Zer deritzatzute? Eta berak erantzuten zutela, esan zuten: Eriotzaren diña da.

67. Orduan bere arpegira istua, botatzen, eta ukabilka jotzen ari ziran; beste batzuek berriz bere arpegian masallakoak ematen ziozkaten,

68. Esaten zutela: Asma zaguk, Kristo zeñ dek jo aukana?

69. Pedro berriz kanpoan atarian zegoan, eta alderatu zan beragana neskame bat, esaten zuela: Zu ere Jesus Galilearrarekin zeunden.

70. Eta berak guztien aurrean ukatu zuen, esaten zuela: Ez dakit nik zer esaten dezun.

71. Eta Pedro atera irtetzen zala, beste neskame batek ikusi zuen, eta an zeudenai esan zien: Au ere Jesus Nazaretkoarekin zegoan.

72. Eta bigarren aldiz juramentuarekin ukatu zuen. Alako gizonik etzuela ezagutzen.

73. Eta denbora gutxiren buruan alderatu ziran beragana inguruan zeudenak, eta Pedrori esan zioten: Ziertoro zu aietatikoa zera, zeren zure izkuntzak ere agertzen zaitu.

74. Orduan asi zan biruak botatzen, eta juramentu egiten, alako gizonik etzuela ezagutu. Eta bereala ollarrak kantatu zuen.

75. Eta Pedro oroitu zan Jesusek esan zuen itzarekin: Ollarrak kantatu dezan baño lenago, iru aldiz ukatuko nazu. Eta kanpora ateratzen zala, negar samiñak egin zituen.

## OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta eguna zabaldu zanean, apaizen buru guztiak eta erriko zarrak, batzarrea egin zuten Jesusen kontra, il erazitzeke.

2. Eta lotuta eraman zuten, eta Ponzio Pilato agintariari eman zioten.

3. Orduan Judasek, zeñak saldu zuen, ikusirik eriotzara kondenatua izan zala, damaturik egin zuenarekin, ogeita amar diru zillarrezkoak apaiz buruai, eta zarrari biurtu ziezten.

4. Esaten zuela: Bekatu egin det oben kulpa gabeko baten odola saltzearekin. Eta berak esan zioten: Zer digu guri? Or konpon zaitte.

5. Eta aurtikirik tenploan zillarrezko diruak, alde egin zuen, eta andik joanik, eta soka batetik zinzilika jarririk, urkatu zan.

6. Eta apaizen buruak, arturik zillarrezko diruak, esan zuten: Ez da zillegi oiek gordairura botatzea, zeren odolaren saria dan.

7. Eta gauza au batzarrean trataturik, berakin eltzegille baten soro bat erosi zuten arrotzak lurpetzeko.

8. Argatik soro ari deitu zioten, Hazeldama, au da, odolaren soroa, gaurko egunearño.



9. Orduan kunplitu zan Jeremias profetak esana, zeñak esaten duen: Eta artu zituzten ogeita amar zillarrezko diru, salgai jarri zanaren balioa, balio au eman zioten Israelko semeak.

10. Eta eman zituzten oiek eltzegille baten soroaren saritzat, Jaunak agindu zidan bezela.

11. Eta Jesus eramana izan zan Gobernariaren aurrera, eta Gobernariak galdetu zion, esaten zuela: Zu juduen erregea al zera? Jesusek esan zion: Zuk esaten dezu.

12. Eta izanik apaizburuak eta zarrak salatua, ezerere etzuen erantzun.

13. Orduan Pilatosek esaten dio: Ez dezu aditzen zenbat salazio zure kontra esaten duten?

14. Eta itz batera ere etzion erantzun, alako moduan, non, gobernaria txit miretsi zan.

15. Eta egun andian gobernariak askatuta eman oi zion erriari, onek nai zuen, lotuta itxian zegoanen bat.

16. Zeukan berriz orduan lotuta, Barrabas zeritzan gizon otspatsu bat.

17. Biltzen zituela bada berak, Pilatosek esan zien: Zeñ nai dezute zuei askatuta eman dizazutedan, Barrabas, ala Jesus, Kristo deritzana?

18. Zeren baziekien, ondamuz bere eskuetan jarri zutela.

19. Eta bera bere tribunalean eseria zegoala, bere emazteak bialdu zuen esatera: Etzaitz nastu justo orren gauzaetan, zeren asko gauza irago zazkit gaur beragatik amesetan.

20. Apaiz buruak eta zarrak berriz, ekarri zuten erriko jendedia eskatzera Barrabas, Jesus berriz, galdua izan zedilla.

21. Eta erantzuten zuela gobernariak, esan zien: Bietatik zeñ nai dezute utzi dizazutedan? Eta berak esan zuten: Barrabas.

22. Pilatosek esaten die: Zer egingo det bada Jesus, Kristo deritzanarekin?

23. Guztiak esaten dute: Gurutziltzatua izan bedi. Gobernariak esan zien: Baña, zer gaitz egin du? Eta berak deadar andiangoak egiten zituzten, esaten zutela: Gurutziltzatua izan bedi.

24. Eta ikusirik Pilatok etzuela ezerere aurreratzen, baizik iskanbilla geituaz zijoala, arturik ura, erriaren aurrean bere eskuak garbitu zituen, esaten zuela: Justo onen odoletik ni obengabea naiz; or konpon zaitzete.

25. Eta erri guztiak erantzunik esan zuen: Bere odola gure gañera, eta gure semeen gañera erori bedi.

26. Orduan Barrabas utzi zien: eta Jesus, azotatua izanda, eman zien gurutziltzatzeko.

27. Orduan gobernariaren soldaduak, artzen zutela Jesus, eta erama-nik pretoriora, soldadu talde guzia beragana bildu zuten.

28. Eta billostzen zutela, granazko mantu batekin estali zuten.

29. Eta eotzen zutela arantzakin koroa bat, bere buruaren gañean jarri zioten, eta bere eskuiko eskuan kañabera bat. Eta belaunikatzen ziradela bere aurrean, isekak egiten ziozkaten, esaten zutela: Agur, Juduen erregea.

30. Eta berari istuka ari ziradela, artzen zuten kañabera, eta bere buruan jotzen zuten.

31. Eta onelako isekak egin ziozkatenean, kendu zioten mantua, eta bere soñekoakin jantzi zuten, eta eraman zuten gurutziltzatera.

32. Erritik irtetzen ziradela, arkitu zuten Zireneko gizon bat, Simon zeritzana, eta oni eramanez zien Jesusen gurutzeta.

33. Eta etorri ziran Golgota deritzan toki batera, zeñ dan Kalbario-ko toki.

34. Eta eman zioten edaten ardoa beazunarekin nastuta. Eta dastatu zuenean, etzuen edan nai izan.

35. Eta gurutziltzatu zutenean, partitu zituzten bere soñekoak, txotx egiten zutela; kunplitu zedin profetak esan zuena itz oiekin. Partitu zituzten beren artean nere soñekoak, eta nere soñekoaren gañean txotx egin zuten.

36. Eta eseriak zeudela, zaitzen zuten.

37. Eta bere kausa bere buruaren gañean eskribatua ipiñi zuten: Au da Jesus Juduen erregea.

38. Orduan gurutziltzatuak izan ziran berarekin bi lapur, bata eskuie-tik, eta bestea ezkerretik.

39. Eta andik iragotzen ziradenak blasfematzen zuten, beren buruak mugitzen zituztela.

40. Eta esaten zutela: Adizak, Jaungoikoaren eliza ondatu, eta iru egunean berritzen dekan orrek, ire burua libratu ezak. Jainkoaren seme baaiz, gurutzetik jetxi adi.

41. Berebat apaizen buruak ere, eskribakin eta zarrakin isekak egiten ziozkatala, esaten zuten:

42. Beste batzuek salbatu zituen, bere burua ezin salbatu du. Israel-ko erregea bada, jatsi dedilla orain gurutzetik, eta sinistuko diogu.

43. Jaungoikoagan itxedotzen du: libratu beza orain, nai badu; zeren berak esan zuen: Ni Jaungoikoaren semea naiz.

44. Eta au bera arpegian ematen zioten, berarekin gurutziltzatuak zeuden lapurrak ere.



45. Sestako ordutikan berriz, nonako orduraño lur guztia illuntasunez estalia gelditu zan.
46. Eta nonako orduaren aldean deadar egin zuen Jesusek boz andi batekin, esaten zuela: Eli Eli, lamma sabakthani? Au da: Ene Jainkoa, Ene Jainkoa, zergatik utzi nazu?
47. An zeuden batzuek berriz, oiek aditzean, esaten zuten: Eliasi ots egiten dio onek.
48. Eta bereala beretatik batek korrika joanik, artu zuen arroki bat, ozpiñez bete zuen, eta kañabera baten erpiñean jarri zuen, eta ematen zion edaten.
49. Besteak berriz, esaten zuten: Zaudete geldirikan, ikusi dezagun Elias ote datorren bera libratzera.
50. Orduan Jesusek berriz boz andiarekin deadar egiten zuela, bere espiritua eman zuen.
51. Eta ona non tenploko beloa urratu zan bi zatitan gorengo tokitik beerengoraño, eta lurra dardaratu zan, eta aitzak zatitu ziraden.
52. Eta obiak idiki ziran, eta il ziraden santu askoren gorputzak, biztu ziran.
53. Eta irtetzen ziradela obietatik Jesusen biztueraren ondoan, erri santura etorri ziran, eta askori agertu zitzaiezten.
54. Zenturionek berriz, eta berarekin zeudenak Jesus zaitzen, ikusirik lurdardara, eta gertatzen ziraden gauzak, txit beldurtu ziran, esaten zutela: Egiaz au Jaungoikoaren semea zan.
55. Zeuden ere an asko emakume, Jesusi Galileatik jarraitu ziotenak, bera serbitzeko.
56. Zeñaen artean zeuden Maria Madalena, eta Maria Santiagoren eta Joserren ama, eta Zebedeoren semeen ama.
57. Onezkero berandu zala, etorri zan gizon aberats bat, Arimateakoa, Jose zeritzana, zeñ ere Jesusen ikaslea zan.
58. Au joan zan Pilatogana, eta Jesusen gorputza eskatu zion. Orduan Pilatok agindu zuen, gorputza eman zizaiola.
59. Eta arturik gorputza, Josek maindire garbi batean bildu zuen.
60. Eta ipiñi zuen bere obi berri, aitzean idiki zuenean. Eta jarri zuen arri andi bat obiaren sarreran, eta joan zan.
61. Eta an zeuden Maria Madalena eta beste Maria, obiaren aurkez eseriak.
62. Eta biaramonean, zeñ dan prestaerako egunaren ostekoa, apaizburuak, eta Fariseoak Pilatogana joan ziraden.

63. Esaten zutela: Jauna, oroitu gera, nola engañalari ark esan zuen oraindikan bizirik zegoala: iru egunen buruan biztuko naiz.
64. Agindu ezazu bada, obia irugarren eguneraño zaitua izan dedilla, bere ikasleak etorri ez ditezten, eta ostu ez dezaten, eta esan ez dizaioten jendeari: illen artetik biztu da, eta atzeneko utsa lenbizikoa baño kaltegarriagoa izango da.
65. Pilatok esan zien: Or daukazute soldadu taldea, zoazte, dakizuten bezela zaitu ezazute.
66. Eta aiek joanik ara, ongi zaitua jarri zuten obia, silluturik arria, eta ipiñirik bealariak.

### OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Larunbateko gaua onezkero aurreratua zegoala, astearren lenbiziko egunaren egunsentian, etorri ziran Maria Madalena, eta beste Maria, obia ikustera.
2. Eta ona non garai onetan lurdaradara andi bat izan zan, zeren Jaunaren aingerua zerutik jetxi zan; eta obira allegaturik, alde erazi zion arriari, eta bere gañean eseria zegoan.
3. Zan berriz bere irudia tximista batena bezelakoa, eta bere soñekoa elurra bezelakoa.
4. Eta bere beldurrarekin izutuak gelditu ziran gordetzalleak, eta illak bezela jarri ziran.
5. Eta itz egiten zuela aingeruak, emakumeai esan zien: Zuek ez ezazute beldurrik iduki, zeren badakit gurutziltzatua izan dan Jesusen billan zabilzatzela.
6. Ez dago emen, zeren biztu da, esan zuen bezela. Atozte, eta ikusi ezazute, Jauna ipiñia zegoan tokia.
7. Eta agudo joaten zeratela, esan zaiezute bere ikasleai, biztu dala; eta ona non bera zuen aurretik Galileara dijoan; ona non lendanaz esan dizutedan.
8. Eta bereala obitik irten ziran beldur eta bozkario andiarekin, eta korrika joan ziran bere ikasleai berria ematera.
9. Eta ona non Jesusek bidera irten zien, esaten zuela: Jaungoikoak gorde zaitzela. Emakumeak berriz, alderatzen ziradela beragana, eldu zien oñetatik, eta adortu zuten.
10. Orduan Jesusek esan zien: Ez ezazute beldurrik iduki; zoazte, adirazi zaiezute nere anaia Galileara joan ditezela, an ikusiko naute.
11. Oiek joan ziradenean, ona non gordetzalletatik batzuek errira etorri ziran, eta apaiz buruai adirazi ziezen gertatu ziraden gauza guztiak.



12. Eta biltzen ziradela zarrakin, idukirik beren konsejua, soldaduak dirua ugari eman zien,

13. Esaten ziela: Esango dezute: Gu lo geundela, etorri ziraden gauaz bere ikasleak, eta ostu zuten.

14. Eta gobernariak au adituko balu, guk itz egingo diogu zuen alde; ez dizute ezerere egingo.

15. Eta berak, dirua arturik, egin zuten esan zien bezela. Eta boz au juduen artean zabaldu zan, gaurko eguneraño.

16. Amaika ikasleak berriz, joan ziran Galileara, Jesusek izendatu zien mendira.

17. Eta ikusi zutenean, adoratu zuten: batzuek berriz, zalanzen zeuden.

18. Eta alderatzen zala Jesus berakgana, itz egin zien, esaten zuela: Neri zeruan eta lurrean eskubide guztia eman zat.

19. Zoazte bada, eta jende guziaz erakutsiak eman zaiozkazte, bataiatzen dituzutela Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

20. Erakusten diezutela gordetzen, nik agindu dizkizutedan gauza guztiak. Eta ona emen non ni, egun guztietan, munduaren bukaeraraño, zuekin nagoan.

## JESUKRISTOREN EBANJELIO SANTUA SAN MATEOREN ARAURA - 2

### LENBIZIKO KAPITULUA

*< e - > Jesukristoren jatorria aragiaren aldetik Aingeruak agertzen  
dio Joseri nola izan zan Jesus sortua Ama birjiñaren sabelean  
Jesusen jaiotza*

1. Jesukristoren, Dabiden semearen, Abrahamen semearen jatorriaren liburua.

2. Abrahamek sortu zuen Isaak. Eta Isaakek sortu zuen Jakob. Eta Jakobek sortu zituen Judas, eta bere anaiak.

3. Eta Judas gandik izan ziran sortuak Fares, eta Zara Tamargan. Eta Fares gandik izan zan sortua Esron. Eta Esron gandik izan zan sortua Aram.

4. Eta Aram gandik izan zan sortua Aminadab: Eta Aminadab gandik izan zan sortua Naasson. Eta Naasson gandik izan zan sortua Salmon.

5. Eta Salmon gandik izan zan sortua Booz Rahabgan. Eta Booz gandik izan zan sortua Obed Rutgan. Eta Obed gandik izan zan sortua Jesse. Eta Jesse gandik izan zan sortua Dabid erregea.

6. Eta Dabid erregea gandik izan zan sortua Salomon argan Uriasena izan zanagan.

7. Eta Salomon gandik izan sortua Roboam. Eta Roboam gandik izan zan sortua Abias. Eta Abias gandik izan zan sortua Asa.

8. Eta Asa gandik izan zan sortua Josafat. Eta Josafat gandik izan zan sortua Joram. Eta Joram gandik izan zan sortua Ozias.

9. Eta Ozias gandik izan zan sortua Joatam. Eta Joatam gandik izan zan sortua Akaz. Eta Akaz gandik izan zan sortua Ezekias.

10. Eta Ezekias gandik izan zan sortua Manasses. Eta Manasses gandik izan zan sortua Amon. Eta Amon gandik izan zan sortua Josias.

11. Eta Josias gandik izan ziran sortuak Jekonias, eta bere anaiak Babiloniako errialdatzean.

12. Eta Babiloniako errialdatzearen ondoan: Jekonias gandik izan zan sortua Salatiel. Eta Salatiel gandik izan zan sortua Zorobabel.

13. Eta Zorobabel gandik izan zan sortua Abiud. Eta Abiud gandik izan zan sortua Eliazim. Eta Eliazim gandik izan zan sortua Azor.



14. Eta Azor gandik izan zan sortua Sadok. Eta Sadok gandik izan zan sortua Akim. Eta Akim gandik izan zan sortua Eliud.
15. Eta Eliud gandik izan zan sortua Eleazar. Eta Eleazar gandik izan zan sortua Matan. Eta Matan gandik izan zan sortua Jakob.
16. Eta Jakob gandik izan zan sortua Jose Mariaren senarra, zeñen gandik jaio zan Jesus, Kristo deritzana.
3. Eta Judasek sortu zituen Fares, eta Zara Thamarren gandik. Eta Faresek sortu zuen Esron. Eta Esronek sortu zuen Aram.
4. Eta Aramek sortu zuen Aminadab. Eta Aminadabek sortu zuen Naasson. Eta Naassonek sortu zuen Salmon.
5. Eta Salmonek sortu zuen Booz Rahaben gandik. Eta Boozek sortu zuen Obed Ruthen gandik. Eta Obedek sortu zuen Jesse. Eta Jessek sortu zuen Dabid erregea.
6. Eta Dabid erregeak sortu zuen Salomon arengandik Uriasena izan zanaren gandik.
7. Eta Salomonek sortu zuen Roboam. Eta Roboamek sortu zuen Abias. Eta Abiasek sortu zuen Asa.
8. Eta Asak sortu zuen Josafat. Eta Josafatek sortu zuen Joram. Eta Joramek sortu zuen Ozias.
9. Eta Oziasek sortu zuen Joatham. Eta Joathamek sortu zuen Akaz. Eta Akazek sortu zuen Ezekias.
10. Eta Ezekiasak sortu zuen Manassees. Eta Manassesek sortu zuen Amon. Eta Amonek sortu zuen Josias.
11. Eta Josiasek sortu zituen Jekonias, eta bere anaiak Babiloniako erraldairan.
12. Eta Babiloniako errialdaira ondoan Jekoniasek sortu zuen Salathiel. Eta Salathielek sortu zuen Zorobabel.
13. Eta Zorobabelek sortu zuen Abiud. Eta Abiudek sortu zuen Eliazim. Eta Eliazimek sortu zuen Azor.
14. Eta Azorrek sortu zuen Sadok. Eta Sadokek sortu zuen Akim. Eta Akimek sortu zuen Eliud.
15. Eta Eliudek sortu zuen Eleazar. Eta Eleazarrek sortu zuen Mathan. Eta Mathanek sortu zuen Jakob.
16. Eta Jakobek sortu zuen Jose Mariaren senarra, zeñengandik jaio zan Jesus, Kristo deritzana.
17. Ala bada Abraham gandik Dabideraño gizardi guziak, amalau gizardi, eta Dabid gandik Babiloniako errialdairano, amalau gizardi, eta Babiloniako errialdairatik Kristoraño amalau gizardi.

18. Kristoren sorrera bada onela izan zan. Zegoala ezkontzako itza emanik bere Ama Maria Joserekin, elkarganatu baño lenago arkitu zan sabelean zuela Espiritu Santuaren gandik.

19. Eta Jose bere senarrak, izanik zuzena, eta nola ez zuen nai betziztu, nai izan zuen ixillik utzi.

20. Eta zegoela hura oiek gogatzten, ona emen non Jaunaren Aingerua agertu zitzaion ametsetan, esaten ziola: Jose Dabiden semea, ez zaitezela beldur izan artzen Maria zure emaztea, zeren argan jaio dana, Espiritu Santuarena da.

21. Eta eraitsiko du semea, eta deituko diozu bere izena Jesus, zeren berak salbatuko du bere erria beren bekatuetatik.

22. Au guzia bada izan zan egiña, betetasuna iduki zezan Jaunak esan zuenak Profetaren bitartez, zeñak esaten duen:

23. Ona emen Birjiñak sabelean idukiko du, eta erdituko du semea, eta deituko diote bere izena Emmanuel, zeñak esan nai duen: Gurekin Jaungoikoa.

24. Eta jaikirik Jose lotik, egin zuen Jaunaren Aingeruak agindu zion bezela, eta artu zuen bere emaztea.

25. Eta ez zuen hura ezagutzen, erditu zuen arteraño bere seme lenbizisortua, eta deitu zion bere izena Jesus.

## BIGARREN KAPITULUA

*<-e->Magoak badatoz Sortaldetik Belena; adoratzen dute Jauna; eskeñtzen diezte beren doaiak Herodesen biotzeko gogortasuna ill erazotzean Belenen, eta ingurumaitako erri guzietan urte bitik bererako aur seme guziak Kristoren igesdea Ejiptora; bere itzuliera Israelgo errira*

1. Jaio zanean bada Jesus Bethlen Judakoan Herodes erregearen egunetan, ona emen non Magoak Sortaldetik etorri ziran Jerusalem:

2. Ziotela: Non da jaio dana, Juduen erregea? ikusi degu ezen bere izarra Sortaldean, eta gatoz hura adoratzera.

3. Eta aditurik au Herodes erregeak, izutu zan, eta Jerusalem guzia berarekin.

4. Eta bildurik Sazerdoteen buru guziak, eta erriko Eskribak, galdez zegoten, non jaio bear ote zuen Kristok.





5. Eta aiek esan zioten: Bethelen Judakoan, zeren onela dago eskribatua Profetaren bitartez:
6. Eta zu Bethlen Judako erria, inõlaere ez zera txikiena Judako aundien artean, zeren zugandik aterako da gialaria, zuzenduko duena Israel nere erria.
7. Orduan Herodesek, ixillik deiturik Magoai, ajolarekin ikasi zuen berak gandik, izarraren denbora, agertu zitzaietenarena.
8. Eta bialdurik Bethlena esan zioten: Zoazte, eta galde ezazute arre-tarekin aurra gatik, eta arkitzen dezutenean jakin erazo nazazute, nik ere, etorrira, adoratu dezadan.
9. Aiek aditurik au erregeri, joan ziran. Eta ona emen non Sortaldean ikusi zuten izarra zijoan beren aurretik, alik eta allegaturik, gelditu zan artean aurra zegoen tokiaren gañean.
10. Eta ikusi zutenean izarra, poztu ziran poz txit aundi batekin.
11. Eta sarturik etxean, arkitu zuten aurra bere ama Mariarekin, eta auzpezturik adoratu zuten, eta idikirik beren gordalluak eskeñi zizkioten doaiak, urrea, intzetzua, eta mirra.
12. Eta arturik erantzuera ametsetan, ez zitezela itzuli Herodesengana, beste bide batetik itzuli ziran beren errira.
13. Oiek alde egin zutenean, ona emen non Jaunaren Aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri, esaten ziola: Jaiki zaitte, eta ar zazu aurra, eta bere ama, eta iges zazu Ejiptora, eta zaude an nik esan dezazudan artean. Gertatuko da ezen Herodesek billatzea aurra galdu erazoteko.
14. Bera jaikirik, artu zituen aurra, eta bere ama gauaz, eta alde egin zuen Ejiptora:
15. Eta egon zan an Herodesen eriotzaraño, bete zedin Jaunak esan zuena Profetaren bitartez, zeñak esaten duen: Ejiptotik deitu nion nere semeari.
16. Orduan Herodes, ikusirik izan zala Magoak burlatua, aserratu zan asko, eta bidaldurik, ill erazo zituen Bethlenen eta bere inguru guzietan zeuden aur seme guziak bi urtekoak eta beerakoak Magoen gandik jakin zuen denboraren araura.
17. Orduan betea izan zan esana izan zana Jeremias Profetaren bitartez, zeñak esaten duen:
18. Boza Raman izan zan aditua, negarra, eta oju asko, Rakel negarrez bere semeak gatik, eta ez zuen nai izan poztua, zeren ez diran.
19. Illik bada Herodes, ona emen non Jaunaren Aingerua agertu zitzaion ametsetan zatzala Joseri Ejipton,

20. Esaten ziola: Jaiki zaitte, eta ar ezazu aurra, eta bere ama, eta zoaz Israelgo errira, zeren illak dira billatzen zutenak aurraren anima.
21. Bera jaikitzen zala, artu zuen aurra, eta bere ama, eta etorri zan Israelgo errira.
22. Aditurik ordea Arkelaok agintatzen zuela Judean bere aita Herodesen tokian, beldur izan zan ara joaten, eta izanik gaztigatua ametsetan zatzala, alde egin zuen Galileako errietara.
23. Eta etorririk, bizi izan zan, Nazareth deritzan urian, bete zedin esana izan zana profeten bitartez: Nazareoa deitua izango dala.

## IRUGARREN KAPITULUA

*<-e>San Juan Bautistak, Jesukristoren Bideurrekoak predikatzen du penitentzia eremuan, Profetak aurrez adierazo zuten bezela Errierta egiten diote Fariseoai eta Sadduzeoai Bataiatzen du Kristo, zeñaren gañera jatsiten dan Espiritu Santua; eta aditzen da zerutik aitaren boza*

1. Eta egun aietan etorri zan Juan Bautista predikatzen zuela Judeako eremuan,
2. Eta esaten zuela: Penitentzia egin zazute: zeren alderatu da zeruetako erreinua.
3. Bada au da esana izan zana Isaias profetak esaten duenak: Ere-muan oju egiten duenaren boza: Prestatu ezatzute Jaunaren bidea, zuzenak egin itzatzute bere bidetxigorak.
4. Eta Juanek berak zeukan gameluen illezko jantzia, eta larruzko gerrikoa bere gerriaren inguruan: eta bere janaria ziran otarraiak, eta basa ez-tia.
5. Orduan ateraten zan beraren gana Jerusalem eta Judea guztia, eta Jordan inguruko alderri guztia.
6. Eta oi ziran berak bataiatuak Jordanen, aitorturik beren bekatuak.
7. Ikusirik alabaña Fariseoetatik, eta Sadduzeoetatik asko zetoztela bere bataiora, esan zioten: Ziraun arrazak, nork erakutsi dizute iges egiten etorriko dan iratik?
8. Egin ezatzute bada penitentiaren diñako frutua.
9. Eta ez dezatzutela nai esan zuen barrenean: Aita daukagu Abraham, zeren esaten dizutet, altsua dala Jainkoa arri oietatik jasotzeko semeak Abrahami.



10. Zeren onezkero ipiñia dago aizkora arbolen sustraian. Bada frutu ona egiten ez duen arbola guztia, izango da ebakia, eta sutara botatua.

11. Nik egiaz bataiatzen zaituztet urean penitenziarako, baña nere ondoren etorriko dana, ni baño indartsuago da, zeñaren oñetakoak eramateko diña ez naiz, berak bataiatuko zaituzte Espiritu Santuan, eta suan.

12. Zeñaren sardetxea bere eskuan, eta garbituko du ongi bere larraña, eta bilduko du bere garia aletegian, lastoak ordea erreko ditu suan iñoiz itzali ezingo danean.

13. Orduan etorri zan Jesus Galileatik Jordana Juanen gana onek bataiatua izan zedin.

14. Juanek ordea galarazotzen zion, esaten ziola: Zuk bataiatua izan bear nuke nik, eta zu zatoz neregana?

15. Erantzunaz alabañan Jesusek, esan zion: Utzi ezazu orain, zeren onela bear degu guk bete zuzentasun guzia. Orduan utzi zion.

16. Eta bataiatua izan ondoan Jesus, bereala igo zan uretik. Eta ona emen non idiki zitzaizkion zeruak, eta ikusi zuen Jaungoikoaren Espiritua jazten zala usoa bezela, eta zetorrela beraren gañera.

17. Eta ona emen boz bat zeruetatik esaten zuena: Au da nere semea maitatua, zeñengan dedan poza.

## LAUGARREN KAPITULUA

*<-e->Kristo bataiatua izan ezkeru badijoa eremura; eta barau egiñik berrogei egunean eta berrogei gauean garaitzen ditu demonioaren tentazioak Aditurik sartu zutela Bautista presoindegian, alde egiten da Kafarnauma, eta ematen dio asiera predikazioari Deitzen dio Pedrori, Andresi, Santiagori, eta Juani Adierazoten diote Ebanjelioa Galileatarrai, eta sendatzen ditu eri batzuek*

1. Orduan Jesus izan zan espirituak eramana eremura, deabruak tentatua izan zedin.

2. Eta barau egiñik berrogei egunean, eta berrogei gauean, gero gose izan zan.

3. Eta alderaturik beraren gana tentatzallea esan zion: Baldin bazera Jaungoikoaren semea, esan ezazu arri oiek egin diteztela ogiak.

4. Zeñak erantzunaz esan zion: Eskribatua dago: Ogi utsarekin ez da bizi gizona, baizik Jaungoikoaren aotik irtetzen dan itz guziarekin.

5. Orduan artu zuen deabruak, eta eraman zuen uri santura, eta ipiñi zuen elizako tellatuaren egalean.

6. Eta esan zion: Baldin bazera Jaungoikoaren semea, bota zaite beerontz. Zeren eskribatua dago: Agindu ziotela bere Aingeruai zure gatik, eta eskuetan artuko zaituzte, ustekabeen beaztopotu ez dezazun arrian zure oñarekin.

7. Esan zion Jesusek: Baitaere eskribatua dago: Ez dezu tentatuko zure Jaun Jainkoa.

8. Berriz artu zuen deabruak, eta eraman zuen mendi txit altu batera, eta erakutsi zizkion munduko erreñu guztiak, eta beren gloria.

9. Eta esan zion: Oiek guziak emango dizkizut, baldin eroririk adoratzen banazu.

10. Orduan esan zion Jesusek: Oakit, Satanas, zeren eskribatua zego: Zure Jaun Jainkoa adoratuko dezu, eta bera bakarrik serbituko dezu.

11. Orduan utzi zion deabruak, eta ona emen non Aingeruak alderatu zitzaizkon, eta serbitzen zuten.

12. Eta aditurik Jesusek Juan zegoala itxian, alde egin zuen Galileara.

13. Eta utzirik Nazarethko uria, etorri zan, eta bitutu izan zan Kafarnaum itsas bazterrekoan, Zabulon, eta Nephtaliren mugetan.

14. Betea izan zedin esana izan zana Isaias Profetaren bitartez:

15. Zabulongo erria, eta Nephtaliko erria, itsasorako bidea, Jordango beste aldetik, Galilea jentillena.

16. Illunpetan eseria zegoan erriak, ikusi zuen argi aundi bat, eta eserita zeudenai eriotzaren itzaleko alderrian, argia jaio zitzaioten.

17. Ordutik asi zan Jesus predikatzen, eta esaten: Penitentzia egin zazute, zeren alderatu da zeruetako erreñua.

18. Eta zebillala Jesus Galileako itsasoaren bazterrean, ikusi zituen bi anai, Simon, Pedro deritzana, eta Andres bere anaia, botatzen sarea itsasoan (zeren ziran arrantzaleak.)

19. Eta esan zioten: Atozte nere ondoren, eta egingo det, zuek izan zaitetzela gizonen arrantzaleak.

20. Eta aiek bereala utzirik sareak, jarraitu zioten.

21. Eta joanik aurrerago andik, ikusi zituen beste bi anai, Santiago Zebedeorena, eta Juan bere anaia txalupan Zebedeo beren Aitarekin, adobatzen beren sareak, eta deitu zituen.

22. Eta aiek bereala utzirik sareak, eta Aita, jarraitu zioten.

23. Eta inguratzen zuen Jesusek Galilea guzia, erakusten zuela beren Sinagogetan, eta predikatzen zuela erreinuko Ebanjelioa, eta sendatzen zuela miñantze guzia, eta eritasun guzia errian.



24. Eta barreatu zan bere otspea Siria guzitikan, eta ekarri zizkioten gaizki zeuden guziak, eritasun, eta oñaze batzuek arrapatuak, eta demonioak zeuzkatenak, eta alditsuak, eta elbarriak, eta sendatu zituen.

25. Eta jarraitu zioten talde askok Galileatik, eta Dekapolistik, eta Jerusalemik, eta Judeatik, eta Jordango beste aldetik.

## BOSTGARREN KAPITULUA

*<-e->Zortzi zorientasunak Deitzen diote Jaunak Apostoluai gatza, eta argia, erakusten diotela nolakoak izan bear zuten bere lanbideak Jaungoikoaaren legea da gatza, eta argia, zeñiarekin nai duen gazitu ta argitu dezatela mundua, adierazorik, ez dala etorri desegiterra baizik bete eta osotzera, eta onetarako asitzen da azaldatzen bere zatirik aundienetatik*

1. Eta ikusirik Jesusek taldeak, igo zan mendira, eta eseri ezker, alderatu ziran beregan bere ikasleak.

2. Eta idikirik bere aoa, ematen zizkioten erakutziak, esaten zuela:

3. Doatsuak gogoz beartsuak, zergatik berena da zeruetako erreinua.

4. Doatsuak otsanak, zergatik berak menpetuko dute lurra.

5. Doatsuak negar egiten dutenak, zergatik berak izango dira poztuak.

6. Doatsuak zuzentasunaren gosea, eta egarria dutenak, zergatik berak izango dira aseak.

7. Doatsuak errukitsuak, zergatik berak errukia iritxiko dute.

8. Doatsuak biotz garbikoak, zergatik berak ikusiko dute Jaungoikoa.

9. Doatsuak paketsuak, zergatik Jaungoikoaaren semeak izango dira deituak.

10. Doatsuak igarotzen dutenak persekuzioa zuzentasuna gatik, zeren berena da zeruetako erreinua.

11. Doatsuak zerate, madarikatzen zaituztenean, eta persegitzen zaituztenean, eta esaten dutenean gaizki guzia zuen kontra, gezurra diotela nere gatik:

12. Poztu eta gozatu zaitetze, zeren zuen saria ugaria da zeruetan. Onelash ezen persegitu zituzten profetak zuek baño lenago izan ziranak.

13. Zuek zerate lurreko gatza. Eta baldin gatza gezatzen bada, zerekin izango da gazitua? Ez du onezker ezertarako balio, baizik izateko kanpora botatua, eta gizonak zapaldua.

14. Zuek zerate munduko argia. Ezin izan lezake ezkutatua, mendi gañean ipiñia dagoan uria.

15. Ez dute ere irazekitzen argia, eta ipintzen dute lakariaren azpian, baizik kandelaruaren gañean, argi egin dizaioten etxean dauden guziaz.

16. Onela argi egin beza zuen argiak gizonen aurrean, ikusi ditzaten zuen egite onak, eta gloria eman dizaioten zuen Aita, zeruetan dagoanari.

17. Ez dezazutela uste izan etorri naizala askatzera legea, edo profetak, ez naiz etorri askatzera, baizik betetzera.

18. Zergatik egiaz esaten dizutet, igaro artean zerua, eta lurra, jota bat, edo tilde bat ez dala geldituko legetik, guziak egiñak izan gabe.

19. Orregatik autsitzen duena agindu txit txiki oietatikan bat, eta erakusten diotena ala gizonai, txit txikia izango da deitua zeruetako erreinuan; egiten duena ordea, eta erakusten duena, au aundia izango da deitua zeruetako erreinuan.

20. Zergatik esaten dizutet, ez baldin bada ugariago zuen zuzentasuna Eskribaena, eta Fariseoena baño, ez zerate sartuko zeruetako erreinuan.

21. Aditu zenduten esan zaiotela anziñakoai: Ez dezu ilko, eta iltzen duena izango da esertokiko epaiaren obendun.

22. Nik ordea esaten dizutet, bere anaiarekin aserretzen dan guzia, izango da esertokiko epaiaren obendun. Eta esaten diona bere anaiari raka (irain aundiko itzen bat), izango da biltzarrearen obendun.

23. Baldin bada ari bazera, eskeñtzen zure emaitza aldarean, eta an oroituko baziñake zure anaiak duela zerbait zure gaitzean:

24. Utzi ezazu an zure emaitza aldarearen aurrean, eta zoaz lenago pakeak egitera zure anaiarekin, eta orduan etorririk eskeñiko dezu zure emaitza.

25. Oben zakizkio zure etsaiari bereala, berarekin bidean zauden bitartean, etsaiak auziepallearen mendean ipiñi ez zaitzan, eta auziepalleak borreruaren mendean ipiñi ez zaitzan, eta izan zaitean presondegira bidaldua.

26. Egiaz esaten dizut, ez zera aterako andik itzuli dezazun arte azkeneko ardita.

27. Aditu zenduten esana izan zitzaioletela anziñakoai: Ez dezu aragizko bekaturik egingo besteren emaztearekin.

28. Nik ordea esaten dizutet, begiratzen dion guztiak andreari bera gutiziatzeko, adulterioa egin du bere biotzean.

29. Eta baldin zure eskuiko begiak pekaturako bidea ematen badizu, atera ezazu, ta bota ezazu zure gandikan, zeren obeago dezu galdu dedin



zure gorputzaren zati bat, zure gorputz guztia botatua izatea baño lenago infernura.

30. Baldin bada zure eskuiko eskuak pekatuak bidea ematen badiuzu, ebaki ezazu, eta bota ezazu zure gandik, zeren obeago dezu galdu zure gorputzeko zati bat, zure gorputz guztia joatea baño infernura.

31. Baita ere esana izandu zan: Beren emaztea uzten duen edozeñek, eman bizaio banakatutakoaren agiria.

32. Nik ordea esaten dizutet: Beren emaztea uzten duen guziak, ez izanik aragizko bekatua gatik, erori erazotzen dio adulterioko pekatuan; eta artzen duenak utzia, egiten du adulterioko pekatua.

33. Berriz aditu zenduten esan zitzaizotela anziñakoai: Ez dezu gezurrarekin juramenturik egingo; baizik itzuliko dizkiotzu Jaunari zure juramentuak.

34. Nik ordea esaten dizutet, iñola ere ez dezazutela juramenturik egin, ez zerua gatik, zeren dan Jainkoaren esertokigoia.

35. Ezta ere lurra gatik zeren dan bere oñen alkia, ez Jerusalem gatik, zeren dan errege aundiaren uria.

36. Ez ezazu ere juramenturik egin zure burua gatik, zeren ezin egin dezazuke ille bat Zuria, edo beltza.

37. Baizik izan bedi zuen izketa, bai, bai; ez, ez; zergatik oiek baño ugariago dana, gaiztotik dator.

38. Aditu zenduten esan zala: Begia begia gatik, eta ortza ortzagatik.

39. Nik ordea esaten dizutet, ez zakizkiotela leiatu gaitzan; baizik iñork jotzen bazaitu zure eskuiko masallan, eman zaiozu bestea ere.

40. Eta auzitan ipiñi nai zaituanari, eta zure tunika artu, utzi zaiozu kapa ere

41. Eta baldin iñork eraman nai bazaitu zamaturik milla pausutan, zoaz berarekin beste bi millatan.

42. Eskatzen dizunari eman zaiozu, eta nai duenari zuk ordañean ematea, ez zakizkio itzuli.

43. Aditu zenduten esana izan zala: Maitatuko dezu zure lagun urkoa, eta gorroto idukiko diozu zure etsaiari.

44. Nik ordea esaten dizutet: Maitatu itzatzute zuen etsaiak; on egin zaiozute gorroto dizutenai, eta erregutu ezazute persegitzen zaituztenak gatik, eta gezur aundiak asmatzen dizkitzutenak gatik:

45. Izan zaitetzen zuen Aita zeruetan dagoanaren semeak, zeñak irten erazoten dion bere eguzkiari onen ta gaiztoen gañera, eta egiten du euria onen eta gaiztoen gañera.

46. Zeren maitatuten baldin badituzute maite zaituztenak, zer ordañ izango dezute? Ez al dute egiten orobat publikanoak ere?

47. Eta agur egiten badiezute zuen anaiak bakarrik, zer geiago egiten dezute? Ez al dute orobat egiten jentillak ere?

48. Izan zaitetze bada zuek on osoak, nola zuen Aita zerukoa ere dan on osoa.

## SEIGARREN KAPITULUA

*<-e>Nola egin bear dan limosna Erreguaren, eta barauaren gañean Ez dirala bildu bear ondasunak lurrean, baizik zeruan; ezin serbitu genzakeala bi nagusi Ez gaitetzela geiegi larritu janaria gatik, eta jantzia gatik, gure Aita zerukoak dualako arturik bere gañean oien ajola*

1. Begira ezazute ez dezazutela egin zuen zuzentasuna gizonen aurrean, berak ikusiak izan zaitetzen; bestela ez dezute ordañik izango zuen Aita zeruetan dagoanagan.

2. Egiten dezunean bada limosna, ez dezazula jo erazo tronpeta zure aurrean, hipokritak egin oi duten bezela sinagogetan, eta karrikaetan, gizonak onratuak izan ditezten. Egiaz esaten dizutet, artu zuten beren ordaña.

3. Egiten dezunean bada zuk limosna, ez beza jakin zure ezkerak, zer egiten duen zure eskuak.

4. Izan dedin zure limosna ezkutuan, eta zure Aita, ezkutuan ikusten duenak, itzuliko dizu.

5. Eta erregutzen dezutenean, ez zerate izango hipokritak bezela, zeintzuek amaten duten erregutzea zutik sinagogetan eta plazetako karrikaetan, gizonak ikusiak izan ditezten, egiaz esaten dizutet, artu zuten beren saria.

6. Baña zuk, erregutzen dezunean, sartu zaite zure gelan, eta atea itxirik, erregutu zaiozu zure Aitari ezkutuan, eta zure Aita, ikusten duenak ezkutuan itzuliko dizu.

7. Eta erreguan ari zeratenean, ez dezazutela itz asko egin jentillak bezela. Uste dute ezen itz askoan adituak izango dirala.

8. Ez zaitetzela bada irudi erazo aiei. Zeren badaki zuen Aitak zeren premia dezuten, berari zuek eskatu baño lenago.



9. Onela bada zuek erregutuko dezute: Aita gurea, zeruetan zaude-na, santutua izan bedi zure izena.
10. Betor gugana zure erreinua. Egin bedi zure naia nola zeruan, ala lurrean.
11. Gure ogi egunorokoa eman iguzu gaur.
12. Eta barka zazkiguzu gure zorrak, guk gure zordunai barkatzen diezteguz bezela.
13. Eta ez dizaguzu utzi tentazioan erorten. Baizik gorde gaitzatu gaitzetik. Amen.
14. Zeren baldin barkatzen badiozkatute gizonai beren pekatuak, zuei ere barkatuko dizkitzute zuen Aita zerukoak zuen obenak.
15. Baldin berriz ez badiozkatute barkatzen gizonai, zuei ere ez dizkitzute barkatuko zuen Aitak zuen pekatuak.
16. Barau zeratenean bada ez zaitzela paratu hipokritak bezela itunak. Zeren itsusitzen dituzte beren arpegiak, adierazoteko gizonai barau diradela. Egiaz esaten dizutet, artu zutela beren saria.
17. Zuk ordea barau zeranean, gantzutu ezazu zure burua, eta zure arpegia garbitu ezazu,
18. Gizonak ikusia izan ez zaitezen barau zerala, baizik zure Aita, ezkutuan dagoanak, eta zure Aita ezkutuan dagoanak itzuliko dizu.
19. Ez dezazutela nai gordallutu zuentzat gordalluak lurrean, non erdoiak, eta sitsak arrasatzen dituzten, eta non lapurrak desobiratzen, eta ostutzen dituzten.
20. Baizik gordallutu itzatzute zuentzat gordalluak zeruan, non ez erdoiak, ez sitsak dituzten arrasatzen, eta non lapurrak ez dituzten desobiratzen, ta ostutzen.
21. Zeren non dan zure gordallua, an ere da zure biotza.
22. Zure gorputzaren argiontzia da zure begia. Baldin zure begia balitza tolesgabea, zure gorputz guzia izango da argia.
23. Baldin ordea zure begia balitza gaiztoa, zure gorputz guzia izango da illuna. Baldin bada zugaran dan argia, illuntasunak badirade, illuntasunak berak zein aundiak izango dirade?
24. Inork ezin ditzake bi nagusi serbitu, zeren edo gorroto izango dio bati, eta bestea maitatuko du, edo bata irozoko du, eta bestea mespreziatu. Ezin ditzakezute Jaungoikoa serbitu, eta aberastasunak.
25. Beragatik esaten dizutet, ez zaitzela arazoz egon zuen animarentzat zer jango dezuten, ez zuen gorputzarentzat zerekin jantziak izango zeraten. Ez al da anima janaria baño geiago, eta gorputza jantzia baño geiago?

26. Begira zaiozute zeruko egaztiari ez dutela ereiten, ez itaitzen, ez biltzen ganbaratan, eta zuen Aita zerukoak bazkatzen ditu. Ez al zerate zuek aiek baño asko geiago?

27. Eta zuetatik nork pensatuaz luzatu dezake bere gorputzaren tallua beso batean?

28. Eta zergatik zaudete jantziaren ajolarekin? Oroi zaitzete kanpoko lirioekin nola azitzen diraden, ez dute lanik egiten, ez iruten.

29. Esaten dizutet berriz, ez da Salomon ere bere anditasun guzian izandu zala estalia oietatik bat bezela.

30. Baldin bada kanpoko belar gaur dana, eta biar labe sutura botatzen dana Jaungoikoak onela jazten badu; zenbat geiago zuek fede gitxikoak?

31. Ez zaitzela bada larriturik egon, esaten dezutela: Zer jango degu, edo zer edango degu, edo zerekin izango gera estaliak?

32. Zeren oiek guztiak jentillak billatzen dituzte. Badaki ezen zuen Aitak oien guzioen premian zaudetela.

33. Billatu itzatzute bada lenengo Jaungoikoaren erreinua, eta bere zuzentasuna, eta oiek guztiak gañera emango zatzute.

34. Ez zaitzela bada arazotan egon biarko. Zeren biarko egunak idukiko du berarentzat arazoa. Asko zaio egunari bere nekea.

## ZAZPIGARREN KAPITULUA

*<-e->Jarraitzen dio Jaunak bere erakutziari, galerazoten duala besteren gatik gaizki juzgatzea Esaten du ez zitaiztela eman bear txakurrai gauza santuak Esaten digu erregutu bear degula, eta egin dezagula gure lagun urkoarekin, gurekin egitea nai deguna Esaten du estua dala atea zeñatetik sartutzen dan bizitzara Nola ezagutuko degun zeintzuek diran profeta gezurrezkoak, eta zeintzuek egjazkoak Zeñ dan arbola ona, eta zein txarra Etxe bat egiten ari dan gizon baten berdintza, adierazoteko Jaunaren itza aditzen dagoana*

1. Ez dezazutela nai juzgatu, izan etzaitzeten juzgatuak.
2. Zeren juzgatzen dezuten juizioarekin, izango zerate juzgatuak, eta neurtzen dezuten neurriarekin, izango zerate neurtuak.
3. Zergatik bada ikusten dezu lastoa zure anaiaren begian, eta aga zure begian ez dezu ikusten?





4. Edo nola esaten diozu zure anaiari: Utzi, botako det lastoa zure begitik; eta ona non aga dago zure begian?
5. Hipokrita, bota ezak lenengo aga ere begitik, eta orduan ikusiko dek botatzeko lastoa ere anaiaren begitik.
6. Ez dieztezutela nai eman santua txakurrai, ezta ere bialdu zuen perlak txerrien aurrean, usterik gabe ostikopetu ez ditzaten beren oñakin, eta itzulirik zuek ganontz puskatu etzaitzaten.
7. Eskatu ezazute, eta emango zatzute; billatu ezazute, eta arkituko dezute; jo ezazute, eta idikiko zatzute.
8. Zeren eskatzen duen guziak, artzen du, eta billatzen duenak, arkitzen du, eta jotzen duenari, idikiko zaio.
9. Edo zuetatik zein da gizona, zeñari eskatuko baldin balioke bere semeak ogia, arria luzatuko liokena?
10. Edo baldin arraia eskatuko balio, sugea luzatuko al lioke?
11. Baldin bada zuek, gaiztoak zeratelarik, badakituzte emaitza onak ematen zuen semeai, zenbat geiago zuen Aita, zeruetan dagoanak emango diezte ondasunak eskatzen diotenai?
12. Gizonak bada zuei egitea nai dezuten guzia, zuek ere egiezute aiei. Au da ezen legea, eta Profetak.
13. Sartu zaitezte ate estutikan, zeren zabala da atea, eta lasaia bidea galmenera daramana, eta asko dirade emendik sartzen diranak.
14. Ze estua, eta mearra dan, bizitzara daraman bidea, eta gutxi dira arkitzen dutenak!
15. Gorde zaitezte profeta gezurrezkoetatik, dotoztenetatik zuekga-na ardien jantziakin, barruan ordea dira otso amorratuak.
16. Beren fruetetatik ezagutuko dituzute. Arantzetatik artzen bai al dituzte matsak, edo sasilarretatik pikoak?
17. Onela arbola on guziak frutu onak egiten ditu; arbola txarrak ordea, frutu txarrak egiten ditu.
18. Ezin dezake arbola onak frutu txarrak egin; ezta ere arbola txarrak frutu onik egin.
19. Frutu ona egiten ez duen arbola guzia, izango da ebakia, eta sutara botatua.
20. Beren fruetetatik ezagutuko dituzute.
21. Jauna, Jauna, neri esaten didan guztia ez da sartuko zeruetako erreinuan, baizik nere Aita zeruetan dagoanaren borondatea egiten duena, hurashe sartuko da zeruetako erreinuan.

22. Askok esango didate egun artan: Jauna, Jauna, zure izenean ez al giñituen etorkizunak asmatu, eta zure izenean, ez al giñituen demonioak bota, eta zure izenean ez al giñituen egin asko mirari?

23. Eta orduan esango diet: Ez zinduztedan beñere ezagutu. Oakite neregandik gaiztakeria egiten dezutenak.

24. Nere itz oiek bada aditzen dituen guztia, eta berak egiten dituen aizeak, eta jo zuten agitz etxe hura, eta ez zan erori, zeren egiña zegoan arkaitzaren gañean,

25. Eta jatsi zan euria, eta etorri ziran ibaiak, eta putz egin zuten aizeak, eta jo zuten agitz etxe hura, eta ez zan erori, zeren egiña zegoan arkaitzaren gañean.

26. Eta nere itz oiek aditutzen dituen guzia, eta berak egiten ez dituen aizeak, eta jo zuten agitz etxe hura, eta ez zan erori, zeren egiña zegoan arkaitzaren gañean.

27. Eta jatsi zan euria, eta etorri ziran ibaiak, eta putz egin zuten aizeak, eta jo zuten agitz etxe hura, eta erori zan, eta izandu zan aundia bere ondarena.

28. Eta gertatu zan, bukatu rik Jesusek itz oiek arritzen ziran taldeak bere erakutsiaren gañean.

29. Zeren erakusten zien agintea zeukanak bezela, eta ez beren Eskribak, eta Fariseoak bezela.

## ZORTZIGARREN KAPITULUA

*<-e>Sendatzen du Jesusek soruio bat, Euntariaren morroia, San Pedroren amagarraba, eta beste eri asko Ez du berarekin artu nai jarraitu nai zion Eskriba bat, eta agintzen dio bere ikasletatik bati jarraitzeko berari Baretzen du ekaitz bat itsasoan, eta sendatzen ditu bi gaizkindun Jerasenoen errian*

1. Jatsi zanean bada menditik, jarraitu zioten jende askok.
2. Eta ona emen non soraio bat etorri zan, eta adoratzen zuen, esaten ziola: Jauna, nai badezu garbitu nazakezu.
3. Eta luzaturik Jesusek eskua ukitu zion, esaten ziola: Nai det. Garbitua izan zaite. Eta bereala garbitua izandu zan bere soraioa.
4. Eta esan zion Jesusek: Begira, ez dagiozula iñori esan, baizik zoaz, agertu zatzakio sazerdoteari, eta eskeñi ezazu Moisesek agindu zuen emaitza, agiritzat aientzat.





5. Sartu zanean bada Kafarnaumen, alderatu zan beragana Euntaria erregutzen ziola,
6. Eta esaten ziola: Jauna, nere morroia datza etxean elbarritua, eta gaizki oñazetua da.
7. Eta esan zion Jesusek: Ni etorriko naiz, eta sendatuko det.
8. Eta erantzunik Euntariak esan zion: Jauna, ez naiz ni diña zu sartu zaitezen nere tellatuean, baña esazu bakarrik itz bat, eta izango da sendatua nere morroia.
9. Zeren ni ere gizona naiz besteren mendean paratua, dauzkadana nere agindupean gudariak, eta esaten diot oni: Zoaz, eta badijoa, eta bes-teari: Atoz, eta badator, eta nere morroiari: Egin zazu au, eta egiten du.
10. Eta aditurik Jesusek arritu zan, eta jarraitzen ziotenai esan zioten: Egiatz esaten dizutet, ez det arkitu sinismen aiñ aundirik Israelen.
11. Eta esaten dizutet, asko Sortaldetik, eta Sartaldetik etorriko diradela, eta eseriko diradela Abraham, eta Isaak, eta Jakobekin zeruetako erreinuan.
12. Erreinuko semeak ordea, izango dira botatuak kanpoko illuntasunetara, an izango da negarra, eta ortz karraskotza.
13. Eta esan zion Jesusek Euntariari: Zoaz, eta sinistu dezun bezela, ala egiña izan dakizula. Eta sendatua izan zan morroia ordu artan.
14. Eta etorririk Jesus Pedroren etxera, ikusi zuen bere amagirraba zetzala oean, eta sukartua.
15. Eta ukitu zion bere eskuan, eta utzi zion sukarrak, eta jaiki zan, eta serbitzen zituen.
16. Eta etorririk arratsa, eskeñi zizkioten asko demonioak zeuzkate-nak, eta botatzen zituen espirituak itzarekin, eta gaizki zeuden guziak sendatu zituen.
17. Betea izan zedin esana izan zana Isaias Profetaren bitartez, zeñak esaten duen: Berak artu zituen gure eritasunak, eta eraman zituen gure miñantzeak.
18. Ikusirik ordea Jesusek jende asko bere inguruan, agindu zuen joa-teko itsas beste aldera.
19. Eta alderaturik Eskriba bat, esan zion: Erakuslea, jarraituko dizut joaten zeran edozeiñ tokitara.
20. Eta esaten dio Jesusek: A dituzte kobak, eta zeruko egaztiak kabiak; gizonaren semeak ordea ez du non burua etzin.
21. Eta bere ikasletatik batek esan zion: Jauna, utzi nazazu lenengo joaten, eta lurpetzen nere aita.

22. Jesusek ordea esan zion: Arreit neri, eta utzi ezazu illak lurpetu ditzaten beren illak.
23. Eta sartzen zala bera ontzitzoan, jarraitu zioten bere ikasleak.
24. Eta ona emen non alako ekaitz aundi bat egiña izandu zan itsa-soan, non ontzitzoa zan bagak estalia, bera berriz lo zetzan.
25. Eta alderatu ziran bera gana bere ikasleak, eta esnatu zuten esa-tela: Jauna gorde gaitzatzu, galduak gera:
26. Eta esaten diote Jesusek: Zeren beldur zerate fede gutxikoak? Orduan jaikirik agindu zioten aizeai, eta itsasoari, eta gelditu zan bare bare.
27. Gizonak bada arritu ziran, esaten zutela: Nolakoa da au aizeak, eta itsasoak obeditzen dioten au?
28. Eta irago zanean Jesus itsasoaren beste aldera, Jerasenoen errira, atera zitzaizkon bidera bi zeuzkatenak demonioak, irtenik obietatik, supertuegiak, alako modutan, non iñor ezin zitekean igaro bide artatik.
29. Eta ona emen non asi ziran ojuka, ziotela: Zer guri, eta zuri, Jesus Jaungoikoaren semea? Etorri bai al zera onara denbora baño lenago gu oñazetzera?
30. Zegoan berriz ez urrutian berak gandik txerri askoren samalda bat jaten.
31. Demonioak bada otoiztzen zioten, esaten ziotela: Botatzen bagaituzu emendik, bialdu gaitzatzu txerrien samaldara.
32. Eta esan zioten: Zoazte. Eta berak aterarik joan ziran txerrietara, eta ona emen non arin ta itsumustuan joan zan samalda guzia amiltokie-tatik itsasora, eta ill ziran uretan
33. Txerri zaiak berriz iges zuten, eta etorririk urira adierazo zituzten gertakari guztiak, baita ere demonioak iduki zituztenenak.
34. Eta ona emen non uri guzia irten zitzaion bidera, eta ikusirik bera, erregutzen zioten, atera zedilla beren mugetatik.

## BEDERATZIGARREN KAPITULUA

*<-e>Sendatzen du Jesusek elbarridun bat Eskribaen gaizki esateak Deitzen dio Mateo Publikanuari Erantzuten diote gezurrak asmatzen diezten Fariseoi Libratzen du enakume bat odol jario-tik Piztzen du neskatx bat; argitzen ditu bi itsu Sendatzen du gaizkindun mutu bat, eta egiten ditu beste mirari batzuek Garia-ren, ta nekazariaren irudipena*



1. Eta sarturik ontzitxo batean, irago zan itsas beste aldera, eta etorri zan bere errira.

2. Eta ona emen non eskeñtzen zioten elbarridun bat zetzana oean. Eta ikusirik Jesusek aien fedea, esan zion elbarridunari: itxedon ezazu ene semea, barkatzen zaskizu zure bekatuak.

3. Eta ona emen non Eskribaetatik batzuek esan zuten beren barrean: Au gaizki esaka ari da Jaungoikoa gatik.

4. Eta ikusirik Jesusek beren gogorazioak, esan zioten: Zergatik daukazute gogorazio gaiztoak zuen biotzetan?

5. Zer gauza da errazago esatea: Barkatzen zaskitzu zure bekatuak, ala esatea: Jaiki zaite, eta zabilta?

6. Jakin dezazuten bada, gizonaren semeak daukala eskubidea lurreen parkatzeko bekatuak, orduan esan zion elbarridunari: Jaiki zaite, ar zazu zure oea, eta zoaz zure etxera.

7. Eta jaiki zan, eta joan zan bere etxera.

8. Eta ikusirik jendeak bildurtu ziran, eta alabatu zuten Jainkoa, eman ziotena alako eskua gizonai.

9. Eta igaroten zala andikan Jesus, ikusi zuen gizon bat eserita alkian, Matheo eritzana; eta esan zion: Darraidazu. Eta jaikirik jarraitu zion.

10. Eta gertatu zan zegoala bera eseririk etxean, ona emen non publikano, eta bekatari asko etorririk, zeuden eserita Jesusekin, eta bere ikasleakin.

11. Eta ikusirik Fariseoak esaten zieten bere ikasleai: Zergatik zuen Erakusleak jaten du publikanoakin, eta bekatariakin?

12. Eta Jesusek aditurik esan zioten: Ez dute sendatzallearen premia-rik ongi daudenak, baizik gaizki daudenak.

13. Joaten zeratela bada ikasi ezatzute zer dan: Errukia nai det, eta ez eskeña, zeren ez nintzan etorri deitzera onak, baizik bekatariak.

14. Orduan alderatu ziraden bera gana Joanen ikasleak, esaten zutela: Zergatik guk, eta Fariseoak barur egiten degu sarri, zure ikasleak ordea ez dute barur egiten?

15. Eta esan zioten Jesusek: Ezkonberriaren semeak negar egin bai al ditzakete, ezkonberria berekin dan bitartean? Etorriko dirade ordea egunak, kenduko zaiotenak ezkonberria, eta orduan barur egingo dute.

16. Ez dio berriz iñork paratzen ipinki oial sendokorik jantzi zarrari, zeren kentzen dio bere betetasuna jantziari, eta txarragoa egiten da bere urratua.

17. Ez dute ere botatzen ardo berria zagi zarretan. Bestela urratzen dira zagiak, eta ardoa isurtzen da, eta zagiak galtzen dirade. Baizik ardo berria zagi berrietan botatzen dute, eta biak diraute.

18. Oiek esaten ziezitela berak, ona emen non agintari bat alderatu zitzaion, eta adoratzen zuen, esaten ziola: Jauna, nere alaba arestian ill da; baña atoz, ipiñi ezazu zure eskua beraren gañean, eta piztuko da.

19. Eta jaikirik Jesus jarraitzen zion, baita bere ikasleak ere.

20. Eta ona emen non emakume bat odolaren jarioaren gaitzarekin zegoana amabi urtean, alderatu zitzaion atzetikan, eta ukitu zion bere jantziaren ertzari.

21. Zeren esaten zuen bere artean: Ukitzen badiot bere jantziari bakarrik izango naiz sendatua.

22. Eta Jesusek itzulirik eta bera ikusirik, esan zion: itxedon ezazu nere alaba, zure fedea sendatu zaitu. Eta sendatua izan zan emakumea ordu artatik.

23. Eta etorri zanean Jesus agintariaren etxera, eta ikusi zituanean txilibitariak eta jende talde naasia otska, esaten zioten:

24. Alde ezazute, ez da ezen illa neskata, baizik lo datza. Eta burlatzen zitzaiozkan.

25. Eta izan zanean botatua jendetza, sartu zan: eta eldu zion bere eskutik. Eta jaiki zan neskata.

26. Eta barreatu zan ospe au inguru guzi artatik.

27. Eta igaroten zala andik Jesus, jarraitu zioten bi itsuk ojuka, eta esaten ziotela: Dabiden semea, erruki gaitzazu.

28. Etorri zanean bada etxera, alderatu zitzaizkan itsuak. Eta esaten diete Jesusek: Sinistzen dezute au egin dizazutekedala? Berak esaten diote: Bai, Jauna.

29. Orduan ukitu zieten beren begiai, esaten ziela: Egiña izan daki-zutela zuen fedearen araura.

30. Eta idikiak izan ziraden beren begiak, eta zematu zituen Jesusek, esaten ziotela: Begira ez dezala iñork jakin.

31. Berak berriz irtenik, barreatu zuten inguru guzi artan.

32. Aterarik berriz itsuak, ona emen non eskeñi zioten gizon bat mutua, demonioa zeukana.

33. Eta botarik demonioa, itz egin zuen mutuak eta arritu ziraden jende taldeak, ziotela: Egundano ez da agertu onelakorik Israelen.

34. Fariseoak ordea esaten zuten: Demonioen agintariagan botatzen ditu demonioak.



35. Eta ingurutzen zituen Jesusek uri ta erri guziak, erakasten beren sinagogetan, eta predikatzen erreinuko ebanjelioa, eta sendatzen gaitz guzia, eta eritasun guzia.

36. Ikusirik ordea jende taldeak, errukitu zan berakin, zeren zeuden nekatuak, eta etzinak artzairik ez duten ardiak bezela.

37. Orduan esaten die beren ikasleai: Uzta egiaz asko, langilleak ordea gutxi.

38. Erregutu zaiozute bada uztaren Jaunari, bialdu ditzala langilleak bere uztara.

## AMARGARREN KAPITULUA

*<-e->Deitzen diote Jesusek amabi Apostolui; ematen diezte erakatsiak Esaten diote ez zala etorri ekartera pakea, baizik guda Nola aitortu bear duten gizonen aurrean; nola eramango duten bere gurutzea; eta artuko duela berari egñia bezela, besteai bere amoriaz egiten zaiotena*

1. Eta deiturik bere amabi ikasleak, eman zioten eskubidea espiritu zikiñen gañean, botatzeko berak, eta sendatzeko miñantze guzia, eta eritasun guzia.

2. Eta amabi Apostoluen izenak dira oiek. Lenbizikoarena: Simon, Pedro deritzana, eta Andres onen anaia.

3. Santiago Zebedeorena, eta Juan onen anaia, Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo publikanoa, Santiago Alfeorena, eta Tadeo.

4. Simon Kanantarra, eta Judas Iskariote, zeñak saldu ere zuen.

5. Amabi oiek bialdu zituen Jesusek, agintzen ziotela, esanaz: Jentillen bidera ez zaitezela joan, eta Samariatarren urietan ez zaitezela sartu.

6. Baizik aurrena zoazte Israelko etxeko ardi, galdu ziradenetara.

7. Joaten zeratela bada predikatu ezazute, esaten dietezutela: Alderatu dala zeruetako erreinua.

8. Eriak sendatu itzatzute, illak biztu itzatzute, legenardunak garbitu itzatzute, demonioak bota itzatzute, doan artu zenduzten, doan eman itzatzute.

9. Ez dezazutela iduki zuen menpean urrerik, ez zillarrik, ez dirurik zuen zizkuetan.

10. Ez zakutorik bidean, ez bi jantzirik, ez oñetakorik, ez bordoerik, zeren langillea bere janariaren diña bada.

11. Eta edozein urietan, edo errietan sartzen zeratenean, galdetu eza-zute, zeñ dan diña artan: eta an egon zaitezte atera zaitezten bitartean.

12. Sartzen zeratenean bada etxean, agur egin zaiozute, esaten dezutela: Pakea etxe onetan.

13. Eta egiaz balitza etxe hura diña, etorriko da zuen pakea beraren gañera; ez balitza ordea diña, zuen pakea itzuliko da zuen gana.

14. Eta zuek artzen ez zaituzten guziak, eta zuen itzak aditzen ez dituenak, irteten zeratela kanpora etxetik edo uritik astindu ezazute autsa zuen oñetatik.

15. Egiaz esaten dizutet: igarokarriago izango zitzaio Sodomako, eta Gomorrako erriari atzen juizioko egunean uri hurari baño.

16. Ona non nik bialtzen zaituztedan ardiak otsoen erdira bezela. Izan zaitezte bada kontuzkoak sugek bezela, eta doblez gabeak usোক bezela.

17. Gorde zaitezte ordea gizonetatik. Zeren ipiñiko zaituzte beren Erabakilekuetan, eta beren Sinagogetan azotatuak izango zerate.

18. Eta Eraentzalleak gana, eta erregeak gana eramanak izango zerate neregatik, emateko agiria aiei, eta jentillai.

19. Eramaten zaituztenean bada, ez ezazute pensatu nola, edo zer itz egingo dezuten; emango zatzute ezen ordu artan, zer itz egingo dezuten.

20. Zeren ez zerate zuek itz egiten dezutenak, baizik zuen Aitaren Espiritua, itz egiten duena zuek gan.

21. Eramango du ordea anaiak anaia eriotzara, eta aitak semea, eta jaikiko dirade semeak gurasoen kontra, eta ilerazoko dituzte:

22. Eta izango zerate gorrotatuak zuek guziok nere izena gatik. Irauten duena ordea atzeneraño, au salbatuko da.

23. Persegituak zeratenean bada uri onetan, iges zazute beste batera. Egiaz esaten dizutet, ez dituzutela onduko Israelko uriak, datorren arte-araño gizonaren semea.

24. Ez da ikaslea erakuslea baño geiago, ez eta ere morroia bere nagusia baño geiago.

25. Asko du ikasleak, izatea bere erakuslea bezela, eta morroiak bere nagusia bezela. Baldin etxeko nagusiar Beelzebub deitu bazioten, zenbat geiago bere etxekoai?

26. Ez zaitezte bada beren beldur izan, zeren ez da gauza ezkutaturik agertua izango ez danik, ez isillik jakingo ez danik.

27. Esaten dizutedana illunpetan, esan ezazute argitan, eta belarrian aditzen dezutena, predikatu ezazute tellatuen gañean.



28. Eta gorputza iltzen dutenen, baña anima ezin ill dezaketenen bildur ez zaitezte izan, baizik obeki eta anima eta gorputza infernura bota ditzakeanaren bildur izan zaitezte.

29. Bi txori ez al dirade saltzen ardit bitan, eta oietatik bat ez da eriko lurraren gañean zuen aita gabe?

30. Baita ere zuen buruko ille guziak daude zenbatetuak.

31. Ez zaitezte bada bildur izan, txori asko baño obeagoak zerate zuek.

32. Gizonen aurren bada aitortzen nauan guzia, nik ere aitortuko det nere aita zeruetan dagoanaren aurrean.

33. Ni ukatzen nauena berriz gizonen aurrean, ukatuko det bera ere nik, nere aita, zeruetan dagoanaren aurrean.

34. Ez dezazutela uste izan etorri nintzala bialtzera pakea lurrera; ez nintzan etorri bialtzera pakea, baizik ezpata.

35. Zeren etorri nintzan banakatzera gizona bere aitaren kontra, eta alaba bere amaren kontra, eta erraña bere amagiarrabaren kontra.

36. Eta gizonaren etsaiak, bere etxeakoak.

37. Maitatzen duena aita, edo ama ni baño geiago, ez da nere diña. Eta maitatzen duena semea edo alaba ni baño geiago, ez da nere diña.

38. Eta artzen ez duena bere gurutzeta, eta ez darraidana, ez da nere diña.

39. Arkitzen duenak bere anima, galduko du, eta galtzen duenak bere anima nere gatik, arkituko du.

40. Zuek artzen zaituztenak, ni artzen naute, eta ni artzen nauenak, artzen du ni bialdu ninduen.

41. Artzen duenak profeta profetaren izenean, profetaren saria artuko du, eta artzen duenak justoa justoaren izenean, justoaren saria artuko du.

42. Eta ematen dion edozeñek edaria txikien oietatik bati edontzi bete ur otz bakarrik ikaslearen izenean, egiaz esaten dizutet, ez du galduko bere saria.

## AMAIKAGARREN KAPITULUA

*<-e>Bialtzen ditu Bautistak bere ikasletatik bi, galdetzera Jaunari, bera ote zan Mesias; eta Jaunak agintzen diote aztertu ditzatela bere egiteak, eta adierazo ditzaizkietela Bautistari Jaunak bere Bidaurrekoa gatik ematen duen agiria Alabatzen du bere*

*Aitaren jakituria, ukatzen zaiotelako arroai, eta agertzen zaiotelako umillai, eta berekin ditalako artuemanak Zirikatzen ditu guziak, bera imitatzera, eta berari jarraitzera*

1. Eta gertatu zan, bukatu rik Jesusek, agintzen ziotela bere amabi ikasleai, irago zan andik, erakusteko eta predikatzeko bere errietan.

2. Juanek ordea aditurik itxian Kristoren egiteak, bialdurik bere ikasletatik bi,

3. Esan zion: Zu zera etorriko dana, ala besteren bat itxedotzen degu?

4. Eta erantzunaz Jesusek esan zieten: Joaten zeratela, adierazo zaiozute Joani aditu, eta ikusi ditzuztenak.

5. Itsuak dakuse, errenak dabilta, legenardunak dirade garbituak, gorrak aditzen dute, illak biztzen dirade, eta beartsuai adierazoten zaiote ebanjelioa.

6. Eta zorionekoa da gaitz bidea artzen ez duena neregana.

7. Alde egin zutenean bada berak, asi zan Jesus esaten jende taldeai Joan gatik: Zer ikustera atera zerate eremura? Kañabera aizeak darabillana?

8. Baña zer ikustera atera zerate? Gizon soñeko biguñakin jantzia? Egunaz soñeko biguñakin jazten diranak erregeen etxeetan daude.

9. Baña zer ikustera atera zerate? Profeta al? Baita esaten dizutet, profeta baño geiago ere.

10. Au da ezen zeña gatik eskribatua dan: Ona emen non nik bialtzen dedan nere Aingerua zure arpegiaren aurretik, zeñak prestatuko duen zure bidea zure aurrean.

11. Egiaz esaten dizutet: Ez da jaiki emakume gandikan gizasemerik, Juan Bautista baño andiagorik, baña zeruetako erreñuan txikiena dana, andiagoa da hura baño.

12. Joan Bautistaren egunetatik berriz orain arteraño, zeruetako erreinuari indarra egin bear zaio, eta errutsuak arrapatzen dute.

13. Zeren, profeta guziak, eta legeak Joaneraño etorkizunen berriak eman zituzten:

14. Eta nai badezute artu, bera da Elias etorriko dana.

15. Ditu enak belarriak aditzeko, aditu beza.

16. Zeñaren antzekoa dala berriz usteko det gizon kasta au? Da plazan eseririk dauden mutillen antzekoa, zeintzuek deadar egiñik beren kidekoai,

17. Esaten diete: Kantatu dizugu, eta ez dezute dantzatu; negar egin degu, eta ez zerate adiakatu.



18. Zeren etorri zan Juan ez zuela jaten, ez edaten, eta esaten dute: Demonioa dauka.

19. Etorri zan gizonaren semea jaten zuela, eta edaten zuela, eta esaten dute: Ona emen gizon tripazaia, eta ardo edalea, publikanoen, eta bekatarien adiskidea. Eta jakituria izan da bere semeak egiztatua.

20. Orduan asi zan arpegian ematen, beren mirari asko egiñak izan-  
du ziran uriai, etzutelako egin penitenziarik.

21. Ai zure zorigaiztokoa Korozain! Ai zure zorigaiztokoa Bethsaida!  
Zeren, baldin Tiron eta Sidonen egiñak izan balirade, zuekgan egiñak  
izandu diran mirariak, aspaldi zurdatzean, eta autzean penitentzia egingo  
zuten.

22. Beragatik esaten dizutet: Tironi, eta Sidoni biguñago izango zaio-  
tela atzen juizioko egunean, zuei baño.

23. Eta zu Kafarnaum, zeruraño jaso izango bai al zera? infernu-  
raño jatsiko zera. Zeren, baldin Sodomak egiñak izan balira, zukan egiñak  
izan diran mirariak, aurki iraungo zuten egun onetaraño.

24. Beragatik esaten dizutet, Sodomako erriari biguñago izango zaio-  
la atzen juizioko egunean, zuri baño.

25. Denbora artan erantzunik Jesusek, esan zuen: Eskerrak ematen  
dizkizut, Aita, zeruko eta lurreko Jauna, ezkutatu dizkiezulako oiek jakin-  
tsuai, eta begiratuai, eta agertu dizkiezulako txikitxoai.

26. Ala Aita, bada onela oniritzi zan zure begietan.

27. Gauza guziak izandu zaizkit nere Aitak emanak. Eta iñork ez du  
ezagutzen semea, baizik Aitak; ez du ere iñork ezagutzen aita, baizik  
semeak, eta semeak agertu nai diotenak.

28. Etorri zaitezte niregana, nekatuak eta zamatuak zaudeten guziak,  
eta nik gozatuko zaituztet.

29. Erabili ezazute nere uztarrria zuen gañean, eta ikasi ezazute nere-  
gandik, ze beraa naizan, eta biotz umilla, eta arkituko dezuten atsedena  
zuen animentzat.

30. Zeren nere uztarrria leuna da, eta nere zama ariña.

## AMABIGARREN KAPITULUA

*<-e->Fariseoak gaizki esaten dute Jesusen ikasleak gatik, atxitu-  
tzen zituztelako galburuak larunbatean, eta Jaunak itz egiten du  
beren alde Sendatzen du larunbatean eskutxangu bat, onela adie-  
razoten zuela larunbatean ere lagun urkoari mesede egin lezakeo-*

*kela Sendatzen du gaizkindun itsu, eta mutu bat Eskatzen ziote-  
nai mirari bat egiteko bere lanbidearen ezagungarritzat, erantzuten  
diote, bere piztuera berri Jonaskan iruditua izango zala eskatzen  
zuten ezagungarria Erakusten du, bere Aitaren borondatea egiten  
dutenak, izango dirala bere anaiak, adiskideak, eta aideak*

1. Denbora artan joan zan Jesus gari artetik larunbatean; bere ikas-  
leak berriz gose izanik asi ziran ebakitzen galburuak, eta jaten.

2. Eta Fariseoak ikusirik esan zioten: Begira ezazu nola zure ikasleak  
egiten duten zillegi ez dana egitea larunbatetan.

3. Eta berak esan zioten: Ez al dezute irakurri zer egin zuen Dabi-  
dek, gose izan zanean, eta berarekin zeudenak?

4. Nola sartu zan Jaungoikoaren etxean, eta jan zituen ogi eskeñiak,  
zeintzuek jatea ez zitzaion zillegi berari, ez berarekin zeudenai, baizik  
bakarrik Sazerdoteai?

5. Edo ez dezute irakurri legean, larunbatetan Sazerdoteak elizan  
larunbata ausitzen dutela, eta bekatu gabe daudela?

6. Esaten dizutet bada, eliza baño andiagoa da emen.

7. Baldin bada bazenekizute zer dan: Errukia nai det, eta ez eskeña,  
ez zeñituzten egundaño kondenatuko obenik gabeak.

8. Jauna ezen da gizonaren semea, larunbatarena ere.

9. Eta andik igarorik, etorri zan beren Sinagogara.

10. Eta ona emen gizon bat esku txangua zuena, eta galdetzen zioten  
esaten ziotela: Ote da zillegi larunbatetan sendatzea? Salatzea gatik bera.

11. Berak berriz esan zioten: Zein izango da zuetatik gizona, duena  
ardi bat, eta eroriko balitza au larunbatetan zulo batera, ez al dio elduko,  
eta ez al du aterako?

12. Zenbat geiago ohea ez da gizona ardia baño? Ala bada zillegi da  
larunbatetan on egitea.

13. Orduan esan zion gizonari: Luzatu ezazu zure eskua. Eta luzatu  
zuen, eta izandu zitzaion jarria sendatuta bestea bezela.

14. Irteten zutelara ordea Fariseoak, batzarrea egin zuten bere kontra,  
nola galduko ote zuten.

15. Jesusek ordea jakiñik, alde egin zuen andik, eta jarraitu zioten  
askok, eta sendatu zituen oiek guziak.

16. Eta agindu zioten, ez zezatela bera agertu.

17. Betea izan zedin, esana izan zana Isaias profetaren bitartez, zeñak  
esaten duen:





18. Ona emen neure serbitzari, autu nuena, nere maitea, zeñagan ongi gozatu zan nere anima. Ipiñiko det nere espiritua bere gañean, eta zuzentasuna jentillai adierazoko diote.

19. Ez da leiatuko, ez du ere ojurik egingo, ez ere iñork adituko karriketan bere boza.

20. Kañabera kirrikatua ez du ausiko, eta kea darian linoa ez du itzailiko, alik eta bota dezan bitartean garaitzara zuzentasuna.

21. Eta bere izenean jentillak itxedongo dute.

22. Orduan eskeñia izan zitzaion demonioa zeukan bat, itsua eta mutua, eta sendatu zuen alako modutan, non itz egiten zuen, eta ikusten zuen.

23. Eta kordegabetzen ziran jende talde guziak, eta esaten zuten: Dabiden semea bai al da?

24. Fariseoak ordea aditurik, esan zuten: Onek ez ditu botatzen demonioak, Beelzebub demonioen agintariagan baizik.

25. Jesusek berriz jakiñik beren gogorazioak, esan zioten: Bere kontra berezitutako erreinu guzia, izango da soilldua, eta bere kontra berezitutako uri edo etxe guziak, ez du iraungo.

26. Eta baldin Satanasek Satanak botatzen badu, bere kontra berezitutua da, nola bada iraungo du bere erreinuak?

27. Eta baldin nik Beelzebubgan botatzen baditut demonioak, zuen semeak zeñagan botatzen dituzte? Argatik berak zuen juzgatzaleak izango dira.

28. Baldin bada nik Jaungoikoaren espirituan botatzen baditut demonioak, allegatu bide da zuekgana Jainkoaren erreinua.

29. Edo nola norbait sartu diteke sendoaren etxean, eta dituenak arrapatu, baldin aurrena lotzen ez badu sendoa? Eta orduan bere etxeko gauzak arrapatuko diozka.

30. Nerekin ez dana nere kontra da, eta nerekin biltzen ari ez dana, barreatzen ari da.

31. Beragatik esaten dizutet: Pekatu eta ernegu guzia barkatua izango zaiote gizonai, baña espirituaren ernegua, ez da izango barkatua.

32. Eta edozeñek esaten badu itza gizonaren semearen kontra, barkatua izango zaio; baña esaten duenari Espiritu Santuaren kontra, ez zaio barkatuko ez gizaldi onetan, ez gerokoan.

33. Edo egin ezazute arbola ona, eta bere frutua ona; edo egin ezazute arbola gaiztoa, eta bere frutua gaiztoa; zeren frututik arbola da ezagutua.

34. Ziraun arrazak, nola ditzatzukete itz onak esan, izanik zuek gaiztoak? Zeren aoak itz egiten du biotzaren ugaritasunetik.

35. Gizon onak gordallu onetik ateratzen ditu gauza onak, eta gizon gaiztoak gordallu gaiztotik ateratzen ditu gauza gaiztoak.

36. Esaten dizutet bada, gizonak emango dutela atzen juizioko egunean, esaten dituzten itz alfer guziaren kontua.

37. Zure itzetatik ezen izango zera ontzat emana, eta zure itzetatik izango zera kondenatua.

38. Orduan erantzun zioten Eskribaetatik, eta Fariseoetatik batzuek, esaten ziotela: Erakuslea, nai degu zugandik siñalea ikusi.

39. Berak erantzunaz esan zioten: Gizon kasta gaizto, ta naaslari onek siñalea billatzen du, eta siñalerik ez zaio emana izango, Jonas profetaren siñalea baizik.

40. Zeren nola egon zan Jonas balearen sabelean iru egunean, eta iru gauean; ala egongo da gizonaren semea lurraren biotzean, iru egunean, eta iru gauean.

41. Ninibetar gizonak jaikiko dira atzen juizioan gizon kasta onekin, eta kondenatuko dute, zeren penitentzia egin zuten Jonasen predikazioan. Eta ona Jonas baño geiago emen.

42. Egoe aldeko erregiña jaikiko da atzen juizioan gizon kasta onekin, eta kondenatuko dute, zeren etorri zan larraren atzen mugetatik aditzera Salomonen jakinduria, eta ona Salomon baño geiago emen.

43. Ateratzen danean bada espiritu zikiña gizonagandik, dabil toki leorretatik, billatzen atsedena, eta ez du arkitzen.

44. Orduan esaten du: itzuliko naiz nere etxera, nondik atera nintzan. Eta etorriarik arkitzen du ustua, erratzakin garbitua, eta apaindua.

45. Orduan dijoa, eta artzen ditu berarekin beste zazpi espiritu bera baño gaiztoagoak, eta sarturik bizi dira an, eta egiñak dirade gizon huraren atzenak, lengoak baño gaiztoagoak. Ala gertatuko zaio gizon arraza txit gaizto oni ere.

46. Oraindikan izketan ari zala bera jende taldeai, ona emen non bere ama, eta anaiak zeuden kanpoan, nai ziotela berari itz egin.

47. Eta esan zion batek: Ona emen non zure ama, eta zure anaiak kanpoan daude, billatzen zaituztela.

48. Eta berak erantzunaz itz egin zionari, esan zion: Zein da nere ama; eta zeintzuek dirade nere anaiak?

49. Eta luzaturik eskua bere ikasleak gana, esan zuen: Ona emen nere ama, ta nere anaiak.





50. Zeren nere Aita zeruetan dagoanaren borondatea egiten duen edozein, orishe nere anaia, eta arreba, eta ama da.

### AMAIRUGARREN KAPITULUA

*<-e->Ipintzen dizkiote Jaunak irudintza batzuek, ereintzallearena; nekazariarena; mostaza alearena; legamiarena; gordallu ezku-tuarena; merkatar, perla balio andikoen billa dabillenarena; itsasoan botatzen dan sarearena, eta Jaunak berak azaldatzen ditu geienak Dijo predikatzeraz Nazareth bere urira, eta urikoak gaitz bidea artzen dute*

1. Egun artan aterarik Jesus etxetik, zegoan eseririk itsas bazterrean.
2. Eta bildu ziran beragana jende talde asko, alako modutan ezik igorrik ontzixora eseri zan, eta jende talde guzia zegoan itsas bazterrean.
3. Eta esan zizkieten asko gauza idurintzetan, esaten zuela: Ona emen non atera zan ereintzen duena, ereintzera.
4. Eta ereintzen ari dala, batzuek erori ziran bidearen ondoan, eta etorri ziraden zeruko egaztiak, eta jan zituzten.
5. Beste batzuek berriz erori ziran arritzan, non ez zeukaten lur asko, eta bereala erne ziran, ez zutelako lur sakonik.
6. Baña aterarik eguzkia, berotu ziran, eta nola ez zuten sustrairik, legortu ziran.
7. Beste batzuek berriz erori ziran arantzadietan, eta azi ziran arantzak, eta ito zituzten.
8. Beste batzuk berriz erori ziran lur onean, eta ematen zuten frutua, batak eunka, besteak irur ogeika, besteak ogeita amarka.
9. Dauzkanak belarriak aditzeko, aditu beza.
10. Eta alderaturik ikasleak esan zioten: Zergatik idurintzetan itz egiten diozute?
11. Berak erantzunaz, esan zioten: Zeren zuei emana zazute ezagutzea zeruetako ezkutapenak, aiei ordea ez zaiote emana.
12. Zeren duenari emango zaio, eta izango du ugariago, ez duenari ordea, duena ere kenduko zaio.
13. Orregatik irudipenetan itz egiten diotet, zeren dakustela, ez dute ikusten, eta entzuten dutela, ez dute entzuten, ez aditzen.

14. Eta betea da berak gan Isaiasen profezia, esaten duenarena: Belarriarekin entzungo dezute, eta ez dezute adituko, eta ikusten dezutela, ikusiko dezute, eta ez dezute ikusiko.

15. Gizendu da ezen erri onen biotza, eta belarriakin astun aditu zuten, eta beren begiak itxi zituzten; alabearrez ikusi ez dezaten begietatik, eta entzun ez dezaten belarrietatik, eta biotzez ez dezaten aditu, eta itzuli ez ditezten, eta sendatu ez ditzadan.

16. Zuen begiak ordea doatsuak, ikusten dutelako, eta zuen belarriak aditzen dutelako.

17. Zeren egiaz esaten dizutet, asko profetak, eta santuk nai izan zituztela ikusi zuek ikusten dituzutenak, eta ez zituzten ikusi, eta aditu zuek aditzen dituzutenak, eta ez zituzten aditu.

18. Zuek bada aditu ezazute ereinlariaren irudipena.

19. Erreiñuko itza entzun, eta aditzen ez duen guzia, dator gaitztoa, eta arrapatzen du bere biotzean ereiña izandu zana, au da bidearen ondoan ereiña izandu zana.

20. Arri artean ordea ereiña izan zana, au da, aditzen duena itza, eta bereala pozarekin artzen du.

21. Ez dauka ordea beragan sustrairik, baizik da iraute gutxikoa. Izanik berriz egiña naigabea, eta persekuzioa itza gatik, bereala artzen du gaitz bidea.

22. Arantza artean ereiña izandu zana berriz, au da, aditzen duena itza, eta mundu onetako ajolak, eta aberastasunen engaiñoak itotzen du, eta frutu gabea egiten da.

23. Lur onean ereiña izandu zana berriz, au da, entzuten duena itza, eta aditzen duena, eta frutua dakarrena; eta egiten du batak egiaz eunka, besteak ordea irurogeika, besteak berriz ogeita amarka.

24. Beste iduripen bat adierazo zioten, esaten ziotela: Zeruetako erreiniua da egiña, gizon baten antzekoa, zeñak erein zuen azi ona bere kanpoan.

25. Eta gizonak lotan zeudela, etorri zan beren etsaia, eta erein zuen gañetik lolloa gariaren erdian, eta joan zan.

26. Azi zanean bada belarra, eta egiñik frutua, orduan agertu ziran lolloak ere.

27. Alderaturik bada etxeko jaunaren morroiak, esan zioten: Jauna, ez al zenuen ereiñ azi ona zure kanpoan? Nondik bada du lolloa?

28. Eta esan zioten: Gizon etsaiak au egin du. Morroiak berriz esan zioten: Nai dezu goazen, eta bildu ditzagun?



29. Eta esan zuen: Ez, ustekabeen biltzen dituzutela lolloak, atera ez dezazuten berekin batean garia ere.

30. Utzi zaiozute biai azitzen galebateko denboraraño, eta galebateko denboran esango diotet galebakitzalleai: Bildu itzatzute lenengo lolloak, eta lotu itzatzute eskumenetan erretzeko, garia ordea bildu ezazute nere aletokirako.

31. Beste iduripen bat adierazo zioten, esaten ziela: Zeruetako erreinua da mostaza alearen antzekoa, zein arturik gizonak erein zuen bere kanpoan.

32. Zein egiaz da azi guzietatik txikiena; azitzen danean berriz, da barazki guzien artean aundiena, eta egiña izaten da arbola, alako eratan non, zeruko egaztiak etortzen dirade, eta egiten dituzte kabiak bere adarretan.

33. Beste irudipen bat esan zioten: Zeruetako erreinua da legamiaren antzekoa, zein arturik emakumeak, ezkututzen duen iru neurri iriñetan, alik eta guzia legamiatua dan bitartean.

34. Oiek guziak esan zieten Jesusek irudipenetan jende taldeai, eta irudipenetan baizik, ez zioten itz egiten.

35. Betea izan zedin esana izan zana profetaren bitartez, zeñak esaten duen: idikiko det irudipenetan nere aoa, adierazoko ditut ezkutatuak munduaren asipenetik.

36. Orduan utzirik jende taldeak, etorri zan etxera, eta alderatu zitzaizkan bere ikasleak, esaten ziotela: Azaldu diezaguzu kanpoko lolloen irudipena.

37. Berak erantzunaz esan zioten: Azi ona ereintzen duena, da gizonaren semea.

38. Kanpoa berriz da mundua. Azi ona berriz, oiek dira erreinuko semeak. Eta lolloak seme gaiztoak da.

39. Eta berak erein zituan etsaia, da deabrua. Ebakitzeko denbora berriz, munduaren bukaera da. Ebakitzalleak berriz, Aingeruak dirade.

40. Nola bada bilduak diran lolloak, eta sutan erreak, ala izango da munduaren bukaeran.

41. Bialduko ditu gizonaren semeak bere Aingeruak, eta bilduko dituzte bere erreinutik gaitzbide guziak, eta gaiztakeria egiten dutenak.

42. Eta bialduko dituzte suzko labera. An izango da negarra, eta ortz garraskotsa.

43. Orduan justoak distiatuko dute eguzkiak bezela beren Aitaren erreinuan. Belarriak dituanak aditzeko, aditu beza.

44. Zeruetako erreinua da kanpoan ezkutatua dan gordalluaren antzekoa, zein arkitzen duen gizonak, gordetzen du, eta huraren pozarekin badijoa, eta saltzen ditu dauzkan gauza guztiak, eta erosten du kanpo hura.

45. Berriz zeruetako erreinua da, gizon merkatari, perla onak billatzen dituenaren antzekoa.

46. Arkiturik berriz perla balio aundiko bat, joan zan, eta saldu zituen zeuzkan gauza guziak, eta erosi zuen hura.

47. Berriz zeruetako erreinua da, itsasoan botatako sare, eta arrai mota guziak biltzen dituenaren antzekoa.

48. Zein betea izan ezker, aterarik, eta itsas bazterrean eseririk, autu zituzten onak ontzietarako, txarrak ordea kanpora bialdu zituzten.

49. Onela izango da munduaren bukaeran; aterako dira Aingeruak, eta berezituko dituzte gaiztoak onen erditikan,

50. Eta bialduko dituzte suzko labera; an izango da negarra, eta ortzen garraskotsa.

51. Aditu dituzte oiek guziak? Esaten diote: Bai.

52. Esaten diete: Orregatik zeruetako erreinuan Eskriba jakintsu guzia da, gizon etxeko nagusi, bere gordallutik berriak eta zarrak ateraten dituanaren antzekoa.

53. Eta gertatu zan, bukatuak Jesusek iduripen oiek, joan zan andik.

54. Eta etorriak bere errira, ematen zizkieten erakutsiak beren sinagogetan, alako modutan non, arritzen ziran, eta esaten zuten: Nondik oni jakinduria au, eta mirariak?

55. Ez al da au arotzaren semea? Bere amari ez al deritza Maria, eta bere anaiak Santiago, eta Jose, eta Simon, eta Judas;

56. Eta bere arrebak, ez al daude guziak gure artean? Nondik bada oni gauza guzti oiek?

57. Eta gaitzbidea artzen zuten beragan. Jesusek berriz esan zioten: Ez da profetarik honratua ez danik, baizik bere errian, eta bere etxean.

58. Eta ez zituen egin an asko mirari, beren sinisgogortasuna gatik.

## AMALUGARREN KAPITULUA

*<-e>Bautistaren eriotza Kristok eremuan ematen dio jaten erriko jende talde bati bost ogi eta bi arrairekin Itsasoko ekaitz baten badijoa bere ikasleak ganontz zebillala uren gañean, eta San*



*Pedro ere zetorrela beraganontz beren gañetik arkitzen da ondartzeko arriskuan fedea faltatu zitzaiolako*

1. Denbora artan aditu zuen Herodes Tetrarkak Jesusen otspea.
2. Eta esan zioten beren morroiak: Au da Joan Bautista; bera piztu zan illen artetik, eta orregatik birtuteak ari dirade lanbidean beragan.
3. Herodesek ezen arrapatu zuen Joan, eta lotu zuen, eta ipiñi zuen itxian, Herodias bere anaiaren emaztea gatik.
4. Zeren esaten zion Joaneke: Ez dezu zillegi hura idukitzea.
5. Eta il nairik Joan, erriaren beldur zan, zeren profeta bezela zeukaten.
6. Herodesen jaiotza egunean bada, dantzatu zan Herodiasen alaba erdian, eta oniritzi zitzaion Herodesi.
7. Orregatik juramentuarekin eskeñi zion ematea eskatzen zion edozeñ gauza.
8. Eta berak, izanik amak gaztigatua: indazu esan zion, emen plateran Joan Bautistaren burua.
9. Eta itundu zan errege: juramentua gatik ordea eta berarekin maiean eserita zeudenak gatik, agindu zuen emana izan zekiola.
10. Eta bialdu zituen, eta lepoa ebaki zion Joani presoindegian.
11. Eta ekarria izan zan bere burua plateran, eta emana izan zitzaion neskatzari, eta onek ekarri zion bere amari.
12. Eta etorrikerik bere ikasleak, artu zuten bere gorputza, eta lurpetu zuten, eta etorrikerik adierazo zioten Jesusi.
13. Au aditu zuenean Jesussek, alde egin zuen andik batelan toki bakar urrutiko batera, eta aditurik jende taldeak, jarraitu zioten oñaz urietatik.
14. Eta irten zanean, ikusi zuen jende talde aundi bat, eta errukitu zitzaizkan, eta sendatu zituen beren eriak.
15. Etorrikerik ordea arratsaldea, alderatu zitzaizkan bere ikasleak, esaten ziotela: Tokia eremua da, eta ordua onezkero iragoa; utzi itzatzu jende taldeak, joanik errietara, erosi dezaten janaria.
16. Eta Jesussek esan zioten: Ez dute joanaren premiarik; eman zaiozute zuek jaten.
17. Erantzun zioten: Ez degu emen, bost ogi, eta bi arrai baikik.
18. Jesussek esan zioten: Ekarri dietzadatzute onara.
19. Eta agindurik jende taldeai eseri zitezela belarraren gañean, arturik bost ogiak, eta bi arraiak, begiraturik zerua, bedeinkatu zituen, txikitu zituen, eta eman ziozkaten ikasleai ogiak, eta ikasleak jende taldeai.

20. Eta jan zuten guztiak, eta ase ziran. Eta bildu zituzten puskak, amabi otarra zatiz beteak.

21. Jan zutenak berriz ziran, bost milla gizon, emakumeak eta aurrak gabe.

22. Eta bereala igoerazo zioten Jesussek ikasleai ontzitzora, eta joan erazo zieten bere aurretik itsas beste aldera, bialtzen zituen arte jende taldeak.

23. Eta bialdurik jende taldea, igo zan mendira bakarrik errege egitera. Eta gaua egiñik, bakarrik zegoan an.

24. Ontzitzoari berriz itsasoaren erdian bazirauntzen bagak, zeren zan aizea kontrakoa.

25. Gauaren laugarren belan bada, etorri zan Jesus berakgana zebillala uraen gañean.

26. Eta ikusi zutenean bera itsasoaren gañean zebillala, arritu ziran, esaten zutela: Zomorrua dala. Eta bildurturik asi ziran ojuka.

27. Eta bereala Jesussek itz egin zioten, esaten ziotela: iduki ezazute itxedopena; ni naiz, ez zaitezte beldur izan.

28. Erantzunaz berriz Pedrok, esan zion: Jauna, zu bazera agindu diezadazu zure gana etorri nadilla uren gañean.

29. Eta berak esan zion: Atoz. Eta jatsirik Pedro ontzitzotik zebillan uren gañean etorteko Jesus gana.

30. Ikusirik berriz aize sendoa, beldurtu zan, eta nola asi zan ondartzen, deadar egin zuen esaten zuela: Jauna gorde nazazu.

31. Eta bereala Jesussek luzatzen ziola eskua, eldu zion, eta esan zion: Fede gutxikoa, zertako zalanatu zera?

32. Eta igo zutenean ontzitzora, gelditu zan aizea.

33. Ontzitzoan zeudenak berriz, etorri ziran, eta adoratu zuten, esaten zutela: Egiaz Jaungoikoaren semea zera.

34. Eta igaro ziranean itsas beste aldera, etorri ziran Jenesar errira.

35. Eta ezagutu zutenean erri atako gizonak, bialdu zituzten inguru guzi atara, eta eskeñi zizkieten gaxo ziran guztiak.

36. Eta erregutzen zioten, utzi zezatela ukitzen bere jantziaren ertza bederik. Eta ukitu zioten guziak, sendatuak izan ziran.

## AMABOSTGARREN KAPITULUA

*<e>Eskribak eta Fariseoak gaizki esaten dute Jaunaren ikasleak gatik, esertzen ziralako maiean jateko, lenago eskuak garbitu gabe Jaunak itz egiten du oien alde Sendatzen du Kanaantar emak*



*kumearen alaba, huraren fede andiaren señaileak ematen dituan-  
rena Ematen dio berriz jaten eremuan jende talde andi bati zazpi  
ogi, ta arrai batzuekin*

1. Orduan alderatu ziran beragana Jerusalemendik Eskribak, eta Fari-seoak, esaten zutela:
2. Zergatik zure ikasleak autsiten dituzte aurrekoetatik etorrita dauz-kagun oitura onak? Ez dituzte ezen garbitzen eskuak ogia jaten dutenean.
3. Berak ordea erantzunaz esan zioten: Zergatik zuek ere autsiten dezute Jaungoikoaren agintea zuen oitura gatik? Zeren Jaungoikoak esan zuen:
4. Honratu ezazu aita, eta ama. Eta: Madarikatzen duena aita edo ama, eriotzarekin il bedi.
5. Zuek ordea esaten dezute: Esaten dion edozeñek aitari edo amari: Nik eskeintzen dedan edozein emaitzak zuri on egingo dizu:
6. Eta ez du honratuko bere aita edo bere ama, eta alferra egin dezu-te Jaungoikoaren agintea zuen oitura gatik.
7. Ongezurrak, ongi lenagotik adierazo zuen zuekgatik Isaiasek, esa-ten zuela:
8. Erri onek ezpañakin honratzen nu: bere biotza ordea urruti da neregandik.
9. Alferrik bada honratzen naute, erakusten dituztela gizonen eraku-tsi, eta aginteak.
10. Eta deiturik beregana jende taldeai esan zioten: Entzun eta aditu ezazute.
11. Aoan sartzen danak ez du zikintzen gizona, baizik ateratzen danak aotik, onek zikintzen du gizona.
12. Orduan alderaturik bere ikasleak, esan zioten: Badakizu Fariseo-ak aditurik itz au, gaitzbidea artu dutela?
13. Eta berak erantzunik esan zioten: Nere Aita zerukoak landatu ez duen landare guztia, izango da sustraietik aterea.
14. Utzi zaiozute, itsuak dira, eta itsuen gialariak. Itsuak berriz itsua zuzentzen badu, biak zulora erorten dirade.
15. Eta erantzunaz Pedrok esan zion: Azaldu diezaguzu irudipen au.
16. Eta berak esan zion: Oraindikan zuek ere adimentu gabe zerate?
17. Ez al dezute aditzen, aoan sartzen dan guzia, sabelera dijoala, eta toki ezkutura botatzen dala?
18. Aotik ateratzen diradenak ordea, biotzetik ateratzen dira, eta oiek zikintzen dute gizona:

19. Biotzetik ezen ateratzen dirade gogorazio gaitztoak, gizon iltzeak, besteren emazterekin gozatzeak, aragizko bekatuak, lapurretak, gezurrez-ko asmazioak, erneguak.

20. Oiek dira gizona zikintzen dutenak. Eskuak garbitu gabe jateak berriz, ez du zikintzen gizona.

21. Eta aterarik andik Jesus, alde egin zuen Tiroko, eta Sidongo tokie-tara.

22. Eta ona emen andre Kanaantar batek, muga aietatik ateraak, dea-dar egiten zuen, esaten ziola: Erruki nazazu Jauna Dabiden semea, nere alaba gaizki demonioak oñazetua da.

23. Berak ez zion erantzun itzik. Eta alderaturik bere ikasleak erre-gutuzten zioten, esaten ziotela: Bialdu ezazu, zeren deadarrez dator gure ondoren.

24. Berak berriz erantzunaz esan zuen: Ez naiz izan bialdua, Israel-ko etxeke ardi galdu ziranetara baizik.

25. Baña emakumea etorri zan, eta gurtu zitzaizkan, esaten ziola: Jauna, balia zatzakit.

26. Berak erantzunaz esan zion: Ez da ongi artzea semeen ogia, eta ematea txakurrai.

27. Eta emakumeak esan zion: Ala da Jauna, baña txakurtxoak ere jaten dituzte beren nagusien maietik eroitzen diran ogi apurrak.

28. Orduan erantzunaz Jesusek esan zion: O andrea, andia da zure fedea, egiña izan dakizula nai dezun bezela. Eta sendatua izan zan bere alaba ordu artatik.

29. Eta aterarik andik Jesus, etorri zan Galileako itsas bazterrera, eta igorik mendira zegoan eserita an.

30. Eta alderatu ziran beragana asko jende talde, zituztenak berakin mutuak, itsuak, errenak, eskutzangoak, eta beste asko, eta bota zituzten bere oñetara, eta sendatu zituen:

31. Alako modutan non jende taldeak arritzen ziran ikusirik mutuak izketan, errenak zebiltzala, itsuak ikusten zutela, eta alabetan zuten Israel-ko Jaungoikoa.

32. Jesusek berriz otsegiñik bere ikasleai, esan zioten: Jende taldearen erruki naiz, zeren onezkero iru egun dira nerekin daudela, eta ez dute zer janik, eta ez ditut nai bialdu barurik desmaiatu ez ditezen bidean.

33. Eta diote ikasleak: Nondik bada arkitu genzake eremuan ainbes-te ogi, asetzeko jende talde ain andia?

34. Eta esaten diote Jesusek: Zenbat ogi dituzute? Eta berak esan zioten: Zazpi, eta arraitxo gutxi batzuek.



35. Eta agindu zion jende taldeari, etzin zitezte lurraren gañean.
36. Eta arturik zazpi ogiak, eta arraiak, eta eskerrak emanik, txikitu zituen, eta eman ziezten bere ikasleai, eta ikasleak eman zizkioten erriari.
37. Eta jan zuten guziak, eta ase ziran. Eta gelditu zana pusketatik, bildu zituzten zazpi otarra beteak.
38. Ziran berriz jan zutenak, lau milla gizon, aurrak, eta emakumeak gabe.
39. Eta bialdurik jende taldea, igo zan ontzixora, eta etorri zan Majedango mugetara.

### AMASEIGARREN KAPITULUA

*<-e->Fariseoak berriz eskatzen diote Jaunari egín dezala mirari bat, eta berak erantzuten diote len bezela Kontuan ipintzen ditu ikasleak, gorde ditezten beren erakutsietatik San Pedrok egiten du Jesukristoren Jaungoikotasunaren aitormen agri bat, eta beraren ordañean eskeintzen dio Jaunak, izango dala bere elizaren zimendarria Adierazotzen du bere eriotzaren ezkutapena, eta erriertan egiten dio Pedrori, jarkitzen zaiolako Nola bakoitzak eraman bear duen bere gurutzea*

1. Eta alderatu ziran, beragana Fariseoak, eta Sadduzeoak tentatzen zutela, eta erregutu zioten, ikusgarria zerutik erakutsi ziotzatela.
2. Eta berak erantzunik esan zioten: Arratsaldean esaten dezute: Egunaldi ona izango da, gorria da ezen zerua.
3. Eta goizean gaur ekaitza, zeren osgorritua da zeru goibela.
4. Zeruaren arpegia bada ezagutzen badakizute, eta denboren siñaleak ezin ditzakezute jakin? Kasta gaizto eta siniste gabeko onek ikusgarria billatzen du, eta ikusgarririk ez zaio emango, baizik Jonas profetaren ikusgarria. Eta utzirik berak, joan zan.
5. Eta etorri ziranean bere ikasleak beste erriberara, aztu zitzaizoten ogiak artzea.
6. Berak esan zioten: Begira ezazute, eta gorde zaitezte Fariseoen, eta Sadduzeoen legamitik.
7. Eta ikasleak pensatzen zuten beren artean, esaten zutela: Zeren ogiak artu ez ditugu.
8. Jakiñik bada Jesusek esan zioten: Zer pensatzen dezute zuen barrenetan fede gutxikoak, ogiak ez daukazutela?

9. Ez al dezute aditzen, eta ez al zerate oroitzen bost ogirekin bost milla gizonentzat, eta zenbat saski bildu zinduzten?
10. Ez eta ere zazpi ogirekin lau milla gizonentzat, eta zenbat otarre bildu zinduzten?
11. Zergatik ez dezute aditu, ez dezutedala ogia gatik esan: gorde zaitetzela Fariseoen eta Sadduzeoen legamitikan?
12. Orduan aditu zuten ez zuela esan gordetzeko ogien legamiatik, baizik Fariseoen, eta Sadduzeoen erakutsitik.
13. Etorri zan bada Jesus Zesarea Filiporen aldeetarantz, eta galdezten zioten bere ikasleai, esaten ziotela: Nor diote gizonak dala gizonaren semea?
14. Eta berak esan zuten: Batzuek dala Juan Bautista, besteak berriz Elias, besteak ordea Jeremias, edo profetetatik bat.
15. Esaten diote Jesusek: Zuek berriz nor naizala ni diozute?
16. Erantzunaz Simon Pedrok esan zuen: Zu zera Kristo, Jaungoiko biziaren semea.
17. Erantzunaz bada Jesusek, esan zion: Zorionekoa zara Simon Joanen semea, zeren aragiak eta odolak ez dizu argitu, baizik nere Aita zeruetan dagoanak.
18. Eta nik esaten dizut, zu zerala Pedro, eta arri onen gañean jaso ko det nere Eliza, eta infernuko atek ez dute izango kemen geiago bere kontra.
19. Eta zuri emango dizkizut Zeruetako erreinuko giltzak. Eta lurraren gañean lotzen dezun edozein gauza, izango da lotua zeruan ere, eta lurraren gañean askatzen dezun edozein gauza, izango da askatua zeruan ere.
20. Orduan agindu zioten bere ikasleai ez zaiotela iñori esan bera zala Kristoa.
21. Ordutik asi zan Jesus adierazoten bere ikasleai, bearra zala bera joatea Jerusalem, eta asko sufritu bear zuela zarrak gandik, eta Eskribak gandik, eta Apaizen buruak gandik, eta izandu bear zuela illa, eta irugarren egunean biztuko zala.
22. Eta arturik Jesus Pedrok bakarrean, asi zitzaion erriertan egiten, esaten ziola: Urrutitik au zugandik, Jauna, ez da gertatuko au zurekin.
23. Bera itzulirik esan zion Pedrori: Ken zakizkit aurretikan, Satanas, gaitzbidea ematen didazu, zeren ez dituzu aditzen Jainkoarenak diraden gauzak, baizik gizonenak diradenak.
24. Orduan Jesusek esan zioten bere ikasleai: iñork nai badu nere ondoren etorri, uka beza bere burua, eta artu beza bere gurutzea, eta jarraitu bizait.



25. Zeren nai duenak bere anima salbatu, galduko du. Galtzen duenak ordea bere anima neregatik, arkituko du.

26. Zer balio dio ezen gizonari, baldin mundu guzira irabazten badu, bere animari ordea kalte egiten badio? Edo zer ordain emango du gizonak bere anima gatik?

27. Zeren gizonaren semea etorriko da bere Aitaren glorian bere Aingeruakin, eta orduan emango dio bakoitzari bere egiteen araura.

28. Egiaz esaten dizutet, badirade batzuek emen daudenetatik, ez dutenak gustatuko eriotza, alik eta ikusi dezaten artean gizonaren semea datorrela bere erreinoan.

## AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

*<-e>Jaunaren bestiruditea Sendatzen du gaizkindun bat Pagatzen dio petxa Zesarri, erakusten duela onela, Zesarri eman bear zaiola, Zesarrena dana*

1. Eta sei egunen ondoren artu zituen Jesusek Pedro, eta Santiago, eta Juan bere anaia, eta eramaten ditu mendi goratu aldendu batera.

2. Eta bestiruditu zan beren aurrean. Eta distiatu zuen bere arpegiak, eguzkia bezela, bere jantziak berriz jarri ziraden zuriak elurra bezela.

3. Eta ona emen non agertu zitzaizkaten Moises, eta Elias berarekin izketan asi dirala.

4. Eta erantzunik Pedrok esan zion Jesusi: Jauna, ongi da gu emen egotea; nai badezu, egin ditzagun emen iru bizitoki, zuretzat bat, Moisesentzat bat, eta Eliasentzat bat.

5. Oraindikan bera izketan ari zala, ona emen non odei argitsu batek estali zituen. Eta ona emen boz bat odeitik, esaten zuena: Au da nere semea maitatua zeñagan ni gozatu naizan, bera aditu ezazute.

6. Eta aditzen zituztela ikasleak, erori ziran beren arpegiak gañera, eta bildurto ziran asko.

7. Eta alderatu zan Jesus, eta ukitu zioten, eta esan zioten: Jaiki zaitetze, eta ez zaitetze beldur izan.

8. Eta jasoten zituztela beren begiak, iñor ez zuten ikusi, baizik Jesus bakarrik.

9. Eta jatxitzen zirala berak menditikan, agindu zioten Jesusek, esaten ziotela: iñori ez zaizute esan ikuskera, alik eta gizonaren semea illen artetik biztu dedin artean.

10. Eta galdetu zioten ikasleak, esaten ziotela: Zergatik bada Eskribak diote Eliasek lenengo etorri bear duela?

11. Eta berak erantzunaz, esan zioten: Elias egiaz etorriko da, eta lenegoratuko ditu gauza guztiak.

12. Esaten dizutet berriz: Elias onezkero etorria dala, eta ez zuten ezagutu, baizik egin zuten beragan nai izan zituzten gauza guztiak. Onela gizonaren semeak ere padezituko du berak gandik.

13. Orduan aditu zuten ikasleak, Juan Bautista gatik itz egin izan ziotela.

14. Eta etorri zanean beragana jende taldea, alderatu zan beragana gizon bat, belauen gañean jarririk bere aurrean, esaten ziola: Jauna, errukitu zaitere nere semearekin, zeren alditsua da, eta oñazetua gaizki, zeren asko aldiz erortzen da sutara, eta sarri urera.

15. Eta erakutsi diotet zure ikasleai, eta ezin izan dute sendatu.

16. Eta erantzunaz Jesusek esan zion: O gizon arraza siniste gabe eta gaiztoa, noiz arteraño egongo naiz zuekin? Noizarteraño sufrutuko zaituztet? Ekarki zadazute onara neregan.

17. Eta erriertan egin zion Jesusek, eta irten zan beragandik demonioa, eta sendatua izan zan mutilla ordu artatik.

18. Orduan alderatu ziran ikasleak Jesusgana ixillean, eta esan zioten: Zergatik guk ezin izan degu bota?

19. Esan zioten Jesusek: Zuen fede laburra gatik. Zeren egiaz esaten dizutet, bazendukete fedea, moztaza alea bezelakoa, esango diozute mendi oni: Joan adi emendikan ara, eta joango da, eta ez da izango zuentzat eziñik.

20. Baña deabru mota au ez da izaten botatua, baizik errengaren, eta barauaren bitartez.

21. Eta zeudela berak elkarrekin Galilean, esan zioten: Gizonaren semea izango da ipiñia gizonen eskuetan.

22. Eta ilko dute, eta irugarren egunean biztuko da. Eta atsekabetu ziran andizkiro.

23. Eta etorri ziran Kafarnauma, alderatu ziran petxa biltzalleak Pedrogana, eta esan zioten: Zuen Erakusleak ez ditu pagatzen petxak?

24. Esan zioten: Bai. Eta sartu zanean etxean, aurea artu zion Jesusek, esaten ziola: Zer deritzazu Simon? Lurreko erregeak, zeintzuek gandik artzen dituzte petxa edo zentzoa? Bere semeak gandik, ala atzeak gandik?

25. Eta berak esan zion: Atzeak gandik. Esan zion Jesusek: Beraz semeak ez dute zor.





26. Baña gaitzbidea eman ez dizaiegun, zoaz itsasora, eta bota ezazu amua, eta ar zazu, lenengo datorren arraia, eta idirikik bere aoa, arkituko dezu peseta biko bat: bera artzen dezula, eman zaiozute nigatik, eta zugatik.

## EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

*<-e->Erakusten du Jaunak umiltasuna dala giltza sartzeko zeruetako erreinoan Azaldatzen du zer pekatu andia dan, eta zer kastigu andiaren diña, besteai gaiztorako bidea ematea Ipintzen diote Artzai onaren irudipena, utzirik larogei, eta emeretzi ardiak, dijoanarena galdu danaren billa Esaten du nola bear duen bakoitzak lagun urkoa bide zuzenera itzuli Adierazoten dio San Pedrori, beti barkatu bear diogula iraintzen gaituanari, eta sendatzen du irakatsi au irudipen eder batekin*

1. Ordu artan alderatu ziran ikasleak Jesusen gana, esaten zutela: Zeiñ uste dezu aundiena dala zeruetako erreinoan?
2. Eta deiturik Jesusek aur bat, ipiñi zuen beren erdian,
3. Eta esan zuen: Egiaz esaten dizutet, ez bazerate biurtzen, eta egi-ten ez bazerate aurrak bezelakoak, ez zerate sartuko zeruetako erreinoan.
4. Aur au bezela bada umiltzen dan edozeiñ, au da andiena zeruetako erreinoan.
5. Eta artzen duenak onelako aur bat nere izenean, ni artzen nau.
6. Ematen dionak berriz gaizbidea, neregan sinistzen duten txiki oietatik bati, obe luke, asto errota arri bat bere lepotik lotuta, urpetuko balute itsasoaren barrenean.
7. Ai munduaren zorigaiztokoa gaitzbideak gatik! Zeren premiazkoa da gaitzbideak etortea, baña, ai zorigaiztokoa gizon hurarena, zeñaren bitartez datorren gaizbidea.
8. Argatik zure eskuak, edo oñak gaizbidea ematen badizu, ebaki ezazu, eta bota ezazu zugandik, obe dezu bizitzan sartu maingu, edo erren, bi esku edo bi oiñ dituzula botatua izatea baño betiko sutara.
9. Eta zure begiak gaizbidea ematen badizu, atera ezazu, eta bota ezazu zugandik, obe dezu begi batekin bizitzan sartzea, begi bi dituzula bialdua izatea baño suzko infernura.
10. Begira ezazute ez dezazutela gutxitan iduki txikitxo oietatik bat, zeren esaten dizutet, beren Aingeruak zeruetan beti ikusten dutela nere Aita zeruetan dagoanaren arpegia.

11. Zeren etorri zan gizonaren semea salbatzera galdu zana.

12. Zer deritzazute? Balitu norbaitek eun ardi, eta galduko balitza aietatik bat, ez al ditu utziten larogeita emeretziak mendietan, eta dijoa galdua izan zanaren billa?

13. Eta gertatuko balitza arkitzea hura, egiaz esaten dizutet, geiago gozatzen dala berarekin, larogeita emeretzi galdu ez ziranakin baño.

14. Ala ez da zuen Aita zeruetan dagoanaren borondatea, galtzea txiki oietatik bat.

15. Eta pekatu egingo balu zure kontra zure anaiak, zoaz, eta zuzendu egizu zure eta bere artean bakarrik. Aditzen badizu, irabazi izan izango dezu zure anaia.

16. Adituko ez bazinduz, ar ezatzu zurekin oraindik bat edo bi; leku-ko biren, edo iruen aoan egon dedin itz guztia.

17. Eta oiek adituko ez balitu, esaiozu Elizari. Eta Eliza aditu nai ez balu, iduki ezazu jentil, eta publikanotzat.

18. Egiaz esaten dizutet lurraren gañean lotzen dezuten guzia, lotua izango da zeruan ere, eta lurraren gañean askatzen dezuten guzia, askatua izango da zeruan ere.

19. Berriz esaten dizutet, zuetatik bi elkar aditzen badirade lurraren gañean, eskatzen duten gauza guzia, nere Aita zeruetan dagoanak, egiña izango zaio.

20. Zeren non dauden bi edo iru bildurik nere izenean, an naiz beren erdian.

21. Orduan alderaturik Pedro beragana, esan zion: Jauna, zenbat aldiz pekatu egingo du nere kontra nere anaiak, eta barkatuko diot? Zazpi aldiraño?

22. Esaten dio Jesusek: Ez dizut esaten zazpi aldiraño, baita irurogei eta amar aldiz zazpi aldiraño ere.

23. Argatik zeruetako erreinoa da iruditua gizon errege, bere morroiakin kontuetan sartu nai zuenari.

24. Eta asi zanean kontuak artzen, eskeñia izan zitzaion, zor ziozkan-  
a amar milla talentu.

25. Baña nola ez zuen nondik itzuli, agindu zuen bere nagusiak, izan zedilla saldua bera, eta bere emaztea, eta semeak, eta zituen gauza guziak, eta pagatu zekiola.

26. Auzpezturik berriz morroe hura, erregutzen zion, esaten ziola: Emadazu, arren epea, eta guzia pagatuko dizut.

27. Eta errukiturik morroe huraren nagusia, utzi zion, eta zorra barkatu zion.



28. Irtenik bada morroe hura, arkitu zuen bere morroe lagun bat, zor ziozkana eun denario, eta eldurik berari, itotzen zuen, esaten ziola: indak zor didakana.

29. Eta auzpezturik bere morroe laguna, erregutzen zion, esaten ziola: Emadazu arren epea, eta guzia pagatuko dizut.

30. Ark berriz ez zuen nai izan, baizik joan zan, eta sartu zuen pre-soindegian zorra pagatu arteraño.

31. Bere morroe lagunak bada ikusirik zer igarotzen zan, atsakabetu ziran asko, eta etorri ziran, eta kontatu zioten beren nagusiari gertatu izan zan guzia.

32. Orduan deitu zion bere nagusiak, eta esan zion: Morroe gaiztoa, artzeko guzia barkatu nikan, erregutu idakalako:

33. Eta i ere ire lagunaz errukitu bear ez intzakan, ni izaz errukitu nindukan bezela?

34. Eta aserreturik bere nagusia, eman zioten bera borreroai, zor guzia pagatu arteraño.

35. Onela nere Aita zerukoak ere egingo dizute, barkatzen ez badioz-kazute bakoitzak bere anaiai zuen biotzetatik.

## EMERETZIGARREN KAPITULUA

*<-e>Ezin askatu lezakeala ezkontzako lokarria; eta gauza bat bakarra gatik dala zillegi banakatzea Berriz ipintzen ditu aurrak, zeruetan sartuko diradenen iruditzat Zein gaitz dan aberatsak salbatzea Jesus gatik guzia isten dutenen sari ugaria*

1. Eta gertatu zan, bukatuak Jesusek itz oiek, joan zan Galileatik, eta etorri zan Judeako mugetara, Jordango beste aldera.

2. Eta jarraitu zioten jende talde askok, eta sendatu zituen an.

3. Eta alderatu ziran beragana Fariseoak tentatzen zutela, eta esaten ziotela: Zillegi bai al zaio gizonari utzitzea bere emaztea, edozein gauza gatik?

4. Berak erantzunik esan zioten: Ez al dezute irakurri, egin zuenak gizona asieratik, arra eta emea egin zituela? Eta esan zuen:

5. Beragatik utziko ditu gizonak aita eta ama, eta bere emaztearen gañetuko da, eta izango dira bi aragi batean.

6. Ala bada onezkero, ez dira bi, aragi bat baizik. Jaungoikoak bada bildu zuena, gizonak ez beza berezitu.

7. Esaten diote: Zergatik bada Moisesek agindu zuen emateko banakatuaren agiria, eta utziteko?

8. Esan zioten: Zeren Moisesek zuen biotzeko gogortasuna gatik laketu zizuten utzitea zuen emazteak, asieratik ordea ez zan onela.

9. Eta esaten dizutet, bere emaztea utziten duen edozeñek, besterakin aragizko bekatuan erori dalako ez izanenean, eta besterik artzen duenak, egiten du adulterioko bekatua, eta utzia artzen duenak, egiten du adulterioko bekatua.

10. Diote bere ikasleak: Baldin orrela izan bear badu gizonak bere emaztearekin, ez da ezkondu bear.

11. Berak esan zioten: Ez dirade guziak itz onen diña, baizik emana izan zaiotenak.

12. Zeren badirade txikiratuak, zeñak amaren sabeletik ala jaio ziran, eta badirade txikiratuak, gizonak egiñak izan ziranak, eta badirade txikiratuak hurak berak txikiratu ziranak zeruetako erreinoagatik. Adi dezakeanak, adi beza.

13. Orduan eskeñiak izan zitzaiozkan aur batzuek, eskuak gañean ipiñi ziotzaten, eta erregutu zezan. Ikasleak ordea errierta egiten zioten.

14. Jesusek berriz esan zioten: Utzi zaiozute aurrai, eta ez zaiozute eragotzi neregana etortea, zeren onelakoena da zeruetako erreinua.

15. Eta eskuak gañean ipiñi ziozkatenean, joan zan andik.

16. Eta ona emen non bat alderaturik, esan zion: Erakusle ona, zer on egingo det izan dezadan betiko bizitza?

17. Berak esan zion: Zergatik galdetzen didazu onagatik? Bat da ona, Jaungoikoa. Nai badezu berriz bizitzan sartu, gorde itzatzu aginduak.

18. Esan zion: Zeintzuek? Eta Jesusek esan zion: Ez dezu iñor ilko; ez zera besteren emaztearen ganatuko; ez dezu ebatsiko; ez dezu lekukotasun gezurrezkorik esango.

19. Honratu itzatzu zure aita, eta zure ama, eta maitatuko dezu zure lagun urkoa, zu zerori bezela.

20. Esaten dio gazteak: Oriek guziak gorde ditut nere gaztedantik, zer palta zat oraindik?

21. Esan zion Jesusek: Nai badezu guziz ona izan, zoaz, saldu itzatzu dituzun guziak, eman zaiozkatzu beartsuai, eta idukiko dezu gordallua zeruan, eta zatoz, jarrai zakizkit.

22. Aditu zuenean bada gazteak itz au, joan zan itun, zeren zan zeduzkana ondasun asko.

23. Jesusek berriz esan zioten bere ikasleai: Egiaz esaten dizutet, aberatsa nekez sartuko dala zeruetako erreinuan.



24. Eta berriz esaten dizutet: Errazago da gamelua jostorrazaren begitik igarotea, aberatsa sartzea baño zeruetako erreinuan.
25. Aditurik ordea oiek, ikasleak miretsi ziraden andizkiro, esaten zutela: Nor da beraz salba ditekiana?
26. Eta begiraturik Jesusek, esan zioten: Gizonentzat au eziña da, Jaungoikoarentzat ordea guzia da eginkorra.
27. Orduan erantzunaz Pedrok esan zion: Ona emen non guk utzi ditugun gauza guziak, eta jarraitu dizugu, zer bada izango degu guk?
28. Eta Jesusek esan zioten: Egiaz esaten dizutet, zuek jarraitu nazutenak, gauzen berriztaeran, esertzen danean gizonaren semea bere aunditasuneko esertokian, eseriko zeratela zuek ere, amabi esertokien gañean, juzgatzen dituzutela Israelko amabi leñuak,
29. Eta utziten dituen guziak etxea, edo anaiak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo semeak, edo lurak nere izenagatik, eun aldiz ainbeste artuko du, eta betiko bizitzearen jabe izango da.
30. Berriz asko lenengo izango dira azkenak; eta azkenak lenengoak.

## OGEIGARREN KAPITULUA

*<e> Mastizaien irudipena Jesusek aurretikan itz egiten diote  
Apostolui bere Pasioaren gañean Zebedeoren semeen galdea Argi-  
tzen ditu bi itsu Jeriko ondoan*

1. Zeruetako erreinua da gizon etxeko jaun baten antzekoa, atera zanarena goizean goiz billatzera langilleak bere mastirako.
2. Eta itzturik langilleekin eguneko denario bat emateko, bialdu zituen bere mastira.
3. Eta irtenik bederatzietako aldean ikusi zituen beste batzuek zeudenak zutik plazan alperrik,
4. Eta esan zioten: Zoazte zuek ere nere mastira, eta zuzen izan leza-keana emango dizutet.
5. Eta berak joan ziran. Berriz atera zan eguerdirontz, eta iruretako ordurontz, eta orobat egin zuen.
6. Eta atera zan arratsaldeko bostetarontz, eta arkitu zituen beste batzuek zutik zeudenak, eta esaten diote: Zer egiten dezute emen egun guzian alperrik?
7. Esaten diote: iñork ez digulako alogerean deitu. Esaten diote: Zoazte zuek ere nere mastira.

8. Etorririk bada arratsa, esaten dio mastiaren jaunak bere kontuar-tzallleari: Dei itzatzu langilleak, eta eman zaiozute alogera, asirik azkene-koetatik lenengoetaraño.
9. Etorri ziranean bada arratsaldeko bostetako inguruan etorri zira-nak, artu zituzten bakoitzak bere denarioa.
10. Eta etorri ziradenean lenbizikoak, uste izan zuten geiago artuko zutela, artu zuten ordea berak ere bakoitzak denario bat.
11. Eta artzen zutela zerasaten etxeko jaunaren kontra,
12. Esaten zutela: Azkeneko oiek ordu batean egin dute, eta berakin berdindu gaituzu gu, eraman degunok egunaren eta beroaren nekea.
13. Eta berak erantzunaz aietatik bati, esan zion: Adiskidea, ez dizut egiten bidegaberik. Ez al ziñan itztuta gelditu nerekin denario batean?
14. Ar zazu zurea dana, eta zoaz, bada nai diot azkeneko oni ere eman zuri bezela.
15. Edo ez zat neri zillegi nai dedana egitea? Zure begia gaiztoa al da, ni ona naizalako?
16. Onela izango dira lenengoak azkenak, eta azkenak lenengoak. Zeren asko dira deituak, gutxi berriz autuak.
17. Eta igoten zala Jesus Jerusalem, artu zituen amabi ikasleak bere-zituan, eta esan zioten:
18. Ona emen non igotzen geran Jerusalem, eta gizonaren semea sal-dua izango zaiote Apaizen buruai, eta Eskribai, eta iltzeko erabagia emango zaiote.
19. Eta emango diote jentillai, izan dedin isekatua, eta azotatua, eta gurutzean josia, eta irugarren egunean biztuko da.
20. Orduan alderatu zan beragana Zebedeoren semeen ama bere semeekin, adoratzan zuela, eta eskatzen ziola zerbait.
21. Berak esan zion: Zer nai dezu? Emakumeak esan zion: Esan zazu eseri ditezela nere seme bi oiek, bata zure eskuian, eta bestea ezkerrean zure erreinuan.
22. Eta erantzunik Jesusek esan zion: Ez dakizute zer eskatzen dezu-ten. Edan bai al ditzatzuteke nik edango dedan edaontzia? Berak esaten diote: Bidezaguke.
23. Esaten diote: Egiaz nere edaontzia edango dezute, esertzea ordea nere eskuian, edo ezkerrean ez dagokit neri ematea zuei, baizik aiei zein-tzuentzat nere Aitak prestatua izan dan.
24. Eta aditzean amarrak, aserretu ziran bi anaiakin.



25. Eta Jesusek deitu zituen beragana, eta esan zioten: Badakizute jentillen agintariak dauzkatela menpean beren erriak, eta aundiagoak diranak eskubidearekin darabiltzatela.

26. Ez da izango onela zuen artean; baizik zuen artean aundiena izatea nai duen edozein, izan bedi zuen morroia.

27. Eta zuen artean nai duena lenengoa izan, izango da zuen serbitzaria.

28. Nola gizonaren semea ez zan etorri serbitua izatera, baizik serbitzera, eta ematera bere anima askoren erospenerako.

29. Eta irteten zutela berak Jerikotik, jarraitu zion jende talde askok.

30. Eta ona emen non bi itsuk, eserita zeudenak bidearen ondoan, aditu zuten Jesus igaroten zala, eta deadar egin zuten, esaten zutela: Jauna, Dabiden semea, errukitu gaitzatu.

31. Jende taldeak berriz errierta egiten zioten, isildu zitezten. Baña berak geiago deadar egiten zuten, esaten zutela: Jauna Dabiden semea, erruki gaitzatu.

32. Eta gelditu zan zutik Jesus, eta deitu zituen, eta esan zioten: Zer nai dezute dagizutedan?

33. Esaten diote: Jauna, idikiak izan diteztela gure begiak.

34. Eta errukiturik Jesus berakin, ukitu ziotzaten beren begiak. Eta bereala ikusi zuten, eta jarraitzen zioten.

## OGEITA BATGARREN KAPITULUA

*<-e->Jesusen sarrera Jerusalemen Elizatik botatzen ditu saltzalleak Zer eskuz egiten dituen bere egite miragarriak Bi semeen, mastizaien, eta etxeburuko arriaren irudipenak*

1. Eta alderatu ziranean Jerulasena, eta etorri Bethfajera Olibeteko mendira, orduan Jesusek bialdu zituen bi ikasle,

2. Esaten ziotela: Zoazte zuen aurrean dagoan erri orretara, eta bereala arkituko dezute asto eme bat lotuta, eta astokumea berarekin, askatu ezazute, eta ekarzkidazute.

3. Eta inork zerbait esango balitzute, esan zaiozute, Jaunak oien premia duela. Eta bereala utziko ditu.

4. Au guzia berriz izandu zan egiña, betetasuna iduki zezan, esana izan zanak Profetaren bitartez, zeñak esaten duen:

5. Esan zaiozute Siongo alabari: Ona emen non zure erregea datorren zuretzat otsana, eserita astoemearen gañean, eta astokumea, uzta-rriaren azpian dagoanaren semea.

6. Joanik bada ikasleak, egin zuten Jesusek agindu zioten bezela.

7. Eta ekarri zituzten asto emea, eta astotxoa, eta ipiñi zituzten beren soñekoak, eta berari gañean eseri erazo zioten.

8. Jende talde askok berriz zabaldu zituzten beren soñekoak bidean: beste batzuk berriz ebakitzen zituzten ostoak zuaitzetatik, eta zabaltzen zituzten bidean:

9. Eta aurretik, eta ostetik zijoazen jende taldeak, deadar egiten zuten, esaten zutela: Hosana Dabiden semeari, bedeinkatua izan bedi datorrena Jaunaren izenean, Hosana goienetan.

10. Eta sartu zanean Jerusalemen, arazotu zan uri guzia, esaten zutela: Zein da au?

11. Erriak berriz esaten zuten: Au da Jesus Nazareth Galileako profeta.

12. Eta sartu zan Jesus Jaungoikuaren Elizan, eta botatzen zituen saltzen eta erosten ziarduten guziak Elizan, eta naasi zituen kanbialarien maieak, eta uso saltzallen esertokiak.

13. Eta esaten diote: Eskribatua da: Nere etxea erreguko etxea izango da deitua: zuek berriz egin dezute lapurren leizea.

14. Eta alderatu ziran beraganaitsuak, eta errenak elizan, eta sendatzen zituen.

15. Ikusirik bada Apaiz buruak, eta Eskribak egin zituen mirariak, eta aurrak deadarrez elizan, eta esaten zutela: Hosana Dabiden semeari, aserretu ziran,

16. Eta esaten zioten: Aditzen bai al dezu oiek zer esaten duten? Eta Jesusek esan zioten: Bai. Beñere ez al dezute irakurri: Aurren, eta bularetakoen aotik atera zenuen alabantza?

17. Eta utzirik aiek, joan zan kanpora uritik Bethaniara, eta an egon zan.

18. Eta goizean itzulirik urira, gose izan zan.

19. Eta ikusirik piko arbola bat bidearen ondoan, etorri zan beragana, eta ez zuen ezer arkitu, baizik ostoak bakarrik, eta esan zion: Arren bada beñere ez al dek iregandik fruturik jaioko gaur gero. Eta legortu zan bereala piko.

20. Eta ikusirik ikasleak, miretsi ziran, esaten zutela: Nola bereala legortu da?



21. Eta erantzunik Jesusek, esan zioten: Egiaz esaten dizutet, baze-nukete sinistea, eta ez baziñateke zalanzen jarriko, ez bakarrik egingo dezute pikoarena, baita ere mendi oni esango baziñiokete: Ken adi ortik, eta bota adi itsasora egiña izango da.

22. Eta eskatzen dezuten edozein gauza erreguan sinistzen dezutela, artuko dezute.

23. Eta etorririk elizara, alderatu ziran beragana irakasten ari zala Apaiz buruak, eta erriko zarrak, esaten zutela: Zer eskubiderekin oiek egi-ten dituzu? Eta nork eman dizu eskubide au?

24. Erantzuten ziotela Jesusek, esan zioten: Galdetuko dizutet nik ere itz bat, zefia esaten badidazute, nik ere esango dizutet, zer eskubiderekin oiek egiten ditudan.

25. Joanen bataioa nondikakoa zan? Zerutikakoa, ala gizonetatika-koa? Eta berak pentzatzen zuten beren artean esaten zutela,

26. Esango bagenuke, zerutikakoa, esango digu: Zergatik bada ez ziñioten sinistu? Esango bagendu ordea, gizonetatikoa, jende taldearen bildur gera; zeren guztiak zeukaten Joan Profeta bezela.

27. Eta erantzun zioten Jesusi, esaten ziotela: Ez dakigu. Esan zioten berak ere: Nik ere ez dizutet esaten zer eskubiderekin oiek egiten ditudan.

28. Zer deritzazute bada? Gizon batek zituen bi seme, eta alderatu-rik lenengoagana, esan zion: Semea, zoaz gaur, egizu lanean nere mastian.

29. Berak erantzunaz, esan zion: Ez det nai. Gero berriz damuturik, joan zan.

30. Eta alderaturik besteagana, esan zion berdin. Eta berak erantzun-az, esan zion: Banoa, Jauna, eta ez zan joan.

31. Bietatik zeñak egin zuen aitaren borondatea? Esaten diote: Lenengoak. Esaten diote Jesusek: Egiaz esaten dizutet, Publikanuak eta emakume galduak joango dirala zuen aurretik Jaungoikoaren erreinura.

32. Zeren etorri zan zuek gana Joan zuzentasuneko bidean, eta ez ziñon sinistu. Publikanuak ordea eta emakume galduak sinistatu zuten. Eta zuek ikusten zendutela ez zenduten damurik ere iduki gero, sinista-tzeko berari.

33. Beste irudi bat aditu ezazute: Bazan gizon etxeko jaun bat, lan-datu zuena mastia, eta esiz ingurutu zuen, eta atxurtuaz egin zuen dola-rea, eta altxatu zuen torre bat, eta urrutira joan zan.

34. Alderatu zanean bada frutuen denbora, bialdu zituan bere serbi-tzariak mastizaiak gana, artu zitzaten bere frutuak.

35. Eta nekazariak arrapatutik bere serbitzariak, bata zauritu zuten, bestea il zuten, besteari berriz arrika egin zioten.

36. Berriz bialdu zituen beste serbitzari batzuek lenengoak baño geiago, eta orobat egin zioten.

37. Azkenik bialdu zioten bere semea, esaten zuela: Lotsa ekarriko diote nere semeari.

38. Baña nekazariak ikusi zutenean semea, esan zuten beren artean: Au da primua, atozte, il dezagun, eta idukiko degu bere primitza.

39. Eta eldurik berari, bota zuten mastitik kanpora, eta il zuten.

40. Datorrenean bada mastiaren jauna, zer egingo diote nekazari aiei?

41. Esaten dute aiek: Gaiztoak gaizki galduko ditu, eta bere mastia emango diote errentan beste nekazari batzuei, pagatuko diotenai frutua bere denboretan.

42. Esaten diote Jesusek: Beñere ez dezute irakurri Eskriturretan: Etxegilleak zokora bota zuten arria, au izan da ipiña etxe buruan? Jaunak egiña da au, eta da arrigarria gure begietan?

43. Argatik esaten dizutet, kendua izango zatzutela Jaungoikoaren erreinua, eta emana izango zaiola, bere frutuak egiten dituan jendeari.

44. Eta erortzen dana arri onen gañera, izango da zatitua, eta berau gañera erortzen zaiona, izango da puskatua.

45. Eta aditurik Apaiz buruak, eta Fariseoak bere irudipenak, ezagu-tu zuten berak gatik itz egiten zuela.

46. Eta nai ziotela eldu berari, jendediaren beldur ziran, zeren profe-ta bezela zeukaten.

## OGETA BIGARREN KAPITULUA

*<-e->Ipintzen diote Jesusek Juduai eztaien irudipena Billatzen dute beragatik gaizki esateko gaia Erakusten diote Sadduzetarrai illen piztuera, eta Fariseoai beraren Jaungoikotasuna*

1. Eta erantzunik Jesusek, berriz itz egin zioten irudipenetan, esaten ziotela:

2. Zeruetako erreinua da, gizon errege baten, bere semeari eztaiak egin ziozkanaren antzekoa.

3. Eta bidaldu zituen bere morroiak otsegitera eztaietara deituak zeu-denak, eta ez zuten nai etorri.

4. Berriz bidaldu ziezten bere morroe batzuek, esaten zietela: Esan zaiozute deituak ziranai, ona emen nere bazkaria prestatua det, nere zeze-



nak, eta abere gizenduak illak dirade, eta guziak daude gertuak, atozte eztaietara.

5. Aiek berriz meziprezatu zuten gaztigua, eta joan ziran bata bere sorora, bestea berriz bere saldu erosietara.

6. Besteak berriz eskuak egotzi ziezten bere serbitzariari, eta iraiñez beteta il zituzten.

7. Eta errege, aditu zuenean, aserretu zan, eta bidaldurik bere martizdiak galdu zituen eralle aiek, eta beren uriari su eman zion.

8. Orduan esan zioten bere morroiari: Eztaiak egiaz prestatuak daude, baña deituak ziradenak ez ziran diña.

9. Zoazte bada bide gurutzetara, eta arkitzen dituzuten guziak deitu itzatzute eztaietara.

10. Eta irtenik bere morroiak bidetara, bildu zituzten arkitu zituzten guziak, gaiztoak eta onak, eta beteak izan ziran eztaiak deitutakoz.

11. Sartu zan bada errege ikusteko maiean eseriak zeudenak, eta ikusi zuen an gizon bat eztaietako jantziarekin jantzi gabe.

12. Eta esan zion: Adiskidea, nola onara sartu zera ez dezula ezta jantzia? Eta bera mututu zan.

13. Orduan esan zioten erregeak bere morroiari: Loturik bere eskuak eta oñak, botatu ezazute kanpoko illunetara, an izango da negarra, eta ortz garraskotsa.

14. Zeren asko dira deituak, gutxi berriz autuak.

15. Orduan joaten zirala Fariseoak, biltzarrea egin zuten, arrapatze-ko bera izketan.

16. Eta bidaltzen dizkiote beren ikasleak Herodestarrakin esaten ziotela: irakaslea, badakigu egiatia zerana, eta Jaungoikoaren bidea egian erakusten dezuna, eta ez dezu zuk iñoren ajolarik, zeren ez dezu begiratzen gizonetan nor nor dan.

17. Esan zaguzu bada, zer deritzazu, zillegi da zentzoa ematea Zesarri, ala ez?

18. Ezagaturik berriz Jesusek beren gaiztakeria, esan zioten: Zergatik tentatzen nazute ongezurrak?

19. Erakutsi zadazute zentzoko dirua. Eta berak aurkeztu zioten denarioa.

20. Eta esan zioten Jesusek: Zeñaena da irudi au, eta gañean eskribatua?

21. Esaten diote: Zesarrena. Orduan esan zioten: Biurtu zaiozute bada Zesarrena dana, Zesarri, eta Jaungoikoarena dana, Jaungoikoari.

22. Eta aditu zutenean, miretsi ziran, eta utzirik bera joan ziran.

23. Egun artan alderatu ziran beragana Sadduzearrak, esaten dute-nak, ez dala piztuera berririk, eta galdetu zioten,

24. Esaten ziotela: Erakuslea, Moisesek esan zuen: Norbait ilko baltza semerik gabe, bere anaia ezkondu dedilla aren emaztearekin, eta eman bezaio ondorioa bere anaiari.

25. Izandu ziran bada gure artean zazpi anaia, eta lenbizikoa ezkon-duta, il zan, eta nola ez zuen aurrik, utzi zion bere emaztea bere anaiari.

26. Berebat bigarrena, eta irugarrena zazpigarreneraño.

27. Guzien ondoren berriz emaztea ere il zan.

28. Piztuera berrian bada, zazprietatik zeñaena izango da emaztea?

29. Eta erantzunik Jesusek esan zioten: Uts egiten dezute, ez dakiz-kizutela Eskriturak, ez Jaungoikoaren ala.

30. Zeren piztuera berrian ez dira ezkonduko, ez ezkonduak izango, baizik izango dira Jaungoikoaren Aingeruak zeruan bezala.

31. Illen piztuera berriaren gañean berriz ez al dezute irakurri Jaun-goikoak esana izan zana, esaten dizutela:

32. Ni naiz Abrahamen Jaungoikoa, eta isaazen Jaungoikoa, eta Jakoberen Jaungoikoa? Ez da illen Jaungoikoa, baizik biziena.

33. Eta aditzen zutela jende taldeak, miresten ziran bere erakutsian.

34. Fariseoak berriz aditu zutenean, ixildu arazi ziotela Sadduzetarri, bildu ziran batean.

35. Eta galdetu zion beretako batek legearen erakusleak, tentatzen zuela:

36. Erakuslea, zeña da agindu aundia legean?

37. Esan zion Jesusek: Maitatuko dezu zure Jaun Jaungoikoa zure biotz guzitik, eta zure anima guzitik, eta zure gogo guzitik.

38. Au da agindu aundiena, eta lenbizikoa.

39. Eta bigarrena onen antzekoa: Maitatuko dezu zure lagun urkoa, zu zerori bezala.

40. Agindu bi oiei Lege guzia ditzeka, eta Profetak.

41. Eta zeudela bildurik Fariseoak galdetu zioten Jesusek,

42. Ziotela: Zer deritzatzute Kristo gatik? Zeñaen semea da? Esaten diote: Dabidena.

43. Esaten diote Jesusek: Nola bada Dabidek espirituan deitzen dio Jauna, esaten diola:

44. Esan zion Jaunak nere Jaunari, eseri zaite nere eskuetatik, ipiñi ditzadan bitartean zure etsaiak zure oñen alkitzat?

45. Baldin Dabidek deitzen badio Jauna, nola bere semea da?





46. Eta iñork ezin zion erantzun itzik, eta ez zan ere iñor benturatu egun artatik, geiago berari galdetzeraz.

## OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

*<-e->Moisesen erakustokiaren gañean eseriak daudenai, nola aditu bear zaioten Jesusek errierta egiten diote Eskribai, eta Fariseoi Nola izango dan arrasatua Jerusalem*

1. Orduan itz egin zioten Jesusek jende taldeai, eta bere ikasleai,
2. Ziotela: Moisesen erakustokiaren gañean eseri ziran Eskribak, eta Fariseoak.
3. Esaten dizkizuten gauza guztiak, eta edozertzuk bada, gorde eta egin itzatzute, ez itzatzute ordea egin beren egiten araura, zeren esaten dute, eta ez dute egiten.
4. Zeren lotutzen dituzte zama pisuak, eta eraman eziñak gizonen sorbaldetan, beren beatzarekin ordea ez diote nai zirkiñik erazi.
5. Beren egite guziak bada egiten dituzte, gizonak ikusiak izan ditezten, Zabaltzen dituzte ezen beren larru ualak, eta aundizkitzen dituzte ertzak.
6. Eta maite dituzte lenbiziko etzintokiak apartetan, eta lenbiziko esertokiak Sinagoetan,
7. Eta diosalak plazan, eta gizonak deituak izatea Erakusleak.
8. Zuek ordea ez ezazute nai izan deituak Erakusleak, zeren bat da zuen Erakuslea, zuek guziok berriz anaiak zerate.
9. Eta ez zaiozute iñori aita deitu lurraren gañean, zeren bat da zuen Aita zeruetan dagoana.
10. Ez zaiezute ere elkarri deitu Erakusleak, zeren bat da zuen Erakuslea, Txristo.
11. Zuen artean aundiena dana, izango da zuen morroia.
12. Zeren goratzen dana, izango da beeratua, eta beeratzen dana, izango da goratua.
13. Ai berriz zuen zorigaiztokoak Eskriba, eta Fariseo ongezurrak. Itxitzen dezutenak zeruetako erreñua gizonen aurrean. Zeren zuek ez zerate sartzen, eta sartzen ari diradenai ere ez diozute sartzen utziten!
14. Ai zuen zorigaiztokoak Eskriba eta Fariseo ongezurrak, jaten dituzutenak alargunen etxeak, otoiz luzeak egiñik, argatik artuko zazute kontu zorrotzagoa!

15. Ai zuen zorigaiztokoak Eskriba, eta Fariseo ongezurrak, zeren ingurutzen dezute itsasoa, eta lurra egiteko Judu berri bat, eta egiña danean, egiten dezute infernuko seme, zuek baño bi aldiz geiago!

16. Ai zuen zorigaiztokoak, gialari itsuak, esaten dezutenak: Edozeñek juramentu egiten badu Eliza gatik, utsa da, egiten duenak ordea Elizako urrea gatik, zor du!

17. Eroak, eta itsuak! Zer da ezen aundiagoa, urrea, ala eliza, santutuzten duena, urrea?

18. Eta edozeñek juramentu egingo balu aldarea gatik, utsa da, edozeñek ordea juramentu egingo balu, bere gañean dagoan eskeñia gatik, zor du.

19. Itsuak! Zer da ezen aundiagoa, eskeñia, ala aldarea, santutuzten duena, eskeñia?

20. Juramentu egiten duenak bada aldarea gatik, juramentu egiten du bera gatik, eta bere gañean dauden gauza guziak gatik.

21. Eta juramentu egiten duen edozeñek eliza gatik, juramentu egiten du beragatik, eta bertan bizitu dana gatik.

22. Eta juramentu egiten duenak zerua gatik, juramentu egiten du Jaungoikoaren esertoki goia gatik, eta aren gañean eserita dagoana gatik.

23. Ai zuen zorigaiztokoak Eskriba, eta Fariseo ongezurrak! Amarrantzen dezutenak menda, eta ezamillua, eta kumiñoa, eta utzi zenduzten legearen pisuenak diranak, zuzentasuna, eta errukia, eta sinistea. Oiek egin bear ziran, eta besteak ez utzi.

24. Zuzentzalle itsuak, iragazten dezutenak eltxoa, gamelua berriz iresten dezutenak.

25. Ai zuen zorigaiztokoak Eskriba, eta Fariseo ongezurrak, garbitzen dezutenak edanontziaren, eta plateraren kanpoko aldea, barrendik ordea zaudete lapurreriaz, eta loikeriaz beteak!

26. Fariseo itsua, garbitu ezak edanontziaren eta plateraren barrenan zeagoana, garbia egiña izan zeadin, kanpoko aldetik zeagoana.

27. Ai zuen zorigaiztokoak Eskriba, eta Fariseo ongezurrak, zeren zerate illen obia zurituen, gizonai kanpotik ederrak dirudiztenen antzekoak, barrendik ordea daude illen ezurrez, eta zikinkeri guziaz beteak!

28. Onela zuek ere kanpo aldetik egiaz dirudizute gizonai zuzenak; barrenan berriz zaudete ongezurrez, eta gaiztakeriaz beteak.

29. Ai zuen zorigaiztokoak Eskriba eta Fariseo ongezurrak, egiten dituzutenak profeten ill obiak, eta apaintzen dituzutenak justuen illobia ederrak,



30. Eta esaten dezute: izandu bagiña gure gurasoen egunetan, ez giñan izango beren lagunak profeten odolean.

31. Ala bada lekuko zerate zuek zuei, zeratela, profetak il zituztenen beren semeak.

32. Eta zuek bete ezazute zuen gurasoen neurria.

33. Sugeak ziraun arrazak, nola igestuko zerate infernuko epaitik?

34. Argatik ona non nik bidaltzen ditudan zuetara profetak, eta jakintsuak, eta erakusleak, eta beretatik ilko dituzute, eta gurutzean josiko dituzute, eta beretatik azotatuko dituzute zuen sinagogetan, eta persegitutiko dituzute uritik urira:

35. Etorri dedin zuen gañera odol oben gabeko guzia, isuria izan zana lurraren gañean, Abel oben gabearen odoletik, Zakariassen, Barakiasen semearen, elizaren eta aldarearen bitartean il zendutenaren odoleraño.

36. Egiaz esaten dizutet, etorriko dirade oiek guziak gizaldi onen gañera.

37. Jerusalem Jerusalem ilten dituzuna profetak, eta arrika egiten die-  
tezuna, zure gana bidalduak diranai, zenbat aldiz nai nituen bildu zure  
semeak, olloak biltzen dituen bezala txitoak egoen azpian, eta ez zenuen  
nai izan?

38. Ona emen non utzia izango zaizute zuen etxea mortua.

39. Zeren esaten dizutet, ez nazute ikusiko oraindik, esan deza-  
zuten bitartean: Bedekatua datorrena Jaunaren izenean.

## OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

*<-e->Adierazotzen du Jaunak Jerusalengo eliza arrasatua izango  
dala Agertzen diezte ikasleai laburgoan, munduan gertatuko diran  
jazoerak Ebanjelioa predikatzen dan denboratik, munduaren  
bukaeraraño Erakusten du zer egin bear duten kristau egiazkoak,  
kristau gezurrezkoak engañatu ez ditzaten Esaten diote ere beti  
esnai egon bear dutela, ustekabeen arrapatu ez ditzaten Jaunaren  
bigarren etorrerak*

1. Eta irtenik Jesus elizatik, zijoan. Eta alderatu zitzaizkon bere ikas-  
leak, erakusteko berari elizako murru eder eta aundiak.

2. Berak berriz erantzunaz, esan zioten: ikusten dituzute oiek guziak?  
Egiaz esaten dizutet, ez da izango utzia emen arririk arriaren gañean arra-  
satua izan gabe.

3. Zegoala berriz bera eseririk Olibeteko mendiaren gañean, alderatu  
ziran beragana ikasleak ixillean, esaten ziotela: Esan zaguzu, noiz izango  
dira oiek? Eta zer siñale zure etorrerarena, eta gizaldiaren bukaerarena?

4. Eta erantzunaz Jesusek esan zioten: Begiratu ezazute iñork ez zai-  
ztatela engañatu.

5. Zeren asko etorriko dira nere izenean, esaten dutela: Ni naiz  
Txristo, eta engañatuko dituzte asko.

6. Zeren adituko dituzute gerrak, eta gerren ospeak. Begira ez zai-  
teztela kezkatu. Zeren oiek egiñak izan bear dute, baña ez da oraindikan  
atzena.

7. Jaikiko da ezen jendea jendearen kontra, eta erreñua erreñuaren  
kontra, eta izango dirade izurriteak, eta goseteak, eta lurrikarak asko lekutan.

8. Oiek guziak berriz oñazen asierak dira.

9. Orduan emango zaituzte atsekabetuak izateko, eta ilko zaituzte,  
eta izango zerate jende guziak gorrotatuak nere izena gatik.

10. Eta orduan gaizbidea artuko dute askok, eta elkar salduko dute,  
eta gorrotatuko dute elkar.

11. Eta asko gezurrezko profeta jaikiko dira, eta engañatuko dituzte  
asko.

12. Eta nola ugarituko dan gaiztakeria, oztuko da askoren karidadea.

13. Dirauena ordea atzeneraño, au izango da salbatua.

14. Eta izango da predikatua erreñuko ebanjelio au mundu guzian,  
agiritzat jende guzientzat, eta orduan etorriko da atzena.

15. Ikusten dezutenean bada, toki santuan dagoala galdumeneko  
naska, esana izan zana Daniel profetaren bitartez; irakurtzen duenak, adi  
beza.

16. Orduan Judean daudenak, iges egin bezate mendietara.

17. Eta tellatuan dagoana, ez bedi jatxi artzera zerbait bere etxetikan.

18. Eta landan dagoana, ez bedi biurtu artzera bere tunika.

19. Aurdun daudenen, eta aurrak azitzen dituztenen zorigaiztokoak  
egun aietan!

20. Erregutu ezazute bada, zuen igestea ez dedin egin neguan, edo  
larunbatean.

21. Izango da ezen orduan atsekabe aundia, nolakoa izan ez zan  
munduaren asieratik onaraño, eta ez da izango ere.

22. Eta laburtuak izango ez balirade egun aiek, ez litzateke salbatua  
izango aragirik batere, baña autuak gatik izango dirade laburtuak egun  
aiek.



23. Orduan iñork esango balizute: Begira, Kristoa dago emen, edo an, ez zaiozute sinistu.
24. Jaikiko dirade ezen Kristo gezurrezkoak, eta profeta gezurrezkoak, eta emango dituzte siñale aundiak, eta mirariak, alako moduan non (al balitza) gezurra sinistu eraziko liozkake, autuai ere.
25. Ona non lenagotik esan dizutet.
26. Esango balizuteke: ona emen eremuan dago, ez zaitezte irten, ona non dagoan etxeko tokirik ezkutuenean, ez zaizkiezute sinistu.
27. Zeren nola tximista ateratzen dan Sortaldetik, eta agiri dan Sartalderañotik, ala izango da gizonaren semearen etorrera ere.
28. Nonnai dagoala gorputza, an bilduko dira arranoak ere.
29. Eta egun aien atsekabearen ondoan bereala, eguzkia illunduko da, eta illargiak ez du emango bere argia, eta izarrak eroriko dira zerutik, eta zeruko birtuteak izango dira mugituak.
30. Eta orduan agertuko da gizonaren semearen siñalea zeruan, eta orduan negarrez egongo dira, eta otska ariko dirade lurreko leñu guziak; eta ikusiko dute gizonaren semea datorrela, zeruko odoietan al aundiarekin, eta itzalarekin.
31. Eta bidalduko ditu bere Aingeruak tronpetarekin, eta boz aundiarekin, eta bilduko dituzte bere autatuak lau aizetatik, zeruen gorenetatik beren mugetaraño.
32. Piko zuaitzetikan bada ikasi ezazute iduripena; bere adarra beraa danean, eta ostoaak jaoak, badakizute aldean dala uda.
33. Ala zuek ere, ikusten dituzutenean oiek guziok, jakin ezazute aldean dala atetan.
34. Egiaz esaten dizutet, ez dala iragoko gizaldi au, oiek guziak egiñak izan ditezten bitartean.
35. Zerua, eta lurra iragoko dira, nere itzak ordea ez dira iragoko.
36. Egun huraren gañean berriz, eta orduaren gañean iñork ez daki, ez da zeruetako Aingeruak ere, baizikan Aitak bakarrik.
37. Nola bada Noeren egunetan, ala izango da gizonaren semearen etorrera ere.
38. Nola ezen zeuden ugoldea baño lenagoko egunetan jaten zutela, eta edaten zutela, ezkontzen zirala, eta ezkontzarako emanak zirala, Noe arkan sartu zan egun artaraño,
39. Eta ez zuten ezagutu ugoldea etorri zan arteraño, eta eraman zituen guziak: ala izango da gizonaren semearen etorrera ere.
40. Orduan bi egongo dirade landan, bata izango da artua, eta beste izango da utzia.

41. Bi emakume ariko dira eotzen errotan, bata izango da artua, eta bestea izango da utzia.
42. Zaudete bada esnai, zeren ez dakizute zer ordutan zuen Jauna etorriko dan.
43. Au bada jakin ezazute, baldin etxeko jaunak baleki zer ordutan lapurra etorriko dan, esnai egongo liteke noski, eta ez luke utziko zulatua izaten bere etxea.
44. Argatik zuek ere zaudete gertuak, zeren ez dakizuten orduan, gizonaren semea etorriko da.
45. Zein uste dezu dala morroe leial, eta zurra, bere jaunak ipiñi zuena bere familiaren gañean, eman diozaten jaten denboran?
46. Doatsua morroe hura, zeña datorrenean bere jauna, arkitzen duen ala egiten duela.
47. Egiaz esaten dizutet, bere ondasun guzien gañean ipiñiko du.
48. Esango balu ordea morroe gaizto ark bere biotzean: Berantzen zaio nere jaunari etortea;
49. Eta asiko balitza jotzen bere morroe lagunak, eta jaten, eta edaten ordiak.
50. Etorriko da morroe huraren jauna itxedoten ez dion egunean, eta ez dakian orduan.
51. Eta kenduko du, eta bere partiltasuna ipiñiko du ongezurrakin. An izango da negarra, eta ortz garraskotsa.

## OGEITA BOSTGARREN KAPITULUA

*<-e>Sendatzen du Jaunak irago dan kapituluan esan dana, birjiña eroen, eta zurren iduripenarekin Ipintzen du beste bat oraindikan geiago indartzeko Bere etorrera, kontuak artzera: orduko gertaerak*

1. Orduan izango da zeruetako erreñua amar birjiñen antzekoa, zeñak artzen zituztela beren argiontziak, irten ziran ezkonberriai bidera.
2. Beretako bost bada ziran eroak, eta bost zurrak.
3. Baña bost eroak artzen zituztela argiontziak, ez zuten artu olio berekin.
4. Zurrak berriz artu zuten olio berekin pitxarretan argiontziakin.
5. Berandaturik bada ezkonberriaren etorrera, lo kuluskatu ziran guziak, eta loak artu zituzten.



6. Gau erdian berriz, deadarra aditu zan: Ona emen ezkonberria dator, irten zaikizkiote bidera.
7. Orduan jaiki ziran birjiña guzi aiek, eta apaindu zituzten beren argiontziak.
8. Eroak berriz zurrari esan zioten: iguzute zuen oliotikan, zeren gure argiontziak itzaltzen dirade.
9. Erantzun zuten zurrak esaten zutela: Ustekabean asko izan ez dedin guretzat, eta zuentzat, zoazte saltzalletara, eta erosi ezazute zuentzat.
10. Erostera zijoazen bitartean berriz, etorri zan Ezkonberria, eta gerturik zeudenak sartu ziran berarekin eztaietara, eta itxia izan zan atea.
11. Atzenean berriz badatoz beste birjiñak ere, esaten dutela: Jauna, Jauna, idiki zaguzu.
12. Eta berak erantzunaz, esan zuen: Egiaz esaten dizutet, ez zaituztet ezagutzen.
13. Zaudete bada esnai, zeren ez dakizute eguna, ez ordua.
14. Zeren nola gizon urrutirako irtetzen danak, deitu zituen bere morroiak, eta eman zizkieten bere ondasunak:
15. Eta bati eman zizkion bost talentu, besteari berriz bi, besteari ordea bat, bakoitzari bere indarraren araura, eta irten zan bereala.
16. Joan zan bada bost talentu artu zituena, eta asi zan saldu erosian berakin, eta irabazi zituen beste bost.
17. Orobat bi artu zituenak ere, irabazi zituen beste bi.
18. Bat artu zuenak berriz, joanik aitzurtu zuen lurrean, eta gorde zuen bere jaunaren dirua.
19. Denbora askoren buruan berriz, etorri zan morroe aien jauna, eta egin zituen kontuak berakin.
20. Eta alderaturik bost talentu artu zituena, eskeñi zizkion beste bost talentu, esaten ziola: Jauna, bost talentu eman ziñizkidan, ona emen beste bost aiez gañera irabazi ditut.
21. Esan zion bere Jaunak: Ederki morroe ona eta leiala, gutxian leiala izan zeralako, askoren gañean ipiñiko zaitut, sartu zaitte zure jaunaren pozean.
22. Alderatu zan bada bi talentu artu zituena ere, eta esan zion: Jauna, bi talentu eman ziñizkidan, ona emen beste bi irabazi ditut.
23. Esan zion bere Jaunak: Ederki morroe on, eta leiala, gutxian izan zeralako leiala, askoren gañean ipiñiko zaitut, sartu zaitte zure Jaunaren pozean.

24. Alderutzen zala bada talentu bat artu zuena ere, esan zion: Jauna, nik dakit gizon zorrotza zerala, itaitzen dezu, ereiñ ez zenduan lekuan, eta biltzen dezu barreatu ez dezun lekuan.

25. Eta beldur izanik joan nintzan, eta ezkutatu nuen zure talentua lurrean, ona emen non dezun zurea dana.

26. Eta erantzunaz bere Jaunak, esan zion: Morroe gaiztoa, eta alpe-rra, baekien ik itaitzen dedala ereintzen ez dedan lekuan, eta biltzen dedala, barreatu ez dedan lekuan:

27. Bear uen bada eman ere dirua irabazian, eta ni etorten niñoanean artuko nikan egiaz nerea dana obariarekin.

28. Kendu zaiozute bada talentua, eta eman zaiozute amar talentu dituenari.

29. Zeren duen guziari emango zaio, eta izango du ugariago, ez duenari ordea, duela uste duena ere, izango zaio kendua.

30. Eta morroe gauza eza, bota ezazute kanpoko illunetara, an izango da negarra, eta ortzen garraskotsa.

31. Datorrenean bada gizonaren semea bere aunditasunean, eta Aingeru guziak berarekin, orduan eseriko da bere aunditasuneko alkian.

32. Eta bilduak izango dira bere aurrean jende guziak, eta banakatu-ko ditu elkargandikan, artzaiak banakatzen dituen bezela ardiak antxumeak gandik.

33. Eta ipiñiko ditu ardiak egiaz bere eskuietatik, antxumeak ordea ezkerretatik.

34. Orduan esango diote erregek bere eskuietatik egongo diranai: Atozte, nere Aitaren bedeikatuok, artu ezazute munduaren asieratik zuentzat prestatuta dagoan zeruko erreñua.

35. Zeren gose nintzan, eta eman ziñidaten jaten; egarri nintzan, eta eman ziñidaten edaten; arrotza nintzan, eta etxean artu ninduzuten.

36. Billoso nengoan, eta estali ninduzuten; gaxo nentzan, eta ikusi ninduzuten; itxian nengoan, eta ikustera etorri zintzazkidaten.

37. Orduan erantzungo diote onak, esaten diotela: Jauna, noiz ikusi zindugun gosetua, eta eman giñizun jaten; egarritua, eta eman giñizun edaria?

38. Eta noiz ikusi zindugun arrotza, eta etxean artu zindugun; edo billosa, eta estali zindugun?

39. Edo noiz ikusi zindugun gaixoa, edo itxian, eta etorri giñan zuregana?

40. Eta erantzunaz erregek, esango diote: Egiaz esaten dizutet, nere anaia txikien oietako bati egin ziñiotena, neri egin ziñidaten.



41. Orduan esango diote ezkerretatik egongo diranai: Zoazte nigan-dik madarikatuak betiko sutara, prestatuta dagoanera deabruarentzat, eta bere Aingeruentzat.

42. Zeren gose nitzan, eta ez ziñidaten eman jaten; egarri nintzan, eta ez ziñidaten eman edaten;

43. Arrotza nintzan, eta ez ninduzuten etxean artu; billosa nengoan, eta ez ninduzuten estali; eri, eta itxian, eta ez ninduzuten ikusi.

44. Orduan erantzungo diote berak ere, esaten dutela: Jauna, noiz ikusi zindugun gosetua, edo egarritua, edo arrotza, edo billosa, edo eri, edo itxian, eta ez giñizun lagundu?

45. Orduan erantzungo diote, esaten diotela: Egiaz esaten dizutet: Txikitxo oietatikan bati egin ez ziñiotenean, neri ere ez ziñidaten egin.

46. Eta joango dirade oiek betiko oñazera; onak berriz betiko bizi-tzara.

## OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

<-e-> *Jesusen Pasioaren asiera*

1. Eta gertatu zan, akabaturik Jesusek itzaldi guzi oiek, esan zioten bere ikasleai:

2. Badakizute bi egunen buruan Paskoa egingo dala, eta gizonaren semea saldua izango da gurutzean josia izateko.

3. Orduan bildu ziran apaiz buruak, eta erriko zarrak Apaiz Nagusiaren, Kaifas zeritzanaren atarian:

4. Eta biltzarrea egin zuten Jesus marroz arrapatzeko, eta iltzeko.

5. Esaten zuten ordea: Ez jai egunean, matxiñadaren bat errian atera ez dedin.

6. Zegoala berriz Jesus Betanian Simon legenartiaren etxean,

7. Alderatu zan beragana emakume bat zuela alabastrozko ontzi bat ukendu baliotzoz betea, eta isuri zuen bere buruaren gañera, etziñik zegoanarenera.

8. Ikusirik ordea ikasleak, aserretu ziran, esaten zutela: Zertarako gal-tzapen au?

9. Zeren saldua izan zitekean au garesti, eta emana eskaleai.

10. Jakiñik ordea Jesusek, esan zioten: Zergatik atsekabea ematen diozute emakume oni? Egite ona ezen egin du neregan.

11. Zeren beti dituzute eskaleak zuekin, ni ordea beti ez nazute.

12. Isuririk ezen onek ukendu au nere gorputzean, ni obiratzeko egin du.

13. Egiaz esaten dizutet, nonnai predikatua izan dedilla ebanjelio au mundu guzian, esango da ere onek egin duena bere oroipenean.

14. Orduan joan zan amabietako bat, Judas Iskariote zeritzana apai-zen buruetara:

15. Eta esan zioten: Zer nai didazute eman, eta nik salduko dizutet? Eta berak eskeñi ziozkaten ogeita amar diru zillarrezko.

16. Eta geroztik billatzen zuen mugona bera eskuratzeko.

17. Legami gabeko ogien lenbiziko egunean berriz, alderatu ziran ikasleak Jesusen gana, esaten ziotela: Non nai dezu gertutu dezazugun jateko Paskoa?

18. Eta Jesusek esan zioten: Zoazte urian urliaren gana, eta esan zaio-zute: Erakusleak dio: Nere denbora aldean dago, zure etxean egiten det Paskoa nere ikasleakin.

19. Eta egin zuten ikasleak Jesusek agindu zioten bezela, eta prestatu zuten Paskoa.

20. Etorririk bada arratsea, zegoan eserita maiean bere amabi ikas-leakin.

21. Eta berak jaten ari ziradela, esan zioten: Egiaz esaten dizutet, zue-tako batek salduko nauela.

22. Eta txit atsekabeturik, asi ziran bakoitza esaten: Ni ote naiz Jauna?

23. Eta berak erantzunaz esan zuen: Sartzen duenak nerekin eskua plateran, onek salduko nau.

24. Gizonaren semea badijoa egiaz, beragatik eskribatua dan bezela, baña doakabea gizon urarena, zeñak saldua izango dan gizonaren Semea; obe izango zaion, jai ez balitza gizon hura.

25. Eta erantzunaz Judasek, zeñak saldu zuen, esan zion: Ni ote naiz Erakuslea? Esan zion Jesusek: Zuk esan dezu.

26. Apaltzen ari zirala bada berak, artu zuen Jesusek ogia, eta bedei-katu zuen, eta ebaki zuen, eta eman zien bere ikasleai, esanaz: Artu, eta jan ezazute, au da nere gorputza.

27. Eta arturik edanontzia, eskerrak eman zituen, eta eman zioten, esanaz: Edan ezazute emendikan guziok.

28. Au da ezen testamentu berriko nere odola, askogatik isuria izan-go dana, bekatuen barkaziorako.

29. Esaten dizutet berriz, ez det edango oraindandik onetatik egun artaraño, edango dedaneraño zuekin berria nere Aitaren erreñuan.



30. Eta eskerrak emanik, irten ziran Olibeteko mendira.
31. Orduan esaten diote Jesusek: Zuek guziok okerrerako bidea artuko dezute nigan, arratse onetan. Eskribatua da ezen: Joko det arzaia, eta sakabanatuko dira artaldeko ardiak.
32. Piztutzen naizen ondoan ordea, zuek baño lenago joango naiz Galileara.
33. Erantzunaz berriz Pedrok, esan zion: Guziak gaitzerako bidea artuko balute ere zugean, nik inoiz ez det gaitzbiderik artuko.
34. Esan zion Jesusek: Egiaz esaten dizut, arrats onetan ollarrak jo baño lenago, iru aldiz ukatuko nazula.
35. Esan zion Pedrok: Zurekin il bear banu ere, ez zaitut ukatuko. Orobat beste ikasleak ere esan zuten.
36. Orduan etorri zan Jesus berakin, Jethsemani deritzan baratzara, eta esan zioten bere ikasleai: Eseri zaitzete emen ara joan, eta erregutu dezadan bitartean.
37. Eta arturik Pedro, eta Zebedeoren bi semeak, asi zan goibeltzen, eta antsiatua egoten.
38. Orduan esan zioten: Goibel da nere anima il arteraño; zaudete emen, eta esnai egon zaitzete nerekin.
39. Eta joanik aurrerasheago piska bat, auzpeztu zan bere arpegiaren gañean, otoiz egiten, eta esaten zuela: Ene Aita, al baldin bada, irago bedi nigandik kaliza au. Alaere, ez nik nai dedan bezela, baizik zuk bezela.
40. Eta etorri zan bere ikasleakgana, eta arkitu zituen lo zetzazala, eta esaten dio Pedrori: Onela ezin izan zerate ordu batean esnai egon nerekin?
41. Zaudete esnai, eta erregutu ezazute sartu ez zaitzeten tentazioan. Espiritua egiaz prest dago, baño aragia argala.
42. Berriz bigarren aldiz joan zan, eta erregutu zuen, esanaz: Ene Aita, ezin baditeke irago kaliza au, nik edan gabe, egin bedi zure borondatea.
43. Eta etorri zan berriz, eta arkitu zituen lo zatzazala. Zeren zeuden beren begiak pisuak.
44. Eta utzirik aiek, berriz joan zan, eta erregutu zuen irugarrenez, itz aiek berak esanaz.
45. Orduan etorri zan bere ikasleak gana, eta esaten diote: Lo egin zazute onezkero, eta atsedean zazute; ona emen alderatu da ordua, eta gizonaren semea ipiña izango da bekatarien eskuetan.
46. Ots jaiki zaitzete, goazen. Ona emen alderatu da etsaien eskuetan ipiñiko nauena.

47. Oraindik bera izketan ari zala, ona emen Judas amabietako bat etorri zan, eta berarekin jende talde asko ezpatakin, eta makillakin, apai-zen buruak, eta erriko zarrak bidalduak.
48. Saldu zuenak berriz, eman zioten siñalea, esanaz: Musu ematen diodan edozein, hura da, eldu zaiozute.
49. Eta bereala alderaturik Jesusengana esan zion: Agur Erakuslea. Eta musu eman zion.
50. Eta esan zion Jesusek: Adiskidea, zertara etorri zera? Orduan alderatu ziran, eta eskuak ezarri ziozkaten Jesusi, eta eldu zioten.
51. Eta ona non Jesusekin zeudenetako batek luzeturik eskua, atera zuen bere ezpata, eta zauriturik Apaiz Nagusiaren morroia, ebaki zion bere belarria.
52. Orduan esan zion Jesusek: Biur zazu zure ezpata bere tokira, zeren ezpata artzen duten guziak, ezpataz galduko dirade.
53. Uste al dezu ezin dizaiokedala erregutu Aitari, eta emango dizkidala oraintxe Aingeruzko amabi samalda baño geiago?
54. Nola bada beteak izango dirade Eskriturak: Onela egiñak izan bear dutela?
55. Ordu artan esan zioten Jesusek jende taldeai: Lapur baten gana bezala atera zerate ezpatakin, eta makillakin ni arrapatzera; egunoro nengoan eserita zuen artean erakusten elizan, eta ez ziñidaten eskurik ezarri.
56. Au guzia bada izan zan egiña, beteak izan zitezten Profeten Eskriturak. Orduan ikasle guziak, utzirik bera, iges egin zuten.
57. Eta berak zeukatela Jesus, eraman zuten Kaifas Apez nagusiaren gana, non Eskribak, eta zarrak bildu izan ziran.
58. Pedrok berriz jarraitzen zion Apaiz nagusiaren atariraño. Eta sarturik barrena, zegoan eserita morroiakin, ikusteko atzena.
59. Apaiz Nagusiak berriz, eta biltzarre guziak billatzen zuten leku-kotasun gezurrezkoa Jesusen kontra, emateko bera eriotzarako.
60. Eta ez zuten arkitu, alderatu arren lekuko gezurrezko asko. Atzenean ordea etorri ziran bi lekuko gezurrezko,
61. Eta esan zuten: Onek esan zuen: Arrasatu dezaket Jainkoaren eliza, eta iru egunen buruan berriz egin.
62. Eta jaikirik Apaiz Nagusia, esan zion: Ez dezu ezer erantzuten oiek zure kontra esaten dituzten gauzetara?
63. Jesus ordea ixillik zegoan. Eta Apaizen Nagusiak esan zion: Otoiz menatzen zaitut Jainko biziaren izenean, esan zaguzula, zu zeran Kristo Jaungoiko biziaren semea.





64. Esaten dio Jesusek: Zuk esan dezu. Baita ere esaten dizutet, emendik gutxi batera ikusiko dezute gizonaren semea eseria Jaungoiko indartsuaren eskuetatik, eta datorrela zeruko odoietan.

65. Orduan Apaizen Nagusiak arraskatu zituen bere soñekoak, esaten zuela: Añenekoak bota du. Onezkero lekukoen zer premia degu? Ona emen non orain aditu dezuten añenekoak.

66. Zer deritzazute? Eta berak erantzuten zutela, esan zuten: Eriotzaren obendun da.

67. Orduan txistua bota zioten bere arpegira, eta ukabillakin jo zuten, besteak berriz masallekoak bere arpegian eman ziozkaten,

68. Esaten zutela: Asma zaguk, Kristo, nor dek jo aukana?

69. Pedro berriz zegoan eserita kanpoan atarian, eta alderatu zan beragana neskame bat, esaten ziola: Zu ere Jesus Galileakoarekin ziñan.

70. Baña berak ukatu zuen guzien aurrean, esanaz: Ez dakit zer esaten denan.

71. Irtenik ordea hura atera, ikusi zuen beste neskame batek, eta esaten zioten an zeudenai: Au ere zegoan Jesus Nazarethkoarekin.

72. Eta berriz ukatu zuen ziñarekin: Ez dedala ezagutzen alako gizonik.

73. Eta denbora labur baten buruan, alderatu ziran an zutik zeude-nak, eta esan zioten Pedrori: Egiaz zu ere aietakoa zera, zeren zure izketak ere agertzen zaitu.

74. Orduan asi zan biraoka eta zinka, ez zuela ezagututzen alako gizonik. Eta bereala ollarrak jo zuen.

75. Eta oroitu zan Pedro Jesusen itzarekin, esan zionarekin: Ollarrak jo baño lenago, iru bidar ukatuko nazu. Eta irtenik kanpora, negar egin zuen saminkiro.

## OGETA ZAZPIGARREN KAPITULUA

*<-e>Jesusen Pasioaren atzena Bere obiratzea*

1. Eta etorririk goiza, batzarrea egin zuten Apaizen Nagusi guziak, eta erriko zarrak Jesusen kontra, bera eriotzara emateko.

2. Eta loturik eraman zuten, eta eman zioten Ponzio Pilato Judeako Agintariari.

3. Orduan ikusirik Judasek, saldu zuenak, izan zala kondenatua biur-tu ziezten ogeita amar diruak Apaizen Buruai, eta zarrai,

4. Esanaz: Bekatu egin det, salduaz odol oben gabea. Eta berak esan zioten: Zer guri? Erorrek ikusi ezak.

5. Eta botarik zillar diruak elizan, alde egin zuen, eta joanik urkatu zan.

6. Apaizen Nagusiak ordea arturik zillarrezko diruak, esan zuten: Ez da zillegi botatzea berak elizdiru tokira, zeren odolaren saria da.

7. Eta elkar aditurik, erosi zuten berakin eltzegille baten soroa, lur-petzeko arrotzak.

8. Argatik deitu zitzaion soro hurari, Hazeldama, au da, odol soroa, gaurko eguneraño.

9. Orduan betea izandu zan esana izandu zana Jeremias Profetaren bitartez, zeñak esaten duen: Eta artu zituzten ogeita amar diru zillarrezko, saldua izan zanaren saria, zeña izan zan Israelko semeak eskeñia.

10. Eta eman zituzten eltzegillearen soroa gatik, Jaunak agindu zidan bezala.

11. Jesus bada izan zan eramana Judeako Agintariaren aurrera, eta galdetu zion Agintariak, esanaz: Zu zera Juduen erregea? Esaten dio Jesusek: Zuk diozu.

12. Eta izanik Apaizen Buruak, eta zarrak salatua, ez zuen ezer erantzun.

13. Orduan esaten dio Pilatok: Ez dezu aditzen zenbat lekukotasun esaten dituzten zure kontra?

14. Eta ez zion erantzun itz batera ere, alako modutan non, andizki arritu zan Eraentzallea.

15. Egun andian bada, oituta zegoan Judeako Agintaria, erriari askatuta ematera, berak nai zuten, lotuta zegoan bat.

16. Zeukan bada orduan lotuta ospetsu bat, Barrabas zeritzana.

17. Bildurik bada aiek, esan zioten Pilatok: Zeiñ nai dezute askatu dizazutedan? Barrabas, ala Jesus, deritzana Kristo?

18. Bazekien ezen, bekaikoz, eraman ziotela.

19. Zegoala bada epai esertokian, bidaldu zuen beragana bere emazteak, esanaz: Ez gero justu orrekin eginkizunik artu. Bada gaur ametsetan gauza asko burura orren gatik etorri zazkit.

20. Apaizen Buruak ordea, eta zarrak Barrabasen ganerazi zituzten erriak, eskatzeko hura Jesus berriz galtzeko.

21. Erantzunaz ordea Agintariak, esan zioten: Bietako zeñi nai dezute eman dizazutedan? Eta berak esan zuten: Barrabas.

22. Esaten diote Pilatok: Zer egingo det bada Jesus, Kristo deritzanarekin?



23. Diote guziak: Gurutziltzatua izan bedi. Esan zioten Eraentzalleak: Baña zer gaitz egin du? Eta berak geiago deadar egiten zuten: Gurutziltzatua izan bedi.

24. Ikusirik bada Pilatok ez zuela ezer aurreratsen, baizik geituaz zijoala iskanbilla, arturik ura, garbitu zituen eskuak erriaren aurrean, esanaz: Kutsutu gabea naiz ni obenik gabeko onen odolean, zuek ikusi ezazute.

25. Eta erantzunaz erri guziak, esan zuen: Bere odola gure gañera, eta gure semeen gañera.

26. Orduan askaturik Barrabas eman zioten, eta azotaturik Jesus eman zioten izan zedin gurutziltzatua.

27. Orduan Eraentzallearen soldaduak, artzen zutela Jesus, eta eramaten zutela auzigelara, bildu zuten beragana martizdi guzia.

28. Eta billostzen zutela bera, granazko mantu bat jantzi zioten.

29. Eta eotzen zutela koroa bat arantzakin, ipiñi zioten bere buruaren gañean, eta kanabel bat bere eskuian. Eta isekatzzen zuten, esaten ziotela: Agur, Juduen Erregea.

30. Eta txistu urtika ari ziradela berari, artu zuten kañabela, eta jotzen zuten bere buruan.

31. Eta bera isekatu ezkerreko, kendu zioten mantua, eta jantzi zuten bere soñekoakin, eta eraman zuten gurutziltzatuzera.

32. Ateratzen ziradela ordea kanpora, arkitu zuten gizon bat Zirenearra, izenez Simon, oni artu eragin zioten Jesusen gurutzera.

33. Eta etorri ziran, Golgota deritzan toki batera, zeña dan Buru ezur tokia.

34. Eta eman zioten edaten ardoa beazunarekin nahasia. Eta dastaturik, ez zuen nai izan edan.

35. Eta bera gurutziltzatu ezkerreko, berezitu zituzten bere soñekoak, suertea botaten zutela; bete izan zedin, esana izan zana Profetaren bitartez, zeñak esaten duen: Berezitu zituzten beren artean nere soñekoak, eta nere soñekoaren gañean bota zuten suertea.

36. Eta eseriak zeudela, gordetzen zuten.

37. Eta ipiñi zuten bere buruaren gañean, bere kausa eskribaturik: Au da Jesus Juduen Erregea.

38. Eta orduan gurutziltzatuak izan ziran berarekin bi lapur, bata eskuetatik, bestea ezkerretatik.

39. Eta andik iragoten ziranak iraintzen zuten, zerabilzatzela beren buruak,

40. Eta esaten zutela: Adizak, Jainkoaren eliza arrasatu, eta iru egunean berriz egiten dekan orrek, ere burua libratu ezak, Jainkoaren semea baaz, jetxi adi gurutzetik.

41. Berebat Apaizen Buruak ere burlatzen ziotela Eskribakin, eta zarrakin, esaten zuten:

42. Besteak libratu zizkian, bera ezin dek libratu. Israelko errege badek, jetxi zeadilla orain gurutzetik, eta sinistatuko zioagu.

43. Jaungoikoagan zuen ustea, libratu dezala orain, maite badu, zeren esan zuen: Jaungoikoaren semea naiz.

44. Eta berarekin gurutziltzatu zeuden lapurrak ere, orobat isekatzzen zuten.

45. Egurdiko amabietatik berriz, izan ziran illunak lur guziaren gañean, arratsaldeko iruretarano.

46. Eta arratsaldeko irurak alderatu ziradenean deadar egin zuen Jesussek boz andi batekin, esanaz: Eli, Eli, lamma sabakthani? Au da, Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nazu?

47. An zeuden batzuk bada, au aditurik, esaten zuten: Eliasi deitzen zioke onek.

48. Eta bereala korrika joanik beretako batek, artu zuen arroki bat, bete zuen ozpiñez, eta ipiñi zuen kanabel baten erpiñean, eta ematen zion edaten.

49. Besteak berriz esaten zuten: Utz, ikusi dezagun ote datorren Elias bera libratuzera.

50. Jesusek ordea, berriz deadar egiñik boz aundi batekin, eman zuen atzenengo asnasa.

51. Eta ona emen non elizako oiala urratu zan bi zatitan goienetik beenerano. Eta lurra dardaratu zan, eta arriak zarrakatu ziran.

52. Eta obiak idiki ziran, eta illak ziraden santu askoren gorputzak, piztu ziran.

53. Eta ateratzen ziradela obietatik, beren piztze berriaren ondoren, etorri ziran uri santura, eta agertu zitzaizkan askori.

54. Euntaria berriz, eta berarekin zeudenak zaitzen Jesus, ikusirik lur dardara, eta iragotzen ziran gauzak, beldurtu ziran andizki, esaten zutela: Egiaz Jaungoikoaren semea zan au.

55. Zeuden berriz an emakume asko jarraitu ziotenak Jesusi Galileatik, serbitzen zutela bera.

56. Zeintzuen artean zegoan Maria Madalena, eta Maria Santiagoren, eta Joserren ama, eta Zebedeoren semeen ama.



57. Allegaturik bada arratsea, etorri zan gizon aberats bat Arimatea-koa, zeritzana Jose, zeña ere zan Jesusen ikaslea.

58. Au joan zan Pilatoen gana, eta eskatu zion Jesusen gorputza. Orduan Pilatok agindu zuen emana izan zekiola gorputza.

59. Eta arturik gorputza, Josek bildu zuen maindire garbi batean.

60. Eta ipiñi zuen bere obia berri, arri bizian idiki erazi zuenean. Eta estali zuen arlosa aundi batekin obiaren sarrera, eta joan zan.

61. Zegoan berriz an Maria Magdalena, eta beste Maria, eseriak obiaren aurrean.

62. Beste egunean berriz, zeña dan Prestaerako egunari darraikana, bildu ziran Apaiz buruak, eta Fariseoak, eta joan ziran Pilatoen gana.

63. Ziotela: Jauna, oroitzen gera, gezurri ark esan zuela oraindikan bizirik zegoala: iru egunen buruan biztuko naiz.

64. Agindu ezazu bada, zaitua izan dedilla obia irugarren eguneraño. Benturan etorri ez ditezten bere ikasleak, eta ebatsi ez dezaten, eta esan ez dizaioten jendeari: Biztu zan illen artetik, eta izango da azkeneko utsegitea gaiztoagoa lenbizikoa baño.

65. Esan zioten Pilatok: Badituzute gordetzalleak, zoazte, gorde ezazute dakizuten bezela.

66. Berak berriz joaten ziradela, ertsi zuten obia, silluturik arria, gordetzalleakin.

## OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

*<e>Jesusen piztzea illen artetikan Agertzen zaiote emakume onai, eta ikasleai Nola bidaltzen dituen bere Apostoluak*

1. Larunbataren arratsaldean bada, beste astearen lenbiziko egunaren egun sentian, etorri ziran Maria Magdalena, eta beste Maria ikustera obia.

2. Eta ona emen non lurrikara andi bat egin izan zan. Zeren Jaunaren Aingerua jetxi zan zerutik, eta alderaturik irauli zuen arlosa, eta zegoan eserita bere gañean.

3. Zan berriz bere arpegia tximista bezelakoa, eta bere soñekoa elurra bezelakoa.

4. Bere beldurraz berriz, izutu ziraden gordetzalleak, eta illak bezelatu ziran.

5. Eta asirik izketan Aingerua, esan zioten emakumeai: Ez ezazute beldurrik iduki zuek; badakit ezen, Jesus gurutziltzatua izan zana billatzen dezutela.

6. Ez dago emen, piztu da ezen, esan zuen bezela. Atozte, eta ikusi ezazute tokia, non izan zan ipiñia Jauna.

7. Eta laster joaten zeratela, esan zaiozute bere ikasleai, piztu dala, eta ona emen non dijoan zuen aurretikan Galileara, an ikusiko dezute. Ona emen non lenagotikan esan dizutedan.

8. Eta atera ziraden bereala obitikan, beldur eta poz aundiarekin, korrika zijozela adiraztera bere ikasleai.

9. Eta ona emen non Jesus bidera irten zitzaioten, esanaz: Jaungoikoak gorde zaitzatela. Aiek berriz alderatu ziran, eta eldu zioten bere oñetatik, eta adoratu zuten.

10. Orduan esan zioten Jesusek: ez zaitezte beldur izan, zoazte, eta esaiezute nere anaiai, dijoazela Galileara, an ikusiko naute.

11. Emakume aiek joan ziradenean, ona emen non gordetzalletako batzuek etorri ziran urira, eta adierazo zizkioten Apaizen Buruai, gertatu ziraden gauza guziak.

12. Eta bildurik zarrakin, elkar aditurik, dirutze aundi bat eman zioten soldaduai,

13. Esaten zietela: Esan zazute, bere ikasleak etorri zirala gauez, eta ebatsi zutela, gu lotan geundela.

14. Eta Eraentzalleak aditua izango balitza au, guk sinistu eragingo diogu, eta zaituko zaituztegu.

15. Eta aiek, arturik dirua, egin zuten, erakutsiak izan ziran bezela. Eta barreatu zan itz au Juduen artean gaurko eguneraño.

16. Amaika ikasleak bada joan ziran Galileara, Jesusek agindu zioten mendira.

17. Eta ikusi zutenean bera, adoratu zuten, baña batzuk zalantzan zegozten.

18. Eta alderaturik Jesus, itz egin zioten, esanaz: Eman izan zait neri eskubide guzia zeruan, eta lurrean.

19. Joaten zeratela bada, eman zaiozkatzute erakutsiak jende guziaz, bataiatzen dituzutela Aitearen, eta semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

20. Erakusten dieztezutela berai, gordetzen, agindu dizkizutedan gauza guziak. Eta ona emen non ni zuekin nagoan egun guzietan munduaren azkeneraño.



## SAN MATEOREN EBANJELIOARI ADIGARRIAK

**K.1.B.18.** Elkarganatu baño lenago. Ez du iñork emendik atera bear, gero aragiz elkartu zirala, zeren beti garbi bizi izan ziran. San Jeron.

**K.1.B.25.** Egin zuen bitartean. Emendik ere ezin atera lezake, gero elkartu zirala. S. Jeron.

**K.1.B.25.** Lenbizi sortua. Itz onek esan nai zuen Juduen artean, lenago besterik izan gabea. S. Jeron.

**K.2.B.1.** Magoak. Onela deitzen zitzaioten jakintsuak, batezere izar eta zeruko beste gauzetan. Emen aipatzen diranak ziran erregeak, edo errietako agintariak.

**K.2.B.4.** Eskribak: Lege jakintsu eta Erakusleak.

**K.3.B.11.** Suan: karidadekoan. San Juan Krisost.

**K.3.B.12.** Larraña. Eliza da larrañ bat, aotsa eta gari alea, au da, onak eta gaiztoak nasturik daudena. Egunen baten izango dira berezituak. S. Agust.

**K.3.B.15.** Zuzentasun guzia. Au da, Aita zerukoaren erabagi eta agintete guziak. S. Juan Krisost.

**K.5.B.19.** Esan nai du, ez dala sartuko zeruan. S. Agust.

**K.5.B.29.** Au da, eskuia eta begia bezin gauza bearrak. S. Hilar. S. Hieron.

**K.5.B.34.** Premia gabe; baña bai egiarekin, zuzentasunarekin eta premiarekin. Hierem. K.4.B.2.

**K.6.B.25.** Emen eragozten da ajola geiegia. S. Tom.

**K.8.B.20.** Eskriba onek jarraitu nai zion Jesusi, munduko ondasun eta agintaritzen itxaropenarekin. S. Juan Krisost.

**K.9.B.16.** Irudi onekin adirazten diote Jesusek bere ikasleak, ez zirala oraindik, zeruko bidean aurreratuak daudenen irakatsi eta egiteen duiñak. S. Juan Krisost.

**K.9.B.24.** Au da, Jesusek biztu lezakeala, lo datzan bat esnatzen dan erraztasunarekin. S. Juan Krisost.

**K.10.B.34.** Ezpata: iltzeko nor beraren amorio eragabea, mundu gaiztoa, eta aragia. San Juan Krisost.

**K.11.B.14.** Bera da Elias. Ez izatez, baizik lantegian. S. Greg.

**K.12.B.31.** Ez da izango parkatua. Esan nai du, nekezago parkatua izango dala, zeren ez dago pekatuak barkatua izan ezin lezakeanik. S. Juan Krisost.

**K.12.B.46.** Anaiak, au da, senide urkoak. Kalm.

**K.13.B.12.** Asko artu eta ongi erantzuten dutenai, ugaritu zizte: gutxi artu eta gaizki erantzuten dutenai ordea, urritu. S. Agust.

**K.15.B.11.** Aoan sartzen danak... Ez baldin bada Jaungoikoaren legeak edo Elizak galerazia. Duamel.

**K.15.B.13.** Irakatsi ta siniste gaizto guzia. S. Jeron.

**K.15.B.24.** Etorri zan guzien onerako, baña bakarrik Israeldarrai izan zitzaten eskaña. S. Agust.

**K.16.B.19.** Giltzak, au da, bekatuak parkatzeko edo ez parkatzeko eskubidea. Natal. Alex.

**K.16.B.23.** Satanas. Galerazitzen didazu egitea Jaungoikoak nai duena. Duam.

**K.17.B.12.** Orain eta len esaten du egia: zeren orain aipatzen du Juan Bautista eta leen Elias Profeta. S. Krisost.

**K.18.B.10.** Beren Aingeruak, salatuko dituzte Aita Zerukoaren aurrean. Natal. Alex.

**K.18.B.22.** Irurogeita amar bidar zazpiraño: esan nai du, beti. S. Jeron. S. Agust.

**K.19.B.12.** Zeruetako erreñua gatik... Irenduak, ez gorputzak, baizik gura zikiñak. S. Agust.

**K.20.B.15.** Begia gaiztoa, aditzen da, ondamia. Prob. 6.

**K.20.B.28.** Askoren: guzien. S. Pabl. 2.ad. Korinth. K.5.B.14.

**K.21.B.44.** Arri au Jesukristo da. S. Agust.

**K.22.B.11.** Eztaiz jantzia da karidadea: au ez duena izango da aldendua onen artetik juizioko egunean. Duam.

**K.23.B.9.** Ez du galerazitzen Jesusek gurasoak Aita deitzea, baizik adirazi zeruan degula Aita obe bat, Krisost.

**K.24.B.24.** Au da, bizturik Jesus, zein dan gorputza, santuenak ere bizturik eta berrizaturik arranoak bezela, inguratuko dutela. S. Hilar.

**K.26.B.25.** Zuk esan dezu. Juduen artean adirazten zuten: Bai, ala da. Duam.

**K.27.B.3.** Damuturik. Judasen damua etzan izan ona, zeren etzion lagundu itxaropenak. S. Agust.

**K.27.B.34.** Edari au zan zentzunak konkortzeko, eta onela penak ez sentitzeko: orregatik etzuen edan Jesusek. Natal. Alex.



## JESUKRISTO GURE JAUNAREN EBANJELIO SANTUA SAN LUKASEN ARAURA

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Nola asko asi diran zuzen jartzen, gure artean gertatu diran gauzak, berak adiratzeko,
2. Adirazi zizkiguten bezela, asieratik berak ikusi zituztenak, eta Ebanjelioko itzaren adiratzalleak izan ziranak,
3. Gogoan jarri zitzadan neri ere, guztiak asieratik jakinda gero, berak zuri, o Teofilo txit ona, gertatu ziran eran eskribitzea,
4. Erakutsiak izan zazkizun itzen egia, ezagutu dezazun.
5. Herodes Judeako erregea zala, izan zan apaiz bat, Zakarias izena zuena, Abiaren familiakoa, tenploan txandako serbitzen zutenetatik bat, zeñaen emazte, Isabel izena zuena ere, Aaronen jatorrikoa zan.
6. Biak ziraden justoak Jaungoikoaren aurrean, gordetzen zituztela ezertan ere utsik egin gabe, Jaunaren aginte eta lege guztiak.
7. Eta etzeukaten semerik, zeren Isabel zan soilla, eta biak beren egunetan aurreratuak.
8. Gertatu zan bada, ari zala bera apaizlanetan Jaungoikoaren aurrean, bere txanda zalako,
9. Apaizen artean oi zan bezela, suertez irten zan inzensoa ipintzera, Jaungoikoaren tenploan sarturik,
10. Eta erriko jendetza guztia inzensoaren orduan, kanpoan orazioan zegoan.
11. Eta agertu zitzaion Jaunaren Aingeru bat, inzensoaren aldarearen eskuiean zutik zegoala.
12. Eta Zakarias, ikusi zuenean, nastu zan, eta beldurrak berari eraso zion.
13. Eta aingeruak esan zion: Etzaita beldur izan Zakarias, zeren zure orazioa aditua izan dan, eta Isabel zure emazteak egingo dizu seme bat, zeñi izentzat Juan jarriko diozun.
14. Eta bera izango da zuretzat bozkario eta atsegingarria, eta bere jaiotzan asko poztuko da,

15. Zeren Jaunaren aurrean andia izango dan. Ez du edango ardorik, ez moskortzeko edaririk, eta oraindikan bere amaren sabelean dagoala Espiritu Santuz betea izango da.

16. Eta Israelko seme asko beren Jaun, ta Jaungoikoagana biurtuko ditu.

17. Eta bera joango da aren aurretik Eliasen espiritu eta bertutean, biltzeko gurasoen biotzak semeenakin, eta sinisgogorak eramateko anziñako justoen zentzu, eta federa, Jaunari erri on oso bat prestatzeko.

18. Eta Zakariasek Aingeruari esan zion: Nondik au jakingo det? Zeren ni zarra naiz, eta nere emaztea, bere egunetan aurreratua dago.

19. Eta Aingeruak erantzuten zuela, esan zion: Ni naiz Gabriel Aingerua, Jaungoikoaren aurrean nagoana, eta bialdua izan naiz zuri itz egi-tera, eta zuri albista au ekartzera.

20. Eta oraindandik mututua geldituko zera, eta itzik egin ezingo dezu, gauza oiek gertatu ditezen eguneraño, ez dituzulako sinistu nere itzak, zeñak bere denboran kunplituko diran.

21. Eta erria Zakariasen zai zegoan, eta anbeste denboran tenploan egoteaz mirarritua.

22. Eta irten zanean ezin itzik egin zien, eta tenploan ikusketaren bat iduki zuela ezagutu zuten. Eta berak siñuak egiten ziezten, eta mututua irauin zuen.

23. Eta bere laneko egunak bukatu ziradenean, bere etxera biurtu zan.

24. Gerotxuago, Isabel bere emaztea aurdun gelditu zan, eta bost illa betean ezkutetan zan, esaten zuela:

25. Au egin orain Jaunak nerekin, ontzat iduki duenean, gizonen artetik nere lotsaria kentzea.

26. Zegoala bada onezkero Isabel seigarren illa betean, bialdu zuen Jaungoioak Gabriel Aingerua Nazaret Galileako errira,

27. Donzella batgana, zeñ zan Jose izena zuen, Dabiden etxeko giza-seme baten esposa, eta Birjiñaren izena zan Maria.

28. Eta sarturik Aingerua, bera zegoan tokian, esan zion: Jaungoioak gorde zaitzala, o graziaz betea. Jauna zurekin da: andre guztien artean zu bedeikatua zera.

29. Oiek aditzean, nastu zan bere izketan: eta jarri zan bere artean gogoratzen, zer adiratzten ote zuen onelako agur batek.

30. Eta Aingeruak esan zion: Etzaita beldur izan, Maria, zeren Jaungoikoagan grazia arkitu dezun.



31. Jakin ezazu zure sabelean sortuko dezula, eta egingo dezula seme bat, zeñi Jesus izentzat jarriko diozun.

32. Au andia izango da, eta txit Goratuaren semea ots egingo zaio, eta Jaun Jainkoak bere Aita Dabiden esertokia emango dio, eta Jakoben etxean, beti erreñatuko du.

33. Ea bere erreñuak ez du bukaerarik izango.

34. Eta Mariak Aingeruari esan zion: Nola izango da ori, baldin nik gizonik ezagutzen ez badet?

35. Eta Aingeruak erantzuten zuela, esan zion: Espiritu Santua etorriko da zure gañera, eta txit Goratuaren bertuteak bere itzalarekin ezkutatuko zaitu. Eta argatik zugandik jaioko dan santuari, Jaungoikoaren semearen izena emango zaio.

36. Eta ona non daukazun zure aide Isabel, bera ere bere zartzan seme batez aurdun gelditu da, eta soilla ots egiten ziotenak, onezkerok sei illa bete dauzka.

37. Zeren Jaungoikoarentzat, ezinik ez dagoan.

38. Eta Mariak esan zuen: Ona emen Jaunaren serbitzaria, zure itzaren araura egin bedi nigan. Eta Aingeruak beragandik alde egin zuen.

39. Egun aietan jaikitzen zala Maria, agudo joan zan mendietara, Judako erri batera.

40. Eta Zakariasen etxean sartu zan, eta Isabeli agur egin zion.

41. Eta gertatu zan, Mariaren agurra Isabelek aditu zueneko, bere sabelean aurak bozkariozko gora gorakak egin zituen: eta Isabel Espiritu Santuz bete izan zan.

42. Eta boz andi batekin deadar egin, eta esan zuen: Bedeikatua zera zu andre guztien artean, eta bedeikatua da zure sabeleko frutua.

43. Eta, nondik neri anbeste onera, nere Jaungoikoaren ama nigana etortzerañokoa?

44. Zeren zure agurraren boza nere belarrietara allegatu daneko, nere sabelean aursemea bozkarioz gora goraka ari da.

45. Eta zorionekoa zu, sinistu dezuna, zeren Jaunak esan dizkizun gauza guztiak egiztatuko dira.

46. Eta Mariak esan zuen: Nere animak Jauna altxatzen du.

47. Eta nere espiritua bozkarioz bete dago, Jaungoiko nere Salbatzalleagan.

48. Zeren bere serbitzariaren umiltasunari begiratu dion. Ona non argatik, gaurtik aurrera gizaldi guztiak doatsua deituko nauten.

49. Guztia dezakeanak, nigan gauza andiak egin dituelako, eta bere izena santua da.

50. Eta bere urrikaltasuna gizalditik gizaldira zabaltzen da, bere beldur diradenakgan.

51. Erakutsi zuen bere besoaren indarra, desegin zituen urgullutsuen biotzetako asmazioak.

52. Almentsuak esertoki goratutik aurtiki zituen, eta goratu zituen umillak.

53. Onez bete zituen gosetsuak; eta aberatsak, utsik utzi zituen.

54. Bere urrikaltasunarekin oroitzen zala, Israel bere aursemea artu zuen.

55. Gure guraso Abraham eta bere jatorriari, gizaldiz gizaldi egin ziezen eskeñtzen araura.

56. Eta Maria, Isabelekin iru illabete bezelatsu gelditu zan: eta gero joan zan bere etxera.

57. Eta allegatu zitzaion Isabeli aurra egiteko denbora, eta aurseme bat egin zuen.

58. Eta aditu zuten bere auzoetakoak, eta aideak, nolako urrikalmenu andia Jaungoikoak egin zion, eta onginaiak ematen ziozkatzen.

59. Eta gertatu zan zortzigarren egunean, aurra zirkunzidatzera etortzea, eta ots egiten zioten bere aitaren izenarekin, Zakarias.

60. Eta erantzuten zuela bere amak, esan zuen: Ez iñolaere, baizik bere izena, Juan izango du.

61. Eta esan zioten: Ez dezu ikusten ez dagoala iñor ere zure aideen artean, izen ori daukanik?

62. Galdetzen zioten bere aitari siñuz, ze izen nai zuen aurrari ipintzea.

63. Eta berak eskaturik oltxo bat eskribitzeko, eskribitu zuen onela: Bere izena Juan da. Eta guztiak miretsi ziran.

64. Eta bereala idiki ziran bere aoa, eta mugitu zan bere mingaña, eta itz egiten zuen, Jaungoikoa bedeikatzen zuela.

65. Eta gertatu zan, beldur santu bat erortzea beren inguruetakoz guztien gañera, eta gertakari guzti oiek Judeako mendi guztien gañean zabalitzen ziran.

66. Eta aditzen zituzten guztiak zeranbiltzaten beren biotzetan gauza oiek esaten zutelara, zeñ uste dezute aur au izango dala? Zeren Jaunaren eskua berarekin zegoan.

67. Eta bere aita Zakarias Espiritu Santuz bete zan, eta profetizatu zuen, esaten zuela:

68. Bedeikatua izan dedilla Israelko Jaun Jainkoa, bere erria bisitatu eta erredimitu duelako.





69. Eta jarri digu Salbatzalle almentsu bat, bere serbitzari Dabiden etxean,
70. Adirazia zeukan bezela, gizaldi guztietan izan diran profetaen bitartez.
71. Libratzeko gu, gure etsaietatik, eta gorrotatzen ginduztenen eskuetatik.
72. Egiten zuela urrikaltasuna gure gurasoakin; eta oroitzen zala, bere testamentu santuarekin.
73. Gure aita Abrahami egin zion juramentuaren araura, emango zigula.
74. Gure etsaien eskuetatik libratua izanik, beldurrik gabe serbitu dezagula,
75. Santutasun eta justizian, bere aurrean, gure egun guztietan.
76. Eta zuri, o aurtxo, zuri txit goratuaren profetaen izena emango zatzu, zeren Jaunaren aurretik joango zeran bere bideak prestatuaz.
77. Erakusten diozula salbazioko jakinduria bere erriari, bere bekatuaren barkazioa iritxi dezan.
78. Gure Jaungoikoaren errai urrikaltsuen bitartez, zeñak egin duen jaiotzen eguzki ori, gu bisitatzera goietatik etorri dedilla.
79. Argituteko illuntasunetan eta eriotzaren itzalean eseriak zeude-nak, gure pausoak pakeko bidetik zuzentzeko.
80. Aurra berriz azitzen zan, eta sendotzen zan espirituari: eta bizi izan zan eremuetan, Israeli bera ezagutuerazitzeko denboraraño.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan egun aietan, Zesar Augustok aginte bat ematea mundu guztiaren lista artzeko.
2. Lenbiziko lista au, Zirino Siriako Gobernariak egiña izan zan.
3. Eta guztiak zijoazen listatuak izatera, bakoitza bere jatorriko errira.
4. Jose bada, nola zan Dabiden etxe ta familiakoa, etorri zan Nazaret Galileako erritik, Dabiden erri, Belen izena duenera, Judean.
5. Alistatua izateko Maria bere esposarekin, zeñ aurdun zegoan.
6. Eta gertatu zan, an zeudela, aurregiteko denbora allegatu zan.
7. Eta egin zuen bere aurseme lenbizisortua, eta pisazapietan bildu zuen, eta jarri zuen ganbela batean etzinda, ostatuan berentzat tokirik etzegalako.
8. Eta artzai batzuek inguru aietan bellan zeuden, eta artaldeak gauaz zaitzen.

9. Eta ona non Jaunaren Aingeru bat agertu zan beren ondoan, eta jaungoikozko argitasun batek ingurutu zituen, eta beldur andi batez bete ziran.

10. Eta Aingeruak esan zien: Etzaitzte beldur izan, bada ona non natorren ni, emotera zuei berri txit gozatsu bat erri guztiarentzat,

11. Eta da, gaur jaio zatzutela Dabiden errian Salbatzallea, zeñ dan Kristo gure Jauna.

12. Eta au izango dezute siñalea: Arkituko dezute aurseme bat pisazapietan bildua, eta ganbela batean jarria.

13. Eta bereala ikusi zan Aingeruarekin zeruko soldaduen talde andi bat, Jaungoikoa alabatzen zutela ta esaten zutela:

14. Gloria Jaungoikoari zeruetako tokirik goratuenean, eta lurrean pakea borondate oneko gizonentzat.

15. Eta gertatu zan Aingeruak berakgandik alde egin, eta zerura joan ziranean, artzaiak elkarri itz egiten zien, esaten zutela: Goazen Belenaraño, eta ikusi dezagun, orain jazo dan gertakari arrigarri, Jaunak agertu diguna.

16. Eta etorri ziran agudo, eta arkitu zituzten Maria, eta Jose, eta aurra ganbelan etziña.

17. Eta ikusi zutenean, ezagutu zuten, ziertoa zala aur augatik esan zitzaizen guztia.

18. Eta aditu zuten guztiak, arritu ziran, eta orobat gertatu zan, artzaiak kontatu zieztenakin.

19. Mariak berriz gordetzen zituen gauza guzi oiek bere barrenen, bere biotzean erabiltzen zituela.

20. Eta artzaiak itzuli ziran, Jaungoikoa gloriatz bete, eta alabatzen zutela, aditu eta ikusi zituzten gauza guztietan, Aingeruak esan zien bezela.

21. Eta allegaturik zortzigarren eguna, zeñean aurra zirkunzidatua izan bear zan, ipiñi zitzaion izena Jesus, Aingeruak jarri zion izena, bera sabelean sortua izan baño lenago.

22. Eta kunplitu ziranean Ama garbitua izateko egunak, Moisesen legearen araura, eraman zuten Jerusalemenera, Jaunaren aurrean ipintzeko.

23. Jaunaren legean eskribitua dagoen bezela: Lenengo jaiotzen dan aurseme guztia Jaunari konsagratua izango zaio.

24. Eta egiteko, bi tortola edo usokumetxoen eskeñtza, Jaunaren legean agindua dagoan bezela.

25. Eta bazan denboratsu artan Jerusalemenera gizon justu, eta Jaungoikoaren beldurreko bat, zeñak Israelko gozotasuna itxedotzen zuen, eta Espiritu Santua beragan zegoan.



26. Eta Espiritu Santuak berak agertu zion, Jaunaren Kristoa ikusi baño lenago etzala ilko.
27. Eta Espiritu Santuaren argitasunarekin tenplora etorri zan. Eta bazeramatela Jesus aurra bere gurasoak, beragatik legeak agintzen zuena egitera,
28. Artzen zuela Simeonek bere besoetan, bedeikatu zuen Jaungoikoa, eta esan zuen:
29. Orain, Jauna, pakean utzitzen dezu zure serbitzaria, zure eskeñtzaren araura.
30. Zeren nere begiak ikusi dute zure Salbatzallea,
31. Zeñ daukazun autua, erri guztien begien aurrean jarrita,
32. Izan dedin argi eder bat, jentillak argitutzeko, eta zure erri Israelen gloriarako.
33. Eta bere aitak, eta bere amak, arrituta aditzen zituzten beragatik esaten ziran gauzak.
34. Eta Simeonek biak bedeikatu zituen, eta bere Ama Mariari esan zion: Begira ezazu, ikusten dezun aur au dago jarria Israelen, askoren galden eta biztutze berrirako, eta kontra egingo zaion sinalerako.
35. Eta zuretzat ere izango da, zure anima aldamen batetik bestera iragoko duen ezpata bat, askoren biotzetako gogorazioak agertuak izan ditezen.
36. Eta bizi zan orduan emakume profeta, Ana izena zuen bat, Fanuel, Aserko tribukoaren alaba: au zan edade txit andikoa, eta ezkondurik gaztetxotik, zazpi urtean bere senarrarekin bizi izan zan.
37. Eta larogeita lau urteraño alarguntzan bizi izan zan, tenplotik irten gabe, eta an Jaungoikoa gau ta egun serbitzen zuela barauakin eta orazioakin.
38. Onek ere bada, ordu artan beratan etorririk, Jauna alabatzen zuen, eta bere gañean itz egiten zien Israelko erredenzioa itxedotzen zuten guztiai.
39. Eta Maria eta Jose aurrarekin, egin zituztenean Jaunaren legean aginduta zeuden gauza guztiak, Galileara, beren erri Nazaretera itzuli ziran.
40. Eta aurra zijoan aziaz eta sendotuaz, jakinduriaz betea: eta Jaungoikoaren grazia beragan zegoan,
41. Eta bere gurasoak urteoro Jerusalemenera joan oi ziran, Pazkoako egun andian.
42. Eta aurak onezkero amabi urte kunplituak zeuzkala, igotzen ziradela berak Jerusalemenera, jai egunean egin oi zan bezela,

43. Bukaturik egun aiek, biurtzen ziradenean, Jesus aurra Jerusalemenera gelditu zan, eta bere gurasoak etzuten ezagutu.
44. Uste izanik bere zegoala bere lagunakin, egun bateko bidean etorri ziran, eta aide eta ezagunen artean billatzen zuten.
45. Eta etzutenean arkitzen, Jerusalemenera biurtu ziran bere billan.
46. Eta gertatu zan, iru egun iragota, arkitu zutela tenploan, Erakusleen erdian eseria berai aditzen ziela, eta berai galdeak egiten ziezutela.
47. Eta aditzen zioten guztiak arrituak gelditzen ziran bere jakinduria, eta erantzuteakin.
48. Ikusi zutenean bada bere gurasoak, arritu ziran. Eta bere Amak esan zion: Nere semea, zergatik onela egin diguzu? Ona non zure aita, eta ni, atsekabez beteak, zure billan genbiltzan.
49. Eta berak esan zien: Zergatik billatzen ninduzuten? Ez al ziñiekiten, nere Aitarenak diran gauzaetan egon bear nintzala?
50. Eta berak etzuten aditu, berai esan zien itza.
51. Eta jetxi zan berakin, eta Nazaretera etorri zan, eta beren mendean egon oi zan. Eta bere amak bere biotzean gauza guzi oiek gordetzen zituen.
52. Eta Jesus aziaz zijoan jakindurian, eta edadean, eta grazian, Jaungoikoaren eta gizonen aurrean.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Tiberio Zesarren agintaritzako amabosgarren urtean, Ponzio Pilatok Judea gobernatzeko zuela, Herodes Galileako Tetrarka zala, eta bere anaia Filipino Itureakoa, eta Trkoniteko probinziakoa, eta Lisaniak Abiliniako Tetrarka,
2. Ziradela apaizburuak Annas eta Kaifas, Jaunak itz egin zion Juan, Zakariasen semeari, eremuan.
3. Eta etorri zan Jordango erribera guztira, penitentiako bateo bat bekaturen barkaziorako predikatzen zuela,
4. Eskribitua dagoan bezela, Isaiasen itzetako liburuan: Aditua izango da eremuan, deadar egiten duen gizaseme baten boza. Jaunaren bidea prestatu ezazute. Bere bidetxigorak zuzendu itzatzute.
5. Ibar guztia lurrez betea izango da: eta mendi ta muño guztia umillatua, eta bide okerrak zuzenduko dira, eta aldapatsuak berdindu.
6. Eta gizon guztiak Jaungoikoaren Salbatzallea ikusiko du.
7. Eta Joanek, bere bataioa artzera zetozenai, esaten zien: O biboren arraza! Nork erakutsi dizute etorriko dan aserrearri iges egiten?



8. Egin itzatzute bada penitenziaren diñako frutuak, eta etzaitzetzela ibilli esaten: Aita Abraham degu. Zeren esaten dizutet, Jaungoikoak arri oietatik, Abrahamen semeak egin litzakela.

9. Zeren onezkero aizkora zuaitzen sustraiean jarria dago. Ala frutu ona ematen ez duen zuaitz guztia, ebakia, eta sutara aurtikia izango da.

10. Eta jendetzak galdetzen zioten, esaten zutela: Zer da bada egin bear deguna?

11. Eta berak erantzuten zien, esaten ziela: Bi tunika dauzkanak, bat ez daukanari eman bizaio: eta zer jan daukanak, orobat egin beza.

12. Publikanoak ere etorri ziran bataiatuak izatera, eta esan zioten: Erakuslea, zer egingo degu?

13. Eta berak esan zien: Ez ezazute eskatu, erabakia dagoena baño geiago.

14. Soldaduak ere galdetzen zioten, esaten zutela: Guk ere zer egingo degu? Eta berak esan zien: iñori ere etzaizute bidebagatasunik egin, eta ez ezazute iñor engañatu, eta zuen pagakin kontentuz zaudete.

15. Eta nola uste zuen erriak, eta gogoratzen zuten guztiak beren biotzetan Juangatik, bera ote zan Kristo,

16. Erantzun zuen Juanek, guztiak esaten ziela: Nik egiaz urarekin bataiatzen zaitzuet, baño etorriko da ni baño sendoago bat, zeñaen oñetako lokarria askatzeko diña ez naizan ni: berak bataiatuko zaituzte Espiritu Santuagan, eta suaz.

17. Artuko du bere eskuan eskuarea, eta bere larraña garbituko du, sartzen duela gero garia bere aletegian, eta erretzen duela lastoa, beñere itzalitzen ez dan su batean.

18. Oiek gañera beste gauza asko adiraztzen ziozkan erriari, ematen ziozkan erakutsietan.

19. Eta nola errierta egiten zion Herodes erregeari, bere anaiaren emazte Herodiasgatik, eta egiten zituen gaitz guztiakgatik,

20. Guztiak Herodesek itsatsi zien, Juan karzelan ipintzea.

21. Erri guztia bataioa artzera joan zan denboran, Jesus ere bataiatua izanik, eta zegoala orazioan, zerua idikitzea gertatu zan.

22. Eta jetxi zan bere gañera Espiritu Santua, uso batena bezelako gorputz irudian, eta boz au zerutik aditu zan: Zu zera nere seme maitea, nere atsegin guztiak zugan dauzkat.

23. Jesusek bere lana asi zuenean, ogeita amar urte bezelatsu zeuzkan; uste zanez, Joserren semea, zeñ zan Heliren semea, zeñ zan Mataten semea.

24. Au izan zan Lebiren semea, zeñ izan zan Melkirena, zeñ izan zan Jannerena, zeñ izan zan Joserena.

25. Jose izan zan Matatiasen semea, zeñ izan zan Amosena, zeñ izan zan Nahumena, zeñ izan zan Hesnirena, zeñ izan zan Nagjerena.

26. Au izan zan Mahaten semea, zeñ izan zan Matatiasena, zeñ izan zan Semeirena, zeñ izan zan Joserena, zeñ izan zan Judarena.

27. Judas izan zan Joannaren semea, zeñ izan zan Resarena, zeñ izan zan Zorobabelena, zeñ izan zan Salatielena, zeñ izan zan Nerirena.

28. Neri izan zan Melkiren semea, zeñ izan zan Addirena, zeñ izan zan Kosanena, zeñ izan zan Elmadamena, zeñ izan zan Herrena.

29. Au izan zan Jesusen semea, zeñ izan zan Heliezerrera, zeñ izan zan Jorimena, zeñ izan zan Matatena, zeñ izan zan Lebirena.

30. Lebi izan zan Simeonen semea, zeñ izan zan Judarena, zeñ izan zan Joserena, zeñ izan zan Jonarena, zeñ izan zan Heliakimena.

31. Au izan zan Melearena, zeñ izan zan Mennarena zeñ izan zan Matatarena, zeñ izan zan Natanena, zeñ izan zan Dabidena.

32. Dabid izan zan Jesseren semea, zeñ izan zan Obedena, zeñ izan zan Boozena, zeñ izan zan Salmonena zeñ izan zan Naassonena.

33. Naason izan zan Aminadaben semea, zeñ izan zan Aramena, zeñ izan zan Esronena, zeñ izan zan Faresena, zeñ izan zan Judarena.

34. Judas izan zan Jakoberen semea, zeñ izan zan Isaak-ena, zeñ izan zan Abrahamena, zeñ izan zan Tarerena, zeñ izan zan Nakorrena.

35. Nakor izan zan Sarujen semea, zeñ izan zan Ragaurena, zeñ izan zan Falejena, zeñ izan zan Heberrena, zeñ izan zan Salerena.

36. Sale izan zan Kainamen semea, zeñ izan zan Arfaxaden semea, zeñ izan zan Semen semea, zeñ izan zan Noeren semea, zeñ izan zan Lamek-en semea.

37. Lamek izan zan Matusalenen semea, zeñ izan zan Henok-ena, zeñ izan zan Jaredena, zeñ izan zan Malaleelena, zeñ izan zan Kainanena.

38. Kainan izan zan Henosen semea, zeñ izan zan Seten semea, zeñ izan zan Adanena, zeñ izan zan Jaungoikoak egina.

## LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta Jesus, Espiritu Santuz beteta, itzuli zan Jordandik, eta izan Espirituak berak eramana eremura.

2. Non berrogei egunean egon zan, eta deabruak tentatua izaten zan. Eta egun aietan etzuen ezerere jan, eta berak iragorik, gose izan zan.

3. Eta deabruak esan zion: Jaungoikoaren semea bazera, esan zaiozu arri oni, ogi biurtu dedilla.



4. Eta Jesusek erantzun zion: eskribitua dago, ez dala gizona bizi ogiarekin bakarrik, baizik Jaungoikoak esaten duen itz guztiarekin.
5. Eta deabruak eraman zuen mendi goratu batera, eta batbatean erakutsi ziozkan mundu guztiko erreñuak.
6. Eta esan zion: Nik emango dizut eskubide guztiak, eta erreñu oieta-ko gloria, zeren neri emana izan zitzaidan, eta nai dedanari ematen diozkat.
7. Zuk bada adoratu nai banazu, guztiak zureak izango dirade.
8. Eta Jesusek, erantzuten ziola, esan zion: Eskribitua dago, zure Jaun Jainkoa adoratuko dezu, eta bera bakarrik serbituko dezu.
9. Eta eraman zuen Jerusalemenera, eta jarri zuen tenploaren gaiyurra-  
ren gañean, eta esan zion: Jaungoikoaren semea bazera, emendikan beera aurtiki zaitte.
10. Zeren eskribitua dagoan, bere Aingeruai agindu ziotela, zaitu zai-  
tzatela,
11. Eta beren eskuetan eraman zaitzatela, arriren baten kontra zure oñak beaztopo egin ez dezan.
12. Eta Jesusek, erantzuten zuela, esan zuen: Esana dago, zure Jaun Jainkoa ez dezu tentatuko.
13. Eta tentazio guzti oiek bukatu-  
rik, debruak beragandik alde egin zuen, beste denbora bateraño.
14. Eta Jesus, Espiritu Santuaren bertutez, Galileara biurtu zan, eta bereala bere otspea inguru guzi artatik zabaldu zan.
15. Eta berak beren sinagogetan erakutsiak ematen zituen, eta zan guztiak onratua.
16. Eta etorri zan Nazaretera non azi zan, eta sartu zan sinagogan larunbateko egunean, oi zuen bezela, eta jaiki zan irakurtzera.
17. Eta Isaias profetaren liburua emana izan zizaion, eta idiki zue-  
nean, arkitu zuen tokia, non eskribitua zegoan:
18. Jaunaren espiritua nere gañean gelditu zan. Argatik konsagratu nau bere igortziarekin, eta bialdu nau, beartsuai berri onak ematera, biotz damutua daukatenak sendatzera,
19. Adiraztera katibu daudenai, askatuak izatera dijoazela, itsuak argi-  
tuak izango diradela, mendean estutuak daudenak, atsedenez geldituko diradela, Jaunaren urteko urrikaltasunak, eta ordañeko eguna predikatze-  
ra.
20. Eta itxirik liburua, eman zion morroiari, eta eseri zan. Eta guz-  
tiak sinagogan beren begiak beragan jarriak zeuzkaten.
21. Eta asi zan berai esaten: Orain aditu dezuten Eskritura, gaur kun-  
plitu da.

22. Eta guztiak alabantza andiak ematen ziozkatzen, eta bere ezpañe-  
tatik irtetzen ziran itzen graziarekin, arrituak zeuden, eta esaten zuten: Ez al da au Joseran semea?

23. Berak esan zien: Zierto esangi hura esango dezute: Medikua, zu zerori sendatu zaitte. Kafarnaumen egi dituzula aditu degun gauza andi guztiak, emen zure errian ere egin itzatzu.

24. Gero gañera esan zuen: Egiaz esaten dizutet, ez dagoala profeta-  
rik bere errian estimatua danik.

25. Zierto esaten dizutet, andre alargun asko zeudela Israelen Elia-  
sen denboran, zerua iru urtean eta sei illabetean euririk egin gabe egon zanean, lur guztiko gosea andia zala.

26. Eta beretatik batgana etzan Elias bialdua izan, baizik andre alar-  
gun batgana, Sareptan, Sidongo alderrian.

27. Eta Eliseo profetaren denboran Israelen legenardun asko ziran; baña beretatik batere etzan garbitua izan, baizik Naaman Siriakoa.

28. Eta gauza oiek sinagogan aditu zituztenean, guztiak aserretu ziran.

29. Eta iskanbillatuta jaikitzen ziradela, erritik kanpora aurtiki zuten, eta eraman zuten mendiaren erpiñeraño, zeñaen gañean beren erria egiña zegoan, andikan beera aurtikitze-  
ko asmoarekin.

30. Bera berriz, iragotzen zala beren erditik, bazijoan.

31. Eta jetxi zan Kafanaum, Galileako errira, eta an larunbatetan era-  
kutsiak ematen ziezten.

32. Eta bere dotrinarekin arrituak zeuden, zeren bere itza eskubidea-  
rekin adirazia zan.

33. Eta sinagogan zegoan demonio zikiña zeukan gizon bat, zeñak boz goratuarekin deadar egin zuen,

34. Esaten zuela: Utzi zaguzu pakean. Zer daukagu guk zurekin zer ikusi, o Jesus Nazaretekoa? Gu galtzera etorri al zera? Badakit zeñ zeran, Jaungoikoaren Santua.

35. Eta Jesusek errierta egin zion, esaten ziola: Mututua gelditu adi, eta orregandik irten adi. Eta demonioa, aurtikitzen zuela gizona lurrera guztien aurrean, beragandik irten zan, eta gaitzik batere etzion egin.

36. Eta guztiak beldurtu ziran, eta elkarrekin izketan ari ziran, esaten zutelara: Nolakoa da itz au? Bada berak eskubide ta almenarekin agintzen die espiritu zikiñai, eta irtetzen dirade?

37. Eta alderri artako toki guzietara bere otspea zabaltzen zan.



38. Eta Jesus, irtenik sinagoatik, Simonen etxean sartu zan. Eta Simonen amagiarraba sukar andiarekin zegoan, eta beragatik erregutu zioten.

39. Eta berak, alderatzen zala eriajana, agindu zion sukarrari, eta sukarrak utzi zion. Eta bereala, jaikitzen zala, serbitzen zituen.

40. Eta eguzkia sartu zanean, eriak zeuzkaten guztiak gaitz mota askorekin, beragana eramaten zituzten. Eta berak, bakoitzaren gañean eskuak jarrita, sendatzen zituen.

41. Eta askogandik demonioak irtetzen ziran, deadar egiten zutela: Zu Jaungoikoaren semea zera. Eta errieta eginik, etzien utzitzen esaten, baziekitelako bera zala Kristoa.

42. Eta eguna zabaldurik, irtetzen zala, bazijoan toki eremu batera, eta jendetzak bere billan ibilli ziran, eta etziran gelditu billatu zuten artean; eta geldirik zeukaten, berakgandik igesik egin ez zezan.

43. Zeñai berak esan zien: Beste erri batzuei ere Jaungoikoaren erreñuko Ebanjelioa predikatu bear diet, zeren artarako bialdua izan naitzan.

44. Eta ala zebillan Galileako sinagogetan predikatzen.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Gertatu zan egun batean, zegoala Jesus Jenesaretko itsasoaren ondoan, jendetzak bere inguruan bultzadaka biltzen ziran, Jaungoikoaren itza aditzeko gura biziakin.

2. Onetan ikusi zituen bi ontzi itsasoaren bazterrean, zeñean arraitzalleak jetxi ziran, eta ari ziran sareak garbitzen.

3. Igotzen zala bada ontzi batera, zeñ zan Simonena, erregutu zion, lurretik piskatxo bat alde erazitzeke. Eta esertzen zala barrenen, ontzixotik jendetzai erakutziak ematen ziezten.

4. Eta itz egiteari utzi zionean, Simoni esan zion: Eraman ezazu ontzia itsasbarrenera, eta zuen sareak aurtiki itzatzute arraiak arrapatzeke.

5. Eta Simonek, erantzuten zuela, esan zion: Erakuslea, gau guztian aulduak egon bagera ere, ez degu ezertxo ere arrapatu, alaere zure ize-  
nean, sarea aurtikiko det.

6. Eta au egin zutenean, arrai talde ain ugaria arrapatu zuten, non sarea urratzen zan.

7. Argatik beste ontzian zeuden lagunai ots egin zien, etorri zitezela, eta lagundu zitzaie. Eta etorri ziran, eta bi ontzixotik bete zituzten, alako moduan, non, ondatzeko zorian zeuden.

8. Simon Pedrok au ikusi zuenean, Jesusen oñetara aurtiki zan, esa-  
ten zuela: Alde egin ezazu nigandik, Jauna, zeren gizon bekatari bat naitzan ni.

9. Zeren ikaraz gelditu ziran, ala bera, nola berarekin zeuden guztiak, ikusirik egin zuten arraitza,

10. Eta orobat Santiago eta Juan, Zebedeoren seme, Simonen lagunak ziradenai gertatu zitzaie. Eta Jesusek Simoni esan zion: Etzaita bel-  
dur izan, oraindik aurrera, gizonen arraitzalle izango zera.

11. Eta berak, lurrera ontziak ateratzen zituztela, gauza guztiak utzi-  
rik, jarraitu zioten.

12. Zegoala Galileako erri aietatik batean, ona emen non legenarrez guztia estalitako gizon bat etorri zan, eta Jesus ikusi zueneko auzpeztu zan, eta erregutuzten zion, esaten ziola: Jauna, nai badezu, sendatu naze-  
kezu.

13. Eta Jesusek, luzaturik eskua, ukitu zion, esaten zuela: Nai det, sendatua izan zaite. Eta bereala legenarrak beragandik alde egin zuen.

14. Eta berak agindu zion, iñori ere etzitzaiola esan, baizik esan zion, zoaz, sazerdoteari agertu zatzakio, eta sendatua izan zeralako, eraman ezazu eskeñtza, Moisesek agindu zuen bezela, testigantzarako serbitu ditzaien.

15. Alaere bere otspea egunetik egunera geiago zabaltzen zan; eta jendetza andiak biltzen ziran berari aditzera, eta beren gaitzetatik sendatuak izatera.

16. Berak berriz eremura alde egiten zuen, eta an egoten zan orazioan.

17. Eta egun batean Jesus eseria zegoan; baitaere an zeuden eseriak asko Fariseo eta legeko erakusle, Galileako eta Judeako toki guztietatik eta Jerusalemgo erritik etorri ziradenak, eta Jaunaren bertutea, eriak sendatzean agertzen zan.

18. Eta ona non etorri ziran gizon batzuek, oetxo batean gizon elbar-  
rritu bat zekarrenak, eta alegiñak egiten zituzten, Jesus zegoan etxearen barrenen sartzeko, eta bere aurrean ipintzeko.

19. Eta ez arkiturik nondik bera etxean sartu jendetzagatik, tellatua-  
ren gañera igo ziran; eta idirikik tellatua, jetxi zuten oetxoarekin erdira, Jesusen aurrera.

20. Zeñean fedea Jesusek ikusi zueneko, esan zuen: Gizona, zure pekatuak parkatzen zatzkizu.





21. Eta Eskribak eta Fariseoak beren artean gogorazioak zerabiltzaten, esaten zutela: Blasfemiak esaten ditukan au, zeñ dek? Nork, Jaungoikoak bakarrik baizik, bekatuak barkatu ditzakek?

22. Ezagutu zitueneko berriz Jeusek beren gogorazioak, erantzuten zuela, esan zien: Zertzuk dirade zuen biotzetan gogoratzen dituzutenak?

23. Zeñ da errazago, ala esatea, Zure bekatuak barkatzen zaskizu, ala esatea: Jaiki, eta ibilli zaite?

24. Jakin dezazuten bada, gizonaren semeak baduela lurrean, bekatuak barkatzeko eskubidea (elbarrituari esan zion) zuri esaten dizut: Jaiki zaite, zure oetxo artu ezazu, eta zure etxera zoaz.

25. Eta bereala jaikitzen zala guztien aurrean, artu zuen oetxo, zeñean zegoan etzinik, eta bere etxera joan zan, Jaungoikoari gloria ematen ziola.

26. Eta arrituak gelditu ziraden guztiak, eta Jaungoikoa alabutzen zuten. Eta beldurrez beteta, esaten zuten: Gaur bai gauza miragarriak ikusi ditugula!

27. Eta oiek gertatuta gero, irten zan, eta ikusi zuen publikano bat, Lebi izena zuena, kotizen maiean eseria, eta esan zion: Darraidazu.

28. Eta Lebi, utzitzen zuela guztia, jaiki zan, eta jarraitu zion.

29. Eta gero Lebi bere etxean, jateketa andi bat eman zion: eta zegoan an publikanoen, eta maiean laguntzen zien beste batzuen talde txit andi bat.

30. Eta Fariseoak, eta beren Eskribak gaizki esaten zuten, Jesusen ikasleai esaten ziela: Nola publikanoakin, eta bekatariakin jaten, eta esaten dezute?

31. Eta Jesusek erantzuten zuela, esan zien: Osasunarekin daudenak, ez daukate sendatzallearen premiarik, eririk daudenak baizik.

32. Ez dirade justoak, baizik pekatariak, zeñai penitenziara ots egitera etorri naizan ni.

33. Oraindikan aiek galdetu zioten: Zergatik Joanen ikasleak, nola baita Fariseoenak ere, maiz barau, eta orazio egiten dute, zureak berriz jaten eta edaten dute?

34. Zeñai berak esan zien: Esposoaren semeai, Esposoa berakin dagoan artean, barau eginerazi al dizaiekezute?

35. Baña etorriko da denbora, Esposoa kendua izango zaiotena, eta orduan izango da noiz barau egingo duten.

36. Irudi au ere esaten zien: iñork ere ez dio jartzen soñeko zar bati, oial berrizko adobakirik, zeren bestela, berriak zarra urratzen du, eta zarrari ere adobaki berririk ez dagokio.

37. Eta ez du ere iñork ardo berria zagi zarretan aurtikitzen, bestela ardo berriak urratuko ditu zagiak, eta ardoa isuriko da, eta zagiak galduko dirade,

38. Baizik ardo berria zagi berrietara aurtiki bear da, eta ala biak ongi irautzen dute.

39. Eta zarra edaten duen iñork ere, ez du nai bereala berririk, zeren esaten duen: Zarra obea da.

## SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu ere zan bigarren-lelengo larunbatean, iragotzen zala Jesus alor batzuetatik, bere ikasleak galburuak artzen zituzten, eta esku artean igortzita, aleak jaten zituzten.

2. Fariseoetatik batzuek esaten zien: Zergatik egiten dezute larunbatetan zillegi ez dana?

3. Eta Jesusek, erantzuten ziola, esan zuen: Ez al dezute irakurri Dabidek egin zuena, bera eta berarekin zeudenak gose izan ziranean,

4. Nola Jaungoikoaren etxean sartu zan, eta proposizioko ogiak artu zituen, eta jan zituen, eta berarekin zeudenai eman ziezten, apaizak bakarrik baizik jan etzitzatezken ogiak?

5. Eta esaten zien: Gizonaren semea larunbataren beraren ere jabea da.

6. Gertatu ere zan beste larunbat batean, sartzea Jesus sinagogan, eta erakutsiak ematen jarri zan. Eta arkitzen zan an gizon bat, eskuiko eskua txangu zeukana.

7. Eta Eskriba eta Fariseoak azeloan zeuden, larunbatean sendatzen ote zuen, bera zerekin salatu iduki zezaten.

8. Jesusek berriz, nola beren gogorazioen berria bazeukan, esku txangua zeukan gizonari esan zion: Jaiki zaite, eta jarri zaite erdian. Eta jaiki zan, eta erdian jarri zan.

9. Orduan Jesusek esan zien berai: Galdetzen dizutet: Larunbatean ongi, edo gaizki egitea zillegi al da? Gizon bati bizia galtzea, edo salbatzea?

10. Eta guztiai inguruan begirakune bat ezarrita, esan zion gizonari: Zure eskua luzatu ezazu. Eta luzatu zuen, eta eskua sendatua gelditu zan.

11. Berak berriz sumintasunez bete ziran, eta elkarren artean itz egiten zuten, Jesusen kontra zer egin ote zezaketen.

12. Denboratsu onetan, alde egin zuen mendi batera orazio egitera, eta gau guzia irago zuen Jaungoikoaren orazioa egiten zuela.

13. Eta eguna zabaldu zanean, bere ikaslai ots egin zien, eta beretatik amabi autu zituen (zeñai Apostoluen izena eman zien) au da,





14. Simon, zeñi Pedroren izengoitia jarri zion, eta Andres bere anaia, Santiago eta Juan, Felipe eta Bartolome,
15. Mateo, eta Tomas, Santiago Alfeoren semea, eta Simon, zeñi zelotsua deitzen zaion,
16. Eta Judas Santiagoren anaia, eta Judas Iskariote, zeñ zan saltzallea.
17. Eta jetxitzen zala berakin, gelditu zan lau batean, bere ikasleak berarekin zituela, eta Judeako eta batezere Jerusalengo, eta Tiro, eta Sidongo itsas aldameneko jendetza andi bat,
18. Zeñiak etorri ziran berari aditzera, eta beren gaitzetatik sendatuak izatera. Eta espiritu zikiñak oñazetuak ziranak, sendatuak ziran.
19. Eta jendetza guztiak berari ukitu nai zion, zeren beragandik bertute bat ateratzen zan, guztiak sendatzen zituena.
20. Eta berak, jasotzen zituela begiak bere ikasleakganontz, esaten zuen: Zorionekoak beartsuak, zeren Jaungoikoaren erreñua zuena dan.
21. Zorionekoak, orain gose zeratenak, zeren aseak izango zeraten. Zorionekoak, orain negar egiten dezutenak, zeren farra egingo dezuten.
22. Zorionekoak izango zerate, gizonak gorrotatzen zaituztenean, eta berezitzen zaituztenean, eta lotsariz betetzen zaituztenean, eta aurtikitzten dutenean zuen izena gaiztoa bezela, gizonaren semeagatik,
23. Bozkariotu zaitzete egun artan, eta pozez gora goraka ari zaitzete, zeren zuentzat zeruan dagoan ordaña andia dan, beren gurasoak profetakin onelakoak egin oi zituztelako.
24. Alaere, ai zuen doakabeak aberatsak, zeren zuen gozotasuna emen daukazuten!
25. Ai zuen, asetzen zeratenen, doakabeak! Zeren gosea iragoko dezuten. Ai zuen, orain farra egiten dezutenen zorigaiztokoak, zeren zizpuruz egongo zeraten, eta negar egingo dezuten.
26. Ai zuen doakabeak, gizon mundutarrak bedeikatzen zaituztenean, zeren beren gurasoak ere gezurrezko profetakin onelakoak egiten zituzten.
27. Orain bada zuei, aditzen nazutenai, nik esaten dizutet: Zuen etsaiak maitatu itzatzute; on egin zaiezute gorrotatzen zaituztenai,
28. Bedeikatu itzatzute madarikatzen zaituztenak, eta erregutu ezazute, gezurrak asmatzen dizkizutenakgatik.
29. Eta masalla batean jotzen zaituenari, bestea ere eman zaiozu. Eta kapa kentzen dizunari, tunika ere eramatea etzaiozu galarazi.
30. Eskatzen dizun guztiari eman zaiozu, eta zure gauzak kentzen dizkizunari, etzaiozkazu eskatu.

31. Eta nola nai dezuten gizonak zuei egitea, berai ere ala egin zaiezute.
32. Eta maitatzen zaituztenak bakarrik maitatzen badituzute, zeren diña egiten zerate? Zeren bekatariak ere berak maitatzen dituztenak, maitatzen dituzte.
33. Eta on egiten badiezute zuei on egiten dizutenai, zeren diña egiten zerate? Bada bekatariak ere au bera egiten dute.
34. Eta lendanaz ematen badiezute aiei, zeñiakgandik ordaña artzea itxedotzen dezuten, zeren diña egiten zerate? Zeren bekatariak ere bekatariari lendanaz ematen die, anbat artzeko.
35. Zuek ordea, zuen etsaiak maitatu itzatzute, on egin ezazute; eta lendanaz eman ezazute andikan ezerere gañerakorik itxedotzen ez dezutela; eta zuen ordaña andia izango da; eta Jaungoiko txit goratuaren semeak izango zerate; zeren bera eskertzarreko, eta gaiztoentzat ere ongi-lllea dan.
36. Urrikaltsuak bada izan zaitzete, zuen Aita ere urrikaltsua dan bezela.
37. Ez ezazute iñor ere juzgatu, eta etzerate juzgatuak izango: ez ezazute iñor ere kondenatu, eta etzerate kondenatuak izango. Barkatu ezazute, eta barkatuak izango zerate.
38. Eman ezazute, eta emango zazute. Eman zazute ugari, eta aurtikiko zazute zuen kolkora neurri bat ona, eta estutua, ta ongi betea, gañez egiteraño. Zeren besteak neurtzen dituzuten neurriarekin berarekin, zuek ere neurtuak izango zerate.
39. Irudi au ere ipintzen zien: itsu batek beste itsu bat zuzendu al dezake? Biak zulora ez al dirade eroriko?
40. Ikaslea ez da Erakuslea baño geiago, ikasle guztia txit ona izango da, bere erakuslea bezelakoa bada.
41. Eta zuk, zergatik begiratzen diozu zure anaiaren begian dagoan samarrari, zure begian daukazun abeari begiratu gabe?
42. Edo nola zure anaiari esan zenezakio: Ene anaia, ots, utzi ezazu begiko samar ori kendu dizazudan, zure begian dagoan aga ikusten ez dezula? Hipokrita, zure begiko aga aurrena atera ezazu; eta gero ikusiko dezue, zure anaiaren begiko samarra nola aterako dezun.
43. Zeren ez da zuaitz ona, frutu gaiztoak ematen dituen, ez zuaitz gaiztoa, frutu onak ematen dituen.
44. Zeren zuaitz bakoitza bere fruetatik ezagutzen da, zeren arantzetatik ez dira pikoak artzen, ezta sasietatik ere mats mordoak.



45. Gizon onak bere biotzeko tesoro onetik, gauza onak ateratzen ditu, eta gizon gaiztoak tesoro gaiztotik, gaiztoak ateratzen ditu. Zeren aoak biotzeko ugaritasunetik itz egiten duen.

46. Zergatik bada neri Jauna, Jauna, ots egiten didazute, eta nik esaten dedana ez dezute egiten?

47. Erakutsi nai dizutet, zeñaren antzekoa dan nigana datorren, eta nere itzak aditzen dituen, eta kunplitzen dituen guztia.

48. Da gizon baten, etxe bat egiten ari zala, zulo txit zakon bat egin zuenaren, eta aitzaren gañean zimenduak jarri zituenaren antzekoa. Etorriarik gero ugoaldea, etxe ari indar guziarekin eraso zion; baña ezin mugitu izan zuen, aitzaren gañean egiña zegoalako.

49. Nere itzak aditzen dituen, eta kunplitzen ez dituen berriz, da gizon baten antzekoa, zeñak egin zuen bere etxea lurraren gañean, zimendurik jarri gabe, zeñi ibaiak gogor eraso zion, eta bereala erori zan. Eta etxe aren ondarena andia izan zan.

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Bukatu zionean bere izketa guztia, aditzen zion erriari, Kafarnau-men sartu zan.

2. Arkitzen zan an garai artan Zenturion bat, eririk eta iltzeko zorian, asko maitatzen zuen morroi bat zeukana.

3. Aditurik itz egiten Jesusgatik, bialdu ziozkan Juduen zarretatiko batzuek, erregututzen ziotela, arren bere morroia sendatzera etorri zedilla.

4. Eta berak, allegaturik Jesusgana, gogotik erregututzen zioten, esaten ziotela: Mesede onen diña bada.

5. Zeren gure jendea maitatzen du. Eta berak sinagoga egin zigun.

6. Eta Jesus berakin zijoan. Eta etxetik ez urrutian zegoanean, zenturionak bere adiskideak bialdu ziozkan, esaten ziotela: Jauna, ez ezazu arren neke ori artu, zeren zu nere etxean sartzeko diña ni ez naizan.

7. Argatik ni nerau zure billan joateko diña ez naizala uste izan det, baña itz bat bakarria esan ezazu, eta nere morroia sendatuko da.

8. Zeren ni ere besteren mendean jarritako gizon bat naiz, nere agindura soldaduak dauzkadana, eta oni esaten diot: «Zoaz»; eta badijoa, eta besteari: «Atoz», eta badator; eta nere morroiari: «Au edo bestea egin ezak», eta egiten du.

9. Jesus, au aditu zuenean, arritua gelditu zan; eta biurturik jarraitzen zioten jende taldeaganontz, esan zuen: Egiaz esaten dizutet, ez dedala Israelen fede ain andirik arkitu.

10. Eta itzulirik etxera, bialduak izan ziranak, eririk zegoan morroia sendatua arkitu zuten.

11. Gertatu zan gero, Jesus joatea, Naim izena zuen erri bateko bide-tik, eta berarekin bere ikasleak, eta jendetza andi bat zijoazen.

12. Eta erriko atearen ondoan zegoanean, ona non zeramaten obiratzeraz gizaseme il bat, bere amaren seme bakarria, eta ama au alarguna zan, eta berarekin erriko jendetza andia zijoan.

13. Ikusi zueneko Jesusek andre alarguna, urrikaldurik berarekin, esan zion: Ez ezazu negarrik egin.

14. Eta alderatu zan, eta illoiari ukitu zion. (Zeramatenak berriz gelditu ziran) Eta esan zuen: Galai gaztea, zuri esaten dizut, jaiki zaite.

15. Eta eseri zan illa zegoana, eta izketan asi zan. Eta bere amari eman zion.

16. Onenbesterekin guztiak beldurrez beteak gelditu ziran, eta gloriariz betetzen zuten Jauna, esaten zutela: Profeta andi bat gure artean agertu da, eta Jaungoikoak bere erria bisitatu du.

17. Eta mirari onen otspea Judea guztitik, eta inguruetako alderri guztietatik barreiatu zan.

18. Eta gauza guzti oiek, Juani bere ikasleak adirazi ziozkaten,

19. Eta Juanek, beretatik biri ots eginik, bialdu zituen Jesusgana, galde au egitera: Zu zera etorriko dana, ala besteren bat itxedotzen al degu?

20. Eta etorri ziranean beragana gizon aiek, esan zioten: Juan Bautistak zugana bialdu gaitu zuri galdetzera, zu ote zeran etorriko dana, ala besteren bat itxedotzen al degun.

21. (Ordu beratan sendatu zituen Jesusek asko eri beren gaitzetatik, eta zaurietatik, eta espiritu gaiztoetatik; eta asko itsu arkitu zituen.)

22. Erantzun zien bada, esaten ziela: Zoazte eta kontatu zaiozkazute Juani, aditu eta ikusi dituzuten gauzak, nola itsuak ikusten duten, legendar-tiak gelditzen diran garbituak, gorra aditzen duten, illak biztutzen diran, beartsuai Ebanjelioa adiraztzen zaioten.

23. Eta doatsua, nigan eskandalizatzen ez dana.

24. Eta Juanen mandatariak alde egin zutenean, asi zan Juangatik jendetzai esaten: Zer ikustera eremura atera zerate? Aizeak darabillan kañaberaren bat?

25. Baña, zer ikustera atera zerate? Soñeko biguñakin jantzitako gizonen bat? Badakizute, soñeko ederrak jantziten dituztenak, eta gozotasunetan bizi diradenak, erregeen jauregietan daudela.



26. Baña, zer ikustera atera zerate? Profetaren bat al? Bai, ziertoro, nik esaten dizutet, baita profeta baño geiago ere.

27. Zeren bera dan, zeñgatik eskribitua dagoan: Begira ezazu, nik bialtzen dedala aurretik aingeru bat, zeñ joango dan zure aurretik, zuri bidea prestatuaz.

28. Argatik esaten dizutet: Andregandik jaiotako gizasemeen artean, profetarik batere, Juan Bautista baño andiagorik ez dala, alaere Jaungoikoaren erreñuan txikiena dana, bera baño andiagoa da.

29. Eta erri guztia eta publikanuak, berari aditurik, Jaungoikoaren asmazioetan sartu ziran, Juanen bataioa artzen zutela.

30. Baña Fariseoak, eta legeko erakusleak, beren kaltean, Jaungoioaren asmazioa mepreziatu zuten, esan dan bataioa artzen etzutela.

31. Eta Jaunak esan zuen: Arraza onetako gizonak, zeñen antzekoak dirala esango det? Zeñi dirudiot?

32. Dirudiete, plazan eseriak dauden mutillai, eta aurkez daudenai itz egiten dienai, esaten diela: Kantatu dizugute txirolaren otsean, eta ez dezute dantzarik egin. Kantatu dizugute lamentazioak, eta ez dezute negarrik egin.

33. Etorri zan Juan Bautista, etzuela ogirik jaten, ez ardorik edaten, eta esaten dezute: Demonioa dauka.

34. Etorri da gizonaren semea, jaten eta edaten duena, eta esaten dezute: Ona emen gizon tripontzi, eta edale bat, publikanoen eta pekatarien adiskidea.

35. Baña Jaungoikoaren jakinduria, bere seme guztiak ontzat emana izan da.

36. Eta Fariseoetatik batek erregututzen zion, berarekin jan zezala. Eta Fariseoaren etxean sarturik, maiean eseri zan.

37. Eta ona emen non, errian bekataria zan emakume batek, jakin zueneko Fariseoaren etxean, maiean eseri zala, alabastrozko ontzi, balsamoz betetako bat, ekarri zuen.

38. Eta zegoala ostetik bere oñetan, asi zan bustitzen bere malkoakin, eta buruko illeakin garbitzen ziozkan, eta beretan muñ egiten zion, eta okenduarekin igortzitzen zituen.

39. Ikusirik au, Jesusi ots egin zion Fariseoak, bere artean esaten zuen: Gizon au profeta balitza, ongi ezagutuko luke, zeñ eta nolakoa dan ukitzen dion emakumea, bekatari bat dala.

40. Jesusek, bere gogoraziora erantzuten zuela, esan zion: Simon, gauza bat daukat zuri esateko. Eta berak erantzun zuen: Esan zazu, o Erakuslea.

41. Artzekodun batek, bi zordun zeuzkan: batak zor ziozkan bosteun diru, eta besteak berrogeita amar.

42. Berak zerekin pagatu ez idukirik, biai barkatu zien. Beretatik, zeñek geiago maitatuko du?

43. Simonek erantzun zuen: Uste det, geiago barkatu zionak. Eta Jesusek esan zion: Ederki juzgatu dezu.

44. Eta emakumeagana itzulirik, Simoni esan zion: ikusten dezu emakume au? Ni zure etxean sartu nintzan, eta ez didazu urik eman nere oñak garbitzeko; baña onek busti ditu nere oñak bere malkoakin, eta bere illeakin sikatu ditu.

45. Zuk ez didazu laztanik eman. Au berriz, etxe onetara sartu danetik onara, aspertu gabe nere oñai muñka ari da.

46. Zuk ez dezu nere burua olioarekin igortzi; onek berriz bere lurrinkaiak nere oñen gañera isuri ditu.

47. Argatik esaten dizut, asko bekatu barkatzen zaiozkala, asko maitatu duelako. Gutxiago maitatzen duela, gutxiago barkatzen zaionak.

48. Eta emakumeari esan zion: Zure bekatuak barkatuak zazkizu.

49. Eta berakin batean maiean eseriak zeudenak, asi ziran beren artean esaten: Zeñ dek au, bekatuak ere barkatzen ditukan au?

50. Eta berak emakumeari esan zion: Zure fedeak salbatu zaitu, zoaz ordu onean.

## ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Denboratsu bat geroago bazebillan Jesus iri eta errietatik, Jaungoikoaren erreñua predikatu, ta adirazten zuela, eta amabiak berarekin.

2. Eta espiritu gaiztoetatik, eta gaitz batzuetatik sendatuak izan ziran emakume batzuek: Maria Magdalena izena zuena, zeñgandik zazpi demonio aurtiki zituen,

3. Eta Juana, Kusa Herodesen morroi nagusiaren emaztea, eta Susana, eta beste asko, beren ondasunakin laguntzen ziotenak.

4. Eta jendetza andi bat bildu zanean, eta errietatik beragana agudo zijozazenean, parabola au esan zien:

5. Atera zan ereille bat, bere azia ereitzera, eta ereitzen ari zala, azi batzuek erori ziran bide bazterrera, eta zapalduak izan ziran, eta zeruko egaztiak jan zituzten.

6. Eta beste batzuek erori ziran arritza baten gañean, eta erneta bereala leortu ziran ezakirik etzeukatelako.

7. Beste batzuek erori ziran arantzen artean, eta arantzak eta berak batean azirik, ito zituzten.



8. Eta beste batzuek erori ziran lur onean, eta ernerik, ematen zuten frutua eunetan anbat. Oiek esanik, deadar egin zuen boz goratuarekin: Aditzeko belarriak dauzkanak, aditu beza.

9. Eta bere ikasleak galdetzen zioten, parabola onek zer adirazten ote zuen.

10. Zeñai berak esan zien: Zuei emana izan zazute, ezagutzea Jaungoikoaren erreñuko misterioak; besteai berriz paraboletan, ikusten dutela, ikusi ez dezaten; eta aditzen dutela, konprenditu ez dezaten.

11. Orain bada, au da, parabolak esan nai duena. Azia Jaungoikoaren itza da.

12. Bidearen bazterrean ereindako aziak adirazten dute, Jaungoikoaren itza aditzen dutenak; baña gero badator deabrua, eta beren biotzetatik itza arrapatzen du, sinistea emanik, salbatu ez ditezen.

13. Arritza batean ereindakoak dira aiek, zeñak aditurik itza, bozkarioarekin artzen duten, baña aiek ez daukate sustrairik, eta alaere denboratsu batean sinistzen dute, baña tentazioko denboran atzera itzultzen dirade.

14. Arantzen artean eroritako aziak dirade, aditu zutenak; baña bizitzako arazoakin, eta aberastasunakin, eta bizitzako atseginakin, atzenezan itotzen dituztenak, eta ez dutenak beñere fruturik ematen.

15. Lur onean erortzen dana berriz, oiek dirade biotz on, eta txit onarekin Jaungoikoaren itza aditzen dutenak, eta iraunerazitzen diotenak, eta iragopenaren bitartez, frutu ona ematen dutenak.

16. Eta gañera esan zuen: Argi bat irazekita gero, ez du iñork ere lurrezko ontzi batekin estalitzen, ez oearen azpian ipintzen, baizik kandelero baten gañean ipintzen du, sartzen diranak argia ikusi dezaten.

17. Zeren ez dagoan gauza ixillik, agertua izan bear ez duenik, ez ezkaturik, ezagutua eta zabaldua izan bear ez duenik.

18. Begiratu ezazute bada, nola aditzen dituzuten nere erakutsiak, zeren daukanari emango zaio, eta ez daukanari, daukala uste duena ere, kenduko zaio.

19. Bitartean etorri ziran bera billatzera bere ama, eta anaiak, eta jendetzagatik etzitezkean beragana joan.

20. Eta adirazi zioten, esaten ziotela: Zure ama, eta anaiak an kanpoan daude, ikusi nai zaituztela.

21. Berak erantzuten zuela, esan zuen: Nere ama, eta nere anaiak dira, Jaungoikoaren itza aditu, eta egiten dutenak.

22. Egun batean gertatu zan, bera eta bere ikasleak ontzitxo batera igotzea, eta esan zien: itsasoko beste aldamera goazen. Joan ziran bada.

23. Eta itsasoan zijoazela, loak artu zuen Jesus, aize sendo batek bagak nastu zituen denboran, alako moduan, non, ontzia urez beteta, ondatzeko irriskuan zeuden.

24. Eta alderatzen ziradela beragana esnatu zuten, esaten zutela: Erakuslea, galduak gera. Eta berak, jaikitzen zala, keñiatu zituen aizea eta ekaitza, zeñak bereala gelditu ziran, eta itsasoa bare bare jarri zan.

25. Eta esan zien: Zuen fedea non da? Baña berak beldurrez beteta, elkarri esaten zien: Zeñ dala esango ote degu au, aizeai, eta itsasoari agintzen diena, eta berak obeditzen diena?

26. Eta allegatu ziran Jerasenoen errira, zeñ Galilearen aurkez dagoan.

27. Eta atera zanean lurrera, irten zitzaion bidera gizon batek, denbora luzeetan demonioa zeukanak, zeñak etzuen soñekorik jantzitzen, eta zeñ etzan ere etxean egoten, baizik kobetako obietan.

28. Au bada, Jesus ikusi zueneko, auzpeztu zan, eta boz goratuarekin itz egiten zuela, esan zuen: Zer daukat nik zer ikusi zurekin, o Jesus, Jaungoiko txit goratuaren semea? Erregututzen dizut, ez nazazula arren oñazetu.

29. Zeren espiritu zikiñari agintzen zion, gizon huragandik atera zedilla, zeren denbora asko zan, berarekin jabeturik zegoala, eta kateakin eta grilluakin lotutzen bazuten ere, urratzen zituen lokarriak, eta demonioak eremuetara eramaten zuen.

30. Jesusek galdetu zion: Zeñ da zure izena? Eta berak erantzun zuen: Taldea, zeren berari sartu zitzaiozkan demonioak asko ziran.

31. Eta erregututzen zioten, lizera joateko etzitzaiela agindu.

32. Eta bazegoan an txerri askoren, mendian bazkatzen ziradenen talde andi bat, eta eskatzen zioten, beretan sartzen utzi zitzaiea. Eta utzi zien.

33. Irten ziran bada gizonagandik demonioak, eta txerrietan sartu ziran, eta bereala txerri talde guzia korrika joan zan, amiltoki batetik itsasora aurtikitzera, eta ito zan.

34. Ikusi zutenean au txerrizaiak, iges egin zuten, eta adirazi zuten errian, eta txerrien etzauntzetan.

35. Eta atera ziran jendetzak, gertatu zana ikustera, eta Jesusgana etorri ziran, eta arkitu zuten, Jesusek demonioak atera ziozkan gizona, eseria bere oñetan, jantzia, bere senera biurtua, eta beldurtu ziran.

36. Eta ikusi zutenak kontatu zien, nola gizon hura demonio talde gabe gelditu zan.



37. Eta Jerasenoen alderriko jende talde guziak erregututzen zioten, arren berakgandik alde egin zezala, zeren beldur andia zeukatzen. Igotzen zala bada Jesus ontzitxo batera, itzuli zan.

38. Eta beragandik demonioak aurtiki zituen gizonak erregututzen zion, berarekin eraman zezala. Eta Jesusek utzi zuen, esaten ziola:

39. Zure etxera biurtu zaite, eta Jaungoikoak zure alde egin dituen mirariak kontatu itzatzu. Eta erri guztitik joan zan, Jesusek egin ziozkan mirariak agirian adiraztzen zituela.

40. Eta itzuli zanean Jesus Galileara, erria irten zan bidera bera artzera, zeren guztiak itxedotzen zuten.

41. Eta ona non etorri zan sinagogako agintaria zan gizon bat, Jairo izena zuena, eta Jesusen oñetan auzpeztu zan, erregututzen ziola, arren bere etxean sartu zedilla.

42. Zeren zeukan amabi urte bezelatsuko alaba bat, zeñ iltzen zegoan. Ara zijoala bada, eta jende taldea estutua zegoala,

43. Gertatu zan, amabi urte eta geiagoan odoljarioaz eririk zegoan emakume batek, zeñak zeukan guztia sendakiñetan kastatu zuen, batek ere sendatu ezin zuela;

44. Alderaturik ostetik, bere soñekoaren ertzari ukitu zion, eta bereala bere odolaren jarioa gelditu zan.

45. Eta Jesusek esan zuen: Zeñ da ukitu didana? Nola guztiak ukatzen zuten, Pedrok eta bere lagunak esan zioten: Erakuslea, jendetza andi batek estutu eta itotzen zaitu, eta galdetzen dezu: Nork ukitu dit?

46. Eta Jesusek esan zuen: Norbaitek ukitu dit, zeren nik ezagutu det, bertute bat nigandik irten dala.

47. Eta ikusirik emakumeak agertua izan zala, ikaraz etorri zan, eta bere oñetan auzpeztu zan, eta erri guztiaren aurrean adirazi zuen, zergatik ukitu zion; eta nola bereala sendatua gelditu zan.

48. Eta Jesusek esan zion: Nere alaba, zure fedea salbatu zaitu. Zoaz ondo.

49. Oraindikan izketan ari zala, etorri zan bat sinagogako agintaria-gana, esaten ziola: Zure alaba il da, ez daukazu zertarako gogaiterazi Erakusleari.

50. Eta Jesusek, itz au aditu zuenean, erantzun zion neskaitzaren aitari: Etzaite beldur izan, sinistu ezazu, eta onenbesterekin neskaitza salbatuko da.

51. Eta etorri zanean etxera, etzuen utzi berarekin iñor ere sartu zedilla, baizik Pedro, eta Santiago, eta Juan, eta neskaitzaren aita eta ama.

52. Eta guztiak zeuden negarrez eta suspirioz. Eta Jesusek esan zuen: Ez ezazute negarrik egin, zeren neskaitza ez dago illa, baizik lo datza.

53. Eta irri egiten zioten Jesusi, baziokitelako illa zegoala.

54. Jesusek bada eldu zion eskutik, eta boz goratuarekin esan zuen: Neskaitza, jaiki zaite.

55. Eta bere anima gorputzera biurtu zan, eta bereala jaiki zan. Eta Jesusek agindu zien jaten eman zaiela.

56. Eta bere gurasoak mirariz beteak gelditu ziran, zeñai agindu zien, iñori ere etzaiela esan gertatu zana.

## BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Denboratsu bat geroago, bildurik amabi Apostoluak, eman zien eskubidea ta agintaritzta demonio guztien gañean, eta bertutea eritasunak sendatzeko.

2. Eta bialdu zituen Jaungoikoaren erreñua predikatuzera, eta eriak sendatzera.

3. Eta esan zien: Ez ezazute biderako ezerere eraman, ez makillarrik, ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik, eta ez itzatzute ere bi tunika iduki.

4. Eta sartzen zeraten edozeñere etxetan, egon zaitezte an, eta andi-kan etzaitzete atera.

5. Eta iñork ere artzen etzaituzten tokian, erritik irtetzen zeratenean, zuen oñetako autsa ere astindu ezazute, bertan bizi diranen kontrako testigantzan.

6. Irtetzen ziradela bada, bazijoazen erritik erri, Ebanjelioa adiratzten zutela, eta toki guzietan eriak sendatzen zituztela.

7. Eta Herodes Tetrarak aditu zituen Jesusek egiten zituen gauza guztiak, eta etziekien zer sinistu, zeren batzuek esaten zuten:

8. Juan illen artetik biztu da. Besteak: Elias agertu da: eta beste batzuek: Anziñako profetaren bat biztu da.

9. Eta Herodesek esan zuen: Juan, nik lepomoistu nuen, zeñ ote da bada, nik beragatik alako gauzak aditzen ditudan au? Eta bera ikusteko billa zebillan.

10. Eta biurturik Apostoluak, kontatu ziozkaten Jesusi egin zituzten gauza guztiak, eta bera, artzen zituela berezian berarekin, Betsaidako alderriko toki eremu batera alde egin zuen.

11. Ezagutu zutenean an jendetzak, jarraitu zioten, eta Jesusek amorioz artzen zituen, eta Jaungoikoaren erreñuaren gañean itz egiten zien; eta osasunik etzeukatenak, sendatzen zituen.





12. Eta eguna erortzen asi zan. Eta amabi Apostoluak alderatzen ziralara beragana, esan zioten: Bialdu itzatzu jendetzak, joanik inguruetakoa erri eta balleretara, ostatua eta zer jan arkitu dezaten, zeren emen toki eremuan gauden.

13. Jesusek esan zien: Eman zaiezute zuek jaten. Eta berak erantzun zuten: Bost ogi, eta bi ezkalu baizik ez daukagu, nai ez badezu joan gaitzen, eta jendetza gutzi oiek bear duten janaria erosi dezagun.

14. Eta bost milla bezelatsu gizon ziran. Orduan esan zien bere ikas-lai. Berrogeita hamarrek berrogeita hamarrek saldoetan eserierazi zaiezute.

15. Eta ala egin zuten. Eta guziaz eserierazi zien.

16. Eta berak bost ogiak, eta bi ezkaluak arturik, zerura begiratu zuten, eta bedekatu zituen, eta zatitu zituen, eta ikasleai eman ziezten, jendetzaen aurrean ipiñi zitzaten.

17. Eta jan zuten guztiak, eta ase ziran, eta gelditu zitzaientetik, amabi saski, zatiz beteak bildu zituzten.

18. Eta gertatu zan egun batean, bakarrik orazioan zegoala, bere ikasleak ere berarekin zeuden, eta galdetu zien esaten ziela: Jendetzak, nor naizala ni esaten dute?

19. Berak erantzun zuten, eta esan zuten: Askok diote Juan Bautista zerala, beste batzuek Elias, beste batzuek berriz anziñako profetaren bat biztu dala.

20. Eta berak esan zien: Zuek berriz, zeñ naizala ni esaten dezute? Simon Pedrok erantzun zuen: Jaungoikoaren Kristoa.

21. Eta berak erriertak berai egiñaz, adirazi zien, iñori onelakorik etzaiela esan,

22. Eta gañera esan zien: Zeren bear dan gizonaren semeak oñaze asko iragotzea, eta zarrak, eta apaizburuak eta Eskribak kondenatua izatea, eta illa izan dedilla, eta irugarren egunean biztu dedilla.

23. Baitaere guztiak esaten zien: iñork nai badu nere ondoren etorri, ukatu bedi bera, eta egunoro bere gurutzea eraman beza, eta jarraitu bizat.

24. Zeren bere bizitza salbatu nai duenak, galduko du, eta kontrara, nere amorioz galtzen duenak bere bizia, irabaziko du.

25. Eta, zer aurreratzen du gizonak mundu guztia irabaztearekin, baldin bera galtzen bada, eta berari kalte egiten bazaio?

26. Zeren nere lotsa, eta nere itzen lotsa iñor ere bada, orrelakoen lotsa izango da gizonaren semea ere, datorrenean bere anditasunean, eta bere Aitarenean, eta Aingeru santuenean.

27. Egiaz esaten dizutet, badiradela emen daudenetik batzuek, ilko ez diradenak, Jaungoikoaren erreñua ikusi dezaten artean.

28. Gertatu zan bada, itz oiek esan zituenetik zortzi egun bezelatsu geroago, artu zituen berarekin Pedro, Santiago, eta Juan, eta mendi batera orazio egitera igo zan.

29. Eta orazioan zegoan artean, bere arpegia beste irudi batekoa agertu zan, eta bere soñekoa zuri eta argitsu biurtu zan.

30. Eta ikusi ziran batbatean bi gizon beneragarri berarekin, zeñak ziran Moises eta Elias,

31. Irudi gloriatsuan agertu ziradenak, eta itz egiten zuten berak mundu onetatik egingo zuen irteeraren gañean, zeñ Jerusalemenean egiztatzeko zegoan.

32. Pedro berriz eta bere lagunak, logalez beteak zeuden. Eta esnatu ziranean, Jesusen gloria ikusi zuten, eta gizon beneragarri biak laguntzen zioten.

33. Eta oiek beragandik alde egitera zijozenean, Pedrok esan zion: Erakuslea, gu emen ongi gaude. Egin ditzagun iru bizileku, zuretzat bat, Moisesentzat beste bat, eta Eliasentzat beste bat, zer esaten zuen etziakiela.

34. Eta oiek esaten ari zala, etorri zan odei bat, zeñak estali zituen, eta ikusi zituztenean odei onetan sartzen, arrituak gelditu ziran.

35. Eta odeitik irten zan boz bat, esaten zuena: Au da nere seme maitea, aditu ezazute.

36. Boz au aditu zanean, Jesus bakarrik arkitu zan. Eta berak ixillik egon ziran, eta iñori ere etzioten orduan esan, ikusi zituzten gauzaetatik batere.

37. Biaramonean menditik jexitzen ziradela, jende talde andi bat bidera irten zitzairen;

38. Eta bere erditik gizon batek deadar egin zuen, esaten zuela: Erakuslea, erregututzen dizut, arren urrikaltasuneko begiak begiratu dizaiozula nere semeari, zeren bakarra dan,

39. Eta espiritu gaizto batek artzen du, eta batbatean deadarrak eginerazitzen diozka, eta lurraren kontra aurtikitzen du, eta darabil txit agudo batera ta bestera, bitsa aotik aurtikierazitzeraño, eta beragandik nekez alde egiten du, bere aragiak urratuta gero.

40. Zure ikasleai erregutu diet aurtiki dezatela, baña ezin izan dute.

41. Eta Jesusek, erantzuten zuela, esan zuen: O arraza sinosgoror eta gaiztoa! Noizarteraño egongo naiz zuekin eta sufrituko zaituztet? Zure semea onara ekarri zadazu.

42. Eta alderatu zanean, lurraren kontra demonioak aurtiki zuen, eta gaizki zerabillan.





43. Baña Jesusek, errierta eginik espiritu zikiñari, mutilla sendatu zuen, eta bere aitari biurtu zion.

44. Eta guztiak arritzen ziran Jaungoikoaren eskubide andiarekin: eta guztiak mirarituak zeudela egiten zituen gauza guztiakin, bere ikaslai esan zien: Jarri itzatzute zuek zuen biotzetan, esatera noatsuten itzak, zeren gertatuko dan, gizonaren semea, gizonen eskuetan jarria izatea.

45. Baña berak izketa au etzuten aditu, eta zan berentzat illuna, alako moduan, itz oiek adirazten zutena, non, ezerere etzuten konprenditu, eta beldur ziran itz onen gañean berari galdetzen.

46. Eta sartu zitzairen berai gogorazioa, beretatik zeñ andiena izango ote zan.

47. Baña Jesusek ikusirik beren biotzeko gogorazioak, artu zuen eskutik mutikotxo bat, eta bere ondoan jarri zuen.

48. Eta esan zien: Mutikotxo au nere izenean artzen duen edozeñek, ni artzen nau, eta ni artzen nauenak, ni bialdu ninduena artzen du. Eta ala, zuen artean txikiena dana, andiena au da.

49. Orduan Juanek, asirik izketan, esan zion: Jauna, ikusi degu bat, zure izenean demonioak aurtikitzen, eta galerazi diogu, zeren ez dizun zuri gurekin jarraitzen.

50. Jesusek esan zion: Etzaiozute galerazi, zeren zuen kontra ez dagoana, zuekin dago.

51. Eta zegoanean kunplitzeko, Jesus mundu onetatik irtengo zan denbora, bidean jarri zan, arpegi garratz bat ipintzen zuela Jerusalemenera joateko.

52. Eta bialdu zituen batzuek bere aurretik, bere etorrera adiratzeko, zeñak joaten ziradela, Samariatarren erri batean sartu ziran, beretzat ostatua prestatzeko.

53. Baña etzuten artu nai, zeren Jerusalemenera zijoala adiratzten ematen zuen.

54. Ikusirik au bere ikasle Santiago, eta Juanek, esan zuten: Nai dezu agindu dezagun, zerutik sua jetxi dedilla, eta iretsi ditzala?

55. Baña Jesusek, berakgana itzulita, errierta egin zien, esaten zuela: Zeñ espirituarenak zeraten ez dakizute.

56. Gizonaren semea etzan etorri gizonak galtzera, baizik berak salbatera. Eta beste erri batera joan ziran.

57. Eta gertatu zan, bidean zijoazela gizon batek berari esatea: Nik jarraituko dizut, joaten zeran edozeñ tokitara.

58. Baña Jesusek erantzun zion: Azeriak kobak dauzkate, eta zeruko egaztiak kabiak, baña gizonaren semeak bere burua non etzin ez dauka.

59. Eta beste bati Jesusek esan zion: Darraidazu. Berak berriz esan zion: Jauna, utzi zadazu lenago joan nadin, eta nere aita obiratu dezadan.

60. Eta Jesusek esan zion: Utzi zaiezu illai, beren illak obiratu ditzaten.

61. Eta beste batek esan zion: Nik jarraituko dizut Jauna, baña lenago laketu zadazu, nere etxeko gauzak utzitzen.

62. Eta Jesusek esan zion: Eskua goldean jarri, eta gero atzera begiratzen duenik, Jaungoikoaren erreñurako ez da gai.

## AMARGARREN KAPITULUA

1. Oiek iragota gero, autu zituen Jaunak beste irurogeita amabi, eta binan binan bialdu zituen bere aurretik, bera etorriko zan erri, eta toki guztietara.

2. Eta esaten zien: Uzta egiaz asko dago, langillak berriz gutxi dirade. Erregutu zaiozute bada uztaren jabeari, bere uztara langillak bialdu ditzala.

3. Zoazte, ona non nik bialtzen zaituztedan, arkumeak otsoen artera bezela.

4. Ez ezazute eraman zizkurik, ez zakutorik, ez zapatarik, eta etzaitzte ere gelditu bidean, iñori ere diosalik egiten.

5. Edozeñere etxetan sartzen zeratenean, aurrena esan ezazute: Etxe onetan pakea izan dedilla.

6. Eta bertan balego pakearen semeren bat, zuen pakeak atsedengo du bere gañean, bestela zuekgana itzuliko da.

7. Eta etxe artan beratan egon zaitzte, berak daukatena jaten eta edaten dezutela, zeren lanean ari dana, bere ordaiaren diña bada. Etzaitzte berriz etxetik etxe ibilli.

8. Edozeñere erritan sartzen zeratenean, eta ostatuz artzen zaituztenean, aurrean jartzen dizutena jan ezazute.

9. Eta bertan arkitzen diraden eriak sendatu itzatzute; eta esan zaiozute: Jaungoikoaren erreñua zuekgana alderatu da.

10. Baña baldin sartu zeraten errian artu nai ez bazinduzte, irtetzen zeratela bere plazaetara, esan ezazute:

11. Zuen errian itsatsi zagun autserañokoa, zuen kontra astintzen degu, baña alaere jakin ezazute, Jaungoikoaren erreñua alderatu dala.

12. Nik esaten dizutet: Sodoma juizioko egunean, erri hura baño gogortasun gutxiagorekin tratatua izango dala.

13. Ai zure zorigaiztokoa Korozain! Ai zure zorigaiztokoa Betsaida! Zeren baldin Tiron eta Sidonen izan balirade eginak, zuekgan egin diran



mirariak, denbora da zilizioz estalita, eta autsaen gañean eserita, penitentzia egingo zutela.

14. Argatik Tiro eta Sidon zuek baño biguñtasun geiagorekin juzgatuak izango dirade.

15. Eta zu, o Kafarnaum, zerurano jaso eta altxatu zerana! inferurano beeratua izango zera.

16. Zuek aditzen zaituztenak, ni aditzen nau, eta zuek mezipreziatzen zaituztenak, ni mezipreziatzen nau. Eta ni mezipreziatzen nauenak, ni bialdu ninduena mezipreziatzen du.

17. Eta irurogeita amabiak bozkarioz beteak itzuli ziran, esaten zutela: Jauna, zure izenean demonioak berak ere gure mendean jartzen dira.

18. Eta berak esan zien: Ni nengoan ikusten, nola Satanas, oñazkarren gisara zerutik erortzen zan.

19. Zuek ikusten dezute, nola eman dizutedan eskubidea, zapaltzeko sugeak, eta lupuak, eta etsaiaren indar guztia, eta ezerk ere ez dizutela gaitzik egingo.

20. Alaere etzaitzte bozkariotu, espirituak zuen mendean jartzen zaskizutelako, baizik bozkariotu zaitzte, zuen izenak zeruetan eskribituak daudelako.

21. Ordu artan beratan, agertu zuen Jesusek bozkario txit andi bat Espiritu Santuaren indarrez, eta esan zuen: Nik alabatzen zaitut, nere Aita, zeruko eta lurkeko Jauna, jakintsuai, eta zentzudunai gauza oiek ezkutatu, eta aurrai agertu dizkizulako. Ala da, o Aita, zeren zure borondatea ala izan dan.

22. Aitak gauza guztiak nere eskuan jarri ditu. Eta inork ere ez du ezagutzen zeñ dan Semea, baizik Aitak, eta inork ez du ezagutzen zeñ dan Aita, baizik semeak, eta semeak adirazi nai dionak.

23. Eta bere ikaslakgana itzulirik, esan zuen: Zorionekoak zuek ikusten dituzuten gauzak ikusten dituztenak,

24. Zeren esaten dizutet, asko profeta eta erregeak ikusi nai izan zituztela, zuek ikusten dituzuten gauzak, eta etzituzten ikusi, eta aditu, zuek aditzen dituzuten gauzak, eta etzituzten aditu.

25. Jaiki zan orduan legeko erakusle bat, eta Jesus tentatzeko, esan zion: Erakuslea, zer egin bear det nik, betiko bizitza iritxitzeko?

26. Eta Jesusek esan zion: Zer dago legean eskribitua? Nola irakurtzen dezu?

27. Eta berak, erantzuten zuela, esan zuen: Maitatuko dezu zure Jaun Jainkoa zure biotz guzitik, eta zure anima guzitik, eta zure indar guziakin, eta zure adimen guziarekin, eta zure projimua zu zerori bezela.

28. Esan zion Jesusek: Ederki erantzun dezu, ori egin ezazu, eta bizi-ko zera.

29. Baña berak justoa zala erakutsi nairik, Jesusi galdetu zion: Eta, nere projimua zeñ da?

30. Eta orduan asirik izketan Jesus, esan zion: Bazetorren bein batean gizon bat Jerusalemendik beerontz Jerikora, eta lapurren eskuetan erori zan, zeñak kendu zioten zeukan guztia, eta zauriz betetzen zutela, erdi illa utzita, joan ziran.

31. Eta gertatu zan apaiz bat bide artatik beerontz jetxitzea; eta ikusirik gizona, aurrera irago zan.

32. Orobat Lebita bat ere, egon bazan ere toki aren ondoan, eta ikusi bazuen ere, aurrera irago zan.

33. Baña Samariako gizon, bidean zijoan bat, etorri zan bere aldera, eta ikusi zuenean, urrikaldu zan.

34. Eta alderatzen zala beragana, bere zauriak lotu ziozkan, igortzitzen ziozkala olioarekin, eta ardoarekin; eta bere zaldia gañean jartzen zuela, ostatura eraman zuen, eta zaitu zuen.

35. Eta biaramonean bi diru atera zituen, eta ostatariari eman ziozkan, esaten ziola: Zaitu ezazu, eta gañera kastatzen dezun guztia, nik, itzultzen naizanean, emango dizut.

36. Iru oietatik, zeñ uste dezu izandu zala, lapurren eskuetan erori zanaren projimua?

37. Eta berak erantzun zuen: Gizon zaurituarekin urrikaldu zana. Eta Jesusek esan zion: Zoaz, eta zuk ere orobat egin ezazu.

38. Jarraitzen ziola Jesusek aurrera bere bideari, sartu zan erri batean, non Marta izena zuen andre batek, bere etxean ostatuz artu zuen,

39. Zeukan onek aizpa bat, Maria izena zuena, zeñ ere, eserria Jaunaren oñetan, bere itza aditzen zegoan.

40. Bitartean Marta, zebillan txit arazo andietan bear zana prestatzeko, eta argatik Jaunagana joan zan, eta esan zion: Jauna, ez al dezu ikusten nere aizpak etxeko lanetan bakarrik utzi nauela? Esan zaiozu bada lagundu dizadala.

41. Baña Jaunak, erantzuten ziola, esan zion: Marta, Marta, gauza txit askotan arazotua eta nekatua zabilta,

42. Eta egiaz gauza bakar bat da premiazkoa. Mariak autu du lanik onena, kendua izango etzaiona.



## AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Egun batean, zegoala Jesus orazioan toki batean, orazioa bukatu zuenean, bere ikasleetatik batek esan zion: Jauna, erakutsi zaguzu orazio egiten, Juanek ere bere ikaslai erakutsi zien bezela.

2. Eta Jesusek erantzun zien: Orazio egiten jartzen zeratenean, esango dezute: Aita, zure izena santutua izan bedi. Betor gugana zure erreñua.

3. Egunoroko gure ogia gaur eman zaguzu.

4. Eta barka zazkiguzu gure bekatuak, zeren guk ere zor digun guziaz barkatzen diogu. Eta etzaguzu utzi tentazioan erortzen.

5. Eta esan zien: Zuetatik batek baleuka adiskide bat, eta joango balitza beragana gauaren erdian, ta esango balio: Adiskidea, iru ogi prestatu zazkidazu,

6. Zeren beste adiskide bideante bat nere etxera etorri da, eta ez daukat ezerere zer emanik.

7. Berak barrendik erantzungo balio ere: Etzadazu gogaiterazi, atea itxia dago, eta nere morroiak nerekin oean daude, ez niteke jaiki zuri ogiak ematera.

8. Besteak jarraituko balio ots, eta ots egiteari; esaten dizutet, jaikita ematen ez badiozka ere, adiskidea dalako, gogaiterazitzen diolako bederik, jaikiko da, eta bear dituen guztiak emango diozka.

9. Ala esaten dizutet nik, esan zuen Jesusek, eskatu ezazute, eta emango zazute. Billatu ezazute, eta arkituko dezute, ots egin ezazute, eta idikiko zazute.

10. Zeren eskatzen duen guztiak, artzen du, eta billatzen duen guztiak, arkitzen du, eta ots egiten duenari, idikiko zaio.

11. Eta baldin zuen artean seme batek bere aitari ogia eskatuko balio, arri bat emango al dio? Edo arrai bat eskatuko balio, arraiaren lekuan, suga bat emango al lioke?

12. Edo arraultza bat eskatzen badu, lupu bat emango al dio?

13. Bada baldin zuek, gaiztoak izanik, zeraten bezela, zuen semeai gauza onak ematen badakizute, zenbat geiago zuen Aita, zeruetan dagoanak, emango die espiritu ona eskatzen diotenai?

14. Beste egun batean zegoan Jesus aurtikitzen demonio bat, zeñ mutua zan. Eta demonioa aurtiki zuenean, mutuak itz egin zuen, eta jendetza guztiak arrituak gelditu ziran.

15. Eta beretatik batzuek esan zuten: Beelzebub demonioen prinzipeagan, demonioak aurtikitzen ditu.

16. Eta beste batzuek, tentatzen zutela, zeruan mirariren bat ikusierazi zaiela, eskatzen zuten.

17. Eta berak, beren gogorazioak ikusi zituenean, esan zien: Beragan berezitua dagoan erreñu guzia, arrasatua geldituko da, eta etxea etxearen gañean eroriko da.

18. Baldin bada Satanas ere beragan berezitua badago, nola bere erreñuak iraungo du? Esaten dezuten ezkerro zuek, nik demonioak Beelzebubgan aurtikitzen ditudala.

19. Eta baldin nik Beelzebubgan demonioak aurtikitzen baditut, zuen semeak zeñgan aurtikitzen dituzte? Argatik berak zuen juezak izango dirade.

20. Egjaz, baldin nik Jaungoikoaren beatzarekin demonioak aurtikitzen baditut, noaski Jaungoikoaren erreñua zuekgana allegatu da.

21. Gizon azkar, ongi armatu batek bere etxeko sarrera zaitzen duenean, dauzkan gauza guztiak ongi gordeak daude.

22. Baña etorrikerik gero bera baño sendoago bat, garaitzen badu, bere arma guztiak kenduko diozka, eta bilduta zeuzkan gauza guztiak partituko ditu.

23. Nerekin ez dagoana, nere kontra dago, eta nerekin biltzen ari ez danak, barreiatzen ditu.

24. Espiritu zikin bat gizonagandik irten danean, toki legorretatik dabil, toki baten billan, atsedetzeko, eta arkitzen ez duenean, esaten du: itzuliko naiz nere etxera, nondik atera nintzan.

25. Eta ara etorrikerik, garbitua ta apaindua arkitzen du.

26. Orduan badijoa, eta beste zazpi espiritu, bera baño gaiztoagoak, berarekin artzen ditu, eta etxe onetan sarturik, an egotez gelditzen da. Eta gizon aren atzenak, asiera baño gaiztoagoak egiten dira.

27. Gauza oiek esaten ari zala, altxatzen zuela boza jendetzako emakume batek, esan zion: Zorionekoa, erabilli zinduen sabela, eta artu zinduzten bularrak.

28. Eta Jesusek esan zuen: Zorionekoagoak oraindik, Jaungoikoaren itza aditzen dutenak, eta kunplitzen dutenak.

29. Eta nola jendetzak biltzen ziran, asi zan esaten: Giza arraza au, arraza gaiztoa da: berak mirari bat eskatzen dute, baño etzaie beste miraririk emango, Jonas profetaren miraria baño.

30. Zeren, nola Jonas Ninibetarrentzat miraria izan zan, ala erreñu onentzat ere, gizonaren semea izango da.

31. Egoeko erregiña jaikiko da juizioko egunean, erreñu onetako gizonen kontra, zeren bera, munduaren bukaeratik Salomonen jakinduria aditzera etorri zan: eta ikusten dezute, nola emen Salomon baño andiago bat daukazuten.



32. Ninibeko gizonak jaikiko dira juizioan giza arraza onen kontra, eta kondenatuko dute, zeren berak Jonasen predikazioarekin penitentzia egin zuten, eta Jonas baño andiagoa dan bat ona emen non dagoan.

33. Ez du iñork ere argi bat erazekiten, ipintzeko toki ezkutu batean, ez lakari baten azpian, baizik kandelero baten gañean; sartzen diranak argia ikusi dezaten.

34. Zure gorputzeko argia zure begia da. zure begia garbia badago, zure gorputz guztia argitsua egongo da, baña baldin gaitzik baleuka, zure gorputza ere illuntasunez bete da egongo da.

35. Begiratu ezazu bada, zugar dagoan argia illuntasuna izan ez dedin.

36. Zeren zure gorputza balego guztia argitsua, zatirik batere illuna iduki gabetanik, guztia argitsua izango da, eta argi argitsu batek bezela argi egingo dizu.

37. Eta izketan ari zala, Fariseo batek erregutu zion, bere etxera jate-ra joan zedilla; eta Jesus etxean sarturik, maiean eseri zan.

38. Eta Fariseoa asi zan bere arteko gogorazioetan esaten: Zergatik jaten jarri baño lenago ez ote da garbitu?

39. Eta Jaunak esan zion: Zuek, o Fariseoak, edanontziak eta platerak kanpotik garbitzen dituzute: baña zuen biotzaren barrena lapurretaz eta gaiztakeriaz bete da dago.

40. O jakinduria gabeak! Kanpokoa egin zuenak barrendikoa ere ez al zuen egin?

41. Bear dezuten baño geiago daukazutenetik limosna eman ezazute, eta onenbesterekin, zuentzat gauza guztiak garbiak dirade.

42. Baña, ai zuen, Fariseoen doakabeak! Pagatzen dezutenenak mendaren, bortusaiaren, eta barazki mota guzieren amarrena, eta Jaungoikoaren juizio ta karidadearekin etzerate oroitzen.

43. Ai zuen, Fariseoen doakabeak! Lenbiziko erakustokiak Sinagoga-tan, eta agurrak egin ditzatzutela kanpoan maitatzen dezutenak!

44. Ai zuen, Fariseoen doakabeak, zeren estaliak dauden obiak bezelakoak zeraten, zeñaen berririk beren gañetik iragotzen diran gizonak ez daukaten.

45. Orduan, erantzuten zuela legetsu batek, esan zion: Erakuslea, orrela itz eginaz gu ere lotsatzen gaituzu,

46. Eta berak esan zion: Ai zuen, legetsuen ere doakabeak, zeren gizonen gañean ipintzen dituzuten, eraman ezin dituzten zamak, eta zuek beatzarekin ere ez diezute ukitzen.

47. Ai zuen, profetai obi panparroiak egiten dieztezutenen, doakabeak, izanik zuen gurasoak berak il zituztenak.

48. Onela adiraztzen dezute, zuen gurasoen lan gaiztoak ontzat ematen dituzutela, zeren berak il zituzten, eta zuek berai obiak egiten dieztezute.

49. Argatik Jaungoikoaren jakinduriak ere esan zuen: Nik bialduko dieztet profetak eta Apostoluak, eta batzuek ilko dituzte, eta persegituko dituzte besteak.

50. Erreñu oni eskatua izan dizaion, munduaren asieratik onara isuria izan dan profeta guztien odolaren kontua,

51. Abelen odoletik Zakariasen odoleraño, zeñ izan zan illa aldarearen eta tenploaren bitartean. Bai, nik esaten dizutet: gizon arraza oni oien kontua eskatuko zaio.

52. Ai zuen, lege erakusleen, jakinduriako giltza gorde dezutenen doakabeak! Zuek zerok etzerate sartu, eta sartzera zijozazenai ere galerazi diezute.

53. Gauza guzi oiek esan ziozkatenan Fariseoak, eta legero erakuslak asi ziran berari txit sendo kontra egiten, eta era askotara berari aoa estalitzen,

54. Azeloak jartzen ziozkatela, eta bere aotik zerbait billatzen zutela bera salatze.

## AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta zeudela Jesusen inguruan jendetza andiak, eta anbeste, non, elkar salatu eta zapaltzen zuten, asi zan bere ikasleai esaten: Alde egin eza-zute Fariseoen legamitik, zeñ dan hipokresia.

2. Eta ez dago gauza ain estalirik, non agertuko ez dan.

3. Eta ala illunetan esan zenduztenak, egunaren argitan esango dira-de, eta belarrira esan zendutena geletan, tellatuetan predikatuko da.

4. Eta zuei, nere adiskideak zeratenai, esaten dizutet nik orain, etzaitzeltela ikaratu, gorputza iltzen dutenakgatik; eta au eginik, gero ezerere egin ez lezakenakgatik.

5. Nik erakutsiko dizutet, zeñaen beldur izan bear zeraten, bizia kenduta gero, infernura aurtiki lezakeanaren beldur izan zaitezte, berriz esaten dizutet, onen beldur izan zaitezte.

6. Ez al da egia, bost txoritxo txanpon batean saltzen dirala; eta alae-beretatik bat ere ez daukala Jaungoikoak aztuta?



7. Zuen buruetako illerañoak, guztiak kontaktuak daude. Argatik Jaungoikoak aztuta idukiko zaituzten beldurrik ez ezazute iduki. Txori askok baño zuek geiago balio dezute.

8. Esaten dizutet bada: Gizonen aurrean aitortzen nauena, gizonaren semeak ere, Jaungoikoaren aingeruen aurrean beretzakotzat ezagutu, eta aitortuko dauela.

9. Bestera, gizonen aurrean ukatzen nauena, Jaungoikoaren aingeruen aurrean ukatua izango da.

10. Baldin inork gizonaren semearen kontra itz egiten badu, bekatu au barkatua izango zaio. Espiritu Santuaren kontra blasfematzen duenari berriz, etzaio barkatuko.

11. Eramaten zaituztenean berriz Sinagogetara, eta majistraduakgana, eta agintariakgana, etzaitezte arduraz egon, nola edo zer erantzun eta esango ote dezuten:

12. Zeren Espiritu Santuak erakutsiko dizuten ordu artan, zer esan bear dezuten.

13. Orduan aditzalleen arteko batek esan zion: Nere anaiari esan zaiozu, neri tokatzen zatan herenziaren zatia eman dizadala.

14. Eta Jesusek erantzun zion: O gizona! Zuen arteko juez, eta partizalle, nork egin nau ni?

15. Eta esan zien: Kontuan zaudete, eta zikoitzasun guzitik alde egin ezazute, zeren gizonaren bizia, dauzkan ondasunen ugaritasunean ez dagoan.

16. Eta parabola au ere esan zien: Gizon aberats batek bere sorotetan uzta txit ugari bat izan zuen.

17. Eta zegoan gogorazioetan bere artean, esaten zuela: Zer egingo det nik, nere gari aleak sartzeko gai dan tokirik ez daukadan onek?

18. Eta atzenean esan zuen: Au da egin bear dedana, Desegingo ditut nere aletokiak, eta andiagoak egingo ditut, eta beretan ipiñiko ditut, bildu ditudan ale guztiak, eta nere ondasunak,

19. Eta orduan nere animari esango diot: O nere anima! Ondasun asko, asko urteetarako gordeak daukazazu, atsedean ezazu, jan ezazu, edan ezazu, eta ongi bizi zaite.

20. Eta Jaungoikoak esan zion: Zentzugabea! Gau onetan eskatuko dizute zure anima, eta, gordeak daukazazu ondasunak, norentzat izango dirade?

21. Au da gertatzen zaiona, bukatu zuen Jesusek, beretzat ondasunak montoitzen dituenari, eta Jaungoikoaren begietan aberatsa ez danari.

22. Eta bere ikaslai esan zien: Etzaitezte arduraz egon, nola biziko zeraten, jango dezutenaren gañean, ez gorputzaren aldamenetik zer jantziko dezuten.

23. Bizitza, geiago da janaria baño; eta gorputza soñekoak baño.

24. Begiratu zaiezute belai, berak ez dute ezerere ereitzen, ez igitaitzen, ez daukate ere janarigelarik, ez aletokirik; eta alaere Jaungoikoak bazkatzen ditu. Orain bada, aiek baño zuek, zenbat geiago balio ez dezute?

25. Eta gañera, zuetatik zeñek, danik asmazio geienakin ere, bere luzeera beso bakar batean ere geitu dezake?

26. Baldin bada gauzarik txikienik ere ez badezakezute egin, zertarako zaudete gañerakoetarako arduratan?

27. Begiratu zaiezute liliai, nola azitzen diran, ez dute lanik egiten, ez iruñtzen. Alaere esaten dizutet, Salomon, bere anditasun guztian ere, etzala egon jantzirik, lore oietatik bat bezela.

28. Baldin bada, gaur kanpoan dagoan, eta biar labera aurtikia dan belar bat, Jaungoikoak ala jantzitzen badu, zenbat geiago zuek, fede gutxiko gizonak?

29. Ala bada etzaitezte egon antsiatuak, jatekoa, edo edatekoa billatzen dezutenean, eta ez ezazute ere zuen gogoak estu eta larri iduki.

30. Zeren gauzaen billan arazotuak dabiltzanak munduko jendeak dirade. Zuen Aitak badaki, oiek bear dituzutela.

31. Argatik, aurrena billatu ezazute Jaungoikoaren erreñua eta bere justizia, eta oiek guziok gañera itsatsita emango zaskizute.

32. Ez daukazute zuek zertan ezereen ere beldurrik iduki, nere artalde txikitxoak, zeren zuen Aita zerukuari ongi iritzi zizaion, betiko erreñua zuei ematea.

33. Saldu itzatzute daukazuten gauza guztiak eta limosnak egin itzatzute. Zartutzen ez diran zizku batzuek egin itzatzute, beñere galtzen ez dan tesoro bat zeruan, nora lapurrak ez diran allegatzen: eta non ez duen sitsak jaten.

34. Zeren non dagoan zuen tesoroa, an egongo da zuen biotza ere.

35. Zaudete, zuen soñekoak gerrian lotuak daukazutela, eta zuen eskuetan argi irazekiak iduki itzatzute.

36. Eta izan zaitezte, beren nagusi, eztaietatik itzultzen danaren zai dauden morroien antzekoak, allegatzen danean, eta atea jotzen duenean, bereala idikitzeke.

37. Doatsuak serbitzari aiek, zeñak nagusiak, datorrenean, bellan arkitzen dituen, egiaz esaten dizutet, berak bere soñekoaren magalak



gerriturik, maiean eserieraziko diela, eta bera berak serbitzen jarriko dala.

38. Eta etorriko balitza bigarren beillan, eta irugarren beillan, eta ala prestatuak arkituko balitu, alako morroiak doatsuak dirade.

39. Ziertotzat iduki ezazute, familiako buruak baleki, zeñ ordutan lapurra etorriko dan, dudarikan gabe beillan egongo litekeala; eta ez lukeala utziko, bere etxea zulatua izaten.

40. Ala zuek ere zaudete beti prestatuak, zeren uste ez dezuten orduan, gizonaren semea etorriko dan.

41. Orduan Pedrok esan zion: Parabola au guri esaten diguzu, ala guztiak?

42. Eta Jaunak esan zion: Zeñ uste dezu dala administratzalle leial eta zentzudun hura, zeñ bere nagusiak bere familiako otseñen burutzat jarri zuen, bakoitzari bere denboran, dagokion gari neurria emateko?

43. Zorionekoa alako serbitzaria, bere nagusiak bere itzulieran, ala egiten duela arkitzen badu.

44. Egiaz esaten dizutet, bere ondasun guztiak bere kontura utziko dituela.

45. Baña baldin morroi ark, bere biotzean esango balu: Nere nagusiari berandututzen zaio etortzea, eta asiko balitza morroiak eta neska-meak jotzen; eta jaten, eta edaten eta moskortzen,

46. Morroi aren nagusia, gutxien uste duen egunean, ta ez dakian orduan etorriko da, eta bere etxetik aurtikiko du, eta morroi desleialaren ordaña emango dio.

47. Eta ala, arako morroi, bere nagusiaren borondatea ezaguturik, alaere gauzak zuzen jarri etzituena, eta bere Jaunaren borondatea egin etzuenak, asko azote artuko ditu.

48. Baña ezagutu gabe, kastiguaren diña diran gauzak egin dituenari, azote gutxi emango zaio. Zeren, askoren kontua eskatuko zaio, asko eman zitzaionari, eta bere kontura asko gauza utzi zitzaionari, kontu geiago eskatuko diote.

49. Ni etorri naiz, lurrean sua ipintzera, eta, zer besterik nai det, baizik irazekia egon dedilla?

50. Odolezko bataio batekin bataiatua izan bear det nik, eta, nola estututzen dan nere biotza, kunplitua ikusi dezadan artean!

51. Uste al dezute, lurrera etorri naizala pakea ipintzera? Ez, baizik bata besteagandik berezitzera, ala esaten dizutet:

52. Alako moduan, non, oraindik egongo dira etxe batean bost elkarren kontra berezituak eta elean, iru biren kontra, eta bi iruen kontra.

53. Aita, semearen kontra egongo da; eta semea, aitaren kontra. Ama, alabaren kontra; eta alaba, amaren kontra. Amagiarraba errañaren kontra; eta erraña amagiarrabaren kontra.

54. Jendetzari ere esan zion: ikusten dezutenean eguzkiaren sartaldetik odei bat jaikitzen dala, bereala esaten dezute: Ekaitzak dauzkagu, eta ala gertatu oi da.

55. Eta ikusten dezutenean Egoeko aizea darabillala, esaten dezute: Bero egin bear du, eta ala egiten du.

56. Hipokritak! Zeruaren eta lurraren iruditik badakizute etorkizunak adiratzten, nola bada Mesiasen denbora au ez dakizute ezagutzen?

57. Edo, nola, zuekgan zerokgan iragotzen danetik, zer dan justoa ez dezute juzgatzen?

58. Zoazanean zure etsaiarekin kerella ipintzera majistraduagana, bidean egin ezazu al dezun guztia, beragandik libratzeko, juezagana indarrez eraman etzaitzan, eta juezak agoazillaren eskuetan jarri etzaitzan, eta agoazillak karzelan sartu etzaitzan.

59. Esaten dizut, atzeneko ardita pagatu dezazun artean, etzerala andik aterako.

## AMAIUGARREN KAPITULUA

1. Denbora onetan beronetan, etorri ziran batzuek, eta kontatu zioten Jesusi, gertatu zitzaiena Galileatar batzuei, zeñaen odola, Pilatosek berak nastu zuen, berak eskeñtzen zituzten sakrifizioetako odolarekin.

2. Eta, erantzuten zuela Jesusek, esan zien: Uste al dezute, Galileatar aiek ziradela, beste Galileatar guztien artean bekataririk andienak, onela kastigatuak izan ziradelako?

3. Ezetz esaten dizutet: eta jakinik iduki ezazute. Zuek guztiok penitentzia egiten ez badezute, guziok batean galduko zeratela.

4. Nola ere arako emezortzi gizon, zeñaen gañera Siloeko dorrea erori zan, eta il ziran. Uste al dezute aiek ziradela, Jerusalem bizi ziraenen artean, pekaturik geien zeukatenak?

5. Ezetz esaten dizutet; eta baldin ez badezute penitentzia egiten, guziok batbatean galduko zerate.

6. Eta gañera, parabola au ere esan zien: Gizon batek zeukan bere mastian piko ondo bat ipiñita; eta etorri zan beragana frutuaren billa, eta etzuen arkitu.

7. Argatik mastizaiari esan zion: ikusten dezu, iru urte diradela, pikuondo onetara natorrela frutuaren billan, eta ez det arkitzen, ebaki ezazu bada, zergatik lurrean alperrik egongo da?





8. Baña berak erantzun zuen: Jauna, oraindikan urte onetan utzi zaiozu; bere ingurua aitzurtua det, eta zimaurrea aurtikiko diot,
9. Ikusteko ala fruturik ematen ote duen, bestela orduan ebakiko dezu.
10. Zegoala Jesus larunbateko egun batean Sinagogan erakutsiak ematen,
11. Ona non etorri zan ara emakume bat, espiritu gaizto batek emaniko gaitz bat, emezortzi urtean zeukana, eta makurtua zebillan, iñolako moduz ere, goirontz begiratu etzitzakeala.
12. Jesusek, ikusi zuenean, beragana ots egin, eta esan zion: Emakumea, zure gaitzetik sendatua gelditzen zera.
13. Eta eskuak bere gañean ipiñi zituen, eta bereala zuzen jarri zan, eta Jaungoikoari eskerrak eta alabantzak ematen ziozkan.
14. Sinagogako agintaria aserreturik, Jesusek emakume au larunbatean sendatu zuelako, erriari esaten zion: Sei egun daude, zeñaetan lanean ari bear dan. Oietan bada atozte sendatuak izatera; baña larunbatean ez.
15. Baña Jaunak, zuzendurik itza beragana, esan zion: Hipokritak! Zuetatik bakoitzak ez al du askatzen ganbelatik bere idia, edo bere astoa, larunbata izan arren, eta ez darama ura edatera?
16. Eta, Abrahamen alaba onek, zeñ, ikusten dezuten bezela, Satana-sek lotuta iduki duen emezortzi urtean, ez al zuen izan bear lokarri oieta-tik askatua larunbateko egunean?
17. Eta itz oietara, bere etsai guztiak lotsatuak gelditu ziran, eta erri guztia bozkariotzen zan berak egiten zituen gauza, gloriáz beteetan.
18. Jesusek esaten ere zuen: Jaungoikoaren erreñua zer gauzaren antzekoa da, edo zerekin berdindu nezake?
19. Da, moztaza ale baten antzekoa, zeñ gizon batek artu zuen, eta bere baratzean erein zuen, zeñ aziaz joan zan, zuaitz andi bat izatera alle-gatu arteraño, alako moduan, non, zeruko egaztiak bere errametan atse-detzen zuten.
20. Eta berriz ere esan zuen: Zer gauzaren antzekoa dala Jaungoiko-aren erreñua, esango det?
21. Da legami baten antzekoa, zeñ artu zuen emakume batek, eta iru iriñ neurritan nastu zuen, ore guztia legamiztatu zan artean.
22. Eta ala, erakutsiak emanaz zijoan erri eta etxadietatik Jerusalem-erako bidean,
23. Eta batek galdetu zion: Jauna, egia ote da gutxi dirala salbatzen diranak? Berak aditzalleai erantzun zien.

24. Ate estetik sartzeko indar andiak egin itzatzute; zeren egiaz esa-ten dizutet, asko sartu naiko dirala, eta ezingo dirala sartu.

25. Eta familiako aita sartzan danean, eta atea itxitzen duenean, kan-poan zaudetela, asiko zerate ots egiten atean, esaten dezutela: Jauna, idiki zaguzu. Eta berak erantzungo dizute: Ez dakit zuek nongoak zeraten.

26. Orduan asiko zerate esaten: Zure aurrean jan, ta edan genduen, eta zuk gure plazaetan predikatzen zenduen.

27. Eta berak, berriz ere esango dizute: Zuek nongoak zeraten ez dakit. Alde egin ezazute nigandik, gaiztakeriaren egille guztiak.

28. An negarra, ta ortzkarraskotsa izango da: ikusten dituzutenean Abraham, eta Isaak, eta Jakob, eta profeta guztiak Jaungoikoaren erreñuan, zuek berriz kanpora aurtikiak zeratela.

29. Eta etorriko dira Sortaldetik, eta Sartaldetik, eta ifarretik, eta Egoetik, eta Jaungoikoaren erreñuko janedanean, maiean eseriko dirade.

30. Eta ona emen orain atzenekoak diradenak, orduan lenbizikoak izango dirade, eta orain lenbizikoak diradenak, orduan izango dirade atze-nekoak.

31. Egun artan beratan etorri ziran Fariseoetatik batzuek, berari esa-tera: irten zaite emendik, eta zoaz beste toki batera, zeren Herodesek il nai zaituen.

32. Eta berak esan zien: Zoazte, eta nere izenean azeri orri esan zaio-zute: Jakin ezazu, oraindikan demonioak aurtiki, ta eriak sendatuko ditu-dala gaurko egunean, eta biar, baña irugarren egunean bukatua naiz.

33. Alaere, ala gaur nola biar, eta etzi, nik nere bideari jarraitu bear diot, zeren ez diteke, profeta batek Jerusalemik kanpora bizia galtzea.

34. O Jerusalem, Jerusalem! Profetak iltzen dituzuna, eta zugana bial-duak diradenai, arrika egiten diezuna! Zenbat alditan nai izan nuen zure semeak biltzea, egaztiak bere kabia bere egoen azpian estalitzen duen bezela; eta zuk ez dezu nai izan!

35. Ona emen non zuen bizilekua, eremutua gelditzera dijoan. Eta esaten dizutet, ez nazutela berriz ikusiko, etorri dedin artean eguna, zeña-tan esango dezuten: Bedeikatua izan dedilla Jaunaren izenean datorrena.

## AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan, sarturik Jesus jatera Fariseoetatik nagusietatiko baten etxean, larunbateko egun batean, berak bere azeloan zeuden.

2. Eta ona non, ugerigaitza zeukan bat bere aurrean zegoan.

3. Eta itzulirik Jesus Legetsu eta Fariseoakgana, esan zien: Zillegi al da larunbatean sendatzea?



4. Eta berak ixillik gelditu ziran. Eta Jesusek, ukiturik ugerigaitzdu-nari, sendatu eta bialdu zuen.
5. Zuzendurik gero berakgana, esan zien: Zuetatik zeñak bere astoa, edo bere idia putzu batera erortzen bazaio, ez du bereala aterako, larun-bateko eguna izan arren ere?
6. Eta etziekiten erantzun.
7. Ikusirik orduan, konbidatuak izan ziranak, maiean lenbiziko eser-tokiak aututzen zituztela, parabola au ipiñi zien, esaten ziela:
8. Eztaietara konbidatua zeranean, lenbiziko tokian etzaite eseri, zu baño andiagoren bat konbidatua egon ez dedin.
9. Eta etoririk gero, zu eta hura konbidatu zinduztena, esan ez diza-zun: Tokia, oni eman zaiozu. Eta orduan, lotsatuta, atzeneko tokira joa-teko premian arkitu etzaitezen.
10. Baizik konbidatua zeranean, zoaz atzeneko tokian jartzera, kon-bidatu zaituana datorrenean, esan dizazun: Adiskidea, gorago igo zaitte. Orduan zurekin batean eseriak daudenen aurrean, onratua izango zera;
11. Zeren goratuzten dan guztia, umillatua izango da, eta umillatzen dana, goratua.
12. Berak kombidatu zuenari ere esaten zion: Bazkariren bat, edo afariren bat ematen dezunean, ez itzatzu konbidatu zure adiskideak, ez zure anaiak, ez aldeko aberatsak. Berak ere zu konbidatu etzaitzaten, eta zure ordaña au izan ez dedin.
13. Baizik jateketaren bat ematen dezunean, konbidatu itzatzu bear-tsuak, erkiak, errenak, eta itsuak,
14. Eta doatsua izango zera, zeren zuri zerekin ordañik eman ez dau-katen, eta onela justoen biztutze berrian ordaindua izango zera.
15. Maiean eserita zeudenetatik batek, oiek aditu zituenean, esan zion: Doatsua, Jaungoikoaren erreñuan ogia jango duena.
16. Eta berak esan zion: Gizon batek afari andi bat prestatu zuen, eta askori ots egin zien.
17. Eta afaritako orduan, bere morroi bat bialdu zuen, konbidatuak zeudenai esatera, etorri zitezela, zeren guztia prestatua zegoan.
18. Eta guztiak batean asi ziran aitzakiak ipintzen. Lenbizikoak esan zion: Basoetxe bat erosi det, eta bera ikustera joan bearra daukat. Erre-gututzen dizut eskusatutzat iduki nazazula.
19. Eta besteak esan zuen: Bost idiuztarri erasi ditut, eta berak pro-batzera noa. Erregutuzten dizut, eskusatutzat iduki nazazula.
20. Eta beste batek esan zuen: Arestian ezkondu naiz, eta argatik ez naiteke etorri.

21. Eta bihurturik morroia, oiek bere nagusiari adirazi zitzaiozkan. Orduan familiako aitak, aserreturik, bere morroiari esan zion: Bereala irten zaitte erriko plaza, eta karrikaetara, eta beartsuak, eta argalak, eta itsuak, eta errenak, onara sartu itzatzu.
22. Eta gero morroiak esan zuen: Jauna, zuk agindu zenduena, egin da; eta oraindikan geiagorentzat ere tokia dago.
23. Eta Jaunak bere morroiari esan zion: irten zaitte bideetara, eta soroetara; eta gogor egin zaiezu sartu ditezen, nere etxea bete dedin.
24. Eta esaten dizutet: Deituak izan ziran gizon aietatik batek ere, nere afaria ez duela probatuko.
25. Eta jendetza andiak Jesusekin zijoazen, eta bihurturik berakgana, esan zien:
26. Baldin nigana iñor ere badator, eta gorrotatzen ez baditu bere aita, eta ama, eta emaztea, eta semeak, eta anaiak, eta arrebak, baita bere bizia ere, nere ikaslea ez diteke izan.
27. Eta bere gurutzea artzen ez duena, eta jarraitzen ez didana, nere ikaslea ez diteke izan.
28. Zeren, zuetatik zeñek, dorre bat egin nai duenean, lendanaz eta astiro ez ditu bere kontuak ateratzen, bukatzeko bear diran gaiak ote dauzkan,
29. Zimenduak jarrita gero; eta bukatu ezin duenean, ikusten duten guztiak berari iseka egiten asi ez ditezen,
30. Esaten dutela: Ona emen gizon bat, dorre bat egiten asi zana, eta bukatu ezin izan duena?
31. Edo zeñ da erregea, beste errege baten kontra gerran egitera joa-teko dagoanean, lendanaz begiratzen ez duena, amar milla gizonekin bidera irten ote datzakioken, ogei millarekin bere kontra datorkionari?
32. Bestela oraindikan bera urrutian dagoela, mandatariak bialduta, erregutuzten dio bien artean pakeak egiteko.
33. Ala bada, zuetatik edozeñ, dauzkan gauza guztiak utzitzen ez dituen, nere jarraitzalea ez diteke izan.
34. Ona da gatza. Baña baldin gatza gezatzen bada, zerekin gazitua izango da?
35. Ez da gai ez lurrerako, ez zimaurtzarako, baizik kanpora aurtikia izango da. Belarriak dauzkanak aditzeko, aditu beza.

## AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Publikano eta bekatariak Jesusgana alderatu oi ziraden, berari adi-tzeko.



2. Eta Fariseo ta Eskribak argatik murmuratzen zuten, esaten zute-la: Begiratu ezazute, nola au bekatariakin adiskidetutzen dan, eta berakin jaten duen,

3. Eta berak orduan ipui au ipiñi zien, esaten ziela:

4. Zeñ da zuetatik, idukirik eun ardi, beretatik bat galdu badu, utziko ez dituena larogeita emeretziak arditokian, eta joango ez dana galdu zanaren billan, aliketa arkitu dezan artean?

5. Eta arkitzen duenean, txit bozkario andiarekin bizkarraren gañean jartzen du,

6. Eta etxera etortzen danean, ots egiten die bere adiskide, eta auzo-koai, esaten diela: Poztu zaitezte nerekin, zeren galdu zitzadan nere ardia, arkitu dedan.

7. Ala, esaten dizutet, bozkario geiago egongo dala zeruan, penitencia egiten duen bekatari batgatik, penitentiaren premiarik ez daukaten larogeita emeretzi justogatik baño.

8. Edo, zeñ emakumek, idukirik amar drakma, bat galtzen badu, ez al du argia irazekitzen, eta ez al du etxea ongi garbitzen, eta ez al du gutzia aratutzen, aliketa arkitu dezan artean?

9. Eta arkitzen duenean, bere adiskide eta auzoetakoai ots egiten die, esaten diela: Poztu zaitezte nerekin, zeren, galdu nuen drakma, arkitu dedan?

10. Ala nik esaten dizutet, Jaungoikoaren aingeruak jostaketan ariko diradela, penitencia egiten duen bekatari batgatik.

11. Baitaere esan zuen: Gizon batek bi seme zeuzkan,

12. Zeñatetik gazteenak bere aitari esan zion: Aita, dagokidan heren-ziaren partea, eman zadazu. Eta aitak bien artean hazienda partitu zuen.

13. Askok egun irago baño lenago, semerik gazteena, bere gauza guztiak bildurik, alderri txit urrutiko batera joan zan, eta an, zeukan guztia gaizki gastatu zuen, zabarkiro bizitza iragotzen zuela.

14. Eta gauza guztiak gastatu zituenean, alderri artara gosete andi bat etorri zan, eta bera ere asi zan premia idukitzen.

15. Argatik jarri zan alderri artako andizki nagusi baten morroitzen, zeñak basoko etxe batera txerriak zaitzera bialdu zuen.

16. Eta txerriak jaten zituzten garrobakin, bere sabela bete nai zuen, eta iñork ere etziozkan ematen.

17. Eta beragan bihurturik, esan zuen: Ai, zenbat alogerekok nere aitar-eren etxean ogia ugari daukaten; ni berriz emen goseak iltzen nago!...

18. Eta esan zuen: Jaiki bear naiz, eta joango naiz nere aitagana, eta esango diot: Aita, bekatu egin det zeruaren kontra, eta zure kontra.

19. Onezkero zure semearen izenaren diña ez naiz, eta ala zure alogerekoetatik bat bezela iduki nazazu.

20. Eta jaikitzen zala, bere aitagana etorri zan. Oraindik urrutian zegoala, bere aitak ikusi zuen, eta urrikaldu zan, eta korrika joanik berari bidera irtetzera, laztandu zuen eta musu eman zion.

21. Eta semeak esan zion: Aita, bekatu egin det zeruaren kontra, eta zure kontra. Onezkero zure semearen izenarekin ots egiña izateko diña ni ez naiz.

22. Baña aitak bere morroia esan zien: Ekarrri ezazute agudo soñe-korik onena, eta jantzi zaiozute; eta errastuna bere beatzean, eta zapatak bere oñetan ipiñi zaiozkazute.

23. Eta ekarrri ezazute txal gizendu bat, eta il ezazute, eta jan dezagun, eta jateketa andi bat egin dezagun.

24. Zeren nere seme au illa zegoan, eta biztu da. Galdu zan, eta arkitua izan da. Eta jateketa asi zuten.

25. Garai artan bere seme zarra kanpoan zegoan, eta etorri zanean, eta alderatu zanean bere etxera, musika soñua, eta dantzaren otspea aditu zituen.

26. Eta morroietatik bati ots egin zion, eta galdetu zion, aiek zer ote ziran.

27. Eta berak esan zion: Zure anaia etorri da, eta zure aitak txal gizendu bat il du, osasun onarekin arkitu duelako.

28. Oiek adituta, aserretu zan, eta etxean etzan sartu nai. Orduan bere aita irten zan, eta erreguak egiten asi zitzaion.

29. Baña berak, erantzuten zuela, bere aitari esan zion: Ona non nik anbeste urtean serbitzen zaitudan; eta zuk agindutako gauzarik batere ez det, egin gabe utzi, eta alaere, beñere ez didazu antxume bat bederik eman, nere adiskideakin jan nezan.

30. Eta orain, etorri danean zure seme au, zeñak bere ondasun guztiak bordionakin galdu dituen, bereala beretzat txal gizendu bat il dezu.

31. Ene semea, erantzun zuen aitak, zu beti nerekin zaude, eta nere ondasun guztiak zureak dirade.

32. Baña jateketa egitea eta jostaketan aritutzea gauza bearra zan, zeren zure anaia au illa zegoan, eta biztu da, galdu zan, eta arkitu da.

## AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Bere ikaslai ere Jesusek esaten zien: Bazan gizon aberats bat, bere ondasunen begirale bat zeukana, eta jendeen esanetatik aditu zuen, bere ondasunak galdu ziozkala.



2. Ots egin zion bada, eta esan zion: Zer da zugatik aditzen dedana? Eman zazkidazu kontuak nere gauzakgatik begiratzearen gañean, zeren ez dedan nai emendik aurrera, nere ondasunen begiralea zu izan zaitezela.

3. Orduan nagusiaren ondasunen begiraleak bere artean esan zuen: Zer egingo det, bada nere nagusiak kentzen dit bere ondasunen begirale-tza? Aitzurtzean ez naiteke ari, eskaletzan ibiltzen lotsa naiz.

4. Baña badakit zer egingo dedan, nagusiaren ondasunen begirale-tzatik kentzen nautenean, arkitu ditzadan nik beren etxeetan artuko nau-tenak.

5. Ots eginik bada bere nagusiaren zordunai, bakoitzari berezian, lenbizikoari esan zion: Nere nagusiari zenbat zor diozu?

6. Eta berak esan zuen: Eun lusull olio. Esan zion ark: Ar zazu zure agiria, eseri zaite, eta berrogeita amarreko bat egin ezazu,

7. Gero beste bati esan zion: Eta, zuk zenbat zor diozu? Erantzun zuen: Eun zama gari. Esan zion: Ar zazu zure agiria, eta larogeiko beste bat eskribitu ezazu.

8. Eta nagusiak bere ondasunen begirale gaizto au alabatu zuen, somaz ibilli zalako; zeren mundu onetako semeak beren gauzaetan, soma geiagorekin ibilli oi diran, argiaren semeak baño.

9. Ala nik zuei esaten dizutet: Egin itzatzute adiskideak aberastasu-nakin, zeñ diran gaiztakeriako jatorriak, iltzen zeratenean, betiko bizile-kuetan artuak izan zaitezten.

10. Gutxian leiala dana, askoan ere leiala izango da, eta gutxian gaiz-toa dana, askoan ere gaiztoa da.

11. Gezurrezko aberastasunetan leialak izan ez bazerate, egjazkoak nork emango dizkizute?

12. Eta inõorenean leialak izan ez baziñaten, zuena dana zuen eskue-tan, nork ipiñiko du?

13. Ez dago morroirik, bi nagusi serbitu ditzakeanik, zeren bat gorro-tatuko du, eta maitatuko du bestea; edo bataren adiskide izango da, eta bestea mezpreziatuko du. Jaungoikoa eta aberastasunak ez ditzakezute serbitu.

14. Eta gauza guzti oiek aditzen zituzten Fariseoak, zeñak diru zaleak ziraden, eta irri egiten zioten.

15. Eta Jesusek esan zien: Zuek zerate, gizonen aurrean justotzat ira-gotzen zeratenak; baña Jaungoikoak zuen biotzak ezagutzen ditu, zeren gizonen begietan gauza goratua dana, Jaungoikoaren aurrean nazkagarria da.

16. Legeak eta profetak Juaneraño iraun dute. Andik onara Jaungoi-koaren erreñua adirazia da, eta guztiak an indarrez sartzen dirade.

17. Errazago da zeruak eta lurra galduak izatea, legearen izpi bakar bat kunplitu gabe gelditzea baño.

18. Bere emaztea utzi, eta beste batekin ezkontzen dan guztiak, adul-terioko bekatua egiten du, eta bere senarrak utziarekin ezkontzen danak ere, adulterioko bekatua egiten du.

19. Bazan gizon bat, aberatsa, purpuraz eta lino txit finez jantzitzen zana, eta egunoro galanki jaten zuena.

20. Eta denbora artan beratan bizi zan gizon eskale bat, Lazaro izena zuena, zeñ zauriz betea zegoala, onen atean etzinik egon oi zan,

21. Aberatsaren maietik erortzen ziran ogi apurrakin asetzea nai zuela; baña inõork ere etziozkan ematen, txakurrak berriz etortzen ziran, eta zauriak miartzten ziozkatzen.

22. Gertatu zan bada, esan dan gizon eskalea iltzea, eta aingeruak Abrahamen tokira eraman zuten. Aberatsa ere il zan, eta infernuan obi-ratua izan zan.

23. Eta oñazeetan zegoala, jasotzen zituela bere begiak, urrutitik ikusi zuen Abraham, eta Lazaro bere tokian.

24. Eta berak deadar egin zuen, esaten zuela: Nere aita Abraham, nerekin urrikaldu zaite, eta Lazaro bialdu zadazu, bere beatzaren punta urean bustita, mingaña freskatu dizadan, zeren gar oietan kiskalitzen naiz.

25. Eta Abrahamek esan zion: Ene semea, oroitu zaite zure bizitzan ordañak artu ziñituela, eta Lazarok kontrara gaitzak, eta orain au gozatua da, eta zu oñazetua.

26. Gañera, zuen eta gure artean lize ondogabeko bat dago, alako moduan, non, emengoak nai balute zuekgana irago, ezingo litezke; ezta ortik onara ere etorri.

27. Eta esan zuen aberatsak: Erregututzen dizut, o Aita, nere aitaren etxera bialdu dezazula,

28. Non bost anaia dauzkadan, kontuan ipiñi ditzan, berak ere oña-zeen toki onetara etorri ez ditezen.

29. Eta Abrahamek esan zion: Badauzkate Moises eta profetak, aditu bizaie.

30. Eta berak esan zuen: Ez, Aita Abraham, baizik ildakoren bat berakgana joaten bada, penitenzia egingo dute.

31. Eta Abrahamek erantzun zion: Moisesi, eta profetai aditzen ez badie, illetatik bat biztutzen bada ere, ez diote sinisterik emango.



## AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta bere ikaslai ere egun batean esan zien: Ez dateke eskandaluak ez etortzea, baña, ai! beragatik eskandalua datorrenaren zorigaitzokoa.

2. Gaitz txikiagoa izango zan beretzat, errotarri bat bere lepoaren inguruan jarri, eta itsasora aurtikia izatea; txikitxo oietatik bat eskandalizatzea baño.

3. Begiratu ezazute bada zuekgatik. Zure anaiak zure kontra bekatu egingo balu, errierta egin zaiozu, eta damututzen bazaio, barkatu zaiozu.

4. Egunean zazpi alditan zure kontra bekatu egiten badu; eta egunean zazpi alditan zugana itzultzen bada, esaten duela: Damutua nago, barkatu zaiozu.

5. Eta orduan Apostoluak Jaunari esan zioten: Fedea geitu zaguzu.

6. Eta Jaunak esan zien: idukiko bazendute, moztaza aletxo bat bezin andia dan fedea, masusta abe orri esango diozute: Sustraitik atera adi, eta jarri adi itsasoan, eta obedituko dizute.

7. Zeñ da zuen artean idukirik morroi nekazari bat, edo artzai bat, kanpotik datorrenean bereala esango diona: Atoz, maiean eseri adi:

8. Eta bestera esango ez diona: Afaria prestatu ezak, lotu ezak gerria, eta serbitu nazak, nik jaten eta edaten dedan artean, zeren ik gero jan, ta edango dek.

9. Alako morroiak bere nagusiari berarizko mesederen bat egin al izango dio, agindu ziona egin zuelako?

10. Uste det ezetz. Ala zuek ere, agindu zazkizuten gauza guztiak egin dituzutenean, esan ezazute: Morroi ezertarako gaiezak gera, ez degu egin besterik, egin bear genduen baizik.

11. Eta gertatu zan, zijoala Jesus Jerusalemenerontz, Samaria eta Galilearen erditik iragotzen zan.

12. Eta erri batean sartzera zijoala, bidera irten zitzaiozkan amar gizon sarnadun, zeñak urrutian gelditu ziran.

13. Eta boz goratuarekin itz egin zuten, esaten zutela: Jesus, gure Erakuslea, gurekin urrikaldu zaitte.

14. Jesusek ikusi zituenean, bereala esan zien: Zoazte, apaizai agertu zatzakie. Eta gertatu zan, bazijoazela, sendatuak gelditu ziran.

15. Eta beretatik bat, ikusi zuenean garbitua gelditu zala, atzera itzuli zan, boz goratuakin Jaungoikoa alabatzen zuela,

16. Eta Jesusen oñetan auzpeztu zan, eskerrak ematen ziozkala, eta au berez Samariarra zan.

17. Eta Jesusek, erantzuten zuela, esan zuen: Amar ez al dira sendatu diranak? Eta, bederatzia, non dira?

18. Ez da arkitu, atzera biurtu, eta Jaungoikoari gloria eman dionik, arrotz au baizik.

19. Eta gero esan zion: Jaiki zaitte, zoaz, zure fedea salbatu zaitu.

20. Eta Fariseoak galde au egin zioten: Jaungoikoaren erreñua noiz etorriko ote da? Erantzuten ziela, esan zien: Jaungoikoaren erreñua otspearekin ez da etorriko.

21. Ez dute ere esango: Ona emen, edo orra an. Baizik ziertotzat iduki ezazute, Jaungoikoaren erreñua zuen erdian dagoala.

22. Eta bere ikasleai esan zien: Etorriko da denbora, zeñatan naiko dezuten ikusi gizonaren semearen egunetatik bat, eta ez dezute ikusiko.

23. Orduan esango dizute: Ona emen, eta orra an. Etzaitzete joan, eta etzaiezute ere jarraitu.

24. Zeren nola tximistak argi egiten duen, eta zeruaren aldamen batek besteraño ikusten dan argiz betea, gizonaren semea, bere egunean ala ikusiko da.

25. Baña lenago berak asko irago bear du, eta izan bear du giza arraza onek utzia.

26. Noeren egunetan gertatu zana, gizonaren semearen egunetan ere, orobat gertatuko da:

27. Jaten eta edaten ari ziran, ezkontzen ziran, eta ezkontzetarako emanak ziran, Noe kutxan sartu zan eguneraño, eta etorri zan ugoaldea, eta guztiak galdu zituen.

28. Nola Loten egunetan ere gertatu zan: Sodomako, eta Gomorra-koak jaten eta edan zuten, landarak ipintzen zituzten, eta etxeak egiten zituzten.

29. Baña Lot Sodomatik irten zan egunean, suzko ta sufrezko euria zeruak egin zuen, zeñak guztiak erre zituen.

30. Onelakoa izango da, gizonaren semea agertuko dan eguna.

31. Ordu artan Sabaian dagoana, eta etxearen barrenen etxeko tresnak dauzkana, berak artzera ez bedi jetxi, eta kanpoan dagoena ere, ez bedi atzera itzuli.

32. Loten emaztearekin oroitu zaitzete.

33. Bere bizia salbatu nai duen guztiak, galduko du: eta galtzen duenak, gordeko du.

34. Gauza bat esaten dizutet: Gau artan oe batean bi egongo dirade. Bata izango da artua, eta bestea utzia.

35. Bi emakume batean eta elkarrekin eotzen ariko dira. Bata izango da artua, bestea utzia. Bi gizon egongo dira kanpo batean; bat izango da artua, eta bestea utzia.





36. Berak, erantzuten zutela, esan zuten: Non Jauna?  
 37. Jesusek erantzun zien: Gorputza dagoan edozeñ tokitan, agilak ere an bilduko dira.

### EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Esaten ere zien parabola au, adirazteko, beti egon bear dala orazioan, eta ez dala bear desalaitu.
2. Esaten zuela: Bazegoan erri batean juez bat, Jaungoikoaren beldurrik etzeukana, ezta gizonen begirunerik ere.
3. Erri artan beratan bizi zan andre alargun bat, eta au joan oi zan beragana, esaten zuela: Nere etsaiaren kontra justizia egin zadazu.
4. Baña juezak denbora luzean etzion egin nai. Gero berriz bere artean esan zuen: Jaungoikoaren beldurrik, ez gizonen begirune ta errespetorik nik ez badaukat ere,
5. Alaere andre alargun onek pakean utzi dizadan justizia egingo diot, maiz etorri ez dedin, neri burua ausitzera.
6. Ona, esan zuen Jaunak, juez gaizto orrek esan zuena.
7. Eta, uste al dezute, Jaungoikoak utziko diela justizia egin gabe, bere autu, gau ta egun berari deadarrez eskatzen dienai, eta utziko duela, mendean idukiak izan ditezela?
8. Esaten dizutet, beren bengantza laster artuko duela. Baña, gizonaren semea datorrenean, uste al dezute, lurrean federik arkituko duela?
9. Esan ere zien, justoak balirade bezela berakgan itxedotzen zuten, eta gañerakoak mezpreziatzen zituzten gizon batzuei, parabola au:
10. Bi gizon tenplora igo ziran orazio egitera: bata Fariseoa, bestea publikanoa.
11. Fariseoak zutik jarrita, bere barrenen onela orazio egiten zuen: O nere Jaungoikoa! Eskerrak ematen dizkizut, ez naizalako beste gizonak bezelakoa, zeñak diran lapurrak, gaiztoak, adulteroak, publikano au bezelakoa ere ez naizalako.
12. Astean bi alditan barau egiten det, dauzkadan gauza guztien amarrak pagatzen ditut.
13. Eta publikanoak urrutitikan jarrita, begiak ere etzituen zerura jaso nai; baizik bere bularra jotzen zuen, esaten zuela: O nere Jaungoikoa! Urrikaldu zaite nerekin, bekatari andi bat naizan onekin.
14. Esaten dizutet bada, au bere etxera justotuta biurtu zala; baña ez bestea, zeren goratutzen dan guztia, umillatua izango dan; eta umillatzen dana, goratua izango dan.

15. Aur batzuek ere ekartzen ziozkaten, ukitu zizaien. Eta ikusirik au ikasleak, itz garratzakin galerazitzen zien.
16. Eta Jesusek, ots eginik aurrari, bere ikaleai esan zien: Utzi zaiezu aurrari, nigana etorri ditezela, zeren Jaungoikoaren erreñua alakoena dan.
17. Egiaz esaten dizutet: Artzen ez duena Jaungoikoaren erreñua aur batek bezela, ez da bertan sartuko.
18. Eta prinzipa batek galdetu zion; esaten ziola: Erakusle ona, zer egin dezaket nik, betiko bizitza iritxitzeko?
19. Eta Jesusek esan zion: Zergatik ona esaten didazu? Ez dago onik Jaungoikoa bakarrik baizik.
20. Aginteak badakizkizu: Ez dezu iñor ere ilko, ez dezu aragizko bekatarik egingo, ez dezu lapurretarik egingo, gezurrezko testigantzarik ez dezu emango, zure aita eta zure ama onratu itzatzu.
21. Berak esan zuen: Oiek guziok nere gazte denboratik zaitu ditut.
22. Aditurik au, Jesusek esan zion: Oraindikan gauza bat bear dezu: Saldu itzatzu dauzkazun gauza guztiak, eta beartsuai eman zazkiezu; eta zeruan tesoro bat idukiko dezu, eta gero atoz, darraidazu.
23. Bera, oiek aditurik, tristetu zan, zeren zan txit aberatsa.
24. Eta Jesusek, ikusirik tristetua zegoala, esan zuen: Zer gauza gaitza dan, dirutsuak zeruetako erreñuan sartzea!
25. Errazago da, gamelu bat jostorraz baten begitik iragotzea, aberats bat Jaungoikoaren erreñuan sartzea baño.
26. Eta aditzen ziotenak, esan zuten: Zeñ da salbatu ditekera?
27. Jesusek esan zien: Gizonak egin ez dezaketena, Jaungoikoak badezake.
28. Orduan Pedrok esan zion: Ona non guk gauza guztiak utzi ditugun, eta jarraitu dizugun.
29. Jesusek esan zien: Egiaz esaten dizutet, ez dagoala iñor ere utzi dituenik etxea, edo gurasoak, edo anaiak, edo emaztea, edo semeak, Jaungoikoaren erreñuagatik,
30. Artu ez duenik asko geiago mundu onetan, eta bestean betiko bizitza.
31. Gero arturik Jesusek berezian amabi Apostoluak, esan zien: ikusten dezute, nola igotzen geran Jerusalemenera, non kunplutuko diran, profetak gizonaren semearen gañean eskribitu zituzten gauza guztiak.
32. Zeren izango dan jarria jentillen eskuetan, eta isekatua, eta azotatua, eta istuz betea.
33. Eta azotatua izanda gero, ilko dute, eta irugarren egunean biztuko da.





34. Baña berak gauza oietatik batere etzuten konprenditu, baizik zan berentzat au, izketa ezezagun bat, eta etzuten ezagutzen, esanak izan ziezten itzak zer adirazten zuten.

35. Eta Jerikora alderatu zanean, gizon itsu bat bidearen ondoan eseria zegoan, limosna eskatzen.

36. Eta iragotzen zan jendetzaren otspea aditurik, zer ote zan galde-tzen zuen.

37. Eta esan zioten, Jesus Nazaretkoa andik bidez iragotzen zala.

38. Eta bereala asi zan deadarrez, esaten zuela: Jesus, Dabiden semea, nizaz erruki zaite.

39. Aurretik zijoazenak errierta egiten zioten, ixildu zedin. berak berriz deadar andiagoakin esaten zuen: Dabiden semea, nizaz erruki zaite.

40. Gelditu gan orduan Jesus, eta agindu zuen, bere aurrera ekarri zizaiela. Eta alderatu zizaionean, galdetu zion,

41. Esaten ziola: Zer nai dezu nik egin dizazudan? Eta berak erantzun zuen: ikustea, Jauna.

42. Eta Jesusek esan zion: Begietako argitasuna artu ezazu: Zure fedea salbatu zaitu.

43. Eta bereala ikusten zuela gelditu zan, eta jarraitu zion, Jaungoikoaren anditasunak zelebrazten zituela. Eta erri guztiak, oiek ikusi zitue-nean, Jaungoikoa alabatzen zuen.

### EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta sarturik Jesus Jerikon, bazebillan erritik.

2. Eta ona emen non gizon aberats, publikanoen arteko andizki, Zakeo izena zuen batek,

3. Nai zuen ikustea Jesus, zeñ ote zan, eta ezin zuen jendetzagatik, zeren txit txikia zan.

4. Eta korrika aurrera joanik, pikoar baten gañera igo zan, Jesus ikusteko, zeren andikan iragoko zan.

5. Eta allegatu zanean Jesus toki artara, jasorik begiak, begiratu zion, eta esan zion: Zakeo, agudo jetxi zaite, zeren gaur zure etxean ostatuz gelditu bear naizan.

6. Eta bera agudo jetxi zan, eta bozkarioz artu zuen.

7. Au ikusita, guztiak murmuratzen zuten, esaten zutela: Gizon bekatari baten etxera ostatuz joan zala.

8. Eta Zakeok, jarriarik Jaunaren aurrean, esan zion: Jauna, nere ondatsunen erdia, beartsuai ematen diet; eta baldin iñori ezer ostu badiot, biur-tzen diot lau alditan anbat.

9. Jesusek esan zion: Ziertoro gaurko eguna etxe onentzat salbazio-ko eguna izan da, zeren au ere, Abrahamen fedearen semea da.

10. Zeren gizonaren semea, galdu zana billatu eta salbatzera etorri da.

11. Aiek gauza oiek aditzen zituztela, gañera parabola bat ere esan zuen, Jerusalem ondoan, zegoalako, eta uste zutelako Jaungoikoaren erreñua bereala agertuko zala.

12. Esan zuen bada: gizon jaiotzaz argitsu bat, joan zan toki urruti batera, erreñu bateko agintaritzartu, eta gero biurtzeko.

13. Eta ots eginik bere amar morroiak, amar mna zillarrezko eman ziozkaten, eta esan zion: Merkataritzan ari zaitezte, etortzen naizan artean.

14. Erri aietakoak berriz gorroto zioten: eta bere ondorik mandatar-riak bialdu zituzten, esaten zutela: Ez degu au nai gure erregetzat.

15. Eta biurtu zanean, erreñuko agintaritzartuta, agindu zuen ots egiteko bere morroiak, zeñai bere dirua eman zion, bakoitzak zenbat irabazi zuen jakiteko.

16. Etorri zan bada lenbizikoa, eta esan zuen: Zure mnarekin, amar mna irabazi ditut.

17. Eta berak esan zion: Ongi dago, morroi ona; gauza gutxian leiala izan zeralako, amar errien gañean agintaritzartu idukiko dezu.

18. Eta beste bat etorri zan, esaten zuela: Jauna, zure mnak bost mna irabazi ditu.

19. Eta oni ere esan zion: Zuk ere bost erritako agintaritzartu idukiko dezu.

20. Beste bat etorri zan, eta esan zuen: Jauna, ona emen non dauka-zun zure mna, zapi batean gordea iduki dedana,

21. Zeren zure beldur izan naizan, gizon moldakaitza zeralako. Artzen dezu, ipiñi etzenduena, eta igitaitzen dezu, erein etzenduena.

22. Nagusiak esan zion: ire aotik juzgatzen aukat morroi gaiztoa. Zuk baziniekien, ni gizon estuegia nintzala, ipiñi ez nuena eramaten dedala, eta erein ez nuena, igitaitzen dedala.

23. Zergatik ipiñi etzenduen bada nere dirua irabazian, nik, itzultzen nintzanean, irabaziakin eskatu nezan?

24. Eta an zeudenai esan zion: Kendu zaiozute mna, eta amar mna dauzkanari eman zaiozute.

25. Eta esan zioten: Jauna, amar mna dauzka.

26. Nik esaten dizutet, daukan guztiari emango zaiola, eta aberastu-ko da; ez daukanari berriz, daukana ere kenduko zaio.

27. Nere etsai, erregetzat ezagutu izan nai ez nautenen gañean berriz, onara ekarri zaxkidazute, eta nere aurrean il itzatzute.



28. Eta oiek esanik, Jesusek jarraitu zion bere bideari Jerusalemenerantz, eta bera guzien aurretik zijoan.
29. Eta gertatu zan, alderatu zanean Betfaje eta Betaniara, Oliboena ots egiten zaion mendiaren ondoan, bere ikasleetatik bi bialdu zituen,
30. Esaten ziela: Zoazte, aurkez dagoan etxadi orretara, non sartzen zeratenean arkituko dezute lotuta asto eme baten umea, zeñaien gañera beñere ez dan gizonik igo. Askatu ezazute, eta ekarri ezazute.
31. Eta baldin iñork galdetuko balizute, esaten dizutela: Zergatik askatzen dezute? Onela esango diozute: Zeren Jaunak bera bear duen.
32. Joan ziran bada, bialduak izan ziranak, eta arkitu zuten astoa, berak esan zien bezela.
33. Eta askatuten ari ziradela, bere jabeak esan zien: Zergatik askatzen dezute asto ori?
34. Eta berak erantzun zien: Jaunak bear duelako.
35. Eraman zuten bada Jesusgana. Eta beren soñekoak aurtikitzen zituztela astoaren gañera, Jesusi gañera igoerazi zioten.
36. Eta bera aurrera zijoala, beren soñekoak bidean zabaltzen zituzten.
37. Eta Oliboen mendiaren jexierara alderatu ziradenean, ikasle talde guztiak bozkarioz asi ziran Jaungoikoa alabatzen boz goratuan, ikusi zituzten mirari guztiak gatik,
38. Esaten zutela: Bedeikatua izan dedilla, Jaunaren izenean datorren erregea; pakea zeruetan, eta gloria zeruen gorenetan.
39. Onegatik jendetzaren artean zijoazen Fariseo batzuek, esan zioten: Erakuslea, zure ikasleai errieta egin zaiezu.
40. Zeñai berak erantzun zien: Egiaz esaten dizutet, oiek ixilduko balirade, arriak deadar egingo dutela.
41. Eta Jerusalemenera alderatu zanean, ikusirik erria, negar egin zuen beragatik, esaten zuela:
42. Ah! Zuk ere ezagutuko bazeneza, emana izan zatzun egun one-tan bederik, zerk pakea ekarri lizakezun; baña orain guztia dago zure begietatik ezkutatua.
43. Damu ematekoa da, etorriko diradela zure gañera egun batzuek, zeñatan zure etsaiak lutesiz ingurutuko zaituzten, eta inguruan jarriko zazkizu, eta aldamen guztietatik estutuko zaituzte.
44. Eta lurrera aurtikiko zaituzte zu, eta zure seme, zuga daudenak, eta ez dute zuga arriaren gañean utziko, Jaungoikoak bisitatu zaituen denbora ez dezulako ezagutu.
45. Eta sarturik tenploan, asi zan kanpora aurtikitzen, bertan saltzen eta erosten ari ziradenak,

46. Esaten ziela: Eskribatua dago: Nere etxea, orazioko etxea da; zuek berriz, lapurren koba egiña daukazute.
47. Eta egunoro tenploan erakutsiak ematen zituen. Apaizen buruak berriz eta Eskribak, eta erriko andizkiak, bera galtzeko eraren billan zebiltzan.
48. Eta etzuten arkitzen, bere kontra ezerere egiteko erarik. Zeren erri guztia, berari aditzen, aoa zabalik zuela, zegoan.

## OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan egun aietatik batean, zegoala bera tenploan erriari erakutsiak ematen, eta Ebanjelioa adiratzten, Apaizburuak eta Eskribak, zarrakin bildu ziran,
2. Eta galde au egin zioten: Esan zaguzu, zer eskubiderek gauza oiek egiten dituzu? Edo, zeñ da, zuri eskubide au eman zizuna?
3. Eta Jesusek, erantzuten ziela, esan zien: Nik ere galde bat egingo dizutet. Erantzun zadazute.
4. Joanen bataioa zan zerutiko gauza, ala gizonetatikoa?
5. Eta berak beren artean gogorazioak zeranbiltzkiten, esaten zutela: Erantzuten badegu zerutikoa zala, esango digu: Zergatik bada beragan etzenduten sinistu?
6. Eta esango bagiño gizonetatikoa zala, erri guztiak arrika egingo digu, zeren ziertotzat daukaten, Juan profeta bat zala.
7. Eta ala erantzun zuten, etziek itela nongoa zan.
8. Eta Jesusek esan zien: Nik ere ez dizutet esaten, zer eskubiderek gauza oiek egiten ditudan.
9. Andikan laster asi zan esaten erriari parabola au: Gizon batek ipiñi zuen masti bat, eta gizon batzuei errentan eman zien, eta bera denbora luzeetarako urrutira joan zan.
10. Bere denboran bialdu zuen morroi bat maizterrakgana, mastiaren frutuari zegokiona eman zizaien. Baña berak, gaizki tratatuta, esku utsakin bialdu zuten.
11. Berriz beste morroi bat bialdu zuen; baña au ere, otsak emanda, eta isekaz bete, ezerere gabe bialdu zuten.
12. Oraindikan ere beste bat bialdu zien; baña au ere zauritu zuten, eta bota zuten kanpora.
13. Mastiaren jabeak orduan esan zuen: Zer egingo ote det onezkeror? Nere seme maitea bialduko det. Noaski, ikusten dutenean, errespetoz begiratuko diote.



14. Baña maizterrak, ikusi zutenean, gogorazioetan jarri ziran beren artean, esaten zutela: Au primua da, il dezagun, azienda guretzat izan dedin.

15. Eta, aurtikirik mastitik kanpora, il zuten. Orain bada, mastiaren jabeak berakin, zer egingo ote du?

16. Etorriko da bera, eta maizter oiek galduko ditu, eta beste batzuei mastia emango die. Au aditurik, berak esan zuten: Jaungoikoak laketu ez dezala.

17. Eta Jesusek, berai begiratuta, esan zuen: Zer esan nai du bada eskribitua dagoanak: Etxe egilleak gaiztotzat bota zuten arria, au bera kantoiko arri nagusia izatera etorri zan?

18. Arriaren gañera erortzen dan guztia, zatitua izango da, eta bera gañera erortzen zaiona, piskatua geldituko da.

19. Baita apaizburuak eta Eskribak, eskuak egotzi nai ziozkaten ordu artan, zeren ezagutu zuten, beren kontra zuzentzen zala parabola hura: baña erriaren beldur ziran.

20. Bitartean, nola azeloan zebiltzan, zelatariak bialdu zituzten, onak zirala iruditzen zutela, itzen batean arrapatzeko, onela gobernariaren agindupe, eta eskubidearen mendean ipintzeko.

21. Eta galdetu zioten esaten zutela: Erakuslea, badakigu zuk zuzen itz egin, eta erakutsiak ematen dituzula, eta ez dezula begiratzen zeñ zeñ dan, baizik Jaungoikoaren bidea, egiaren araura erakusten dezula.

22. Zillegi al zagu Zesarri kotiza ematea, ala ez?

23. Baña Jesusek, ezagaturik beren gaiztakeria, esan zien: Zergatik tentatzen nazute?

24. Erakutsi zadazute diru bat, zeñen irudia, eta zeñen letrak dauzka? Erantzuten zutela, esan zioten: Zesarrenak.

25. Orduan berak esan zien: Eman zaiozute bada Zesarri, Zesarrena dana, eta Jaungoikoari, Jaungoikoarena dana.

26. Eta bere erantzuteagatik, berari erriertarik ezin egin izan zioten erriaren aurrean, eta bere erantzutearekin mirarituta, ixillik gelditu ziran.

27. Alderatu ziraden gero Sadduzeoetatik batzuek, zeñak ukatzen duten biztutze berria, eta galdetu zioten,

28. Esaten zutela: Erakuslea, Moisesek eskribituta utzi zigun, norbaiten anaia ezkondata egon da, semerik utzi gabe ilko balitza, onen anaia ezkondu dedilla aren emaztearekin, eta bere anaia jatorria eman dizaiola.

29. Baziran bada zazpi anaia: lenbizikoak emaztea artu zuen, eta semerik gabe il zan.

30. Eta urrengoak artu zuen lenbizikoaren emaztea; eta au ere semerik utzi gabe il zan.

31. Eta irugarrena ezkondu zan lenbiziko bien andre alargunarekin. Orobat zazpirak ere; eta jatorririk utzi gabe il ziran.

32. Atzenean senar guztiak il, eta gero, andrea ere il zan.

33. Biztutze berrian bada, beretatik zeñaena, emaztea izango da? Zeren zazpiren emaztea izan zan.

34. Eta Jesusek esan zien: Gizaldi onetako semeak elkarrekin ezkontzak egiten dituzte.

35. Beste gizaldiaren, eta illen artetik biztutze berriaren diñatzat dau-denak berriz, ez gizonak artuko dute emazterik, ez emazteak gizonik.

36. Zeren onezkero ez litezke berriz il, zeren aingeruakin berdiñak, eta Jaungoikoaren semeak diran, biztutze berriaren semeak izanik.

37. Illak biztuko dirala berriz, Moisesek erakutsi zuen, sasiaren ondolan zegoala, Jaunak esan zionean: Ni naiz Abrahamen Jaungoikoa, eta Isaak-en Jaungoikoa, eta Jakoben Jaungoikoa.

38. Jaungoikoa berriz ez da illena, biziena baizik, zeren beretzat guztiak bizi diran.

39. Eta Eskribaetatiko batzuek, erantzuten ziotela, esan zioten: Era-kuslea, ongi erantzun dezu.

40. Eta andikan aurrera etziran azartzen ezerere galdetzen.

41. Berak berriz esan zien: Nola esaten dute, Kristo Dabiden semea dala?

42. Zeren Dabidek berak Salmoen liburuan esaten du: Jaunak nere Jaunari esan zion; nere eskuitik eseri zaite,

43. Aliketa zure etsaiak nik jarri ditzadan artean zure oñen aulki eginik?

44. Baldin bada Dabidek bere Jauna ots egiten badio, bere semea, nola izan diteke?

45. Erri guztiak aditzen zuela, bere ikaslai esan zien:

46. Iges egin ezazute Eskribakgandik, zeñak soñeko ederrakin ibilli nai duten; eta plazaetako agurren, eta Sinagogetako lenbiziko esertokien, eta jateketetan toki aurrenen zaleak diran,

47. Zeñak andre alargunen etxeak iretsitzen dituzten orazio luzeen irudiakin. Oiek gogortasun andiagoarekin kondenatuak izango dirade.



## OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Zegoala egun batean Jesukristo gure Jauna, tenploko limosnak bil-tzen ziran atabakara begira, ikusi zituen aberats batzuek, zeñak beren doañak ara botatzen zituzten.

2. Eta ikusi ere zuen andre alargun beartsutxo bat, zeñak bi ardit bota zituen.

3. Eta bere ikasleai esan zien: Egiaz esaten dizutet, andre alargun beartsu onek, beste guztiak baño geiago bota duela.

4. Zeren oiek guziok eskeñi diote Jaungoikoari, ugari zeukatenetik, baña andre alargun onek, bere gutxitik eman du zeukana, eta berak jateko bear zuena.

5. Eta nola bere ikasleetatik batzuek esan zioten tenploagatik, arri ederrakin egina zegoala, eta doañ aberatsakin apaindua, esan zuen:

6. Etorriko dira egunak, zeñatan, ikusten dezuten guzi au desegina izango dan, alako moduan, non, arririk arriaren gañean ez da geldituko, izan gabe desegina.

7. Eta galdetu zioten esaten zutela: Erakuslea, oriek noiz gertatuko ote dira, edo zer siñale izango da, oriek laster gertatuko diradela ezagutzeko?

8. Berak esan zien: Begiratu ezazute etzaitzabela engañatu, zeren asko etorriko diran nere izenean, esaten dutela: Ni Mesias naiz, eta denbora allegatu da. Etzaitzte bada beren ondoren joan.

9. Baizik aditzen dituzutenean gerraen, eta iskanbillaen otsak, etzaitzte beldurtu. Oiek lenengo eginak izan bear dute; baña argatik ez da bereala bukaera izango.

10. Orduan, gañera esan zuen: Jaikiko da erri bat, beste erri baten kontra; eta erreñu bat beste erreñu baten kontra.

11. Eta toki askotan izango dira lurdardarak, eta izurriteak, eta gose-teak, eta zeruan gauza arrigarriak, eta mirari andiak agertuko dira.

12. Baña gauza guzi oiek gertatu baño lenago, arrapatuko zaituzte, eta persegituko zaituzte, eta ipiñiko zaituzte Sinagogetan, eta indarrez eramango zaituzte erregeakgana eta agintariakgana, nere izenagatik.

13. Eta oiek balioko dizute nere testigantza emateko.

14. Jarri ezazute bada zuen biotzetan, ez dezutela egon bear lendanaz asmatzen, zer erantzungo dezuten,

15. Zeren nik jarriko ditut zuen aoetan itzak eta jakinduria bat, zeñi ezin aurkeztuko zaiozkan, ez kontrarik egin ere, zuen etsai guztiak.

16. Eta zuen gurasoak, anaiak, aideak, eta adiskideak, eramanak izan-go zerate agintariakgana, eta zuetatik asko ilko dituzte:

17. Eta mundu guztiak gorrotatuak izango zerate nere izenagatik.

18. Alaere zuen buruetako ille bat bakarra ere ez da galduko.

19. Zuen pazienziaren bitartez, zuen animak salbatuko dituzute.

20. Eta ikusten dezutenean, Jerusalem ejerzitu batek ingurutua dago-ala; orduan jakin ezazute, bere ondarena alderatu dala.

21. Orduan, Judean daudenak, mendietara iges egin bezate, eta erri-aren erdian daudenak, alde egin bezate; eta inguruetan daudenak, ez bitez an sartu.

22. Zeren bengantzako egunak diraden oiek, kunplitu ditezen gauza guztiak, eskribituak dauden bezela.

23. Baña ail egun aietan aurdun edo umeak azitzen daudenen doaka-beak! Zeren alderri au antsia andietan arkituko da, eta erri onen gañera etorriko da Jaungoikoaren aserrea.

24. Eta batzuek ezpataz illak izango dira, eta beste batzuek izango dira erreñu guztietara katibu eramanak, eta Jerusalem, jentillak zapaldua izango da, aliketa erreñuen denborak kunplitu ditezen artean.

25. Baitaere gauza arrigarriak ikusiko dira eguzkian, illargian eta iza-rretan, eta lurrean beldurtuak, eta arrituak egongo dirade jendeak, itsaso-aren, eta bagaen dunbotsagatik.

26. Sikatzen dirala gizonak beldurrez, eta mundu guztira etorri bear duten gaitzen gogorazioarekin, zeren zeruko bertuteak dardaraz egongo dirade.

27. Ta orduan izango da, noiz ikusiko duten gizonaren semea odei baten gañean, eskubide andiarekin, eta osoarekin datorrela.

28. Oiek egiztatzten asitzen diradenean, begiratu ezazute, eta zuen buruak jaso itzatzute, zeren zuen erredenzioa aldean dan.

29. Eta berdinkuntza au ipiñi zien: Begiratu ezazute piku ondora, eta beste zuaitzetara.

30. Berakgandik frutuak moteatzen asitzen diranean, uda aldean dala ezagutzen dezute.

31. Ala zuek ere, gauza oiek ikusten dituzutenean, jakin ezazute, Jaungoikoaren erreñua aldean dala.

32. Egiaz esaten dizutet, gizaldi au ez dala iragoko aliketa esan dan guztia kunplitu artean.

33. Zerua eta lurra iragoko dira, baña nere itzak ez dira utsean geldituko.

34. Zaudete bada beillan zuen gañean, zuen biotzak llilluratu ez ditezen jan edan geiegiakin, ordikeriak, eta lurreko bizitza onetarako gau-zaen arretarekin, egun hura ustekabean etorri ez dakizuten,



35. Bada izango da lazo bat bezela, lur guztiaren gañean bizi diran guziak ustekabeen artuko dituena.

36. Zaudete bada beillan, denbora guzietan orazio egiten dezutela, diñak izan zaitezten, etorriko diran gaitz oietatik libratzeko, eta gizonaren semearen aurrean itxedopenarekin agertzeko.

37. Eta Jesus egunaz egon oi zan tenploan erakutsiak ematen, eta gauean irtetzen zala, Oliboena izena zuen mendian iragotzen zuen.

38. Eta erri guztia txit goiz tenplora joan oi zan berari aditzera.

## OGETA BIGARREN KAPITULUA

1. Alderatzen zan onezkero Legamigabeen jaieguna, zeñ dan Pazkoa izena duena.

2. Eta Apaizburuak, ta Eskribak, Jesus nola ilko ote zuten asmazioetan, eta onetarako neurriak artzen zebiltzaten, baña erriaren beldur ziran.

3. Eta Satanas, Judas, izengoitiz Iskariote amabietatik batgan sartu zan.

4. Eta joan zan, eta apaizburuakin, eta agintariakin itz egin zuen, nola beren eskuetan jarriko ote zuen.

5. Berak bozkariotu ziran, eta elkarrekin aditu ziran emango zioten diruaren gañean.

6. Eta Judasek itza eman zuen. Eta era on bat billatzen zuen, otspegabe aien eskuetan bera jartzeko.

7. Bitartean allegatu zan Legamigabeen eguna, zeñatan Pazkoako bildotsa il bear zan.

8. Jesusek bada Pedro eta Juan bialdu zituen, esaten ziela: Joaten zeratela, Pazkoa jateko bear dana prestatu zaguzute.

9. Eta berak esan zioten: Non nai dezu prestatu dezagula?

10. Eta Jesusek esan zien: Errian sartzen zeratenean, pegar bat ur daraman gizon bat arkituko dezute. Sartzen dan etxera jarraitu zaiozute.

11. Ta ango etxeko nagusiari esango diozute: Maesuk esatera bialtzen dizu, non da tokia, non nik nere ikaslakin Pazkoako bildotsa jango dedan?

12. Eta berak erakutsiko dizute Afaltoki bat, apaindua, eta an prestatu ezazute.

13. Joaten ziradela bada, esan zien bezela arkitu zuten, eta prestatu zuten Pazkoa.

14. Eta ordua allegatu zanean, maiean eseri zan, ta berarekin amabi apostoluak.

15. Eta esan zien: Opa opa nuen, nere pasioa allegatu baño lenago Pazkoa au zuekin jatea.

16. Zeren nik esaten dizutet, ez dedala berriz jango, Jaungoikoaren erreñuan bere betetasuna iduki dezan artean.

17. Eta kaliza artzen zuela, Jaungoikoari eskerrak eman ziozkan, eta esan zuen: Artu ezazute, eta zuen artean partitu ezazute.

18. Zeren esaten dizutet, matsaren ezadetik ez dedala edango, Jaungoikoaren erreñua allegatu dedin artean.

19. Eta arturik ogia, eskerrak eman zituen, eta zatitu zuen, eta eman zien, esaten zuela: Au da nere gorputza, zeñ zuekgatik emana dan. Au nere oroipenean egin ezazute.

20. Era berean artu zuen kaliza afaldu zuenean, esaten zuela: Kaliza au da elkartasun berri, nere odolarekin sillutua, zeñ zuekgatik isuria izango dan.

21. Alaere ona non, saldukeria egiten didanaren eskua, maiean nerekin dagoan.

22. Egia da gizonaren semea, beragatik erabakia dagoan bezala, badijoala, baña, ai! gizon aren, beragatik saldua izango danaren, zorigaitzokoa!

23. Eta berak bereala asi ziran elkarri galdetzen, beretatik zeñ izango ote zan, au egingo zuena.

24. Beren artean ere elean ari ziran, beretatik zeñ izango ote zan andienentzat idukia.

25. Jesusek berriz esan zien: Erreñuetako erregeak beren mendekoa azpiratuak dauzkate, eta beren gañean eskubidea daukatenak, ongigileak deituak dira.

26. Zuek ordea etzerate alakoak izango, baizik andiena dana zuen artean, txikiena bezelakoa egin bedi, eta aurrena dana, besteen serbitzaria bezelakoa.

27. Zeren, zeñ da andiagoa, maiean jaten dagoana, ala maia serbitzen duena? Ez al da ziertoa, maiean eseria dagoana dala? Bada ni zuen artean, serbitzari bat bezela nago.

28. Eta zuek zerate nere atsekabeetan nerekin iraun dezutenak.

29. Argatik nik zeruko erreñua prestatzen dizutet, nere Aitak neri prestatu zidan bezala,

30. Jan dezazuten, eta edan dezazuten nere maiean, nere erreñuan, eta tronuen gañean eseri zaitezten, Israelko amabi tribuak juzgatzeko.

31. Esan ere zuen Jaunak: Simon, Simon, begira Satanasek nai izan zaitutzela, garia bezela artzatutzeko.





32. Baña nik zugatik erregutu det, zure fedea galdu ez dedin, eta zuk noizbait, konbertituta, zure anaiak sendotu itzatzu.

33. Jauna, erantzun zuen berak, ni prestatua nago zurekin karzelara eta eriotzara ere joateko.

34. Eta Jesusek esan zion: Nik esaten dizut, o Pedro, ollarrak ez dute-la gaur kantatuko, zuk ukatu dezazun baño lenago iru alditan, ni ezagutzen nazula. Gero esan zien:

35. Bialdu zinduztedanean zizkutxo gabe, zakuto gabe, eta zapata gabe, ezerere faltatu bazazuten?

36. Eta berak erantzun zuten: Ezerere ez. Esan zien bada berak: Orain bada, zizkutxoa daukanak, eraman beza, baita zakutoa ere, eta ezpatarik ez daukanak, bere tunika saldu beza, eta erosi beza ezpata.

37. Zeren nik esaten dizutet, oraindikan kunplitu bear dala nigan, eskribitua dagoan au: «Eta gaiztoen artean kontatua izan da». Zeren lenda-naz nigatik esan diran gauzak, aurki kunplitu bear dute.

38. Eta berak esan zuten: Jauna, ona emen bi ezpata. Eta berak esan zien: Asko da.

39. Irten zan bada Jesus, eta joan zan, oi zuen bezela, Oliboen mendirontz. Bere ikasleak ere jarraitu zioten.

40. Eta ara allegatu zanean, esan zien: Zaudete orazioan, tentazioan erori etzaitzeten.

41. Eta berakgandik alde eginik, arri baten aurtikiaren ereduan, belauniko jarrita, orazio egiten zuen,

42. Esaten zuela: Aita, nai badezu, kaliza au nigandik urrutiratu ezazu. Alaere ez bedi egin nere borondatea, zurea baizik.

43. Onetan zerutik Aingeru bat agertu zizaion, sendotzen zuela. Eta agonian sarturik, gogo geiagorekin orazio egiten zuen.

44. Eta irten zitzaion izerdi batek, odol tantoak bezela, lurreraño zeriona.

45. Eta jaikirik oraziotik, eta etorririk bere ikasleakgana, lotan arkitu zituen tristezagatik,

46. Eta esan zien: Zergatik lo egiten dezute? Jaiki zaitzete, eta orazio egin ezazute, tentazioan erori etzaitzeten.

47. Oraindik izketan ari zala, ona non jendetza bat etorri zan, eta beren aurretik zihoan amabietatik bat, Judas izena zuena, eta Jesusgana alderatu zan bera laztantzeko.

48. Eta Jesusek esan zion: Judas, laztan batekin gizonaren semea saltzen dezu?

49. Jesusi laguntzen ziotenak, ikusirik gertatzera zihoana, esan zioten: Jauna, ezpatarekin zaurituko ote ditugu?

50. Eta beretatik batek, apaizburuaren morroi bat zauritu zuen, eta eskuieko belarria ebaki zion.

51. Baña Jesusek, asirik izketan, esan zuen: Utzi zaiozute, etzaitzete aurrera irago. Eta belarriari ukiturik, sendatu zuen.

52. Eta Jesusek esan zien apaizburuai, eta tenploko agintariai, eta zarrai, zeñak beragana etorri ziran: Lapur batgana bezela ezpatakin eta makillakin irten zerate?

53. Zuekin tenploan egunoro egon banintzan ere, beñere etziñituzten eskuak luzatu ni arrapatzeko, baña au da zuen ordua, eta illuntasunak eskubidea daukaten denbora.

54. Eta arrapatzen zutela Jesus, apaizburuaren etxera eraman zuten. Pedrok berriz urrutitikan jarraitzen zion.

55. Eta atariaren erdian sua irazekirik, eta guztiak inguruan eseriak arkitzen ziradela, Pedro ere beren artean zegoan.

56. Zeñ ikusirik neskame batek sutondoan eseria zegoala, berari begiratuta, esan zuen: Au ere gizon arekin ibiltzen zan.

57. Baña Pedrok ukatu zuen, esaten zuela: Emakumea, ez det ezagutzen.

58. Andikan denbora gutxi batera, beste gizaseme batek begiratzen ziola, esan zion: Bai, zu ere aietatikoa zera. Pedrok berriz erantzun zion: O gizona, ez naiz.

59. Eta ordu bat bezelatsu iragorik, beste gizaseme batek esaten zuen: Egiaz au ere arekin zegoan: zeren Galileatarra da.

60. Eta Pedrok erantzun zuen: Gizona, ez det nik aditzen esaten dezuna. Eta bereala, oraindik izketan ari zala, ollarrak jo zuen.

61. Eta itzulirik Jauna, Pedrori begiratu zion. Eta Pedro oroitu zan, Jaunak esan zion itzarekin. Ollarrak jo dezan baño lenago, iru aldiz ukatuko nazu.

62. Eta kanpora irtetzen zala, negar samiñak egin zituen.

63. Bitartean Jesus lotuta zeukatenak, irriak egin eta otsak ematen ziozkaten.

64. Eta begiak estalitzen ziozkatela, masallakoak ematen ziozkaten, eta galdetzen zioten, esaten zutela: Profetizatu ezak, zeñ dek jo aukana?

65. Eta beste asko gauza, blasfematzen zutela, bere kontra esaten zuten.





66. Eta eguna argitu zanean, erriko zarrak, eta apaizburuak, eta Eskribak bildu ziran; eta beren batzarrera eramanik, esan zioten: Zu baze-ra Kristo, esan zaguzu.

67. Eta berak esan zien: Esaten badizutet, ez didazute sinistuko,

68. Eta nik galde bat egiten badizutet, ez didazute erantzungo, eta ez didazute ere itxiko joaten.

69. Baña orain ikusten dezutena iragota, gizonaren semea Jaungoikoaren eskubidearen eskuiean eseria egongo da.

70. Orduan guztiak esan zuten: Beraz zu Jaungoikoaren semea zera? Berak erantzun zien: Ala da, zuek esaten dezuten bezela ni naizala.

71. Eta aiek esan zuten: Onezkero testiguak zertarako bear ditugu? Zeren guk gerok bere aotik aditu diogu?

### OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta jaikitzen zala jendetza guzi hura, Pilatori eraman zioten.

2. Eta asi ziran salatzen, esaten zutela: Au arkitu degu, gure erreñua nastutzen gaitzerako, eta Zesarri kotizak pagatzea galerazitzen, eta bera Kristo, erregea dala esaten.

3. Pilatok bada galdetu zion, esaten ziola: Zu Juduen erregea al zera? Eta berak, erantzuten ziola, esan zion: Ala da, zuk esaten dezun bezela.

4. Pilatok apaizburuai, eta erriari esan zien: Nik gizon onegan obenik batere ez det arkitzen.

5. Baña berak beti berenean zeuden, esaten zutela: Erria nastua dauka ematen dituen erakutsiak Judea guztitik, asirik Galileatik onaraño.

6. Pilatok berriz, Galilea aditurik, galdetu zuen, Galileatarra ote zan gizon hura.

7. Eta ezagutu zuenean Herodesen mendekoa zala, bialdu zuen Herodesgana, zeñ ere egun aietan Jerusalem zegoan.

8. Herodes, Jesus ikusita, txit bozkariotu zan, zeren denbora andia zan ikusi nai zuela, beragatik gauza asko aditu zituelako, eta berak eginda, mirariren bat ikustea itxedotzen zuen.

9. Galde asko egin ziozkan bada, baña berak itzik ere etzion erantzun.

10. Bitartean apaizburuak, eta Eskribak aspertu gabe zeuden bera salatzen.

11. Eta Herodesek, bere andizki talde guziarekin, mezpreziatu zuen, eta berari irri egiteko, soñeko zuri bat jantzierazi, eta Pilatori bialdu zion.

12. Eta egun artan Herodes eta Pilato adiskidetu ziran, zeren len beren artean aserretuak zeuden.

13. Pilatok bada, ots eginik apaizburu eta majistraduai, erriarekin batean,

14. Esan zien: Zuek gizon au ekarri didazute, errien iskanbillari bat bezela, eta ona non nik, zuen aurrean berari galdeak eginda, bera salatzen dezuten gaiztakeriarik batere ez det arkitu.

15. Ezta Herodesek ere, zeren bialdu zaituztet beragana, eta irago danetik ikusten da, Herodesek eriotzaren diñatzat ez duela iduki.

16. Argatik, kastigatu eta gero, utziko diot.

17. Pilatok libratu bear zien karzelan zegoan bat, pazkoako jaiagatik.

18. Eta erri guztiak batean deadar egin zuen, esaten zuela: Kendu zaiozu oni bizia eta Barrabas libratu zaguzu.

19. Zeñ, errian atera zuen iskanbilla batgatik, eta gizon bat il zuelako, karzelan jarria izan zan.

20. Berriz ere Pilatok itz egin zien, Jesus libratu nairik.

21. Baña berak deadarrez asi ziran, esaten zutela: Gurutziltzatu ezazu, gurutziltzatu ezazu.

22. Berak alaere irugarren aldiz esan zien: Onek bada, zer gaitz egin du? Nik ez det beragan eriotzaren diña dan gaiztakeriarik batere arkitzen. Ala bada, kastigatuta gero, libratuko det.

23. Baña berak aurrera jarraitzen zioten deadar andiak eskatzeari, gurutziltzatua izan zedilla, eta beren deadarrak geituaz zijoazen.

24. Atzenean Pilatok erabaki zuen eskatzen zutena ematea.

25. Eta utzi zien, gizon bat iltzeagatik, eta iskanbilla bat jasotzeagatik karzelan sartua izan zana, zeñ zan eskatzen zutena, eta Jesus beren mendean jarri zuen.

26. Iltzera zeramatenean berriz, arrapatu zuten Simon izena zuen gizon bat, berez Zirenekoa, basoetxe batetik zetorrena, eta gurutzea ipiñi zioten Jesusen ondoren eraman zezan.

27. Erriko eta emakumeen jendetza andi batek jarraitzen zion: emakumeak negarrak egiten zituzten, eta adiaka ari ziran.

28. Eta Jesusek, berakgana itzulita, esan zien: Jerusalem alabak, ez nigatik negarrik egin, baizik zuekgatik, eta zuen semeakgatik negar egin ezazute,

29. Zeren egunak etorriko diran, zeñatan esango dan: Zorionekoak emakume agorrek, eta aurrik artu ez duten erraiak, eta titirik eman ez duten bularrak.

30. Orduan mendiai asiko zaietzte esaten: Erori zaitetzte gure gañera; eta muñatsai: Estali gaitzatzute.

31. Zergatik eze, arbola ezean au egiten badu, igarrean zer egingo du?



32. Beste, bi gizon gaizto ere Jesusekin eramanak izan ziraden, illak izatera.

33. Eta allegatu ziranean Kalbarioa izena duen tokira, an gurutziltzatu zuten eta berarekin bi lapur, bat eskuietara, eta bestea ezkerretara.

34. Eta Jesusek esaten zuen: Aita, barkatu zaiezu, zeren zer egiten duten ez dakiten. Eta berak jartzen zirala beren artean Jesusen soñekoak partitzen, txotx egin zuten.

35. Erria begira zegoan, eta berarekin batean andizkiak Jesusi isekak egiten ziozkaten, esaten zutela: Besteak libratu zituen, bera ere bada libratu bedi, bera Kristoa, eta Jaungoikoak autua bada.

36. Soldaduak ere isekak egiten ziozkaten, beragana alderatzen ziradela, eta ozpiña eskeñtzen ziotela.

37. Eta esaten zutela: Juduen erregea i baldin baaiz, eskuetatik joan akigu.

38. Eta zegoan Jesusen buruaren gañean txartel batean eskribitua, Grieguz, Latinez, eta Hebreoz: Juduen erregea au da.

39. Eta gurutziltzatuak zeuden lapurretatik bat, Jesusen kontra añenekoka ari zan, esaten zuela: Kristo baaiz, i erori libratu adi, eta gu ere libratu gaitzaguk.

40. Baña besteak errieta egiten zion, esaten ziola: i ere, urkamendi artan beratan agoan ori, ez aiz Jaungoikoaren beldur?

41. Guk zeramakagun patua, txit bidezkoa, eta gure gaiztakeriai dagokiena dek; baña onek gaitzik batere ez dik egin.

42. Eta Jesusi esaten zion: Jauna, zure erreñuratzen zeranean, arren nizaz oroitu zait.

43. Eta Jesusek erantzun zion: Egiaz esaten dizut, gaur nerekin paradisuan egongo zerala.

44. Zan onezkero sextako ordua, eta illuntasunak lur guztia nonako orduraño estali zuen.

45. Eta eguzkia illundu zan, eta tenploko beloa urratu zan erditik.

46. Eta Jesusek, boz andi batekin deadar eginda, esan zuen: Aita, nere espiritua zure eskuetan utzitzen det. Eta oiek esaten zituela, atzene-ko asnasa eman zuen.

47. Ikusi zuenean Zenturionak gertatu zana, Jaungoikoa alabatu zuen, esaten zuela: Egiaz au gizon justoren bat zan.

48. Eta ikusikizun onetan zeudenetatiko jendetza guztia, ikusi zitue-  
nean gertatzen ziraden gauzak, beren bularrai otsak ematen ziezte-  
la, itzul-  
tzen ziran.

49. Bere ezagun guztiak berriz, eta Galileatik jarraitu zioten emaku-  
meak, urrutitik zeuden, oiek ikusten zituztela.

50. Orduan agertu zan gizon bat, amartaria, Jose izena zuena, gizon  
ona eta justoa, Arimatea, Judeako erri batean jatorria zeukana.

51. Onek etzuen bere baimenik eman besteen asmazio gaiztoetarako,  
ez egin zituzten gauza txarretarako; baizik zan, Jaungoikoaren erreñua  
itxedotzen zutenetatikoa.

52. Au bada, Pilatogana joan zan, eta Jesusen gorputza eskatu zion.

53. Eta jetxirik gorputza gurutzetik maindire batean bildu zuen, eta  
ipiñi zuen, arri bizian idikitako obi batean, non iñor ere etzan ipiñia izan.

54. Eta egun hura prestaerakoa zan, eta larunbata argitutzera zihoan.

55. Eta Galileatik etorri ziran, eta jarraitu zioten emakumeak, ikusi  
zuten obia, eta nola Jesusen gorputza izan zan an ipiñia.

56. Eta itzultzen ziradela, aromak, eta okenduak prestatu zituzten.  
Alaere larunbatean, legeak agintzen zuen bezela, geldirik egin ziran.

### OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta astearen lenbiziko egunean, txit goiz, emakume oiek obira  
joan ziran, prestatuta zeuzkaten aromak zeramazkitela.

2. Eta obiko arria, aldeerazia arkitu zuten.

3. Eta barrenen sartzen zirala, Jesus Jaunaren gorputza etzuten arki-  
tu.

4. Eta gertatu zan, augatik beren adimenak izutuak zeuzkatela, ona  
non bi gizaseme soñeko argitsuz jantziak, jarri zitzaiezten beren ondoan.

5. Eta nola beldur ziran, eta beren arpegiak lurrerontz makurtuak  
zeuzkaten, esan zien: Zergatik zabiltzate bizirik dagoanaren billa, illaen  
artean?

6. Jesus ez dago emen, biztu da. Oroitu zaitzete nola itz egin zizuten,  
oraindikan Galilean zegoala,

7. Esaten zuela: Gauza bearra zala, gizonaren semea gizon bekata-  
rien eskuetan jarria izatea, eta izatea gurutziltzatua, eta irugarren egunean  
biztutzea.

8. Eta berak, Jesusen itzakin oroitu ziran.

9. Eta obitik itzultzen ziradela, gauza guzi aiek amaikai, eta beste  
guztiai adirazi ziezten.

10. Apostoluai gauza oiek adirazi zieztenak, Maria Madalena, eta  
Juana, eta Maria Santiagoren ama, eta beste emakume beren lagunak izan  
ziran.



11. Eta berak berriz oiei, beren burutazioai bezela begiratu zien, eta etziezten sinistu.
12. Pedro alaere jaikitzen zala, obira korrika joan zan, eta makurturik, ikusi zituen illoialak an lurrean bakarrik jarriak; eta miraritzen zala bere artean, gertatu zanarekin, itzuli zan.
13. Eta egun artan beratan beretatik bi zijoazen Emmaus izena duen erritxo batera. zeñ Jerusalemendik irurogei estadioko bidean dagoan.
14. Eta elkarren artean, gertatu ziraden gauza guztien gañean izketan ari ziran.
15. Eta gertatu zan, elkarrekin alako gertakariak esan, eta elkarren irizkiak aditzen zituztela, Jesus bera berakgana alderaturik, berakin zijoan.
16. Eta beren begiak lilluratuak zeuden, ezagutu etzetzaten.
17. Eta berai esan zien: Zer dirade, bidean zoaztela, elkarrekin egiten dituzuten izketa oiek, eta zergatik triste zaudete?
18. Eta beretatik batek, Kleofas izena zuenak, erantzuten zuela, esan zuen: Zu bakarrik Jerusalemendik arrotza al zera, ez jakiteko, egun oietan bertan irago diradenak?
19. Berak esan zien: Zertzuk ote? Eta aiek erantzun zuten: Jesus Nazaretkoarenak, zeñ izan zan profeta almentsu bat obraetan, eta itzetan, Jaungoikoaren eta erri guztiaren begietan,
20. Eta nola apaizburuak eta gure agintariak Pilatoren eskuetan jarri zuten, eriotzara kondenatua izan zedin; eta gurutziltzatu dute.
21. Guk berriz, itxedotzen genduen berra zala, Israel erredimituko zuena, eta orain, oiek guziok iragota, irugarren eguna da gaur, gauza oiek gertatu ziradela.
22. Egia da gureetatiko emakume batzuek beldurtu gaituztela, zeren eguna argitu baño lenago obira joan ziran,
23. Eta etzutenean arkitu bere gorputza, itzuli ziran, esaten zutela: Aingeru batzuek agertu zitzaieztela, zeñak esan dien, bizirik dagoala.
24. Onenbesterekin gureetatiko batzuek obira joan dira, eta arkitu dute, emakumeak esan ziena, egia dala, baña Jesus etzuten arkitu.
25. Eta berak esan zien: O zentzugabeak, eta biotz astunekoak, Profetak adirazi zuten guztia sinistzeko!
26. Ez al zituen Kristok oiek irago bear, eta ala sartu zeruetako erreñuan?
27. Eta asirik Moisesgandik, eta profeta guztietatik jarraiturik, beragatik itz egiten zuten Eskritura guztietan, azaldaerak ematen ziezten.
28. Eta alderatu ziran, zijoazen errira, eta Jesusek urrutirago zijoalako egin zuen.

29. Eta indarrez ta gogorrean gelditu zuten, esaten ziotela: Gurekin gelditu zaite zeren onezkero illundutzera dijoa, eta eguna aurki eroriko da.
30. Eta berakin maiean eseria zegoala, artu zuen ogia, eta bedeikatu zuen, eta zatitu zuen, eta ematen zien.
31. Eta beren begiak idiki ziran, eta ezagutu zuten, eta Jesus beren begien aurretik ezkutatu zan.
32. Orduan elkarri esaten zien: Ez al da egia gure biotzak irazekiak zeudela, bidean itz egiten zigunean, eta Eskriturak azaldutzen zizkigunean?
33. Eta jaikitzen zirala ordu artan beratan, Jerusalemenera itzuli ziran, eta amaikak eta berakin zeudenak, bilduak arkitu zituzten,
34. Esaten zutela: Egiaz Jauna biztu da, eta Simoni agertu zaio.
35. Berak beren aldetik, kontatzen zuten bidean gertatu zitzaiena, eta nola, ogia zaitutzean ezagutu zuten.
36. Berak gauza oien gañean itz egiten ari ziradela, Jesus beren erdian jarri zitzaien, eta esan zien: Pakea zuekin, ni naiz, etzaitzete beldurtu.
37. Berak berriz, izutu eta beldurturik, espirituaren bat ikusten zutela iruditzen zitzaien.
38. Eta Jesusek esan zien: Zergatik zaudete izutuak, eta zergatik alako gogorazioai zuen biotzetan lekua ematen diezute?
39. Ikusi itzatzute nere eskuak eta oñak, eta ezagutuko dezute ni naizala. Ukitu zaiezute, eta ikusi ezazute, nola espirituak ez daukan aragirik, ez ezurrik, nik dauzkadala ikusten dezuten bezela.
40. Eta au esan zuenean, eskuak eta oñak erakutsi ziezten.
41. Eta nola berak oraindik etzuten sinistzen, eta bozkarioz zeuden mirarituak, esan zien: Jateko gauzarik badaukazute emen?
42. Berak arrai errearen zati bat, eta ezti abaraska bat aurrean jarri zitzioten.
43. Eta beren aurrean jan zituenean, arturik kondarrak, eman ziezten.
44. Eta esan zien: Oiek dira itzak, esaten nizekizutenak, oraindikan zuekin nengoala, kunplituia izan bear zala, nigatik Moisesen legean, eta Profetetan, eta Salmoetan eskribitua dagoan guztia.
45. Orduan argitu ziezten adimenak Eskriturak aditu zitzaizen,
46. Eta esan zien: Onela zegoan eskribitua, eta onela bear zan Kristok padezitzea, eta irugarren egunean illen artetik biztu zedilla,
47. Eta bere izenean penitentzia eta bekatuaren barkazioa erreñu guztia predikatu zitzaie, Jerusalemendik asitzen diradela.
48. Zuek gauza oien testiguak zerate.



49. Eta ni, banoa zuei bialtzera, nere Aitak zuei eskeñitako Espiritua. Bitartean zaudete errian, aliketa goitik sendotasunez beteak izan zaitezten artean.

50. Gero atera zituen kanpora, Betaniako bidera, eta eskuak jasorik, bedeikatu zituen.

51. Eta bedeikatzen zituela, berakgandik alde egiten zuela, eta zeru-rontz altxatzen zala bazijoan.

52. Eta berak, adoratzen zutela Jesus, bozkario andiarekin itzuli ziran,

53. Eta beti tenploan zeuden, Jaungoikoa alabatzen, eta bedeikatzen zutela. Amen.

## JESUKRISTO GURE JAUNAREN EBANJELIO SANTUA SAN JUANEN ARAURA

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Asieran zan Berboa, eta Berboa zegoan Jaungoikoagan, eta Berboa zan Jaungoikoa.

2. Bera zegoan asieran Jaungoikoagan.

3. Gauza guztiak izan ziran berak egiñak, eta egiñak izan ziran gauza guztietatik batere etzan izan bera gabe egiña.

4. Beragan zegoan bizia, eta bizia zan gizonen argia.

5. Eta argi onek illuntasunetan argi egiten du, eta illuntasunak etzuten aditu.

6. Izan zan Jaungoikoak bialdutako gizon bat, zeñaen izena zan Juan.

7. Au etorri zan lekukoa bezela, argiaren lekukotasuna ematera, bere bitartez guztiak sinistu zezaten.

8. Etzan bera argia, baizik bialdua, argiaren lekukotasuna ematera.

9. Zan, mundu onetara datorren gizon guztiari argi egiten dion, egiazko argia.

10. Munduan zegoan, eta mundua berak egiña izan zan, eta munduak etzuen ezagutu.

11. Bere etxera etorri zan, eta bereak etzuten artu.

12. Artu zuten guztiari berriz, zeñak diran bere izenean sinisten dutenak, eman zien eskubidea, Jainkoaren semeak izatera allegatzeko.

13. Zeñ dirade jaiok, ez odoletik, ezta aragiaren borondatetik, ezta ere gizonaren borondatetik, Jaungoikoagandik baizik.

14. Eta Berboa aragi egin zan, eta gure artean bizi izan zan, eta ikusi genduen bere gloria, Aitagandik bere seme bakarrak artu bear zuen bezelako gloria, graziaz eta egiaz betea.

15. Bere lekukotasuna Juanek ematen du, eta deadar egiten du, esaten duela: Ona emen hura, zeñgatik nik esaten nizuten: Nere ondoren etorriko dana, ni baño lenago sortua izan da, zeren ni baño lenago zan.

16. Eta bere betetasunetik guk guztiok artzen degu, eta grazia bat beste grazia batgatik.

17. Zeren legea Moisesek emana izan zan; baña grazia eta egia Jesukristok egiñak izan ziran.



18. Jaungoikoa ez du beñere iñork ikusi. Aitaren bularrean dagoan Seme bakarrak, berak agertu du.

19. Eta au da Juanen lekukotasuna, Juduak Jerusalemik bialdu ziozkatenean apaizak eta Lebitak galdetzera: Zeñ zera zu?

20. Eta aitortu zuen, eta etzuen ukatu, eta aitortu zuen: Ez naizala ni Kristo.

21. Eta galdetu zioten: Zeñ zera bada? Elias al zera zu? Eta esan zuen: Ez naiz. Profeta al zera zu? Eta erantzun zuen: Ez.

22. Eta esan zioten: Zeñ zera bada zu, erantzun dizaiegun bialdu gaituztenai? Zu zerorigatik, zer esaten dezu?

23. Berak esan zuen: Ni naiz basomortuan deadar egiten duenaren boza. Jaunaren bidea prestatu ezazute, Isaias Profetak esan zuen bezela.

24. Eta bialduak izan ziradenak, Fariseoetatikoak ziran.

25. Eta galdetu zioten, eta esan zioten: Zergatik bada bataiatzen dezu, ez bazera zu Kristo, ez Elias, ez Profeta?

26. Juanek erantzun zien, esaten ziela: Nik urarekin bataiatzen det, zuen erdian berriz egon da, zuek ezagutzen ez dezuten bat.

27. Bera da nere ondoren etorriko dana, ni baño lenago sortua izan dana, zeñaren oñetakoaren lokarria azkatzeko diña ni ez naizan.

28. Oiek gertatu ziran Betanian, Jordango beste aldamenean, non zegoan Juan bataiatzen.

29. Biaramonean Juanek ikusi zuen Jesus beragana zetorrela, eta esan zuen: Ona emen Jainkoaren bildotsa, ona emen munduko bekatua kentzen duena.

30. Au da hura, zeñagatik nik esan nuen: Nere ondoren dator gizon bat, ni baño lenago sortua izan zana, zeren ni baño lenago zan.

31. Eta ez nuen nik ezagutzen; baño Israelen agertua izan dedin, argatik etorri nintzan ni, urean bataiatzera.

32. Eta Juanek lekukotasuna eman zuen, esaten zuela: Nik ikusi det Espiritu Santua jetxitzen zala zerutik usoa bezela, eta bere gañean gelditu da.

33. Eta nik ez nuen ezagutzen, baño urean bataiatzera bialdu nin-duenak, hurak esan zidan: Espiritua jetxitzen; eta bere gañean gelditzen ikusten dezuna, au da Espiritu Santuagan bataiatzen duena.

34. Eta nik ikusi det, eta lekukotasuna ematen det, au dala Jaungoikoaren semea.

35. Biaramonean bazegoan Juan, eta bere jarraitzalletatik bi.

36. Eta begiraturik Jesusi, iragotzen zala, esan zuen: Ona emen Jaungoikoaren Bildotsa.

37. Eta aditu zioten itz egiten, bere jarraitzalletatik bik, eta Jesusi jarraitu zioten.

38. Eta itzulirik Jesus, eta ikusirik berari jarraitzen ziotela, esan zien: Zer billatzen dezute? Berak esan zioten: Rabbi (zeñak esan nai duen Erakuslea) non bizi zera?

39. Esan zien: Atozte, eta ikusi ezazute. Joan ziran, eta ikusi zuten non bizi zan, eta egun artan berarekin gelditu ziran. Zan garai artan amarretako ordua bezelatsu.

40. Eta Andres, Simon Pedroren anaia, zan, Juani au aditu zienetatik, eta Jesusi jarraitu zien bietatik bat.

41. Onek lenengo arkitu zuen bere anaia Simon, eta esan zion: Arkitu degu Mesias (zeñak esan nai duen Kristo).

42. Eta Jesusgana eraman zuen. Eta Jesusek begiratu zion, eta esan zion: Zu zera Simon Jonaren semea. Zu deitua izango zera Zefas, zeñak esan nai duen Pedro.

43. Biaramonean Galileara joan nai izan zuen eta arkitu zuen Felipe. Eta Jesusek esan zion: Darraidazu.

44. Zan berriz Felipe Betsaidakoa, Andresen eta Pedroren errikoa.

45. Felipek arkitu zuen Natanael, eta esan zion: Arkitu degu hura, zeñgatik eskribatu zuen Moisesek legean eta profetetan, Jesus Joseran semea, Nazaretkoa.

46. Eta esan zion Natanaelek: Nazaret-tik gauza onen batek irten al lezakek? Felipek esan zion: Atoz, eta ikusi ezazu.

47. Ikusi zuen Jesusek Natanael beraganontz zetorrela, eta esan zuen beragatik: Ona emen Israeltar egiazko bat, zeñagan engañurikan ez dagoan.

48. Natanaelek esan zion: Nondik ezagutzen nazu? Erantzun zion Jesusek, eta esan zion: Felipek ots egin zizun baño lenago, pikuondoaren azpian zeundenean, ikusi zindudan.

49. Natanaelek erantzun zion, eta esan zion: Erakuslea, zu Jaungoikoaren semea zera, zu Israelko erregea zera.

50. Jesusek erantzun zuen, eta esan zion: Esan nizulako, ikusi zindudala pikuondoaren azpian, sinisten dezu. Oiek baño gauza andiagoak ikusiko dituzu.

51. Eta esan zion: Egi egiaz esaten dizutet, ikusiko dezutela zerua idikia, eta Jaungoikoaren aingeruak igotzen, eta jetxitzen gizonaren semearen gañera.



## BIGARREN KAPITULUA

1. Eta andik irugarren egunean eztai batzuek izan ziran Galileako Kanan. Eta Jesusen Ama zegoan an.
2. Eta Jesus, eta bere ikasleak ere, eztaietara deituak izan ziran.
3. Eta aiturik ardoa, Jesusen amak esan zion berari: Ardorikan ez daukate.
4. Eta Jesusek esan zion: Andrea, zer dijoakigu neri, eta zuri? Orain-dikan nere ordua ez da etorri.
5. Bere amak esan zien serbitzen ari ziradenai: Egin ezazute, berak esaten dizuten guztia.
6. Eta zeuden an sei kantxill arrizko, Juduen garbitzearen araura, bina edo iruna sull kabitzen zituztenak.
7. Eta Jesusek esan zien: Urez bete itzatzute kantxillak. Eta goiraño bete zituzten.
8. Eta Jesusek esan zien: Orain atera ezazute, eta Maizaiari eraman zaiozute. Eta eraman zioten.
9. Eta probatu zueneko Maizaiak ur ardo biurtua, eta nola ez zekien nongoa zan, serbitzen zutenak baziekiten ere, ura atera zutelako. Maizaiak ezkonberriari ots egin zion,
10. Eta esan zion: Gizon guztiak lenengo ardo ona ipintzen du, eta ondotxo edan dutenean, orduan adiñona. Zuk berriz, ardo ona orainarte-raño gorde dezu.
11. Au izan zan, Jesusek Galileako Kanan egin zuen lenbiziko miraria, eta bere gloria agertu zuen, eta bere ikasleak beragan sinistu zuten.
12. Onen ondoan Kafarnaumera joan zan bera, eta bere ama, eta bere anaiak, eta bere ikasleak, eta an egon ziran, ez egun askotan.
13. Eta Juduen Paskoa aldean zegoan, eta Jesus Jerusalemenera igo zan.
14. Eta arkitu zituen tenploan, zeudela saltzen idiak, eta ardiak, eta usoak, eta dirutrukalariak eserita.
15. Eta sokakin azotea bezelako bat eginik, bota zituen guztiak tenplotik; ardiak ere, eta idiak; eta aurtiki zuen lurrera dirutrukalarien dirua, eta maiak zatitu zituen.
16. Eta usoak saltzen zituztenai esan zien: Kendu itzatzute oiek emendikan, eta ez ezazute egin nere Aitaren etxea, salduerosiko etxe.
17. Eta bere ikasleak oroitu ziran, eskribatua dagoela: Zure etxearen zeloak jan ninduen.
18. Eta Juduak erantzun, eta esan zioten: Zer siñale ematen diguzu adirazteko, gauza oiek egiteko eskubidea daukazula?

19. Jesusek erantzun zien: Desegin ezazute tenplo au, eta nik iru egunean, berriz egingo det.
20. Juduak esan zioten: Tenplo au berrogeita sei urtean egiña izan ukan, eta ik iru egunean jasoko dek?
21. Baña berak bere gorputzaren tenploagatik itz egiten zuen.
22. Berriz biztu zanean bada illen artetik, bere ikasleak oroitu ziran augatik esan zuela, eta sinistea eman zioten liburu santuetan eskribatua zegoanari, eta Jesusek esandako itzari.
23. Eta Paskoako egun andian, Jerusalemene zegoala, askok bere ize-  
nean sinistu zuen, ikusirik egiten zituen mirariak.
24. Jesus bera berriz, ez oi zan berakin fiya, zeren berak ezagutzen zituen guztiak,
25. Eta ez zeukalako berak iñoren esanaren premiari, jakiteko nola-  
koa zan gizon bakoitza, zeren berak baziekien, gizon bakoitzaren barre-  
nen zegoana.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta bazan Fariseoetako gizon bat, Nikodemo zeritzana, Juduen arteko andizkia.
2. Au etorri zan Jesusgana gauaz, eta esan zion: Erakuslea, guk eza-  
gutzen degu, Jainkoak bialdutako erakusle bat zerrala, gu argitutzeko,  
zeren iñork ezin egin ditzake zuk egiten dituzun mirariak, Jainkoa berare-  
kin ez idukienean.
3. Jesusek erantzun zion: Egia guztiarekin esaten dizut, ezin ikusi  
dezakeala Jaungoikoaren erreñua, berriz jaiotzen danak baizik.
4. Nikodemok esan zion: Nola jaiio diteke gizon bat, zarra izanik?  
Berriz sartu al diteke bere amaren sabelera, eta bigarren aldiz jaiio?
5. Jesusek erantzun zuen: Egia guztiarekin esaten dizut, berriz jaiio-  
tzen ez dana uraz eta Espiritu Santuz, ezin sartu ditekeala Jaungoikoaren  
erreñuan.
6. Aragitik jaiio dana, aragia da, baña espirituagandik jaiio dana, espi-  
ritua da.
7. Argatik etzaitz miraritu, esan dizudalako: Berriz jaiioak izan bear  
dezute.
8. Espiritua nai duen tokitikan dabil, eta bere boza aditzen dezu;  
baña ez dakizu nondik datorren, ez nora dijoan. Ala da espirituagandik  
jaiioa dan guztia.
9. Erantzun zuen Nikodemok, eta esan zion: Nola egiñak izan ditez-  
ke oiek?





10. Erantzun zuen Jesusek, eta esan zion: Zu zera Erakuslea Israelen, eta oiek ez dakizkizu?
11. Egia guziarekin esaten dizut, dakiguna esaten degula; eta ikusi deguna ziertotzat adirazten degula; eta alaere zuek gure esana ez dezute sinisten,
12. Lurreko gauzak esan badizkizutet, eta ez badituzute sinisten, nola sinistuko dituzute, esango banizkizute zerukoak?
13. Eta ez da inor igo zerura, zerutik jatxi zana baizik, zeruan dagoan gizonaren semea baizik.
14. Eta nola Moisesek gora jaso zuen sugea eremuan; ala gizonaren semeak ere, jaso izan bear du:
15. Beragan sinisten duen guztia galdu ez dedin, baizik betiko bizitza iduki dezan.
16. Zeren alako moduan maitatu zuen Jaungoikoak gizona, non, eman zion bere seme bakarra, beragan sinisten duen guztia galdu ez dedin, baizik betiko bizitza iduki dezan.
17. Zeren etzuen bialdu Jainkoak bere semea mundura, juzgatzero mundua, bere bitartez mundua salbatua izan dedin baizik.
18. Beragan sinisten duena, ez da juzgatua, baña sinisten ez duena, juzgatua izan da, Jaungoikoaren seme bakarraren izenean sinisten ez duelako.
19. Kondenzioko juizio au dago onetan. Bada argia mundura etorri zan, eta gizonak geiago maitatu zituzten illuntasunak, argia baño, zeren beren obrak gaiztoak ziran.
20. Zeren gaizki egiten duen gizon guztiak, argiari gorroto dio, eta ez dator argitara, bere obrak gaiztotzat emanak izan ez ditezen.
21. Bestera, egiten dituen obrak egiaaren araura, argitara dator, ageritu ditezen bere obrak, Jaungoikoagan egiñak diradelako.
22. Oien ondoan etorri zan Jesus bere ikasleakin Judeako lurrera, eta an egon oi zan berakin, eta bataiatzen zuen.
23. Eta Juanek ere bataiatzen zuen Ennonen, Salimen aldean, zeren an ur asko zegoan; eta etorri oi ziran, eta an izan oi ziran bataiatuak.
24. Zeren oraindikan etzan izan Juan karzelan ipiña.
25. Iduki zuten ezbai bat Juanen ikasleak Juduakin, Bataioaren gañean.
26. Eta etorri ziran Juangana, eta esan zioten: Erakuslea, Jordango beste aldamentean zurekin egon zana, zeñi zuk alabantza ain andiak eman ziñiozkan, ona non bataiatzen ari dan, eta guztiak dijoaz beragana.
27. Erantzun zuen Juanek, eta esan zuen: Ezin gizonak ezertxoere artu lezake, zerutik emana ez bazaio.

28. Zuek zerok zerate lekukoak, nola esan nuen: Ez naiz ni Kristoa, baizik naiz bere aurretik bialdua.
29. Esposa daukana, Esposoa da; berriz Esposoaren adiskide, berarekin dagoena, eta aditzen diona, pozez betetzen da Esposoaren bozarekin.
30. Berak azi bear du, eta nik gutxitu.
31. Goitikan datorrena, guzien gañetikoa da. Lurretik jatorria dakerrena, lurrari dagokio, eta lurreko gauzen gañean itz egiten du. Zerutik datorrena, guzien gañetikoa da.
32. Eta ikusi duena, eta aditu duena, au da esaten duena, eta ez dio inork federik ematen bere esanari.
33. Bere esanera itsatsitzen danak, adirazten du, Jaungoikoa egiatia dala.
34. Zeren Jainkoak bialdu duen onek, Jainkoak berak bezelako itzak, berak ere esaten ditu, zeren Jainkoak ez dio neurritz eman bere espiritua.
35. Aitak semea maitatzen du, eta bere eskuan gauza guztiak ipiñi ditu.
36. Semeagan sinisten duenak, betiko bizitza dauka, baña semeari sinisterik ematen ez dionak, ez du bizitza ikusiko, baizik Jaungoikoaren aserrea bere gañean dago.

## LAUGARREN KAPITULUA

1. Ezagutu zuenean bada Jesusek, Fariseoak aditu zutela, berak ikasle geiago biltzen zuela, eta Juanek baño geiago bataiatzen zuela,
2. (Ez bazituen ere bataiatzen Jesusek, bere ikasleak baizik.)
3. Utzi zuen Judea, eta berriz Galileara joan zan.
4. Argatik Samariatik irago bear zuen.
5. Etorri zan bada Samariako erri, Sikar zeritzan batera, Jakobek bere seme Joseri eman zion kanpoaren aldean.
6. Eta an zegoan Jakobek iturria, Jesus bada bidez nekatuta, zegoan ala eserita iturriaren gañean. Zan sextako orduko garaia.
7. Etorri zan Samariako emakume bat, ura ateratzera. Jesusek esan zion: Eman zadazu edaten.
8. (Zeren bere ikasleak joanak ziran errira, jatekoa erostera.)
9. Eta Samariako emakume hurak esan zion: Nola zuk, Judua izanik, edaria eskatzen didazu neri, izanik ni Samariako emakume bat? Zeren Juduak Samariarrakin ez daukate artuemanik.
10. Erantzun zion Jesusek, eta esan zion: Bazinieki Jaungoikoaren doaia, eta zeñ dan esaten dizuna. Eman zadazu edaten, ziertoro zuk eskatuko ziñioke berari, eta nik ur bizia emango nizuke.



11. Emakumeak esan zion: Jauna, ez daukazu zerekin atera, eta putzua zakona da, nondik bada daukazu zuk ur bizia?
12. Zu al zera andiago gure Aita Jakob baño, zeñak eman zigun putzu au, eta beratatik edan zuen berak, eta bere semeak, eta bere abereak?
13. Jesusek erantzun zion, eta esan zion: Ur onetatik edaten duen guztia, berriz egarrituko da; baño nik ematen diodan uretik edaten duena, ez da iñoizere berriz egarrituko.
14. Baizik nik emango diodan uretik egingo da beragan urezko iturri bat, gora salto egingo duena, betiko bizitzaraño.
15. Emakumeak esan zion: Jauna, ur ori eman zadazu, egarririk iduki ez dezadan, eta onara etorri ez nadin ura ateratzera.
16. Jesusek esan zion: Zoaz, zure senarrari ots egin zaiozu, eta atoz onara.
17. Emakumeak erantzun, eta esan zuen: Ez daukat senarrik. Jesusek esan zion: Ongi esan dezu, ez daukazula senarrik,
18. Zeren bost senar iduki dituzu, eta orain daukazuna, ez da zure senarra. Au egiaz esan dezu.
19. Emakumeak esan zion: Jauna, ikusten det, profeta zerala zu.
20. Gure gurasoak mendi onetan adoratu zuten; eta zuek esaten dezute, Jerusalem dagoala tokia, non adoratu bear dan.
21. Jesusek esan zion: Emakumea, sinistu nazazu, badator ordua, zeñean ez mendi onetan, ez Jerusalem adoratuko dezuten Aita.
22. Zuek adoratzan dezute ez dakizutena; guk adoratzan degu daki-guna, zeren Salbatzalea Juduetatik dator.
23. Baña allegatzen da denbora, beratan gaude, noiz egiazko adoratzaleak adoratuko duten Aita, espirituan eta egian. Zeren Aitak onelako adoratzaleak billatzen ditu.
24. Jaungoikoa espiritua da, eta bera adoratzan dutenak, espirituan eta egian adoratu bear dute.
25. Emakumeak esaten dio: Badakit etortzeko dagoala Mesias (Kristo deritzana), datorrenean bada, guztia erakutsiko digu.
26. Jesusek esan zion: Ni, zurekin itz egiten dedan au, naiz.
27. Eta andik bereala etorri ziran bere ikasleak, eta miraritzen ziran, emakume batekin itz egiten zuelako. Baña batek ere etzion esan: Zer galde egiten diozu, edo zergatik berarekin itz egiten dezu?
28. Emakumeak bada utzi zuen bere kantxilla, eta errira joan zan, eta gizon aiei esan zion:
29. Atozte, eta ikusi ezazute, egin ditudan gauza guztiak esan dizkidan gizon bat, au ote da Kristo?

30. Orduan erritik atera ziran, eta etorri ziran beragana.
31. Bitartean bere ikasleak erregututzen zioten, esaten zutela: Era-kuslea, jan ezazu.
32. Jesusek esan zion: Nik daukat jateko, zuek ez dakizuten janari bat.
33. Ikasleak bada elkarri esaten zioten: Norbaitek oni jatekoa ekarri ote zio?
34. Jesusek esan zion: Nere janaria da, bialdu ninduenaren borondategitea, eta bere lanari betetasuna ematea.
35. Ez al dezute zuek esaten: Emendik lau illabetera egongo gera igitatzeko garaiean? Bada orain nik esaten dizutet: Jaso itzatzute zuen begiak, eta begiratu zaiezute kanpoi, nola dauden zuriak, igitatzeko.
36. Igitaitzen duenak artzen du bere ordaña, eta biltzen ditu frutuak betiko bizitzarako, berdin gozatu ditezen, ala ereitzen duena, nola igitaitzen duena.
37. Eta onetan egiztatzen da esangi hura; Bata da ereitzen duena, eta beste bat igitaitzen duena.
38. Nik bialdu zaituztet zuek, igitaitzera, zuek, bere lana egin etzendutenak, beste batzuek egin zuten lana, eta zuek beren lanetan sartu zerate.
39. Eta erri artako Samariatar askok beragan sinistu zuten emakumearen itzagatik, zeñak esaten zuen: Egin dedan guzia esan dit.
40. Etorri ziradenean bada beragana Samariatarrek, erregutu zioten, an gelditu zedilla. Eta bi egunean an gelditu zan.
41. Eta asko geiagok beragan sinistu zuen, bere itzak aditu zituztelako.
42. Eta emakumeari esaten zioten: Onezkero ez degu sinisten zuk esan dezunagatik, bada guk gerok aditu diogu, eta ezagutu degu, au dala egiaz munduaren Salbatzalea.
43. Irigorik bada bi egun, andik atera zan, eta Galileara joan zan.
44. Zeren Jesusek berak esan zuen: Profetarik batere ez dala bere errian onratua.
45. Etorri zanean bada Galileara, Galileatarrek arrera ona egin zioten, zeren ikusi zituzten, Jerusalem jai egunean egin zituen gauza guztiak, bada berak ere joan ziran jai egunera.
46. Etorri zan bada berriz ere Galileako Kanara, non ura ardo egin zuen. Eta Kafarnaumen zegoan errege etxeko Jaun bat, zeñean semea zegoan eririk.
47. Onek aditu zuenean Jesus zetorrela Judeatik Galileara, beragana joan zan, eta erregututzen zion jetxi zedilla, eta bere semea sendatu zeza-la, zeren iltzen zegoan.



48. Eta Jesusek esan zion: Zuek ez dezute sinisten, ez badituzute ikusten mirariak eta gauza arrigarriak.

49. Errege etxeko andizkiak esaten zion: Atoz, Jauna, nere semea il dedin baño lenago.

50. Jesusek esan zion: Zoaz, bada zure semea ongi dago. Sinistu zuen gizon ark Jesusek esan zion itza, eta bazijoan.

51. Eta bazijoala, atera zitzaiozkan bidera bere serbitzariak, eta berri onak eman ziozkaten esaten zutela: Bere semea ongi zegoala.

52. Eta galdetzen zien: Zeñ ordutan obaturzen asi zan. Eta esan zioten: Atzo zazpiretan sukarrak utzi zion,

53. Ezagutu zuen bada aitak, ordu hura zala, zeñatan esan zion Jesusek: Zure semea ongi dago. Eta sinistu zuten berak, eta bere etxe guztiak.

54. Bigarren mirari au egin zuen berriz Jesusek, Judeatik Galileara etorri zanean.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Gauza oiek iragota, zan Juduen jai eguna, eta igo zan Jesus Jerusalemenera.

2. Jerusalem dago putzu bat, ardienez izena duena, hebreoz Betsaida deritzana, atarietan bost leorpe dauzkana.

3. Oietan egon oi zan eri talde andi bat, itsuak, errenak, elbarriak, uren mugimenduaren zai.

4. Zeren Jaunaren aingeru bat jetxitzen zan noizik noizera putzura, eta mugitzen zan ura. Eta putzura lenengo jetxitzen zana, ura mugitua izan ezker, sendatua gelditzen zan, zeukan edozeñere eritasunetik.

5. Eta zegoan an gizon bat, ogeita emezortzi urtean eri zana.

6. Ikusi zuenean au Jesusek etzinik, eta ezagaturik edade andikoa zala, esan zion: Nai dezu sendatua izan?

7. Eriak erantzun zion: Jauna, ez daukat nork sartu natzan putzuan ura mugitua dagoenean, zeren ni joaten naizan bitartean, beste bat jetxitzen da ni baño lenago.

8. Jesusek esan zion: Jaiki zait, artu ezazu zure oetxoa, eta ibilli zait.

9. Eta batbatean sendatua gelditu zan gizon hura, eta artu zuen bere oetxoa, eta bazebillan. Eta egun hura larunbata zan.

10. Esaten zioten bada Juduak sendatua izan zanari: Larunbata da, eta ezin eraman zenezake zure oetxoa.

11. Erantzun zien: Sendatu ninduenak esan zidan: Ar zazu zure oetxoa, eta ibilli zait.

12. Galde egin zioten bada: Zeñ da gizon hura, esan dizuna: Ar zazu zure oetxoa, eta ibilli zait?

13. Eta sendatua izan zanak etziekien zeñ zan, zeren Jesusek alde egin zuen, toki artan zegoan jende taldeagandik.

14. Gero arkitu zuen Jesusek tenploan, eta esan zion: Begira, sendatua izan zerala. Ez ezazu bada berriz bekatu egin, gauza gaiztoagoren bat gertatu ez dizazun.

15. Joan zan gizon hura, eta esan zien Juduai, Jesus izan zala, bera sendatu zuena.

16. Argatik Juduak persegitzen zuten Jesus, gauza oiek larunbatean egiten zituelako.

17. Eta Jesusek erantzun zien: Nere Aita gaur, beti bezela, ari da lanean, eta orobat ni.

18. Argatik bada, geroago gogo geiago zeukaten Juduak, bera iltzeko, zeren ez bakarrik ausitzen zuen larunbata, baitaere esaten zuen, Jaungoikoa zala bere Aita, eta bera eta Jaungoikoa berdiñak zirala. Argatik erantzun zien Jesusek, eta esan zien:

19. Egia guztiarekin esaten dizutet, semeak berez ezin egin lezakeala gauzarik batere, baizik Aitari ikusten diona, zeren Aitak egiten duen gutzia, Semeak ere berdin egiten du.

20. Zeren Aitak Semea maitatzen du, eta berak egiten duen gutzia, agertzen dio, eta oiek baño andiagoak agertuko diozka; alakoak, non, mirarituak geldituko zerate.

21. Zeren nola Aitak biztutzen dituen illak, eta bizia ematen dien; ala semeak ematen die bizia nai diotenai.

22. Eta Aitak ez du inor ere juzgatzen, baizik semeari eman dio, gutziak juzgatzeko eskubidea,

23. Guztiak semea onratu dezaten, Aita onratzen duten bezela. Semea onratzen ez duenak, ez du onratzen Aita, zeñak bialdu zuen.

24. Egia guztiarekin esaten dizutet, nere itza aditzen duenak, eta ni bialdu ninduenagan sinisten duenak, betiko bizia daukala, eta ez du izango betiko kondenzioko sentenziarik, baizik eriotzatik bizitzara irago da.

25. Egia guztiarekin esaten dizutet, badatorrela ordua, eta oraintze da, noiz illak Jaungoikoaren semearen boza adituko duten, eta aditzen dutenak, biziko dirade.

26. Zeren nola Aitak beragan bizia daukan, ala Semeari ere eman zion, bizia beragan idukitzea.

27. Eta eman zion juzgatzeko eskubidea, gizonaren semea dalako.



28. Etzaitzete augatik miraritu, zeren ordua badator, zeñean obietan dauden guztiak, Jaungoikoaren semearen boza adituko duten.
29. Eta aterako dira, obra onak egin zituztenak, betiko bizitzarako biztutzero; baña obra gaiztoak egin zituztenak, biztuko dira, betiko galduak izateko.
30. Nik nerez ezin nezake gauzarik batere egin. Nik ematen det erabakia, aditzen dedanaren araura, eta nere erabakia justoa da, zeren ez det billatzen nere borondatea egitea, bialdu ninduenaren borondatea baizik.
31. Nik nere alde itz egiten badet, nere itzak ez dirade egiazkoak.
32. Beste bat da nere alde itz egiten duena, eta badakit egiazkoak diradela, nere alde esaten dituen itzak.
33. Zuek bialdu zinduten Juangana, eta berak itz egin zuen egiaren alde.
34. Nik ordea ez daukat, gizonak nere alde itz egitearen premiarik, baizik au esaten det, zuek salbatu zaitzeten.
35. Hura zan argi bat, erazekia zegoana, eta argi egiten zuena. Eta zuek nai izan zenduten denbora laburrean bere argiarekin poztu.
36. Baña nik daukat Juan baño andiago bat, nere alde itz egiteko. Zeren Aitak eman zizkidan obrak, kunplitu nitzan, nik egiten ditudan obrak berak, itz egiten dute nere alde, adirazten dutela, Aitak bialdu nauela.
37. Eta bialdu ninduen Aitak, berak eman zuen nere testimonioa, eta zuek beñere ez dezute bere boza aditu, ezta bere irudia ikusi ere.
38. Ez daukazute ere bere itza zuen barrenen itsatsia; bada ez diozute sinisterik ematen, berak bialdu zuenari.
39. Arretaz irakurri itzatzute liburu santuak, zeñaetan, zuek sinisten dezuten, betiko bizitza daukazutela, eta berak dirade nere testimonioa ematen dutenak,
40. Eta alaere ez dezute nigana etorri nai, bizitza iritxitzeko.
41. Gizonakgandik ez det gloriarik artzen.
42. Baña nik ezagutu zaituztet, eta dakit, ez daukazutela zuekgan Jaungoikoaren amodiorik.
43. Ni etorri nintzan nere Aitaren izenean, eta ez nazute artzen. Beste bat etorriko balitza bere izenean, hura artuko dezute.
44. Nola sinistu zenezakete zuek, elkargandik gloria artzen dezutenok, eta Jaungoikoagandik bakarrik datorren gloria, billatzen ez dezutenok?
45. Ez ezazute uste izan, nik Aitaren aurrean salatuko zaituztedala. Badago beste bat salatzen zaituztena, Moises, zeñgan zuek itxedotzen dezuten.

46. Zeren baldin Moisesgan sinistuko bazendute, nigan ere sinistuko zendukete, bada berak nere gañean eskribatu zuen.

47. Eta berak eskribatu zuenari sinisten ez badiozute, nola nere itzari sinistea emango diezute?

## SEIGARREN KAPITULUA

- Oien ondoan irago zan Jesus Galileako itsasoaren beste aldame-nera, zeña dan Tiberiadeskoa.
- Eta jende talde andi batek jarraitzen zion, ikusten zituztelako erien gañean egiten zituen mirariak.
- Igo zan bada Jesus mendi batera, eta an zegoan eserita bere ikasleakin.
- Eta aldean zegoan Paskoa, Juduen jai eguna.
- Jasorik bada Jesusek begiak, eta ikusirik jende talde andi bat zeto-rrera beragana, Feliperi esan zion: Non erosiko ditugu ogiak, oiek jan dezaten?
- Au esaten zion probatzeko, zeren berak baziekien zer egingo zuen.
- Felipek erantzun zion: Eun diru ogi, ez dirade berentzat asko, bakoitzak piska bat artu dezan.
- Bere ikasleetatik batek, Andres Simon Pedroren anaiak, esan zion:
- Badago emen mutil bat, dauzkana bost ogi garagarrezko, eta bi arrai, baña zer dirade oiek, anbeste jenderentzat?
- Eta Jesusek esan zuen: Eserierazi zaiozute jenderari. Eta elbitz asko zegoan toki artan. Eta eseri ziran jaten, bost milla gizon bezelatsu.
- Artu zituen bada Jesusek ogiak, eta eskerrak emanik, partitu zituen eserita zeudenen artean, baita arraiak ere, nai zuten adiña.
- Eta ase ziradenean, esan zien bere ikasleai: Bildu itzatzute gelditu diraden zatiak, galdu ez ditezen.
- Bildu zituzten bada, eta bete zituzten amabi saski, jan zutenai gelditu ziozkaten garagarrezko bost ogien zatiakin.
- Gizon aiek bada, Jesusek egin zuen miraria ikusi zutenean, esan zuten: Au da egiaz, mundura etorriko dan Profeta.
- Jesusek bada, ezagaturik etorriko ziradela bera arrapatzero, eta errege egitera, berak bakarrik, berriz mendira iges egin zuen.
- Eta nola berandutu zan, bere ikasleak itsasora jetxi ziraden.
- Eta sartzen ziradela ontzi batean, etorri ziran itsasoaren beste aldame-nera Kafarnaumera, eta zan orduan gau illuna, eta Jesus etzan oraindikan berakgana etorri.



18. Eta jaikitzen zan itsasoa, zerabillan aize andiarekin.
19. Ibili ziradenean arraunaz ogeita bost, edo ogeita amar estadio bezelatsu, ikusi zuten Jesus itsasoaren gañean zebillala, eta ontzira alder-tzen zala, eta beldurtu ziran.
20. Berak berriz esaten die: Ni naiz, etzaitzete beldur izan.
21. Berak berriz ontzian artu nai zuten, eta ontzia allegatu zan laster, zijoazen lurrera.
22. Biaramonean, itsasoaren beste aldamenen zegoan jendeak ikusi zuen, ez zegoala an ontzi bakar bat baño, eta Jesus etzala sartu ontzian bere ikasleekin, baizikan bere ikaslek bakarrik joan zirala.
23. Eta beste ontzi batzuek allegatu ziran Tiberiadestik, ogia jan zuten tokiaren aldera, Jaunari eskerrak eman ezker.
24. Ikusi zuenean bada jende taldeak ez zegoala an Jesus, ezta bere ikasleak ere, ontzietan sartu ziran, eta Kafarnaumera joan ziran Jesusen billa.
25. Eta arkitu zutenean itsasoaren beste aldamenen, esan zioten: Erakuslea, noiz onara etorri zera?
26. Jesusek erantzun eta esan zien: Egia guztiarekin esaten dizutet, billatzen nazutela, ez ikusi dituzuten mirariakgatik, baizik ogia jan zendu-telako, eta ase ziñatelako.
27. Ari zaitzete lanean, ez galtzen dan janaria gatik, baizik betiko bizi-tzarako irautzen duenagatik, zeñ gizonaren semeak emango dizuten. Zeren onegan itsatsi zuen bere sillua Aitak, zeñ dan Jaungoikoa.
28. Esan zioten bada: Zer da egingo deguna, Jaungoikoaren gogoko lanetan aritzeko?
29. Jaungoikoaren gogo lana da, sinistu dezazutela, berak bialdu zizu-tenagan.
30. Esan zioten bada: Zer mirari egiten dezu zuk, guk ikusi, eta sinis-tu dizazugun? Zer gauza egiten dezu?
31. Gure gurasoak eremuan manna jan zuten, eskribatua dagoan bezela: Zeruko ogia eman zien jaten.
32. Eta Jesusek esan zien: Egia guztiarekin esaten dizutet: Ez zizute-la Moisesek eman zeruko ogia; baizik nere Aitak ematen dizutela zeruko ogi egiazkoa.
33. Zeren Jaungoikoaren ogia da zerutik jetxi zana, eta munduari bizia ematen diona.
34. Berak bada esan zioten: Jauna, eman zaguzu beti ogi au.

35. Eta Jesusek esan zien: Ni naiz bizitzako ogia. Nigana datorrena, ez da gose izango, eta nigan sinisten duenak, ez du beñere egarririk idu-kiko.
36. Baña esan dizutet, ikusi nazutela, eta ez dezutela sinisten.
37. Aitak ematen didan guzia, nigana etorriko da, eta nigana dato-rrena, ez det kanpora botako.
38. Zeren zerutik jetxi nintzan, ez nere borondatea egiteko, bialdu ninduenaren borondatea baizik.
39. Eta au da, arako Aita, bialdu ninduenaren borondatea: Ez deza-dala galdtu ezertxoere, berak eman zidan guztitik, baizik berriz biztu deza-dala atzeneko egunean.
40. Eta bialdu ninduen nere Aitaren borondatea, au da: Semea ikus-ten duen guztiak eta beragan sinisten duenak, betiko bizitza iduki dezala, eta nik atzeneko egunean berriz biztuko det.
41. Juduak bada gaizki esaten zuten beragatik, esan zuelako: Ni naiz, zerutikan jetxitako ogi bizia.
42. Eta esaten zuten: Ez al dek au Jesus Joserren semea, zeñaen Aita eta ama dikagun ezagunak? Nola bada berak esaten dik: Ni zerutik jetxi nintzan?
43. Jesusek bada erantzun, eta esan zien: Etzaitzete ibili zuen artean gaizki esaka:
44. Iñor ere ezin etorri liteke nigana, ni bialdu ninduen Aitak ekar-tzen ez badu, eta alakoia nik berriz biztuko det atzeneko egunean.
45. Profetetan eskribatua dago: Guztiak izango dirade, Jaungoikoak erakutsiak. Aitari aditu dion guztia bada, eta ikasi duena, nigana dator.
46. Ez, Aita iñork ikusi duelako, salbu Jaungoikoagandik danak: onek bai, Aita ikusi duela.
47. Egia guztiarekin esaten dizutet, nigan sinisten duenak, betiko bizitza daukala.
48. Ni naiz bizitzako ogia.
49. Zuen gurasoak basomortuan manna jan zuten, eta il ziran.
50. Au da zerutik jetxitzen dan ogia, beratatik jaten duena, il ez dedin.
51. Ni naiz zerutik jetxi naizan ogi bizia.
52. Ogi onetatik jaten duena, beti biziko da, eta nik emango dedan ogia, da nere neronen aragia, munduaren salbaziorako.
53. Orduan Juduak asi ziran elean elkarrekin esaten zutela: Nola onek bere aragia jaten eman dizagukek?





54. Jesusek bada esan zien: Egia guztiarekin esaten dizutet, ez badezute jaten gizonaren semearen aragia, eta ez badezute edaten bere odola, ez dezute idukiko zuekgan bizitzarik.

55. Nere aragia jaten duenak, eta nere odola edaten duenak, betiko bizitza dauka, eta nik atzeneko egunean, berriz biztuko det.

56. Zeren nere aragia, egiaz janaria da, eta nere odola egiaz edaria da.

57. Nere aragia jaten duena, eta nere odola edaten duena, nigan dago, eta ni beragan.

58. Nola, bialdu nauen Aita bizi dan, eta ni Aitagatik bizi naizan: ala jaten nauena bera ere, nigatik biziko da.

59. Au da zerutik jetxi zan ogia. Ez da gertatuko zuen gurasoai beze-la, zeñak manna jan zuten, eta alaere il ziran. Ogi au jaten duena, beti biziko da.

60. Gauza oiek Jesusek esan zituen Kafarnaumgo Sinagogan, era-kusten ari zala.

61. Eta bere ikasleetatik askok aditu zituztenean, esan zuten: Gogorra dek izketa au, eta nork aditu dezakek?

62. Jesusek berriz berez jakinik, bere ikasleak augatik gaizki esaka ari zirala, esan zien: Augatik eskandalizatzen zerate?

63. Zer izango liteke ikusiko bazendute gizonaren semea, len zegoan tokira igotzen dala?

64. Espiritua da, bizia ematen duena; aragiak berriz deus ez du balio. Nik esan dizkizutedan itzak, espiritua eta bizitza dira.

65. Baña badirade zuen arteko batzuek, sinisten ez dutenak, zeren Jesusek asieratik baziekien zeñ ziran sinisten etzutenak, eta zeñek jarriko zuen etsaien eskuetan.

66. Eta esaten zuen: Argatik esan dizutet, ezin etorri litekeala iñor ere nigana, nere Aitak emana ez bazaio.

67. Ordu artatik, bere ikasleetatik asko atzera biurtu ziran, eta onez-kero ez zebiltzan berarekin.

68. Eta Jesusek esan zien amabiai: Zuek ere joan nai al dezute?

69. Eta Simon Pedrok erantzun zion: Jauna, zeñgana joango gera? Betiko bizitzako itzak dauzkazu.

70. Eta guk sinistu degu, eta ezagutu degu, zu zerala Kristo Jaungoikoaren semea.

71. Jesusek erantzun zien: Ez al zinduztedan amabiak autu, eta alae-re zuetatik bat deabrua da?

72. Au esaten zuen Judas Iskariote Simonen semeagatik, zeñak, amabiatatik bat bazan ere, salduko zuen.

## ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Oiek iragorik, baze bilan Jesus Galileatik, zeren etzuen Judeara joan nai, Juduak bere billan zebiltzalako, bera iltzeko.

2. Eta aldean zegoan Juduen jai egun, Tabernakuloena zeritzana.

3. Bere anaiak esan zioten: Atera zaite emendikan, eta Judeara zoaz, zure ikasle aiek ere ikusi ditzaten zuk egiten dituzun obrak.

4. Ez dituen ezker o iñork ere egiten gauzak ezkutuan, ezagutua izan nai badu, alako gauzak egiten dituzun ezker o, agertu zatzakio munduari.

5. Zeren oraindikan bere anaietatik askok, etzuten beragan sinisten.

6. Jesusek bada esan zien: Nere denbora ez da oraindikan allegatu: zuen denbora berriz, beti dago prestatua.

7. Ezin munduak zuek gorrotatu zaitzakete, baña ni gorrotatzen nau, zeren nik beragatik esan det, bere obrak gaiztoak diradela.

8. Igo zaitzete zuek egun onetako elizkizunetara: ni ordea ez naiz igoko egun onetako elizkizunetara; zeren nere denbora ez da oraindikan kunplitu.

9. Oiek esanik, bera Galilean gelditu zan.

10. Bere anaiak igota gero berriz, bera ere igo zan jai eguneko elizkizunetara, ez agirian, baizik ezkutuan bezela.

11. Eta Juduak billatzen zuten jostaketako egunean, eta esaten zuten: Non ote dagok hura?

12. Eta murmur andia zegoan bere gañean jendeen artean. Zeren batzuek esaten zuten: Gizon ona izan bear dik orrek. Beste batzuek berriz esaten zuten: Ez, baizik engañatzen dik jende taldea.

13. Baña etzuen iñork ere bere alde agirian itzik egiten, Juduen bel-durragatik.

14. Eta jai eguneko elizkizunak erdiunean zeudela, igo zan Jesus eliz-zara, eta ematen zituen erakutsiak.

15. Eta miraritzen ziran Juduak, esaten zutela: Nola onek liburu san-tuetako letrak dakizkik, ez baldin baditu ikasi?

16. Erantzun zien Jesusek, eta esan zien: Nere dotriña ez da nerea, baizik bialdu ninduenarena.

17. Bere borondatea egin nai duenak, dotriñatik ezagutuko du, Jaungoikoagandikoa ote dan, ala nik nerez itz egiten dedan.

18. Norberagandik itz egiten duenak, norberaren gloria billatzen du, baña bialdu zuenaren gloria billatzen duena, au egiatia da, eta bidezko ez dan gauzarik ez dago beragan.





19. Ez al zizuten Moisesek legea eman, eta alaere zuetatik batek ere ez du legea gordetzen?
20. Zergatik il nai nazute? Erantzun zuen jende taldeak: Demonioa daukak, nork il nai au?
21. Erantzun zien Jesusek, eta esan zien: Obra arrigarri bat bakarrik egin det larunbatean, eta guztiok zaudete mirarituak.
22. Argatik Moisesek eman zizuten zirkunzisia (ez bera Moisesena dalako, baizik Aitalenena) eta larunbatean zirkunzidatzen dezute gizona.
23. Baldin gizonak larunbatean zirkunzisia artzen badu, Moisesen legea autsia izan ez dedin, nere kontra aserretzen zerate, gizon osoa larunbatean sendatu nuelako?
24. Ez itzatzute juzguak egin irudietatik, baizik egin itzazute juzgu zuzenak.
25. Esaten zuten bada Jerusalemgo batzuek: Ez al da au, iltzeko billa-tzen dutena?
26. Eta alaere ikusi ezazute nola agirian itz egiten duen, eta ez diote ezerere esaten. Prinzipeak ezagutu al dute au dala Kristoa?
27. Baña au nongoa dan badakigu; Kristoa datorrenean berriz, ez du iñork ere jakingo nongoa dan.
28. Elizan erakutsiak ematen ari zala bada Jesus, boz goratuarekin esaten zuen: Ni ezagutzen nazute, eta nongoa naizan badakizute, baña ez naiz ni neraugandik etorri, baizik bialdu nauena egiatia da, zeñ zuek ez dezuten ezagutzen.
29. Nik bai ezagutzen dedala, zeren beragandik daukat izatea, eta bialdu nauena bera da.
30. Arrapatu nai zuten bada, baña etzituen iñork beragan eskuak ipiñi, oraindikan bere ordua etzalako etorria.
31. Jende talde artako askok bada beragan sinistu zuten, eta esaten zuten: Kristoa datorrenean, onek baño mirari geiago egingo ote dizkik?
32. Aditu zuten Fariseoak, errian bere gañean zegoan murmulla, eta apaizen prinzipiak eta Fariseoak, bialdu zituzten morroiak arrapatu zezaten.
33. Eta Jesusek esan zioten: Oraindikan denbora gutxi batean zuekin egongo naiz, eta gero banoa bialdu ninduen huragana.
34. Zuek billatuko nazute, eta ez nazute arkituko, eta egotera noan tokira, zuek ezin etorri zintezke.
35. Juduak bada beren artean esan zuten: Zeñ toki, arkitu ezin degu-nera, joango ote dek geroz au? Joango ote dek noski, munduan barreia-tuak zeauden erreñuen artera, jentillai predikatzeraz?

36. Zer esan nai izan ote dik itz oiekin: Billatuko nazute, eta ez nazu-te arkituko: eta ni egotera noan tokira, zuek ezin etorri zintezke?
37. Eta atzeneko elizkizunetako eguneko jai andian zegoan an Jesus, eta boz goratuaz esaten zuen: iñor egarri bada, nigana betor, eta edan beza.
38. Nigan sinisten duenari, liburu santuak esaten duten bezela, bere sabeletikan ur bizizko ibaiak jarioko zaiozka.
39. Au berriz esan zuen, beragan sinisten zutenak artuko zuten Espi-rituagatik, zeren oraindikan etzan izan emana Espiritua, zeren oraindikan Jesus ez zegoan bere glorian.
40. Jende aietatik askok, aditurik Jesusen izketa oiek, esaten zuten: Ziertoro au profetaren bat dek.
41. Beste batzuek esaten zuten: Au da Kristo. Beste batzuek berriz esaten zuten: Galileatik etorriko al dek Kristo?
42. Ez al zetitek esaten liburu santuak, Kristo etorriko dala Dabiden jatorritik, eta Belengo uritik, non bizitu oi zan Dabid?
43. Eta ala, desberdiñak ziran errian bere gañeko iritziak.
44. Eta beretatiko batzuek arrapatu nai zuten, baña batek ere etzi-tuen eskuak bere gañean jarri.
45. Itzuli ziraden bada Apaizen Prinzipeakgana eta Fariseoakgana beren morroiak. Eta aiek oiei esan zien: Zergatik ez dezute ekarri?
46. Morroiak erantzun zien: iñoizere ez du gizonek itz egin, gizon onek bezela.
47. Erantzun zien Fariseoak: Zer! Zuek ere engañatuak izan al zera-te?
48. Prinziperen batek, edo Fariseoren batek beragan sinistu al dik?
49. Jendetza, legea aditzen ez duen ori, dek bakarrik madarikatua.
50. Nikodemok, gauaz Jesusgana etorri zanak, zeñ zan beretatik bat, esan zien:
51. Gure legeak juzgatzen al du gizon bat, lendanaz bera aditu gabe, eta ezagutu gabe zer egin duen?
52. Erantzun eta esan zioten: i ere Galileatarra al aiz? Aratu itzak liburu santuak, eta ikusiko dek, ez dikala Galileatik profetarikan beñere atera.
53. Eta itzuli ziran bakoitza bere etxera.

## ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta Jesus joan zan Oliboen mendira.



2. Eta goizean goiz, berriz etorri zan elizara, eta erri gutzia beragana etorri zan, eta eserita, ematen zituen erakutsiak.

3. Eta Eskriba eta Fariseoak ekarri zioten andre bat aragizko bekatuan arrapatua, eta erdian jarri zuten,

4. Eta esan zioten: Erakuslea, andre au oraintxe izan da aragizko bekatuan arrapatua.

5. Moisesek legean agindu zigun, onelakoai arrika egiteko. Zuk bada zer esaten dezu?

6. Eta au esaten zuten, tentatzen zutela, bera salatzeko eskubidea iduki zezaten. Baña Jesusek beerontz makurtuta, beatzarekin lurrean eskribatzen zuen.

7. Baña nola irautzen zuten, galdetzen ziotela, zuzendu zan, eta esan zien: Zuen artetikan bekatu gabetanik arkitzen danak, bota bizaio arria lenengo.

8. Eta berriz makurtzen zala, lurrean eskribatzen zuen.

9. Berak au aditu zutenean, irten ziran bata bestearen ondoren, zarrenetatik asitzen ziradela: eta bakarrik gelditu zan Jesus, eta andre, erdian zutik zegoana.

10. Eta zuzentzen zala Jesus, esan zion: Andrea, non dirade salatzen zindutenak? iñork ere etzaitu kondenatu?

11. Andreak esan zuen: iñork ere ez, Jauna. Eta Jesusek esan zion: Nik ere etzaitu kondenatuko. Zoaz, eta ez ezazu onezkero berriz bekatu egin.

12. Berriz ere bada itz egin zien Jesusek, esaten zuela: Ni naiz munduko argia. Neri jarraitzen didana, ez dabil illuntasunetan, baizik bizitzako argia idukiko du.

13. Eta Fariseoak esan zioten: Zuk zerorren testigantza ematen dezu: zure testigantza ez da egiazkoa.

14. Jesusek erantzun zien, eta esan zuen: Nik neronen testigantza ematen badet ere, nere testigantza egiazkoa da, zeren badakit nondik etorri nintzan, eta nora noan; Zuek berriz ez dakizute, ez nondik natorren, ez nora noan.

15. Zuek aragiaren araura juzgatzen dezute; nik berriz ez det iñor ere juzgatzen.

16. Eta nik juzgatzen baldin badet, nere juizioa egiazkoa da, bakarrik ez naizalako, baizik ni eta nire Aita, bialdu ninduen.

17. Eta zuen legean eskribatua dago, bi gizonen testigantza egiazkoa dala.

18. Ni naiz neronen testigantza ematen dedana, eta nere testigantza ematen du, bialdu ninduen Aitak.

19. Esaten zioten bada: Non dago zure Aita? Jesusek erantzun zien: Ez ni ezagutzen nazute, ez nere Aita. Ni ezagutuko baninduzuteke, egiazki nere Aita ere ezagutuko zendukete.

20. Itz oiek esan zituen Jesusek gordairuaren atarian, tenploan erakutsiak ematen zituela, eta etzuen iñork arrapatu, oraindikan bere ordua etzalako etorria.

21. Beste denbora batean Jesusek esan zien. Ni banoa, eta billatuko nazute, eta zuen bekatuan ilko zerate. Ni noan tokira, zuek ezin etorri zintezke.

22. Juduak bada esaten zuten: ilko al dek hura bera, zeren esan dik: Ni noan tokira zuek ezin etorri zintezke?

23. Eta esaten zien: Zuek beekoak zerate, ni ez naiz mundu onetako.

24. Esan nizuten bada, zuen bekatuetan ilko zeratela, zeren ez badezute sinisten ni naizala, zuen bekatuan ilko zerate.

25. Esaten zioten bada: Zeñ zera zu? Jesusek esan zien: Asiera, zuekin itz egiten dedana bera.

26. Zuekgatik asko gauza dauzkat zer esan, eta zer gaizkitzat eman. Ni bialdu ninduen berriz, egiatia da, eta nik munduan bakarrik esaten ditut, ari aditutako gauzak.

27. Eta etzuten aditu, bere Aitari Jaungoikoaren izena ematen ziola.

28. Jesusek bada esan zien: Gizonaren semea altxatzen dezutenean, orduan adituko dezute, ni naizala, eta neregandik ez dedala ezerere egiten, baizik esaten dedala, nere Aitak erakutsi didana:

29. Eta bialdu ninduen, nerekin dago, eta ez nau bakarrik utzi, zeren nik beti egiten ditut, bere gogokoak diraden gauzak.

30. Berak gauza oiek esaten zituela, askok beragan sinistu zuten.

31. Jesusek bada esaten zien, beragan sinistu zuten Juduai: irautzen badezute nere itzean, egiaz nere ikasleak izango zerate:

32. Eta egia ezagutuko dezute, eta egia aterako zaituzte besteren mendetik.

33. Erantzun zioten: Abrahamen jatorria gera, eta iñoizere ez gera besteren mende egon: nola bada zuk esaten dezu: Etzerate iñoren mende egongo?

34. Jesusek erantzun zien: Egia guziarekin esaten dizutet, bekatu egiten duen guzia, bekatuaren mendekoa dala.



35. Eta mendekoa ez da etxean betiko gelditzen; semea berriz betiko gelditzen da.
36. Semeak bada besteren mendetik ateratzen bazaituzte, egiaz besteren mendetik aterata egongo zerate.
37. Nik badakit, Abrahamen semeak zeratela, baña il nai nazute, nere itza zuekgan kabitzen ez dalako.
38. Nik esaten det, nere Aitagan ikusi nuena, eta zuek egiten dezute, zuen Aitagan ikusi zendutena.
39. Erantzun, eta esan zioten: Gure aita, Abraham da. Jesusek esan zien: Abrahamen semeak bazerate, Abrahamen obrak egin itzatzute.
40. Orain berriz, il nai nazute, izanik ni gizon bat, Jaungoikoari aditu nion egia esan dizutedana. Abrahamek etzuen au egin.
41. Zuek zuen aitaren obrak egiten dituzute. Eta berak esan zioten: Ez gera gu ixillumeak, aita bat daukagu, zeñ dan Jaungoikoa.
42. Eta Jesusek esan zien: Jaungoikoa balitza zuen aita, egiaz maitatuko ninduzuteke. Zeren ni Jaungoikoagandik atera nintzan, eta etorri nintzan: eta ez neregandik, baizik berak bialdu ninduen.
43. Zergatik ez dezute aditzen nere izkuntza au? Nere itza ezin entzun dezutelako.
44. Zuek deabruaren semeak zerate, eta zuen aitaren gurak egin nai dituzute. Bera asieratik zan iltzallea, eta egian etzuen iraun, egiarik beragan ez dagoelako, gezurra esaten duenean, beretik itz egiten du, zeren gezurtia dan, eta gezurraren aita.
45. Neri berriz ez didazute sinisten, egia esaten badizutet ere.
46. Zuetatik zeñek gezurti egingo nau? Egia esaten badizutet, zergatik ez nazute sinisten?
47. Jaungoikoarena danak, Jaungoikoaren itzak aditzen ditu. Argatik zuek ez dituzute aditzen, Jaungoikoarenak etzeratelako.
48. Juduak bada erantzun, eta esan zioten: Ez al dikagu guk ongi esaten, Samariatarra aizala i, eta demonioa daukakala?
9. Jesusek erantzun zuen: Ez daukat nik demoniorik, baizik nere Aita onratzen det, eta zuek desonratu nazute.
50. Nik berriz ez det nere gloria billatzen, bada billatzen duena, eta juzgatzen duena.
51. Egia guziarekin esaten dizutet, nere itza gordetzen duenak, ez duela betiko eriotza ikusiko.
52. Juduak esan zioten: Orain ezagutzen dikagu, demonioa daukakala. Abraham il ukan, eta Profetak, eta ik esaten dek: Nere itza gordetzen duena, ez da betiko ilko.

53. I al aiz, gure aita Abraham, il ukana baño andiagoa? Profetak ere il itukan. Zeñ egiten aiz erori?

54. Jesusek erantzun zuen: Nerau gloriatzen banaiz, nere gloria utsa da. Ni gloriatzen nauena da nere Aita, zeñ zuek esaten dezuten, zuen aita dala,

55. Eta ez dezute ezagutzen; nik ordea ezagutzen det. Eta esango banu ez dedala ezagutzen, zuek bezela, gezurtia izango ninteke. Baña eza-gutzen det, eta gordetzen det bere itza.

56. Zuen aita Abrahamek nere eguna ikusteko gurari biziak iduki zituen. Ikusi zuen, eta txit poztu zan.

57. Eta Juduak esan zioten: Oraindikan berrogeita amar urte ez daukazkik, eta Abraham ikusi ukan?

58. Jesusek esan zien: Egia guziarekin esaten dizutet, Abraham egiaña izan baño lenago, ni naiz.

59. Orduan artu zituzten arriak, berari aurtikitzeke: baña Jesus ezkutatatu zan, eta atera zan tenplotik.

### BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta iragotzean Jesus, ikusi zuen gizon bat jaiotzatik itsua.
2. Eta bere ikasleak galdetu zioten: Erakuslea, zeñak bekatu egin zuen, onek ala bere gurasoak, itsutua jaiotzeko?
3. Jesusek erantzun zuen: Ez onek bekatu egin zuen, ez bere gurasoak, baizik Jaungoikoaren obrak beragan agertu ditezen.
4. Premiazkoa da nik egitea bialdu ninduenaren obrak, eguna dan artean, etorriko da gaua, noiz iñork lanik ezin egingo duen.
5. Munduan nagoan artean, munduko argia naiz.
6. Oiek esan zituenean, istua bota zuen lurrera, eta istuarekin egin zuen oreka, eta igortzi zituen orearekin itsuaren begien gañak.
7. Eta esan zion: Zoaz, eta garbitu zaite Siloeko, (zeñak esan nai duen Bialdua) igeritokietan. Joan zan bada, eta garbitu zan, eta itzuli zan ikusten zuela.
8. Auzokoak bada, eta len eskean zebillala ikusi zutenak, esaten zuten: Ez al da au, eserita egon oi zana, eta eskean egoten zana? Batzuek esaten zuten: Au da.
9. Eta besteak: Ez da au, baizik bere antzeko bat da. Berak berriz esaten zuen: Ni naiz.
10. Eta esaten zioten: Nola izan zazkitzu begiak idikiak?
11. Erantzun zuen: Jesus izena duen gizon ark, egin zuen lurrezko oreka, eta igortzi zituen nere begiak, eta esan zidan: Zoaz Siloeko igerito-



kietara, eta garbitu zaitte. Eta joan nintzan, eta garbitu nintzan, eta ikusten det.

12. Eta esan zioten: Non da hura? Berak erantzun zuen: Ez dakit.

13. Eraman zuten Fariseoakgana, itsua izan zan hura.

14. Eta zan larunbata, Jesusek lurrezko orea egin, eta begiak idiki ziozkanean.

15. Berriz ere galdetu zioten Fariseoak, nola ikusten zuen. Eta berak esan zien: Lurrezko orea jarri zuen nere begien gañean, eta garbitu nintzan, eta dakust.

16. Eta Fariseoetatik batzuek esaten zuten: Larunbata gordetzen ez duen gizon au, ez da Jaungoikoak bialdua. Beste batzuek esaten zuten: Nola gizon bekatari batek egin ditzake mirari oiek? Eta ezbaia zegoan beren artean.

17. Berriz ere bada esaten diote itsuari: Zuk zer esaten dezu, zure begiak idiki zituen huragatik? Eta berak esan zuen: Profeta dala.

18. Juduak ordea etzioten berari sinistu, itsua izan zala, eta orain ikusten zuela, aliketa ots egin zien bitartean, begiak argituak izan zitzaiozkanaren gurasoai.

19. Eta galdetu zieten, eta esan zieten: Au al da zuen seme, zuek esaten dezutena, itsua jaio zala? Nola bada orain ikusten du?

20. Bere gurasoak erantzun zieten, eta esan zieten: Badakigu au dala gure semea, eta itsua jaio zala,

21. Baña nola orain ikusten duen, edo nork bere begiak idiki dituen, guk ez dakigu, berari galde egin zaiozute, adiñekoa da, berak beragatik itz egin dezala.

22. Oiek esan zituzten bere gurasoak, zeren Juduen beldur ziraden, zeren onezkero Juduak erabakita zeukaten, baldin iñork aitortzen bazuen Jesus Kristotzat, Sinagogatik kanpora aurtikia izan zedilla.

23. Argatik bere gurasoak esan zuten: Edadea dauka, galde zaiozute berari.

24. Berriz ere bada ots egin zioten, itsua izandu zan gizonari, eta esan zioten: Eman zaiozu gloria Jaungoikoari, guk badakigu gizon ori bekataria dala.

25. Berak esan zioten: Bekataria ote dan, nik ez dakit. Gauza bat dakit, izanik ni itsua, orain ikusten dedala.

26. Berak esan zioten: Zer egin zizun? Nola begiak idiki zizkizun?

27. Erantzun zien: Esan dizutet, eta aditu dezute, zertarako berriz aditu nai dezute? Zuek ere bere ikasleak egin nai al zerate?

28. Eta madarikatu zuten, eta esan zioten: i izan adi bere ikaslea: bada gu, Moisesen ikasleak gaituk.

29. Guk baziakigu Moisesi Jaungoikoak itz egin ziola; au berriz nongoa dekan ez ziaikigu.

30. Gizon hurak erantzun zuen, eta esan zien: Emen dago miraria, zuek ez dakizutela nongoa dan au, eta alaere nere begiak idiki ditu.

31. Dakiguna da, Jaungoikoak ez dituela bekatariak aditzen: Jaungoikoa onratzen duena berriz, eta bere borondatea egiten duena, au da aditzen duena Jaungoikoak.

32. Beñere ez da aditua izan, iñork idiki dituela, itsutua jaio zan baten begiak.

33. Gizon au ez balitza Jaungoikoak bialdua, egiten dituen gauzeta-tik ezerere ezin egingo luke.

34. Erantzun, eta esan zioten: Guziori bekatuz beteta jaioa aiz, eta ik erakutsiak ematen dizkiguk? Eta kanpora bota zuten.

35. Jesusek aditu zuen, kanpora bota zutela, eta arkitu zuenean, esan zion: Sinisten dezu zuk Jaungoikoaren semeagan?

36. Berak erantzun eta esan zuen: Zeñ da, Jauna, beragan sinistu dezadan?

37. Eta Jesusek esan zion: Eta ikusi dezu, eta zurekin itz egiten duena, orixe berori da.

38. Eta berak esan zuen: Sinisten det, Jauna. Eta auzpezturik, adora-tu zuen.

39. Eta Jesusek esan zuen: Ni mundu onetara etorri nintzan, juizio zuzen bat egitera, ikusten ez dutenak, ikusi dezaten, eta ikusten dutenak, itsutuak gelditu ditezen.

40. Berarekin zeuden Fariseo batzuek aditu zuten au, eta esan zioten: Gu ere itsuak al gaituk?

41. Jesusek esan zien: itsuak baziñate, etzendukete bekatu-rik idukiko, baña orain, esaten dezutelako: ikusten dezutela, argatik zuen bekatuak badirau.

## AMARGARREN KAPITULUA

1. Egiaz egiaz esaten dizutet, sartzen ez dana atetikan ardien ardite-kira, baizikan beste tokiren batetik igotzen dana, hura lapurra eta ebaslea dala.

2. Atetikan sartzen dana berriz, ardien artzaia da.

3. Oni atezaiak idikitzen dio, eta bere ardiai beren izenez ots egiten die, eta ateratzen ditu.



4. Eta bere ardiai ateraerazitzen dienean, beren aurean dijoa, eta ardiak jarraitzen diote, bere boza ezagutzen dutelako.
5. Arrotz bati ordea ez diote jarraitzen, baizik beragandik iges egiten dute, zeren arrotzen boza ez duten ezagutzen.
6. Irudi au ipiñi zien Jesusek. Berak berriz etzuten aditu zer esaten zien.
7. Eta bigarren aldiz Jesusek esan zien: Egia guziarekin esaten dizutet, ardien atea ni naizala.
8. Etorri ziran guztiak dira lapurrak, eta ebasleak, eta ardiak etzituzten aditu.
9. Ni naiz atea. Nigandik sartzen dana, salbatuko da, eta sartuko da, eta aterako da, eta bazkak arkituko ditu.
10. Lapurra ez dator, baizik ostutzero, eta iltzero, eta galtzero. Ni berriz etorri naiz, bizitza iduki dezaten, eta ugariago iduki dezaten.
11. Ni naiz artzai ona. Artzai onak bere bizia ardiakgatik ematen du.
12. Baña soldatariak, eta artzaia ez danak, zeñak ez dituen bereak ardiak, ikusten duenean otsoa datorrela, utzitzen ditu ardiak, eta iges egiten du, eta otsoak arrapatzen ditu, eta barreiatzen ditu ardiak.
13. Soldatariak berriz iges egiten du, soldataria dalako, eta ez dagozkiolako berari ardiak.
14. Ni naiz artzai ona, eta ezagutzen ditut nere ardiak, eta nereak ezagutzen naute.
15. Aitak ezagutzen nauen bezela, ala nik Aita ezagutzen det, eta nere ardiakgatik nere anima ipintzen det.
16. Baditut ere beste ardi batzuek, artalde onetakoak ez diradenak. Aiek ekarri bear ditut, eta nere boza adituko dute, eta guziakin egingo da artalde bakar bat, eta artzai bakar bat.
17. Argatik Aitak maitatzen nau, zeren nik nere anima ipintzen det, bera berriz artzeko.
18. Ez dit inork ere kentzen, baizik nik neronen bitartez ipintzen det, eta eskubidea daukat bera ipintzeko, eta eskubidea daukat bera berriz artzeko.
19. Eta berriz ere ezbaia izan zan Juduen artean itz oiekgatik.
20. Eta beretatik askok esaten zuten: Demonioa zeaukak, eta zoratu-ta dagok. Zergatik aditzen diozute?
21. Beste batzuek esaten zuten: itz oiek ez dirade demonioa daukanarenak. Demonioak idiki al ditzake itsuen begiak?
22. Eta zelebratzen zan Jerusalemenean Dedikazioko jai, eta negua zan.
23. Eta Jesus bazebillan tenploan Salomonen elizpean.

24. Eta Juduak ingurutu zuten, eta esan zioten; Noizarteraño gauz-kazu gogait egiten? Zu bazera Kristo, argiro esan zaguzu.
25. Jesusek erantzun zien: Esaten dizutet, eta ez nazute sinisten. Nik nere Aitaren izenean egiten ditudan obrak, oiek ematen dute nere testigantza.
26. Zuek ordea ez dezute sinisten, nere ardiatikoak etzeratelako.
27. Nere ardiak nere boza aditzen dute, eta nik ezagutzen ditut, eta berak jarraitzen didate.
28. Eta nik betiko bizitza ematen diet, eta inoizere ez dirade galduko, eta inork ere nere eskutik ez ditu arrapatuko.
29. Nere Aitak eman zidana, gauza guztiez gañetikoa da, eta inork ere ez dezake arrapatu nere Aitaren eskutik.
30. Ni eta Aita gauza bat gera.
31. Orduan Juduak artu zituzten arriak, berari arrika egiteko.
32. Jesusek esan zien: Obra on asko egin ditut zuen aurean nere Aitaren bertutez, beretatik zeñ gatik arrika egiten didazute?
33. Juduak erantzun zioten: Obra onagatik ez dikikagu arrika egiten, blasfemiagatik baizik, eta izanik i, aizan bezela, gizona, Jaungoiko egiten aizalako.
34. Jesusek erantzun zien: Zuen legean ez al dago eskribatua: Nik esan nuen, jainkoak zerate?
35. Baldin bada jainkoen izenaz ots egin bazitzaioleten Jaungoikoak itz egin zienai, eta Eskriturak ezin faltatu balezake,
36. Nola nigatik, zeñ Aitak santutu zuen; eta mundura bialdu zuen, esaten dezute zuek, blasfemia esaten dedala, esan dedalako: Jaungoikoaren semea naiz?
37. Nere Aitaren obrak egiten ez baditut, ez nazazute sinistu.
38. Baña egiten baditut, baldin neri sinistu nai ez badidazute ere, sinistu zaiezute obrari, ezagutu eta sinistu dezazuten, Aita nigan dagoela, eta ni Aitagan.
39. Eta berak arrapatu nai zuten, baña beren eskuetatik iges egin zien.
40. Eta berriz joan zan Jordango beste erriberara, Juan lenengo bataiatzen egon zan toki artara, eta an egotez egon zan.
41. Eta etorri ziran asko beragana, eta esaten zuten: Juanek egiaz miraririkan batere etzuen egin.
42. Juanek augatik esan zituen gauza guztiak berriz, egiazkoak ziran. Eta askok beragan sinistu zuten.



## AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Zegoan eririk denbora onetan Lazaro zeritzan gizon bat, Betania-koa, Maria eta Marta bere arreben errikoa.
2. (Eta Maria zan, Jauna okenduarekin igortzi zuena, eta bere illeakin bere oñak garbitu ziozkana, zeñaen anaia Lazaro zegoan eririk).
3. Bere arrebak bada bialdu zituzten mandatariak beragana, esatera: Jauna, begira ezazu arren, zuk maitatzen dezun hura, eririk dagoala.
4. Eta aditu zuenean Jesusek, esan zien: Gaitz au ez da iltzekoa, bai-zik Jaungoikoaren gloriarako, bere bitartez Jaungoikoaren semea gloriatz beteaa izan dedin.
5. Eta Jesusek maitatzen zituen Marta, eta bere aizpa Maria, eta Lazaro.
6. Eta aditu zuenean eririk zegoala, oraindik beste bi egunean gelditu zan toki artan.
7. Eta oiek iragorik, bere ikasleai esan zien: Goazen berriz Judeara.
8. Ikasleak esan zioten: Erakuslea, arestian juduak arrika egin nai izan dizute, eta berriz zoaz ara?
9. Jesusek erantzun zuen: Egunaren orduak amabi ez al dirade? Egunaz dabillanak ez du beaztoporikan egiten, zeren mundu onetako argia ikusten duen.
10. Baña gauaz ibiltzen danak, beaztopo egiten du, zeren beragan argirik ez dagoan.
11. Au esan zuen, eta gero esan zien: Gure adiskide Lazaro lo datza, baña banoa lotatik esnatzera.
12. Bere ikasleak esan zuten: Jauna, lo badatza, osasunarekin egongo da.
13. Jesusek berriz, bere eriotzagatik itz egin zien; berak ordea aditu zuten gaueroko loagatik itz egiten zuela.
14. Orduan jesusek argiro esan zien: Lazaro illa da.
15. Eta poztutzen naiz zuekgatik, an egon ez naizalako, sinistu deza-zuten: Baña goazen beragana.
16. Orduan Tomas, Didimo izena duenak, bere ikaslelagunai esan zien: Goazen gu ere, eta berarekin il gaitezen.
17. Etorri zan bada Jesus, eta arkitu zuen, lau egun zirala zegoala obian
18. (Eta Betania zegoan Jerusalendik aldean, amabost estadio bezelatsu.)
19. Eta Juduetatik asko joan ziran poztutzera Marta eta Maria, beren anaiaren eriotzagatik.

20. Martak bada, aditu zuenean Jesus zetorrela, bidera irten zitzaion, eta Maria etxean gelditu zan.
21. Eta Martak esan zion Jesusi: Jauna, emen egon baziña, nere anaia etzan ilko.
22. Baña badakit ere orain, Jaungoikoari eskatzen diozun guztia, Jaungoikoak emango dizula.
23. Jesusek esan zion: Zure anaia berriz biztuko da.
24. Martak esaten dio: Ongi dakit, berriz biztuko dala atzeneko egunean biztutze berrian.
25. Jesusek esan zion: Ni naiz biztutze berria, eta bizitza. Nigan sinisten duena, iltzen bada ere, biziko da.
26. Eta bizi dan, eta nigan sinisten duen guztia, iñoizere ez da ilko. Sinisten dezu au?
27. Martak esan zion: Bai Jauna, nik sinistu det, zu zerala Kristo, Jainko biziaren seme, mundu onetara etorri ziñana.
28. Eta oiek esanik, joan zan, eta ots egin zion ixillean bere aizpa Mariari, eta esan zion: Erakuslea dago emen, eta deitzen dizu.
29. Bera, aditu zuenean, bereala jaiki zan, eta beragana joan zan.
30. Zeren Jesus oraindik etzan allegatu errira, baizik zegoan, Martak bidera irten zitzaion toki artan.
31. Berarekin etxean zeuden, eta bera gozatzen ari ziran Juduak bada, ikusi zutenean Maria arin jaiki zala, eta irten zala, jarraitu zioten, esaten zutela: Obira dijoa, an negar egitera.
32. Eta Maria allegatu zanean Jesus zegoan tokira, ikusi zueneko, bere oñetan auzpeztu zan, eta esaten dio: Jauna, emen egon baziña, nere anaia etzan ilko.
33. Jesusen espiritua bada izutu zan, eta bera beragan nastu zan, ikusirik Maria negarrez, eta berarekin etorri ziran Juduak ere negar egiten zutela.
34. Eta Jesusek esan zuen: Non ipiñi zenduten? Esaten diote: Atoz, Jauna, eta ikusi ezazu.
35. Eta Jesusek negar egin zuen.
36. Eta Juduak orduan esan zuten: Ona nola maitatzen zuen.
37. Eta beretatik batzuek esan zuten: itsututa jaijo zanari begiak idiki ziozkan onek, ez al zezakean egin, etzedilla au il?
38. Jesus bada, biotzetik irtetzen zitzaiozkan suspirioetan, etorri zan obira. Zan arzulo bat, eta bere gañean arlosa bat ipiñi zuten.
39. Jesusek esan zuen: Kendu ezazute arlosa. Marta, il zanaren arrebak esan zion: Jauna, kirastua dago, zeren lau egun dirade il zala.





40. Jesusek esan zion: Ez al dizut esan, baldin sinisten badezu, Jaun-goikoaren gloria ikusiko dezula?

41. Kendu zuten bada arlosa, eta Jesusek begiak goirontz jasorik, esan zuen: Aita, eskerrak ematen dizkizut, aditu nazulako.

42. Nik ongi niekien, beti aditzen nazula, baña inguruan dagoan erriagatik, esan nuen: sinistu zezaten, zuk bialdu nazula.

43. Eta oiek esanik, deadar andi bat egin zuen, esaten zuela: Lazaro, atoz kanpora.

44. Eta bereala irten zan illik egon zana, oñak eta eskuak lotuta bendakin, eta arpegia estalita izerkariarekin. Jesusek esan zion: Askatu ezazute, eta utzi zaiozute joaten.

45. Marta eta Maria ikustera etorri ziran Juduetatik askok bada, eta ikusi zutenak Jesusek egin zuena, beragan sinistu zuten.

46. Beretatik batzuek berriz, Fariseoetara joan ziran, eta esan zion Jesusek egin zuena.

47. Eta Apaizen Buruak eta Fariseoak bildu zuten batzarrea, eta esaten zuten: Zer egiten degu, zeren gizon onek mirari asko egiten du?

48. Ala utzitzen badiogu, guziak beragan sinistuko dute, eta Erromatarrak etorriko dirade, eta ondatuko dute gure erria eta erreñua.

49. Baña beretatik batek, Kaifas zeritzanak, zeñ zan urte artako Apaizburua, esan zion: Zuek ezerere ez dakizute,

50. Eta ez dezute ere gogoratzen, zuei dagokizutela, erriagatik gizon bat il dedilla, eta ez dedilla galdu erreñu oso bat.

51. Baña etzuen au beragandik esan, ezpada izanik urte artako Apaiznagusia, profetizatu zuen, Jesus ilko zala erreñuagatik,

52. Eta ez bakarrik erreñuagatik, baitaere biltzeko batean Jaungoikoren seme, barreiatuak zeudenak.

53. Egun artatik bada pensatu zuten, nola ilko ote zuten.

54. Jesus bada, andik aurrera ez oi zan ibilli agirian Juduen artean, baizik joan zan eremuaren aldeko alderri batera, Efrem zeritzan erri batera, eta an egon oi zan bere ikasleakin.

55. Eta onezkero Juduen Paskoa aldean zegoan, eta alderri artako asko igo ziran Jerusalemara, Paskoa baño lenago, berak garbitzera.

56. Billatzen zuten bada Jesus: eta elkarri esaten zioten, tenploan zeudela: Zer deritzazute ez etortzeaz hura jai egunera? Eta Apaizen Prinzipeak, eta Fariseoak agintea eman zuten, baldin iñork baziekien non zegoan, esan zezala, bera arrapatzeko.

## AMABIGARREN KAPITULUA

1. Jesus bada, Paskoa baño sei egun lenago, etorri zan Betaniara, non il zan Lazaro, Jesusek biztu zuena.

2. Eta an eman zioten afari bat, eta Martak serbitzen zituen, eta Lazaro zan, maiean berarekin eserita zeudenetatik bat.

3. Orduan Mariak artu zuen libra bat okendu nardo garbizko, prezio andiko, eta igortzi zituen Jesusen oñak, eta leortu zituen bere illeakin, eta okenduaren usaeiz etxea bete zan.

4. Esan zuen bada bere ikasleetatik batek, Judas Iskariote, etsaien eskuetan ipiñiko zuenak:

5. Zergatik okendu au etzan saldua izan irureun diruan, eta beartsu pobreak eman etzaiezte?

6. Eta au esan zuen, ez beartsu pobreak berari zegozkioalako, baizik lapurra zalako, eta nola zeukan bolsa, eramaten zuen beratan, botatzen zana.

7. Eta Jesusek esan zuen: Utzi zaiozute, ni obiratua naizan egunera korde dezan.

8. Zeren beartsu pobreak beti daukazute zuekin, ni ordea ez naukazute beti.

9. Juduen arteko talde andi batek bada ezagutu zuen, Jesus an zegoala, eta etorri ziran ez bakarrik Jesusgatik, baitaere ikusteagatik Lazaro, zeñ illen artetik biztu zuen.

10. Eta Apaizen Prinzipeak erabaki zuten Lazaro ere iltzea.

11. Zeren askok, beragatik, Juduetatik alde egiten zuen, eta Jesusgan sinisten zuen.

12. Eta biaramonean, jai egunera etorri zan jende talde andi batek, aditu zuenean Jesus Jerusalemara zetorrela,

13. Artu zituzten palmen ostoak, eta atera zitzazkieten bidera, eta deadarrez esaten zuten: Hosanna, bedekatua Jaunaren izenean datorrena, Israelko erregea.

14. Eta Jesusek arkitu zuen astotxo bat, eta bere gañean eseri zan, eskribatua dagoen bezela:

15. Etzaite beldur izan Siongo alaba. Ona emen zure errege, asto eme baten ume baten gañean eseria datorrena.

16. Bere ikasleak lenengoan etzuten au aditu, baña Jesus gloriáz betea izandu zanean, orduan oroitu ziran, oiek zeudela beragatik eskribatuak, eta oiek egin ziozkatela.

17. Eta Jesusekin zegoan jende taldeak, ots egin zionean obitik Lazaroni, ematen zuen testigantza.



18. Eta argatik jendeak irten zitzaizkzan bidera, aditu zutelako mirari au egin zuela.
19. Fariseoak berriz beren artean esaten zuten: Ez al dezute ikusten, ez degula ezerere aurreratzen? Begira ezazute, nola mundu guztia bere ondoren dijoan.
20. Eta zeuden an jentil batzuek, jai egunean adoratzera igo ziran aietatikoak.
21. Oiek bada alderatu zitzaizkzan Feliperi, zeñ zan Galileako Betsaidakoa, eta erregututzen zioten, esaten zutela: Jauna, Jesus ikusi nai genduke.
22. Etorri zan Felipe, eta esan zion Andreseri: Andresek eta Felipek berriz, esan zioten Jesusi.
23. Eta Jesusek erantzun zien, esaten zuela: Badator ordua, zeñean gizonaren semea argitua izango dan.
24. Egi egiaz esaten dizutet: Lurrean erortzen dan gari alea, iltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; eta iltzen bada berriz, frutu asko ematen du.
25. Bere anima maitatzen duenak, galduko du, eta mundu onetan bere anima gorrotatzen duenak, betiko bizitzarako gordetzen du.
26. Serbitzen nauenak, jarraitu bizat, zeren ni nagoan tokian, an egongo da nere serbitzaria ere, eta ni serbitzen nauena, nere Aitak onraturko du.
27. Orain nere anima nastua dago. Eta, zer esango det? Aita, libratu nazazu ordu onetatik. Baña orregatik etorri naiz ordu onetara.
28. Aita, argitu ezazu zure izena. Etorri zan bada zerutik boz bat, esaten zuena: Eta argitu det, eta berriz ere argituko det.
29. An zegoan jende taldeak bada, aditu zuenean boza, esaten zuen: Turmonada bat izan da. Beste batzuek esaten zuten: Aingeru batek itz egin dio.
30. Jesusek erantzun, eta esan zuen: Boz au ez da etorri nigatik, zuek-gatik baizik.
31. Oraintxe da munduaren juizioa. Oraintxe izango da kanpora auritikia, mundu onetako Prinzipea.
32. Eta ni lurretik altxatua izaten naizanean, guztia neraugana ekarriko det.
33. (Eta au esaten zuen, adirazteko nolako eriotzarekin illa izango zan).

34. Jendeak erantzun zion: Guk aditua daukagu legetik, Kristok beti iraungo duela, eta nola zuk esaten dezu, gizonaren semeak altxatua izan bear duela? Zeñ da gizonaren seme au?

35. Jesusek erantzun zien: Badago argia oraindikan zuen artean denbora gutxi baterako. Ibilli zaitezte bada argia daukazuten artean, illuntasunak arrapatu ez zaitzaten, zeren illuntasunetan dabillanak, ez daki nora dijoan.

36. Argia daukazuten bitartean, argiagan sinistu ezazute, argiaren semeak izan zaitezten. Gauza oiek esan ziozkaten Jesusek, eta joan zan, eta berakgandik ezkutatu zan.

37. Baña ainbeste mirari egin bazituen ere beren aurrean, etzuten beragan sinistutzen.

38. Kunplitu zedin Isaias Profetaren itza, zeñak esan zuen: Jauna, guri aditu diguna, nork sinistu du? Eta Jaunaren besoa, nork ezagutua izan da?

39. Argatik ezin zezakete sinistu, zeren beste toki batean Isaiasek esan zuen,

40. Begiak itsutu ziezten, eta biotza gogortu zien: begiak ikusi ez dezaten, eta beren biotzak aditu ez dezaten, nigana biurtu, eta nik sendatu ez nitzan beldurrez.

41. Oiek esan zituen Isaiasek, bere gloria ikusi zuenean, eta beragatik itz egin zuenean.

42. Alaere izan ziran asko, andizkietatik ere, beragan sinistu zutenak, baña Fariseoen beldurratik etzuten aitortzen, sinagogatik bota etziztaten.

43. Zeren geiago maitatu zuten gizonen gloria, Jaungoikoaren gloria baño.

44. Jesusek bada deadar egin, eta esan zuen: Nigan sinistutzen duenak, ez du nigan sinistutzen, baizik bialdu nauenagan.

45. Eta ni ikusten nauenak, ni bialdu ninduen ikusten du.

46. Ni, argia naizan au, mundura etorri naiz. Nigan sinistutzen duena, illuntasunetan ez dedin gelditu.

47. Eta baldin norbaitek aditzen baditu nere itzak, eta gordetzen ez baditu, nik ez det juzgatzen. Zeren ez naiz etorri mundua juzgatzaera, baizik mundua salbatzaera.

48. Ni mezpreziatzen nauenak, eta nere itzak artzen ez dituenak, badu nork juzgatu dezan. Nik esan dedan itzak, ark juzgatuko du atzene-ko egunean.



49. Zeren nik ez det itz egin neregandik, baizik bialdu ninduen Aitak, berak agindu zidan zer esango nuen, eta nola itz egingo nuen.

50. Eta badakit berak erakusteko agintzen didana, dala betiko bizitzara zuzentzen duena. Nik esaten ditudan gauzak bada, Aitak esan dizkidan bezela, ala esaten ditut.

### AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Paskoako jaieguna baño lenago, jakinik Jesusek etorria zala bere ordua, mundu onetatik Aitagana iragotzeko, maitatu ezker, mundu onetan zeuden bereak, atzeneraño maitatu zituen.

2. Eta afaldu ezker, nola deabruak jarri zion biotzean Judas Simon Iskariotesen semeari, Jesus Juduen eskuetan ipintzeko asmoa,

3. Jakinik Jesusek, Aitak gauza guztiak bere eskuetan ipiñi zituela, eta Jaungoikoagandik atera zala, eta Jaungoikoagana zijoala,

4. Jaikitzen da maitetik, eta bere soñekoak kentzen ditu. Eta arturik eskuzapi bat, berarekin gerria lotu zuen.

5. Gero botatzen du ura aspilla batean, eta asi zan bere ikaslen oñak garbitzen, eta gerrian zeukan eskuzapiarekin leortzen.

6. Etorri zan bada Simon Pedrogana, eta Pedrok esaten dio: Jauna! Zuk neri oñak garbitu!

7. Jesusek erantzun, eta esan zion: Nik egiten dedana, ez dakizu zuk orain, gero berriz jakingo dezu.

8. Pedrok esaten dio: iñoizere ez dizkidazu neri oñak garbituko. Jesusek erantzun zion: Ez badizkizut nik oñak garbitzen, etzera nerekin partale izango.

9. Simon Pedrok esaten dio: Jauna, ez bakarrik nere oñak, baita eskuak eta burua ere.

10. Jesusek esaten dio: Garbitu berri dagoenak, ez dauka oñak garbitzearen baño besteren premiarik, egonik, dagoen bezela, gañerako guzia garbi duela. Zuek berriz, garbiak zaudete; ez ordea guztiak.

11. Nola baziakien zeñ zan saldukeria egingo ziona, argatik esan zuen: Etzaudete garbi guztiok.

12. Beren oñak garbitu, eta bere soñekoak berriz artu ezker bada, berriz maiean eseririk, esan zien: Badakizute zer egin dedan zuekin?

13. Zuek erakuslea eta Jauna ots egiten didazute, eta ongi esaten dezute, zeren ala naizan.

14. Baldin bada nik, Erakuslea eta Jauna naizan onek, oñak garbitu badizkizutet, zuek ere batak bestearen oñak garbitu bear dituzute.

15. Zeren ejenploa eman dizutet, nola nik zuekin egin dedan, ala zuek ere egin dezazuten.

16. Egiaz egiaz esaten dizutet, morroia ez dala bere nagusia baño andiago, ezta bialdua ere, bialdu duena baño andiago.

17. Eta gañera esan zuen: Gauza oiek aditzen badituzute, zorionekoak izango zerate, egiten badituzute.

18. Zuek guztiokgatik ez det itz egiten. Nik ezagutzen ditut aututa daukadanak: baño kunplitu bear du Eskritura onek: Nerekin ogia jaten duen batek, bere orpoa nere kontra jasoko du.

19. Oraindandik esaten dizutet, gertatu dedin baño lenago, gertatu dedinean, sinistu dezazuten ni naizala.

20. Egi egiaz esaten dizutet: Nik bialtzen dedana artzen duenak, ni artzen nau, eta ni artzen nauenak, artzen du ni bialdu ninduen.

21. Esanik Jesusek gauza oiek, nastu zan bere biotzean, eta agirian adirazi, eta esan zuen: Egi egiaz esaten dizutet, zuetatiko batek salduko nauela.

22. Ikasleak bada elkarri begiratzen zien, zalanzen zeudela, zeñgatik itz egiten ote zuen.

23. Beretatik bat, Jesusek maitatzen zuena, zegoan eserita maiean, Jesusen bularraren gañean etzinda.

24. Ikasle oni bada, keñu bat eginda, Simon Pedrok esan zion: Zeñ ote da beragatik itz egiten duena?

25. Ikasle hurak orduan, etzinik geiago Jesusen bularraren gañean, esan zion: Jauna, zeñ da?

26. Jesusek esan zion: Nik ogi bustia luzatzen diodana, hura da. Eta bustirik ogia, eman zion Judas, Simon Iskariotkoaren semeari.

27. Eta mokaduaren ondoren, sartu zan beragan satanas. Eta Jesusek esan zion: Egitea uste dekan gauza ori, anbat lasterren egin ezak.

28. Baña maiean eserita zeudenetatik batek ere etzuen jakin, zertarako esan zion.

29. Zeren batzuek uste izan zuten, nola Judas zan dirugordetzallea, esan ziola Jesusek: Erosi itzatzu jai egunerako bear ditugun gauzak, edo beartsuai zerbait eman zitzaiea.

30. Artu zuenean bada berak mokadua, bereala irten zan. Zan berriz gaua.

31. Irten zanean bada Judas, Jesusek esan zuen: Oraintxe da bada gloriariz betea gizonaren semea, eta Jaungoikoa da beragan gloriariz betea.

32. Eta baldin Jangoikoa, gloriariz betea gelditzen bada beragan, Jaungoikoak ere gloriariz beteko du beragan, eta txit laster gloriariz beteko du.



33. Semetxoak, oraindikan denbora gutxi batean nago zuekin. Billa-tuko nazute, eta Juduai esan nien bezela: Ni noan tokira, zuek ezin etorri zintezke, zuei ere orain ala esaten dizutet.

34. Aginte berri bat ematen dizutet: Elkar maitatu dezazutela, eta nola nik maitatu zinduztedan, ala zuek ere elkar maitatu dezazutela.

35. Emendik ezagutuko dute guztiak, nere ikasleak zeratela, elkargana amorioa badaukazute.

36. Simon Pedrok esaten dio: Jauna, nora zoaz? Jesusek erantzun zion: Ni noan tokira zuk orain ezin jarraitu zenezaket, baña gero jarraituko didazu.

37. Pedrok esaten dio: Zergatik orain ezin jarraitu natzakizuke? Nik nere bizia zuek emango det.

38. Jesusek erantzun zion: Zuk nigatik bizia emango dezula? Egi egiaz esaten dizut: Ollarrak ez du kantatuko, zuk iru alditan ni ukatu baño lenago.

### AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Ez bedi zuen biotza nastu. Jaungoikoagan sinistzen dezuten ezke-ro, nigan ere sinistu ezazute.

2. Nere Aitaren etxean bizileku asko daude. Ala ez balitza, nik esango nizuten, zeren ni banoa, zuentzat lekua prestatzera.

3. Eta joaten naizanean, eta zuentzat tokia prestatzen dedanean: berriz etorriko naiz, eta nerekin eramango zaituztet, ni nagoan tokian zuek ere egon zaitezten.

4. Eta badakizute ni nora noan, eta bidea ere badakizute.

5. Tomasek esaten dio: Jauna, nora zoazan ez dakigu, eta nola bidea jakin dezakegu?

6. Jesusek esaten dio: Ni naiz bidea, egia, eta bizitza. Inorere Aitagana ez dator, nigatik baizik.

7. Ni ezagutu baninduzute, nere Aita ere noaski ezagutuko zenduten, baña aurki ezagutuko dezute, eta onezkero nolabait ikusi ere badezute.

8. Felipek esaten dio: Jauna, erakutsi zaguzu Aita, eta ori asko degu.

9. Jesusek erantzuten dio: Ainbeste denbora da zuekin nagoela, eta oraindik ez nazute ezagutu? Felipe, ni ikusten nauenak, Aita ere ikusten du. Nola bada zuk esaten dezu: Erakutsi zaguzu Aita?

10. Ez al dezute sinistzen ni Aitagan nagoela, eta Aita nigan dagoela? Nik esaten dizkizutetan itzak, neregandik ez ditut esaten. Nigan dagoen Aitak, berak nerekin egiten ditu, nik egiten ditudan obrak.

11. Nola bada ez dezute sinistzen, ni Aitagan nagoela, eta Aita nigan dagoela?

12. Sinistu ezazute, nik egiten ditudan obrak egiten bederik. Egi egiaz esaten dizutet, nigan sinistzen duenak, orrek ere egingo dituela nik egiten ditudan obrak, eta oraindik andiangoak egingo ditu, ni Aitagana noalako.

13. Eta nere izenean Aitari eskatzen diozuten guzia, nik egingo det, aita semeagan gloriak bete izan dedin.

14. Nere izenean ezere eskatzen badezute, nik egingo det.

15. Ni maitatzen banazute, gorde itzatzute nere aginteak;

16. Eta nik Aitari erregutuko diot, eta beste Gozatzalle bat emango dizute, zuekin beti egon dedin,

17. Egiaen Espiritua, zeñ munduak ezin artu dezaken, ez duelako ikusten, ez ezagutzen. Zuek berriz ezagutuko dezute, zeren zuekin biziko da, eta zuekin egongo da.

18. Etzaituztet umezurtz utziko, berriz ere zuekgana etorriko naiz

19. Oraindik piskatxo bat, eta gero munduak ez nau ikusiko; zuek berriz ikusiko nazute, zeren ni bizi naiz eta zuek biziko zerate.

20. Egun artan zuek ezagutuko dezute, ni nagoela Aitagan, eta zuek nigan, eta ni zuekgan.

21. Nere aginteak artu, eta gordetzen dituen, ori da maite nauena. Eta ni maitatzen nauena, nere Aitak maitatua izango da, eta nik maitatuko det, eta nerau agertuko natzaio.

22. Esaten dio orduan Judas, ez Iskariot hurak: Jauna, zergatik agertuko zatzakigu guri, eta ez munduari?

23. Jesusek erantzun, eta esan zion: Inork maitatzen banau, nere itza gordeko du, eta nere Aitak maitatuko du, eta beragana etorriko gera, eta beragan egotaldia egingo degu.

24. Ni maitatzen ez nauenak, ez ditu gordetzen nere itzak. Eta aditu dezuten itza, ez da nerea, bialdu ninduen Aitarena baizik.

25. Gauza oiek esan dizkizutet, zuekin nagoela.

26. Espiritu Santu Gozatzalle, nere Aitak nere izenean bialduko duenak, erakutsiko dizute guztia, eta oroitueraiziko dizkizute, esanik daukazutetan gauza guztiak.

27. Pakea utzitzen dizutet, nere pakea ematen dizutet. Ez dizutet nik ematen, munduak ematen duen bezala. Ez bedi nastu zuen biotza, ezta beldur izan ere.

28. Aditu dezute esan dizutedala: Banoa, eta banator zuekgana. Maitatuko baninduzute, ziertoro poztuko zintezke, Aitagana noalako, zeren Aita, ni baño andiangoa da.



29. Nik orain esaten dizutet, gertatu dedin baño lenago, gertatu dedinean, fedean sendotu zaitzeten.

30. Onezkero ez ditut esango zuekin asko gauza, zeren mundu one-tako Prinzipea badator, eta nigan ezerere ez dauka.

31. Baizik munduak ezagutu dezan, Aita maitatzen dedala, eta nola Aitak agintea eman zidan, ala egiten det. Jaiki zaitzete, eta emendikan goazen.

### AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Ni naiz matszepa egiazkoa, eta nere Aita nekazaria da.

2. Nigan fruturik ematen ez duen txarmendu guzia, ebakiko du, eta frutua ematen duen guzia, garbituko du, frutu geiago eman dezan.

3. Zuek onezkero garbiak zaudete, esan dizutedan itzagatik.

4. Egon zaitzete nigan, eta ni zuekgan. Nola txarmenduak berez ezin eraman lezaken fruturik, matszegan ez badago, ala zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

5. Ni naiz matszepa, zuek txarmenduak. Nigan dagoenak, eta ni beragan, onek darama frutu asko, zeren ni gabe, deus ezin egin dezakezute.

6. Nigan ez dagoana, kanpora aurtikia izango da txarmendua bezela, eta leortuko da, eta arrapatuko dute, eta sutara botako dute, eta erazezia egongo da.

7. Nigan egoten bazerate, eta nere itzak zuekgan egoten badirade, eskatuko dezute nai dezuten guztia, eta emango zatzute.

8. Onetan da nere Aita gloriatz betea, zuek frutu asko eramatean, eta zuek nere ikasleak izatean.

9. Nola Aitak maitatu ninduen, ala nik ere maitatu zaitzute. Nere amorioan iraun ezazute.

10. Nere aginteak gordetzen badituzute, nere amorioan iraungo dezute; nola nik ere nere Aitaren aginteak gorde ditudan, eta irautzen dedan bere amorioan.

11. Gauza oiek esan dizkizutet, nere pozarekin poztu zaitzeten, eta zuen poza osoa izan dedin.

12. Au da nere agintea, elkar maitatu dezazutela, nik zuek maitatu zaitzutedan bezela.

13. Iñork ere ez dauka amorio andiagorik au baño, zeñ dan ipintzea bere bizitza bere adiskideakgatik.

14. Zuek nere adiskideak zerate, egiten badituzute nik agintzen dizkizutedan gauzak.

15. Onezkero ez dizutet ots egingo mendekoen izenarekin, zeren mendekoak ez daki, bere Jaunak zer egiten duen. Zuei berriz, ots egin dizutet adiskideen izenarekin, zeren agertu dizkizutet, nere Aitari aditu niozkan gauza guztiak.

16. Baz ninduzuten zuek ni autu, baizik nik autu zinduztedan, eta ipiñi zinduztedan, joan zaitzeten, eta frutua eraman dezazuten, eta zuen frutuak iraun dezan, aitari nere izenean eskatzen diozuten guztia, eman dizazuten.

17. Au da agintzen dizutedana, elkar maitatu dezazutela.

18. Munduak gorroto badizute, jakin ezazute, zuei baño lenago neri gorroto izan zidala.

19. Mundukoak baziñate, munduak berea zana maitatuko luke, baño mundukoak etzeratelako, baizik mundutik nik autu zinduztedalako, argatik munduak gorrotatzen zaitzute.

20. Oroitu zaitzete nere itz, esan nizutenarekin: Mendekoa ez da bere Jauna baño andiago. Ni persegitu banaute, zuek ere persegituko zaitzute, nere itza gorde badute, zuena ere gordeko dute.

21. Gauza guzi oiek berriz egingo dizkizute, nere izenagatik, ez dutelako ezagutzen ni bialdu ninduena.

22. Etorri ez banintza, eta itz egin ez banie, bekaturik etzuten idukiko; baño orain beren bekatuaren aitzakiarik ez daukate.

23. Ni gorrotatzen nauenak, nere Aita ere gorrotatzen du.

24. Egin ez banitu beren artean, iñork bestek egin ez dituen bezelako obrak, etzuten bekatuak idukiko, baño orain berak ikusi dituzte, eta alaere gorroto iduki didate neri, baita nere Aitari ere.

25. Emendik dator kunplitzera, beren legean eskribatua dagoan itza: Gorroto iduki zidatela, biderik eman gabe.

26. Datorrenean berriz Gozatzallea, egiaren Espiritu, Aitagandik jatorria daukana, eta zeñ nik bialduko dedan nere Aitaren orde, berak emango du nere testigantza.

27. Eta zuek ere testigantza emango dezute, asieratik nerekin zaudelako.

### AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Oiek esan dizkizutet, eskandalizatu etzaitzeten.

2. Sinagoetatik botako zaitzute, eta badator ordua, zeñean, zuek iltzen zaituzten guztiak, usteko duen, Jaungoikoaren gogoko gauza bat egin duela.

3. Eta oiek egingo dituzte, etzutelako ezagutu Aita, ez ni.





4. Baña oiek esan dizkizutet, ordua allegatzen danean, oroitu zaitetzen, nik adirazi nizkizutela.
5. Gauza oiek berriz, ez nizkizuten asieratik esan, zuekin nengoalako. Orain berriz banao, bialdu ninduenagana, eta zuetatik batek ere ez dit galdetzen: Nora zoaz?
6. Gauza oiek esan dizkizutedalako, zuen biotza tristeaz bete da.
7. Baña nik egia esaten dizutet: zuei txit ongi dagokizute, ni joatea, zeren ni joaten ez banaiz, ez da Gozatzallea zuekgana etorriko, baña joaten banaiz, bialduko dizutet.
8. Eta hura etortzen danean, argudioak ipiñiko diozka munduari bekatuagatik, eta justiziagatik, eta juizioagatik.
9. Bekatuagatik egiaz, nigan sinistu etzutelako.
10. Eta justiziagatik, aitagana noalako, eta onezkero ez nazutelako ikusiko.
11. Eta juizioagatik, zeren mundu onetako Prinzipea onezkero juzgatua dan.
12. Oraindik badauzkat gauza asko zuei esateko, baña orain ezin ditzakezute aditu.
13. Baña etortzen danean egia Espiritu hura, egia guztia erakutsiko dizute. Zeren ez du beragandik itz egingo; baizik esango du aditzen duen guztia, eta etorriko diran gauzak adiraziko dizkizute.
14. Berak gloriak beteko nau, zeren neretik artuko du, eta zuei adiraziko dizute.
15. Aitak dauzkan gauza guztiak, nereak dirade. Argatik esan nizuten, neretik artuko duela, eta zuei adiraziko dizutela.
16. Denbora gutxi barru ez nazute ikusiko, baña piska bat geroago, berriz ikusiko nazute, zeren Aitagana noan.
17. Orduan bere ikasletatik batzuek elkarri esan zioten: Zer ote da esaten digun au: Denbora gutxi barru ez nazute ikusiko, baña piska bat geroago ikusiko nazute, zeren Aitagana noan?
18. Esaten zuten bada: Zer denbora gutxi da esaten duen au? Ez degu aditzen zer esan nai digun.
19. Ezagutu zuen bada Jesusek, galde egin nai ziotela, eta esan zien: Zuen artean ezbaiak dauzkazute esan nizutelako. Denbora gutxi barru ez nazute ikusiko, baña piska bat geroago, berriz ikusiko nazute.
20. Egi egiaz esaten dizutet, zuek negar egingo dezutela, eta zizpuruz egongo zeratela; mundua ordea gozatuko da, eta zuek triste egongo zerate; baña zuen tristeza, poz biurtuko da.

21. Andrea erditzen ari danean, triste dago, zeren bere ordua bada-torren, baña erdi duenean aur bat, ez da onezkero estutasunarekin oroitzen, daukan pozagatik, munduari gizon bat eman diolako.
22. Zuek ere orain, egiaz triste zaudete, baña berriz ikusiko zaituztet, eta zuen biotza gozatuko da, eta zuen gozotasuna iñork ere ez dizute kenduko.
23. Eta egun artan, ezerere ez didazute galdetuko. Egi egiaz esaten dizutet, aitak emango dizutela, nere izenean eskatzen diozuten guztia.
24. Oraindik ezerere ez dezute nere izenean eskatu. Eskatu ezazute, eta artuko dezute, zuen poza betea izan dedin.
25. Gauza oiek esan dizkizutet paraboletan. Badator ordua, zeñatan ez dizutedan paraboletan itz egingo, baizikan argiro adiraziko dizkizutet Aitaren gauzak.
26. Egun artan nere izenean eskatuko dezute, eta ez dizutet esaten, nik Aitari zuegatik erregutuko diodala:
27. Zeren Aitak berak maitatzen zaituzte, zuek maitatu ninduzutelako, eta sinistu dezutelako, ni Jaungoikoagandik atera nintzala.
28. Aitagandik atera nintzan, eta etorri nintzan mundura, berriz mundua utzitzen det, eta Aitagana noa.
29. Bere ikasleak esaten diote: Ona non orain argiro itz egiten dezun, eta parabolarik batere ez dezun esaten.
30. Orain ezagutzen degu, gauza guztiak dakizkizula, eta ez daukazu iñork galde egitearen premiarik. Onetan sinistzen degu, Jaungoikoagandik atera ziñala.
31. Jesusek erantzun zien: Orain sinisten dezute?
32. Bada jakin ezazute badatorrela denbora, eta onezkero allegatua da, zeñean barreiatuak izango zeraten, eta zuetatik bakoitza joango da bere aldetik, eta bakarrik utziko nazute, bakarrik ez banago ere, zeren Aita beti nerekin dagoan.
33. Gauza oiek esan dizkizutet, nigan pakea arkitu dezazuten. Nai-gabe andiak idukiko dituzute munduan, baña itxedon ezazute; nik mundua garaitu nuen.

### AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Gauza oiek esan zituen Jesusek, eta jatorrik zerurontz begiak, esan zuten: Aita badator ordua, gloriak bete ezazu zure semea, zure semeak zu gloriak bete zaitzan.
2. Eman ziñion bezela eskubidea aragi guztiaren gañean, eman dizaioten betiko bizitza, izendatu diozkazun guztiai.





3. Eta betiko bizitza au da: Ezagutu zaitzate zure, bakarrik Jainko egiazkoa, eta Jesukristo bialdu zenuena.
4. Nik gloriar bete zaitut lurraren gañean. Bukatu det, egiteko eman zifidan lana.
5. Orain bada, Aita, gloriar bete nazazu zerorregan, mundua egiña izan zan baño lenago zugar iduki nuen gloria arekin.
6. Agertu diotet zure izena, mundutik atera, eta eman zifizkidan gizonak. Zureak ziran, eta zuk neri eman zifizkidan, eta zure itza zaitu zuten.
7. Orain ezagutu dute, eman zifidan guztia zugar ditorrela.
8. Zeren nik eman niezten, zuk neri eman zifizkidan itzak, eta berak artu dituzte, eta egiaz ezagutu dute, ni zugar ditorrela, eta sinistu dute, zu zerala bialdu ninduzuna.
9. Berakgatik erregutuzten det nik orain. Ez det munduagatik erregutuzten, baizik eman zifizkidan oiekgatik, zeren zureak diraden.
10. Eta nere gauza guztiak zureak dirade, eta zureak nereak dirade: eta beretan gloriar bete izandu naiz.
11. Eta onezkero ez nago ni munduan, oiek berriz munduan daude, eta ni banator zugar. Aita Santua, zaitu itzatu zure izenagatik, eman zifizkidan aiek, gauza bat izan ditezen, gu ere geran bezela.
12. Ni berakin nengoan artean, zure izenean zaitzen nituen. Gorde nituen eman zifizkidanak, eta beretatik bat ere etzan galdu, galmeneko semea baizik, Eskritura kunplitu zedin.
13. Orain berriz zugar nator, eta oiek munduan esaten ditut, nere poz bete berakgan iduki dezaten.
14. Nik zure itza eman nien, eta munduak gorrotatzen ditu, munduak ez diradelako, ni ere munduko ez naizan bezela.
15. Ez dizut erregutzen mundutik kendu ditzatzula, baizik libratu ditzatzula gaitzetik.
16. Mundukoak ez dirade, nola ni ere munduko ez naizan.
17. Santutu itzatu zure egiarekin. Zure itza egia da.
18. Nola zuk mundura bialdu ninduzun, nik ere mundura bialdu nituen,
19. Eta berakgatik ni santutuzten naiz nerau, berak ere egian santutuak izan ditezen.
20. Ez dizut berriz berakgatik bakarrik erregutuzten, baizik beren itzaren bitartez nigan sinistuko dutenagatik ere.

21. Erregutuzten dizut, guztiak gauza bat izan ditezela, eta nola zu, o Aita, zauden nigan, eta ni zugar, ala berak izan ditezela gauza bat zugar, munduak sinistu dezan, zuk bialdu ninduzula.

22. Nik eman diet, zuk eman zifidan gloria, gauza bat izan ditezen, gu ere gauza bat geran bezela.

23. Ni nago berakgan, eta zu nigan, gauza batean elkartuak osotoro egon ditezen, eta munduak ezagutu dezala, zuk bialdu ninduzula, eta maitatu dituzula, ni ere maitatu ninduzun bezela.

24. Aita, nai det, zuk eman zifizkidan aiek nerekin egon ditezela, ni nagoan tokian, ikusi dezaten nere gloria, zuk eman zifidana, zeren mundua egiña izandu zan baño lenago, maitatu ninduzun.

25. Aita justoa, munduak etzaitu ezagutu, baña nik ezagutu zaitut, eta oiek ezagutu dute, zuk bialdu ninduzula.

26. Eta zure izena ezagutu erazi nien, eta ezagutu eraziko det arako amorioa, zeñarekin maitatu nazun berakgan egon dedin, eta ni berakgan.

### EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Gauza oiek Jesusek esan zituenean, atera zan bere ikasleekin Zedrongo errekarren beste aldamerera, non zegoan baratza bat, zeñatan sartu zan bera, eta bere ikasleak.

2. Eta Judasek, zeñak saltzen zuen, baziekien ere toki hura, zeren Jesus bere ikasleekin maiz joan oi zan ara.

3. Judas bada, arturik soldadu talde bat, eta Apaizburu, eta Fariseoen morroiak, etorri zan argiak, eta zuziak, eta armakin.

4. Baña Jesus, jakiñik bere gañera etorriko ziran gauza guztiak, aurre-ratu zan, eta esan zien: Zeñ billatzen dezute?

5. Erantzun zioten: Jesus Nazarenoa. Jesusek esaten die: Ni naiz. Eta Judas, saltzen zuena ere, berakin zegoan.

6. Esan zienean bada: Ni naiz, joan ziran atzerontz, eta lurrean erori ziran.

7. Berriz ere galdetu zien: Zeñ billatzen dezute? Eta berak esan zuten: Jesus Nazarenoa.

8. Jesusek erantzun zuen: Esan dizutet ni naizala, baldin bada ni billatzen banazute, utzi zaiezute oiei joaten.

9. Kunplitu zedin esan zuen itza: Zuk eman zifizkidanetatik batere ez nuen galdu.

10. Simon Pedrok, ezpata bat zeukanak berriz, atera zuen, eta zauritu zuen Apaiznagusiaren morroe bat, eta eskuieko belarria ebaki zion. Eta morroiaren izena zan Malko.



11. Jesusek bada esan zion Pedrori: Sartu ezazu ezpata magian. Aitak eman didan kaliza ez al det edango?
12. Soldadu taldeak bada, eta Agintariak, eta Juduen morroiak arrapatu zuten Jesus, eta lotu zuten.
13. Eta eraman zuten lenengo Anasgana, zalako Kaifasen aitagiarraba, zeñ zan urte artako Apaiznagusia.
14. Eta Kaifas zan Juduai konsejua eman ziena, Gizon batek erriagatik illa izan bear zuela.
15. Simon Pedrok, eta beste ikasle batek jarraitzen zioten Jesusi. Eta ikasle hura zan Apaiznagusiaren ezaguna, eta sartu zan Jesusekin Apaiznagusiaren atarian.
16. Pedro berriz, zegoan kanpoan atean. Eta beste ikasle, Apaiznagusiaren ezaguna zana, irten zan, eta esan zion neskame atezaiari, eta sartu zuen Pedro.
17. Eta neskame atezaiak esan zion Pedrori: Ez al zera zu ere, gizon orren ikasletatikoa? Berak esaten du: Ez naiz.
18. Morroiak, eta agoazillak zeuden zutik sutondoan, zeren otz egin zuten, eta berotzen ziran, eta Pedro ere zegoan zutik berakin berotzen.
19. Apaiznagusiak bada, galdetu zion Jesusi bere ikasleen gañean, eta bere dotriñaren gañean.
20. Jesusek erantzun zion: Nik agirian itz egin diot munduari. Nik beti eman ditut erakutsiak sinagogan eta tenploan, nora joan oi diran Judu guztiak, eta ez det ezertxoere ezkutuan erakutsi.
21. Zer galdetzen didazu neri? Galdetu zaiezu, nik erakutsi dedana, aditu dutenai, ona non oiek dakiten nik erakutsi dedana.
22. Oiek esan zituenean, an zeuden morroietatik batek eman zion masallako bat Jesusi, esaten ziola: Ala erantzuten diok Apaiznagusiari?
23. Jesusek erantzun zion: Gaizki itz egin badet, eman ezazu gaitzaren testigantza, eta baldin ongi, zergatik jotzen nazu?
24. Eta Anasek bialdu zion lotuta, Kaifas Apaiznagusiari.
25. Zegoan bada an zutik Simon Pedro, berotzen zala. Eta esan zioten: i ere ez al aiz bere ikasletatikoa? Ukatu zuen berak, eta esan zuen: Ez nauk.
26. Esaten dio Apaiznagusiaren morroietatik batek, Pedrok belarria ebaki zionaren aide zanak: Ez al indudan nik ikusi baratzean berarekin?
27. Berriz ere bada ukatu zuen Pedrok, eta bereala ollarrak kantatu zuen.

28. Eramaten dute bada Jesus Kaifasen etxetik Pilatosen jauregira. Eta zan goiza, eta berak etziran Pilatosen jauregian sartu, kutsutuak gelditu etzitezen, Paskoa jan al zezaten.
29. Pilatos bada atera zan kanpora berakgana, eta esan zuen: Zer salaketa dakartzute gizon onen kontra?
30. Erantzun zuten, eta esan zioten: Ez balitza au gaizkillea, ez genduen zure eskuetan ipiñiko.
31. Esan zien bada Pilatosek: Artu ezazute zuek, eta juzgatu ezazute zuen legearen araura. Eta Juduak esan zioten: Ez zaigu guri zillegi, iñor iltzea.
32. Kunplitu zedin Jesusek esan zuen itza, adirazten zuela, nolako eriotzarekin ilko zan.
33. Berriz ere bada, sartu zan Pilatos justizia egiteko tokian, eta ots egin zion Jesusi, eta esan zion: Zu al zera Juduen erregea?
34. Jesusek erantzun zuen: Zeregandik esaten dezu au, ala beste batzuek nigatik esan dizute?
35. Pilatosek erantzun zuen: Judua al naiz ni? zure erreñuak eta Apaiznagusiak ipiñi zaituzte nere eskuetan, zer egin dezu?
36. Jesusek erantzun zuen: Nere erreñua ez da mundu onetakoa. Mundu onetakoa balitza nere erreñua, nere jarraitzalleak, dudarikan gabe, leiatuko lirake juduen eskuetan jarria izan ez nadin. Orain berriz, nere erreñua ez da emengoa.
37. Esan zion bada Pilatosek: Beraz erregea zera zu? Jesusek erantzun zuen: Zuk diozu ni erregea naizala. Ni onetarako jaio nintzan, eta onetarako etorri nintzan mundura, egiari testigantza emateko. Egiarena dan guztiak, nere boza aditzen du.
38. Pilatosek esaten dio: Egia zer da? Eta esan zuenean, irten zan berriz Juduakgana, eta esan zien: Ez det nik beragan arkitzen gaitzik batere.
39. Zuek berriz, daukazute oitura, Paskoetan bat zuei soltatzeko. Nai dezute bada soltatu dizazutedan Juduen erregea?
40. Orduan berriz asi ziran deadarrez guztiak, esaten zutela: Ez au, Barrabas baizik. Eta Barrabas lapur bat zan.

### EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Pilatosek bada artu zuen orduan Jesus, eta azotatu zuen.
2. Eta soldaduak eotzen zutela koroa bat arantzakin, ipiñi zioten buruaren gañean, eta mantu gorri bat jantzi zioten.
3. Eta etortzen ziran beragana, eta esaten zuten: Agur juduen erregea, eta masallakoak ematen ziozkaten.



4. Pilatos bada berriz atera zan kanpora, eta esan zien: Ona non atezten dizutedan kanpora, ezagutu dezazuten, ez dedala beragan arkitzen obenikan batere.

5. Irten zan bada Jesus, zeramazkiala arantzazko koroa, eta soñeko gorri bat, eta esan zien: Ona emen gizon au.

6. Ikusi zutenean bada Apaiznagusiak eta morroiak, deadar egiten zuten, esaten zutela: Gurutziltzatu ezazu, gurutziltzatu ezazu. Pilatosek esaten diote: Artu ezazute zuek, eta gurutziltzatu ezazute, zeren nik ez det beragan obenikan arkitzen.

7. Juduak erantzun zioten: Guk legea daukagu, eta legearen araura, il bear du, zeren Jaungoikoaren seme egin zan.

8. Pilatos bada, aditu zituenean itz oiek, beldurtuago egin zan.

9. Eta berriz sartu zan pretorioan, eta esan zion Jesusi: Nongoa zera zu? Jesusek ordea etzion erantzunik eman.

10. Eta Pilatosek esaten dio: Ez didazu neri itz egiten? Ez al dakizu eskualdia daukadala zu gurutziltzatzeko, eta eskualdia daukadala zu libratzeko?

11. Jesusek erantzun zuen: Etzenduke idukiko nere gañean eskualdirik batere, goitik emana izan ez balitzatu. Argatik zure eskuetan ipiñi nauenak, bekatu andiagoa dauka.

12. Eta ordu artatik egiten zituen alegiñak Pilatosek, Jesus libratzeko. Juduak berriz, deadar egiten zuten, esaten zutela: Oni utziten badiozu, etzera Zesarren adiskidea. Zeren errege egiten dan guztia Zesarren kontra dijoa.

13. Pilatosek bada, itz oiek aditu zituenean, atera zuen Jesus kanpora, eta eseri zan bere Juezaulkian, Lithostrotos izena zuen toki batean, eta Hebreos Gabbatha.

14. Eta zan Paskoarako prestaerako eguna, eta sestako ordua bezelatsu, eta esaten die Juduai: Ona emen zuen erregea.

15. Eta berak deadar egiten zuten: Kendu, kendu, gurutziltzatu ezazu. Pilatosek esaten die: Zuen erregea gurutziltzatu det? Apaizburuak erantzun zuten: Ez daukagu erregerik, Zesar baizik.

16. Orduan bada jarri zuen beren eskuetan, gurutziltzatu izan zedin. Eta artu zuten Jesus, eta atera zuten kanpora.

17. Eta bere gurutzia sorbalda gañean zeramala, irten zan Kalbarioa izena duen toki artarantz, eta Hebreoz Golgotha.

18. Eta an gurutziltzatu zuten, eta berarekin beste bi, aldamen batek eta bestetik, eta Jesus erdian.

19. Eta Pilatosek eskribatu ere zuen txartel batean, eta ipiñi zuen gurutzearen gañean; eta eskribatuta zegoana zan: Jesus Nazaretoko, Juduen erregea.

20. Eta Juduetatik askok irakurri zuten txartel au, zeren erriaren aldean zegoan, Jesus gurutziltzatu izan zan tokia. Eta zegoan eskribatua Hebreoz, Grieguz, eta Latinez.

21. Juduen Apaizburuak bada, Pilatoseri esaten zioten: Ez ezazu eskribatu Juduen erregea; baizik berak esan zuela: Juduen erregea naiz.

22. Pilatosek erantzun zuen: Eskribatu dedana, eskribatu det.

23. Soldaduak bada, Jesus gurutziltzatu ezkeru, artu zituzten bere soñekoak, (eta egin zituzten lau zati, soldadu bakoitzarentzat bere zatia) eta tunika. Tunika berriz zan jostura gabea, goitikan beera guztia eoa.

24. Esan zioten bada elkarri: Ez dezagun zatitu, baizik txotx egin dezagun bere gañean, zeñaena izango dan, kunplitu zedin Eskritura, esaten duena: Partitu zituzten beren artean nere soñekoak, eta nere soñekoaren gañean txotx egin zuten. Eta soldaduak egiaz au egin zuten.

25. Eta zeuden Jesusen gurutzearen aldean bere Ama, eta bere Amaren aizpa Maria Kleofasena, eta Maria Madalena.

26. Ikusi zuenean bada Jesusek Ama, eta maitatzen zuen ikaslea, an zutik zegoala, esan zion bere Amari: Andrea, ona or zure semea.

27. Gero ikasleari esan zion: Ona or zure Ama. Eta ordu artatik ikasleak artu zuen beretzat.

28. Gero jakinik Jesusek, gauza guztiak kunplituak zeudela, Eskritura kunplitu zedin, esan zuen: Egarri naiz.

29. Bazegoan an edanontzi bat ozpiñez betea. Eta berak ipiñirik arroki, ozpiñean ondo bustitako bat, urdin zurizko kañabera baten inguruan, eraman zioten bere aora.

30. Artu zuenean bada Jesusek ozpiña, esan zuen: Guztia dago kunplitu. Eta makurturik burua, eman zuen atzeneko asnasa.

31. Juduai bada, (zeren zan Paraszebe) gorputzak gurutzearan gelditu etzitezen (zeren hura zan larunbateko egun andia) eskatu zioten Pilatosi autsi zitzaiezteela bernazakiak, eta kenduak izan zitezela.

32. Etorri ziran bada soldaduak, eta autsi ziozkaten bernazakiak lenengoari, eta berarekin gurutziltzatu izan zan besteari.

33. Etorri zirdenean berriz Jesusgana, ikusirik illa zegoala, etzizkaten bernazakiak autsi.

34. Baña soldadu batek idiki zion eskuiko saietsa lantza batekin, eta bereala irten ziran odola eta ura.



35. Eta ikusi zuenak, eman zuen testigantza, eta bere testigantza egiazkoa da, eta berak daki, egia esaten duela, zuek ere sinistu dezazuten.

36. Zeren gauza oiek egiñak izan ziran, kunplitu zedin Eskritura: Bere ezurrik ez dezute autsiko.

37. Eta beste Eskritura batek ere esaten du: Zuzenduko dituzte beren begiak, zulatu zutenaganontz.

38. Oiek iragota, Jose Arimateakoak (zeñ zan Jesusen ikaslea, ezkuta bedere, Juduen beldurragatik) erregutu zion Pilatosi, utzi zitzaioala Jesusen gorputza kentzen. Eta Pilatosek utzi zion. Etorri zan bada, eta kendu zuen Jesusen gorputza.

39. Eta Nikodemus ere, zeñ lenengo Jesusgana gauaz joan zan, etorri zan, ekartzen zituela eun libra bezelatsu okendu, mirra eta zabilaz egin-dako.

40. Artu zuten bada Jesusen gorputza, eta aromakin usaigozoturik, maindiretan pashaz lotu zuten, Juduak obiratzeko oitura duten bezela.

41. Eta gurutziltzatua izan zan toki artan, zegoan baratza bat, eta baratzean obi berri bat, zeñatan oraindik iñor ere etzan izan ipiñia.

42. An bada, Juduen Paraszebegatik, aldean zegoalako obia, ipiñi zuten Jesus.

### OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta astearen lenbiziko egunean, Maria Madalena goiz etorri zan obira, oraindikan illun zegoala, eta ikusi zuen kenduta obiko arlosa.

2. Eta korrika joan zan Simon Pedrogana, eta Jesusek maitatzen zuen beste ikasleagana, eta esan zien: Kendu dute Jauna obitikan, eta ez daki-gu non ipiñi duten.

3. Atera ziran bada Pedro, eta beste ikasle hura, eta joan ziran obira.

4. Eta bazijoazen korrika biak batera, baña beste ikaslea, Pedrok baño ariñago korrika eginik, aurreratu zan, eta allegatu zan lenengo obira.

5. Eta makurturik, ikusi zituen maindirea, eta pashak ipiñita: baña etzan barrenen sartu.

6. Etorri zan bada Simon Pedro, besteari jarraitzen ziona, eta sartu zan obian, eta ikusi zituen maindirea eta pashak ipiñita,

7. Eta buruaren gañean iduki zuen izerdi zapia, ez maindire eta pashakin ipiñita, baizik bilduta beste leku batean.

8. Orduan bada sartu zan beste ikasle, obira lenengo etorri zana: eta sartu zan, eta sinistu zuen.

9. Zeren oraindikan etzuten aditzen Eskritura, illaen artetik biztu bear zala.

10. Ikasleak, berriz biurtu ziran beren etxeetara.

11. Maria berriz, zegoan kanpoan negarrez obiaren aldean. Eta ala negarrez zegoala, makurtu zan, eta obira begiratu zuen.

12. Eta ikusi zituen bi aingeru, zuriz jantzita, eseriak, bata Jesusen gorputza ipiñia izan zan tokiaren burualderontz, eta bestea oñetarontz.

13. Berak esan zioten: Emakumea, zergatik negar egiten dezu? Berak esaten die: Nere Jauna eraman dutelako, eta ez dakidalako non ipiñi duten.

14. Oiek esanik, berriz begiratu zuen atzerontz, eta ikusi zuen Jesus, zutik zegoala, eta etziekien Jesus zala.

15. Jesusek esaten dio: Emakumea, zergatik negar egiten dezu? Zeñaien billa zabilta? Mariak uste izanik baratza zaia zala, esan zion: Jauna, zuk eraman badezu emendikan, esan zadazu non ipiñi dezun, eta nik eramango det.

16. Jesusek esaten dio: Maria. Biurturik bera, esaten dio: Rabboni (zeñak esan nai duen Erakuslea)

17. Jesusek esaten dio: Etzadazu ukitu, zeren oraindikan ez naiz nere Aitagana igo, baizik zoaz nere anaiakgana, eta esan zaiezu: igotzen naiz nere Aitagana, eta zuen Aitagana, nere Jaungoikoagana, eta zuen Jaungoikoagana.

18. Etorri zan Maria Madalena ikasleai berriak ematera, esaten zuela: ikusi det Jauna, eta au, eta bestea esan dizkit.

19. Egun artan beratan, astearen lenengoan, gaua aurrera zijoala, eta zeudela itxita, ikasleak Juduen beldurrez bilduta zeuden etxeko atean, etorri zan Jesus, eta agerturik guztien erdian, esan zien: Pakea zuekin.

20. Eta au esan zuenean, eskuak eta saietsa erakutsi ziezten. Eta poztu ziran ikasleak Jauna ikusiaz.

21. Berriz bada esan zien: Pakea zuekin. Nola Aitak bialdu ninduen, ala nik ere bialtzen zaituztet.

22. Oiek esanik, asnasa egin zien, eta esan zioten: Artu ezazute Espiritu Santua.

23. Zuek bekatuak barkatzen dieztezutenai, barkatzen zaiezte, eta zuek barkatzen ez dieztezutenai, etzaiezte barkatzen.

24. Baña Tomas amabietatik bat, Didimo zeritzana, ez zegoan berakin Jesus etorri zanean.

25. Esan zioten bada beste ikasleak: ikusi degu Jauna. Berak berriz esan zien: ikusten ez badet bere eskuetan iltzeen etendura, eta sartzen ez badet nere beatza iltzeen tokian, eta sartzen ez badet nere eskua bere saie-sean, ez det sinistuko.



26. Eta zortzi egunen ondoan, berriz zeuden bere ikasleak barrenen, eta Tomas berakin. Etorri zan Jesus atear itxita zeudela, eta jarri zan erdian, eta esan zuen: Pakea zuekin.

27. Eta gero esan zion Tomasi: Zure beatza emen sartu ezazu, eta begira zaiezu nere eskuai, eta etzaite izan sinisgogorra, eta bai siniskorra.

28. Erantzun zuen Tomasek, eta esan zion: Ene Jauna, eta ene Jaungoikoa.

29. Jesusek esan zion: ikusi nazulako Tomas, sinistu dezu. zorione-koak ikusi etzutenak, eta sinistu zutenak.

30. Beste mirari asko ere egin zituen Jesusek bere ikaslen aurrean, zeñak ez dauden liburu onetan eskribatuak.

31. Oiek berriz, izan dira eskribatuak, sinistu dezazuten Jesus dala Kristo, Jaungoikoaren semea, eta sinisturik, iduki dezazuten bizitza bere izenean.

### OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Gero, berriz agertu zitzairen Jesus bere ikasleai Tiberiadesko itsasoan. Eta onela agertu zitzairen.

2. Zeuden elkarrekin Simon Pedro, eta Tomas, zeñi deitzen zaion Didimo, eta Natanael, zeñ zan Galileako Kanakoa, eta Zebedeoren semeak, eta bere ikasleetatik beste bi.

3. Simon Pedrok esaten die: Arrantzara noa. Berak esaten diote: Gu ere bagoaz zurekin. Irten ziran bada, eta sartu ziran ontzi batean, eta gau artan ezerere etzuten arrapatu.

4. Goiza etorri zanean berriz, Jesus ur ondoko erriberan aurkeztu zitzaioten, baña ikasleak etzuten ezagutu, Jesus zala.

5. Jesusek bada esan zien: Ene semeak, zer janik badezute? Ez, erantzun zioten.

6. Esaten die: Sarea ontziaren ekuira bota ezazute, eta arkituko dezute. Bota zuten sarea, eta ezin onezkero atera zuten arraien ugaritasunagatik.

7. Orduan esan zion Pedrori, Jesusek maitatzen zuen ikasle ark: Jauna dek. Eta Simon Pedrok, aditu zuenean Jauna zala, lotu zuen gerrian bere tunika, (zeren larrugorrian zegoan) eta aurtiki zan itsasora.

8. Eta beste ikasleak etorri ziran ontziarekin (zeren etzeuden urrutian lurretik, baizik berreun beso bezelatsu) tira egiten ziotela arraiez betetako sareari.

9. Lurrera atera ziranean, ikusi zituzten prestatuta su brasa erazekiak, eta beren gañean arrai bat, eta ogia.

10. Jesusek esaten die: Ekarri itzatzute onara, orain arrapatu dituzute arrai batzuek.

11. Orduan igo zan Simon Pedro, eta ekarri zuen sarea lurrera, beteta arrai andiz, eun eta berrogeita amairu. Eta ainbeste baziran ere, etzan sarea urratu.

12. Jesusek esaten die: Atozte, eta jan ezazute. Eta berarekin jaten zutenetatik bat ere, etzan benturatu galdetzen: Zeñ zera zu? Jakinik Jauna zala.

13. Alderatzen da bada Jesus, eta arturik ogia, ematen die, eta berebat arraietatik.

14. Au da, Jesus illen artetik biztu ezkeru, bere ikasleai agertu zitzairen, irugarren aldia.

15. Eta jan zutenean, esaten dio Jesusek Simon Pedrori: Simon Joanen semea, maite nazu oiek baño geiago? Erantzuten dio: Bai Jauna, zuk dakizu maite zaitudala. Esaten dio: Bazkatu itzatzu nere bildotsak.

16. Bigarren aldiz esaten dio: Simon Joanen semea, maite nazu? Erantzuten dio: Bai Jauna, zuk badakizu maite zaitudala. Esaten dio: Bazkatu itzatzu nere bildotsak.

17. Irugarren aldiz esaten dio: Simon Joanen semea, maite nazu? Tristetu zan Pedro, irugarren aldiz esan ziolako: Maite nazu? Eta esan zion: Jauna, zuk gauza guztiak dakizkizu, zuk badakizu maite zaitudala. Jesusek esan zion: Bazkatu itzatzu nere ardiak.

18. Egi egiaz esaten dizut, gaztea ziñanean zerori gerrilotzen ziñan, eta nai zenduen lekura zijoazen, baña zartzen zeranean, zure eskuak luzatuko dituzu, eta bestek gerrilotuko zaitu, eta eramango zaitu, zuk nai ez dezun tokira.

19. Eta au esan zuen, adirazten zuela, nolako eriotzarekin gloriatz beteko zuen Jaungoikoa, eta au esanik, esaten dio: Darraidazu.

20. Itzulirik Pedro, ikusi zuen jarraitzen ziola, arako ikasle ark, zeñ maite zuen Jesusek, eta zeñ afarian egon zan bere bularraren gañean etzinda, eta esan ziona: Jauna, zeñ da salduko zaituena?

21. Pedrok bada, au ikusi zuenean, Jesusi esan zion: Jauna, onekin zer izango da?

22. Jesusek esan zion: Ala nai det bera gelditu dedilla, ni etorri nadin artean, zuri zer dijoakizu? Zuk darraidazu.

23. Irten zan bada itz au anaien artean, ikasle hura etzala ilko. Jesusek berriz, etzion esan: Ez da ilko, baizik: Ala nai det gelditu dedilla ni natorren artean, zuri zer dijoakizu?



24. Au da, gauza oien testigantza ematen duen, eta gauza oiek eskribatu zituen ikasle hura, eta badakigu bere testigantza egjazkoa dala.

25. Badirade Jesusek egin zituen beste gauza asko ere, zeñak eskribatuko balirade banan banan, uste det, munduan ez litezkeala kabituko, eskribatu litezkean liburuak.

## APOSTOLUEN EGITEAK-1

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Nere lenbiziko liburuan, o Teofilo, itz egin det, Jesusek egin eta erakutsi zituen gauzarik otpatsuenen gañean, bere asieratik.

2. Zeruan artua izan zan eguneraño, Espiritu Santuaren bitartez eman ezkerero erakutsiak, berak autu zituen Apostolui.

3. Zeñai bere pasioa iragota ere, bizirik agertu zizaien, eta eman ziezten ezagungarri asko sinistu zezaten bizirik zegoala, berrogei egunean agertzen zitzaie, eta Jaungoikoaren erreñuko gauzaen gañean itz egiten ziela.

4. Eta atzenean, berakin jaten zuela, agindu zien, Jerusalemik ez alderik egiteko; baizik itxedon zezatela Aitaren eskeñtzaren betetasuna, zeñ (esan zuen) nere aotik aditu zenduten.

5. Zeren egiaz Joanez uraz bataiatu zituen; zuek berriz, egun gutxiren buruan Espiritu Santuagan bataiatuak izango zerate.

6. An zeudenak bada galdetzen zioten, esaten zutela: Jauna, Israelko erreñua berriztatuko dezun denbora, au izango ote da?

7. Eta berak esan zien: Ez dagokizute zuei, Aitak bere eskubidean gordeak dauzkan denboren, edo instanteen berriak jakitea.

8. Artuko dezute, bai, Espiritu Santu, zuen gañera etorriko danaren bertutea, eta izango zerate neretzat testiguak Jerusalemenean, eta Judea guttian, eta Samarian, eta lurraren atzeneko mugetaraño.

9. Eta oiek esan zituenean, berak ikusten zutela, goratuaz zijoan, aliketa odei batek beren begietatik ezkutatu zuen artean.

10. Eta zeudela begira nola igotzen zan zerura, ona non agertu ziran beren ondoan bi gizaseme soñeko zuriakin.

11. Zeñak esan zien: Galileako gizonak, zergatik zaudete or geldirik zerura begira? Zuekgandik alde eginda zerura igo dan Jesus au, ala etorriko da, nola zerura igotzen ikusi dezuten.

12. Orduan Jerusalemenera itzuli ziran Olibeteko menditik, zeñ dagoan Jerusalem ondoan, larunbat batean ibilli lezakean bidean.

13. Eta errian sartu ziranean igo ziran bizileku goratu batera, non zeuden egotez Pedro eta Juan, eta Santiago eta Andres, Felipe ta Tomas, Bartolome ta Mateo, Santiago Alfeoren semea, eta Simon Beillaria, eta Judas Santiagoren anaia.





14. Oiek guziok, espiritu bat batekin irautzen zuten orazioan, emakumeakin, eta Jesusen Ama Mariarekin, eta bere anaiakin.

15. Egun aietan, jaikitzen zala Pedro anaian erdian (zan berriz batzarrera, eun eta ogei bezelatsu gizonak egiten zutena) esan zien:

16. Nere anaiak, kunplitu bear da, Espiritu Santuak Dabiden aoz profetizatua daukana, Judasen gañean, zeñ, Jesus arrapatu zutenen gialari egin zan.

17. Eta zeñ gure artekoa izan zan, eta gure langintzako eginkizunetara deitua izan zan.

18. Eta onek dauka kanpo bat, bere gaiztakeriaren irabaziarekin erosi zuena, eta urkatu zan, eta erditik eztanda egin zuen, eta bere errai guztiak lurretik zabalduak gelditu ziran.

19. Au da Jerusalem bizi diran guztiak dakiten gauza bat, alako moduan, non, kanpo hura deitua izan da beren izkuntzan, Hazeldama, au da, odolaren kanpoa.

20. Zeren Salmoetako liburuan eskribitua dago. Bere bizilekua eremutua gelditu dedilla, eta ez dedilla arkitu nor bizi an, eta bere Obispadutza beste batek artu dezala.

21. Bear da bada, gurekin bilduta dauden gizon oietatik bat, gure Jaun Jesusak gurekin iduki zituen izketaetako denbora guztian.

22. Juanen bataiotik asita, alde eginik gugandik, zerura igo zan eguneraño, autua izan dedilla, Jesusen biztutze berriaren testigu, gu bezela, izan dedin.

23. Eta onetarako jarri zituzten bi, Jose, Barnabas izena zuena, eta izengoitiz justoa, eta Matias.

24. Eta orazio eginik, esan zuten: O Jauna, zuk guztioen biotzak ikusten dituzunak, erakutsi zaguzu, bi oietatik zeñ dan autu dezuna.

25. Artzeko langintza onen eta Apostolutzako tokia, zeñatetik Judas bere gaiztakeriatatik erori zan, bere tokira joateko.

26. Eta txotx eginik, suertea Matiasi erori zitzaion, eta amaika Apostoluakin bildua izan zan.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Eta Pentekostesko egunak kunplitzen ziradenean, guziak zeuden toki batean bilduak.

2. Eta batbatean etorri zan zerutik ots bat, aize andi bat etorriko balitza bezelakoa, eta arkitzen ziran etxe guztia bete zuen.

3. Eta agertu zitzaiezen suzko mingañ batzuek bezelakoak, banakatuak, eta beretatik bakoitzaren gañean jarri ziran.

4. Orduan guztiak Espiritu Santuaz beteak izan ziran, eta asi ziran itz egiten izkuntza askotan, Espiritu Santuak beren aietan ipintzen zituen itzen araura.

5. Bazeuden garai artan Jerusalemen Judu on, eta Jaungoikoaren bel-durrekoak, munduko erreñu guzietatik etorriak.

6. Zabaldurik bada berri au, beretatiko jendetza andi bat bildu zan, eta arrituak gelditu ziran, ikusirik bakoitzak bere izkuntzan Apostolui aditzen ziela.

7. Onela guztiak arrituak eta mirarituak zeudela, elkarri esaten zien: itz egiten duten guzti oiek, Galileatarrak ez al dirade?

8. Nola bada gutatiko bakoitzak aditzen dugu gure jaioterriko izkuntzan itz egiten?

9. Partoak, Medoak, Elamitak, ta bizi diranak Mesopotamian, Judean ta Kapadozian, Ponton eta Asian.

10. Frijiakoak, Pamfiliakoak, eta Ejiptokoak, Libiakoak, Zireneren ondokoak, eta Erromatik etorri diranak,

11. Ala Juduak, nola beren federa etorriak, Kretakoak, eta Arabiakoak, aditu dieztegu gure izkuntzetan Jaunaren alabantzak ta anditasunak.

12. Guztiak bada mirariz beteak zeuden, eta zer asmatu etziekitela, elkarri esaten zien: Zer dek au?

13. Baña bazeuden batzuek, berai irri egiten zienak, esaten zutela: Oiek mustioz beteak zeaudek.

14. Orduan Pedrok, amaikakin zegoala, jaso zuen bere boza, eta esan zien: O, zuek Judako gizonak, eta Jerusalem bizi zeraten gañerako guztiak, zaudete arretaz esatera noatsutenera, eta nere itzak ongi aditu itzatzute.

15. Ez daude oiek moskortuak, zuek uste dezuten bezela, izanik egunaren terziako ordua.

16. Baizik au da Joel profetak esan zuena:

17. Gertatuko da atzeneko egunetan (esaten du Jaunak) nik nere Espiritua gizon guzien gañera isuritzea, eta zuen semeak, eta zuen alabak profetizatuko dute; eta zuen mutil gazteak ikusketak idukiko dituzte; eta zuen gizaseme zarrak ametsetan, zeruko argitasunak idukiko dituzte.

18. Bai, ala da. Nik nere Espiritua egun aietan nere serbitzari gizasemeen gañera, eta emakumeen gañera isuriko det, eta profetizatuko dute.

19. Nik egingo det, ikusiak izan ditezela gauza arrigarriak goian zeruan, eta miragarriak bean lurrean, odola eta sua, eta keezko txirimolak.

20. Eguzkia illuntasun itzuliko da, eta illargia odol, Jaunaren egun andi eta agiria allegatu baño lenago.



21. Orduan Jaunaren izenari ots egin dioten guztiak, salbatuko dira.
22. O Israelko semeak! itz oiek aditu itzatzute: zuen begietan Jaunak ontzat eman zuen gizona, bere bitartez zuen aurrean egin dituen mirari, eta gauza arrigarri, eta izugarriakin ere, zuek ere badakizuten bezela.
23. Jesus au, Jaungoikoaren borondate agiriaren aginduz, eta berak lendañaz daukan gauza guztien ezageraren erabakiagatik zuen mendean gelditu zana, il dezute, gizon gaiztoen eskuz gurutziltzatzen dezutela.
24. Baña Jaungoikoak biztu du, eriotzaren oñazeetatik libratzen duela, izanik, zan bezela, etzizatekean gauza, alako tokian berak geldituta idukitzea.
25. Zeren Dabidek bere izenean esaten du: Beti neukan Jauna nere begien aurrean; zeren nere eskuiean dagoan beti, okerrik batere izan ez dezadan.
26. Argatik nere biotza bozkarioz bete zan, eta pozezko itzetan nere mingaña ari zan, eta nere aragiak itxedopenean atsedengo du.
27. Zeren nere anima obian ez dezu utziko, eta ez diozu ere utziko zure Santuaren gorpuzari usteldua izaten.
28. Berriz ere bizitzako bideetan sartueraziko didazu, eta zu aurrean ikusita, bozkarioz beteko nazu.
29. Ene anaiak, utzi zadazute, beldurrik gabe, eta ausartasunarekin zuei itz egiten: Dabid Aitalena illa da, eta obiratua izan zan; eta bere obiak gaurko eguneraño gure artean irautzen du.
30. Baña nola profeta zan, eta baziekien Jaungoikoak eskeñi ziola juramentuarekin, bere jatorriko bat bere tronuañan gañean eseriko zala.
31. Lendañaz ikusirik Kristoren biztutze berria, esan zuen: Etzala izan obian utzia; eta bere aragia ere etzala usteldua izan.
32. Jesus au bada da Jaungoikoak biztu duena, eta onen testiguak guztiok gera.
33. Izanik bada zerura eregia, eta eseria izanik an Jaungoikoaren eskuiean, eta arturik bere Aitagandik Espiritu Santua bialtzeko eskeñtza, gaur gure gañera isuri du, ikusten dezuten, eta aditzen zaudeten bezela.
34. Zeren ez da Dabid zerura igo zana, baizik berak eskribitua utzi zuen: Jaunak nere Jaunari esan zion: Nere eskuiean eseri zaite.
35. Zure etsaiak nere oinpeko aulki eginik jarri ditzadan artean.
36. Jakin beza bada txit ziertoro Israelko etxe guztiak, Jaungoikoak jarri duela Jaun eta Kristo eginik Jesus au berau, zeñ zuek gurutziltzatu zenduten.
37. Eta oiek adituta, biotzez damutu ziran, eta Pedrori, eta beste Apostolui esan zion: Guk bada, gure anaiak, zer egingo degu?

38. Eta Pedrok erantzun zion: Penitentzia egin ezazute; eta zuetatik bakoitza Jesukristoren izenean bataiatua izan bedi, zuen bekaturen barkazioa iritxi dezazuten; eta Espiritu Santuaren doia artuko dezute.
39. Zeren doai onen eskeñtza zuentzat da, eta zuen semeentzat, gure Jaun Jainkoak ots egiten dien guzientzat.
40. Beste arrazoi askorekin ere egiztatu zuen, eta erreguz eskatzen zien, esaten ziela: Arraza gaizto onen artetik alde egin ezazute.
41. Bere izketa sinistu zutenak bada, bataiatuak izan ziran, eta iru milla bezelatsu lagun egun artan Elizari itsatsi zitzaizkan.
42. Eta guztiak irautzen zuten Apostoluen erakutsietan, eta ogia zatituztearen elkartasunean, eta orazioan.
43. Eta jende guztia beldur beneragarri batez bete zegoan, zeren asko ziran, Jerusalemen Apostoluak egiten zituzten gauza arrigarri, eta miragarriak, alako moduan, non, guztiak beteak zeuden.
44. Sinistzen zuten guztiak ere, beren aldetik beren artean elkarturik bizi ziran, eta ezertxoere etzeukaten, guztiena ez zanik.
45. Saltzen zituzten, etxe, lur eta onelakoak, eta beste ondasunak ere, eta guztien artean partitzen zituzten, bakoitzaren premiaren araura.
46. Zeudela ere tenploan denbora luzeetan, espiritu batekin bilduak, eta etxeetatik ogia partitzen zutela, eta bozkarioarekin eta biotz tolesgabearekin artzen zuten janaria.
47. Jaungoikoa alabatzen zutela, eta erri guztiak maitatzen zituela. Eta Jaunak egunoro geitzen zituen, bizitzeko era au artzen zutenak, salbatu zitezten.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Pedro ta Juan igotzen ziran egun batean tenplora, nonako orduko oraziora.
2. Eta an zegoan gizon bat, bere amaren sabeletik errena zana, zeñ txikoka eramaten zuten, eta egunoro ipintzen zuten Ederra izena zuen tenploko atean, tenploan sartzen ziradenai limosna eskatzeko.
3. Onak ikusi zituenean Pedro eta Juan tenploan sartzeraz jijoazela, erregutuzten zion, limosna eman zizaiela.
4. Orduan Pedrok Juanekin begiratzen ziola, esan zion: Begiratu zaguzu.
5. Eta berak arreta andiarekin begiratzen zion, zerbait emango ziotela itxedotzen zuelako.



6. Eta Pedrok esan zion: Zillarrik, ez urrerik ez daukat nik; baña daukadana ematen dizut. Jesukristo Nazaretkoaren izenean jaiki, eta ibilli zaitte.

7. Eta bere eskuiko eskutik eltzen ziola, jaso zuen, eta orgatillak, eta oñazpiak bereala sendatu zitzaizkion.

8. Eta salto bat eginda, zutik jarri zan, eta ibiltzeari eman zion: eta sartu zan berakin tenploan, oñaz zebillala, eta saltoka ari zala, eta Jaungoikoa alabatzen zuela.

9. Eta erri guztiak ikusi zuen bazebillala, eta Jaungoikoa alabatzen zuela.

10. Eta nola ezagutzen zuten tenploko ate Ederra izena duenean, limosna eskatzen egon oi zan hura zala, arrituak eta beren senetik irtenak gelditu ziran alako gertakariarekin.

11. Zegoala bada bera Pedrori eta Juani eskutik elduta, erri guztia arrituta etorri zan korrika berakganontz, Salomonen atari Leorpea izena duenera.

12. Eta ikusirik au Pedrok, jendeari onela itz egin zion: O Israelko semeak! Zergatik gertakari augatik mirestzen zerate? Eta, zergatik zaude te guri begira, gure indarrez, edo gure eskubidez gizon oni ibillierazi bagiñio bezela?

13. Abrahamen Jaungoikoak, Isaak-en Jaungoikoak, eta Jakoben Jaungoikoak, gure gurasoen Jaungoikoak onratu du mirari onekin bere seme Jesus, zeñ zuek jentillen eskuetan jarri zenduten eta ukatu zenduten Pilatoren aurrean, uste izanik onek libratua izan bear zala.

14. Zuek berriz, gizon santu eta justoari uko egin ziñioten, eta eskatu zenduten gizon eralle bat eman zizazutela.

15. Bizitzaren emallea berriz, il zenduten; baña Jaungoikoak illen artetik biztu du, eta bere biztutze berriaren testiguak gu gera.

16. Bere eskubidea da, bere izenaren fedearen bitartez sendotu ditue-na, zuek elbarritua ikusi ta ezagutu zenduten gizaseme onen oñak; alako moduan, non, beragandik datorren, eta beragan daukagun fedea da, zuen guzioen aurrean sendatze oso au eman duena.

17. Eta orain, ene anaiak, nik ongi dakit ezjakiñean egin zendutela, baita zuen agintariak ere.

18. Egia da Jaungoikoak onela egiztatu dituela, profeta guzien aoz lendanaz adiraziak izandako gauzak, bere Kristoaren pasioaren gañean.

19. Penitentzia egin ezazute bada, eta ondu zaitetzte, zuen bekatuak barkatuak izan ditezen.

20. Datozteneko Jaungoikoaren aginduz gozotasuneko denborak, eta adirazia izan zazuten Jesukristo bera, bialdu dezan artean.

21. Zeñ, egiaz, on da zeruan egon dedilla, gauza guztien berriztazio-ko denboraraño, zeñaen gañean anziña Jaungoikoak bere profeta santuen aoz itz egin zuen.

22. Zeren Moisesek gure gurasoai esan zien: Zuen Jaun Jainkoak zuen anaien artetik profeta bat aterako du, ni atera nauen bezela; berari obedituko diozute, esaten dizuten guztian.

23. Bestela profeta ari aditzen ez dion guztia, Jaungoikoaren erritik kanpora aurtikia izango da.

24. Eta Samueltik asita andik aurrera profetizatu duten profeta guztiak, lendanaz adirazi zituzten, egun oietako gertakariak.

25. Zuek, o Israeltarrak! profetaen semeak zerate, eta gure guraso-ekin Jaungoikoak egin zuen elkartasunaren semeak, Abrahami esaten ziola: Zure jatorriko bategan, lurreko erreñu guztiak bedeikatuak izango dira.

26. Zuentzat batezere da, zeñaentzat Jaungoikoak biztu duen bere semea; eta bedeikazioz zuek betetzera bialdu du; bakoitza, bere bizitza gaiztoari utzita, ondu dedin.

## LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta berak erriari itz egiten ari ziraden bitartean, etorri ziran apai-zak tenploko agintariakin eta Sadduzeoak.

2. Ezin sufriturik erriari erakutsiak ematea, eta Jesusen izenean, illen biztutze berria predikatzea.

3. Eta eskuak egotzi ziezten, eta karzelan sartu zituzten biaramone-raño, zeren arratsaldea zan.

4. Bitartean Pedroren predikazioa aditu zuten askok, sinistu zuten, eta allegatu ziran bost milla gizonera.

5. Biaramonean bildu ziran Jerusalemene agintariak, eta zarrak, eta Eskribak.

6. Eta Annas apaizburua, eta Kaifas, eta Juan, eta Alejandro, eta apai-zen jatorrikoak ziraden guztiak.

7. Eta erdian ipintzen zituztela, galdetu zien: Zer eskubiderek, edo zeñen izenean gertakari ori egin dezute?

8. Orduan Pedrok Espiritu Santuz beterik, esan zien: Zuek erriko prinzipiak, eta Israelko zarrak, aditu nazazute.

9. Egun onetan eskatzen zagun ezker, gizon elbarritu bati egin dio-gun on ta mesedearren arrazoia, eta jakin nai dan ezker, zeñaen bertutez sendatua izan dan.



10. Jakin ezazute zuek guztiok, eta Israelko erri guztiak, zuen aurrean dagoan gizon au sendatua izan dala, Jesukristo gure Jaun Nazaretkoaren izenean, zeñ zuek gurutziltzatu zenduten, eta Jaungoikoak biztu duen. Izan aren indarrez, gizon au zuen aurrean sendatua jartzen da.

11. Jesus au da arako arria, zeñ zuek aurtiki zenduten, etxea egiten ari ziñatenean, zeñ allegatu dan kantoiko arri nagusi izatera.

12. Ez dago zertan bestegan iñorgan ere, salbazioa zer billatu, beragan baizik; bada zeruaren azpian etzaie gizonai emana izan beste izenik, zeñaen bitartez salbatuak izan bear giñan.

13. Ikusirik berak Pedoren eta Juanen sendotasuna, eta ezaguturik bestetik, zirala gizon batzuek jakinduria gabekoak, eta jendetzaren artekoak, arrituak zeuden, ezaguturik Jesusen ikasleak izandakoak ziradela.

14. Bestetik, ikusirik sendatua izan zan gizona berakin zutik zegoala, kontrako gauzarik batere etzitzaketen esan.

15. Agindu zien bada batzarretik kanpora irtetzeko, eta asi ziran elkarri galdeak egiten.

16. Esaten zutela: Gizon oiekin zer egingo degu? Berak egindako mirarien berriak, Jerusalem bizi diraden guztiak dauzkate. Alako moduan ziertoa da, non, ez genezake ukatu.

17. Baña errian geiago zabaldu ez dedin, galerazi dizaiegun emendik aurrera izen au beren mingañetan artzea; eztaere beragatik iñori ere itzik egitea.

18. Argatik, ots egiten ziela, adirazi zien, ezergatik ere etzetzatela itzik egin, eztaere Jesusen izenean erakutsirik eman.

19. Pedrok eta Juanek berriz, onetara erantzun zuten: Juzgatu ezazute zuek Jaungoikoaren aurrean, gauza justoa ote dan, zuei obedezitzea, Jaungoikoari baño lenago.

20. Zeren gu ez genezake egon esan gabe ikusi eta aditu deguna.

21. Baña berak, keñadak eginik, bialdu zituzten, ez arkiturik ezerere zergatik kastigatu, erriaren beldurragatik; zeren guztiak gertakari au zelebratzen zuten.

22. Zeren sendatze miragarri au egina izan zaion gizonak, berrogei urte baño geiago zeuzkan.

23. Utziak izan ziranean, bereetara itzuli ziran; eta adirazi ziezten, apaizburuak eta zarrak zenbait gauza esan ziezten.

24. Berak aditu zutenean, guztiak batean boza Jaungoikoagana jaso zuten, eta esan zuten: Jauna, zu zera zerua eta lurra, itsasoa, eta beretan dauden gauza guztiak egin ziñituen.

25. Itz egiten zuela Espiritu Santuak Dabid gure Aita, eta zure serbitzariaren aoz, esan zenduena: Zergatik nastu dira erreñuak, eta erriak asmazio alperretan ari dira?

26. Lurreko erregeak armakin jarri ziran, eta prinzipiak elkartu ziran Jaunaren kontra eta bere Kristoren kontra.

27. Zeren egiaz erri onetan elkartu ziran zure seme Jesusen kontra, zeñ olioarekin igortzi zenduen, Herodes, eta Ponzio Pilato, Jentillakin, eta Israelko tribuakin.

28. Egiztatzera, zure eskubideak, eta zure probidenziak, egitea nai zutena.

29. Orain bada, Jauna, begiratu zaiezu beren keñadai; eta zure serbitzari oiei eman zaguzu itxedopen guztiarekin zure itza predikatzea.

30. Luzatzen dezula zure eskua sendatzeko eriak, eta egiteko mirariak, eta gauza arrigarriak, eta izugarriak, zure seme santu Jesusen izenean.

31. Eta bukaturik orazio au, lurdardara bat izan zan, bilduak zeuden tokian, eta guztiak Espiritu Santuz bete ziran, eta itxedopenarekin Jaungoikoaren itza adiraztzen zuten.

32. Fededun guztien taldeak, biotz bat, eta anima bat zeukaten, eta etzegoan beren artean, berea zala esaten zuenik zeukan gauzarik batere, baizik guztiak guztienak ziran.

33. Eta Apostoluak sendotasun andiarekin, Jesukristo gure Jaunaren biztutze berriaren testigantza ematen zuten, eta fededun guztietan grazia andiak zeuden.

34. Eta ala, beren artean premiadun lagunik batere etzegoan. Zeren etxeen edo kanpoen jabe ziraden guztiak; eta saltzen zituztela, saltzen zituzten gauzakgatik artzen zuten guztia, ekartzen zuten.

35. Eta Apostoluen oñetan ipintzen zuten, zeñ gero, bakoitzari bere premiaren araura, ematen zaion.

36. Onela Josek, zeñi Apostoluak Bernaberen (au da, gozotasunaren semearen) izengoitia jarri zioten, zeñ zan Lebita, eta berez Txipreko ugar-tekoa.

37. Zeukan soro bat saldu zuen, eta beragatik artu zuena ekarri zuen, eta jarri zuen Apostoluen oñetan.

## BOSGARREN KAPITULUA

1. Ananias izena zeukan gizon batek ere, bere emazte Safirarekin, kanpo bat saldu zuen.

2. Eta bere emazteak bazekiela, kanpoagatik artu zuenaren zati bat gorde zuen, eta gañerakoa ekarririk, jarri zuen Apostoluen oñetan.



3. Eta Pedrok esan zion: Ananias, zergatik Satanasek tentatu du zure biotza, Espiritu Santuari gezurra esateko, kanpo orregatik artu dezunaren zati bat zuretzat gordetzen dezula?

4. Nork galerazitzen zizun bera idukitzea? Eta salduta ere, beragatik artzen zenduena, ez al zan zurea? Zergatik bada, zure biotzean gauza au asmatu dezu? Ez diezu gizonai, baizik Jaungoikoari gezurra esan.

5. Ananias, itz oiek aditu zituenean, lurrera erori zan, ta il zan. Onenbesterekin, alako gertakaria jakin zuten guztiak, txit beldurtuak gelditu ziran.

6. Ordu beratan mutil batzuek etorri ziran, eta atera zuten, eta eraman zuten obiratzera.

7. Iru ordu izango ziradeneko, ona non bere emaztea sartu zan, gertatu zanik etziakiela.

8. Esan zion Pedrok: Esan zadazu emakumea: Kanpoa onenbestean saldu al zenduten? Berak erantzun zuen: Orrenbestean saldu genduen.

9. Orduan Pedrok esan zion: Zergatik elkartu zerate Jaunaren Espiritua tentatzeko? Ona emen atean zure senarra obiratu dutenak, eta berak zu ere obiratzera eramango zaituzte.

10. Bereala Pedroren oñetan erori, ta il zan. Andikan laster sarturik mutillak, illa arkitu zuten, eta ateratzen zutela, bere senarraren ondoan obiratu zuten.

11. Eta gertakari oiek, eliza guztia, eta aditu zuten guztiak, txit beldurtu zituen.

12. Bitartean Apostoluak mirari eta gauza arrigarri asko egiten zituzten errian. Eta guztiak bildurik espiritu batean, Salomonen atari leorpean elkartzen ziran.

13. Besteetatik inor ere etzan azartzen biltzen berakin, eta erriak alabantza andiak ematen ziezten.

14. Onela geitzen zan geiago ta geiago, Jaungoikoagan sinistzen zutenen taldea, ala gizasemeena, nola emakumeena.

15. Alako moduan, non, eriak karrikaetara ateratzen zituzten oetxoetan, eta gurditxoetan, Pedro iragotzen zanean, bere itzalak bederik bere-tatik bati, edo bati ukitu zizaion, eta beren gaitzetatik sendatu zitezten.

16. Aldamenetako errietako jende asko ere, Jerusalemenera etorri oi zan, eriak eta gaizkindunak ekartzen zituztela, zeñak guztiak sendatuak izan oi ziran.

17. Eta jaikitzen zala apaizburua aserretuta, berarekin zeudenakin (zeñ dan Sadduzeoen herejia) zeloz beteak agertu ziran.

18. Eta arrapatu zituzten Apostoluak, eta kartzela agirian sartu zituzten.

19. Baña Jaungoikoaren Aingeruak gauaz idikitzen zituela kartzelako atreak, eta kanpora ateratzen zituela, san zien:

20. Zoazte tenplora, eta an jartzen zeratela, erriari bizitzako jakinduria onetako erakutsiak predikatu zaiozkazute.

21. Berak oiek aditurik, sartu ziran tenploan egunsentian, eta erakutsiak ematen jarri ziran. Bitartean etorri ziran apaizburua, eta berarekin zeudenak, eta batzarrea egin zuten, eta Israelko semeetatik zar guztiai ots egin zien, eta bialdu zituzten morroiak kartzelara, ekarriak izan zitezten.

22. Eta morroiak etorri ziranean, eta kartzela idiki zutenean, nola etziztuzten arkitu, berriarekin itzuli ziran.

23. Esaten zutela: Kartzela arkitu degu txit ongi itxia, eta zaitzalleak beillan ateen aurrean; baña idikitzen ditugula, ez degu barrenen inor ere arkitu.

24. Alako berriak aditurik, ala tenploko agintaria, nola apaizburuak, etzetzaketan ezagutu, berakin zer gertatu ote zan.

25. Garai onetan allegatu zan bat, eta esan zien: Jakin ezazute, kartzelan sartu zenduzten gizon aiek, tenploan daudela, erriari erakutsiak ematen.

26. Orduan agintaria bere jendearekin ara joan zan, eta ekarri zituzten gogortasunik egin gabe, zeren erriak arrika egingo zielako beldurra zeukaten.

27. Eta ekarri zituztenean, batzarrean jarri zituzten, eta apaizburuak galdeak egin ziezten.

28. Esaten zuela: Guk zuei aginte gogor batekin galerazi giñizuten, izen orretan erakustea, eta ona non obedezitu bearrean, zuen dotrinarekin Jerusalem bete dezuten, eta nai dezute guk erantzun dezagula gizon orren odolagatik.

29. Eta Pedrok eta Apostoluak, erantzuten zutela, esan zuten: Jaungoikoari obeditu bear zaio gizonai baño lenago.

30. Gure gurasoen Jaungoikoak biztu du Jesus, zeñ zuek il zenduten abe batean esekitzen zendutela.

31. Au da Jaungoikoak bere eskuiearekin goratu zuena, prinzipe eta salbatzalletzat, Israeli bekatuen damua eta barkazioa emateko.

32. Gu egia oien testiguak gera, eta bada ere Espiritu Santua, zeñ Jaungoikoak, obedezitzen dioten guztiai eman dien.

33. Oiek adituta, arrabiatzen ziran, eta suturik, berak iltzeko gogorazioak zerabiltzaten.





34. Baña jaikitzen zala batzarrean Gamaliel izena zuen Fariseo bat, Legeetan jakintsua, erri guztiak errespetoarekin begiratzeko ziona, agindu zuen, gizon oiek denbora piska baterako kanpora atera zitezela.

35. Eta orduan batzarrekoai esan zien: O Israelko gizonak! Ongi begiratu ezazute gizon oiekin zer egingo dezuten.

36. Badakizute nola oraindik denbora gutxi dala, jaiki zan Teodas izena zuen bat, esaten zuela, bera zerbait bazala, eta laureun bat gizon bezelatsuk jarraitu zioten, bera illa izan zan; eta sinistzen zioten guztiak barreiatu eta utsera biurtu ziran.

37. Onen ondoan izan zan Judas Galileakoa listako egunetan, eta bere ondoren erria eraman zuen; eta au ere era berean galdu zan; eta bere jarraitzaile guztiak barreiatuak gelditu ziran.

38. Eta orain esaten dizutet, alde egin dezazutela gizon oietatik, eta pakean utzi dizaiezutela, zeren asmazio edo obra au gizonakgandikoa bada, bera berez desegingo da.

39. Baña Jaungoikoagandiko gauza bada, ezingo dezute desegin, eta jarriko zerate Jaungoikoaren kontra joateko irriskuan. Guztiak iritzi onetara etorri ziran.

40. Eta ots egiten ziela Apostolui, azotatuta gero, agindu zien, ez itzik egiteko, ez asko, ez gutxi Jesusen izenean, eta utzi zien joaten.

41. Orduan Apostoluak batzarrearen aurretik bozkario txit andiarekin alde egin zuten, Jesusen izenagatik lotsari hura iragotzeko diñak arkitu ziradelako.

42. Eta aspertu gabe ari ziran egun guztietan, tenploan eta etxeetatik, Jesukristo adiratzeko eta predikatzen.

### SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta egun aietan ikasleen taldea geiten zala, atera zan Griegen artean murmurio bat Juduen kontra, beren andre alargunak egunoroko lanetan mezipreziatuak ziradelako.

2. Argatik amabi Apostoluak, ots egiten ziela ikasle guztiai, esan zien: Ez da on, guk utzitzea Jaungoikoaren itzaren predikazioari, maieko lanetan aritzeko.

3. Argatik nere anaiak, izendatu itzatzute zuen artetik zazpi lagun bizitza onekoak, Espiritu santuz eta jakinduriaz beteak, lan onen kontua oiei eman dizaiegun.

4. Gu berriz, aspertu gabe egongo gera orazioan, eta ariko gera Jaungoikoaren itza predikatzen.

5. Batzarre guztiari izketa au ongi iritzi zitzaion, eta autu zituzten Esteban, fede eta Espiritu Santuz betea zegoan gizona, eta Felipe, eta Prokoro, Nikanor, eta Timon, Parmenas, eta Nikolas Antiokiako judu berria.

6. Eta ipiñi zituzten Apostoluen aurrean, zeñak, orazio eginik, eskuak buruen gañean jarri ziezten.

7. Bitartean Jaungoikoaren itza frutak emanaz zijoan, eta Jerusalemen ikasleak txit ugaritzen ziran, eta apaiz talde andiak fedeari obeditzen zion.

8. Estebanek berriz, grazia eta Espiritu Santuz betea egonik, gauza arrigarriak, eta mirari andiak egiten zituen.

9. Jaiki ziran Sinagogako batzuek, zeñai ots egiten zaien Libertinoenak, eta Zirenetarrenak, eta Alexandriarrenak, eta Ziliziakoak, eta Asia-koak ziradenak, Estebanekin itzez elean ari ziradela.

10. Baña etziztaieketen aurkeztu, beragan itz egiten eban jakinduria eta Espirituari.

11. Orduan erosi zituzten gizon batzuek, esan zezaten, berak aditu ziotela, nola Moisesen eta Jaungoikoaren kontra blasfemiako itzak esaten zituen.

12. Orrekin iskanbillatu zituzten jendetza eta zarrak, eta Eskribak, eta bere gañera aurtikitzen zirala, arrapatu zuten, eta ekarri zuten batzar-rrera.

13. Eta arkitu zituzten gezurrezko testigu, esaten zutenak: Gizon au aspertu gabe ari da, toki santu onen kontra, eta legearen kontra itzak esaten.

14. Zeren guk aditu diogu esaten: Jesus Nazaretko ark, toki au desegingo duela, eta Moisesek utzi zizkigun anziñakoen elizerakutsiak mudatu.

15. Eta begiratzeko ziotela batzarrean zeuden guztiak, bere arpegia, aingeru baten arpegia bezelakoa ikusten zuten.

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta apaizburuak esan zuen: Oiek ala ote dirade?

2. Berak erantzun zuen: Nere anaia eta gurasoak, aditu nazazute. Gloriako Jaungoikoa agertu zitzaion gure aita Abrahami, Mesopotamian zegoanean, Karanen bizitu baño lenago.

3. Eta esan zion: irten zaite zure erritik, eta zure aideen artetik, eta atoz nik erakutsiko dizudan lurrera.

4. Orduan irten zan Kaldeatik, eta etorri zan Karanen bizitzera. Eta andik, bere aita il zitzaionean, Jaungoikoak iragoerazi zion lur onetara, non orain zuek bizi zeraten.





5. Eta etzion eman bere jabetasunik, ezda arra bateko lurrenik ere; eskeñi zion, bai, emango ziola lur aren jabetasuna, eta gero bera etzanean, bere jatorrikoak izango zirala bere jabeak, eta ori, garai artan Abrahamek semerik etzeukala.

6. Eta Jaungoikoak lendanaz esan ere zion, bere jatorrikoak lur arrotzean biziko zirala, eta besteren mendean egongo zirala, eta txit gaizki tratatuak izango zirala lareun urtean.

7. Baña alaeze ni, esan zuen Jaunak, bengatuko naiz, mendekoak balirade bezela serbituko duten erreñu arekin, eta oiek iragota, irtengo dira andik, eta toki onetan ni serbituko naute.

8. Egin zuen gero berarekin elkartasun bat, zirkunzioarekin sillutua, eta ala Abrahamek, Isaak jaio zitzaionean, zortzigarren egunean zirkunzidatu zuen; Isaak-i Jakob jaio zitzaion, eta Jakobi amabi Aitaaurrenak.

9. Aitaaurrenak ondamuz saldu zuten Jose, Ejiptora eramana izateko, non Jaungoikoa berarekin zegoan.

10. Eta bere atsekabe guztietatik libratu zuen; eta jakinduriaraz betetzen zuela, Faraon Ejiptoko erregearen gogoko egin zuen, zeñak egin zuen Ejiptoko, eta bere jauregi guztiko gobernatzalle.

11. Etorri zan gero gosete andi bat Ejipto guztira, eta Kanaango lurren, eta atsekabea andia zan, eta gure gurasoak etzuten arkitzen zer jan.

12. Baña jakinik Jakobek, Ejipton garia bazegoala, gure gurasoak lenengo aldiz ara bialdu zituen.

13. Eta bigarren aldiz joan ziranean, Jose bere anaiai ezagutuera zizaien, eta Faraoni, bere jatorria agertua izan zitzaion.

14. Orduan Josek bialdu zituen bere aitaren, eta bere aide guztien billan, zeñak irurogeita amabost ziran.

15. Jetxi zan bada Jakob Ejiptora, non il zan bera, baita gure guraso asabak ere.

16. Eta bere ezurrak gero Sikemera ekarriak izan ziran; eta Abrahamek, Hemor Sikemgoaren semeai, diru zati bat gatik erosi zien obian, ipiñiak.

17. Baña alderaturik, Jaungoikoak Abrahami juramentuarekin egin zion eskeñtza kunplitzeko denbora, Israelko erria Ejipton aziaz, eta ugarituaz zijoan.

18. Aliketa an erreñatu zuen artean beste errege, Josegatik ezerere etziekien batek.

19. Onek, gure erreñuaren kontra marro bat egiten zuela, atsekabetu zituen gure gurasoak, utzieraziaz aurseme jaio berriak, il zitezen eta ugaritu etzitezen.

20. Denbora onetan jaio zan Moises, zeñ Jaungoikoaren gogokoa izan zan, eta iru illabetean bere aitaren etxean izan zan ixiltxorik azia.

21. Atzanean Niloko uren gañean utzia izanik, Faraonen alabak artu zuen, eta azi zuen bere seme balitza bezela.

22. Erakutsi ziozkan ijitoen jakinduria guztiak, eta allegatu zan itzatera gizon almentsua, ala itzetan, nola obretan.

23. Allegatu zanean berrogei urtera, bere anaia Israelko semeak bisitatzeraz joateko gogoa etorri zitzaion.

24. Eta ikusirik beretatik bat iraindua zala, bere alde jarri zan, eta bengatu zitzaion, iraiña ematen zion ijitoa iltzen zuela.

25. Berak uste zuen, bere anaia Israelko semeak ezagutuko zutela, Jaungoikoak bere bitartez salbazioa emango ziela: baña berak etzuten ezagutu.

26. Biaramonean sartu zan, erriertan ari ziraden batzuen artean, eta pakean jarri nai zituen, esaten ziela: Gizonak, anaia zerate; zergatik elkarrigaitz egiten diozute?

27. Baña bere projimoari iraina ematen zionak, bultzada bat eman zion, esaten ziola: Nork jarri au i prinzipte ta jueztzat gure gañean?

28. Ni il nai al nauk, atzo ijitoa il auk bezela?

29. Aditu zuenean au Moisesek, iges egin zuen, eta joan zan arrotza bezela bizitzera Madiango lurrera, non bi seme iduki zituen.

30. Berrogei urte geroago Jaunaren aingeru bat agertu zitzaion Sinai mendiko eremuan, irazekia zegoan sasi baten garren artean.

31. Arritu zan Moises ikusketa hura ikusi zuenean, eta alderatzen zala zer zan ikusteko, aditu zuen Jaunaren boz bat, esaten ziona:

32. Ni zure gurasoen Jaungoikoa naiz, Abrahamen Jaungoikoa, Isaak-en Jaungoikoa, eta Jakob-en Jaungoikoa. Orduan Moises ikaraturik, begiratzen ere etzan ausartatzen.

33. Orduan Jaunak esan zion: Kendu itzatzu zure oñetako zapatak, zeren arkitzen zeran tokia, toki santua dan.

34. Nik ikusi det, nere erri Ejipton dagoanaren atsekabea, eta bere negarrak aditu ditut, eta berak libratzera jetxi naiz. Orain bada, atoz, eta Ejiptora bialduko zaitut.

35. Ala bada Moises au, zeñ aurtiki zuten, esaten ziotela: Nork gure prinzipte ta jueztzat jarri au? Au bera bialdu zuen Jaungoikoak, beren giarari eta libratzalle izatera, sasia agertu zitzaion Aingeruaren zuzenbidez.

36. Onek libratu zituen, mirari andiak eta gauza arrigarriak egiten zituela Ejiptoko lurrean, eta itsaso gorrian, eta eremuan, berrogei urtean.



37. Au da Moisesek Israelko semeai esan ziena: Jaungoikoak aterako du zuen anaien artetik profeta bat, legeemallea, ni atera nauen bezela; oni obeditu bear diozute.

38. Au da erria eremuan bildua egon zanean, Sinaiko mendian Aingeruarekin izketan egon zana; gure gurasoakin egon zana; Jaungoikoa-gandik bizitzako itzak artu zituena, guri adirartzeko.

39. Zeñi gure gurasoak etzioten obeditu nai, baizik aurtiki zuten, eta beren biotzak in Ejiptora itzuli ziran.

40. Aaroni esaten ziela: Egin zazkiguzu Jainkoak, zuzenduko gaituztenak, ez dakigun ezkeror zer egin dan, Ejiptoko lurretik atera ginduen Moises orrekin.

41. Eta egin zuten gero idisko bat, eta eskeñi zaiozkaten doañak idolo oni, eta beren eskuen lanaren aurrean, bozkariozko jostaketetan ari ziran.

42. Orduan Jaungoikoak atzea eman zien, eta utzi zien zeruko milizia serbitzera joaten, Profeten liburuetan eskribitua dagoan bezela. O Israelko etxea! Doañak eta opariak eremuko berrogei urteetan eskeñi al dizkidazu?

43. Bestera, eraman dituzute Molok-en tabernakuloa, eta Bemfan zuen jainkoaren izarra, berak adoratzeko zuek egin ziiñituzten irudiak. Bada nik eramango zaituztet Babiloniara, eta arontzago ere.

44. Iduki zuten gure gurasoak eremuan Testimonioko Tabernakuloa, Jaungoikoak Moisesi agindu zion bezela, esaten ziola: ikusi zuen irudiaren araura egin zizaiola.

45. Zeñ, artzen zutela gure gurasoak, eraman zuten, Josue zuzentzalle zala, erreñuak jabe ziraden lurrera, zeñak beren aurrean Jaungoikoa joian aurtikiatz, eta Tabernakuloak Dabiden denboraraño iraun zuen.

46. Au izan zan Jaungoikoaren gogokoa, eta eskatu zuen Jakoben Jaungoikoari tenplo bat egiteko eskubidea.

47. Baña Salomon izan zan tenploa egin zuena.

48. Baña Jaungoiko txit goratua ez da bizi, gizonen eskuz egindako tokietan, Profetak esaten duen bezela.

49. Zerua da nere esertokia, eta lurra da nere oñen aulkia. Nolako etxea da neri egin didazutena? Eta nere atsedeneko toki diña, zeñ izan diteke?

50. Gauza guzti oiek, nere eskuak ez al zituen egin?

51. Lepo gogorreko gizonak, eta biotz, ta belarri zirkunzidatu gabeak; zuek Espiritu Santuari aurkeztzen zazkie; nolakoak izan ziran zuen gurasoak, zuek ere alakoak zerate.

52. Zeñ profeta zuen gurasoak etzuten persegitu? Berak dirade il zituztenak, Justoaren etorrera lendanaz adiratzten zutenak, zeñ orain-tzuan jarri dezuten jentillen eskuetan, eta zeñaen iltzalleak izan zeraten.

53. Zuek legea Aingeru baten bitartez artu zenduten, eta etzenduten zaitu.

54. Gauza oiek aditzean, beren biotzak aserrez zatitutzen ziran, eta bere kontra ortzkarraskotsak egiten zituzten.

55. Zegoala berriz Espiritu santuz betea, zerura begiraturik, ikusi zuen Jaungoikoaren gloria, eta Jesus Jaungoikoaren eskuietik zegoala, eta esan zuen: Ona non zeruak idikiak ikusten ditudan orainxe, eta gizonaren semea Jaungoikoaren eskuietik eseria.

56. Orduan berak, deadar andiak egiten zituztela, belarriak tapatu zituzten, eta guztiak batean Estebani eraso zitzaieten.

57. Eta aurtikitzen zutela erritik kanpora, arrika egiten zioten, eta testiguak beren soñekoak utzi zituzten Saulo izena zuen galai gazte baten oñetan.

58. Eta arrika egiten zioten Estebani, zeñ orazioan zegoan, esaten zuela: Jaun Jesus, nere espiritua ar zazu.

59. Eta belauniko jarririk boz goratuan deadar egin zuen: Jauna, bekatu onen konturik etzaiezu artu. Eta au esanik, Jaunagan eriotzako loak artu zuen. Saulek berriz, besteak bezela, Estebanen eriotza ontzat eman zuen.

## ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Egun aietan jaiki zan persekuzio andi bat Jerusalemgo elizaren kontra, eta ikasle guztiak Judeako eta Samariko alderrietatik barreiatu ziran, baña ez Apostoluak.

2. Eta Jaungoikoaren beldurreko gizon batzuek kontua iduki zuten Esteban obiratzeko, eta beragatik progu andia egin zuten.

3. Bitartean Saulo eliza arrasatuaz zijoan, eta etxeetatik sartzen zala, indarrez ateratzen zituen gizasemeak, eta emakumeak, eta kartzelan sartuerazitzen zituen.

4. Baña barreiatu ziradenak, toki batetik bestera zebiltzan, Jaungoikoaren itza predikatzen.

5. Beren artean Felipek, Samariako errira allegaturik, Jesukristo predikatzen zuen.

6. Eta erri guztiak arreta andiarekin Feliperen izketak aditzen zituen, guztiak txit gogotik entzuten zutela, eta ikusten zituztela egiten zituen mirariak.



7. Zeren asko espiritu zikin gaizkiñak zeuzkatenetik irtetzen ziran, deadar andiak egiten zituztela.
8. Eta asko elbarritu eta erren sendatuak izan ziran.
9. Argatik erri hura bozkario andiz bete zan. An ibilli zan len gezurrezko mirarikintzan Simon izena zuen gizon bat, Samariatarrek engañatzen zituela, eta esaten ziela, bera gizon andi bat zala.
10. Guztiak, andiak eta txikiak benerazioarekin aditzen zioten, eta esaten zuten: Au Jaungoikoaren bertute andia da.
11. Eta aditzen zioten berari, zeren denbora andietan bere mirarikintza gezurrezkoakin txoratuak zeuzkan.
12. Baña sinistu zutenean Felipek adiraztzen zien Jaungoikoaren erreñuko itza, gizasemeak eta emakumeak Jesukristoren izenean bataiatuak izaten ziran.
13. Orduan Simonek berak ere sinistu zuen, eta bataiatua izan zanean, Feliperi jarraitu ta laguntzen zion. Eta ikusten zituenean mirari eta gauza arrigarriak, ikaratua ta arritua zegoan.
14. Aditu zutenean bada Apostoluak, Samariak Jaungoikoaren itza artu zuela, Pedro eta Juan berakgana bialdu zituzten.
15. Oiek allegatu ziranean, orazio egin zuten berakgatik, Espiritu Santua artu zezaten.
16. Zeren oraindik beretatik batgana ere etzan jetxi, baizik Jaun Jesusen izenean bakarrik bataiatuak zeuden.
17. Orduan eskuak beren gañean jartzen ziezten, eta Espiritu Santua artzen zuten.
18. Ikusirik bada Simonek, Apostoluak eskuak gañean jarrita, Espiritu Santua artzen zala, dirua eskeñi zien.
19. Esaten zuela: Neri ere eskubide au eman zadazute, nik eskuak gañean jartzen diozkadan edozeñiek, Espiritu Santua artu dezala. Baña Pedrok erantzun zion.
20. Zure dirua zurekin izan bedi zure galmenerako, juzgatu dezulako Jaunaren doaia diruarekin iritxitzen zala.
21. Ezin izan zintezke zu partale, ez iduki sarrerarik langintza onetan, zeren zure biotza Jaungoikoaren begietan zuzena ez dan.
22. Argatik zure gaiztakeria augatik penitenzia egin ezazu, eta Jaungoikoari erregutu zaiozu, zure biotzeko utsegite au barkatua izan dakizun.
23. Zeren nik beazun txit mingoitzez bete ikusten zaitut, eta gaiztakeriako katea arrastaka darabiltzula.

24. Erantzun zuen Simonek, eta esan zuen: Erregutu zaiozute zuek nigatik Jaungoikoari, zuek esan dizkidazuten gaitzetatik batere, nere gañera etorri ez dedin.
25. Berak atzenean, predikatu zutenean, eta Jaunaren itzaren testigantza eman zutenean, Jerusalemara itzuli ziran, Samariatarren alderri askotan Ebanjelioa predikatzen zutela.
26. Eta Jaunaren Aingeru batek itz egin zion Feliperi, esaten ziola: Jaiki zaite, eta zoaz egoerontz, Jerusalemik Gazara dijoan bidetik, zeñ eremutua dagoan.
27. Eta jaikitzen zala, joan zan. Eta ona non arkitzen duen Etiopiako gizon bat, Kandakos Etiopiako erregeñaren kutun andia, eta bere ondasun guztien begiralea, Jerusalemara Jaungoikoa adoratzera etorri zana.
28. Eta garai artan itzultzen zan, bere manurgaren gañean eserita, eta Isaias profetaren liburua irakurtzen zuela.
29. Orduan Espirituak Feliperi esan zion: Agudo ibilli zaite, eta gurdi orren ondora zoaz.
30. Felipe bada, gurdiaren ondora txit agudo joanik, aditu zuen, Isaias profetaren liburuan irakurtzen ari zala, eta esan zion: Uste al dezu, irakurtzen dezuna aditzen dezula?
31. Berak erantzun zuen: Nola adituko det, norbaitek azaldatzen ez badit? Eta erregutu zion Feliperi, igo zedilla, eta eseri zedilla bere aldamenen.
32. Irakurtzen zuen Eskriturako itzak, oiek ziran. Ardi bat bezela iltokira eramana izan zan, eta nola bildotsa, moistzen duenaren eskuetan beerik egin gabe dagoan, ala berak ere etzuen aorik idiki.
33. Bere umillazioak iragota, libratua izan da eriotzaren mendetik, zeñatara kondenatua izan zan. Bere arraza nork arkitu dezake, bere bizia lurretik ebakia izan dan ezkerro?
34. Onetara txikiratuak Feliperi galdetu zion: Esan zadazu arren, Profetak, zeñgatik esaten du au? Beragatik, ala besteren batgatik?
35. Orduan Felipek izketan ari zala, eta Eskritura onetatik asita, Jesusen berriak eman ziozkan.
36. Bidean zijozala, ura zegoan toki batera allegatu ziran, eta txikiratuak esan zuen: Ona emen non dagoan ura; zer eragozketa dago, ni bataiatua izateko?
37. Batere ez, erantzun zuen Felipek, biotz guztitik sinistzen badezu. Onetara txikiratuak erantzun zuen: Nik sinistzen det, Jesukristo Jaungoikoaren semea dala.



38. Eta agindu zuen gurdia gelditu zedilla, eta biak, Felipe eta txiki-ratua uretara jetxi ziran, eta Felipek bataiatu zuen.

39. Uretik irten ziradenean, Jaunaren Espirituak, arrapatuta, eraman zuen Felipe; eta txikiratuak etzuen berriz ikusi. Eta bozkarioz betea, bere bidean bazijoan.

40. Felipe batbatean Azoton arkitu zan, eta ibilli zan Ebanjelioaren berriak ematen, iragotzen zan erri guztietatik, Zesareara allegatu arteraño.

### BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Saulo berriz, zeñak etzuen beste asnasarik artzen, Jaunaren ikaslaen kontrako keñada eta eriotzarena baizik, apaizen buruagana joan zan.

2. Eta eskatu ziozkan kartak Damaskorako, sinagogetarako, baldin arkitzen bazituen erlijio onetako gizaseme, edo emakumeren batzuek, lotuta Jerusalemenera eramateko.

3. Bazijoala bada Damaskorako bidean, zegoan onezkero erri onen ondoan, eta ona non batbatean zeruko argi batek ingurutu zuen.

4. Eta lurrera erortzen zala, aditu zuen boz bat, esaten ziona: Saulo, Saulo, zergatik persegitzen nazu?

5. Eta berak erantzun zuen: Zeñ zera zu, o Jauna? Eta Jaunak esan zion: Ni naiz Jesus, zuk persegitzen nazuna; gauza gogorra da zuretzat, akulloaren kontra ostikoak aurtikitzea.

6. Berak orduan, ikaraturik eta izuturik, esan zuen: Zer nai dezu, Jauna, egin dezadala?

7. Eta Jaunak erantzun zion: Jaiki zaite, eta sartu zaite errian, eta an esango zatzu, zer egin bear dezun. Berari laguntzen zetozten gizonak berriz, arrituak zeuden, boza aditzen zutela, baña iñor ere etzutela ikusten.

8. Jaiki zan Saulo lurretik, eta begiak idikiak bazeuzkan ere, etzuen ezerere ikusten. Argatik eskutik elduta, eramaten zutela, Damaskon sartu zuten.

9. Eta an egon zan iru egunean, ezere ikusi gabe, eta etzuen ezerere jan, ez edan.

10. Garai artan zegoan Damaskon, Ananias izena zuen, Jesusen jarraitzalle bat, zeñi Jaunak zeruko ikusketa batean, esan zion: Ananias. Eta berak erantzun zuen: Ona emen, Jauna, non naukazun.

11. Jaiki zaite, esan zion Jaunak, eta zoaz Zuzena izena duen karrikara, eta billatu ezazu Judasen etxean Tarsoko gizon bat, Saulo izena duena, zeren orain orazioan dago.

12. (Eta denbora onetan ikusi zuen Saulok gizon bat, Ananias izena zuena, sartzen zala, eta eskuak bere gañean ipintzen ziozkala, bere begiak argitutzeko.)

13. Baña Ananiasek erantzun zuen: Jauna, askori aditu diot esaten, gizon onek Jerusalemenera zure santuai gaitz andiak egin dieztela.

14. Eta emen ere Apaizen buruen eskubideak dauzka, zure izenari ots egiten dioten guztiak arrapatu, eta lotutzeko.

15. Eta Jaunak berari esan zion: Zoaz bera billatzera, zeren ori berori, neretzat aukerako ontzia dan, nere izenaren berria eraman dezan erreñu guztien, eta erregeen, eta Israelko semeen aurrera.

16. Eta nik erakutsiko diot, nere izenagatik zenbat padezitu bearko duen.

17. Joan zan bada Ananias, eta etxean sartu zan, eta eskuak jartzen ziozkala, esan zion: Saul, nere anaia; etorri ziñan bidean agertu zatzun Jaunak bialdu nau, zure begiak argitutzera, eta zu Espiritu Santuz betetzera.

18. Eta bereala erori ziran bere begietatik ezkatat bezelako batzuek, eta begiak argitu zitzaiozkan, eta jaikitzen zala, bataiatua izan zan.

19. Eta arturik gero janaria, indarrak biurtu zitzaiozkan. Eta zenbait egunean, Damaskon bizi ziran ikasleakin egon zan.

20. Eta bereala asi zan predikatzen Jesus sinagogaetan, esaten zuela: Au Jaungoikoaren semea zala.

21. Aditzen zioten guztiak arrituak zeuden, eta esaten zuten: Ez al da au hura bera, Jerusalemenera persegitzen zituena, izen au aitatzen zutenak, eta onara ere berariaz etorri zana, alakoak lotuta apaizburuakgana eramatera?

22. Saulo berriz egunetik egunera, asko geiago alaituaz zijoan, eta nastuak utzitzen zituen Damaskon bizi ziran Juduak, esaten ziela, Jesus Kristoa zala.

23. Denbora asko geroago, Juduak, biltzen ziradela, batzarrea egin zuten, Saulo iltzeko.

24. Saulori berriz, aien azeloen berriak eman ziozkatzen. Eta berak gau ta egun atea zaitzen zituzten, Saulori bizia kentzeko.

25. Eta ikasleak, gauaz Saulo artzen zutela, eta zumezka batean sartzen zutela, murrutik beera jetxi zuten.

26. Eta Jerusalemenera etorri zanean, Jesusen ikasleakin bildu nai oi zuen; baña guztiak bere beldur ziran, Jesusen ikaslea zala etzutelako sinistzen.

27. Aliketa Bernabek berarekin artuta, Apostoluakgana eraman zuen artean, eta kontatu zien, nola Jauna bidean agertu zitzaion, eta nola itz



egin zion, eta nolako sendotasunarekin Damaskon Jesusen izena predikatu zuen.

**28.** Onenbesterekin Jerusalem berakin ibilli oi zan, eta bizi zan, eta biotz sendoarekin Jaunaren izenean predikatzen zuen.

**29.** Beste erreñuetakoakin ere izketan ari oi zan, eta judu Grieguakin ezbaia iduki oi zituen, eta nola oiek nastuak gelditu oi ziran il nai zuten.

**30.** Anaiak au jakin zutenean, eraman zuten Zesareara, eta andik Tarsora bialdu zuten.

**31.** Bitartean eliza pakean zegoan Judea guztitik, eta Galileatik, eta Samariatik, eta sendatuaz zijoan, Jaunaren beldurrean zebillala, eta Espiritu Santuaren gozotasunez betea zegoala.

**32.** Gertatu zan denboratsu artan, Pedro ikasle guztiak bisititzen zebillala, Liddan bizi ziran santuakgana ere etorri zan.

**33.** Emen arkitu zuen, Eneas izena zuen gizon bat, zeñ zegoan zortzi urtean oe baten etziña, elbarritua zegoalako.

**34.** Eta Pedrok esan zion: Eneas, Jesukristo gure Jaunak sendatzen zaitu. Jaiki zaite, eta zuk zerorrek oea astindu ezazu. Eta bereala jaiki zan.

**35.** Liddan, eta Saronan bizi ziran guztiak ikusi zuten, eta Jaunagana biurtu ziran.

**36.** Bazegoan Joppen ere ikasleen artean emakume bat Tabita izena zuena, zeñak esan nai duen Dorkas. Au obra onakin, eta egiten zituen limosnakin aberastua zegoan.

**37.** Baña gertatu zan egun aietan jazoera au, eritu, ta il zan. Eta garbiturik bere gorputz illa, goiko gela batean ipiñi zuten.

**38.** Nola Lidda Joppetik aldean dagoan, aditurik ikasleak Pedro an zegoala, bi gizon beragana bialdu zituzten, erreguz esaten ziotela: Atzerapenaren apurrik ere gabe, gurekin atoz.

**39.** Berealaxe Pedro berakin bidean jarri zan. Eta allegatu zanean, goiko gelara eraman zuten, eta arkitu zan andre alargun guziez ingurutua, zeñak negarrez erakusten ziozkaten, Dorkasek egiten ziezten tunikan eta soñekoak.

**40.** Orduan Pedrok, jende guztiari irtenerazirik, belauniko jarrita, orazio egin zuen; eta gorputz illaganontz itzulita, esan zuen: Tabita, jaiki zaite. Bereala berak begiak idiki zituen; eta Pedro ikusi zuenean, eseri zan.

**41.** Eta Pedrok, eskua ematen ziola, zutik jarri zuen. Eta santuai eta andre alargunai ots egiten ziela, bizirik eman zien.

**42.** Gertakari onen berria, Joppeko erriko guzien belarrietara allegatu zan, eta askok Jaunagan sinistu zuten.

**43.** Eta gertatu zan, Joppen, Simon izena zuen larrutzalle baten etxean, egun askotan ostatuz egotea.

## AMARGARREN KAPITULUA

**1.** Eta zegoan Zesarean Kornelio izena zuen gizon bat, zeñ zan, Italiakoa izena zuen gudari talde bateko Euntaria.

**2.** Gizon ona, eta Jaungoikoaren beldurrekoa bere etxeko guztiakin, egiten ziozkana erriko jendetzari limosna andiak, eta beti Jaungoikoari erreguak egiten ari zana.

**3.** Onek bada, nonako ordua bezelatsu zanean, ikusketa batean ikusi zuen argiro, bere gelan aingeru bat sartzen zala, eta esaten ziola: Kornelio.

**4.** Eta berak begiratzen ziola, eta beldurrez ikaturik, esan zuen: Zer nai dezu, Jauna, nigandik? Erantzun zion: Zure orazioak, eta zure limosnak, goira, Jaungoikoaren aurrera igo dira, zure oroipena egiten dutela.

**5.** Eta orain bialdu ezazu norbait Joppera, Simon izena, eta izengoitiz Pedro daukan baten billan.

**6.** Au dago ostatuz, larrutzalle baten etxean, zeñaen etxea dagoan itsasoaren aldean; onek esango dizu zer egin bear dezun.

**7.** Eta itz egiten zion aingeruak alde egin zuenean, ots egin zien bere etxeko biri, eta bere agindupean zeuden soldaduetatik, Jaungoikoaren beldurrekoa zan bati.

**8.** Zeñai kontatu zienean irago zitzaion guztia, Joppera bialdu zituen.

**9.** Biaramonean, berak beren bidetari jaraitzen ziotela, eta errira alderatzen ziradenean, igo zan Pedro etxearen goirengo tokira, sextako ordua bezelatsu zanean, orazio egitera.

**10.** Eta nola gose zan, zerbait jan nai zuen. Eta janaria prestatzen zioten bitartean, extasis bat iduki zuen.

**11.** Eta beratan ikusi zuen zerua idikia, eta jetxitzen zala zerbait, zamau andi bat bezelakoa, zeñ, zinzilika zegoala lau puntaetatik, zerutik lurrera zetorren.

**12.** Zeñean zeuden lau oñeko abere guztiak, eta lurreko patari arrastakariak, eta zeruko egaztiak.

**13.** Eta aditu zuen boz bat, esaten ziona: Pedro, jaiki zaite, ill, eta jan itzatzu.

**14.** Eta Pedrok erantzun zuen: Jauna, ez det nik beñere orrelako gauzarik egingo; zeren inoiz ere ez det, gauza zikin eta kutsuturik jan.

**15.** Eta berriz boz ark berari esan zion: Jaungoikoak garbitu duenari, etzaiozu zuk kutsutuaren izenik eman.





16. Au iru aldiz gertatu zan, eta bereala zamaua itzuli zan berriz zeru-  
ra.
17. Eta zegoala Pedro bere artean gogoratzen, zer adiraziko ote zuen iduki zuen ikusketak, ona non Korneliok bialdu zituen gizonak atera alle-  
gatu ziran, Simonen etxeagatik galdetzen zutela.
18. Eta ots egiten zutela, galdetu zuten, Simon izengoitiz Pedro, an  
ostatuz ote zegoan.
19. Eta zegoala pedro ikusketaren gañeko gogorazioetan, Espirituak  
esan zion: Ona emen non dauden iru gizon, zu billatzen zaituztenak.
20. Jaiki zaite bada bereala, jetxi zaite, eta berakin joan zaite, atzera-  
penaren piskarik ere gabetanik, zeren berak bialdu ditudana ni naizan.
21. Jetxirik bada Pedro, eta joanik mandatariak billatzera, esan zien:  
Ona ni emen; billatzen dezutena ni naiz; zergatik etorri zerate?
22. Berak erantzun zuten: Kornelio Euntari, gizon zuzen eta Jaun-  
goikoaren beldurreko, eta Juduen erreñu guziak alakotzat idukiari, esan  
zion aingeru santu batek, bere etxera zuri ots egiteko, eta zuk esaten  
ziñiona aditu zezala.
23. Orduan Pedrok, sartu erazitzen ziela, berarekin ostatuz iduki  
zituen. Eta biaramonean berakin joan zan, eta Joppeko anai batzuek ere  
lagundu zioten.
24. Geroko egunean Zesarean sartu zan. Kornelio berriz, ots eginik  
bere aide, eta adiskiderik andienai, beren zai zegoan.
25. Pedro bada etxean sartzen zala, Kornelio etorri zan berari bidera  
irtetzera, eta auzpezturik bere oiñetan, adoratu zuen.
26. Baña Pedrok jaso zuen, esaten ziola: Jaiki zaite, zeren ni ere gizo-  
na naiz.
27. Eta berarekin izketan ari zala, sartu zan etxean, non lagun asko  
bilduak arkitu zituen,
28. Eta esan zien: Zuek badakizute nola dan gauza nazkagarri bat  
judu batentzat, arrotz batekin adiskidetasuna, edo artueman estua iduki-  
tzea; baña Jaungoikoak erakutsi dit, ez dezadala gizonik batere kutsutu-  
tzat, edo zikindutzat iduki.
29. Argatik ots egin didatenean, atzerapenikan batere gabe etorri  
naiz. Orain galdetzen dizutet: Zergatik ots egin didazute?
30. Eta Korneliok esan zuen: Gaur dira lau egun, nengoala ni ora-  
zioan nere etxean nonako orduan; ona non gizon beneragarri bat soñeko  
zuriarekin nere aurrean jarri zitzadan, eta esan zidan:
31. Kornelio, zure orazioa aditua izan da, eta zure limosnaen oroipe-  
na Jaunaren aurrean egina izan da.

32. Bialdu itzatzu bada mandatariak Joppera, eta egin ezazu, Simon,  
izengoitiz Pedro, etorri dedilla, zeñ dagoan ostatuz, Simon larrugillearen  
etxean, itsasoaren aldean.

33. Bereala bada, mandatariak zure billa bialdu nituen, eta zuk etor-  
tzeaz mesede egin didazu. Orain bada, guziok emen zure aurrean gaude,  
Jaunak guri esateko agindu dizun guzia aditzeko.

34. Orduan Pedrok, izketari asiera ematen ziola, onela itz egin zuen:  
Egiaz ezagutzen det, ez duela Jaungoikoak zeñ zeñ dan begiratzen.

35. Baizik edozeñere erreñutan, bere beldurra daukana, eta obra  
onak egiten dituen, bere gogokoa dala.

36. Au adirazi die Jaungoikoak Israelko semeai, adirartzen diela  
pakea Jesukristogatik (zeñ guztien Jauna dan.)

37. Zuek badakizute, Judea guztian zer gertatu dan, asiera ematen  
zaiola Galilean, Juanek bataioa predikatuta gero.

38. Nola Jaungoikoak igortzi zuen Espiritu Santuz, eta bere bertutez  
Nazaretko Jesus, zeñ joan dan, irago dan toki guzietatik mesedeak egiten  
dituela, eta demonioak mendean zeuzkan guztiak sendatu ditu, Jaungoi-  
koa berarekin zegoalako.

39. Eta gu gera Judeako eta Jerusalemgo lurrean egin zituen gauza  
guztien testiguak, zeñi alaere, gurutze batean esekita, bizia kendu zioten.

40. Baña Jaungoikoak, irugarren egunean berriz biztu zuen, eta era-  
baki zuen utzi zizaiela ikusten.

41. Ez erri guziari, baizik Jaungoikoak lendanaz testigutzat artu zitue-  
nai; guri, berarekin jan, ta edan dogunoi, illen artetik bera berriz biztuta  
gero.

42. Eta agindu zigun predikatu genezala, eta erriari testigantza eman  
giñizaiola, bera dala Jaungoikoak bizien eta illen jueztzat jarri duena.

43. Berari profeta guztiak testigantza ematen diote, beragan sinistzen  
duen guztiak bekatuen barkazioa, bere izenaren bertutez iritxiko duela.

44. Oraindikan Pedro itz oiek esaten ari zala, Espiritu Santua, izketa  
aditzen zuten guztien gañera jetxi zan.

45. Eta Pedrorekin etorri ziran lagun leial zirkunzidatuak, arrituak gel-  
ditu ziran, Espiritu Santuaren grazia erreñu guzietara isuria izan zalako.

46. Zeren mintzoera askotan itz egiten, eta Jaungoikoaren anditasu-  
nak adirartzen ari ziradela, aditzen zituzten.

47. Orduan Pedrok esan zuen: Nork ukatu dizaietete bataioko ura,  
guk bezela Espiritu Santua ere artu dutenai?





48. Eta ala, agindu zuen, Jesukristo gure Jaunaren izenean bataiatuak izan zitezela. Orduan erregutu zioten, zenbait egunean berakin gelditu zedilla.

### AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta Apostoluak, eta Judean zeuden anaiak aditu zuten, Jentillak ere Jaungoikoaren itza artu zutela.

2. Itzuli zanean bada Pedro Jerusalemenera, erriertan ari ziran bere kontra, zirkunzidatuak zeudenak.

3. Esaten zutela: Nola sartu zera zirkunzidatu gabekoen etxean, eta berakin jan dezu?

4. Pedro orduan asi zan adiraztzen berai, nola gertatu zan, esaten ziela:

5. Banengoan ni orazioan Joppeko errian, eta ikusi nuen extasisean ikusketa bat, jetxiaz zihoan gauza batena, arizko esku andi, zerutik lau puntetatik desesekiaren gisara, zeñ, ni nengoan tokiraño etorri zan.

6. Begiratzen niola, nengoan bere gogorazioetan, eta ikusi nituen lurreko lau oñekoak, eta pistiak, eta arrastakariak, eta zeruko egaztiak.

7. Eta aditu ere nuen boz bat, esaten zidana: Jaiki zaitte, Pedro; il, ta jan itzatzu.

8. Eta esan nion: iñolaere ez Jauna, zeren gauza zikin ta kutsuturik ez da beñere nere aoan sartu.

9. Eta zeruko bozak bigarren aldiz itz egiten zidala, esan zidan: Jaungoikoak garbitu dituen gauzai, etzaiezu zuk kutsutuak ots egin.

10. Au iru aldiz gertatu zan, eta berriz zeruan artuak izan ziran.

11. Eta ona non, iru gizon Zesareatik nigana bialduak, allegatu ziran, ni nengoan etxera.

12. Eta Espirituak esan zidan berakin joan nendilla, atzerapenaren piskarik ere gabe. Laguntzen didaten sei anai oiek ere etorri ziran, eta nere billa bialdu zituen gizon aren etxean sartu giñan.

13. Eta kontatu zigun, nola bere etxean ikusi zuen Aingeru bat, zeñ aurrean jarri zitzaion, eta esan zion: Bialdu itzatzu mandatariak Joppera; eta Simon, izengoitiz Pedrori, etorri erazi zaiozu.

14. Zeñak esango dizkizun, zure eta zure etxekoen salbaziorako bear diran itzak.

15. Eta asi nintzanean izketan, Espiritu Santua beren gañera jetxi zan, gure gañera asieran jetxi zan bezela.

16. Orduan oroitu nintzan, Jaunak esaten zuenarekin: Juanek egiaz urean bataiatu ditu, zuek berriz, Espiritu Santuarekin bataiatuak izango zerate.

17. Baldin bada Jaungoikoak berai eman badie, guri, Jesukristo gure Jaunagan sinistu degunoi eman zigun grazia hura bera, eta era berean, zeñ nintzan ni, Jaungoikoaren borondateari aurkeztzeko?

18. Gauza oiek aditu zituztenean, ixildu ziran, eta eskerrak eman ziozkaten Jaungoikoari, esaten zutela: Beraz Jentillai ere Jaungoikoak penitentzia eman die, bizitza iritxitzeko?

19. Bitartean, Estebanen denboran jaiki zan persekuzioagatik barreiatu ziran ikasleak, allegatu ziran Feniziaraño, eta Txiprera, eta Antiokiara, Juduai bakarrik Ebanjelioa predikatzen ziela.

20. Beren artean bazeuden batzuek Txipren, eta Zirenen jaiok, zeñak Antiokian sarturik, Grieguakin ere itz egiten zuten, Jesus Jaunaren fedearen berriak ematen ziezitela.

21. Eta Jaunaren eskuak laguntzen zien, alako moduan, non, lagun talde andi batek sinistu zuen, eta Jaunagana biurtu zan.

22. Berri oiek Jerusalemgo elizaren belarrietara allegatu ziran, eta Bernabe Antiokiara bialdu zuten.

23. Allegaturik ara, eta Jaungoikoaren graziaren mirariak ikusirik, bozkarioz bete zan, eta gogotik esaten zien, irauñ zezatela Jaunaren serbitzoan biotz sendo batekin.

24. Zeren Bernabe zan gizon ona, eta Espiritu Santuz eta fedez bete. Eta ala, asko ziran Jaunari itsatsiak gelditu ziradenak.

25. Emendik joan zan Bernabe Tarsora, Sauloen billan, eta arkitu zuenean, berarekin Antiokiara eraman zuen.

26. Eta eliza artako lanetan aritu ziran urte oso batean, eta alako jende talde andiari erakutsiak eman ziezten, non, emen Antiokian izan zan non, ikasleai Kristauen izena eman zitzaien.

27. Egun oietan etorri ziran Jerusalemdik Antiokiara zenbait profeta.

28. Beretatik batek Agabo izena zueneak, espirituak argituta, esaten zuen, mundu guztian gosete andi bat izango zala, izan zan bezela Klauudio Enperadorearen denboran.

29. Argatik ikasleak erabaki zuten ematea, bakoitzak zeukanaren araura, limosnaren bat, Judean bizi ziran anaiak laguntzeko.

30. Eta ala egin zuten, Saulo eta Bernaberen eskuz, limosnak zarrak bialtzen ziezitela.



## AMABIGARREN KAPITULUA

1. Denboratsu onetan Herodes erregea elizgizon batzuei persegitzen asi zan.
2. Eta Santiago Juanen anaia, ezpataz il zuen.
3. Eta ikusirik, gauza au juduen gogokua zala, bere artean erabaki zuen, Pedrori ere bizia kentzea. Eta legamigabeen egunak ziran denboratsu artan.
4. Eta Pedro arrapatu zuenean karzelan sartu zuen, ematen ziela zaitzeko lau talde soldaduri; talde bakoitza laukoa zan, erriari erakusteko; eta Pazkoa iragota, bizia kentzeko asmoarekin.
5. Eta Pedro ala karzelan zaitua zegoan bitartean, Elizak beragatik aspertu gabe Jaungoikoari orazio egiten zuen.
6. Eta zegoala Herodes biaramonean erriari ateratzeko asmazioetan, gau artan beratzen, zegoan Pedro lotan soldadu bien erdian, bi kateakin lotua; eta gordetzalleak atearen aurrean, karzela zaitzen zuten.
7. Eta ona non batbatean, Jaunaren aingeru bat agertu zan, zeñaren argiak, bizileku guztia argiz bete zuen, eta jotzen zuela Pedro aldamenean, esnatu zuen, esaten ziola: Agudo jaiki zaitte. Eta bere eskuetako kateak erori zitzaiozkan.
8. Esan ere zion Aingeruak: ipiñi ezazu gerrikoa, eta jantzi itzatzu zure oñetakoak. Eta ala egin zuen. Geiago ere esan zion: Zure kapa artu ezazu, eta darraidazu.
9. Irten zan bada, eta bazijoan jarraituaz; eta etziekien egia zala Aingeruak egiten zuena, baizik ikusten zuena ames bat zala iduritzen zitzaion.
10. Irago zituztenean lendabiziko eta bigarren beillategiak, allegatu ziran, errira daraman burnizko atera, zeñ berez idiki zitzaien. Andik irteztziradela, karrikaren atzeneraño joan ziran, eta bereala beragandik Aingeruak alde egin zuen.
11. Orduan Pedrok, bereganduta, esan zuen: orain bai ezagutzen dedala, Jaunak egiaz bere aingerua bialdu duela, eta Herodesen eskuetatik, eta Judako erri guztiak zeuzkan itxedopenetatik, libratu nauela.
12. Eta gogoan erabillirik zer egingo ote zuen, zuzendu zan, Maria, Juanen, izengoitiz Markosen, amaren etxera, non asko, bilduta, orazioan zeuden.
13. Jo zuenean bada berak atea, neskaitz bat Rode izena zuena, irten zan, zeñ ote zan ikustera.
14. Eta ezagutu zuenean Pedroken boza, alakoa izan zan bere bozkarioa, non, etzion atea idiki, baizik barruna korrika joanik, adirazi zien, atearen aurrean Pedro zegoala.

15. Eta berak esan zioten: Zoratua zaude. Neskaitzak berriz esaten zuen, berak esaten zuena, ala zala. Berak orduan esan zuten: Bere Aingearua izango da.

16. Bitartean Pedrok atea jotzeari jarraitzen zion. Atzenean idiki ziotenean, ikusi zuten, eta arrituak gelditu ziran.

17. Baña Pedrok, eskuarekin adirazirik ixillikan egon zitezela, kontatu zien, nola Jaunak karzelatik atera zuen, eta gañera esan zuen: Oiek Santiagori ta anaiai adirazi zaiozkazute. Eta andik irtetzen zala, beste toki batera joan zan.

18. Eta eguna argitu zanean, soldaduen arteko nastea, andia izan zan, Pedrokekin zer egin ote zan.

19. Eta Herodesek, eginik Pedro billatzeko aleginak, eta ez arkiturik, beillan zeudenai kargua arturik, agindu zuen, illak izan zitezela, eta joan zan Judeatik Zesareara, non gelditu zan.

20. Herodes aserretua zegoan Tiroarren eta Sidonioarren kontra; baña oiek elkar adituta, beragana etorri ziran, eta berakganaturik Blasto, erregearen gelazai nagusia, pakea eskatu zioten; zeren alderri ark bere janarietarako Herodesen lurreko laguntasunak bear zituen.

21. Adituak izateko izendatu zan egunean, Herodes, erregeren soñekoakin jantzita, bere tronuan eseri zan, eta izketan ari zien.

22. Erriak deadarrez esaten zuen: Au Jaungoiko baten boza da, ez gizonarena.

23. Baña bereala Jaunaren Aingeru batek zauritu zuen, Jaungoikoari gloria eman etziolako, eta arrak jana izanik, il zan.

24. Bitartean Jaungoikoaren itzak aurrerapen andiak egiten zituen, eta egunetik egunera geiago, ta geiago zabaltzen zan.

25. Bernabe, eta Saulo, berai eman zien lana bukatutik, Jerusalemetik itzuli ziran, Juan, Markos izengoitiz, berakin zeramatela.

## AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta bazeuden Antiokiako elizan profeta eta Erakusle batzuk, zeñaren artekoak ziran Bernabe eta Simon, zeñi esaten zioten Beltxa, eta Luzio Zirenekoa, eta Manahen, Herodes Tetrarkaren ugatsanaia, eta Saulo.

2. Egun batean zeudela Jaunaren aurrean beren lanak egiten, eta barautzen ziradela, Espiritu Santuak esan zien: Berezitu zazkidazute Saulo eta Bernabe, autuak dauzkadan lanerako.

3. Orduan barautzen ziradela, eta orazioak egiten zituztela, eskuak beren gañean jarri ziozkaten, eta bialdu zituzten.



4. Berak bada, Espiritu Santuak onela bialduak izanik, Seleuziara joan ziraden, nondik irago ziran Txiprera.
5. Eta Salaminara allegatu ziradenean, Juduen sinagogetan Jaunaren itza predikatzen zuten, zeukatela berakin Juan, zeñak laguntzen zien.
6. Ibillirik ugarte guztitik Paforaño, arkitu zuten judu bat, aztia eta gezurrezko profeta, Barjesus izena zuena.
7. Zeñ zegoan Serjio Paulo Prokonsul, gizon zentzu andikoarekin. Prokonsul onek, ots egiten ziela beragana Bernabe eta Saulori, Jaungoikoaren itza aditu nai zuen.
8. Baña Elimas edo aztia (zeren ori esan nai du Elimasen izenak) aurkeztzen zitzaien, Prokonsulari fede egiazkotik alde erazi nai ziola.
9. Baña Saulok, Pablo ere izena zuenak, Espiritu Santuz beteta zegotala, eta begiratzen ziola.
10. Esan zuen: O gizon, engañoio eta gezur mota guziez betea, deabruaren semea, gauza on guzien etsaia! Beñere ez al aiz aspertuko, Jaunaren bide zuzenak goibetzez?
11. Begiratu ezak bada. Oraindandik Jaunaren eskua erortzen dek iregañera, eta geldituko aiz itsutua egunaren argirik ikusi gabe denbora zati batean. Eta bereala illuntasun andiak erori ziran bere begien gañera, eta itsumuka zebillan, eskua nork emango ote zion.
12. Orduan Prokonsulak, gertakaria ikusi zuenean, Jaunaren dotrinaz mirariturik, sinistu zuen.
13. Eta Pablo eta berarekin zeudenak, Pafotik itsasoz aterarik, Pamfiliako Perjen leorrera irten ziran. Emen Juan, berakgandik alde eginda, Jerusalemenera itzuli zan.
14. Pablo alaere, eta gañerakoak, Perjen gelditu gabe, Antiokia Pisiadiakora allegatu ziran, eta larunbatean, sinagogan sartzen ziradela, eseri ziran.
15. Eta legearen eta Profetaen irakurtza bukatu zanean, sinagogako buruak bialdu ziozkaten mandataria, esaten ziela: Gure anai gizonak, baldin badaukazute gauza onen bat erriari esateko, itz egin ezazute.
16. Orduan Pablok, zutik jarririk, eta eskuarekin ixillik egoteko adirazirik, esan zuen: Israelko gizonak, eta Jaungoikoaren beldurra daukazu tenak, aditu ezazute:
17. Israelko erriko Jaungoikoak gure gurasoak autu zituen, eta erri au andia egin zuen, arrotza bezela bizi izan zanean Ejipton, nondik bere beso sendoaren eskubidearekin atera zituen.
18. Eta gero sufritu zituen beren oitura gaiztoak, berrogei urtean, eremuan.

19. Eta atzenean, zazpi erreñu deseginik Kanaango lurrean, oien lurrak txotx eginda partitu ziezten.
20. Lareun eta berrogeita amar urte bezelatsu geroago; gero eman ziezten juezak Samuel profetaren denboraraño.
21. Eta orduan erregea eskatu zuten, eta eman zien Jaungoikoak Saul, Zisen semea, Benjamingo tribukoa, berrogei urtean.
22. Eta kendurik au, eman zien erregetzat Dabid zeñ alabatzen zuela, esan zuen: Arkitu det Dabid Jeseren semea, nere biotzaren araurako gizona, zeñak nere aginte guziak kunplituko dituen.
23. Onen jatorritik Jaungoikoak, bere eskeñtzaren araura, jaioterazi zion Jesusi, Israelko salbaziorako.
24. Predikatu ezkerro Juanek, bere etorrera agertu baño lenago, penitentiako bataioa, Israelko erri guziari.
25. Juanek berak bere lana bukatzean, esaten zuen: Ez naiz ni zuek uste dezutena, baña begiratu ezazute, nere ondoren badator bat, zeñi bere oñetako lokarria askatzeko diña, ni ez naizan.
26. Orain bada, nere anaiak, Abrahamen jatorriko semeak, zuei da, eta zuen artean Jaungoikoaren beldur santua daukan edozeñi, zeñai salbazioko albista au bialdua zaioten.
27. Zeren Jerusalemenera bizi ziranak, eta beren agintariak etzutela eza gutzen Jaun au, eta larunbat guzietan irakurtzen diran profeziak, berau kondenatzen zutela, berak kunplitu zituzten.
28. Ez arkiturik beragan ezertxoere, illa izateko gairik, alaere Pilatori eskatu zioten, illerazi zezala.
29. Eta kunplitu zituztenean, beragatik eskribituak zeuden gauza guztiak, kentzen zutela zur abetik, obian ipiñi zuten.
30. Jaungoikoak berriz, irugarren egunean illen artetik biztu zuen, eta egun askotan agertu zitzaien
31. Berarekin batean Galileatik Jerusalemenera igo ziradenai: zeñak gaurko eguneraño, erriari testigantza ematen ari diran.
32. Guk bada adirazten dizutegu, gure gurasoai egindako eskeñtzaren betetasuna.
33. Zeren au Jaungoikoak kunplitu digu, guri, beren semeai, biztzen duela Jesus, bigarren salmoan eskribitua dagoanaren araura. Zu nere semea zera, nik gaur zuri izatea eman nizun.
34. eta adirazteko illen artetik biztu duela, beñere berriz ez iltzeko, onela esan zuen: Nik Dabidi juramentuarekin egindako eskeñtzak, leialki kunplituko ditut.



35. Eta argatik, beste toki batean esaten du: Ez dizu utziko, zure santua usteldua izan dedilla.
36. Dabiden gañean berriz badakigu, bere denboran Jaungoikoaren borondatearen araura bizitu izan zala, eta gero begiak itxi zituela: eta bere gurasoakin obiratua izan zan, baitaere usteldua.
37. Baña Jaungoikoak illen artetik biztu duena, ez da usteldua izan.
38. Jakin bear dezute bada, nere anaiak, onen bitartez eskeñtzen zazutela bekatuen barkazioa, eta Moisesen legean ezin garbituak izan zeraten orban guztiena.
39. Beragan sinistzen duen guztia, justotua da.
40. Argatik begiratu ezazute, ez dedilla zuen gañera etorri, profetak esan zutena.
41. Begiratu ezazute, mezprezialariak, eta arritu zaitezte, eta arrasatuak gelditu zaitezte, zeren ni zuen egunetan egitera noan lan bat, sinistuko etzenduketen lana, iñork kontatuko balizute.
42. Eta berak, irtetzen ziradela, erregututzen zioten, urrengo larunbatean gai onen gañean berai itz egin zizaiela.
43. Eta aditzalleai diosalak egin zieztenean, Juduetatik, eta arrotz ondu berri, Jaungoikoaren beldur santuan bizi ziradenetatik askok, Paulo eta Bernaberi jarraitu zien; eta berak txit gogotik esaten zien, Jaungoikoaren grazian iraun zezatela.
44. Urrango larunbatean berriz, erri guztia aldean, Jaungoikoaren itza aditzera bildu zan.
45. Ikusirik berriz Juduak alako jendetzak, ondamuz bete ziran, eta blasfemiak esaten zituztela, Pablok predikatzen zituen gauza guztiai, kontra egiten zien.
46. Orduan Pablo eta Bernabek, txit gogoz eta biotzez esan zien: Jaungoikoaren itza, zuei aurrena adirazia izan bear zazuten; baña aurtikitzen dezuten ezkerro, eta betiko bizitzaren diñak zuek zerok juzgatzen etzeraten ezkerro, gaurtik aurrera bagoaz jentillai predikatzeraz.
47. Zeren Jaunak onela agindu zigun: Nik jarri zindudan erreñuen zuzizat munduaren atzeneko tokiraño, guztien salbazioa izan zaitezten.
48. Jentillak, oiek aditzen zituztenean, txit bozkariotzen ziran, eta betiko bizitzarako lendanaz autuak zeuden guztiak sinistu zuten.
49. Ala Jaunaren itza alderri guzi artatik zabaltzen zan.
50. Juduak berriz, gaitzerako eraso zien, ontzat zeuden, eta otpatsuak ziran zenbait emakumeri, eta erriko gizon andizkiai, eta Pablo ta Bernaberen kontra persekuzio bat jaso zuten, eta beren lurretik aurtiki zituzten.

51. Baña oiek, beren oñetako lurra aien kontra astintzen zutela, Ikoniora joan ziran.
52. Eta ikasleak bozkarioz, eta Espiritu Santuz beteak zeuden.

### AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Zeudela bada Ikonion elkarrekin, juduen sinagogan sartu ziran, eta itz egin zuten alako moduan, non, Juduen eta Griegen talde andi bat Jaungoikoagana biurtu zan.
2. Baña sinisgogortasunean iraun zuten Juduak mugitu zituzten, eta jarri zituzten aserreen Jentillen animak anaien kontra.
3. Alaere denbora andian an gelditu ziran, itxedopenez beteta Jaunagan, zeñak sendotzen zuen bere graziaren itza, beren eskuz egiten zituen mirari eta gauza arrigarriakin.
4. Eta erriko jende taldea, bi zatitan berezitu zan, batzuek zeuden Juduen alde, eta beste batzuek Apostoluen alde.
5. Baña Jentillak eta Juduak beren agintariakin, nola jaiki ziran Apostoluak irainez betetzeko, eta berai arrika egiteko.
6. Apostoluak, oiek jakin zituztenean joan ziran Listra eta Derbera, Likaoniako errietara, alderri guzi artatik ibiltzen zirala, eta Ebanjelioa predikatzen zutela.
7. Bazegoan Listran gizon bat, bere jaiotzatik errena zana, oñen erkitasunagatik eseria zegoana; eta bere bizi guztian etzan beñere oñaz ibilli.
8. Onek aditu zion Pablori predikatzen ari zala, zeñak berari begiratzten ziola, eta ikusirik bazeukala fedea, sendatua izateko.
9. Boz goratuan esan zion: Jaiki zaite, eta zaude zuzen zutik zure oñen gañean. Eta bereala saltoka ari zan, eta bazebillan.
10. Jendetzak ikusirik Pablok egin zuena, altxatu zuten beren boza, eta beren izkuntza Likaoniakoan, esaten zuten: Oiek, gizonen irudian gugana jetxi diran Jaungoikoak dira.
11. Eta ematen zioten Bernaberi Jupiterren izena, eta Pablori Merkuriorrena, zeren bera zan itza zeramana.
12. Gañera Jupiterren apaiz batek ere, zeñaen tenploa zegoan erriaren sarreran, ekartzen zituela zezen girnaldakin apainduak atearen aurrera, nai zuen berai sakrifizioak eskeñtzea, erriak jarraitzen ziola.
13. Au aditu zutenean Bernabe eta Pablo Apostoluak, beren soñekoak urratzen zituztela, jendetzaren artetik atera ziran, deadar egiten zutela.
14. Eta esaten zutela: Gizonak, zer da egiten dezutena? Gu ere, zuek bezela, gizon ilkorrak gera, gatoztenak zuei predikatzeraz, utzirik gezu-



rrezko jainko oriek, biurtu zaitetzten Jaungoiko biziagana, zeñak egin zituen zerua, lurra, itsasoa, eta beretan dagoan guztia.

15. Eta baldin irago diraden denboretan utzi bazuen erreñuak ibilli zitezela bakoitza bere bidetik.

16. Alaere etzuen utzi, testigantza eman gabe, zeñ zan, eginik mese-deak zerutik; bialdurik euriak eta egualdi onak frutuentzat, emanik zer jan ugaritasunarekin, eta gure biotzak bozkarioz betetzen zituela.

17. Alako gauzak esanda ere, nekez paketu zituzten jendetzak, berai sakrifizioa eskeñi gabe egoteko.

18. Gero etorri ziran Antiokiatik eta Ikoniotik Judu batzuek, eta beren alde jarri erazirik jendetza gaiztoari, Pabloriga aurrera egin zioten, eta dandarrak atera zuten erritik kanpora, uste zutela illa zegoala.

19. Baña inguruturik bera ikasleak, jaikitzen zala, errian sartu zan, eta Bernaberekin biaramonean Derbera joan zan.

20. Eta erri onetan Ebanjelioa predikaturik, eta emanik askori erakutsiak, itzuli ziran Listrara eta Ikoniora, eta Antiokiara.

21. Sendotzen zituztela ikaslaen animak, eta adiratzten ziela gogotik, fedean iraun zezatela, eta zeruetako erreñuan sartzeko, atsekabe asko irago bear giñituela.

22. eta jarririk apaizak eliza bakoitzean, orazio eta barau asko eginda, Jaunaren kontura utzi zituzten, zeñgan sinistu zuten.

23. Eta Pisidia iragotzen zutela, Pamfiliara etorri ziran.

24. Eta adirazirik Jaunaren itza Perjen, jetxi ziran Attaliara.

25. Eta andik itsasoz joan ziran Siriako Antiokiara, nondik bialdu zituzten, eta enkomendatu zituzten Jaungoikoaren graziari, kunplitu zuten lanerako.

26. Eta allegatu ziradenean, eta bildurik eliza, kontatu ziezten, nolako gauza andiak egin zituen Jaungoikoak berakin, eta nola Jentillai fedeko atea idiki zien.

27. Eta emen denbora ez gutxian ikasleekin gelditu ziran.

### AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Egun aietan Judeatik etorri ziran batzuek, zebiltzan erakusten anaiak; Moisesen oituraren araura zirkunzidatzen ez bazerate, etzintezke salbatu.

2. Jaikirik bada iskanbilla ez txikia, eta Paulo eta Bernabe aurkeztzen zirala beren kontra, erabaki zuten Pablo eta Bernabe eta besteetatik batzuek Jerusalemara joan zitezela Apostoluak eta Apaizakgana, ezbai aren gañean konsultatza.

3. Berak bada, izanik elizak txit ongi artuak, bazijoazen Fenizia eta Samaria iragoaz, Jentillen konbersioa kontatzen zutela, eta onela anai guztiak bozkario andiz betetzen zituzten.

4. Jerusalemara allegatu ziradenean, izan ziran Elizak, eta Apostoluak, eta apaizak ongi artuak, eta an adirazi zuten, nolako gauza andiak beren bitartez Jaungoikoak egin zituen.

5. Baña gañera esan zuten, Fariseoen herejiako, fedean sinistu zuten batzuek, jaiki dira, esaten dutela: Jentillak zirkunzidatu bear zirala, eta agindu bear zaiela Moisesen legea zaitzeko.

6. Orduan Apostoluak eta apaizak bildu ziran gauza au esamiñatza.

7. Eta gauza oni txit ongi begiraturik, jaikitzen zala Pedro, esan zien: Nere anaiak, ongi dakizute, denbora asko dala, izan nintzala ni gure artean Jaungoikoak autua, Jentillak nere aotik Ebanjelioa itza aditu zezaten, eta sinistu zezaten.

8. Eta biotzaen berria dakian Jaungoikoak, gauza onen testigantza eman zuen, ematen ziela Espiritu Santua, guri bezela.

9. Eta ez du ere desberdintasunik jarri beren eta gure artean, beren biotzak fedearrekin garbitzen dituela.

10. Zergatik bada orain Jaungoikoa tentatu nai dezute, jarririk ikaslaen lepoen gañean uztarri bat, ez gure gurasoak, ez guk eraman ezin izan deguna?

11. Bada guk sinistzen degu salbatuko gerala Jesukristo gure Jaunaren graziarekin, berak bezela.

12. Onenbesterekin jende talde guzia ixildu zan, eta jarri ziran Bernabe eta Pabloriga aditzen, zeñak kontatzen zituzten, zenbat mirari eta gauza arrigarri Jentillen artean beren bitartez Jaungoikoak egin zituen.

13. Eta ixildu zanean, Santiago asi zan izketan, eta esan zuen: Nere anaiak, aditu nazazute.

14. Simonek kontatu dizute, nola asi dan Jaungoikoa lenengotik, Jentillakgatik abegi onarekin begiratzen, beren artetik bere izen santuari kon-sagatutako erri bat aututzen duela.

15. Onekin elkartzen dira profetaen itzak, eskribatua dagoan bezela.

16. Gauza oiek iragota, ni itzuliko naiz; eta erori zan Dabiden tabernakulua nik berriz egingo det, eta bere ondamenak ere berriz egingo ditut; eta jasoko det:

17. Beste gizonak, eta nere izenari ots egin dioten erreñu guztiak, Jauna billatu dezaten, esaten du gauza oiek egiten dituen Jaunak.

18. Betikoiraunetik Jaunak bere obra ezagutua dauka.





19. Argatik nik uste det pakean utzi bear zaiotela Jentilletatik Jaun-goikoagana biurtzen diradenai.
20. Baizik eskribitu bear zaiotela, alde egin bear dutela idoloen zikin-kerietatik, eta fornkaziotik, eta abere itoetatik eta odoletik.
21. Moisesen gañean danez, anziñako denboretatik dauka erri bakoi-tzean nork predikatu bere dotrina sinagogetan, non larunbat guzietan ira-kurtzen dan.
22. Orduan erabaki zuten Apostoluak eta zarrak Eliza guztiarekin, beren artetik aututzea lagun batzuek, eta bialtzea Pablo eta Bernaberekin Antiokiako Elizara; eta ala izendatu zituzten Judas, izengoitiz Barsabas eta Silas, anaien artean gizonik goratuena.
23. Karta au beren eskuz bialtzen zutela, apostoluak eta anaia zarrak, gure anaietara jentillen artetik konbertitu diradenai, eta Antiokian, Sirian, eta Zilizian daudenai, osasuna opa die.
24. Zeren aditu degun, gureetatik zenbait ateratzen ziradela, eta zuen artera joanik guk bialdu gabetanik, beren izketakin nastu zaituztela, zuen animetako pakea galtzen dizutela.
25. Biltzen geradela, erabaki degu guzien iritziarekin, aututzea lagun batzuek, eta Bernabe eta Pablo gure txit maiteekin zuei bialtzea.
26. Zeñak diraden gizon batzuek, Jesukristo gure Jaunaren izenaga-tik, bizia galtzeko irriskuan jarri diradenak.
27. Bialtzen dizkizutegu bada Judas eta Silas, zeñtzuek ere itzez oro-bat esango dizute.
28. Zeren Espiritu Santuari eta guri iritzi zagu, ez zuei beste obliga-ziorik ipintzea, premiazkoak diraden gauza oiek baizik.
29. Ez dezazutela jan idoloai eskeñitako gauzarik, ez edan odolik, ez jan abere itotakorik, eta alde egin dezazutela fornkaziotik; gauza oietatik alde egiten badezute, ongi egingo dezute. Agur, ongi bizi.
30. Berak bada bialduak izanik, Antiokiara jetxi ziran, eta jende tal-dea bildurik, eman zien karta.
31. Zeñ irakurri zutenean, bozkario txit andi bat artu zuten.
32. Judas eta Silasek beren aldetik, nola baziran profetak ere, itz asko-ekin poztu zituzten anaiak, eta sendotu zituzten.
33. Eta eginik an denboratsu bat, pakearekin anaiai utzi zien joaten, bialdu zituztenakgana.
34. Eta Silasi iritzi zitzaion, bera an gelditzea ongi zala, eta ala Judas bakarrik Jerusalemenera joan zan.
35. Eta Pablo eta Bernabe zeuden Antiokian erakutsiak ematen, eta beste askorekin Jaunaren itza predikatzen.

36. Zenbait egun iragota, Pablok Bernaberi esan zion: itzultzen gera-la, bisitatu ditzagun anaiaik, Jaunaren itza predikatu degun erri guztietatik, nola ote dauden.

37. Eta Bernabek berarekin eraman nai izan zuen Juan, izengoitiz Markos ere.

38. Pablok berriz, erregutuzten zion (nola Pamfiliatik berakgandik alde egin zuen, eta berakin lanera joan etzalako) etzutela eraman bear.

39. Bien arteko ezbaiegatik etorri ziran batasko besteagandik alde egi-tera; eta Bernabe, arturik berarekin Markos, itsasoz Txiprera joan zan.

40. Pablo berriz, Suas laguntzat arturik, joan zan, Jaungoikoaren gra-ziari bere anaiaik enkomendatu ezkeru.

41. Ibilli zan bada onela Siria eta Ziliziatik, elizak sendotzen zituela; eta agintzen ziela, Apostoluen, eta apaizen aginteak zaitu zitzatela.

### AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Pablo allegatu zan Derbera, eta andikan laster Listrara; non arki-tzen zan Timoteo izena zuen ikasle bat, ama, judu fede egiazkora kon-beritu baten, eta aita jentillaren semea.

2. Listran eta Ikonion zeuden anaiaik, ikasle oni alabantza andiak, ematen ziozkaten.

3. Pablok bada erabaki zuen berarekin au eramatea, eta artu zuenean berarekin zirkunzidatu zuen, toki aietan zeuden Juduakgatik; zeren guz-tiak baziekiten bere aita jentilla zala.

4. Eta errietatik iragotzen ziradenean, esaten zien ikasleai, arren zaitu eta gorde zitzatela, Jerusalemenean zeuden Apostolu eta apaizak egindako erabaki eta aginteak.

5. Ala Elizak fedean sendotzen ziran, eta geitzen ziran ikasleak egu-netik egunera.

6. Irago zutenean Frijia, eta Galaziako alderria, Espiritu Santuak galerazi zien, Asian Jaungoikoaren itza predikatzea.

7. Eta etorri ziradenean Misiara, Bitiniara irago nai zuten; baña Jesu-sen Espirituak etzien utzi.

8. Eta Misia irago zutenean, Troadera jetxi ziran.

9. Non Pablok ikusketa au gauaz iduki zuen, Mazedoniako gizon bat aurrean jartzen zitzaiola, erregutuzten zitzaion, esaten ziola: Atoz Mazedo-niara, eta sokorritu gaitzatu.

10. Ikusketa au iduki zuenean, bereala erabaki genduen Mazedoniara joatea, ziertotzat geundela, Jaungoikoak ots egiten zigula, jende aiei Eban-jelioa predikatzeru.





11. Eta sartzen giñadela itsasoan Troaden, zuzen joan giñan Samo-traziara, eta biaramonean Napolesera.
12. Eta emendik Filiposera; zeñ dan Erromako erdaldun erri bat, eta Mazedoniako aldamen artako lenbiziko erria. Erri onetan gelditu giñan egun batzuetan, elkarrekin tratatzen genduela, gure lanen gañean.
13. Larunbateko egun batean irten giñan erriatik kanpora, ibaiaren erriberarontz, non zirudian zegoala orazioko tokia. Eta esertzen giñala an, itz egiten genduen, oraziorako bildu ziran emakume batzuekin.
14. Eta Lidia izena zuen emakume, purpuraen salduerosia zeukana, jaiotzaz Tiatirakoa, Jaungoikoaren beldurrekoa, zegoan aditzen, eta Jaunak biotza idiki zion, ongi artzeko Pablok esaten zituen gauzak.
15. Izanik bada bataiatua bera, eta bere familia, erregutu zigun, esaten zuela: Uste badezute Jaunaganako leiala naizala, atozte, eta nere etxean ostatzuz egon zaitezte. Eta joan bear izan giñan.
16. Eta gertatu zan ginjoazela gu oraziora, bidera irten zigun neska-me mendeko, pitonen espiritua zeukan batek, zeñak irabazi andiak egiten ziozkaten bere nagusiai, aztinantzan.
17. Onek Pablori, ta guri jarraitzen zigula, deadar egiten zuen, esaten zuela: Gizon oiek Jaungoiko txit goratuaren serbitzariak dira, salbaziorako bidea erakusten dizutenak.
18. Eta au egun askotan esaten zuen. Eta Pablok, ezin onezkero sufriturik, eta biurturik neskaitzaganontz, espirituari esan zion: Jesukristoren izenean agintzen dikat, neskaitz onegandik irten adilla. Eta bereala irten zan.
19. Baña bere nagusiak, ikusirik utsean gelditu ziradela, berarekin egiten zituzten irabaziak, arrapatzen zituztela Pablo eta Silas, eraman zituzten juzgaura, erriko agintariaren aurrera.
20. Eta eramanik Majistraduakgana, esan zuten: Gizon oiek, gure erria nastutzen dute, Juduak dira.
21. Eta sartu nai dute bizitzeko era bat, etzaiguna guri zillegi artzea, ez alakorik egitea, izanik, geran bezela, Erromatarrak.
22. Denbora artan beratan, jendetza iskanbillatu bat ere joan zan nas-tetan beren kontra, eta Majistraduak agindu zuten, urraturik beren tunikak, zigorrakin azotatuak izan zitezela.
23. Eta zauri asko egin zieztenean, kartzela zakon batean sartu zituzten, kartzela zaiari agintzen ziotela, arreata andiarekin zaitu zitzala.
24. Zeñak onelako agintea artu zuenean, kartzela zakon batean sartu zituen, eta beren oñak zepoan estutu ziozkaten.

25. Baña gauaren erdiko garaiean, Pablo eta Silas jarririk orazioan, Jaungoikoaren alabantzak kantatzen zituzten, eta kartzelan arkitzen ziran gañerakoak zeuden aditzen.
26. Eta ona non batbatean lurdardara bat izan zan, alakoa, non, kartzelako zimenduak mugitzen ziran. Eta bereala idiki ziran ate guztiak, eta guztiak lokarriak askatu ziozkaten.
27. Onetan esnaturik kartzelazaia, eta ikusirik kartzelako atea idikiak, aterarik magitik ezpata bat, bera iltzera zijoan, uste izanik kartzelako guztiak iges egin zutela.
28. Orduan Pablok, boz goratuarekin deadar egin zion, esaten zuela: Etaiaozu zure buruari gaitzik batere egin, zeren guziok emen gera.
29. Kartzela zaia orduan, eskaturik argia, barrenen sartu zan, eta arri-turik, aurtiki zan Pablo eta Silasen oñetara.
30. Eta kanpora ateratzen zituela, esan zien: Jaunak, zer egin bear det nik salbatzeko?
31. Berak esan zioten: Sinistu ezazu Jesus Jaunagan, eta salbatuko zera zu, eta zure etzeko guztiak.
32. Eta berari, eta bere etzeko guztiak Jaunaren dotriña erakutsi zien.
33. Kartzelazaiak gaueko ordu artan beratan berarekin eramaten zituela, zauriak garbitu ziezten, eta gero andik laster, ala bera, nola bere etzeko guztiak bataiatuak izan ziran.
34. Eta bere etxera eramaten zituela, afaria eman zien, eta bere etxeko guztiakin bozkarioz bete zan, Jaungoikoagan sinistu zuelako.
35. Eguna argitu zanean, majistraduak agoazillak bialdu zituzten esaten zutela: Gizon aiek libratu itzatzu.
36. Kartzelazaiak berri au Pablori eman zion, esaten ziola: Majistraduak agindu dute, libratuak izan zaitezte; argatik orain, irtetzen zeratela, ongi zoazte.
37. Baña Pablok agoazillai esan zien: Azotatu gaituzte guztien aurrean, juizioan adituak izan gabe; eta izanik gu Erromatar gizonak, kartzelan sartu gaituzte; eta orain ixillean atera nai al gaituzte? Ez da ala izango, baizik datoztela.
38. Eta berak atera gaitzatela. Eta agoazillak Majistraduai itz oiek adirazi ziezten, eta berak, Erromatarrak ziradela aditurik, beldurtzen asi ziran.
39. Eta ala etorririk, aitzakiak jarri ziozkaten, eta kartzelatik ateratzen zituztela, erregutu zien, arren erriatik jon zitezela.
40. Ateratzen ziradela bada kartzelatik, Lidiaren etxera sartu ziran, eta anaiak ikusi zituztenean, poztu zituzten, eta joan ziran.



## AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta ibillirik Amfipolis, eta Apoloniatik, etorri ziran Tosalonikara, non Juduen sinagoga bat zegoan.

2. Eta Pablo, oi zuen bezela, berakgana sartu zan, eta iru larunbate-tan berakin Eskrituren gañean disputatu zuen.

3. Agertzen ziela, eta ikusi erazitzen ziela, premiazko gauza izan zala Kristok padezitzea, eta illen artetik bizitzea; eta Mesias au (esaten zien) da, nik adiratzten dizutedan Jesukristo.

4. Beretatik zenbaitek sinistu zuten, eta Pablo eta Silasekin bildu ziran; baita ere kristaugaietatiko, eta jentilletatiko, eta andre andizki ez gutxi.

5. Baña Judu sinisgogorak, gezurrezko zelo batekin, artzen zituzte-la erri zatarreko gizon gaizto batzuek, eta jendetza andi bat biltzen zute-la, erria iskanbillan jarri zuten, eta Jasonen etxearen gañera aurtiki ziran Pablo eta Silasen billan, erriaren aurrera eramateko.

6. Baña nola etzituzten arkitu, indarrez ekarri zituzten Jason eta anai batzuek Majistraduen aurrera, deadarrez esaten zutela: Ona emen jende batzuek, aldamen guztietatik nastea zabaltzen dutenak; onara etorri dira.

7. Eta Jasonek bere etxean ostatuz artu ditu; eta oiek guziok Zesarren erabakiak ausitzen ari dira, esaten dutela, badagoala beste errege bat, zeñ dan Jesus.

8. Erriko jendetza eta Majistraduak, oiek aditu zituztenean, nastu ziran.

9. Baña Jason eta besteak, fiantzak emanik, libratu zituzten.

10. Eta anaiak bereala gauaz, Paulori eta Silasi Berearako irtenerazi zien, zeñak allegatu ziran, Juduen sinagogara bereala joan ziran.

11. Eta oiek Tesalonikakoak baño biotz prestuagokoak ziran, eta ala Jaungoikoaren itza artu zuten gogo eta biotz guztiarekin, egunoro Eskriturak irakurtzen zituztela, ikusteko, esaten ziena egia ote zan.

12. Eta beretatik askok sinistu zuten, baitaere jentillen andre aberats askok, eta gizon ez gutxi.

13. Eta jakin zutenean Tesalonikan Juduak, Pablok Berean ere Ebanjelioa predikatzen zuela, joan ziran ara ere, nastu eta iskanbillatzen zutela erria.

14. Orduan anaiak erabaki zuten, Pablo bereala itsasorontz joan zedilla; Silas eta Timoteo berriz, an gelditu ziran.

15. Eta Pablori laguntzen ziotenak, Atenasko erriraño eraman zuten; eta arturik, Pablok emanda mandatua, Silas eta Timoteorentzat, anbat las-terren biak beragana etorri zitezela, joan ziran.

16. Pablo Atenasen beren zai zegoan artean, bere espiritua barrenen txit atsekabetua zegoan, ikusirik erri guztia idolatriara emana.

17. Argatik disputatzen zuen Sinagogan Juduakin, eta kristau gaiakin, eta egunoro plazan, an aurrean jartzen zitzaiozkan guztiakin.

18. Baitaere Epikuroetatiko, eta Esoikoetatiko filosofo batzuek ere, berarekin eleak iduki oi zituzten, eta batzuek esaten zuten: Berritsu orrek, zer esan nai ote dik? Beste batzuek berriz: Demonio berrien adiratzallea dala iduritzen dik, zeren Jesusen gañean, eta bere biztze berriaren gañean itz egiten zien.

19. Atzenean eltzen ziotela, Areopagora eraman zuten, esaten zute-la: Jakin ote dezakegu zer dotrina berri dan predikatzen dezun au?

20. Zeren aditu dizugu esaten dituzula, beñere aditu ez ditugun gauzak, eta ala, nai degu jakin, ori zer ote dan.

21. (Adiratzekoa da, Atenastar guztiak, eta an bizi ziran kanpotar-rak, ez oi zirala aritzen beste gauzatan, baizik gauza berriren bat esaten, edo aditzen.)

22. Jarririk bada Pablo Areopagoren erdian, esan zuten: Atenasko gizonak, erreljioko gauza guzietan, geiegiak bezelakoak zeratela ikusten det.

23. Zeren iragotzean, begiratzen niela zuen jainkoen irudiai, arkitu ere det aldare bat letra oiekin, Jaungoiko ez ezagutuari. Bada zuek ezagu-tu gabe adoratzen dezuten Jaungoikoa, hura bera da, ni zuei adiraztera natorrena.

24. Mundua eta bertan dauden gauza guztiak egin zituen Jaungoikoa, izanik bera, dan bezela, zeru eta lurreko Jauna, ez oi da bizi, eskuakin egindako tenploetan.

25. Eta gizonen eskuen laguntasunik ere ez du bear, gauzaren baten premian arkituko balitza bezela; baizik bera dago, guziai ematen bizia, asnasa, eta gauza guztiak.

26. Berak gizon bakar batgandik, gizonen jatorri guziari jaiocerazi dio, lurreko zabalera andian bizi zedin, izendaturik denboren aldiak, eta erri bakoitzaren bizilekuaren mugak.

27. Onekin nai zuela, Jaungoikoa billatu zezatela, aztarnai jarraituta, edo itsumuka bezela, fortunaz arkitu al ote zezaten, gutatiko bakoitzagandik urrutian ez badago ere.



28. Zeren bere barrenen bizi gera, mugitzen gera, eta daukagu izatea; eta zuen Bertzolari batzuek esan zuten bezela: Jaungoikoaren beraren jatorrikoak gera.

29. Izanik bada Jaungoikoaren jatorrikoak, ez degu uste izan bear, Jaungoikoaren izatea dala urrearen, zillarraren, edo marmolaren antzekoa, zeñaen gaiarekin egin dituen irudiak langillearen arte eta mañak, eta gizonaren adimenak.

30. Baña Jaungoikoak ezikusia eginik, ezjakineko denbora aiei, orain gizonai esaten die, guztiak eta toki guztietan penitentzia egin dezatela.

31. Zeren erabakita daukan, mundua zuzentasunarekin juzgatuko duen eguna, berak jarri zuen gizonaren bitartez, onen ezagungarri zier to bat ematen ziela guztiai, berriz biztutzen zuela bera illen artetik.

32. Aditu zutenean illen biztutze berria, batzuek berari irri egiten zioten; beste batzuek esan zioten: Berriz onen gañean adituko dizugu.

33. Onela Pablo beren artetik irten zan.

34. Alaere batzuek Pablori itsatsi zitzaiozkan, eta sinistu zuten, zeñaen artekoak ziran Dionisio Areopagotarra, eta Damaris izena zuen emakume bat, beste zenbaitekin.

### EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Oiek iragota, Pablo, Atenastik irtetzen zala, Korintora etorri zan.

2. Eta arkiturik an Judu bat, Akila izena zuena, berez ta jaiotzaz Pontokoa, Italiatik zerbait lenago allegatu zana, Priszila bere emaztearekin (zeren Klaudio Enperadoreak, Judu guztiak Erromatik aurtiki zituen) berakin bildu zan.

3. Eta nola langintza batekoak ziran, beren etxean ostatuz gelditu zan, eta berakin batean lanean aritu oi zan (beren langintza berriz zan, kanpoetako etzalekuak egitea)

4. Eta larunbat guztietan zeuzkan disputak sinagogan, bere izketetan beti aitatzen zuela gure Jaun Jesusen izena, eta egiten zituela aleginak Juduak eta Grieguak bere iritzira ekartzeko.

5. Baña Silas, eta Timoteo Mazedoniatik allegatu ziradenean, Pablo gogo geiagorekin ari oi zan predikazioan, erakusten ziela txit ziertotzat Juduai, Jesus Kristoa zala.

6. Baña nola oiek kontra egiten zioten, eta blasfemiak esaten zituzten, bere soñekoak astintzen zituela, esan zien: Zuen buruen gañera, zuen odola erori bedi, ni garbia nago, oraindandik Jentillakgana noa.

7. Eta irtetzen zala andik, Tito Justo izena zuen, Jaungoikoa adoratzten zuen baten etxean ostatuz gelditu zan, zeñaen etxea sinagogari itsatsia zegoan.

8. Eta Krispo, sinagogako nagusiak, bere etxeko guztiakin, Jaungoiko sinistu zuen: nola Korintiotar askok ere, Pablori adituta, sinistu zuten eta bataiatuak izan ziran.

9. Orduan Jaunak, agertzen zizaiola gau batean Pablori, esan zion: Etzaite beldurtu, baizik itz egin ezazu, eta etzaite ixillik egon.

10. Zeren ni zurekin nagoan, eta ez dizu iñork ere gaitzik egingo, zeren erri onetan jende asko nerea izango dan.

11. Onenbesterekin urte bat eta erdian emen gelditu zan, berai Jaungoikoaren itza predikatzen ziela.

12. Baña izanik Galion Akaiako Pronkosula, Juduak elkartuta jaiki ziran Pablora kontra, eta bere Tribunalera eraman zuten.

13. Esaten zutela: Oiek esaten die gizonai, legearen kontrako adorazioa Jaungoikoari eman dizaiotela.

14. Eta bazijoala Pablo bere alde itz egitera, Galionek Juduai esan zien: Tratatu balitza egiaz gauza gaiztoren baten gañean, edo oben txit andiren baten gañean, ongi litzake, o Juduak, nik zuen salazioa aditzea.

15. Baña oiek baldin badira itzen, eta izenen, eta zuen legeko gauzaen gañeko ezbaiak, or konpon zaitezte; nik ez det nai onelako gauzaen jueza izan.

16. Eta bere tribunaletik irtenerazi zien.

17. Orduan arrapatzen zutela guztiak Sostenes Sinagogako nagusia, gaizki tratatzen zuten otska tribunalaren aurrean, eta Galionek kasorik ere etzien egiten.

18. Eta Pablori, oraindikan denbora asko an eginik, agur egin zien anaia, eta itsasoz Siriarra joan zan (eta Priska eta Akila berarekin) illea Zeneresen ebaki erazitzen zuela; zeren botoa zeukan.

19. Eta Efesora etorri zan, eta bere lagunak an utzi zituen. Eta sarturik bera sinagogan, Juduakin disputak iduki oi zituen.

20. Eta oiek erregutu bazioten ere, berakin denbora geiangoan egon zedilla, etzuen beren esana egin.

21. Baizik diosal egiten ziela, eta esaten ziela: Jaungoikoak nai badu, berriz ere zuekgana itzuliko naiz, Efesotik joan zan.

22. Eta itsasotik irtetzen zala Zesarean, jetxi zan elizari agur egitera, eta bereala Antiokiara joan zan.

23. Eta denbora zati bat eginik an, joan zan, eta bere errenkan ibilli zan Galaziako eta Frijiako alderritik, bere ikasle guztiak sendotzen zituela.



24. Denbora onetan etorri zan Efesora judu bat, Apolo izena zuena, jaiotzaz Alejandriakoa, esale ederra, eta Eskriturretan txit aditua.

25. Zegoan au ongi erakutsia Jaunaren bidean, eta biotzeko berotasun andiarekin predikatzen zuen, eta Jesusi zegokion guztia ederki erakusten zuen. Juanen bataioa baizik ezagutzen ez bazuen ere.

26. Apolo bada, beldurrik batere gabe asi zan sinagogan predikatzen, eta Priszilak eta Akilak aditu ziotenean, berakin eraman zuten, eta Jaunaren dotrinan erakutsi andiagoak eman ziozkaten.

27. Eta nola Akaiara joateko gurak erakutsi zituen, onetarako anaiak alaitzen zutela, eskribitu zien ikasleai, arrera ona egin zizaiela. Eta bera ara joan zanean, mesede andiak egin ziezten, sinistu zutenai.

28. Zeren txit gogotik erasoten zien juduai agirian, adiratzten zuela Eskrituretatik, Jesus zala Kristoa.

### EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Apolo Korinton zegoan artean, Pablo, ibillirik Asiako goiko aldameneko probinzietatik, Ejiptora irago zan, eta ikasle batzuek arkitu zituen.

2. Eta galdetu zien: Artu al dezute Espiritu Santua fedean sinistuta gero? Berak berriz, erantzun zuten: Ez da Espiritu Santurik dagoala ere ez degu beñere aditu.

3. Eta berak esan zien: Zeñen bataioarekin zaudete bada bataiatuak? Eta berak erantzun zuten: Juanen bataioarekin.

4. Orduan Pablok esan zuen: Juanek bataiatu zuen erria penitentiako bataioarekin, esaten ziela, sinistu zezatela, bera baño geroago etorriko zanean, au da, Jesusgan.

5. Oiek adituta, gure Jaun Jesusen izenean bataiatuak izan ziran.

6. Eta Pablok eskuak gañean jarri ziozkatenean, Espiritu Santua beren gañera etorri zan, eta itz egiten zuten izkuntza askotan, eta profetizatzen zuten.

7. Ziran berriz guztitan amabi gizon bezelatsu.

8. Sartzen zala gero Pablo sinagogan, predikatu zuen aukera guziarekin iru illabetean, Juduakin disputak zeuzkala, eta aleginak egiten zituela, bereganatutzeko, Jaungoikoaren erreñuari zegozkion gauzaetan.

9. Baña nola beretatiko batzuek biotzak gogortuta, etzuten sinistzen, baizik blasfematzen zuten Jaunaren dotrinagatik aditzalleen aurrean, berakgandik alde egiten zuela, berezitu zituen ikasleak, eta egunoro erakutsiak ematen zituen Tiramno izena zuen gizon baten eskolan.

10. Eta au, bi urtean egin zuen, alako moduan, non, Asian bizi ziran guztiak, ala Juduak, nola Jentillak, Jaunaren itza aditu zuten.

11. Eta mirari, ez edozelakoak Pablaren bitartez Jaungoikoak egiten zituen:

12. Alako moduan, non, eriakgana eramaten zituzten, bere gorpuztari ukitu zien izerkariak eta gerrikoak, eta beretatik gaitzak alde egiten zuten, eta espiritu gaiztoak irtetzen ziran.

13. Baita Judu exorzista, aldamen batetik bestera jiran zebiltzan batzuek ere tentatu zuten, Jaun Jesusen izenari gaizkinean gañean ots egitea, esaten zutela: Konjuratzen zaituztet, Pablok predikatzen duen Jesus huragatik.

14. Au egiten zutenak, Eszeba izena zuen apaizburu Judu baten zazpi seme ziran.

15. Baña espiritu gaiztoak erantzuten ziela, esan zien: Jesus ezagutzen det, eta zeñ dan Pablo badakit; zuek berriz, zeñ zerate?

16. Eta bereala arako gizona, zeñgan demonio txit gaizto bat zegoan, aurtiki zan beren gañera, eta beren kontra geiago izan zan, alako moduan, non, larrugorrian eta zaurituta etxe artatik iges egin zuten.

17. Au izan zan gertakari bat, Efeson bizi ziran Judu eta Jentil guztiak jakin zutena, eta guztiak beldurrez beteak gelditu ziran, eta Jaun Jesusen izena goratua izan zan.

18. Eta sinistzen zutenetatik asko etorri oi ziran aitortu eta adiratzera egin zuten gaitz guztia.

19. Baitaere mirarikinde beltxean ibilli ziran askok, egin zuten montoi bat beren liburuakin, eta guztien aurrean erre zituzten, eta kontua atararik zenbat balio ote zuten, berrogeita amar milla diru balio zutela arkitu zan.

20. Ala Jaungoikoaren itza geiago ta geiago zabalduaz, eta sendatuaz zijoan.

21. Eta bukatuak gauza oiek, Pablok zeruko argitasunarekin erabaki zuen Jerusalemara joatea, Mazedoniatik eta Akaiatik jektitzen zala, eta esaten zuen: An egon, eta gero, Erroma ere ikusi bear det.

22. Eta bialdurik Mazedoniara berari laguntzen zienetatik bi, Timoteo eta Erasto, bera Asian denboratsu batean gelditu zan.

23. Denbora onetan izan zan, noiz gertatu zan naste eta iskanbilla bat ez txikia Jaunaren legeagatik.

24. Zeren Demetrio izena zuen gizon zillargin batek, egiten zituela Dianaren zillarrezko tenplotxo batzuek, irabazi ez txikia ematen zien langintza onetako besteai.



25. Zeñai, nola alako lanakin bizi ziran beste batzuek ere, biltzen zituela, esan zien: Nere adiskideak, ongi dakizute gure irabazia langintza onetatik datorrela.

26. Eta ikusten eta aditzen ere dezute, nola Pablo orrek, ez bakarrik Efeson, baita Asiarik geienean ere, bere erakutsiak, jende askori beste fede bat artuerazi dio, esaten duela, ez diradela Jaungoikoak eskuakin egiten diradenak.

27. Argatik ez bakarrik gure langintza jarriko da estimazio guzia galteko irriskuan, baitaere geiago dana, Diana emakume jainko andiaren tenploak, bere estimazio guztia galduko du, eta Asia guztiak eta mundu guztiak adoratzan duenaren anditasun guztia, lurrera eroriko da.

28. Aditurik oiek, aserretu ziran, eta deadarrez asi ziran, esaten zutela: Bizi bedi Diana, Efesotarren emakume jainko andia.

29. Eta erri guztia nastaua jarri zan, eta korrika, ta suminduak joan ziran guztiak, jendea bildua zegoan tokira, arrapatuta, berakin zeramazkitela Gaio eta Aristarko, Pablaren lagunak.

30. Nai zuen Pablok, erriaren erdian jartzea, baña ikasleak etzioten utzi.

31. Asiako andizki, bere adiskideak ziran batzuek ere, bialdu zioten mandatua, erregututzen ziotela, etzedilla batzarrean agertu.

32. Batzuek gauza bat, eta besteak beste bat deadarrez esaten zuten; zeren batzarre guztia naste bat zan, eta geienak etziekiten, zertarako bilduak izan ziran ere.

33. Bitartean Alejandro izena zuen bat atera zuten jendetzaren arte-tik, Juduak laguntzen ziela. Eta Alejandrok eskuarekin ixillik egoteko esanik, erriari arrazoia adirazi nai zion.

34. Baña ezagutu zutenean Judua zala, guztiak batean asi ziran deadarrez, eta egon ziran bi ordu bezelatsuko denboran, esaten zutela: Andia da Efesotarren Diana.

35. Atzenean Sekretarioak ekarririk jendetza ixildutzera, eta geldirik jartzera, esan zien: Efesoko gizonak, al dago gizonen artean ez dakianik, Efesoko erriak Diana andi, Jupiterren alaba, adoratzan duela?

36. Izanik bada au gauza zierto bat, alako moduan, non, iñork ere kontrarik ez dizakion egin, geldirik egon bear zerate, eta ez dezute ezere-ere egin bear, ongi pensatu gabe.

37. Onara ekarri dituzuten gizon oiek, ez dira sakrilegoak, eta ez dira ere zuen emakume jainkoaren blasfematzaileak.

38. Berriz Demetriok, eta laguntzen dioten langilleak, kejarik badaukate onelakoren baten kontra, bada guztien tribunala, badira Prokonsulak, salatu bitzate, eta eskatu bezate kastigua berentzat.

39. Beste eskaririk badaukazute, batzarreak, dagokion bezela, erabakia eman dezake.

40. Bestela irriskuan gaude, gaurko batzeagatik iskanbillaritzat salatu gaituztela. Ez genezakean ezkerro arrazoerik eman, zertarako emen bildu geran. Oiek esan zituenean, jendetza guztia joan zan.

## OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta nastea geldituta gero, ots eginik Pablok bere ikasleai, eta erakutsiak emanik, agur egin zien, eta jarri zan bidean, Mazedoniara joateko.

2. Eginik ibilliak lur aietatik, eta emanik erakutsiak toki aietakoai itz askorekin, Greziara etorri zan.

3. Non egon zan iru illabetean, eta Siriara itsasoz joateko zegoala, Juduak azelo bat jarri zioten; argatik Mazedoniatik itzultzeko erabakia artu zuen.

4. Lagundu zioten Sopatro, Pirroren, berez Bereakoaren semeak; eta Aristarko eta Segundo Tesaloniatarrak, Gaio Derbeakoarekin, eta Timoteorekin, baitaere Tikiko eta Trofinio Asiatarrak.

5. Zeñak, aurrerago joanik, Troaden itxedon ziguten.

6. Gu berriz, Azimoen egunak iragota, itsasoz joan giñan Filipostik, eta bost egunean etorri giñan berakgana Troadera, non zazpi egunean gelditu giñan.

7. Baña astearren lenbiziko egunean bildu giñan ogia partitzeko, eta Pablok, zeñak joan bear zuen biaramonean, berakin itz egiten zuen, eta luzatu zuen izketa gauaren erdiraño.

8. Bilduak geunden afaltokian berriz, lanparak ugari zeuden.

9. Eta gertatu zan, Eutiko izena zuen mutiko bat zegoala eseria leio baten gañean, lo pisu batek artu zuen, Pablok bere izketa luzeari jarraitzen zion artean, ta atzenean loak garaitzen zuela, erori zan irugarren etxebizitzatik beera, eta illik jaso zuten.

10. Baña Pablo jetxitzen zala, bere gañean etzin zan, eta laztantzen zuela, esan zuen: Etzaitzte beldurtu, zeren bizirik dagoan.

11. Eta igotzen zala berriz, ogia partitu zuen, eta jaten zuela, eta jarraiturik izketari berakin egunsentiraño, gero joan zan.

12. Mutiltxo gaztea ipiñi zuten guztien aurrean bizirik, eta bozkariotz ziran ez gutxi.





13. Gu berriz ontzian sartzen giñala, Assongo portura joan ginan, non Pablo artu bear genduen, zeren berak ala erabaki zuen, bitarte au berak liorrez ibilli nai zuelako.

14. Eta elkartu giñanean Assonen, arturik bera ontzian, Mitilenera joan giñan.

15. Eta andik itsasoz irtetzen giñala, biaramonean etorri giñan Kio-ren aurrera; beste egunean allegatu giñan Samosera, eta urrengoan irten giñan leorrera Mileton.

16. Zeren Pablok erabaki zuen, ez iragotzea Efesotik, Asian gutxi edo asko geldituerazi etzitzaioten. Zeren agudo ibilli nai zuen, Pentekos-tesko eguna Jerusalemene zelebratzeko, al bazuen.

17. Milletotik bialdu zituen mandatariak Efesora, elizako zarrari ots egitera.

18. Aiek beragana etorri ziradenean, eta elkarrekin bilduak zeudela, esan zien: Zuek badakizute, nola ni portatu naizan zuekin, Asian sartu nintzan lenbiziko egunetik.

19. Jauna serbitzen nuela umiltasun guziarekin, eta negar malkoakin, Juduen azeloakgatik gertatu zitzazkidan atsekabeen artean.

20. Nola zuentzat ona eta mesedegarria izango zan gauzarik batere ez dizutedan utzi adirazi gabe, eta erakutsi gabe agirian eta etxeetan.

21. Batezere erregututzen niela Juduai eta Jentillai, arren biurtu ziteze-la Jaungoikoagana, eta Jesukristo gure Jaunagan, gogotik sinistu zezatela.

22. Eta orain Espiritu Santuak onetara lotutzen nauelako, banoa ni Jerusalemenera, an gertatuko zazkidan gauzaen berririk iduki gabe.

23. Baizik Espiritu Santuak nabillan erri guzietatik, esaten didana kontuan ipintzen nauela; Jerusalemene kateak, eta atsekabeak itxedotzen didatela.

24. Baña onelako gauza baten ere beldur ez naiz, eta ez daukat nere bizia, ni baño geiagotan; onela nere bizitzako ibillera ta denbora ongi bukatzen badet, eta kunplitzen badet, nere Jaun Jesusek eman zidan lan-gintza, Jaungoikoaren graziako Ebanjelioa predikatzeko.

25. Eta orain nik badakit, zuetatiko batek ere, zeñtzuen errietatik ibi-lli naizan Jaungoikoaren erreñua predikatzen, ez nauela berriz ikusiko.

26. Argatik emen argiro esaten dizutet egun onetan, ez daukadala nik zuetatiko baten ere galmenaren kulparikan batere.

27. Zeren ez dizutedan adirazi gabe utzi, Jaungoikoak zuekgan dauzkan asmazioetatik batere.

28. Begiratu ezazute bada zuekगतिक, eta zuen artaldeagatik, zeñaeen Obispotzat Espiritu Santuak jarri zaituzten, Jaungoikoaren Eliza, berak bere odolarekin irabazi zuena, zuzentzeko.

29. Zeren badakit, nik alde egiten dedanean, erasoko dizutela otso amorratu, artaldea desegingo dutenak.

30. Eta zuen zebeu artetik ere jaikiko dira, dotrina gaiztoak ereingo dituzten gizonak, ikasleak beren ondoren eramateko asmazioakin.

31. Argatik zaudete beillan, oroitzen zeratela, nola iru urtean, gau ta egun, iñoiz ere aspertu gabe ari nintzan, zuetatiko bakoitzari erakutsiak ematen.

32. Eta orain atzenean enkomendatzen zaituztet Jaungoikoari, eta beren graziaren itzari, zeñak bukatu dezakean zuen salbazioko lana, eta zuek bere herenziaren partale egin santu guztiakin.

33. Ez det nik iñoren zillarraren, ez urrearen, ez soñekoaren gura gaiztorik iduki, nola

34. Zuek zerok dakizuten, zeren neretzat, eta nere lagunentzat bear izan dedan guztia, esku oien lanak eman didate.

35. Nik nere biziera guzian erakutsi dizutet, onela lanean aritzeaz, eriai ta erkiai lagundu bear zaiotela, eta oroitu Jesus gure Jaunaren itzare-kin, zeren berak esan zuen: Zoriontasun asko andiagoa da ematea, artzea baño.

36. Eta oiek esan zituenean, belauniko jarri zan, eta aiekin guztiakin orazio egin zuen.

37. Eta emen guztiak negar andiak egiten asi ziraden, eta Pabloren lepora aurtikitzen ziradela, laztanak ematen ziozkatzen.

38. Txit atsekabetuak zeudela, batezere esan zuen itzagatik: Onezke-ro etzutela berriz bere arpegia ikusiko. Eta ontzira laguntzen zioten.

## OGETA BATGARREN KAPITULUA

1. Atzenean ere sartu giñan itsasoan ontzi batera igotzen giñala, aiek-gandik atsekabe andiarekin alde egiten genduela, eta zuzen etorri giñan Koosera, eta biaramonean Rodasera, eta andik Patarara.

2. Non arkiturik Feniziara zijoa ontzi bat, beratana sartu, eta joan giñan.

3. Eta Txipre ikusten genduela, utzirik ezkerreko aldamenetik, jarraitu giñon gure bideari Siriarontz, eta allegatu giñan Tirora, non ontziak bere karga utziko zuen.





4. Eta nola emen ikasle batzuek arkitu giñituen, zazpi egunean gelditu giñan; ikasle oiek, Espiritu Santuak argituak bezela, esaten zien Pablori, etzedilla Jerusalemenera igo.

5. Baña egun aiek kunpliturik, bidean jarri giñan, laguntzen zigutela guztiak beren emazte eta aurrakin, erritik kanporaño, eta jarririk belauniko erriberan orazio egin genduen.

6. Eta elkarri eginik agurrak, sartu giñan ontzian, eta aiek beren etxeetara itzuli ziran.

7. Eta bukatu genduenean itsasotiko ibillera, allegatu giñan Tirotik Tolemaidara, non anaia agurrak eginik, berakin egun batean gelditu giñan.

8. Joaten giñala biaramonean, Zesareara allegatu giñan. Eta sartzen giñala Felipe Ebanjelariaren etxean, zeñ zazpi diakonuetatik bat zan, bertan oztatuz gelditu giñan.

9. Bazeuzkan onek lau alaba, birjiña profetisa.

10. Eta gelditzen giñala emen zenbait egunean, etorri zan geroago Judeatik, Ababo izena zuen profeta bat.

11. Au etorririk gugana, Pabloren gerrikoa artu zuen, eta berarekin eskuak eta oñak lotutzen zituela, esan zuen: Oiek esaten ditu Espiritu Santuak. Ala lotuko dute Juduak Jerusalemene, gerriko onen jabea, eta jentillen eskuetan jarriko dute.

12. Au aditu genduenean, erregututzen giñion Pablori, ala guk, nola erri artakoak, etzedilla Jerusalemenera igo.

13. Orduan erantzun zuen Pablok, eta esan zuen: Zer egiten dezute negar egiñaz, eta nere biotza atsekabetuaz? Zeren ni prestatua nago, nere Jaun Jesusen izenagatik, ez bakarrik lotua izatera, baitaere Jerusalemene iltzera joateko.

14. Eta ikusirik ezin genduala gure iritzira ekarri, utzi giñion geldirik, esaten genduela: Jaunaren borondatea egin dedilla.

15. Irakorik egun oiek, prestatu giñan joateko, eta Jerusalemenera igo-tzen giñan.

16. Etorri ere ziraden gurekin Zesareako ikasle batzuek, zekartela berakin anziñako ikasle Mnason izena zuen bat, jaiotzaz Txiprekoa, zeñaen etxean ostatuz geldituko giñan.

17. Eta allegatu ginanean Jerusalemenera, anaiak bozkario andiarekin artu ginduzten.

18. Biaramonean joan giñan Pablarekin Santiago bisitatzera, eta zar guztiak ere bere etxera etorri ziran.

19. Zeñai egun onak emanik, kontatzen ziezten bana banan, nolako gauzak bere bitartez Jaungoikoak jentillen artean egin zituen.

20. Berak, oiek aditurik, Jaungoikoari eskerrak ematen ziezten, eta gero esan zioten: Badakizu, gure anaia, zenbat milla Judu dauden sinistu dutenak, eta nola guztiak, legea zaitua izateko zelotsuak diran.

21. Orain bada, oiek aditu dute esaten, nola zuk jentillen artean bizi diran juduai erakusten diezun, Moises utzitzen, esaten diezula, ez dituztela beren semeak zirkunzidatu bear, eta anziñako oiturai ere ez diela jarraitu bear.

22. Zer da bada egingo dana? Ziortoro jende talde guzi au bilduko da, zeren laster jakingo dute etorri zerala.

23. Argatik egin ezazu, zuri esatera goazena: Emen dauzkagu lau gizon, botoa kunplitu bear dutenak.

24. Oiek artuta, santutu zaite berakin, eta egin zaiezu zeremoniako kastua, buruak moiztu ditzaten. Orrenbesterekin guztiak jakingo dute, zugatik aditu dutena ez dala egia, baizik zuk ere legea zaitzeari jarraitzen diozula.

25. Sinistu duten jentillen gañean berriz, eskribitu diegu, erabaki degula, ez dezatela jan idoloai eskeñitako jakirik, ez edan odolik, ez abere itotakorik, eta ez dezatela egin fornikaziorik.

26. Pablo bada, arturik berarekin gizon aiek, berakin biaramonean garbitu zan, eta tenploan sartu zan, jakinerazitzen zuela, noiz kunplitzen ziran bera garbitua gelditzeko egunak, eta beretatiko bakoitzagatik doaña noiz eskeñiko zan.

27. Zeudela kunplitzeko zazpi egunak, Asiatik etorritako juduak ikusirik Pablo tenploan, erri guztia iskanbillatu zuten, eta arrapatu zuten, deadarrez esaten zutela:

28. Israelko gizonak, lagundu zaguzute. Au da arako gizona, zeñ ez bakarrik dabillan ematen erakutsiak guztiai, toki guztietan, erreñuaren kontra, legearren kontra, eta toki santu onen kontra; baitaere jentillak tenploan sartu ditu, eta toki santu au kutsutu du.

29. Zeren ikusi zuten berarekin Torfimo Efesoarra, zeñ uste zuten Pablok berarekin tenplora eraman zuela.

30. Onenbesterekin erri guztia nastu zan, eta iskanbillatu zan jendetza. Eta eltzen ziotela Pablori, eraman zuten arrastaka tenplotik kanpora, zeñaen atea bereala itxiak izan ziran.

31. Pablo iltzeko asmazioetan zeudela, soldadu taldearen tribunoari adirazi zioten, Jerusalem guztia nastua zegoala.



32. Zeñ, arturik soldaduak eta zenturionak, korrika berakgana joan zan. Juduak, ikusi zituztenean tribunoa eta soldaduak, Pablo jotzeari utzi zioten.

33. Orduan eltzen zala beragana tribunoa, eldu zion, eta agindu zuen bi kateekin lotu zezatela, eta zeñ zan, eta zer zan egin zuena galdetzen zuen.

34. Eta batzuek bat, eta besteak bestea esaten zuten. Eta ezin ezagutirik zeñ gauza zan ziertoa, agindu zuen, gaztelu batera eraman zezatela.

35. Eta allegatu ziranean, soldaduak eraman bear izan zuten, erriak egiten zuen gogortasunagatik.

36. Zeren jendetzak jarraitzen zion, deadarrez esaten zuela: illan izan dedilla.

37. Zegoala Pablo gazteluan sartua izateko, tribunoari esan zion: itz bat zuri esatea nai nuke. Berak onetara erantzun zuen: Zer! Griegu izkuntza al dakizu?

38. Ez al zera zu irago diran egunetan iskanbilla bat jaso zenduena, eta lau milla bidelapur eremura eraman ziñituena?

39. Eta Pablok esan zion: Ni egiaz judua naiz, Tarsoko errikoa, zeñ dagoan Zilizian, zeñ dan erri otspatsua. Erregutuzten dizut bada, erriari itz egiten utzi zadazula.

40. Eta utzirik Tribunoak, Pablok, jartzen zala zutik mallaen gañean, eskuarekin erriari señaleara egin zion, eta guztiak ixiltasunik andiengan geldituta, Hebreoz onela itz egin zien.

## OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Nere anaia, ta gurasoak, nere gañean orain zuei ematera noan arrazoa aditu ezazute.

2. Eta aditu zutenean Hebreoz itz egiten ziela, oraindik ixillago gelditu ziran.

3. Esan zuen bada: Ni Judua naiz, Tarso Ziliziakoan jaioa; baña erri onetan Gamalielen eskolan azia, eta beragandik erakutsiak artua gure gurasoen legeko egiazen araura; eta legearen beraren txit zelotsua, orain zuek guztiok zeraten bezela.

4. Nik eriotzaraño persegitu nien dotrina berri onetakoai, sokakin lotutzen, eta kartzelan sartzen nituela gizasemeak eta emakumeak.

5. Onen testiguak diran bezela apaiznagusia, eta zar guztiak, zeñak-gandik artu ere nituen kartak Damaskoko anaientzat, eta ara nijoan, lotuta Jerusalenera ekartzeko, an zeuden erreljio onetakoak, kastigatuak izan zitezten.

6. Baña gertatu zan bidean nijoala, eta Damaskoren ondoan nengoala, egunaren erdian batbatean zeruko argitasun batek bere errañuakin ingurutu ninduen.

7. Eta lurrean erortzen nintzala, aditu nuen boz bat, esaten zidana: Saulo, Saulo, zergatik persegitzen nazu?

8. Nik erantzun nuen: Zeñ zera zu, Jauna? Eta esan zidan: Ni naiz Jesus Nazarenoa, zeñ zuk persegitzen dezun.

9. Laguntzen zidatenak, argia ikusi bazuten ere, etzuten ongi konprenditu, itz egiten zuenaren boza.

10. Nik esan nuen: Zer egingo det, Jauna? Eta Jaunak erantzun zidan: Jaiki zaite, eta zoaz Damaskora, non esango zatzun, egin bear dezun guztia.

11. Eta nola ezin ikusi nuen argiaren indarra gatik, nere lagunak eskuetik eltzen zidatela, Damaskora eraman ninduten.

12. Emen Ananias izena zuen batek, gizon justoa legearen araura, eta bere erritar Judu guztien testigantza ona bere alde daukanak.

13. Etortzen zala nigana, eta aurrean jartzen zitzadala, esan zidan: Saulo nere anaia, argitua gelditu zaite. Eta ordu artan beratan begiratu nion, eta argio ikusi nuen.

14. Berak orduan esan zuen: Gure gurasoen Jaungoikoak lendanaz autu zaitu, bere borondatea ezagutu, eta Justoa ikusi, eta bere aoko boza aditu zenezan.

15. Zeren ikusi eta aditu dituzun gauza guztien testigantza, berari emango diozu gizon guztien aurrean.

16. Orain bada, zerk zauzka geldirik? Jaiki zaite, izan zaite bataiatua, eta zure bekatuak garbitu itzatzu, bere izenari ots eginda.

17. Gertatu zan bada gero, itzultzen nintzala ni Jerusalenera, eta tenploan orazioan nengoala, extasis batean jaso izan nintzan,

18. Eta ikusi nuen esaten zidala: ibilli zaite agudo, eta bereala Jerusalemendik irten zaite, zeren oiek, nigatik ematen diezun aitormena, ez dute artuko.

19. Jauna, erantzun nuen nik: berak badakite ni nintzana nenbillana sinagoetatik, kartzelan sartzen nituela, eta gaizki tratatzen nituela zagan sinistzen zutenak.

20. Eta isurtzen zanean zure aitortzalle Estebanen odola, ni an nengoan, bere eriotza ontzat ematen nuen, eta iltzallen arropak zaitzen nituen.

21. Baña Jaunak esan zidan: zeren nik urrutiko erreñuetara bialduko zaitudan.



22. Itz onetaraño egon zaiztan aditzen, baña emen jazo zuten dea-darra, esaten zutela: Kendu ezazu lurretik orrelako gizona, zeren zillegi ez dan orrelakorik bizirik egotea.

23. Jarraiturik berak deadar egiteari, eta beren soñekoak berakgandik aurtikitzeari, eta autsa goira botatzeari.

24. Agindu zuen tribunoak, gazteluan sartu zezatela, eta azotatua, eta oñazkatua izan zedilla, jakin zezan zergatik alako deadarrak bere kontra egiten zituzten.

25. Eta ualakin lotu zutenean, an zegoan Zenturionari Pablok esan zion: Zillegi al zazute zuei Erromako gizon bat azotatzea, eta ori, zergatik dan jakin gabe?

26. Oiek aditurik, Zenturiona Tribunoagana joan zan, eta esan zion: Begira ezazu zer egiten dezun, zeren gizon au Erromatarra da.

27. Orduan Tribunoak, Pablogana joanik, galdetu zion: Esan zadazu, Erromaarra al zera zu? Eta berak erantzun zuen: Bai, ala naiz.

28. Onetara tribunoak erantzun zuen: Nik diru askorekin iritxi nuen aukera ori. Eta Pablok esan zion: Ni jaiotzaz naiz.

29. Bereala beragandik alde egin zuten, bera oñazkatzera zijoazenak. Eta Tribunoa bera ere beldurtu zan, jakin zuenean Erromaarra zala, eta lotuerazi zuela.

30. Biaramonean jakin nairik, zergatik Juduak salatzen zuten, askatu zuen, eta agindu zuen bildu zitezela apaizak, sinedrion guztiarekin, eta Pablo ateratzen zuela, beren erdian jarri zuen.

### OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Orduan Pablok, begiratzen ziela batzarrekoai, esan zion: Nere anaiak, ni gaurko eguneraño Jaungoikoaren aurrean konzienzia onarekin bizi izan naiz.

2. Eta Ananias apaizburuak agindu zien morroia, aoan jo zezatela.

3. Orduan Pablok esan zion: Jaungoikoak zaurituko zaitu zu zerori, pareta zuritua. Zu eseria zaude, ni legearen araura juzgatzeko, eta legearen beraren kontra agintzen dezu, ni jo nazatela.

4. Eta an zeudenak esan zioten: Nola zuk Jaungoikoaren apaizburuagatik gaizki esaten dezu?

5. Eta orduan Pablok erantzun zuen: Nere anaiak, nik ez niekien apaizburua zala, zeren eskribitua dago, erriko Prinzipeagatik ez dezu gaizki esango.

6. Eta jakinik Pablok, an zeudenetik batzuek Sadduzeoak zirala, eta beste batzuek Fariseoak, batzarrearen erdian boz goratuarekin esan zuen:

Nere anaiak, ni Fariseoa naiz, Fariseoen semea; eta alaere nere itxedope-nagatik, eta illen biztutzen berriagatik, noa ni juzgatua izatera.

7. Eta oiek esan zituenean, Fariseoak eta Sadduzeoak elean jarri ziran, eta jendetza desegin zan.

8. Zeren Sadduzeoak esaten duten, ez dagoala biztutze berririk, ez Aingerurik, ez Espiriturik. Fariseoak berriz, gauza biak aitortzen dituzte.

9. Ala bada, deadar andiak egiten asi ziran. Eta Fariseoetatiko batzuek jaikitzen ziradela, elean ari ziran, esaten zutela: gizon onegan gaitzik batere ez degu arkitzen; norik daki Espirituren batek, edo aingeruren batek itz egin ote dion?

10. Eta nola errierta andia jaiki zan, beldur izanik tribunoa Pablo zatitu etzetzaten, agindu zuen soldaduak jetxi zitezela, Pablo beren artetik kentzeko, eta eramateko gaztelura.

11. Urrengo gabeen Jauna agertu zitzaion, eta esan zion: Pablo, zaude alaitua, zeren nola Jerusalemene nere testigantza eman dezun, ala Erroman ere eman bear dezu.

12. Eta etorriarik eguna, Judu batzuek bildu ziran, eta botoa egin zuten juramentuarekin, etzutela ezerere jango, ez edango, aliketa Pablo il artean.

13. Onela juramentuarekin lotu ziranak Pablora kontra, berrogei gizon baño geiago ziran.

14. Zeñak joan ziran apaizburuagana, eta zarrakgana eta esan zuten: Guk botoa egin degu, ez degula ezerere artuko, aliketa Pablo il dezagun artean.

15. Orain bada, zuek adierazi zaiezute Tribunoari batzarrearen izenean, bialdu dezala Pablo zuekgana, beragatik zerbait ziertoago jakin nai bazenezake bezela. Gu berriz, bera onara allegatu baño lenago prestatuak egongo gera, bera iltzeko.

16. Baña nola Pablora arrebaren semeak aditu zituen zerabiltzaten asmazioak, joan zan, eta sartu zan gazteluan, eta Pablora adirazi zion.

17. Pablok, zenturionetik bati ots egiten ziola, esan zion: Mutiko au Tribunoagana eraman ezazu, zeren gauza baten berria eman bear dion.

18. Eta Zenturionak berarekin artzen zuela, Tribunoagana eraman zuen, eta esan zion: Pablo lotuta dagoanak erregutu dit, ekarri dezadala zure aurrera mutil gazte au, zeñak daukan zerbait zuri esateko.

19. Eta Tribunoak artzen zuela eskutik mutil gaztea, joan zan berarekin toki bakar batera, eta galdetu zion: Zer da neri adiratzeko daukazu?



20. Eta berak esan zuen: Juduak erabaki dute, erregututzea zuri biar, eramanerazi dezazula Pablo batzarrera, zerbait beragandik ziertoago jakin nai balute bezela.

21. Baña zuk etzaiezu berai sinisterik eman, zeren beretatik berrogei gizonek baño geiagok, zeñak juramentu andiak in botoa eginik daukaten, ez dutela ezerere jango, ez edango, aliketa Pablo il dezaten artean; onez-kero prestatuak daude, zuk eman dizazuten eskatzen dizutena.

22. Tribunoak bada bialdu zuen mutil gaztea, agintzen ziola, etzaiola iñori ere esan, nola berri oiek berari eman ziozkan.

23. Eta bi zenturioni ots egiten ziela, esan zien: iduki itzatzute pres-tatuak gaueko bederatzietarako, berreun soldadu ofiazko, eta irurogeita amar zaldizko, eta berreun lantzari, Zesareara joan ditezten.

24. Eta prestatu itzatzute zamariak, Pablo gañean jarririk iñork ere gaitzik egingo dion beldurrik gabe, Felix Gobernariagana eraman dezaten.

25. Zeren Tribunoa beldur zan, Juduak arrapatu eta il etzaten, eta gero berari asmatu etzitzaioten berak utzi zuela, diruagatik bera saltzen zala; eta bide batez Felixi eskribitu zion karta bat, oiek zeuzkana.

26. Klaudio Lisiasek, Felix Gobernari txit onari osasuna opa dio.

27. Juduak arrapatutua, eta berak iltzeko zorian zeukaten gizon ori, libratu det soldaduakin joaten nintzala, jakinik Erromaarra zala.

28. Eta jakin nai nuela zeñ gaitzakeriarekin salatzen zuten, beren batzarrera eraman nuen.

29. An arkitu nuen beren legeko ezbairen gañean salatua zala; baña eriotzaren, edo lotuta egoteko diña dan obenikan batere ez duela egin.

30. Eta jakin dedanean gero, Juduak dauzkatela bere kontra azeloak armaturik, zuri bialtzen dizut, salatzalleai ere adirazirik, zugana dijoazela. Agur, ongi bizi.

31. Soldaduak bada, emana izan zien agintearen araura, Pablo artzen zutela, Antipatridako errira gauaz eraman zuten.

32. Eta biaramonean, utzirik zaldizko soldaduak berari lagundu zizaioten, gañerakoak gatzelura itzuli ziran.

33. Zesareara allegatu ziradenean, eta karta gobernariari emanik, Pablo ere bere aurrean jarri zuten.

34. Eta karta irakurri zuenean, eta zeñ probinziatakoa zan galdeturik, eta ezagaturik Ziliziakoa zala.

35. Esan zion: Zure salatzalleak datoztenean, adituko zaitut. Eta agindu zuen, Herodesen pretorioan zaitua izan zedilla.

## OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta bost egun iragota, jetxi zan Zesareara Ananias apaizburua zar batzuekin, eta Tertulo izena zuen legetsu batekin, zeñak joan ziran Gobernariaren aurrera Pablora kontra.

2. Ots eginik Pablora, asi zuen bere salazioa Tertulok, esaten zuela: Nola zugatik, o Felix txit ona, gauden gu pake oso batean, eta zuk lenda-naz begiratzeagatik, gaitz asko galerazitzen dezun ezker.

3. Guk ezagutzen degu beti eta toki guzietan, eta esker andiak ematen dizkizugu.

4. Ez natzatzu gogaikarria izango, eta ala erregututzen dizut, aditu ditzatzula nere itz labur oiek, oi dezun biguñtasunarekin.

5. Arkitu degu gizon, izurri zabaltzale au, eta dabillana mundu guz-titik, Juduak nastuta ipintzen, eta Nazarenoen arraza naslariaren gialaria berau da.

6. Zeñak gañera tenploa kutsutu nai zuen, eta argatik eltzen giñiola, gure legearen araura juzgatu nai genduen.

7. Baña etoririk gero Lisias tribunoa, gure eskuetatik indarrez kendu zigun.

8. Agintzen ziela salatzalleai zugana etortzeko, zuk zerorrek esami-natzen dezula jueza bezela, ezagutuko dezu, salatzen degun gauza guzti oiek, egiak diradela.

9. Juduak ere gañera esan zuten, gauza guzti oiek ala ziradela.

10. Eta Pablok (Gobernariak itz egiteko baimena emanik) erantzun zuen: Jakinik nik urte asko dala erreñu au gobernatzen dezula, itxedopen andiarekin asitzen naiz nere burua garbitzen.

11. Erraz ezagutu dezakezu, amabi egun baño ez dirala Jerusalemara allegatu nintzala Jaungoikoa adoratzera.

12. Eta ez tenploa arkitu ninduten iñorekin ere disputatzen, ez jen-detza biltzen ez sinagogaetan.

13. Ez errian, eta ez ditzakezute probatu, orain salatzen nauten gau-zaetatik batere.

14. Aitortzen dizut berriz gaur, nik nere Aita, eta Jaungoikoa serbi-tzen dedala, sinistzen ditudala Legean, eta Profetetan eskribituak dauden gauza guztiak.

15. Jaungoikoagan itxedopen sendo bat daukadala, berak ere dauka-ten bezela, justoen eta bekatarien biztutze berria egiztatuko dala.

16. Argatik egiten det nik beti alegina, idukitzeko beti garbi eta obe-nikan gabe nere konzienzia, Jaungoikoaren aurrean, eta gizonen aurrean.



17. Orain, urte asko iragota, nere erreñukoai limosnak ematera, eta Jaungoikoari nere eskeñtzak, eta botoak kunplitzera etorri naiz.

18. Eta oietan nengoala, Asiako Judu batzuek aurkitu naute tenploan garbitua; baña ez jendetzarekin, ez iskanbillatuakin ere.

19. Judu oiek dirade zure aurrean agertu bear luketenak, eta izan nere salatzaileak, nere kontra zeresanik baleukate.

20. Baña orain salatzen nauten oiek berok esan bezate, batzarrean bilduak egon ziradenean, nere kontra obenikan batere arkitu ote zuten.

21. Ez izanenean beren erdian esan nuen itz au: ikusten det, zuek gaur juzgatzen nazutela, illen biztutze berria sinistu eta zaitzen dedalako.

22. Felixek bada, nola baziekien dotrina au, beste denbora baterako gauza au utzi zuen, esaten zuela: Lisias Tribunoa Jerusalemik datorrenean, orduan berriz ere adituko zaituztet.

23. Eta agindu zion Zenturionari Pablo zaitu zezala, estutasun gutxiagorekin idukitzen zuela, eta bereak bera zaitzera joatea, galerazi gabe.

24. Egun batzuek iragota, etorri Felix bere emazte Drusilarekin, zeñ Judua zan, Pablori ots egin zion, eta Jesukristoren fedea esplikatzen aditu zion.

25. Baña esanik Pablok justiziako, kastidateko, eta geroko juizioko dotrina, ikaturik Felix, esan zion: Ask da oraingo, zoaz; denbora egokian ots egingo dizut.

26. Itxedotzen ere zuela, Pablok dirua emango ziola, argatik maiz ots egiten zion, eta berarekin itz egiten zuen.

27. Bi urte iragota, Felixen lekuan Porzio Festo jarri zan; eta Juduakin ongi iduki nai zuela, Pablo lotuta kartzelan utzi zuen.

### OGEITA BOSTGARREN KAPITULUA

1. Festo bada probinziara allegatu zanean, iru egun iragota gero, Zesareatik Jerusalemenera igo zan.

2. Eta joan ziran beragana apaizburuak, eta Juduetako andizkiak, Pablo salatzaera; eta erregututzen zioten

3. Mesede bat egin zizaiela, au da, agindu zezala, Pablo izan zedilla Jerusalemenera eramana; berak bidean azeloan jarri, eta iltzeko.

4. Eta Festok erantzun zuen, Pablo zesarean ongi zaitua zegoala; bera ere ara aurki joango zala.

5. Argatik (esan zuen) zuetatiko nagusienak, etorri ere bitez Zesareara, eta salatu bezate, gaiztakeriaren bat egin badu.

6. Eta beren artean zortzi edo amar egunean baño geiagoan gelditu gabe, Zesareara jetxi zan, eta urrengo egunean eseri zan Tribunalean, eta agindu zuen, Pablo beragana eramana izan zedilla.

7. Bera eramana izan zanean, ingurutu zuten Jerusalemik etorritako Juduak, eta salatu zuten, probatu etzitzaketan oben asko eta andiak.

8. Eta Pablok arrazoiak zaitzen zuen, esaten zuela: Ezertxotan ere ez det nik gaitzik egin, ez Juduen legearen kontra, ez tenploaren kontra, ez Zesarren kontra.

9. Baña Festok Juduakin ongi idukitzeagatik, erantzuten ziola Pablori, esan zion: Nai dezu Jerusalemenera igo, eta an nere aurrean juzgatua izan?

10. Pablok erantzun zuen: Ni arkitzen naiz Zesarren Tribunalaren aurrean, zeñ dan nik juzgatua izan bear dedan tokia; zuk txit ongi dakizu, nik Juduak gaitzik batere ez diedala egin.

11. Eta baldin zertan edo artan gaitzik egin badiet, edo eriotzaren diña egiten nauen gauzaren bat egin badet, ez det atzerapenikan batere ipintzen, illa izateko; baña oiek salatzen nauten gauzarik bat bakarra ere ez badet nik egin, iñork ere ez dauka eskubiderik, ni beren eskuetan jartzeko. Zesarri nagokio.

12. Orduan Festok, bere batzarrekoakin itz eginik, erantzun zuen: Zesarri zagozkio? Zesargana joango zera.

13. Eta egun batzuek irago ziradenean, Agripa erregea, eta Berenize, Zesareara jetxi ziran Festori agur egitera.

14. Eta nola an egun askotan gelditu zan, Festok erregeari, Pabloren gauzak adirazi ziozkan, esaten zuela: Felixek emen gizon bat lotuta utzi zuen.

15. Zeñaen gañean, ni Jerusalemengoa, etorri ziran nigana apaizburuak eta Juduen zarrak, eskatzen zutela, eriotzara kondenatua izan zedilla.

16. Zeñai nik erantzun nien: Erromaarrak ez oi dutela kondenatu gizonik batere, salatuak bere salatzaileak aurrean iduki, eta egiten diozkat salakuntzai erantzuteko denbora eman artean.

17. Nola bada berak, atzerapenikan batere gabe, etorri ziran onara biaramonean, eseria nengoala ni tribunalean, agindu nuen gizon hura nere aurrera ekartzeko.

18. Onen gañean, salatzaileak bere aurrean agertu baziran ere, ikusi nuen, etziotela egotzitzen, nik uste nuen gaiztakeriarik batere.

19. Zeuzkatenak berarekin ziran, Juduen superstizioen gañeko ezbai batzuek, eta Jesus, ildako baten gañean, zeñgatik Pablok esaten zuen, bizi zala.





20. Nola ez niekien nik zer egin onelako gauza baten gañean, esan nion, Jerusalemenera joan nai ote zuen, eta gauza oien gañean an juzgatua izan.

21. Baña nola Pablok eskatu zuen, bere kausa Augustoren iritzi, eta erabakira gelditu zedilla, agindu nuen, zaitua izan zedilla, aliketa Zesargana bialdu zedin artean.

22. Orduan Agripak Festori esan zion: Nik ere gizon orri aditu naiko nioke. Biar, erantzun zuen Festok, adituko diozu.

23. Eta biaramonean, etortzen ziradela Agripa, eta Berenize otspe andiarekin, eta sarturik errudunai aditzeko salan Tribunoakin, eta erriko andizkiakin, Pablo, Festoren aginduz ekarria izan zan.

24. Eta Festok esan zuen: Agripa erregea, eta emen arkitzen zeraten beste guztiak, ikusten dezute gizon au, zeñaen kontra juduen erri guztia etorri dan nigana Jerusalemenean, eskatzen dutela, eta deadarrez esaten dutela, ez duela onezkero geiago bizi bear.

25. Baña nik jakin det, ez duela egin eriotzaren diña dan gauzarik batere. Baña berak Augusto eskatu duen ezkerero, berari bialtzea erabaki det.

26. Baña nola ez daukadan gauzarik batere bere gañean Jaunari eskribitzeko, argatik zuen aurrera etorrierazi diot, batezere zure aurrera, o Agripa erregea, galdeak beroni eginik, zerbait zer eskribitu iduki dezadan.

27. Zeren, arrazoiak kanporako gauza iduritzen zat, gizon bat lotuta bialtzea, adirazi gabe, nolako gaiztakeriak dan salatua.

### OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Orduan Agripak Pablori esan zion: Baimena ematen zatzu, zure alde itz egiteko. Orduan Pablo, luzaturik eskua, arrazoiak ematen asi zan.

2. Zoriontasun anditzat daukat, o Agripa erregea, garbitu al izatean nere burua gaurko egunean zure aurrean, Juduak egiten dizkidaten salazio guztietatik.

3. Batezere jakinik zuk Juduen oitura guztiak, eta beren artean izan oi diraden ezbaiak. Argatik erregututzen dizut, arren eroapenarekin aditu nazazula.

4. Eta lenengo, nolakoa izan zan nere erreñukoen artean nere gazte denboratik Jerusalemenean egin nuen biziera, judu guztiak ongi dakite.

5. Lendanaz badakite (egia esan nai badute) ni, jarraitzen niola nere lenengo urteetatik gure erreljioko sektarik zieroenari, Fariseoa bezela bizi izan nintzala.

6. Eta orain juizioan salatua naiz, gure gurasoai Jaungoikoak eginda-ko eskeñtzen itxedopena daukadalako.

7. Eskeñtza bat, zeñaen betetasuna itxedotzen duten gure amabi tribuak, Jaungoikoa gau ta egun serbitzen dutela. Itxedon augatik naiz ni, o erregea, Juduak salatua.

8. Zer bada, uste al dezute sinesteziña dala, Jaungoikoak illak berriz biztutzea?

9. Nik, nigan danez, uste nuen, Jesus Nazaretkoaren izenaren kontra, asko gauza egin bear nituela.

10. Nik egin nuen bezela Jerusalemenean, non ez bakarrik sartu nituen karzeletan santuetatik asko, apaizburuakgandik onetarako artu nituen eskubideakin; baitaere izanik eriotzara kondenatuak, nik ere onetarako baimena eman nuen.

11. Eta nenbillala maiz sinagoga guztietatik, ekartzen nituen kastigen indarrez Jesusen izen santua blasfematzeraz, eta egunetik egunera beren kontra geiago ta geiago sumindurik erri arrotzeteraño joan oi nintzan ni, berak persegituaz.

12. Oiek onela ziradela, banijoala ni egun batean Damaskora, apaizburuen eskubideakin, eta baimenarekin.

13. Egunaren erdian ikusi nuen, o erregea, bidean, zeruko argi bat, eguzkia baño argiagoa, zeñaek bere errañuakin ingurutu ginduen ni, eta nerekin batean zijozenak.

14. Eta gu guztiok lurrera erortzen giñala, aditu nuen boz bat Hebreoko izkuntzan, esaten zidana: Saulo, Saulo, zergatik persegitzen nazu? Gauza gogorra da zuretzat, akulloaren kontra ostikoak aurtikitzea.

15. Nik berriz, esan nuen: Zeñ zera zu Jauna? Eta Jaunak esan zuen: Ni naiz Jesus, zuk persegitzen dezuna.

16. Baña jaiki zaitte, eta zure oñen gañean zaude, zeren onetarako agertu natzatzu, ipintzeko zu, ikusi dituzun gauzaen, eta berriz zuri agertu, ta erakutsiko dizkizudan beste batzuen ministro, eta testigutzat.

17. Eta libratuko zaitut erri onegandik, eta jentillakgandik, zeñaekgana orain bialtzen zaitudan,

18. Berai begiak idikitzeraz, biurtu ditezen illuntasunetatik argitasunera, eta Satanasen mendetik Jaungoikoagana; onenbesterekin beren bekatuen barkazioa iritxi dezaten, eta nigan dagoan fedearen bitartez, santuen herenziaren partale izan ditezen.

19. Ala bada, o Agripa erregea, ez naiz izan sinisgogorra zeruko ikusketara,



20. Baizik asi nintzan predikatzen aurrena Damaskon zeuden Juduai eta Jerusalem, eta Judeako erri guztitik, eta gero jentillai, penitentzia egin dezatela, eta Jaungoikoagana bihurtu ditezela, penitentiaren diña diran obrak egiten dituztela.

21. Gauza augatik Juduak eldu zidaten tenploan nengoala, eta il nai ninduten.

22. Baña Jaungoikoaren laguntasunarekin, gaurko eguneraño iraun det, egiaren testigantza ematen andiai eta txiquai, ez dedala beste gauzarik predikatzen, Moisesek eta Profetak, gero gertatuko zala adirazi zutena baño.

23. Au da, Kristo illa izango zala, eta illen artetik berriz biztuko zan lendabizikoa izango zala, eta Ebanjelioko argia erri oni eta jentillai erakutsiko ziela.

24. Berak bere alde oiek esaten zituela, esan zuen Festok boz goratun: Pablo, zu zoratu zaude, letra askoak zentzua nastu dizute.

25. Eta Pablok erantzun zuen: Ez nago zoratu; o Festo txit ona, baizik egiazko, eta zentzu andiko itzak esaten ditut.

26. Ongi dakizki erregeak gauza oiek, eta argatik bere aurrean alako itxedopenarekin itz egiten det, ongi jakinik, gauza oietan ez dagoala batere, berak ez dakianik; aitatu diran gauzaetatik batere ez dalako bazter ezkuturen batean egin izan.

27. O Agripa errege! Profetakgan sinistzen badezu? Nik badakit berakgan sinistzen dezula.

28. Onetara Agripak farra irriaz, Pablori esan zion: Gutxigatik kristau egiten nazu.

29. Eta Pablok: Arren bada Jaungoikoari nai izan dakiola, nik nai dedan bezela; eta ala ez gutxigatik, ez askogatik ez dedilla inor ere gelditu, ez zu, ez aditzen nautenetatik battxo ere, jarri gabe eginak alakoak, nolakoa naizan ni, salbu katee oiek.

30. Eta erregea, eta gobernaria, eta Berenize, eta berakin eseriak zeudenak, jaiki ziran.

31. Eta berak andik alde egin zutenean, itz egiten zuten, esaten zutela: Egiaz ez du gizon orrek egin, illa izateko, ez lotua egoteko diña dan gauzarikan batere.

32. Eta Agripak Festori esan zion: Zesargana eramana izateko eskatu ez balu, gizon au askatua ipiñi zatekean.

## OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Erabaki zanean bada Pablo Italiara itsasoz joatea, eta jarri izan zedilla katigu zeuden besteakin, soldadu talde Augusta, Julio izena duenaren zenturion baten mendean,

2. Sartzen giñala Adrumetoren ontzi batean, eta asitzen giñala itsasoz ibiltzen Asiako tokien aldamenetatik, ongi ibilli giñan, Aristarko Mazedonio Tesalonikakoak beti laguntzen zigula.

3. Biaramonean Sidonera allegatu giñan, eta Juliok Pablo biguñtasunarekin tratatzen zuela, utzi zion irtetzen adiskideak bisitatzer, eta bear zuena ornitzera.

4. Eta andik alde egiten genduala, joan giñan arraunean Txiprerren azpitik, aizeak kontrakoak ziradelako.

5. Eta iragorik Ziliziko eta Pamfiliako itsasoa, etorri giñan Listrara, zeñ dan Liziakoa,

6. Non arkiturik Zenturionak Alejandriatik Italiara zijoan ontzi bat, ontzi onetara iragoerazi zigun.

7. Eta egun askotan txit geldiro itsasoan genbiltzala, eta nekez allegatzen giñala Gnidoen aurkez jartzera, aizeak galerazitzen zigulako, ibilli giñan Kretako itsasbazerretatik, Salmongo kabuaren ondoan.

8. Eta iragorik au neke andiarekin, eldu giñan Portuonak izena duen toki batera, zeñ dagoan Talassa erriaren aldean.

9. Baña denbora andia iragorik, eta andikan aurrera ez izanik irrisku gabea itsasoz ibiltzea, barauaren denbora iragoa zalako, Pablok kontuan jartzen zituen,

10. Esaten ziela: Nik ezagutzen det, nere adiskideak, itsasoz ibiltzea asi dala izaten irrisku andikoa, eta kalte andikoa, ez bakarrik ontziarentzat, eta zamarentzat, baita gure bizitzaentzat ere.

11. Baña Zenturionak siniste geiago ematen zien pilotoari eta ontzi jabeari, Pablok esaten zuen guztiari baño.

12. Eta nola portu hura etzan egokia negua iragotzeko, geienen iritzia izan zan, joan gindezela belaz negua iragotzeko tokia artzera, inolaere al bazan Fenize, Kretako portura, Egoaren eta Sartaizearen aurkez zegoanera.

13. Ala bada Egoa aizea zerabillala, berarekin irtengo zutela uste izanik, anklak jazotzen zituztela Assonen, bazijoazen Kretako ugarteko itsasbazerretatik ibilliaz.

14. Baña denbora gutxiren barrenen jo zuen ontziaren kontra, Tifoniko aize sendo, ifar sortaldekoa izena duenak.



15. Ontzia arrapatua izanik, eta txirimolari ezin aurkezturik, aizeen borondate eta erara giñan eramanak.

16. Aurtikiak izanik Kauda izena duen ugarte baterontz, txanala nekez iritxi al izan genduen.

17. Zeñ sarturik barrenen, itsasgizonak egiten zituzten aleginak guztiak, lotutzen zutela ontzia, ondarpillaren baten kontra jo etzetzan beldurrez. Onela beeraturik belak, bagai eramaten utzi zien.

18. Biaramonean nola arkitzen giñan ekaitzak eta itxasandiak txit gogorkiro erasoak, ontziko zama itsasora bota zuten.

19. Eta iru egun geroago, ontziko beardiak, eta gañerako tresnak, zeren eskuakin aurtiki zituzten.

20. Bitartean egun askotan ez zan ikusi eguzkirik, ez izarrik, eta ekaitza beti zan andia alako moduan, non, salbatzeko itxedopen guztiak galdu giñituen.

21. Orduan Pablok, nola denbora andia zan iñork ere janaririk artu etzuela, beren erdian jarririk, esan zuen: Egiaz, nere lagunak, obe izango zan, neri sinistuta, Kretatik irten ez bagiña, eta egon bagiña ondamen eta galmen au gabetanik.

22. Baña orain esaten dizutedana da, biotz alaia iduki dezazutela, zeren zuetatik bat ere ez dan galduko, ontzia da bakarrik galduko dana.

23. Zeren bart agertu zat, ni berea naizan, eta bera serbitzen dedan Jaungoikoaren Aingeru bat,

24. Esaten didala: Etzaita beldur izan Pablo. Zuk Zesarren aurrean agertu bear dezu, eta ona emen non Jaungoikoak, zurekin itsasoaan dabil-tzan guztien bizitzak eman dizkitzun.

25. Argatik nere lagunak, zaudete alaituak, zeren nik Jaungoikoagan sinistzen det, nola eskeñia izan zatan, ala egiztatuko dala.

26. Atzenean ere ugarte batean jotzera etorri giñan.

27. Eta amalaugarren egunaren gaua allegatu zanean, genbiltzala gu itsasoz Adriatikoko itsasoaan, itsazgizonak, gauaren erdirontzeko garaiean sospetxatzen zuten lurraen bat agertzen zizaiela.

28. Argatik aurtiki zuten zundaleska eta ogei braza ur arkitu zituzten, eta piska bat aurrerago, amabost bakarrik arkitu zituzten.

29. Orduan ugarriren batean erori ez gindezen beldurrez, aurtiki zituzten popatik lau ankla, eta egunaren zai zeuden.

30. Baña nola itsasgizonak ontzitik iges egin nairik, aurtiki zuten txanala itsasora, proako aldamenetik anklak piskatxo bat urrutirago aurtiki-tzera joateko aitzakiarekin,

31. Pablok Zenturionari, eta sodaduai esan zien: Gizon oiek ontzian gelditzen ez badira, zuek etzintezke salbatu.

32. Orduan soldaduak txanalaren sokak ebaki zituzten, eta galtzen utzi zioten.

33. Eta eguna zabaltzen asi zanean, Pablok guztiak erregututzen zien, jan zezatela, esaten ziela: Gaur dirade amalau egun itxedotzen dezutela ekaitzaren bukaera, baraurik zaudete, ezertxoere, esaterako jan gabe.

34. Argatik erregututzen dizutet, janariaren piska bat artu dezazutela zuen osasunerako; zeren zuetatiko baten ere buruko ille bat bakarrik ez da galduko.

35. Eta oiek esanik, arturik ogia, guzien aurrean Jaungoikoari esker-rrak eman ziozkan, eta txikitutzen zuela, jaten asi zan.

36. Onenbesterekin alaiturik guztiak, berak ere jan zuten.

37. Ontzian geunden lagun guztiak berriz, berreun eta irurogeita amasei lagun giñan.

38. Eta janariz ase ziranean, ontzia arindutzen zuten, garia itsasora aurtikitzen zutela.

39. Eguna argitu zanean, etzuten ezagutzen zeñ lur zan agertu zitzaiena. Ikusten zuten bai zeukala jira bat plaiarekin, zeñatara uste zuten ontzia alderazitzea, al bazuten.

40. Jasorik bada anklak, utzitzen ziran itsasoaren agindura; lasaitzen zituztela denbora berean lemaren sokak; eta jasorik popako bela, aizea artzeko, plaiarontz zuzentzen ziran.

41. Baña topo egirik itsasoa sartzen zan lur zati, lubes batean, zeñak aldamen bietatik itsasoa zeukan, enkallatu zan ontzia, proako aldamera mugimendu gabe gelditzen zala, itsasondoan sartua; bitartean berriz, popa itsasoaren indarrarekin idikiaz zijoan.

42. Orduan soldaduak erabaki zuten, katibu zeuzkatenak iltzea, batek edo batek igerian igesik egin ez zezan.

43. Baña Zenturionak, Pablo salbatu nairik, galerazi zien onlako gauzarik egitea; eta agindu zuen, igerian zekitenak, uretara aurrenak aurtiki, eta lurrera irten zitezela.

44. Gañerakoetatik batzuek, oletan eraman zituzten; beste batzuek berriz, ontziaren zati, an zebiltzanetan. Eta ala egiztatu zan, lagun guztiak lurrera bizirik irtetzea.



## OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta irten giñanean, orduan ezagutu genduan, ugarte aren izena Malta zala. Basati aiek beren aldetik biguñtasun andiarekin tratatu ginduzten.

2. Zeren bereala su andi bat eginik, berotzen, eta leortzen ginduzten guztiok, erortzen zan euriagatik eta otzagatik.

3. Eta Pablok arturik txarmendu batzuek, eta suaren gañean ipiñirik, suga bibora batek, berotasunetik iges egiten zuela, saltatu zuen, eta Pablori bere eskutik eldu zion.

4. Gizaseme ta emakume tolesgabeko aiek ikusi zutenean suga bibora bere eskutik zinzilika, elkarri esaten zioten: Gizon onek, gizoniltzalleren bat izan bear du; zeren, itsasotik nekez bizirik irtenda ere, Jaungoikoaren bengantzak ez du nai bizi dedilla.

5. Berak ordea suan suga bibora astintzen zuela, gaitzik batere etzuen artu.

6. Orduan jakinduria gabe aiek uste zuten andituko zala, eta batbatean illa eroriko zala, baña luzaro itxedotzen zutela ere, ikusirik gaitzik batere etzitzaiola gertatzen, iritzia aldaturik, esaten zuten: Jaungoikoren bat zala.

7. Inguru aietan zeuzkan soro batzuek islako Prinzipe, Publio izena zuen batek, zeñak abegi onarekin artzen ginduela, iduki ginduen ostaturu iru egunean biguñtasun andiarekin.

8. Eta gertatu zan, arkiturik Publioren aita txit atsekabetua sukarrarekin, eta beeruntzkoarekin, sartu zan Pablo bera ikustera, eta orazio eginik, eta bere gañean eskuak jarririk, sendatu zuen.

9. Gertakari au ikusirik, isla artan gaitzen batzuek zeuzkaten guztiak, Pablogana joaten ziran, eta gelditzen diran sendatuak.

10. Argatik onra andiak egin zizkiguten, eta itsasoan sartu giñanean, bear genduen guztia eman ziguten.

11. Iru illabete iragota, asi giñan itsasoz ibiltzen, Alejandriako ontzi batean, zeñak negua isla artan irago zuen, eta ezagungarritzat Kastor, eta Polux zeuzkan.

12. Eta etorri giñanean Sirakusara, an iru egunean gelditu giñan.

13. Emendik Siziliako itsasbazerretik, Rejiora etorri giñan, eta biaramonean Egoea zerabillala, bi egunean allegatu giñan Puzolera,

14. Non anaiak arkiturik, erregutu ziguten zazpi egunean berakin egon gindezela: eta onela Erromara etorri giñan.

15. Erri onetako anaiak, nola gure etorreraren berriak bazeuzkaten, bidera irten ziguten Foro Apioraño; eta beste batzuek Iru-Tabernetaraño.

Zeñak ikusi zituenean Pablok, Jaungoikoari eskerrak eman ziozkan, eta alaitu zan txit.

16. Erromara allegatu giñanean, Pablori utzi zioten egoten beregan etxe batean soldadu bat beillan zeukala.

17. Iru egun iragorik, Juduen andizkiai erregutu zien bera ikustera joan zitezela. Bildu ziranean, esan zien: Ni, nere anaiak, gaitzik batere egin gabe erriaren kontra, ez gure gurasoen erakutsien kontra, Jerusalemen izan nintzan sokakin lotua, eta Erromaarren eskuetan jarria,

18. Zeñak galdeak egin zizkidatenean, utzi nai ninduten, etzegoala nigan, eriotzaren diña zan gauzarik batere.

19. Baña kontra egiten zutela Juduak, Zesarri nagokiola esan nuen; baña ez nere erreñukoagatik salaziorik batere egiteko.

20. Argatik bada ikusi nai izan zaituztet, eta itz egin nai izan dizutet, jakin dezazuten, Israelko itxedopenagatik, katea onekin lotua ikusten naitzala.

21. Eta berak esan zioten: Guk ez degu artu kartarik Judeatik zure gañean; ezta andik etorritako anaia batek ere, ez du zugatik gaitzik batere kontatu, edo esan.

22. Baña jakin nai degu, zure iritziak zeñ diraden, zeren berriak dauzkagun sekta orri, toki guzietan kontra egiten diotela.

23. Eta berari aditzeko eguna izendaturik, etorri ziran beragana, bere etxera txit asko, zeñai predikatzen zien Jaungoikoaren erreñua goizetik gaue-raño, sendotzen zituela gizon jakintsuen esanakin, esaten zituen gauzak; eta Moisesen legearekin, eta Profetakin probatzen ziela, Jesusi zegokiona.

24. Batzuek sinistzen zituzten esaten zituen gauzak: beste batzuek etzituzten sinistzen.

25. Eta nola etzeuden elkartuak beren arteko iritziak, alde egiten zuten, zeñaen gañean Pablok esaten zuen: O! nolako arrazoiarekin itz egin zien Espiritu Santuak gure gurasoai, Isaias Profetaren bitartez,

26. Esaten zuela: Zoaz erri orretara, eta esan zaiezu: Adituko dezute zuen belarriakin, eta ez dezute konprendituko; eta ikusi arren zuen begiakin, ez dezute begiratuko,

27. Zeren erri onek, gizendurik bere biotza, tapatu ditu bere belarriak, eta estutu bere begietako betileak, berakin ikusi ez dezaten, eta belarriakin aditu ez dezaten, eta biotzarekin konprenditu ez dezaten beldurrez; eta ala nigana biurtu ez ditezen, eta nik sendatu ez ditzadan.

28. Argatik ezagutua iduki bear dezute zuek guztiok, Jaungoikoaren mesede osasuntsu au, bialdua zatela jentillai, eta berak bozkarioz artuko dutela.



29. Eta oiek esanik, irten ziran beragandik Juduak, beren artean elean ari ziradela, eta ezbai andiak zeuzkatela.

30. Eta Pablo bizi izan zan urte bi osoetan, errentan artu zuen etxe batean, non artzen zituen, bera ikustera joaten ziran guztiak,

31. Jaungoikoaren erreñua predikatzen ziela, eta ematen zituela erakutsiak aukera guztiarekin, inork ere galerazitzen etziola, Jesukristo gure Jaunari zegokionean.

## APOSTOLUEN EGIÑAK-2

### LENENGO KAPITULUA

1. Nere aurreneko izkintzan itz egin det, gauza guztien gañean, zeñak Jesus asi zan egiten, eta erakusten,

2. Apostoluari, Espiritu Santuaren birtutez, erakutzi zien eguneraño, zeruan izandu zala artua,

3. Agertu zitzaien bizirik, bere pasioko señaiekin, berrogei eguneko denboran, zeruetako erreinuaren gañean itzegiten.

4. Eta berekin jaten zegoala, agindu zien etzitezela atera Jerusalemdik, baizik itxon zezatela aitag eskini duena, bere aotik, aditu duten bezela.

5. Zergatik Juanek, egiaz bateiatu zuen urtan, eta zuek izango zerate bateiatuak Espiritu Santuan, egun oiek pasatzen diranean.

6. Orduan, alderatu zitzaionak, galde egiten zioten, esanaz: Jauna, biurtuko ote dezu denbora onetan Israelgo erreinua?

7. Eta erantzun zien: Ez dezute zuek jakin bear denbora eta orduak, aitag bere aginterarekin jarri zituenak:

8. Baizik artuko dezute Espiritu Santuaren birtutea, zeñ etorriko dan zuen gañean, eta izango zerate, nere testiguak Jerusalemene, eta Judea eta Samaria guztian, lurraren punta guztietaraño.

9. Au esan zuenean, guztiak begira zeudela, juan zan igotzen, eta odei batek ezkutatu zuen beren aurrean.

10. Eta zerura begira zeudenean, bera zijoanean, jarri ziran aldamean bi gizon soñeko zuriakin,

11. Zeñek esan zieten: Galileoko Gizonak, zerura begira zaudete? Zuen aurrean zerura igo dan Jesus au, ala ikusiko dezute etorzen, igotzen ikusi dezuten bezela.

12. Orduan biurtu ziran Jerusalemene, olibasko menditik;

13. Eta sartu ziranean, igo ziran afaritokira, non zeuden Pedro eta Juan, Santiago eta Andres, Felipe eta Tomas, Bartolome eta Mateo, Santiago Alfeo eta Simon Zelosoa, eta Judas Santiagoren anaia.

14. Oiek guztiak zeuden erregutzen beren emakumeekin, eta Jesusen Ama Maria bere anaiarekin.

15. Egun aietan, altxaturik Pedro bere anaien erdian (eta ziran eun eta oge bezela) esan zuen:





16. Anaiak: konbeni zan Espiritu Santuak Dabiden aotik esan zuena, Judasen gañean, kunplitu zedien, au izan zala, Jesus preso egin zutenean, agintaria;

17. Gure artean kontatzen zana, eta gure ministerioan parte zeuka-dala,

18. Onek bada eduki zuen gaiskitasuneko kanpoa, eta txintxillik jarri-rik, lertu zan erditik; eta issuri ziran bere barrenak.

19. Eta jakin egin zioten Jerusalem bizi ziran guztiari, eta kanpo ura izandu zan deitua bere izkintzan, Hazeldama, esan nai duena, odolezko kanpoa.

20. Zergatik Psalmoetako liburuan dago eskribiturik: Aien bizilekua gelditu dedilla bakarrik, eta iñor bizi ez dedilla, eta artu dezala beste batek lur aren agintea.

21. Konbeni da bada Jesus gurekin sartu eta atera zan artean, gure artean, egondu ziran gizon oietatik,

22. Juanen bateiotik asita, gure artean artua izandu zan daño, izan dedilla gurekin testigu, nola piztu zan.

23. Eta markatu zituzten bi, bata Jose, Barsabas deitutzen zana, eta izengoitiz justuba, eta bestea Matias.

24. Eta errege egiñaz esan zuten: Zuk, Jauna, gure biotzak ezagutzen dituzuna, erakutsi egiuzu, oiek bietatik, zein autu bear degun,

25. Apostoladu onetan lekua artu dezan, eta nondik bere gaitzazu-nagatik bota izan zan Judas, bere lekura juateko.

26. Eta suerteak botata gertatu zan Matias, eta izandu zan beste ameikaren artean kontatua.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Eta Pentekostesko egunak kunplitzen ziranean, gustiak zeuden alkarrekin leku batean;

2. Eta bereala etorri zan zerutik otz aundi bat, aize andi batena beze-lakoa, eta bete zan ezerita zeuden etxea.

3. Eta agertu zitzaioten mingañ batzuek, zuzkoak bezela, eta gelditu ziran bakoitzaren gañean:

4. Eta izandu ziran Espiritu Santuz beterik, eta asi ziran bakoitzak bere izkuntza itzegiten, Espiritu Santuak ezaten bazien bezela, itzegiteko.

5. Eta bizi ziran orduan Jerusalem Judioak, gizon erlijiosoak, zerua-ren azpian dauden toki gustietakoak,

6. Eta otz au eginda, etorri zan jende asko eta gelditu zan izaturik, zergatik aditzen zuten, bakoitzak itzegiten ziotela beren egiazko izkuntzan.

7. Eta zeuden ikaturik eta arritzen ziran esanaz: Ez dezute ikusten, itz egiten dauden oiek danak Galileoak dirala.

8. Zergatik bada aditzen diegu itzegiten jaio ginan lurreko izkuntzan?

9. Partoak eta Medoak, Mesopotomian bizi diran gustiak, Judean eta Kapadozian, Ponton eta Asian,

10. Phrijian eta Panphilian, Ejipton eta Libiako lurretan, Zireneko aldamentean dagoana, eta Erromatik etorri diranak,

11. Judioak ere, eta Proselitoak, Kretenseak, eta Arabeak: aditu diegu gure izkuntzan Jaungoikoaren aunditazunak.

12. Arritzen ziran bada gustiak, batak besteari esanaz: Zer esan nai du onek?

13. Bañan beste batzuek farra egiñaz esaten zuten: Ardos beterik daude.

14. Bañan Pedrok bere ameika lagunen artean zutik jarri-rik deadarrez ezan zien: Judeako gizonak, eta Jerusalem bizi zeratenak; jakin zazute eta adietzazute itz oiek.

15. Zergatik ez dauden eranak zuek uste dezuten bezela, bada orain da egunaren terziako ordua:

16. Bañan au da Joel Profetak ezan zuena:

17. Eta gertatuko da aitzeneko egunetan, ezaten du Jaunak, nik issuri-ko dedala nere Espiritua aragi gustiaren gañean: eta zuen semeak eta alabak ezango dute zer gertatuko dan, eta zuen morroiak ikusiko dituzte bisioak, eta zuen gizon sarrak ametz egingo dute.

18. Eta egiaz egun aietan issuriko det nere Espiritua, nere serbitza-rien gañean, eta ezango dute zer gertatuko dan:

19. Eta egingo ditut zeruan gauza arrigarriak; eta señaleak lurrean, odola, sua eta kearen baporea.

20. Eguzkia biurtuko da illuntazunean, eta illargia odoletan, jaun aundiaren eguna etorriedin baño lenago.

21. Eta gertatuko da, Jaunaren izena deitzen duena, isango dala salbatua.

22. Israelgo gizonak; aditu etzazute itz oiek; Jesus Nazareno bere birtuteak gaitik, bere milagroakgaitik izandu zan Jaungoikoagaitik zuen artean autua, zuek dakizuten bezela;

23. Au Jaungoikoaren agintez eta bere aurrean, izandu zan entrega-tua, eta zuek il zenduten, gurutzifikaturik gizon gaistoen eskuetan:

24. Jaungoikoak pistu du au eriotzako miñak kenduta zergatik etzan posible eriotza gelditzea.



25. Zergatik Dabidek esaten du: Kontu egiosu beti Jaunari, nere aurrean, zergatik dago nere eskubiko aldean, ni mubitu ez nadien.

26. Orregaitik nere biotza poztu zan, eta nere mingaña ere, eta gañera nere aragiak sosegatuko du, esperanzan:

27. Zergatik ez dezu utziko nere korputza sepulkroan, eta ez dezu ere utziko zure Santuak ikusi dezan gaizkitazuna.

28. Erakutsi zidazun bizitzeko bideak, eta beteko nazu pozez zure aurrean egoten naizenean.

29. Anaiak sillegi izan dedilla neretzat, Patriarka Dabiden libertazunarekin esateko, illa eta sepultatua izandu zala, eta gaurko eguneraño, gure artean dagoala bere sepultura.

30. Isanik bada Profeta, eta jakiñik Jaungoikoak egiaz esan zuela juramentuaren azpian, bere biskarretako frutua eseriko zala bere Tronuan;

31. Aurretik ikusirik, jesusen pistutzearen gañean itz egin zuen; etzala izandu sepulturan utzia, eta ezta ere bere argia usteldua.

32. Jesus au pistu zuen Jaungoikoak guztiok testigu giñala.

33. Ala bada Jaungoikoaren eskutik aunditurik, eta arturik aitagandik Espiritu Santuaren promesa; issuri du gure gañean, zuek ekusten eta aditzen dezuten au.

34. Zergatik Dabid etzan igo zeruetara: eta ala ere esaten du: Jaunak esan zion bere Jaunari, eseri zaite nere eskubiko aldean,

35. Zure etsaiak nere oñaren azpian jarri ditzan artean.

36. Orregaitik jakin beza egiaz Israelgo etxe guztiak, zuek gurutzifikatu zenduten Jesus au, egin zuela Jaungoikoak, Jauna, eta Kristo.

37. Gauza oiek aditu zitustenean, tristatu ziran biotzetik, eta esan zieten Pedro eta beste Apostoluari: Anaiak, zer egingo degu?

38. Eta Pedrok erantzun zien: Damutu zaitezte, eta bakoitza izango da bateiatua Jesukristoren izenean, zuen pekatuen barkaziorako: eta artuko dezute Espiritu Santuaren Doia.

39. Zergatik, zuentzat, zuen semeentzat eta urruti egonagatik Jaunak bere aldera deitzen dituen guztientzat, da egin duen promesa.

40. Oiekin eta asko arrazoiakin, jakin egin zien; eta adieratzen zien esanaz: Salba zaitezte kasta gaisto onetatik.

41. Eta beraren itza artu zutenak, izandu ziran bateiatuak, eta egun artan izandu ziran iru milla persona bezela juntatuak.

42. Eta oiek zeuden firme Apostoluen dotriñan eta ogiaren partizioan, eta erreguetan.

43. Eta persona gustiak zeuden bildurrez: eta Apostoluak egiten zitusten Jerusalem milagro eta señaie asko, eta guztiak zeukaten bildur aundia.

44. Eta gustiak uste zuten zeudela baturik, eta zeukaten gauza guztiak, guzianak bezela.

45. Beren lurak eta hazienda gustiak salduten zitusten, eta beren premiak ziran moduan, gustiari partitzen zioten.

46. Eta egunero zeuden baturik tenploan; eta etxe gustietan ogia partiturik, arzen zuten jatekoa biotzeko pozgarri aundi batekin,

47. Jaungoikoa alabatuaz, eta erri guztian grazia arkitzen zutela: eta Jaunak egunero aunditzen zuen, unio onetan salbatu bear ziraden pertsonen aunditazuna.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Pedro eta Juan juaten ziran tenplora erregutzera nonako orduan.

2. Eta ekarri zuten gizon erren bat, eta jarten zuten Elizako atarian, an sarzen ziran guztiai limosna eskatzeko.

3. Onek, Juan eta Pedro Elisari sarzen ikusi zituenean, erregutu zien limosna emateko.

4. Eta Pedrok, Juanekin begiak jarririk, gizon onetan, esan zion: Begira iguzu.

5. Eta berak begiratzen zien atenzioarekin, zerbait emango zioten ustean.

6. Eta Pedrok esan zion: Ez dadukat urrerik eta ere sillarrik; bañan ematen dizut daukarana: Jesus Nazarenoaren izenean, altxatu zaitez, eta ebilli zaitez.

7. Eta eskubiko eskutik artuta altxatu zuen, eta orduan bertan bere oñak izandu ziran konponduak.

8. Eta salto bat eginik jarri zan zutik, eta asi san ebiltzen; eta sartu zan berakin Elisari saltatutzen eta Jaungoikoa alabatzen.

9. Eta erri gustiak ikusi zuen ebiltzen, eta Jaungoikoa alabatzen.

10. Eta ezagutzen zuten, zala, Elisako ate ederrean limosna eske jarten zana, eta gelditu ziran arriturik eta soraturik bezela gizon onekin gertatu zana gaitik.

11. Eta Pedrori eta Juani elduta zegoala etorri zan erri gustia izaturik Salomonen Portikura.

12. Eta Pedrok au ikustean esan zion erriari: Israelgo gizonak, zergatik arritzen zerate, edo begiratzen diguzute gure birtutez edo poderiagatik, gizon au ebiltzen asi balitz bezela?



13. Abrahamen, Isaaken, Jakoben, eta gure aitaen Jaungoikoak glori-fikatu du bere seme Jesus, zein zuek ukatu zenduten ena eta Pilatosi eraman ziozuten, libratu bear zana juzgatuaz.

14. Baño zuek ukatu zenduten Santua eta justua zana, eta eskatu zenduten gizon ilzallea emateko zueri.

15. Eta iltzenduten biziaren eginzallea, zein Jaungoikoak illen artetik piztu zuen, testigu izandu geran bezela,

16. Eta bere fedearen izenean, konfirmatu du bere izena, zuek ikusi eta ezagutzen dezuten gizon onetan, eta dadukan fedeagatik eman dio, zuen aurrean osasun osoa.

17. Eta orain, Anaiak, badakit nik, zuek egin dezutena zuen jakinduriaren gutxitazuna gatik, eta zuen prinzipena gatik,

18. Bañan Jaungoikoak lendanik Profeta guztien aotik esanda zeukana, bere Kristo agertuko zala, kunplitu du.

19. Damutu zaitetzte bada, eta biurtu zaitetzte zuen pekatuak barkatuak izan ditezten.

20. Postasuneko denborak Jaunaren arrear etortzen diranerako eta Jesus zueri predikatu zizuten ura, bialdu dezan artean.

21. Zein egiaz izan bear da rezibitua zeruan, gausa guztiak juntatu ditezten artean, jaungoikoak bere Profeta Santuen aotik itzegin zuen bezela.

22. Zergatik Moisesek esan zuen: Jaungoikoa altxatuko du zuen anaien artetik, Profeta, ni bezela, eta esaten dizuten gustia adituko diozute.

23. Eta gertatuko da, Profeta ari aditzen ez dion gustia, izango dala erritikan botea.

24. Eta egun oiek lendanaz esan zitusten Profeta gustiak Samuelen denboratik, eta gozotik itzegin dutenak.

25. Zuek zerate Profeten semeak, zuen aitari agindu zien testamentuarenak, Abrahami esan zionean: Lurreko familia guztiak izango dira zure asian bedeinkatuak.

26. Jaungoikoak bere semea pistutzean, bialdu du aurrena zuetara, bedinkatuak izan zaitetzten beragatik, eta bakoitza alderatu dedin bere gastotazugandik.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta aiek erriari itzegiten zeudela, agertu ziran Sazerdoteak Elisako majistradua eta Saduzeoak,

2. Erriari erakusten ziotelako eta illen piztutazuna predikatzen zutelako,

3. Preso egin zituzten eta karzelan sartu zituzten urrengo egunerañon zergatik berandutu zan.

4. Bañan predikazioa aditu zuten gizon askok, bost millaraño, sinistu zuten.

5. Eta gertatu zan, urrengo egunean batu zirala Jerusalem beren agintariak, gizon zarrak eta Eskribak:

6. Anas Sazerdoten agintaria, Kaifas, Juan, Alejandro eta Sazerdoten linajekoak ziran beste asko.

7. Eta erdira agertu asiñik galdetu zieten: Zeñen agintazunaz, o zeñen izenean egin dezute au?

8. Orduan Pedrok, Espiritu Santuz beterik, esan zien: Erriko agintaria, eta gizon zarrak, aditu esazute:

9. Zeñen birtutez sendatua izandu dan gizon gasso bat arrazoa eskatzen zaiguz (sic) eskero,

10. Jakin zazute guztiok, eta Israelgo erri guztiak, Jesus Nazareno, zuek gurutzifikatu zenduten, eta illen artetik Jaungoikoak pistu zuenaren birtutez, sendatua izan dala zuen aurrean dagoan gizona.

11. Au da, zuen argin maisuak gatik, autua izandu eztan arria, eta eskinaren buruan jarria izandu dana:

12. Eta ez dago osasunik bestetan. Zergatik ez dago zeruaren azpian, gizonai emandako izenik, zeñean salbatuak izan bear degun.

13. Pedoren eta Juanen firmeza ikusi zutenean, uste zuten zirala jakinduria eta letra bageko gizonak, eta arritutzen ziran, eta esagutzen zuten Jesusekin egondu zirala;

14. Eta nola beren artean ikusten zuten zegoala sendatua izandu zan gizona, ezin ezer esan zesaten beren kontra.

15. Bañan agindu zieten kanpora ateratzeko, ieta bere artean esaten zuten,

16. Zer egingo degu gizon oiekin? Zergatik egin dute Jerusalem dauden gustiak ikusi duten milagroa; jakiña da bada, eta ezin ukatu deza-kegu.

17. Oraindik errian geiago aditzera eman ez dedin, bildurto ditzagun geiago izen onetan itzegin ez dezaten iñori.

18. Eta otzeginda, esan zien: Etzezatela beñere geiago itzegin, eta eztaere erakutzi Jesusen izenean.

19. Orduan Pedrok eta Juanek erantzun zieten: juzgatu ezazute zuek, jaungoikoaren aurrean arrazoi dan, berari bañan lenago zueri aditzera.

20. Bada ezin egon gintezke ikusi eta aditu ditugun gausaren gañean itzegin bage.



21. Orduan amenazak egiñaz, libre juaten utzi zieten, zergatik etzuten billatzen kastigatze motiborik, eta zergatik guztiak alabatzen zuten, gertatu zan milagru aundi au.

22. Zergatik gizon onek zeuzkan berrogei urte baño geiago, sendatua izandu zanean.

23. Libratu ziranean, etorri ziran bere lagunen artera, eta kontatu zieten Sazerdoteen agintariak eta gizon zarrak esan zien guztia.

24. Eta aditu zutenean, danak batean Jaungoikoari otsegin zioten, esanaz: Zu zera zerua, lurra, itsasoa, eta oietan arkitzen diran gauza guztiak egin zituena:

25. Espiritu Santuak gure aita eta zure morroi Dabiden aotik esan zenduena: Zergatik jendeak deadar egiten zuten, eta erriak gausa utsetan pensatzen zuten?

26. Altxatu ziran lurreko erregeak, eta batu ziran Prinzipeak, Jaunaren eta Kristoren kontra.

27. Zergatik egiaz batu ziran Herodes eta Ponzio Pilato Jentillakin eta Israelgo erriakin, zuk unjitu zenduen, zure Seme Jesusen kontra,

28. Zure eskuak, eta zure konsejuak, egin zedilla agindu zutena.

29. Eta orain, Jauna, begiak jarri itzatzu aien amenazetan, eta emaielusu lizenzia zure sierboai, libertade gustiarekin zure itza esan dezaten.

30. Zure eskua lusatuaz, gaitzak sendatzeko, eta zure seme Jesusen izenean egin ditezen milagroak eta arritazunak.

31. Eta erregutu zutenean, juntaturik egon ziran lekua mobitu zan; eta bete ziran Espiritu Santuaz, eta itzegiten zuten konfianzarekin Jaunaren itza.

32. Eta sinistetuzuten guztien biotzak ziran bat bakarra, eta anima bat; eta etzuten iñork esaten, zeukan gausarik berea zala, baizik gauza guztiak zirala gustienak.

33. Eta indar aundiarekin, ematen zuten Apostoluak Jesukristo gure Jaunaren piztutazunaren testimonioa; eta zeukaten guziak grazia aundia.

34. Eta etzegoan aien artean iñor ere premian; zergatik zeukaten lur eta etxe guztiak saldutzen zituzten, eta ekarten zuten saldutzen zuenak balio zuena,

35. Eta jarten zuten Apostoluen oñetan; eta partitzen zitzaion bakoi-tzari bear zuena.

36. Eta Josek, zeñari Apostoluak deitzen zioten Bernabe (esan nai duena posgarriaren semea) Lebita Txipren jaioa,

37. Nola zeukan lur bat, saldu zuen, eta jarri zuen Apostoluen oñetan, balio zuena.

## BOSTGARREN KAPITULUA

1. Eta Ananias zeitzaion gizon batek, bere emazte Saphirarekin saldu zuen lur bat,

2. Eta ostu zuen lurra balio zuena, bere emazteak konsentituta; eta parte bat eramanda ipiñi zuen Apostoluen oñetan.

3. Eta esan zion Pedrok; Ananias, zergatik tentatu du zure biotza Satanasek, Espiritu Santuari gesurra esateko, eta lurra balio zuena ostutzeko?

4. Ez da egia konserbatuta zuretzat geldituko zala, eta salduta zure agintean zeukazula? ¿Zergatik bada jarri zenduen zure biotzean gausa au? Zuk gezurra esan diozu Jaungoikoari, eta ez gizonai.

5. Ananias itz oiek aditu zituenean, erori zan eta ilzan, eta etorri zan aditu zuten guztien gañean beldur aundi bat.

6. Eta mutil batzuek altxaturik, apartatu zuten, eta eraman zuten enterratzera.

7. Eta andik iru ordura bezela, sartuzan bere emaztea ere zer gertatu zan etzekiela.

8. Eta Pedrok esan zion: Emakumea, ezan egirazu, onenbestean saldu dezute soroa? Eta eranzun zion, bai, onenbestean.

9. Eta Pedrok esan zion: Zergatik tratatu dezute Jaunaren Espiritua tentatzeko? Begira emen atean, zure senarra enterratzera eraman zutenaren, eta zu eramango zaituztenaren oñak.

10. Puntuan erori zan, eta il zan bere oñetan. Eta mutillak sartu ziranean, aurkitu zuten illa eta eraman zuten bere senarrarekin enterratzera,

11. Eta etorri zan bildur aundi bat Elisa gustian eta gausa oiek aditu zituzten guztien gañean.

12. Eta Apostoluen eskuetatik egiten ziran gausa arrigarri eta milagro asko errian, eta zeuden guztiak baturik Salomonen galerian.

13. Eta besteetako iñor etzan atrebizten aiekin juntatzera; bañan erriak honratzen zituen modu andian.

14. Eta aunditzen zan, Jaunagan sinistatzen zuten gisonen eta emakumeen askotasuna.

15. Ainbestean zer ateratzen zituzten kaleetara gassoak eta jarzen zituzten oietan, Pedro pasatzen zanean beinzat bere itzalak ikutu zesan aietako bat eta gelditu zitezten sendatuak.

16. Eta etortzen zan Jerusalem jende asko, inguruetako ziudadeetatik, gassoak eta etzai gaistoak atortmentaturik zeudenak, ekarzera; eta sendatzen ziran.



17. Bañan Sazerdoteen agintaria eta berekin zeudenak (Saduzeoen doktrinakoak) altxatu ziran, eta zeloz bete ziran:

18. Eta arrapatu zitusten Apostoluak, eta jarri zitusten kartzela publikoan.

19. Baña Jaunaren aingeruak, gabaz atek irikita, kanpora aterata esan zien:

20. Zoazte, eta Elisana agertuta, predikatu zaiozute erriari, bizitza onetako itzak.

21. Eta aditu zutenean, sartu ziran Elizan goizetik eta ekasten zuten. Bañan, Sazerdoteen agintaria, eta berekin zeudenak etorrita, Konzilioa deitu zuten, baita ere gizon zar gustiak eta Israelko semeak, eta bialdu zitusten kartzelara, ekarri zituzten.

22. Bañan Ministroak joan ziranean, eta atek irikita inor billatu etzuztenean, jua ziran abisatzera.

23. Esanaz: kartzela arkitu degu txit ondo itxia, eta guardak atearen aurrean, bañan iriki degunean, ez degu barrenen inor aurkitu.

24. Elisako Majistraduak, eta Sazerdoteen agintariak, au aditu zutenean, dudan zeuden zer gertatu ote zan aiekin.

25. Bañan orduan bertan etorri zan bat, eta esan zien: Begira, kartzelan sartu zituzuten gizon aiek Elisana daude, eta erriari erakusten.

26. Orduan jua zan Majistradua bere ministroekin, eta ekarri zituen indarririk egin gabe, zergatik zeukaten, erriak arrika egingo zioten bildurra.

27. Eta ekarrita bereala eraman zitusten konziliora, eta Sazerdoteen agintariak galde egin zien:

28. Esanaz: Ordena klaruarekin aginzen dizutegu ez dezazutela erakutsi izen orretan; eta begira, nola bete dezuten zuen dotrinaz Jerusalem gustia; eta bota nai dezute gure gañean gizon orren odola.

29. Pedrok eta Apostoluak erantzunaz, esan zieten: Jaungoikoari obeditu bear zaio lenago gizonai baño.

30. Gure Aiten Jaungoikoak pistu zuen, zuek egur batean jarrita ilzenduten Jesus.

31. Au altxatu zuen Jaungoikoak bere eskubiko eskuarekin Printzipe eta salbatzallera, Israeli damutasuna eta pekatuen barkazioa emateko.

32. Eta gu gera itz oien testiguak, eta baita ere Jaungoikoak obeditzen duten gustiai eman dien, Espiritu Santua.

33. Au aditu zutenean lerzen ziran, eta nola ilko zuten, konsulta egingen zuten.

34. Bañan altxaturik, konzilioan Gamaliel zeitzaion Phariseo batek, legeko dotorea eta errian errespetu aundikoa, agindu zuen gizon aiek atera zitezela piska baten.

35. Eta esan zien: Israelko gizonak, begira ezazute ongi zuek gatik, eta zer egitera zoasten gizon oriekin.

36. Zergatik orain baño lenago izandu zan Teodas deitzen zitzaion bat, esaten zuena zerbait zala; eta larogei gizonak bezela segitu zioten; eta gero ill zuten; eta sinistu zioten guztiak izan ziran apartatuak, eta utzera bihurtuak.

37. Onen ondoren altxatu zan Judas Galileoa enpadronatzeko denboran, eta eraman zuen bere ondoren erri gustia; eta segitu zioten gustiak izan ziran banatuak.

38. Bada orain esaten dizutet, etzaitzela sartu gizon oiekin eta utzi ezazutela; zergatik konseju edo obra au, badator gisonangatik, izango da desegia.

39. Bañan Jaungoikoagandik badator, ezin desegingo dezute, Jaungoikoari kontra egiten diozutela iruritu etzaizuten. Eta segitu zuten bere konsejua.

40. Eta Apostolui otseginda azotatu asita, agindu zieten etzazutela geiago Jesusen izenean itz egin, eta askatu zituzten.

41. Bañan oiek atera ziran posturik Konzilioaren aurretik, zergatik aurkitzen ziran Jesusen izenean afrenta gustiak eramateko merezisalleak.

42. Eta egunero erakusten zuten, eta predikatzen zuten Jesusen izena Elizan eta etxeetan.

## SEIGARREN KAPITULUA

1. Egun aietan asi zanean geiago Diszipuluen alkartazuna, mubitu zan Griegoen artean murmurazioa Hebroen kontra, beren alargunak eguneroko bearretik boteak ziralako.

2. Argatik amabiak Disipuluen aundiena otsegin eta esan zieten: Ongi es dago guk Jaungoikoaren itza utzi dezagun maiak serbitzeagatik.

3. Autu itzazute bada zuen artean sazipi gizon fama onekoak, eta Espiritu Santuz eta jakinduriaz beteak, eta oieri emaezute kargua obra onena.

4. Eta guk erregu egingo degu beti, eta gordeko degu itza.

5. Eta junta guztiari iruritu zitzaion ongi proposizio au. Eta autu zuten Esteban, gizon fedez eta Espiritu Santuz beteak eta Felipe, Protxor, Nikanor eta Timon, Parmenas eta Nikolas Antiokiako segitzallea.





6. Eta aiek jarri zituzten Apostoluen aurrean; eta erregu egiñaz, jarri zituzten eskuak beren gañean.

7. Eta Jaunaren itza azitzen zan eta Diszipunuen numeroa aunditzen zan asko Jerusalem. Eta Sazerdoteen geientasunak obeditzen zuen fedea.

8. Bañan Estebanek graziaz eta indarrez beterik egiten zituen errian gauza izugarri eta milagro asko.

9. Eta Sinagogako asko Lebernoak deitzen ziradenak eta Zirineoak eta Alejandrinoak, eta Ziziliako eta Asiakoak, altxatu ziran Estebanekin disputatzea.

10. Bañan ezin zuten itzegiten zuen jakinduriari eta Espirituari kontra egin.

11. Orduan irabasi zituzten batzuek, esateko, aditu zutela berak Moisesen eta Jaungoikoaren kontra itz gaistoak.

12. Eta ikaratu zuten erria, gizon zarrak eta Eskribak; eta konjuraturik, artu zuten eta eraman zuten konziliora.

13. Eta atera zituzten testigu falsoak esateko: Gison hau beti dago itzegiten leku santuaren eta legearen kontra.

14. Zergatik aditu diogu esaten: Jesus Nazareno onek lur biurtuko duela leku au, eta Moisesek eman zigun itzak trukaturiko dituela.

15. Eta Konzilioan zeuden guztiak beregan begiak jarririk ikusi zuten bere arpegia Aingeru batena bezela.

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Orduan Sazerdote aundiak esan zuen: Gauza oiek onela dira?

2. Berak esan zuen: Anaiak eta Aitak, aditu ezazute: Gloriako Jaungoikoa agertu zitzaion gure Aita Abrahami, Mesopotamian zegoanean, Txaranen bizitu zan bañan lenago.

3. Eta esan zion: Atera zaitez erritik, eta zure aideen artetik, eta etorri zaite nik erakutsiko dizudan lurrera.

4. Orduan atera zan Kaldeoen lurretik eta bizitu zan Txaranen. Eta bere aita il zanean, eraman zuen, orain zuek bizi zeraten lur onetara.

5. Eta etzion eman oñ batere lur artatik, bañan eskiñi zion emango ziola berari eta bere ondoren, bere ondorengoari posesioan.

6. Eta esan zion Jaungoikoak; Bere ondorengoak biziko zirala lur arrotsetan eta biurtuko zutela erria esklabitudera; eta gaistotuko zutela laregun (sic) urtean.

7. Bañan aiek serbitu zuten jendea izango da juzgatua nigaitik; esan zuen Jaungoikoak. Eta gero aterako dira eta serbituko naute lur onetan.

8. Eta eman zieten zirkunzisioko testamentua; eta onela egin zuen Isaak eta zirkunzidatu zuen zorzigarren egunean, eta Isaakek egin zuen Jakob eta Jakobek amabi patriarkak.

9. Eta Patriarkak enbidiaz beterik saldu zuten Jose Ejiptorako, bañan Jaungoiko zegoen berarekin:

10. Eta libratu zuen bere pena guztietatik; eta eman zion grazia eta jakinduria Pharaon Ejiptoko erregearen aurrean, zeñek egin zuen Ejiptoko eta bere etxe gustiko gobernatzallea.

11. Etorri zan gero Ejiptoko eta Txanaango erri guztira gosea eta pena aundi bat: eta gure aitaak etzuten aurkitzen zer janikan.

12. Eta Jakobek, aditu zuenean Ejipton garia zegoala bialdu zieten gure aitari aurreneko aldian.

13. Eta bigarreanean, izandu zan Jose ezagutua bere anaiengatik eta bere linajea agertu zioten Pharaoni.

14. Eta bialdu zuen Jose, eta juañ asi zien bere aita Jakobi, eta bere aide guztiai, zeñak ziran irurogeita bost persona.

15. Eta Jakob juañ zan Ejiptora, eta an il zan bera eta gure aitak.

16. Eta izan ziran eramanak Sitxema eta jarriak Abrahamek Hemoren semearen sillarrarekin erosi zuen sepulturan.

17. Eta promesaren eguna alderatu zanean, jaungoikoak Abrahami juramentu egin zion bezela, asi zan erria eta aunditu zan Ejipton,

18. Beste errege bat Ejipton altxatu zan artean, Joseph ezagutzen etzuen.

19. Onek, bere astuaziarekin gure nazioaren kontra, obligatu zituen gure aitak beren semeak uster, bizi etzitezen.

20. Denbora artan jaio zan Moises, eta izandu zan Jaungoikoaren naigarria eta bere aitaren etxean izandu zan asia iru illabetean.

21. Bañan gero abandonatu zuenean, artu zuen Faraonen alabak, eta asi zuen bere semea balitz bezela

22. Eta Moises izandu zan erakutsia Ejiptioaren jakinduria guzian: eta zan aundia itzetan eta obretan.

23. Eta berrogei urteko denbora kunplitu zuenean etorri zitzaion biotzera Israelgo bere anaiak bisitatzea.

24. Eta ikusi zuenean oietako bat ofenditu zutela, defenditu zuen; eta beganza artu zuen Ejiptio illaz.

25. Eta uste zuen, anaiak entendituko zutela, Jaungoikoak bere eskitik osazuna eman bear ziela; bañan berak etzuten entenditu.



26. Eta urrengo egunean asarratzen zeudela, agertu zitzaien eta paken jarritzen zituen esanaz: Gizonak, anaiak zerate, Zergatik batak bes-tea gaiski tratatzen dezute?

27. Bañan projimoa injuriaz zuenak, apartatu zuen esanaz: Nork jarri zaitu gure artean agintarizat eta jueza bezela?

28. Edo nai nazu ni ere ill, atso Ejiptioa ill zenduen bezela?

29. Eta itz onegatik iges egin zuen Moisesek, eta bizitu zan arrotza bezela Madiango errian nun egin zituen seme bi.

30. Eta berrogei urte kunplitu ziranean, agertu zitzaion Sinako mendian Aingeru bat erretzen zegoan sasi baten garrean.

31. Moises, ikusi zuenean, arritu zan bisio onezaz, eta kontenplatze-ko alderatuaz, aditu zuen Jaunaren itza, esanaz:

32. Ni naiz zure Aitaren Jaungoikoa, Abrahamen Jaungoikoa, Isaaken eta Jakoberen Jaungoikoa. Bañan Moises ikaraturik, etzan atrebitzen begiratzera.

33. Eta Jaunak esan zion: askatu itzatzu zure oñetakoak; zergatik zu zauden lekua, lur santua dan.

34. Ikusi det nere erriaren pena, dagoana Ejipton, eta aditu det aien deadarra, eta jetxi naiz berak libratzeko, eta orain atoz, eta bialduko zaitut Ejiptora.

35. Moises au berak bota zutena, esanaz: Zeñek egin zaitu Agintari eta Jueza? Au bera bialdu zuen Jaungoikoak, Aingeru sasia agertu zitzaionaren eskutik, Agintari eta Redenptorea bezela.

36. Onek atera zituen Ejiptoko lurrean, eta itxaso gorrian, eta berrogei urteko desiertoetik milagroak egiñaz.

37. Au da Moises, Israelgo semeai esan ziena: Zuen anaien artetik altxatuko du Jaungoikoak ni bezelako Profeta, eta oni adituko diozute.

38. Au da Elisaren desiertoan egondu zana Sinako mendian gure aitaakin itzegiten zion Aingerua; guri bizitzako itzak emateko, artu zituena.

39. Zeñi gure aitaak obeditu nai isan ziotena; lenago bota zuten, eta beren biotzakin biurtu ziran Ejiptora,

40. Aaroni esanaz: Egin zaiguzu guri, aurrean dijoazen Jaungoikoak; zergatik ez dakigu zer gertatu zaion Ejiptotik atera ginduzen Moises oni.

41. Eta egin zuten egun aietan zekor bat, eta eskiñi zioten Jaungoiko falsoari sakrifizioa, eta poztutzen ziran beren eskuetako obretan.

42. Bañan Jaungoikoa apartatu zan, eta utzi zituen, zeruko ejerzitua serbitu zezaten, Profetaren liburuan eskribituta dagoan bezela: Etzirazuten eskeñi berrogei urtean desiertoan edo Israelgo etxean ofrendak eta sakrifizioa?

43. Eta rezibitu zenduten Molotxko denda, eta Renpham zuen Jaungoikoaren izarra, adoratzeko egin ziñusten figurak. Bada nik eramango zaituztet Babilonia baño arunzago.

44. Testimonioko tabernakulua egondu zan desiertoan zuen aitakin Jaungoikoak agindu zuen bezela, Moisesi esanaz: Egin zezala ikusi zuen moldea bezela.

45. Eta gure aitak artu zutenean, eraman zuten Josueren agintean, Jentilen posesiora, zeñak bota zituen Jaungoikoak, gure aitaen aurretik Dabiden egunetaraño.

46. Zeñek aurkitu zuen grazia Jaungoikuaren aurrean, eta eskatu zuen tabernakulua billatzea Jakoberen Jaungoikoarentzat.

47. Bañan Salomonek egin zion etxea.

48. Bañan Jaun aundia ezta bizitzen gisonen egiñeran, Profetak esaten duen bezela.

49. Zerua da nere Tronua; eta lurra nere oñetako tarima. Zer etxe igozko dezute? esaten du Jaunak, edo non dago nere deskansuko lekua?

50. Etzituen egin nere eskuak gauza oiek gustiak?

51. Buru gogorrekoak eta biotz eta belarri garbitu gabekoak, Espiritu Santuari kontra egin ziozuten beti, nola zuen Aitak, ala zuek ere.

52. Zeñi Profeta persegitu etzuten zuen Aitak? Berak ill zitusten Justuaren etorrerako notizia eman zutenak, eta orañ zuek izan zerate beraronzat traidore ta gison illzalleak:

53. Aingeruen misterioz legea artu zendutenak, eta zuek etzenduten gorde.

54. Gausa onelakoak aditzean, leer egin zuten beren barreanean, eta beraren kontra orzak estututzen zitusten.

55. Bañan nola zegoan Espiritu Santuz beterik, Zerura begiratuta, ikusi zuen Jaungoikoaren gloria, eta Jesus zegoela sutik beraren eskubiko aldean. Eta esan zuen: Ona, nola ikusten ditudan zeruak irikirik, eta gisonaren semea, Jaungoikoaren eskubiko aldean zutik.

56. Bañan berak deadar aundiak egiñaz, belarriak estali zitusten, eta gustiak batean arrabiaz beraren kontra jua ziran.

57. Eta erritik kanpora aterata arrika egiten zioten; eta testiguak jarri zituzten beren arropak, Saulo deitzen zan mutil gaste baten oñetan.

58. Eta arrika egiten zioten Estebani, zeñek erregutzen zuen, eta esaten zuen: Jesus Jauna, artu ezazu nere espiritua.

59. Eta belaniko jarririk, deadarrez esan zuan: Jauna, etzaiezu bota pekatu onen kulpaa. Eta au esan zuenean ill san Jaunean. Eta Saulo izan zan bere illzearen konsentitzallea.



## ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta egun artan mobitu zan persekuzio aundi bat, Jerusalemen zegoen elisan: eta izan ziran zabalduak Judeako eta Samariako probintzietan Apostoluez gañerakoak.

2. Eta gison piadoso batzuek, eraman zuen enterratzera Esteban, eta negar asko egin zuten bere gañean.

3. Bañan Saulok desegiten zuen Elisa etxeetan sartuta, eta indarrez gizonak eta emakumeak aterata, kaleera jarri azitzen zituen.

4. Eta zabalduak izan ziranak, zijoazen leku batetik bestera, jaunaren itza erakusten.

5. Eta Felipek, Samiako erri batera jetxita predikatzen zien Kristo.

6. Eta jendeak aditzen zuten atenzioarekin Felipek esaten zuena, intenzio batekin adituaz, eta egiten zituen milagroak ikusiaz.

7. Zergatik espiritu sikiñak zeuskaten asko, ateratzen ziran, deadar aundiak egñiaz.

8. Eta baldatu eta erren asko izan ziran sendatuak.

9. Orregatik zitude artan izandu zan poz aundi bat. Zegoen an Simon zeitzaion gison bat, lenago majikoa errian isan zana, Samariako jendeak engañatzen, esanaz persona aundi bat zala bera;

10. Eta danak txikietatik aundietaraño sinisten zioten, esanaz: Au da, andia deitzen zaion Jaungoikoaren birtutea.

11. Eta atenditzen zioten: zergatik bere arte majikarekin atontatu zituen denbora luzean.

12. Bañan Felipek, Jaungoikoaren erreinuaren gañean predikatzen ziena, sinistu zutenean, bateiatzen ziran Jesukristoren izenean gison eta emakumeak.

13. Orduan Simonek sinistu zuen berak ere, eta bataiatuta gero, juan zan Feliperengana. Eta ikustean egiten ziran milagro aundiak, zegoen arritasunez beterik.

14. Eta aditu zutenean Apostoluak, Jerusalemen zeudela, eta Samariak Jaunaren itza artu zuela, bialdu zieten Pedro eta Juan.

15. Zeñak allegatu ziran bezela, erregutu zuten berakgaitik Espiritu Santua artu zesaten.

16. Zergatik etzan oraindik etorri oietako iñoren gañean, baizik izandu ziran bataiatuak Jesus Jaunaren izenean bakarrik.

17. Orduan jarzen zituzten eskuak beraren gañean, eta artutzen zuten Espiritu Santua.

18. Eta nola ikusi zuan Simonek, Apostoluen eskuetatik ematen zala Espiritu Santua, eskiñi zieten dirua,

19. Esanaz: Eman zarazute niri ere birtute ori, nik nere eskuak gañean ipin dioan gustiak, artu dezan Espiritu Santua. Eta Pedrok esan zion:

20. Zure dirua izan dedilla zurekin, zure galdutazunerako: zergatik sinistu dezun Jaungoikoaren doea logratzen dala diruarekin.

21. Ez dadukazu zuk ministerio onetan parterik eta ezta ere suertetik. Zergatik zure biotza ez dago zuzena Jaungoikoaren aurrean.

22. Egin zazu zure malizi onen penitentzia: eta erregutu egiozu Jaungoikoari, baldiñ zure biotzeko pensamentu au barkatu izango bada.

23. Zergatik ikusten det, zu zaudela gasitazuneko beasunean eta gaizkitazuneko lazoan.

24. Eta Simonek erantzunaz esan zuen: erregutu zaiozute zuek Jaunari nigaitik, nere gañera etorri ez dedin, zuek esan dituzuten gausa oietakorik.

25. Eta berak testimonioa eman da gero, eta Jaungoikoaren itza erakutsita; biurtu ziran Jerusalem, eta predikatzen zuten Samariako erri askotan.

26. Eta Jaunaren Aingeruak itz egin zion Feliperi, esanaz: Altxatu zaitetz, eta juan zaite eguardi aldera, Jerusalemik Gazara jetxitzen dan bideetik: an dago bakartazunean.

27. Eta altxatuta juan zan. Eta ona emen, Etiopeko gison bat, Etiopiako erregina Kandazeren autua, zein zan bere tesoro gustien gordetzalea, eta etorri zan Jerusalemen adoratzeko.

28. Eta biurzen zan bere gurdian, eta zijoan Isaias Profeta irakorten.

29.

30. Felipek alderatzean aditu zion irakorten zuela Isaias Profeta, eta esan zion: Entenditzen dezu irakorten dezuna?

31. Erantzun zuen berak: nola dezaket, ez badago iñor erakutsi dizakedanik? Eta erregutu zion Feliperi igotzeko, eta eseri zedilla berarekin.

32. Eta irakorten zuen Eskriturako lekua au zan: Ardia bezela izandu zan illtokira eramana, eta motzallearen aurrean arkuma mutuak bezela, ala onek etzuen aoa iriki.

33. Bere humiltazunean bere juizioa izandu zan alabatua. Zeñek konstatuko du bere ondorengotazuna, zergatik bere bizitza izango dan lurretik kendua?

34. Eta Eunukoak Feliperi erantzunaz, esan zuen: Erregutzen dizut: Zeñegatik esan zuen au Profetak? Beragatik edo besteem (sic) batengatik?



35. Eta Felipek aoa irikita eta eskritura onetatik asi ta, aditzera eman zion Jesus.

36. Eta bidean zijoazela, allegatu ziran, ura zegoen leku batera, eta esan zuen Eunukoak: Ona emen ura, zerk eragozten du ni bataiatzea?

37. Eta esan zuen Felipek: Baldin biotz guztitik sinisten badezu ongi dezazuke. Eta berak eranzun eta esan zuen: Sinisten det, Jesukristo dala Jaungoikoaren semea.

38. Eta agindu zuen gurdia gelditzeko, eta jetxi ziran Felipe eta Eunukoa urtara eta bataiatu zuen.

39. Eta urtatik atera ziranean, Espiritu Santuak eraman zuen Felipe, eta etzuen geiago ikusi Eunukoak. Eta jua zan posturik bere bidean.

40. Eta Felipe aurkitu zan Azoton, eta pasatzean predikatzen zuen Ebanjelioa erri guztietan, Zesareara allegatu artean.

### BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Saulo bada Jaunaren diszipuluen kontra gaitzak eta eriotza oraindik bere barrenetik botatzen, presentatu zan Sazerdoteen agintariarengana.

2. Eta eskatu zion kartak Damaskoko Sinagogetarako, fede onetan aurkitzen zituen guztiak, gisonak, eta emakumeak Jerusalemam eramateko preso.

3. Eta bidean zijoala, gertatu zan Damaskoren aldean zegoala, inguratu zuen subitoan zeruko argiaren argitazunak.

4. Eta lurrera erorita aditu zuen ots bat, esaten ziona: Saulo, Saulo, Zergatik persegitzen nazu?

5. Berak esan zion: Zein zera Jauna? Eta onek: Ni naiz zuk persegitzen dezun Jesus; gausa gogorra da zuretzat, akulluaren kontra ostikoak ematea.

6. Eta ikaraz eta koloreak mudaturik, esan zuen: Jauna, zer nai dezu nik egin dezadan?

7. Eta Jaunak esan zion berari: altxatu zaitez, eta sartu zaitte Ziudean, eta an esango zatzu, zer egitea konbeni zatzun. Eta lagunzen zioten gisonak, gelditu ziran arriturik, otsa ondo adituta, inor ez ikustean.

8. Eta Saulo altxatu zan lurretik, eta begiak irikita etzuen ezer ikusten. Eta eskutik eramanaz sartu zuten Damaskon.

9. Eta egondu zan an, iru egunean, eta etzuen jan eta eran.

10. Eta zegoan Damaskon Ananias zeitzaion Diszipulu bat, eta esan zion Jaunak: Ananias; Eta berak erantzun zion: emen nago Jauna.

11. Eta Jaunak berari: altxatu zaitez eta zuaz, zuzena deitzen zaion barriora; eta billa ezazu Judasen etxean Saulo deitzen zaion Tarsoko bat; zergatik ona emen dago erregutzen.

12. Eta ikusi zuen Ananias zeitzaion gison bat, beraren gana zijoala, eta eskuak jarzen zituela bista bihurtzeko.

13. Eta esan zuen Ananias: Jauna, aditu det esaten askori, gison onengatik zenbait gaitz egin zien zure santuai, Jerusalemen;

14. Eta onek daduka, Sazerdoteen Agintariakgatik, zure izena deitzen duten guziak preso egiteko poderioa.

15. Bañan Jaunak esan zion: Zuaz, zergatik au da nik autu dedana, eramateko nere izena, jendeen, Erregeen eta Israelgo semeen aurrera.

16. Zergatik nik erakutsiko diot, zenbat gausa nere izenagatik sufritu bear dituen.

17. Eta jua zan Ananias, eta sartu zan etxean: eta eskuak bere gañean jarririk, esan zion: Anaia Saulo, bidean agertu zitzaizun Jesusek bialdu nau bisteia logratu dezazun eta Espiritu Santuz betea izan zaitean.

18. Eta bedeala erori zitzaion begietatik eskama batzuk bezela, eta biurtu zitzaion bisteia, eta altxatu zanean izandu zan bataiatua.

19. Eta alimentua artu zuanean, indarrak biurtu zitzaion, eta egondu zan egun batzuetan Damaskon zeuden Diszipuluakin.

20. Eta gero predikatzen zuen Sinagogetan Jesus zala Jaungoikoaren semea.

21. Eta arritzen ziran, aditzen zioten guztiak, eta esaten zuten: Ez da au, Jerusalemen izen au otsegiten zutenak persegitzen zituena, eta orregatik etorri zana onera Sazerdoten agintarien aurrera preso eramateko?

22. Bañan Saulo asko geiago aseguratzen zan eta arritzen zituen Damaskon bizi ziran Judioak eta afirmatzen zien au dala Kristo.

23. Eta nola pasatu ziran egun asko, Judioak juntatu ziran ilzeko.

24. Baña Saulo izandu zan adbertitua aien engañuaz. Eta gordetzen zitusten ateak gabaz eta egunaz illzeagatik.

25. Eta Diszipuluak gabaz arturik, sartu zuten esparsusko saski batean, eta bota zuten paretetik.

26. Eta Jerusalemam etorri zanean, nai zuen juntatu Diszipuluakin; bañan guztiak zeukaten onen bildurra, Diszipulua etzalako.

27. Orduan Bernabek, berekin artuta eraman zuen Apostoluengana; eta kontatu zien nola ikusi zuen Jauna bidean, eta itz egin zuela berarekin, eta nola gero predikatu zuan Damaskon Jesusen izenean.

28. Eta egoten zala berakin Jerusalemam, sartutzen eta ateratzen eta libertadeakin Jaunaren izenean itz egiten.



29. Baita ere itzegiten zuela Jentillakin, eta disputatzen zuela Griegoakin: eta berak ill nai zutela.

30. Eta Anaiak jakin zutenean, lagundu zioten Zesarearaño, eta bialdu zuten Tarsora.

31. Elisa orduan zeguan pakean, Judean, Galilean, eta Samaria gus-tian, eta asitzen zan Jaunaren bildurtazunean, eta zegoan Espiritu Santua-ren postazunez beterik.

32. Gertatu zan bada Pedrok gustiak bisitatzean, allegatu zala Liddan bizi ziran santuetara.

33. Eta aurkitu zuen an Eneas zeitzaion gison bat zorzi urtean oian zegoena baldaturik.

34. Eta esan zion Pedrok: Eneas, Jesukristo Jaunak sendatzen zaitu: altxa zaitetz eta egin zazu oia. Eta bedeala altxatu zan.

35. Eta ikusi zuten Liddan eta Saronan bizi ziran gustiak, eta konbertitu ziran Jaunagana.

36. Baita ere bizi zan Joppen Diszipula bat, deitzen zana Tabitha, esan nai duena Dorkas. Eta zegoen egiten zituen limosnaz eta obra onez beterik.

37. Eta gertatu zan egun aietan, gassotu zala, eta ill zan. Eta garbitu zutenean, jarri zuten afari tokian.

38. Eta nola Lidda zegoen Joppen ondoan, aditu zutenean Diszipuluak Pedro an zegoala, bialdu zioten bi gison, erregutuaz. Etzaiteza gelditu guregana etorri bage.

39. Eta altxaturik Pedro, juañ zan aiekin. Eta allegatu zanean bedeala, eraman zuten afari tokira, eta ingurutu zuten alargun guztiak negarrez, eta Dorkasek egiten zien soñekoak erakutziaz.

40. Baña Pedrok, danak kanpora atera azinda, belauniko jarririk, erregutu zuan: eta korputzarengana biurturik, esan zuen: Tabitha, altxatu zaitetz. Eta berak iriki zituen bere begiak; eta Pedro ikusi zuanean eseri zan.

41. Eskua eman zion, eta altxatu zuen. Eta Santuai eta alargunai otzeginda entregatu zien bizirik.

42. Eta publikatu zan au Joppe gus-tian; eta sinistu zuten askok Jaun-ean.

43. Eta ala izan zan, egondu zala Pedro egun askotan Joppen, Simon zeitzaion zurragille baten etxean.

## AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta zegoan Zesarean Kornelio zeitzaion gison bat, italika deitzen zaion konpañi bateko agintaria,

2. Relijioso eta Jaungoikoaren bildurtazunekoa bere etxe gustiak, limosna asko egiten zituena, eta beti Jaungoikoari erregutzen zegoena.

3. Onek ikusi zuen klaro bisioan, nonako orduan bezela, Jaungoikoaren Aingeru bat sartzen zala beragana, eta esaten ziola: Kornelio,

4. Eta berak begiak aregan jarririk, bildurrez beterik, esan zuen: Zer da Jauna? Eta esan zion: Zure erreguak, eta zure limosnak igo dira Jaungoikoaren aurrera,

5. Bialdu itzatzu bada orain gisonak Joppera, eta etorri asiyozu onera Simon, izengoitiz Pedro deitzen zaion bati;

6. An dago Simon izena duen zurragille baten etxean, itxasoaren ondoan: berak esango dizu zer igitera konbeni zatzun.

7. Itzegiten zion Aingerua juañ zanean bedeala, otzegin zien bere serbitzalleetako biri, eta Jaungoikoaren bildurtazuneko soldadu bati, bere ordenetan zegoanari.

8. Eta kontatu zutenean gustia, bialdu zituen Joppera.

9. Eta urrengo egunean, berak bidean zijozela, eta ziudadearen ondoan zeudela, igo zan Pedro, etxeke goienera erregutzeko, sestako orduaren aldean.

10. Eta gosez arkiturik gasaldu (sic) nai zuan. Eta preparatzen zioten bitartean, etorri zitzaion espirituko aunditazun bat.

11. Eta ikusi zuen zerua irikia, eta jetxitzen zala baso bat, lienzo aundi bat bezela, lau eskinetatik loturik, zerutik lurrera beeratua zana.

12. Zeñean aurkitzen ziran lurreko lau oñeko, eta oñ bageko animali guztiak, eta zeruko egastiak.

13. Eta etorri zitzaion ots bat esan ziona: Altxatu zaitetz, Pedro, ill itzatzu eta jan itzatzu.

14. Eta Pedrok esan zion: Ez Jauna, zergatik ez dedan beñere jan gauza komunik eta zikiñik.

15. Eta gero esan zion berari: Jaungoikoak garbitu duena ez dezazu deitu komuna.

16. Eta au esan zan iru alditarano, eta gero basoa biurtu zan zerura.

17. Eta Pedro bere artean dudan zegoan bitartean, zer izango zan ikusi zuen bisioa, ona emen allegatu ziran atera Korneliok bialdu zituen gisonak, Simonen etxea gatik galdetzen.

18. Eta otzegin zutenean, galdetzen zuten, Simon, izengoitiz Pedro zeitzaiona, an zegoan.





19. Eta Pedro bisioan pensatzen zegoala, esan zion Espirituak: Ona emen iru gison zure billa.
20. Altxatu zaitetz bada, jetxi zaitetz, eta zuaz berarekin dudatu bage, zergatik nik bialdu dituan.
21. Pedro gisonetara jetxita, esan zien: ikusi nazazute, ni naiz zuek billatzen dezutena; zer da zuek etorri zeraten motiboa?
22. Eta berak esan zioten: Kornelio agintariak, gison justu, eta Jaungoikoaren bildurtazunekoa, eta judioen nazio gustian testimonioa daukanak, artu du errespuesta Aingeru Santuagandik, bere etxera otsegin asizeko zuri, eta aditu zitzala zure itzak.
23. Pedrok bada, sartu asiñik, etxean artu zituen. Eta urrengo egunean jeki zan, eta juan zan berakin; eta anaietako batzuek lagundu zioten Joppera.
24. Eta beste egun bat geroago sartu zan Zesarean. Kornelio bere aide, eta adiskide aundienak gonbidaturik itxooten zegoan.
25. Eta gertatu zan, Pedro sarzoko zegoanean, atera zitzaion Kornelio, eta bere oñetara eroririk, adoratu zuen.
26. Bañan Pedrok jaso zuen, eta esan zion: Altxatu zaitetz, bada ni ere gizona naiz.
27. Eta sartu zan berarekin itzegiten, eta arkitu zituen juntatu ziran asko;
28. Eta esan zien: Zuek dakizute, nola dan gausa itxusia judio baten-tzat, arrotz batekin juntatzea, edo alderatzea; bañan Jaungoikoak agindu dit, gison iñori ez deitzeko zikiña.
29. Eta orregatik etorri naiz bildur bage, otzegin didazutenean bedeala. Galdetzen det bada: Zergatik etorri asin dirazute?
30. Eta esan zuan Korneliok: Gaur dira lau egun nengoala neure etxean erregutzen nonako orduan, eta ona emen jarri zitzaidan aurrean gison bat soñeko suri batekin, eta esan ziran:
31. Kornelio, zure erregua aditua izan da, eta zure limosnak etorri dira Jaungoikoaren aurrean.
32. Bialdu itzatzu bada Joppera, eta otsegin asiyozu Simon izengoitiz Pedro deitzen zaionari; au dago Simon zurragillearen etxean, itxasoaren ondoan.
33. Eta bedeala bialdu nituen zure billa; eta ongi egin dezu etorzea. Eta orain gaude gustiok zure aurrean Jaunak agindu dizun gausa gustiak aditzeko.
34. Orduan Pedrok itzegin zuen, eta esan zien: Egiaz ezagutzen det, ez dala Jaungoikoa personen artzallea,

35. Bañan edozein jendetan, beraren bildurra daukatenetan, kontentatzen da.
36. Jaungoikoak bialdu zien itza Israelgo semeai, Jesukristo gatik pagea abisatuaz: (au da gustien Jauna)
37. Zuek dakizute Judea guztian izandu dala egiña itza; eta Galileatik asita, eta Juanek bataioaren ondoren predikatu zuela,
38. Jesus Nazareno; Jaungoikoa bezela untatu zuen Espiritu Santuz, eta birtutez, bera ebilli zan on egiten, eta deabruagatik estutu zeuden gustiak sendatzen, zergatik berarekin zegoan Jaungoikoa.
39. Eta gu gera testigu Judioen lurean eta Jerusalemene egin zuen gustiarena; eta berak ill zuten au egur batetik txintxillika jarririk.
40. Au pistu zuen Jaungoikoak irugarren egunean, eta nai zuen jakiñ asitzea,
41. Ez erri guztiari, baizik Jaungoikoak lenago agindu zuen testiguarri, eta guri, illen artetik piztuta gero, berarekin jan eta eran genduenai.
42. Eta agindu zigun predika genzala erriari, eta eman genzala testimonioa, bera dala Jaungoiko jarri duena biziak, eta illak juzgatzeko.
43. Oni ematen diote testimonioa Profetak, beragan sinisten duten gustiak, artuko dutela bere izenean, pekatuen barkazioa.
44. Itz oiek oraindik Pedro esaten zegoala, jetxi zan Espiritu Santua, itza aditzen zeuden gustien gañean.
45. Eta ikaratu ziran, zirkunzisiokoak ziran fedekoak, eta Pedrokekin etorri ziranak, Espiritu Santuaren grazia issuri zalako, Jentillen gañean ere.
46. Zergatik aditzen zitusten izkunuzetan itz egiten, eta Jaungoikoaren gausa aundiak esaten.
47. Orduan erantzun zuan Pedrok: iñork eragotzi lezake bataiako (sic) ura, guk bezela, Espiritu Santua rezibitu duen oieri?
48. Eta agindu zuen bataiatuak isan zitezela Jesukristo Jaunaren izenean. Orduan erregutu zioten gelditu zeriela berakin egun batzuetan.

### AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta aditu zuten Apostoluak, eta Judean zeuden anaia, Jentillak ere artu zutela Jaungoikoaren itza.
2. Eta Pedro Jerusalemene pasatu zanean, disputatzen zuten beraren kontra zirkunzisiokoak ziranak,
3. Esanaz: Zergatik sartu dituzu zirkunzidatu bage dauden jendeak, eta jan dezu berakin?
4. Eta Pedrok gausak aurrenetik artuta, deklaratu zien beren ordenaz, esanaz:



5. Ni nengoa Joppeko errian erregutzen, eta ikusi nuen, sorabio batean bisio bat, jextitzen zala baso bat lienzo aundi bezela eta zetorrela zerutik, lau puntaetatik lotuta, eta etorri zan nigana.

6. Eta nola nengoen ni begiratzen, eta pensatzen; ikusi nituenean, lurreko lau oñeko animaliak, eta oñik gabeak, eta zeruko egastiak.

7. Eta aditu nuen ere ots bat esaten zirana: Altxatu zaitetz, Pedro, ill itzatzu eta jan itzatzu.

8. Eta esan nuen: Ez det egingo Jauna, zergatik nere aon ez da beñere sartu gauza zikiñik.

9. Eta eranzun ziran berriz zeruko otsak; Jaungoikoak garbitu duana, ez dezazula deitu zikiña.

10. Eta au egin zan iru aldiz; eta biurtu zan au gustia zerura.

11. Eta ona nola, etorri ziran bedeala iru gison ni nengoen etxera, Zesareatik neregana bialduak.

12. Eta esan ziran Espirituak, juan neduela aiekin, batere dudatu bage. Eta sei anaia oiek ere nerekin, eta sartu giñan gison aren etxean.

13. Eta kontatu zigun, nola ikusi zuan bere etxean, aurrean jarri zitzaion Aingerua, eta esan ziola: bialdu itzazu Joppera, eta etorri asi zazu Simon izengoitiz Pedro deitzen zaiona,

14. Zeñek esango dizu, zu eta zure etxea salbatuko dituzten, itzak.

15. Eta itz egiten asi ninzanean, jetxi zan Espiritu Santua aien gañean, aurrenean zuen gañean bezela.

16. Eta oroitu nintzan orduan Jaunaren itzaz, berak esan zituen bezela: Juanek egiaz bataiatu zuen urean, bañan zuek izango zerate bataiatuak Espiritu Santuan.

17. Bada Jaungoikoak eman bazien aieri, Jesukristo Jaunea sinistu genduenai eman zigun grazia bera; Zein nintzan ni Jaungoikoari eragotzi nezakeana?

18. Eta au aditu zutenean issildu ziran; eta glorifikatu zuten Jaungoikoa, esanaz: beraz Jaungoikoak Jentillai ere eman die penitentzia, bizitzarako.

19. Eta beste, Estebanen kausaz gertatu zan persekuzioa gatik, zabalduak izan ziranak, allegatu ziran Fenizia, Txipre, eta Antiotxiaraño, ez itza besteai predikatzen, baizik Judioai bakarrik.

20. Eta aien artean zeuden Txipre, eta Zireneko batzuek, zeñak Antiotxian sartu ziranean, itz egiten zieten Griegoai ere, eta aditzera ematen zien Jesus Jauna.

21. Eta Jaunaren eskua zegoan aiekin; eta sinisten zuten asko biurtu ziran Jaungoikoagana.

22. Eta allegatu zan gausa oien fama Jerusalemene zegoan Elisaren aditzera, eta bialdu zuten Bernabe Antiotxiara.

23. Allegatu zanean, eta Jaungoikoaren grazia ikusi zuanean postu zan: eta erregutzen zien gustiai Jaunean firme egon zitezela, beren biotzeko proposituan:

24. Zergatik zan gison ona, eta espiritu Santuz eta fedez betea. Eta alderatu zuzan jende asko Jaunagana.

25. Eta andik juañ zan Bernabe Tarsora Sauloren billa; eta aurkitu zuanean, eraman zuen Antioxiara.

26. Eta egondu ziran urte gustian elisa onetan: eta erakutsi zituen jende asko, alako moduan, zer Antiotxian izandu ziran lenena, kristauak deitzen ziran Diszipuluak.

27. Eta egun aietan jetxi ziran Jerusalemendik Antiotxiara Profeta batzuek:

28. Eta Agabo izena zuen oietako batek, altxatuta, adiera ematen zien espirituz, etorri bear zuela gose aundi bat mundu gustira, eta au etorri zan Klaudioaren denboran.

29. Eta diszipuluak, bakoitzak bere fakultadeen moduan, pensatu zuten Judean bizi ziran anaiai, sokorruren bat bialdutea.

30. Egin zutena Bernabe eta Sauloren eskutik, gison zarrai bialduaz.

## AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta denbora artan bertan, Herodes Erregeak, bialdu zituen tropak, Elisako batzuek gaiski tratatzeko.

2. Eta ill zuen kutxilloz Santiago, Juanen anaia:

3. Eta ikusi zuenean, egiten ziela gustoa Judioai, juañ zan Pedro preso egitera. Orduan ziran orrans bageko ogiaren egunak.

4. Eta preso egin asita, jarri zuen karzelan, eta eman zien gordetzeko lau soldadusko lau piketeri, Paskua ondoren erriari atera naiean.

5. Eta Pedro karzelan, onela gordetzen zuen artean, Elisak erregutzen zion beragatik Jaungoikoari, gelditu bage.

6. Bañan Herodesek atera bear zuenean, zegoen Pedro lotan soldadu biren artean kate burnisko birekin loturik: eta guardak zeuden atearen aurrean karzela gordetzen.

7. Eta ona emen etorri zan Jaunaren Aingerua, eta argi egin zuen suak leku artan, eta Pedro alboan jota esnatu zuen, eta esan zion: Altxatu zaitte bedeala. Eta erori ziran bere eskuetako kateak.



8. Eta Aingeruak esan zion; janzi zaite, eta jarri itzatzu zure ofeta-koak. Eta ala egin zuen. Eta esan zion: bota ezazu zere gañean zure arropa eta segitu nazazu.

9. Eta atera zan, eta segitzen zion: eta etzekien Aingeruak egiten zuena egia ote zan, bañan uste zuen, ikusten zuela berak bisioa.

10. Eta lenengo eta bigarren goardia pasatu zutenean, allegatu ziran ziadadera dijoan burnisko atera, eta iriki zitzaienten berez. Eta atera zirenean pasatu zuten kale bat: eta gero apartatu zan beragandik Aingerua.

11. Orduan Pedrok, beregan biurtu zanean, esan zuen: Orain dakit egiaz, Jaunak bialdu duela bere Aingerua, eta libratu nau Herodesen eskutik, eta Judioen erriko ansia guztitik.

12. Eta au kontsideratu zuanean, jua zan Juan, izengoitiz Markos deitzen zanaren Amaren etxera, non zeuden asko bildurik, eta erregutzen.

13. Eta berak patioiko atea jota, Rhode zeitzaion neskatxa bat atera zan aditzera.

14. Eta Pedoren itza ezagutu zuenean, posez etzuen iriki atea, baizik jua zan korrika barrena, eta eman zuen notizia, Pedro atean zegoala.

15. Eta aiek esan zioten: Soratuta zaude zu. Baña arek afirmatzen zuen ala zala. Eta berak esaten zuten: bere Aingerua da.

16. Bitartean Pedro zegoen otsegiten, eta iriki ziotenean, ikusi zuten, eta gelditu ziran izuturik.

17. Eta nola berak egin zien eskuarekin señaleara, issillik egoteko, kon-tatu zien, Jaunak karzelatik atera zuen modua, eta esan zien: Jakin asi zaio-zute au, Santiagori eta anaia. Eta andik aterata jua zan beste leku batera.

18. Eta egunaz izan zanean, izandu zan alboroto aundi bat soldaduen artean, zer gertatu ote zan Pedorekin.

19. Eta Herodesek, billatu azinda, arkitu etzuen, guardak esaminiaturik, agindu zuen eramateko; eta jua zan Judeatik Zesareara, eta an gelditu zan.

20. Zegoan asarraturik, Tiro eta Sidongoen kontra. Bañan aiek beren borondatez etorri ziran berengana, eta Blasto, erregeren ondorengoa irabazi zutenean, eskatzen zuten pakea, zergatik beren lurak ziraden erregeagatik aundituak.

21. Eta egun señaletu batean, Herodes Erregeren soñekoa janzirik, eseri zan tribunalean, eta egiten zien bere platika.

22. Eta erriak alabaten zuen esanaz: Jaungoikoaren itzak, eta ez gisonarenak.

23. Eta bedeala heritu zuen Jaunaren Aingeruak, zergatik honratu etzuen Jaungoikoa; eta arrak janik, ill zan.

24. Bañan, Jaunaren itza aunditzen zan.

25. Eta Bernabe eta Saulo biurtu ziran Jerusalem beren enkargua kunplitu zutenean, eta eraman zuten berekin Juan izengoitiz Markos zeitzaiona.

## AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Zeuden bada Antioxtian zegoen Elis Profetak eta Doktoarak, eta aien artean Bernabe eta Simon, Nijer deitua, Luzio Zirenekoa, Manahen Herodes Tetrartxaren anai esnekoa, eta Saulo.

2. Eta aiek Jaunari serbitzen zeudela eta baraur egiten, esan zien Espiritu Santuak: Apartatu nazu Saulo eta Bernabe enkargatu ditudan obrarako.

3. Orduan barua egiñaz, eta erregu egiñaz, eta eskuak gañean jarririk bialdu zituzten.

4. Eta aiek Espiritu santuagaitik ala bialduak, jua ziran Seleuziara eta andik itxasoz Txipreraño.

5. Eta Salaminara allegatu ziranean, predikatzen zuten Jaungoikoaren itza, Judioen Sinagogetan. Eta zeukaten ere Juan ministerioan.

6. Eta itxaso ingurua pasatu zutenean Paphoraño, aurkitu zuten gison Mago Profeta falso eta Judioa Barjesus deitzen zana,

7. Zein zegoen Serjio Paulo Gobernadore gison prudentearekin. Onek, Bernaberi eta Saulori deitu azinda, nai zuen aditu Jaungoikoaren itza.

8. Bañan Elimas Magoak (zergatik ala deitzen zioten) kontra egiten zieten, Gobernadorea fedetik apartatzeagaitik.

9. Baña Saulok, deitua ere Pablo, Espiritu Santuz beterik, begiak beregan jarririk,

10. Esan zuen: Oh, engaño eta maliziaz beterik, deabruaren semea, eta justizia gustiaren etsaia, etzera nekatuko, Jaunaren bide zuzen gustiak nastutzen.

11. Bañan ona emen orain zure gañean Jaunaren eskua, eta izango zera itxua, ikusiko ez dezuna eguskia, denbora jakin bateraño. Eta gero erori zan illuntasunean, eta leku gustietatik biurturik, billatzen zuen, zeñek eskua emango zion.

12. Prokonsulak orduan egintasun au ikusi zuanean, Jaunaren dotriñaz arriturik artu zuen fedea.

13. Eta Paulo bere lagunakin atera ziran Paphotik, eta jua ziran itxasoz Perjes Panphiliakora. Bañan Juan aietatik alde egiñik, biurtu zan Jerusalem.



14. Eta aiek Perjes pasatuta, jua ziran Pisiadiako Antiotxiara; eta Sapatuko egun batean sinagoga sartuta, eseri ziran.
15. Eta legearen eta Profeten lezioaren ondoren, bialdu zituzten Sinagoga Agintariari esatera: Gison anaiak, esan bear badiozute erriari sermoiko itzeren bat, esan zazute.
16. Eta Pablok altxatuta, eta eskuarekin issillik egoteko señaleara egiñaz, esan zuen: Gison Israelitak, eta Jaungoikoaren bildurra daukazu-tenak, aditu ezazute:
17. Israelgo erriko Jaungoikoak autu zituen gure aitak, eta auditu zuen erria, Ejiptoko lurtean aiek arrotzak ziranean, nondik atera zituen bezo aundiarekin.
18. Eta sufritu zituen desiertoan aien kostunbreak berrogei urtean.
19. Eta zazpi nazio utz biurtuta Kanaango lurtean, partitu zuen suer-terez beren artean lurra,
20. Larrogei eta berrogei ta amar urte bezela, geroztik, eta gero eman zien bedeala juezak, Samuel Profetaraño.
21. Eta gero eskatu zuten Erregea, eta Jaungoikoak eman zien Saul Zisesen semea Benjamingo erriko gisona.
22. Eta au kenduta altxatu zien Erregetzat Dabid, zeñi eman zion testimonioa, esanaz: Aurkitu det Dabid, Jeseren semea, gizon, nere biotzak dion bezela, nere borondate guztiak egingo dituen.
23. Eta onen linajetik, eskeñi zuen bezela, ekarri du Israela, Jaungoikoak Jesus Salbatzallea,
24. Joane bere etorrera baño lenago predikatuta bataioko peniten-zia, Israelgo erriari.
25. Eta Juanek bere karrera kunplitu zuanean, esan zuen: Ez naiz ni, zuek naizela uste dezutena, baño ona emen, nere ondoren dator, ni bere oñetakoak askatzeko, merezitzalle ez naizen ura.
26. Gison anaiak, Abrahamen linajeko semeak, eta zuen artean Jaungoikoaren bildurtazunekoak, zuei bialtzen zazute osazun onen itza.
27. Zergatik Jerusalem bizi ziranak, eta ango Agintariak etzuten ezagutzen au, eta ezta ere sapatu bakoitzean irakorzen ziran itzak, kunplitu zituzten sentenziatuaz.
28. Eta nola arkitzen etzioten eriotzako batere motiborik, eskatu zioten, bizia kendu zitzaioala.
29. Eta beragatik, eskribitu ziran gauza gustiak kunplitu ziranean, kendu zuten egurretik, eta jarri zuten Sepulkroan.
30. Baño Jaungoikoak pistu zuen illen artetik irugarren egunean; eta ikusi zuten aiek, egun askotan,

31. Igo zirala berarekin Galileatik Jerusalemara, zeñek oraindano ematen dute, beraren testimonia erriari.
32. Eta guk abisatzen dizutegu gure aitai egin zituzten promesa ura:
33. Zeña egiaz kunplitu die Jaungoikoak gure semeai, Jesus pistutzen; eskribituta dagoan bezela bigarren Psalmotan: Zu zera nere semea, nik egin zaitut.
34. Eta illen artetik pistu zuela, ez geiago illzeko, esan zuen onela, emango dizutet Dabiden gausa guztiak firmeak.
35. Eta orregatik esaten du ere beste leku batean: Ez dizu utziko, zure Santuak ikusi dezan usteltazunik.
36. Zergatik Dabid, bere denboran serbituta, ill zan Jaungoikoaren borondatez, eta izandu zan jarria bere aitakin, eta izan zan usteldua.
37. Baño Jaungoikoak illen artetik pistu zuen ura, etzan usteldu.
38. Jakin ezazute bada, gison anaiak, onengatik etorri zazutela pekatuen barkazioa, eta Moisesen legean justifikatuak ezin izandu ziñaten guztia.
40. Gorde zaitezte bada, zuen gañean etorri ez dedin, Profetak esan zutena;
41. Begira ezazute, kasorik egiten ez dezutenak, eta arritu zaitezte, eta alde egizute, zergatik nik egiten dedan zuen egunetan obra bat, zuek sinistuko ez dezutena, norbaitek esango balizuteke.
42. Eta berak ateratzean erregutu zioten, urrengo zapatuan esan zitzaieka itz aiek.
43. Eta Sinagoga despeiuta, Judio asko eta Jentillak Jaungoikoaren bildurtazunekoak, segitu zieten Pablori eta Bernaberi; eta oiek erregutzen zieten, egon zitezela firme Jaungoikoaren grazian.
44. Eta urrengo zapatuan jua zan kasi erri gustia Jaungoikoaren itza aditzera.
45. Eta Judioak, jendeak ikusi zituztenean, bete ziran zeloz, eta gaiski itzegiñaz, kontra egiten zioten, Pablok esaten zuenari.
46. Orduan Pablok eta Bernabek esan zieten firmezaz: zuei itz egin bear zan aurrena, Jaungoikoaren itza; baño kasorik egiten ez dezutelako, eta juzgatzen zeraten, betiko bizitzaren mereziezgarriak, emendikan biur-tzen gera Jentillengana.
47. Zergatik Jaunak, ala agindu zigun; nik jarri zaitut, jendeen argitazunerako izan zaitezten osasunean lurraren atxeneraño.
48. Jentillak au aditu zutenean, postu ziran, eta glorifikatzen zuten Jaunaren itza; eta sinisten zuten lenagotik autuak izan ziranak, betiko bizitzara.
49. Eta Jaunaren itza zabaltzen zan leku gustian.



50. Bañan judioak, gaiski jarri zitusten emakume debota eta aunditazuneko gustiak, eta erriko prinzipalak, eta mubitu zuten persekuzioa Pablora eta Bernaberen kontra, eta bota zitusten beren inguruetatik.

51. Orduan berak, beren oñetako autsa beren kontra botata, jua ziran Ikoniora.

52. Eta Diszipuluak zeuden posez, eta Espiritu Santuz beterik.

### AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan Ikonion, sartu zirala alkarrekin Judioen Sinagogan, eta an predikatu zuten, eta Judioetako, eta Griegoetako askok, sinistu zuten.

2. Bañan sinistu etzuten Judioak altxatu ziran, eta irritatu zitusten Jentillak beren anaien kontra.

3. Orregatik gelditu ziran denbora luzean, jaunean konfianzarekin bearra egiten, zeñek ematen zuen testimonioa bere graziaren itzan, beren eskuetatik milagroak eta gausa arrigarriak egin zitezzen, lizenzia emanaz.

4. Eta apartatu ziran erriko jendeak; eta batzuek zeuden Apostoluak gatik, eta besteak Judioak gatik.

5. Bañan Jentillak eta Judioak, beren agintariakin, alborotatu ziran, burlatzeko eta arrika emateko aieri,

6. Esagutu zutenean berak, igez egin zuten Listrara eta Derbera, Likaoniako ziudadeak, eta aien inguru gustietara, eta an predikatzen zuten Ebanjelioa.

7. Eta Listran zegoen gison bat oñetatik baldaturik, bere amaren zabeletik errena, beñere ebilli etzana.

8. Onek aditu zuen Pablo predikatzen, zeñek begiak beregan jarririk, eta ikusirik sendatua izateko fedea zeukala,

9. Esan zuan: Altxatu zaite zutik zeure oñen gañean; eta berak salto egin zuan, eta ibilli zan.

10. Jendeak ikusi zutenean Pablok egin zuena, deadar egin zuten, eta esan zuten likaoniako izkuntzan: Jetxi dira gugana Jaungoikoak, gisonen forman.

11. Eta ematen zioten Bernaberi Jupiterren izena, eta Pablori Merkuriorrena, zergatik bera zan itzegiten zuena.

12. Baitaere ziudadeko sarreran zegoen Jupiterren Sazerdoteak, ateen aurrera zezanak eta girnaldak ekarrita, nai zuen sakrifikatu erriarekin.

13. Eta Bernabe eta Pablo Apostoluak, aditu zutenean, beren soñeokoak puskatuta, saltatu ziran jendeen erdira deadarrez:

14. Eta esanaz: Gisonak, zergatik egiten dezute au? Gu ere zuek bezela, gison mortalak gera, eta predikatzen dizutegu gausa uts oietatik, biurtu zaitezela zerua, lurra, eta itxaso, eta oietan dagoen gustia egin zuen, Jaungoiko biziarengana;

15. Zeñek utzi dien pasatu diran Jentillai bere bideetan ibilzen.

16. Eta etzan beñere gelditu testimonio bage, Zerutik on egiñaz, ebiak emanaz, eta frutuenzat denbora onak, gure biotzak mantenimentuz eta posez beteaz.

17. Eta au esanaz apenas pakean jarri izan zitusten jendeak, sakrifikatu etzeitazen.

18. Bañan etorri ziran Antiokiako eta Ikoniako Judio batzuek, eta erriaren borondatea irabazita, eta Pedrori arrika eginda, atera zuten erriatik kanpora, il zalako ustean.

19. Bañan Diszipuluak ingurutu zutenean, altxatu zan, eta sartu zan ziudadean eta urrengo egunean atera zan Bernaberekin Dubesa.

20. Eta ziudade artan Ebanjelioa predikatuta, eta askori erakutsita, biurtu ziran Listra, Ikonio, eta Antiotxiara,

21. Diszipuluen biotzak konfirmatuaz, eta fedean firme egoteko erregutuaz: eta persekuzio askogatik bear degula sartu Jaungoikoaren erreinuan.

22. Eta Apeizak beren Elisa bakoitzean ordenatuta gero, eta baraubakin erregu eginda, enkomendatu zituzten, sinistu zuten Jaunaren gana.

23. Eta Pisidia pasaturik, jua ziran Panphiliara.

24. Eta Perjesen Jaunaren itza erakutsita, jetxi ziran Ataliara.

25. Eta andik jua ziran itxasoz Antiotxiara, nondik izan ziran enkomendatuak Jaungoikoaren graziara akabatu zuten obrarako.

26. Eta allegatu ziranean, Elisa juntatuta, kontatu zitusten, berekin Jaungoikoak egin zituen gausa gustiak, eta nola iriki zien jentillai, fedearren atea.

27. Eta gelditu ziran Diszipuluakin denbora askoan.

### AMABOST GARREN KAPITULUA

1. Eta etorri ziran Judeatik anaiak erakutsi zieten, asko: Zirkunzidatzen ez bazedate, Moisesen kostunbrea bezela, eziñ izango zerate salbatuak.

2. Eta Pablok eta Bernabek disputatu zutenean aien kontra, konbenzitu bage, pensatu zuten joan zitezela Pablo eta Bernabe, eta beste Apostoluetako batzuek, eta Apeizak, Jerusalemik disputa onen gañian.





3. Eta berak, Elisagatik bialduak, pasatu ziran Pheniziatik eta Samariatik, Jentillen konbersioa, kontatzen; eta ematen zieten anaia gustiai pos aundia.

4. Eta Jerusalem alegatu ziranean, izan ziran rezibituak Elisagatik, Apostoluekgatik, eta Apezakgatik, zeñi kontatzen zieten, Jaungoikoak berakin egin zituen gausa gustiak.

5. Bañan altxatu ziran Fariseoen opinioko asko, sinistu zutenak, esanaz: bear zala izan zitezen zirkunzidatuak, eta agindu bear zizetela Moisesen legean.

6. Eta juntatu ziran Apostoluak, eta Apeizak, errierta onen gañian tratatzeko.

7. Eta ondo pensatuta gero, altxaturik Pedro, esan zien: Gison anaiak, zuek dakizute, aurreneko egunetarik, agindu zuan Jaungoikoak gure artean, nere aotik adi zezatela Jentillak Ebanjelioko itza, eta sinistu zezatela.

8. Eta Jaungoikoak, biotzak esagutzen dituenak, eman zuen testimonia, guri bezela aieri ere, Espiritu Santua emanaz.

9. Eta etzuen egin gure eta aien artean diferenziarik, fedearakin aien biotak garbiturik.

10. Orain bada, zergatik tentatzen dezute Jaungoikoa? Diszipuluen buruetan ustarrria ipiñiaz ez gure aitak, eta ez guk, eraman ezin genduenaz?

11. Bañan sinisten degu salbatuko gerala, JesuKristo Jaunaren graziaz, aiek bezela.

12. Eta issildu ziran gustiak: eta aditzen zioten Bernaberi, eta Pablo-ri, zeñek kontatzen zien, zeñ señaile aundiak, eta arrigarriak, egin zituen Jaungoikoak Jentillen artean berakgatik.

13. Eta issildu ziranean, eranzun zuen Santiagok, eta esan zuan: Gison anaiak, aditu nazazute.

14. Simonek kontatu du, nola Jaungoikoak bisitatu zituen aurrena Jentillak, aietatik bere izenerako erri bat aututzeko.

15. Eta onekin daude konforme Profeten itzak, eskribituta dagoan bezela:

16. Onen ondoren biurtuko naiz, eta egingo det berriz, erori zan Dabiden tabernakulua, konponduko ditut bere eroriak, eta altxatuko det:

17. Gison gañerakoak billa dezaten Jaungoikoa, eta jende gustiak, zeñen gañean izandu dan deitua nere izena, esaten du Jaunak, egin dituela gausa oiek.

18. Esaguna da Jaunari bere obra aurrenetik.

19. Orregatik nik juzgatzen det, ez ditezela izan persegituak Jaungoikoarengana biurtzen diran, Jentillak,

20. Bañan eskribitu zaietela, apartatu ditezela idoloen sikintazunetik, lujuriatik, gausa ittoetatik, eta odoletik.

21. Zergatik Moisesek, denbora askotik daduzka erri bakoitzean, zeñek predikatu Sinagogetan, non irakorten dan sapatu bakoitzean.

22. Orduan iruritu zitzaie ondo Apostolui, eta Apaizai, Elisa guztiarekin, aietatik aututzea gisonak; eta bialzera Antiokiara, Pablarekin eta Bernaberekin, Judas izengoitiz Barsabas zeukana, eta Silas, anaien artean gison prinzipalak.

23. Eta eskribitu zien beren eskutik onela. Apostoluak, eta Apaizak, Jentillanak diraden anaiak, eta Antiotxian, Sirian, eta Zilizian daudenak, osasuna.

24. Zergatik aditu degun, gure artetik atera diran batzuek, zuen biotzaz trastornatuaz ikaratu zaituztela itzak, agindu gabe:

25. Batean juntaturik, pensatu degu aututzea, eta zuei bialtzea gure Bernabe eta Pablo maitagarriakin,

26. Jesu Kristo gure Jaunaren izenean, beren bizitzak eman dituzten gisonak.

27. Bialtzen ditugu bada Judas eta Silas, zeñek esango dizute ere itzaz au bera.

28. Zergatik uste du Espiritu Santuak eta guk, ez jarzea zuen gañean beste kargarik, gausa bear oiek baizik.

29. Apartatu zaitetzela, idoloai sakrifikatzen zaioten gausaetatik, odoletik, ittotakotik, eta lujuriatik; zeñetatik gordetzen bazerate, egingo dezute ondo. Jaungoikoa izan dedilla zuekin.

30. Onela bada despatxaturik oiek, juan ziran Antiotxiara, eta fedeko gustiak baturik, eman zieten karta.

31. Eta irakorri zutenean postu ziran postasun artan.

32. Eta Judasek eta Silasek, ziranak Profetak, konsolatu zituzten anaiak itz askorekin, eta jarri zituzten firme fedean.

33. Eta denbora puska baten an egonda, despatxatu zituzten anaiak pakean, bialdu zituztenengana.

34. Silas argatik ere gelditu zan an; eta juan zan Judas bakarrik Jerusalem.

35. Eta Pablo, eta Bernabe, beste askorekin zeuden Antiotxian Jaunaren itza erakusten eta predikatzen.



36. Eta andik egun batzuetara esan zion Pablok Bernaberi: Biurtu gaitezen, Jaunaren itza predikatu degun ziudade gustietako anaiak bisitazera, nola dijoakien ikusteko.

37. Eta Bernabek nai zuen berekin eraman Juan, izengoitiz Markos zeitzaiona ere.

38. Bañan Pablok erregutzen zion, eta esaten zion, Panphiliatik apartatu zan eskero beretatik, eta juan etzan eskero berakin obrara, etzala ondo amititzea.

39. Eta izan zuten beren artean alako disputa, zer apartatu ziran bata bestearengandik, eta Bernabek eraman zuen berekin Markos, eta juan zan itxasoz Txiprera.

40. Eta Pablo Silas aututa, atera zan, Jaungoikoaren grazia anaiakgatik erregutuaz.

41. Eta ibilli zan Sirian eta Zilizian Elisak konfirmatzen Apostoluen eta Apaizen aginteak gordetzeko, aginzen.

### AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta allegatu zan Derbera, eta Sistrara. Eta zegoen an Timoteo zeitzaion Diszipulu bat, emakume fedeko baten semea, eta aita Jentillarena.

2. Onegatik ematen zuten testimonio ona, Sistran eta Ikonion zeuden anaiak.

3. Pablok nai zuen orduan juan zedilla au bere laguntazunean: eta artu zuen eta zirkunzidatu zuen, leku aietan zeuden Judioakgatik. Zergatik gustiak zekiten be aita Jentilla zala.

4. Eta ziudadeetatik pasatzen ziranean, erakusten zieten, Jerusalemen zeuden Apostolu eta Apaizakgatik jarri ziran aginte gustiak, gorde zitza-tela.

5. Eta Elisak konfirmatzen ziran fedean, eta zijoazen geiagora egu-nero.

6. Eta Phrijia eta Galaziako probintzia pasatzean, eragotzi zien Espiritu Santuak, Jaungoikoaren itza Asian predikatzea.

7. Eta Misiara allegatu ziranean, nai zuten juan Bithinia, eta etzien utzi Espiritu Santuak.

8. Eta Misia pasatuta gero, jetxi ziran Troadera.

9. Eta gabaz agertu zitzaion bisioa Pablori; jarri zitzaion aurrean Mazedoniako gison bat, erregutzen ziona eta esaten ziona: juan zaitze Mazedoniara, eta lagundu giuzu.

10. Eta bisio izan da gero, alegin egin genduen, Mazedoniara juateko, Jaungoikoak Ebanjelioa predikatzeke, otzegin zigula, egiaz jakiñik.

11. Orregatik Troaden barkuan sarturik, juan giñan itxasoz zuzenean Samotraziara, eta urrengo egunean Napolesa:

12. Eta andik Philiposa, zeña dan kolonia eta erri prinzipal bat Mazedoniako alde artakoa. Eta erri onetan gelditu giñan egun batzuetan, tratatzen.

13. Eta sapatuko egun batean atera giñan atetik kanpora ibaiaren ondora, non egiten omen zan erregua: eta an eseririk, itz egin genduen, ara etorri ziran emakumeekin.

14. Eta Lidia zeitzaion Thiatirosko ziudadeko emakume batek, purpuran komerziatzen zuena, Jaungoikoaren bildurtazunekoak, aditu zuen; eta Jaunak iriki zion bere biotza, Pablok esaten zuena aditu zezan.

15. Eta bere familiarekin bataiatua izan zanean, erregutu zuen, eta esan zuen: Baldin pensatu badezute ni naizala fiela Jaunarenzat, sartu zaitzte nere etxean, eta an deskansatu zaiteste. Eta obligatu ginzen egitera.

16. Gertatu zan bada, gu erregutzera ginjoazela, billatu genduen neskatxa bat, zeukana Pithonen espiritua eta bere naguziai irabi aundiak ematen ziena adibinatzen.

17. Onek Pablori eta guri segituaz, deadar egiten zuen, esanaz: Gizon oiek Jaungoikoaren serbitzalleak dira, osasuneko bidea erakusten dizutenak.

18. Eta au egiten zuen egun askotan. Bañan Pablo indinaturik biurtu zan eta esan zion espirituari: Aginzen dizut Jesu Kristoren izenean, atera zaitzela andik. Eta ordu artan bertan atera zan.

19. Eta bere naguziak ikusi zutenean, juan zitzaioletela bere irabazien esperanza, Pablo eta Silas artuta eraman zituzten juzgaduara, agintariari;

20. Eta Majistraduai presentatuta, esan zuten: Gison oiek Judioak dira, eta alborotatzen dute gure ziudadea.

21. Eta predikatzen dituzte, guri, Romanoak isanda gordetzea sillegi ez diran dotriñak.

22. Eta erria juan zan beren kontra; eta agintariak, tunikak urratu azinda, agindu zuten azotatzeko sotsakin.

23. Eta golpe asko emanda gero, sartu zituzten karzelan, karzelerori ondo gordeta eukiteko aginduta.

24. Onek ordena au artu zuanean, jarri zituen kalabozoan, eta estu zien oñak zepoan.

25. Bañan gau erdian erregutzen jarriarik, alabatzen zuten Jaungoikoa Pablok eta Silasek, eta preso zeudenak, aditzen zituzten.



26. Eta subituan sentitu zan lurrikara aundi bat, eta mubitu ziran karzelako zimenduak; eta iriki ziran gero ate gustiak, ta askatu ziran gustien kateak.

27. Eta karzelerook esnaaturik, atea irikiak ikusi zituenean, espata aterata, bere burua ill nai zuan, presoak igez egin zutelako.

28. Bañan Pablok deadarrez esan zuen: Etzaitzela gaitzik egin, zergatik gauden guztiok emen.

29. Orduan berak eskatu zuan argi bat, eta sartu zan barruna; eta ikaraz erori zan Pablaren eta Silaren oñetara:

30. Eta kanpora aterata esan zien: Jaunak, zer egin bear det nik salbatua izateko?

31. Eta aiek esan zioten, sinistu ezazu Jesus Jaunean, eta zu eta zure etxea izango zerate salbatuak.

32. Eta predikatu zion Jaunaren itza berari, eta bere etxean zeuden gustiai.

33. Eta gaubeko ordu artan bertan garbitu zien llagak, eta bedeala izan ziran bataiatuak bera eta bere familia gustia.

34. Eta bere etxera eramanda, jarri zien maia, eta postu zan bere etxeko gustiak, Jaungoikoan sinistuz.

35. Egunaz izan zanean, bialdu zioten Majistraduak ministroakin mandatua utzi zizaiola libre juaten gison oieri.

36. Eta karzelerook eman zion abisu au Pablori: Majistraduak bialdu dirade ordena, zuek libertadean jarteko; bada orain atera zaitzete, eta zuazte pakean.

37. Orduan Pablok esan zien: publikoan azotatuak juzgatu bage, Romanoak izanda, sartu ginduzuten karzelan: eta orain kanpora botatzen gaituzute issillean? Ez da ala izango: bañan etorri bitez,

38. Eta atera gaitzate berak. Eta ministroak jakiñazi zieten itz oiek Majistraduai. Eta bildurtu ziran oiek, Romanoak zirala aditu zutenean.

39. Eta etorri ziran barkazioa eskatzen, eta ateratuaz, erregutzen zieten, irten zitezela erritik.

40. Eta karzelatik aterata gero sartu ziran Lidiaren etxean, eta anaiak bisitatzean, konsolatu zituzten, eta juan ziran.

### AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta Anhipolistik, eta Apoloniatik pasatu ziranean allegatu ziran Thesalonikara, non zegoan Judioen Sinagoga bat.

2. Eta Pablo sartu zan aietara, kostunbrea zuen bezela, eta iru zapatan disputatzen zuen aiekin Eskrituren gañean,

3. Deklaratuaz eta erakutsiaz, bear izan zala Jesukristok padezitu zezala, eta pistua izan zediela illen artetik, eta au da nik aditzera ematen dizutedan Jesu Kristo.

4. Eta aietako batzuek sinistu zuten, eta juntatu ziran Pablarekin, eta Silasekin; baitaere Jaungoikoaren bildurtazuneko asko, Jentilletakoak, eta emakume prinzipal asko.

5. Bañan Judioak, zeloz mubiturik, erriko jende bajua, gison gaistok arturik, eta ejendea egiñaz, altxatu zuten ziudadea; eta ingurutu zuten Jasosen etxea, erriari presentatu naiean.

6. Eta billatu etzituztenean, ekarri zuten indarrez Jason eta bere anaietako batzuek Majistraduetara, deadar egiñaz: Oiek dira ziudadea alborotatzen dutenak, eta onera etorri ziranak,

7. Zeñak artu ditu Jasonek, eta oiek gustiak egiten dute Zesaren aginduen kontra, esanaz, badagoala beste errege bat, dana Jesus.

8. Eta alborotatu zan erria, eta erriko prinzipalak, gausa oiek aditzean.

9. Bañan Jasonengandik, eta besteetatik satisfazioa artuta utzi zieten libre juaten.

10. Eta anaiak, gauba allegatu zanean bereala, bialdu zituzten Bereara Pablo eta Silas. Eta allegatu ziranean, sartu ziran Judioen Sinagogan.

11. Eta oiek ziran Thesalonikakoak baño nobleagoak, bada rezibitu zituzten itza firmeza gustiarekin, esamiñatuaz kuidadu aundiarekin Eskriturak, gausa oiek ala ote ziran.

12. Aietako askok sinistu zuten emakume jentil eta gison askorekin.

13. Baña Thesalonikiako Judioak jakin zutenean Besean ere predikatu zuela Pablok, Jaungoikoaren itza, juan ziran ara, erria trastornatzera eta altxatzera.

14. Eta anaiak bedeala irten azi zioten Pablori, itxasoraño juateko: bañan Silas eta Thimoteo an gelditu ziran.

15. Eta Pablori lagunzen ziotenak, eraman zuten Athenasaño: eta Silasentzat eta Thimoteorentzat txit laister etorzeko ordenak artuta gero juan ziran.

16. Eta Pablok Athenasen itxooten zien bitartean, irazekitzen zan bere espiritu, bere barrenean, ikustean ziudadea idolatriara entregatua.

17. Eta ala disputatzen zuen Sinagogan Judioekin eta Proselitoekin, eta egunero plazan, aurren jarten zitzairen gustiak.

18. Eta Epikureo eta Estoiko folosofo askok disputatzen zuten berarekin, eta batzuek esaten zuten: Zer esan nai digu itzen eraginzalle onek? eta besteak: dirudi bederatzu Jaungoikoaren predikadorea; zergatik aditze-  
ra ematen zieten Jesus, eta pistutazuna.



19. Eta elduta eraman zuten Tribunalera esanaz: Eziñ jakiñ dezakegu, zer dotriña berria dan, predikatzen dezun au?
20. Zergatik sartu dituzun gure belarrietan nobedade batzuek; jakiñ nai degu bada, zer izan nai duen onek.
21. (Eta Atenienseak gustiak, eta an bizi ziran arrotzak, etzuten pensatzen beste gausatan, baizik esatean; edo aditzean zerbait berria).
22. Pablok bada Tribunalaren erdian sutik jarririk, esan zuen: Gizon Atenienseak, gausa gustietan ikusten zaituztet superstiziosoenak bezela.
23. Zergatik pasatzean eta ikustean zuen altareak, arkitu nuen arri bat ere, zeñean zegoen eskribitua: Ezagutu bageko Jaungoikoari. Zuek ikusi bage adoratzan dezuten ura bada, ori da bada, nik esaten dizutedana.
24. Mundua eta emen dauden gausa gustiak egin zituen Jaungoiko au, zeruko eta lurreko Jauna isanik, ez da bizi eskuakin eginiko tenploetan.
25. Eta ezta ere serbitua gisonak gatik, gausaren bat bear balu bezela, bada berak ematen die gustiai, bizia eta gauza gustiak:
26. Eta batengandik bakarrik egin zuan munduko linaje gustia, lurreko superfizia gustian bizi zitezen, denboraren ordena señalatuaz eta bere bizilekuko inguruak.
27. Jaungoikoa billa zezaten, ikutu edo arkitu ote zezaketen, gure bakoitzarengandik urruti ez badago ere.
28. Zergatik beregan bizi gera eta mubitzen gera; zuen poeta batzuek esan zuten bezela: Zergatik geran ere bere linajeoak.
29. Isanik bada Jaungoikoaren linajeoak, ez degu pensatu bear Dibinidadea dala artearekin edo gisonaren industriarekin laundutako urrea, zillarra, edo arria bezela.
30. Eta Jaungoikoak ignoranzi onetako denborak disimulatuta, abisatu die orain gizonai, leku guztietan penitentsia egiteko.
31. Zergatik dekretatu du eguna, zeñean juzgatu bear duen mundua, justizian gissan, agindu zuen gisonagatik, egitazuna emanaz gustiai, illen artetik pistuaz bera.
32. Eta aditu zutenean illen pistuera, batzuek burla egiten zuten, eta besteak esan zuten: adituko dizugu berriz gausa onen gañean.
33. Onela Pablo atera zan aien erditik.
34. Bañan batzuek sinistu zuten eta allegatu ziran berarengana: zeñean artean jua zan Dionisio, tribunaleko jueza, eta Damaris zeitzaion emakume bat, eta beste batzuek aiekin.

## EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Gausa oien ondoren, atera zan Athenasa, eta jua zan Korintora.

2. Eta an Akila izena zuen Judio bat, Ponten jaioa, eta denbora gutxiz lenago Italiatik allegatu zana, eta Priszila bere emaztea (zergatik Klaudiok agindu zuan Erromatik ateratzeko Judio guztiak) aurkiturik, allegatu ziran berengana.
3. Eta nola zan beren ofizioa, zegoen berakin, eta bearra egiten zuen (zergatik bere ofizioa zan dendak egitekoa).
4. Eta disputatzen zuen zapatu bakoitzean Sinagogan: eta beren sermioletan, Jesus Jaunaren izena sartu asinik, konbenzitutzen zituen Judioak eta Griegoak.
5. Eta etorri ziranean Silas eta Timoteo Mazedoniatik, Pablok predikatzen zuen, deskansu gabe Jesus zala Kristoa testimonioa emanaz Judioai.
6. Bañan berak kontra egiten, gaiski itz egiñaz, astindu zituen bere soñekoak, eta esan zien: Zuen odola izan dedilla zuen buruen gañean: ni nago garbia, eta bertatik noa Jentilletara.
7. Eta andik apartatuta, sartu zan Tito Justo zeitzaion, Jaungoikoaren bildurtazuneko baten etxera, zeña zegoan Sinagogaren ondoan.
8. Eta Krispok, zeñ zan Sinagogako agintaria, sinistu zuen, bere etxeko gustiak, Jaunear, eta adituaz sinisten zuten Korintioetako askorekin, eta izaten ziran bataiatuak.
9. Eta esan zion Jaunak Pablori bisioan gabez: Ez bildurtu, bañan itz egin zazu, eta ez issillik egon:
10. Zergatik ni nagoan zurekin: eta etzazu iñor alderatuko gaitz egiteko: zergatik daukadan erri asko ziudade onetan.
11. Eta gelditu zan an urte bat eta sei illabetean, Jaungoikoaren itza aieri erakusten.
12. Eta Galion, Atxaiako Prokonsula zanean altxatu ziran Judioak Pablora kontra, eta eraman zuten Tribunalera:
13. Esanaz: Onek obligatzen dituela gisonak, Jaungoikoa, legearen kontra serbitu dezaten.
14. Eta nola Pablo asi zan itz egiten, esan zien Galionek Judioai: Baldin balitz agrabioren bat, edo kulpa aundi bat, adituko nizuteke, O Judioak, deretxoa dan bezela.
15. Bañan baldin badira itzeko izenetako, eta zuen legeko disputak, ikusi ezazute zuek: zergatik nik nai ez det izan gausa oien jueza.
16. Eta atera asin zien Tribunaletik.
17. Eta orduan berak Sosthenes Sinagogako agintariaren gañean juanik, ematen zioten golpeak, Tribunalaren aurrean, Galionek orregatik kasorik egin gabe.



18. Bañan Pablo egun askotan an egonda, anaietatik despeituta, juañ an itxasoz Siriara (eta berarekin Priszila eta Akila) eta illea ebaki asin zuen Zentxrisen, zergatik zeukan botua.

19. Eta allegatu zan Efhesora, eta utzi zituen an. Eta bera Sinagogan sartuta, disputatzen zuen Judioakin.

20. Eta erreguturik berak, gelditu zediela an denbora geiagoan, etzuen konsentitu,

21. Baizik aietatik despeituta, eta esanaz: Berriz biurtuko naiz zuetara, Jaungoikoak nai badu, juañ zan Efhesora.

22. Eta Zesareara jetxi zanean; juañ zan Eliza saldatzera, eta andik pasatu zan Antiotxiara.

23. Eta an denbora batean egonda, atera zan, eta ebilli zan ordenaz, Galaziako eta Phrijjako lurtean, bere Diszipulu guztiak fortaleztizen.

24. Eta etorri zan Efhesora, Apolo izena zuen Judio bat, Alejandrian jaioa, gison jakintzua, eta Eskrituretari aditua.

25. Au zegoen Jaunaren bidean erakutsia: eta itz egiten zuen espiritu-tuko indarrarekin, eta erakusten zuen, Jesusena zana, eta bakarrik ezagutzen zuen Juanen bataioa.

26. Au bada asi zan itz egiten Sinagogan libertadearekin. Eta Priszilak eta Akilak aditu ziotenean, eraman zuten berekin, eta erakutsi zien argitasun geiagorekin, Jaunaren bidea.

27. Eta berak Atxaiara juañ nai zuenean, bere anaiak artara animatuta, eskribitu zieten Diszipuluai, rezibitu zezatela; eta an egon zanean, izandu zan probetxu andikoa, sinistu zutenentzat.

28. Zergatik berotasun aundiarekin, konbenzitu zituen Judioak, publikoan, Eskriturak gatik erakutziak, Jesus zala Kristo.

### EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan zer Apolo Korinthon zegoanean, Pablo, probinzia goikoak pasatuta, etorri zala Ephesora, eta aurkitu zituen Diszipulu batzuek;

2. Eta esan zien: Fedea abrazatu zendutenean, artu zenduten Espiritu Santua? Eta erantzun zioten: Oraindik ez degu aditu ere Espiritu Santua danik.

3. Eta berak esan zien: Zeñetan bada izandu zerate bataiatuak? Berak esan zuten: Juanen bataioan.

4. Eta esan zuan Pablok: Juanek bataiatu zuen erria, penitenziako bataioarekin, esanaz: sinistu zezatela bere ondoren etorri bear zuen aretan, au da, Jesusean.

5. Itz oiek adituta izan ziran bataiatuak Jesusen izenean.

6. Eta Pablok eskuak beren gañean jarrita, etorri zan Espiritu Santua beren gañera, eta itz egiten zuten izkuntzetan, eta profetizatzen zuten.

7. Eta ziran gustiak amabi persona bezela.

8. Eta Sinagogan sartuta, itzegin zuan iru illabeteen libertadearekin, disputatzen eta Jaungoikoaren erreinuan persuaditzen.

9. Bañan nola batzuek gogortu ziran, eta sinistu etzuten, Jaunaren bideagatatik gaizki itz egiten jende askoren aurrean, beretatik alde eginda, apartatu zituen Diszipuluak; Eta disputatzen zuen egunero, tirano baten eskolan.

10. Eta au izan zan urte bian, alako moduan ezen, Asian bizi ziran gustiak, aditzen zuten Jaunaren itza, Judioak eta Jentillak.

11. Eta Jaungoikoak egiten zituen birtute aundiak Pablaren eskutik:

12. Alako moduan zer, bere korputzeko lienzoa eta gerrikoak gassolari jarten zitzaizotenean, utzitzen zieten gaitzak, eta ateratzen ziran Espiritu gaistoak.

13. Eta Judio konjuratzalle batzuek, leku batetik bestera zebiltzanak, asi ziran deitzen Jesus Jaunaren izena, espiritu gaistoak gatik artuta zeudenen gañean esanaz: Konjuratzen zaituztet Pablok predikatzen duen, Jesusen gatik.

14. Eta au egiten zutenak ziran, Szeba zeitzaion, Judio Sazerdoteen agintari baten, zazpi seme.

15. Bañan espiritu gaistoak erantzun zien esanaz: Esagutzen det Jesus, eta badakit zein dan Pablo; bañan zuek, zein zerate?

16. Eta espiritu gaistoa zeukan gisona, beren gañean saltatuta, eta biri elduta, bentaja eduki zuen aien kontra, alako moduan zer, soñik bage, eta heriturik iges egin zuten etxe artatik.

17. Eta au izan zan agertua Epheson bizi ziran Judio eta Jentil gustiai: eta etorri zan bildurra, aien gustien gañean, eta zan auditua Jesus Jaunaren izena.

18. Sinistu zutenetako asko etorri ziran beren egiñak konfesatzen eta jakitera ematen.

19. Eta arte utzak, segitu zitusten aietako askok, ekarri zitusten liburuak, eta erre zitusten beren aurrean, eta beren balera kalkulatuta, aurkitu zan igotzen zala, berrogei ta amar zillarrezko dirutan.

20. Onela asitzen zan, eta artutzen zituen indar berriak Jaungoikoaren itzak.





21. Eta gausa oiek kunplituta, pensatu zuen Pablok, espirituz, Jerusalena juatea, Mazedonia eta Akaiaren erditik pasatuta, esanaz: argatik an egonda gero prezisoa da ere nik Erroma ikustea.

22. Eta lagun egiten zioten bi, Thimoteo eta erasto bialduta, bera gel-ditu zan denbora batean Asian,

23. Bañan denbora artan etorri zan alboroto aundi bat, Jaunaren bidearen gañean.

24. Zergatik Demetrio zeitzaion zillargille batek, zillarrezko tenploak egiten zituanak, ematen zien irabazi gutxi beargilleari,

25. Zeñai eta onelako obretan bearra egiten zuenari ere otseginda, esan zien: Gisonak, zuek badakizute maissutasun onetatik ateratzen degun irabazia:

26. Eta ikusten dezute, ez bakarrik Epheson, baizik ee Asia gustian, ateratzen ditu jende asko Pablo onek, bere persuazioakin; esanaz: ez dirala Jaungoikoak, eskuetatik egiten diranak.

27. Orregatik, ez bakarrik dago peligran, gure profesioa deskreditatu dedin, baizik Diana aundiaren Tenploa izan dedin utzean edukia, eta Asian gustiak eta munduak adoratzen duen aren majestadea lurrera juan dedin.

28. Au adituta, bete ziran korajez, eta deadar egin zuten esanaz, Ephesoko Diana aundia,

29. Eta bete zan zitudade gustia desordenaz, eta danak batean juan ziran Teatrora, Gaio eta Aristarko Mazedonioak, Pablaren lagunak indarrez eramatera.

30. Eta Pablok erriaren aurrera atera naidik, etzioten utzi Diszipuluak.

31. Eta baita ere Asiako prinzipal batzuek, beren adiskideak ziranak, erregutu zioten etzedilla presentatu teatroan:

32. Eta besteak deadar egiten zuten beste bat; zergatik juntaera zegoan konfundituta; eta geienak etzekiten zergatik juntatu ziran.

33. Eta atera zuten Alejandro jendearen artetik, golpeka Judioak eramanz. Eta Alejandrok, eskuarekin issillik egoteko eskatuta, erriari arrazoa eman nai zion.

34. Eta Judioa zala ezagutu zutenean, danak batean deadar egin zuten bi orduan: Diana aundia Ephesoena.

35. Orduban Eskribaubak, jendea pakean jarrita, esan zuen: Ephesoko gisonak, zein gisona da ez dakiena Ephesoko zitudadea dala Diana aundiaren eta Jupiterren alabaren onrazallea?

36. Eta bada esin ukatu deitekean ezkeroz au, bear da sosegatu zaitezen, eta ezer egin ez dezazuten pensatu bage.

37. Zergatik, onera ekarri dituzuten gison oiek, ez diran sakrilegoak, eta zuen Jaungoiko Dianaren kontra itz gaistoak esaten ditustenak.

38. Bañan Demetriok, eta berarekin dauden ofiziale gustiak, daukate norbaiten kontra kejaren bat, Audienzia publikoa dago, Agintariak daude, akusatu bezate batak bestea.

39. Eta zerbait eskatzen badezute justiziaz, juntaera egiazkoan despatxatua izango da.

40. Zergatik gaur gertatu dana gatik, peligroa dago akusatu gaitzaten alborotadoreak bezela; batere motiburik eduki bage, juntaera onen arrazoidik emateko. Eta au esan da, despeitu zuan juntaera.

## OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta alborotoa gelditu zanean, Pablo, Diszipulua izotegin da, eta erregu bat eginda, despeitu zan aietatik, eta irten zan Mazedoniara juateko.

2. Eta lur aiek ebillita gero, eta an itz askorekin erregututa, etorri zan Greziara:

3. Non iru illabeteen egonda, jarri zitzaioten asetxanzak Judioengatik, bera itxasoz Siriara juateko zegoanean; eta ala pensatu zuen biurtzera Mazedoniatik.

4. Eta lagundu zioten Sopatro Bereako, Pirroren semeak, eta Aristarko Thesalonikakoarenak, eta Sekundo, Galo Derbeo, eta Timoteo: eta Titxiko eta Trophimo Asiakoarenak.

5. Oiek juan ziran aurretik, eta itxegin ziguten Troaden.

6. Eta gu, orranz bageko egunen ondoren, atera giñan itxasoz Philipostik, eta eldu giñan bost egunean Troadera, eta gelditu giñan an zazpi egunean.

7. Eta asteko aurreneko egunean, ogia ebakitzeko juntatu giñanean, Pablok, urrengo egunean juan bear zuanak, disputatzen zuan berakin, eta luzatu zuen platika gau erdiraño.

8. Eta zeuden lanpara asko, baturik zeuden afaritokian.

9. Eta Eutitxo zeitzaion mutill gaste bat eseri zan leio baten gañean, eta nola lo egiten zuen, Pablok bere sermoia luzatzen zuen bitartean, loak arturik erori zan etxeko irugarren bizitzatik beera, eta altxatu zuten illik.

10. Zeñegana Pablo jetxita, alderatu zan bere gañean, eta besoetan artuta esan zuen: Etzaitzela ikaratu, zergatik bere anima beregan dago.

11. Eta igota, ogia ebakita, juan zuen, eta itz egin zien luzaro eguna etorri zan artean, eta gero juan zan.



12. Eta eraman zuten bizirik mutilla, orregatik artu zuten pos aundi bat.
13. Bañan gu ontzian sartuta juan giñan Jasona, an Pablo rezibitzeko; zergatik ala berak disponitu zuan, beajea lurrez egin bear da.
14. Eta Asonen gurekin juntatuta, artu genduen, eta juan giñan Mite-lenera.
15. Eta andik urrengo egunean itxasoz juan da, jarri ginan Txioeren aurrean, eta urrenguan artu genduan portua Samosen, eta beste urrengo-an eldu giñan Miletora.
16. Zergatik Pablok determinatu zuan Ephesotik aurrera pasatzea, Asian ez gelditzeagatik. Bada aurreratzen zan al zuen gustia, Pentekosteko eguna Jerusalemene zelebratzeko.
17. Eta Miletotik Ephesora bialduta, otzegin zituen Elisako gison zarrak.
18. Oiek etorri ziran berarengana, eta gustiak alkarrekin zeudela, esan zion: zuek dakizute Asian sartu nintzan aurreneko egunetik, zer moduz portatu naizen, zuekin egondu naizen denbora gustian.
19. Jauna serbituaz humildade gustiarekin negarrakin, eta tentazioa-kin, Judioen engañuakin etorri zitzazadanak.
20. Nola gustia zan zuenzat probetxu bage, ez dizutet esan nai, eta ezta ere erakutsi etxeetan eta publikoan,
21. Judioai ta Jentillai predikatuaz, Jaungoikoarenganako biuratzuna, eta Jesukristo Jaunaren fedean.
22. Eta ona emen, ni Espiritua gaitik obligatuta, noa Jerusalem; an gertatuko zaidan gausak jakin bage:
23. Espiritu Santuak aseguratzen didana baizik ziudade gustietan: Jerusalemene itxooten diratela prisioak eta penak.
24. Bañan ez dadukat gausa oiek gatik bildurrik; eta ez det egiten nere bizitza, ni bañan andiagoa Jesus Jaunagandik artu nuen itzaren karre-ra eta enkargua, akabatzen badet Jaungoikoaren graziako Ebanjelioaren testimonioa emateko.
25. Eta oraiñ ona emen, badakit nik, ez dezutela zuek gustiok ikusi-ko geiago nere arpegia, zeñen gatik pasatu naiz, Jaungoikoaren erreinua predikatzen.
26. Orregatik egiaz esaten dizutet egun onetan, gustion odoletik gar-biturik nagoala.
27. Zergatik ez dedan eskusatu Jaungoikoaren konseju gustiak zueri aditzera ematea.

28. Begira ezazute zuek gatik eta zuen juntaera gustia gatik, zeñean jarri zaituzten Espiritu Santuak, Obispotzat, Jaungoikoaren Elisa gober-natzeko, zeña irabazi zuen bere odolarekin.
29. Nik badakit ni ateratzen naizenean sartuko dirala zuetara era-mango zaituztenak, eta zuen juntaerari barkatu ez diotenak.
30. Eta zuen artetik altxatuko dira, gausa gaistoak, berengana Diszi-puluak eramateko, esango dituzten gisonak.
31. Orregatik kontuan eduki zazute, iru urtean ez naizela gelditu enkargatu bage negar egiñaz, zuetako bakoitzari.
32. Eta orain enkomendatzen zaituztet Jaungoikoarengana eta bere graziaren itzera, egiteko poderioa daukan arengana, eta santifikatuak dira-den gustien artean, zueri parte emateko.
33. Ez det deseatu urrerik, eta zillarrik, eta ezta ere iñoren soñekorik,
34. Zuek berak dakizuten bezela, zergatik esku oiek eman dirate neretzat eta nerekin daudenarentzat, bear ditudan gausak.
35. Gustia erakutsi dizutet, onela bearra eginda, bear dirala artu gas-soak, eta akordatu Jaunak esan zituen itz aiez: Gausa ohea dala ematea, artutzea baño.
36. Eta au esanda, jarri zan belauniko, eta erregu egin zuan aiek gus-tiakin.
37. Eta altxatu zan negar aundi bat gustien artean; eta Pabloren lepo-ra eroririk, musu ematen zioten,
38. Esan zien itzaz, geiago bere arpegia ikusiko etzutela, tristeturik. Eta juan ziran ontziraño lagun egiten.

### OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Eta ontzian sartuta, aietatik apartatu giñanean, juan giñan zuzenean Koosa, eta urrengo egunean Rhodasa, eta andik Patara.
2. Eta Pheniziara zijoan ontzi bat aurkituta, sartu giñan an, eta atera giñan portutik.
3. Eta Txipre ikusi genduanean, ezkerretara utzita, segitu genduen gure bidea, eta eldu giñan Tirora: zergatik ontziak utzi bear zuen an bere karga.
4. Eta nola arkitu gendituen Diszipuluak, gelditu giñan an zazpi egu-nean: Eta esaten zioten Pablori Espirituagatik; etzediela igo Jerusalem.
5. Eta egun oiek pasatuta, atera giñan andik, danak beren emaztea-kin eta semeakin lagun egiten zigutela ziudadetik kanporaño, eta belauni-ko jarriarik, erregu egin genduen.



6. Eta bata besteagandik despeituta, sartu giñan ontzian; eta aiek biurtu ziran beren etxeetara.
7. Gu nabegazioa eginda, pasatu giñan Tirotik Ptolemaidara, eta anaiak saludatuta, gelditu giñan egun batean aiekin.
8. Eta urrengo egunean andik aterata, eldu giñan Zesareara. Eta Felipe Ebanjelistaren etxean sartuta, zein zan zazpietako bat, gelditu giñan ostatuz bere etxean.
9. Eta zeuzkan onek lau alaba birjiñak, profetizatzen zutenak.
10. Eta an egun batzuetan egin genduen egoteran, etorri zan Agabo zeitzaion Profeta bat, Judeatik.
11. Onek, nola etorri zan guregana, artu zuen gerrikoa, eta bere oñak eta eskuak loturik, esan zien: Au esaten du Espiritu Santuak: Onela Judioak lotuko dute Jerusalemenean, kordo onen jabea dan gisona, eta entregatuko dute Jentillen eskuetan.
12. Aditu genduanean au, guk eta erri artakoak ziranak erregutu giñoen etzediela igo Jerusalemara.
13. Orduan Pablok eranzun zuen, esanaz: Zer egiten dezute negarrez eta nere biotza puskatuaz? Zergatik ni nago pronto, ez bakarrik lotua izateko, baita ere Jesus Jaunaren izenean, Jerusalemenean illzeko.
14. Eta ezin persuaditu genduela ikusi genduanean, ez genduen geiago inkomodatu, esanaz: Egin bedi Jaunaren borondatea.
15. Egun oien ondoren, prebenitu giñanean, igo giñan Jerusalemara.
16. Eta Diszipuluetako batzuek ere, etorri ziran gurekin Zesareatik, zeñiek zeramaten berekin Txipreko Unason, diszipulu zarra, bere etxean ostatuz egoteko.
17. Eta Jerusalemara allegatu giñanean, artu ginduzten anaiak, borondate onarekin.
18. Eta urrengo egunean, sartu zuen gurekin Pablok, Santiago, zenan etxean batu ziran gison zur guztiak,
19. Eta saludatu zituenean, kontatu zien, Jaungoikoak jentillen artean bere bitartez egin zituen gausa guztiak.
20. Eta berak au aditu zutenean, Jaungoikoa glorifikatzen zuten, eta esan zioten: Ondo ikusten dezu zenbat milla Judio diran sinistu dutenak, eta danak dira legearen gordetzalleak.
21. Eta aditu esaten, erakusten diezula Judio Jentillen artean daudenai; utzi dezatela Moises, esanaz: Ez dituztela beren semeak zirkunzidatu bear, eta ezta ere ibilli kostunbrearen gissan.
22. Zer egin bear da bada? Egiaz bear da geienak juntatu ditezen, zergatik adituko duten zu etorri zerala.

23. Egin zazu bada zuri esatera guazena: Emen daduzkagu lau gison, beren gañean botoak dauzkatenak;
24. Artu itzatzu oiek zurekin, santifikatu zaitez berakin, eta egiezu gastua, buruak rasuratzeko: eta jakingo dute gustiak, zugatit aditu duten gustia gezurra dala, eta kontran legea segitzen dezula.
25. Eta Jentilletatik sinistu zuten aien gañean, guk eskribitu degu aginduaz, apartatu ditezela idoloak sakrifikatua izan dediñetik eta lujuriatik.
26. Orduan Pablo, berekin aiek artuta, eta aiekin purifikaturik, sartu zan urrengo egunean Tenploan, purifikazioko egunen kunplimendua jakin asinda, bakoitzagatik ofrenda egin zedin artean.
27. Eta zazpi egunak akabatzen ziranean, an zeuden Asiako Judioak, tenploan ikusi zutenean, alborotatu zuten erri gustia, eta eskua bota zioten deadarrez esanaz:
28. Israelgo gisonak; laguntazuna: au da toki gustietan erriaren eta legearen kontra gustiai erakusten dien gison ura, eta gañera sartu ditu Jentillak Tenploan, eta leku santu au desonratu du.
29. Zergatik ikusi zuten berekin zebilela zitudadean Trophimo Epe-sokoa; eta uste zuten Pablok sartu zuela tenploan.
30. Eta mubitu zan zitudade gustia, eta etorri zan erri gustia. Eta Pablori elduta atera zuten arrastaka tenplotik kanpora, eta gero izan ziran itxiak atearik.
31. Eta ill naidik, abissatu zioten soldaduen agintariari, Jerusalem gustia alborotoan zegoala.
32. Eta onek artu zituen gero soldaduak eta Kapitanak, eta jua zan ara. Aiek ikusi zituenean Agintaria eta Soldaduak, gelditu ziran Pablo heritzez.
33. Orduan alderatu zan Tribunua, preso egin zuen, eta agindu zuen kate birekin lotutzeko; eta galdetu zion nor zan, eta zer egin zuan.
34. Eta jendearen tropelaren artean, batzuek deadar egiten zuten gausa bat, eta besteak beste bat. Ikusirik bada, ezin jakin zuela egirik alborotoagatik, agindu zuen fortalezara eramateko.
35. Eta gradetara allegatu zanean, soldaduak pissuan eraman bear izan zuten, erriaren indarra gatik.
36. Zergatik erri geienak segitzen zion deadar egiñaz: Bizia kenduiozu.
37. Eta Pablo fortalezan sarzen asi ziranean, esan zion Agintariari: Sillegi zat itz bi zuri itz egitea? Eta erantzun zion: Badakizu Griegoan?
38. Zu zera benturaz, orain egun gitxi, alborotoa mobitu zuen Ejiptzinoa, eta desiortora lau milla lapur eraman zituena?



39. Eta Pablok esan zion: Egiaz ni naiz gison Judioa, Ziliziako ziu-dade noble Tarsokoa; bañan erregutzen dizut utziko erriari itz egiten.

40. Eta Agintariak utzi zionean, gradaen gañean sutik jarririk, seña-lea egin zion erriari, eskuarekin: eta danak issildu ziranean itz egin zuen Pablok Hebreako izkunzan, esanaz:

### OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Gison anaiak eta Aitak, aditu ezazute presentean, ematen dizute-dan arrazoa.

2. Eta Hebreako izkunzan itz egiten ziela, aditu zutenean, aditu zio-ten issiltasan aundiagoarekin.

3. Eta esan zuen: Ni naiz Judioa, Ziliziako Tarson jaioa, bañan ziuda-de onetan asia, Gamalielen oñetan instruitua, gure Aitaen legean egiaz bezela; legearen gordetzallea; zuek gustiok gaurko egunean zeraten bezela.

4. Bide au persegitu nuena illzeraño, gisonak eta emakumeak preso egiten, eta karzeletan sartutzen,

5. Sazerdoteen agintaria eta gison zar gustiak testigu diran bezela; zeñetatik ere kartak ere artuta anaienzat, ninjoan Damaskora, andik Jeru-salena loturik ekarzeko kastigatuak izan zitezten.

6. Eta gertatu zan, ni ninjoanean, eta Damaskoren ondoan egerdian nengoala, ikusitu nintzan subitoan zeruko argi aundi batez inguratua:

7. Eta lurrera eroririk, aditu nuen ots bat, esaten zirana: Saulo, Saulo, zergatik persegitzen nazu?

8. Eta nik eranzun nion: Zeñ zera Jauna? Eta berak esan ziran: Ni naiz zuk persegitzen dezun Jesus Nazarenoa.

9. Eta nerekin zeudenak, egiaz ikusi zuten argia; bañan etzuten aditu, nerekin itz egiten zuenaren otsa.

10. Eta esan nuen: Zer egingo det Jauna? Eta Jaunak erantzun ziran: altxatu zaitetz, eta zuaz Damaskora: eta an esango zatzu egin bear dezun gustia.

11. Eta nola ikusten ez nuen argiaren klaridadearekin, artu ninduten lagunak eskutik, eta eraman ninduten Damaskora.

12. Eta Ananias zeitzaion bat, gison legekua, zeñagatik ematen zuten testimonioa, an bizi ziran Judio gustiak,

13. Nigana etorrita, nere aurrean jarririk esan zuen: Saulo anaia; artu ezazu bistea. Eta puntuan ikusi neban bera.

14. Eta berak esan ziran: Gure Aitaen Jaungoikoak autu zaitu, bere borondatea ezagutzeko, eta Justua ikusi dezazun, eta bere aoko itza aditu dezazun.

15. Zergatik zu izango zera testigu berarena, gison gustien aurrean, ikusi dituzun eta aditu dituzun gausa gustiena.

16. Eta oraiñ; Zertan gelditzen zera? altxatu zaitetz, eta bataiatu zai-tez, eta garbitu itzatzute zure pekatuak, nere izena deituaz.

17. Eta ala izan zan, zer Jerusalem biurtu nintzanean, eta tenploan erregutzen nengoala, izandu nintzan arribatata,

18. Eta ikusi nuen, esaten zirala: Eman zaitetz presa, eta atera zaitetz bedeala Jerusalem; zergatik ez dute artuko nigandik zure testimonioa.

19. Eta nik esan nuen: Jauna, aiek berak dakite, ni nintzala, zuga sinisten zutenak Karzeletan sartutzen nituena, eta Sinagogaetan azotatzen nituena.

20. Eta Esteban zure testiguaren odola isuritzen zanean, begira nen-goen ni, eta konsentitzen nuen, eta gordetzen nituen, illzen zituztenaren arropak.

21. Eta esan ziran: Juan zaitetz, zergatik nik bialduko zaitut urrutiko nazioetara.

22. Eta aditu zioten itz onetaraño, bañan orduan altxatu zuten dea-darra, esanaz: kendu eza mundutik onelako gison bat, zergatik ez da justu au bizi dedin.

23. Eta nola oiek deadar egiten zuten, eta botatzen zituzten beretatik arropak, eta botatzen zutean autsa aizetara,

24. Agindu zuen Tribunoak, sartu zezatela Realetan, eta azotatu zezatela, eta tormentua eman zezaiotela, zergatik aren kontra ala deadar egiten zuten, jakiteko.

25. Eta korreakin estutu zutenean, esan zion Pablok an zegoen Kapi-tanari: Sillegi da zuentzat gison Romano bat azotatzea, eta kondenatua izan bage?

26. Kapitanak aditu zionean juan zan Tribunoarengana eta eman zion abissua esanaz: Begira ezazu zer egitera zoazen, zergatik gison au da Romanoa.

27. Eta Agintariak etorrita esan zion: Esaegirazu ea, Romanoa zera zu? Eta berak esan zuen: Bai.

28. Eta eranzun zuen Tribunoak: nik logratu nuen zitudanoaren pribilejioa diru askorekin. Bada ni naiz eranzun zion Pablok, jaiotzatik.

29. Puntuan apartatu ziran bada beragandik tormentua eman bear ziotenak: eta Tribunoa ere sartu zan bildurrean, zitudano Romanoa zala jakin zuanean, lotu azin zuelako.

30. Eta urrengo egunean, zer motibo zeukaten Judioak akusatze-ko zierito jakin naita, askatu azin zuen eta agindu zuen juntatu zitezela Sazer-



doteak eta Konzilio gustia, eta Pablo aterata, presentatu zuten aien aurrean.

### OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Pablok bada, Konzilioan begiak jarririk, esan zuan: Gison anaiak, egun onetaraño portatu naiz ni, Jaungoikoaren aurrean, konzienzia on gustiarekin.

2. Eta Ananias, Sazerdoteen Agintariak, bere ondoan zeudenai agindu zien, heritu zezatela aoan.

3. Orduan Pablok esan zion: Jaungoikoak herituko zaitu zu parete zuritua. Zu zaude eseririk legearen gissan juzgatzeko, eta agintzen dezu ni heritzeko legearen kontra?

4. Eta an zeudenak esan zuten: Jaungoikoaren Sazerdote aundiari, gaiski itz egiten diozu?

5. Eta esan zuan Pablok: ez nekian anaiak Sazerdoteen agintaria zana; Zergatik eskribituta dago: Ez dezu gaizki itz egingo erriko Agintariari.

6. Eta jakiñik Pablok, batzuek zirala Saduzeoetakoak, eta besteak Phariseoetakoak, esan zuen Konzilioan: Anaiak, ni naiz Phariseoa, Phariseoen semea, eta naiz juzgatua esperanza eta illen pistutazuna gatik.

7. Eta au esan zuenean, mubitu zan Phariseoen eta Saduzeoen artean disensio aundi bat, eta banatu ziran.

8. Zergatik Saduzeoak esaten dute ez dagoala pistutasunik, ez Aingerurik, eta ez Espiriturik; bañan Phariseoak sinisten dute bata eta bestea.

9. Izandu zan bada bulla aundia; eta Phariseoetako batzuek altxaturik disputatzen zuten esanaz: Ez degu aurkitzen gaitzik gison onetan: eta geiago itz egin badio Espirituak eta Aingeruak?

10. Eta zegoen disensio aundia gatik bildurturik Tribunoa berak puzkatu etzezaten Pablo, agindu zuen, etorri zitezela Soldaduak, eta atera zezatela beren erdian, eta eraman zezatela fortalezara.

11. Eta urrengo gabeen Jauna agerturik esan zion: Eduki zazu konstantzia, zergatik Jerusalemengatik testimonioa eman dezun bezela, eman bear dezu Erroman ere.

12. Eta egunaz izan zanean, juntatu ziran Judioetako batzuek, eta maldizioa egiten zuten, esanaz: etzutela jango eta edango Pablo ill artean.

13. Eta ziran berrogei gison baño geiago, konjurazio au egin zutenak:

14. Zeñak jua ziran Sazerdoteen Agintarietara, eta gison zarretara, eta esan zuten: Gu obligatu gera maldizioko penaren azpian, ez bokadurik probatzera, Pablo ill desagun artean.

15. Bada orain zuek aditzera emaziozute Tribunoari, atera zaizutela kanpora, egitazun geiagoren, bere kausan, esagutu nai dezuten bezela. Eta gu egongo gera itxooten, allegatu dedin baño lenago, illtzeko.

16. Eta Pablaren arrebaren seme batek konspirazio au aditu zuenean, jua zan, eta sartu zan fortalezan, eta abisua eman zion Pablari.

17. Eta Pablok agintarietako bati otseginda esan zuen: Eraman zazu mutill au Tribunoarengana, zergatik dadukan abisso bat berari emateko.

18. Eta berekin arturik, eraman zuen Tribunoarengana, eta esan zuen: Pablo preso dagoanak erregutu dit, zuregana ekartzeko mutill au, zergatik zurekin itz egin bear duen zerbait.

19. Eta Tribunoak eskutik artuta eta aparte eramanda, galdetu zion: Zer esan bear dirazu?

20. Eta berak esan zuen: Judioak pensatu dute zuri erregutzea biar presentatu dezazula Pablo, konzilioan, zergatik nai duten jakiñ beragandik gausa egi geiagosko bat:

21. Baña zuk ez ditzatzu sinistu, zergatik dauden aietako berrogei, asetzatzen dutenak, eta juramentu egin dute, maldizioko penaren azpian, ez dutela jango eta edango, ill dezaten artean, eta orain daude ustean, zuk prometituko diozutela.

22. Orduan Tribunoak despeitu zuen mutilla, eta agindu zion, iñori ez esateko, abisu au eman ziola.

23. Eta Kapitan bi ots eginda, edukitzazute berregun soldadu, Zesareara jua ditezen, eta irurogei saldisko, eta berrogei lanza gabeko irugarren orduan.

24. Eta aparatu itzatzute saldiak Pablo seguridade gustiarekin erama izan dedin, Feliz gobernadorearengana.

25. (Zergatik artu zuen bildurra, Judioak, arreatatu ill zezaten eta gero injuriatu zezaten bera, dirua artu zualako).

26. Eta eskribitu zuan karta bat itz oietan : Klaudio Lisiasak, Feliz Gobernadore onenari, osazuna.

27. Judioak preso egin zuten gison au, eta zeudenean illzeko puntuan, beren gañean etorrita nere troparekin, libratu det, Romanoa dala ezagututa.

28. Eta zer delituagatik jakin nai zutenean, eraman nuen beren konziliora.

29. Eta aurkitu nuenean beren legearen gañeko disputak zirala, beregan egon gabe batere deliturik, eriotza edo prisioa merezi dezakeanik.





30. Eta abissatua izan nintzanean Judioak paratu ziozkatela asetzan-zak, bialdu nuen zuregana, akusadoreari ere aginduaz zugana jua ditezela. Eduki ezazu osasuna.

31. Soldaduak bada, ordena zeukaten bezela, artu zuten Pablo, eta eraman zuten gabaz Antipatridera.

32. Eta urrengo egunean saldiskoak berekin juaten utzita, biurtu ziran guarniziora.

33. Eta Zesareara allegatu ziranean entregatu zioten karta Gobernadoreari, eta presentatu zuten ere Pablo, beraren aurrera.

34. Eta irakorri zuenean, eta zeñ probinziakoa zan galdetuta, eta Ziliziakoa zala jakiñik;

35. Esan zion: Adituko dizut, zure akusadoreak datozenean. Eta ordena eman zuen Herodesen palazioan gorde zezatela.

### OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta andik bost egunera etorri zan Ananias Sazerdoteen Agintaria, gison zar batzuekin, eta Tertulo zeitzaion oradore batekin, agertu ziran Gobernadorearen aurrean, Pablora kontra.

2. Eta Pablo zitatuta, asi zan Tertulo bera akusatzen, esanaz: Baldin gu zugaitik pake aundian bizi gaitezen, eta zure probidenciakin gausa asko korrejitua izan bear badute;

3. Denbora gustian eta leku gustietan, esagutzen degu, O Feliz aundia, graziazko egintazun gustiarekin.

4. Bañan denbora askoan ez idukitzea gatik, erregutzen dizut zure klemenzian bezela aditu gaitzatzula piska bat.

5. Aurkitu degu gison au dala gaistoa, eta altxatzen dituela sedizioak Judioai mundu gustian, eta da Nazarenoen kasta txarreko burua:

6. Zeñek pensatu zuen gañera Tenploa deshonoratzea. Eta preso egin da juzgatu nai izan genduen gure legearen gisan.

7. Bañan gure gañean indartazun aundiarekin Tribunoa etorrita, kendu zigun eskuetatik.

8. Aginduaz akusadore gustiak zugana etorri gintezela: beraugaitik artu dezakezu juzgatuaz, akusatzen degun gausa oien gustien esaguera.

9. Eta baita Judiok ere etorri ziran esanaz: au ala zala.

10. Baña Pablok, Gobernadoreak itz egiteko señaleara egin zionean, eranzun zuen. Urte asko onetan nazio onetako Jueza zerala jakinda, animo aundiarekin satisfakzio emango det ni gatik.

11. Zergatik errez jakin dezazuke, ez dala amabi egun baizik, igo nintza Jerusalem adoratutza.

12. Eta ezta ere aurkitu ninduten tenploan iñorekin disputatzen, ezta ere jendea bildutzen, eta Sinagogetan,

13. Eta ezta ere ziudadean: eta ezin probatuko dizute ere orain akusatzen diraten gausak.

14. Bañan au konfesatzen det, zure aurrean, aiek erejia deitzen dioten sektan, serbitzen dedala nik nere aita eta Jaungoikoa, legean eta Profetetan eskribituta dauden gausa gustiak sinistua:

15. Jaungoikoan esperanza edukiaz, aiek berak justuen eta pekatarien pistutazuna itxooten duten bezela.

16. Eta orregaitik alegiña egiten det beti, nere konzienzia garbirik edukitzeko, Jaungoikoaren eta gisonen aurrean.

17. Eta urte asko gero, etorri nintzan nere jendearengana, limosnak, ofrendak eta botoak egitera.

18. Eta onela aurkitu ninduten tenploan garbiturik: ez jendearekin, eta alborotoakin ere.

19. Eta oiek izan ziran, Asiako Judio batzuek, zure aurrean agertu bear zutenak, eta akusatu bear nindutenak, zerbait nere kontra bazeukaten:

20. Edo oiek berok esan bezate, nigan gaiskitazunik aurkitu zuten, konzilioan agertu nintzanean,

21. Baizik bere erdian nengoala deadarrez, esan nituen itz oiek gatik: illen pistutazunean, naiz ni juzgatu zuetatik.

22. Felizek bada, bide onetako gauzak egiaz jakiñik, utzi zituen beste denbora baterako, esanaz: Lisiaz Tribunoa datorrenean emango dizutet audienzia.

23. Eta agindu zion Kapitanari gordetzeko, eta eduki zezala alibioa, eta etzeiola eragotzi bereetako iñori lagun egitera sartutzea.

24. Eta egun batzuen ondoren, etorri zan Feliz bere emazte Drusilarekin, zeñ zan Judia: eta ots egin zion Pablora, eta aditu zion, Jesu Kristogan zegoen fedean itz egiten.

25. Bañan nola justiziaren, kastidadearen, eta etorri bear duen juizioaren gañean itz egiten zuen, ikaraturik Felizek, esan zuen: Orain zuaz; zergatik ots egingo dizut bear danean.

26. Pablok dirua emango ziolako ustean; eta orregaitik ots egin azitzen zion askotan, eta berekin itz egiten zuen.

27. Bañan urte bi geroztik, izan zuen Felizek suzesoretzat Porzio Festo; eta Judioen grazia irabazi naiean, utzi zuen Pablo prisioetan.



## OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Festo bada, probinzian sartuta, iru egunen ondoren igo zan Zesareatik Jerusalem.
2. Eta Sazerdoteen agintariak, eta Judioetako prinzipalak, etorri ziran berarengana Pablaren kontra, eta erregutzen zioten;
3. Eskatuaz mesedea bere kontra, Jerusalem etorzeko agindu zezaien, bidian bizia kendutzeko asetzantzak jarrita.
4. Bañan Festok eranzun zien: Zesarean zegoela gordeta Pablo; eta bera lenbaño len juango zala.
5. Eta zuetako prinzipalak, esan zuen, etorri bitez nerekin, eta delituen bat baldin badago gizon onetan akusatu bezate.
6. Eta zortzi edo hamar egunean bezela aien artean geldituta, jetxi zan Zesareara: eta urrengo egunean eseri zan Tribunalean, eta agindu zuen Pablo ekarteko.
7. Eta eramana izan zanean, inguratu zuten Jerusalemek etorri ziran Judioak, delitu asko, eta aundiaz, ezin probatu zituztenaz, akusatuaz.
8. Eta Pablo defenditzen zan esanaz: ez det ezertan pekataturik egin, ez Judioen legearen kontra, ezta ere Tenploaren eta Zesarren kontra.
9. Bañan Festok Judioen grazian egon naita, eranzun zion Pablori: Nai dezu igo Jerusalem, eta an juzgatua izan gausa oiek gatik nere aurrean?
10. Eta Pablok esan zuen: Zesarren Tribunalean nago, non juzgatua izan bear dedan: batere gaitzik ez diet nik egin Judioai, zuk obeto dakizun bezela.
11. Eta agrabioren bat egin badiet, edo eriotza merezi duen gausarik, ez det eskusatzen illzea: bañan onelakorik batere ez badago, aiek akusatzan nautenetik, eziñ iñork entregatuko nau aietara: Zesar-engana apelatzen det.
12. Orduan Festok konzilioarekin itz eginda gero eranzun zuan: Zesar-engana apelatu dezu? Zesar-engana juango zera.
13. Eta egun batzuek pasatuta, Agripa Erregea, eta Berenize etorri ziran Zesareara, Festo saldatzera.
14. Eta egun batzuetan egonda, Festok eman zion Pablaren notizia Erregeri, esanaz: Felizek utzi zuan emen preso bat.
15. Zeñen gañean Jerusalem egondu ninzanean etorri ziran nigana Sazerdoteen agintariak eta Judioen gison zarrak kondenatu nezala eskatuaz.
16. Zeñai eranzun nien: ez dala Romanoen kostunbrea iñor gison kondenatzea, akusatuak bere aurrean, akusadoreak eduki bage, eta defendituzeko lekuri eman bage, karguetatik justifikatzeko.

17. Eta aiek onera bedeala akudituta, urrengo egunean eseri nintzan ni Tribunalean, eta agindu nuen gison au ekarteko.

18. Zeñi, bere akusadoreak an zeudela, ez zioten ipiñi, nik sospetxatzen nueneko batere deliturik.

19. Bakarrik zeuzkaten bere kontra kuestio batzuek, bere superstizioaren gañean, eta Jesus difuntu baten gañean, zeñ Pablok afirmatzen zuan bizi zala.

20. Eta nola dudatzen nuan nik onelako kuestioaz, esan nion, Jerusalem nola izateko gausa oiek gatik.

21. Bañan Pablok apelatuta, reserbatu zezatela Augustoren juizioarako, agindu nuen gorde zezatela, nik Zesar-engana bialdu artean.

22. Orduan Agripak esan zion Festori: Nik ere aditu nai nioke gison orri. Eta eranzun zuan berak: Biar adituko diozu.

23. Eta urrengo egunean Agripa eta Berenize ostentazio aundiarekin etorrita, eta audientzian Tribunoakin, eta zitudadeko persona prinzipalakin sarturik, izandu zan Pablo presentatua Festoren ordenaz.

24. Eta esan zuan Festok: Agripa Erregea, eta emen gurekin zaudenten gustiak, ikusten dezute gisona zeñen kontra etorri zan nigana Judioen erri gustia, Jerusalem, eskatzen deadarka etzala konbeni geiago bera bizi zedin.

25. Eta nik aurkitu det, ez duela egin, eriotza merezi dezan gausarik. Bañan nola berak apelatu duan Augustoren gana, pensatu det bialzera.

26. Zeñegatik ez dadukat gausa ziertorik zer eskribitu Jaunari. Orregatik presentatu dizutet, eta prinzipalean zuri, o Errege Agripa informazioa eginda gero zer eskribitu eduki dezadan.

27. Zergatik iruritzen zait, ez dala arrazoia, gison bat preso bialzea, eta egiten zaion akusazioak gatik ez informatzea.

## OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Agripak Pablori: Usten zaitzu zure gatik itz egiten. Eta orduan Pablo eskua luzatuaz, asi zan beragatik arrazoia ematen.

2. Zure aurrean nere defenza gaur egin bear da, o Errege Agripa, Judioak akusatzan nauten gausa gustien gatik, arkitzen naiz ditxosoa.

3. Espezialean, zuk dakizulako gausa oiek gustiak Judioen artean dauden kostunbre eta kuestioak; orregatik erregutzen dizut, aditatzula pazienziarekin.

4. Eta egiaz dakite nere naziokoaren artean nola aurtazunatik egin nuen bizitazuna Jerusalem, Judio gustiak.



5. Zeñek ezagutzen naute, nere asieratik (testimonioa eman nai badute) zergatikan ni bizi izandu naiz Phariseoa gure relijioaren segitzalle segurua bezela.

6. Eta izan naiz akusatua juizioan Jaungoikoak gure aitai egin zien agindua itxooteko.

7. Zeña gure amabi probinziak gabaz eta egunaz Jaungoikoa serbiturik, itxooten duten, kunplituak ikustea. Esperanza onegatik, o Erregea, naiz Judioak gatik akusatua.

8. Zer bada, zuen artean, da gausa sinistu ezin dizakeana, Jaungoikoak pistu ditzala illak?

9. Eta nik egiaz uste nuen Jesus Nazarenoren izenaren kontra egin bear zala indar aundiena.

10. Eta ala egin nuen Jerusalemen, eta nik sartu nituen karzeletan Santu asko, Sazerdoteen Agintarietatik poderioa arturik; eta ill azitzen zituenean, konsentitzen nuen ere artan.

11. Eta askotan Sinagogaetan kastigaturik, obligatzen nituen indarrez, gaiski itz egitera. Eta geiago, eta geiago beren kontra aserraturik, persegitzen nituen ziudade arrotzetan ere.

12. Gausa oietan, Damaskora, Sazerdoteen agintarien poderioz eta ordenaz ninjoala,

13. Egun erdian, ikusi nuen bidean, o Erregea! Zeruko zu bat eguzkiaren argitazuna baño aundiagoa, ni eta nirekin zijoazenak ingurutu ginduzena.

14. Eta gu guztiok lurtean eroririk, aditu nuen ots bat esaten zirana Ebreako izkunzan: Saulo, Saulo: zergatik persegitzen nazu? Gausa gogorra da zuretzat akulluaren kontra ostikoak ematea.

15. Eta nik esan nion: Zeiñ zera Jauna? Eta esan zuan Jaunak: Ni naiz zuk persegitzen dezun Jesus.

16. Bañan altxatu zaitetz, eta egon zaitetz zure oñen gañean: zergatik onegatik agertu naiz zugana, ikusi dituzun, eta nik erakutsiko dizudan (nere agertazunetan) gausaen ministro eta testigutzat zu ipinzeko,

17. Orain nik bialzen zaitudan erriaren eta Jentillengatik libratuaz.

18. Begiak iriki zaiozuen eta biurtu ditezen illuntazunetatik argitara, eta Satanasen poderiotik Jaungoikoaren gana, eta artu dezaten beren pekatuen barkazioa, eta neregan dagoen fedeagatik, santuen artean suertea.

19. Orregatik, o Agripa Erregea! ez ninzan izan zeruko bisoari desobedientea.

20. Baizik predikatu nuela, aurrena Damaskon, eta gero Jerusalemen, Judeako erri gustian, eta Jentillai, egin zezatela penitentzia, eta konbertitu zitezela.

21. Orregatik tenploan negoala ni, preso egin ninduten Judioak, eta ill nai ninduten.

22. Bañan Jaungoikoaren laguntazunaz, nago gaurko eguneraño, testimonioa ematen txikiari eta aundiari profetak eta Moisek, gertatu zirala, esan zituzten gausa aiek baño geiago esan bage,

23. Kristoak padezitu bear zuela, izango zala illen artetik aurrena pistuko zana erriari eta jendeai argitazuna aditzera emateko.

24. Gausa oiek bere defentsan esanda, Festok deadarrez esan zuen: Pablo, soraturik zaude; Zure letra askok ateratzen zaituzte zure juiziotik.

25. Eta Pablok: ez nago soraturik, o Festo aundia! baizik esaten ditut egiazko eta sinzotasuneko itzak.

26. Zergatik gauza oien esaguera dadukan Erregeak: zeñen aurrean itz egiten det, libertade gustiarekin: bada uste det, gustia dakiela. Zergatik gausa oiek ez diran egiñ eskutuan.

27. Sinisten diezu; o Agripa Erregea! Profetai? Badakit nik sinisten diezula.

28. Orduan esan zion Agripak Pablori: gutxigatik ez nazu obligatzen, Kristau egitera.

29. Eta Pablok: Jaungoikoari nai dakiola, gutxigatik edo asko gatik, ez bakarrik zu, baizik ere aditzen diraten gustiak, izan zaitetzten gaur egiñak ni naizen bezela, prisio oiez kanpora.

30. Eta altxatu ziran Erregea, Gobernadorea, Berenize, eta beren ondoan eserita zeudenak.

31. Eta andi alde eginda itz egiten zuten batak besteakin esanaz: Gison onek ez du egin gausarik, zeñagatik illa izan bear duan, eta ezta ere preso egoteko.

32. Eta Agripak esan zion Festori: Gison au libretzat eman diteke, Zesar-engana apelatu ez balu.

## OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Bañan nola determinatu zan itxasoz Italiara bialzea, eta Pablo beste preso batzuekin entregatu izan zedilla, oñesko, Augustako, Julio zeitzaión Kapitan bati,

2. Onzi Adrumetino batean sartuta, juañ giñan Asiako erriak kosteatuaz, gurekin Aristarko Mazedoniao eramanañ

Thesaloniatik.



3. Eta urrengo egunean eldu giñan Sidona; eta Juliok gizontasunarekin Pablo tratatuta, utzi zion, bere adiskideak ikusten, bear zituen gausaz probisioa egin zezan.

4. Eta andik mobitu giñanean jua giñan Txiprerren aspitik, zergatik ziran aise kontrakoak.

5. Eta Zilizaki eta Panphiliako itxaso pasatuta, allegatu giñan Lizia-koa dan, Listriara.

6. Eta an Alejandriako onziko Kapitan bat, Italiara zijoana aurkituta eraman ginduzen ara.

7. Eta nola egun askotan nabegatu genduen geldirik, eta apenas ikusi izan genduen Gido, aizea kontra izanik, jua giñan Kandiako Isla kostatuaz, Salmona:

8. Eta lan aundiarekin, kostaren luzetazuna ibillita, allegatu giñan Portu onak deitzen zaion erri batera, zeñen ondoan zegoan Thalasko zitudaea.

9. Eta nola pasatu zan denbora asko, eta etzan segurua nabegazioa, zergatik pasatua zan baraba, Pablok animatzen zituen,

10. Esanaz: Gisonak, ikusten det nabegazioa asitzen dala izaten txit nekosoa, eta kalte andiarekin, ez bakarrik onziarenzat, eta bere kargarenzat, baita ere gure bizitzarentzat.

11. Bañan Kapitanak ematen zien kreditu geiago Pilotoari, eta onziko Maisuari, Pablok esaten zuanari baño.

12. Eta nola portua etzan ona negua pasatzeko, geienak ziran andik irteteko ustekoak, Phenizera allegatu al bazizteken, an negua pasatzeko, zergatik zan Kandiako portu bat, Afrikora, eta Korora begiratzen duena.

13. Eta eguerdiko aisea ibilzean, beren deseoa logratu zutela uste zutenean, anklak altxatuta, zijoazen Asondik, Kandia kosteatzen.

14. Bañan andik gutxira, etorri zan onziaren kontra tenpestadeko aise bat, ifarra deitzen zaiona.

15. Eta onzia arrebaturik, eta aiseari kontra egiñik, onzia utzita, eramaten ginduzen aiseak.

16. Eta korrienteagatik, Kauda zeitzaion isla txiki batera, eramanak izan giñanean, apenas txalupa irabazi genduen.

17. Eta artuta baliatzen ziran rekursu gustietatik onzia lotuta, eta Sirte joko zutelako bildurturik, ziran ala eramanak, lienzoak bustirik.

18. Eta tormentaren anditazunagatik mubituak, kendu zuten karga.

19. Eta irugarren egunean bota zituzten ere beren eskuakin onziko aparejuak.

20. Eta egun askotan eguskia eta izarrak agertu bage, eta tenpestade aundi batez peligroan geundela, gure osasuneko esperanza gustia gendukan galdua.

21. Eta denbora luzean jan gabe egonda, altxatu zan orduan Pablo aien erdian, eta esan zuen: Konbeniko zan duda bage, o Gisonak! nere konsejua segituaz, Kandia ez ateratzea eta peligro eta kalte au ez pasatzea.

22. Bañan orain erregutzen dizutet, eduki ezazutela animo aundia. Zergatik ez dan galduko zuetako iñor, baizik onzia bakarrik.

23. Zergatik gau onetan agertu zait Aingeru Jaungoikoarena, zeñena nizen ni eta nik serbitzen deradena,

24. Esanaz: ez bildurtu Pablo, prezioa da Zesar-en aurrean agertu zaitean, eta ona emen Jaungoikoak egin dizu grazia, zurekin dijoatzen gustiena.

25. Orregatik, gisonak, eduki ezazute animo aundia, zergatik konfiatzen dedan Jaungoikoan, ala izango dala esan ziran bezela.

26. Bañan bear degu eman, islaren batean.

27. Eta amalagarren eguneko gaba allegatu zanean, nola ginjoazen itxaso Adriatikoan, marineroak, gau erdi inguruan, sospetxatu zuten agertzen zitetela lurren bat:

28. Eta sonda botata, aurkitu zuten ogei pausoan; gero pizka bat aurrerago aurkitu zuten amabost pausoan.

29. Eta arrokaren batean jo genzan beldurrez, bota zituzten popatik lau ankla, eta deseatzen zuten eguna etortzea.

30. Eta marineroak, ontzitik igez egin naita bota zuten txalupa itxasora, proako anklak askatu nai zituztelako atxakiakin.

31. Esan zien Pablok Kapitanari eta Soldaduai: gison oiek ontzian egoten ez badira, zuek ezin salbatuko zerate.

32. Orduan soldaduak ebaki zituzten txaluparen amarrak, eta utzi zuten galdutzen.

33. Eta eguna argitzen asi zanean, erregutzen zien Pablok gustiai, zerbait jan zezatela, esanaz: amalau egun da itxooten zaudetela baraurik, eta ezer artu bage.

34. Orregatik, zuen osasunagatik erregutzen dizutet, jan ezazutela; zergatik ez dan illko zuen buruko ille bat bakarrik ere.

35. Eta au esan da, ogia arturik eman zion ezkerak, Jaungoikoari, gustien aurrean, eta partituta asi zan jaten.

36. Onekin artu zuten gustiak animoa, eta jan zuten berak ere.

37. Eta onzian ginjoazen persona gustiak giñan berregun da irurogeita sei.



38. Eta janez aseta, ustutzen zuten onzia, garia itxasora botaaaz.
39. Eta eguna argituta ere, etzuten ezagutzen lurra; bakarrik ikusten zuten ensenada bat inguruan lurra zeukana, eta pensatzen zuten nola an geldituko zuten onzia.
40. Eta anklak altxatuta uzten ziran itxasoak eramaten: eta timoien loturak ere askatuta, eta artemoiko bela altxatuta aisea artutzeko, zijoazen kaiaren aldera.
41. Baña urbietako leku batean emanda, gelditu zuten onzia, eta proa lurreean sartuta, zegoen mubitu bage, eta popa irikitzen zan itxasoaren golpeakin.
42. Orduan soldaduen pensamentua zan presoak illzea; iñork igari egiñaz iges egin etzezan.
43. Bañan Kapitanak Pablo salbatu naita, eragotzi zien egin zesaten; eta agindu zien, igari egiten zekitenak, bota zitezela aurrenekoak, eta irten zitezela lurrera.
44. Eta gañerakoak izan ziran atereak, batzuek oletan, eta besteak ontziaren pusketan; eta ala logratu zan, gustiak lurrera salbaturik ateratzea.

### OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta salboan geundela jakin genduen isla zeitziola Melita. Eta Barbaroak tratatu ginduzten gisontasun aundiarekin.
2. Zergatik su aundi bat irazekita reparatu ginduzten gustiok, gañean zegoan ebitik eta otzetik.
3. Eta Pablok sarmiento puska batzuek ekarrita, eta surtan sartuta, saltatu zan beroarekin suga bibora bat, eta trabatu zuan eskutik.
4. Eta ikusi zutenean Barbaroak, sugea bere eskutik txintxillik, esaten zioten batak besteari; Gison au egiaz da gison illzalea, bada itxasotik eskapatuta, benganzak ez dio bizitzen uzten.
5. Bañan berak bota zuen zurtan suga, eta etzuen sentitu batere gaitzik.
6. Bañan berak uste zuten aunditzen juango zala eta bedeala illgo zala. Bañan denbora luzean itxoonda gero, ikusi zutenean etzitzaiola etorri batere gaitzik, pensatzez mudatuta, esaten zuten bera zala Jaungoikoa.
7. Eta leku aietan zeuden Publio zeitzaion islako agintariaren lur batzuek; zeñek artu ginduzten bere etxean iru egunean, eta tratatu ginduzten txit ondo.
8. Eta gertatu zan, Publioren aita zegoala sazoiz artan oiean, kalenturakin eta disenteriaekin afljiturik. Sartu zan Pablo berau ikustera; eta orazio egiñaz, eta eskuak bere gañean jarrita, sendatu zuen.

9. Eta au eginda, islan gaisso zeuden gustiak etorzen ziran, eta gelditzen ziran sendatuak:
10. Berak orobat egin ziguten honra asko, eta enbarkatu giñanean, probeitu ginduzten bear genduen gustiaz.
11. Eta iru illabeteren ondorean, sartu giñan Alejandriako onzi, negua islan pasatu zuen, batean, Kastor eta Polux señaletzat zeukana.
12. Eta nola allegatu giñan Sirakusara, gelditu giñan an iru egunean.
13. Andik kosteatzen jua giñan Rhejiora, eta urrengo egunean eguardi alde aise edukirik, allegatu giñan bigarrean Puzola.
14. Non anaiak batzuek aurkiturik, erregutu ziguten egon gintezela beren laguntazunean zazpi egunean: eta segituan etorri giñan Erromara.
15. Eta anaiak aditu zutenean, atera zitzaigun Apioko Plaza, eta iru ostatueteraño: eta Pablok ikusi zituenean eman zion ezkerak Jaungoikolari, eta arnasa artu zuan.
16. Eta nola allegatu giñan Erromara, utzi zioten Pablori, etxe partikularrean egotea, gorde zezan soldadu batekin.
17. Eta iru egun geroztik, deitu zien Pablok Judioen prinzipalari; eta baturik zeudenean, esan zien: Gison anaiak, nik erriaren kontra eta aitarren kostunbreen kontra ezer ez egin ez badet ere, izandu nintzan preso Jerusalemenean eta Romanoen eskuetan entregatua.
18. Zeñak nizaz informaturik, libratu nai ninduten, illzea merezi nuen gausa nigan aurkitzen ez ta.
19. Bañan Judioak oponenten ziranean, Zesar-engana apelatu bear izan nuen; ez nik nere nazioa zertzaz akusatu daukadalako bezela.
20. Bada onegatik deitu dizutet, zuek ikusteko eta zueri itz egiteko: zergatik Israelgo esperanzagatik nago kate onegaz inguratua.
21. Orduan berak eranzun zioten: Guk ez degu artu Judeako kartarik zure gañean, ezta ere etorri da anaietako iñor zugai abissatzera edo zugatik batere gaitzik esatera.
22. Bañan aditu nai genduke zugandik, zer dan zuk entenditzen dezu-na: Bada jakiñean gaude, sekta oni toki gustietan kontra egiten zaiola.
23. Eta berak eguna señaletuta etorri ziran numero aundian arengana bere alojamentura, zeñai predikatzen zien. Jaungoikoaren erreinuko testimonioa emanaz, eta erakusten zien Jesusengatik Moisesen legean eta Profetetan esanda dagoana, goizetik arratsalderaño.
24. Eta batzuek sinisten zuten esaten zitetena, eta besteak etzuten sinisten.





25. Eta nola etzeuden beren artean konforme, zeuden erretiratzeko, Pablok esan zienean itz au: Ongi itzezin zien Espiritu Santuak gure Aitai Isaias Profetagandik,

26. Esanaz: zuaz erri orretara, eta esaiezu: oidutik adituko dezute eta ez dezute entendituko: ikusiaz ikusiko dezute eta ez dezute perzibituko.

27. Zergatik erri onen biotza enbotatu da, eta oiduz aditu zuten pisutazunarekin, eta begiak itxi zituzten begietatik ez ikusteagatik, eta oiduetatik aditu dezaten, eta biotzetik aditu dezaten, konbertitu ditezen, eta sendatu ditzadan.

28. Bada jakitera ematen dizutet zueri, Jaungoikoaren osasun au Jentillai bialdua dala, eta berak adituko dute.

29. Eta au esatez akabatuta, atera ziran andik Judioak, beren artean errierta aundi bat idukita.

30. Eta Pablo egondu zan bi urte osoetan errentan zeukan etxean, eta errezibitzen zituen ikustera juaten zitzaion gustiak,

31. Jaungoikoaren erreinua predikatuaz, eta Jesu Kristo Jaunarenak diraden gausak erakutuz libertade gustiarekin, eragotzitazun bage.

## SAN PABLO APOSTOLUAREN LENBIZIKO KARTA TESALONIKARRAI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo, eta Silbano, eta Timoteok, Tesalonikarren elizari, Aita Jaungoikoagan eta Jesukristo gure Jaunagan,

2. Grazia eta pakea izan bedi zuekin. Aspertu gabe ematen diozkagu eskerrak Jaungoikoari zuek guztiokgatik, gure orazioetan beti zuen oroipena egiten degula,

3. Oroitzen gerala gure Jaungoiko eta Aitaren aurrean, zuen fedearen obrakin, zuen karidadearen naigabeakin, eta zuen itxedopenaren sendotasunarekin Jesukristo gure Jaunagan,

4. Jakinik, nere anaiak, zuen elektzioa Jaungoikoarena dala.

5. Zeren gure Ebanjelioa etzatzuten zuei adirazia izan itzakin bakarrik, baitaere mirariakin eta Espiritu Santuaren doaiakin ere, eta osotasun askoan; zeren badakizute nolakoak izan giñan gu zuen artean zuei on egiteko.

6. Zuek zuen aldamenetik egin ziñaten gure eta Jaunaren imitatzaileak, artzen zendutela bere itza atsekaba askoren erdian, Espiritu Santuren bozkarioarekin,

7. Alako moduan, non, egin zerate Mazedonian eta Akaiian, sinistu duten guztien irudia.

8. Zeren zuekgandik zabaldu zan Jaunaren itza, ez bakarrik Mazedoniatik eta Akaiatik, baitaere aldamen guztietatik irten da alako moduan, Jaungoikoagan daukazuten fedea, non, onen gañen ezerere esateko, ez daukagu premiarik.

9. Zergatik eze, sinisleak berak adirartzen dute, zuekgana nolako sarrera iduki genduen, eta nola itzuli ziñaten Jaungoikoagana, utzirik idoloak, Jaungoiko bizi ta egjazkoa serbitzera.

10. Eta zerutik itxedotzeko bere seme Jesus (zeñ illaen artetik biztu zuen) zeñak, etorriko zan aserretik, atera ginduen.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Zeren zuek badakizute, nere anaiak, gure sarrera zuekgana, etzala alperrikakoa izan.

2. Baizik, izanik len gaizki tratatuak, eta isekaz beteak (badakizuten bezela) Filiposen, gure Jaungoikoagan itxedopena jarririk, joan giñan alai-



kiro, Jaungoikoaren Ebanjelioa zuei predikatzeraz, eragozketa askoren erdian.

3. Zeren ez dizugute predikatu gezurrezko, ez zikinkeriarik erakutsirik, ez engaiatzeko asmazioarekin;

4. Baizik Jaungoikoak aprobatuak izan giñan modu berean, fiatzeko guri Ebanjelioa. Ala itz egiten degu, ez gizonai gogoia betetzeko, baizik Jaungoikoari, zeñak gure biotzak argiro ikusten dituen.

5. Zeren beñiere ez degu egin lausengako izketarik, badakizuten bezela, ez zikoizkeriako aitzakiarik batere: Jaungoikoa testigu da.

6. Ez degu ere billatzen gizonen gloriarik, ez zuenik, ez besterenik.

7. Izan bagenezakean ere zuentzat zama, Kristoren Apostoluak bezela; egin gera zuen artean aurrak, ama batek aurrak zaitzen dituen bezela.

8. Alako gura onak genduzkan guk zuekganako, non, nai genduen ansiarekin ematea zuei, ez bakarrik Jaungoikoaren Ebanjelioa, baita gure bizia ere, zeren gure txit maiteak eginak izan ziñaten.

9. Zeren oroitzen zerate, nere anaiak, gure lan, eta nekearekin, nola lanean aritzen giñan gau ta egun zuek kasturik iduki etzenezaten, guk gerok irabazten genduela bear genduena, eta alaere Jaungoikoaren Ebanjelioa or predikatzen genduen.

10. Zuek testiguak zerate, baita Jaungoikoa ere, zer santua, justoa eta kejarik gabekoa izan zan, gu zuen artean, fedea artu dezutenen artean, egon giñan denbora.

11. Jakinik, dakizuten bezela, zuektatiko bakoitzarekin portatu gerala, (aita bat semeakin bezela)

12. Adirartzen dizugula, gozatzen zaitugula, eta erreguz esaten dizugula, egin dezazutela bizitza bat, Jaungoikoaren diña dana, zeñak bere erreñura ta gloriara ots egin dizuten.

13. Argatik aspertu gabe Jaungoikoari eskerrak ematen diozkagu, zeren artu zendutenean Jaungoikoaren itza guri adituta, artu zenduten, ez gizonen itza bezela, zeñak frutua ematen duen zuekgan bere moduan, baizik artu zenduten (egiaz dan bezela) Jaungoikoaren itza bezela, zeñak frutua ematen duen zuekgan, sinistu dituzutenokgan.

14. Zeren zuek, nere anaiak, imitatu dituzute, Judean Jesukristogan bilduta dauden Jaungoikoaren Elizak, zeren alako persekuzioak sufritu dituzute zuen erritarrakgandik, nolakoak aiek Juduakgandik.

15. Zeñak il ere zituzten Jaun Jesus eta profetak, eta gu ere persegitu gaituzte, eta Jaungoikoaren gogokoak ez dira, eta dira gizon guztien etsaiak.

16. Galerazitzen digutela jentillai predikatzea, salbatu ditezen; onela joateko berak beti, beren bekatuen neurria kunplituaz. Argatik Jaungoikoaren aserrea beren buruen gañera erori da, eta atzeneraño iraungo du.

17. Guban danez berriz, nere anaiak, nola egon garean denbora piska batean zuekandik berezituak gorputzean, ez biotzean, asko arinago etorri gera zuen arpegiak ikustera, gura andiakin.

18. Argatik nai genduen zuekgana etortzea, eta batezere nik Pablok, bein eta bigarren aldiz, baña Satanasek galerazi digu.

19. Egiaz, zeñ da gure itxedopena, gure gozotasuna, edo gure gloria koroea? Ez al zerate zuek, Jesukristo gure Jaunaren aurrean bere etorrerako egunerako?

20. Bai, zuek gure gloria, eta gure gozotasuna zerate.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Argatik ezin geiago sufriturik zuen berririk gabe egotea, ontzat iduki genduen, Atenasen bakarrik gelditzea.

2. Eta bialdu genduen Timoteo gure anaia eta Jaungoikoaren ministroa Jesukristoren Ebanjelioaren predikazioan, zuek zuen fedean alaitzera eta sendotzera.

3. Iñor ere atsekabe oiekgatik ez dedin zalantzan jarri, bada zuek ere badakizute, onetarako gaudela.

4. Zeren zuekin geundenean, lendanaz esaten giñizun, naigabeak iragoko giñituela, gertatu dan bezela, eta zuek ere badakizute.

5. Beragatik bada, ezin geiago sufriturik, bialdu nuen zuen fedearan berriak jakitera, beldur izanik, tentalariai tentatu izango zenduztela, eta gure lana galduko zala.

6. Baña orain itzulirik Timoteo zuekandik onara ekarri dizkigu, zuen fede eta karidadearen berriak, eta nola daukazuten gure oroipen ona, ikusi nai gaituztela, guk ere, zuek ikustea nai gendukean bezela.

7. Orrekin, gure anaiak, atsegin andia iduki degu, ikusirik zuen fedea, gure premia ta atsekabe guztien artean.

8. Zeren orain esan genezake bizi gerala, zuek Jaunagan sendo zaudeten ezkerok.

9. Eta egiaz, nolako esker, duiñak izango diranak, eman dizaiozka-guke Jaungoikoari zuekgatik, daukagun gozotasun andiagatik, zuekgatik gure Jaungoikoaren aurrean?

10. Au da berari erregutu erazitzen diguna gau ta egun gogorik bizienarekin, utzi digula zuek ikustera joaten, eta ematen, zuen fedea oraindikan bear dituen erakutsiak.



11. O, Jaungoiko ta gure Aitak, eta Jesukristo gure Jaunak, zuekgantontz gure bidea zuzendu dezala!

12. Bitartean Jaungoikoak ugaritu zaitzatela, eta geitu dezala zuen karidadea elkarganako, eta guztiakganako, gurea zuentzat nolako dan.

13. Sendotzeko zuen biotzak santutasunean, eta izateko aitzakia gabeak Jaungoiko eta gure Aitaren aurrean, datorreneko Jesukristo gure Jauna bere santu guztiakin. Amen.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Gañerakoan, nere anaiak, erregutuzten dizugu, eta txit gogotik eskatzen dizugu Jesus Jaunagatik, gugandik ikasi zenduten bezela, nola portatu bear ziñaten, eta Jaungoikoaren gogokoak izan, ala ibilli zaitzete-la Jaunaren bidean geiago ta geiago aurreratzeko.

2. Zeren badakizute nolako aginteak eman dizkizutedan Jaun Jesusen izenean.

3. Zeren au dan Jaungoikoaren borondatea, zuek santututzea, ez dezazutela fornikaziorik egin,

4. Jakin dezala zuetatik bakoitzak bere gorputza erabiltzen santutasunean eta onezkiro.

5. Ez aragizko guraetan, Jaungoikorik ezagutzen ez duten jentillak egiten duten bezela.

6. Eta iñork ere ez dezala estutu bere anaia, eta ez dezala ezertan ere engañatu, Jaungoikoa gauza guzti oien bengatzallea dan ezkerro, len esan eta ziertotzat adirazi dizugun bezela,

7. Zeren ez digu Jaungoikoak ots egin zikinkeriarra, santutasunera baizik.

8. Ala aginte oiek mezpreziatzen dituenak, ez du mezpreziatzen giza-semerik, baizik Jaungoikoa, zeñ dan beren egillea, eta zeñak bere Espiritu Santua ere eman digun.

9. Anaien arteko karidadearen gañean berriz, ez daukagu zuei eskribitu bearrik, bada zuek zerok Jaungoikoagandik ikasi zenduten elkar maitatzen.

10. Eta Mazedonia guztian dauden anaia guztiakin ala egiten dezute. Baña erregutuzten dizugu, nere anaiak, amorio onetan geiago ta geiago azi zaitzete-la:

11. Eta alegina egin dezazutela, geldirik biziteko, eta begiratu dezazutela egin bear dezutenera; eta zuen eskuakin lanean ari zaitzete-la, agindua dizutegun bezela, eta elizatik kanpora daudenakin onezkerro portatu zaitzete-la, eta iñoren gauzaren gura gaiztorik, ez dezazutela iduki.

12. Illeen gañean berriz, ezjakiñean etzaitugu utzi nai, tristetu etzaituzten, betiko bizitzaren itxedopenik ez daukaten beste gizonak egiten duten bezela.

13. Zeren baldin sinistzen badegu, Jesus gure burua il, eta biztu zala, sinistu ere bear degu, Jaungoikoak biztuko dituela, eta Jesusekin gloriara eramango dituela, Jesusen fede ta amorioan il diranak.

14. Argatik Jaunaren itzaren gañean esaten dizugu, guk, bizi geranok, edo Jaunaren etorrerara artean gelditzen geranok, ez diegula aurrea artuko len il ziradenai.

15. Zeren Jauna bera Aingeruaren agindura, eta esanera, eta Jaungoikoaren tronpetaren otsera, zerutik jetxiko da, eta Kristogan il ziranak aurrena biztuko dirade.

16. Gero, gu biziak gelditu geranok, berakin batean arrapatuak eta eramanak izango gera, odeien gañean, airean, Kristori bidera irtetzera, eta ala beti Jaungoikoarekin egongo gera.

17. Itz oiekin bada, elkar bozkariotu ezazute.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Jesukristoren bigarren etorreraren denbora, eta instanteen gañean berriz, ez daukazute, nere anaiak, nik eskribituaren premiarik.

2. Zeren zuek txit ongi dakizuten, lapurra gauaz bezela, Jaunaren eguna ala etorriko dala.

3. Bada gaiztoak daudenean esaten, pakea daukagu, ezeren beldur gabe gaude, orduan batbatean etorriko da beren gañera galmena, sabelean daukan emakumeari, aurrigitako oñazeak bezela, eta igesik egin ezingo du.

4. Zuek berriz, nere anaiak, etzaudete illuntasunetan, egun ark, lapurrak bezela, arrapatu zaitzaten.

5. Zeren zuek guztiok, argiaren semeak, eta egunaren semeak zerate; ez gera gauarenak, ez illuntasunarenak ere.

6. Ez gaitezen bada, besteak bezela, lotan egon: baizik egon gaitezen beillan, eta begiratuak izan gaitezen.

7. Zeren lo egiten dutenak, gauaz lo egiten dute, eta moskortzen diranak, gauaz moskortzen dira.

8. Gu ordea egunaren semeak geradenok, begiratuak izan gaitezen, fedeko eta karidadeko loarikaz jantziten geradela, eta osasuneko itxedopena kapelatatzat daukagula.

9. Zeren ez gaituen ipiñi Jaungoikoak bere aserrea gugana aurtikitzeko, baizik osasuna arrapatzeko Jesukristo gure Jaunaren bitartez,



10. Zeñ gugatik il zan, naiz esnatuak egon gaitzezela, naiz lotan gaudela, berarekin batean bizi gaitezen.

11. Argatik elkar gozatu ezazute, eta batzuek besteai onbidea eman zaiezute, egiten dezuten bezela.

12. Orobat, nere anaiak, erregututzen dizugute, berarizko ezagera, esker on, eta begirunea iduki dizaiezutela, zuen artean lanean ari diradenai, eta Jaungoikoagan agintzen dizutenai, eta erakutsiak ematen dizkizutenai,

13. Ematen dieztezutela karidadearen ezagugarri andiagoak, beren lanakgatik, berakin pakean egon zaitezte.

14. Erregutuzten ere dizugute, nere anaiak, errierta egin dizaiezutela geldirik ez daudenai, bozkariotu ditzatzutela beldurriak, sendotu ditzatzutela erkiak, eta guztiakin sufrituak izan zaitezte.

15. Begiratu ezazute gaitzagatik gaitza inork ere besteri itzuli ez dizaiola, baizik beti on egin zaiozute elkarri, eta mundu guztiari.

16. Beti bozkarioz bizi zaitezte.

17. Aspertu gabe orazioan egon zaitezte.

18. Gauza guztiakgatik Jaunari eskerrak eman zaiozkazute, zeren au da Jaungoikoak nai duena zuek guztiok egitea Jesukristoren izenean.

19. Jaungoikoaren espiritua ez ezazute itzali.

20. Ez itzatzute mezpreziatu profeziak.

21. Esaminatu itzatzute, bai, gauza guztiak, eta egin itzatzute gauza onak.

22. Gauza gaiztoaren irudi guztitik ere, alde egin ezazute.

23. Eta pakeko Jaungoikoak, gauza guztietan santuak egin zaitzatela, zuen spirituak oso osorik, gorputz eta anima iraun dezan obenikan gabe, Jesukristo gure Jauna datorreneko.

24. Leiala da ots egin zizutena, eta eskeñi zuen bezela, ala egingo du.

25. Nere anaiak, gugatik erregutu ezazute.

26. Anaia guztiak diosal egin zaiezute, laztan santuarekin.

27. Txit gogotik erregutuzten dizutet Jaunagatik, karta au anaia santu guztiak irakurria izan dizaiela.

28. Jesukristo gure Jaunaren grazia zuekin izan bedi. Amen.

## SAN PABLO APOSTOLUAREN BIGARREN KARTA TESLONIKAKOAI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo, eta Silbano, eta Timoteo, Tesalonikarren eliza, Jaungoiko gure Aitaren, eta Jesukristo gure Jaunaren izenean bilduari:

2. Grazia eta pakea izan dedilla zuekin, Jaungoiko gure Aita, eta Jesukristo gure Jaunagandik.

3. Aspertu gabe eskerrak eman bear diozkagu Jaungoikoari zuekगतिक, o nere anaiak, eta txit ongi da ala egin dezagula, zuen fedea geiago ta geiago geituz dijoan ezkeru, eta elkarrentzat batzuek besteakganako karidadea ugarituz dijoalako,

4. Alako moduan, non, gu gerok gozaten gera zuekगतिक Jaungoikoaren elizetan, zuen pazienziagatik eta fedegatik, padezitzen dituzuten zuen persekuzio, eta atsekabe guzien artean,

5. Zeñak diraden siñale batzuek, Jaungoikoaren juizio justo, ala garbitzen zaituztenak, erakusten dutenak, egiteko zuek bere erreñuaren diña, zeñgatik padezitzen dezuten, padezitzen dezutena.

6. Zeren Jaungoikoaren aurrean gauza justoa da, berak atsekabetu ditzala, orain zuek atsekabetzen zaituztenak.

7. Eta zuei, zeñak orain atsekabetuak zaudeten, gozatu erazi dizazuten gurekin batean; betiko atsedena, Jaun Jesus zerutik jexitzen danean, eta agertzen danean Aingeruakin, zeñak bere eskubidearen serbitzariak diran,

8. Etortzen danean suzko garrakin, Jaungoiko ezagutu etzutenen, eta Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelioari obeditzen ez diotenen bengan-tzan,

9. Zeñak sufrituko duten betiko galmeneko pena bat, Jaunaren arpegi aserrea ikustearekin, eta bere eskubidearen argitasunarekin nastuak gelditzen diradela.

10. Datorrenean gloriak betea izatera bere santuetan, eta agertzera miragarria, beragan sinistu zuten guztietan: bada zuek sinistu dezute gure esana, egun aren gañean.

11. Argatik aspertu gabe, orazioa ere egiten degu zuekगतिक, gure Jaungoikoak egin zaitzaten, berak ots egin dizuten estaduaren diñak; eta kunplitu ditzan, bere ontasunak zuen gañean dauzkan asmazio guztiak, eta egin dezala bere eskubidearekin, zuen fedea ugaritu dedilla obra onee-



tan, 12. Jesukristo gure Jaunaren izena, gloriariz betea izan dedin zuekgan, eta zuek beragan gure Jaungoikoaren, eta Jesukristo gure Jaunaren graziaz.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Bitartean, gure anaiak, erregututzen dizugu, Jesukristo gure Jaunaren etorreragatik, eta gu beragana biltzeagatik,

2. Ez ditzatzutela orain utzi zuen lenbiziko iritziak, eta etzaitzetzela ere ikaratu, ez espirituaren batgatik, ez izketakgatik, ez guk eskribitutzat ematen diran kartakgatik, Jaunaren eguna txit aldean egongo balitza bezela.

3. Etzaitzatzela iñork ere iñolaere engañatu, zeren ez dan egun au etorriko, fededunetatik geienak fedetik alde egin dezaten, eta agertu dedin baño lenago pekatuko gizona, galmeneko semea.

4. Zeñ Jaungoikoari aurkeztuko zaio, eta jaikiko da Jaungoikoa dala esaten dan, edo adoratzan dan gauza guztiaren kontra, bere esertokia Jaungoikoaren tenploan ipintzeraño, aditzen ematen duela, Jaungoikoa dala.

5. Ez al zerate oroitzen, oraindik zuekin nengoala, gauza oiek esaten nizekizutela?

6. Badakizute zuek, orain zerk gelditzen duen, bere denboran agertua izan dedin,

7. Zeren gaiztakeriako misterioa egiztatuaz dijoa. bitartean orain sendo dagoana, sendo egon bedi, eragozketa kendua izan dedin arteraño.

8. Eta orduan agertuko da gaizto hura, zeñ Jaun Jesusek ilko duen bere aoko asnasarekin, eta desegingo du bere etorrerako argitasunarekin,

9. Arako, Satanasen eskubidearekin etorriko dan gaiztoa, mirari, eta siñale, eta gauza arrigarri mota guziakin,

10. Eta galduko diran aiek, gaiztakeriara eraman litzakeen asmazio guziakin, ez dutelako artu eta maitatu egia, salbatu zitezten. Argatik Jaungoikoak bialduko die errakuntzako asmazioa, zeñarekin gezurrari sinistuko dioten;

11. Kondenatuak izan ditezen, egia sinistu etzuten guztiak baizik gaiztakerian gozatu ziradenak.

12. Baña guk beti eskerrak eman bear diozkagu Jaungoikoari zuek-gatik, o gure anaia Jaungoikoak maitatuak, Jaungoikoak autu zaituztelako salbazioko primiziatzat, Mazedonia guztian, espirituako santifikazioaren, eta eman dizuten fede egiazkoaren bitartez.

13. Zeñatara ots egin ere zizuten gure Ebanjelioaren bitartez, Jesukristo gure Jaunaren gloria zuei iritxi erazitzekeo.

14. Ala bada, nere anaiak, zaudete sendo fedean, eta iraun ezazute, anziñakoetatik artu ziñituzten erakutsietan, zeñak ikasi dituzuten, bai predikakoaren bitartez, eta bai gure kartaren erakutsiak.

15. Eta Jesukristo gure Jaunak, eta gure Jaungoiko, eta Aita maitatu ginduenak, eta eman zigunak betiko gozotasuna, eta itxedopen ona graziagatik,

16. Alaitu ditzala, eta gozatu zuen biotzak, eta obrak, eta itz on guzietan sendotu ditzala.

### IRUGARREN KAPITULUA

1. Atzenean, nere anaiak, erregutu ezazute gugatik, Jaungoikoaren itza geiago ta geiago zabaldu dedin, eta arkitua izan dedin mundu guztian, zuen artean ere badan bezela,

2. Eta gizaseme gogaitgarri, eta gaiztoakgandik, alde eginik egon gaitezen, zeren atzenean ez da guziarena fedea iritxitzea.

3. Baña leiala da Jaungoikoa, zeñak sendotu, eta zaituko zaituzten espiritu gaiztotik.

4. Eta ala Jaunagan itxedotzen degu, zuek oraindandik egiten dezutela, karta onetan agintzen deguna, eta aurrerakoan ere egingo dezutela.

5. Bitartean Jaunak zuzendu ditzala zuen biotzak Jaungoikoaren amorioan, eta Kristoren pazienzian.

6. Argatik adiratzan dizugu, gure anaiak, Jesukristo gure Jaunaren izenean, alde egin dezazutela, zuen anaien arteko edozeñere gizon, gaizki dabillanagandik, eta ez gugandik artu duen erakutsiaren araura.

7. Bada zuek zerok ongi dakizute, egin bear dezutena gu imitatzekeo, zeren ez giñan zuen artean gaizki ibilli.

8. Ez genduen ere jan ogia doan, besteren kontura, baizik lan eta nekearekin, gau ta egun lanean ari giñala, zuetatik batentzat ere pisutsuak izan ez giñaindezen.

9. Ez, ez gendukalako eskubiderik au egiteko, baizik jartzeko gu zuen begien aurrean imitazioko ejenplutzat.

10. Eta ala oraindikan zuen artean geundela ere, au esaten giñizuten: lanik egin nai ez duenak, jan ere ez beza.

11. Zeren aditu degun zuen artean dabiltzala naslari batzuek, ez dutenak besterik egiten, ezerere ez dijoakiten gauzak jakitea baizik.





12. Oiek bezelakoai bada adirartzen diegu, eta erregutuzten diegu txit gogotik Jesukristo gure Jaunagatik, beren etxeetan ixiltxorikan lanean ari diradela, beren ogia jan dezatela.

13. Zuek, gure anaiak, on egitez etzaitzete aspertu.

14. Eta baldin norbaitek ez badio obeditzen gure kartan agintzen degunari, tildatu ezazute alakoa, eta ez ezazute berarekin itzik egin, lotsatu dedin.

15. Baña alaere etzaiozute, etsaiari bezela begiratu: baizik errierta egin zaiozute amorio ta biguñitasunarekin, anaia bati bezela.

16. Ala Jaunak berak, eta pakearen egigilleak, pakea toki guztietan eman dizazutela, Jauna zuekin guziokin izan dedilla.

17. Agurra nere eskuz, Pablo. Au da nere karta guztien ezagugarria, ala eskribitzen det.

18. Jesukristo gure Jaunaren grazia zuekin guziokin izan bedi. Amen.

## SAN PABLO APOSTOLUAREN LENBIZIKO KARTA TIMOTEORI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo Jesukristoren Apostoluak, Jaungoiko gure Salbatzallearen, eta Kristo Jesus gure itxedopenaren aginduz,

2. Timoteo seme maitatuari fedean. Grazia, urrikaltasuna, eta pakea, Aita Jaungoikoagandik, eta Jesukristo gure Jaunagandik.

3. Ongi dakizu, nola Mazedoniara nijoala, eskatu nizun Efeson gelditu zintezela; adirazi ziñizaiezun gizaseme batzuei, gure dotrinagandik desberdiña dan dotrinarik ez dezatela erakutsi,

4. Eta ez ditezela ere ari ipuietan; eta etorki, bukaera gabekoetan, zeñak egokiagoak diraden ezbaia ipintzeko, Jaungoikoaren obra fedearen bitartez egiteko baño.

5. Zeren agintearen atzena dan karidadea, zeñak daukan bere jatorria biotz garbi batean, konzienzia on batean, eta irudi utsekoa ez dan fedean.

6. Zeñatetik batzuek alde egiten dutela, itzontzikeriara itzuli dira.

7. Legearen erakuslatzat idukiak izan nai dutela, aditzen ez dutela, ez itz egiten dutena, ez egiazat ematen dutena.

8. Badakigu legea ona dala, bere erara gauzak egiten dituenarentzat.

9. Ezagaturik etzala izan legea ipiña justoarentzat, baizik gaiztoentzat, obeditzen ez dutenentzat, injustoentzat, eta bekatariantzat, eta biurriantzat, eta kutsuentzat, eta guraso iltzallaentzat, aitaren iltzallaentzat, eta amaren iltzallaentzat, eta gizon iltzallaentzat,

10. Fornikariantzat, sodomitariantzat, gizon lapurrentzat, gezurtientzat, gezurjuralariantzat, eta dotrina onaren etsaiak diraden guztientzat,

11. Zeñ dan Jaungoiko bedeinkatuaren Ebanjelio gloriosoaren araukoa, zeñ nere kontura utzia izan dan.

12. Eskerrak ematen diozkat sendotu nauen ari, Jesukristo gure Jaunari, leialtatzat iduki ninduelako, ni langintzan jartzen ninduela.

13. Len blasfemari, persegitzalle, eta gaizki esale izan nintzana, baña Jaungoikoagandik urrikaltasuna iritxi nuen, ezjakiñaz egin nuelako sinisgogortasunean.

14. Eta ala ugari izan da nigan gañez egiteraño, Jesukristo gure Jaunaren grazia fedearrekin, eta karidadearekin, zeñ Jesus Kristoa dan.

15. Da egia bat, ziertoa, eta begirakune guztiaren diña: Jesukristo mundu onetara etorri zala, salbatzera pekatariak, zeñatetik aurrena ni naizan.



16. Baña argatik urrikaltasuna iritxi nuen: Jesukristok nigan aurrena erakutsi zezan bere pazientzia goratuena, beragan sinistuko dutenen irudi eta itxedopenerako, betiko bizitza iritxitzeko.

17. Argatik gizaldiaen (sic) Errege illezinari, ikusiezinari, Jaungoiko bakarrari, honra eta gloria beti eta mendez mende, emana izan dizaiola. Ala izan dedilla.

18. Aginte onetan begiratu dezazula, txit gogotik esaten dizut, nere seme Timoteo, eta da, zugatik lendanaz adirazitako gauzaen araura; ala zuri bete eta kunplitu dizazula, Kristoren gudari ona bezela, gudan ari zerala,

19. Daukazula fedea ta konzienzia ona, zeñ batzuek berakgandik aur-tiki zutelako, fedean uts egitera etorri ziran,

20. Zeñaen artekoak diran Himeneo eta Alejandro, zeñak dauzkadan Satanasen mendean jarriak, blasfemiarik ez esaten ikasi dezaten.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Erregututzen dizutet bada aurren aurrena, egin ditezela eskariak, orazioak, eta erreguak, eta gizon guztiak eskerrak eman ditzatela.

2. Erregeakgatik eta toki goratuetan jarriak daudenakgatik, iduki dezagun bizitza kezka gabekoa eta paketsua, gauza on, eta jainkoeriko guztian ari geradela.

3. Zeren au dan gauza on bat, eta Jaungoiko gure Salbatzallearen begien gogokoa.

4. Zeñak nai duen, gizon guztiak salbatzea, eta egiaren ezagerara etorri ditezela.

5. Zeren Jaungoikoa bakarra da, eta bakarra ere Jaungoikoaren eta gizonen arteko bitartekoa Jesukristo gizona.

6. Eman zana bera guztien erredenziorako, eta anziñako eskeñtzen testigantza, bere denboran eman ziradenerako.

7. Zeñaen predikatuzale ta Apostolu ni nagoan jarria, (egia utsa esaten det, ez det gezurrik esaten) jentillen erakuslea fedean eta egian.

8. Nai det bada gizonak toki guztietan orazio egin dezatela, gora altxatzen dituztela esku garbiak, aserre eta erriertarik batere gabekoak.

9. Orobat emakumeak ere orazio egin bezate onirudiko soñekoakin, lotsa eta modu onarekin apaintzen diradela, ez ille kiskurtuakin, ez urrea-ekin, ez perlakin, ez apaingarri balio andikoakin.

10. Baizik obra onakin, berarizko santutasunera igo nai duten emakumeai dagokiten bezela.

11. Emakumeak aditu bitzate erakutsiak ixillean, eta modu txit ona-ekin.

12. Bada ez det utzitzen, emakumeak Elizan erakutsiak eman ditzatela, ez eskubiderik artu senarraren gañean; baizik bere aurrean ixillik egon bedi.

13. Adan aurrena formatua izan zan ezkerro, eta gero Eba beerago-koa bezela.

14. Eta gañera Adan etzan izan engañatua, baizik emakume engaña-tuagatik gizonak bekatu egin zuen.

15. Egia da salbatuko dala, semeen aziera on baten bitartez, fedean, karidadean, eta bizitza garbi eta santu batean irautzen badu.

### IRUGARREN KAPITULUA

1. Egia zierto bat da, Obispo izatea nai duenak, lantegi on bat nai duela.

2. Argatik Obispoak izan bear du aitzakiarik gabea, emakume baten senarra, jan edanean begiratu, zentzu andikoa, apaindua, garbia, eskaleak ostatuz artzen zalea, erakutsi onak emateko diña,

3. Ez ardora emana, ez erriertaria, baizik otsana; ez auzilaria, ez ondasunen gura bidegabekoduna, baizik

4. Bere etxea ongi zaitzen dakiana, bere semeak garbitasun guztiare-kin mendean dauzkana.

5. Bada, baldin batek ez badaki bere etxeagatik begiratzen, Jaungoi-koaren Eliza nola zaituko du?

6. Ez dedilla izan bataiatu berria, urgulluarekin goraturik, deabruaren kondenzioan beratan erori ez dedin.

7. Iduki ere bear dute arrotzak ontzat, mezpreziatua izan ez dedin, eta deabruaren lazoan ez dedin erori.

8. Era berean diakonuak ere izan bitez modu onekoak, ez itz bikoak, ez ardo askoren edaleak, ez irabazi bidegabekoetara emanak,

9. Fedeko misterioa konzienzia garbiarekin tratatzen dutenak.

10. Eta argatik izan bitez oiek, lendanaz probatuak, eta ala sartu bitez beren lantegian, obenikan batere ez daukatela.

11. Emakumeak orobat izango dira modu onekoak, ez murmuratza-lleak, begiratuak, gauza guztietan leialak.

12. Diakonuak izan bitez emakume baten senarrak, beren semeak eta beren etxeak ongi zaitzen dituztenak.



13. Zeren beren lana ongi kunplitzen dutenak, toki onratsu, goratu batera igoko dira, eta Jesukristoren fedea erakusteko, itxedopen andia idukiko dute.

14. Oiek eskribitzen dizkizut, zu ikustera aurki joango naizan itxedopenarekin.

15. Eta baldin luzatzen bazat, jakin dezazun, nola portatu bear zeran Jaungoikoaren etxean, zeñ dan Jaungoiko biziaren Eliza, egiaren abe eta sostena.

16. Eta egiaz da andia aldamen guztietatik Jaungoikoaren amorioaren misterioa, zeñatan Jaungoikoaren semea agertu dan gure aragian, zeñ izan dan Espiritu Santuak justotua, Aingeruak ikusia, Jentillai predikatua, munduan sinistua, gloriara jaso ta eregia.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Baña Espiritu Santuak argiro esaten du, geroko denboretan batzuek fedetik alde egingo dutela, aditzea eman diotelako espiritu engañakorrai, eta demonioen erakutsiai,

2. Gezur asmatzalle hipokresiaz beteai ikasiak, zeñak idukiko duten beren konzienzia bekatu eta obenez beltxitua,

3. Zeñak galeraziko duten matrimonia, eta jatea janari aiek, zeñak Jaungoikoak egin zituen, kristau fielak eta egia ezagutu dutenak artu zitza-ten, eskerrak ematen zituztela.

4. Zeren Jaungoikoak egindako gauza guztiak, onak diraden, eta eskerrak emanda jaten dan gauzaetatik bat ere, ez da aurtiki bear,

5. Santututzen dan ezkerro Jaungoikoaren itzarekin, eta orazioarekin.

6. Adirazirik oiek anaiari, izango zera Jesukristoren ministro ona, erakutsia izan zerana bezela fedeko eta ikasi dezun dotrina oneko egietan;

7. Ipui farragarri, eta atso zarren kontuak berriz, utzi zaiezu, eta birtuteko lanetan ari zaite;

8. Bada gorputzeko lanak gauza gutxitarako dirade: birtutea berriz gutzirako da, oraingo eta geroko bizitzako eskeñtza, berarekin dakarrena bezela.

9. Eskeñtza leiala, eta estimazio guztiaren diña.

10. Eta argatik sufritzen ditugu naigabeak eta isekak, gure itxedopena jartzen degulako Jaungoiko biziagan, zeñ dan gizon guztien salbatza-ilea, batezere Kristau fielen.

11. Oiek agindu ta erakutsiko dituzu.

12. Alako moduan portatu zaite, non, zure edade laburratigatik inork ere mezpreziatu etzaitzala. Izango zera kristau fielen ispillu ta irudia itz egitean, artuemanetan, karidadean, fedean, kastidadean.

13. Ni natorren artean, ari zaite irakurtzen, itz onak esaten, eta erakutsiak ematen.

14. Ez ezazu alperrik galdu, daukazun grazia konsagrazioagatik, zeñ emana izan zazun profeziaren bertutez, apaizak eskuak gañean ipintzen zizkizula.

15. Gauza oiek gogoan erabili itzatzu, eta beretan egon zaite alako moduan, non, zure aurrerapenak mundu guztiak ikusi ditzala.

16. Zaude beillan zure gañean, eta erakutsiak ematearen gañean, jarraitu zaiezu lan oiei. Zeren oiek eginik, salbatuko zera zu, eta zuri aditzen dizutenak ere.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Etzaiozu errierta gogorrik egin zarrari; baizik modu onean erre-gutu zaiozu aitari bezela, gazteai anaiari bezela;

2. Emakume zarrari, amari bezela, eta neskaitz gaztetxoari, arrebai bezela, kastidade guztian.

3. Onratu itzatzu andre alargunak, egiaz andre alargunak diradenak.

4. Eta baldin andre alargunen batek, semeak, edo illoba txikiak badauzka, aurrena begiratu bizaio bere etxea ongi zaitzeari, eta bere gura-soai zor zaien ordaña emateari; bada au Jaungoikoaren gogoko gauza da.

5. Egiaz andre alarguna eta desanparatua danak berriz, Jaungoikoan itxedon beza; eta gau ta egun erre-gu eta orazioetan ari bedi.

6. Zeren atseginetan bizi dana, bizirik dagoala, illa dago.

7. Gauza oiek bada adirazi zaiozkazu, aitzakia gabeak izan ditezen.

8. Bada baldin badago inork ere begiratzen ez duenik bereagatik, batezere bere familiakoagatik, onelakoak fedea ukatu du, eta fedegabea baño gaiztoagoa da.

9. Elizaren serbitzorako ez bedi izan autua andre alargunik, irurogei urte baño gutxiago daukanik, bein bakarrik baño geiagotan ezkondua izan ez dana,

10. Zeñaren obra onak, bere testigantza ematen duten, semeai aziera ona eman badie, eskaleak ostatuz artu baditu, santuari oñak garbitu badiezte, atsekabetuari lagundu badie, obra on guztietan aritu izan bada.

11. Andre alargun gazterik ez beza artu Elizako serbitzorako. Zeren Kristoren ondasunakin gozatu diranean, ezkondu nai izaten duten,



12. Idukirik beren kontra kondenazioko sententzia, lenengo fedea ausi dutelako;

13. Baitaere alperreria daudela, oitzen dirade etxetik etxe ibiltzen, ez nolanai alperrak, baitaere berritsuak, eta jakin naiak, esaten dituztela, esan bear ez lituzkean gauzak.

14. Naiago det bada, onelakoetan andre alargun gazteak, berriz ezkondu ditezela, azi ditzatela semeak, etxeko andre onak izan ditezela, eta etsaiari gaizki esateko biderik batere ez dizaiela eman.

15. Bada batzuek galdu dira onezkeroko, Satanasen ondoren joatearren.

16. Baldin Kristau fielen batek badauzka andre alargunak bere aideen artean, lagundu bizaie, eta ez bedi izan Elizaren kontura, egon dedin bear dana, andre alargunak egiaz diranai, bear dana emateko.

17. Beren lana ongi kunplitzen duten apaizai, bi alditan anbat ordañ eman bizaie, batezere predikatze eta dotrina erakusteko lanean ari diradenai.

18. Zeren Eskriturak esaten duen: «Traillatzen ari dan idiari, ez diozu bozalik ipiñiko». Baitaere: «Langillea, bere alogeraren diña bada».

19. Apaizen kontra ez ezazu salaziorik artu, bi, edo iru testiguren esanaren gañera ez izanenean.

20. Pekatari agiri eta gogortuak, guztien aurrean errierta egingo diezu, besteak ere beldur izan ditezten.

21. Esaten dizut garratz eta gogor, Jaungoikoaren, eta Jesukristoren, eta beren Santuen aurrean, gauza oiek zaitu ditzatzula, besteen esanagatik utzi gabe, eta zure eraspene eta etsigitasunagatik, ezerere egin gabe.

22. Etzaite arin ibilli norbaiten gañean eskuak jartzen, eta etzaite ere besteen bekaturen partale izan. Zerorrek garbi iraun ezazu.

23. Etzaiozu jarraitu ur utsa edateari, baizik ardo piska bat edan ezazu zure estamanguagatik, eta maiz dauzkazun eritasunagatik.

24. Gizon batzuen bekatuak ezagutuak dira, juizioan esaminatu baño lenago, baño beste batzuenak juizioan esamina eginda gero agertzen dira.

25. Ala, badira ere obra on agiriak, eta ez diradenak, ezkutuan egon ez ditezke.

### SEIGARREN KAPITULUA

1. Mendetasuneko uztarriaren azpian dauden guztiak, begiratuko die beren nagusiai, lotsa guztiaren diñak diradenai bezela, Jaunaren izena eta bere dotrina blasfematuak izan ez ditezten.

2. Kristau fielak nagusizat dauzkatenak berriz, lotsa gutxiago ez die idukiko, baldin badira, eta begiratzen badie ere, beren anaiak bezela Kris-

togan, baizik obekiago serbitu bitzate, Kristau fielak diradelako, beragatik maitasun geiagoren diñak diradelako alako mesedearen partaleak bezela. Oiek erakutsi bear dituzu, eta oiek egiteko gogotik esan behar diezu.

3. Baldin iñork beste modutara ematen baditu erakutsiak, eta ez baditu artzen Jesukristo gure Jaunaren itz osasuntsuak, eta ontasun ta erreligioaren erakoa dan dotrina,

4. Da urgullutsu bat, ezerere ez dakiana, baizik txoratutzen da, eta buruko desalaia egiten zaio, itzen gañeko ezbai ta erriertakgatik, nondik datozten ondamuak, eleak, blasfemiak, sospetxa gaiztoak.

5. Gizon adimen galdukoen ezbaiak, eta egiaren argitasunaz gabe-tuak, obra onak irabaziak egiteko, eta aberastutze diradela uste dutenak.

6. Eta egiaz tesoro andi bat da ontasuna, zeñ bizitzeko diña danarekin aspertzen dan.

7. Zeren mundu onetara ez degu ezerere ekarri; eta dudarik gabe, ezertxo ere ez degula eraman alko.

8. Idukitzen degula bada zer jan, eta zerekin estali, oiekin bozkarioz egon gaitzen.

9. Zeren aberastu nai dutenak, erortzen dira tentazioan, eta deabruaren lazoan, eta gura alper, bidegabeko eta kaltegarri askotan.

10. Zeren zikoiztasuna, gaitz guztien sustraia dan, zeñak arrapaturik batzuek, fedetik alde egin zuten, eta berak pena, eta atsekabe askoren mendean jarri ziran.

11. Baña zuk, o Jaungoikoaren gizona! Gauza oietatik iges egin ezazu, ta jarraitu zaiezu gauza guztietan justiziar, obra onak egiteari, fedeari, karidadeari, pazienziari, otsantasunari.

12. Erruz ta sendo gudan ari zaite, eta garaipena arrapatu ezazu, eta irabazi ezazu betiko bizia, zeñatarako ots egiña izan ziñan, eta testigantza on bat eman zenduen, testigu askoren aurrean fedea aitortzen zenduela.

13. Nik agintzen dizut Jainkoaren aurrean, zeñak gauza guziai bizia ematen dien; eta Jesukristoren aurrean, zeñak Ponzio Pilatoren aurrean testigantza eman zuen, sendotasunarekin egia aitortzen zuela.

14. Agindu zatzuna zaitu dezazula, irautzen dezula orbanikan gabe, eta zer aitzakiaturikan ez daukazula, Jesukristo gure Jaunaren etorrera-raño.

15. Etorrera bat, zeñak agertuko duen bere denboran, zorioneko, eta bakarrik almentsua, erregeen Erregea, eta jaunen Jauna,

16. Bera bakarrik dana illezina izatez, eta iñor ere beragana allegatu ez litekean argi batean bizi dana, zeñ gizon batek ere ez duen ikusi: eta ikusi ere ez dezake, zeñaena dan onra, eta betiko agintaritza.



17. Mundu onetako aberatsai agindu zaiezu, ez ditezela urgullutsuak izan, eta ez dezatela ere beren itxedopena jarri, aberastasun galdukorre-tan, baizik Jaungoiko biziagan (zeñak guztia ugari ematen digun gure pre-mietarako).

18. Esan zaiezu egin ditzatela obra onak, obra onakin aberastu ditez-tela, eman dezatela ugaritasunarekin, beren ondasunak guztientzat izan ditezela,

19. Egin dezatela aberastasuneko montoi andi bat, geroko berentzat betiko bizitza iritxi dezaten.

20. O Timoteo! Zaitu ezazu eman dizudan fedea gordetzeko, utzirik itz berri bidegabekoak; eta jakinduria batean bere arteko kontrak, zeñi, ala gaizki, jakinduriaren izena ematen zaion,

21. Jakinduria alperra, zeñi batzuek jarraiturik, fedea galtzera etorri ziran. Grazia zurekin izan bedi. Ala izan dedilla.

## SAN PABLO APOSTOLUAREN BIGARREN KARTA TIMOTEORI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo Jesukristoren Apostolua Jaungoikoaren borondateagatik, Jesukristogan daukagun bizitzako eskeñtzaren araura,

2. Timoteo, nere seme txit maiteari grazia, urrikaltasuna eta pakea Aita Jaungoikoaren, eta Jesukristo gure Jaunaren izenean.

3. Ematen diozkat eskerrak Jaungoikoari, zeñ serbitzen dedan nere asabaen irudira, anima garbiarekin, gau ta egun, nere orazioetan aspertu gabe, zurekin oroitzen naizala.

4. Zu ikusi nai zaitudala, oroitzen naizala zure negar malkoakin, elka- rri agur egin giñonean Efeson, ni gozotasunez betetzeko.

5. Daukadala gogoan arako zure fede zintzoa, zeñ lenengo egon zan beti Loide zure Amonagan, eta Eunize zure Amagan, eta orobat zierto nago zugan ere badagoala.

6. Argatik gogorik bizenarekin esaten dizut, biztu dezazula Jaungoi- koaren grazia, nere eskuak gañean jartzeagatik, zugan dagoana.

7. Zeren ez digu guri Jaungoikoak eman beldurreko espiriturik, bai- zik sendotasunekoa, eta karidadekoa, eta zentzukoa.

8. Argatik etzaitz lotsatu ematen gure Jaunaren testigantza; ez nerea, bere amorioz kateetan nagoarena; baizik ari zaitz lanean nerekin batean Ebanjelioagatik, Jaungoikoagandik artuko dezun bertutearekin:

9. Zeñak libratu ginduen, eta ots egin zigun bere bokazio santuare- kin, ez gure obrakgatik, baizik bere borondate utsagatik, eta Jesukristogan emana izan zagon graziagatik gizaldi guztiak baño lenagotik,

10. Eta zeñ agertu dan orain Jesukristo gure Salbatzallearen etorrera- gatik, zeñak eriotza desegin zuen, eta argitara atera zituen bizitza eta ille- zintasuna Ebanjelioaren bitartez,

11. Zeñatarako izan nintzan ni jarria erreñuetako predikatzalle, eta Apostolu, eta Erakusle.

12. Argatik oiek padezitzen ditut, baño ez naiz lotsatzen. Zeren ongi dakidan, zeñgan fiatu naizan; eta zierto nago almentsua dala, nere ordaña gordetzeko atzeneko egun artaraño.

13. Iduki ezazu irudi ta ispillutzat, nigandik Jesukristogan fede eta karidadearekin aditu dezun dotrina garbia.





14. Zaitu ezazu gauza on ori, gugan bizi dan Espiritu Santuaren bitartez.

15. Badakizu nola alde egin duten nigandik Asian jaiotako guztiak, emen Erroman zeudenak, zeñaren artekoak diran Fijelo eta Hermojenes.

16. Jaunak isuri bitza bere urrikaltasunak Onesifororen etxearen gañera, zeren maiz gozatu nauen, eta nere katearekin ez dan lotsatu:

17. Baizik allegatu zanean Erromara, bereala ajolaz billatu ninduen, aliketa arkitu ninduen artean.

18. Jaunak eman dizaiola grazia, bere aurrean urrikaltasuna arkitzeko, juizioko egun andi artan. Zuk ongi dakizu, Efeson zenbat mesede egin zidan.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Zu bada, ene semea, alaitu zaitte Jesukristogan daukagun grazian.

2. Eta testigu askoren aurrean neri aditu dizkidazun gauzak, adirazi jazkiezu gizon leial, besteai erakusteko ere egokiak izango diranai.

3. Ari zaitte lanean Jesukristoren gudari ona bezela.

4. Jaungoikoaren gudarien artean sartu diradenetatik batek ere, ez du nastu bear munduko arazoetan, bere mendean artu zuenaren borondatea egiteko.

5. Gudatokian gudan ari danak ere ez du koroa artzen, legeen araura gdatzen ez bada.

6. Nekazariak frutuak artu baño lenago, lanak egin bear ditu.

7. Ongi aditu itzatzu esaten dizkizudanak, zeren Jaungoikoak gauza guztietan aditza emango dizun.

8. Oroitu zaitte, Jesukristo gure Jauna Dabiden jatorrikoa, illaen arte-tik biztu zala, nere Ebanjelioaren araura,

9. Zeñgatik nagoan ni padezitzen, kateen artean ikusi naiten artean, gaiztagilla bat bezela, baño Jaungoikoaren itza ez dago lotua.

10. Argatik guztia sufritzen det autuen amorioz, berak ere iritxi dezaten salbazioa, Jesukristok irabazia, zeruko gloriarekin.

11. Da egia txit zierto bat, berarekin iltzen bagera, berarekin biziko ere gerala,

12. Berarekin padezitzen badegu, berarekin erreñatuko ere degu, ukatzen badegu, orobat berak ere ukatuko gaitu.

13. Sinistzen ez badegu, berak leial irautzen du, bera ez diteke ukatu.

14. Gauza oiek erakutsiko dituzu, Jaungoikoa testigutzat jartzen dezula. Etzaitte itzez elean ari, zeren ezertarako ere ez duen balio, baizik aditzalleak gaiztotzeko.

15. Jarri zaitte Jaungoikoaren aurrean jartzeko egoeran, bere gogokoa izateko diña dan ministro bat bezela; ezerere egiten ez duena, lotsatzeko bidea emango dionik; eta egiaren itza ongi adiratzten dakiana.

16. Argatik alde egin ezazu, izketa mundutar, eta alperretatik, zeren asko laguntzen duten jendea gaiztotzeko.

17. Eta onelakoen itzaldia minbizia bezela zabaltzen da. Oien artekoak dira Himeneo eta Fileto,

18. Zeñak alde egin duten egiatik, esaten dutela, biztze berria egina dagoela, eta batzuen fedea galdu dute.

19. Baña Jaungoikoaren fundamentuak sendo irautzen du, zeñ dagoan markatua itz oiekin: Jaunak, bereak ezagutzen ditu; baitaere Jaunaren izenari otz egin dion guztiak, gaiztakeriatik alde egin beza.

20. Gañerakoan, etxe andi batean ez bakarrik daude iruzeko eta zillarrrezko ontziak, baita zurezkoak eta buztinakoak ere; eta beretatiko batzuek dira onrazko lanetarako; eta beste batzuek lotsarizko lanetarako.

21. Baldin bada norbait, gauza oietatik garbitzen bada, onrazko ontzi santutu bat izango da, eta Jaunaren serbitzorako gai, obra on guztirako prestatua.

22. Argatik, gazteen guraetatik iges egin ezazu, eta jarraitu zaiezu justiziari, fedeari, karidadeari, eta pakeari, biotz garbiarekin Jaunari ots egiten diotenakin.

23. Ezbai eroak, eta adimena argitzeko balio ez dutenetatik, iges egin ezazu, jakinik auzien jatorri ugari bat diradela.

24. Jaunaren serbitzariari ez dagokio auzitan aritzea, baizik otsana guztiakin, erakutsi onak emateko gai, ta egokia, sufritua.

25. Egiari kontra egiten diotenai, biguñtasunarekin errierta egin dizaiela, ikusteko Jaungoikoak penitziara ekartzen ote dituen, egia ezagutu dezaten,

26. Eta irten ditezen deabruaren lazoetatik, zeñak bere gogo osora lotuak dauzkan.

### IRUGARREN KAPITULUA

1. Jakin bear dezu berriz, atzeneko egunetan denbora perillez beteak etorriko diradela.

2. Jaikiko dirade gizon, beren buruen maitatzalleak, zikoitzak, antusteak, urugullutsuak, blasfemariak, gurasoai obeditzen ez dienak, eskertxarrekoak, gaiztakinak,

3. Aberetuak, pakegaiztokoak, gezurasmatzalleak, zikiñak, uzuak, biguñtasunik gabeak,



4. Lagunsaltzalleak, lotsagaldukoak, arroak, eta Jaungoikoaren maitatzallak baño atsegiñen maitatzallagoak,
5. Agertzen dutela, bai, oneen irudia; baño bere espirituari utzitzen diotela. Onelakoakgandik iges ezazu.
6. Zeren oietatikoak diran, etxeetatik sartzen diradenak, eta katibu eramaten dituzte bekatuz betetzeko emakume galduak, gura gaiztoen jarraitzallak.
7. Zeñak ari diran beti ikasten, eta beñere ez dira allegatzen egiaren ezaguerara.
8. Atzanean Jannes, eta Manbres, Moisesi aurkeztu zitzaizkan bezela, era berean oiek egiari aurkeztzen zaiozka; biotz ustelduak dauzkaten gizonak; fedetik igeslariak, besteak ere gaiztotu nai lituzkenak,
9. Baña ez dute, berak nai dutena iritxiko, zeren beren zentzugabetasuna guztien begien aurrean jarriko da, len Mago aien bezela.
10. Zuk kontrara egin bear dezu, nere Timoteo maitea, ikusi dezu nere dotrina, nola bizi naizan, zer dan billatzen dedana; nolakoak direan nere fedea, nere animako sendotasuna, nere karidadea, nere pazientzia:
11. Nolako persekuzioak eta atsekabeak sufritu ditudan, nolako gauzak gertatu zitzaizkidan Antiokian, Ikonian, eta Listrisen, nolako persekuzioak sufritu nituen, eta nola guztietatik Jaunak atera ninduen.
12. Eta gauza jakina da, Jesukristogan ongi bizi nai duten guztiak, persekuzioa irago bearko dutela.
13. Gizon gaizto ta engañalariak berriz, gaiztotuaz joango dira, utsak egiten dituztela, eta besteai ere utsak egin erazi nai diela.
14. Zuk berriz, nere seme maitea, iraun ezazu azkar, ta sendo, ikasi dezunean, eta emanak izan zizazkizun erakutsietan, jakinik zeñgandik ikasi dituzun.
15. Baitaere aur denboratik ikasi ziñituelako liburu santuak, zeñak eman ditzatzukean salbazioarako erakutsiak, Jesukristogan sinistzen duen fedearen bitartez.
16. Jaungoikoak argituta egindako eskritura guztia da egokia erakusteko, sinistu erazitzeko, bekatariak bide zuzenera ekartzeko; eta onak zuzentzeko justizian eta birtutean.
17. Jaungoikoaren gizona on osoa izan dedin, eta obra on guztirako egon dedin prestatua.

## LAUGARREN KAPITULUA

1. Txit gogotik bada esaten dizut, Jaungoikoaren, eta Jesukristo, biziak eta illak juzgatuko dituenaren aurrean, bere etorrerako eta bere erreñuko denboran.
2. Predikatu dezazula Jaungoikoaren itza; ari zatzakio, naiz etorri erara, naiz ez, errierta egin ezazu, erregutu ezazu, esan zaiezu ondu ditezela pazientzia eta dotrina guztiarekin.
3. Zeren etorriko dan denbora, zeñean gizonak dotrina ona ezin sufrituko duten; baizik, beren gurak asetzeko, billatu ta montoituko dituzten berentzat erakusleak, belarriak gozaten dituztela,
4. Eta egiagandik alde eraziko die beren belarriai, eta ipuietara biur-tuko dituzte.
5. Zu berriz beillan zaude, gauza guztietan ari zaite lanean, egin itzazu Ebanjelari baten bearrak, zure lantegia kunplitu ezazu. Begiratua izan zaite.
6. Bada ni onezkero sakrifikatua izateko zorian nago, nere eriotzako denbora alderatzen da.
7. Erruz ta sendo gudatu naiz, nere ibilliak bukatu dirade, leialtasuna zaitu det.
8. Etzat onezkero beste gauzarik gelditzen, baizik itxedotzea, nerezat gordea dagoan justiziako koroea, zeñ emango didan neri Jaunak egun artan, juez justoa bezela; eta ez bakarrik neri, baita ere fedez beteta, bere etorreraren gurak dauzkatena. Arin ibilli zaite, agudo nigana etortzeko.
9. Zeren Demasek utzi nau, mundu au maitatzen duela, eta Tesalonikara joan da.
10. Kreszente joan zan Galaziarontz, Tito Dalmaziara.
11. Lukas bakarrik dago nerekin. Artu ezazu Markos, eta zurekin ekarri ezazu, zeren nere lanetarako mesedegarria det.
12. Tikiko Efesora bialdu det.
13. Zatozanean ekarri ezazu zurekin, Troaden Karporen etxean utzi nuen kapa, baitaere liburuak, batezere pergaminoak.
14. Alejandro pertzagilleak, gaitz asko egin dit. Jaunak bere obraen araura, ordaña emango dio.
15. Kontuan zaude zu ere berarekin, zeren gure erakutsietara txit gogorki aurkeztu dan.
16. Nere lenengo defentsan, iñork ere etzidan lagundu; baizik guztiak utzi ninduten. Jaungoikoari erregutzen diot, arren barkatu dizaiela.



17. Baña Jaunak lagundu zidan, eta alaitu ninduen, nik nere sermoea bukatu nezan, eta erreñu guztiak aditu zidaten, eta Leoiaren aotik libratua izan nintzan.

18. Jaunak bekatu guzitik libratuko nau, eta bere zeruko erreñura zuzenduko nau, berari gloria emana izan bizaio mendez mende. Ala izan dedilla.

19. Eskumñak Priskari, eta Akilasi, eta Onesiforeoren familiari.

20. Erasto Korinto gelditu zan. Eta Trofimo Mileton eria utzi nuen.

21. Agudo ibilli zaitte, negua baño lenago etortzeko. Agur egiten dizute Eubulo eta Pudente, eta Lino eta Klaudia, eta erri onetako anaia guztiak.

22. Jesukristo Jauna zure espirituarekin izan dedilla. Graziak zuekin iraun dezala. Ala izan dedilla.

## SAN PABLO APOSTOLUAREN KARTA TITORI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo, Jaungoikoaren serbitzariak, eta Jesukristoren Apostoluak, Jaungoikoaren autuai fedean, eta ontasunaren araurakoa dan egiazen eza-gueran, erakutsiak emateko,

2. Eta betiko bizitzaren itxedopena ematen duenak, zeñ Jaungoiko gezurrik esan ez dezakeanak eskeñi duen, gizaldi guztiak baño lenagotik.

3. Ikusi erazirik bere denboran bere itzaren betetasuna Ebanjelioaren predikazioan, zeñ emana izan zatan neri, Jaungoiko gure Salbatzallearen aginduz.

4. Tito nere seme maiteari, elkarrena degun fedearen araura, grazia eta pakea Aita Jaungoiko eta Jesukristo gure Salbatzalleagandik.

5. Nik Kretan utzi zindudan, zuzendu ziñitzan ez dauden gauzak, eta ipiñi ziñitzan apaizak erri bakoitzean, nik erakutsi nizun bezela.

6. Aututzen dituzula aitzakia gabeak, bein bakarrik ezkonduak, seme leialak dauzkatena, ez lujuriarekin fama ona galdutakoak, ez obeditu nai ez dutenak.

7. Zeren premiazko gauza da, Obispo bat izan dedilla aitzakia gabea, dalako Jaungoikoaren ondasunen partitzallea, ez urgullutsua, ez aserrekorra, ez ardora emana, ez burrukaria, ez irabazi bidegabekoen gurak dauzkana.

8. Baizik eskalei ostatua ematen zalea, biguña, izkuntza gozoka, jan edanean begiratu, justoa, santua, garbia,

9. Fedeko egietara itsatsia, berari erakutsi dioten moduan; gai izan dedin erakutsiak emateko dotrina onean; eta kontra egiten diotenai, argudioak ipintzeko.

10. Bada oraindikan badirade asko obeditzen ez dutenak, berritsuak, eta engañalariak, batezere zirkunzidatuetatikoak.

11. Zeñai aoa tapatu bear zaien; familia osoak nastutzen dituztenak, bear ez direan gauzak erakusten dituztela, irabazi gaizto batgatik.

12. Esan zuen beretatiko batek, zeñ zan beren profeta: Kretakoak beti dira gezurriak, pisti gaiztoak, sabel alperrak.

13. Testigantza au egiazkoa da. Argatik errierta gogorrek egin zaiztezu, fedean sendo iraun dezaten,



14. Eta ez dizaien aditzerik eman Juduen ipuiai, ez gizonen aginte, egiagandik alde erazitzen dutenai.

15. Garbientzat gauza guztiak garbiak dira; kutsuentzat berriz, eta federik ez daukatenentzat, ez dago ezerere garbirik; baizik beren anima, eta beren konzienzia, bekatuakin kutsutuak dauzkate.

16. Aitortzen dute Jaungoikoa ezagutzen dutela, obrakin ordea ukatzen dute, izanik, diraden bezela, nazkagarriak, eta tematiak, eta obra on guzirikoz ezertarako gaiezak.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Baña zuk erakutsiko dituzu bakarrik dotrina onaren arauko gauzak.

2. Gizaseme zarrak izan ditezela jan edanean begiratuak, modu onekoak, zentzu andikoak, eta garbiak fedean, karidadean, pazientzian.

3. Orobat emakume zarrak izan ditezela beren obra guztietan begiratuak, ez ditezela izan gezur asmatzalleak, ez ardo askoren edaleak, erakutsi onak eman ditzatela.

4. Erakusten diela garbitasuna zaitzen, neskaitz gazteai; beren senarrak maitatu ditzatela, eta zaitu ditzatela beren semeak.

5. Izan ditezela modu onekoak, garbiak, begiratuak, etxea ongi zaitu dezatela, paketsuak, senarren mendean egon ditezela, Jaungoikoaren itzagatik gaizki esan ez dedin.

6. Orobat mutil gazteai ere adirazi zaiezu, begiratuak izan ditezela.

7. Obra onen irudi ta ispillua bezela agertu ta erakutsi zaite gauza guztietan, dotrinan, oituren garbitasunean lotsa onean.

8. Dotrina onaren predikazioan, eta izan zaite aitzakia gabea: zure kontrakoa dana lotsatu dedin, gugatik gauza gaiztorik batere zer esan ez idukirik.

9. Adirazi zaiezu serbitzariari, beren nagusiai obeditu dizaiela, al duten guztian aien gogoko gauzak egiten dituztela; ez dizaiela inoizere kontrarik egin,

10. Ez dizaiela ezerere ostu; baizik gauza guztietan leialtasun oso bat erakutsi dezatela, beren biziera onak Jaungoiko gure Salbatzallearen dotrinari lotsa onarekin begiratu erazi dizaion.

11. Zeren Jaungoiko gure Salbatzallearen graziak gizon guztiak argitu dituen,

12. Erakusten digula, utzitzen ditugula gaiztakeria, eta munduko gurak, bizi gaitezen mundu onetan kontuz, ongi, eta erreljioaren araura.

13. Gaudela emen, itxedotzen degun zoriontasunaren zai, eta Jaungoiko andi, eta gure Salbatzalle Jesukristoren etorrera gloriar betea:

14. Zeñ eman zan bera gugatik, bekatu guztik gu erredimitzeko, gu garbitzeko, eta egiteko gurekin erri bat, berarizko gogokoa, obra onen jarraitzalea.

15. Au da erakutsi, ta adiraziko dezuna, eta eskubide osoarekin errietan egin ezazu. Alako moduan portatu zaite, non, etzaitzala inork ere mezpreziatu.

### IRUGARREN KAPITULUA

1. Adirazi zaiezu, bizi ditezela Prinzipe eta Agintarien mendean; beren aginteai obeditu dizaiela, eta obra on guztirako prestatuak egon ditezela:

2. Inõrgatik ere ez dezatela gaizkirik esan, ez ditezela izan auzilariak, ez errietariak; baizik modu onekoak, tratatzen dituztela gizon guztiak, al duten gozotasun guztiarekin.

3. Zeren gu ere izan giñan denbora batean zentzugabeak, sinisgogorak, alde eginik genbiltzanak; gura ta atsegin gaizto neurrigabeko baten mendekoak; gaiztakeriaz ta ondamuz beteak geunden; giñan gorrotogariak, eta elkarri gorroto geuntzan.

4. Baña Jaungoiko, gure Salbatzalleak agertu duenean bere biguñtasuna, ta gizonakganako amorioa;

5. Salbatu gaitu, ez egin ditugun justiziako obrakgatik, baizik bere urrikaltasunagatik, bataioaren bitartez berriz jaoerazitzen zigula, eta berrizatzen ginduela Espiritu Santuaren bitartez,

6. Zeñ berak isuri zuen gure gañera txit ugari Jesukristo gure Salbatzalleagatik.

7. Beronen graziagatik justotuak izanik, etorri gaitezen izatera betiko bizitzako primu, daukagun itxedopenaren araura.

8. Erakutsi au txit ziertoa da, eta nai det ongi sartu dezazula, Jaungoikoagan sinistzen dutenen adimenetan, besteak baño aurrerago jarri ditezten obra onak egitean. Gauza oiek, alabagarriak, eta gizonentzat mesedegarriak dirade.

9. Baña ezbai zentzugabeak, eta jatorrien gañekoak, eta errietak, eta itzezko gudak, utzi itzatzu, zeren alperrak, eta ezerere balio ez dutenak diran.

10. Alde egin ezazu gizon herejeagandik, bein, edo bi alditan bere errakuntzak zuzendu ezkeru,



11. Jakinik onelako gizona gaiztoturik dagoala, eta dala bekataria, bere konzienziak kondenatua izanik.

12. Nik bialtzen dizudanean zuri Artemas, edo Tikiko, bereala agudo ibilli zaite nigana etortzeko Nikopolira, zeren erabaki dedan, an negua iragotzea.

13. Bialdu ezazu aurretik onra guztiarekin Zenas legearen erakuslea Apolorekin, eta egin ezazu alegina, ezeren ere premiarik iduki ez dezaten.

14. Ikasi ere bezate gureak aurrenak izaten gertatu litezkean premietan, soillak eta fruta gabeak izan ez ditezen.

15. Nerekin dauden guziak diosalak egiten dizkizute, eskumñak eman zaieztezu zuk legearen araura maitatzen gaituztenai. Jaungoikoaren grazia zuekin guziokin izan bedi. Ala izan dedilla.

## SAN PABLO APOSTOLUAREN KARTA FILEMONI

1. Pablo, lotua dagoanak Jesukristoren amorioagatik, eta bere anaia Timoteok, Filemon gure maite, gure lagunari lanetan,

2. Eta gure arreba Appia, bere emazte, txit gure gogokoari, eta Argipo gure lagunari gudaetan, eta zure etxean bildua dagoan Elizari.

3. Grazia eta pakea zuei, gure Aita Jaungoiko, eta Jesukristo gure Jaunaren izenean.

4. Oroitzen naizala beti zurekin nere orazioetan, o Filemon maitea, nere Jaungoikoari eskerrak ematen diozkat,

5. Aditurik Jesukristo gure Jaunagan daukazun fedea, eta zure karidadea santu guztiakganako,

6. Eta nola zure esku ugaritasunak, zeñ datorren zure fedetik, argi egiten duen mundu guztiaren begietan, agirian jartzen dala, zure etxean Jesukristoren amorioagatik egiten diran obra on guztiakgatik.

7. Ala da nik atsegin ta gozotasun andiak iduki ditudala zure karidadeko obraetan, ikusirik nolako poza artu duten zure ontasunetik, nere anaia, santuen biotzak.

8. Argatik agindu al banizuke ere Jesukristogan daukadan itxedopenagatik, egin bear dezun gauza bat:

9. Alaere dizudan amorio andiagatik, naiago det erregutuztea, banaiz ere naizana zukanako, au da, ni banaiz ere Pablo Apostolua, onezkero zarra, eta gañera orain kateaz lotua dagoana Jesukristoren amorioagatik.

10. Erregututzen dizut bada nere seme Onesimogatik, zeñ katean artean sortu dedan,

11. Onesimo, zeñ denbora batean zan zuretzat ezerere balio etzuen; orain berriz zuretzat, eta neretzat da mesedegarria,

12. Zeñ berriz bialtzen dizudan. zuk zure aldamenetik artu ezazu nere erraiak bezela.

13. Nik uste izan nuen nerekin idukitzea, zure orde serbitu nizan, Ebanjelioagatik lotua nagoan arteko denboran:

14. Baña ezerere ez det egin nai izan zure borondate gabetanik, zure mesede izan ez zedin, gogorrean egin bezelakoa, baizik borondatezkoa.

15. Noaski berak utzi zaitu denboratsu batean, artu zenezan betiko;

16. Ez onezkero mendeko bat bezela, baizik etorri dana bezela izatera, bataioaren bitartez, len mendekoa zana, anai txit maite bat, berariaz





nerea, baña zenbat geiago zurea, bada munduaren araura ta Jaunaren araura, zuri dagokizu?

17. Orain bada, zure lagun maitea bezela banaukazu, ni nerau bezela artu ezazu.

18. Eta baldin kalteren bat egin badizu; edo zerbait zor badizu, ipiñi ezazu nere kontura.

19. Nik, Pablok, nere eskuz eskribitu dizut; nik pagatuko det, ez zuri esatearren, zu guziori neri zor zatzatala, nik federa ekarri zindudan ezkerro.

20. Alaxe da nere anaia. Artu dezadala nik zugandik gozotasun au Jaunagan. Nere biotzari Jaunaren izenean atsegin au eman zaiozu.

21. Itxedotzen dedala zure obendientzia, eskribitzen dizut, jakinik, esaten dedana baño, oraindik asko geiago egingo dezula.

22. Eta batean, ostatua ere prestatu zadazu, bada itxedotzen det zuen orazioakgatik, itzulia izango natzatzutela.

23. Epafra nerekin batean lotua dagoanak, Jesukristoren amorioz, eskumuñak ematen dizkitzu,

24. Markosekin, Aristarkorekin, Demasekin, eta Lukasekin, zeñak laguntzen didaten.

25. Jesukristo gure Jaunaren grazia zuen espirituarekin izan bedi. Ala izan dedilla.

## SAN PABLO APOSTOLUAREN KARTA HEBREOTARRAI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Jaungoikoak, zeñak beste denbora batean itz egin zien gure asabai era askotara, eta modu askotara profetaen bitartez,

2. Atzenean itz egin digu egun oietan bere semeagan, zeñ jarri zuen gauza guztien primu, zeñen bitartez gizaldiak ere egin zituen;

3. Zeñ izanik, dan bezela, bere gloriako argitasuna, eta bere izatearen irudia, eta irau erazirik guztiari, eta zuzendurik guztia bere itz almentsu bakarrarekin, gu gure bekatuetatik garbituta gero, Jaungoiko guzieldunaren eskuiean dago:

4. Aingeruak baño obeago eginik, zenbat andiagoa dan primuz eta izatez artu zuen izena.

5. Zergatik eze, Aingeruetatik zeñi, beñere esan zion: zu nere semea zera, zu nik gaur sortu zaitut? Eta berriz ere: Ni bere Aita izango naiz, eta bera nere semea izango da?

6. Eta berriz ere, lenbizi sortua munduan sartzean esaten du: Jaungoikoaren Aigeru guztiak adoratu bezate.

7. Baitaere Aingeruak esaten die Eskrituran: Bere Aingeruak Espirituak egiten dituenak, eta bere ministroak gar erazekia bezelakoak.

8. Semeari berriz esaten dio: Zure tronua, o Jaungoikoa, mendez mende iraungo du. Zure erreinuko zetroa, zuzentasuneko zetroa da.

9. Justizia maitatu zenduen, eta gaiztakeriari gorrotoz begiratu ziñion. Argatik, o Jaungoikoa, zure Jaungoiko eta aitak igortzi zinduen bozkariozko olioarekin zure lagunak baño asko geiagooan.

10. Eta beste toki batean: Zu zera, o Jauna, asieran lurra fundatu zenuena, eta zeruak zure eskuen lanak dirade.

11. Berak galduko dirade, zuk berriz iraungo dezu, eta guztiak, soñekoak bezela, zartuko dirade,

12. Eta soñeko bat bezela aldatuko dituzu, eta aldatuak geldituko dira; zu berriz, hura bera zera betiko, eta zure urteak ez dirade beñere aituko.

13. Aingeruetatik zeñi berriz, beñere esan dio: Eseri zaitte nere eskuiean, zure etsaiak zure oñan azpiko aulki eginik jarri ditzadan artean?



14. Berak guziak ez al dira zenbait espiritu, serbitzarien lana egiten dutenak Jaungoikoak bialduak, beren lanak egiteko, salbazioko primuak izan bear duten aien onean?

### BIGARREN KAPITULUA

1. Argatik zaitu bear ditugu gogo andiogoarekin bere aotik aditu ditugun gauzak, zorigaiztoan utsik, eta ezerere gabe gelditu ez gaitzen.

2. Bada baldin Aingeruen bitartez emandako legea sendoa ta indartsua izan bazan, eta bera ausitzeak, eta berari egiten zaion desobediencia guztiak, artu bazuen, diña zan kastigua;

3. Nola iges egingo diogu guk, mezipreziatzen badegu, osasun ain andiko Ebanjelioa? Zeñ asirik Jauna predikatzen, sendotua izan da gero gugarano, aditu zutenen bitartez,

4. Jaungoikoak testigantza ematen ziola siñaleakin, eta gauza arrigarrriakin, eta asko eratako mirariakin, eta Espiritu Santuaren doaiakin, zeñak eman dituen bere borondatearen araura.

5. Zeren etzuen Jaungoikoak jarri Aingeruen mendean geroko mundua, zeñaen gañean itz egiten degun.

6. Baizik toki batean batek eman zuen testigantza, esaten zuela: Zeñ da gizona, zeñarekin ala oroitzen zeran; edo gizonaren semea, alako begirakune ona egin dizaiozun?

7. Egin dezu Aingeruak baño piska bat beeratuagoa; gloriáz eta onraz koroatu dezu, eta zure eskuetako obraen gañean jarri dezu.

8. Gauza guztiak bere oñaen azpian jarri dituzu. Beraz Jaungoikoak gauza guztiak bere mendean jarri baditu, ez du bat ere utzi, bere agindupean jarri gabe. Orain berriz ez degu ikusten, gauza guztiak bere mendean daudela.

9. Baña ikusten degu hura bera, zeñ denbora labur batean egina izandu zan Aingeruak baño beeratuagoa, onezkero gloriáz eta onraz koroatua, irago zuen eriotzagatik, nai izanik Jaungoikoak, grazia utsez gizon guztiakgatik il zedilla.

10. Zeren gauza diña zan, arako Jaungoikoa, zeñaentzat, eta zeñgatik gauza guztiak diran, zuzenduko zituen ezkerre asko seme gloriara, bukatu zezala pasioaren bitartez, beren salbazioaren egillea.

11. Zeren santututzen dituen, eta santutuak diradenak, beren jatorria guztiak batgandik dakarte. Argatik ez da lotsatzen, anaiaen izena ematen, esaten duela:

12. Adiraziko diet zure izena nere anaia. Elizaren erdian zure alabantzak kantatuko ditut.

13. Eta beste toki batean: Nik beragan nere itxedopena jarriko det. Baita ere: Ona emen ni, eta nere seme, Jaungoikoak eman dizkidanak.

14. Eta nola semeak odol bat, eta aragi bat daukaten, bera ere, gauza oien beren partale egin zan, bere eriotzaren bitartez desegitzeko eriotzaren agintaritzaz zeukana, au da, deabrua,

15. Eta libratu, eriotzaren beldurragatik bizitza guztian menpetasunak zematuten zituela zeudenak.

16. Zeren etzuen artu beñere Aingeruen izatea, baizik Abrahamen odola artu zuen.

17. Argatik artu bear zuen gauza guztietan bere anaien irudia, izan zedin Apaizburu urrikaltsu, ta leial bat Jaungoikoaganako, erriaren bekatuen zorra pagatzeko.

18. Eta berak padezitu zuen ezkerre, eta tentatua izan zan ezkerre, berak ere eman lizaieke eskua tentatuak diradenai.

### IRUGARREN KAPITULUA

1. Argatik zuek, nere anaia santuak, zeruko bokazioaren partale zera-tenok, jarri itzatzute, Jesus gure profesioako Apostolu, eta Apaiz nagusia-gan:

2. Zeñ zaion leiala, egin zuenari, nola Moises ere bere etxe guzian izan zan.

3. Begiratu ezazute bada, gloriaren diña izan zala, Moisesena baño anbat andiagoa, zenbat diñade andiagoa daukan etxeak baño, etxea egin zuenak.

4. Zeren etxe guztia norbaitek egin dan; gauza guztiak egin zituena berriz, Jaungoikoa da.

5. Eta Moises egiaz leiala zan bere etxe guztian, serbitzari bat bezela, Jaungoikoak bialdua, adiratzeko erriari, esateko zeukan guztia.

6. Baña Kristo ikusten utzi da, semea bere etxean bezela: etxe au gu gera; baldin atzenaño ustebete sendo bat beragan eta gloriaren itxedopena badauzkagu.

7. Argatik Espiritu Santuak esaten duen bezela: Gaur bere boza adituko bazenezate,

8. Ez itzatzute gogortu zuen biotzak, gertatu zan bezela erria zegoanean eremuan, kontradikzioa eta murmurazioa deitzen zaion tokian;

9. Non zuen gurasoak tentatu ninduten: nere eskubidea probatu nai zutelá; eta non, nik egin nituen obra andiak ikusi zituzten.



10. Nik erabili nuen erri hura pena eta atsekabeetan berrogei urtean, eta nere artean esan nuen: Erri onek bere biotzeko errakuntzai beti jarraitzen die. Berak ez ditu nere bideak ezagutzen,

11. Eta ala, aserretuta, juramentu egin det, nere atsedeneko tokian beñere ez diradela sartuko.

12. Begiratu ezazute bada, nere anaiak, ez dedilla egon zuetatikoren bategan ere biotzik sinisgogortasunarekin gaiztoturik, Jaungoiko bizia utzitzeroaño:

13. Baizik elkar kontuan jarri ezazute egun guztietan, gaur izena duen egunak irautzen duen artean, zuetatikoren batere allegatu ez dedin gogortzera, bekatuaren ziri engañakorrarekin.

14. Gatozan ezker Kristoren partale izatera, iraun erazitzen badiogu atzeneraño, beñere galdu gabe, guban ipiñi duen, bere izate berriaren asierari.

15. Esaten diguten bitartean: Baldin gaur aditzen badezute bere boza, ez itzatzute gogortu zuen biotzak, Israeltarrak aup artako denboran egin zuten bezela.

16. Bada aditu zutenetatik zenbaitek, Jaunari aserretu erazi zioten, ez baziran ere Moisesen bitartez Egiptotik irten ziran guzti aiek.

17. Baña, zeñtzen kontra egon zan Jauna aserretua berrogei urtean? Ez al zan izan bekatu egin zutenen kontra, zeñaen gorputz illak eremuan etzinik gelditu ziran?

18. Eta, zeñai juramentu egin zien, etziradela beñere sartuko bere atsedenean, sinisgogorrek izan ziradenai baizik?

19. Egiaz ikusten degu ezin sartu al izan ziradela sinisgogortasunagatik.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Beldur izan gaitzen bada, gure artean bat edo bat egongo dala, ez jakona utziko sartzen Jaungoikoaren atsedenean, ezkeñtza mezpreziatu zuelako;

2. Guri ere aiei bezela adirazi zizagun ezker; baña aiei etzien balio aditu zuten itzak, aditu zutenen fedearrekin lagunduta joan etzalako.

3. Kontrara, gu, sinistu degunok, atsedenean sartuko gera, esan zue-naren araura: Alakoa da nere aserreen egin nuen juramentua, beñere ez dirade nere atsedenean sartuko; eta da, Jaungoikoa bizi dan atsedena, mundua egin zuenetik bere obrak bukatuta.

4. Zeren toki batean, zazpigarren egunagatik onela itz egin zuen: Eta Jaungoikoak zazpigarren egunean, bere obra guztietatik atsedean zuen.

5. Eta onetan esaten du: Beñere ez dirade nere atsedenean sartuko.

6. Baña nola oraindikan badiraden zenbait, an sartu gabe daudenak; eta aurrena berri ona adirazia izan zatenak, beren sinisgogortasunagatik etziran sartu.

7. Argatik, berriz izendatzen du egun bat, eta da Gaur, esaten duela, anbeste denbora iragota, Dabiden aoz, goian esan zan bezela: Gaur bere boza aditzen badezute, ez itzatzute zuen biotzak gogortu.

8. Zeren baldin Josek eman balie, beñere gero beste egunen gañean etzuen itzik egingu.

9. Beraz, oraindik badago geroago atsedean txit andi bat, Jaungoikoaren erriarentzat.

10. Ala atsedean onetan sartu danak, bere obra guztietatik atsedean du, Jaungoikoak bereetatik bezela.

11. Agudo ibilli gaitzen bada, atsedean artan sartzeko, len aitatu dan sinisgogortasuneko ejenpluari, iñork ere ez dizaion jarraitu.

12. Jaungoikoaren itza dan ezker bizia eta eragillea, eta ao biko edozeñ ezpata baño obekiago sartzen dana, eta sartzen dana, eta eltzen dana, animaren, eta espirituaren izurretarano; gorputzeko giltz eta muñetarano, eta ezagutzen ditu biotzeko gogorik eta asmaziorik ezkutuenak.

13. Ikusi ez litekean gauzarik ez dago bere aurrean, gauza guztiak daude billosik eta agirian Jaun onen begietan, zeñgatik itz egiten degun.

14. Idukirik bada Apaiznagusitzat Jesus Jaungoikoaren semea, zeñ alleagatu zan zeruko tokirik goratuenerano, eta bere ateak idiki zizkigun, profesatu degun fedean sendo egon gaitzen.

15. Bada ez da alakoa gure Apaiznagusia, ez ditekeana urrikaldu gure eritasunakin, berak beragan irago zituen ezker tentazio guztiak, eta argaltasunak, bekatu ez, baña bai beste guztiak, gurekin zeukan irudiagatik gizon izatean.

16. Allegatu gaitzen bada, itxedopen sendo batekin graziako tronura, urrikaltasuna iritxi dezagun eta denbora egokian graziaren laguntasuna arkitu.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Zeren Apaiznagusi guztia, gizonen artetik artuta, gizonen onerako ipintzen da, Jaungoikoa alabatu eta onratzeko gauzaetan; doaiak eta opariak bekatuagatik eskeñi ditzan,

2. Zeñak jakin dezan sufritzen, eta pena artzen ez dakitenagatik, eta uts egiten dutenagatik, zeren bera ere gaitzez ingurutua arkitzen dan,



3. Eta argatik eskeñi bear du doña bekatuakgatik, ez gutxiago bereakgatik, non errikoakgatik.

4. Ez du ere inork diñade au beretu bear, Jaungoikoak ots egina ez bada, Aaron bezela.

5. Ala Kristok ere etzuen arrapatu, Apaiznagusi bera izateko gloria, baizik eman zion esan zionak: Zu nere semea zera, nik zu gaur sortu zaitut.

6. Beste toki batean ere esaten duen bezela: Zu zera Apaiznagusia beti betiko Melkisedeken aginduaren araura.

7. Zeñak bere aragi ilkorraren egunetan, eskeñtzen zituela erreguak eta eskariak, deadar andi eta negar malkoakin, eriotzatik salbatu zezakea-na bere lotsa ta errespetoagatik aditua izan zan.

8. Eta ziertoa da Jaungoikoaren semea bazan ere, ikasi zuen, gizona bezela, padezitu zituen gauzakin obeditzen.

9. Eta ala bukaturik eta sakrifikaturik gurutzean, beragatik etorri ziran, obeditzen dioten guztiak, betiko salbazioa irixtiera.

10. Izanik Jaungoikoak izendatua Apaiznagusitzat Melkisedek-en aginduaren araura.

11. Zeñaen gañean esan giñitzazkizutekegun asko gauza eta andiak; baña dirade gauza batzuek gaitzak adiratzten, zuen nagusitasunagatik eta gogo gutxiagatik aditzeko.

12. Zeren erakusleak izan bear zendutenak, denboragatik, berriz bear dezute, erakutsi dizazkizutela zuei zeñ diran, Jaungoikoaren itzaren lenbiziko asierak; eta alako estadura allegatu zerate, non, ezin eman lezakezute esnea baizik, baña ez janari gogorrik.

13. Baña esnearekin azitzen dana, ez da gai aditzeko justizia oso, eta bukatutako baten izketa, Jaungoikoaren dotrinan aur bat dalako.

14. Berriz janari sendo ta gogorra da, gizon perfekzio andi ta osokoen. Arako gizon, oitura luzeakin dauzkatenak beren espirituko zentzunik ekandutuak jakitean zeñ dan ona, ta zeñ gaiztoa.

### SEIGARREN KAPITULUA

1. Utzi ditzagun aldamen batera, Jesukristogan sinistzen azitzen diradenai ematen zaiezen erakutsiak, eta altxatu gaitzen gauzarik oso, ta goratuenetara, gelditzen ez gerala berriz itz egiten zimenduak jartzen, obra illaen penitziaren gañean, edo Jaungoikoagango fedearen gañean.

2. Eta bataioaren gañeko dorinaren gañean, eskuak buruan jartzearen gañean, illaen biztutze berriaren gañean, eta betiko juizioaren gañean.

3. Eta ona emen, Jaungoikoaren laguntasunarekin, egitera goazena.

4. Zeren ez diteke gertatu, bein argituak izan diradenak, zeruko doia probatu dutenak, Espiritu Santuaren partale egin diradenak,

5. Jaungoikoaren itz santuarekin, eta geroko gizaldiko mirarien itxepenenarekin bazkatu diranak,

6. Eta oien guzioen ondoren, erori diradenak; ez litezke, esaten det, penitziarekin berriztatuak izan, berakgan danez, gurutziltzaten duten ezkerro Jaungoikoaren semea, eta lotsatua izateko agirian jartzen duten.

7. Zeren arako lurak, zeñak artzen duen beragan, maiz bere gañera erortzen dan euria; eta ematen duena belar mesedegarria goldeatzen dutezentzat, Jaungoikoaren bedeikazioa artzen du.

8. Baña ematen dituen arantza eta sasilarrak, da bere jabeak utzia, eta madarikazioa dauka aldean, eta urrean; eta atzenean erre izatera etortzen da.

9. Gañerakoan, nere anaia maiteak, onela itz egiten badizugu ere zuen gañean, eta zuen salbazioaren gañean, iritzi obeagoak dauzkagu.

10. Zeren Jaungoikoa ez da gaiztoa, aztutzeko egin dezutenarekin; eta bere izenari begiratuta erakutsi dezuten karidadearekin, lagundu diezutela, eta laguntzen diezutela santuai.

11. Alaere nai degu, zuetatiko bakoitzak erakutsi dezala, orainartean berotasun santua atzeneraño, bere itxedopena kunplitu dezakeon.

12. Etzaitzeten egin nagiak; baizik arako Aita aurren santu, beren fede ta pazienza luzearekin, zeruko eskeñtzen primuak izatera allegatu diranen imitatzaileak.

13. Argatik Jaungoikoak Abrahami egin zion eskeñtzen, nola etzeukan andiagorik, zeñgatik juramentu egin, beragatik juramentu egin zuen,

14. Bereala esaten zuela: Zaude ziertotzat daukazula, nik bedeikazioz beteko zaitudala; eta txit ugaritasun andiarekin izango dituzula.

15. Eta ala, pazienza andiarekin itxedotzen zuela, eskeñtza iritxi zuen.

16. Ala gizonak juramentu egiten dute, berak baño andiangoak diradenakgatik, eta juramentua da eman al lezaten ziertotasunik andiena, beren ezbaia erabakitzeko.

17. Argatik nai izanik Jaungoikoak erakutsi osotasun andiangoarekin eskeñtzen primuai, bere erabakia aldatu eziña dala, juramentua bitartean jarri zuen.

18. Aldatu ez litezkean bi gauzarekin, eskeñtza eta juramentuarekin, zeñatan ez lezakean Jaungoikoak gezurrik esan, atsedean txit andi bat iduki dezagun, begiratzen diogunok gure igestokiari, eta nai ditugunak iritxi, itxedopenak eskeñtzen dizkigun ondasunak.



19. Zeñak balio dion gure animari, aingura on, eta sendo batek beze-la, beloaren barrenen dagoan santuarioño sartzeko,

20. Non sartu zan Jesus gugatik aurrena, gure aurretiko ibiltaria beze-la, jartzen zala Apaizburu eginik, betiko iraunerako, Melkisedeken aginduaren araura.

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Egiaz Melkisedek Salengo errege au, Jaungoiko txit goratuaren apaiza, da bidera irten zitzaiona Abrahami, itzuli zanean garaipenez betea, lau errege deseginda gero, eta bedeikatu zuena,

2. Zeñi eman ere zion Abrahamek, arrapatu zituen gauza guztien amarrena, zeñaen izenak aurrena, justiziako erregea adirartzen du, gañera zan Salengo erregea, zeñak esan nai duen, pakeko erregea,

3. Iruditua aita gabe, ama gabe, jatorri gabe, ezagutua izan gabe bere egunen asiera, ez bere bizitzaren atzena, baizik izanik au guziagatik Jaungoikoaren semearen irudia, beti apaiz gelditzen da.

4. Begiratu ezazute, zein andia dan au, zeñi Abraham Aitaleenak berak, arrapatutako gauzarik onenaetatik berezitatutako ondasunetatik amarrenak eman ziozkan.

5. Ziertoa dan gauza bat da, Lebiko Tributik apaiztzara eregiak diradenak, legez agintea daukate artzeko erriaren amarrenak, au da, beren anaienak, berok ere, aiek bezela Abrahamen odoletik etorri arren.

6. Baña bere jatorria aien artean ez daukanak, Abrahamen amarrenak artu zituen, eta eskeñtzak artuak zeuzkanari bedeikazioa eman zion.

7. Eta kontraren piskarik ere ez dagoala, gutxiago danak, andiago danagandik bedeikazioa artzen du.

8. Ez da ziertotasun gutxiagoa, emen amarrenak artzen dituztenak, dira iltzen diran gizonak; an berriz esaten dute, bizi dala.

9. Eta (ala esateko) Lebig ere, zeñak amarrenak artzen dituen, paga-tu zituen amarrenak Abrahamen bitartez.

10. Bada oraindik bere Aiton Abrahamgan zegoan, Melkisedek-ek Aitaurren oni bidera irten zizaionean.

11. Eta baldin perfekzioa Lebiren apaiztzagatik ematen bazan (erriak legea bere denboran artu zuen ezker) zer premia zegoan gero, jaiki zedin beste apaiz bat, Melkisedeken ordearen araura izendatua, eta ez Aaronen araura?

12. Zeren aldaturik apaiztza, premiazkoa da legea ere aldatua izan dedilla.

13. Eta gauza oiek esan diradena, beste tribu batekoa da, zeñatatik batek ere etzuen aldarea serbitu.

14. Izanik bada, dan bezela, gauza jakina, Jesukristo gure Jauna Judaren tributik jaio zala, zeñi beñere Moisesek apaiztza etzion itsatsi.

15. Eta au ere oraindikan argiroago erakusten da, ateratzen dan ezker-oro argitara beste apaiz bat Melkisedek-en irudira.

16. Zeñ eгина izan zan, ez aragiaren agintearen legearen araura, baizik bere bizitza illezinaren eskubidez,

17. Eskritura santak adirartzen duen bezela, esaten duela: Zu zera apaiza betiko, Melkisedek-en ordearen araura.

18. Apaiztza bada aldatua gelditzen da, eta argatik lengo agintea desegina, bere argaltasun, eta gaiezatasunagatik,

19. Bada legeak etzuen zuzendu gauzarik batere perfekziora, baña artara zuzentzen duena da itxedopen obeago bat, bere tokian jarria, zeñaen bitartez Jaungoikoagana alderatzen geran.

20. Eta gañera Jesukristo apaiz au, ez da jarria izan juramentu gabe (zeren ziertoro besteak izan ziran jarriak apaizak juramentu gabe;

21. Baña au juramentuarekin izan zan, esan zion huragatik: Jaunak juramentu egin du, eta etzaio damutuko: zu betikoiraunerako apaiza zera.)

22. Argatik aski obeagoa da testamentu hura, zeñgatik Jesus fiatzalle eta bitarteko irten zan.

23. Gañera apaiz aiek asko izan ziran, zeren eriotzak beti irautzea galerazitzen zien.

24. Baña onek, nola beti irautzen duen, apaiztzaren jabe beti da.

25. Emendik dator, beti salbatu ditzakela bere bitartez Jaungoikoaren aurrean jartzen diranak, beti bizirik dagoana bezela gugatik erregututzeko.

26. Egiaz au bezelakoa bear zan izatea gure apaizburua, santua, obenikan gabea, kutsugabea, bekatarietatik berezitua, eta zeruen gañera jaso ta eregia,

27. Zeñak ez daukan premiarik, beste apaizak bezela, eskeñtzeko egunoro doañak, aurrena bere bekatuakgatik, eta gero erriarenakgatik, zeren au bein bakarrik egin zuen, bera eskeñtzen zala.

28. Bada legeak jarri zituen apaiztzat gizon erkiak: baña Jaungoikoaren itz, legea baño geroago egindako juramentuarekin sendotuak, jarri zuen Apaizburutzat, bere seme Jesukristo, beti santua eta onosoa dana.





## ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Itz gutxitan, esan degun guztia sartzen da: Daukagu alako apaizburu bat zeruetan, Jaungoikoaren anditasuneko Tronuaren eskuian eseria dagoana.
2. Eta da, Zeruko Santuario, eta tabernakulo egiazko, Jaunak eta ez gizonak egindakoaren ministroa.
3. Zeren baldin Apaizburu guztia, doaiak eta opariak eskeñtzeko ipiñia badago, premiazko gauza da, onek ere idukitzea zerbait eskeñtzeko.
4. Zeren bera lurraren gañean biziko balitza, apaiz ere etzan izango, egonik jarririk onetarako Lebiko Tribuko semeak, zeñak legearen araura doañak eskeñtzen dituzten.
5. Eta serbitzen dute zeruko gauzaen irudi eta itzala. Moisesi erantzuna izan zitzaion bezela, tabernakuloa egitera zijoanean. Begira, (esan zion Jaungoikoak) guztia egin ezazu, mendian erakutsi zazun irudiaren araura.
6. Baña gure Apaizburu Jesukristok, iritxi du langintza bat anbat argitsuagoa, testamenu estimagarriago baten bitartekoa dalako, zeñ eskeñtza obeago batzuekin ipiñia izan zan.
7. Bada baldin lenbiziko hura, uts gabekoa izan balitza, iñolaere etzan billatuko bigarrenaren tokia.
8. Alaere errierta egiten diela anziñako legearen ausleai, esaten du: Ona non etorriko diran egunak, esaten du Jaunak, emango diedana Israelko etxeari, ta Judako etxeari testamentu berri bat;
9. Ez beren gurasoakin egin nuen testamentua bezelakoa, eskutik bezela artu nituenean, Egiptoko lurretik ateratzeko, zeren berak etzuten iraun nere testamentuan, eta nik mezpreziatu nituen, esaten du Jaunak.
10. Prestatuko dedan testamentua, esaten du Jaunak, Israelko etxerako, egun aiek iragota, au da; itsatsiko ditut nere legeak beren adimenetan, eta beren biotzen gañean eskribituko ditut, eta ni beren Jaungoikoa izango naiz, eta berak nere erria izango dira.
11. Onezkero ez da bearko, bakoitzak bere projimuari, eta bere anaia-ri erakutsi dizaiola, esaten diola: Ezagutu ezazu Jauna, zeren fedearen argutasunarekin, guztiak ezagutuko naute, beretatik txikienetik nagusienaraño.
12. Zeren nik beren gaiztakeriak barkatuko diozkadan, eta beren bekatuakin ez naiz berriz oroituko.
13. Testamentu oni berriaren izena emanik, anziñakotzat eman zuen lenbizikoa. Orain bada anziñakotzat, eta zartzat ematen dana, bere bukarearen aldean dago.

## BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Egja da lenbiziko testamentuak iduki zituela Jaungoikoaren adora-zioko zuzenbideak, eta lurreko santuario bat.
2. Zeren egin zan lenbiziko tabernakulo bat, zeñatan zeuden kandeleroak, eta maiea, eta proposizioko ogiak, eta aldamen, au da, Santua ots egiten zaiona.
3. Jarraitzen zion bigarren beloaren ostean Tabernakuloaren aldamenek, zeñi Txit Santua, edo santuen santua ots egiten zaion,
4. Zeukala urrezko inzenionarioa eta testamentuko kutxa, aldamen guzietatik urrez estalia, eta an gordetzen zan urrezko ontzia, zeñatan zeuden mana ata Aaronen zigor, loretu zana, eta elkartasuneko olak.
5. Eta kutxaren gañean zeuden Kerubin, gloriar betak, propiziatorioari itzala egiten ziotela, zeñaen gañean itz egiteko ziatz, ez dan orain denbora.
6. Gauza oiek onela prestaturik; lenbiziko tabernakuloan beti apaizak sartzen ziraden, beren lantegien eginbearrak kunplitzera.
7. Bigarreanean berriz, Apaizburua bakarrik urtean bein, ez eraman gabe odola, zeñ bere ezjakineko utsegiteakgatik, eta erriarenakgatik eskeñtzen zuen:
8. Onela Espiritu Santuak adiraztzen zuela, oraindik etzegoala idikia, egiazko santuarioko sarrera, oraindikan lenbiziko tabernakuloa zutik zegoala:
9. Au guzi au, orain iragotzen danaren irudia zan, eta iragotzen zan denbora artan, eskeñtzen ziran doañ eta oparietan, zeñak etzitzaketen garbitu, Jaungoikoari adorazioa ematen ziotenen anima, zeñ janarietan eta edarietan zegoan,
10. Eta bataio, eta aragizko zirimonia batzuetan, zeñak etziraden ipiñiak izan, legeak emendatua izan bear zuen artean.
11. Baña etorririk gero Kristo Apaiznagusia, geroko ondasunak iritxiko zizkiguna, tabernakulo argitsuago eta perfekzio geiagoko baten bitartez, ez eskuz egina, au da, ez gurearen irudira egina;
12. Eta agertzen zala, ez akarren, ez idiskoaren odolarekin, baizik bere odolarekin, sartu zan bein bakarrik betiko zeruko santuarioan, gizatunaretzat betiko erredenzio bat arkitzen zuela.
13. Zeren baldin akarren, eta zezenen odolak, eta txalen auts kutsutuen gañean zabalduak, aragia garbitzeko, santutuzen baditu,
14. Zenbat geiago Jesukristoren odolak, zeñ Espiritu Santuaren argitasunez eskeñi zitzaion, bera orbanik gabea Jaungoikoari, garbituko ditu





gure konzienziak, bekatuena obra illaetatik, Jaungoiko biziari adorazio egiazkoa emateko?

15. Eta argatik Jesus testamentu berriko bitartekoa da, bere eriotzaren bitartez, garbitzeko lenbiziko testamentuko denboran egindako gaiztakeriak ere, artu dezaten betiko herentzia, Jaungoikoak ots egin dienai eskeña.

16. Zeren testamentua dagoan tokian, testamentugillearen eriotza egiztatzea bearra da.

17. Bada testamentuak ez dauka indarrak, testamentugillearen eriotzarekin baizik. Bestela ez du balio, testamentugillea bizi dan artean.

18. Argatik lenbiziko testamentua ere etzan izan odol gabe dedikatua.

19. Zeren irakurririk Moisesek erri guztiari legeko agindu guztiak, arturik idiskoien eta akerren odola, urarekin nastua, eta lana suteoarekin ganbusia, eta hisopoa; intzatu zuen legeko liburua baita erri guztia ere,

20. Esaten zuela: Au da odola, zeñak serbituko duen, Jaungoikoak zuen alde agindu duen testamentuaren sillutzat.

21. Eta orobat, tabernakulua eta lantegiko ontzi guztiak, eta tresna ta trasteak.

22. Eta legearen araura, gauzarik geienak, eta esaterako guztiak odolarekin garbitzen dirade; eta odol isuritze gabe, ez da barkaziorik izaten.

23. Gauza premiazkoa zan bada, zeruko gauzaen irudiak, onela garbituak izan zitezela; zeruko gauzak berak berriz, oiek baño doña obeagoakin.

24. Zeren etzan Jesus sartu, gizonen eskuz egindako santuarioan, zeñ zan egiazkoaren irudia, baizik zeruan bertan sartu zan, gugatik orain Jaungoikoaren aurrean jartzeko.

25. Eta ez maiz bera eskeñtzeko, sartzan dan bezela Apaizburua urtetik urtera Santuen Santuan besteren odolean,

26. Bestela munduaren asieratik, maiz padezitu bearko zuen: orain berriz, bein bakarrik gizaldi guztietan agertu zan desegiteko bekaturia, bere eskeñzarekin.

27. Eta nola erabakia dagoan gizonentzat bein bakarrik iltzea, eta gero juzgatuak izatea,

28. Ala Kristo ere, bein bakarrik izan da eskeña askoren bekaturia kentzeko, eta berriz beste bein agertuko da, ez besteen bekatuena zorra pagatzera, baizik fede biziarekin itxeditzen dutenai, betiko salbazioa ematera.

## AMARGARREN KAPITULUA

1. Zeren ez idukirik legeak geroko ondasunen itzala baizik, eta ez gauzaen izatea; ez ditzake beñere doañen beren bitartez, zeñak urteoro aspertu gabe eskeñtzen diran, justoak eta onosoak egin, aldarera alderatu, eta doñak eskeñtzen dituztenak,

2. Bestela geldituko zan onezkero eskeñtzea, zeren sakrifikatzaileak, bein garbituak izan ezkeru, etzuten bekatuaren kezkarik idukiko.

3. Alaere urteororo berak eskeñtzen diranean, bekatuaren oroipena egiten da,

4. Zeren berez ez ditekean gauza da, zezenen, eta akerren odolarekin, bekaturia kentzea.

5. Argatik Jaungoikoaren semeak munduan sartzean, bere Aita betikoari esaten dio: Zuk ez dezu nai izan doñak, ez eskeñtzarik, baña neri gorputz ilkor bat neretu didazu.

6. Holokaustoak bekaturiatik etziraden izan zure gogokoak.

7. Orduan esan nuen: Ona emen non natorren, nigatik liburuaren asieran eskribitua dagoan bezela, o Jaungoikoa, zure borondatea kunplitzeko!

8. Orain bada, goian esaten duela: Zuk ez dituzu nai izan, ez dira izan zure gogokoak eskeñtzak, eta holokaustoak bektuagatik; gauza batzuek legearen araura eskeñtzen diranak:

9. Eta gañera esaten zuela: Ona emen non natorren, nere Jaungoikoa! Zure borondatea egiteko. Gauza argia da, kendu zituela atzeneko eskeñtza oiek, beste bat jartzeko, zeñ dan bere gorputzarena.

10. Borondate augatik bada, santutuak gera Jesukristoren gorputzaren eskeñtza, bein bakarrik eginagatik.

11. Eta ala anziñako legeko apaiza, prestaturia badago ere egunoro, goiz ta arratsalde bere lanean aritzeko, eta maiz eskeñtzera doñ batzuek berak, zeñak beñere ez ditzaken bekaturia kendu.

12. Gure Apaizburu au, bekaturiatik eskeñtza bakar bat eginda gero, Jaungoikoaren eskuian betiko eseria dago,

13. Bitartean itxeditzen duela, oraindik ikusteko dagoana, au da, bere etsaiak bere oñen aulkitzat jarriak izan ditezela.

14. Zeren eskeñtza bakar batekin, egin zituen osoz onak betiko, santutu zituenak.

15. Testigantza ori berori ematen digu Espiritu Santuak. Zeren itz oiek esanda gero,



16. Ona emen, nik berakin egingo dedan elkartasuna, esaten du Jaunak: Egun aiek iragotzen diradenean, tinkatuko ditut nere legeak beren biotzetan, eta beren animen gañean eskribituko ditut.

17. Eta bereala gañera esaten du: Eta onezkero ez naiz beren bekatuakin, ez beren gaiztakeriakin oroituko.

18. Bekatuak bada, barkatuak gelditzen diradenean, ez da onezkero bekatuagatik doañik bearke.

19. Oiek ala izanik, nere anaiak, idukirik itxedopen sendo bat Sankta Sanktorunean kristoren odolagatik,

20. Zeñarekin idiki zigun bide berria, eta bizitza, sartzeko belotik, au da, bere aragitik,

21. Idukirik ere Apaizburu Jesukristo, Jaungoikoaren etxearen gañean jarria.

22. Allegatu gaitzen beragana biotz zintzoarekin, fede betearekin, garbiturik biotzak konziencia gaiztoaren zikinkerietatik, eta garbiturik gorpuztean bateoko ur garbiarekin.

23. Iduki dezagun sendo, aitortu degun itxedopena (zeren leiala dan eskeñtza egin duena).

24. Eta jarri ditzagun begiak batzuek besteakgan, karidade eta obra onetara elkar mugitzeko,

25. Utzi gabe gure batzarrea, batzuen oitura dan bezela, baizik kontrara, alaitzen degula batak bestea, eta anbat geiago, zenbat alderago eguna ikusten dezuten.

26. Zeren bekatu egiten badegu jakiñaren gañera, egia ezagututa gero, onezkero ez zaigu gelditzen doañik bekatuakgatik eskeñtzeko,

27. Baizik juizioaren, eta Jaungoikoaren etsaiak iretsiko dituen su erretzallearen zai egon bearra, beldurrez izaturik.

28. Ausitzen badu batek Moisesen legea, eta idolatra egiten bada, bi testigu, edo irurekin probatzen bazaio; nai ta ez, eriotzara kondenatua da.

29. Orain bada, zenbat pena andiagoen diña izango ez da, Jaungoikoaren semea oñazpian darabillana, eta gauza zatartzat idukiko balu testamentuko odola, zeñaen bitartez, bera santutua izan zan, eta Espiritu Santu graziaren emallea irainduko balu?

30. Ongi bada, ezagutzen degu zein dan esan zuena: Neretzat gordea dago bengantzta, eta ni naiz artuko duena. Baitaere: Jaunak bere erria juzgatuko du.

31. Gauza izugarria da Jaungoiko biziaren eskuetan erortzea.

32. Oroitu zaitetze arako anziñako egunakin, argituak izanda gero, sufritu zendutenean persekuzioen guda txit andi bat.

33. Aldamen batetik, munduarentzat farragarri eginik lotsari ta atsekabeakgatik; bestetik alako bidegabetasunak iragotzen zituztenen penaeen partale egiten ziñatela.

34. Zergatik eze, kateetan zeudenen urrikaltasuna iduki zenduten, oroitzen ziñatela gordeak zeudela zuentzat ondasun ugariagoak, eta iraunkorragoak.

35. Ez ezazute bada alperrikan galdu zuen itxedopena, zeñaentzat sari andi bat gordea dagoan.

36. Zeren pazienza zuentzat premiazkoa dan, Jaungoikoaren borondatea eginik, eskeñi zazutena iritxi dezazuten.

37. Zeren denbora txit labur batean, esaten du Jaungoikoak, etorriko da, etorriko dan hura, eta etzaio luzatuko.

38. Bitartean nere Justoa, esaten du gañera Jaunak, fedez biziko da, baña iges egiten badu, ez da nere animaren gogokoa izango.

39. Baña gu, nere anaiak, ez gera fedetik iges egiten dutenen semeetatikoak, galduak izateko; baizik leial, eta sendoetatikoak, toki seguruan anima jartzeko, eta beretzat betiko gloria iritxitzeko.

## AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Da bada fedea, itxedotzen diraden gauzaen fundamentua; eta ikusten ez diraden gauzaen berria.

2. Ala beragatik anziñako justoak, alabantzaren testigantzaren diñak, Jaungoikoaren aldamentetik izan ziran.

3. Fedea da erakusten diguna, mundu guztia Jaunaren itzaz egin izan zala; eta ikusi ezina izanik, ikusiala egin izan zala.

4. Fedea da, zeñarekin Abelek eskeñi zion Jaungoikoari doañ bat Kainena baño ederragoa, eta justotzat emana izan zan, Jaungoikoak berak testigantza ematen ziola, bere eskeñiak ontzat artzen zituela, eta fedeagatik illa zegoala ere itz egiten du.

5. Fedegatik aldatua izan zan Henok mundu onetatik il etzedin, eta etzan berriz ikusia izan, Jaungoikoak eraman zuelako beste, iñork ere ez dakian toki batera, baña eramana izan baño lenago, euki zuen testigantza, nola izan zan Jaungoikoaren gogokoa.

6. Bada, federikan gabe, ez diteke Jaungoikoaren gogokoa izan, zeren Jaungoikoagana allegatzen danak, sinistu bear du, badala Jaungoikoa, eta bera billatzen dutenen sariemallea dala.

7. Fedegatik, kontuan ipiñirik Noe Jaungoikoak, oraindik ikusten etziraden gauzaen gañean, beldur santu batekin zijoan kutxa eginaz bere



familiaren salbaziorako; eta egiten zuela, mundua kondenuatu zuen, eta federekin irabazten dan justiziako primu egin izan zan.

8. Fedegatik, Jaunagandik artu zuenak Abrahamen izena, Jaungoikoari obeditu zion, irtenik, herentziaz artu bear zuen errirontz, eta bidean jarri zan, nora zijoan etziakiela.

9. Fedegatik bizi izan zan, eskeñia izan zitzaion lurrean, erri arrotzetan bezela iragotzen zutela bizia kanpo etxetxoetan, egin ere zuten bezela Isaak, eta Jakobek, eskeñtza beraren primu lagunak bezela.

10. Zeren itxedotzen zuen zimendu sendoak zeuzkan erri artan: zeñäen asmatzalea ta egillea Jaungoikoa bera zan.

11. Fedearen bitartez ere Sarak berak soilla izanik, seme batez aurdun gelditzeko bertutea artu zuen, onezkero edade iragoa izan arren, zeren sinistu zuen, leiala zala eskeñtza egin ziona.

12. Argatik gizon bat bakarragandik (eta ori iltzeko zorian zegoana, bere zartza andiagatik) irten zan jatorri bat, alako moduan ugaria, nola zeruko izarrak; eta itsaz bazterrean dauden, kontatu ezin adina ondar bezela.

13. Santu guzti oiek etorri ziran iltzera, beti sendo beren fedean, eskeñiak izan zizaiezten ondasunak artu gabe, aspertzen ziradela, berai urrutitikan begiratzearekin, eta agur eginarekin; denbora artan, lurraren gañean arrotzak eta bideanteak nola ziraden aitortzen zutela.

14. Egiaz onela itz egiten dutenak, ongi adirartzen dute, beren erriaren billan dabilzala.

15. Eta baldin oroitzen baziran beren erriarekin, nondik irten ziran, ziertoro bazeukaten denbora bertara itzultzeko.

16. Beraz gauza argia da, beste oba bat billatzen zutela, au da, zerukoa. Argatik ez da Jaungoikoa lotsatzen, aien Jaungoikoaren izena bere buruari ematen, zeren berentzat erria prestatua zeukan.

17. Fedegatik Abrahamek, Jaungoikoak bere leialtasuna probatu zuenean, Isaak eskeñi zuen, eta eskeñtzak artu zituenak berak, eskeñtzen zuen bere seme bakarra,

18. Esana izan bazaion ere: Isaakgandik irtengo da, zure izena eramango duen jatorria.

19. Baña gogoratzen zuen bere barrenen, Jaungoikoak illda gero ere, biztu zezakeala. Argatik artu zuen beste gauza baten irudia bezela.

20. Fedegatik ere Isaak-ek bedeikatu zituen Jakob, eta Esau, bere benedizioa fundatzen zuela, anaia biai gertatuko zitzaiezten gauzaen gañean.

21. Fedegatik Jakob, iltzeko zorian zegoanak, bedeikatu zituen Joseren semeetatik bakoitza, eta Josek zeraman gobernuko zigorra adoratu zuen.

22. Fedegatik Josek, iltzen zanean, Israelko semeen Ejiptotik irteera aitatu zuen, eta bere ezurrakin zer egingo zan erabaki zuen.

23. Fedegatik Moises jaio zanean, bere gurasoak ezkutatu zuten, iru illabetean, zeren ikusi zuten bere aursemea txid ederra zala; eta ala etzizaden erregearen aginduaren beldur izan.

24. Fedegatik Moisesek, andia zala, bera zala Faraonen alabaren semea, ukatu zuen,

25. Aututzen zuela, lenago izatea atsekabetua Jaungoikoaren erriarekin, bekatuaren atsegin iragokorretan gozatua izatea baño,

26. Uste izanik, Jesukristoren lotsaria zala tesoro andiagoa, Ejiptoko aberastasun guztiak baño, zeren bere begiak ordañean jartzen zituen.

27. Fedegatik Ejipto utzi zuen, erregearen aserrearen beldurrian gabe, zeren ikusten ez danagan, onezkero ikusiko balu bezela, itxedopen sendo bat iduki zuen.

28. Fedegatik Pazkoa zelebratu zuen, eta bildotsaren odolarekin egin zuen intzatzeta hura, bereai ukiturik egin etzitzaien Aingeru ondartzaleak, zeñ, Ejiptoko seme lenbisisortuak illaz zijoan.

29. Fedegatik irago zuten itsaso gorria, lur legorra bezela, eta au probatzera zijoazela ijitoak ondatuak izan ziran.

30. Fedegatik Jerikoko murrak erori ziran, beste gauza gabe, baizik egitea jira bat zazpi egunean beren inguruan.

31. Fedegatik Rahab emakume galotsa etzan galdu beste erriar fedegogorrekoakin, Josek bialdu zituen aztertzaileai ostatua eman, ta berak gorde zituelako.

32. Eta zer geiago esango dit oraindikan? Denbora aituko zat, adirartzera banoa Jedeonen, Barak-en, Sansonen, Jepteren, Dariaen, Samueleen egitadak,

33. Zeñak fedegatik garaitu zituzten erreñuak, egin zuten justizia, iritxi zituzten eskeñtzak; hoi en aoak tapatu zituzten,

34. Suaren bizitasuna itzali zuten; ezpataren puntatik iges egin zuten, eritasun andiak sendatu zituzten; gerran sendo, errutsu ta azkarrak egin ziran, guraditegi ta ejerzitu arrotzak desegin zituzten.

35. Baziraden emakumeak, artu zituztenak bizirik beren seme illak. Beste batzuek berriz, arat egon ziran oñazkaian, etzutela nai zaitu emenon bizitza, biztze berrian beste oba bat idukitzearren.



36. Beste batzuek berriz sufritu zituzten lotsariak, eta azoteak: gañera kateak, eta karzelak:

37. Egin zien arrika, izan ziran serratuak, tentatuak, illak ezpataren puntaz; ibilli ziran jiran batetik bestera; ardi ta auntsen larruakin estaliak, iñoren laguntasun jebe, atsekabetuak, gaizki tratatuak.

38. Zeñaen diña mundu etzan, zebiltzan galduak bakartadeetatik, eta kobaetan, eta lurruspetan etzaten ziran.

39. Alaere santu guzi oiek, ain alabagarriak beren fedearen testigantzagatik, eskeñiaren frutu guztia etzuten artu,

40. Erabaki duen ezkerro Jaungoikoak, guri egin digun berarizko mesede batgatik, etzatela artu, gurekin batean baizik, gorputzean eta animan beren zorientasunaren betetasuna.

### AMABIGARREN KAPITULUA

1. Arkitzen geran ezkerro bada testiguen odei andi batekin inguruturik, utzirik bekaturen zama guztia, eta urraturik bekatuaren lazoak, zeñakin gauzkan lotuak, joan gaitezen korrika ta sendo, aurrean jarri zitzaun atzen eta itura.

2. Jarririk beti begiak Jesusgan, fedearen egille, ta bukatzalleagan, zeñak jarririk begien aurrean, glorian beretzat prestatua zegoan gozotasuna, sufritu zuen gurutzea, lotsaria mezpreziaturik, eta ordañtat Jaungoikoaren tronuaren eskuian eseria dago.

3. Erabilli ezazute bada arretaz zuen gogoetan, Jaun ark bekatarien aldamenetik bere kontra sufritu zuen alako kontradikzioa, desalaitu etzaitzen, zuen gogo biziak gudarako galtzen dituzutela.

4. Bada oraindik etzerate aurkeztu, odola isuritzeraño Jesukristo bezela, bekatuaren kontra gudan ari zeratela,

5. Baizik aztu zerate onezkerro, Jaungoikoak zuzentzen dizkizuten gozotasuneko itzak, semeai bezela Eskrituran esaten duela: Ene semea, Jaunaren korrekzioa ez ezazu mezpreziatu, eta etzaitze ere desalaitu erriertan egiten dizunean.

6. Zeren Jaunak, maitatzen duena, kastigatzen du: eta bere semetzat artzen duen guztia, azotatzen du.

7. Sufritu bada korrekzioa. Jaungoikoa, zuekin, semeakin bezela portatzen da. Zeren, zeñ da semea, bere aitak kastigatzen ez duena?

8. Baldin bazaudete korrekziorikan gabe, zeñaen partale diran justo guztiak, ongi ikusten da ixillumeak zeratela, ta ez ezkontzakoak.

9. Bestetik berriz, iduki bagiñituen aragiaren aldameneko gurasoak, kastigatzen ginduztenak; eta alaere errespetatu eta maitatzen bagiñituen;

aski justoago ez al da, obeditu dizaiogula espirituen Aitari, betiko bizitza iritxi dezagun?

10. Eta egiaz, aiek egun gutxi batzuetarako kastigatzen ginduen, beren guraen aaura, baña onek erakutsiak ematen dizkigu, santuak egiteko serbitzen diguten gauzaetan.

11. Gauza ziertoa da, kastigu guztiak ez dakartela berarekin orain bein gozotasunik, baizik atsekabea, baña gero emango ditu, berarekin landuak diradenakgan, justiziako frutu txit eztsuak.

12. Argatik, berriz jaso itzatzute zuen esku eroriak, eta zuen belaun erkituak, sendotu itzatzute.

13. Eta pausu sendo ta alaituarekin bide zuzenetik joan zaitezte, norbait fedean urrunago ibillita, beragatik alde egiten duela bidegabeta gel-ditu ez dedin, baizik sendotu.

14. Egin itzatzute aleginak, guziakin pakean egoteko, eta idukitzeko bizitzako santutasuna, zeñ gabe Jaungoikoa iñork ere ez dezake ikusi.

15. Begiraturik iñork ere Jaungoikoaren graziatik ez dezala alderik egin, mingoiztasuneko sustrai batek ere irtetzen duela kanpora, eta bere besangak zabaldurik, ito dezala azi ona, eta sustrai artatik asko izurrutu ditezela.

16. Iñor ere ez bedi fornikaria izan; eta ez ere beste gauzaen alperrik saltzalea Esau bezela, zeren katillu bat bete janarigatik, lenbisisortutasuna saldu zuen.

17. Jakin ezazute bada, gero alegin guziak egin bazituen ere, bendizioko primu izateko, aurtikia izan zala, ezin egin zuela, bere aitak bein egina, aldatu zezala, negar malko jarioan eskatu bazion ere.

18. Gañera, etzerate zuek alderatuko lurreko mendi andira, su erazekira, aize bunbadara, eta odei beltzera, eta ekaitzera.

19. Eta tronpeta otsera, eta boz ain izugarriaren dunbotsera, non, aditu zutenak eskatu zuten mesedez etzitzaiela berriz itzik egin, Moisesen bitartez baizik.

20. Bada ezin sufritu zuten esaten zitzaienen gogortasuna. Pisti batez mendiari ukitzen badio, arrika illa izango da.

21. Eta ain ikaragarria zan ikusten zana, non, Moisesek esan zuen: izutua eta beldurtua nago.

22. Baña zuek alderatu zerate Siongo mendira, eta Jaungoiko biziaren errira, Jerusalem zerukora, millakada asko aingeruen korura.

23. Lenbisisortuen Elizara, zeñak zeruan eskribituak dauden, eta Jaungoiko, guztien juezagana, eta justo perfektioen espirituakgana.



24. Eta Jesus elkartasun berriaren bitartekoagana, eta odol aren intzatzegana, zeñak Abelenak baño obekiago itz egiten duen.

25. Begiratu ezazute ez dezazutela aurtiki, itz egiten dizutena. Zeren ez bazioten kastiguari igesik egin obeditu etzietenak Jaungoikoaren serbitzari Moisesi, zeñak lurraren gañean itz egiten zien, aski geiago kastigatuak izango gera gu, aurtikitzen badegu Jaungoikoaren semea, zeñak zerutik itz egiten digun,

26. Zeñaen bozak orduan lurra dardaratu zuen; baño orain geiago eskeñtzen du, esaten duela: Oraindik beste bein agirian itz egingo dizutet; eta nik mugituko det, ez bakarrik lurra, baita zerua ere.

27. Baña esanaz: Oraindikan aldi batean, adiraztzen du, mugikorrek diraden gauzaen aldakuntza, denboratsu baterako egindako gauzak bezela, mugitu ez litezkenak iraun dezaten.

28. Ala bada guk, nere anaiak, begiratzen diogula bakarrik, mugimendurik batere ez daukan erreñu ari, grazian iraun dezagun, bere bitartez Jaungoikoaren gogokoak izanik, beldur eta erreberenziarekin serbitu dezagun.

29. Bada gure Jaungoikoa, su iretsitzalle bat bezelakoa da.

### AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Zuen anaiakganako karidadeak beti iraun beza.

2. Eta bideante eskaleak ostatzuz artzeaz etzaitzete aztu: bada onela batzuek, jakin ere gabe, Aingeruak ostatzuz artu zituzten.

3. Oroitu zaitzete lotuta daudenakin, zuek ere berakin kartzelan arkituko baziñate bezela: eta atsekabetuakin; zuek ere gorputz erikorretan bizi zeratenak bezela.

4. Izan bedi guztietan, matrimonioa garbia; eta ezta oea orbanik gabea: zeren Jaungoikoak fornikariak eta adulterioigillak kondenatuko ditu.

5. Izan bitez zuen oiturak zikoitzasun gabekoak, oraingoarekin aspertzen zeratela: bada Jaungoikoak berak esaten du: Beñere etzaitut utziko, ez lagundu gabe idukiko.

6. Alako moduan, non, alaikiro esan genezake: Laguntzen didana Jauna da: ez naiz izango, gizonak nere kontra egiten duten gauzaren beldur.

7. Oroitu zaite zuen elizgizon andiak, zeñak Jaungoikoaren itza predikatu dizuten: zeñaen fedeari jarraituko diozuten, beren bizitzaren atzen doatsua gogoan erabiltzen dezutela.

8. Jesukristo atzo zana izango da gaur ere: eta izango da mendez mende.

9. Ez ezazute bada alderik egin bide zuzenetik dotrina desberdin eta arrotzakgatik. Beste guztiak baño geiago balio duena da, Jesukristoren graziarekin biotza sendotzea: ez arako janariakin, zeñak berak bakarrik utsa balio izan zien, berakin itxedopen uts bat zeukatela ibilli ziradenai.

10. Aldare bat daukagu, zeñatatik ez dezaketen jan, tabernakuloa serbitzen dutenak.

11. Zeren arako abereen gorputzak, zeñaen odola apaizburuak santuarioan bekatuakgatik eskeñtzen duen, dirade guztiz erreak etzauntzetatik kanpora.

12. Argatik Jesusek ere, bere odolarekin erria santututzeko, erriko atetik kanpora padezitu zuen.

13. Irten gaitezen bada beragana erritik kanpora, eta jarraitu dizaiegun bere aztarnai, bere lotsariarekin zamatuek gaudela.

14. Ez daukagun ezkerro emen erri aldakorra ez danik, eta ala etortzeko dagoanaren billan goaz.

15. Eskeñi dizaiegun bada Jaungoikoari bere bitartez aspertu gabe alabantzako doan bat, au da, bere izen santua bedeikatzen duten ezpañen frutua.

16. Bitartean berriz etzaitzete aztu mesede egiteaz, eta zuen ondasunak besteenak ere izan bitez: zeren alako eskeñtzakin, Jaungoikoaren borondatea irabaztzen da.

17. Obeditu zaiezute zuen elizetako buruai, eta beren mendean egon zaitzete; berak beillan dauden ezkerro, zuen animen kontua Jaungoikoari eman bearko diotenak bezela, egin dezaten bozkarioarekin, ez penatzen diradela: gauza bat zuentzat mesedegarria ez litekeana izango.

18. Orazioa egin ezazute gugatik: zeren zierto gaude, ezertan ere konzienziak ez gaituala salatzen, gauza guztiak ongi egitea nai gendukeala.

19. Batezere orain erregutuzen dizutet, egin dezazutela, Jaungoikoak zuekgana anbat lasterren itzuli nazan.

20. Eta pakeko Jaungoikoak, zeñak biztu zuen illaen artetik ardiñ artzai andia, Jesukristo gure Jauna, betiko testamentuko odolaren bertute, eta irabaziaren bitartez,

21. Egin zaitzate gauza on guztirako gai; beti bere borondatea egin dezazuten: egiten duela berak zuekgan bere begien gogokoa dana; Jesukristoren irabaziakgatik: zeñi gloria emana izan dizaiola mendez mende. Ala izan dedilla.





22. Orain, nere anaiak, erregututzen dizutet, ontzat eraman dezazutela esan dan guztia, zuei erakutsi onak emateko, eta zuek bozkariotzeko, itz gutxitan eskribitu badizutet ere.

23. Jakin ezazute, gure anaia Timoteo onezkero askatua, eta bere aukeran dagoala: berarekin (aurki badator) zuek ikustera joango naiz.

24. Eskumuñak eman zaiozkazute zuen apaizburu, eta apaizai, eta santu guztiai. Italiako anaiak eskumuñak ematen dizkizute.

25. Zuekin guziokin grazia izan bedi. Ala izan dedilla.

## SANTIAGO APOSTOLUAREN KARTA KATOLIKA

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Santiago, Jaungoikoaren eta Jesukristo gure Jaunaren serbitzariak, erreñuen artean barreiatuak bizi diran kristau fielen amabi tribuai, osasuna.

2. Bozkario guztia daukazutela uste ezazute, nere anaiak, atsekabe askotan erortzen zeratenean.

3. Jakinik zuen fedearen proba pazienziak egiten duela.

4. Eta pazienziak obra osotzen duela: onela etorri zaitezten izatera perfektoak, eta on osoak, ezertan ere utsik egiten ez dezutela.

5. Baña baldin zuetatikoren bat jakinduriaren premian arkitzen bada, Jaungoikoari eskatu bizaio, zeñak guztiai ugari ematen dien, eta ez dio iñori ere itz gaiztorik esaten: eta emana izango zaio.

6. Baña eskatu bizaio fedearekin, dudaren itzalik ere batere gabe: zeren dudan dabillana da, itsaso nastu, eta aizearekin onara ta ara mugituaren bagaren antzekoa.

7. Ala bada onelako gizon batek ez dauka zertan uste izan, Jaungoikoagandik ez asko, ez gutxi artuko duenik.

8. Gogo biko gizona, iraupen gabekoa da bere bide guztietan.

9. Berez jatorri beeratukoa dan anaiak, bere anditasun egiazkoan bere gloria jarri beza.

10. Aberatsak berriz, bere beeratasunean jarri bear du: zeren bera belarraren lorea bezela iragoko dan.

11. Bada nola eguzki beroa irtetzen danean, belarra leortuaz, erortzen dan lorea, eta bere edertasun ikusgarri guztia aitzen dan, ala aberatsa ere bere ibilleretan sikatuko da.

12. Zorionekoa bada, tentazioa pazienziarekin sufritzen duen gizona: zeren ala probatua izanda gero, bizitzako koroa, Jaungoikoak bera maitatzen dutenai eskeñia daukana, artuko duen.

13. Iñork ere, tentatua danean, ez beza esan, Jaungoikoak tentatzen duela: zeren Jaungoikoak ez dezakean iñor ere gaitzera zuzendu: eta ala berak iñor ere ez du tentatzen.

14. Baizik bakoitza da tentatua, bere gurak ekarria, eta balakatua.

15. Gero gura gaiztoak, irago ezkerero nai txarrak idukitzera, bekatu egiten du: zeñak bein bukatu ezkerero, eriotza ekartzen du.





16. Argatik etzaitzete engañatu gai onen gañean, nere anaia txit mai-teak.

17. Emakai balio andiko guztia, eta doan onoso guztia, goitikan dator argitasunen Aitagandik jexitzen dana bezela, zeñgan aldakuntzarik, ez mugimenduaren itzalikan ere ez diteken arkitu.

18. Zeren bere borondatearen nai uts batekin sortu gaitu bere semetzat egiaren itzarekin, Israeltarrak bere obra berrien primiziak bezela izan gaitzen.

19. Eta ala gizon guztia izan bedi presta aditzeko: eta atzerea itz egiteko; eta aserrerako berandukorra.

20. Zeren gizonaren aserrea Jaungoikoaren justiziarekin ez da elkar-tzen.

21. Argatik aurtikitzen dezutela zikinkeria guztia, eta gaiztakeriaren ugaritasuna, artu ezazute otsantasunarekin Jaungoikoaren itza, zeñ izan dan zuekgan itsatsia bezela, eta zeñak zuen animak salbatu ditzakean.

22. Izan zaitzete bada itzaren egingilleak, eta ez aditzalleak bakarrik, zuek zerok engañatzen zeratela.

23. Zeren Jaungoikoaren itza aditu, eta obrakin kunplitzen ez duena, au izango da, gizon baten irudikoa, zeñak ispillu batean bere arpegiari begiratzen dion, nola daukan orban batzuekin zikindua:

24. Eta ez duena besterik egiten, baizik begiratu, eta badijoa, berak kendu gabetanik, eta andikan laizter aztutzen zaio nolakoa dagoan.

25. Baña begiratzen dionak arretaz, Ebanjelioko lege onosoari, zeñ dan aukerako lege, eta beratan irautzen duena, ez dala egiten aztukorra; baizik obraren egillea: au izango da, bere egiteagatik zorionekoa.

26. Baldin iñork uste badu bera ona dala, bere mingaña ezi gabe; baizik berarekin bere biotza engañatzen duela, bere erreljioa utsa ta alperra da.

27. Erreljio garbia, ta orbanikan gabea, Aita Jaungoikoaren aurrean, au da: Bisitazea umezurtzak, eta andre alargunak, eta berai laguntzea, eta gizaldi onetako oitura ustelduak kutsutu gabe egotea.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Nere anaiak, ez ezazute iduki zeñ zeñ danik, gure Jaun gloriatz betetako Jesukristoren fedean.

2. Zeren sartuko balitza zuen batzarrean gizon bat urrezko erraztunarekin, eta soñeko ederrakin; eta sarturik denbora artan beratan beartsu bat soñeko max, eten eta zarrarekin:

3. Ipintzen badituzu begiak soñeko ederrakin datorrenean, eta esaten badiozu: Eseri zaitte zu emen toki on onetan: beartsuari berriz kontrara, esango baziño: Zu an zutik zaude; edo emen nere oñetan eseri zaitte:

4. Ez al dezute zuen artean juzgatzen, eta erabaki gaiztoen juezak ez al zerate egin?

5. Aditu ezazute, nere anaia txit maiteak, ez al da egia Jaungoikoak autu zituela beartsuak mundu onetan, berak egiteko fedean aberatsak, eta bera maitatzen dutenai, eskeña dien erreñuko primuak?

6. Zuek berriz beartsua desonratu dezute. Aberatsak ez al dira estutzen zaituztenak, daukaten eskubideagatik; eta oriek berok ez al dirade, tribunaletara eramaten zaituztenak?

7. Ez al da berak blasfematua Kristoren izen on, zuen gañera ots egina izan zana?

8. Kunplitzen badezute errege lege karidadekoa Eskrituraen araura: Maitatuko dezu zure projimoa zu zerori bezela: ongi egiten dezute.

9. Baña zeñ zeñ dan begiratzen badezute, bekatu egiten dezute, legeak errierta egiten dizutela ausitzen dezutelako.

10. Bada batek lege guztia gorde arren, aginte bat ausitzen badu, beste guztien obendun dator izatera.

11. Zeren esan zuenak: Ez dezu adulterioko bekatuak egingo; esan ere zuen: Ez dezu iñor ilko. Beraz adulteriorik egiten ez badezu ere, iñor iltzen badezu, legearen auslea zera.

12. Ala itz egingo dezute eta obratu, egongo baziñate bezela Ebanjelioko legeak juzgatuak izateko zorian.

13. Zeren urrikaltasun gabeko juizioak itxedotzen dio, urrikaltasunik egin ez duenari: baña urrikaltasuna, juizioko gogortasunari gañetik jartzen zai.

14. Zer balio du, nere anaiak, batek fedea daukala esateak, obrarik ez badauka? Onelako fedea salbatuko al du?

15. Baldin anaia bat, edo arreba bat badaude larrugorrian, eta egunoroko janariaren premian,

16. Zer balio die zuetatiko batek esatea berai: Zoazte ordu onean, berotu zaitzete, eta ase zaitzete, ez badieztezute ematen, gorputzarentzat premiazkoak diraden gauzak?

17. Ala fedea, obrak laguntzen ez badiote, beragan illa dago.

18. Onen gañean norbaitek esan lezake: Zuk fedea daukazu, eta nik obrak daukat: erakutsi zadazu zure fedea obra gabe: bada nik obraetatik nere fedea erakutsiko dizut.



19. Zuk Jaungoiko bat dala sinistzen dezu: ongi egiten dezu: demonioak ere sinistzen dute, eta ikaratzen dirade.

20. Baña nai dezu jakin, o gizon zoroa, nola fedea obra gabe illa dagoan?

21. Abraham gure aita, ez al zan justotua izan obrakgatik, bere seme Isaak aldarearen gañean eskeñi zuenean?

22. Ikusten dezu nola fedea, bere obrari laguntzen zien? Eta nola obrakgatik fedea etorri zan osoa izatera?

23. Onetan kunplitu zan Eskritura, esaten duena: Abrahamek Jaungoikoari sinistu zion, eta justiziatzat itsatsi zitzaion, eta Jaungoikoaren adiskidearen izenarekin ots egin zitzaion.

24. Ikusten dezute nola obrakin justotutzen dan gizona, eta ez fedea-ekin bakarrik?

25. Ala Rahab bordiona ere, ez al zan obrakin justotu mandatariak artzen zituela, eta bialdu beste bide batetik?

26. Gorputza espiritu gabe illa dagoan bezela, ala fedea ere, obra gabe illa dago.

### IRUGARREN KAPITULUA

1. Ez ezazute nai izan zuetatiko askok nere anaiak, erakusletzat egitea, jakinik juizio estuagoa artzen dezutela.

2. Zeren guztiok asko gauzatan beaztopo egiten degu. Baldin norbaitek topo egiten ez badu itzetan: onelakoa gizon on osoa da: eta gorputz guztia bridarekin inguruan erabilli lezakeala.

3. Nola zaldiai bridak aoan sartzen dieztegun, obeditu ditzagun, eta beren gorputzak nai degun tokira eramaten ditugun.

4. Begira nola ontziak ere andiak izan arren, eta aize andiak eramaten baditu ere, lema txiki batekin mugitzen dira toki batetik bestera, pilotok nai duen tokira.

5. Ala mingaña ere gorputzaren zati txiki bat da, bai; baña etortzen da gauza andien jatorria izatera. Begira nola su piska batek, ze baso andiari erazekitzen dion!

6. Mingaña ere su bat da, gaiztakeriako mundu oso bat da. Mingaña da gure gorputzeko zatietatik bat, gorputz guztia kutsututzen duena; eta izanik infernuko suarekin irazekia, irazekitzen du gure jaiotzako kurpilla.

7. Ikusten dana da, pisti mota guzia, egaztiak, sugak, eta beste abere batzuek malsotzen dirala, eta gizonak bezatu dituzte:

8. Baña ez dago gizonik mingaña bezatu dezakeanik: bera da gaitz bat gelditu ez ditekeana, eta pozoi iltzalez betea dago.

9. Berarekin Aita Jaungoiko bedekitzen degu; eta berarekin mada-rikatzen ditugu gizonak, zeñak Jaungoikoaren irudira eginak izan ziran.

10. Ao bat batetik bedekizioa eta mada-rikazioa irtetzen da. Ez dira- de gauzak ala joango, nere anaiak.

11. Iturri batek txurru batetik, ur gozoa, eta ur mingoitza ematen ditu?

12. Edo, al ete litzake, piko batek matsak eman, eta mats aienak piko-ak? Ala iturri gaziak ere ur gozorik ez dezake eman.

13. Zuen artean al dago iñor jakintsutzat idukia, eta ongi ikasia, besteai erakusteko? Erakutsi beza bere izketa onarekin bere biziera, eta jakin- duria bat gozotasunez betea.

14. Baña zelo mingoitz bat, eta erriertako espiritua badaukazute zuen biotzetan: ez daukazute zertan gozatu eta gezurrak egiaren kontra jaso:

15. Bada jakinduria ori ez da goitik jetxitzen dana; baizik jakinduria bat lurrekoa, abereena, eta deabruarena.

16. Zeren non dagoan alako zela, eta erriertako espiritua, an nastea eta gaiztakeria mota guziak daude.

17. Kontrara berriz, goitik jetxitzen dan jakinduria garbia eta lotsaz betea izateaz gañera, da paketsua modu onekoa, esanekoa, onera itsatsia, urrikaltasunez eta obra onen frutu ederrez betea, iñor ere juzgatzen ez duena, eta hipokresia gabea.

18. Eta paketsuak dira, pakean ereitzen dituztenak justizia egiazkoaren frutuak.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Nondik datoz erriertak, eta auziak zuen artean? Ez al da zuen gurari gaiztoetatik, zeñak zuen gorputzeko aragietan gerra egiten duten?

2. Nai dezute, eta ez daukazute: gorrotoz iltzen dezute, eta zeloz zaudete: eta alaere ez ditzakezute zuen gurak iritxi: auzitan ari zerate, erriertan ipintzen dituzute, eta ez dezute ezerere iritxitzen, Jaungoikoari eskatzen ez diozutelako.

3. Eskatzen dezute, eta ez dezute artzen, gaizki eskatzen dezutelako, zuen gura biurriak asetzeko.

4. Anima adultera eta ustelduak, ez al dakizute mundu onetako amorioa, Jaungoikoaren etsaia dala? Munduaren adiskidea izan nai duen guztia bada, Jaungoikoaren etsai egin jartzen da.

5. Uste al dezute alperrik esaten duela Eskriturak: Zuekgan bizi dan Jaungoikoaren Espirituak maitatzen zaituzte, eta zuen ondamuz dago?



6. Baña argatik beragatik, grazia andiagoak ematen diezte ala maitatzen dutenai. Argatik esaten du: Jaungoikoa aurkeztzen zaie urgullutsuai, eta bere grazia, umillai ematen die.

7. Zaudete bada Jaungoikoaren mendean, eta aurkeztu zatzaie deabruari, eta zuekgandik iges egingo du.

8. Alderatu zaitzete Jaungoikoagana eta bera zuekgana alderatuko da. Garbitu itzatzute, o bekataria, zuen eskuak: eta zuek bi borondate dauzkatuztenak, zuen biotzak garbitu itzatzute.

9. Mortifikatu zaitzete, eta negar egin ezazute, eta malkoak bota itzatzute: zuen farra negarrean itzuli bedi, eta zuen bozkarioa tristezan.

10. Umillatu zaitzete Jaunaren aurrean, eta berak goratuko zaitzute.

11. Nere anaiak, ez ezazute elkargatik gaizki itz egin. Anaia batgatik gaizki esaten duenak, edo bere anaia juzgatzen duenak, onelako legeagatik gaizki itz egiten du, eta juzgatzen du legea. Zuk legea juzgatzen badezu, etzera onezkero legearen zaitzallea, baizik bere juez egiten zera.

12. Bat bakarra da lege emallea, eta jueza salbatu dezakeana, eta galdu dezakeana.

13. Zu berriz, zeñ zera projimua juzgatzeko? Ona non zuek zabilzaten esaten dezutela: Gaur edo biar joango gera erri artara, eta an urte betean egongo gera, eta ariko gera saldu erosian, eta irabaziak egingo ditugu.

14. Au esaten dezute zuek, biar zer gertatuko dan ez dakizutenok.

15. Zeren zuen bizitza, zer gauza da? Lurrinkai bat denbora gutxirako agertzen dana, eta aurki estalitzen dana. Esan bearrean: Jaungoikoak nai badu: eta: bizi bagera, au edo bestea egingo degu.

16. Baña orain guztia kontrara, gozatzen ari zerate zuen burutazio alperretan. Alako urgulleria guztia kaltegarria da.

17. Atzenean ezagutzen duenak egin bear duen gauza ona, eta egiten ez duenak, beragatik bekatu egiten du.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Ea bada, o aberatsak, negar egin ezazute, jaso ezazute deadarra, ikusirik zuen gañera etorriko diran zorigaitzak.

2. Zuen aberastasunak ustelduak daude, eta zuen soñekoak, zerrenak janak izan dirade.

3. Zuen urrea, eta zillarra erdoitu dirade: eta menast oien erdoiak, zuen kontra testigantza emango du; eta zuen aragiak, su batek bezela iretsiko ditu. Atzeneko egunetarako, aserrea gordairutuko dezute.

4. Jakin ezazute, zuen uztak ebaki zituzten langilleai, pagatu etziñien ordaña zuen kontra deadarrez ari dala; eta beren deadarra ejerzituena Jaunaren belarrien barrenera sartu da.

5. Zuek lurraren gañean gozotasunetan bizi izan zerate, ta bazkatu zerate, illak izango zeraten egunerako.

6. Zuek kondenatu dezute obengabea, eta il dezute zuei ezertan ere bera aurkeztzen etzatzutela.

7. Baña zuek, o nere anaiak, pazienza iduki ezazute, Jauna etorri arteraño. Begiratu ezazute, nola nekazariak, lurreko frutu baliotsua biltzeko itxedopenarekin itxedotzen duen pazienziarekin. Jaungoikoak bialdu dezan goizeuria, eta belueuria.

8. Zuek ere bada pazienziarekin itxedon ezazute, eta alaitu itzatzute zuen biotzak: zeren Jaunaren etorrera aldean dagoan.

9. Etzaitzete nere anaiak ibilli elkarren kontrako erriertetan, egun ikaragarri onetan kondenatuak izan etzaitzeten. Begiratu ezazute jueza atean dagoala.

10. Artu itzatzute, nere anaiak, pazienziako iruditat gertakari gaiztoetan, eta naigabeetan profetak, zeñak Jaunaren izenean itz egin zuten.

11. Beinikbein zorionekotzat dauzkagu, ala sufritu zutenak. Aditu dezute Joben pazienza, eta ikusi Jaunaren atzena. Alaituak zaudete, zeren Jauna urrikaltsua, eta biotz beraa dan.

12. Beste gauza guztiez gañetik, nere anaiak, ez ezazute juramenturik egin, ez zeruagatik, ez lurragatik, ez beste juramentu motarekin. Baizik zuen izketa izan bedi: Bai, bai: ez, ez, kondenazioan erori etzaitzeten.

13. Bada zuen artean iñor ere triste dagoanik? Orazio egin beza. Poz da? Salmoak kantatu ditzala.

14. Zuen artean eririk norbait al dago? Ots egin bizaie elizako apai-zai, eta beragatik orazio egin bitzate, Jaunaren izenean oleoarekin igortzitzen dutela:

15. Eta fedetik jaiotako orazioak, eria salbatuko du, eta gozatuko du Jaunak; eta bekatuetan badago barkatuko zaiozka.

16. Konfesatu zaiozkazute bada zuen bekatuak batak besteari; eta elkargatik orazio egin ezazute, salbatuak izan zaitzeten: zeren justoaren orazio jarraitu eta iraunkorak aski balio du.

17. Elias zan gizon bat, gu bezela, sentikorra: eta eskatu zuen txit gogotik, ez zezala euririk egin Israelko erriaren gañean; eta iru urtean ta sei illabetean etzuen euririk egin.

18. Gero berriz orazio egin zuen: eta zeruak egin zuen euria; eta lurrak bere frutua eman zuen.



19. Nere anaiak, baldin zuetatikoren batek, egiatik alde egingo balu, eta beste batek ekarriko balu bide egiazkora:

20. Jakin bear du, itzuli erazitzen dionak bekatariari bide galdutik bide zuzenera, bekatarien anima eriotzatik salbatuko duela; eta bere beraren bekatuen taldea estaliko duela.

## SAN PEDRO APOSTOLUAREN LENBIZIKO KARTA

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pedro, Jesukristoren Apostoluak, beren erritik kanpora bizi diraden Juduai, Pontotik, Galaziatik, Kapadoziatik, Asiatik, eta Bitiniatik barreiatuak,

2. Auturik Aita Jaungoikoak lendanaz ikusita daukanaren araura, Espiritu Santuagan santutuak izateko, eta Jesukristori obedezitzeko, eta bere odolarekin intzatuak izateko. Zuen grazia eta pakea ugarituak izan ditezela.

3. Bedeikatua izan dedilla Jaungoikoa, eta Jesukristo gure Jaunaren Aita, zeñak bere urrikaltasun andiagatik, berriz sortu gaituen betiko bizitzako itxedopen bizi batekin, Jesukristoren biztutze berriaren bitartez illaen artetik.

4. Iritxitzeko egunen batean herenzia bat, usteldu ez litekeana, eta zimeldu ez litekeana, zeruetan zuentzat gordea,

5. Zeñak Jaungoikoaren bertuteak zaitzen dituen fedearen bitartez, berai gozatu erazitzeko atzeneko denboretan agertuko dan salbazioan.

6. Au da, gozotasunaren indarrak zuekgandik aterata jarri bear zaituztena; orain denbora piska batean tentazio batzuekin atsekabetuak izan bear bazerate ere.

7. Zuen fedea onela probatua izanik, eta naste guzitik berezituago urrea baño (zeñ suarekin sukatilluan garbitzen dan) alabantzaren, gloria-ren, eta onraren diña arkitu dedin, Jesukristoren etorrera agirian zuek juzgatzera:

8. Zeñ maitatzen dezuten ikusi gabe: zeñgan orain orobat sinistzen dezuten, ikusten ez badezute ere: baño sinistzen dezutela, jostatuko zerate, bozkario ezin esandako, eta gloriaz betetako batekin:

9. Iritxitzen dezutela zuen fedearen ordañtzat, zuen animen osasuna.

10. Zeñ osasunaren gañean anbeste billatu eta susmatu zuten profetak, zeñak lendanaz adirazi zuten, zuekgan egongo zan grazia:

11. Aztertzen zutela noizko, edo zeñ denboratarako aditu erazitzen zien, barrenen zeukaten Kristoren Espirituak: aldeaurrez adirartzen ziez-tenean, Kristok irago zituen oñazeak, eta jarraituko zien gloriak:

12. Zeñak zeruko argitasuna iduki zuten, ez berentzat zuentzat baik- zik profetizatzen zituzten, orain adirazi zatzuten gauzak, Ebanjelioa pre-



dikatu zizutenen bitartez, bialdua izanik zerutik Espiritu Santua, zeñi begiratzeko guraz aingeruak dauden.

13. Argatik ongi prestatuak, eta zuen biotzak oitura onez apaindurik, itxedopen osoa iduki ezazute eskeñtzen zazuten grazian, Jesukristoren agertueraraño.

14. Portatzen zeratela, Jaun onen seme obeditzalleak bezela, eta etzeratela onezkero iruditzen, zuen ezjakineko denborako gura gaiztoakin:

15. Baizik ots egin zizutenaren santutasunaren araura, zuek ere zuen bizitzako gauza guztietan santuak izan zaitezte.

16. Zeren eskribitua dago: Santuak izango zerate, zeren ni santua naiz.

17. Eta baldin ots egiten badiozute aitari bezela, zeñ zeñ dan begiratu gabe, bakoitzaren obraen araura juzgatzen duenari, ibilliko zerate, berrari irainen bat emateko beldurrarekin, zuek bideanteak zeraten denboran.

18. Jakinik izan ziñatela erredimituak zuen izketa alper, zuek zuen gurasoakgandik artu zendutenetik, ez urrarekin, ez zillarrarekin, zeñak galdukorak diraden.

19. Baizik Kristoren odol baliotsuarekin, bildots orbanik gabeko, eta aitzakia gabeko batekin bezela.

20. Lendanaz ezagutua bai, mundua egina izan zan denbora baño lenagotikan, baña agertua atzeneko denboretan zuen amorioz.

21. Zeñak, bere bitartez, Jaungoikoagan sinistzen dezuten; zeñak eriotzatik biztu zuen, eta gloriar bete zuen zuek zuen fedea ere, eta zuen itxedopena jarri ziñitaten Jaungoikoagan.

22. Garbitzen dituzutela bada zuen animak amorioaren obediencia-rekin, anaien amorioarekin, biotz garbi ta tolesgabeko batekin, elkar maitatu ezazute zuen errai guztietatik.

23. Berriz jaino zeraten ezker, ez azi ustelkorretik, baizik usteldu ezindako, Jaungoiko biziaren itzetik, zeñak betikoirau guztian irautzen duen.

24. Zeren aragi guztia belar leorra da; eta bere gloria guztia, belar leorren lorea bezelakoa: leortu zan belarra, eta bere lorea bereala erori zan.

25. Baña Jaunaren itzak beti irautzen du: eta au da Ebanjelioko itz, predikatu zatzutena.

## BIGARREN KAPITULUA

1. Argatik bada, utzitzen dezutela gaiztakeria guztia, eta engaño guztia, eta iruditzeak, eta ondamuak, eta gaizki esate guztiak,

2. Aur jaioberriak bezela iduki itzatzute, esne, engañuaren naste gabeko gura biziak: berarekin osasun eta sendotasunean aziaz joan zaitezten.

3. Noaski probatu dezute ze gozoa dan Jauna!

4. Zeñi itsatsitzen zeratela, arri bizia danari bezela, gizonak berakgandik aurtikia bai, baña Jaungoikoak autua, eta onratua:

5. Zuek ere zerate arri biziaren gisakoak bere gañean jarriak, izanik espirituko etxe bat bezela, apaiz santuen aginte bat bezela, aginte berria, espirituko doañak eskeñtzeko, Jesukristogatik Jaungoikoaren gogokoak izan ditezen.

6. Argatik Eskriturak esaten du: Begiratu ezazute ni noala ipintzera Sionen kantoiko arri nagusia, arri autua eta baliotsua: eta beragan sinistzen duena, ez da lotsatua geldituko.

7. Ala bada zuentzat, sinistzen dezutenentzat, onra da: sinistzen ez dutenentzat berriz, au da etxe egilleak bertan aurtiki zuten arria; eta alaire kantoiko nagusia etorri zan izatera,

8. Beaztopo arria, eta gaitzbideko arria, Ebanjelioko itzean beaztopo egiten dutenentzat, eta Kristogan sinistzen ez dutenentzat, onetarako izendatuak baziraden ere.

9. Zuek berriz kontrara, zerate, jatorri autua, erregezko apaizta, jende santua, erri, gudan irabazia, illuntasunetik bere argi miragarria atera zinduzten aren anditasunak adirartzeko.

10. Zuek len erria ere etziñatenak, eta orain Jaungoikoaren erria zerenak: etzendutenak urrikaltasuna iritxi, eta orain iritxi dezutenak.

11. Argatik nere maiteak, erregutuzten dizutet, arrotzak eta bideanteak zeraten bezela mundu onetan, ez dezazutela iduki aragiaren gura gaizto, animaren kontra gudan ari oi diradenik.

12. Biziera on bat egiten dezutela jentillen artean: zuekgaatik gaizki esaten duten ezker gaizkillatzat zauzkatelako, erabillirik gogoan zuekgan ikusten dituzten obra onak, gloriar bete dezaten Jaungoikoa bisitatuko dituen egunean.

13. Zaudete bada zuen gañean jarriak dauden gizaseme guztien mendean: eta au Jaungoikoari begiratuta: naiz izan dedilla erregea, guztien gañean dagoalako.

14. Naiz izan Gobernatzalleak, berak ipiñiak gaizkillen kastigurako, eta onai alabantza eta ordaña emateko.

15. Bada au da Jaungoikoaren borondatea, obra onak egiten dituzutela, gizon barbullen ezjakinari aoa itxi dizaiozutela:



16. Zuen aukeran zaudetenak bezela, baña ez dezutela estalitzen gaiztakeria aukeraren irudiarekin, baizik Jaungoikoaren serbitzariak bezela.

17. Guztiak onratu itzatzute: maitatu itzatzute anaiak: Jaungoikoaren beldur izan zaitezte, erregea errespetatu ezazute:

18. Zuek serbitzariak egon zaitezte zuen nagusien mendean beldur guztiarekin; ez bakarrik nagusiak diranean onak, eta biguñak, naiz gogorak eta aserrekorrak.

19. Zeren irabazia dago, sufritzean batek, ikusten duen Jaungoikoari begiratuta, diña ez dan penak.

20. Zeren, ze alabantzaren diña zera sufritzen dituzunean zure bekatuagatik ematen dizkizuten kastiguak? Baña obra onak egiten dituzula, sufritzen badituzu pazienziarekin egiten dizkizuten bidegabeak; orretan dago Jaungoikoaren aurrerako irabazia.

21. Zeren onetarako ots egina izan ziñan Jaungoikoaren semeen diñadera: Kristo gure buruak ere gugatik padezitu zuen ezker, ematen zizutela ikasbidea, bere aztarnai jarraitu ziñizaien:

22. Zeñak bekaturik batere etzuen egin, eta bere aoan ere etzan engañorik arkitu.

23. Zeñak madarikatzen zutenean, etzuen madarikaziorik itzultzen: oñazkatzen zutenean, etzien keñadarik egiten: eta jartzen zan, gaizki juzgatzen zuenaren eskuetan.

24. Bera da eraman zuena bere gorputzean gure bekatuen pena, gurutzeko zuraren gañean: gu illak gelditzen giñadela bekatuetarako, justiziarako bizi gaitezen: eta bera da, zeñaen zaurien bitartez, zuek sendatuak izan ziñaten.

25. Zeren ardi barreiatuak bezela zenbiltzaten; baña orain zuen animen artzai, eta apezpikoagana itzuli zerate.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Orobat andre ezkonduak, beren senarren mendean egon bitez: batzuek ez badute sinistzen Jaungoikoaren itzaren predikazioaren bitartez, au gabe, andraen izketa bakarrarekin izan ditezen irabaziak,

2. Begiraturik egiten duten bizitza garbiari, eta nolako errespetoa daukaien.

3. Zeñaen apainduria ez dan kanpotikoa izango buruko ille kiskurra-kin, ez urrezko pitxiakin: eta ez dute ere beren bozkarioa soñekoetan ipiñiko.

4. Barrendiko lagun, biotzean ezkutatua da apaindu bear dana, gozotasun, eta pakeko espiritu ta apaingarri usteldu ezindako batekin, zeñ Jaungoikoaren begietan apaingarri txit eder bat dan.

5. Zeren anziñako denboretan ere, ala apaintzen ziran arako andre santa, Jaungoikoan itxedotzen zutenak beren senarren mendean jarriak zeudela.

6. Nola Sarak obeditzen zion Abrahami, zeñi bere Jauna ots egiten zion: bere alabak zerate zuek, ongi bizi bazerate, beldur batekin ere ikaritzen etzeratela.

7. Senarrak, orobat zuek ere bizi bear zerate zuen emaztekin tratatzen dezutela onra ta zentzuarekin, erkiagoak diradelako, eta zuekin batean, graziaren eta betiko bizitzaren primuak: zuen orazioen frutua ezerk ere galerazi ez dezan.

8. Atzenean guziok izan zaitezte biotz batekoak, urrikaltsuak, anai guztien maitatzalleak, biguñak, modu onekoak, umillak.

9. Ez dezutela itzultzen gaitza gaitzagatik, ez madarikazioa madarikazioagatik; baizik kontrara bendizioak: zeren onetarako zerate ots eginak, zeruko bendizioaren jabeak izan zaitezten.

10. Ala bada bizitza benetan maitatzen duenak, eta egun doatsuak irago nai dituenak, bere mingañari itz gaitzoetatik alde erazi bizaio; eta bere españak falsokeriarako ez bitez zabaldu.

11. Alde egin beza gauza gaitzoetatik, eta obra onak egin bitza: pakea gogotik billatu beza, eta bere ondoren joan bedi.

12. Bada Jaunak bere begiak justoen gañean jarriak dauzka, eta beren eskariak gogo onarekin aditzen ditu. Obra gaitzoak egiten dituztenai berriz, kopet illunarekin begiratzen die.

13. Eta zeñ da gaitz egin ditzakezutena, obra onak egitean baño pentsatzen ez badezute?

14. Baña gertatzen bada, zerbait irago bear dezutela, justiziaren amorioz, zorionekoak zerate. Etsaien aupadaen beldur etzaitezte izan, eta etzaitezte ere nastu:

15. Baizik zuen biotzetan Jesukristo gure Jauna bedeikatu ezazute, prestatuak zaudetela beti kontu emateko, bizi zeraten Errelijioaren itxedopenaren arrazoa eskatzen dizuten edozeñi:

16. Baña egin bear dezute modu onarekin, eta ongi begiratuta, konzientzia ona daukanak bezela: alako moduan, non, zuek gatik murmuratzen dutenak, gaizki esaten dutenak zuen biziera onagatik Jesukristogan, lotsatuak gelditu ditezen.





17. Bada obeago da padezitzea, (Jaungoikoak ala nai badu) on egiten dala, gaitz egiten dala baño:

18. Zeren Kristo ere bein il zan gure bekatuakgatik, Justoa gaiztoakgatik, Jaungoikoaren adiskide eginik gelditu giñaindezen, izan zala egiaz illa aragiaren aldamentetik; baña Jaungoikoaren espirituak biztua.

19. Zeñgan joan ere zan karzelan zeudenai predikatzerara.

20. Zeñak noizbait sinisogorrrak izan ziran, zegoanean berai itxedotzen penitenziarako, Jaungoikoaren pazienza luze hura Noeren egunetan, kutxa egin zanean: zeñean lagun gutxi, au da, zortzi bakarrik, uraen erdian salbatu ziraden.

21. Zein zan oraingo bateoaren irudia, zeñak alako era batean salbatzen zaituzten zuek: ez aragiaren mantxak kenduta baizik justotzen duela konzientzia Jaungoikoaganako, Jesukristoren biztze berriaren bertutez,

22. Zeñ iretsi ezkerio eriotza, betiko bizitzaren primu gu egitearren, Jaungoikoaren eskuian dago: igotzen zala zerura; eta Aingeruak, eta Postadeak, eta Bertuteak bere mendean daudela.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Kristok bada iragorik gugatik eriotza bere aragian, zuek ere gogorazio onekin, armatu zaitezte, zeren aragian padezitu zuenak, bekatu egiteari utzi zion,

2. Alako moduan, non, mundu onetan gelditzen zaion denboran, bizi dedilla, ez aragiaren gura gaiztoen araura, baizik Jaungoikoaren borondatearen araura.

3. Zeren denbora geiegi irago dezute zuen lengo bizitzan, emanik jentillen gura gaiztoetara beretara, bizi zeratela lujurietan, gura gaiztoetan, ordikerietan, jateketetan, edari geiegietan, eta idolatria nazkagarrietan.

4. Orain jentillak asko miraritzen dira, ikusirik etzeratela joaten lengo lujuriako tokietara, eta zuekgatik gaizki esaten dute.

5. Baña berak kontu emango diote, erabakia daukanari biziak, eta illak juzgatzea.

6. Zeren argatik Ebanjelioa illai ere predikatua izan zaiote, juzgatuak izanik gizonen aurrean aragiaren araura, Jaungoikoaren aurrean Espirituak bizitza artu zezaten.

7. Gañerakoan, gauza guztien atzena alderatuaz dijoa. Argatik zentzua iduki ezazute, eta orazioetan beillan zaudete.

8. Baña gauza guztien gañetik, iduki ezazute beti zuen artean elkar-ganako karidadea, zeren karidadeak bekatuen taldea estalitzen du.

9. Elkarriz zuen etxeetan bizitokia eman zaiozute, gaizki esaka ibilli gabe.

10. Bakoitzak projimuari grazia eman bizaio, artu zuen bezela, Jaungoikoaren doaien partitzalle onak bezela, zeñak era askotakoak diran.

11. Itz egiten duenak, egin beza, Jaungoikoak bere aoz itz egiten duela dirudien eran. Elizako lanen bat bere kontura daukanak, egin beza, Jaungoikoak emandako bertute bat bezela, egiten dituzuten gauza guztietan, Jaungoiko gloriaz betea izan dedin Jesukristogatik, zeñaena dan gloria ta agintaritza mendez mende. Amen.

12. Nere txit maiteak, Jaungoikoak probatzen zaituztenean atseka-beetako suarekin, etzaitezte ikaratu, gauza berriren bat gertatuko balitzaztute bezela,

13. Baizik bozkariotu zaitezte, Jesukristoren Pasioaren partale zeretelako, bere gloria agertzen danean, zuek ere bozkarioz beteta, berarekin gozatu zaitezten.

14. Kristoren izenagatik fama ona kentzen badizute, zorionekoak izango zerate, zeren onra, gloria, eta Jaungoikoaren bertutea, eta bere Espiritua ere, zuen gañean dago.

15. Zuetatik batek ere berriz ez beza sufritu gizon iltzalletzat, edo lapurtzat, edo gaizki esaleztat, edo besteren gauzaren gura gaiztoagatik.

16. Kristaua dalako sufritzen badu berriz, ez bedi lotsatu, baizik argatik beragatik, Jaungoiko alabatu beza.

17. Zeren denbora dan, juizioa Jaungoikoaren etxetik asi dedin. Eta aurrena gugandik asitzen bada, norako izango ote dira, Jaungoikoaren Ebanjelioan sinistzen ez dutenak?

18. Eta baldin justoa nekez salbatuko bada, gaiztoa eta bekataria nora joango ote dira?

19. Argatik bada, Jaungoikoaren borondateagatik padezitzen dutenak ere, beren animak obra onen bitartez enkomendatu bizaizkiote Kreatzallari, zeñ leiala dan.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Zuen artean dauden apaizai bada, erregututzen diet nik, zuen apaizlagunak, eta Kristoren pasioaren testiguak; nola ere bere gloriaren partaleak, zeñ guztiai gero agertuko zaien,

2. Jaungoikoaren artalde, zuen kontura jarria, bazkatu dezazutela, eta bere gañean bellan egoten zeratela, ez premiaz beartuta, baizik borondate on Jaungoikoaren araukoa danarekin, ez irabazi zatar batgatik, baizik doan.



3. Ezta ere iduki nai bazendukete bezela agintaritzza apaizen gañean; baizik artaldearen irudiak egiaz zeratela,

4. Eta agertzen danean artzaien Prinzipea, gloriako koroa zimeltzen ez dan bat artuko dezute.

5. Zuek orobat, o mutil gazteak, zaudete apaizen mendean. Guztiok elkarri esan zaiozute, umillak izateko, zeren Jaungoikoa urgullutsuai aurkeztzen zaien; umillai berriz, bere grazia ematen die.

6. Umillatu zaitezte bada Jaungoikoaren esku almentsuaren mendean bere bisitako denboran, goratu zaitzaten.

7. Beragan ipintzen dituzutela zuen antsiak, zeren zuen kontua berak dauka.

8. Begiratuak izan zaitezte, eta zaudete beti bellan, zeren zuen etsai deabrua, beti dabil zuen jiran inguruan leoe orroakaria bezela, zeñ iretsiko ote duen billan.

9. Aurkeztu zatzakizkiote fedean sendo egonik, jakinik atsekabe hura bera padezitzen dutela, munduan dauden guztiak.

10. Baña Jaungoiko grazia guztien emaleak, bere betiko gloriara ots egin zigunak Jesukristogatik, piskatxo bat padezitzen dezutenean, gero osotuko du, sendotuko du, eta gogortuko du.

11. Berari emana izan dizakeola gloria eta eskubiderik goratuena mendez mende. Amen.

12. Silbanogatik, zeñ dan nere iritzian, anai leial bat, laburrean eskribitu dizutet, argiro esan, eta adirartzen dizutedala, Jaungoikoaren grazia egiazkoa, au dala; zuek sendo irautzea.

13. Elizak, zeñ, zuek bezela Jaungoikoak autua izanik, Babilonia onetan dagoan, eskumuñak ematen dizkizute, eta Markos nere semeak.

14. Diosalak elkarri egin zaieztezute musu santuan. Grazia izan bedi Jesus Kristogan itsatsiak zaudeten zuekin guziokin. Amen.

## SAN PEDRO APOSTOLUAREN BIGARREN KARTA

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Simon Pedro, Jesukristoren serbitzari eta Apostoluak, gurekin fede berdiña iritxi dutenai Jaungoikoaren justizia, eta irabaziakgatik, eta Jesukristo gure Salbatzalleagatik,

2. Grazia eta pakea ugaritu ditezela geiago ta geiago zuekgan Jaungoikoaren ta Jesukristo gure Jaunaren ezagueragatik.

3. Nola bere eskubide Jaungoikoak eman dizkigun doai guzti, kristauen bizitza ta ontasunari dagozkionak, emanak izan zazkigun, bere gloria ta bere birtuteagatik, ots egin zigunaren ezageragatik,

4. Beragatik eman ere dizkigu Jaungoikoak, eskeñi zituen grazia andi, eta balioitsuak, grazia oien bitartez Jaungoikoaren izatearen partale zuek eginak izateko, munduan dagoan lujuriako gurarien usteltasunetik iges egiten dezutela.

5. Zuek bada zuen kontu ta arreta guztia ipiñiko dezute, biltzen zuen fedearekin, sendotasuna, sendotasunarekin jakinduria,

6. Jakinduriarekin, jan edanean begiratuak izatea; jan edanean begiratuak izatearekin pazientzia, pazienziarekin urrikaltasuna,

7. Urrikaltasunarekin anai amorea, eta anai amorioarekin karidadea, edo Jaungoikoaren amorioa.

8. Zeren baldin bertute oiek zuekgan arkitzen badira, eta geiago ta geiago aziaz badijoaz, ez da soilla ta frutu gabe geldituko Jesukristo gure Jaunagatik daukazuten ezagera.

9. Baña ez dauzkana, dago itsutua, eta eskuarekin itsumuka dabil, aztuta nola bere anziñako obenetatik garbitua izan zan.

10. Argatik, nere anaiak, sendotu zaitezte geiago, eta geiago, eta egin ezazute al dezuten guztia, ziertotzeko zuen bokazioa ta elekzioa obra onen bitartez, zeren, au eginik, ez dezute beñere bekaturik egingo.

11. Bada onela idikiko zazute zabal zabal sarrera Jesukristo gure Jaun ta Salbatzallearen erreñuan.

12. Argatik ez naiz beñere aspertuko au bera zuei adirartzeaz jakin arren ere, zuek ongi dakizutela egia au, eta beratan sendotuak zaudetela.

13. Bada justoa iduritzen zat, nere erakutsiak zuek esnatzea, gorputz ilkor onetan nagoan bitartean kanpo etzauntz batean bezela.



14. Zierto nagoala aurki beratatik irtengo naizala, Jesukristo gure Jau-nak onezkero adirazi didan bezela.

15. Baña nik begiratuta egingo det, ni ilda gero ere gauza oien oroi-pena maiz iduki dezazutela.

16. Gañerakoak berriz, ez dizugute ezagutu erazi Jesukristo gure Jau-naren eskubide ta etorrera, ipui jakintsuai jarraitzen diegula, baizik bere anditasunaren begizko testiguak geradela.

17. Zeren artzean Aita Jaungoikoagandik testigantza glori-az betetze-ko hura, Jaungoikoaren gloria alako argitasunarekin agertu zan odeitik, jetxi zanean boz bat, esaten zuena: Au da nere seme maitatua, zeñgan gozaten nagoan, berari aditu zaiozute.

18. Guk ere aditu genduen, zerutik etorritako boz au, eta bere gloria ikusi genduen, berarekin mendi santuan geundenean.

19. Baña oraindikan gurea baño testigantza sendoago bat daukagu, zeñ dan Profetaena, zeñi arretarekin begiratzean ongi egiten dezuten, toki illun batean argi egiten duen zuzi bati bezela, eguna argitu dezan, eta egunsentiko izarra zuen biotzetan irten dedin bitartean,

20. Ongi jakinik idukirik aurrena, Eskriturako profeziarik batere, bakoitzaren iritziarekin ez dala azaldatzen.

21. Zeren profeziak beren jatorria, gizonen borondatek ez dakar-ten, baizik Jaungoikoaren gizon santuak Espiritu Santuak argituak izanik, itz egin zuten.

## BIGARREN KAPITULUA

1. Egia da izan zirala ere gezurrezko Jaungoikoaren anziñako errian, ikusiko diraden bezela zuen artean erakusla gezurtiak, zeñak sartuko dituzten, iñork igarri ere gabe, galmeneko giza setak, eta ukatuko dute erreskatatu zituen Jauna, beren gañera bengantza bat agudo ekartzen dutela.

2. Eta asko jende jarraituko die beren lujurietan, eta argatik egiaren bidea blasfematua izango da.

3. Eta zikoitzasunarekin, itz labanakin, zuekin saldu erosiak idukiko dituzte; baña denboratsu dala keñatzen dituen juizioa, erraldoeraren pau-suetan dator, eta galdu bear dituen eskua ez dago lotan.

4. Zeren baldin Jaungoikoak ez bazien barkatu Aingeru bekatari-ai, baizik loturik infernuko kateakin aurtiki bazituen lize illunera, non gogo-tik oñazetuak diran, eta juizioko eguneraño, gordeak bezela idukiak.

5. Anziñako munduari ere barkatu ez bazion, gorde bazuen Jaungoi-koaren justiziaren predikatuzale Noe, zazpi lagunekin, gaiztoen mundua ugoldean ondatu zuenean.

6. Baldin auts biurturik Sodoma eta Gomorrako erriak, ondamen-erakondatu bazituen, jartzen zituela gaizki biziko ziradenen oroipengarritzat.

7. Atera bazuen Lot justoa, zeñ gizon nazkagarri oiek atsekabetzen eta persegitzen zuten beren bizitza gaiztoarekin,

8. Bada bere begi ta belarriai, garbi iraun erazitzen zien, bizi zala jende batzuen artean, zeñak egunoro aspertu gabe, bere anima garbia obra gaiztoakin oñazkatzen zuten.

9. Beraz ongi daki Jaunak justoak tentaziotik libratzen, gaiztoak jui-zioke egunean onazeetarako gordetzen dituela.

10. Eta batezere aiek, zeñak, beren gura gaiztoak asetzeko jarraitzen dien aragiaren erara bizitzeari, eta nagusiagoak mezpreziazten dituzten, aizartuak, berak anditzat dauzkatenak, eta blasfematzen dutela, herejiak ereitzeko beldurrik ez daukatenak.

11. Aingeruak eurak, izanik anbat andiagoak indarrean eta eskubi-dean, ez dituzte kondenatzen beren erikoak birao ta madarikazioko itza-kin.

12. Oiek berriz, abere zentzugabekoak bezela, lazo eta ilkintzarako jaiok, ez dakizkiten gauzakgatik blasfematzen dute; galduko dira beren gaiztakeria lotsagarrietan, zeñaetan ondaturik dauden,

13. Beren gaiztakeriaren ordaña artzen dutela; beren zorientasuna egun bakoitza gozotasunetan iragotzean ipintzen duten ezker, izanik urdakeria ta zikinkeria bera, atseginetan nastau ta ondaturik dabiltzala, erakusten dutela beren zabarkeria, zuekin egiten dituzten jateketetan.

14. Begiak adulterioz, eta aspertu gabeko bekatuz beteak dauzkatela. Berak ekartzen dituzte balakuakin anima aldakor-ak, idukirik biotza oitua zikoizkeriako asmazio guztietan, madarikazioaren semeak dirade.

15. Utzi dute bide zuzena, eta bide artezetik alde egin dute, jarraitzen diela Balaam Bosorren semearen bidetxidorrari, zeñak gaiztakeriaren ordaña maitatu zuen.

16. Baña iduki zuen nork errierta egin bere asmazio gaiztoagatik. Abere mutu batek, zeñaen gañean zijoan, itz eginik gizon batek bezela, errierta egin zion profetari bere txorakeriagatik.

17. Onelakoak dira iturriak, baña ur gabekoak, eta aizebunbadakin batetik bestera dabilzitan lañoak, zeñaentzat illuntasuneko lizea gorde-ak dagoan.



18. Zeren eginik izketa arro, urgulluz beteak, ekarten dituzte lujurriko aragizko guraen zeboarekin, puntuan iges egin zutenak, gezurrezko sinistei jarraitzen zien lagunakgandik.

19. Aukera ta libertadea eskeñtzen ziela, berak usteltasunaren mendean zeudenean, zeren beste batek garaitua dana, garaitu duenaren mendeko gelditzen da.

20. Zeren bein alde egin munduko zikinkeriakgatik Jesukristo gure Jaun ta Salbatzalleagatik, au da bere ezageragatik, berriz beretan nastuak badirade, gelditzen dira garaituak. Beren geroko egoera lenbizikoa baño gaiztoagoa da.

21. Zeren obeago zitzaien ez ezagutzea justiziako bidea, ezagututa gero, emana izan zitzaien lege santa utzitzea baño.

22. Kunplitzen dala beretan, esangi egiazko hurak adiraztzen duena: Jan zuen txakurrak, errebesatu zuena. Eta: Urde garbitua, zingiran irabiataua.

### IRUGARREN KAPITULUA

1. Ona emen, nere maiteak, bigarren karta da eskribitzen dizutedana, aleginak egiten ditudala bietan, nere erakutsiak bizkortzeko zuen gogo tolesgabea.

2. Oroitu zaitezten, len esanak dauzkadan itz, Profeta santuenakin; eta gure Jaun ta Salbatzalleak eman dizkizuten aginteekin gure bitartez, zeñak bere Apostoluak geran.

3. Aurrena dakizutela, atzeneko denboretan etorriko diradela engañatzalle asmaziotsuak, beren aragiaren gura gaiztoen erara dabilztenak,

4. Esaten dutela: Non da eskeñtza, edo bere etorrera? Zeren gure gurasoak ilda gero, gauza guztiak asieran eginak izan ziran bezela irautzen dute.

5. Eta au da, ez dakitelako, ez dutelako jakin nai asieran zerua egina izan zala Jaungoikoaren itzarekin, nola orobat lurra ere, zeñ agertu zan uretik irtenda, eta bere erdian irautzen du.

6. Eta alako gauzakgatik orduko mundua ugoldeko uretan galdu zan.

7. Eta orain diran zeruak eta lurra, itz hurak berak zaitzen ditu, suak erreak izateko, juizioko eguneko, eta gaiztoen ondameneko egunean.

8. Baña zuek, nere maiteak, ez dezute egon bear gauza bat jakin gabe, eta da, egun bat Jaungoikoarentzat dala milla urte bezela, eta milla urte, egun bat bezela.

9. Ez du bada bere eskeñtza luzatzen, batzuek uste duten bezela; baizik Jaunak pazientzia andiarekin itxedotzen du zuen amorioagatik,

jueza bezela etortzea, ez duelako nai iñor ere galdu dedilla, baizik guztiak penitenziara itzuli ditezela.

10. Gañerakoan Jaungoikoaren eguna lapurra bezela etorriko da, eta orduan zeruak dunbots ikaragarri batekin aldamen batetik bestera iragoiko dira, eta munduko gauza guztiak suaren berotasunarekin desegingo dira, baita lurra eta bertan dauden obrak izango dira erreak.

11. Gauza guzti oiek bada deseginak izango diran ezkerro, zelakoak izan dezute zuek zuen bizitzako santutasunean, eta oituren ontasunean,

12. Itxedotzen dezutela antsiarekin, eta korrika joaten zeratela Jaunaren etorrerako eguna zaitzera; egun bat, zeñean zeru erazekiak desegingo diran, eta urtu ta desegingo diran munduko gauza guztiak suaren berotasunarekin.

13. Alaere bere eskeñtzen araura itxedotzen ditugu zeru berriak, eta lur berria, nun beti justiziak errefiatuko duen.

14. Argatik, nere maiteak, alako gauzak itxedotzen dituzuten ezkerro, egin ezazute al dezutena, Jaungoikoak oben gabe, aitzakia gabe, eta pakean arkitu zaitzaten.

15. Eta sinistu ezazute, gure Jaunaren itxedopen luzea salbaziorako dala. Gure anaia txit maite Pablok ere eskribitu zizuten bezela, emana izan zaion jakinduriaren araura,

16. Egiten duen bezela bere karta guztietan, beretan gai onen gañean tratatzen duela, zeñaetan dauden gauza batzuek, gaitzak aditzen; zeñatan adiraztzen diran gauzaetan esan nai dana, jakinduria gabeak, eta fedean lokatuak dabilzitanak gaitzera aurtikitzen duten, beste Eskriturak ere gaitzera botatzen dituzten bezela beren galmenerako.

17. Ala bada zuek, nere anaia, onen berria daukazuten ezkerro, zaudete beillan, zentzugabeak eta gaiztoak enganatuak izanda, zuen sendotasunetik erori etzaitzen.

18. Baizik aziaz joan zaitezte grazian, eta Jesukristo gure Jaun eta Salbatzallearen ezageran. Berari gloria emana izan dakiola oraindandik betiko irauneko egunean. Amen.



## SAN JUAN APOSTOLUAREN LENBIZIKO KARTA

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Asieratik izan zana, aditu genduen, gure begiak ikusi genduen, eta begira egon giñan, eta gure eskuak ukitu ziena bizitzako berbeari zegokiona.

2. Bizitza bat agertu zana, eta ala ikusi genduen, eta bere testigantza ematen degu, eta adirazten dizugu betiko bizitza, zeñ Aitagan zegoan, eta guri agertu zitzagun.

3. Ikusi eta aditu genduan au, da adirazten dizuguna, zuek ere gurekin elkartasuna iduki dezazuten, eta gure guzioen elkartasuna Aitarekin eta bere seme Jesukristorekin izan dedin.

4. Eta eskribitzen dizugu gozatu zaitezten, eta zuen gozotasuna osoa izan dedin.

5. Eta Jesukristori aditu giñon, eta zuei adirazten dizugun berria da, Jaungoikoa argia dala, eta illuntasunik batere beragan ez dagoala.

6. Esaten badegu berarekin elkartasuna daukagula, eta bekatuaren illuntasunetan bagabiltza, gezurra esaten degu, eta ez degu egia tratatzen.

7. Baña argitan bagabiltza, nola bera ere argitan dagoan, guziok elkartasuna daukagu, eta Jesukristo bere semearen odolak bekatu guzitik garbitzen gaitu.

8. Bekaturik ez daukagula esaten badegu, gu gerok engañatzen gera, eta egiarik gudan ez dago.

9. Baña bekatuak konfesatzen baditugu, leiala ta justoa da bera, guri bekatuak barkatzeko, eta gaiztakeria guzitik gu garbitzeko.

10. Esaten badegu ez degula bekatu egin, bera gezurti egiten degu, eta bere itza gudan ez dago.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Nere semetxoak, gauza oiek eskribitzen dizkizutet bekatu egin ez dezazuten. Baña baldin norbaitek zorigaiztoan bekatu egingo balu, bitartekotzat daukagu Aitaganako Jesukristo justoa.

2. Eta bera da gure bekatuen ordañean eskeñtzen dana, eta ez bakarririk gureen ordañean, baita mundu guztikoen ordañean ere.

3. Eta baldin bere aginteak gordetzen baditugu, orrekin dakigu, egiaz ezagutu degula.

4. Esaten duena ezagutzen duela, eta bere aginteak gordetzen ez dituen, gezurti bat da, eta egiarik beragan ez dago.

5. Baña norbaitek bere aginteak gordetzen baditu, orregan egiaz Jaungoikoaren karidadea osoa da.

6. Beragan dagoala esaten duenak, berak jarraitu bideari, berak jarraitu bear dio.

7. Nere txit maiteak, ez noa zuei eskribitzera aginte berririk, baizik anziñako aginte bat, zeñ asieratik artu zenduten. Anziñako agintea, aditu zenduten Jaungoikoaren itza da.

8. Eta alaere nik esaten dizutet, nik esaten dizutedan agintea, zeñ dan karidadea, aginte berri bat dala, zeñ dan egiazkoa bera beragan, eta zuekgan, zeren illuntasunak iges egin zuten, eta argi egiazkoa da onezkero, argi egiten duena.

9. Esaten duena argitan dagoala, bere anaia gorrotatzen duela, oraindikan illuntasunean dago.

10. Bere anaia maitatzen duena, argitan bizi da, eta beragan eskandalurik ez dago.

11. Baña bere anaia gorrotatzen duena, illuntasunetan dago, eta illuntasunetan dabil, eta nora dijoan ez daki, zeren illuntasunak begiak itsutu diozkate.

12. Zuei eskribitzen dizutet, nere semetxoak, zuen bekatuak Jesusen izenagatik barkatuak daudelako.

13. Zuei eskribitzen dizutet, familiako gurasoak, asieratik izatea zeunkatela ezagutu dezutelako. Zuei mutil gazteak eskribitzen dizutet, espiritu gaiztoa garaitu dezutelako.

14. Zuei aurrak eskribitzen dizutet, Aita ezagutu dezutelako. Zuei, gazteak, eskribitzen dizutet, azkarrak eta bizkorak zeratelako, eta Jaungoikoaren itzak zuekgan irautzen duelako, eta espiritu gaiztoa garaitu zendutelako.

15. Ez ezazute maitatu mundua, ez munduko gauzak. Iñork ere mundua maitatzen badu, Aitaren karidadea argan ez dago,

16. Zeren munduan dagoan guztia, aragiaren gurak, begien gurak, eta bizitzako urgulleria, au ez dator Aitagandik, mundutik baizik.

17. Mundua iragotzen da, baita bere emakaiak ere. Baña Jaungoikoaren borondatea egiten duenak, beti irautzen du.

18. Nere semetxoak, au atzeneko ordua da; eta nola aditu dezuten Antekristoa badatorrela, ala orain asko Antekristo egin dira, nondik ikusten degun, onezkero atzeneko ordua dala.





19. Gure artetik irten dira; baña gutatikoak etziraden, bada gutatikoak izan balirade, noaski gurekin iraungo zuten, baña berak alde egin zuten, argiro ikusi dedin, guztiak gutatikoak ez diradela.

20. Baña zuek Espiritu Santuaren unzioa artu dezute, eta guztia ikasiak zaudete.

21. Ez dizutet eskribitu, egia ez dakitenai bezela, baizik dakitenai bezela, zeren egiatik ez da irtetzen gezurrik batere.

22. Zeñ da gezurtia, Jesus Kristoa dala ukatzen duena baizik? Onelakoa Antekristo bat da, Aita eta semea ukatzen dituen.

23. Semea ukatzen duenak, ez du Aita ere ezagutzen; semea aitortzen duenak, Aita ere aitortzen du.

24. Zuek sendo zaudete, asieratik aditu dezuten dotrinan. Asieran aditu dezutenean irautzen badezute, semeagan eta Aitagana ere iraungo dezute.

25. Eta au da, berak egin zigun eskeñtza, betiko bizitza.

26. Oiek eskribitu dizkizutet, zuek engañatzen zaituztenakgatik.

27. Iraunerazi zaiozute zuekgan beragandik artu zenduten unzioari. Orrekin, iñork erakutsiaren premiarik ez daukazute, baizik Jaunaren unzioak gauza guzietan erakusten dizutena, ala egia da, ta ez gezurra. Argatik sendo zaudete, erakutsi dizkizuten gauzaetan.

28. Orain bada, nere semetxoak, beragan irau ezazute, datorrenean, itxedopenarekin egon gaitezen, eta berak bere etorreran lotsatuta egon ez gaitezen.

29. Badakizute justoa dala, jakin ezazute, justizia egiten duen guztia ere, beragandik jaioa dala.

### IRUGARREN KAPITULUA

1. Begiratu ezazute, nolako amorioa gubanako iduki duen Aitak, nai duela, iduki dezagula Jaungoikoaren semeen izena eta izana. Argatik munduak ez gaitu ezagutzen, zeren bera ere ezagutzen ez duen.

2. Nere txit maiteak, orain Jaungoikoaren semeak gera. Egunen batean zer izango geran, ez da oraindikan agertzen. Badakigu, bai, Jesukristo argiro agertzen danean, bere antzekoak izango gerala: zeren bera, dan moduan ikusiko degu.

3. Bitartean beragan alako itxedopena daukana, bera santututzen da, hura ere santua dan bezela.

4. Bekatu egiten duen edozeñek, gaiztakeria bat egiten du, zeren gaiztakeria dan bekatua.

5. Badakizute bera gure bekatua kentzera etorri zala, eta beragan bekatu ez dago.

6. Beragan irautzen duen guztiak, ez du bekatu egiten, eta bekatu egiten duenak, ez du ikusi, eta ezagutu ere ez du.

7. Nere semetxoak, etzaitzela iñork ere engañatu. Justizia egiten ari dana, justoa da, ala Jesukristo ere nola dan.

8. Bekatu egiten duena, deabruarena da, zeren deabrua erori dan denboratik, bekatugiñan ari da. Argatik etorri zan Jaungoikoaren semea, deabruaren obrak desegitzera.

9. Jaungoikoagandik jaio zanez, ez du bekatu egiten, zeren Jaungoikoaren azia beragan dagoan, eta bekatu ez dezake egin Jaungoikoaren semea dalako.

10. Emendik ezagutzen dira Jaungoikoaren semeak, deabruaren semeetatik. Justiziako obrak egiten ari ez dana, ez da Jaungoikoaren semea, ala ez da ere, bere anaia maitatzen ez duena.

11. Egiaz, asieratik ikasi zenduten dotrina, au da, elkar maitatu dezazutela.

12. Ez Kainek bezela, zeñ zan espiritu gaiztoaren semea, eta bere anaia il zuen. Eta, zergatik il zuen? Bere obrak gaiztoak ziradelako, eta bere anaiarenak justoak.

13. Etzaitzete miretsi, nere anaiak, munduak gorrotatzen bazaituzte.

14. Guk ezagutzen degu, eramanak izan gerala eriotzatik bizitzara, zeñean anaiak maitatzen ditugun. Maitatzen ez dituen, eriotzan gelditzen da.

15. Bere anaiari gorroto dion guztia, eralla bat da. Eta badakizute, eralla baten ere, betiko bizitzak ez daukala bere egolekurik.

16. Onetan ezagutu degu Jaungoikoaren karidatea, Jaunak bere bizia gugatik ematean, eta ala guk ere gertutuak egon bear degu, gure anaien salbazioagatik bizia emateko.

17. Munduko ondasunak dauzkanak, eta bere anaia premian ikusirik, erraiak utzitzen badiozka, berarekin ez urrikaltzeagatik, Jaungoikoaren karidatea, nola beragan egon diteke?

18. Nere semetxoak, ez dezagun maitatu itzez, eta mingañaz baka-rrik, baizik obrak eta egiaz.

19. Onetan ikusten degu egiarekin gabiltzala, eta ala alaituko ditugu gure biotzak Jaungoikoaren aurrean.

20. Zeren gure biotzak erriertan egingo baligu: Jaungoikoa gure biotza baño andiagoa da, eta guztia daki.





21. Nere anaia txit maiteak, gure biotzak erriertarik egiten ez badigu, itxedopenarekin Jaungoikoagana alderatu gintezke.

22. Eta ziertotzat egon, eskatzen diogun guztia, beragandik artuko degula, zeren bere aginteak gordetzen ditugun, eta bere aurrean bere gogokoak diran gauzak egiten digutun,

23. Itz batean, au da bere agintea: Bere seme Jesukristoren izenean sinistu dezagula, eta elkar maitatu dezagula agindua zagon bezela.

24. Eta bere aginteak gordetzen dituen, Jaungoikoagan dago, eta Jaungoikoa beragan, eta argatik ezagutzen degu, bera gugan dagoalako, eman digun Espirituagatik.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Nere maiteak, espiritu guztiari etzaiozute sinistu; baizik esaminatu itzatzute espirituak Jaungoikoarenak ote diran, zeren mundura asko profeta gezurrezko agertu diran.

2. Onetan ezagutzen da Jaungoikoaren espiritua. Jesukristo aragiz jantzita mundura etorri zala aitortzen duen spiritu guztia, Jaungoikoagandikoa da.

3. Eta Jesus berezitzen duen espiritua, ez da Jaungoikoarena; baizik au da Antekristoarena, zeñgatik aditua daukazute, badatorrela, eta oraindandik dago munduan.

4. Zuek, nere semetxoak, Jaungoikoarenak zerate, eta hura garaitu dezute; zeren zuekin dagoana, munduan dagoana baño andiagoa dan.

5. Berak mundukoak dirade, argatik munduko gauzaen gañean itz egiten dute, eta munduak aditzen ditu.

6. Gu Jaungoikoarenak gera, Jaungoikoa ezagutzen duenak gu aditzen gaitu; Jaungoikoarena ez danak, ez gaitu aditzen: onetan ezagutzen ditugu egiaren espiritua ta gezurraren espiritua.

7. Nere txit maiteak, elkar maitatu dezagun, zeren karidadea Jaungoikoagandik datorren. Eta ala maitatzen duen guztia, Jaungoikoaren semea da, eta Jaungoikoa ezagutzen du.

8. Amorio au ez daukanak, ez du Jaungoikoa ezagutzen, Jaungoikoa guztia karidadea dan ezkeru.

9. Onetan agertu zan Jaungoikoaren karidadea guganako; Jaungoikoak bere seme bakarra mundura bialtzean, beragatik bizia iduki dezagun.

10. Eta bere karidadea onetan dago, ez da Jaungoikoa maitatu degulako, baizik berak gu lenago maitatu ginduen, eta bere semea bialdu zuen gure bekaturen eskeñtza izateko.

11. Nere maiteak, Jaungoikoak ala maitatu baginduen, guk ere elkar maitatu bear degu.

12. Beñere ez du iñork Jaungoikoa ikusi. Baña elkar maitatzen badeugu, Jaungoikoa gugan bizi da, eta bere karidadea osoa da gugan.

13. Onetan ezagutzen degu, beragan bizi gerala, eta bera gugan, zeren bere Espiritua eman digun.

14. Eta guk ikusi genduen, eta testigantza ematen degu, nola Aitak bere Semea bialdu zuen munduaren Salbatzallea izatera.

15. Edozeñek aitortzen badu Jesus Jaungoikoaren semea dala, Jaungoikoa beragan dago, eta bera Jaungoikoagan.

16. Ala guk ere ezagutu eta sinistu degu, Jaungoikoak digun amorioa. Jaungoikoa karidadea da: eta karidadean dagoana, Jaungoikoagan dago, eta Jaungoikoa beragan.

17. Jaungoikoaren guganako karidadea, onetan dago; juizioko egunerako guri itxedopena ematean, bada bera dan bezela, ala gera gu mundu onetan.

18. Karidadean ez dago beldurrik, baizik karidade osoak beldurra kanpora botatzen du, zeren beldurra pena dauka; eta ala beldur dana, karidadean ez dago osotua.

19. Maitatu dezagun bada Jaungoikoa, Jaungoikoak gu lendanaz maitatu ginduen ezkeru.

20. Iñork esaten badu: Bai, nik Jaungoikoa maitatzen det; eta bere anaia gorrotatzen badu, gezurti bat da. Bada bere anaia, ikusten duena, maitatzen ez badu, nola maitatuko du Jaungoikoa, zeñ ikusten ez duen?

21. Eta dana dala, Jaungoikoagandik agite au daukagu: Jaungoikoa maitatzen duenak, ala bere anaia ere maitatu dezala.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Jesus, Kristo dala sinistzen duen guztia, Jaungoikoaren semea da. Eta Aita maitatzen duenak, bere semea ere maitatzen du.

2. Onetan ezagutzen degu Jaungoikoaren semeak maitatzen ditugula, Jaungoikoa maitatzen degunean, eta gordetzen ditugunean bere aginteak.

3. Zeren Jaungoikoaren karidadea au da: bere aginteak zaitu ditzagula, eta bere aginteak pisuak ez dira.

4. Eta ala Jaungoikoaren seme guztiak, mundua garaitzen du, eta munduari garaipena irabazi erazitzen diguna, gure fedea da.

5. Zeñ da mundua garaitzen duena, Jesus Jaungoikoaren semea dala sinistzen duena baizik?



**6.** Jesukristo da urarekin eta odolarekin etorri zana. Etzan etorri urarekin bakarrik, baizik urarekin eta odolarekin. Eta Espiritua da testigantza ematen duena, Kristo egia bera dala.

**7.** Zeren zeruan testigantza ematen dutenak iru dirade: Aita, Semea, eta Espiritu Santua. Eta iru oiek gauza bat bata dira.

**8.** Eta lurrean testigantza ematen dutenak, iru dira: espiritua, ura, eta odola; eta iru testigu oiek, gauza bat bata sendotzeko dirade.

**9.** Gizonen testigantza artzen badegu, Jaungoikoaren testigantza andiagoa da. Orain bada Jaungoikoa bera, zeñaien testigantza andiena dan, da bere semeagatik, testigantza andi au eman duena.

**10.** Jaungoikoaren semeagan bada sinistzen duenak, berarekin Jaungoikoaren testigantza dauka. Semeari sinistzen ez dionak, bera gezurti egiten du, zeren Jaungoikoak bere semeagatik ematen duen testigantzari ez dio sinistzen.

**11.** Eta testigantza onek erakusten digu, Jaungoikoak betiko bizitza eman zigula. Eta bizitza au, bere seme Jesukristogan dago.

**12.** Semea daukanak, bizitza dauka; semerik ez daukanak, bizitzarik ez dauka.

**13.** Gauza oiek eskribitzen dizkizutet, jakin dezazuten Jaungoikoaren semearen izenean sinistzen dezutenak, betiko bizia daukazutela.

**14.** Eta au da, beragan daukagun itxedopena. Bere borondatearen araura eskatzen diogun edozeñere gauza, emango digula.

**15.** Eta badakigu ematen digula, eskatzen diogun guztia, ikusirik iri-txitzen degula, eskatzen diogun guztia.

**16.** Dakianak bere anaiak egin duela, ta egiten duela, iltzallea ez dan bekatu bat, beragatik erregutu beza, eta Jaungoikoak emango dio bizia, eriozkoa ez dan bekatua egin duenari. Baña badago bekatu ilgille bat, ez det onelako bekatuaren gañean itz egiten, orain esaten dedanean, beragatik erregutu dezazutela.

**17.** Gaiztakeria guztia, bekatu da. Baña bada bekatu bat, eriotza dakarrena.

**18.** Badakigu Jaungoikoaren semea dan guztiak ez duela bekatu egiten; baizik Jaungoikoagandik daukan jaiotzak graziaren bitartez, zaitzen du, eta espiritu gaiztoak ez dio ukiturik egiten.

**19.** Badakigu Jaungoikoarenak gerala; berriz espiritu gaiztoa mundu guziarekin jabetua dago.

**20.** Badakigu ere, Jaungoikoaren semea etorri zala; eta eman digu zentzua, Jaungoiko egiazkoa ezagutzeko; eta bere seme egiazkoan egoteko. Au Jaungoiko egiazkoa, eta betiko bizitza da.

**21.** Nere semetxoak, idoloetatik iges egin ezazute. Ala izan dedilla.



## SAN JUAN APOSTOLUAREN BIGARREN KARTA

1. Apaizak Elekta Andreari, eta bere semeai, zeñak nik egiaz maitatzen ditudan, eta ez bakarrik nik, baita egia ezagutu duten guztiak ere,
2. Gurekin dagoan, eta beti gurekin egongo dan egiagatik.
3. Grazia, urrikaltasuna, ta pakea, izan bitez zuekin egian, eta karidadean, Aita Jaungoikoagandik, eta Jesukristo Aitaren semeagandik.
4. Txit bozkariotu naiz, zure semeetatik batzuek arkitu ditudalako egiaren bidean, Aitagandik artu genduen agintearen araura.
5. Argatik, Andrea, orain erregututzen dizut, ez aginte berri bat eskribitzen dizudala, baizik asieratik iduki genduena bera, elkar maitatu dezagula.
6. Eta karidadea dago, Jaungoikoaren aginteen araura bizitean. Zeren alakoa da, asieratik artu zenduten agintea, eta zeñaen araura ibilli bear zeraten.
7. Munduan agertu diran ezkeroko asko engañalari, ez dutenak aitorzen Jesukristo aragian etorri zala; au ukatzea da engañalari bat, edo Antekristo bat izatea.
8. Zuek kontuan egon zaitezte, zuen lanak ez galtzeko, baizik ordañ osoa artu dezazuten.
9. Kristoren dotrinan irautzen ez duen guztiak, baizik beragandik alde egiten duen guztiak, ez dauka Jaungoikorik; beratan irautzen duenak, orrek Aita, ta Semea dauzka.
10. Zuekgana iñor badator, eta dotrina au ekartzen ez badu; ez ezaizute etxean artu, ezta diosalik egin ere,
11. Zeren diosal egiten diona, bere egite gaiztoen partale nolabait egiaten da.
12. Baneuzkan beste asko gauza ere zuei eskribitzeko, ez det egin nai izan paperez eta tintaz; zeren itxedotzen dedan zuekgana joatea, eta aoz au itz egitea, zuen bozkarioa osoa izan dedin.
13. Zure arreba Elektaren semeak, eskumuñak ematen dizkizute.

## SAN JUAN APOSTOLUAREN IRUGARREN KARTA

1. Apaizak, nik, asko nai diodan Gaiori, zeñ nik egiaz ta benaz maitatzen dedan.
2. Nere txit maitea, Jaungoikoari erregututzen diot, gauza guztietan ongi joan dakizula, eta osasuna iduki dezazula, zure animak zorionez daukan bezela.
3. Nere bozkarioa andia izan da, anaien etorrerarekin, eta zure ontasun zintzoaren gañean ematen duten testigantzagatik, egiaren bideari jarraitzen diozuna bezela.
4. Ezertan ere ez daukat atseden andiagorik, non, nere semeak egiaren bidetik dabilzala aditzen dedanean.
5. Nere txit maitea, kristau on, eta leiala bezela portatzen zera, anaiakin egiten dituzun gauza guztiakin, eta batezere bideanteakin,
6. Zeñak Elizari agirian, zure karidadearen testigantza eman duten, eta zuk ongi egingo dezu, berai joan erazitzeaz, eta beren ibilleretan laguntzeaz, Jaungoikoari zor zaion lotsa, ta begirunearekin;
7. Zeren bere izenaren gloriagatik jarri dira bidean Jentillakgandik ezerere artu gabe.
8. Argatik guk artu bear ditugu alakoak, egia zabaltzen laguntzeko.
9. Nik Elizari eskribituko nion, baña Diotrefes orrek, zeñak guztien gañean jarri nai duen, ez du gugandik ezerere jakin nai.
10. Argatik ni ara joaten banaiz, bere obraen kontua artuko diot, ikusi erazitzen diodala, ze gaizki egiten duen, gure kontra itz txarrak esaten ibiltzean, eta au beretzat asko ez balitza bezela, ez bakarrik ez die gure anaiak ostaturik ematen; baizik ematen dienai galerazitzen die, eta elizatik aurtikitzen ditu.
11. Zuk, nere maitea, ez diozu jarraituko ejenplu gaiztoari, baizik onari. On egiten duena, Jaungoikoarena da; gaizki egiten duenak, ez dio Jaungoikoari begiratzen.
12. Guztiak ematen dute testigantza Demetrioren alde, eta egiak berak ere, eta guk ere orobat ematen diogu, eta ongi dakizu gure testigantza egiazkoa dala.
13. Asko gauza neuzkan zuri eskribitzeko; baña tintaz eta plumaz ez det egin nai izan.



14. Zeren zu aurki ikustea itxedotzen det, eta aoz ao itz egingo degu.

Pakea zugaran izan dedilla. Adiskideak eskumuñak egiten dizkizute. Zuk

gureai, bakoitzari berezian, eskumuñak eman zazkiezu.

## SAN JUDAS APOSTOLUAREN KARTA KATOLIKA

1. Judas, Jesukristoren serbitzariak, eta Santiagoren anaiak, Aita Jaungoikoak maitatuai, Jesukristok federa ots egin eta iraunderaziai.

2. Urrikaltasuna, eta pakea, eta karidadea, gañez egiteraño arkitu bitez.

3. Nere txit maiteak, gura biziak baneuzkan ere orain baño lenagotik zuei eskribitzeko zuen guzioen osasunaren gañean; orain au egiteko premian arkitzen naiz, esateko zuei gogotik, sendoki gudatu zaitezela, santuai bein erakutsia izan zaien fedeagatik.

4. Zeren sartu diran somaz gizon gaizto batzuek (zeñakgatik nik txit lendanaz adirazia neukan juizio onetan eroriko ziradela) gure Jaungoikoren grazia lujuriara itzultzen dutenak; eta Jesukristo gure Errege bakarra, eta Jauna, ukatzen dutela.

5. Onen gañean oroitu nai dizutet, aditu ziñituzten ezkerro bein gauza guzi oiek, Jesukristok aterarik Hebreoko erria Egiptoko lurretik, desegin zituen gero sinisgogorak izan ziradenak.

6. Eta Aingeruak, zeñak beren lenbiziko diñadean etzuten iraun, baizik beren bizitokia utzi zutenak, egun andiko juiziorako, lize illunean, betiko kateakin zaitu zituen.

7. Nola Sodoma, eta Gomorra, eta inguruetakorriak ere, erori ziradenak lujuriako bekatu aietan beretan, eta esan ez litekean bekatuan sarturik bizi ziranak, besteen oroipengarri, eta irrigarri etorri ziran izatera, betiko suzko pena sufritzen zutela.

8. Era berean zikitzen dute oiek beren aragia ere; agintaritzaz mepreziatzen dute, eta blasfematzen dute anditasunagatik.

9. San Migel Arkanjelua deabruarekin itzez elean ari zanean, ezbaia zeukaten Moisesen gorputzaren gañean; alaere etzan aizartu, bere kontra madarikazioko sentenziarik ematen, baizik bakarrik esan zion: Jaungoikoak agindu dizazula.

10. Oiek berriz kontrara, ezagutzen ez duten guztiagatik blasfematzen dute, eta berezko arrazoiarekin ezagutzen dituzten gauza guzti aiek, abere zentzugabeak bezela gaizki erabiltzen dituzte.

11. Beren zorigaiztokoak, Kainen bideari jarraitu ziotenenak, eta galduak Balaam bezela ordañ utsa balioko baten guragatik, bridagetu ziran, eta jarraiturik Koreri kontra jaikitzean galduko dirade.

12. Oiek dira kutsutu eta desonratzen dituztenak zuen karidadeko jateketak, beretara lotsarikan batere gabe joan oi diradenean, berak baz-



katzen dirala, odei ur gabeak, aizeak onara ta ara darabiltzkitenak, udazkeneko zuaitzak, frutugabeak, bi alditan illak, sustrai gabekoak.

13. Itsaso, бага aztinak, beren gaiztakeriako aparra aurtikitzen dutenak, izar kolokak, zeñaentzat gordea dagoan ekaitz txit illun, beti iraungo duen bat.

14. Enok-ek ere, zeñ dan zazpigarrena, Adangandik kontatuta, profetizatu zuen oien gañean, esaten zuela: Begiratu ezazute, Jauna badatorrela bere santuen milla askorekin,

15. Gizon guziak juzgatzerá, eta kontuak garratz artzera gaizto guztiai, beren gaiztakeriako obra guztien, ala gaizki egin zituztenen gañean; eta bekatarí gaiztoak Jaungoikoaren kontra esan zituzten itz iraintsu guztien gañean.

16. Oiek dirade murmuratzalle kejakor batzuek, beren gura gaiztoen erara dabilzanak; eta beren aoak esaten ditu itz urgullutsuak, zeñak agertzen diran lagun batzuen miraritzalleak, beren gauzaen onerako erara datoztenean.

17. Zuek berriz, nere maiteak, oroitu zaitezte, len Jesukristo gure Jaunaren Apostoluak esan zizkizuten itzakin,

18. Zeñakin esaten zizuten atzeneko denboretan etorriko ziradela engañatzalle batzuek, beren gura, gaiztakeriaz beteai jarraituko zienak.

19. Oiek dirade, berak berezitzen diranak Jesukristoren artaldetik; gizon abere, Jaungoikoaren Espiriturik ez daukatenak.

20. Zuek kontrara, nere txit maiteak, jasotzen zeratela zuek zerok espirituko etxe bat bezela, zuen fede txit santuko zimenduaren gañean, Espiritu Santuagan orazio egiten dezutela,

21. Zaudete sendo Jaungoikoaren amorioan, Jesukristo gure Jaunaren urrikaltasuna itxedotzen dezutela betiko bizitza iritxitzeko.

22. Eta gogortuai, eta juzgatuai, errierta garratz egin zaiezute.

23. Batzuek salbatu itzatzute, garren artetik ateratzen dituzutela; besteakin berriz urrikaldu zaitezte, zuek zerokgatik beldurtzen zeratela, gorrotoz begiratzen diozutela arroparañoakoari ere, zeñ aragiaren ustelta-sunarekin kutsutua dagoan.

24. Atzenean, almentsua danari, zuei bekatu gabetanik iraun eraziteko, eta eramateko zuek orbanikan gabe, eta bozkarioz beteak, bere gloriako esertokiaren aurrera, Jesukristo gure Jaunaren etorreran.

25. Jaungoiko bakar, gure Salbatzalleari, Jesukristo gure Jaunagatik, emana izan dakiola gloria ta anditasuna, agintaritza, ta eskubidea, mende guziak baño lenagotik, eta orain, eta mendeen mende guztietan. Ala izan dedilla.

## SAN PABLO APOSTOLUAREN KARTA ERROMAARRAI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo Jesukristoren serbitzaria, Apostolutzarako zeruak ots egina, Jaungoikoaren Ebanjelioa predikatzeko autua,

2. Ebanjelio bat, Jaungoikoak berak lendanaz eskeñi zuena bere profetaen bitartez Eskritura Santaetan,

3. Bere Seme Jesukristo gure Jaunaren gañean, zeñ jaio zitzaion aragiaren araura Dabiden jatorritik,

4. Eta lendanaz autua izan zana, Jaungoikoaren seme izateko esku-biderik andienarekin, santifikazioko Espirituaren araura, bere bitzte berriagatik illen artetik,

5. Zeñaen bitartez guk artu degun grazia eta Apostolutza, fedearen mendera ekartzeko bere izenaren bertutez Erreñu guztiak,

6. Zeñaen artean zuek ere kontatuak zeraten, Jesukristok beratara ots egin dizutelako,

7. Erroman zaudeten guztiai, Jaungoikoak maitatuak eta santuak zeratenai, bokazioagatik, grazia eta pakea gure Aita Jaungoiko, eta Jesukristo gure Jaunagandik.

8. Aurrena nik nere Jaungoikoari eskerrak ematen diozkat Jesukristo gure Jaunaren bitartez zuek guztiokgatik, zuen fedea mundu guztitik adirazia dalako.

9. Jaungoikoak, zeñ espiritu guziarekin serbitzen dedan bere Semearen Ebanjelioaren predikazioan, testigantza ematen dit, aspertu gabe zuekin oroitzen naizala;

10. Eskatzen diodala beti nere orazioetan, bere borondatea baldin bada, eman dizadala era on bat, eta bide egoki bat, zuek ikustera joateko.

11. Zeren zuek ikusteko gura biziak dauzkat, zuei itsatsitzeko animako graziaren bat, zeñarekin sendotuak izango zeraten.

12. Au da, zuen artean arkitzen naizala, elkar gozatu gaitezen, zuek, eta nik daukagun fedearen bitartez.

13. Baña ez det nai, nere anaiak, jakin gabe egon zaitezten, maiz erabaki dedala zuekgana joatea, zuen artean animako fruturen bat ateratzeko, beste erreñuen artean bezela; baña orainartean ezin izan det.

14. Grieguai, eta Jentillai, eta Jakintsuái, eta Jakinezai zordun natzaie.



15. Ala (neregan danez) prestatua nago Ebanjelioa predikatzeke, Erroman bizi zeratenai ere.

16. Ez naiz ni Ebanjelioagatik lotsatzen; izanik bera, dan bezela, Jaungoikoaren birtutea, sinisten duten guziak salbatzeko, aurrena Juduak, eta gero Jentillak.

17. Eta Ebanjelioan da, non agertu zaigun, Jaungoikoagandik dato- rren justizia, zeñ fedetik jaiotzen dan, eskribitua dagoan bezela: Justoa fedeagatik bizi da.

18. Beragan agertzen ere da, Jaungoikoak zerutik aurtikiko duen ase- rrea, arako gizon, Jaungoikoaren egia bidegabero geldituta daukatene- n gaiztakeria eta injustizia guztiaren gañera.

19. Berak argiro ezagutu duten ezker, Jaungoikoagatik ezagutu dite- keana, Jaungoikoak agertu dielako.

20. Egiaz Jaungoikoaren perfekzio ikusieziñak, bere betiko eskubi- dea, eta bere Jaungoikotasuna ere, gure begien aurrean jarri dira, mundua e- gina izan zanetik onara berak egindako gauzak ematen diguten beren ezageragatik, eta ala, alako gizonak, aitzakiarik batere ez daukate.

21. Zeren Jaungoikoa ezagututa ere, etzuten alabatu Jaungoikoa bezela; eta etziozkaten ere eskerrak eman; baizik urgullututzen ziradela, beren gogorazioetan, zorabiatu ziran, eta beren biotz zentzugabea, illun- tasunez beteak gelditu zan.

22. Eta berak jakintsu batzuek ziradela esaten zutela, jakinez andi batzuek eginak gelditu ziran;

23. Allegatzeraño ematera, gizon ustelkor baten, eta egaztien, eta lauoñeko abereen, eta suga batzuen irudiai, Jaungoiko, usteldu ezditeke- nari zor zaion onra eta gloria.

24. Argatik Jaungoikoak utzi zituen beren biotz gaiztoaren, eta beren gura zikinen mendean, alako moduan, non, berak beren gorputzak lotsa- riz bete zituzten.

25. Berak, Jaungoikoaren egiaren lekuan gezurra jarri zutenak; ado- ratzen eta serbitzen zituztela Jaungoikoak egindako gauzak, serbitu bea- rrean beren Egillea, zeñ bakarrik dan, bedeikatua izateko diña gizaldien gizaldietan. Amen.

26. Argatik jarri zituen Jaungoikoak gura lotsagarrien mendean. Zeren beren emazteak berak, utzirik berezko legeak agintzen zuten modua, artu zuten, naturalezaren kontrakoa dan usadioa.

27. Era berean gizasemeak ere, utzirik berezkoa dan emakumeagaz- ko berezko elkartzera, izeki ziran abereen gisako amorioetan, egiten

zituztela zikinkeriarik lotsagarrienak, gizasemeak gizasemeakin, artzen zutela berak berakgan, beren biotzeko gogortasuna diña zan ordaña.

28. Zeren, nola etzuten nai Jaungoikoa ezagutu, Jaungoikoak jarri zituen, berak madarikatutako iritzi baten mendean, alako moduan, non, gizon baten diñak ez diraden gauzak egin zituzten.

29. Gelditzen ziradela beteak gaiztakeria guziakin, okerreriakin, for- nikazioakin, zikoiztasunakin, dongakeriakin, ondamuzkoz, erallaz, pake txarreko, engañalariz, biurriz, erriertariz,

30. Gezurasmatzalez, Jaungoikoaren etsaiz, iraintzalle urgullutsuz, arrokeriaz betetakoz, oitura gaiztoen biltzalez, beren gurasoen menpe- tasun gabekoz,

31. Arrazoi gabekoz, aiyarialariz, amoriogabekoz, leialtasun gabekoz, urrikaltasun gabekoz,

32. Zeñak Jaungoikoaren justizia ezagutzen zutela, etzuten alaere ezagutu, alako gauzak egiten dituztenak, betiko eriotzaren diñak diradela: eta ez bakarrik egiten dituztenak; baitaere egiten dituztenai, ontzat ema- ten dieztenak.

## BIGARREN KAPITULUA

1. Argatik ez daukazu iñundik ere aitzakiarik, o gizon, zerana zerala, besteak gaiztotzat juzgatzen dituzuna. Zeren besteagatik juzgu gaiztoa egiten badezu, onetan beronetan zu zerori kondenatzen zera, egiten ditu- zula zuk, o Judua, gaiztotzat ematen dituzun gauzak berak.

2. Badakigu Jaungoikoak kondenatzen dituela, bere egiaren araura, alako gauzak egiten dituztenak.

3. Zuk bada, o gizon, alako gauzak egiten dituztenagatik juzgu gaiz- toak egiten dituzuna; eta alaere zuk zerorrek gauza aiek berak egiten ditu- zuna, uste al dezu Jaungoikoaren juiziotik iges egin dezakezula?

4. Ala mezipreziatzen al dituzu bere ontasunaren, eta bere pazienzia- ren, eta bere sufrimendu luzearen aberastasunak?

5. Zu, kontrara, zure gogortasunarekin, eta zure biotz penitenziaren gorrotokoarekin zoaz montoituaz aserrea, eta aserre geiago, bengantzako egunerako, eta Jaungoikoaren juizio zuzenaren agertuerarako,

6. Zeñak ordaña emango dion bakoitzari bere egiteen araura,

7. Ematen diela betiko bizitza, obra onak egiten daukaten iraupena- ren bitartez, gloria, onra, eta betiko irauna gogotik billatzen dutenai:

8. Eta isurtzen duela bere sumintasan eta aserrea espiritu tematien gañera, zeñak ez dioten egiari oben egiten, baizik bidegabetasunarekin lantzantzen dirade.





9. Ala bada, atsekabeak eta antsiak itxedotzen die, nai ,ta nai ez, obra gaiztoak egiten dituen gizon guztiaren animari, aurrena Juduenari, eta gero Griegenari.

10. Baña gloria, onra, eta pakea izango dira, obra onak egiten dituen guztiari, herenziaz etorriko zaizkanak, aurrena Juduari, eta gero Grieguari.

11. Zeren Jaungoikoak, zeñ zelakoa dan ez duen begirutzen.

12. Eta ala legerik eskribituta iduki gabe, bekatu egin zutenak, galduko dira, legeak juzgatuak izan gabe, baña legea zeukatela bekatu egin zuten guztiak, legeak juzgatuak izango dirade.

13. Jaungoikoaren aurrean ez dirade justoak, legea aditzen dutenak; baizik legea kunplitzen dutenak, oiek justotua izango dirade.

14. Egiaz Jentillak lege eskribiturik iduki gabe, berenez daukaten arrazoiarekin, legeak agintzen dutena egiten dutenean; onelakoak legerik iduki gabetanik, berentzat lege bizia dirade.

15. Eta berak adirazten dute, legeak agintzen duena, beren biotzetan eskribitua dagoala, beren konzienziak testigantza ematen dien bezela, eta an beren barrenetan daukaten gogorazioak zenbait alditan salatzen dituztenean; beste zenbait alditan berriz, beren alde jartzen diradenean,

16. Ikusiko dan bezela egun artan, zeñean Jaungoikoak gizonen gauza ezkutuak juzgatuko dituen; Jesukristoren bitartez, nere Ebanjeliko dotrinaren araura.

17. Baña zuk Juduaren izenarekin bozkariotzen zerana, eta legean zure itxedopena ipiña daukazuna, eta Jaungoikoak adoratzena gozatzen zerana,

18. Eta bere borondatea ezagutzen dezuna, eta legetik erakutsiak arturik, zeñ dan obeago dakizuna,

19. Zuk urgulleriaz uste dezu zerala itsuen zuzentzallea, eta illuntanetan daudenen argia,

20. Ezjakinen erakuslea, aurren maesua, Moisesen legean, jakinduriaren, eta egiaen irudi ta ispillua daukana bezela.

21. Eta alaere zuk, besteari erakutsiak ematen diozkazunak; zuretzat erakutsi oiek ez dituzu artzen. Zuk, predikatzen dezun orrek, ez dala lapurretarik egin bear, zerorrek lapurretak egiten dituzu.

22. Zu, esaten dezuna, ez dala adulterioko bekatuak egin bear, adulterioko bekatuan erortzen zera. Zu, idoloakgatik gaizki esaten dezuna, idolo orien adoratzalle sakrilego bat zera.

23. Zuk, legean gozatzen zeranak, ausitzen dezula legea, Jaungoikoa desonratzen dezu.

24. (Zuekgatik Juduakgatik, eskribitua dagoan bezela, Jentillen artean, Jaungoikoaren izenagatik blasfemiak esaten dira.)

25. Gañera, zirkunzizioa da mesedegarria, legea zaitzen badezu; baña legearen auslea bazera, zirkunzidatua egon arren, Jaungoikoaren aurrean zera, gizon zirkunzidatu gabeko bat bezelakoa.

26. Kontrara, zirkunzidatu gabeko batek legerik aginteak zaitzen baditu, zirkunzidatu gabe egon arren, ez al da zirkunzidatua balitza bezela idukia izango?

27. Eta berez zirkunzidatu gabekoa danak, legea ongi zaitzen badu, ez al zaitu kondenatuko, zu, idukirik legearen letra eta zirkunzisia, lege auslea zerana?

28. Zeren Judua izatea ez dago kanpotikoa, eta aragian egiten dan zirkunzisia, ez da egiazkoa,

29. Baizik Judu egiazkoa da, bere barrenen alakoa dana, nola zirkunzisia egiazkoa ere dan, biotzekoa, egiten dana espirituaren araura, eta ez legearen letraren araura; eta Judu egiazko onek artzen du bere alabantza, ez gizonakgandik, baizik Jaungoikoagandik.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Zertan bada dira Juduak jentillak baño geiago? Edo, zer onera atezatzen da erri zirkunzidatua izatearekin?

2. Askok, aldamen guztietatik. Eta batezere Jaungoikoaren itzak izan zitzaiztelako beren kontura utziak.

3. Eta zer dago beretatik batzuek sinistu ez bazuten? Beren sinisgortasunak, Jaungoikoaren leialtasuna utsean utziko al du? Ez iñola ere.

4. Izanik Jaungoikoa dan bezela, egitia, eta gizon guztiak gezurtiak, Dabidek Jaungoikoari esan zionaren araura, Zu zure itzetan leiala zerala ezagutua izan zaitezten, eta garailari irten zaitezten, zugatik egiten diran erabakietan,

5. Eta baldin gure gaiztakeriak goratzen badu Jaungoikoaren justizia, zer esango degu? Ez al da Jaungoikoa izango (gizona bezela itz egiten det) bidegabea gu kastigatzean?

6. Ez dago orrelakorik. Bestela, nola Jaungoikoak mundu au juzgatu du?

7. Zeren baldin Jaungoikoaren egia, gloriak beteago agertu bada nere gaistakeriagatik, zergatik oraindikan bekataria bezela naiz ni kondenatua?

8. Eta, zergatik (gugatik blasfemiaz esaten duten bezela, eta batzuek esaten duten bezela guk esaten degula) zergatik ez degu guk gaitzen bat



gingo, emendik onen bat etorri dedin? Au esaten dutenak arrazoiarekin kondenatuak dirade.

9. Zer bada? Berak baño geiago al gera? inolaere ez. Zeren adirazi degun ala Juduak, nola Jentillak, guztiak daudela bekatuaren mendean,

10. Eskribitua dagoan bezela, Justorikan batere ez dago,

11. Ez dago zentzudunik, ez dago Jaungoikoa billatzen duenik.

12. Guztiak barreiatu ziran, guztiak gelditu ziran ezertarako ere gaiezak. Ez dago obra onik egiten duenik, ez da bat bakarra ere.

13. Beren eztarria obi idiki bat da, beren mingañakin baliatu dira naspillak asmatzeko, beren ezpañen barrenen suga lotarien pozoia daukate.

14. Beren aoa madarikazioz eta mingoiztasunez betea dago.

15. Beren oñak agudoak dira, odola isuritzera joateko.

16. Beren pauso guztiak zuzentzen dira, bestek menderatu, eta doakabeak egitera.

17. Zeren pakeko bidea beñere etzuten ezagutu.

18. Ez daukate ere beren begien aurrean Jaungoikoaren beldurrik.

19. Baña badakigu, legeak esaten dituen gauza guztiak, legearen jarraitzallai esaten dieztela, ao guztia mututua gelditu dedin, eta guztiak, ala Juduak, nola Jentillak obenduntzat Jaungoikoaren aurrean ezagutu ditezen,

20. Bere aurrean inor ere legeko obra utsagatik, ez dan ezkeru justotua izango. Zeren legeagatik legearen ezagera emana izan zaigu.

21. Orain Jaungoikoak lege gabe ematen duen justizia agertu zaigun: legeak eta profetak testigantza emana daukaten bezela.

22. Eta Jaungoikoak Jesukristoren fedeagatik ematen duen justizia au, da guztientzat, eta beragan sinistzen duten guztien gañerako, bada ez dago desberdintasunik batere Juduaren eta Jentillaren artean,

23. Zeren guztiak bekatu egin zuten, eta Jaungoikoaren graziaren premia guztiak daukate,

24. Bere graziarekin doan justotua izanik, Jesukristogan guztiak daukaten erredenzioaren bitartez,

25. Zeñ Jaungoikoak jarri zuen, izateko paketzeko doaña bere odolaren bertutez, fedearen bitartez, agertzeko berak ematen duen justizia, lengo bekatuak barkatzen dituela.

26. Jaungoikoak anbete pazienziarekin sufrituak, denbora onetan bere justizia agertzeagatik: andikan ikusi dedin, nola beragan justoa dan, eta Jesukristogan fedea daukana justotzen duela.

27. Orain bada, non dago, o Judua, gozatu eta bozkariotzeko daukazu bide eta gaia? Bertan utzia gelditzen da. Zeñ legeren bitartez? Obraen legearen bitartez, al ote? Ez. Baizik fedearen legearen bitartez.

28. Zeren uste degun, gizona justotua dala fede bizi batekin, legearen obrak gabe.

29. Zeren atzanean Jaungoikoa, Juduen Jaungoikoa bakarrik al da? Jentillen Jaungoikoa ere ez al da? Bai ziertoro, Jentillena ere.

30. Zeren bat da egiaz fedearen bitartez zirkunzidatuak justotzen dituan, eta fede arekin berarekin zirkunzidatu gabeak justotzen dituan Jaungoikoa.

31. Beraz guk, esango du norbaitek, desegiten degu Moisesen legea, Jesukristogan daukagun fedean? Ez dago orrelakorik; baizik legea sendotzen degu.

## LAUGARREN KAPITULUA

1. Zer on, esango degu bada, arkitu zuela gure Aita Abrahamek, aragiaren aldamenetik?

2. Zeren baldin Abraham justotu bazan kanpotiko obrakin; badu zergatik gozatu, baña ez Jaungoikoagan.

3. Zeren, Eskriturak zer esaten du? Abrahamek Jaungoikoari sinistu zion, eta au justiziatzat itsatsia izan zitzaion.

4. Zeren lana egiten duenari, ordaña etzaio ematen mesedez, zorra bezela baizik.

5. Kontrara, norbaiti legeak agintzen dituen obrak egin gabe, gaiztoa justotzen duenagan sinistuz, bere fedea justiziara itsatzen bazaio, au da, doako doai bat, Jaungoikoaren graziaren ongi iritziaren araura.

6. Dabidek ere ots egiten dion bezela doatsua, arako gizonari, zeñ justotzat artu duen Jaungoikoak obra gabe, esaten duela:

7. Zorionekoak aiek, zeñaen gaiztakeriak barkatuak diran, eta zeñaen bekatuak borrotatuak dauden.

8. Doatsua Jaungoikoak obenik ezarri ez dion gizona.

9. Eta, zorientasun au, zirkunzidatuentzat bakarrik al da? Ez al da zirkunzidatu gabekoentzat ere? Arestian esan degu, Abrahami fedea justiziatzat itsatsia izan zitzaioa.

10. Eta noiz itsatsia izan zitzaion? Zirkunzidatua izan, da gero, ala zirkunzidatua izan baño lenago? Ez zirkunzidatua izan eta gero, baizik zirkunzidatua izan baño lenago.

11. Eta ala berak artu zuen zirkunzisioko siñalea, fedearen bitartez irabazi zuen justiziako sillon bat bezela, oraindikan zirkunzidatu gabea zala,



izan zedin, zirkunzidatu gabe zeudela, sinisten zuten guztien aita, zeñai ere fedea justiziatzat itsatsiko zitzaien.

12. Baitaere izateko zirkunzidatuen aita, aiena esaten det, zeñak ez bakarrik artu duten zirkunzisiao, baitaere gure Aita Abrahamek oraindikan zirkunzidatu gabea zala, zeukan fedearen aztarnai jarraitzen diena.

13. Eta ala etzan izan legearen bertutez, baizik justiziako fedearen berturtez, Abrahami, edo geroko bere jatorriari egindako eskeñtza, mundua bere herenziatzat idukitzeko.

14. Zeren baldin Moisesen legeari dagozkietenak badira primuak, alperra izan zan fedea, eta Jaungoikoaren eskeñtza, bere osotasun gabe gelditzen da.

15. Zeren legeak agertzen du Jaungoikoaren aserrea, bera ausitzen dutenen kontra; legerik ez dagoan tokian berriz, legea ausitzerik ere ez dago.

16. Fedea da bada, zeñgatik gu primuak geran, izan gaitzen graziaz, eta Abrahamen seme guztiai egindako eskeñtzak irmoki iraun dezan, ez bakarrik legea artu dutenentzat, baitaere jarraitzen diotenentzat Abrahamen fedeari, zeñ guztien Aita dan.

17. (Eskribitua dagoan bezela: Jende askoren Aitatzat jarria zaukat.) eta ala da Jaungoikoaren aurrean, zeñgan sinistu duen, zeñak illai bizia ematen dien, eta ots egiten dien ez diraden gauzai; ematen dien bezela iraupena, izatea daukatena.

18. Berak itxedopenean sinistu zuen, itxedopenaren kontra, etorriko zala jende askoren Aita izatera, esana izan zizaion bezela: Zure jatorriaren etorkia, kontatu ezina izango da.

19. Eta etzan fedean desalaitu, eta etzion ere begiratu bere gorputz indargabetuari, izanik gutxigatik eun urtekoa, eta Sara ere aurdun gelditzeko legortua zegoala.

20. Etzuen berak iduki dudaren piskatxorik, eta etzan ere gutxitu bere itxedopena Jaungoikoak egin ziozkan eskeñtzetan; baizik sendotu zan fedean Jaungoikoari gloria ematen ziola:

21. Jakinik txit ongi, badaukala Jaungoikoak eskua, eskeñita daukan guztia kunplitzeko.

22. Argatik sinistzea, justiziatzat itsatsia izan zizaion,

23. Baña justiziatzat berari itsatsia izatea, beretzat bakarrik ez dago eskribitua,

24. Baizik guretzat ere, zeñai justiziara itsatsia izango zaigun, sinistzea, illaen artetik biztu zan Jesukristo gure Jaunagan.

25. Zeñ izan zan eriotzara emana gure bekatuakgatik, eta berriz biztu zan gu justoak egiteko.

## BOSTGARREN KAPITULUA

1. Justoturik bada jartzen geradela fedearen bitartez, bizi gaitzen pakean Jaungoikoarekin, Jesukristo gure Jaunaren bitartez,

2. Zeñaen bitartez ere, fedearen bertutez, daukagun tokia grazia onetan, zeñatan irmoki irautzen degun, eta gozatzen geran, Jaungoikoaren semeen gloria itxedotzen degula.

3. Baña ez bakarrik onetan gozatzen gera, baita atsekabeetan ere, jakinik atsekabeak pazienza dakarrela.

4. Pazienziak balio du gure fedea probatzeko, eta probak dakar itxedopena.

5. Itxedopen bat, utsik ematen ez duena, zeren Jaungoikoaren karidadea isuria izan da gure biotzetan, emana izan zagun Espiritu Santuaren bitartez.

6. Zeren, nondik dator, geundela gu oraindikan eriak bekatuarekin, denbora izendatuan gaiztoakgatik il zala?

7. Egiaz nekez arkituko da, justo batgatik il naiko duenik, balitzateke arkitzea norbait, justoagatik bere bizitza emango lukeana.

8. Baña zerk geiago argitzen duen Jaungoikoaren gudanako karidadea, da, bekatariak eta bere etsaiak giñanean, orduan izan zan, noiz denbora izendatuan,

9. Kristo gugatik il zan. Beraz gauza ziertoa da, orain bere odolarekin justotuak gaudenean, Jaungoikoaren aserretik bere bitartez libratuko gerala.

10. Baldin Jaungoikoaren etsaiak giñanean, berarekin paketuak izan bagiñan, bere semearen eriotzarekin, asko geiago, berarekin paketuak gaudela, bere bitartez, bera bizirik dagoala, salbatuko gaitu.

11. Eta ez da ori bakarrik, baitaere gozatzen gera Jaungoikoagan Jesukristo gure Jaunagatik, zeñaen bitartez iritxi degun orain paketuak izatea.

12. Argatik, nola gizon bat bakarraren bitartez sartu zan munduan bekatua, eta bekatuaren bitartez eriotza, ala eriotza ere zabalduaz zijoa gizon guztietan Adan bakar aregan, zeñgan guztiak bekatu egin zuten.

13. Ala bada, bekatua beti munduan egon da legearen denboraraño, baña nola orduan lege eskribiturik etzegoan, bekatua etzan itsatsitzen, lege ausleari bezela.



14. Alaere eriotzak erreinatu zuen Adangandik Moiseseraño, bekatu-rik egin etzuegagkan ere, ausitzen zutela Jaungoikoaren legea, Adanek egin zuenaren irudira, zeñ zan bigarren Adan, etorriko zanaren irudia.

15. Baña grazian ez da gertatu bekatuan bezela, zeren baldin bat bakarraren bekatuagatik asko il baziran, ugaritasun txitez andiangoarekin isuri da askoren gañera Jaungoikoaren urrikaltasun, eta doaia, gizon baten graziagatik, zeñ dan Jesukristo.

16. Ez dira berdiñak, graziako doai onetan iragotzen dana, eta bekatuan iragotzen dala ikusten deguna, zeren bekatu bakar batgatik Jaungoikoaren juizioan kondenatuak izan gera; berriz graziaren bitartez justotuak gera, anitz bekatu eginda gero.

17. Eta baldin bat bakarraren bekatuagatik eriotzak erreñatu badu gizon bat bakarragatik, zeñ dan Adan, asko geiago artzen dutenak graziaren, eta doaien, eta justiziaren ugaritasuna, erreñatuko dute bizitzan gizon bat bakarragatik, zeñ dan Jesukristo.

18. Ala bada, nola bat bakarraren gaiztakeriak ekarri zien gizon guztiai eriotzako kondenazioa, ala baten bakarraren justizia ere diña izan da, ekartzeko gizon guztiakgana, animari bizia ematen dion justifikazioa.

19. Bada nola gizon bat bakarraren desobedienciagatik asko gelditu baziraden bekatari eginik, ala bat bakarraren obedienciagatik ere, asko geldituko dira justotuak.

20. Egia da, gero legea etorri zala, eta beragatik ugaritu zala bekatua, legea kumplitu etzalako. Baña zenbat geiago ugaritu zan bekatua, anbat geiago ugaritu zan grazia.

### SEIGARREN KAPITULUA

1. Zer esango degu bada? Bekatuan iraungo al degu, onela grazia ugariago izan dedin?

2. Jaungoikoak nai ez dezala. Zeren onezkeroko bekatuak illak egonik, nola oraindik beragan egongo gera?

3. Ez al dakizute, Jesukristogan bataiatuak izan geran guziok, bere eriotzaren irudiarekin eta bertutez izan gerala?

4. Egiaz, bataioan gelditu gera obiratuak berarekin, bekatuak iltzen gerala, nola Jesukristo eriotzatik bizitzara biztu zan Aitaren gloriarako, gu ere biziera berri batekin ibilli gaitezen.

5. Baldin izan bagera berarekin txertatuak bere eriotzaren irudiaren bitartez, bere biztze berriarenak ere berdin izango gera.

serbitzen, gaiztakeriak egiteko; ala orain erabilli ditzatzutela justizia serbitzen, zuek santututzeko.

20. Zeren bekatuaren mendekoak ziñatenean, justiziaren agintaritzaren mendetik aterak (sic) bezela egon ziñaten.

21. Eta, zer frutu atera zenduten orduan, orain lotsatzen zaituzten gaiztakeria aietatik? Egiaz eriotza da, berak edozeñ eramaten duten itu eta atzena.

22. Orain berriz, bekatuaren mendetik irtenik, eta Jaungoikoaren serbitzari eginik zaudetela, artzen dezute frututzat zuen santutasuna, eta atzenean betiko bizitza.

23. Zeren bekatuaren ordañ ta saria, eriotza dan. Betiko bizitza berriz, da Jaungoikoaren grazia bat, Jesukristo gure Jaunagatik.

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Ez al dakizute, nere anaiak, (legearen berriak dauzkatenakin itz egiten det) legeak ez daukala gizona mendean, bizi dan artean baizik?

2. Ala andre ezkondu bat dago senarrari lotua matrimonioko legearekin, senarra bizi dan artean; baña bere senarra iltzen danean, soltatua gelditzen da, senarrarekin lotua zeukan legetik.

3. Argatik, bere senarra bizi dala, beste gizasemeren batekin biltzen bada, adulteratzat idukia izango da, baña senarra iltzen bada, lokarritik askatua gelditzen da, eta beste batekin ezkondu liteke, adultera izan gabe.

4. Ala zuek ere, nere anaiak, gelditu ziñaten illak legearentzat, Jesukristo gure Jaunaren gorputzaren eriotzaren bertutez; beste batenak izateko, au da, illaen artetik biztu zanarenak, guk frutuak Jaungoikoarentzat eman ditzagun.

5. Zeren aragiaren araura bizi giñanean, bekatuen gura gaiztoak mugituak legeagatik gure gorputzeko aldamenetako aragietan, erakusten zuten beren indarra, eman erazitzen ziezela frutuak eriotzarako.

6. Baña orain askatuak gaude lege onen lokarri, eriotzaren gaia zaneetik, zeñak lotuak genduzkan Jaungoikoa serbitu genezan espiritu berriaren araura, eta ez anziñako letraren araura.

7. Au ala izanik, zer esango degu? Legea, bekatuaren gai ta bidea al da? Ez det onelakorik esaten. Baña bai ez nuela bekatua ezagutu, legearen bitartez baizik, alako moduan, non, ez niekien nik nere gurak bekatuak zirala, legeak esan ez balu: Ez dezu gura gaiztorik idukiko.

8. Baña bekatuak, galerazitzen duen aginteagatik zirikatuta, biztu zituen nigan, gura gaizto mota guztiak. Zeren lege gabetanik, gura gaiztoko bekatua, illa bezela zegoan.



serbitzen, gaiztakeriak egiteko; ala orain erabili ditzatzutela justizia serbitzen, zuek santututzeko.

20. Zeren bekatuaren mendekoak zīñatenean, justiziaren agintaritzaren mendetik aterak (sic) bezela egon zīñaten.

21. Eta, zer frutu atera zenduten orduan, orain lotsatzen zaituzten gaiztakeria aietatik? Egiaz eriotza da, berak edozeñ eramaten duten itu eta atzena.

22. Orain berriz, bekatuaren mendetik irtenik, eta Jaungoikoaren serbitzari egirik zaudetela, artzen dezute frututzat zuen santutasuna, eta atzenean betiko bizitza.

23. Zeren bekatuaren ordañ ta saria, eriotza dan. Betiko bizitza berriz, da Jaungoikoaren grazia bat, Jesukristo gure Jaunagatik.

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Ez al dakizute, nere anaiak, (legearen berriak dauzkatenean itz egiten det) legeak ez daukala gizona mendean, bizi dan artean baizik?

2. Ala andre ezkondu bat dago senarrari lotua matrimonioko legearekin, senarra bizi dan artean; baña bere senarra iltzen danean, soltatu gelditzen da, senarrarekin lotua zeukan legetik.

3. Argatik, bere senarra bizi dala, beste gizasemeren batekin biltzen bada, adulteratzat idukia izango da, baña senarra iltzen bada, lokarritik askatua gelditzen da, eta beste batekin ezkondu liteke, adultera izan gabe.

4. Ala zuek ere, nere anaiak, gelditu zīñaten illak legearentzat, Jesukristo gure Jaunaren gorputzaren eriotzaren bertutez; beste batenak izateko, au da, illaen artetik bizitu zanarenak, guk frutuak Jaungoikoarentzat eman ditzagun.

5. Zeren aragiaren araura bizi giñanean, bekatuen gura gaiztoak mugituak legeagatik gure gorputzeko aldamenetako aragietan, erakusten zuten beren indarra, eman erazitzen ziezitela frutuak eriotzarako.

6. Baña orain askatuak gaude lege onen lokarri, eriotzaren gaia zaneetik, zeñak lotuak genduzkan Jaungoikoa serbitu genezan espiritu berriaren araura, eta ez anziñako letraren araura.

7. Au ala izanik, zer esango degu? Legea, bekatuaren gai ta bidea al da? Ez det onelakorik esaten. Baña bai ez nuela bekatua ezagutu, legearen bitartez baizik, alako moduan, non, ez niekien nik nere gurak bekatuak zirala, legeak esan ez balu: Ez dezu gura gaiztorik idukiko.

8. Baña bekatuak, galarazitzen duen aginteagatik zirikatuta, bizitu zituen nigan, gura gaizto mota guztiak. Zeren lege gabetanik, gura gaiztoko bekatua, illa bezela zegoan.

25. Bakarrik Jaungoikoaren graziak Jesukristo gure Jaunagatik. Ni nerau bada bizi naiz espirituaren aldamenetik Jaungoikoaren legearen mendean; eta aragiaren aldamenetik, bekatuaren legearen mendean.

### ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Ala bada, ez dago orain kondenzazioaren diña dan gauzarik batere, Jesukristogan berriz sortuak izan diranakgan, eta aragiaren araura ez dabiltzanakgan.

2. Zeren Jesusengan dagoan bizitzako espirituko legeak, bekatuko eta eriotzako legetik libratu nau.

3. Legeak egin etzakeana bada, egonik, zegoan bezela, aragiak erkiturik, egin zuen Jaungoikoak, bialdurik bere Semea bekatuaren antzeko aragiarekin, eta egirik bekatuagatik illa izan zedilla, ala bekatua aragian il zuen,

4. Legearen justifikazioak bere betetasuna gudan iduki zezan, bizi ez geradenok aragiaren araura, baizik espirituaren araura.

5. Zeren aragiaren araura bizi diradenak, gozatzen dirade aragiarenak diraden gauzaetan; spirituaren araura bizi diradenak berriz, spirituarenak diran gauzaen zaleak dira.

6. Aragiaren jakinduria, eriotza bat da; espirituko gauzaen jakinduria berriz, da bizitza eta pakea.

7. Zeren aragiaren jakinduria Jaungoikoaren etsaia dan; Jaungoikoaren legearen mendean ez dagoalako, eta egon ere ez litekealako.

8. Argatik aragiaren araura bizi diranak, Jaungoikoaren gogokoak ez litezke izan.

9. Baña zuek etzerate bizi aragiaren araura; baizik spirituaren araura, baldin Jaungoikoaren espiritua zuekin bizi bada. Baldin norbaitek Jesukristoren espiriturik ez badauka, au Jesukristorena ez da.

10. Baña zuekgan badago, gorputza illa egon arren bekatuagatik, espiritua justifikazioaren bertutez bizi da.

11. Eta arako Jaungoiko, bere Semea eriotzatik berriz bizitu zuenaren Espiritua, zuekgan bizi bada; Jesukristo eriotzatik berriz bizitu duenak berak, emango die bizia zuen gorputz ilkorrai ere, zuekgan bizi dan bere Espirituaren bertutez.

12. Ala bada, nere anaiak, zordunak gera, ez aragiari, aragiaren araura bizitzeko,

13. Zeren baldin aragiaren araura bizi bazerate, ilko zerate, baña baldin spirituarekin illerazitzen badiezute aragiaren obrai, biziko zerate.





14. Izanik gauza ziertoa, Jaungoikoaren Espirituarekin zuzentzen diranak, oriek Jaungoikoaren semeak diradela.

15. Zeren ez dezuten orain artu mendetasuneko espiritua, oraindik beldurrez bakarrik, mendekoak bezela, zuen lanak egiteko; baizik artu dezute semeen adopzioko espiritua, zeñaen bitartez deadar egiten degun itxedopen guztiarekin: Abba, au da, o nere Aita!

16. Eta arrazoiarekin, zeren Jaungoikoaren espiritua bera dago testigantza ematen gure espirituari, Jaungoikoaren semeak gerala.

17. Eta semeak izanik, primuak ere bagera, Jaungoikoaren primuak, eta Jesukristoren lagunak primitzan. Alaere berarekin padezitzeko, berarekin gero gozatuak izan gaitezten.

18. Zeren uste dedan, bizitza onetako penak, ez daukatela zer ikusirik batera, guban agertuko dan geroko gloriarekin.

19. Ala gauza guztiak daude, Jaungoikoaren semeen agerketa itxedotzen ansia andiarekin.

20. Zeren urgulleriaren mendean ikusten diran, ez borondatez, baizik alako mendetasunean jarri zituenagatik, itxedotzen dutela.

21. Berak ere usteltasunaren mendetasun orretatik libratuak izango diradela, Jaungoikoaren semeen aukera, eta gloriaren partale izateko.

22. Zeren badakigun, gauza guztiak daudela suspirioz, eta aurregiteko oñazeetan bezela.

23. Eta ez bakarrik berak, baita gu gerok ere, Espiritu Santuaren lenbizi dauzkagunok. Gu alaere suspirioetan ari gera, gure biotzaren barrendik, itxedotzen degula Jaungoikoaren semeen adopzioa, gure gorputzaren erredenzioa.

24. Zeren oraindikan ez gauden salbatuak, itxedopenean baizik. Eta ez da esaten, norbaitek daukala, ikusten duenaren itxedopenik. Zeren batek ikusten duena, nola itxedongo du?

25. Oraindikan bada, ikusten ez deguna itxedotzen badegu, ziertoro itxedotzen degu pazienziaren bitartez.

26. Eta gañera, Jaungoikoaren Espirituak gure argaltasunari laguntzen dio, zeren ez jakinik guk gure orazioetan zer eskatuko degun, ez nola orazioa egin bear dan, Espirituak berak egiten diozka Jaungoikoari gure eskariak, suspirio, adirazi ez litezkeanakin.

27. Baña barrenetako berriak dakizkianak, eta biotzak ikusten dituenak, ongi ezagutzen du, Espirituak zer nai duen, zeñak santuentzat ez duen ezerere eskatzen, Jaungoikoaren gogoko gauza ez danik.

28. Badakigu ere guk gauza guztiak zuzentzen dirala Jaungoikoa maitatzen dutenen onera, aienera, berak bere erabakien araura, santuak izateko ots egin dienera.

29. Zeren berak lendanaz berariaz ikusiak zeuzkanai, lendanaz eman ere ziezten bere doai ta graziak, bere semearen irudiarekin berdiñak izan zitezten, alako moduan, non, semea bera anaia askoren artean lenbisor-tua izan zedilla.

30. Eta lendanaz autu dituen oiei, ots egin ere die, eta ots egin die-nak justotu ere ditu; eta justotu dituenak gloriak bete ere ditu.

31. Zer bada, esango degu, oietara? Jaungoikoa gure alde badago, zeñ gure kontra?

32. Bere semeari ere barkatu etzionak, baizik gugatik guziokgatik eriotzara eman zuenak, nola berarekin gauza guztiak emango ez dizkigu?

33. Eta, nork Jaungoikoaren autuak salatu ditzake? Jaungoikoa bera da justotzen dituenak,

34. Zeñ ausartuko da berak kondenatzen? Jesukristo ez bakarrik il zanean gugatik; baitaere berriz biztu zanean; Jaungoikoaren eskuiko aldamenen eseria dagoanean; non gugatik erregutu ere gogotik egiten duenean.

35. Nork bada alde eraziko digu Kristoren amoriotik? izango al da atsekabea? Ala antsia? Ala gosea? Ala billostasuna? Ala irriskua? Ala per-sekuzioa? Ala ezpata?

36. (Eskribatua dagoan bezela: Zugatik, o Jauna, jarriak gera egunoro eriotzaren mendean; ardi, il tokirako daudenak bezela tratatuak gera)

37. Baña gauza guzi oien erdian, garaipenarekin ateratzen gera, maitatu ginduen aren bitartez.

38. Argatik ziertoro nago, ez eriotzak, ez bizitzak, ez Aingeruak, ez Prinzipaduak, ez Birtuteak, ez oraingoak, ez gerokoak, ez indarrak,

39. Ez gauzarik goratuenak, ez zakonenak, ez beste gauzak, iñoizere berezituko al gaituztela Jaungoikoaren amorio, Jesukristo gure Jaunagan dagoanagandik.

### BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Jesukristogan egia esaten dizutet, ez det gezurrik esaten, eta nere konzienziak testigantza ematen du Espiritu Santuagan,

2. Tristeza andi bat daukadala, eta beti daukadala nere biotza oñaze batean.

3. Zeren nai nuen, ni nerau Kristok madarikatua izatea nere anaiak-gatik, zeñak diraden nere anaiak aragiaren aldamenetik,





4. Zeñak Israeltarrak diran; zeñæen adopzioa dan semeena, baita gloria, eta elkartasuna, eta bere legeak, eta elizkizunak, eta doañak,
5. Zeñæen gurasoak diraden Aitaurrenak, eta zeñatatik daukan jatorria Jesukristo gure Jaunak berak aragiaren aldamenetik, zeñ dan Jaungoikoa, bedeikatua gauza guztien gañean beti eta beti. Amen.
6. Baña ez da orregatik Jaungoikoaren itza utsean geldituko, zeren Israelko jatorriko guztiak ez dira Israeltar egiazkoak.
7. Ez Abrahamen jatorrikoak diran guztiak ere, argatik bere semeak dira, zeren Isaakgatik esan zion Jaungoikoak: Zure jatorria kontatuko da.
8. Au da, aragiaren semeak diradenak, ez dirade oiek Jaungoikoaren semeak; baizik eskeñtzaren semeak diradenak, oriek Abrahamen jatorri-kotzat kontatzen dirade.
9. Zeren eskeñtzaren itzak oiek dirade: Denbora onetan beronetan etorriko naiz, eta Sarak seme bat idukiko du.
10. Baña ez bakarrik ikusi zan au Saragan, baita Rebekagan ere, zeñ gure Aita Isaakgandik bi semez aurdun gelditu zan.
11. Zeren oraindik jaio baño lenago, ez gauza onik, ez gaiztorik egin gabe (Jaungoikoaren gogoa aukera guztian kunplitu zedin),
12. Ez bere obrak ikusita, baizik Jaungoikoaren dei, ta elekzioagatik, esana izan zitzaion:
13. Andiagoak txikiagoa serbituko du, eskribitua dagoan bezela. Jakob maitatu nuen, Esauri berriz gorroto iduki nion.
14. Zer esango degu bada onetara? Arkitu al baliteke injustiziarik Jaungoikoagan? Ez dago orrelakorik.
15. Zeren Moisesi esan zion: Urrikalduko naiz, urrikaldu nai dedanarekin, eta biguñia izango naiz, nik nai dedanarekin.
16. Ala bada, ez da nai duenaren, ez korrika dijoanaren lana; baizik Jaungoiko, urrikaltasuna iduki nai duenarena.
17. Faraoni ere Eskrituran esaten dio: Jaso zindudan nere eskubidea zugaran erakusteko, eta nere izena lur guztian zebratua izan zedin.
18. Beraz nai duenarekin urrikaltzen da; eta nai duena gogortzen du.
19. Baña zuk esango didazu: Nola bada Jaungoikoa aserretzen da? Zeren, zeñ da bere borondateari aurkeztu dizaiokena?
20. Baña zeñ, zera zu, o gizona, Jaungoikoari kontuak artzeko? Lurrezko ontzi batek esan al lezakeo, egin zuenari, zergatik onela egin nazu?
21. Ez al dauka eskubidea eltzegilleak lurrezko ore bat batekin egiteko ontzi batzuek lan onratsuetarako, eta beste batzuek lan zatarretarako?

22. Iñork ezerere ez lezake esan, baldin Jaungoikoak erakutsi nairik batzuekgan bere aserre justoa, eta agertu nairik bere eskubidea, sufritzen baditu, diradenak aserreko ontzi, galmenerako prestatuak,
23. Bere gloriako aberastasunak agertzeko, diradenetan urrikaltasuneko ontziak, zeñak berak gloriarako prestatu zituen.
24. Eta ots egin die ara, guri bezela, ez bakarrik Juduen artetik, baita Jentillen artetik ere,
25. Oseasen aoz esaten duen bezela: «Ots egingo diot nere erria, nere erria etzanari, eta maitatua, maitatua etzanari, eta urrikaltasunaren gaia, urrikaltasunik iritxi etzuenari.
26. Eta gertatuko da, esana izan zitzaten lekuan: Zuek etzerate nere erria, an Jaungoiko biziaren semeen izena emango zaie».
27. Eta Isaiasek deadarrez esaten du Israelgatik: Israelko semeak balirade ere itsasoko ondarra eredu, beretatik gutxi batzuek bakarrik salbatuko dirade.
28. Zeren Jaungoikoak bere justizian erakarriko du bere erria gutxi batzuetara. Jaunak lurraren gañean bere itza laburtuko du txit.
29. Eta Isaiasen bitartez lendanaz adirazi zuen bezela: Ejerzitzen Jaunak jatorria utzi ez baligu, Sodoma eta Gomorraren antzekoak etorriko giñan izatera.
30. Zer esango degu bada? Justiziarri jarraitzen etzioten Jentillak, justiziarekin laztandu dirala; arako justizia fedetik datorrenarekin;
31. Israeltarrak berriz, justiziako legerari jarraitzen ziotenak, justiziako legera ez dira allegatu,
32. Eta, zergatik? Zeren etzuten billatu fedeagatik, legearen obra bakarrakgatik baizik. Eta eskandaluko arri batgan bezela, Jesusgan topo egin zuten,
33. Eskribitua dagoan bezela: «Ona non ni noan ipintzera Sionen beaztopo arri bat, eta eskandaluko arri bat sinisgogorrenzat, baño bera-gan sinistzen duenik batere ez da lotsatua geldituko».

## AMARGARREN KAPITULUA

1. Egia da, nere anaiak, nere biotzean sentitzen dedala berarizko eraspén bat Israelganako; eta txit gogotik eskatzen diot Jaungoikoari bere salbazioa.
2. Nik aitortzen diet, eta badakit, Jaungoikoaren gauzaen zela daukatela; baña ez jakinduriaren araurakoa.



3. Zeren ez ezagaturik Jaungoikoagandik datorren justizia, eta eginak egiten zituztela beren justizian jartzeko, ez dirade jarri Jaungoikoaren mendean, beragandik justizia au artzeko.

4. Zeren legea zuzentzen da Kristogana, beragan sinistzen duten guztiak justotzeko.

5. Zeren Moisesek eskribituta utzi zuen, legeak agintzen duen justizia kunplitzen duen gizonak, beratan bizitza arkituko duela.

6. Fedetik irtetzen dan justiziagatik berriz, oiek esaten ditu: Ez ezazu zure biotzean esan: Zeñ da zerura igo alko dana? Au da Jesukristori jetxie-razitzeko.

7. Edo, lizera zeñ jetxiko da? Au da, Kristo illen artetik bizitzara ateratzeko.

8. Zer da berriz Eskriturak esaten duena? Justifikazioa ematen duen itza zure ondoan dago, zure aoan dago, eta zure biotzean, itz au da, predikatzen degun fedeko itza.

9. Zeren baldin aitortzen badezu zure aoarekin Jesus Jauna, eta zure biotzean sinistzen badezu, Jaungoikoak illaen artetik berriz bizitu duela, salbatuko zera.

10. Zeren biotzez sinistu bear da justotzeko, eta fedea aitortu itzak in salbatzeko.

11. Argatik Eskriturak esaten du: Beragan sinistzen dutenetatik bate-re ez da lotsatua geldituko.

12. Ez dagoan ezker desberdintasunik Juduaren, eta Jentillaren artean, zeren bat dan guztien Jauna, aberatsa berari ots egiten dien guztientzat.

13. Zeren Jaunaren izenari ots egiten dion guztia, salbatua izango da.

14. Baña, nola ots egingo diote, beragan sinistzen ez badute? Edo, nola beragan sinistuko dute, bere gañean ez badute itzikan ere aditu? Eta, nola bere gañean itz egiten adituko dute, predikatzen ez bazaie?

15. Eta, nola predikatuko dute, iñork ere bialtzen ez baditu? Eskribitua dagoan bezela: Zer doatsua dan, pakeko Ebanjelioa adiratzten dutenen, on egjazkoak erakusten dituztenen etorrera!

16. Egia da, guztiak ez diotela Ebanjelioari obeditzen. Eta argatik Isaiasek esan zuen: O Jauna! Zeñ da, guri predikatzen adituta, sinistu duena?

17. Beraz fedea dator aditzetik, eta aditzea, Jesukristoren itzaren predikaziotik.

18. Baña, nik esaten det: Ez al zuten aditu? Bai ziertoro, beren boza lur guztitik zabaldu zan, eta beren itzak munduaren atzeneko mugetarañoekoetan adituak izan dirade.

19. Nik berriz esaten det: izango ote da Israel aditu ez duena? Ez ziertoro. Moises da Jaungoikoaren izenean lenengo esan zuena: Nik ekarriko zaituztet zeloz beteak jartzera erri batgatik, nereaz ez dan erri batgatik, eta egingo det, zentzu eta jakinduria gabeko erreñu bati, aserre eta ondanduz begiratu dizaiezutela.

20. Isaiasek Kristoren izenean jasotzen du boza, eta esaten du: «Arkitu ninduten, billatzen ez nindutenak, argiro agertu nintzaken, nigatik galdetzen etzutenai».

21. Eta kontrara, Israeli esaten dio: Egun guztian iduki nituen nere eskuak luzatuak, erri sinisgogor, eta kontra egiten zidan orreganontz.

## AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Esaten det bada: Jaungoikoak bere erria beragandik aurtikiko al du? Ez ziertoro. Zeren ni ere Israeltarra, Abrahamen jatorrikoa, Benjaminen tribukoa naiz.

2. Ez du Jaungoikoak beragandik aurtiki bere erria, zeñ lendanaz ezagutu zuen. Ez al dakizute zuek Eliasgatik Eskriturak esaten duena, nolako eran zuzentzen diozkan berak Jaungoikoari bere espa, ta kejak Israelen kontra, esaten duela:

3. O Jauna! Zure profetak il dituzte, zure aldareak beera aurtiki dituzte, eta ni bakarrik gelditu naiz, eta neri ere bizia kendu nai didate.

4. Baña, Jaungoikoak zer erantzuten deutsa? Gorde ditut zazpi milla gizon, Baalen idoloaren aurrean belaunikatu ez diradenak.

5. Alaxe bada denbora onetan ere, salbatu dirade gutxi batzuek, Jaungoikoak bere graziaren aukeraren araura gorde dituenak.

6. Eta baldin graziaz izan bada, jakiña da obrakgatik izan ez dala, bestela grazia ez liteke grazia izango.

7. Eta emendik, zer ateratzen da? Israelek, justizia billatzen zuenak, baña ez fedeagatik, ez duela arkitu, baña arkitu dute, Jaungoikoak autuak izan diradenak, gañerako guziak itsutuak gelditzen diradela.

8. Eskribitua dagoan bezela, Jaungoikoak gaurko eguneraño eman die zentzugabetasuneko espiritu bat, begiak ez ikusteko, eta belarriak ez aditzeko.

9. Dabidek ere esaten du: Betor izatera berentzat bere maiea lazo bat, beratan arrapatuak geldituko diradena; eta eskandaluko arri bat; eta ori beren kastigu justotzat.



10. Illundu bitez beren begiak alako moduan, non, ikusi ez dezaten; eta egin ezazu beren bizkarrak geroago makurtuagoak lurrerontz egin ditezela.

11. Oiek onela dirala, galdetzen det: Juduak eroriak al daude beñere ez jaikitzeke? Ez ziertoro. Baña beren erortzea etorri da izatera jentillentzat salbazioko gai ta bide bat, jentillen ejempluarekin beren fedea imitazera mugitu ditezen.

12. Baldin beren bekatua etorri bada munduko aberastasuna izatera; eta berak gutxituak izatea jentillen ondasunak, zenbat geiago izango da beren osotasuna?

13. Zuei esaten dizutet, o Jentillak! Jentillen Apostolua naizan ezke-ro, nere lantegia onratuko det.

14. Ikusteko ere iñolako moduz ekarri al ditzakedan nere jatorrikoak imitazio santu batera, eta beretatikoren batzuen bederik salbazioa irixitzen ote dedan.

15. Zeren baldin beretatik geienak aurtikiak izatea, munduaren elkartasunaren gai ta bidea izan bada, zer izango da beren konbersioa, baizik eriotzatik bizitzara biztutze berria?

16. Baldin lendabizikiak santuak badira, baita orea ere, eta sustraia santua bada, baita ostoa ere.

17. Eta baldin ostoren batzuek ebakiak izan badira, eta baldin zu, o jentillen erria, baso-olibo bat baño ez baziñan, beren tokian txertatua izan zera, eta oliboaren sustraitik igotzen dan ezadearen partale egina gelditu zera.

18. Ez daukazu zertan gozatu ostoen kontra. Eta gozaten bazera; jakin ezazu, etzerala zu sustraiari sendotasuna ematen diozuna, baizik sustraiak zuri ematen dizula.

19. Baña ostoa, esango dezu zuk, ebakiak izan dira, beren lekuan ni txertatua izateko.

20. Ongi dago, zure sinisgogortasunagatik ebakiak izan ziran. Baña zu orain zuaitezan irmoki ta sendo zaude, fedearen bitartez; baña etzaite urgullutu, baizik beldurrarekin bizi zaite.

21. Zeren baldin Jaungoikoak berezko ostoa ez bazien barkatu, beldur izan bear zera, zuri ere ez dizula barkatuko.

22. Begiratu zaiozu bada Jaungoikoaren ontasun, eta gogortasunari, gogortasuna, erori ziradenak ganako; eta Jaungoikoaren ontasuna zaganako; baldin irautzen badezu bere ontasunak jarri zaituen egoeran; beste-la zu ere ebakia izango zera.

23. Eta oraindik ere berak, sinisgogortasunean irautzen ez badute, beren ondoari berriz itsatsiak izango dira, bada almentsua da Jaungoikoa, berak berriz txertatzeko.

24. Zeren baldin zu ebakia izan baziñan baso-olibotik, zeñ dan zure berezko ondo, eta izatearen kontra olibo onean txertatua izan baziñan, zenbat arrazoe andiogoarekin txertatuak izango dira beren zuaitz ondoan, oliboaren beraren berezo ostoa?

25. Argatik ez det nai, nere anaiak, misterio au jakin gabe egon zaitzetzen (iduki ez ditzatzuten zuen zebeu gogorazio urgullutsuak) eta da, Israelen zati bat itsutasunean erori dala, aliketa Erreñuen betetasuna Elizan sartu dedin artean;

26. Orduan Israel guztia salbatuko da, eskribitua dagoan bezela. Aterako da Siondik, Jakoben gaiztakeria deserrituko duen Libratzallea.

27. Eta orduan egiztatuko da, nik berakin egin dedan elkartasuna, nik beren bekatuak kentzen ditudanean.

28. Egia da Ebanjelioaren gañean Jaungoikoaren etsiak dirala zuek-gatik, baña Jaungoikoaren aukeraren gañean txit maitatuak dirade beren gurasoak-gatik.

29. Zeren Jaungoikoaren doaiak eta deia, damutu ezindakoak diraden.

30. Zeren nola zuek ere beste denbora batean etzenduten Jaungoikoan sinistzen, eta orain urrikaltasuna iritxi dezuten ezker Juduen sinisgogortasunagatik.

31. Ala orain Juduak ere ondatuak daude sinisgogortasunean, zuek iritxi dezuten elkartasunari tokia emateko, berak ere bere denboran urrikaltasuna iritxi dezaten.

32. Gertatu zana da, Jaungoikoak utzi zuela, jende guztiak sinisgogortasunean nasturik gelditu zitezela, guztiakin bere urrikaltasuneko lanak egiteko.

33. O Jaungoikoaren jakinduriaren, eta adimen argitsuaren ondasunen zakontasuna! Zein aditu ezinak diran bere erabakiak, eta bere bideak billatu ezinak!

34. Zeren, Jaunaren asmazioak nork ezagutu ditu? Edo, bere konsejaria zeñ izan da?

35. Edo, nork berari lendanaz zerbait eman zion, bere ordaña eskatzeko?

36. Gauza guztiak dira bereak, eta guztiak dira beragatik, eta guztiak irautzen dute beragan. Beretzat izan bedi gloria beti, eta beti. Amen.



## AMABIGARREN KAPITULUA

1. Orain bada, nere anaiak, erregututzen dizutet txit gogotik Jaungoikoaren urrikaltasunagatik, eskeñi dizaiozkazutela zuen gorputzak oustria bizi, santu, eta bere begien gogoko bat bezela, zeñ dan arrazoezko doañ, eskeñi bear diozutena.

2. Eta etzaitzte bizi gizaldi onen araura, baizik egin ezazute aldakuntza bat onera, zuen espirituko berritazio batekin, azertatzeko zer dan Jaungoikoak zuekgandik nai duen gauza ona, bere gogokoa, eta osoa.

3. Argatik esaten dizutet txit gogotik zuei guztioi, doan emana izan zizadan langintzaren indarrez, zuen jakinduriak etzaitzate igo, bear dezuten baño toki goragora; baizik egon zaitzete, arrazoiak jartzen dizkizuten mugaen barrenen, Jaungoikoak bakoitzari eman dion fedeko neurriaren araura.

4. Zeren nola gorputz bakar batean asko aldamen dauzkagun, eta aldamen guztiak langintza bat ez daukaten,

5. Ala guk ere, asko izan arren, egiten degu Jesukristogan gorputz bakar bat, izanik guztiok elkarren zatiak.

6. Argatik doai desberdinak dauzkagu, eman zagon graziaren araura. Argatik profeziako doaia artu duena, ari bedi bere lanean fedearen araura.

7. Elizako langintzara Jaungoikoak ots egin diona, ari bedi bere langintzan; eta erakutsiak emateko doaia artu duenak, erakutsiak eman bitza.

8. Besteai erakutsi onak emateko doaia artu duenak, eman bizaizte; limosna ematen duenak, gogo onarekin eman beza; besteai agintzen die-nak, arretarekin agindu bizaie; urrikaltasuneko obrak egiten dituenak, egin bitza biotzez.

9. Amorioa benetakoa izan bedi. Gorrotatu itzatzute gauza gaiztoak; eta gauza onetara itsatsi zaitzete,

10. Samurtasunarekin, eta anaien karidadearekin elkar maitatzen dezutela. Batak besteak baño lenago onra, ta abegi onaren ezagungarriak elkarri ematen dieztezutela.

11. Zuen lanak egiten etzaitzte nagiak izan. Izan zaitzete espiritu berokoak, oroitzen zeratela, Jauna dala serbitzen dezutena.

12. Bozkariotu zaitzete ordañaren itxedopenarekin, izan zaitzete atsekabeen sufrituak, beti orazioan egon zaitzete.

13. Karidadetsuak, premian arkitzen diran santuai laguntzeko; pres-tatuak, premiatsuai ostatua emateko.

14. Bedeikatu itzatzute persegitzen zaituztenak, bedeikatu itzatzute, eta berakgatik ez ezazute itz gaiztorik esan.

15. Bozkariotu zaitzete, bozkariotzen diradenakin, negar egin ezazu-te, negar egiten dutenakin.

16. Iduki itzatzute beti gogorazio batzuek eta gura batzuek. Etzaitzete ari asmazio goratuetan, baizik beeratuakin elkartu zaitzete. Ez eza-zute uste izan zuen barrenetan, jakintsu andiren batzuek zeratela.

17. Iñori ere gaitza gaitzagatik etzaiozute itzuli, eta egin itzatzute obra onak, ez bakarrik Jaungoikoaren aurrean, baita gizon guztien aurrean ere.

18. Pakean bizi zaitzete, eta zuekgan danez, al baldin bada, gizon guz-tiak.

19. Zuek zerok etzaitzete bengatu, nere maiteak, baizik aserreari tokia eman zaiozute, zeren eskribitua dagoan: «Neri bengantza dagokit; nik justizia egingo det». Jaunak esaten du.

20. Baizik zure etsaia gose bada, jaten eman zaiozu, egarri bada, eda-ten eman zaiozu, zeren ori egiten badezu, bere buruaren gañera ikatz era-zekiak montoituko dituzu.

21. Etzaitzela gaitzak garaitua izan; baizik egin ezazu alegina, gaitza onarekin garaitzeko.

## AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Lagun guztiak egon bitez nagusiagoen mendean, zeren ez dagoan eskubide ta nagusitasunik, Jaungoikoagandik ez datorrenik, eta munduan dauden guztiak Jaungoikoak ipiñiak dira.

2. Argatik eskubidea daukanari aurkeztzen zaiona, Jaungoikoaren aginteari aurkeztzen zaio. Eta ala, onelakorik egiten dutenak, berak beren kondenzazioa irabazten dute.

3. Prinzipeen beldurrik berriz ez dago zertan iduki egiten diran obra onakgatik, gaiztoakgatik baizik. Nai dezu eskubidea daukanaren beldurrik batere ez idukitzea? Bada obra onak egin itzatzu; eta beragandik alaban-tzak idukiko dituzu,

4. Zeren Prinzipea Jaungoikoaren ministro zure onerako ipiñitako bat da. Baña obra gaiztoak egiten badituzu, ikaratu zaitzete; zeren ez darabil alperrik gerrian ezpata, izanik, dan bezela, Jaungoikoaren ministroa bere justizia egiteko, obra gaiztoak egiten dituenak kastigatzen duela.

5. Argatik bere mendean egon bear dezute, ez bakarrik kastiguaren beldurrez, baitaere konzienziagatik.

6. Gauza augatik kotizak pagatzen dieztezute; Jaungoikoaren minis-troak diradelako, zeñ onetan beronetan ere serbitzen duten.



7. Pagatu zaiezute bada guztiai, zor zaiotena: kotiza zor zaionari, kotiza, alkabala zor zaionari, alkabala, beldurra zor zaionari, beldurra, onra zor zaionari, onra.

8. Ez ezazute inorekin ere beste zorrik iduki, batak besteari zor diotzen amorioarena baizik, projimua maitatzen duenak, legea kunplitua daukan ezker.

9. Zeren Jaungoikoaren agindu oiek: «Ez dezu adulterioko bekaturik egingo, ez dezu inor ere ilko, ez dezu ezerere ostuko, gezurrezko testimoniorik ez dezu eregiko, zure projimoaren ondasunen gura bidebagakorik ez dezu idukiko, eta besterik balego ere, guztiak daude itz oietan sartuak: «Maitatuko dezu zure projimua zu zerori bezela».

10. Projimua maitatzen duenak, ez dio gaitzik egiten, eta ala legearen betetasuna, amorioa da.

11. Kunplitu dezagun bada bera; eta anbat geiago, badakigulako denbora gutxi daukagula, eta denbora dala onezker, gure lozorrotik esnatzeko, zeren gure salbazioa alderatuago daukagun, fedea artu genduanean baño.

12. Gauza txit aurreratua dago, eta alderatuaz dijoa, betiko irauneko eguna. Utzi ditzagun illuntasuneko obrak, eta argiaren armakin jantzi gaitzen.

13. Modu onarekin ibilli gaitzen, egunaz ibilli oi dan bezela, ez jateketetan, eta ordikerietan; ez zikinkerietan, eta nabarmenkerietan; ez burrukaetan, ez ondamenetan.

14. Baizik Jesukristo gure Jaunarekin jantzi gaitzen; eta etzaitztezte ajolaz ibilli, nola zuen gorputzaren gurak ase, ta beteko ote dituzuten.

### AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Tratatu ezazute karidadearekin, oraindikan fedean erkia dana, berarekin iritzien gañean ezbaietan ibilli gabe.

2. Zeren bada bat uste duena, guztia jatea zillegi dala, eta bitartean argalak ez ditu barazkiak baño jango.

3. Guztitik jaten duenak ez beza mepreziatu, guztitik jaten ausartzen ez dana, eta guztitik jaten ez duena, ez bedi sartu, guztitik jaten duena juzgatzen.

4. Zeñ zera zu, beste baten mendekoa dana juzgatzeko? Erortzen bada, edo zutik sendo badago, au bere nagusiar dagokio: baño zutik egongo da, zeren Jaungoikoa almentsua dan bera sendo idukitzeko.

5. Baitaere batarentzat ez da egun bata bestea bezelakoa, eta beste batek egun guztiak berdintzat dauzka. Bakoitzak egin beza ongien deritzana.

6. Egunak desberdintzat dauzkanak Jaunaren borondatea kunplitzeko egiten du, eta guztitik jaten duenak, Jaunak ala nai duelako egiten du, bada Jaungoikoari eskerrak ematen diozka. Eta janari batzuek jan nai ez dituenak, Jaungoikoatik egiten du; eta ala, Jaungoikoari eskerrak ematen diozka.

7. Dana dala, gutatiko bat ere ez da beretzat bizi; eta gutatiko bat ere ez da beretzat iltzen.

8. Nola Jaungoikoarenak geran, bizi bagera Jaungoikoarentzat bizi gera; eta iltzen bagera, Jaungoikoarentzat iltzen gera. Ala bada, naiz bizi gaitzela, naiz il gaitzela, Jaunarenak gera.

9. Zeren onetarako Kristo il zan, eta berriz biztu zan gu erredimitzeko; eta idukitzeko eskubide oso bat bizien eta illaen gañean.

10. Orain bada; zergatik zuk, oraindik legeari jarraitzen diozunak, zure anaia kondenatzen dezu? Zergatik zuk jarraitzen ez diozunak, mepreziatzen dezu zure anaia oraindik gordetzen duena? Ez ezazu juzgatu, zeren guztiok Jesukristoren tribunalaren aurrean agertuko gera.

11. Zeren eskribitua dagoan: Nik neraugatik juramentu egiten det, esaten du Jaunak, nere aurrean belaun guztia tolestuko dala, eta mingañ guztiak, ni Jaungoikoa naizala aitortuko duela.

12. Eta ala gutatik bakoitzak, bere kontua Jaungoikoari emango dio.

13. Ez dezagun bada onezker batak bestea juzgatu, baizik gogoratu ezazute, eta arreta andi bat ipiñi anaiari beaztoporik, eta eskandalurik ez jartzeko.

14. Nik badakit eta ziertotzat daukat, Jaun Jesusen dotrinaren araura, gauzarik batere ez dala berez zikina, baizik dala zikina alakotzat daukanarentzat.

15. Baña baldin jaten dezunagatik zure anaia tristetzen bada, eta eskandalizatu; zuk egiten dezuna ez da karidadearekin elkartzen. Zure janariagatik ez ezazu galdu, beragatik Kristo il zana.

16. Ez bedi bada biderik eman, gure anaiagatik blasfematzeko.

17. Zeren Jaungoikoaren erreñua ez dagoan au, edo hura jatean, edo edatean; baizik justizian, pakean, eta Espiritu Santuaren gozotasunean.

18. Bada onela Kristo serbitzen duenak, Jaungoikoaren gogoko dana egiten du, eta gizonak ontzat ematen diote.

19. Egin ditzagun bada, pakea idukitzeko laguntzen duten gauzak, eta zaitu ditzagun, elkarri onerako bidea emateko serbitu ditzakenak.





20. Janari batgatik ez ezazu Jaungoikoren obra desegin. Egia da janari guztiak garbiak diradela; baña gaizki egiten du gizonak, besteen gaitzerako bidearekin jaten badu.

21. Eta kontrara, ongi egiten du aragirik ez jatean, eta ardorik ez edatean, eta ez beste gauzarik ezartean, zeñgatik bere anaia ofenditzen dan, edo eskandalizatzen dan, edo fedean argaltzen dan.

22. Fede argitu bat al daukazu? iduki ezazu zuretzat Jaungoikoaren aurrerako, eta bere erara bizi zaite. Doatsua, erabakitzen duen gauzan konzienziak kondenatzen ez duena.

23. Baña janariak desberdintzat dauzkanak, bere konzienziaren kontra jaten badu, berak kondenatua da. Eta fedearen, edo konzienziaren iriztaren araukoa ez dan guztia, bekatu da.

### AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Eta guk fedean sendoago geranok, sufritu bear ditugu, sendotasun gutxiago daukatenean argaltasunak, eta ez egin guri gogoak ematen diguna.

2. Kontrara, zuetatiko bakoitzak egin bitza aleginak projimoari gusto emateko gauza onean, eta bera obatu dezakeanean.

3. Zeren Kristok etzituen egin bere gogoko gauzak, baizik, eskribitua dagoan bezela, bere Aitari esaten zion: «Zuri iseka egiten zizutenean lotsariak, nere gañera erori ziraden».

4. Zeren liburu santuetan eskribituak izan diran gauza guztiak, guri erakutsiak emateko eskribituak izan dira, pazienziaren, eta Eskrituretako gozotasunen bitartez, itxedopenean iraun dezagun.

5. Pazienziako eta gozotasuneko Jaungoikoari nai izan dizaiola, zuei grazia ematea, egotea beti zuen artean elkarturik iritzi eta guraetan, Jesukristoren espirituaren araura,

6. Ez idukirik biotz bat, eta ao bat baizik, alabatu dezazuten elkartuta Jaungoikoa, Jesukristo gure Jaunaren Aita.

7. Argatik elkarri sufritu zaiozute, Kristok sufritu zizuten bezela, eta artu zinduzten amorioarekin Jaungoikoaren gloriarako.

8. Esaten det bada, Jesukristo izan zala zirkunzidatuentzat ministroa, Jaungoikoa egiatia dala ezagutua izan zedin, onela berak gurasoai egindako eskeñtzak betetzeko.

9. Jentillak berriz alabatu bear dute Jaungoikoa, bere urrikaltasunagatik, eskribitua dagoan bezela: «Argatik zabalduko ditut, o Jauna, erreñuen artean zure alabantzak; eta zure izenaren gloriari salmoak kantatuko diozkat».

10. Eta beste toki batean: «Bozkariotu zaitzete erreñuak, bere erria diran Juduak lagun dituzutelako».

11. Eta leku batean: «Alabatu ezazute jende guztiak Jauna, eta erri guztiak goratu ezazute».

12. Eta Isaiasek ere esaten du: «Jeseren jatorritik jaioko da, erreñuak gobernaturiko dituen, eta erreñuak beragan ihedongo dute».

13. Gure itxedopeneko Jaungoikoak bete zaitzate gañez egin arteño, gozotasun mota guziz, eta pakez zuen sinistean, zuen itxedopena beti geiago ta geiago azi dedin Espiritu Santuaren bertutez.

14. Nigan danez, uste osoa daukat, nere anaiak, karidadez beteak zaudetela, eta bear dituzuten argitasun guztiak daukazutela, elkarri erakutsiak emateko.

15. Alaere oiek eskribitu dizkizutet, o anaiak, ta bear bada, ausartasun piska bat geiagorekin, oroitueraizitzeko zuei, lendikan ere badakizutena, Jaungoikoak egin didan graziaren araura.

16. Izateko Jesukristoren ministroa erreñuen artean Jaungoikoaren apaiztzako lanetan aritzeko bere gogokoa izan dedin Jentillen eskeñtza, Espiritua santutua egon ezker.

17. Arrazoiarekin bada gozatu niteke Jesukristogan Jaungoikoaren obra ongi irten dalako.

18. Zeren ez naizan ausartatuko ezertxoere itz egiten, baizik Jesukristok nere bitartez egin duena, bere obediencia jentillak ekartzeko, itzarekin eta obrakin;

19. Mirarien eta gauza arrigarrien indarrez, eta Espiritu Santuaren bertutearekin, alako moduan, non, Jerusalem asita, jiran ibilirik aldamen guztietatik Illirikorano Jesukristoren Ebanjelioz bete det.

20. Gañerakoan, nere lantegia kunplitzean, begiratu det ajolaz, ez predikatze Ebanjelioa, Jesukristoren izena ezagutua zan tokietan; beste baten zimenduaren gañean etxea egin ez nezan, egiztazten dala, Eskriturak onela esaten duena.

21. Bere berririk etzeukatenak, ikusiko dute, eta aditu etzietenak, adituko diote.

22. Onek galerazi dit asko alditan, zuek bisitatzera joatzea: eta au da orainarterano gelditu nauena.

23. Baña orain, nola ez daukadan alderri oietan gelditu bearrik; eta asko urte izanik zuek ikusteko gurak dauzkadala;

24. Asitzen dedanean Españiarako bidea, itxedotzen det, iragokiñaz, eta bidebatez zuek bisitatzera iragotzea, eta zuek lur artara zuzenduak izatea, egonik zuekin denboratsu batean.





25. Orain bada banoa Jerusalemenera, santuak serbitzera.
26. Zeren Mazedoniak eta Akaiak ontzat iduki dute zerbait biltzea, Jerusalemgo santuen arteko beartsuak emateko.
27. Ala uste izan dute, eta egiaz beren zorkideak dirade. Zeren baldin Jentillak Juduen animaetako ondasunen partaleak eginak izan badirade; aiek ere egin bear dituzte oiek, beren lurreko ondasunen partaleak.
28. Kunplitzen dedanean bada eginkizun au, eta karidadeko frutu au, berai emanik; zuen artetik Españiara joango naiz.
29. Eta badakit ziertoro, zuekgana allegatzen naizanean, nere etorre-  
ra Jesukristoren Ebanjelioaren bendizio ugari batekin lagundua izango dala.
30. Bitartean, nere anaiak, erregututzen dizutet Jesukristo gure Jaunagatik, eta Espiritu Santuaren karidadeagatik, lagundu dizadazutela, nigatik Jaungoikoari egiten diozkazuten orazioetan,
31. Judean dauden Judu sinisgogorragandik libratua izan nadin, eta nere langintzako eskeñtza, Jerusalemgo santuak ongi artua izan dedilla.
32. Onela zuek ikustera bozkarioz joan nadin, eta gozatu nadin zuekin batean, Jaungoikoak nai badu.
33. Bitartean pakeko Jaungoikoa zuekin guztiokin izan dedilla. Amen.

### AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Erregututzen dizutet, begiratu dezazutela Febe gure arrebagatik, zeñ ari dan Zenkreako elizako lanetan,
2. Artu dezazuten Jaunaren amorioagatik santuak artu bear diran bezela; eta lagundu dizaiozuten, zuen premian arkitzen dan edozeñere gauzatan; zeren berak ere askorekin, eta batezere nerekin ala egin du.
3. Eskumuñak eman zaiozkazute Priska eta Agilari, zeñak Jesukristoren serbitzoan nerekin lanean ari ziraden.
4. (Zeñak neri bizia gordetzeagatik makurtu zituzten beren buruak. Argatik eskerrak ematen dieztet; ez bakarrik nik, baita jentillen eliza guztiak ere).
5. Eta berakin batean eskumuñak eman zaiozkazute beren etxeko elizari. Eskumuñak Epeneto, nere maiteari, Asian Kristoren lenbiziari.
6. Eskumuñak Mariari, zeñak zuen artean, asko lan egin duen.
7. Eskumuñak Androniko, eta Junia, nere aide, ta karzelako lagunai, zeñak Apostoluen artean argitsuak diraden; eta zeñak nik baño lenago sinistu zuten.

8. Gorantziak eman zaiozkazute Anpliatori, zeñ txit gogotik Jaungoan maitatzen dedan.
9. Gorantziak Urbano, Jesukristogan gure lanetako lagunari, eta Estakis nere maiteari.
10. Eskumuñak Apeles, Jesukristoren serbitzari probatu ta leialari.
11. Eskumuñak Aristoboliren familiakoai. Eskumuñak Herodion nere aideari. Eskumuñak Narzisoreren etxeko, Jaunagan sinistzen dutenai.
12. Eskumuñak Trifena, eta Trifosari, zeñak ari diran lanean Jaungoikoaren serbitzoan. Eskumuñak Persida gure txit maiteari, zeñak ere Jaunagatik lan txit asko egin duen.
13. Eskumuñak Rufo, Jaunaren autuari, eta bere amari, zeñ nere ere dan.
14. Eskumuñak Asinkritori, Flegonteri, Hermasi, Patrobasi, Hermesi, eta berakin bizi diran anaiak.
15. Eskumuñak Filologori, eta Juliari, ta Nereori, eta bere arrebari, eta Olinpiaderi, eta berakin dauden Santu guztiak.
16. Agurrak egin zaiozkazute batzuek besteai karidadeko musu santuarekin. Zuei Kristoren Eliza guztiak agurrak egiten dieztezute.
17. Eta erregututzen dizutet, nere anaiak; alde egin dezazutela, zuen artean erriertak ta eskandaloak ipintzen dituztenagandik, zuek ikasi dezuten dotrinaren kontrako erakutsiak ematen dituztela, eta beren lagunak etzaitzte izan:
18. Zeren onelakoak ez duten serbitzen Jesukristo gure Jauna, bakoitzak bere sabela baizik, eta itz labañakin ta losengakin, biotz tolesgabeak engañatzen dituzte.
19. Zuen obediencia fedeari, aldamen guztietatik otpatsua egin da. Argatik bozkariotzen naiz ni zuekin. Baña nai det, jakintsuak izan zaitezte-  
tela onerako, eta tolesgabeak txarrerako.
20. Pakeko Jaungoikoak, bereala zeatu dezala Satanaz zuen oñazpian. Jesukristo gure Jaunaren grazia zuekin izan dedilla.
21. Eskumuñak ematen dizkizute Timoteo, lanean nere lagunak, eta Luzio, eta Jason, eta Sosipatro nere aideak.
22. Diosal egiten dizutet Jaunagan, nik Terzio, karta au eskribitu dedanak.
23. Agur egiten dizute Kaio nere ostatariak eta Eliza guztiak. Agur egiten dizute Erasto, erriko dirugordetzalleak, eta gure anaia Quartok.
24. Jesukristo gure Jaunaren grazia zuekin guziokin izan dedilla. Amen.



25. Gloria, almentsua danari zuek sendotzeko nere Ebanjelioan, eta Jesukristoren dotrina, nik predikatzen dedanean, erredenzioko misterio-ko errebelazioaren araura, misterio bat, irago diraden gizaldi guztietan ezkutatua egonik,

26. Orain izan dana agertua profetaen eskrituretatik, Jaungoiko betikoaren erabakiaren araura, eta erri guztietara berri au etorri da, fedeari obeditu dizaien.

27. Jaungoikoari, esaten det, zeñ bakarrik dan jakintsua, berari onra eta gloria Jesukristogatik mendez mende. Amen.

## SAN PABLO APOSTOLUAREN LENBIZIKO KARTA KORINTIOARRAI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo, Kristoren Apostoluak, Jaungoikoak ots egin ziolako, eta bere borondateagatik; eta Sostenes gure anaiak,

2. Korintion dagoan Jaungoikoaren Elizari, Jesukristok santututako kristauai, beren fedeagatik santuak ots egiten zaienai, eta edozeñere tokitan dala, Jesukristo gure Jaun, beren, eta gure Jaunaren izenari ots egiten dioten guztiai.

3. Grazia zuei, ta pakea, gure Aita Jaungoiko, eta Jesukristo gure Jaunaren izenean.

4. Beti eta beñere aspertu gabetanik nago ni, zuekgatik Jaungoikoari eskerrak ematen, Jaungoikoaren grazia, Jesukristogan emana izan zatzutenagatik,

5. Zeren beragan aberastuak izan zeraten, animako ondasun mota guztiakin; eta itzeko eta jakinduriako doaii dagozkiten guztiakin.

6. Ala Jesukritoren testigantza zuekgan egiztutzen dala;

7. Alako moduan, non, ez dakizutela ezertxoere, grazia batetik ere faltatu, zuei, Jesukristo gure Jaunaren agerketa itxedotzen zaudetenai,

8. Zeñak sendotuko ere zaituzten atzeneraño, Jesukristo gure Jaunaren etorrerako egunean, obenikan gabe arkituak izan zaitetzen.

9. Zeren Jaungoikoa, zeñak ots egin dizuten, bere seme Jesukristo gure Jaunaren lagunak izatera, bere eskeñtzetan leiala da.

10. Berriz txit gogotik erregututzen dizutet, nere anaiak, Jesukristo gure Jaunaren izenagatik, guztiok izketa bat iduki dezazutela, eta ez dedilla zuekgan arkitu erriertarik, ez ezbairik, baizik bizi zaitetzela txit elkartuak, irtzi batean, eta uste batean;

11. Zeren adirazi didate, nere anaiak, Kloeren familiaren bitartez, zuen artean erriertak daudela.

12. Esan nai det, zuetatiko bakoitzak esaten duela: Ni naiz Pablarena, ni Apolorena, ni Zefasena, ni Kristorena.

13. Zer bada? Kristo zatitua al dago? Eta, Pablo zuekgatik gurutziltzatua izan al da? Edo, Pablaren izenean bataiatuak izan al zerate?

14. Orain au dakidanean, Jaungoikoari eskerrak ematen diozkat, zue-  
tatiko bat ere ez dedalako nik nerez bataiatu, Krispo ta Kaio baizik.



15. Inork ere esan ez dezakean, nere izenean bataiatuak izan zeratela.
16. Egia da, Estefanasen familia ere bataiatu nuela, gañerakoan ez naiz oroitzen, nik dakidanik besterik batere bataiatu dedala.
17. Zeren Kristok ez ninduen bialdu bataiatzera, baizik Ebanjelioa predikatza, eta Ebanjelioa predikatza, ez itz ederrakin, Jesukristoren gurutzea utsean gelditu ez dedin.
18. Egiaz gurutzearen predikazioa da zorakeria bat, galtzen diradenen begientzat, baña salbatzen diradeneztat, au da, guretzat, Jaungoikoren bertute eta eskubidea da.
19. Ala eskribitua dago: «Galduko det jakintsuen jakinduria: eta aurtikiko det zentzudunen zentzua».
20. Non dira jakintsuak? Non Eskribak? Non orrako munduko gauzaen esaminatzalleak? Ez al da egia, Jaungoikoak munduko jakinduria erotu duela?
21. Zeren munduak Jaungoikoren jakinduriaren obrak ikusita ere, etzuen ezker Jaungoikoa ezagutu, munduko jakinduriaren bitartez, nai izan zituen Jaungoikoak salbatu, beragan sinistzen zutenak, Jaungoiko gurutziltzatu baten predikazioaren zorakeriaren bitartez.
22. Ala Juduak mirariak eskatzen dituzte, eta Grieguak jakinduria billatzen dute.
23. Guk berriz, Kristo gurutziltzatu predikatzen degu, Juduentzat eskandalua, eta Jentillentzat zorakeria.
24. Fedea artzera ots egin zaioteneztat berriz, ala Juduentzat, nola Grieguentzat, Kristo Jaungoikoren berturtea, eta Jaungoikoren jakinduria da.
25. Zeren Jaungoikoren misterioetan zorakeria bat dirudiana, gizon guztiena baño jakinduria andiagoa da, eta Jaungoikoagan argaltasuna dirudiana, gizonen sendotasun guztia baño sendoagoa da.
26. Bestela, ikusi ezazute, nere anaiak, zeñ diran zuen artetik federa ots egin zaienak, nola etzeraten asko jakintsuak aragiaren aldamenetik, ez asko almentsuak, eta ez ere asko odol argitsukoak,
27. Baizik Jaungoikoak autu ditu ezjakinak munduaren araura, jakintsuak lotsatzeko, eta Jaungoikoak autu ditu munduko erkiak, sendoak lotsatuak jartzeko.
28. Eta munduko gauza zatar, eta mezpreziagarriak, eta ezerere etzradenak, irudian andiak diradenak desegitzeko.
29. Gizasemerik batere, bere aurrean ez dedin urgulleriaz gozatu.

30. Eta Jaungoikoren beraren egiera au gatik, zaudete zuek Jesukristogan, zeñ Jaungoikoak jarri zuen guretzat jakinduriako iturritzat, eta justiziatzat, eta santutueratzat, eta gure erredenziotzat.

31. Eskribatua dagoan bezela: Gozaten dana, Jaunagan gozatu bedi.

## BIGARREN KAPITULUA

1. Ni bada, nere anaiak, zuekgana joan nintzanean Jesukristoren testigantza predikatza, ez nintzan joan izketa goratuakin, ez munduko jakinduria andiarekin,
2. Uste izan dedan ezker, zuen artean ez dakidala beste gauzarik, baizik Jesukristo, eta au gurutziltzatu.
3. Eta egon nintzan artean or zuekin, beti egon nintzan txit eroria, beldur askorekin, eta ikara askorekin.
4. Eta nere izketa eta nere predikazioa etzan izan munduko jakinduriako itz bizi, eta eragillakin; baña bai Jaungoikoren espirtu eta bertutearen ezagungarri argiak,
5. Zuen fedea egon ez dedin gizonen jakindurian, baizik Jaungoikoren eskubidean.
6. Alaere jakinduria erakusten degu perfektoen artean, baña ez gizaldi onetako jakinduria, ez gizaldi onetako prinziipea, zeñak desegiten diraden,
7. Baizik Jaungoikoren jakinduria predikatzen degu, enkarnazioko misterioan; jakinduria ezkutatu, zeñ Jaungoikoak lendanaz prestatu zuen, gizaldiak baño lenagotik bere gloriarako,
8. Jakinduria bat, gizaldi onetako prinziipe batek ere aditu ez duena, zeren aditu balute, gloriako Jauna beñere etzuten gurutziltzatu,
9. Eta zeñgatik eskribitua dagoan: «Ez begik ikusi du, ez belarrik aditu du, ez gizasemen gogoraziotik irago da, nolako gauzak dauzkan Jaungoikoak prestatuak, bera maitatzen duteneztat.
10. Guri alaere agertzen digu Jaungoikoak bere espirtuaren bitartez, bada Jaungoikoren espirtuak gauza guztiak dakizki, Jaungoikoarekin itsasienak daudenak ere.
11. Zeren, zeñ gizonak dakizki gizonaren gauzak, bere barrenen dagoan gizonaren espirtuak baizik? Ala Jaungoikoren gauzak inork ere ez ditu ezagutu, Jaungoikoren Espirtuak baizik.
12. Guk bada ez degu artu mundu onetako espirtua, Jaungoikoarena dan Espirtua baizik, ezagutu ditzagun Jaungoikoak agertu dizkigun gauzak.



13. Zeñak argatik tratatzen ditugun, ez munduko jakinduriako itz apainduakin, baizik Jaungoikoaren espirituak erakusten digun bezela, espirituko gauzak espiritukoakin iduritzen ditugula.

14. Zeren gizon abereak ez dituen ezagutzen, Jaungoikoaren Espirituarenak diran gauzak, bada beretzat guztia da erokeria bat, eta ezin aditu ditu, espirituko argi batekin ezagutu bear diradelako.

15. Espiritua daukanak, guztia juzgatzen du; eta bera iñork ere ez dezake juzgatu.

16. Zeren, Jaunaren adimena nork ezagutu du, berari erakustiak emateko? Baña guk Kristoren Espiritua daukagu.

### IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta nik, nere anaiak, ezin itz egin dizutet espirituzko gizonai bezela, baizik oraindik aragizkoai bezela. Eta argatik, Jesukristogan aur batzuei bezela.

2. Bazkatu zaituztet eznearekin, eta ez janari sendoakin, zeren oraindikan, beren diñak etziñaten, eta orain ere etzerate, bada oraindikan aragizkoak zerate.

3. Egiaz, baldin zuen artean erriertak eta zeloak badaude, ez al da gauza argia, oraindikan aragizkoak zeratela, eta gizonak bezela bizi zeratela?

4. Zeren batek esaten badu: Ni Pablarena naiz, eta besteak, ni Apolorena naiz, ez al dezute erakusten, oraindik gizon aragizkoak zeratela? Zer da bada Apolo? Zer da bada Pablo?

5. Zuek beragan sinistu dezutenaren ministro batzuek, eta ez geiago; eta ori, Jaungoikoak bakoitzari eman dion doaiaren araura.

6. Nik ipiñi nuen zuen artean Ebanjelioko landarea, Apolok erregatu zuen; baña Jaungoikoa da, azitzea eman diona.

7. Eta ala, ipintzen duena, deus ez da, erregatzen duena ere ez, baizik Jaungoikoa, zeñak azi, eta frutuak emanerazitzen diozkan.

8. Landara ipintzen duena, nola erregatzen duena, gauza bat bera izatera datoz. Baña bakoitzak bere ordaña bere lanaren araura artuko du.

9. Zeren gu, Jaungoikoari lanean laguntzen diogun batzuek gera; zuek, Jaungoikoak landutzen duen kanpoa zerate, Jaungoikoak gure eskuz egiten duen etxea zerate.

10. Nik, Jaungoikoak eman didan graziaren araura, jarri nituen zuegan, Etxegille jakintsua bezela, espirituko etxearen zimenduak. Beste batek egiten du etxea aien gañean. Baña bakoitzak ongi begiratu beza, erakusten duen dotrinaren etxea, nola jasotzen duen.

11. Zeren iñork ere ez dezake beste zimendurik jarri, ipiñiak daude-nak baizik, zeñ dan Jesukristo.

12. Eta alako zimenduen gañean iñork ere jartzen baditu etxea egiteko gaitzat urrea, zillarra, arri baliotsuak, edo zurak, belar luzea, orbela,

13. Jakin beza, bakoitzaren obra agertua izango dala, zeren Jaunaren egunak desestalik du; dan bezelako moduan dala, suaren bitartez agertuko da, eta suak erakutsiko du, bakoitzaren obra zeñ dan.

14. Bataren obra gañean jarririk, erre gabe badago, ordaña artuko du.

15. Beste baten obra erretzen bada, kaltea berea izango da. Alaera bera salbatuko da, sutatik iragotzen dana bezela izango bada ere.

16. Ez al dakizute zuek, Jaungoikoaren tenploak zeratela, eta Jaungoikoaren Espiritua zuekgan egotez dagoala?

17. Baldin bada norbaitek Jaungoikoaren tenploa kutsutuko balu, Jaungoikoak bera galduko du. Zeren Jaungoikoaren tenploa, zeñ zuek zeraten, Santua dan.

18. Iñork ere ez beza bere burua engañatu. Zuetatikoren batek badauka bere burua jakintsutzat munduaren araura, egin bedi ezjakiña munduaren begietan, Jaungoikoarenetan jakintsua izateko.

19. Zeren mundu onetako jakinduria, Jaungoikoaren aurrean ezerere ez jakitea dan. Zeren eskribitua dagoan: «Nik jakintsuak, beren astruzian arrapatuko ditut».

20. Eta beste toki batean: «Jaunak ezagutzen ditu jakintsuen asma-zioak, eta daki, utsa balio dutela».

21. Argatik, iñor ere gizonakgan ez gloriatu.

22. Zeren gauza guztiak zuenak diraden, naiz dala Pablo, naiz Apolo, nais Zefas, mundua, bizitza, eriotza, oraingoa, gerokoa, gauza guztiak zuenak dirade.

23. Zuek berriz Kristorenak zerate, Kristo Jaungoikoarena.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Guri bada begiratu bear digute gizonak, Kristoren ministro batzuei, eta Jaungoikoaren misterioen partitzalle batzuei bezela.

2. Oiek ala izanik, partitzalleetan bear dana, leialak arkituak izan ditezela beren langintzan.

3. Nigan danez, pelat bat ez dit, zuek, edo gizonen edozeñere jui-ziotan juzgatua izatea, zeren ni nigatik ere ez naiz ausartzen jui-ziorik egiten.



4. Zeren ez badaukat ere nere konzienian kezkarikan batere. Alaere nere burua argatik ez daukat justotua, zeren juzgatuko nauena Jaungoikoa dan.

5. Argatik ez ezazute sententzia eman denbora baño lenago, Jauna etorri dedin artean, zeñak argi osotara aterako dituen, illuntasunetako toki ezkutuetan daudenak; eta agertuko ditu biotzetako asmazioak; eta orduan bakoitza Jaungoikoak alabatua izango da.

6. Gañerakoan, nere anaiak, orain esan dedan guztia, aurrean jarri dizutet, nere eta Apoloren izenean zuen amorioagatik, iñor ere izendatu gabe, gure bitartez ikasi dezazuten, ez aizetzen bata bestearen kontra, irugarren baten alde, eskribitua dijoana baño arontzago,

7. Zeren, nork jartzen zaitu besteen gañean? Edo, zer gauza daukazu, Jaungoikoagandik artu ez dezunik? Eta guztia beragandik artua badaukazu, zergatik audiakatzen zera, artu ez baziñitu bezela?

8. Ona emen non zuek asetuak zaudeten; ona emen non aberastuak zaudeten, gu gabe erreinatzen dezute; eta Jaungoikoari nai izan dakiola, zuek erreinatu dezazutela, ala guk ere zuekin batean erreinatu dezagun.

9. Bada nik neretzat daukat, Jaungoikoak gu Apostoluok tratatzen gaituala gizonik zitalenak bezela; eriotzara kondenatuak daudenak bezela; jartzen gaituala, munduaren, Aingeruen, eta gizonen irria eginik.

10. Gu gera idukiak barbull batzuek bezelakoak, Jesukristoren amorioagatik: zuek berriz Jesukristogan zentzu andikoak zerate, gu erkiak, zuek sendoak, zuek bizi zerate onratuak; guri begiratzen digute zatar eta mezipreziatuai bezela.

11. Ordu onetaraño gabiltza gosez, egarriz, larrugorrian, ematen dizkigute masallakoak, eta non bizi ere ez daukagu.

12. Eta arazo andietan gabiltza, gure eskuakin lanean ari gerala. Bira-oak aurtikitzen dizkigute, eta guk bedekitzen ditugu; persekuzioa padezitzen degu, eta alaituak daramagu.

13. Irainez betetzen gaituzte, eta guk berakgatik erreguak egiten ditugu, atzanean oraindaño tratatuak gera zimaurrea, eta munduko kutsuak, eta guztien satsa bezela.

14. Ez dizkizutet gauza oiek eskribitzen, zuek lotsatzeko; baizik, nere seme txit maiteak bezela, kontuan ipintzen zaituztet.

15. Zeren millaka zaiak badauzkazute ere Jesukristogan, asko guraso ez daukazute. Bada ni naiz, Jesukristogan Ebanjelioaren bitartez sortu zaituztedana.

16. Argatik erregututzen dizutet, nere imitatzalleak izan zaitezte, ni Kristorena izandu nintzan bezela.

17. Argatik bialdu det zuekgana Timoteo, zeñ dan nere seme maitea, eta leiala Jaunagan; berak esan dizazuten, nolakoa dan nere bizitzeko modua Jesukristogan, nik toki guzietan, Eliza guzietan erakusten dedan bezela.

18. Badakit, batzuek txit urgullutsuak daudela, beñere zuekgana berriz etorriko ez banintza bezela.

19. Baña txit laister etorriko naiz zuekgana, Jaungoikoak nai badu, eta esaminatuko det, ez, ala dabilzanen izketa, baizik beren bertutea.

20. Zeren Jaungoikoaren erreñua ez dago itzetan, birtutean baizik.

21. Zer nai dezute? Zuekgana joan nadilla zigorrarekin, ala amorioarekin, eta biguñtasuneko espirituekin?

## BOSGARREN KAPITULUA

1. Onezkero jende guztiak zuen artean esaten duena da, zuen artean zikinkeriak egiten dirala, eta alakoak, nolakoak jentillen artean ere egiten ez diran; bere aitaren emaztea norbaitek idukitzeraño.

2. Eta alaere zuek ugulluz arrotuak zaudete, eta kontrara ez dezute negarrik egin zuen artetik aurtikia izan zedin, alako gaiztakeria egin duena.

3. Nigan danez, gorputzarekin or ez banago ere, biltzen dala zuekin nere espiritua, nik eman det or banengo bezela, sententzia au, alako bekatua egin zuenaren kontra.

4. Jesukristo gure Jaunaren izenean, nere espiritua zuekin elkartzen dala, Jesukristo gure Jaunagandik artu dedan eskubidearekin.

5. Orrelakoa egin duena, izan bedi Satanasen mendean jarria, bere bekatuen kastigurako, bere anima salbatu dedin, Jesukristo gure Jaunaren egunean.

6. Ez daukazute bada zertan gozatu. Ez al dakizute legami piska batek samintzen duela ore guztia?

7. Aurtiki ezazute kanpora legami zarra, ore berri bat izan zaitezten, ogi garbiak eta legami gabeak zeraten ezker. Zeren Jesukristo, zeñ dan gure Pazkoako Bildotsa, izan da gugatik illa, eta eskeña.

8. Ala bada, jan dezagun, ez legami zarrarekin, ez gaiztakeriako eta usteltasuneko legamiarekin; baizik tolesgabetasuneko eta egiaren ogi legamigabeekin.

9. Karta batean eskribitu nizuten: «Etzaitezte ibilli lujuriosuakin».

10. Jakina da, ez dedala au aditzen, mundu onetako deshonestoakin, edo zikoitzakin, edo lapurretan gogorrean egiten dutenakin; edo idoloak adoratzen dituztenakin, bestela mundu onetatik irten bearko ziñaten.



11. Eskribitu nizutenean, alakoakin etzenetzatela artuemanik iduki, esan nai nuen, baldin zuen anaien artekoa dana, lujuriotsua, edo zikoiztasunera emana balitza, edo idoloak adoratuko balitu, edo gaizki esalea, edo moskortzen dana; edo gauza indarrez ostuakin bizi bada, onelakoarekin ez janaririk ere artu.

12. Nola bada ni sartu ninteke, Elizatik kanpora daudenak juzgatzen? Ez al dirade bere barrenen daudenak, zeñak juzgatzeko eskua daukazuten?

13. Kanpokoak, Jaungoikoak juzgatuko ditu. Zuek alaere gizon gaizto orri, zuen artetik alde erazi zaiozute.

### SEIGARREN KAPITULUA

1. Nola arkituko da bat bederik zuen artean, zeñak idukirik erriertaren bat bere anaiarekin, nai duen juzgatu ditzatela juez gaiztoak, eta ez santuak?

2. Ez al dakizute, santuak egunen batean mundu au juzgatuko dutela? Baldin bada mundua zuek juzgatua izango bada, onelako gauzak juzgatzeko diñak ez al zerate izango?

3. Ez al dakizute Aingeruak juzgatuko ditugula? Zenbat geiago munduko gauzak?

4. Munduko gauzaen gañean bada auziren batzuek idukiko baziñituzte, artu itzatzute jueztzat, jentillak baño lenago, Elizako beeratuenak.

5. Zuen lotsarirako esaten det: Nola izan diteke, ez egotea zuen artean gizon jakintsu ta argitsu bat, anaien arteko juez izan ditekeana?

6. Baizik, anaia bat bestearekin auzitan ibilliko dala, eta au jentillen tribunaletan?

7. Onezkero badakizute, utsegite bat dala zuekgan, batzuek besteen kontra auzitan aritzea. Zergatik ez dezute, eman dizuten atsekabea sufritzen? Zergatik ez dezute nai lenago, ostu dizuten gauza gabetanik gelditzea?

8. Baña zuetatiko batzuek zerate atsekabeak ematen dituzutenak; eta lapurretak egiten dituzutenak, eta oiek egiten dieztezute zuen anaiari.

9. Ez al dakizute, gaiztoak ez diradela zeruetako erreñuaren jabeak izango? Ez ezazute utsik egin. Ez lujuriotsuak, ez idoloak adoratzen dituztenak, ez adulteroak,

10. Ez emetuak, ez sodomatarren bekatugilleak, ez lapurrak, ez zikoitzak, ez moskorak artzen dituztenak, ez gaizkiesaleak, ez besteen gauzaen arrapariak ez dirade Jaungoikoaren erreñuaren jabeak izango.

11. Zuetatiko batzuek, beste denbora batean, oiek bezelakoak izan ziñaten; baña garbituak izan zerate, baña santutuak izan zerate, baña justotuak izan zerate, Jesukristo gure Jaunaren, eta gure Jaungoikoaren Espirituaren izenean.

12. Baldin guztia zillegi bazait ere, guztia bearra etzait. Guztia zillegi zait, baña ez naiz ni iñoren mendean jarriko.

13. Janariak sabelarentzat dirade, eta sabela janarientzat, baña Jaungoikoak, au eta aiek desegingo ditu, gorputza alaere ez da fornikaziorako, Jaunaren gloriarako baizik, Jauna gorputzarentzat dan bezela.

14. Nola bada Jaungoikoak Jauna berriz biztu zuen, ala gu ere, bere bertutearekin, berriz biztuko gaitu.

15. Ez al dakizute, zuen gorputzak, gure buru Kristoren zati, eta aldamenak diradela? Eta, nik arturik Kristoren gorputzeko zati eta aldamenak, bordion batenak egingo ditut? Ez dezala Jaungoikoak alakorik nai izan.

16. Edo, ez al dakizute, bordion batekin itsatsitzen dana, berarekin gorputz bat egiten dala? Zeren biak, (Eskriturak esaten du) aragi bat izango dirade.

17. Kontrara, Jaunari itsatsia dagoana, berarekin Espiritu bat da.

18. Fornikaziotik iges ezazute. Gizonak egiten duen beste edozeñere bekatu, gorputzetik kanpora dago; baña fornikatzen duenak, bere gorputzaren kontra bekatu egiten du.

19. Ez al dakizute zuen gorputzak diradela Espiritu Santuaren tenploak, zeñ zuekgan bizi dan, zeñ Jaungoikoagandik artu dezuten, eta onezkero etzeratela zuenak,

20. Garesti izan zeraten ezkerro erosiak? Alabatu ezazute bada Jaungoikoa, eta zuen gorputzean beti eraman ezazute.

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eskribitu ziñiskidaten gauzaen gañean erantzuten det, gauza alabagarria dala gizonagan, emakumeri ez ukiturik egitea.

2. Alaere fornikazioan ez erortzeagatik, senar bakoitzak bere emaztea iduki dezala, eta emazte bakoitzak bere senarra.

3. Senarrak emazteari zorra pagatu bizaio, eta berdin emazteak senarriari.

4. Emazteak bere gorputzaren eskubiderik ez dauka, baizik senarrak. Eta orobat, senarrak bere gorputzaren eskubiderik ez dauka, baizik emazteak.





5. Etzaiozute bada elkarri ukatu daukazuten eskubidea, denboratsuren batean ez izanenean, eta biok nai dezutela, orazio egiteko, eta gero itzuli zaitezte elkarrekin bizitzera, Satanasek, zuen aragiaren gurakgatik, tentatu etzaitzaten.

6. Au esaten det zuen gurai oben egiteagatik; baña ez det agintzen.

7. Egiaz, naiko nuke, zuek guziok ni bezelakoak izatea, baña bakoitzak Jaungoikoagandik bere doaia dauka, batak onela, besteak ala.

8. Eta ez kondugabeai eta alargunai esaten diet, on dala berentzat, ala irautzea, nik ere irautzen dedan bezala.

9. Baña baldin garbitasuneko doaia ez badaukate, ezkondu bitez. Zeren oba dan ez kondutzea, erretzea baño.

10. Ez konduta daudenai berriz agintzen die, ez nik baizik Jaunak, emazteak senarragandik ez dezala alderik egin.

11. Eta alde egiten badu, ezkondu gabe egon bear du, edo bere senarrarekin paketu. Eta senarrak emaztea ez beza utzi.

12. Beste ezkonduai berriz nik esaten diet, ez die Jaunak agintzen: Anaiaren batek badauka emaztetzat andre jentillen bat, eta onek arekin bizi nai badu, ez dezala utzi.

13. Eta andre kristauren batek badauka senartzat gizaseme jentillen bat, eta onek arekin bizi nai badu, ez beza emazteak senarra utzi.

14. Zeren senar jentil bat, andre kristauak santututzen du, eta emazte jentilla, senar kristauak santututzen du, bestela zuen semeak kutsutuak izango litezke; orain berriz santuak dirade.

15. Baña jentillak alde egiten badu, alde egin dezala, zeren onelako gertakarietan, ez gure anaiak, ez gure arrebak egon bear dute menderatuak. Zeren Jaungoikoak pake santu batera ots egin digun.

16. Zeren, badakizu zuk, o emakumea, zure senarra onera ekarriko ote dezun, salbatu dedin? Eta zuk, senarra, badakizu, emaztea salbatuko ote dezun?

17. Jarraitu bizaio bakoitzak bizitzeari Jaungoikoak eman dion doaiaren araura, eta Jaungoikoak fede santura ots egin zionean arkitzen zan estaduaren araura, eta Eliza guztietan ala erakusten det.

18. Norbait izan al zan ots egina zirkunzidatua zala? Ez bedi ibilli zirkunzidatu gabea iduritzen. Beste bat ots egina izan zan zirkunzidatu gabe zegoala? Ez bedi zirkunzidatua izan.

19. Ez du ezerere balio orain zirkunzidatua izateak; eta ez izateak ere ez. Balio diena Juduai eta Jentillai, da Jaungoikoaren aginteak gordetzea.

20. Bakoitzak bada jarraitu beza, Jaungoikoak ots egin zionean zeukan estaduan.

21. Ots egina izan ziñan mendekoa ziñala? Etzaite estutu, baizik artatik beratatik atera itatzu onerak, zure aukera ta jaubetasunean jarri bazintezke ere.

22. Zeren norbait mendekoa zala, Jaunaren serbitzora ots egin badiote, Jaunaren askatua egiten da, eta orobat, askatua zegoala ots egiten diotena, Jesukristoren mendeko egina jartzen da.

23. Garesti erosiak izan zerate, gizonen mendeko eginik etzaitzete jarri.

24. Bakoitzak, ene anaiak, iraun beza Jaungoikoaganako ots egina izan zan munduaren aldeko estaduan.

25. Birjiñen gañean berriz, Jaungoikoaren aginterik ez daukat nik. Ematen det, bai, konsejua, Jaungoikoagandik bere ministro leiala izateko urrikaltasuna iritxi duenak bezala.

26. Uste det bada, estadu au egokiago dala, bizitza onetako atseka-beakgatik; egokiago, diot, zaiola gizonari, ez ez kondutea.

27. Andrearekin lotua zaude? Etzaite ibilli askatua izatearen billan. Emazte gabe zaude? Etzaite ibilli ezkontzaren billan.

28. Ezkontzen bazera, ez dezu argatik bekatuak egiten, eta donzella bat ezkontzen bada ere, ez du bekatuak egiten, baña onelakoak beren aragian estutasunak, eta lanak sufrituko dituzte. Nik berriz barkatzen ditut.

29. Eta nik, nere anaiak, esaten dedana da, denbora laburra dala, eta ala balio duena da, emaztea daukatenak bizi ditezela, ez baleukate bezela,

30. Eta negar egiten dutenak, negarrik egingo ez balute bezela, eta bozkariotzen diradenak, bozkariotuko ez balirade bezela, eta erosten dutenak, ezeren ere jabe ez balirade bezela.

31. Eta gozatten diradenak munduaz, gozatuko ez balirade bezela, zeren mundu onen irudia badijoa.

32. Nai det berriz zuek arazo gabe egon zaitezte. Emazterikan gabe dagoanak, bakarrik begiratzen du Jaunaren gauzakgatik; nola Jaungoikoaren borondate santua egingo duen.

33. Emaztearekin dagoenak berriz, munduko gauzakgatik begiratu bear du, nola emaztearen gogokoa izango dan, eta ala zatitua dago.

34. Orobat ezkondu gabe dagoan emakume batek, edo birjinak, Jaungoikoaren gauzak gogoan darabiltzki, gorputz, eta anima santa izateko. Baña andre ezkonduak, munduko gauzak gogoan darabiltzki, eta nola senarren gogokoa izango dan.

35. Gañerakoan, nik gauza oiek zuen onerako esaten ditut; ez lazorik zuei ipintzeko, baizik ekartzeko zuek gauza alabagarriago bat danera, eta eskubidea ematen duenera eragozketa gabe Jaungoiko serbitzeko.



36. Baña baldin norbaiti baleritza, lotsari bat dala, bere alabak eda-deko lora ezkondu gabe iragotzea, eta uste balu ezkondu bear duela; nai duena egin beza; ez du bekaturik egiten, bera ezkontzen bada.

37. Baitaere erabaki duenak bere barrenen gogo sendoarekin, bere alaba birjina idukitzea, ez idukirik beste era, ta modutara obratzeko premiarik, baizik onetan bere borondatea egin dezakeala, eta bere biotzean ala erabaki badu, onelakoak ongi egiten du.

38. Itz batean, bere alaba ezkontzeko ematen duenak, ongi egiten du, eta ematen ez duenak, obekiago egiten du.

39. Andrea legeak lotua dago, bere senarra bizi dan artean, baña baldin bere senarra iltzen bada, askatua gelditzen da, nai duenarekin ezkondu ditekete, baldin Jaunaren borondate santuaren araura bada.

40. Baña txit doaituago izango da, alarguntzan irautzen badu, nere konsejuaren araura, eta uste det, onetan ere Jaungoikoaren espiritua daukadala.

### ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Idoloai eskeñitzen zaiesten gauzaen gañean, badakigu guk guztiok jakinduriarik asko daukagula. Baña jakinduriak bakarrik urgullututzen du; karidadea da ongitzen duena.

2. Baldin iñork uste badu, zerbait badakiala, eta au ez badaki; oraindikan ez du aditu, nola jakin bear duen.

3. Baña Jaungoikoa maitatzen duena, au da berak ezagutua.

4. Idoloai eskeñitako janarien gañean berriz, badakigu, idoloa munduan ezerere ez dala; eta Jaungoiko bat bakarra baizik ez dagoala.

5. Zeren baldin badaude ere batzuek, Jaungoikoaren izena ematen zaienak, bai zeruan eta bai lurrean, (eta ala Jainko asko eta jaun asko kontatzen dirala).

6. Alaere guretzat ez dago Jaungoiko bat baizik, zeñ dan Aita, zeñ-gandik daukaten izatea gauza guztiak, eta zeñak gu beretzat egin gaituan, eta ez dago Jaun bat baizik, zeñ dan Jesukristo, zeñak gauza guztiak egin dituen; eta beragatik gera, geran guztiok.

7. Baña jakinduria au ez da guzietan arkitzen, baizik badirade oraindikan batzuek, sinisturik idoloa zerbait badala, jaten dituzte sinistamen onekin, eskeñiak izan zaizten janariak, ala oien konzienzia erkia dalako, gelditzen da kutsutua.

8. Gauza ziertoa da, alako janariak jateak ez gaituela Jaungoikoaren gogokoak egiten. Zeren jaten baditugu ere, ez degu bere aurrean irabazirik, batiere egingo, eta jaten ez baditugu ere, ez degu ezerere galduko.

9. Baña kontu iduki ezazute, daukazuten aukera eta eskubide au, ez dedilla erkientzat beaztopo gaia izan.

10. Zeren baldin oietatikoren batek ikusten badu besteren bat, jakintsuenetatikoa, maiean eseria, idoloai konsagratutako tokiren batean; ez al da gauza ziertoa, konzienzia erkia daukanari etorriko zaiolaa gogoa, jateko berak ere, idoloai eskeñitako janari aiek, zeñak kutsutuak diradela uste duen?

11. Eta, zure jakinduria bidegabero usatzeagatik, galduko dala anai eri ori, zeñaen amorioz Kristo il zan!

12. Ala gertatzen da, bekatu eginik anaien kontra, eta beren konzienzia indar gutxikoa zauriturik, zatoz Jesukristoren kontra bekatu egitera.

13. Argatik nik jaten dedanak, nere anaia eskandalizatzen badu, nere bizian ez det aragirikan batere jango, bakarrik nere anaia ez eskandalizatzeagatik.

### BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Ez al naiz ni nere aukera ta eskubidea daukadana? Ez al naiz ni Apostolua? Ez al det nik Jesukristo gure Jauna ikusi? Ez al zerate zuek nere obra Jaunagan?

2. Besteentzat ez banaiz ere Apostolua, zuentzat bederik banaiz; izanik zuek, zeraten bezela, nere Apostolutzako sillua Jaunagan.

3. Ona emen nere erantzuna, nere bizimodua esaminatzen sartzen diradenentzat.

4. Ez al daukagu eskubidea jateko, ta edateko?

5. Ez al daukagu ere eskubidea, eramateko ibillietan emakume arre-baren bat, zaitu gaitzan, beste Apostoluak egiten duten bezela, eta Jaunaren anaia, eta Zefasek?

6. Ala bakarrik nik, eta Bernabek onelakorik egin ez genzake?

7. Zeñ dabil beñere soldautzan bere kontura? Nork ipintzen du masti bat, eta bere frutua ez du jaten? Nork artalde bat bazkatzen du, eta abereen eznea ez du artzen?

8. Eta esaten dedan au, gizasemeen arrazoeren bat bakarrik al da? Edo, legeak au bera ez al du esaten?

9. Baitaere Moisesen legean eskribitua dago: Traillatzen duen idiari, etzaiozu moialik ipiñi. Jaungoikoak idiak zaitzen al ditu?

10. Ez al du au batezere gugatik esaten? Bai ziertoro, gugatik gauza oiek eskribituak izan dira, zeren itxedopenak goldeatu erazitzen dio, goldeatzen ari danari, eta traillatzen duenak, ordaña artzeko itxedopenarekin egiten du.



11. Guk bada zuen artean espirituko gauza onak erein baditugu; gauza andia izango al da, zuen lurreko ondasunetatik, piskatxoren bat bil-tzen badegu?

12. Beste batzuek partale badirade zuen eskubide onetan, zergatik ez gera gu izango obekiago? Baña alaere, ez gera gu eskubide onekin balia-tu; baizik guztia sufritzen degu Jesukristoren Ebanjelioari eragozketarik batere ez ipintzeagatik.

13. Ez al dakizute, Tenploa serbitzen dutenak, Tenplokoa danetik jaten dutela; eta aldarea serbitzen dutenak, eskeñzetan partale diradela?

14. Ala Jaunak ere aginduta utzi zuen, Ebanjelioa predikatzen dute-nak, Ebanjeliotik bizi ditezela.

15. Baña ni gauza oietatik batekin ere ez naiz baliatu. Eta orain ere ez ditut oiek eskribitzen, nerekin ala egin dedin. Zeren obeagotzat daukadan iltzea, norbaitek gloria au galduerazi dizadala baño.

16. Ebanjelioa predikatzeagatik gloriarik ez badaukat ere, zeren pre-miak artara beartua nagoan, eta ai! nere doakabea, Ebanjelioa predikatzen ez badet!

17. Argatik borondate onarekin egiten badet, itxedotzen det ordaña; baña indarrez beartua egiten badet, orduan ez det besterik egiten, baizik eman zadan agintea kunplitu.

18. Oiek onela diradela bada, nere ordaña non da? Dago Ebanjelioa predikatzean doan, kasturikan batere iñori ere eginerazi gabe, ez iñori bidegatasunik eginik, Ebanjelioa predikatzeagatik daukadan eskubideare-kin.

19. Egiaz egonik iñoren lokarri gabe, guztien mendeko egin naiz, anima geiago irabazteko.

20. Eta ala, Juduakin Judua bezela bizi izan naiz, Juduak irabazteko.

21. Legearen mendean zeudenakin bizi izan naiz, ni ere legearen mendean arkituko banintza bezela, (legearen mendean arkitzen ez nintza-la) bakarrik, irabazteko legearen mendean zeudenak, nola Moisesen legea-ren mendean etzeudenakin, bizi izan naiz, ni ere legearen mendean arki-tuko ez banintza bezela, (nik Jaungoikoaganako beste lege bat baneukan ere, Jesukristorena idukirik) legerik etzeukatenak irabazteagatik.

22. Erkiakin erki egin nintzan, erkiak irabazteko. Guzti au guztientzat egin nintzan, guztiak irabazteko.

23. Eta guzti au Ebanjelioaren amorioagatik egiten det, bere eskeñ-tzen partale egina izateko.

24. Ez al dakizute korritokian korrika dabiltzanak, guztiak dijoazela korrika, baña batek bakarrik saria eramaten duela? Zoazte bada korrika, alako moduan, non, saria irabaziko dezuten.

25. Gudatokian gudatzen diran guztiak, gauza guztiaz jabetzen dira-de; eta ez bestetarako, baizik koroa galdukor bat iritxitzeko; guk berriz betiko koroa bat itxedotzen degu.

26. Ala bada ni korrika noa; ez badezpadan korrika dijoana bezela, gudan ari naiz, ez otsak aizeari ematen diozkana bezela,

27. Baizik nere gorputza kastigatzen det, eta jartzen det mendean, besteai predikatzen diedala, ni Jaungoikoak beragandik aurtikia izan ez nadin.

## AMARGARREN KAPITULUA

1. Ez det bada nai, nere anaiak, jakin gabe egon zaitezela, nola gure guraso guztiak odeiaren azpian egon ziraden, eta guztiak itsasoa irago zuten.

2. Eta guztiak bataiatuak izan ziran Moisesegan odeian, eta itsasoa.

3. Eta guztiak espirituko janaria bera jan zuten,

4. Eta espirituko edaria bera edan zuten, zeren berak edaten zuten, arri misteriotzutik irtetzen zan uretik, eta arria berai jarraituaz zijoan, eta arri au Kristo zan.

5. Baña alaere beretatik geienak, Jaungoikoaren gogotik irten ziran, eta ala eremuan gelditu ziran illak.

6. Eta gertakari aiek ziraden guri dagokigunaren irudia; gura gaizto-rik iduki ez dezagun, berak iduki zituzten bezela.

7. Etzaitzte idoloen adoratzalleak izan, beretatiko batzuek bezela, eskribitua dagoan bezela: «Eseri zan erria jateko eta edateko, eta jaiki ziran jostaketan aritzeko».

8. Ez dezagun ere fornikaziorik egin, aietatiko batzuek fornikatu zuten bezela, eta egun batean ogeita iru milla il ziran.

9. Ez dezagun ere Kristo tentatu, beretatiko batzuek egin zuten bezela, zeñak sugeak utsikiak izanda, il ziran.

10. Ez ezazute ere murmuratu, beretatiko batzuek murmuratu zuten bezela, eta Aingeru ondatzalleak illak izan ziran.

11. Gertatzen zitzaiezen gauza guzti oiek irudi batzuek ziraden, eta eskribituak daude, kontuan ipintzeko gu, gizaldien atzenean arkitzen gera-denok.

12. Uste duenak fedean sendo dagoala, begiratu beza erori ez dedin.



13. Oraindano ez dezute iduki gizatentazioak baizik, baña Jaungoikoa leiala da, eta ez du utziko, zuen indarrez gañetik tentatuak izan zaitezte; baizik egingo du tentaziotik beratatik onerak atera ditzatzutela, iraun al dezakezuten.

14. Argatik, nere txit maiteak, idoloak adoratzetik iges egin ezazute.

15. Lagun adituakin itz egiten dedan ezker, zuek zerok juzgatu ezazute, esatera noanaren gañean.

16. Bedeikazioko kaliza bedekitzen deguna, Kristoren odolaren komunioa ez al da? Eta partitzen degun ogiak, ez al gaitu Jaunaren gorputzaren partale egiten?

17. Zeren ogi batean partale geran guztiok, asko izan arren, ogi bakar bat, gorputz bakar bat gatz izatera.

18. Ikusi itzazute Israeltarrak aragiaren aldamenetik. Beren artean jaten dituztenak idoloai eskeñitako gauzak, ez al da egia, aldarean partale diradela?

19. Baña, zer? Esaten al det nik, idoloai eskeñitako gauzak bertuteren bat daukatela? Edo idoloa zerbait badala?

20. Ez: baizik jentillak eskeñitzen dituzten gauzak, demonioai eskeñitzen diezte, eta ez Jaungoikoari. Eta ez det nik nai laguntasunik batere demonioakin iduki dezazutela, Jaunaren kaliza, eta demonioen kaliza ez dezakezute edan.

21. Jaunaren maiean, eta demonioen maiean etziñatezke partale izan.

22. Zeloakin Jaunari aserretuerazi nai al diogu? Bera baño sendoagoak al gera? Guzia zait zillegi; baña guztiak ez dira bearrak.

23. Onik dago, guztia zillegi izan dakidala; baña ez da guztia onbidea emateko.

24. Karidadeak esaten du, iñork ere bere gozotasuna ez dezala billatu, projimuaren ona baizik.

25. Gañerakoan plazan saltzen dan guzia jan ezazute, konzienziagatik galdeetan ibilli gabe.

26. Zeren lurra, eta bertan dagoan guztia, Jaunarena da.

27. Jentillen batek konbidatzen bazaitu jatera, eta joan nai bazera, jan ezazute, aurrean ipintzen dizuten guztitik, konzienziagatik galderik egin gabe.

28. Baña norbaitek esango balizute: Au idoloai sakrifikatua izan da, ez ezazute jan; berak zuei eta zuen konzienziari adirazi dielako.

29. Konzienziari, esaten det, ez zureari, baizik bestearnari. Zeren, zergatik, esango dezu, irriskuan jarriko naiz beste baten konzienziak kondenatzeko, guztitik jateko daukadan aukera ta eskubide au?

30. Nik eskerrak emanda artzen badet jaten dedana, zergatik eman-got diot beste bati, nigatik gaizki esateko bidea, gauza batgatik, zeñgatik Jaungoikoari eskerrak ematen diozkadan?

31. Ala bada, naiz jan dezazutela, naiz edan dezazutela, edo beste edozeñere gauza egin dezazutela, guzia Jaungoikoaren gloriarako egin ezazute.

32. Etzaiezute ofenditzeko biderik eman, ez Juduai, ez Jentillai, ez Jaungoikoaren Elizari,

33. Nola nik ere gauza guztietan egiten dedan alegiña, guztiai nai dutena egiteko, ez dedala billatzen neretzat ona dana, baizik beste guzien gogokoa dana, salbatu ditezen.

### AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Nere imitatzalleak bada izan zaitezte, ni Kristorena naizan bezela.

2. Eta alabatzen zaituztet nere aldetik, zuek nere anaiak, gauza guztietan nerekin oroitzen zeratelako, eta nere erakutsiak zaitzen dituzutela, adirazi nizuten bezela.

3. Baña nai ere det jakin dezazuten, gizon guztiaren burua Kristo dala; emakumearen burua berriz gizona, eta Jesukristorena Jaungoikoa.

4. Gizon guztiak, orazio egin, edo profetizatzen duenak, burua estalia daukala, bere burua desonratzen du.

5. Kontrara, emakume guztiak, orazio egin, edo profetizatzen duenak burua estali gabe, bere burua desonratzen du, izanik au, burua moistuko baliote bezela.

6. Baldin emakumeak estalitzen ez badu burua belo batekin, burua moistu ere dakiola. Nola emakume batentzat gauza itxusia dan, buruko illea ebakitzea, edo kaska motza idukitzea, argatik bere burua estali beza.

7. Gizonak bada ez du bere burua estali bear, zeren bera Jaungoikoaren irudi ta gloria da; emakumea berriz, gizonaren gloria da.

8. Etzan gizona emakumeagandik formatua izan, baizik kontra, emakumea gizonagandik.

9. Eta gizona etzan ere formatua izan emakumearentzat, baizik emakumea gizonarentzat.

10. Argatik emakumeak ekarri bear du buruaren gañean, mendetasuneko ezagungarria, baita Aingeruagatik ere.

11. Egia da, Jaunaren legeagatik, gizona ez litekeala izan emakume gabe, ezta emakumea ere gizona gabe.



12. Bada nola asieran emakumea gizonagandik formatua izan zan; ala orain gizasemea emakumeagandik jaitzen da, eta guztia Jaungoikoak ala erabaki duelako.

13. Zuek zerok juzgatu ezazute: ongi dirudi emakume batek toki agerian, belo gabe Jaungoikoari orazio egitea?

14. Ez al da egia, izateak berak erakusten duela, gizonak beti illeari azitzen utzitzea, beretzat lotsaria dala?

15. Kontrara, emakumearentzat gloria da, illeari azitzen utzitzea, zeren illeak emanak izan zaiozka beloaren gisara, bera estaltzeko.

16. Baña alaere baldin norbaitek tematu nai badu, esango diogu, guk alako oiturarik ez daukagula, ez Jaungoikoaren Elizak ere.

17. Zuen biltzarren gañean berriz, nik esaten dizutet, etzintezkedala alabatu, zeren berak zuentzat mesedegarriak izan bearrean, zuentzat kaltegarriak dirade.

18. Lenbizi aditzen det, Elizan biltzen zeratenean erriertak daudela, eta zerbait sinistzen det.

19. Izanik bada premiazkoa herejiak ere izatea, agertu ditezen zuen artean, zeñ diran bertute probatukoak.

20. Orain bada, zuek Agapeetarako biltzen zeratenak ez da Jaunaren afaria zelebratzeko.

21. Zeren an bakoitzak jaten du, afariteko eraman duena, besteai begiratu gabe. Eta ala gertatzen da, batzuek ez daukatela ezerere zer janik, besteak geiegi jaten dutenean.

22. Etxeak ez al daukazute jateko, eta edateko? Edo Jaungoikoaren Eliza kutsutzer a zatozte, eta ezerere ez daukatenak lotsatzera? Onen gañean zer esango ote dizutet? Alabatuko ote zaituztet? Onetan etziñitzaiket alabatu.

23. Zeren nik ikasi nuen Jaunagandik, zuei ere erakutsi nizutena; eta da Jaun Jesusek, etsaien eskuetan jarri izango zan gau artan beratan, artu zuen ogia,

24. Eta eskerrak emanik, partitu zuen, eta bere ikasleai esan zien: «Artu eta jan ezazute. Au da nere gorputz, zuegatik eriotzarako emana izango dana. Au nere oroipenean egin ezazute».

25. Eta era berean kaliza artu zuen, afalduta gero, esaten zuela: «Kaliza au, nere odolean, nere testamentua da. Egin ezazute au, egiten dezuten aldi guztietan, nere oroipenean».

26. Zeren ogi au jan, eta kaliza au edaten dezuten aldi guztietan, Jaunaren eriotza adiraziko dezute, etorri dedin artean.

27. Ala bada ogi au jan, eta Jaunaren odol au edaten duena, diña ez dan egoera ta estaduan, Jaunaren gorputz, eta odolaren obendun izango da.

28. Argatik probatu beza gizonak bere burua; eta onela ogi artatik jan, eta kaliza artatik edan beza.

29. Zeren jaten duenak, edo edaten duenak, diña ez dan estaduan, iretsi eta edaten du bere kondenazioa, ez duelako begiratzen, beste janarietatik Kristoren gorputzera dagoan desberdintasuna.

30. Emendik dator, zuen artean asko eri ta erki arkitzea, eta asko iltzea.

31. Gu gerokin sartuko bagiñate kontuetan, ziertoro ez giñatezke Jaungoikoak ala juzgatuak izango.

32. Eta ala juzgatuak geranean, Jaunak semeak bezela kastigatzen gaitu, mundu onekin batean kondenatuak izan ez gaitezen.

33. Argatik, nere anaiak, orrelako jateketetarako biltzen zeratenean, elkarri itxedon zaiozute.

34. Iñor gose baldin bada, etxean jan beza, zuen biltzea, zuen kondenaziorako izan ez dedin. Gañerako gauzak, orrara noanean erabakiko ditut.

## AMABIGARREN KAPITULUA

1. Espirituko doaien gañean berriz, ez det nai, nere anaiak, beren berri gabe egon zaitezten.

2. Ongi dakizute zuek, Jentillak ziñatenean, idolo mutuen ondoren joan oi ziñatela, eramanak ziñaten eran.

3. Orain bada nik jakinerazitzen dizutet, Profeta egiazko batek ere, Jaungoikoaren argitasunarekin itz egiten duen batek ere, esaten ez duela: Eskomikatua Jesus. Eta iñork ere ez dezake esan Jesus Jauna dala, Espiritu Santuagatik baizik.

4. Badirade bai, espirituko doai desberdinak, baña Espiritua bat bakarra da.

5. Badirade ere langintza desberdinak, baña Jauna bat bakarra da.

6. Badirade ere izatez gañetiko obratzeko era desberdinak; baña Jaungoikoa bera da guztietan gauza guztiak obratzen dituen.

7. Baña Espiritu Santuaren doai agiriak bakoitzari ematen zaiozka, onerako.

8. Ala batek Espiritu Santuagandik artzen du, jakinduria andiarekin itz egiteko doaia. Beste batek artzen du Espiritu Santuagandik beraganatik, argitasun andiarekin itz egiteko doaia.





9. Oni ematen dio Espiritu Santuak berak, fede txit sendo bat, besteari Espiritu berarekin eriak sendatzeko grazia.
10. Beste bati, mirariak egiteko doaia; besteari profeziako doaia, oni espirituen bereziera; ari izkuntza askotan mintzatzeko doaia, bati itzak azaldatzekoa.
11. Baña gauza guzi oiek obratzen ditu, Espiritu berezitu ezinak berak, bakoitzari partitzen diola, nai duen erara.
12. Zeren nola gorputza bat dan, eta bizikai asko daukan, eta bizikai guztiak asko izan arren, gorputz bat bakarra dan, ala Kristo ere.
13. Onetarako gu guziok bataiatuak gera Espiritu bat batean, gorputz bat egiteko, naiz izan gaitezela Juduak, naiz Jentillak, naiz mendekoak, naiz askatuak, eta guztiok Espiritu bat batetik edan degu.
14. Eta gorputza ere ez da bizikai bakarra, baizik guztien biltzarrea.
15. Oñak esango balu, ni ez naiz eskua, ez naiz gorputzarena, zergatik gorputzekoa ez al da izango?
16. Belarriak esango balu: ez naiz ni begia, ez naiz gorputzarena. Argatik gorputzarena ez al da izango?
17. Gorputz guztia begia balitza, belarria non egongo liteke? Eta guztia balitza belarria, usaikiña non egongo liteke?
18. Baña orain Jaungoikoak gorputzean asko bizikai ipiñi ditu, eta beratan jarri ditu, berak nai izan zuen moduan.
19. Guztiak bizikai bakarra balirade, gorputza non egongo liteke?
20. Argatik orain, bizikaiak asko izan arren ere, gorputza bat da.
21. Eta begiak eskuari ez dizaioke esan: Ez det zure laguntasunik bear, ezta ere buruak oñai, ez daukat zuen bearrik.
22. Baizik gorputzeko bizikai, erkiagoak diruditen aiek, premiazkoak dirade,
23. Eta gorputzeko bizikai, ez dirala ain garbiak uste degunak, oiek apainduria geiagorekin ingurututzen ditugu, eta onestasun gutxiago daukaten gure bizikaiak, onestasun geiagorekin zaitzen ditugu.
24. Eta gure bizikai onestak, ez daukate ezeren ere premiarik, eta Jaungoikoak alako moduan gorputza ipiñi du, non, honra geiago ematen zaio, gutxiagoren diña danari.
25. Gorputzean erriertarik ez dedin, baizik bizikaiak elkargatik begiratu dezaten.
26. Eta baldin bizikai bat gaizki badago, beste bizikaiak berarekin urrikaltzen dirade, eta bizikai bat bozkarioz badago, beste guztiak ere bozkariotzen dirade.

27. Zuek bada zerate Kristoren gorputza, eta bizikai batzuek, beste bizikai batzuei itsatsiak.

28. Eta ala Jaungoikoak Elizan ipiñi ditu, batzuek lendabiziko tokian Apostoluak; bigarren tokian profetak; irugarrenean jakintsu, erakusleak; gero mirariak egiteko doaia daukatenak; gero eriak sendatzeko grazia daukatenak; atzenik projimua sokorritzeko, gobernatzeko, izkuntza mota guzietan mintzatzeko, eta itzak aditzeko era eramateko doaiak dauzkatenak.

29. Guztiak Apostoluak al dira? Edo, guztiak profetak? Edo, guztiak Erakusleak?

30. Guztiak mirariak egiten al dituzte? Eriak sendatzeko grazia, guztiak al daukate? Guztiak izkuntza mota guztietan mintzaten al dira? Guztiak erakutsiak eta azaldaerak ematen al dituzte?

31. Zuek berriz doai orien artean, oberenak billatu itzatzute. Ni bada banao zuei erakustera bide bat, oraindik asko obeagoa.

### AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Gizonen izkuntza guzietan, eta Aingeruenetan mintzatuko banintza ere, baña ez banu karidaderik idukiko, ots egiten duen menast bat, edo dunderiatzen dan eskilla bat izango nintzateke.

2. Eta idukiko banu profeziako doaia; eta misterio guztiak ezagutuko banitu; eta jakinduria guztiakin argitua izango banintza; eta fede guzia idukiko banu, alako moduan, non, mendiai toki batetikan bestera alde eraziko banie, eta alaere karidaderik ez baneuka, utsa naiz.

3. Eta nik partituko banitu nere ondasun guztiak, beartsuai eta eskaleari jaten emateko, eta emango banu nere gorputza suzko garretan erazeki eta erretzeko, eta alaere karidaderik ez baneuka, guziak utsa balio dit.

4. Karidadea sufritua da; gozoa eta ongigillea da. Karidadeak ez dauka ondampurik, ez du ezerere egiten urduriz, ez ausarkeriarekin, ez da urgullututzen.

5. Ez da andinaia, ez dabil bere gauzaen billan, ez da aserrekorra, ez du inorgatik gogorazio gaiztorik egiten.

6. Gaizakerian ez da bozkariotzen, egian gozatzen da,

7. Guztia sufritzen du, projimuaren on guztia sinistzen du, guztia itxedotzen du, eta guztia onean iragotzen du.

8. Karidadea ez da beñere utsean gelditzen, profeziak berriz bukatuko dira, eta mingaña ixilduko dira; eta jakinduria desegingo da.

9. Zeren aldamen batetik ezagutzen degu, eta beste aldamen batetik profetizatzen degu.





10. Etorren danean berriz onosoa, utsean geldituko da aldamen batekoa dana.

11. Ala nik, aurr nintzanean, aurrak bezela itz egiten nuen; jostaketan ari oi nintzan aurr bezela; nere iritziak ziran aurrarenak bezelakoak; nere gogorazioak ziran aurrarenak bezelakoak. Baña gizon egin nintzanean, aurraren gauzai utzi nien.

12. Ez degu orain Jaungoikoa ikusten izpillu batean bezela, eta irudi illunen azpian baizik, baña orduan arpegiz arpegi ikusiko degu. Nik orain ez det ezagutzen aldamen batetik baizik; baña orduan ezagutuko det, ikusketa argi batean, ni ezagutua naizan bezela.

13. Orain gelditzen dira iru berturte oiek, fedea, itxedopena, eta kari-dea. Baña iruen arten andiena, karidadea da.

### AMALAUAREN KAPITULUA

1. Joan zaitezte korrika gogotik karidadea iritxitzeko; eta gero espiritu-tuko doaien gurak iduki itzatzute, batezere profeziaenak.

2. Zeren izkuntzetan mintzatzen dana, esan diran doaiak iduki gabe, ez da gizonentzat mintzatzen, zeren iñork ere ez dion aditzen, baizik Jaungoikoarentzat. Esaten ditu, bai, spirituan gauza misteriotsuak.

3. Profetaen lana egiten duenak berriz, gizonakin itz egiten du, berai ejenplu ona emateko, berak alaitzeko, eta gozatzeko.

4. Izkuntzetan mintzatzen danak, bere ongi izateari begiratzen dio, baña profetizatzen duena, Jaungoikoaren Elizaren lanean ari da.

5. Nik bai nai det, zuek guziok izkuntzen doaia iduki dezazutela, baña txit geiago profeziakoa iduki dezazutela, zeren profetizatzen duena andiago dan, izkuntzetan mintzatzen dana baño, azaldutzen ez baditu Elizak mesedeak artu ditzan.

6. Egiaz, nere anaiak, ni ibilliko banintza zuei izkuntzetan mintzatzeten, zer balioko lizukete, itz egiten ez badizutet, erakutsiak ematen dizkizutedala, edo errebelazioarekin, edo jakinduriarekin, edo profeziarekin edo dotrinarekin?

7. Anima gabeko gauzaetan ere ikusten degu otsak egiten dituztela, txirolak, edo harpak bezela, baña ots desberdiñak egiten ez badituzte, nola jakingo da zer kantatzen dan, edo zer jotzen dan?

8. Eta tronpetak berarizko ots egokia jotzen ez badu, baizik nastua, gudarako nor prestatuko da?

9. Mintzatzen zeraten izkuntza aditzen ez bada, nola jakingo da zer esaten dezuten? Ez diozute aizeari baizik itz egingo.

10. Egiaz badira munduan izkuntza desberdin mota asko, eta ez dago erririk, berea ez daukanik.

11. Nik bada ez badakit zer adirazten duten itzak, izango naiz arrotz bat bezela, itz egiten diedanentzat, eta neri itz egiten didana, neretzat arrotza izango da.

12. Argatik bada zuek, animako doaien zaleak zeraten ezkerro, iduki itzatzute, berak ugari idukitzeko gurak elizaren onerako.

13. Argatik itzkuntza batean mintzatzen danak, orazio egin beza, ongi adirartzeko esaten duena.

14. Nik izkuntza batean orazio egiten badet, nere espirituak orazio egiten du, baña nere gogorazioa frutu gabetanik gelditzen da.

15. Zer egingo det bada? Orazio egingo det espirituarekin, baña orazio egingo ere det adimenarekin, aditua izan nadin, kantatuko det espirituarekin, kantatuko det adimenarekin, aditua izan nadin.

16. Gañera, zuk Jaungoikoa espirituarekin alabatzen badezu, erri jakinduria gutxikoak nola esango du Amen, zuk eskerrak ematen dituzunean? Zeren ezan aditzen zuk esaten dezuna.

17. Egia da zuk eskerrak ongi ematen dituzula; baña bestearen onerako ez dira.

18. Nik nere Jaungoikoari eskerrak ematen diozkat, zuen guzioen izkuntza guzietan mintzatzen naizalako.

19. Baña elizan naiago det esatea bost itz, aditua izango naizan eran, eta erakutsiak ere emango dieztedan moduan, amar milla itz izkuntza arrotzean baño.

20. Ene anaiak, etzaitzete aurrak izan arrazoezko gauzak egiten, baña aurrak izan zaitezte, gaizakerian; zentzuan berriz gizon onosoak izan zaitezte.

21. Legean eskribitua dago: Nik itz egingo diot erri oni beste izkuntza batean, eta ezpañetako beste era batzuekin, ta alaere ez didate sinistuko, esaten du Jaunak.

22. Ala bada, izkuntzen doaia da siñale bat, ez kristaudentzat, baizik jentillentzat, baña profeziaren doaia, ez da emana izan jentillak konbertitzeko, baizik kristauai erakutsiak emateko.

23. Orain bada, Eliza guztia toki batean bildua dagoala, eta guztiak ari dirala izkuntza arrotzetan mintzatzen, sartuko balirade jende ezjakinak edo jentillak, ez al luke esango txoratuak zaudetela?

24. Baña guztiak profetizatzen badute, eta jentillen bat, edo ezjakinen bat sartzen bada, guztiak beren iritzira ekarria, guztiak juzgatua izango da.



25. Bere biotzeko ezkuatuak agirian jarriko dira; eta argatik bere arpegiaren gañean auzpeztuta, Jaungoikoa adoratuko du, aitortzen duela, Jaungoikoa egiaz zuen artean dagoala.

26. Zer da bada egingo dana, nere anaiak? Ona emen. Biltzen zera-tenean, zuetatikoren bat arkitzen bada Jaungoikoak argitua himno bat egiteko; beste bat erakutsiak emateko; au Jaungoikoaren gauzaren bat agertzeko; hura izkuntzetan mintzatzeko; bestea gauzak azaltzeko, guztia sinistzen dutenen onerako, egin bedi.

27. Izkuntzetan mintzatu badira, bik bakarrik itz egin bezate, edo geienez iruk, eta ori aldizka, eta batek azaldu dezala esaten dutena.

28. Eta azaldatuzallerik ez balego, ixillik egon bitez elizan doai au daukatenak; eta berak berakin, eta Jaungoikoarekin itz egin bezate.

29. Profetaetatik bik, edo iruk itz egin bezate, eta juzgatu bezate besteak.

30. Eta an eseria dagoan besteren bati, zerbait zerutik agertua izango balitzaio, lenbizioa bereala ixildu dedilla.

31. Ala batak bestearen ondoan, guziok profetizatu zenezakete, guztiak ikasi dezaten, eta onerak atera ditzaten.

32. Eta profetaen espirituak, profetaen mendean daude.

33. Zeren Jaungoikoa ez da errieta egillea, pakegillea baizik.

34. Emakumeak elizan ixillik egon bitez; zeren etzaie zillegi an itz egitea; baizik egon bear dute modu onarekin, legeak ere esaten duen bezela.

35. Eta zerbait ikasi nai balute, galdetu bizaie beren senarrai, etxean daudenean. Gaizki dirudian gauza da, emakume batek elizan itz egitea.

36. Jaungoikoaren itzak zuekgandik jatorria iduki al zuen? Edo zuekgana bakarrik allegatu al zan?

37. Zuetatikoren batek badauka bere burua profetatzat, edo espiritu-kotzat, ezagutu beza, eskribitzen dizkizutedan gauzak, Jaunaren aginteak diradela.

38. Ezagutzen ez duena, ezezagutua izango da.

39. Ala bada, nere anaiak, profeziako doaiaren gurak iduki itzatzute; eta izkuntzak mintzatea, ez ezazute galerazi.

40. Baña guztia ondo, ta zuzen egin bedi.

### AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Nai det orain, nere anaiak, berriztatu zuei, predikatu nizuten Ebanjelioaren oroipena, zeñ zuek artu zenduten, eta zeñatan gogotikan irautzen dezuten,

2. Eta zeñaen bitartez salbatuak zeraten, ikusi dezazuten, zaitzen ote dezuten, predikatu nizuten bezela; bada bestela alferrik fedean sinistu zenduten.

3. Lenengo bada erakutsi dizutet, nik ikasi nuena bera Jaunagandik, au da, Kristo il zala gure bekatuakgatik Eskrituraen araura,

4. Eta izan zala obiratua, eta irugarren egunean biztu zala illen artetik, Eskrituraen beren araura,

5. Eta agertu zitzaiera lenengo Zefasi, eta gero amaikai.

6. Geroago ikusi eben batean bosteun anaia baño geiagok, zeñiatatik batzuek il badira ere, geienak oraindik bizi dira.

7. Agertu zitzaion ere Santiagori, eta gero Apostolu guztiai.

8. Atzenean guztien ondoan, agertu ere zitzadan neri, bertitz bat bezelakoa naizan oni.

9. Zeren ni naiz Apostoluetatik txikiena, Apostoluaren izenaren diña ere ez naizana, Jaungoikoaren eliza persegitu nuelako.

10. Baña Jaungoikoaren graziagatik naiz naizana, eta bere grazia ez da nigan utsean egon; bada guztiak baño len geiago egin det, baña ez nik, baizik obekiago, nigan dagoan Jaungoikoaren graziak.

11. Zeren ala nik, nola berak guziak, au da guziok, geranok predikatzeguna, eta au zuek sinistzen dezutena.

12. Orain bada, baldin predikatzen bada Kristo, illen artetik biztua bezela, nola da zuetatiko batzuek dabiltzala esaten, illaen artetik biztutze berririk ez dagoala?

13. Zeren illaen artetik biztze berririk ez badago aiek esaten duten bezela, Kristo ere etzan berriz biztu.

14. Baldin berriz Kristo ez bazan biztu, gure predikazioa utsa da, eta zuen fedea ere utsa da,

15. Eta gañera Jaungoikoaren gezurrezko testiguak arkitzen gera, zeren Jaungoikoaren kontra testigantza eman genduen, esaten genduela, berriz biztu zala Kristo, zeñ ez duen berriz biztu, illak ez badirade berriz biztzen.

16. Zeren egiaz, illak ez badirade biztzen, Kristo ere etzan biztu.

17. Eta Kristo berriz biztu ez bazan, utsa da zuen fedea, zeren oraindik zuen bekatuetan zaudete.

18. Beraz Kristogan sinistuta il ziradenak ere, galdu ziran.

19. Baldin guk gure bizitza onek irautzen duen artean bakarrik, Kristogan itxedotzen badegu, gizon guztietatik doakabeenak gera.

20. Baña Kristo, nere anaiak, illaen artetik berriz biztu da, eta illaen lenbiziak bezela etorri da izatera.



21. Zeren nola gizon batgandik eriotza mundura etorri zan, ala illaen biztutze berriak ere, gizon batgandik etorri bear du.
22. Eta nola Adangan guztiak iltzen diran, ala Kristogan guztiak biztutzen dira.
23. Baña bakoitza bere txandan, eta aurrena Kristo, gero Kristorenak diradenak, eta bere etorreran sinistu dutenak.
24. Gero bereala izango da munduaren atzena, Jesukristo gure Jau-nak bere erreñua bere Jaungoiko eta Aitari ematen dionean, baitabere beste eskubide guztia, erreñatze guztia, ta agintaritza guztia desegiten duenean.
25. Bitartean erreñatu bear du, aliketa Aitak etsai guztiak bere oñen azpian ipintzen diozkan artean.
26. Eta eriotza izango da, atzenengo desegingo dan etsaia, zeren Jaungoikoak gauza guztiak bere semearen oñen azpian ipiñi zituen. Baña Eskriturak esaten duenean:
27. Gauza guztiak bere mendean daude, duda gabe aditzen da, salbu, gauza guztiak bere mendean jarri ziozkana.
28. Eta gauza guztiak bere mendean daudenean, orduan Semea bera ere, gizona danez, jarriko da, gauza guztiak bere mendean jarri ziozkanaren mendean; onela gauza guztietan, guztia Jaungoikoarena izan dedin.
29. Bestela, zer egingo dute bataiatzen diradenak illai laguntzeagatik, iñolaere illak biztzen ez badira? Zergatik bada illakgatik bataiatzen dira?
30. Eta zertarako ordu guztietan anbeste perilletan gu jartzen gera?
31. Ez dago egunik, ziertotzat iduki ezazute, ene anaiak, ni iltzen ez naizanik, seguratzeko zuen gloria eta nerea ere, zeñ Jesukristo gure Jau-nagan dagoan.
32. Zer balio dit (gizona naizanez) gudatzea Efeson pisti odolgiroen kontra, illak berriz biztzen ez badirade? Oiek ala badirade, ez dezagun beste gogoraziorik iduki jatea eta edatea baizik, zeren biar ilko gera.
33. Etzaitezela engañatuak izan. Izketa gaiztoak, oitura onak galtzen dituzte.
34. Beillan zaudete, o justoak, eta ez ezazute bekatu-ekin egin, zeren gure artean badaude gizonak Jaungoikoa ezagutzen ez dutenak, zuen lotsarirako esaten det.
35. Baña, illak nola biztuko dira? Esango dit norbaitek. Edo, zeñ gorputzekin etorriko dira?
36. Txoroa! Zuk ereitzen dezunak, ez du bizitzarik artzen, aurrena iltzen ez bada.

37. Eta ereitzen dezunean, ez dezu ereitzen gero erneko dan landa-rearen gorputza, baizik ale uts eta soilla, esaterako, gari alea, edo beste gauzaren batena.
38. Alaere Jaungoikoak, berak nai duen bezela, ematen dio gorputza; eta azi bakoitzari, berari dagokion gorputza.
39. Aragi guztia, ez da aragi bat bera; baizik bata da gizonen aragia; beste bat abereena; beste bat egaztiena; beste bat arraiena.
40. Badira ere zeruko gorputzak, eta lurreko gorputzak, baña bat zerukoen edertasuna, eta beste bat lurrekoena.
41. Bat da eguzkiaren argitasuna, beste bat illargiaren argitasuna; eta beste bat izarren argitasuna. Eta izarretik izarrena ere badago desberdintasuna argitasunean.
42. Illaen biztze berrian ere ala gertatuko da. Gorputza, azi baten gisara, ipintzen da lurrean usteltzeko, eta biztuko da berriz usteldu eziña.
43. Ipintzen da lurrean guztia itsusia, eta biztuko da gloriaz betea. Ipintzen da lurrean mugitu ez ditekean eran, eta biztuko da bizkor.
44. Ipintzen da lurrean abere baten gorputzaren gisan, eta biztuko da espirituzko gorputz bat bezela. Zeren nola dagoan gorputz aberea, ala gorputz espirituzkoa ere badago; eskribitua dagoan bezela.
45. Lendabiziko gizona, Adan, izan zan egin anima biziarekin. Atzeneko Adan Jesukristo, espiritu bizitzalez betea izan da.
46. Baña espirituzko gorputza ez da lenengo egin izan zana, gorputz aberea baizik.
47. Lenbiziko gizona da lurrezkoa, lurretik egin; ta bigarren gizona da zerukoa, zerutik datorrena.
48. Nola lenbiziko gizona lurrezkoa izan dan, bere semeak ere, ala lurrezkoak izan dira, eta nola bigarren gizona zerukoa dan, bere semeak ere zerukoak dirade.
49. Ala bada, nola lurreko gizonaren irudia gudan tinkatua eraman degun, zeruko gizonaren irudia ere, eraman dezagun.
50. Oiek esaten ditut, nere anaiak; zeren aragia eta odola Jaungoikoa-aren erreñuaren jabeak ez ditezke izan, eta usteltasuna ere ez da izango, usteldu ez ditekean herenziaren jabe.
51. Eta ona emen non, nere anaiak, esaten dizutedan misterio bat: Guztiok egiaz berriz biztuko gera; baña ez gera guztiok zeruko gizon izatera itzuliko.
52. Berealashen batean, begiak itxi idiki batean, atzeneko tronpetaren otsera, zeren tronpetak ots egingo duen, eta illak berriz biztuko dirade,



usteldu ez ditezken egoera ta estaduan; eta orduan gu aldatuak izango gera.

53. Zeren premiazkoa dan, gorputz ustelkor au, usteldu ezin biurtu dedilla, eta gorputz ilkor au, illezin biurtu dedilla.

54. Gorputz ilkor au illezin biurtu dedinean berriz, orduan kunplutuko da, eskribitua dagoan itza: Garaipen batekin eriotza iretsia izan da.

55. Non dek, eriotza, ire garaipena? Non dek, o eriotza, ire akulloa?

56. Eriotzaren akulloa bekatua da; bekatuaren indarra berriz, legeak emana da.

57. Baña eman diozkagun eskerrak Jaungoikoari, zeñak Jesukristo gure Jaunaren bertutez, eriotzaren kontra garaipena eman digun.

58. Ala bada, nere anai maiteak, zaudete alaiak eta azkarrak, Jaunaren obran, geroago beti lan geiago, ta geiago egiten dezutela; zeren badakizuten, Jaunaren aurrean zuen lana ordañ gabe ez dala geldituko.

### AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Santuentzat biltzen diran limosnaen gañean, nik Galaziako elizai agindu nien bezela, zuek ere ala egin ezazute.

2. Asteko lenbiziko egunean zuetatiko bakoitzak ipiñi beza berezian, eta gorde beza bere borondate onari deritzana. Ni joaten naizanean, orduan limosnaen biltzeak egin ez ditezen.

3. Eta ni an nagoanean, zuek izendatzen dizkidazuten lagunak nere kartakin bialduko ditut, zuen limosnak Jerusalemara eramatera.

4. Eta ni joatea premiazkoa balitza, nerekin joango dira.

5. Mazedonia iragota gero, zuekgana etorriko naiz, zeren Mazedoniako probinziatik irago bear naizan.

6. Eta noaski zuekin geldituko naiz, eta bear bada negua iragoko det, zuek eraman nazazuten joango naizan edozeñere tokitara.

7. Zeren oraingo aldian, iraitzean bakarrik etzaitzuet ikusi nai; baik izitxedotzen det, zuen artean denboratsu batean gelditzea, Jaunak lakeztzen badit.

8. Eta Efeson geldituko naiz Pentekosteseraño, edo Maiatz Pazkoe-taraño.

9. Zeren ate andi eta zabal bat idikia daukat Ebanjelioa predikatze-ko, etsaiak anitz badira ere.

10. Timoteo joaten bada zuek ikustera, egin ezazute alegina, zuen artean beldurrik gabe egon dedin, zeren Jaunaren obran, ni bezela, lanean ari dan.

11. Argatik iñork ere ez beza mezpreziatu gaztea dalako, eta gero pake onean bialdu ezazute, nerekin ikustera etorri dedin, zeren anaiakin bere zai nago.

12. Gure anaia Apoloren gañean, jakineraztzen dizutet, erreku asko egin diozkadala zuekgana joan dedin, gure zenbait anaiakin; baña ez du ongitzat iduki, orain joatea; baña beta daukanean, joango da.

13. Bitartean beillan egon zaitetze; zaudete azkar fedean, gizonkiro lanean ari zaitetze, eta alaitu zaitetze geiago ta geiago.

14. Zuen gauza guztiak karidadean egin bitez.

15. Nere anaia, Estefanas, Fortunato, eta Akaikoren familia ezagutzen dezute. Badakizute Akaiako lenbiziak diradela, eta santuen serbitzora konsagratu ziradela.

16. Erregututzen dizutet, ongi artu ditzatzutela oiek, eta oiek bezelakoak; eta Jaungoikoaren obran laguntzen dutenak, eta lan onetan ari diradenak.

17. Eta txit poztzen naiz, Estefanas, eta Fortunato, eta Akaikoren etorrerarekin, zeren zuek egin etziñizadaketena, berak egin zidaten.

18. Ala nere espiritua eta zuena gozatu zuten. Alako lagunai bada esker ona erakutsi zaiezute.

19. Asiako elizak eskumuñak egiten dizkizute. Eskumuñak egiten dizkizute Jaunagan gura txit biziakin Akilak, eta Priszilak, beren etxeko elizarekin, zeñean ni ostatuz nagoan.

20. Eskumuñak anaia guztiak. Zuek ere elkarri diosal egin zaiezute, karidadeko besarka santuan.

21. pabloren agurra, nere eskuarekin egina dijoa.

22. Jesukristo gure Jauna maitatzen ez duena, doakabea izan dedilla; Maran, Atha (au da, betiko) madarikatua.

23. Jesukristo gure Jaunaren graziak zuekin izan bitez.

24. Nere karidadea zuekin guztiokin. Amen.



## SAN PABLO APOSTOLUAREN BIGARREN KARTA KORINTIOARRAI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo Jesukristoren Apostoluak Jaungoikoaren borondatez, eta Timoteo bere anaiak, Jaungoikoaren Eliza Korinton dagoanari, eta Akaia guztian dauden santu guztiai,

2. Gure Aita Jaungoiko, eta Jesukristo gure Jaunak, grazia eta pakea eman ditzatzutela.

3. Bedekatua izan dedilla Jaungoikoa; Jesukristo gure Jaunaren Aita, urrikaltasunen Aita, eta gozotasun guztiaren Jaungoikoa,

4. Zeñak gure atsekabe guzietan gozatzeko gaituan, guk ere gozatu ditzagun, edozeñere estatusunetan arkitzen diradenak, Jaungoikoak gu gozatzeko gaituan gozotasun arekin berarekin,

5. Zeren gure Kristoren amorioagatik, naigabeak geitzen diraden neurrian, gure gozotasuna ere Kristogatik ugartzen da.

6. Atsekabatuak bagera, zuen ejemplo onerako eta osasunerako gera; gozatuak bagera, zuek gozatzeko gera; sendotuak bagera, zuek sendotzeko eta salbatzeko gera, eta obra au osotzen da pazienziarekin, zeñarekin sufritzen dituzuten, guk ere berdin sufritzen ditugun penak berak:

7. Alako moduan, non, gure itxedopena zuen gañean sendoa da: jakinik, nola zeraten gure lagunak penaetan; gozotasunean ere ala izango zeratela.

8. Ez det nai bada, nere anaiak, jakin gabe egon zaitezela, nola atsekabeak irago ginduen Asian; nolako gaitzak in lertuak ikusi giñan, ain geiegia eta gure indarrez gañetikoak, non, bizitzeko gogorik ere ez geunkan.

9. Baña baldin an aditu bagenduen, gure barrenetan gure eriotzako sententzia ematen zala, au izan zan, ez genezan jarri guran gure itxedopena, baizik illak berriz biztzen dituen Jaungoikoagan,

10. Zeñak libratu gaituen, eta orain ere libratzen gaituen eriotzako perill andietatik; eta zeñagan itxedotzen degun oraindikan ere libratuko gaituela,

11. Laguntzen diguzutela zuek ere zuen orazioakin; askok eskerrak eman ditzaten, egin digun mesedeagatik, lagun askoren onerako dan ezkerro.

12. Zeren gure gloria guzti au da, gure konzienziak ematen digun testigantza, bizi izan guralako mundu onetan biotzeko tolesgabetasunean eta

zintzotasunean Jaungoikoaren aurrean, ez aragiaren zentzuaren araura, Jaungoikoaren graziaren araura baizik, eta batezere zuen artean.

13. Ez dizutet nik beste gauzarik eskribitzen, baizik gauza batzuek, zeñaen egia ezagutzen dezuten irakurtzen dituzutenean. Eta itxedotzen det, ezagutuko dituzutela atzeneraño,

14. Bada onezkero zerbaitean ezagutu dezute, gu zuen gloria gerala, zuek gurea izango zeraten bezela Jesukristo gure Jaunaren egunean.

15. Eta itxedopen onekin, aurrena zuekgana etorri nai nintzan, bigarren grazia bat artu zenezaten,

16. Eta zuekgandik Mazedoniara iragotzea, eta berriz Mazedoniatik zuekgana etortzea, eta zuek Judeara eramanak izatea.

17. Oiek ziran ezkerro nik nai nituenak, zalanzan ibilli al naiz? Edo pensatzen ditugun gauzak, aragiaren araura pensatzen al ditut, alako moduan, non, ain laster esaten dedan: Bai, zeñ, ez?

18. Baña Jaungoiko egiazkoa testigutzat jartzen det, adirazi dizutedan itzean, ez dala egon ezerere Bai-renik, ez Ez-enik.

19. Zeren Jesukristo gure Jaun, guk predikatzen dizuguna, au da, nik, eta Silbanok, eta Timoteok, ez da alakoa, non, arkitzen diran Baia eta Eza, baizik guztia da aldatzen ez dana, Bai bat, beti irautzen duena.

20. Jaungoikoak egindako eskeñtza guztiak bada, daukate Bai onetan beren egia, baitaere beragatik guztia nai ta ez kunplitzen da, Jaungoikoaren onra eta gloriarako, eta onek gure lantegiaren gloria ere egiten du.

21. Ala Jaungoikoa da gu zuekin batean, Kristoren fedean sendotzen gaituena, eta bere olioarekin igortzi gaituena,

22. Baitaere bere sillonarekin markatu gaituena, eta eskeñi dizkigun ondasunen bai eta arratzat, Espiritu Santua gure biotzetan ematen digu.

23. Neregan danez, Jaungoikoa testigutzat jartzen det, eta nai det kastigatu naizala, egia esaten ez badet, oraindiano Korintora ez iragotzea izan dala, zuekin biguña izateagatik. Ez da au zuen fedearen eskubide ta jabetasuna daukagulako, kontrara, zuen gozotasuna geitzeko al deguna egiten degu, artu zenduten fedean azkar irautzen dezutelako.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Au da nere artean erabaki dedana, ez berriz zuekgana joatea, tristetu etzaitzadan.

2. Zeren ni banoa zuek tristetzera, gero nork bozkariotuko nau, zuek au egin bear zendutenak, arkitzen bazerate nik tristetuak?

3. Eta orregatik eskribitu dizutet, ez idukitzeko allegatzen naizanean tristeza tristezaren gañean, ikusirik aiek berak, zeñak bozkariotu bear nin-



duten, itxedotzen dedala zuek guztiok zuen gloria nerean arkitzen dezutela.

4. Egia da orduan eskribitu nizutela txit atsekabetua arkitzen nintzala, eta biotz antsiatu batekin, eta negar malko ugari jarioan, ez zuek tristetzeko, baizik ezagutu erazitzeko zuei, nola berarizko amorioa daukazutedan.

5. Zuetatikoren bat izan bada tristetu nauena, tristezaren piska bat bakarrik neri allegatu zat. Au esaten dizutet, ez zuei erriertarik egiteko, zeren guztiok atsekabetu zeraten.

6. Asko du alakoak errierta ori, anaietatik askok egina.

7. Orain kontrara, berarekin biguñak izan bear zerate, eta gozatu bear dezute; tristeza geiegirekin alakoa etsita, galdu ez dedin.

8. Argatik erregututzen dizutet, berriz ere karidadez begiratu dizaiozutela.

9. Eta argatik eskribitu dizutet, ezagutu dezadan egiteakin, gauza guztietan obeditzen ote didazuten.

10. Zuek biguñtasunarekin ematen diozutena, nik ere bai; zeren nik eman dedana, baldin ezerere eman badet, zuen amorioagatik egiten det, Jesukristogan,

11. Satanasek ingurutu ta arrapatu ez dezan gutatikorik batere, zeren bere asmazioak badakizkigun.

12. Ni Troadera etorri nintzanean, Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelioa predikatzeraz, Jaunak onetarako atea idikitzen zidala,

13. Nere espirituak etzeukan atsedenek, nere anaia Tito ez nuelako arkitu, eta ala berai diosalak eginik, Mazedoniara joan nintzan.

14. Baña Jaungoikoari eskerrak, zeñak beti egiten duen, Jesukristogan garaienarekin atera gaitezela; eta gure bitartez toki guztietan, bere izen santuaren ezageraren usai ona isurtzen du.

15. Zeren gu Jaungoikoaren aurrean Kristoren usai ona geraden, ala salbatzen diradenentzat, nola galtzen diradenentzat.

16. Batzuentzat usai ilgille eriotza dakarrena; besteentzat berriz usai bizigille, bizitza ematen duena. Eta oiatarako, zeñ izango da egokia?

17. Baña ziertoro ez gera gu Jaungoikoaren itza nastutzen degunak, baizik predikatzen degu zintzotasunarekin, Jaungoikoaren aginduz bezela, Jaungoikoaren aurrean, eta Jesukristoren espirituaren araura.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Asiko ote gerade berriz ere, gu gerok alabaten? Edo, bear al ditugu batzuek errekomendazioko kartak zuentzat, edo zuek besteentzat eman dizazkiguzutela?

2. Zuek zerok zerate gure karta, gure biotzetan eskribitua, eta gizon guztiok irakurria:

3. Zuen obrakin agertzen dezutela, zuek zeratela Jesukristoren karta, gure lanen bitartez egina, eta eskribitua, ez tintarekin, baizik Jaungoiko biziaren espirituarekin, ez arrizko oletan, baizik aragizko oletan, zeñ zuen biotzak diraden.

4. Alako itxedopena daukagu, Jaungoikoagan Kristogatik.

5. Ez gu gai geralako, gu gurez, gogorazio onen bat ere idukitzeko; baizik gure gaitasuna Jaungoikoagandik dator.

6. Eta Jaungoikoa bera ere da, Testamentu berriko langilleak izateko egokiak egin gaituena, ez legearen letraren, baizik espirituaren langilleak, zeren letrak bakarrik iltzen duen, espirituak berriz biztzen duen.

7. Baldin eriotzako lege aren misterioa, arri bien gañean letrak in itsatsi eta tinkatua, izan bazan ain gloriatsua, non, Israelko semeak ezin zuten begiratu ere Moisesen arpegira, bere arpegiko argitasun, iraunkorra etzanagatik,

8. Nola ez da izango berdinkuntzarikan ere gabe gloriaraz beteagoa, Espirituaren lanetan aritzea?

9. Zeren baldin aritutzea anziñako legeko lanetan, kondenazioko bidea bazan ere, ain gloriaraz bete izan bazan; asko gloriaraz beteagoa da justiziako legeko lanetan aritzea.

10. Eta aldamen artatik gloriatsua izan dana ere, ez da gloria egiazko bat izan, Ebanjelioko gloriarekin berdintzen baldin bada.

11. Zeren utsean gelditzen dana gloriaraz bete egon bada; beti irautzen duenak gloriatsua izan bear du.

12. Daukagula bada guk alako itxedopena, aukera guztiarekin itz egiten dizugu.

13. Eta ez degu egiten Moisesek bezela, zeñak belo bat bere arpegia- ren gañean ipintzen zuen, Israelko semeak ezin zutelako begiratu bere arpegira argitasun andiagatik, iraunkorrak ez bazuen ere izan bear.

14. Eta ala beren biotzak gogortuak gelditu dira. Zeren gaurko eguna- ñaño belo au berau daukate beren begien aurrean, beñere jaso gabeta- nik anziñako Testamentua irakurtzen dutenean (zeren Kristogan bakoiz- tak daukan fedearen bitartez baizik ez dan kentzen)





15. Eta ala gaurko eguneraño ere, Moises irakurtzen danean, biotza belo batek estalitzen du.

16. Baña erri au Jaunagana biurtzen danean, beloa kenduko da.

17. Zeren Jauna Espiritua dan, eta Jaunaren Espiritua non dagoan, an dago aukera ere.

18. Eta ala gu guztiok, gogoratzen degula arpegi agertuarekin, izpillu batean bezela Jaunaren gloria, iragoak gera Jesukristoren irudira beratara, aurreratzen gerala argitasunetik argitasunera. Jaunaren Espirituak argituak bezela.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Argatik idukirik guk lege berria predikatzeko lantegia, Jaungoikoagandik iritxi degun urrikaltasunaren bitartez, ez gera desalaitzen,

2. Baizik gugandik urrutira aurtikitzen ditu guezurrezko asmazio ezkutukoak, astruziak ibilli gabe, eta Jaungoikoaren itza ez degula nas-tutzen, baizik gure alde ta onean bakarrik esaten degula, beren konzien-ziaren araura gugatik juzgatzen dutenai, nolako zintzotasunarekin Jaungoikoaren aurrean egia predikatzen degun.

3. Eta oraindikan gure Ebanjelioa estalia badago, da bakarrik galtzen diradenentzat, zeñaentzat estalia dagoan.

4. Sinisgogor orientzat, zeñaen adimenak gizaldi onetako Jaungoikoak itsutu dituen, argi egin ez dizaien Kristoren gloriako Ebanjelioak, zeñ dan Jaungoikoaren irudia.

5. Zeren ez gera predikatzen gu gerok, baizik Jesukristo gure Jauna, Jesusen amorioagatik zuen serbitzari egiten gerala.

6. Zeren Jaungoikoak, zeñak esan zuen argia illuntasunetatik irten zedilla, berak dist eginerazi dio bere argitasunari gure biotzetan, guk besteak arkitu ditzakegun, Jaungoikoaren gloriaren ezageraren bitartez berak Jesukristogan argi egiten duen bezela.

7. Baña gordairu au buztiñazko ontzi auskorretan daramagu, ezagutu dedin guban ikusten dan eskubidearen anditasuna Jaungoikoarena dala, ta ez gurea.

8. Atsekabe mota guziakin erasoak arkitzen gera; baña argatik ere ez gera desalaitzen; estutasun andietan gaude; baña ez etsiak.

9. Persegituak gera, baña ez utziak; azpiratuak, baña ez osoz galduak.

10. Beti dakargu iruditua gure gorputzean aldamen guztietatik Jesusen mortifikazioa, Jesusen bizitza gure gorputzetan ere agertu dedin.

11. Zeren gu bizi bagera ere, gera aspertu gabe jarriak eriotzaren mendean Jesusen amorioagatik, Jesusen bizitza gure aragi ilkorrean ere agertu dedin.

12. Ala eriotza bere obraetan beti dago, ta dabil guban, zuekgan berriz bizitza gozatsuak argi egiten du.

13. Baña daukagula Dabiden fedearen espirtu hura bera, zeñak, eskribitua dagoan bezela, esaten zuen: «Sinistu nuen, argatik itxedopena- rekin itz egin nuen». Guk ere sinistzen degu, eta argatik itz egiten degu.

14. Ziertotzat daukagula, Jesus berriz bizitu zuenak, gu ere Jesusekin bizutko gaituala, eta zuekin batean bere glorian jarriko gaituala.

15. Zeren guban iragotzen diran gauza guztiak, zuekгатik egiten dira; grazia ugaritasunarekin zabaldua izan dedin Jaungoikoaren gloria geitze-ko, askok emango diozkaten eskerren bitartez.

16. Argatik ez gera desalaitzen: baizik guban kanpotiko gizona geldika geldika deseginaz badijoa ere, barrendikoa egunetik egunera berrizta- tuaz dijoa.

17. Zeren bizitza onetako atsekabe ain labur, eta arinak, ekartzen digute, gloria goratu eta berdinik gabeko baten pisu betikoa.

18. Eta ala, ez degu guk begiratzen ikusten ditugun gauzaetara, bai- zik ikusten ez diradenetara. Zeren ikusten diradenak, iragokorrak diraden; baña ikusten ez diradenak, betikoak.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Badakigu ere, lurreko etxe au, zeñatan bizi geran, desegiten bada, Jaungoikoak emango digula zeruan beste etxe bat; etxe bat, ez gizonen eskuz egina, eta beti iraungo duena.

2. Argatik emen ere suspirioz gaude, gañeko soñekoaren, edo zeru-ko gure bizilekuaren gurariz.

3. Arkitzen bagera obra onakin jantziak, eta ez billosik.

4. Ala da ere arkitzen geran artean gorputz onetan, gudako etzaun- tzetan bezela, suspirioz gaude, makurtuak bere pisu astunaren azpian, bada ez genduke naiko, bera gabeturik ikusi gaitzela, baizik lenguaren gañetik bezela jantziak izatea, alako moduan, non, betiko bizitzak beraga- natu dezala, eta desegin ilkorrak geran aldamenetik guban dagoana.

5. Eta estadu onetarako egin ginduen da Jaungoikoa, zeñak bere espirtua prendatzat eman digun.

6. Argatik beti gaude itxedopenez beteak, eta nola dakigun, gorputz onetan gauden artean, Jaungoikoagandik berezituak, eta gure erritik kan- pora gaudela,



7. (Zeren beraganontz goaz fedearen bitartez, eta oraindikan ez degu argiro ikusten)
8. Daukagun itxedopen onetan, naiago degu gorputzetik alde egitea, eta Jaunaren aurrean egotea.
9. Argatik gure alegin guztiak dira, Jaungoikoaren gogokoak egin gaitzela, naiz bizi gaitzela gorputzean, naiz beratatik irten gaitzela Jaungoikoagana joateko.
10. Zeren gu guztiok agertu bear gera Jesukristoren Tribunalaren aurrean, bakoitzak artu dezan bere obra onak, edo gaiztoakgatik irabazi duen ordaña, gorputzean egon dan artean.
11. Jakinik bada Jaunari zor zaion beldurra, egiten ditugu eginalak guztiak, gizonen aurrean justotutzeko; baña Jaungoikoak ongi ezagutzen gaitu zer geran. Eta sinistu ere nai det; baita sinistzen det, zuek ere an zuen barrenen ezagutzen gaituzutela.
12. Ez da au, berriz zuei gure alabantzak adiraztea; baizik ematea bidea zuei gure gauzaetan gozatzeko, zer erantzun iduki dezazuten gozaten diradenai kanpotik bakarrik agertzen danean.
13. Zeren guk kontatzen baditugu Jaungoikoaren ikusketak, eta artu ditugun beste doai eta mesedeak, da Jaungoikoaren gloria zuei agertzeko. Beeratutzen bagera, da zuekगतिक.
14. Zeren Kristoren karidadeak estututzen gaitu: uste izanik, bat guztiakगतिक il bazan, beraz guztiak il ziran.
15. Eta Kristo guztiakगतिक il zala; onezkero bizi diradenak, berentzat ez ditezen bizi, baizik berakगतिक il, eta biztu zanarentzat.
16. Argatik guk emendik aurrera, ez degu ezagutzen inor ere aragiaren araura. Eta baldin len Kristo ezagutu bagenduen, orain onezkero ez degu ala ezagutzen.
17. Argatik baldin inor Jesukristogan badago, onezkero izate berri bat da. Aitu zan zarra zana, eta guztia da berria; bada guztia berriztatua izan da.
18. Eta guztia da Jaungoikoaren obra, zeñak adiskidetu gaituen berarekin Jesukristoren bitartez, eta guri bere adiskideak egiteko lantegia eman digu.
19. Zeren Jaungoikoa zan mundua berarekin adiskidetutzen zuena Jesukristoren bitartez, berai ez itsatsirik beren obenak; eta bera da jarri dituen gure mingañetan, berarekin adiskideak egiteko itzak.
20. Gu bada gera Jesukristoren izenean gatozan mandatarari batzuek, eta Jaungoikoa bera da gure aoz itz egin eta erregututzen dizutena. Esa-

ten dizutegu bada txit gogotik Jesukristoren izenean, Jaungoikoarekin adiskidetu zaitzuzela.

21. Zeñak gure amorioagatik, bekatuak beñere egin etzuen, tratatu du, bekatua bera balitza bezela, gu Jaungoikoaren justiziarekin, beragan justoak izatera etorri gindezen.

## SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta ala guk, Jaunaren laguntzalleak bezela, gogotik esaten diguzute, Jaungoikoaren grazia alperrik ez dezazutela artu,
2. Zeren berak esaten duen: Denbora egokian zure erreguak aditu nituen, eta salbazioko egunean lagundu nizun. Ona non allegatua dan orain denbora egokia; salbazioko eguna orain allegatua da.
3. Guk berriz ez dizaiogun eman inori ere gaitzerako biderik batere, gure lantegia isekatua izan ez dedin,
4. Baizik gauza guztietan agertu gaitezen, Jaungoikoaren Ministroak bezelakoak pazienza askorekin, atsekabeetan, premietan, estutasunetan,
5. Azoteetan, karzelaetan, iskanbilletan, lanetan, beilletan, barauetan,
6. Kastidadean, jakindurian, iragopen andian, leuntasunean, Espiritu Santuagan, karidade zintzoarekin,
7. Itz egiazkoetan, Jaungoikoaren sendotasunarekin, justiziako arma-kin ezker eskuietara gudan aritzeko,
8. Onren eta desonren artean, fama txarraren eta onaren artean, gaukazkitela engañalaritzat, egiatik izanik; ezezaguntzat, txit ezagunak izanik.
9. Iltzen gaudenak bezela, bizitzaz beteak gu egonik, kastigatuak bezela, baña ez illak.
10. Malenkoniatsuak bezela, beti bozkarioz egonik, premiatsuak bezela, guk gerok asko aberastutzen degunean, deusik ere ez begeunka bezela, guztiaren jabe geradenean.
11. Gure aoa, o Korintioarrak, zuekganako idikia dago, eta gure biotza dago zabaldua.
12. Nere erraiak zuentzat ez daude zarratuak; zuenak bai daudela neretzat.
13. Amorioa bada amorearen ordañean itzuli zadazute; nere semeai bezela itz egiten dizutet, zuek ere zuen biotza neretzat zabaldu ezazute.
14. Etzaitz infielakin uztartu, zeren justiziak gaiztakeriarekin, zer dauka zer ikusi? Eta argiaren, ta illuntasunaren artean, zer laguntasun egon lezake?
15. Edo Kristoren eta Belialen artean, zer elkartasun? Edo fielak infielakin, zer ano, ta partaletasun dauka?



16. Edo zer berdintasun Jaungoikoaren tenplo, eta idoloenaren artean? Zeren zuek Jaungoiko biziaren tenploak zeraten, Jaungoikoak esaten duen bezela: «Beren barrenen bizituko naiz, eta ibilliko naiz beren erdian; eta ni beren Jaungoikoa izango naiz, eta berak nere erria izango dirade.

17. Argatik irten zaitezte zuek alako jendeen artetik, eta beretatik berezitu zaitezte, Jaunak esaten du, eta zikinkeriarri ukiturik ere etzaiozute egin,

18. Eta nik artuko zaituztet, eta ni zuen Aita izango naiz, eta zuek nere semeak, eta nere alabak izango zerate», Jaun, guzia dezakeanak esaten du.

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Dauzkagula bada, ene anai txit maiteak, alako eskeñtzak, aragiko eta espirituko orban guzitik garbitu gaitezen; osotzen degula gure santu-tera, Jaungoikoaren beldur santuarekin.

2. Zuen biotzean tokia eman zaguzute. Guk iñori ere ez diogu gaitzik egin; iñori ere ez diogu gaitzotzeko biderik eman; iñor ere ez degu engañatu ondasunak somaz ta marroz arrapatu.

3. Ez det esaten zuek aitzakiatzeko: zeren leenaz esanik dizutet, gure biotzetan zauzkagutela; eta prestatuak gaudela, zuekin batean iltzeko, edo bizitzeko.

4. Andia da zuekgan daukadan itxedopena; asko gauza dauzkat zuekgan gozatzeko; eta ala bozkarioz bete, eta ondatua nago, eta pozez gañez egiten det, nere atsekabe guztien artean.

5. Bada Mazedoniara etorri giñaneko, gure aragiak atsedenek batere etzuen iduki, baizik atsekabe mota guztiak sufritu ditut, gudak kanpotik, beldurrak barrendik.

6. Baña arako Jaungoiko, umillak gozaten dituenak, gozatu ginduen Titoren etorrerarekin.

7. Eta ez bakarrik bere etorrerarekin, baitaere berak zuekandik artu duen gozotasunarekin, zeñaen gura andia ni ikusteko, zuen negarrak aidezko bekatuaren eskandaluagatik, eta niganako daukazuten eraaspen andia, zeñak berak adirazi dizkidan, alako moduan, non, nere bozkarioa txit ugaritu da.

8. Argatik nere kartarekin tristetu bazinduztedan ere, ez det damu; eta egon banintza ere naigabetua, denbora gutxi batean bederik karta ark tristetu zinduztelako,

9. Orain bozkarioz nago, ez iduki zenduten tristezagatik; baizik zuen tristezak penitenziara eraman zaituztelako. Alako moduan, non, iduki dezuten tristeza Jaungoikoaren araura izan da, eta ala gaitzik batere ez dizugu egin;

10. Jaungoikoaren arauko tristezak penitentzia iraunkor bat dakarren ezkerro salbaziorako, munduko tristezak berriz eriotza ematen du.

11. Eta ikusi ezazute bestela, zer egin duen zuekgan, zuekgan sentitu dezuten, Jaungoikoaren arauko tristeza orrek, nolako arreta, nolako ardu-ra zuek justotutzeko; nolako aserrea zuen arteko bekatuagatik; nolako beldurra, nolako gura, gaitza erremediatzeko, nolako zeloa, nolako berotasuna bekatua kastigatzeko! Zuek zuen biziera guztian agertu dezute, gai onetan obengabeak zeratela.

12. Ala bada, eskribitu banizuten ere karta hura, etzan izan, injuria egin zuenagatik, ez padezitu zuenagatik; baizik adiratzeko, nolako arre-tarekin zuekгатik begiraten degun,

13. Jaungoikoaren aurrean. Argatik orain gozatu gera. Baña gure bozkario onetan, beste guztien gañetik bozkarioz bete gaitu Titoren bozkarioak, ikusirik zuek guztiok egin dezutela alegina, bere espiritua gozatzeko.

14. Eta baldin nik eman badiozkat berari, zuei dizutedan berarizko amorioaren ezagungarriren batzuek, ez naiz gezurtatua gelditu; baizik nola gauza guztietan egia esan dizutegun, ala ikusi ere da egia utsa dala, guk Titorei zuekгатik eman giñion testigantza ona,

15. Eta ala egia da, geitzen dala dizuten amorio txit andia, oroitzen dan bakoitzean zuen guztien obedienezarekin; eta beldur santu eta semeen ikararekin, zeñakin bera artu zenduten.

16. Bozkariotzen naiz bada, gauza guztietan nigan daukazuten itxedopenagatik.

### ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Orain jakinerazi bear dizutet, nere anaiak, Jaungoikoak Mazedoniako Elizetakoai egin dien grazia.

2. Eta da, gozotasunez beteak izan diradela, irago dituzten atsekabe askoren araura, zeñakin probatuak izan diran; eta beren pobrezia txit andiak, eta beren biotz garbiak, ondasunak ugaritasunarekin isuri dituela.

3. Zeren eman bear diet testigantza, nola berenez, eta beren borondate osoarekin, al zutena eman dutela, eta oraindik al zutena baño ere geiago,



4. Erregututzen zigutela eskari andiak, artu giñzala beren limosnak, eta utzi gintzaieztekela, berak ere partale izan zitezten, santuai ematen zaien laguntasunean.

5. Eta onetan ez bakarrik egin dute, guk berakgandik itxedotzen genduen, baizik berak ere jarri dira lenengo Jaunaren eskuetan; eta gero guretan Jaungoikoaren borondatearen bitartez.

6. Eta au da, zergatik Titori erregutu diogun, asi duen bezela, bukatu ere dezala, eramatea zuek, lan santu onen betetasunera.

7. Izanik zuek, zeraten bezela, aberatsak gauza guztietan, fedean, itzean, jakindurian, gauza guztietan begiratuak izatean, eta gañera daukadazuten amorioan, grazia mota onetan ere izan zaitezten.

8. Ez det esaten, lege bat jarriko banizute bezela, baizik zuek mugitzeko, ikusirik nola besteak begiratuak diraden, zuen karidade zintzoaren ezagungarriak ematera.

9. Zeren ongi dakizute, nolakoa izan dan Jesukristo gure Jaunaren ugaritasuna ematean, zeñ, izanik aberatsa, zuekgatik pobre egin zan; zuek, bere pobrezaren bitartez, aberasturik gelditu zindezten.

10. Eta ala onetan konseju bat ematen dizutet, bada au zuentzat mesedegarria izango da, ez bakarrik asi ziñaten ezkerro egiten, baitaere zuek zerok zuenez asmazioak artu ziñituzten irago dan urtetik, au egiteko:

11. Bada orain kunplitu ezazute egiteakin. Onela prestatua dagoan bezela zuen gogoia, nai izateko, ala egiztatzen ere izan dedin, daukazutenaren araura.

12. Zeren gizon batek daukanean borondate andia emateko, Jaungoikoak ontzat artzen du; ez diola berari eskatzen al duena baizik; eta ez, ez dezakeanik.

13. Ez da billatzen, besteak ugari iduki dezatela, eta zuek egon zaitezela estutasunean; baizik zuen artean berdintasuna egon dedilla;

14. Orain zuen ugaritasunarekin suplitu dezazuten besteen premia; orobat beren ugaritasunak animako ondasunetan, zuen premia suplitu dezan, emendik berdintasuna etorri dedin, eskribitua dagoan bezela.

15. Manna asko biltzen zuena, etzan geiagorekin arkitzen, ezta ere bear zuena gutxiagorekin, gutxi biltzen zuena.

16. Baña Jaungoikoari eskerrak, nere zelo au bera zuekgatik, Titoren biotzean biztu duelako.

17. Zeren ez bakarrik nere erreguakgatik mugitu zan, baitaere, mugiturik oraindikan geiago zuekganontz bere borondatez, bere naiz joan zan zuek ikustera.

18. Bialdu ere dizugu berarekin gure anaia, zeñaen alabantza eliza guzietan otpatsua egin dan Ebanjelioagatik:

19. Eta zeñ, gañera, elizak autua izan dan, guri gure ibilleretan laguntzeko, eta partale izateko, gure anaiai Jaunaren gloriagatik laguntasun au zuzentzeko daukagun arduran, eta gure borondate prestatua agertzeko.

20. Onela iritxitzen degu, iñork ere ez dezakeala gaizkirik esan gugatik, esku artean darabiltzkgun diru oiek zabaltzearen gañean.

21. Bada begiratzen degu, gauzak ongi egitea, ez bakarrik Jaungoikoaren aurrean, baita gizonen aurrean ere.

22. Baitaere bialtzen degu oiekin, beste gure anaia bat, zeñ asko alditan zeloz bete ikusi degun: eta orain berriz oraindikan geiago dagoana, eta itxedopen andi bat daukat ongi artuko dezutela,

23. Baitaere Tito nere laguna, eta laguntzalea zuen artean; baitaere berari laguntzen dioten beste anaia; eta dirade Apostoluak, edo Elizak bialduak, eta Kristoren gloria.

24. Eman zaiteztezu bada Elizaen aurrean, zuena berariaz dan karidadearen, eta zuen gañean gozatzeko daukagun arrazoiaren ezagungarriak.

## BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Santuai Jerusalemaren ematen zaien laguntasunaren gañean zuei ezerere eskribitzea, neretzat alperrikako lana da,

2. Zeren zuen gogoaren prestatasuna ongi dakidan, zeñgatik gozitzen naizan Mazedoniarren artean, esaten diedala, Akaiako probintzia igaztik prestatua dagoala limosna au egiteko, eta zuen ejemploak asko mugitu duela lan santu oni jarraitzera.

3. Alaere anaia oriek ara bialdu ditut, aldamen onetatik zuekgatik alperrik gozatua izan ez nadin, eta prestatuak egon zaitezten, nik esan dedan bezela egon zaitezteza,

4. Mazedoniarrek nerekin etortzen diranean, eta prestatu gabe, eta ezerere bildu gabe arkitzen zaituztenean, lotsatu ez gaitezen gu, (zuek ez esatearren) gauza onen gañean.

5. Argatik premiazko gauza dala uste izan det, erregututzea aitatu diran anaiai, aurreratu ditezen, eta agindu dezaten, lendanaz eskeña dagoan limosna ori, prestatua egon dedilla; alako moduan, non, izan dedilla doai bat, karidadez eskeña, eta ez zekentasunez arrapatua.

6. Esaten dedana da, urri ereitzen duenak, urri artuko duela, eta esku beteakin ereitzen duenak, esku beteakin bilduko duela.



7. Bakoitzak egin beza eskeña, bere biotzean erabaki zuen bezela, ez gogo gaiztoarekin, edo indarrez bezela, zeren Jaungoikoak bozkarioz ematen duena maitatzen du.

8. Gañerakoan, almentsua da Jaungoikoa, on guztiakin zuek betetze-ko gañez egin arteraño; alako moduan, non, bozkarioz zaudetela beti, gauza guztietan bear dezuten guztia daukazutela, geiyeguian ere iduki dezazuten, zuen projimoakin obra on mota guziak egiteko,

9. Eskribitua dagoan bezela: «Esku beteakin beartsuai ematen diena-ren justiziak, mendez mende irautzen du».

10. Zeren arako Jaungoiko, ereilleari azia zuzentzen dionak, berak zuei ere ogia jateko emango dizute, eta zuen azitokiak ugarituko ditu, eta zuen justiziako frututuai geiago, ta geiago azieraziko die,

11. Guztian aberatsak zeratela, egin ditzatzuten karidadetik zintzoenarekin limosna mota guztiak, zeñak egingo duten, gure izenean, Jaungoikoari eskerrak emanak izan dizazkiola.

12. Zeren bildu bear ditugun eskeñtza oiek, ez bakarrik dira santuen premietarako, baitaere Jaunaren gloria asko goratzen dute, ematen zaiozkan esker andiakgatik,

13. Bada Santuak artzen dituztenean, zuen esku ugariaren ezagungarri oiek limosna egitean, zuen lantegiaren bitartez, Jaungoikoa gloriatz betetzera mugitzen dira, Jesukristoren Ebanjelioaren mendean jartzeko agertzen dezuten gogoagatik, eta karidade zintzo batekin ematen dezute-lako zuen ondasunen zati bat, bai berentzat, bai beste gañerakoentzat,

14. Eta zuekgatik egiten dituzten orazioakin, ematen dute, zuei dizuten amorioaren testigantza on bat, Jaungoikoagandik artu dezuten grazia txit goratuagatik.

15. Izan dedilla bada Jaungoikoa alabatua, bere doai, itzez adirazi ezdezakeanagatik.

## AMARGARREN KAPITULUA

1. Nik Pablok berriz, arako Pablok, zeñak, nere etsaiak esaten duten bezela, zuen artean nagoanean ain txikia dirudidan; baña zuekin ez nagoanean azartua, eta agindu naia zuentzat naizanak, txit gogotik erregutuzten dizutet, Kristoren ontasun eta modu onagatik,

2. Erregutuzten dizutet, diot berriz, zuen artean nagoanean alakoak izan zaitezela, non ez nadin beartua arkitu, egiteko zuekin ematen didaten ausardiaren araura, lagun batzuekin, zeñak uste duten, nere obrak aragiaren araura eginak izango diradela.

3. Zeren aragian bizi bagera ere, ez da gure soldadutza aragiaren araurakoa.

4. Zeren gudan aritzeko dauzkagun armak, ez dira aragizkoak; baizik txit almentsuak dirade Jaungoikoagan gazteluak beera aurtikitzeke, desegitzen ditugula guk berakin gizonen asmazioak,

5. Eta Jaungoikoaren jakinduriaren kontra jaikitzen dan urgulleria guztia; eta adimen guztia Kristoren obediencia menderatzen degula.

6. Eta idukirik gugan eskubidea, desobediencia guztia bengatzeko; egiten dezuteneko, obediencia zuen aldetik eskatzen duen guztia.

7. Ikusi itzatzute gauzak, agertzen diran moduan bederik. Iñork itxarotzen badu Jesukristorena dala, bere artean gogoratu bear du au: Nola bera bera Kristorena dan, ala gu ere bageradela.

8. Zeren piska bat geiago gozatuko banintza ere ni, Jaunak zuen onerako, eta ez zuen galmenerako eman zigun eskubidearekin, ez det idukiko zergatik lotsatu.

9. Baña ez det nai onelakorik egin, iruditzeke biderik eman ez dezadan, nere kartakin zuek izutu nai zaituztedala.

10. Berak esaten ari diran ezkerok, kartak bai lotsakoak, eta eragillak dira, baña bera kaskarra da, eta bere izketa mezpzeziagarri.

11. Ala itz egiten duenak, jakin beza, aurrean arkitzen geranean egingo ditugula gure obrak, beste toki batean gaudela, gure kartaetan itz egiten degun modu artan beratan.

12. Egiaz ez gera ausartatzen jartzen, beren, goratzen diran zenbaiten artean, ez berakin berdintzen, baizik neurtzen gera, gu gerok geradenetik; gu gerokin berdintzen gerala.

13. Argatik ez gera neurritz gora gozatuko, baizik Jaungoikoak eman digun neurriaren araura, zuekganaraño allegatzen dan neurri bat.

14. Zeren ez ditugu neurriak igaro, zuekgana allegatuko ez bagiña bezela, bada zuekganaraño allegatu gera, Kristoren Ebanjelioa predikatzegula.

15. Eta ez gera ere neurrigabero gozatzen, besteen lanak guretzen ditugula. Itxedotzen degu, bai, zuen fedea geituaz joanaz, egingo ditugula, gure mugetatik irten gabe, aurrerapen andiangoak zuen artean,

16. Zuek baño arontzago dauden beste zenbait tokietara ere Ebanjelioa eramaten degula; eta ez gera ere gozatuko, beste batzuei izendatutako barrutia landu eta goldeatua egonagatik.

17. Gañerakoan berriz, gozatzen dana, Jaunagan gozatu bedi,

18. Zeren ez dan probatua, bakoitzak bere burua ontzat ematen duena, baizik Jaungoikoak ontzat eman, eta alabatzen duena.





## AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. O, sufrituko bazenezate denbora piska batean nere zentzurik ezal! Baña bai, sufritu zadazute:

2. Zuen zelotsu maitatzalle bat naizan ezkerro, eta zelotsua Jaungoikoaren izenean. Zeren desposatuak zauzkatet, esposo bakar onekin, zeñ dan Kristo, bere aurrera eramateko birjiña garbi bat bezela.

3. Baña beldur naiz, sugeak Heba bere astruziarekin engañatu zuen bezela, ala zuen espirituak gaiztotuak izan ditezten, eta alde egin ez deza-ten Kristoren ikasleari berari-az dagokion tolesgabebetatik.

4. Egiaz predikatzer- a dijoatzutenak adirazi balizute, nik predikatu dizutedana baño beste Kristo bat, edo artueraziko balizute beste espiritu, artu dezutena baño obaago bat; edo beste Ebanjelio bat, artu dezutena baño goratuago bat, arrazoiarekin sufritu zenezaiokete, eta berari jarraitu.

5. Baña beste Apostolurik andienak baño batere gutxiago ez dedala egin, uste det.

6. Zeren ni izketan polikabea banaiz ere, Kristoren jakindurian zier- toro ez naiz. Dana dala, zuek gauza guztietan ongi ezagutuak gauzkazute.

7. Utsen bat egin al det, zuek goratzeagatik, ni ner- au umillatu banaiz, Jaungoikoaren Ebanjelioa doan predikatzen dizutedala?

8. Beste eliza batzuek ezereregabetuak utzi ditut, ala esateko, artzen nituela berakgandik bear nituen laguntasunak, zuek serbitzeko.

9. Eta ni nengoala zuen errian, eta arkituarren premian, iñorentzat ere zama ez nintzan izan, zeren bear nuena, Mazedoniatik etorritako anaiak eman zidaten; eta denbora guztietan irago nintzan, zuentzat zama izan gabe, eta iragoko naiz.

10. Nigan dagoan Kristoren egiagatik, esaten dizutet, Akaiako alde- rrietan gloria au nigan ez dala gutxituko.

11. Eta, zergatik? Maitatzen etzaituztedalako al? Jaungoikoak badaki.

12. Baña nik au egiten det, eta egingo det oraindik, osoro ebaki- tze-ko okasioa, gozatzeko, billatzen dutenai, gure antze-koak gauza guztie- tan iruditzen diradela, onetan gozatzeko, bide ta motibo bat idukitzeko.

13. Alako Apostolu gezurrezkoak bada, dirade zenbait langille engañalari, Kristoren Apostoluen irudiakin jantzitzen diradenak.

14. Eta ez da arritzeko gauza, zeren Satanas bera argizko aingeru aldatzen da.

15. Ala ez da asko, bere morroiak justiziako ministroen irudia artzea, baña beren atzena, beren obraen araukoa izango da.

16. Berriz esaten det (ez nazala iñork ere zentzugabekotzat iduki, edo gutxienez sufritu nazazute banintza bezela, eta utzi zadazute oraindikan piskatxo bat alabatu nadin)

17. Esatera noana, andik gozatzeko bidea artzeko, sinistu nazazute, nai badezute, zeren nik ez det Jaungoikoaren araura esaten, baizik nere zentzugabetasun, edo urgulleria mota bat da.

18. Baña asko aragiaren araura gozaten diran ezkerro: utzi zadazute ni ere gozatu nadin.

19. Nola zentzudunak zeraten; zentzugabeak naigabe gabe sufritzen dituzuten ezkerro,

20. Zeren zuek sufritzen diezute, mendean jartzen zaituztenai, iretsi- tzen zaituztenai; zuen ondasunak arrapatzen dizkizutenai, urgulleriarekin tratatzen zaituztenai; arpegian jotzen zaituztenai.

21. Lotsa naizala, esaten det au, bada gai onetan erkiegitzat iragotzen gera. Baña beste edozeñere gauzatan, zeñatan norbait urgullututzen dan (usteko dezute zentzu gabe itz egiten dedala) ez daukat nik urgullu gutxiago.

22. Hebreotarrak dira? Ni ere bai. Israeltarrak dira? Ni ere bai. Abra- hamen jatorrikoak dira? Ni ere ala naiz.

23. Kristoren ministroak dira? (Zentzugabekotzat iragotzeko irris- kuan jartzen banaiz ere) Berak baño geiago naizala esango det, zeren arki- tu naizan atsekabe geiagotan, geiago karzelatan, azoteetan neurri- rik gabe, maiz eriotzako irriskuetan,

24. Bost alditan artu nituen Juduakgandik, berrogei azote, bat gutxia- go.

25. Iru aldiz zigorrakin azotatua izandu nintzan; bein arrika egin zidaten; iru alditan itsasora erori nintzan; gau batean, eta egun batean ondatua bezela egon nintzan itsaso zabalean, itsasondora joateko zorian.

26. Maiz ibilli naiz, eta berriz ere penaz betea arkitu naiz; ibaietako irriskuetan, lapurren irriskuetan, jentillen irriskuetan; irriskuak errietan, irriskuak bakartadeetan, irriskuak itsasoan, irriskuak anaia gezurrezko eta malmutsen artean.

27. Lan ta naigabe mota guztietan; asko beillatan; gosean ta egarrian; asko barautan; otzean, eta billostasunean.

28. Kanpoko aldameneko gaitz oiez gañera, daude nere gañean egu- noroko gertakariak Eliza guztien ardura, ta arretagatik.

29. Zeñ da eritzen dana, ni berarekin eritzen ez naizala? Zeñ da eskandalizatua, ni erretzen jarri gabe?

30. Ezertan ere gozatzea bearra bada; nere argaltasunari dagozkion gauzaetan gozatuko naiz.





31. Jaungoikoak, zeñ dan Jesukristo gure Jaunaren Aita, eta zeñ dan betiko bedekatua, daki ez dedala gezurrik esaten.

32. Eta oraindik ez det esan, nola Damaskon nengoanean, Aretas erregeak, jarria zegoan probinziako gobernariak, Damaskoarren erria zaitzen zuen, ni arrapatzeko,

33. Eta leio batetik, zumezka batean izan nintzan desesekia murrutik beera, eta ala bere eskuetatik iges egin nuen.

### AMABIGARREN KAPITULUA

1. Gozatzea bearra baldin bada (gozatuta ezerere irabaztzen ez bada ere) etorriko naiz ni Jaunaren ikusketetara eta errebelazioetara.

2. Nik ezagutzen det Kristogan sinistzen duen gizon bat, zeñ orain amalau urte dirala, (gorputzean, ala gorputzetik kanpora, ez dakit, Jaungoikoak badaki) irugarren zerurano eramana izan zala.

3. Eta badakit gizon au berau (ala gorputzean, ala gorputzetik kanpora, nik ez dakit, Jaungoikoak badaki).

4. Paraisura izan zala eramana; non aditu zituen gizonak ez esan, ez adirazi litzakean itzak.

5. Onelako gizonagatik itz egiten dedala gozatu nindeke. Nere aldamentetik danez berriz, ezertan ere ez naiz gozatuko, nere argaltasun eta penaetan baizik.

6. Egia da, gozatu nai banintza, egin nitekeala, barbull bat izan gabe, zeren egia esango nukean; baña ez det onelakorik egiten, iñork ere uste izan ez dezan, nigan ikusten duena, edo neri aditzen didana baño andiagoren bat naizala ni.

7. Eta zeruko ikuskizunen anditasunak lilluratu ez nazan, emana izan zat, nere aragiaren akullo bat, zeñ dan Satanasen aingeru bat bezelakoa, masallakoka beti ari dizadana.

8. Onen gañen iru alditan erregutu nion Jaungoikoari, nigandikan aldeerazi zizaiola,

9. Eta erantzun zidan: «Nere grazia asko zatzu», zeren nere eskubi-deak argi egiten du, eta iritxitzen du, nai duena argaltasunaren bitartez. Ala bada, bozkarioz gozatuko naiz nere argaltasun eta gaitzetan, Kristoren bertutea neregana egon dedin.

10. Argatik bozkarioz eta gozotasunez arkitzen naiz ni nere eritasunetan, irrietan, premietan, persekuzioetan, eta Jesukristoren amorioz ikusten naizan ansietan. Zeren erkitua nagoanean, orduan Jaungoikoaren graziarekin sendoago naiz.

11. Txoro bat bezelakoa egina nago, alako alabantzak nere buruari eman diozkadalako; baña zuek alakoa izatera beartu nazute. Zeren zuei zegokizuten nere alde jartzea, ezertan ere ez naizan ezkerio izan beste Apostolurik aurreratuenak baño gutxiago, ni nerez utsa banaiz ere.

12. Egiaz, nik eman dizkizutet nere Apostolutzako siñale argiak, agertzen dizutedala iragopen ta pazienza andi bat, mirariakin, gauza arri-garriakin, eta Jaungoikoaren eskubidearen berarizko obrakin.

13. Egiaz, beste elizak baño zer gutxiako iduki dezute zuek, nik zuei kasturikan batere ez eginerazitzea baño besterik? Egin dizutedan bidegabetasun ori, barkatu zadazute.

14. Ona emen non irugarren aldiz prestatzen naizan zuek ikustera joateko, eta orain ere ez dezute nigatik kasturikan batere idukiko, zeren ni zuen billa nabillan, ez zuen ondasunen billa. Begiraturik, semeak ez dituztela egin bear diruzko montoiak gurasoentzat, baizik gurasoak semeentzat.

15. Nik, nigan danez, txit bozkario andiarekin emango det daukadan gutzia; eta ni nerau, naizan guzti au ere jarriko naiz besteren mendean, zuen animaen salbazioagatik, baldin iduritzen bazait ere, zenbat geiago maitatzen zaituztedan, zuek ni gutxiago maitatzen nazutela.

16. Baña, ordu onean, esango dute, ez naizala ni izan zuentzat pisugarria; baña nola nik astruziak dauzkadan, somaz eta marroz arrapatu zaituztedala.

17. Baña, nik bialdu dizutedanen bitartez, zerbati engañoiz arrapatu al dizutet?

18. Nere erreguz joan zan Tito, eta berarekin nere anaia bat bialdu nuen. Titok ezerere ixillean ostu al dizute? Ez al gabiltza espiritu arekin berarekin? Ez al diegu lorratz aiei berai jarraitzen?

19. Uste al dezute orain ere oiek esatean, gure gogoa dala, zuen aurrean justotutzea? Jaungoikoaren aurrean, eta Kristoren Espirituaren araura itz egiten degu; eta esaten dizugun guztia, nere txit maiteak, zuen onerako esaten degu.

20. Beldurtzen nauena da, zuekgana joaten naizanean, etzaituztedala arkituko, nai nukean bezelakoak, eta ni ikusiko nazutela nai ez nukean bezelakoa. Zorigaiztoan arkituko ote diraden zuen artean erriertak, ondamuak, gorrotoak, elkar ikusi ezinak, gaizki esateak, txismeriak, urgulleriak, iskanbillak.

21. Eta zuekgana joaten naizanean, berriz Jaungoikoak zuen artean umillatu ez nazan, eta negar egiteko premian arkitu ez nadin, len bekatu egin zutenetatik asko kastigatzen ditudala; eta oraindik ez dute egin zikin-



keriaren, eta fornikazioaren, eta lujuriaren penitenziarik, zeñatan bizi izan diraden.

### AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Ona non irugarren aldiz natorren zuekgana. Bi testigu, edo iruen esanetik, legeak esaten duen bezela, guztia erabakiko da.

2. Len esan nuen, zuekin arkitzen nintzala, eta orain, zuekgandik berezitua nagoala, berriz esaten det, berriz joaten banaiz, ez diedala barakatuko len bekatu egin zutenai, ez da beste guztiai ere.

3. Ala ikusi nai al dezute, Jesukristo gure Jaun, nire aoz itz egiten duenaren eskubidea, nolakoa dan, eta zeñgatik badakizuten, ez duela zuen artean erakutsi argaltasunik, eskubidea ta indarra baizik?

4. Zeren aragiaren araura argala bezela gurutziltzatua izan bazan ere, alaere orain Jaungoikoaren bertutez bizi da. Ala gu ere argalak gera berarekin; baña egongo ere gera bizirik berarekin Jaungoikoaren bertutez, zeñi zuen artean argi egineraziko diogun.

5. Zuek zerok esaminatu zaitezte, fedean irautzen ote dezuten ikusteko; zuek zerok probatu zaitezte. Zuekgan ez al dezute ezagutzen, Jesukristo zuekgan dagoala? Len ziñanetik erori ez bazerate.

6. Itxedotzen det nik ezagutuko dezutela, ez gerala gu erori, len giñanetik.

7. Eta Jaungoikoari erregututzen diogu, gaitzik batere ez dezazutela egin; eta ez kontrara, gu agertu gaitzezela, geradenak geradela, gure eskubidea erakutsiaz, baizik obra onak egin ditzatzutela; gu agertuko bagiña ere, geranetik erori gerala.

8. Zeren egiaren eta justiziaren kontra ezerere ez dezakegu, baizik gure eskubide guztia egiaren alde dala.

9. Ala da gozutzen gerala, bertutean azkar ta sendo zaudetelako, eta guk erkiak dirudigula, eta berdin Jaungoikoari eskatzen diogu, onosoak eta perfektoak egin zaitzatela.

10. Argatik gauza oiek eskribitzen dizkizutet, zuekgandik berezitua arkitzen naizala; zuekin nagoanean, gogortasunik zer egin iduki ez dezan, Jaungoikoak eman didan eskubidearekin baliatzen naizala, zeñ dan zuentzat ona dana egiteko; eta ez desegiteko.

11. Gañerakoan berriz, nere anaiak, bozkariotu zaitezte, osoz onak izan zaitezte, elkarri onerako itzak esan zaiozkazute; espiritu eta biotz bat batean bildu zaitezte; pakean bizi zaitezte, eta pakeko eta karidadeko Jaungoikoa zuekin izango da.

12. Elkarri agurak egin zaiozkazute laztan santuan. Santu guztiak diosalak egiten dizkizute.

13. Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Aita Jaungoikoaren karidadea, eta Espiritu Santuaren doaien elkartasun eta partaletasuna zuekin guztio-kin izan dedilla. Amen.



## SAN PABLO APOSTOLUAREN KARTA GALATAARRAI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo, Apostolutzan jarria, ez gizonak, ez gizon baten ere eskubi-deak, baizik Jesukristok, eta bere Aita Jaungoikoak, zeñak illaen artetik biztu zuen:

2. Eta nerekin dauden anai guztiak Galaziako Elizai:

3. Zuei grazia eta pakea Aita Jaungoikoaren eta Jesukristo gure Jaunaren izenean,

4. Zeñ eman zan bera eriotzara gure bekatuakgatik, mundu onetako usteltasunetik gu ateratzeko, Jaungoiko eta gure Aitaren borondatearen araura,

5. Zeñaena dan gloria mendez mende. Ala izan dedilla.

6. Mirestzen naiz nola ain erraz utzitzen dezuten Jesukristoren grazia ots egin zizutena, beste Ebanjelio bati jarraitzeko.

7. Baña ez dago beste Ebanjeliorik, baizik badirade lagun batzuek, nastuak erabiltzen zaituztenak, eta Kristoren Ebanjelioa goibetu nai dutenak.

8. Baña naiz guk gerok, naiz zeruko Aingeru batek, al balitza, predikatuko balizute, guk predikatu dizugun Ebanjelioagandik desberdina danen bat, madarikatua izan dedilla.

9. Esan dizutet, eta berriz ere esaten dizutet: Artu dezuten Ebanjelioagandik desberdina dan Ebanjelioren bat adiratzten dizutena, madarikatua izan dedilla.

10. Zeren atzenean, billatzen al det nik orain gizonen ongi-iritzia, ala Jaungoikoarena? Oraindik jarraituko banio gizonen gurai oben egiteari, Jesukristoren serbitzaria ez nintzate izango.

11. Zeren jakinerazitzen dizutet, nere anaiak, nik predikatu dizutedan Ebanjelioa, ez dala gizonen asmazioen gauza.

12. Zeren ez det nik artu, ez ikasi gizonakgandik, baizik Jesukristoren irakatsiz.

13. Zeren ongi aditu dezute, nola bizi nintzan ni beste denbora batean Juduen fedean, nolako sumintasun geegiarekin persegitu nuen Jaungoikoaren eliza, eta ondatzen nuen.

14. Eta nere erreñuko, nere ideko askoren artean berarizko aurrerapenak egiten nituen Juduen erreljioan, nere gurasoetatik etorritako erakutsien txit zelotsua nintzala.

15. Baña izan zanean Jaunaren borondatea, zeñak autu eta berezitu minduen nere amaren sabeletik, eta bere graziarekin ots egin zidan,

16. Agertzea neri bere senea, nik erreñuai predikatu nizaien, bereala egin nuen, aragiagandik, ez odolagandik konsejua artu gabe,

17. Ezta Jerusalemere ere irago gabe, ni baño lenagoko Apostoluen billa, baizik bereala joan nintzan Arabiara, nondik berriz Damaskora etorri nintzan.

18. Andikan iru urteren barrenen joan nintzan Jerusalemere, Pedro ikustera, eta amabost egunean berarekin egon nintzan.

19. Eta Apostoluetatik besterik batere ez nuen ikusi, Santiago Jaunaren anaia (lengusua) baizik.

20. Eskribitzen dizutedan guztiaren gañean Jaungoiko testigutzat jartzen det, ez dedala gezurrik esaten.

21. Andik joan nintzan Siriako, eta Siliziako alderrietara.

22. Ordu artaraño ez minduten begiz ezagutzen Judean zeuden Kristoren elizak.

23. Bakarrik aditu zuten esaten: Len persegitzen ginduenak, orain predikatzen du, beste denbora batean berak erasotzen zion fedea.

24. Eta Jaungoikoagana egin nuen biurreragatik, berari eskerrak ematen ziozkaten.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Amalau urte geroago itzuli nintzan Jerusalemere Bernaberekin, Tito ere nerekin eramaten nuela.

2. Igo nintzan bada Jerusalemere, iduki nuen zeruko argitasun batgatik, eta itz egin nuen ango ikaslakin, Erreñuen artean predikatzen dedan Ebanjelioaren gañean, batezere jakintsuenakin, ez egitearren nere ibilliak irabazi gabe; edo oraindañoak etzitezen utsak izan.

3. Baña ez Tito ere, zeñak laguntzen zidan, Jentilla bazan ere, etzan izan zirkunzidatzera beartua.

4. Ez da begiratuta ere arako anaia gezurrezkoai, zeñak ixiltxorikan sartu ziran jakitera, nolako aukera ta eskubidea gendukan Jesukristogan, anziñako legearen mendean jarri gindezen.

5. Zeñaen mendean jarri, ez beren esanak egin, ez ginituen nai instante batean ere, Ebanjelioaren egiak zuen artean sendo iraun dezan.

6. Zerbait ziradela zirudianen gañean berriz, (ez dit pelat bat, beste denbora batean zer izan ziran. Jaungoikoagan ez dago zeñ, zeñ danik) aiek, esaten det, andiagoak ziradela ziruditenak, ezerere gauza berririk etzidaten erakutsi.



7. Baizik kontrara, ezagutu zutenean, neri eman zidala Jaungoikoak zirkunzidatu gabeai Ebanjelioa predikatzeke agintea, Pedrori zirkunzidatuai predikatzeke bezela.

8. (Bada Pedrori indarra eman zionak Apostolutzarako zirkunzidatuaren artean, neri ere Jentillen arterako eman zidan,)

9. Ezaguturik, esaten det, Santiago, Zefas, eta Joaneke, zeñak elizako abeak bezela ziran idukiak; emana izan zitzadan grazia; eta neri ta Bernaberi eskuak eman zizkiguten, elkartasunaren siñaletzat predikatu giñizaien guk Jentillai, eta berak zirkunzidatuai.

10. Bakarrik esan ziguten, oroitu gendizala Judeako beartsuakin, gauza bat, gogotik egin dedana.

11. Eta gero Zefas Antiokiara etorri zanean, arpegiz arpegi aurkeztu nintzaion, erriertaren diña zalako.

12. Zeren allegatu ziran baño lenago, Santiagok bialdutako lagun batzuek, jentillakin jaten zuen, baño oiek allegatu ziradenean, asi zan atzeratuzten eta alde egiten, zirkunzidatu aien beldurrez.

13. Eta beste Juduak ere elkartu ziran egiten zuen iduripenarekin, alako moduan, non, Bernabe ere erakarri zuten gauza artara.

14. Baña nik, ikusirik ez ebiltzala zuzen, Ebanjelioaren egiazen araura, guztien aurrean Zefasi esan nion: Baldin zu, Judua izanda, Jentillak bezela bizi bazera, eta ez Juduak bezela, nola zure ejenploarekin, jentillak Judu izatera beartzen dituzu?

15. Gu izatez ta jatorriz Juduak gera, eta ez jentil bekatariak.

16. Alaere jakinik ez dala gizona justotuzten legeko obrakin bakarrik, baizik Jesukristoren fedearen bitartez. Argatik Kristo Jesusgan sinistzen degu, justotuak izateko Kristoren fedearen bitartez, eta ez legearen obrakin, zeren gizon ilkorrik batere, legearen obrakin ez dan justotuko.

17. Eta baldin Kristogan justotuak izan nairik, bagatoz gu ere bekatariak izatera, anziñako legea ez zaitzeagatik. Ez al da orduan esango, Kristo bekatuaren egille ta gaia dala? iñolako moduz beñere ez liteke.

18. Baña nik egiten badet, desegin dedana bera, ni nerau egiztazten naiz, fedeausle bat naizala.

19. Baña egia da, ni illa nagoala anziñako legearentzat, legeak berak erakusten didanetik, Jaungoikoarentzat biziteko. Kristorekin batean gurutzean iltzatua nago.

20. Eta ni bizi naiz orain; edo obekiago esateko, ez naiz ni bizi naizana; baizik Kristo bizi da nigan. Ala aragi onetan orain bizi naizan bizia, bizi naiz Jaungoikoaren semearen fedean, zeñak maitatu ninduen, eta nigatik bera eriotzara eman zan.

21. Ez det aurtikitzen Jaungoikoaren grazia au, zeren baldin anziñako legearen bitartez, justizia iritxitzen bada; beraz Kristo alperrik il zan.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. O Galataar zentzugabeak! Nork lilluratu zaituzte, orrela egiari ez obeditzeko? Zuek, zeñaen begien aurrean Jesukristo izan dan jarria, zuek-gan gurutziltzatua bezela?

2. Gauza bakar bat zuekgandik jakin nai det: Espiritu Santua artu al dezute legeko obrakatik, ala predikatu dizugun fedearen obedienziagatik?

3. Alako moduan zentzugabeak zerate, non, espiritutik asitzen zera-tela, orain aragian bukatuko dezuten?

4. Jesukristogatik anbeste sufritu dezute, eta guztia alperrik izango ote da? Baña nik Jaungoikoagan itxedotzen det, atzenean ez dala alperrik izango.

5. Orain bada, Espiritu Santuaren partale egiten zaituztenak, eta zuen artean mirariak egiten dituenak, egiten ote ditu, legeko obraen bertutez; ala predikatzen aditu dezuten fedearen bitartez?

6. Ziertoro fedeaagatik, eskribitua dagoan bezela: Abrahamek Jaungoikoagan sinistu zuen, eta justiziara itsatsi zizaion.

7. Ezagutu ezazute bada, fedea artzen dutenak, oriek Abrahamen seme egiazkoak diradela.

8. Ala Jaungoikoak Eskritura Santan lendanaz ikusirik, Jentillak fedearen bitartez justotuko zituela, aldearez Abrahami adirazi zion, esaten ziola: «Jende guztiak zugan bedeikatuak izango dirade».

9. Beraz fedea daukatena, oriek Abraham leialarekin bedeikatuak izango dirade.

10. Legearen obraetan itsatsiak bizi diradenak berriz, madarikazioaren mendean daude. Zeren eskribatua dagoan: «Madarikatua da, zaitzen ez duena beti Legeko liburuan eskribitua dagoan guztia».

11. Gañerakoan berriz, gauza argia da, iñor ere ez dala justotzen Jaungoikoaren aurrean legeagatik, zeren justoa fedeaagatik bizi da.

12. Legea berriz ez dator fedetik, baizik bakarrik kunplitzen duena, beratan biziko da.

13. Jesukristok erredimitu ginduen legearen madarikaziotik, gugatik madarikazio egirik gelditzen zala, zeren eskribitua dagoan: «Madarikatua zur batean esekia dagoan guztia».

14. Eta au guztia, Abrahamen bedeikazioa irago zedin Jentilletara Jesukristogatik. Onela fedearen bitartez, Espiritu Santuaren eskeñtza artu genezan.



15. Nere anaiak, (gizonen arteko gertakari bat esango det) gizon batek bear dan bezela testamentua egin duenean, iñork ere ez dezake utsera bota, ez aldatu.

16. Eskeñtzak Abrahami, ta bere jatorrikoari egin zitzaiozkan. Ez du esaten, bere jatorrikoari, asko balira bezela; baizik bati bakarrik bezela. Eta zure jatorrikoari, zeñ dan Kristo.

17. Esan nai dedana bada da, eginik Jaungoikoak Abrahamekin elkartasun bat, bear dan bezela, lareun, eta ogeita amar urte geroago emandako legeak, ez dezake eskeñtza utsean utzi, ez indargatu.

18. Zeren baldin, espirituko bendizioetako herentzia au, legearen bitartez ematen bazaigu; ez da onezkero eskeñtzagatik. Eta Jaungoikoak Abrahami eskeñtzaren bitartez eman zion.

19. Bada esango dezute: Legeak zertarako balio izan du? ipiñi zan lege ausleakgatik, etorri zedin artean Abrahamen jatorrikoa, zeñi eskeñtza egin zitzaion, izanik aitatu dan legea aingeruen eskuz emana, Moisesen bitartez.

20. Ez dago alaere bat bakarraren bitartekorik, eta Jaungoikoa Abrahami eskeñtza egitean, bat bakarra da.

21. Beraz, erantzungo dezute: Legea Jaungoikoaren eskeñtzen kontrakoa al da? Zeren eman balu lege bat, justotu lezakeana, justizia egiaz legetik etorriko liteke.

22. Lege eskribituak berriz, guztiak bekatuaren mendean utzi zituen, sinistzen zutenai kunplitu litzakieken eskeñtza, Jesukristogan zeukaten fedeagatik.

23. Ala fedearen denbora baño lenago, geunden zarratuak bezela legearen mendean, artu artean arako fede, agertua izango zana,

24. Alako moduan, non, legea izan zan gure zaia, ta zuzentzallea, zeñak eraman ginduen Kristogana, fedearen bitartez, beragan justotuak izan gindezen.

25. Baña fedea etorri zanean, zaiaren mendean ez geunden.

26. Zeren guziok zerate Jaungoikoaren semeak, Jesukristogan daukaten fedeagatik.

27. Zeren Kristogan bataiatuak izan ziñaten guztiok, Kristorekin gañetik jantziak zaudete.

28. Ez dago onezkero Judurik, ez Griegurik, ez mendekorik, ez auke-rakorik. Ez dago desberdintasunik gizasemearen ta emakumearen artean. Zeren zuek guztiok, Jesukristogan gauza bat bakarra zerate.

29. Eta izanik zuek Jesukristoren gorputzaren aldamen ta zatiak, beraz Abrahamen semeak eta jabegaiak, eskeñtzaren araura zerate.

## LAUGARREN KAPITULUA

1. Gañera esaten det, primuak, aurra dan denbora guztian, ez dauka-la desberdintasunik mendeko batgandik, guztien jabea izan arren;

2. Baizik gordetzalle, ta zaitarien mendean dago, bere aitak izenda-tutako denboraraño.

3. Ala gu, oraindikan aurrak giñanean, munduari emanak izan zitzaiozkan erakutsi lenbiziko eta moldakaitzen mendean gogortasunare-kin geunden.

4. Baña denboraren betetasuna etorri zanean, Jaungoikoak bialdu zuen bere semea, emakume batgandik egina, eta legearen mendean zego-ana.

5. Legearen azpian zeudenak erredimitzeko, seme ordeko eginik gel-ditu ginaindezen.

6. Eta zuek semeak zeratelako, bialdu zuen Jaungoikoak zuen bio-tzetara bere semearen Espiritua, zeñak deadarrez esan erazitzen digun: Abba, au da, Nere Aita.

7. Eta ala zuetatik batere ez da onezkero mendekoa, baizik semea. Eta, semea izanik, baitaere Jaungoikoaren primua Kristogatik.

8. Egia da, Jaungoikoa ezagutzen etzendutenean, egiaz, Jaungoikoak etziradenak serbitzen ziñituztela.

9. Baña orain, Jaungoikoa ezagutu dezutenean, edo obekiago esate-ko, izanik Jaungoikoak maitatuak eta ezagutuak, nola berriz itzultzen zerate legeko adorazio oietara, zeñak diraden erkiak eta indar gabeak, berriz beren mendean egon nai dezutela?

10. Zaitzen dituzute oraindik egunak, eta illak, eta denborak, eta urteak.

11. Zuen beldur naiz, nere lanak zuen artean alperrikakoak izan ote diran.

12. Izan zaitzte ni bezelakoak, ni ere zuek bezelakoa izan naizan ezkerro, o nere anaiak, txit gogotik erregutzen dizutet, ez didazute neri gai-ztik batere egin.

13. Kontrara, ongi dakizute denboratsu dala, Ebanjelioa predikatu nizutenean, aragiaren atsekabeen artean egin nuen, eta nere aragiaren alako estaduan, non, tentazioko gaia zuentzat nintzan.

14. Ez ninduzuten mezpreziatu, ez zuekgandik aurtiki, baizik Jaun-goikoaren aingeru bat bezela, Jesukristo bera bezela artu ninduzuten.

15. Non da bada orain arako zorientasuna, zeñean gozaten ziñaten? Zeren nik zuekgatik testigantza eman nezake, orduan prestatuak zeunde-la, al izatean, zuen begiak ateratzera, neri emateko.



16. Beraz, egia esateko, zuen etsai egin al naiz?
17. Apotolu gezurrezko oiek nai dute, zuekin adiskidetasunean estutu; baña ez gauza onerako, baizik nai dute, zuei gugandik alde erazi, berai jarraitu dizalezuten.
18. Izan zaitetze bada beti gauza onaren maitatzalle zelotsuak, gogo zuzenarekin, denbora guzian, eta ez bakarrik, ni zuen artean nagoanean.
19. Nere semetxoak, zeñakgatik bigarren aldiz, aurregiteko oñazeak iragotzen ditudan, zuekgan Kristo osotoro formatu arteraño,
20. Nai nuke orain zuekin egon, eta mudatu nere boza zuen premien araura, zeren zalanzen naukazute, itz egingo dizutedan moduaren gañean.
21. Esan zadazute arren, erregutuzten dizutet, anziñako legearen mendean egon nai dezutenak; ez al dezute irakurri legeak esaten duena?
22. Zeren eskribitua dagoan, Abrahamek bi seme iduki zituela, bata Agar mendekoagandik, eta bestea bere aukerako ta jabe zana, zeñ zan Agar.
23. Baña mendekoarena aragiaren araura jaio zan; bere jabe ta auke-rakoarena berriz, kontrara, mirariz eta eskeñtzaren bertutez jaio zan.
24. Zeñak irudietan esanak dirade. Zeren oiek bi testamentuak dira. Bata Siongo mendian emana, zeñak mendekoak egiten dituen, zeñ dago-an Agargan iruditua,
25. Zeren Sina Arabiako mendi bat da, zeñ dagokan emen beeko Jerusalem, zeñ bere semeakin mendekoa dan.
26. Baña arako Jerusalem goikoa, Saragan iduritua, askatua da; zeñ gure guzioen Ama dan.
27. Zeren eskribatua dagoan: Bozkariotu zaitte soilla, aurrik egiten ez dezuna, asi zaitte bozkariozko deadarrak egiten semeetan ugaria etzerana, zeren asko geiago diraden, soilltza utzia zegoanarenak, senarra daukanarenak baño.
28. Gu bada, nere anaiak, eskeñtzaren semeak, Isaakgan irudituaq gera.
29. Baña nola orduan, aragiaren araura jaio zanak, espirituaren araura jaio zana persegitzen zuen; ala orain ere.
30. Baña Eskriturak, zer esaten du? Aurtiki itzatzu kanpora andre mendekoa eta bere semea, zeren ez dan izango primua mendeko andrea- ren semea, andre askatuaren semearekin batean.
31. Ala bada, nere anaiak, oien araura, ez gera gu andre mendekoaren semeak, baizik askatuarenak, eta Jesukristo da, autakera eta askatze au eman ziguna.

## BOSGARREN KAPITULUA

1. Zaudete sendo ta azkar, eta ez ezazute utzi berriz ere anziñako legeko mendetasuneko uztarriaren azpian artu eta sakatu zaitzatela.
2. Begiratu ezazute, nik Pablok esaten dizutedala: Zirkunzidatuak bazerate, Kristok utsa balioko dizutela.
3. Gañera adiratzten diot zirkunzidatzen dan gizon guziari, lege guzia osoz zaitzera beartua geldituko dala.
4. Etzerate onezkero Kristorekin ezertan ere partale, legean justotuzten zeratenak, graziatik erori zerate:
5. Bada guk, bakarrik fedearen bertutez, itxedotzen degu, justiziako espiritua artzea.
6. Zeren Jesukristorentzat ezerere ez du balio, zirkunzidatua, edo zirkunzidatu gabea izateak, baizik fedeak, zeñak karidadearen bitartez obrak egiten dituen.
7. Zuek korrika ongi ibilli ziñaten, norik galerazi dizute, egiani obeditzea?
8. Alako iritzia ez da ziertoro, federa ots egin dizutenarena.
9. Legamiaren piska batek, legamizatzen du ore guztia.
10. Alaere nik zuek gatik Jaunagan itxedotzen det, ez dezutela iduki-ko beste iritzirik, nereak baizik, baña zuek nastutzen dabillanak, dana dala, diña dan kastigua eramango du.
11. Nigan danez, nere anaiak, nik oraindikan zirkunzisiao predika- tzen badet, zergatik naiz oraindik persegitua? Beraz gurutzean eskandalua bukatu zan.
12. Arren bada alde egin eraziko balitzake zuekgandik, zuek nastu- tzen zaituztenai!
13. Zeren zuek, nere anaiak, askatuak izateko, eta zuen aukeran bizi- teko, estadu batera zerate ots eginak, baña begiratu bear dezute bakarrik, aukera ta elekzio au ez dakizutela izan aragiaren araura biziteko bidea; baizik espirituko amorio batekin elkarren serbitzariak izan zaitetze.
14. Zeren lege guztia sartua dago aginte onetan: Maitatuko dezu zure projimoa, zu zerori bezela.
15. Zeren baldin elkarri utsikitzen badiezute, eta elkarri ortzka egiten badiezute, begiratu ezazute, batzuek besteak desegin ez ditzatzuten.
16. Esaten det bada itz batean: Jaungoikoaren Espirituaren araura ibilli zaitetze, eta aragiaren gurak ez dituzute aseko.
17. Zeren aragiak Espirituaren kontrako gauzak dauzka, elkarri aur- keztzen zaizkan gauzak bezela. Argatik ez dezute zuek egiten, nai dezu- ten guztia.





18. Baldin zuek espirituak zuzenduak bazerate, etzaudete legearen mendean.

19. Aragiaren obrak ongi agiriak dira, zeñak diran adulterioa, fornikazioa, deshonestidadea, lujuria,

20. Idoloen adorazioa, sorginkeriak, aserreak, auziak, ikusi ezinak, erriertak, eleak, herejiak,

21. Ondamuak, gizaerioak, moskorak, asebateak, eta alako gauzak, zeñean gañean kontuan ipintzen zaituztedan, esana daukadan bezela; alako gauzak egiten dituztenak, Jaungoikoaren erreñua ez dutela iritxiko.

22. Espirituaren frutuak berriz oiek dirade: Karidadea, gozotasuna, pakea, pazientzia, otsantasuna, ontasuna, biotzeko sendotasuna:

23. Biguñtasuna, fedea, modu ona, kastidadea. Onela bizi diradenentzat, beren kontrako dan legerik ez dago.

24. Eta Jesukristorenak diradenak, beren aragia gurutziltzatua daukate, beren oitura eta gura gaiztoakin.

25. Jaungoikoaren espirituarekin bizi bagera, espiritu arekin ibilli ere gaitzen.

26. Gloria utsaren gurarik ez dezagun iduki, batzuek besteai gaitzbideta ematen diegula, elkarren ondama daukagula.

### SEIGARREN KAPITULUA

1. Nere anaiak, baldin norbait, gizona bezela, zorigaiztoan, bekaturen batean eroriko balitza, zuek espirituzkoak zeratenak, onelakoari erakutsiak eman zaiozkazute biguñtasuneko espirituarekin, eta bakoitzak beragatik begiraturik, zu ere tentazioan erori etzaitzen.

2. Batzuek besteen zamak eraman itzatzute, eta ala Kristoren legearekin kunplutuko dezute.

3. Zeren baldin norbaitek uste badu, zerbaite badala, ezerere ez izanik, berak bere burua engañatzen du.

4. Argatik esaminatu bitza bakoitzak bere obrak, eta ala arkitzen badu, zuzenak dirala, orduan gozatzeko bidea idukiko du, beragan bakarrik, eta ez bestegan.

5. Zeren bakoitzak, juzgatua izatera dijoanean, bere zama eramango du.

6. Bitartean fedeko gauzaetan erakutsiak ematen zaiozkanak, eman bizaiozka bear dituen gauza guztiak, erakutsiak ematen diozkanari.

7. Ez ezazute utsik egin, Jaungoikoa ez diteke isekatua izan.

8. Eta ala gizon batek eroitzen duena, ori bilduko du. Argatik orain bere aragiarentzat eroitzen duenak, aragiagandik bilduko du gero ustelta-

suna ta eriotza, baña espirituarentzat eroitzen duenak, espirituagandik betiko bizitza artuko du.

9. Ez gaitzen bada aspertu, on egiteaz: zeren irautzen badegu, artuko degu ordaña bere denboran.

10. Ala bada, denbora daukagun artean, guziaz on egin dizaiegun; eta batezere, fedearen bitartez, gu bezela, Jaunaren familiakoak diradenai.

11. Begiratu ezazute, nolako karta luzea eskribitu dizutedan nere eskuz.

12. Aragiaren aldamenetik zuen gogokoak izan nai duten guztiak; oriek zuek zirkunzidatuak izatera beartu nai zaituzte, ez beste gauzagatik baizik Kristoren gurutzegatik, berak persegituak izan ez ditezen.

13. Zeren ez duten legea zaitzen, ez da berak zirkunzidatuak daudenak ere; baizik nai dute, zuek zirkunzidatuak izan zaitezela, zuen aragian gozatu ditezen.

14. Nigan danez berriz, Jaungoikoak gorde nazala, gozatu ez nadin, baizik Jesukristo gure Jaunaren gurutzean: zeñgatik mundua illa, eta gurutziltzatua dagoan neretzat, ni munduarentzat nagoan bezela.

15. Ziertoa dana da, Jesukristo gure Jaunarentzat utsa balio duela zirkunzidatua izateak, edo zirkunzidatua ez izateak; baizik balio duena da, gizon berri bat izatea.

16. Eta erakutsi oni jarraitzen dioten guztien gañera, betor pake ta urrikaltasuna, Jaungoikoaren erri, Israel egiazkoaren gañera bezela.

17. Gañerakoan emendikan aurrera, ez bizat iñor ere gogaikarria izan zirkunzizioaren gañean, zeren nik Jaun Jesusen siñaleak nere gorputzean tinkatuak dakarzit.

18. Jesukristo gure Jaunaren grazia, nere anaiak, zuen espirituarekin izan dedilla. Amen.



## SAN PABLO APOSTOLUAREN KARTA EFESOARRAI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo, Jaungoikoaren borondatez, Jesukristoren Apostoluak, Efeson dauden santu guztiai, eta Jesukristoren jarraitzailei,
2. Grazia eta pakea zuekin izan dedilla, gure Aita Jaungoiko eta Jesukristo Jaunagandik.
3. Bedeikatua izan dedilla Jaungoikoa, Jesukristo gure Jaunaren Aita, zeñak bete gaituan gañez egin arteraño, Kristogan, zeruko espirituzko bedekazio mota guziez.
4. Nola berak autu ginduen, munduaren asiera baño lenagotik bere aurrean, karidadeagatik santuak eta mantxarrik gabeak izan gindezen;
5. Lendanaz izendatu ginduen ezkerre, bere seme artutzat, Jesukristogatik, bere gloriarako, bere borondate onagatik,
6. Zelebratu dedin bere graziako gloria, zeñaren bitartez bere begien gogokoak egin ginduen bere seme maiteagan,
7. Zeñagan bere odolarekin iritxitzen degu erredenzioa, eta bekatuen barkazioa, bere graziaren ondasunagatik,
8. Zeñak ugaritasunarekin gure gañera isuri dituen, jakinduria, ta zentzu guziarekin betetzen gaituela.
9. Ezagutu erazitzeke guri bere borondatearen ezkutapen ta misterioa, bere borondatean jarria, zeñgatik erabaki zuen
10. Berritzea Kristogan, kunpliturik denbora erabakiak, zeruetako ta lurreko gauza guztiak, berak biltzen zituela guztiak gorputz batean.
11. Berak ots egin ere zigun, txoh eginda bezela, lendanaz autuak izanik, gauza guztiak bere borondatearen asmazioaren araura egiten dituenaren erabakiaren indarrez,
12. Izan gaitezen Jesukristoren alabantzaen gloria, ta gaia, gu Juduok, aurrenak izan geranak beragan itxedotzen.
13. Beragan itxedon dezute zuek Jentillak ere, egiaren itza entzunda bereala (zuen salbazioaren Ebanjelioa) eta zeñgan sinistzen ere zendute-la, artu zenduten eskeña zegoan Espiritu Santuaren Sillua,
14. Zeñ dan gure herenziaren prenda zerukoa, osotoro askatua gelditu artean erria, zeñ Jaunak irabazi zuen bere gloriaren alabantzarako.
15. Argatik nik ere zuen fede Jaun Jesusgan daukazutena, eta zuen karidadea santu guztiagandik,

16. Jaungoikoari zuek gatik aspertu gabe eskerrak ematen diozkat, nere orazioetan zuekin oroitzen naizala.

17. Jesukristo gure Jaunaren Aita Jaungoiko gloriatz beteak, eman dizazuten jakinduria, ta argitasuneko espiritua, bera ezagutu dezazuten.

18. Zuen biotzetako begiak argitzen dituela, jakin dezazuten, zer itxedon bear dezuten, berak itxedotzen dizutelako; eta nolakoak bere herenziaren ondasunak eta gloria, santuentzat prestatua dagoana.

19. Eta nolakoa arako bere eskubidearen anditasun goratua, daukana bere gañean, zeñ sinistzen degun bere bertute almentsuaren indar eragilearen araura,

20. Zeñ egin duen Kristogan, illen artetik biztutzen duela, eta jartzen duela zeruetan bere eskuiean,

21. Prinzipadu, eta potestade, eta bertute, eta dominazio guztien gañean, eta izen guztien gañean, danik otpatsuena izan arren, ez bakarrik gizaldi onetan, baita gerokoan ere.

22. Bere oñen azpian gauza guztiak jarri ditu; eta eliza guztiaren buru eginik jarri du,

23. Zeñ dan bere gorputza, eta zeñatan guztia guztiakgan osotzen duenak, betetasuna arkiten du.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Bera da zuei bizia eman zizutena, zuei, egonik, zeunden bezela, illak animaren aldamenetik, zuen obenak, eta bekatuakgatik,

2. Zeñatan bizi ziñaten beste denbora batean, mundutar gizaldi onen oituraren araura, aize onen gañean, bere eskubidea daukan, eta obraetan jartzen duen prinzipiaren mendean, zeñ dan bere konra jarri zaiozkan semeakgan, orain agintzen duen espiritua.

3. Zeñaren artean egon giñan gu guziok ere beste denbora batean; gure aragizko gurai jarraitzen giñola, aragiaren, ta gura gaiztoen borondate egiten genduela; eta gurez giñan aserrearen semeak, besteak bezela.

4. Baña urrikaltasunean aberatsa dan Jaungoikoak, zigun amorio geiegiarekin mugiturik,

5. Eta illak geundela bekatuakgatik, eta bere aserrearen gaiak giñanean, eman zigun bizia batean Kristogan, (zeñaren graziagatik zuek salbatuak izan zeraten)

6. Eta biztu ginduen berarekin, eta zeruen gañean eserierazi zigun Jesukristogan,

7. Erakusteko geroko gizaldietan, bere graziaren ondasun ugariak, gurekin iduki zuen ontasunagatik, Jesukristoren amorioaren bitartez.



8. Zeren doan salbatuak izan zerate fedearen bitartez, eta au ez dator zuekgandik, izanik, dan bezela, Jaungoikoaren doai bat,

9. Ez da zuen leengo obra onen bertutez ere, inor ere gozatu ez dedin,

10. Bere irudia geralako, Jesukristogan eginaz obra oietarako, Jaungoikoak prestatuak beratan ari gaitzen.

11. Ala bada, oroitu zaitzete, beste denbora batean zuek ziñatela jentillak jatorriz, eta zirkunzidatu gabeak ots egiten zizuten, ots egiten zaienak zirkunzidatuak, beren aragian, gizonen eskuz egindako zirkunzisiaogatik.

12. Oroitu zaitzete, esan det, etziñatela zuek orduan ezertan ere partale Jesukristogan; zeundeten osotoro berezituak Israelko izketatik, elkartasunen gañean berriz arrotzak, eskeñtzaren itxedopen gabe, eta Jaungoikorik gabe mundu onetan.

13. Baña orain, Jesukristogan sinistzen dezutenean, zuek, beste denbora batean Jaungoikoagandik, eta bere eskeñtzetatik urrutiratuak zeudenak, ondoan jarri zerate, Jesukristoren odolagatik.

14. Zeren bera dan gure pakea, erri biakin, Judu eta Jentillakin, bat egin duena, urratzen duela bere aragiaren eskeñtzaren bitartez, bereziturako murrua, eta zeukaten aserrea kendurik.

15. Utsean utzitzen zuela bere aginteakin, zirimonietako legea, egiteko beragan, gizon birekin berri bat, pakea eginik.

16. Eta adiskidetzen zituela erri biak, gorputz bakar batean bilduak zeudenak Jaungoikoarekin gurutzaren bitartez, desegiten zuela beragan bere aserrea.

17. Eta ala etorri zan mundura pakeko Ebanjelioa predikatzerazuei jentillai, Jaungoikoagandik urrutian zeundenetai, nola Juduai, zeñak aldean zeuden.

18. Zeren beragatik da, zeñgatik batzuek eta besteak daukagun sarre-  
ra Aita betikoarekin Espiritu bat batean.

19. Ala onezkero etzerate arrotzak, ez kanpotarrak, baizik santuen erritarrak, eta Jaungoikoaren etxeok.

20. Zeren eginak zaudeten Apostoluen eta Profetaen zimenduen gañean, eta Jesukristogan, zeñ dan arrikantoin nagusiena.

21. Zeñgan egin dan, etxe guztia goratzen dan obra, Jaunaren etxe santu bat izateko.

22. Beragatik sartzen zerate zuek Jentillak ere, etxe au egiteko partale izateko, Jaungoikoaren bizilekua izanik gelditzeko, Espiritu Santuaren bitartez.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Gauza augatik, ni Pablo, lotua nago Jesukristoren amorioagatik, zuek jentillak onen gaia zeratela.

2. Zeren aditu edo bear izan dezute, nolako moduan eman zidan Jaungoikoak bere graziaren lantegia zuen artean.

3. Neri agertu, eta gero ikusketa batean ezkutapen au, nola zuei ots egin zizuten; zeñaen gañean, laburrean bederik karta onetan itz egin dedan,

4. Zeñ irakurtzeaz ezagutu ziñitzate nolako aditza daukadan nik Kristoren ezkutapen ta misterioan.

5. Zeñ beste gizalditan etzan izan gizonen semeak ezagutua, orain agertua izan zaten moduan bere Apostolu santuai eta Profetai, Espiritu Santuaren bitartez?

6. Au da, Jentillai ots egin zaiela Juduen beren herenziara, gorputz baten zatiak bezela, eta Jaungoikoaren eskeñtzaren partaleak Jesukristogan Ebanjelioaren bitartez?

7. Zeñaen lanaria egina izan naizan ni, Jaungoikoaren graziaren doaiagatik, zeñ emana izan zitzadan, adiratzeko erreñuetan bere eskubide eragillearen araura.

8. Neri, santu guztien artean txikieneri, grazia au izan zitzadan emana, zabaltzeko errietan Jesukristoren ondasun jakin ez litezkeanak.

9. Eta argitutzeko gizon guztiak, agertzen zaiela, egiztatu zala ezkutapen bat, anbeste gizaldi iragota ere, Jaungoiko, gauza guztien Egigillearen ezkutatokian egon zana.

10. Elizaren formazioan agertzeko zeruko prinzipadu ta potestadeai, Jaungoikoaren jakinduria, berak, onetarako artu zituen neurri desberdin eta miragarrietan,

11. Bere betiko erabakiaren araura, zeñ Jesukristo gure Jaunaren bitartez egiztatu zan.

12. Zeñgatik bere semearen bitartez, itxedopen ziertoa, eta bide laua Jaungoikoaganako daukagun.

13. Argatik erregututzen dizugu, etzaitzela desalaitu, ikusirik anbeste naigabe zuekgatik sufritzen dedala; bada naigabe oiek zuen onerako dirade, eta zuen gloriarako, eta nere Apostolutzaren ezagungarrirako.

14. Argatik belaunikotuten naiz Jesukristo gure Jaunaren Aitaren aurrean,

15. Zeñ dan zeruan ta lurraren gañean dagoan familia guzti onen asiera ta burua.



16. Bere gloriako ondasunen araura, eman dizazuten bere Espirituaren bitartez, izan zaitezte sendotuak bertutean, barrendiko gizona.

17. Eta Kristo bizi dedilla fedearen bitartez zuen biotzetan, egonik sustraituak, eta idukirik jarriak zimenduak karidadean.

18. Konprenditu al dezakezuten santu guztiakin, zeñ dan zabalera, eta luzeera, eta altuera, eta zakontasuna,

19. Eta ezagutu ere arako Kristoren amorioa, ezagera guztiez gañetiko dana, izan zaitezte Jaungoikoaren doaiez osotoro beteak.

20. Eta atzanean, arako Jaunari, zeñ dan almentsua egiteko neurri gabe geiago, guk eskatzen degun guztia, edo guk pensatzen degun guztia baño, gudan obratzen duen eskubidearen araura,

21. Berari eman dakiola gloria Jesus Kristoren bitartez, Elizan gizaldi guztietan mendez mende. Amen.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Nik bada, Jaunagatik kateen artean nagoan onek, txit gogotik erre-gututzen dizutet, deituak izan zeraten estaduaren diña dan era ta moduan bizi zaitezte,

2. Humiltasun ta biguntasun guztiarekin, pazienziarekin, elkar sufritzen dezutela karidadean,

3. Arretatsuak zeratela, Espirituan bat izatean pakeko lokarriarekin.

4. Izanik gorputz bat, eta Espiritu bat, izan ziñaten bezela ots eginak, zuen bokazioko itxedopen batera.

5. Bat da Jauna, bat fedea, bat bataioa.

6. Bat da Jaungoikoa, ta guztien Aita, zeñ dan guztien gañean, eta gauza guztiak zaitzen ditu, eta gudan guztiokgan bizi da.

7. Eta gutatiko bakoitzari grazia emana izan zaio, Kristoren donazio, doan egindakoaren neurrian.

8. Argatik Eskriturak esaten du: Goira igo zanean, berarekin eraman zituen gizaseme katibu mendeko asko, eta bere doaiak gizonen gañera isuri zituen.

9. Baña, zergatik esaten da igo zala, baizik len jetxi zalako lurreko tokirik beeratuenetaraño?

10. Jetxi zana, hura bera da, igo zana zeru guztien gañera, gauza guztiai betetasuna ematera.

11. Eta ala berak, batzuek jarri ditu Apostolu, beste batzuek Profeta, eta beste batzuek Ebanjelari, eta beste batzuek animen Artzai, eta Erasusle,

12. Lanean ari ditezten santuak onaosoz egiten bakoitza bere estaduari dagozkion gauzaetan, Jesukristoren gorputza egiteko bearretan,

13. Aliketa allegatu gaitezen artean, guztiok fede bat bera idukitzera; eta Jaungoikoaren semearen ezaguera bat; gizon, egina dagoan baten estadura, Kristoren betetasuneko edadearen neurriara.

14. Alako moduan, non, ez gaitezte izan onezkero zalantzan dabil-tzan aurrak bezelakoak, eta ez gaitezte ere utzi, dotrinako aize guztiak eramanak izan gaitezte batera ta bestera, gizonen gaiztakeriakgatik, zeñak astruziarekin engañatzen duten, gezurrezko erakutsiak zabaltzeko.

15. Baizik jarraiturik Ebanjelioaren egari karidadearekin, guztian joan gaitezen aziaz Kristogan, zeñ gure burua dan.

16. Zeñgandik, egonik jarraitzallaen gorputz guztia berari itsatsia, eta loturik beren artean fede eta karidadearekin, artzen du zati, bakoitzari dagokion neurriaren araura, gorputza azitzeko bear dana, aliketa andi iza-tera allegatu artean karidadearen bitartez.

17. Esaten dizutet bada, eta txit gogotik diraztzen Jaunaren izenean, etzaitezte onezkero bizi, oraindikan beste jentillak bizi diraden bezela, zeñak dabilzaten, beren gogorazioen urgulleraren araura.

18. Idukirik adimena lausoturik, eta illuntasunez betea, Jaungoikoaren araurako bizitzatik urrutiratuak, beren ezjakiñagatik, zeñatan dauden, beren biotzeko itsutasunagatik.

19. Zeñak, itxedopenik batere ez idukirik, zikinkeriarren mendean jar-tzen dirade, berotasun ase ezindado batekin, lujuria mota guztian murgill-tzeko.

20. Zuekgatik itz egiteko berriz, ez da ori Jesukristoren eskolan ikasi dezutena,

21. Bada an, aditu dezute predikatzen, eta ikasi bere dotrina, egiaren araura.

22. Billostzera gizon zarragandik, zeñaen araura bizitu izan zeraten, irago dan zuen bizitzan, zeñ usteltzen dan, gura gaiztoen obrari jarraiturik.

23. Berriztatu zaitezte bada orain, zuen adimeneko espirituan.

24. Eta jantzi zaitezte gizon berriz, zeñ, Jaungoikoaren irudiaren araura, justizian eta santutasun egiakoan egina izan dan.

25. Argatik, utzirik aldamen batera gezurra, bakoitzak bere projimoa-ren egia esan beza, gu, batzuek besteen gorputzetako zatiak geran ezkeru.

26. Aserretzen bazerate, ez ezazute bekaturik egin, eguzkia sartu ez dakizuten, zuen aserreak oraindik badirauala.

27. Deabruari etzaiezute lekurik eman.



28. Lapurretan egiten zuenak, ez beza onezkero lapurretarik egin, baizik lanean ari bedi, bere eskuakin gauza onen bat egiten duela, premian dagoanari zer eman iduki dezan.

29. Zuen aotik izketa gaiztorik ez bedi irten, baizik onak diradenak, fedea zabaltzeko, eta aditzalleai grazia emateko.

30. Eta etzaiezute tristetu Jaungoikoaren Espiritu Santua, zeñarekin erredenzioko egunerako sillutuak izan ziñaten.

31. Samintasun guztia, aserrea, sumintasuna eta deadarkia, eta gaizki esatea, gaiztakeria guztiarekin kendu bedi zuen artetik.

32. Eta izan zaitzete elkarrekin biguñak, urrikaltsuak, elkarri barkatzen diozkazutela, nola Jaungoikoak ere Jesukristogatik zuei barkatu dizuten.

### BOSGARREN KAPITULUA

1. Izan zaitzete bada Jaungoikoaren imitatzaileak, bere seme txit maitak zeraten bezela.

2. Eta ibilli zaitzete maitetasunean, Kristok ere maitatu ginduen bezela, eta bera Jaungoikoari eskeñi zizaion doañean, eta usai txit gozoko oparian.

3. Fornikazioa berriz, eta lujuria mota guztia, edo zikoiztasuna, aita-ere ez bedi zuen artean, santuai dagokiten bezela.

4. Ezta ere itz dorpeak, ez farragarriak, ez trofoikeriarik; bada gaizki dirudian gauza da, baizik Jaungoikoari eman bear zaizka eskerrak.

5. Zeren iduki ezazute au ongi adituta, ez fornikazioetan dabillanik, edo zikinkeriak egin oi dituenik; edo zikoitzik, zeñak datozten izatera idolatria bat, ez dirala izango kristoren, eta Jaungoikoaren erreñuko primuak.

6. Etzaitzela iñork engañatu itz alferrakin, zeren oiek bezelako gauzkatik Jaungoikoaren aserrea sinisgogorreko semeen gañera etorri zan,

7. Etzaitzete bada beren partale izan.

8. Zeren egia bada ere, beste denbora batean, illuntasunak baizik etziñatela, baña orain Jaunaren argia zerate. Ala argiaren semeak bezela ibilli zaitzete.

9. Argiaren frutua berriz dago, ibiltzean ontasun, eta justizia, eta egia guztiarekin.

10. Begiratzen dala zer dan Jaungoikoaren gogokoa.

11. Etzaitzete bada izan, illuntasuneko obra, frutu gabeen partale, baizik errieta egin zaiezute,

12. Zeren esatea ere lotsagarria da, nolako gauzak egiten dituzten berak ezkutuan.

13. Baña erriertaren diña dan guztia, argiak agertzen du, izanik argia, guztia begien aurrean ipintzen duena.

14. Argatik Jaunak esaten du: Jaiki zaite zu lotan zaudena, eta biztu zaite illetatik, eta Kristok arkituko zaitu.

15. Ala bada begiratu ezazute, nere anaiak, arreta andiarekin ibilli zaitzetzela, ez zentzugabeak bezela,

16. Baizik zentzu andikoak bezela, denbora erredimitzen dezutela, zeren egun gaiztoak diraden.

17. Argatik etzaitzete ajolagabeak izan, baizik begiratuak, zeñ dan Jaungoikoaren borondatea.

18. Eta etzaitzete moskortu ardoarekin, zeñatan dagoan lujuria: baizik Espiritu Santuz bete zaitzete.

19. Itz egiten zuen artean salmoetan, eta himnoetan, eta animako kantaetan, kantatzen dezutela, eta alabatzen dezutela Jauna zuen biotzetan,

20. Ematen diozkazutela beti eskerrak guztiagatik Aita Jaungoikoari, Jesukristo gure Jaunaren izenean,

21. Zaudetela elkarren mendean Kristoren bildurrean.

22. Andre ezkonduak egon bitez beren senarren mendean, Jaunaren mendean bezela.

23. Zeren gizona andrearen burua dan, nola dan Kristo elizaren burua, zeñ dan bere gorputza. Zeñaen salbatzailea dan bera.

24. Argatik nola eliza dagoan Kristoren mendean, ala emazteak gauza guztietan beren senarren mendean egongo dirade.

25. Zuek senarrak, maitatu itzatzute zuen emazteak, Kristok bere eliza maitatu zuen bezela, eta beragatik bizia eman zuen.

26. Bera santututzeko, garbitzen zuela urezko bataioan bizitzako itzarekin.

27. Bere aurrean agertu erazitzeke gloriáz betea, mantxarikan gabe, ez zimurrikan ere etzeukala, ez aien antzeko gauzarik ere, baizik santa eta orbanikan gabea izanik.

28. Ala senarrak ere beren emazteak maitatu bear dituzte, beren gorputzak bezela. Bere emaztea maitatzen duena, bera maitatzen da.

29. Zierto iñork ere ez dio gorrotoz begiratu bere aragiari; baizik bazkatzen du, eta begiratzen dio Kristok Elizari bezela.

30. Zeren gu bere gorputzaren zatiak gera, bere aragitik eta ezurretatik eginak.

31. Argatik eskribitua dago: «Utziko ditu gizonak bere aita, eta bere ama, eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak aragi bat izango dirade.



32. Sakramentu au andia da, baña nik itz egiten det, Kristori, eta Elizari begiraturik.

33. Zuetatik bakoitzak bada maitatu beza bere emaztea, norbera bezela; emazteak berriz bere senarrari lotsa ta itzalez begiratu bizaio.

### SEIGARREN KAPITULUA

1. Nere semeak, obeditu zaiezute zuen gurasoai Jaunari begiraturik, zeren au gauza justoa dan.

2. Onratu itzatzu zure aita eta zure ama, zeñ dan ordañak laguntzen dion lenbiziko agindua.

3. Ongi joan dakizun, eta lurraren gañean bizitza luzea iduki dezazun.

4. Eta zuek gurasoak, etzaiezute aserretu erazi zuen semeai gogortasun geiegirekin, baña aziera on bat eman zaiezute, zuzentzen dituzutela, eta erakutsiak ematen diezetzutela Jaunaren dotrinaren araura.

5. Zuek mendean bizi zeratenak, obeditu zaiezute zuen Jaun aragizkoai beldur santu eta ikararekin, zuen biotzeko tolesgabetasunarekin, Kristori bezela,

6. Ez dituzutela bakarrik serbitzen, zuen gañean begia jarria daukatenean; idukiko ez bazenezakete bezela beste gogoraziorik, gizonen gogoko gauzak egitea baizik. Ala gauzak egin bear dituzute Kristoren serbitzariak bezela, zeñak biotzez egiten duten Jaunaren borondatea, zeñak alako estadian jarri dituen,

7. Eta serbitu itzatzute amorioarekin, kontu egiten dezutela, serbitzen dezutela Jauna, ez gizonak.

8. Jakinik zaudetela, bakoitzak, naiz izan mendekoa, naiz askatua, artuko duela Jaunagandik, egiten duen gauza onaren ordaña.

9. Eta zuek nagusiak berakin anbat egin ezazute, keñada ta zemaie-tan ibilli gabe, jakinik aien eta zuen nagusia zeruetan dagoala; eta ez duela berak zeñ zeñ dan begiratzen.

10. Gañerakoan berriz, nere anaiak, sendotu zaitzte Jaunagan, eta bere bertute almentsuan.

11. Jantzi zaitzte gañetik, Jaungoikoaren armapilla guztiarekin deabruaren azelo guztiai aurkeztu dizaiekezuten.

12. Zeren gure guda ez da bakarrik aragi, ta odolezko gizonen kontra, baizik Prinzipe ta Potestadeen kontra, munduko illuntasun oien zuzentzaleen kontra; espiritu gaizto, airean barreiatuen kontra.

13. Argatik artu itzatzute Jaungoikoaren arma guztiak, egun samiñean aurkeztu al izateko, eta zutik egoteko guztirako prestatuak.

14. Zaudete bada azkar, sendo, eta erruz, oñaz, zuen gerriak egiazen sokakin lotuak daukazutela, eta justiziako soiburniarekin armatuak.

15. Eta oñetakoak oñetan ipiñita, jarraitzeko pakeko Ebanjelioari, eta bera predikatzeko.

16. Etsaia arkitzen dezuten guztian, eltzen diozutela fedeko ezkutuari, zeñarekin itzali ditzakezuten etsai gaiztoaren dardo erazeki guztiak.

17. Eta artu ezazute ere osasuneko burantza, eta espirituko ezpata, zeñ dan Jaungoikoaren itza,

18. Egiten dituzutela denbora guztietan espiritu, ta berotasunarekin erregu ta eskariak, eta gauza onetarako beillak egiten dituzutela txit gogotik, eta santu guztiakgatik orazio egiten dezutela.

19. Eta nigatik ere bai, emana izan dakidan, jakitzea nere aoko ezpañak idikitzen, itxedopenarekin predikatzeko, Ebanjeioko misterioa agertzen dedala:

20. Zeñ adiraztzera bialdua naizan ni katean ere, alako moduan, non, azkar eta erruz itz egingo det bere gañean, itz egin bear dedan bezela.

21. Nere gauzaen gañean berriz, eta egiten dedanaren gañean, guztia esango dizute, Tikiko gure anaia txit maite, eta Jaunagan serbitzari leialak.

22. Bera bialdu dizutet orrara gauza onetarako, gure gauzak jakin ditzatzuten, eta zuen biotzak bozkariotu ditezen.

23. Pakea anaiai, eta Karidadea, ta fedea, Aita Jaungoiko, eta Jesukristo gure Jaunaren izenean.

24. Grazia izan bedi, Jesukristo gure Jauna, amorio garbi, eta usteldu ez ditekean batekin, maitatzen duten guztiakin. Amen.





## SAN PABLO APOSTOLUAREN KARTA FILIPOSKOAI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo eta Timoteo, Jesukristoren sebitzariak, Santu guztiai Jesukristogan, zeñak dauden Filiposen Obispo, eta diakonuakin.
2. Gure Aita Jaungoikoaren, eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta pakea zuekin izan bitez.
3. Nik ematen diozkat eskerrak nere Jaungoikoari, zuekin oroitzen naizan aldi bakoitzean,
4. Erregututzen izan dedala beti bozkarioarekin zuek guziok gatik, nere orazio guztietan.
5. Ikusirik nolako lanetan ari zeraten Kristoren Ebanjelioan, lenbiziko egunetik orainarteraño,
6. Zeren nik itxedopen sendo bat daukat, asi duenak zuekgan zuen salbazioko lan ona, bukatuko du, aurrera eramaten duela Jesukristoren etorrerako eguneraño.
7. Gauza justoa dan bezela, nik zuek guziokgatik ala uste izatea, bada nere biotzean itsatsia daukat, zuek guziok zeratela nere bozkarioko lagunak nere kateetan, eta Ebanjelioa zaitu ta sendotzean.
8. Jaungoikoa zat neri testigu, nolako samurtasunarekin maitatzen zaituztedan guztiok Jesukristoren erraieran.
9. Eta eskatzen dedana da, zuen karidatea geiago, eta geiago azi dedilla ezagueran eta zentzu guztian,
10. Jakin dezazuten ezagutzen obeagoa, eta iraun dezazuten garbi, eta beaztoporikan gabe Kristoren eguneraño,
11. Justiziako frutuz beterik Jesukristogatik, Jaungoikoaren gloria ta alabantzarako.
12. Bitartean, o nere anaiak, nai det jakin dezazuten, gertatu zizkidan gauzak Ebanjelioaren aurrerapen geiagorako,
13. Alako moduan, non, nere kateak Kristogatik etorri dira ezagutuak izatera Enperadorearen jauregiokak, eta an bizi ziraden beste guztiak.
14. Eta Jaunagan anaiak diradenetatik asko, nere kateetan itxedotzen zutela, alaitasun geiagorekin azartzen dira, predikatzen beldurrik gabe Jaungoikoaren itza.
15. Egia da badiradela batzuek, Kristo predikatzen dutenak ondamuz eta temaz bezela, beste batzuek gogo onarekin egiten duten artean,

16. Batzuek karidadeagatik, jakinik Ebanjelioa zaitzeko jarria nagoala,  
17. Beste batzuek zeloak eta temagatik nere kontra, adirazten dute Kristo gogo gaitzorekin, uste dutela, nere kateen pisua astundutzea.

18. Baña, zer dago orrekin? Kristo adirazia izan ezkeru, naiz aitzakiaren batekin izan dedilla, naiz zelo egiazko batekin; onetan bozkarioitzen naiz, eta bozkariotuko naiz beti.

19. Zeren dakidan, au nere onera biurtuko dala zuen orazioen bitartez, eta Jesukristoren espirituaren laguntasunarekin,

20. Nere guraen, eta daukadan itxedopenaren araura, iñolaere ez naitzala lotsatua geldituko, baizik itxedopen oso batekin nago, Kristo gloriaz beteaz izango dala nere gorputzean, naiz izan dedilla nere bizitzagatik, naiz izan dedilla nere eriotzagatik.

21. Zeren neretzat bizitzea, guztia da Kristo serbitzeko, eta iltzea irabazia.

22. Baña baldin gorputz ilkor onetan denbora geiagoan gelditzearekin, frutu geiago atera al banezake nere lanetik, egiaz zer autu ez dakit.

23. Aldamen bietatik bada estutua arkitzen naiz. Gurak dauzkat, gorputz onen lokarrietatik askatua ikusteko nere burua. Au litzate obeago neretzat.

24. Baña bestetik bizitza onetan gelditzea, zuentzat premiazkoa da.

25. Ezagaturik au, badakit oraindik geldituko naizala, eta iraungo dedala zuekin guztiokin, zuen onerako, eta zuen fedearen bozkariorako,

26. Azi dedin zuen gozotasuna, eta ongi egina eman zaiozute Jesukristori, bigarren aldiz zuekgana nere etorreragatik.

27. Bakarrik esaten dizutet orain, zuen bizitza modua izan dedilla, Kristoren Ebanjelioaren diña dana, naiz zuekgana joan nadilla; naiz zuekgandik berezitua egon nadilla, zuekgatik aditu dezadala, irautzen dezutela azkar ta sendo espiritu bat batean, lanean ari zeratela guziok elkarrekin Ebanjelioko fedegatik.

28. Eta etzaituzte beldurtu bear etsaien aleginak, bada zuentzat kontra egiten duten au, zeñ dan beren galmenaren gaia, zuentzat salbazioko gaia da, eta au Jaungoikoak erabaki du.

29. Zeren Kristoren irabaziagatik emana izan zatzute grazia, ez bakarrik beragan sinistzeko, baitaere bere amorioz padezitzeko.

30. Guda hura bera idukirik, nolakoa nigan ere ikusi zenduten erri onetan, orain ere neri aditu didazute.



## BIGARREN KAPITULUA

1. Argatik baldin badago neretzat gozotasunen bat Kristogan zuen aldamenetik; atseginen bat, zuen karidadearen aldamenetik; espirituko elkartasunen bat; urrikaltasuneko errairen batzuek katigu oneganako,
2. Osotu ezazute nere gozotasuna, izanik guztiok iritzi batekoak; karidade bat bera, espiritu bat bera, gogorazio batzuk berak idukirik,
3. Ez dezutela ezerere egiten temaz, ez gloria alferragatik, baizik bakoitzak humiltasunarekin, besteai nagusiai bezela begiratu bizaie.
4. Bakoitzak begiratzen diola, ez bakarrik gauza ona danari, baizik projimuaren onerako danari.
5. Zeren zuen biotzetan idukiko dituzute, Jesukristok berean iduki zituen gurak berak,
6. Zeñak idukirik Jaungoikoaren izatea, ez zan gauza arrapatua, baizik berez zan Jaungoikoarekin berdiña bere izatea.
7. Eta alaere ezerereztu zan bera, mendeko baten irudia artzen zuela, eginik beste gizonen antzekoa, eta gizonaren izate modura biurtua.
8. Humillatu zan bera, eginik obeditzalle eriotzaraño, eta gurutzeko eriotzaraño.
9. Argatik Jaungoikoak ere goratu zuen gauza guztien gañera, eta izen guztiez gañetiko izen bat eman zion.
10. Jesusen izenera belaunikotu dedilla belaun guztia zeruan, lurrian, eta infernuan;
11. Eta mingaiñ guziak aitortu beza, Jaun Jesukristo, Aita Jaungoikoaren glorian dagoala.
12. Argatik, nere txit maiteak, (beti obeditu dezuten bezela) ez bakarrik ni zuen aurrean banengo bezela, baizik asko geiago, orain zuekngandik berezitua nagoanean, beldur eta ikararekin zuen salbazioko lanean ari zaitzete.
13. Bada Jaungoikoak bere borondate on uts batgatik egiten du zuekngan, ez bakarrik nai izatea, baita egitea ere.
14. Egin itzatzute bada gauza guztiak, murmurazio gabe, ta zalanza gabe.
15. Izan zaitzeten erriertaren premiagabeak, eta tolesgabeak, Jaungoikoaren semeak bezela, aitzakia gabeak, erreñu gaizto eta biurri baten erdian, non argi egiten dezuten munduko argiak bezela.
16. Iraunerazitzen diozutela, bizitzako itz, nik predikatu dizutedanari gozatu nadin ni Kristoren egunean, ez naizala alperrik korrika ibilli, eta ez naizala ere alperrik lanean ari.

17. Bada nere odola isuriko banu ere, libazioaren gisara zuen fedearren doañ, eta eskeñtzaren gañean, gozaten naiz eta bozkariotzen naiz zuekin guziokin.

18. Eta beragatik zuek bozkariotu bear zerate, eta neri ongi izatea eman.

19. Nik Jaun Jesusgan itxedotzen det, bialduko dizutedala Timoteo, ni ere gozatu nadin zuen gauzak jakiteaz,

20. Zeren ez daukadan iñor ere, nerekin biotzez, eta espirituz alako moduan bildua, bera bezela, ez zuen onagatik gogo obeagoarekin begiratzten duenik.

21. Ikusirik, esaterako, guztiak, billatzen dituztela berenak diraden gauzak ez Jesukristorenak,

22. Zeren badakizute zuek, ongi dakidala, nolakoa dan, ikusiaren gañera, serbitu nauelako Ebanjelioaren predikazioan, seme batek bere aitaren aldamenean bezela.

23. Ala bada, bera uste det zuekgana bialtzea, ikusten dedanean, nere inguruko gauzak zuzenduak daudela.

24. Baitaere itxedotzen det Jaunagan, ni nerau ere denbora gutxiren buruan, joango naizala zuek ikustera.

25. Bitartean premiazko gauza dala uste izan det bialtzea zuekgana Epafrodito nere anaia, eta laguntzalea nere lanetan, eta adiskidea gudae-tan zuen Apostolu, edo bialdua, eta nere premietan ni serbitu nauena.

26. Zeren egiaz berak zeukan ansia andia zuek guztiok ikusteko, eta atsekabetua zegoan, zuek jakin zenduelako eririk zegoala.

27. Egia da eririk egon dala iltzeko zorian; baña Jaungoikoak berarekin urrikaltasuna iduki zuen, eta ez bakarrik berarekin, baita nerekin ere, nik tristeza tristezaren gañean sufritu ez nezan.

28. Argatik agudoago bialdu det, bera ikusita, berriz gozatu zaitzeten, eta ala ni pena gabe egon nadin.

29. Artu ezazute bada bozkario guztiz andi batekin Jaunagan, eta alako lagun andiai eman bear zaien onrarekin.

30. Jesukristoren serbitzoagatik eriotzako ateetan egon dalako, bere bizia irriskuan jarriaz, egiten zuela zuek ortikan egin etziñitzatekena neri laguntzen ziñidatela.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Atzenean, nere anaiak, Jaunagan poztu zaitzete. Neretzat ez da gauza gogaikarria, zuei lengo gauzak berak eskribitzea, eta zuentzat premiazkoa da.



2. Iges egin ezazute bada, berriz ere esaten dizutet, txakurretatik; iges egin ezazute langille gaiztoetatik; iges egin ezazute, gezurrezko zirkunzidatuetatik.

3. Zeren zirkunzidatu egiazkoak gera gu, Jaungoikoa espirituan serbitzen degunok, eta Jesukristogan gozaten geranok, aragian itxedopena jarri gabetanik.

4. Egia da ni ere aragian gozatu nitekeala. Baldin bada inork uste balu, aragiaren aldamenetik aurea artuko didala, jakin beza, nik geiago dezakedala.

5. Bada zortzigarren egunean zirkunzidatua izan nintzan, Israelko jatorrikoa naiz, Benjaminen tribukoa, Hebreotarra, Hebreotarren semea, Fariseoa legea zaitzeko moduan.

6. Juduen fedeagatik zelotsua, Jaungoikoaren eliza persegitzeraño; eta justiziaren gañean, zeñ dagoan legean, nere bizitza aitzakia gabea izan da.

7. Baña gauza oiek, zeñai nik len begiraten nien nere irabazi batzuei bezela, galmenak iduritu izan zazkit, Jesukristogan begiak ipintzean.

8. Eta egiaz guztia daukat galmentzat, Jesukristo nere Jaunaren eza-guera goratuarekin berdindu ezker, zeñaen amorioagatik utzi ditut eta galdu gauza guztiak, eta zimaurrari bezela begiraten diet, Kristo irabazteagatik,

9. Eta beragan arkitu nadilla, ez nere justizia daukadala, zeñ dan legetik datorrena; baizik Jesukristoren fedetik jaiotzen dan hura; Jaungoikoagandik fedearen bitartez datorren justizia.

10. Bera ezagutzeko, au da, Kristo, eta bere biztze berriaren indarra, eta bere penaen partale izateko; bere eriotzari iruditzen natzaiola,

11. Alako moduan, non, atzanean illaen biztze gloriáz betearen diña izatera allegatu nadilla.

12. Ez oraindikan guztia iritxi dedalako; ezta ere Kristo, iruditze ko perfekziora allegatu naizalako, baña alaere, bideari jarraitzen diot, ikusteko iritxitzen ote dedan arako gauza, zeñatarako Jesukristok ots egin zidan.

13. Nik, nere anaiak, ez det uste, nere bidearen atzeneraño allegatu naizala. Nik bakarrik begiraten dedana da, azturik lengo gauzakin, eta gero koetara begiraturik bakarrik,

14. Joan korrika billatzen dedan iturontz, irabazteko ordaña, zeñatarako Jaungoikoak goietatik ots egiten duen Jesukristoren bitartez.

15. Onelako iritziak iduki ditzagun bada, osoz onak geraden guziok, eta zuek beste iritziak badaukazute, uste det Jaungoikoak orretan ere argituko zaituztela.

16. Fedeko egiaen gañean onezkero allegatu geran ezageraen gañean berriz, uste ta iritzi aiek berak iduki ditzagun, eta erregela artan beratan iraun dezagun.

17. O nere anaiak! nere imitatzaileak izan zaitezte, eta begiak jarri itzatzute gure irudi, zuek daukazutenaren araura bizi diraden aietan.

18. Zeren asko dabilta ortik, maiz esaten nizuten bezela, (eta orain ere negarrez esaten det) Kristoren gurutzearen etsiak bezela bizi diradenak.

19. Zeñaen atzena galmena dan, zeñaen Jaungoikoa sabela dan: eta beren gloria ipintzen dutenak beren lotsarian, lurreko gauzaetara txit itsatsiak daudela.

20. Gure izketa ordea zeruetan dago, nondik ere Jesukristo gure Jauna, Salbatzailea, itxedotzen degun,

21. Zeñak aldatuko duen gure gorputz beeratua, eta egingo duen bere antzeko gloriáz betea, indar arekin berarekin, zeñarekin gauza guztiak bere mendean jarri litzakean.

## LAUGARREN KAPITULUA

1. Beragatik bada, nere anaia txit maiteak, eta gogokoak, nee gozotasuna, eta nere koroa, iraun ezazute ala azkar ta sendo Jaunagan.

2. Nik erregututzen diot Ebodiari, eta Sintigesi eskatzen diot gogotik, iritzi batekoak izan ditezela Jaunagan.

3. Zuri ere eskatzen dizut, o nere lagun leiala, lagundu dizaiezula emakume oriei, zeñak nerekin lanean ari diran Ebanjelioagatik, Klemente eta beste nere laguntzaileekin batean, zeñaen izenak bizitzako liburuan dauden.

4. Bozkariotu zaitezte beti Jaunagan. Berriz esaten dizutet, bozkariotu zaitezte Jaunagan.

5. Zuen modu ona gizon guztiak ezagutua izan bedi, zeren Jauna aldean dagoan.

6. Etzaitezte ezereen ere arduratan egon, baizik gauza guztietan eraman itzatzute zuen eskariak Jaungoikoaren aurrera, orazioen eta erreguen bitartez, eskerrak emateak laguntzen diela.

7. Eta Jaungoikoaren pake, adimen guziez gañetikoa dana, zuen biotzen, eta zuen iritziaren gordetzalea izan dedilla, Jesukristogan.

8. Gañerakoan, nere anaiak, egiaren araukoa dan guztia, garbia dan guztia, justoa dan guztia, santua dan guztia, maitagarri egiten zaituzten guztia, izen onerako serbitzen duen guztia, bertute guztia, oitura alabagarri guztia, oien gañean iduki itzatzute zuen gogorazio guztiak.



9. Nigandik ikasi dezutena, eta artu dezutena, eta aditu dezutena, eta nigan ikusi dezutena, oiek egingo dituzute, eta pakeko Jaungoikoa zuekin izango da.

10. Ni, nigan danez, txit bozkariotu nintzan Jaunagan atzanean ere loretu dalako zeukaten gura ona, beti iduki dezute zuen biotzetan; baña agertzeko erarik etzenduten arkitzen.

11. Ez det esaten nere premiagatik: zeren ikasi dedan daukadanarekin aspertzen.

12. Badakit biziten premian, eta badakit biziten ugaritasunean (guzia irago det, eta oitua nago), aserik egoten, eta gosea iragotzen; ugari idukitzen eta urri idukitzen.

13. Sendotzen nauen argan guztia dezaket.

14. Alaere obra on bat egin dezute, nere atsekabeen neri lagundutzea.

15. Bestela berriz, ongi dakizute zuek, o Filipostarrak, zuei Ebanjelioa predikatu, ta gero, bereala Mazedoniatik atera nintzanean, beste eliza batek ere etzidala lagundu bere ondasunakin, baizik zuenak bakarrik,

16. Bada bein eta bi alditan bialdu ziñidaten Tesalonikara, nere premitarako bear nuena.

17. Ez da au esatea, ni doañen guraz nagoela, baizik nai dedana da, Jaungoikoaren aurrean zuen konturako andik etorriko dan onera ta mesedea.

18. Orain guztia daukat, eta ugaritasunarekin: ondasunez txit betea nago, artu dedanean Epafroditorekin bialdu didazutena; eta zeñ artu dedan usai txit gozoko eskeñtza bat bezela; doañ bat bezela, Jaungoikoa-  
rentzat gogokoa ta onirizgarria.

19. Nere Jaungoikoak bada kunplitu bitza zuen gura guztiak, bere ondasunen araura, Jesukristogan ematen dezuten gloriarekin.

20. Jaungoiko eta gure Aitari, gloria emana izan bizaio mendez mende. Amen.

21. Diosalak egin zaieztezute santu guztiai Kristo Jesusgan.

22. Nerekin dauden anaiak, eskumuñak egiten dizkizute. Agurrak egiten dizkizute santu guztiak, eta batezere Zesarren etxeoak diradenak.

23. Jesukristo gure Jaunaren grazia zuen espirituarekin izan bedi. Amen.

## SAN PABLO APOSTOLUAREN KARTA KOLOSSESTARAI

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Pablo Jesukristoren Apostoluak Jaungoikoaren borondatez, eta Timoteo bere anaiak,

2. Jesukristogan anaia santu ta leial, Kolosesen daudenai.

3. Grazia eta pakea zuekin izan bedi, gure Aita Jaungoiko, eta Jesukristo gure Jaunaren izenean. Eskerrak ematen diozkagu Jaungoiko eta Jesukristo gure Jaunaren Aitari, zuekगतik beti orazioan gaudela.

4. Aditzean zuen fedea Kristo Jesusgan, eta santu guztiai diezuten amorioa,

5. Zerueta zuentzat gordea dagoan itxedopenagatik itxedopen bat, irabazi zendutena, Ebanjelioko dotrina egiazkoa adirazia izan zautenean.

6. Ebanjelio au zabalduaz dijoa zuen artean, nola mundu guztian ere, alako moduan, non, frutuak ematen dituen, eta aziaz dijoa, zuen artean egin duen bezela, aditu zenduten egun artatik, eta ezagutu zendutenetik Jaungoikoaren grazia, egiaren araura,

7. Ikasi zenduten bezela gure txit maite Epafrasgandik, zeñ dan gure laguna Jaungoikoaren serbitzoan, eta Jesukristoren langille leial bat zuek-ganako,

8. Zeñak ere agertu zigun, zuek guganako zeunkaten amorio, guztia espiritukoa.

9. Argatik guk ere, jakin genduen egunetik, aspertu gabe orazio egiten degu zuekगतik, eta eskatzen diogu Jaungoikoari, iritxi dezazutela bere borondatearen ezaguera osoa, espirituko jakinduria, eta aditza guztiarekin,

10. Ibilli zaitezten Jaungoikoaren diña dan moduan, gauza guztietan bere borondatea egiten dezutela, ematen dituzutela frutuak obra on mota guztietan, eta Jaungoikoaren jakindurian aurreratzen zeratela.

11. Indarturik sendotasun mota guztian bere graziaren eskubide glori-  
riaz betearekin, pazientzia oso bat beti idukitzeko, eta biotz andia bozka-  
riorekin batean,

12. Ematen diozkagula eskerrak Aita Jaungoikoari, zeñak diña egin gaituen partale izateko santuen tokamen eta herenzian, Ebanjelioko argia-  
rekin argituzten gaituztela,

13. Zeñak atera gaituzten illuntasunen eskubidetik, eta alde erazi digun bere seme txit maitearen erreñura,



14. Zeñaren odolak erredimituak izan geran, eta beragatik bekatuena barkazioa artu degu,

15. Zeñ dan Jaungoiko, ikusi ez litekeanaren irudia, beste guztiak baño lenago sortua.

16. Zeren bere bitartez eginak izan ziran gauza guztiak zeruetan eta lurrean, ikusten diranak, eta ikusi ez litekeanak, naiz izan Tronuak, naiz dominazioak, naiz prinzipaduak, naiz potestadeak. Gauza guztiak izan ziran berak eginak, eta beragatik eginak.

17. Eta ala berak dauka izatea gauza guztiak baño lenago, eta guztiak beragatik irautzen dute.

18. Eta Elizako gorputzaren burua bera da, eta biztze berriaren asiera; aurrena, illen artetik berriz biztzen gauza guztietan bera aurrena izan dedin.

19. Bada Aitak, izate guztiaren osotasuna beragan jarri nai izan zuen,

20. Eta bere bitartez gauza guztiak berarekin adiskidetu, berriz jartzan zuela pakea eginik zeruaren eta lurraren artean, gurutzean isuri zuen odolaren bitartez.

21. Orobat zuek, len Jaungoikoagandik alde egin zendutenak, eta bere etsaiak biotzez ziñatenak zuen obra gaiztoagatik.

22. Orain berriz adiskidetu zaituzte bere aragiaren gorputz ilkorrean, irago duen eriotzagatik, agertu zaitezten santuak, orbanik gabe, eta erriertaren diñak etzeratenak bere aurrean glorian,

23. Irautzen badezute zimendatuak fedean, eta sendo, eta mugimendu gabe, aditu zenduten Ebanjelioaren itxedopenean, zeñ aditu zenduten, eta zeñ izan dan predikatua, zeruaren azpian dauden erreñu guztietan, zeñaren langillea ni Pablo eginak izan naizan.

24. Ni orain gozatsen naizan au, zuek egatik padezitzen dedanarekin, eta nago nere aragian kunplitzen, oraindik Kristok padezitzeko bere gorputzeko zatietan, penak iragotzen dituela bere gorputz miraritsuen alde, zeñ eliza dan.

25. Zeñaren ministroa eginak izan naiz ni, Jaungoikoaren erabakiaren araura, lantegi bat, emana izan zatana zuen jentillen gañean Jaungoikoaren itzaren predikazioko lana kunplitzeko.

26. Adiratzten dizutedala misterio bat, mendeai, eta irago diran gizaldiai estalia, eta orain, bere santuagertua izan zaiena,

27. Zeñai Jaungoikoak agertu nai izan diezten gloriako misterio onen aberastasunak erreñuen artean, zeñ ez dan beste gauzarik, baizik Kristo, eginik fedegatik zuen gloriako itxedopena.

28. Au da guk predikatzen deguna, adiratzten diegula gizon guztiai, eta ematen dieztegu erakutsiak guztiai jakinduria mota guzian, egin guztiok on osoak Jesukristogan.

29. Onetara zuzentzen ditut nik nere alegin guztiak, gudan ari naizala, Jaunak bere indar almentsuarekin zuzentzen nauen arau ta erara.

## BIGARREN KAPITULUA

1. Zeren nai det jakin dezazuten, nolako estutasuna daukadan zuek egatik, eta Laodizean daudenak egatik, eta aiek egatik ere, zeñak ez duten nere arpegia aragian ikusi.

2. Beren biotzak bozkariotzak izan ditezten, eta egonik ongi elkartuak karidadearekin, izan bitez aditza oso baten ondasun guztiak beteak, Aita Jaungoikoaren eta Jesukristoren misterioa ezagutzeko,

3. Zeñgan dauden ezkutatuak, jakinduria, eta aditzaren ugaritasun guztiak.

4. Eta au esaten dizutet: iñork ere etzaitzaten lilluratu izketa goratuakin.

5. Bada gorputzarekin zuek gandik berezitua banago ere, alaere espirituairekin zuekin nago, bozkariotzen naiz ala, ikusirik zuen modu ona gauzaetan, eta zuen fedearen sendotasuna Kristogan.

6. Jesukristo bada Jauntzat artu dezuten ezker, beragan ibilli zaitezte,

7. Itsatsirik berari, zuen sustraiari bezela, eta eginak izanik bere gañean zuen fundamentua bezela; eta sendoturik erakutsia izan zazuten fedean, azitzen zeratela geiago ta geiago beratan, aspertu gabe eskerrak ematen dituzutela:

8. Begiratu ezazute iñork ere etzaitzatala engañatu filosofia alper eta uts batekin, eta asmazio bidegabeko, munduaren erakutsien erakoakin, eta ez Jesukristoren dotrinaren erakoakin,

9. Zeren Jesukristo dago Jaungoikotasunaren betetasun guztia duela gorputzkiro.

10. Eta guztia daukazute beragan, zeñ dan prinzipadu eta potestade guztien burua,

11. Zeñgan zuek ere izan ziñaten zirkunzidatuak, ez zirkunzizio eskuz egindako, berezitzen duenarekin aragia gorputzetik, baizik Kristoren zirkunzizioarekin,

12. Izanik obituak berarekin bataioagatik, eta berarekin berriz biotzak, Jaungoikoaren eskubidearen gañean daukazuten fedegatik, zeñak eriotzatik biztu zuen.





13. Eta zuek illak zeundenean zuen bekatuakgatik, eta zuen aragia zirkunzidatu gabe idukitzeagatik, orduan egin zizuten berriz berarekin biztutzea, bekatu guztiak doan barkatzen zizkizutela,

14. Borratzen zuela gure kontra firmatua zegoan dekretoa, zeñ zan gure kontrakoa, kendu zuen arras, gurutzean tinkatzen zuela.

15. Eta ezerere gabe utzitzen zituela onenbesterekin infernuko prinzipaduak, eta potestadeak, atera zituen sendo eta erruz agirira, eta bere aurrera eraman zituen, oiek garaitzen zituela berak beragan.

16. Iñork ere bada etzaitzatela kondenatu janariagatik, edo edariagatik, edo jaiegunen gañean, edo illargiberrien, edo larunbaten gañean,

17. Zeñak ziraden, etorriko ziraden gauzaen itzalak; gorputza berriz Kristo da.

18. Iñork ere bide zuzenetik ez dizazutela alde erazi, umiltasun azaletiko batekin, nastutzen zaituztela aingeruen adorazio batekin, esaten dituztela, ikusi ez dituzten gauzak, urgulluturik alperkiro beren zentzu aragizkoarekin,

19. Eta ez egonik elkarturik buruarekin, zeñ dan Jesukristo, zeñgandik gorputz guztia bazkaturik eta zuzendurik nerbioen eta junturen bitartez, dijoa aziaz, geitzen dala, zeñ dan Jaungoikoarena.

20. Il bazerate bada Jesukristorekin, munduko erakutsi, lenengo eta bearrenentzat, zergatik iduki nai dituzute oraindikan zuen legetzat, munduaren denbora artan bizi baziñate bezela?

21. Ez ezazute jan, esaten zazute, ez ezazute probatu au, edo hura; oni edo ari etzaiozute ukitu.

22. Gauza guzti oiek badirade ere gizonen agindu ta erakutsiak, egia da berak egiteko oiturarekin, utsean gelditzen dirala,

23. Baña beretan dago egiaz, kristau jakinduria mota bat, berak gordeztean borondatez, eta umiltasunak laguntzen diola, kastigatzean gorputza, eta gure aragiari ez begiratzean.

### IRUGARREN KAPITULUA

1. Orain bada, Jesukristorekin biztu bazerate, billatu itzatzute goikoak diran gauzak, non Kristo eseria dagoan, Jaungoikoaren eskuieko aldamenean.

2. Gozatu zaitzete zeruko gauzaetan, ez lurraren gañekoetan.

3. Zeren onezkero illak zaudete, eta zuen bizitza berria Kristorekin Jaungoikoagan ezkutatua dago.

4. Baña agertzen danean Kristo, zeñ dan zuen bizia, orduan zuek ere, gloriatz beteak agertuko zerate.

5. Illerazi itzatzute bada zuekgan dauden lurreko gizonaren gorputzeko aragizko gura bidegabeak: fornikazioa, zikinkeria, eraspen nabarmenak, eta zikoiztasuna, zeñ guztia datorren idolatria bat izatera:

6. Zeñakgatik datorren Jaunaren aserrea sinisgogorren gañera,

7. Eta zeñatan ibilli ziñaten zuek ere beste denbora batean, beretan bizi ziñatenean.

8. Orain berriz, utzi itzatzute zuek gauza guzi oiek: aserrea, sumintasuna, gaiztakeria, gaizki esatea, eta urrutian zuen aotik itz zikin guztia.

9. Etzaiezute elkarri gezurrik esan, itz batean, billostu zaitzete gizon zarretik bere egiteakin,

10. Eta gizon berriaz jantzi zaitzete, arekin, zeñ fedearen ezaguera-gatik berriztatzen dan, egin zuen Jaunaren irudiaren araura,

11. Zeñganako ez dagoan desberdintasunik Jentillagandik Juduagana; zirkunzidatuagandik zirkunzidatugabeagana, Barbaroagandik Eszitagana; mendekoagandik askatuagana; baizik Kristo da on guztia, eta guztiakgan dago.

12. Nola bada zeraten Jaungoikoaren autuak, santuak, ta maitatuak, iduki itzatzute urrikaltasuneko erraiak, biguñtasuna, umiltasuna, moduona, pazientzia:

13. Sufritzen diozutela elkarri, ta barkatzen diozutela batzuek besteai, iñork ere bestearen kontra kejarik badauka, nola Jaunak barkatu dizuten, zuek ere ala egingo dezute.

14. Baña beste guztien gañetik, iduki ezazute karidadea, zeñ dan perfekzioaren lokarria.

15. Eta Kristoren pakea garai egon bedi zuen biotzetan, zeñatara ots eginak izan ziñaten, gorputz bat egiteko, eta esker onekoak izan zaitzete.

16. Kristoren itzak ugaritasunarekin iduki beza bere bizilekua zuen artean, jakinduria guztiarekin, elkarri erakutsiak ematen dieztezutela, eta batzuek besteak sendotzen dituzutela salmoakin, himnoakin, eta espiritu-kokantxoakin, biotzez kantatzen dituzutela graziarekin Jaungoikoaren alabantzak.

17. Egiten dezuten guztia itzez, edo obraz, guztia egin ezazute Jesukristo gure Jaunaren izenean, bere bitartez Aita Jaungoikoari eskerrak ematen diozkazutela.

18. Emazteak senarren agindura egon zaitzete, bear bezela, Jaunaren araura diran gauzaetan.

19. Senarrak maitatu itzatzute zuen emazteak, eta etzaitzete berentzat saminak izan.





20. Semeak obeditu zaiezute gurasoai gauza guztietan, zeren au Jau-naren gogoko gauza dan.

21. Gurasoak, etzaiezute aserretu erazi zuen semeai, beldurtiak izan ez ditezten.

22. Mendekoak, obeditu zaiezute zuen nagusi aragizkoai, ez dituzute bakarrik serbitzen, zuei begira daudenean, ez bazenezakete bezela beste gauzarik nai, baizik gizonen gauzak egitea; ez orrela, baizik biotze-ko tolesgabetasunarekin, eta Jaungoikoaren beldurrarekin.

23. Egiten dezuten guztia, gogotik egin ezazute, Jaungoikoa serbitzen duenak bezela, eta ez gizonak,

24. Jakinik Jaungoikoagandik artuko dezutela herenzia ordañtzat, Kristo Jauna serbitu ezazute.

25. Zeren gaizki egiten duenak, artuko du bere gaiztakeriaren saria, zeren Jaungoikoak zeñ zeñ dan ez du begiratzen.

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Nagusiak, justo eta ongi dana eman zaiezute mirabeai, jakinik zuek ere Zeruan Nagusia daukatzutela.

2. Iraun ezazute orazioan, bertan beillan egoten zeratela, eta esker-rakin laguntzen diozutela.

3. Batean orazio egiten dezutela gugatik, Jaungoikoak idiki dezagun predikazioko atea, adirartzeko gizonen erredenzioko misterio, Jesukristok egiztatua (gauza huragatik oraindikan lotua nago),

4. Eta nik erakutsi dezadan, bere gañean itz egin bear dedan modu gogorrean.

5. Portatu zaitezte jakintsuro, kanpoan daudenakin, denbora erredimitzen dezutela.

6. Zuen izketa beti izan bedi gatzarekin sasoiua, jakin dezazuten, bakoitzari nola erantzun bear diozuten.

7. Nere gauza guztien berriak emango dizkizute, Tikiko nere anaiak txit maite, eta langille leial, eta Jaunaren serbitzari lagunak,

8. Zeñ berriaz zuekgana bialdu dedan, zuen gauzaen berriak jakin ditzan, eta gozatu ditzan zuen biotzak,

9. Nere anaia txit maite, eta leial Onesimorekin batean, zeñ zuen erritarra dan. Berak esango dizkizute, emen egiten diran gauzak.

10. Eskumuñak egiten dizkizute, Aristarko, nere lagunak karzellan; eta Markos Bernaberen lengusuak, zeñaen gañean mandatuak artu zenduzten. Zuekgana joango balitza, ongi artu ezazute.

11. Eskumuñak egiten ere dizkizute Jesus, izengoitiz Justoak. Oiek dira zirkunzidatuetatikoak, eta berak bakarrik dira Jaungoikoaren erreñua adiratzten, laguntzen didatenak, eta ematen didatenak atsegiña.

12. Eskumuñak egiten dizkizute Epafrasek, zeñ dan zuetatikoa, Jesukristoren serbitzaria, beti ajolatsua erregututzen zuekgatik bere orazioetan, osoz onak izan zaitezten, eta Jaungoikoak nai duen guztia ongi eza-gutu dezazuten.

13. Bada nik testigantza ematen diot, nola asko lan daukan zuekgatik, eta Laodizian, eta Hierapolisen daudenakgatik.

14. Eskumuñak egiten dizkizute Lukas, sendagille txit maiteak, eta Damasek.

15. Zuek eskumuñak egin zaiozkazute Laodizeako anaiak, eta Ninfasi, eta bere etxean daukan Elizari.

16. Eta karta au irakurtzen dezutenean zuen artean, egin ezazute irakurri ere dedilla Laodizeako elizan, eta Laodizearrena, zuek irakurri ezazute.

17. Eta Arkippori esan zaiozute: Begiratu ezazu, Jaunaren izenean artu dezun lantegia, ongi kunplitu dezazun.

18. Nere agurra nere eskuz egina dijoa. Pablo. Grazia zue



## SAN JUAN APOSTOLUAREN APOKALIPSISA

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Jesukristoren Apokalipsisa, Jaungoikoak eman ziona, laster gerta-  
tu bear dutenak agertzeko bere serbitzariari; eta ezagutuerazi ziona, bidal-  
durik bere aingeruaren bitartez bere serbitzari Juani,

2. Zeñak lekukotasuna eman zion Jaungoikoaren itzari, eta Jesukris-  
toren lekukotasuna, ikusi zituen guziaz,

3. Doatsua profezia onetako itzak irakurtzen, eta aditzen dituen, eta  
onetan eskribaturik daudenak gordetzen dituen, zeren denbora aldean  
da.

4. Juanek Asian dauden zazpi elizai. Grazia zuei eta pakea dana gan-  
dik, zana gandik, eta etorriko dana gandik, eta aren esertokigoiaren  
aurrean dauden zazpi espirituak gandik,

5. Eta Jesukristo gandik, zeñ dan lekuko leiala illetatik lenbizi sortua,  
eta lureko erregeen burua, zeñek maitatu ginduen, eta garbitu ginduen  
gure pekatuetatik, bere odolean.

6. Eta egin gaitu Jaungoikoaren eta bere aitaren erreinu, eta apaiz; ari  
gloria, eta agintaritzza gizaldien gizaldietan. Ala izan dedilla.

7. Ona non datorren odeiak; eta ikusiko dute begi guziak, eta bera  
zulatu zutenak; eta bularrak joko dituzte bera ikusiaz lureko erri guziak.

8. Ni naiz alfa eta omega, asiera eta bukaera, dio Jaun Jainkoak,  
danak, eta zanak, eta etorriko danak, guztialak.

9. Ni Juan zuen anaia eta partilla naigabean, eta erreinuan, eta irago-  
penean Jesukristogan, izan nintzan Patmos deitzen zaion ugartearen, Jaun-  
goikoaren itza gatik, eta Jesusen lekukotasuna gatik.

10. Izan nintzan gogoz eramana igande egun batean, eta aditu nuen  
nere ondorik boz andi bat tronpetaren idurikoa.

11. Ziona: ikusten dezuna eskribatu ezazu liburu batean; eta bidaldu  
zaiezu zazpi elizai, zeñak dauden Asian, Efeson eta Esmirnan, eta Perga-  
mon, eta Tiatiran, eta Sardisen, eta Filadelfian, eta Laodizian.

12. Eta itzuli nintzan itz egiten zidan boza ikusteko, eta itzuli nintza-  
nean ikusi nituen zazpi urrezko kandelero.

13. Eta zazpi urrezko kandeleroen erdian gizonaren semea bezelako  
bat, soñeko luze batekin jantzirik; eta urrezko gerriko batez bular ondo-  
ak loturik.

14. Aren burua berriz, eta illeak zuriak ziran ille zuria bezela, eta elu-  
rra bezela; eta aren begiak su garra bezelakoak ziran.

15. Eta aren oñak iduri zuten latoe zuria labe beroan; eta aren itzak  
iduri zuten ur andien otsa;

16. Eta zeuzkan bere eskuiko eskuan zazpi izar; eta aren aotik ezpa-  
ta bat bi aldetatik zorroztua irtetzen zan; eta aren arpegia distiatzen da,  
eguzkia bere indarrean bezala.

17. Eta ikusi nuenean, erori nintzan aren oñetan illa bezela; eta jarri  
zuen bere eskuiko eskua nere gañean, ziola: Etzaitze beldur izan; ni nazu  
lenena eta azkena.

18. Bizi nazana, eta izan naiz illa; eta ona non bizi naizan gizaldien  
gizaldietan; eta ditut eriotzaren giltzak eta infernukoak.

19. Eskribatu itzatzu bada ikusi dituzunak, eta diranak, eta gertatu  
bear dutenak oien ondoren.

20. Ona nere eskuiko eskuan ikusi dituzun zazpi izarren misterioa,  
eta zazpi urrezko kandeleroena; zazpi izarak dira zazpi elizen aingeruak;  
eta zazpi kandeleroak, zazpi elizak dira.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Eskribatu zaiozu Efesoko elizaren aingeruari: Oiek esaten ditu,  
dauzkanak zazpi izarrak bere eskuiko eskuan, eta zazpi urrezko kande-  
leroen erdian dabillanak.

2. Badakiskit zure egiteak, eta zure nekea, eta iragopena, eta ezin  
dituzula sufritu gaiztoak; eta tentatu dituzula apostolu dirala esaten dute-  
nak ez izanik, eta gezurti arkitu dituzu.

3. Eta iragopena badezu, eta sufritu dezu nere izena gatik, eta ez  
dezu ukatu.

4. Baña badet zertxobait esateko zure kontra, zure lelengo karidatea  
utzi dezula.

5. Oroitu zaitz bada nondik erori zeran, eta egizu penitentzia, eta egin  
itzatzu lengo obrak; zeren bestela banatortsu, eta alde eragingo diot zure  
kandeleroari bere lekutik, ez badezu penitentzia egiten.

6. Baña au badezu, gorroto diezula Nikolaiten egiteai, zeñai nik ere  
gorroto diedan.

7. Belarria duenak, aditu beza Espituak zer dioten elizai: goitzen  
duenari emango diot jaten bizitako zuaitzetik, zeñ dagoan nere Jaungoi-  
koaren paradisuaren.

8. Eta Esmirnako elizaren aingeruari eskribatu zaiozu: Oriek esaten  
ditu lenbizikoak eta azkenak, ill zanak eta bizi danak.



9. Badakit zure naigabea, eta zure premia, baña aberatsa zera; eta Juduak dirala esaten dutenen gaizkiak, eta ez dira ala, baña bai Satanasen batzarrea.

10. Ez iduki iragotera zoazanen beldurrik. Ona non deabruak sartuko dituan zuetariko batzuek presoindegian tentatuak izateko, eta naigabea izango dezute amar egunean. Izan zaite leiala ill arteraño, eta emango dizut bizitzako koroa.

11. Duenak belarria, aditu beza zer dioten Espirituak elizai: Goitzen duenari ez dio kalterik egingo bigarren eriotzak.

12. Eta Pergamoko Elizaren aingeruari eskribatu zaiozu: Oiek esaten ditu duenak ezpata bi aldamenetatik zorroztua;

13. Badakit non zauden, Satanasen esertokia dan tokian; eta badezu nere izena, eta ez dezu ukatu nere sinistea. Ez eta egun aietan, zeñean Antipas nere aitortzalle leiala, illa izan zan zuen artean, non dagoan Satanas.

14. Baña badet zure kontra zerbait; badituzu or jarraitzen diotenak Balaamen irakatzari zeñak irakasten zion Balaakari galbidea ematen Israelko semeai zillegi etziranak jan zitzaten, eta lizunkrietan bizi zitza-ten.

15. Ala dituzu zuk ere Nikolaiten irakatsiari jarraitzen diotenak.

16. Egizu arren penitentzia; bestela etorriko natzatzu bereala, eta gdatuko naiz aiekin nere aoko ezpatarekin.

17. Duenak belarria aditu beza zer esaten dioten Espirituak Elizai: goitzen duenari emango diot manna gordea, eta emango diot arri zuri bat, eta arrian izen berri bat eskribaturik, iñork ez dakiana artzalleak baizik.

18. Eta Tiatirako Elizaren Aingeruari eskribatu zaiozu: Oiek esaten ditu Jaungoikoaren semeak, zeñaen begiak su garraren antzekoak diran, eta aren oñak latoe zuriaren idurikoak.

19. Ezagutzen ditut zure egiteak, eta sinistea, eta zure karidadea, eta lantegia, eta zure iragopena, eta zure azkeneko egiteak lenbizikoak baño geiagoak.

20. Baña badet zure kontra zerbait: uzten diozula Jezabel emakume profeta dala berak dion bati, irakasten, eta nere serbitzariak engañatzen, loikeriara oiek dakarten, eta Jaungoiko gezurrezkoai eskañitako gauzeta- tik jan erazitzen.

21. Eta denbora eman diot penitentzia egiteko, eta ez du nai damutu bere lizunkeriaz.

22. Beragatik ezarriko det oian; eta arekin nastu diranak izango dira naigaberik andienean, ez badute egiten beren egiten penitentzia.

23. Aren aurrak ilko ditut, eta jakingo dute Eliza guztiak, ni nazala erraien eta biotzen azterlaria; eta emango diot zuetariko bakoitzari bere egiteen araura. Zuei berriz diozute,

24. Eta beste Tiatiran zaudetenai: irakaste oni jarraitzen ez dioten guztiak, eta ezagutzen ez dituztenak Satanasen sakontasunak, aiek dioten bezela, ez det ezarriko zuen gañean beste kargarik.

25. Alaere dezutena gorde ezazute ni natorren artean.

26. Eta garaitzen duenari, eta nere azkeneko egiteak gordetzen ditue- nari, eskua emango diot errien gañean.

27. Eta zuzenduko ditu burnizko zigorrarekin, eta lurrezko ontzi bat bezela izango dirade autsiak,

28. Nik ere artu nuen bezela nere Aita gandik; eta emango diot egun- sentiko izarra.

29. Belarria duenak, aditu beza zer dioten Espirituak Elizai.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta Sardisko Elizaren Aingeruari eskribatu zaiozu: oiek esaten ditu dauzkanak Jaungoikoaren zazpi espirituak eta zazpi izarrak. Badakizkit zure egiteak, badezula bizi zeralako izena, eta illik zaudela.

2. Izan zaite iratzarria, eta sendatu itzatzu beste iltzera zijoazenak. Zeren ez ditut arkitzen zure egiteak beteak nere Jaungoikoaren aurrean.

3. Gogoan bada iduki ezazu zer artu dezun eta aditu, eta gorde ezazu, eta egin penitentzia. Ez bazaude ordea iratzaririk, etorriko natzatzu lapurra bezela, eta ez dezu jakingo zer ordutan etorriko natzatzun.

4. Argatik badituzu izen banaka batzuek Sardisen, beren soñekoak zikindu ez dituztenak; eta ibilliko dirade nerekin zuriz jantzirik, zeren diñak dirade.

5. Garaitzen duena, onela izango da zuriz jantzia, eta ez det kendu- ko aren izena bizitzako liburitik, eta aitortuko det aren izena nere Aita- ren aurrean, eta aren Aingeruen aurrean.

6. Belarria duenak, aditu beza zer esaten dioten Espirituak Elizai.

7. Eta eskribatu zaiozu Filadelfiako Elizako Aingeruari: Oiek esaten ditu Santuak eta Egatiak Dabiden giltza duenak, zeñek idikitzen dau, ta iñork ez du itxitzen; zeñek itxitzen du, eta ez du iñork idikitzen.

8. Badakizkit zure egiteak. Ona jarri dizut aurrean ate idikia, iñork itxi ezin dezakeana; indar gutxi dezulako, eta gorde dezulako nere itza, eta ez dezulako nere izena ukatu.

9. Ona non emango dizudan Satanasen batzarretik, Juduak dirala esaten duten batzuek, eta ez dirade ala, baña gezurra diote; ona non eto-



rri eraziko diedan, eta belaunikotuko dira zure oñetan, eta jakingo dute maite zaitudala.

**10.** Gorde dozulako nere iragopeneko itza, nik ere gordeko zaitut tentazioko orduan, zein etorriko dan mundu guztira, lurtean bizi diranak probatzera.

**11.** Ona non natorren bereala; gorde ezazu dezuna, inork artu ez dezan zure koroa.

**12.** Garaitzen duenarekin egingo det abe bat nere Jaungoikoaren Elizan, eta kanpora ez da berriz aterako, eta eskribatuko det aren gañean nere Jaungoikoaren izena, eta nere Jaungoikoaren erriaren izena, Jerusalem berriarena, zeñ jatxitzen dan zerutik nere Jaungoikoa gandik, eta nere izen berria.

**13.** Duenak belarria, aditu beza zer esaten dioten Espirituak Elizai.

**14.** Laodiziako Elizaren Aingeruari ere eskribatu zaiozu: ona zer dion egia danak, lekuko leialak, eta egiazkoak, zeña dan Jangoikoaren egikeraren izanbidea.

**15.** Badakizkit zure egiteak; ez zerala ez otza, ez beroa. Arren bada baziña otza, edo beroa.

**16.** Baña epela zeralako, eta ez otza ez beroa, asiko natzatzu gonbitatzen nere aotik.

**17.** Esaten dezulako: aberatsa naiz, eta ondasuntsua, eta ez naiz inoren bear; eta ez dakizu zerala txit beartsua, eta doakabea, eta deusgabea, eta itsua, eta billosa.

**18.** Konsejatzen zaitut erosi dezadazula sutan garbitutako urrea, aberastu zaitean, eta jantzi ditzatzun soñeko zuriak, agertu ez dedin zure billostasunaren lotsaria; eta begiurez gantzutu itzatzu zure begiak ikusi dezazun.

**19.** Nik maite ditudanai errieta egiten diotet, eta kastigatzen ditut. Piztu zaite bada, eta egizu penitentzia.

**20.** Ona non nagoan atean, eta jotzen det: baldin inork aditzen badu nere boza, eta idikitzen badit atea, sartuko naiz beragana, eta apalduko det arekin, eta arek nerekin.

**21.** Garaitzen duenari eseri eraziko diot nerekin nere tronuan, nik ere goraitu nuen bezela, eta eseri nintzan bezela nere Aitarekin aren tronuan.

**22.** Duenak belarria, aditu beza zer dioten Espirituak Elizai.

## LAUGARREN KAPITULUA

**1.** Oien ondoren ikusi nuen; eta ona ate bat idikia zeruan, eta lenbizi aditu nuen bozak, tronpeta bat bezela niri izketan, esan zidan: igo zaite onera, eta erakutsiko dizkitzut gero gertatu bear dutenak.

**2.** Eta bereala izan nintzan gogoz eramana; eta ona esertoki bat jarri rik zegoan zeruan, eta esertokian eseria.

**3.** Eta eseririk zegoanak iduri zuen diamante nabarra eta gorria; eta ostrellaka bat zegoan esertokiaren inguruan, zuena diamante berdea.

**4.** Eta esertokiaren inguruan ogei ta lau esertoki; eta tronuen gañean ogeitalau zar eseririk, soñeko zuriz inguratutik, eta aien buruetan urrezko koroak.

**5.** Eta tronutik irteten ziran tximistak, eta deadarrak, eta turmoiak; eta zeuden tronuen aurrean zazpi argi pizturik, zeñak diran Jaungoikoren zazpi Espirituak.

**6.** Eta tronuen ikusbegian bideriozko itsaso bat bezala kristalaren idurikoa; eta esertokiaren erdian, eta esertokiaren inguruan lau abere begiz beteak aurretik, eta ostetik.

**7.** Eta lenbiziko aberea leoiaren idurikoa, eta bigarren aberea idiskoren idurikoa, eta irugarren abereak zuen arpegi bat gizonaren irudikoa, eta laugarren abereak iduri zuen egan dijoan arranoa.

**8.** Eta lau abereak bazituzten seina ego, eta inguruan eta barrenen beterik zeuden begiz; eta atsedetik artu gabe gauaz, ez egunaz, esaten zuten: Santua, Santua, Santua, Jauna Jaungoiko guztiala, zeñ zan, eta zeñ da, eta zeñ etorriko da.

**9.** Eta ari ziradela abere aiek gloria, eta ondra, eta bendizioa ematen eseririk zegoanari tronuen gañean, bizi danari gizaldien gizaldietan.

**10.** Auzpez erortzen ziran ogei eta lau zaarrak tronuan eseririk zegoanaren aurrean, eta botatzen zituzten beren koroak tronuen aurrean, ziotela:

**11.** Gai zera gure Jaun Jainkoa artzeko gloria, eta ondra, eta bertutea; zeren zuk egin dituzu gauza guziak, eta zure naiz ziran, eta egiñak izan dira.

## BOSGARREN KAPITULUA

**1.** Eta ikusi nuen tronuan eseririk zegoanaren eskuiko eskuan liburu bat barrendik eta kanpotik eskribaturik, eta zazpi silluz zarraturik.

**2.** Eta ikusi nuen Aingeru errutsu bat, sendo deadar egiten zuela: Nor da gai liburua zabaltzeko, eta silluak askatzeko?



3. Eta iñork ezin zuen, ez zeruan, ez lurrian, ez lurpean, zabaldu liburua, ez berari begiratu.

4. Eta ni negar erioan nengoan, iñor etzalako gai arkitu, zabaltzeko liburua, eta berari begiratzeko.

5. Eta zarretatik batek esan zidan: Ez dezazula egin negarrik; ona garaitu du Judaren leinuko leoiak, Dabiden sustraiak, liburua zabaltzeko eta zazpi silluak kentzeko.

6. Eta ikusi nuen, eta ona tronuaren, eta lau abereen erdian, eta zarren erdian, Bildots bat zutik illa bezala, zeuzkana zazpi adar eta zazpi begi, zeñak dirade Jaungoikoaren zazpi espiritu lur guzira bidalduek.

7. Eta etorri zan, eta artu zuen liburua tronuan eseririk zegoanaren eskuiko eskutik.

8. Eta zabaldu zuenean liburua, lau abereak, eta ogei eta lau zarrak auzpeztu ziran Bildotsaren aurrean, zituztela bakotxak arpak, eta urrezko ontzi batzuk usai onez beteak, oiek dirade santuen erreguak.

9. Eta kantatzen zuten kantatxo berri bat, ziotela: Gai zara, Jauna, liburua artzeko, eta aren silluak askatzeko, zeren illa izan zera, eta erosi gaituzu Jaungoikoarentzat zure odolaz etxadi eta izkuntza, eta erri, eta erreinu guzitik.

10. Eta egin gaituzu gure Jaungoikoaren errege eta apaiz, eta erreinatu-tuko degu lurrian.

11. Eta ikusi nuen, eta aditu nuen Aingeru askoren boza, tronuaren eta abereen eta zarren inguruan; eta ziran millen millak,

12. Deadar andiarekin ziotenak: Gai da illa izan dan Bildotsa artzeko bertutea, eta Jaungoikotasuna, eta jakinturia, eta indarra, eta ondra, eta gloria, eta bendizioa.

13. Eta zeruan eta lurraren gañean, eta lurpean diran guztiak, eta itsasoan, eta artan barrenen diran gauza guztiak aditu nien esaten: Tronuan eseririk dagoanari, eta Bildotsari bendizioa, eta ondra, eta gloria, eta ala gizaldien gizaldietan.

14. Eta lau abereak esaten zuten: Ala izan dedilla. Eta ogei eta lau zarrak auzpez erori ziran, eta adoratu zuten bizi dana gizaldien gizaldietan.

### SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen Bildotsak idiki zuela zazpi silluetatik bat, eta aditu nion lau abereetatik bati, esaten turmoiaeren boza bezelako batekin: Atoz, eta ikusi ezazu.

2. Eta ikusi nuen eta ona zaldi zuri bat, eta aren gañean eseririk zegoanak, zeukan ballesta bat, eta eman zioten koroa bat, eta abiatu zan garaitzalle garaitzeko.

3. Eta idiki zuenean bigarren sillua, aditu nion bigarren abereari, esaten: Atoz, eta ikusi ezazu.

4. Eta irten zan beste zaldi gorritzat bat, eta aren gañean eseririk zegoanari emana izan zaion, pakea lurretik kentzea, eta elkar iltzea, eta eman zioten ezpata andi bat.

5. Eta idiki zuenean irugarren sillua, aditu nion irugarren abereari esaten: Atoz, eta ikusi ezazu. Eta ona zaldi beltz bat, eta aren gañean eseririk zegoanak zeukan balantza bat bere eskuan.

6. Eta aditu nuen boz bat bezela lau abereen artetik, esaten: Bi libra ogi diruan, eta iru libra garagar diruan; eta ardoari eta olioari ez egin kalterik.

7. Eta idiki zuenean laugarren sillua, aditu nuen laugarren aberearen itza, esaten: Atoz, eta ikusi ezazu.

8. Eta ona zaldi zurbil bat, eta aren gañean eseririk zegoanak zuen izena Eriotzea, eta jarraitzen zion infernuak; eta eskua emana izan zaion lurraren lauertzetan, ilteko ezpataz, goseteaz, eta eriotzeaz, eta lurreko pistiak.

9. Eta idiki zuenean bosgarren sillua, ikusi nituen aldarepean Jaungoikoaren itza gatik, eta ekarri zioten lekukotasuna gatik illak izan ziraden animak.

10. Eta deadarrez ari ziraden sendo, ziotela: Noiz artean, Jauna, santua eta egiatia ez dezu juzgatzen, eta bengatzen gure odola lurrian dau-den oietatik?

11. Eta emanak izan zitzaizkaten soñeko zuriak; eta esana izan zitzaizkaten itxedon zezatela oraindikan piska bat, bete artean aien serbitzari lagunen, eta berak bezela illak izan bear dutenen zenbata.

12. Eta ikusi nuen idiki zuenean seigarren sillua; eta ona lurdardara andi bat izan zan, eta eguzkia beltzitu zan zurdazko eun bat bezela; ta illargia guztia odol bezela biurtu zan.

13. Eta izarrak zerutik erori ziran lurrera, piko ondoak utziten dioten bezela bere pikoai aize andi batek mugitzen duenean.

14. Eta zerua bildu zan liburu inguratu bat biribillatzen dan bezela, eta mendi guziak, eta ugarteak beren tokietatik mugitu ziran.

15. Eta lurreko erregeak, eta andiak, eta armadetako agintariak, eta aberatsak, eta sendoak, eta menpeko diran guziak, eta jabeak, gorde ziran arri zuloetan, eta mendietako aitz bitarteetan.



16. Eta esaten diote mendiai, eta aitzai: Erori zaitezte gure gañera, gorde gaitzatzute tronuan eseririk dagoanaren ikusbidetik, eta Bildotsaren aserretik.

17. Zeren eldu da aien aserrearen egun andia: eta nor egon dezake zutik?

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoan ikusi nituen lau aingeru zutik lurraren lau ertzetan lurreko lau aizeak zeuzkatela, ibilli ez zitezten lurrean, ez itsasoan, ez zuaitz batean ere.

2. Eta ikusi nuen beste Aingeru bat igotzen eguzkiaren irteeratik, zeñiak zeukan Jaungoiko biziaren sena; eta sendo deadar egin zioten lau aingeruai, zeñai eskua emanik zegoten lurrari, eta itsasoari kalte egiteko,

3. Ziotela: Ez egin kalterik lurrari, ez itsasoari, ez eta zuaitzai, marka ditzagun artean gure Jaungoikoaren serbitzariak beren kopetetan.

4. Eta aditu nuen markatuen zenbata, eun eta berrogeita lau milla markaturik Israelko semeen etxadi guztik.

5. Judaren etxaditik, amabi milla markatuak; Rubenen etxaditik, amabi milla markatuak; Gaden etxaditik, amabi milla markatuak;

6. Aserren etxaditik, amabi milla markatuak; Neptaliren etxaditik, amabi milla markatuak; Manaseren etxaditik, amabi milla markatuak;

7. Simeonen etxaditik, amabi milla markatuak; Lebien etxaditik, amabi milla markatuak; Isakarren etxaditik, amabi milla markatuak;

8. Zabulonon etxaditik, amabi milla markatuak; Joserren etxaditik, amabi milla markatuak; Benjaminen etxaditik, amabi milla markatuak.

9. Oien ondoren ikusi nuen talde andi bat, iñork kontatu ezin zeza-keana, erreinu, eta etxadi, eta erri, eta izkuntza guzietatik; zutik tronua-aren aurrean, eta Bildotsaren ikusbegian, soñeko zuriz estalirik, eta palmak beren eskuetan.

10. Eta sendo deadar egiten zuten, ziotela: Gur gure Jaungoiko tronuan eseririk dagoanari, eta Bildotsari.

11. Eta Aingeru guziak zeuden zutik tronua-aren, eta zaarren, eta lau abereen inguruan, eta auzpez erori ziran tronua-aren aurrean, eta adoratu zuten Jaungoikoa.

12. Ziotela: Bai; bendizioa, eta argitasuna, eta jakinduria, eta eskerra, eta ondra, eta birtutea, eta indarra gure Jaungoikoari gizaldien gizaldietan; Ala izan bedi.

13. Eta erantzun zidan zaarretatik batek, eta esan zidan: Nor dira soñeko zuriz jantzirik dauden oriek? Eta nondik etorri dira?

14. Eta esan nion: Nere Jauna, zuk dakizu. Eta esan zidan: Oriek dira, etorri diranak naigabe anditik, eta beren soñekoak garbitu dituztenak, eta berak zuritu Bildotsaren odolean.

15. Beragatik daude Jaungoikoaren tronua-aren aurrean, eta serbitzen dute gau ta egun aren elizan; eta tronuan eseririk dagoana, egongo da aien gañean.

16. Ez dute goserik ez egarririk izango; eta ez dituzte joko eguzkiak, ez beste berotasunek,

17. Zeren Bildots, tronua-aren erdian dagoanak, zaituko ditu, eta eramango bizitzako ur iturrietara; eta leortuko ditu Jaungoikoak negar guz- tiak aien begietatik.

### ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta idiki zuenean zazpigarren sillua, ishildu zan zerua, ordu erdi- ren baten.

2. Eta ikusi nituen Jaungoikoaren aurrean dauden zazpi Aingeruak, eta emanak izan zitzaiozkaten zazpi tronpeta.

3. Eta beste Aingeru bat etorri zan, eta gelditu zan aldarearen aurrean; intzentzonario bat zeukala, eta eman zitzaiozkan intzentzo asko, ezarri zitzan santu guztien erregetatik urrezko aldarearen gañean, zeñ dan Jaungoikoaren tronua-aren aurrean.

4. Eta igo zan intzentzoen kea, santuen erreguakin egiña, aingerua- ren eskutik Jaungoikoaren aurrera.

5. Eta artu zuen Aingeruak intzentzonarioa, eta bete zuen aldareko sutik; eta aurtiki zuen lurrera; eta egin zan turmoi ots eta deadar, eta txi- mista, eta lurdardara andia.

6. Eta zazpi aingeru zazpi tronpeta zituztenak, gertutu ziran tronpe- tak jotzeko.

7. Eta lenbiziko Aingeruak jo zuen tronpeta, eta egin zan arri eta su odolarekin nastua, eta ezarriak izan ziran lurrera, eta lurraren irugarren partea erre zan, eta zuaitzen irugarren partea kiskali zan, eta belar berde guzia erre zan.

8. Eta bigarren Aingeruak jo zuen tronpeta, eta mendi andi bat beze- lako bat su-garretan aurtikia izan zan itsasora, eta itsasoaren irugarren partea odol bihurtu zan.

9. Eta ill zan itsasoan bizia zeukan kreatoretatik irugarren partea, eta ontzien irugarren partea, galdu zan.





10. Eta irugarren Aingeruak tronpeta jo zuen; eta erori zan zerutik izar andi bat, su-garretan zuzi bat bezala eta erori zan ibaien irugarren partera, eta iturri uretara.

11. Eta izarraren izena da Asentzioa; eta uren irugarren partea asentzio biurtu zan, eta gizon asko ill zan ur aiekin, kirastu ziralako.

12. Eta laugarren Aingerua tronpeta otsez ari izan zan; eta joa izan zan eguzkiaren irugarren partea, eta illargiaren irugarren partea, eta izarren irugarren partea, ala non illundu zan aien irugarren partea, eta etzuen oien irugarren parteak argirik ematen egunaz, ez eta orobat gauaz.

13. Eta ikusi nuen, eta aditu nuen zeruaren erditik egan zijoan arrano baten boza, zeñak deadar egiten zuen sendo: Zorigaitz, zorigaitz, zorigaitz, lurrean daudenak, beste iru Aingeru, tronpetak jo bear dituztenak gatik.

### BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta bostgarren aingeruak jo zuen tronpeta, eta ikusi nuen izar bat erori zala zerutik lurrera, eta emana izan zitzaion leizeko putzuko giltza.

2. Eta idiki zuen leizeko putzua, eta igo zan putzuko kea, su labe andi batena bezela; eta illundua izan zan eguzkia eta airea putzuko keaz.

3. Eta putzuko keetik irten ziran langostak lurrera; eta emana izan zitzaioten ala, lurreko arrabioak duten bezelako ala.

4. Eta izan zitzaioten, agindua ez zaiotela obenik egin lurreko belarrari, ez berde zan gauzari, ez zuaitz bati ere; baizik bakarrik Jaungoikoaren señalearen beren bekokietan ez duten gizonai.

5. Eta eskua emana izan zaioten, ez ill erazitzeke, baña oñazetzeko bost illa betez eta aien muñak ziran arrabioak gizonari usikitzen dionean bezelako miñak.

6. Eta egun aietan gizonak ibilliko dira eriotzaren ondorik, eta ez dute arkituko, eta naiko dute ill, eta eriotzeak iges egingo diote.

7. Eta langostak bezelako aiek, iduri zuten zamari talde bat gudarako gertua; eta aien buruetan zeuden koroak bezelako batzuek, urrearen idurikoak; eta aien arpegia, gizonen arpegia bezelakoa zan.

8. Eta zituzten illeak emakumeen idurikoak; eta aien ortzak leioen ortzak iduri zituzten.

9. Eta zituzten bularrekoak, burnizko bularrekoen idurikoak, eta aien egoen otsak, iduri zuen arin gudan dijoan zaldi talde baten abarrotsa.

10. Eta zituzten buztanak arrabioen idurikoak; eta eztenak zeuden aien buztanetan, eta aien ala gizonai kalte egiteko bost illabetez, eta zuten beren gañean.

11. Erregetzat leize andiko Aingerua zeñen izena da Hebreoz Abaddon, grieguz berriz Apolhon, latinez da Exterminans.

12. Zorigaitz bat igaro da, eta ona non datozten oraindik bi zorigaitz aien ondorik.

13. Eta seigarren aingeruak jo zuen tronpeta, eta aditu nuen boz bat, Jaungoikoaren begien aurrean dagoan urrezko aldarearen lau adarretatik,

14. Esaten seigarren aingeru tronpetadunari: Solta itzak Eufratesko ibai andian loturik dauden lau aingeruak.

15. Eta soltatuak izan ziran lau aingeruak, zeñak zeuden gertuturik ordurako, eta egunerako, eta illerako, eta urterako, gizonen irugarren parte ill zezaten.

16. Eta zaldizko armadaren saldoa ogei millatan amar milla eta aditu nuen aien zenbata.

17. Eta onela ikusi nituen zamariak ikusaldian; eta aien gañean eseririk zeudenak, zituzten suzko, eta jazintozko, eta sufrezko bularrekoak; eta zamarien buruak ziran, leioen buruak bezelakoak, eta aien aotik irteten zan sua, eta kea, eta sufrea.

18. Eta ill zan gizonen irugarren partea iru izurri oiekin, aien aotik irteten ziran su, eta ke, eta sufrea,

19. Zeren zamarien ala aien aoan da, eta aien buztanetan; zeren aien buztanak sugeen idurikoak dira, badituzte buruak eta aiekin kalte egiten dute.

20. Eta izurri oiez illak izan ez ziran beste gizonak, etzuten artu bere eskuen egiteen damurik, eta etzioten utzi, deabruak, eta urrezko, eta zillarrrezko, eta metalezko, eta arrizko, eta zurezko iduripenak adoratzeari, zeñek ezin dezaketen ez ikusi, ez aditu, eta ezin ditzaken ibilli.

21. Eta etzuen egin beren gizon ilteen ez ..., ez beren lizunkerien, eta beren lapurreten penitentziarik.

### AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen beste Aingeru sendo bat zerutik jatxitzen odeiez inguratuturik, eta ostrellaka bat buruaren gañean; eta aren arpegia zan eguzkia bezela, eta aren oñak suzko abe batzuk bezela.

2. Eta bazuen eskuan liburutxo bat zabaldurik; eta jarri zuen eskui-ko oña itsasoaren gañean, ezkerre berriz lurraren gañean.

3. Eta deadar egin zuen sendo, leoiak egiten duen orroia bezala. Eta deadar egin zuenean, zazpi turmonotsak bere itzakinerantz zuten.



4. Eta erantzun zutenean zazpi turmonotsak bere itzakini, ni eskribatzerara nijoan; eta aditu nuen boz bat zerutik niri esaten: Markatu itzatzu zazpi turmonotsak erantzunak, eta ez ditzatzula berak eskribatu.

5. Eta aingeru, itsasoaren, eta lurraren gañean zutik ikusi nuenak, altxatu zuen bere eskua zerurontz;

6. Eta juramentu egin zuen gizaldien gizaldietan bizi zana gatik, zerua eta artan daudenak, eta lurra eta artan daudenak, eta itsasoa eta artan daudenak kreatu zituena gatik, denborarik ez dala izango geiago,

7. Baizik zazpigarren aingeruaren itzaren egunetan, tronpeta asi ditenean erantzuten, kunplituko dala Jaungoikoaren misterioa, ezagutu erazi duen bezela bere serbitzari profeten bitartez.

8. Eta aditu nuen boz bat zerutik, berriz neri itz egiten, eta esaten: Zoaz, eta ar ezazu liburu zabaldua, itsasoaren gañean, eta lurraren gañean zutik dagoan aingeruaren eskutik.

9. Eta joan nintzan aingerua gana, eta esan nion, eman zadala liburua. Eta esan zidan: Ar ezazu liburua, eta iretsi ezazu, eta garrazteraziko dio zure sabelari, baña zure aoan gozo izango dezue ezta bezela.

10. Eta artu nuen liburua aingeruaren eskutik, eta iretsi nuen; eta nere aoan gozoa zan ezta bezala.

11. Eta esan zidan: Bear diezu oraindikan profetizatu erreinuai, eta erriai, eta izkuntza askori, eta errege askori.

### AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta emana izan zitzadan kañabera bat, zigor baten idurikoa, eta esana izan zitzadan: Jaiki zaitte, eta neurtu ezazu Jaungoikoaren tenploa, eta aldea, eta an adoratzen ari diranak.

2. Ataria berriz, tenplotik kanpora dagoena, bego kanpoan, eta ez dezazula hura neurtu; zeren utzia zate jendillai, eta erri santua zapalduko dute berrogei ta bi illa betean;

3. Eta emango diet nere bi lekukoai, eta profetizatuko dute milla berreun eta irurogei egunean zakuz jantzirik.

4. Oiek dirade bi olibo, eta bi kandelero, lurreko Jaunaren aurrean daudenak.

5. Eta norbaitek gaizkirik egin nai badiote, su bat irtengo da aien aotik, eta iretsiko ditu aien etsaiak; eta norbaitek min eman nai badiote, onela ark illa bear du.

6. Oiek badute eskua zerua zarratzeko, egin ez dezan euririk oien profetizatze egunetan; eta eskua dute uren gañean, oiek odol biurtzeko, eta lurra jotzeko nai dituen izurritz, nai duten guzian.

7. Eta bukatzen dutenean beren lekukotasuna, leize anditik igotzen dan pistia gudan ariko da oien kontra, eta garaituko ditu, eta ilko ditu.

8. Eta aien gorputzak etzanik egongo dirade, Sodoma eta Ejipto iduripenez deitzen zaion erri andiko plazetan, non aien Jauna ere izan zan gurutziltzatua.

9. Eta asko etxadi, eta erri, eta izkuntza, eta erreinetakok ikusiko dituzte aien gorputzak iru egun eta erdian, eta ez dute utziko aien gorputzak obietan ezarten.

10. Eta lurrean bizi diradenak poztuko dira aien eriotzeaz, eta jostatuko dirade, eta elkarri emaitzak bidalduko dizkiete, zeren bi profeta aiek oñazkatu zituzten lurrean bizi ziradenak.

11. Eta iru egun, eta erdien ondoan, bizitzako espiritua Jaungoikoak sartu zuen aietan; eta zutitu ziran beren oñen gañean, eta beldur andi batez bete zituen aien ikusmenak.

12. Eta aditu zuten boz andi bat zerutik, aiei esaten ziotena: igo zaitzte onera. Eta igo ziran zerura odoi batean; eta ikusi zituzten aien etsaiak.

13. Eta ordu artan egin zan lurdardara andi bat, eta erriaren amargarren partea erori zan; eta ill ziran lurdardaran zazpi milla gizon; eta bes-teak beldurturik egon ziran, eta gloria eman zioten zeruko Jaungoikoari.

14. Bigarren zorigailta irago da; eta ona irugarren zorigailta laister etorriko dana.

15. Eta zazpigarren aingeruak jo zuen tronpeta, eta boz andiak erantzun zuten zeruan, eta zioten: Mundu onetako nagusitasuna gure Jaunaren eta aren Kristorentzakotu da; eta errege izango dirade gizaldien gizaldietan. Ala izan dedilla.

16. Eta ogei ta lau zarrak, Jaungoikoaren aurrean beren esertokietan jarririk daudenak, erori ziran auzpez, eta adoratu zuten Jaungoikoa, ziotela:

17. Eskerrak dizkitzugu, Jaun Jainko guztiala, zerana, eta ziñana, eta etorriko zerana, artu dezulako zure indar andia, eta erregetu zeralako.

18. Aserretu dira erreinuak, baña zure aserrealdia eldu da, eta denbora illak juzgatzeko, eta saria emateko zure serbitzari profetai, eta santuai, eta zure izenaren beldur diranai, txikiak eta andiak; eta lurra zikindu dutenak arrotzutzeko.

19. Eta zabaldu zan Jaungoikoaren tenploa zeruan, eta ikusi zan aien elkartasuneko utxa, eta egin zan tximista, eta deadar, eta lurdardara, eta txingor andia.



## AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusgarri andi bat agertu zan zeruan; emakume bat eguzkia zinguraturik, eta aren oinpetan illargia, eta aren buruan amabi izarrezko koroa bat;

2. Eta izarra egonik, deadarrez ari zan aurmiñetan, eta oñazkatzen zan erditzeko.

3. Eta ikusi zan beste ikusgarri bat zeruan; eta ona suge andi origorri bat, zeñak zituen zazpi buru, eta amar adar; eta aren buruetan zazpi koroa.

4. Eta aren buztanak zeraman zeruko izarren irugarren partea, eta aurtiki zituen lurrera; eta sugea gelditu zan aurmiñetan zegoan emakumearen aurrean, erditzen zuenean, aren semea iretsiteko.

5. Eta erdi zuen aur bat semea, zeñak zuzenduko ditu erreinu guztiak burnizko zigorrarekin; eta eramana izan zan aren semea Jaungoikoa gana, eta aren tronura.

6. Eta emakumeak iges egin zuen eremura, non zuen toki bat Jaungoikoak prestatuak, an bazkatua izateko milla berreun eta irurogei egunean.

7. Eta izan zan guda andi bat zeruan: Migel eta aren aingeruak gudan ari ziran sugearen kontra, eta sugea gudan ari zan, eta aren Aingeruak ere.

8. Eta etzuten garaitu, eta etzan arkitu aren tokirik berriz zeruan.

9. Eta aurtikia izan zan suge andi hura, suge zarra, Deabrua, eta Satanas deitzen zaiona, mundu guztia engañatzen duena; eta aurtikia izan zan lurrera, eta aren aingeruak arekin aurtikiak izan ziran.

10. Eta aditu nuen boz andi bat zeruan, esaten zuela: Orain bete da salbazioa, eta indarra, eta gure Jaungoikoaren erregetzea eta aren Kristoren ala, aurtikia izan dalako gure anaien salatzallea, zeñak salatzen zituen gure Jaungoikoaren aurrean gau eta egun.

11. Eta oiek garaitu dute hura, Bildotsaren odolaz, eta bere lekukotasunaren itiaz, eta ez dituzte beren biziak maitatu eriotzeari iges egiteraño.

12. Bera gatik poztu zaitezte zeruak, eta an daudenak. Zorigaiztokoak lurra, eta itsasoa zeñetara jatxi den deabrua aserre andiarekin, jakiñik denbora gutxi duela.

13. Ikusirik sugeak aurtikia izan zala lurrera; esetsi zion semea erdi zuen emakumeari.

14. Eta emanak izan zitzaizkion emakumeari arrano andi baten bi ego, egan zezan eremura bere tokira, non dan denbora baten eta denboran, eta denbora erdi baten sugearen ikusbidetik.

15. Eta aurtiki zuen sugeak bere aotik emakumearen ondoan, ur ugolde bat bezela, ugoldeak bera eraman erazitzeke,

16. Eta laguntasuna egin zion lurak emakumeari, eta zabaldu zuen lurak bere aoa, eta iretsi zuen sugeak bere aotik aurtikitako ugoldea.

17. Eta aserretu zan sugea emakumearen kontra, eta joan zan guda-tzera, aren odoleko besteen kontra, zeñak gordetzen dituzten Jaungoikoren aginteak, eta duten Jesukristoren lekukotasuna.

18. Eta gelditu zan itsasoko ondarrean.

## AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen pistia bat itsasotik igotzen, zazpi buru zeuzkana, eta amar adar, eta amar adarren gañean amar koroa, eta aren buruen gañean blasfemiako izenak.

2. Eta ikusi nuen pistiak iduri zuen leoearra, eta aren oñak artzaren erpeak bezelakoak ziran, eta aren aoa leoearen aoa bezelakoa. Eta sugeak eman zion bere indarra, eta al andia.

3. Eta ikusi nuen aren buruetatik bat jorik, zirudiala iltzera zijoala; eta aren eriozko zauria sendatu zan; eta lur guztia mirariturik jarri zan pistiaren ondoren.

4. Eta adoratu zuten sugea, zeñak eman zion ala pistiari; eta adoratu zuten pistia, ziotela: Nor pistiaren idurikoa? Eta nork gudatu dezake arekin?

5. Eta emana izan zaion ao bat, arrokeriak eta blasfemiak egiten zituena; eta emana izan zaion gaizki egiteko ala berrogei eta bi illabetez.

6. Eta idiki zuen aoa Jaungoikoa gatik blasfemiatzeko, eta aren izena gatik, eta aren egontokia gatik, eta zeruan daudenak gatik blasfemiatzeko.

7. Eta emana izan zitzaion santuai gerra egitea, eta aiek garaitzea; eta eskua izan zuen etxadi, eta erri, eta izkuntza, eta erreinu guzien gañean.

8. Eta adoratu zuten lurrean zeuden guziak, zeñen izenak ez dauden eskribatuak, munduaren asieratik illa izan dan Bildotsaren bizitzako liburuan.

9. Iñork baldin badu belarririk aditu beza.

10. Besterik katiberiara daramana, bera katiberiora joango da; ezpataz iltzalleak, bear du izan ezpataz illa. Or da santuen iragopena eta fedea.

11. Eta ikusi nuen beste pistia bat lurretik igotzen, eta zeuzkan bi adar Bildotsaren idurikoak, eta itz egiten zuen sugeak bezela.

12. Eta lenbiziko pistiaren al guzia egiten zuen aren aurrean; eta lurrari eta artan zeudenai, adoraerazi zioten lenbiziko pistia, zeñaren eriozko zauria sendatua izan zan.

13. Eta egin zituen gauza izigarri andiak, suari jatxi erazitzeño zerutik lurrera gizonen aurrean.



14. Eta engaiaitu zituen lurrean zeudenak pistiaren aurrean eman izan zitzaion gauza izigarriak egiñaz, esanik lurrean bizi ziradenai, egin dezatela, ezpataren zauria izanik bizi dan pistiaren iduri bat.

15. Eta ala izan zuen, bizia emateko pistiaren iduriari, eta pistiaren iduriari itz erazitzeko, eta egiteko pistiaren irudia adoratzan etzuten guziak, illak izan ditezatela.

16. Eta guziaz, andiai eta txikiak, eta aberatsai, eta beartsuak, nagusiaz eta menpekoak artu eraziko diote señaletan beren eskuiko eskuan, edo beren kopetetan.

17. Eta egingo du iñork erosi edo saldu ez dezakeala ez baldin badu pistiaren señaletan, edo izena, edo aren izenaren zenbata.

18. Emen da jakituria; duenak adimena konta beza pistiaren zenbata, zeren gizon baten zenbata da; eta aren zenbata seireun eta irurogei eta sei.

### AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen; eta ona Bildotsa zegoan zutik Siongo mendiaren gañean, eta arekin eun eta berrogeita lau milla, aren izena, eta aren Aitare izena ekarten zutenak beren kopetetan eskribaturik.

2. Eta aditu nuen boz bat zerutik, ur andien bozaren idurikoa, eta turmoe ots andi baten otsaren idurikoa; eta aditu nuen otsa zan, arpalarik arpan ari diranean bezelakoa.

3. Eta kantatzen zuten kanta berri bat bezela esertokiaren aurrean, eta lau abereen, eta zarren aurrean; eta iñork etzezakean esan kantatxoa eun eta berrogeita lau milla lurretik erosiak izan ziran aiek baizik.

4. Oiek dirade emakumeekin zikindu etziranak, zeren birjiñak dira; oiek Bildotsari jarraitzen diote noranai joan dedilla; oiek erosiak izan dira gizonetatik lenenak Jaungoikoarentzako eta Bildotsarentzako,

5. Eta aien aoan ez da arkitu gezurrik; ala norbanik gabe daude Jaungoikoaren tronuaren aurrean.

6. Eta ikusi nuen beste Aingeru bat zeruaren erdiaren gañetik egan, Ebanjelio betikoa zeukala, irakasteko lurrean zeudenai, erreinu, eta gizataltale eta izkuntza, eta erri guztiai.

7. Esaten zuela deadar andiarekin: Jaunaren beldur izan zaitezte, eta eman zaiozute onra, zeren badator aren juizioko ordua; eta adora ezazute, zerua eta lurra, eta itsasoa eta iturri urak egin dituenak.

8. Eta beste aingeru bat ondoren atera zan, esaten zuela: Erori da, erori da Babilonia andi hura, zeñak bere lizunkeriako kolerako ardoa edan erazi diote erreinu guziaz.

9. Eta irugarren aingeru bat agertu zan aien ondoren esaten zuela deadar andiarekin: iñork adoratu badu pistia, eta aren iduria, eta señaletan artu bere bekokian, edo bere eskuan,

10. Arek ere edango du Jaungoikoaren aserreko ardotik, aren aserreko ontzian, garbiarekin nastua izan danetik, eta izango da tormentatua suaz eta sufrez aingeru santuen aurrean, eta Bildotsaren aurrean.

11. Eta aien gaitzmiñen kea igoko da gizaldien gizaldietan; eta ez dute atsedenik gau ez egun, pistia, eta aren iduria adoratu zutenak, eta aren ize-naren señaletan artu dutenak.

12. Emen dago Jaungoikoaren aginduak eta Jesusen fedea gordetzen dituzten santuen iragopena.

13. Eta aditu nuen boz bat zerutik niri esaten: Eskribatu ezazu: Doatsuak illak Jaunagan ilten diranak. Oraindanik, dio Espirituak, atseden dezatela beren nekeetatik, zeren beren obrak jarraitzen diezte.

14. Eta ikusi nuen, eta ona odoi zuri bat, eta odoiaren gañean eseririk gizonaren semearen iduriko bat, zeñak zuen urrezko korroa bat buruan, eta eskuan igitai zorrotz bat.

15. Eta beste Aingeru bat atera zan tenplotik, deadarrez goian odoiaren gañean eseririk zegoanari: iraitzi ezazu zure igitaiak, eta ebaki ezazu, zeren etorria da ebakitzeko ordua, zoritu diralako lurreko ustak.

16. Eta iraitzi zuen odoiaren gañean eseririk zegoanak bere igitaiak lurrera, eta ebakia izan zan lurra.

17. Eta beste aingeru bat atera zan zeruan dagoan tenplotik, zuela arek ere igitai zorrotz bat.

18. Eta beste aingeru bat atera zan aldaretik, arek eskua zuen suaren gañean, eta deadar egin zion sendo igitai zorrotza zeukanari, esaten ziola: Erabili ezazu zure igitai zorrotza, eta mendaindu itzatzu lurreko mastiko mordoak, zeren zorituak daude ango matsak.

19. Eta sartu zuen aingeruak bere igitai zorrotza lurrean, eta bildu zituen lurreko matsak, eta aurtiki zituen Jaungoikoaren aserreko ainzira andian;

20. Eta zapaldua izan zan ainzira erritik kanpoan, eta irten zan odola ainziratik zaldien bridetaraño milla eta seireun estaduren bidartean.

### AMABOS GARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen beste señaletan andi eta izigarri bat zeruan; zazpi aingeru azken zazpi izurriak zeuzkatena; aietan bukatzen da Jaungoikoaren aserrea.



2. Eta ikusi nuen bidriozko itsaso bat bezelakoa suarekin nastua, eta pistiaren eta aren iduriaren, eta aren izenaren zenbataren garaitzalleak zeudela itsasoaren gañean Jaungoikoaren arpakin.

3. Eta kantatzen zuten Moisesen Jaungoikoaren serbitzariaren kantatxoa, eta Bildotsaren kantatxoa, esaten zutela: Andiak eta miragarriak dira zure obrak Jaun Jaungoiko guziala; zuzenak eta egiazkoak dira zure bideak, gizaldien Erregea.

4. Nor ez da zure beldur izango, Jauna, eta nork ez du goratuko zure izena? Zeren zu bakarrik zera biotzbera; erreinu guziak etorriko dirade, eta makurtuko dirade zure aurrean, agertu diralako zure juizioak.

5. Eta gero ikusi nuen, eta ona non idiki zan zeruan lekukotasuneko bizitokiko tenplua;

6. Eta irten ziran tenplutik zazpi izurriak zeuzkaten aingeruak, liño-zko soñeko garbi eta zuriz jantzirik, eta urrezko gerrikoz bularrak loturik.

7. Eta lau abereetatik batek eman zizkioten zazpi aingeruai, zazpi urrezko ontzi, Jaungoikoaren gizaldien gizaldietan bizi danaren aserrez beteak.

8. Eta tenplua kez bete zan Jaungoikoaren anditasunetik, eta aren bertutez, eta iñor ezin zatekean sartu tenploan zazpi Aingeruen zazpi izurriak igaro artean.

### AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta aditu nuen boz andi bat tenplotik, esaten zazpi Aingeruai: Zoazte, eta isuri itzatzute Jaungoikoaren aserrearen zazpi ontziak lurrera.

2. Eta joan zan lenbizikoa, eta isuri zuen bere ontzia lurrera, eta egin zioten zauri andi eta ezin gaiztoago bat, pistiaren señaleara zuten gizonai eta aren iduria adoratu zutenai.

3. Eta bigarren Aingeruak isuri zuen bere ontzia itsasoan, eta jarri zan ill baten odola bezela, eta bizi ziran guztiak ill ziran itsasoan.

4. Eta irugarrenak isuri zuen bere ontzia ibaietara eta iturrietara, eta odol biurtu ziran.

5. Eta aditu nion uretako aingeruari esaten: Zuzena zara, Jauna, zera-na eta ziñana; Santua, erabagi oiek eman dituzuna.

6. Isuri zutelako santuen eta profeten odola, eman diezu odola edaten, zeren diñak dirade.

7. Eta aditu nion beste bati aldaretik esaten: Bai, Jaun Jainko guziala, egiazkoak dira eta zuzenak zure erabakiak.

8. Eta laugarren aingeruak isuri zuen bere ontzia eguzkiaren gañean, eta emana izan zitzaion gizonak beroaz tormentatzea, eta suaz.

9. Eta kiskali ziran gizonak beroaren anditasunaz, eta blasfematu zuten Jaungoikoa, izurri oiek bialtzeko eskua duena, eta etziran damuan sartu ari gloria emateko.

10. Eta bosgarren aingeruak isuri zuen bere ontzia pistiaren eseritokian, eta aren erreinua illundu zan, eta jan zituzten beren mingañak miñez.

11. Eta blasfematu zuten zeruko Jaungoikoa, beren miñ eta zaurien artean, eta etziran damutu beren egiteaz.

12. Eta seigarren aingeruak isuri zuen bere ontzia Eufratesko ibai andi artara, eta agorrerazi zuen aren ura, bidea egiteko eguzkiaren irteerako erregeai.

13. Eta ikusi nituen, sugearen aotik, eta pistiaren aotik, eta profeta falsoaren aotik iru espiritu zikin irtetzen igelen idurian.

14. Zeren berak dirade demonioen espirituak, gauza izugarrien egilleak, eta dijoaz lur guztiko erregeetara, aiek gudarako biltzera, Jaungoiko guzialaren egun andirako.

15. Ona non natorren lapurra bezela. Zorionekoa iratzarrik dagoana, eta soñekoak gordetzen dituena, billusik ibilli ez dedin, eta ikusi ez dezaten aren ezaintasuna.

16. Eta bilduko ditu hebreoz Armagedon deitzen zaion tokian

17. Eta zazpigarren Aingeruak isuri zuen bere ontzia airean, eta erantzun zuen hitz andi batek tenplutik tronuko aldetik zionak: Egin da.

18. Eta egin ziran tximistak, eta deadarrak, eta turmoiak; eta lur dardara bat izan zan, egun daño gizonak lurraren gañean diran ezker, izan ez dana alako lur dardara andirik.

19. Eta erri andia egin zan iru zatitan; eta erreinuetako erriak erori ziran, eta Babilonia andia gogoan jarri zaion Jaungoikoari, ari edaten emateko bere aserre sumiñeko ardoaren edanontzia.

20. Eta ugarte guziak iges zuen, eta mendiak etziran arkitu.

21. Eta txingor andi bat kintaleko talentua bezelakoa erori zan zerutik gizonetara: eta blasfematu zuten Jaungoikoa gatik gizonak arrizko izurria gatik, zeren zan andi ta izigarria.

### AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta etorri zan zazpi ontziak zeuzkan zazpi Aingeruetatik bat, eta itz egin zidan, esaten zidala: Atoz, erakutsiko dizut ur andien gañean eseririk dagoan bordion andiaren kondenezioa,

2. Zeñarekin nastu diran lurreko erregeak, eta orditu dira lurrean bizi diranak aren lizunkeriako ardoaz.



3. Eta eraman ninduen gogor eremu batera, eta ikusi nuen emakume bat eseririk pistia gorri baten gañean, zeñ zegoan blasfemiatzko izenez beterik eta zeñak zituen zazpi buru eta amar adar.

4. Eta emakumea inguratua zegoan purpuraz, eta eskarlataz, eta urrez, eta arri baliotzuz, eta perlaz apaindurik, eta zeukan bere eskuan edanontzi bat, itxuskeriaz eta bere lizunkeriazko naskaz betea;

5. Eta aren kopetan izen bat eskribatua: Misterioa; Babilonia andia, lizunkerien eta lurreko itxuskerien ama.

6. Eta ikusi nuen emakumea orditurik santuen odolaz, eta Jesusen martirren odolaz; eta aren ikustearekin txit izitu nintzan.

7. Eta esan zidan aingeruak: Zergatik miraritzen zera? Nik esango dizut emakumearen egia estalia, eta hura daraman pistia zazpi buru eta amar adar dituenarena.

8. Ikusi dezun pistia, izan da, eta ez da, eta igoko da leizetik eta iltera joango da; eta izituko dira lurrean bizi diradenak, zeñen izenak ez dau den eskribatuak bizitzako liburuan munduaren asieratik, ikusiaz pistia bazala eta orain ez dala.

9. Eta au da esaera, zeñetan bada jakituria; zazpi buruak dira zazpi mendiak, zeñen gañean eseririk dagoan emakumea; baita ere zazpi errege dira.

10. Bost erori dira, bat badago, beste bat ez da oraindik etorri; eta etorri dedinian, bear du arek gutxi egon.

11. Eta pistia zana, eta ez dana, bera da zortzi garrena; eta zazpietatikoa da, eta iltzera dijoa.

12. Eta ikusi dituzun amar adarrak, amar errege dira, zeñek erreinurik ez dute oraindikan izan, baña eskua errege bezela ordu batez izango dute pistiaren ondoren.

13. Oiek asmo bat dute, eta beren indar eta ala emango diote pistiari;

14. Oiek Bildotsarekin gudaduko dira, Bildotsak goituko ditu, zeren Jaunen Jauna da, eta erregeen Erregea, eta arekin diranak, deituak, autuak, eta leialak.

15. Eta esan zidan: Or, ikusi dituzunak, non bordiona eseria dagoan, erriak dira, eta erreinuak, eta izkuntzak.

16. Eta pistiari ikusi diozkazun amar adar, aiek gorrotatuko dute lizuna, orobat eta soilla jarriko dute; aren aragiak jango dituzte, eta bera sutan erreko.

17. Zeren Jaungoikoak ezarri diote biotzean, egin dezatela arek nai duena, eman dizaioten beren erreinua pistiari, bete ditezten bitartean Jaungoikoaren esanak.

18. Eta ikusi dezun emakumea da erri andia, zeñak duen agintea lurreko erregeen ganean.

### EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gero ikusi nuen beste Aingeru bat al andia zuena jatxitzen zerutik, eta lurra argitua izan zan aren gloriak.

2. Eta deadar egin zuen sendo, esaten zuela: Erori da, erori da Babilonia andia, eta egin da deabruen tokia, eta espiritu loi guztien igesleku, eta egazti zikin ta nazkagarri guztien aterbea.

3. Zeren aren aserreko zikinkeriararen ardaotik edan zuten erri guziak, eta lurreko erregeak arekin nastu ziran, eta lurreko merkatariaak aberastu ziran aien gozamen geiegiaren kostoz.

4. Eta aditu nuen beste boz bat, esaten: Atera zaitetz ortik, nere erria, etzaiten izan oien gaiztakerietan partill, eta ez dezazun artu aren izurrietatik,

5. Zeren eldu dira orren bekatuak zeruraño, eta oroitu da Jaungoikoa aien gaiztakeriaz.

6. Itzuli zaiozute eman dizuten bezela, eta eman zaiozute bitan aren egiten araura; eskeñi dizuten edanontzian, edanerazi zaiozute bitan.

7. Zeren zenbat goratu dan eta gozatu, anbat gaitz eta negarbide eman zaiozute, zeren esan du bere biotzean: Eseririk nago erregeña, eta ez naiz alarguna, eta ez det ikusiko negarbiderik.

8. Beragatik egun batean etorriko dirade aren gaitzak, eriotzea eta negarrak, eta gosetea, eta suan erreko da, zeren errutsua da bera juzgatuko duen Jaungoikoa.

9. Eta negar egingo dute, eta adiaka ariko dira bera gatik, arekin nastu eta zikinkerietan bizi izan diran lurreko erregeak ikusten dutenean aren erretzearen kea.

10. Eta urrutian daudela aren oñazen beldurrez, esango dute: Zorigaiztokoa! Zorigaiztokoa! Babilonia erri andi hura, erri sendo hura; ona non ordu baten barrenen etorri da bere galdupena.

11. Eta lurreko merkatariaak negar egingo dute, eta auben aren gañean, zeren aien salgaiak iñork ez ditu erosiko geiago.

12. Urrezko, eta zillarrezko, eta arri baliotzuzko, eta perlazko, eta liño meezko, eta purpurazko eta sedazko, eta eskarlatazko salgaiak, eta lurriñ onezko zur guziak, eta marfillezko ontzi guziak, eta arri baliotzuzko, eta brontzezko, eta burnizko, eta marmolezko kaiku guziak,





13. Eta zinamomoa, eta lurriñ onak, eta okenduak, eta intzentzoa, eta ardoa, eta olioia, eta irin lorea, eta ogi azia, eta zaldiak, eta ardiak, eta zamariak, eta karroak, eta esklaboak, eta gizonen animak.

14. Eta ire animaren gozoko frutak joan dituk igandik; eta gauza gizen eta ederrak galdu zazkik, eta ez dituk berak geiago arkituko.

15. Oien merkataria aberastuak, beragandik urrutian egongo dira, aren gaitz minen beldurrez, negarrez eta aubenez,

16. Esaten dutela: Ai! Ai! erri andi huraren doakabea, zeñetan aberastu diran itsasoan ontziak zeuzkaten guziak, aren ondasunetatik.

20. Bozkariotan jarri zaitezte zerua, eta Apostolu santuak eta Profetak, zeren

21. Eta aingeru sendo batek altxatu zuen arri bat, errotarri andi bat bezelakoa, eta aurtiki zuen itsasora, esaten zuela: Onelako bultzakadarekin botatua izango da Babiloniako erri andia, eta ez da geiago arkituko.

22. Eta arparien eta kantarien, eta txillibitarien eta tronpetarien boza ez da adituko igan geiago; eta ikaslazko ofizioako langillerik ez da igan arkituko geiago; eta errotarriaren otsik ez da geiago adituko igan;

23. Eta kandelaren argiak ez dik igan argi egingo geiago; eta senar emasteen itzik ez da adituko geiago igan, zeren ire merkataria zituen lurreko andizkiak, zeren ire sorginkeriakin engañatuak izan dira erri guztiak.

24. Eta beragan arkituko da profeten eta santuen odola, eta lurrean illak izan diraden guziena.

### EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoan aditu nuen talde andi baten boza bezelako bat zeruan, esaten zuena: Alleluia; adorazioa, eta gloria eta indarra gure Jaungoikoarentzat dira,

2. Zeren egiazkoak dira, eta zuzenak aren juizioak, zeren juzgatu du bordion andia bere zikinkerian lurra usteldu duena, eta bengatu du aren eskuetatik bere serbitzarien odola.

3. Eta berriz esan zuten: Alleluia. Eta aren kea igotzen da gizaldien gizaldietan.

4. Eta lurreratu ziran ogei eta lau zarrak, eta lau abereak, eta adoratu zuten tronuan eseririk dagoan Jaungoikoa, esaten zutela: Amen, Alleluia.

5. Eta boz bat atera zan tronutik, esaten zuena: Goratu ezazute gure Jaungoikoa, aren serbitzari guztiak, eta aren beldur zeratenak txikiak eta andiak.

6. Eta aditu nuen talde andi baten boza bezelako bat, ur andien otsa iduri zuena, eta turmoi andien orroa bezelakoa, esaten zuena: Alleluia erreinatu du gure Jaun Jainko Guztialak.

7. Poz gaitezen, eta bozkariotu, eta eman dizaiogun gloria, zeren eldu dira Bildotsaren eztaiak, eta aren ezkongai gertutua da.

8. Eta emana izan zitzaion, jantzia izatea liño me, distiatzalle ta zuriaz, zeren liño meezko jantzia santuen egite zuzenak dira.

9. Eta esan zidan: Eskribatu ezazu: Doatsuak Bildotsaren eztaietako afarira deituak diranak. Eta esan zitzadan: Jaungoikoaren itz oiek egiazkoak dira.

10. Eta erori nintzan aren oñetara, bera adoratzeko. Eta esan zidan: Begira ez dezazula egin; zure serbitzari laguna naiz, eta Jesusen lekukotasuna dute zure anaia. Jaungoikoa adora ezazu, zeren Jesusen lekukotasuna da profeziatzko espiritua.

11. Eta ikusi nuen zerua idirik, eta ona zaldi zuri bat, eta aren gañean eseririk zegoanari deitzen zitzaion Leiala eta Egatia, eta zuzentasunarekin juzgaten du eta gudatzen da.

12. Aren begiak berriz ziran su garraren idurikoak, eta buruan zituen koroa asko, eta zuen izen bat eskribaturik, iñork ez dakiana berak baizik.

13. Eta jantzirik zegoan soñeko odol txipristindu batekin, eta aren izena deitzen da, Jaungoikoaren Berboa.

14. Eta zeruan diran ejerzituak, jarraitzen zioten zaldi zurietan, liño meezko soñeko zuriz, eta garbiz jantzirik.

15. Eta aren aotik ateratzen zan ezpata bat, bi aldetatik zorrotzuz arekin erriak jotzeko. Eta berak zuzenduko ditu burnizko zigorrarekin; eta Jaungoiko guzialaren aserre sumiñeko dolarea berak zapaltzen du.

16. Eta du eskribaturik bere soñekoan, eta bere isterrean: Erregeen Erregea, eta jaunen Jauna.

17. Eta ikusi nuen beste aingeru bat eguzkian zutik, eta deadar egin zuen sendo, esaten ziotela zeruaren erdiaren gañean egan zebiltzen egazti guziaz: Atozte, eta bildu zaitezte Jaungoikoaren afari andira,

18. Jan ditzatzuten erregeen aragiak, eta gudaritegiatiko agintarien aragiak, eta sendoen aragiak, eta zaldien eta oietan eseririk daudenen aragiak, eta nagusien eta mendekoen, eta txikien eta andien aragiak.

19. Eta ikusi nituen pistia eta lurreko erregeak, eta aien soldautegiak bildurik, gudan aritzeko zaldian eseririk zegoanarekin, eta aren soldautegiarekin.

20. Eta arrapatua izan zan pistia, eta arekin gezurrezko profeta, aren aurrean gauza izigarrien egillea, zeñakin engañatu zituen pistiaren marka-



ren artzalleak, eta aren iduriaren adoratzalleak. Bizirik botatuak izan ziran bi oiek, sufrez irazekirik dagoan suzko oshinera.

21. Eta besteak illak izan ziran, zaldian eseririk zegoanaren aotik ateratzen zan ezpataz, eta egazti guziak ase ziran aien aragiaz.

### OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen Aingeru bat jatxitzen zerutik, zeñak zeukan leizeko giltza, eta kate andi bat bere eskuan.

2. Eta atzeman zuen sugena, suge zarra, zeñ dan deabrua eta Satanas, eta lotu zuen milla urterako.

3. Eta sartu zuen leizean, eta itxi zuen, eta sillutu zuen aren gañea, ez litzan geiago erreinuan engañatu milla urte bete artean, eta gero soltatua bear du denbora apur baterako.

4. Eta ikusi nituen esertokiak, eta eseri ziran aien gañean, eta emana izan zaioten juzgatzeko eskua, eta Jesusen lekukotasuna gatik buru moiztuak izan ziraden animak, zeñak etzuten pistia adoratu, ez eta aren iduria, ez artu aren señalea beren bekokietan, edo eskuetan, eta bizi izan ziran, eta erreinatu zuten Jesukristorekin milla urtez.

5. Beste illak ez dira bizitu milla urteak bete artean. Ori da lenbiziko piztuera berria.

6. Doatsua, eta santua, partill dana lenbiziko piztuera berrian. Aietan bigarren eriotzak ez du eskurik, baizik Jesukristoren apaiz dira, eta erreinatuko dute arekin milla urtez.

7. Eta bete diteztenean milla urteak soltatua izango da Satanas bere presoindegitik, eta aterako da, eta engañatuko ditu lurraren lau egaletan diran erriak, Gog eta Magog, eta bilduko ditu gudarako; aien zenbata da itsasoko area bezela.

8. Eta zabaldu ziran lurraren zabaleran, eta ingurutu zuten santuen batzarretokia, eta erri maitea.

9. Eta jatsi zan su bat zerutik Jaungoikoa gandik, eta iretsi zituen; eta deabrua aien engañatzallea, aurtikia izan zan suzko eta sufrezko oshinera, non pistia ere,

10. Eta gezurrezko profeta izango dirade oñazkatuak gau eta egun gizaldien gizaldietan.

11. Eta ikusi nuen tronu andi zuri bat, eta artan eseririk zegoana, zeñaren aurretik iges egiten duten lurrak eta zeruak, eta aien tokirik etzan arkitu.

12. Eta ikusi nituen illak, andiak eta txikiak tronuauren aurrean zutik; eta liburuak zabalduak izan ziran; beste liburu bat ere zabaldua izan zan,

zeñ dan bizitzakoa; eta juzgatuak izan ziran illak, liburuetan eskribaturik zeudenetatik, aien egiten araura.

13. Eta itsasoak eman zituen artan zeuden illak; erioak ere eta infernuak eman zituzten beren illak, aietan zeudenak, eta juzgatuak izan ziran bakoitza bere egiteen araura.

14. Eta infernu eta erioa botatuak izan ziran suzko oshinera. Au da bigarren eriotzea.

15. Eta arkitu etzana bizitzako Liburuan eskribaturik, aurtikia izan zan suzko oshinera.

### OGEITABATGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nituen zeru berri bat, eta lur berri bat, zeren lengo zerua eta lengo lurra joan ziran, eta itsasorik ez da geiago.

2. Eta nik Joanek ikusi nuen erri santua, Jerusalem berria, zerutik jatxitzen Jaungoikoa gandik, jantzirik ezkonberria bere senarrentzat apaitzen dan bezela.

3. Eta entzun nuen boz andi bat tronutik esaten: Ona Jaungoikoaren bizitokia gizonakin, eta egongo da aiekin. Eta berak izango dira aren erria, eta Jaungoikoa bera izango da aiekin aien Jaungoikoa.

4. Eta leortuko ditu Jaungoikoak malko guziak aien begietatik, eta ez da izango geiago eriorik, ez biotzmiñik, ez deadarrik ez eta naigaberik ez da geiago izango, zeren lenengoak joan dira.

5. Eta esan zuen tronuan eseririk zegoanak: Ona, berri egiten ditut guziak. Eta esan zidan: Eskribatu ezazu, itz oiek osotoro sinisgarriak dira, eta egiazkoak.

6. Eta esan zidan: Egin da. Ni naiz alfa eta omega, asiera eta bukaera. Nik egarri danari emango diot bizitzako uraren iturritik, doan.

7. Garaitzen duenak, oiek idukiko ditu; eta aren Jaungoikoa izango naiz, eta bera nere seme izango da.

8. Koldarrak berriz, eta sinisgabeak, eta madarikatuak, eta gizon erlleak, eta zikiñak, eta sorgiñak, eta Jaungoiko falsoen adoratzalleak, eta gezurti guztiak, oiek partill izango dira suz, eta sufrez erazekitako oshinean; au da bigarren eriotza.

9. Eta etorri zan, ontziak azken izurriez beterik zeduzkan zazpi aingeruetatik bat; eta itz egin zidan, esaten zidala: Atoz, eta erakutsiko dizut ezkonberria Bildotsaren emaztea.

10. Eta gogoz eraman ninduen mendi andi eta gora batera, eta erakutsi zidan erri santua Jerusalem, jatsiten zerutik Jaungoikoagandik,



11. Jaungoikoaren argiaz ederturik, eta aren argia arri baliotsuaren idurikoa, jazpe arriaren antzekoa kristala bezelakoa.

12. Eta zuen murren andi eta gora bat, zeñak zituen amabi ate; eta atetan, amabi aingeru; eta izenak eskribaturik, zeñ diraden Israelko semeen amabi tribuen izenak.

13. Eguzkiaren irteeratik iru ate, eta ifarraldetik iru ate, eta Egoaldetik iru ate, eta Sartaldetik iru ate.

14. Eta erriko murrak zituen amabi zimendu, eta amabi aietan Bildotsaren amabi Apostoluen izenak.

15. Eta nerekin itz egiten zuenak, zeukan urrezko kañaberako neurri bat, erria, eta aren atek eta murrak neurtzeko.

16. Eta erria lau egitan egiña zegoan, eta aren luzeera zan zabalera bezañ bat; eta neurtu zuen erria urrezko kañaberaz eta zituen amabi milla estadu; eta luzeera, eta altuera eta zabalera berdiñak dira.

17. Neurtu ere zuen aren murrak, zeñak zituen eun eta berrogeita lau beso, gizon neurria, au da, aingeruarena.

18. Eta murren hura eginik zegoan jazpezko arriz; erria bera berriz erre garbia, bidrio argiaren irudikoa.

19. Eta erriko murraren zimenduak arri baliotsu guziz edertuak ziran; lenbiziko zimendua zan, jazpea; bigarrena, safiroa; irugarrena, kalzedonioa; laugarrena, esmeragdoa:

20. Bosgarrena, sardonisa; seigarrena, sardioa; zazpigarrena, krisolitoa; zortzigarrena, beriloa; bederatzigarrena, topazioa; amargarrena, krisofrasoa; amaikagarrena, hiazintoa; amabigarrena, ametistoa.

21. Eta amabi atek amabi perla dirade, bakoitzean bat; ate bakoitza perla bakoitz batekoa zan; eta erriko plaza, erre garbia zan, bidrio argi argi baten idurikoa.

22. Eta tenplorik ez nuen artan ikusi, zeren aren tenploa da Jaun Jaungoiko guziala, eta Bildotsa.

23. Eta erriak ez du eguzkiaren, ez illargiaren bearrik, argitua izateko, zeren Jaungoikoaren argitasunak argitzen du, eta aren argiontzia da Bildotsa.

24. Eta ibilliko dira erri guziak aren argian; eta lurreko erregeak ekarriko diote beren gloria eta onra.

25. Eta aren atek ez dira itxiko egunaz, zeren ez da izango an gaurik.

26. Ekarriko ere dute ara errien gloria eta onra.

27. Ez da an sartuko deus zikindurik, eta itxuskeriaren egillerik, ez gezur esalerik, baizik Bildotsaren bizitzako liburuan eskribaturik daudenak.

## OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Eta erakutsi zidan ur biziaren ibaia, kristala bezin argi, Jaungoikoaren eta Bildotsaren esergoitik irtetzen.

2. Ango plazaren erdian, eta ibaiaren bi aldamenetatik dago bizitzako zuaitza, zeñak ekarten ditu amabi frutu, eta ill bakoitzean ematen du bere fruta, eta zuaitzaren ostoa erreinuen osasunerako.

3. Eta madarikaziorik ez da izango geiago, baizik Jaungoikoaren eta Bildotsaren eserigoiak an dira, eta aren serbitzariak serbituko dute.

4. Eta ikusiko dute aren arpegia, eta aren izena aien bekokietan izango da.

5. Eta gaurik geiago ez da izango, eta ez dute idukiko kandela argi bearrik, zeren Jaun Jaungoikoak argituko ditu, eta erreinatuko dute gizaldien gizaldietan.

6. Eta esan zidan: itz oiek osotoro sinisgarriak dira eta egiazkoak. Eta Jaunak, profeten espirituen Jaungoikoak bialdu du bere Aingerua erakustera bere serbitzariak zerk eldu bear duen laster.

7. Eta ona banator laster. Doatsua liburu onetako aurrezesanaren itzak gordetzen dituenak.

8. Eta ni naz Juan oien aditzalea eta ikuslea. Eta aditu eta ikusi ondolan lurreratu nintzan adoratzeko, oiek erakutzi zizkidan Aingeruaren oñetan.

9. Eta esan zidan: Begira, ez dezazula egin, zeren zure serbitzari laguna naiz, eta zure anaia profetena, eta liburu onetako profeziako itzak gordetzen dituztenena; Jaungoikoa adora ezazu.

10. Eta esan zidan: Ez sillutu liburu onen profeziako itzak, zeren aldean da denbora.

11. Gaitz egiten duenak, gaizki egin beza oraindik; eta lizunkeria dagoana lizundu bedi oraindik; eta zuzena dana, zuzendu bedi oraindik; eta garbia dana, garbitu bedi oraindik.

12. Ona banator laister; eta nere saria nerekin da, emateko bakoitzari bere egiten araura.

13. Ni naiz alfa eta omega, lenena eta azkena, asiera eta bukaera.

14. Doatsua, bere soñekoak Bildotsaren odolean garbitzen dituenak, partill izan ditezten bizitzako zuaitzean, eta ateetatik sartu ditezten errian.



15. Kanpora txakurrak, eta sorginak, eta zikiñak, eta gizon eralleak, eta Jaungoiko falsoen adoratzalleak, eta gezurra maite eta egiten duten guziak.

16. Nik Jesus bidaldu det nere aingerua oiekin zuei lekukotasuna ematera Elizetan. Ni naiz Dabiden sustraia eta etorkia, izar argia eta goiz izarra.

17. Eta Espirituak eta esposak diote: Atoz. Eta aditzen duenak esan dezala: Atoz. Eta egarri dana etorri bedi; eta nai duenak artu beza bizitzako uretik doan.

18. Adierazitzen diot liburu onetako profeziako itzak aditzen dituen guztuari, iñork emendatzen baditu oiek, Jaungoikoak ezarriko ditu bere gañera liburu onetan eskribaturik dauden izurri guztiak.

19. Eta iñork kentzen badu liburu onetako profeziaren itzetatik, Jaungoikoak hura kenduko du bizitzako liburutik, eta erri santutik, eta liburu onetan eskribaturik daudenetatik.

20. Dio lekukotasuna oiekin ematen duenak: Bai banator laister. Ala izan dedilla. Atoz. Jesus Jauna.

21. Jesukristo gure Jaunaren grazia zuei guztioi. Ala izan dedilla.

### GIPUZKOAKO APOKALIPSISARI ADIGARRIAK

(1.) Lekuko leiala, eman ziolako munduari bere Aitaren aitorrera egiazkoa. Joan. 18, 38. Illetatik lenbizi sortua, au da, piztu zana lenbizi, ez berriz iltzeko, piztu zana berez.

(2.) Eta ditut, eriotzaren giltzak, eta infernukoak, esan nai du; neronek garaitu ditut eriotza eta infernua eta ezin egin litzaketzute gaitzik zuen borondate gabe.

(3.) 1,20. Zapi elizen aingeru oietan aditzen dirade Obispo Jaunak. II. Korinth. 20.

(4.) 2,17. Mana gordea; au da, biotzaren eta animaren barrendiko gozotasunak; arri zurian aditzen da betiko zorioneko sententzia, zeren anziña arritxoetan ematen ziran sentenziak. Izen berri bat, au da, Jaungoikoaren semearen eta zeruko jabegaiaren izena.

(5.) 2,28. Egun sentiko izarra, au da, betiko bizitzaren prenda eta adigarri egiazkoa.

(6.) 3,8. Ate idikia, asko sartzeko predikatuaz ebanjelioa.

(7.) 3,14. Egiak, au da, gezurrik esan ezin lezakeanak.

(8.) 3,15. Esan nai du, naiago nuke baziña ona edo gaiztoa, ez epela; geienez epela nekezago ondutzen da gaiztoa baño. Kasiano; San Agustin.

(9.) 3,18. Sutan garbitutako urreaz aditzen da karidadea.

(10.) 3,20. Emen aditzen dirade Jaungoikoak era askotara bekatariari egiten diozkan deiak.

(11.) 4,6. Lau abere oietan aditzen dira lau ebanjelistak.

(12.) 4,8. Sein a ego, oiek adierazoten dute arintasuna predikatzeko ebanjelioa. Zeuden begiz beteak, oiekin adirazten da zuten argitasun aundia ezagutzeko lege bietako misterioak.

(13.) 5,6. Bildots bat: au da Jesus. Ala adierazten dute Isaiasek eta San Juan Bautistak ere. Dago illa bezela, ill bazan ere piztu zalako; edo adierazotzeko nola dagoan ostia konsagratuan. Adarrak adierazten dute indarra; begiak ezauera eta argitasuna.

(14.) 6,2. Elizako Erakusleak aditzen dute zaldiaren gañean eseririk dagoanagan Jesus; zaldi zurian Apostoluak eta ebanjelioaren lenengo predikadoreak; ballestan, bere itz bizi eta eragille biotzak zauritzen dituen.

(15.) 6,4. Zaldi origorrian aditzen da martirren denbora; aren gañean eseririk zegoenagan deabrua, zeñak zirikatzen zituen persegitzalleak.

(16.) 6,5. Zaldi beltzean aditzen dira erejeak, utzirik fedeko argia illubetan bizi diralako; zaldi gañekoa da deabrua; balantzak esan nai du, liburu santuak aditzen dituztela beren burutazio ero, eta gura gaiztoen araura.

(17.) 6,6. Emen aditzen da gorputzeko eta animako janariaren urritasuna; baña Jaunak beti zaituko duela bere eliza.

(18.) 6,8. Zaldi zurbil onen gañean dagoenagan aditzen dute Erakusleak Mahoma; infernuak jarraitzen zion, au da, infernura joango ziraden talde aundi batek.

(19.) 6,10. Santuak emen eskatzen dutena da piztu ditezela beren gorputzak, osotzeko beren gloria; baitaere beldurturik gaiztoak kastiguakin ez ditzaiotela esetsi onai. Eta Jaungoikoak esaten diote, itxedon dezatela onetarako denbora etortzen dan bitartean. San Gregorio.

(20.) 8,7. Emen aipatzen dirade Jaungoikoak gaiztoen gañera bidalduko dituen kastiguak.

(21.) 9,7 et 9. Elizako Erakusle askok aditzen dituzte emen Lutero eta bere jarraitzalleak. Esaten du dituztela koroak bezelakoak, beren mukertasuna gatik, ez dituztelako aitortu nai Eliza santaren erakutziak ziertoak diradela ezagutu arren; dituzte gizonen irudiko arpegiak, badutelako onen irudia kanpotikan, barrendik gaiztoak eta animen iltzalleak diradela. Emakumeen illeak adirazten dute beren biziera zikin eta gura gaiztoen erakoa; burnizko lorikak beren biotzeko gogortasuna; beren egoen otsak adierazotzen du elkarren artean oi dituzten guda eta ezbaiak, biltzen eta elkarzuten diradela Eliza Santa Erromakoari esestzeko.



(22.) 10,10. Gozoa zan ikusten nituelako beterik Jaunaren zamakuntzak; baña garrastu zan nere sabela ikusiaz ainbeste animen betiko galmena.

(23.) 12,1. et SEK. Emakume au da Eliza santa. Esaten da agertu zala zeruan, an duelako bere bizilekua; zegoen eguzkiarekin estalia, zeren Jesukristok egiazko justiziako eguzkiak zaitu eta gordetzen du; dauka oñazpian illargia, au da, mundu onetako gauza galdukorrak; igarotzen ditu aurrigiten ari danaren alak irabazten animak, Jesusentzat; dragoea da demonioa; zazpi buruak, zazpi bekatu kapitalak; buruko apainduriak adierazotzen dituzte bere garaitzak; egin zuen aur bat semea, au da, sendo eta errutsua, zeñ dan Jesus animetan sortua; eramana izan zan zerura, an iza-teko gure bitartekoa. San Agustín.

(24.) 12,6. Emen adirazten da Jaungoikoak zaitzen duela beti Eliza santa bere etsaien guda eta esetsien artean.

(25.) 12,15. Baleak botatzen du aotik ura ibai bat bezela eta gero edan, erakarriz beragana arnasearekin, onela arrapatzeko igesi dijoazen arraiak; orobat egin zuen emen aipatzen dan sugeak.

(26.) 12,16. Onak, au da, sendoak lurra bezela lagundu zioten elizari; idikirik beren aoa eskatu zuten zeruko laguntasuna, eta garaitu zituzten etsaiak. Beste batzuek aditzen dute idikirik lurra iretsiko dituela eliza santaren persegitzalleak.

(27.) 12,18. Asmatzen nola garaituko zituen onak esetsirik itsasoz eta legorrez.

(28.) 13,1. Pisti au da Antekristoa; ateratzen da itsasotik, au da, mundu onetako bagen artetik.

(29.) 13,3. Antekristoak bere asmazioekin sinistueraziko diote zauri andi bat duela, ill eta piztu dala, onela Jaungoikotzat adoratu dezaten.

(30.) 13,7. Antekristoak garaituko ditu santuak bizia kenduaz, baña ez Jesusen fedea ukatu eta bekatuan erorierazitzeaz.

(31.) 13,11. Pisti onetan aditzen dute geienak Antekristoaren bideaurreko bat.

(32.) 13,13. Iru dira Antekristoak egingo dituen gauza miragarriak. Lenbizikoa bere eriotza eta piztutze irudizkoa. Bigarrena deabruaren asmazioekin suari zerutik jetxierazitzea. Irugarrena bere irudiari itzerazitzea sarturik barrenen deabrua.

(33.) 14,6.8 et 9. Oietan aipatzen diraden iru aingeruak dira iru predikadore biotz sendoko, Jaungoikoak bidalduko dituenak denbora artan.

(34.) 14,15. Santuak nola nai duten osotzea beren zorientasuna zeruan, elkaturik gorputz eta anima, eskatzen diote Jesusi ebaki ditzala ainbat lasterren gaiztoen biziak, zoritu diraden ezkeroz, au da, bete duten

ezkeroz beren bekatuen neurria, eta salbaturik dauden ezkeroz salbatuko diradenak.

(35.) 14,18. Zorituak dauden matz mordo oietan aditzen dirade, beren bekatuen neurria bete duten bekatariak.

(36.) 16,1. Au da Jaungoikoak zazpi aingeruak ematen dien aginte bat, bialtzeko bere aserrearen gogortasuna Antekristoaren jarraitzaileen gañera; ikusten da egiazturik kapitulu onetan.

(37.) 18,6. et 7. Santuak mundu onetan ez oi diete gaitzik deseatu ez egin beren gaizkigilleai, baña bestean poztuko dirade bekatarien kastiguakin.

(38.) 18,7. Eseririk nago erregiña; au da bekatarien izketa; ederki bizi naiz, jostatzen naiz, guzia det ugari; gerokoa etorriko da, edo ez da; sinistu nai lukete beti iraungo duela beren zorientasunak mundu onetan.

(39.) 20,2. Milla urte oietan aditzen da ebanjelioko legeko denbora guzia, Antekristoa etorri artean.

(40.) 20,3. Denbora gutxi onetan aditzen dirade iru urte eta erdi, zeña dan Antekristoak agintatuko duen denbora.

(41.) 22,11. Ez da au iñori esatea bekatu egin dezala, edo lezakeala; baizik bekatariari egiten zaion errierta bat, esango balu bezela: Oraindañoekin aspertu ez danak jarraitu bizaio bekatu egiteari, baña jakin beza, laster duela gañean kastigua.



## SAN JUAN APOSTOLUAREN APOKALIPSISA-2

### LENBIZIKO KAPITULUA

1. Jesukristoren Apokalipsisa, eman ziona berari Jaungoikoak, agirian ipintzeko bere serbitzariar aurki egiñak izan bear duten gauzak, eta adirazi zituen bidaldurik bere Aingeruaren bitartez bere serbitzari Juani,

2. Zeñak eman zion lekukotasuna Jaungoikoaren itzari, eta Jesukristoren lekukotasuna, ikusi zituen gauza guztiai.

3. Doatsua irakurtzen eta aditzen dituen profetia onen itzak, eta gordetzen dituen bertan eskribaturik dauden gauzak, zeren denbora aldean da.

4. Juanek Asian dauden zazpi Elizai. Grazia zuei eta pakea argandik, dana gandik, eta zana gandik, eta etorriko dana gandik, eta bere esertokiaren gañean dauden zazpi espirituak gandik.

5. Eta Jesukristo gandik, zeñ dan lekuko leiala, illetatik lenbizi sortua, eta lurreko erregeen prinzipia, zeñak maitatu ginduen, eta garbitu ginduen gure pekatuetatik bere odolean,

6. Eta egin gaitu erreñu eta apaiz Jaungoikoarentzat eta bere Aitarentzat; berari gloria eta agintaritzea gizaldien gizaldietan. Ala izan dedilla.

7. Ona non datorren odoiakin, eta ikusiko dute begi guztiak, eta zulatu zutenak. Eta bularrak joko dituzte bera ikusiaz lurreko tribu guziak. Bai. Ala izango da.

8. Ni naiz alfa eta omega, asiera eta bukaera, dio Jaun Jaungoikoak, danak, eta zanak, eta etorriko danak, Guzialak.

9. Ni Juan zuen anaia, eta partilla naigabean, eta erreinuan, eta iragopenean Jesukristogan; izan nintzan Patmos deitzen zaion islan, Jaungoikoaren itza gatik, eta Jesusen lekukotasuna gatik.

10. Izan nintzan gogoz eramana igande egun batean, eta aditu nuen nere ondoren boz andi bat tronpetarena bezelakoa,

11. Esaten zuena: ikusten dezuna eskribatu ezazu liburu batean, eta bidaldu zaiezu Asian dauden zazpi Elizai, Efesokoari, eta Esmirnakoari, eta Pergamokoari, eta Tiatirakoari, eta Sardiskoari, eta Filadelfiakoari, eta Laodiziakoari.

12. Eta itzuli nintzan ikusteko nerekin itz egiten zuen boza. Eta itzuli nintzanean, ikusi nituen zazpi urrezko kandelero.

13. Eta zazpi urrezko kandeleroen erdian gizonaren semearen antzeko bat, soñeko luze batekin jantzirik, eta bularrondoak urrezko gerriko batekin loturik.

14. Aren burua berriz eta illeak zuriak ziran ille zuria bezela, eta elurra bezela, eta aren begiak suzko garra bezelakoak ziran.

15. Eta aren oñak latoi fiñaren antzekoak ziran, dagoanean labe irazekian, eta aren boza ur askoren otsa bezelakoa.

16. Eta zeuzkan bere eskuian zazpi izar, eta aren aotik irtetzen zan alde bietatikan zorrotzuriko ezpata bat, eta aren arpegiak distiatzen du eguzkiak bere indarrean bezela.

17. Eta ikusi nuenean, erori nintzan bere oñen aurrean illa bezela. Eta jarri zuen bere eskuia nere gañean, esaten zuela: Etzaite beldur izan, ni naiz lenbizikoa eta atzenengoa.

18. Eta bizi naizana, eta izandu nintzan illa, eta ona emen non bizi naizan gizaldien gizaldietan eta dauzkat eriotzaren eta infernuko giltzak.

19. Eskribatu itzatzu bada ikusi dituzunak, eta diranak, eta gertatu bear dutenak oien ondoren.

20. Ona nere eskuian ikusi dituzun zazpi izarren eta urrezko zazpi kandeleroen misterioa: zazpi izarrek dira zazpi Elizen Aingeruak, eta zazpi kandeleroak, zazpi Elizak dira.

### BIGARREN KAPITULUA

1. Eskribatu zaiozu Efesoko Elizaren Aingeruari. Oiek esaten ditu dauzkanak zazpi izar bere eskuian, dabillanak urrezko zazpi kandeleroen erdian:

2. Badakizkit zure obrak, eta zure nekea, eta iragopena, eta ezin dituzula sufritu gaiztoak, eta tentatu zinduela esaten dutenak Apostoluak dirala, eta ez diranak, eta gezurti arkitu dituzu.

3. Eta iragopena badezu, eta sufritu dezu nere izena gatik, eta ez dezu ukatu.

4. Baña badet zertxobait esateko zure kontra, zure lenbiziko karidadea utzi dezula.

5. Oroitu zaitz bada nondik erori zeran, eta egizu penitentzia, eta egin itzatzu lenbiziko obrak, zeren bestela banator zu gana, eta alde eragingo diot zure kandeleroari bere tokitik ez badezu penitentzia egiten.

6. Baña au dezu, gorroto diezula Nikolaiten egiteai, zeñai nik ere gorroto diedan.





7. Belarria duenak aditu beza zer dioten Espirituak Elizai: Garaitzen duenari emango diot jaten, nere Jaungoikoaren paradisuan dagoan bizitzako zuaitzetik.

8. Eta Esmirnako Elizaren Aingeruari eskribatu zaiozu. Oiek esaten ditu lenbizikoak eta atzenengoak, il zanak eta bizi danak:

9. Badakit zure naigabea, eta zure premia, baña aberatza zera, eta gaizki esaka ari dira zu gatik, Juduak dirala esaten dutenak, eta ez diranak, baizik diranak Satanasen batzarrea.

10. Ez ezazu iduki igaroko dituzun gauza oien beldurrik. Ona emen non deabruak sartuko dituen zuetako batzuek presondegian, tentatuak izateko, eta izango dezute naigabea amar egunean. Izan zaite leiala erioztaraño, eta emango dizut bizitzako koroia.

11. Duenak belarria aditu beza zer esaten dien Espirituak Elizai: Garaitzen duenari, ez dio kalterik egingo bigarren eriotzak.

12. Eta Pergamoko Elizako aingeruari eskribatu zaiozu. Oiek esaten ditu duenak alde bietatik zorrozutako ezpata.

13. Badakit non bizi zeran, Satanasen esertokia non dan, eta dezu nere izena, eta etzenduen ukatu nere fedea. Ez eta egun aietan, zeñean Antipas nere aitorgilla leiala illa izan zan zuen artean, non bizi dan Satanas.

14. Baña baditut zure kontra gauza gutxi batzuek, zeren dituzun or jarraitzen diotenak Balaamen irakatsiari, zeñak irakasten zion Balaaki gaitzbidea ipintzen Israelko semeen aurrean, jan zezaten, eta aragizko pekatuetan erori zitezten.

15. Onela dituzu zuk ere Nikolaiten irakatsiari jarraitzen diotenak.

16. Egizu bada penitentzia, bestela etorriko natzatzu laster, eta guda-tuko naiz berakin nere aoko ezpatarekin.

17. Duenak belarria, aditu beza zer esaten dioten Espirituak Elizai: Garaitzen duenari emango diot mana ezkutua, eta emango diot arri zuri bat, eta arrian izen berri bat eskribaturik, iñork ez dakiena artzen duenak baizik.

18. Eta Tiatirako Elizaren aingeruari eskribatu zaiozu: Oiek esaten ditu Jaungoikoaren semeak, dauzkanak suzko garra bezelako begiak, eta zeñaren oñak diran latoi zuriaren irudikoak.

19. Badazaudaz zure egiteak, eta zure fedea, eta karidadea, eta zure lantegia eta iragopena, eta zure atzenengo egiteak, lenbizikoak baño geigoak.

20. Baña baditut zure kontra gauza gutxi batzuek: Uztzen diozula Jezabel emakume, profeta dala esaten duenari, irakasten, eta nere serbitzariak engañatzen, aragizko pekatuak egiten, eta idolo jakietatik jaten.

21. Eta denbora eman diot penitentzia egiteko, eta ez du nai damutu bere aragizko pekatuaz.

22. Eta ona non jarriko dedan oeraturik, eta berarekin pekatu egiten dutenak, ikusiko dirade naigabe txit andian ez badute egiten beren egiteen penitentzia.

23. Eta beren semeak illko ditut eriotzarekin, eta jakingo dute Eliza guztiak, ni naizela erraiak eta biotzak aztertzen ditudana, eta emango diot zuetako bakoitzari bere egiteen araura. Zuei berriz esaten dizutet.

24. Eta Tiatiran zaudeten gañerakoai: Erakutsi au ez daukaten guztiak, eta ezagutu ez dituztenak Satanasen sakontasunak, esaten duten bezela, ez det jarriko zuen gañean beste kargarik.

25. Alaere daukazutena gorde ezazute natorren artean.

26. Eta garaitzen duenari, eta nere azkeneko egiteak gordetzen dituenari, emango diot eskua jendeen gañean.

27. Eta zuzenduko ditu burnizko zigorrarekin, eta eltzegillearen ontzia bezela izango dirade autsiak.

28. Nik ere artu nuen bezela nere Aita gandik, eta emango diot egun sentiko izarra.

29. Belarria duenak, aditu beza zer esaten dien Espirituak Elizai.

## IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta Sardisko Elizaren aingeruari eskribatu zaiozu: Oiek esaten ditu dauzkanak Jaungoikoaren zazpi espirituak, eta zazpi izarrak. Badakizkit zure egiteak, badezula bizi zeralako izena, eta illik zaude.

2. Izan zaite ernaia, eta sendatu itzatzu beste iltzera zijozenak. Zeren ez ditut arkitzen zure egiteak beteak nere Jaungoikoaren aurrean.

3. Oroitu zaite bada nola artu, eta aditu dezun, eta gorde ezazu, eta egin ezazu penitentzia. Baldin bada ez bazaude ernai, etorriko naiz zu gana lapurra bezela, eta ez dezu jakingo zeñ ordutan etorriko naizen zu gana.

4. Baña badituzu izen gutxi batzuek Sardisen, beren soñekoak zikindu ez dituztenak, eta ibilliko dirade nerekin zuriz, zeren diñak dirade.

5. Garaitzen duena, onela izango da jantzia soñeko zuriakin, eta ez det kenduko bere izena bizitzako liburutik, eta aitortuko det bere izena nere Aitaren aurrean, eta bere aingeruen aurrean.

6. Belarria duenak, aditu beza zer esaten dioten Espirituak Elizai.

7. Eta eskribatu zaiozu Filadelfiako Elizaren aingeruari: Oiek esaten ditu Santuak eta Egitiak, Dabiden giltza duenak; idikitzen duenak, eta iñork ez duenak itxitzen, itxitzen duenak, eta iñork ez duenak idikitzen.



8. Badakizkit zure egiteak. Ona non jarri dedan zure aurrean ate idiki, iñork itxi ezin duena; bertute gutxi dezulako, eta gorde dezulako nere itza, eta ez dezulako nere izena ukatu.

9. Ona emen non emango dizudan Satanasen sinagogatik, Juduak diradela berak esaten duten batzuek, eta ez dirade, baizik gezurra diote. Ona non etorri eragingo diet, eta gurtuko dira zure oñetan, eta jakingo dute maitatu zaitudala.

10. Gorde zinduelako nere pazienziako itza, nik ere gordeko zaitut, mundu guzira etorriko dan tentazioko orduan probatzeko lurrean bizi diradenak.

11. Ona non natorren bereala; gorde ezazu dezuna, iñork artu ez dezan zure koroia.

12. Garaitzen duena, abe bat egingo det nere Jaungoikoaren elizan, eta ez da berriz kanpora irtengo, eta eskribatuko det bere gañean nere Jaungoikoaren izena, eta nere Jaungoikoaren erriaren, Jerusalem berriaren, zerutik nere Jaungoikoa gandik jatxi zanaren izena, eta nere izen berria.

13. Duenak belarria, aditu beza zer esaten dioten Espirituak Elizai.

14. Laodizeako Elizaren Aingeruari ere eskribatu zaiozu: Oiek esaten ditu Egiak, lekuko leialak, eta egiazkoak, Jaungoikoaren egikeraren asiera danak.

15. Badakizkit zure egiteak; ez zerala ez otza, ez beroa; arren bada baziña otza, edo beroa!

16. Baña zeralako epela eta ez otza, ez beroa, asiko natzatzu gonbitatzen nere aotik.

17. Esaten dezulako: Aberatza naiz, eta ondasunez betea, eta ez det iñoren premiari, eta ez dakizu zerala gaxoa, eta urrikigarria, eta beartsua, eta itsua, eta billosa.

18. Konsejatzen zaitut erosi dagidazula sutan garbitutako urrea aberastu zaitean, eta soñeko zuriz jantzia izan zaitean, agiritu ez dedin zure billostasunaren lotsaria, eta begiurarekin busti itzatzu zure begiak ikusi dezazun.

19. Nik maite ditudanai errierta egiten diet, eta kastigatzen ditut. Irakeki zaite bada animen salbazioaren guran, eta egizu penitentzia.

20. Ona non nagoan atean, eta ots egiten det, baldin iñork aditzen badu nere boza, eta idikitzen badit atea, sartuko naiz bera gana, eta apalduko det berarekin, eta berak nerekin.

21. Garaitzen duenari, eseri eragingo diot nerekin nere esertokian, nik ere garaitu nuen bezela, eta eseri nintzan nere Aitarekin bere esertokian.

22. Duenak belarria, aditu beza zer esaten dien Espirituak Elizai.

## LAUGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoren begiratu nuen, eta ona emen ate bat idikia zeruan, eta lenengo aditu nuen boza, nerekin itz egiten zuen tronpetarena bezelakoa, esaten zidala: igo ezazu onera, eta erakutsiko dizut zertzuk egiñak izan bear duten oien ondoren.

2. Eta bereala izan nintzan gogoz eramana, eta ona emen esertoki bat zegoan ipiñirik Zeruan, eta esertokiaren gañean eseririk.

3. Eta eseririk zegoana, zan arpegiz arri nabarraren eta gorriaren antzekoa, eta ostrellaka bat zegoan esertokiaren inguruan, kolore berdearen antzekoa.

4. Eta esertokiaren inguruan ogei ta lau esertoki, eta ogeita lau esertoki goratuen gañean zarrak eseririk, soñeko zuriz jatzirik, eta beren buruetan urrezko koroiak.

5. Eta esertoki goratutik irtetzen ziran tximistak, eta bozak, eta turmoiak, eta esertoki goratuaren aurrean zazpi argi ontzi pizturik, zeñiak diraden Jaungoikoaren zazpi Espirituak.

6. Eta esertokiaren ikusbegian bideriozko itsasoa bezelakoa kristalaren antzekoa, eta esertokiaren erdian, eta esertokiaren inguruan, lau abere begiz beteak aurretik eta ostetik.

7. Eta lenbiziko aberea leoiaren antzekoa eta bigarren aberea idiskoaren antzekoa, eta irugarren aberea zuena arpegia gizonarena bezelakoa, eta laugarren aberea arrano egan dabilenaren antzekoa.

8. Eta lau abereak, beretatiko bakoitzak zituen sei ego, eta inguruan eta barrenean daude begiz beteak, eta etzuten atsedetik gau ta egun, esaten zutela: Santua, Santua, Santua, Jaun Jaungoiko guziala, zana, eta dana, eta etorriko dana.

9. Eta ematen ziotenean abere aiek gloria, eta ondra, eta bendizioa eseririk zegoenari esertoki goratuaren gañean, bizi zanari gizaldien gizaldietan,

10. Auzpeptzen ziran ogeita lau zarrak, esertoki goratuan eseririk zegoanaren aurrean, eta adoratzen zuten bizi zana gizaldien gizaldietan, eta botatzen zituzten beren koroiak esertoki goratuaren aurrean, ziotela.

11. Diña zera Jaun Jaungoiko gurea, artzeko gloria, eta ondra, eta bertutea, zeren zuk egin zinduen gauza guziak, eta zure borondatea gatik ziran, eta izan ziran egiñak.



## BOSTGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen esertoki goratuaren gañean eseririk zegoanaren esku eskuian, liburu bat barrendik eta kanpotik eskribaturik zazpi sillurekin silluturik

2. Eta ikusi nuen Aingeru sendo bat, sendo deadar egiten zuela: Zeñ da diña liburua idikitzeke, eta bere silluak askatzeko?

3. Eta iñork ezin zuen ez zeruan, ez lurrean, ez lurpean idiki liburua, ez berari ere begiratu.

4. Eta nik negar asko egiten nuen, etzalako iñor arkitu liburua idikitzeke diña, ez berari begiratzeko.

5. Eta zarretatik batek esan zidan: Ez ezazu egin negarrik, ona non garaitu duen Judako etxadiko leoiak, Dabiden sustraiak, liburua idikitzeke, eta bere zazpi silluak askatzeko.

6. Eta begiratu nuen, eta ona esertoki goratuaren, eta lau abereen erdian, eta zarren erdian, bildots bat zutik illa bezela, zeuzkana zazpi adar, eta zazpi begi, zeñak diran Jaungoikoaren zazpi Espirituak, mundu guztira bidalduak.

7. Eta etorri zan, eta artu zuen liburua esertoki goratuan eseririk zegoanaren esku eskuitik.

8. Eta idiki zuenean liburua, lau abereak, eta ogei ta lau zarrak auzpeztu ziran bildotsaren aurrean, zituztela bakoitzak, zitarak, eta edanon-tzi urrezko usai gozoz beteak, zeñak diran santuen errekuak:

9. Eta kantatzen zuten kanta berri bat, ziotela: Diña zera Jauna, liburua artzeko, eta bere silluak idikitzeke, zeren illa izan ziñan, eta erosi ginduzuzan Jaungoikoarentzat zure odolean etxadi, eta mintzoera, eta erri, eta erreinu guzietatik.

10. Eta egin ginduzuzan gure Jaungoikoarentzat erreñua, eta apaizak, eta erreinatuko degu lurrean.

11. Eta ikusi nuen, eta aditu nuen aingeru askoren boza esertoki goratuaren, eta abereen, eta zarren inguruan, eta ziran millaen millak,

12. Boz andiarekin ziotenak: Diña da, illa izan zan bildotsa, artzeko bertutea, eta jaungoikotasuna, eta jakinduria, eta sendotasuna, eta ondra, eta gloria, eta bendizioa.

13. Eta zeruan, eta lurraren gañean, eta lurraren azpian dan guziari, eta itsasoan diraden, eta bertan daudenai, guziaz aditu nien esaten zutela: Esertoki goratuan eseririk dagoanari eta Bildotsari bendizioa, eta ondra, eta gloria, eta eskubidea gizaldien gizaldietan.

14. Eta lau abereak esaten zuten: Ala izan dedilla. Eta ogei ta lau zarrak auzpez erori ziran, eta adoratu zuten bizi dana gizaldien gizaldietan.

## SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen, Bildotsak idiki zuela zazpi silluetatik bat, eta aditu nion lau abereetatik bati; esaten zuela, turmoiarena bezelako itz batekin: Atoz, eta ikusi ezazu.

2. Eta begiratu nuen, eta ona emen zaldi zuri bat, eta bere gañean eseririk zegoanak zeukan uztai bat, eta emana izan zaion koroa bat, eta irten zan garailari garaitzeko.

3. Eta idiki zuenean bigarren sillua, aditu nion bigarren abereari, esaten zuela: Atoz, eta ikusi ezazu.

4. Eta irten zan beste zaldi origorri bat, eta bere gañean eseririk zegoanari, emana izan zaion pakea lurretik kentzea, eta elkar il zezatela, eta emana izan zaion ezpata andi bat.

5. Eta idiki zuenean irugarren sillua, aditu nion irugarren abereari, esaten zuela: Atoz, eta ikusi ezazu. Eta ona emen zaldi beltz bat: eta bere gañean eseririk zegoanak zeukan balantza bat bere eskuan.

6. Eta aditu nuen boza bezelako bat lau abereen erdian esaten zutenen (sic): Bi libra ogi denario batean, eta lau libra garagar denario batean, eta ardoari eta olioari etzaiozu kalterik egin.

7. Eta idiki zuenean laugarren sillua, aditu nuen laugarren aberearen itza, esaten zuenarena: Atoz, eta ikusi esazu.

8. Eta ona emen zaldi zurbil bat, eta bere gañean eseririk zegoanak zuen izena Eriotza, eta jarraitzen zion infernuak, eta eskua emana izan zaion lurreko lau aldamenen gañean, iltzeko ezpatarekin, gosearekin, eta eriotzarekin, eta lurreko pistiak.

9. Eta idiki zuenean bosgarren sillua, ikusi nituen aldarearen azpian, Jaungoikoaren itza gatik, eta zeukaten lekukotasuna gatik, illak izan zira-denen animak,

10. Eta deadar andiak egiten zituzten ziotela: Noiz artean Jauna, santua, eta egiatia, ez dezu juzgatzen, eta ez dezu bengatzen gure odola lurrean bizi diradenen oietatik?

11. Eta emanak izan zitzaizkioten bakoitzari soñeko zuriak, eta esana izan zitzaioten, itxedon zezatela oraindikan denbora piska batean, beteak izan zedin bitartean beren serbitzari lagunen, eta beren anaien aiek bezela illak izango diradenen zenbata.



12. Eta begiratu nuen idiki zuenean seigarren sillua, eta ona emen non lur dardara andi bat izan zan egiña, eta eguzkia beltz biurtu zan zurdazko eun bat bezela: eta illargia guzia izan zan egiña odola bezela.

13. Eta zeruko izarrak erori ziran lurraren gañera, pikoak utzitzen dioten bezela erotzen bere pikoai, aize andi batek mugitzen duenean.

14. Eta zerua bildu zan liburu biribillatua bezela, eta mendi guzia, eta ugarteak beren tokietatikan mugitu ziran.

15. Eta lurreko erregeak, eta prinzipeak, eta tribunoak, eta aberatsak, eta sendoak, eta menpeko guzia, eta nagusiak, ezkutatu ziran arzuloetan, eta mendietako aitz bitartetan.

16. Eta esaten diote mendiai, eta aitzai: Erori zaitezte gure gañera, eta ezkutatu gaitzatzute esertoki goratuaren gañean eseririk dagoenaren ikusbegitikan, eta Bildotsaren aserretikan.

17. Zeren eldu da aien aserrearen egun andia, eta, nor egon lezake zutik?

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoa ikusi nituen lau aingeru zeudenak lurraren lau aldamentetan, zeuzkatela geldirik lurreko lau aizeak, putz ez zezaten lurraren gañean, ez itsasoaren gañean, ez zuaitz batera ere.

2. Eta ikusi nuen beste aingeru bat igotzen zala eguzkiaren irteeratik, zuena Jainko biziaren seña, eta deadar egin zioten boz andiarekin lau aingeruri, emana izan zitzaietenai kalte egitea lurrari, eta itsasoari,

3. Esaten zuela: Etzaiezute kalterik egin lurrari, eta itsasoari, ez zuaitzai, alik eta sillutu ditzagun bitartean gure Jaungoikoaren serbitzariak beren kopetetan.

4. Eta aditu nuen sillutuen zenbata, eun eta berrogei ta lau milla sillutuak, Israelko semeen etxadi guzitik.

5. Judaren etxaditik, amabi milla sillutuak; Rubenen etxaditik, amabi milla sillutuak; Gaden etxaditik, amabi milla sillutuak.

6. Aserren etxaditik, amabi milla sillutuak; Neptaliren etxaditik, amabi milla sillutuak; Manasseren etxaditik, amabi milla sillutuak.

7. Simeonen etxaditik, amabi milla sillutuak; Lebiren etxaditik, amabi milla sillutuak; Issakarren etxaditik, amabi milla sillutuak.

8. Zabalonen etxaditik, amabi milla sillutuak; Joserren etxaditik, amabi milla sillutuak; Benjaminen etxaditik, amabi milla sillutuak.

9. Oien ondoren ikusi nuen talde andi bat, iñork ezin zenbatu zezakeana, erreñu, eta etxadi, eta erri, eta mintzoera guzietatik, zeudenak zuti,

esertoki goratuaren aurrean, eta Bildotsaren ikusibegian, estalirik soñeko zuriakin, eta palmak beren eskuetan:

10. Eta deadar egiten zuten boz andiarekin, esaten zutela: Osasuna gure Jaungoikoari, esertoki goratuaren gañean eseririk dagoanari, eta Bildotsari.

11. Eta aingeru guziak zeuden zuti esertokiaren eta zarren, eta lau abereen inguruan, eta erori ziran esertokiaren aurrean beren arpegien gañera, eta adoratu zuten Jaungoikoa,

12. Esaten zutela: Amen. Bendizioa, eta argitasuna, eta jakinduria, eta esker ona, onra, eta bertutea, eta sendotasuna gure Jaungoikoari gizaldien gizaldietan. Amen.

13. Eta erantzun zidan zarretatik batek, eta esan zidan: Oiek estalirik daudenok soñeko zuriakin, nortzuk dirade? Eta nondik etorri ziran?

14. Eta esan nion: Nere Jauna, zuk dakizu. Eta esan zidan: Oiek dirade etorri ziradenak naigabe anditik, eta garbitu zituzten beren soñekoak, eta zuritu zituzten Bildotsaren odolean.

15. Beragatik daude Jaungoikoaren esertokiaren aurrean, eta serbitzen dute gau ta egun bere elizan, eta esertoki goratuan eseririk dagoana, biziko da beren gañean.

16. Ez dute goserik izango, ez egarririk iñoiz geiago, ta ez da ere eroriko beren gañera eguzkia, ta ez berotasunik batera.

17. Zeren esertokiaren erdian dagoan Bildotsak, zuzenduko ditu, eta eramango ditu bizitzako uren iturrietara, eta leortuko du Jaungoikoak malko guzia beren begietatik.

### ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta idiki zuenean zazpigarren sillua, gelditu zan ixillik zerua, ordu erdi tertzioan.

2. Eta ikusi nituen zazpi aingeru zeudela zuti Jaungoikoaren aurrean, eta emanak izan zitzaiozkatzen zazpi tronpeta.

3. Eta beste aingeru bat etorri zan, eta gelditu zan aldarearen aurrean; zeukala urrezko inzenso ontzia, eta emanak izan zitzaizkion inzenso asko, ipiñi zitzaizkan santu guzien erreguetatik aldarearen gañean, zeña dagoan Jaungoikoaren esertokiaren aurrean.

4. Eta igo zan inzensoen kea santuen erreguetatik aingeruaren eskuetik Jaungoikoaren aurrera.

5. Eta artu zuen Aingeruak inzensarioa, eta bete zuen aldareko suaz, eta bota zuen lurrera, eta egiñak izan ziran turmoi otsak, eta bozak, eta tximistak, eta lurdardara andia.



6. Eta zazpi aingeruak, zituztenak zazpi tronpetak, gertutu ziraden tronpetak jotzeko.

7. Eta lendabiziko aingeruak jo zuen tronpeta, eta egiña izan zan txingorra, eta sua, odolarekin nastua, eta erori zan lurrera, eta lurraren irugarren partea errea izan zan, eta zuaitzen irugarren partea kiskaldua izan zan, eta belar berde guzia errea izan zan.

8. Eta bigarren aingeruak jo zuen tronpeta, eta botatua izan zan itsasora mendi andia bezelako bat suan irazekirik, eta itsasoaren irugarren partea odol biurtua izan zan.

9. Eta ill zan, itxasoan animak zeuzkatenen irugarren partea, eta ontzien irugarren partea galdu zan.

10. Eta irugarren aingeruak jo zuen tronpeta, eta erori zan zerutik izar andi bat, irazekia zuzia bezela, eta erori zan ibaien irugarren partean, eta urezko iturrietan.

11. Eta izarraren izena esaten da Asensioa, eta uren irugarren partea asensio biurtua izan zan, eta gizon asko il ziraden urak gatik, zeren miñak biurtu ziran.

12. Eta laugarren aingeruak jo zuen tronpeta, eta zauritua izan zan eguzkiaren irugarren partea, eta illargiaren irugarren partea, eta izarren irugarren partea, alako moduan non illundu zan beren irugarren partea, eta etzuen argirik egiten egunaren irugarren parteak, eta orobat gauarenak.

13. Eta ikusi, eta aditu nuen zeruaren erditik egan zebillen arrano baten boza, esaten zuenarena boz andiarekin: Ai, ai, ai, lurrean bizi diradenen doakabeak, iru aingeru, tronpetak joko zituztenen beste bozak gatik.

### BEDERATZI GARRENKAPITULUA

1. Eta bostgarren aingeruak jo zuen tronpeta: eta ikusi nuen izar bat erori zala zerutik lurrera, eta emana izan zitzaion leizeko putzuko giltza.

2. Eta idiki zuen leizeko putzua, eta igo zan putzuko kea, labe andi bateko kea bezela, eta illundu zan eguzkia, eta airea putzuko keaz.

3. Eta putzuko keetik irten ziran langostak lurrera, eta emana izan zitzaioten eskua, nola duten eskua lurreko arrabioak.

4. Eta agindua izan zitzaioten, ez zaiotela kalterik egin lurreko belarriari, ez gauza berderi, ta ez zuaitz bati ere, baizik bakarrik beren bekokietan Jaungoikoaren seña etzuten gizonai.

5. Eta emana izan zaioten ez zitzatela ill, baizik oñazetu zitzatela bost illa betean, eta beren oñazeak, arrabioaren oñazek bezela zauritzen duenean gizona.

6. Eta egun aietan billatuko dute gizonak eriotza, eta ez dute arkituko, eta naiko dute il, eta iges egingo du eriotzak berak gandik.

7. Eta langosten irudiak, zaldi gudarako gertuen antzekoak, eta beren buruen gañean koroiak bezelakoak urrearen antzekoak, eta beren arpegiak gizonen arpegiak bezelakoak.

8. Eta zituzten illeak emakumeen illeak bezelakoak. Eta beren ortzak, leoien ortzak bezelakoak ziran.

9. Eta zituzten loarikak burnizko loarikak bezela, eta beren egoen boza, zaldi askoren, burdien gudara korrika dijozanan boza bezelakoa.

10. Eta zituzten buztanak arrabioen antzekoak, eta mistoak zeuden beren buztanetan, eta beren eskubidea kalte egiteko gizonai bost illabetean, eta zuten beren gañean.

11. Erregetzat leizeko aingerua, zeñaren izena hebreoz Abaddon, grieguz berriz Apollion, latinez izena duena Exterminans.

12. Ai bat iragoa da, eta ona emen non datozten oraindikan ai bi oien ondoren.

13. Eta seigarren aingeruak jo zuen tronpeta, eta aditu nuen boz bat, Jaungoikoaren begien aurrean dagoen urrezko aldarearen lau adarretatik,

14. Esaten ziola seigarren aingeru, tronpeta zeukanari: Askatu itzazu, Eufrates ibai andian lotuta dauden lau aingeruak.

15. Eta askatuak izan ziran lau aingeru, gertuta zeudenak ordurako, eta egunerako, eta illerako, eta urterako, ill zezaten gizonen irugarren partea.

16. Eta zaldizko martizdiaren zenbata ogei milla bidar amar bidar milla. Eta aditu nuen beren zenbata.

17. Eta onela ikusi nituen zaldiak ikuskizunean, eta beren gañean eserita zeudenak, zituzten suzko, eta jazinto kolorezko, eta sufrezko loarikak, eta zaldien buruak ziran leoien buruak bezelakoak, eta beren aotik irtezen zan sua, eta kea, eta sufrea.

18. Eta iru izarri oiekin illa izan zan gizonen irugarren partea, beren aotik irtetzen zan suaz, eta keaz, eta sufrea.

19. Zeren zaldien eskubidea beren aotetan da, eta beren buztanetan. Zeren beren buztanak sugeen, buruak dauzkatenen antzekoak, eta berakin kalte egiten dute.

20. Eta beste gizonak, illak izan ez ziradenak izarri oiekin, eta beren eskuen egiteen damurik artu ez zutenak, ez adoratzeko demonioak, eta





urrezko, eta zidarrezko, eta metalezko, eta arrizko, eta zurezko irudiak, zeñiak ezin duten ikusi, ez aditu, ta ez ibilli.

21. Eta beren gizon illtzeen, ez beren sorginkerien, ez beren aragizko pekatuaren, ta ez beren lapurreten damurik etzuten artu.

### AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen bere aingeru sendo bat jatkitzen zala zerutik, estalirik odeiarekin, eta ostrellaka bere buruan, eta bere arpekia zan eguzkia bezelakoa, eta bere oñak suzko abea bezelakoa.

2. Eta zeukan beste eskuan liburutxo bat idikirik, eta ipiñi zuen bere eskuiko oña itsasoaren gañean, ezkerrekoa berriz lurraren gañean.

3. Eta deadar egin zuen boz andiarekin, leoiak orrua egiten duenean bezela. Eta deadar egin zuenean, itz egin zituzten zazpi turmoi otsak beren bozak.

4. Eta itz egin zituztenean zazpi turmonotsak beren bozak, ni ninjoan eskribatzera, eta aditu nuen boz bat zerutik esaten zidana: Sillutu itzatzu zazpi turmonotsak itz egin dituzten gauzak, eta ez itzatzu eskribatu.

5. Eta ikusi nuen aingeruak, zegoala itsasoaren gañean, eta lurraren gañean, jaso zuen bere eskua zerura.

6. Eta juramentu egin zuen bizi zana gatik gizaldien gizaldietan, zeñiak egin zuen zerua, eta bertan dauden gauzak, eta lurra, eta bertan dauden gauzak, eta itsasoa, eta bertan dauden gauzak. Ez dala denborarik izango geiago.

7. Baizik zazpigarren aingeruaren bozaren egunetan, asten danean tronpeta jotzen, bukatuko da Jaungoikoaren ezkutapena, adirazi zuen bezela bere serbitzari profeten bitartez.

8. Eta aditu nuen boz bat zerutik berriz itz egiten zuena nerekin, eta esaten zidana: Zoaz, eta artu ezazu liburu idikia, aingeruaren, itsasoaren gañean, eta lurraren gañean dagoanaren eskutik.

9. Eta joan nintzan aingerua gana, esaten niola, eman zadala liburua. Eta esan zidan: Artu ezazu liburua, eta iretsi ezazu, eta samindu eraziko du zure sabela, baña zure aoan izango da gozoa ezitia bezela.

10. Eta artu nuen liburua aingeruaren eskutik, eta iretsi nuen, eta zan nere aoan gozoa ezitia bezela, eta iretsi nuenean, samindua izan zan nere sabela.

11. Eta esan zidan: Profetizatu bear diezu berriz jende, eta erri, eta mintzoera, eta errege askori.

### AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta emana izan zitzadan kañabera bat zigorraren antzekoa, eta esana izan zitzadan: Jaiki zaitte, eta neurtu ezazu Jaungoikoaren eliza, eta aldarea, eta bertan adoratzten dutenak.

2. Elizaren kanpoan dagoan ataria berriz, bota ezazu kanpora, eta ez ezazu neurtu, zeren emana izan zate jendeai, eta erri santua oñaztuko dute berrogei ta bi illa betean.

3. Eta emango diet nere bi lekukoai, eta profetizatuko dute milla berreun eta irurogei egunean, soñeko latzakin estalirik.

4. Oiek dirade bi olibo, eta bi kandeleru, daudenak lurreko Jaunaren aurrean.

5. Eta iñork nai baliote kalterik egin, sua irtengo da beren aotik, eta iretsiko ditu beren etsaiak, eta iñork nai baldin baliote gaitzik egin, onela izan bear du berak illa.

6. Oiek dute eskua itxitzeko zerua, euririk egin ez dezan beren profeziako egunetan, eta eskua dute uren gañean odol biurtzeko, eta zauritzeko lurra izurri guziarekin nai duten guzian.

7. Eta aitzen dutenean bere lekukotasuna, leizetik igotzen duen pisti bat gudan ariko da beren kontra, eta garaituko ditu, eta illko ditu.

8. Eta beren gorputzak etzanak egongo dirade erri andiko, espirituz Sodoma, eta Ejipto deitzen zaionaren plazetan, non beren Jauna ere gurutziatzatua izan zan.

9. Eta etxadietakoak, eta errietakoak, eta mintzoeretakoak, eta erreñuetakoak ikusiko dituzte beren gorputzak iru egun eta erdian, eta ez dute laketuko beren gorputzak ipiñiak izan ditezela obietan.

10. Eta lurrean bizi diradenak poztuko dirade beren eriotza gatik, eta alegeratuko dirade, eta doañak elkarr bidalduko dizkiote, zeren bi profeta oiek oñazkatu zituzten lurraren gañean bizi ziranak.

11. Eta iru egun eta erdiren ondoan, bizitzako espiritua Jaungoikoak sartua izan zan beretan. Eta zuti paratu ziran beren oñen gañean, eta beldur andi bat erori zan ikusi zituztenen gañera.

12. Eta aditu zuten boz andi bat zerutikan, esaten zieten: igo zaitzte onera. Eta igo ziran zerura odeian, eta beren etsaiak ikusi zituzten.

13. Eta ordu artan egiña izandu zan lur dardara andi bat, eta erriaren amargarren partea erori zan, eta illak izan ziran lur dardarean zazpi milla gizonen izenak, eta gañerakoak beldurtuak izan ziran, eta eman zioten gloria zeruko Jaungoikoari.

14. Ai bigarrena irago zan, eta ona emen ai irugarrena etorriko da bereala.





15. Eta zazpigarren aingeruak jo zuen tronpeta, eta egiñak izan ziran boz andiak zeruan esaten zutenak: Egiña izan da mundu onetako erreñua, gure Jaunarena, eta bere Kristorena, eta erregiñatuko du gizaldien gizaldietan. Amen.

16. Eta ogei ta lau zar eseririk daudenak Jaungoikoaren aurrean beren esertokietan, auzpeztu ziran beren arpegien gañean, eta adoratu zuten Jaungoikoa, esaten zutela:

17. Eskerrak ematen dizkitzugu, Jaun Jaungoiko guziala, zerana, eta ziñana, eta etorriko zerana, artu zenduelako zure eskubide andia, eta asi zeralako erregiñatzen.

18. Eta aserratu ziran jendeak, eta allegatu da zure aserrea, eta illak juzgatuak izateko denbora, eta emateko ordaña zure serbitzari profetai, eta santuai, eta zure izenaren beldur diranai, txikitxoai, eta andiai, eta mugetatik kanpora botatzeko, zikindu zutenak lurra.

19. Eta idikia izan zan Jaungoikoaren eliza zeruan, eta ikusia izan zan bere testamentuko arka bere elizan, eta egiñak izan ziran tximistak, eta bozak, eta lurdardarea, eta arri andia.

### AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusgarri andi bat agertu zan zeruan. Emakume bat eguzkiaz estalirik, eta illargia bere oñen azpian, eta bere buruan amabi izarrezko koroia.

2. Eta izor egonik, deadar egiten zuen erditzen ari zala, eta oñazkatua zan erditzeko.

3. Eta ikusia izan zan beste ikusgarri bat zeruan, eta ona emen suge andi origorri bat, zeuzkana zazpi buru, eta amar adar, eta bere buruetan zazpi zinta zuri zabal.

4. Eta bere buztanak zekarren zeruko izarren irugarren partea, eta erori erazi zioten lurrera, eta sugea gelditu zan, erditzeko zegoan andreaurrean, erditzen zuenean, iretsitzeko bere semea.

5. Eta erdi zuen seme arra, zuzenduko zituena jende guziak burnizko zigorrarekin, eta arapatua izan zan bere semea Jaungoikoarentzat, eta bere esertokiarentzat.

6. Eta emakumeak iges zuen eremura, non zuen tokia Jaungoikoak prestatua, an bazkatu zitzaten milla berreun eta irurogei egunean.

7. Eta izan zan guda andi bat zeruan. Migel, eta bere aingeruak gudan ari ziran sugearekin, eta sugea gudan ari zan, eta bere aingeruak.

8. Eta ezin zuten oiek, eta etzan ere arkitu geiago zeruan beren tokia.

9. Eta botatua izan zan sugula andi ura, anziñako sugea, deabrua eta Satanas deritzana, engañatzen duena mundu guzia: eta botatua izan zan lurrera, eta bere aingeruak ere berarekin egotziak izan ziraden.

10. Eta aditu nuen boz andi bat zeruan esaten zuena: Orain betea izan da gure Jaungoikoaren osasuna eta bertutea, eta erreñua, eta bere Kristoaren eskua, botatua izan dalako gure anaien salatzallea, salatzen zituena Jaungoikoaren aurrean gau ta egun.

11. Eta berak goitu zuten Bildotsaren odola gatik, eta bere lekukotasunaren itza gatik, eta ez zituzten maitatu beren animak eriotzaraño.

12. Beragaitik poztu zaitezte zeruak, eta bertan bizi zeratenak. Ai lurraren, eta itsasoaren zorigaiztokoak, zeren jatxi zan deabrua zuek gana, aserre andia duela, jakiñik denbora gutxi duela!

13. Eta ikusi zuenean sugeak, botatua izan zala lurrera, persegitu zuen seme arra erdi zuen andrea.

14. Eta emanak izan zitzaizkan emakumeari bi ego arrano andiarenak, egaan egiteko eremura bere tokira, non dan zaitua denboran, eta denboretan, eta denboraren erdian, sugearen ikusbegitik.

15. Eta botatu zuen sugeak bere aotik emakumearen ondotik, ura ibaia bezala, ibaia erakarria izan zedin.

16. Eta lagundu zion lurra emakumeari, eta idiki zuen lurra bere aoa, eta zurrupatu zuen, sugeak bere aotik botatu zuen ibaia.

17. Eta aserratu zan sugea emakumearekin, eta joan zan gudatzera bere jatorriko, Jaungoikoaren aginteak gordetzen dituzten, eta Jesukristoren lekukotasuna dutenen gañerakoakin.

18. Eta gelditu zan itsasoko arearen gañean.

### AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen igotzen zala itsasotik pisti bat zituena zazpi buru, eta amar adar, eta bere adarren gañean amar zinta zuri zabal, eta bere buruen gañean izen gaiztoak Jesukristo gatik.

2. Eta ikusi nuen leoiarrearen antzeko pisti bat eta bere oñak artzaren antzekoak, eta bere aoa leoiaren aoa bezelakoa. Eta sugeak eman zion bere eskubidea, eta indar andia.

3. Eta ikusi nuen bere buruetatik bat zauritua bezela eriotzako zauriarekin, eta bere zauri illgarria sendatua izan zan. Eta miraritu zan lur guztia pistiaren ondotik.

4. Eta adoratu zuten pistiari eskubidea eman zion sugea, eta adoratu zuten pistia, esaten zutela: Nor pistiaren antzekoa? Eta nork gudatu dezake berarekin?



5. Eta emana izan zaion ao bat esaten zituena arrokeriak, eta itz gaiztoak Jaungoikoa gatik: eta emana izan zaion eskubidea egiteko berrogei ta bi illa betean.

6. Eta idiki zuen bere aoa erneguzko itzak in Jaungoikoa gatik, ernegatzen zuela bere izena gatik, eta bere eleiza gatik, eta zeruan bizi diranak gatik.

7. Eta emana izan zaion gudaritza Santuakin, eta berak garaitzea. Eta emana izan zaion eskubidea etxadi, eta erri, eta mintzoera, eta erreñu guzian.

8. Eta adoratu zuten, lurrean bizi ziraden guziak, zeñaren izenak ez dauden eskribatuak Bildotsaren, munduaren asieratikan illa izan zanaren bizitzako liburuan.

9. Baldin inork badu belarririk, aditu beza.

10. Katiberiara daramana, katiberiara joango da; ezpatarekin iltzen duenak, izan bear du ezpatarekin illa; Emen da igaropena, eta Santuen fedea.

11. Eta ikusi nuen beste pisti bat igotzen zuela lurretik eta zituen adar bi Bildotsaren antzekoak, eta itz egiten zuen sugeak bezela.

12. Eta egiten zuen lenbiziko pistiaren eskubide guzia bere aurrean, eta egin zuen lurra eta bertan bizi ziradenak adoratu zezatela lenengo pistia, zeñaren zauri ilgarrria sendatua izan zan.

13. Eta egin zituen miresgarri andiak, alako moduan eze suari ere jatxi erazitzen zion Zerutik lurrera gizonen aurrean.

14. Eta engañatu zituen lurrean bizi ziranak, pistiaren aurrean egiteko emana izan zitzaizkan miresgarriak gatik, esaten ziotela lurrean bizi ziranai, egin zezatela, ezpataren zauria zuen pistiaren irudia, eta bizitu izan zan.

15. Eta emana izan zaion, eman zaiola espiritua pistiaren irudiari, eta itz egin zezala pistiaren irudiak, eta egin zezala, illak izan ditezela, pistiaren irudia adoratzeko etzuten guziak.

16. Eta egingo du, gizon guziak txikiak, eta andiak, eta aberatsak, eta beartsuak, eta askatuak eta menpekoak iduki dezatela ezagungarria beren eskuiko eskuan, edo beren kopetetan.

17. Eta inork ezin dezakeala erosi edo saldu, baizik duenak pistiaren ezagungarria, eta pistiaren izena, edo bere izenaren zenbata.

18. Emen jakinduria da. Adipena duenak, kontatu beza pistiaren zenbata. Zeren gizonaren zenbata da, eta bere zenbata seireun eta irurogeita sei.

## AMALUGARREN KAPITULUA

1. Eta begiratu nuen, eta ona emen non Bildots bat zegoan Siongo mendiaren gainean, eta berarekin eun eta berrogei ta lau milla, zutenak eskribaturik bere izena, eta bere Aitaren izena beren bekokietan.

2. Eta aditu nuen boz bat zerutik, ur askoren boza bezelakoa, eta turmon ots andi baten boza bezelakoa; eta aditu nuen boza arpalariena bezelakoa arpak jotzen zituztenen beren arpak in.

3. Eta kantatzen zuten kanta berria bezelako bat esertokiaren aurrean, eta lau abereen eta zarren aurrean, eta inork ezin zezakean esan kanta ura, baizik eun eta berrogei ta lau milla aiek, erosiak izan ziradenak lurretik.

4. Oiek dirade emakumeakin zikindu etziradenak, zeren birjiñak dirade. Oiek darraikiote Bildotsari dijoan edozein tokitara. Oiek izan ziran erosiak gizonetatik lendabiziak Jaungoikoarentzat, eta Bildotsarentzat.

5. Eta beren aoan etzan arkitu gezurrik, zeren norbanik gabe daude Jaungoikoaren esertoki goiaren aurrean.

6. Eta ikusi nuen beste aingeru bat egaan zebillela zeruaren erditik, zuela betiko ebanjelioa, predikatzeko lurrean bizi diranai, eta erreñu, eta etxadi, eta mintzoera, eta erri guziari.

7. Esaten zuela boz andiarekin: izan zaitezte Jaungoikoaren beldur, eta eman zaiozute ondrea, zeren dator bere juizioaren ordua, eta adoratu ezazute egin zituena zerua, eta lurra, itsasoa, eta urezko iturriak.

8. Eta beste aingeru batek jarraitu zion esaten zuela: Erori zan, erori zan Babilonia andi ura; eman ziotena edaten jende guziaz bere aserreko aragizko bekatuko ardotikan.

9. Eta irugarren aingeruak jarraitu zioten, esaten zuela boz andiarekin: Baldin inork adoratzeko balu pistia, edo bere irudia, eta artuko balu ezagungarria bere kopetan, edo bere eskuan.

10. Onek ere edango du Jaungoikoaren aserrearen ardotik, nasturik dagoanetik utsarekin bere aserrearen edontzian, eta oñazkatua izango da suarekin, eta sufriarekin aingeru santuen aurrean, eta Bildotsaren aurrean.

11. Eta beren oñazeen keak igoko du gizaldien gizaldietan; ez dute ere atsedetik gau eta egun, adoratu zutenak pistia, eta bere irudia, eta baldin inork artuko balu bere izenaren ezagungarria.

12. Emen da santuen igaropena, gordetzen dituztenena Jaungoikoaren aginteak, eta Jesusen fedea.

13. Eta aditu nuen boz bat zerutik, esaten zidana: Zorionekoak illak Jaungan iltzen diranak. Oraindik dio Espirituak, atsedetik dezatela beren nekeetatik, zeren beren egiteak jarraitzen diete.



14. Eta begiratu nuen, eta ona emen odei zuri bat, eta odeiaren gañean eseririk gizonaren Semearen antzeko bat, zuena bere buruan urrezko koroia, eta bere eskuan igitai zorrotza.

15. Eta beste aingeru bat atera zan eleizatik, deadar egiten ziola boz andiarekin eseririk zegoanari odeiaren gañean: iraitzi ezazu zure igitai, eta itaitu ezazu, zeren etorria da itaitzeko ordua, zergatik leortu da lurreko sega.

16. Eta eseririk zegoanak odeiaren gañean iraitzi zuen lurrera bere igitai, eta segatua izandu zan lurra.

17. Eta beste aingeru bat irten zan zeruan dagoan eleizatik, zuela berak ere igitai zorrotza.

18. Eta aldaretik irten zan beste aingeru bat, zuena eskubidea suaren gañean, eta deadar egin zion boz andiarekin, igitai zorrotza zuenari, esaten ziola: Sartu ezazu zure igitai zorrotza, eta mendaindu itzatzu lurreko mastiko mordoak: zeren zorituak daude bere matsak.

19. Eta sartu zuen aingeruak bere igitai zorrotza lurrean, eta mendaindu zuen lurreko mastia, eta bota zuen Jaungoikoaren aserreko ainzira andian.

20. Eta oñaztua izan zan ainzira erritik kanpora, eta irten zan odola ainziratik zaldien frenuetaraño milla eta seireun bidartean.

### AMABOSTGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen beste ezagungarri bat zeruan, andia eta miragarria, zazpi aingeru, zituztenak zazpi izurri atzenekoak, zeren beretan izan da bukatua Jaungoikoaren aserrea.

2. Eta ikusi nuen bideriozko itsasoa bezelakoa suarekin nastua, eta garaitu zutenak pistia, eta bere irudia, eta bere izenaren zenbata zeudela bideriozko itsasoaren gañean, zituztela Jaungoikoaren arpak.

3. Eta kantatzen zutela Moisesen Jaungoikoaren serbitzariaren kanta, eta Bildotsaren kanta, esaten zutela: Andiak, eta miragarriak dirade zure egiteak Jaun Jaungoiko Guziala: zuzenak eta egiazkoak dira zure bideak, gizaldien Erregea.

4. Nor ez da zure beldur izango, Jauna, eta nork ez du goratuko zure izena? Zeren zu bakarrik zera biotz beraa; zergatik jende guziak etorriko dirade, eta adoratuko dute zure aurrean, zeren zure juizioak agiritu dira.

5. Eta oien ondoan begiratu nuen, eta ona emen non idiki zan zeruan lekukotasuneko bizitokiko eleiza.

6. Eta irten ziran eleizatik zazpi aingeru, zituztenak zazpi izurri, janzirik liño garbi eta zuriarekin, eta loturik bularren aldamenak urrezko bandakin.

7. Eta lau abereetatik batek eman zitzaizkioten zazpi aingeruai zazpi edontzi urrezko, Jaungoikoaren, gizaldien gizaldietan bizi danaren aserrez beteak.

8. Eta eleiza keez bete zan Jaungoikoaren anditasunez, eta bere bertutez, eta iñor ezin zatekean sartu eleizan, alik eta bukatu zitezten artean zazpi aingeruen zazpi izurriak.

### AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta aditu nuen boz andi bat elizatik, esaten ziotena zazpi aingeruai: Zoazte, eta isuri itzatzute Jaungoikoaren aserrearen zazpi edontziak lurraren gañera.

2. Eta joan zan lenbizikoa, eta isuri zuen bere edontzia lurraren gañean, eta egin zitzaioten zauri andi eta txit gaizto bat, pistiaren siñalea zeukaten gizonai, eta bere irudia adoratu zutenai.

3. Eta bigarren aingeruak isuri zuen bere edontzia itsasoaren gañean, eta biurtu zan ill batena bezelako odola, eta anima bizi guzia ill zan itsasoan.

4. Eta irugarrenak isuri zuen bere edontzia ibaien gañean, eta urrezko iturrien gañean, eta odol biurtu ziran.

5. Eta aditu nion uretako aingeruari esaten zuela: Zuzena zera Jauna, zerana, eta ziñana, Santua, oiek juzgatu dituzuna.

6. Isuri zutelako santuen, eta profeten odola, eman diezute ere edaten odola, zeren diñak dirade.

7. Eta aditu nion beste bati aldaretik esaten zuela: Baita, Jaun Jaungoiko Guziala, egiazkoak eta zuzenak dirade zure erabakiak.

8. Eta laugarren aingeruak isuri zuen bere edontzia eguzkiaren gañean, eta emana izan zitzaion atsekabetutzea gizonak beroarekin eta suarekin.

9. Eta berotu ziran gizonak bero andiarekin: eta gaizki esaka ari ziran Jaungoikoaren izena gatik, eskua duena gatik izurri oien gañean, eta etziran damutu, emateko berari gloria.

10. Eta bosgarren aingeruak isuri zuen bere edontzia pistiaren esertokiaren gañean, eta bere erreñua biurtu zan illuna, eta jan zituzten beren miyak oñazez.

11. Eta gaizki esaka ari ziran zeruko Jaungoikoa gatik, beren oñaze eta zauriak gatik, eta etzuten bere egiteen damurik artu.



12. Eta seigarren aingeruak isuri zuen bere edontzia Eufrates ibai andi aren gañean, eta leortu zuen bere ura, prestatzeko bidea erregeai eguzkiaren irteeratik.

13. Eta ikusi nituen irtetzen sugearen aotik, eta pistiaren gezurrezko profetaren aotik iru espiritu zikin igelen gisara.

14. Zeren dirade demonioen espirituak egiten dituztenak mirariak, eta dijoaz lur guziko erregeak gana biltzeko berak gudarako, Jaungoiko Guzialaren egun andirako.

15. Ona emen, banator lapurra bezela: Zorionekoa ernai dagoana, eta gordetzen dituen bere soñekoak, billosik ibilli ez dedin, eta ikusi ez dezaten bere ezaintasuna.

16. Eta bilduko ditu hebreoz Armajedon deitzen zaion toki batean.

17. Eta zazpigarren aingeruak isuri zuen bere edontzia airean eta irten zan boz andi bat elizatik esertoki goitik, esaten zuena: Au egiña dago.

18. Eta egiñak izan ziran tximistak, eta bozak, eta turmonotsak, eta lur dardara andi bat egiña izan zan, gizonak lurraren gañean diranetik iñoiz izan etzana bezelakoa: alako lur dardara, ain andirik.

19. Eta partitua izan zan erri andia iru zatitan, eta jendeen erriak erori ziran, eta Babilon andia etorri zan gogora Jaungoikoaren aurrean, emateko berari bere aserre sumiñeko ardoaren kaliza.

20. Eta urbitarte guziak iges egin zuen, eta mendiak etziran izan arkituak.

21. Eta erori zan zerutik gizonen gañera arri andia talentu bat bezelakoa, eta gaizki esaka ari ziran gizonak Jaungoikoagatik arriaren izurria gatik, zeren txit andia izan zan.

### AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta etorri zan zazpi aingeruetatik bat, zituztenetatik zazpi edontzi, eta itz egin zuen nerekin, esaten zidala: Atoz, erakutsiko dizut bordion andiaren, ur askoren gañean eseririk dagoanaren kondenazioa.

2. Zeñarekin egin zituzten aragizko pekatuak lurreko erregeak, eta orditu ziran lurrean bizi ziranak bere aragizko pekatu agirikoaren ardoarekin.

3. Eta eraman ninduen espirituan eremura. Eta ikusi nuen emakumea eseririk pisti orgorri baten gañean Jaungoikoaren izen gaitzoz betea, zituela zazpi buru, eta amar adar.

4. Eta emakumea zegoan purpuraz eta eskarlataz inguratirik, eta apaindurik urrez, eta arri baliotsuz, eta perlaz, zuela bere eskuan urrezko edontzi bat, bere aragizko pekatuaren nazkaz eta zikinkeriz betea.

5. Eta bere kopetan eskribaturik izen bat: Misterioa; Babilonia andia, aragizko pekatuen, eta lurreko nazkaen ama.

6. Eta ikusi nuen emakumea santuen odolez, eta Jesusen martirien odolez orditurik. Eta ikusi nuenean miraritu nintzan mirari andiarekin.

7. Eta esan zidan aingeruak: Zergatik miraritzen zera? Nik esango dizut emakumearen, eta bera daraman pistiaren, zazpi buru eta amar adar dituenaren adipena.

8. Ikusi zenduen pistia, bazan, eta ez da, eta igoko du leizetik, eta eriotzara joango da, eta mirarituko dirade lurrean bizi diradenak, zeñanen izenak ez dauden eskribaturik bizitzako liburuan munduaren asieratik, ikusirik pistia, zana, eta ez dana.

9. Eta emen da, jakinduria duen adigarria: zazpi buruak zazpi mendi dira, zeñanen gañean dagoan eseririk emakumea, eta zazpi errege dira.

10. Bost ill ziran; bat bada, eta bestea oraindik ez da etorri, eta dato-rreanean irauñ bear du denbora laburrean.

11. Eta zan, eta ez dan pistia: eta bera zortzigarrena da, eta zazpire-takoa da, eta galdumenera dijoa.

12. Eta ikusi zenduzan amar adarrak, amar errege dira; oraindikan erreñua artu etzutenak, baña artuko dute eskua erregeak bezala ordu batean pistiaren ondoren.

13. Oiek asmo bat dute, eta emango diote indarra, eta eskubidea pistiari.

14. Oiek gudatuko dute Bildotsarekin, eta Bildotsak garaituko ditu, zeren da jaunen Jauna, eta erregeen Erregea: eta berarekin diranak, dira deituak, autatuak, eta leialak.

15. Eta esan zidan: ikusi zenduzan urak bordiona eseririk dagoan tokian, erriak dirade, eta jendeak, eta mintzoerak.

16. Eta pistiyan ikusi zenduzan amar adarrak, oiek gorrotatuko dute bordiona, eta ipiñiko dute soilla, eta billosa, eta bere aragiak jango dituzte, eta bera suarekin erreko dute.

17. Zeren Jaungoikoak ipiñi du beren biotzetan, egin dezatela berak nai duena, eman dizaiotela bere erreñua pistiari alik eta bete ditezen artean Jaungoikoaren itzak.

18. Eta ikusi zenduen emakumea, da erri andi, agintea duena lurreko erregeen gañean.



## EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta oien ondoren ikusi nuen beste aingeru bat jatxitzen zala zerutik, zuela esku andia, eta lurra izan zan bere gloriak argitua.

2. Eta sendo deadar egin zuen, esaten zuela: Erori zan, erori zan Babilonia andia, eta egiña izan da demonioen bizitoki, eta espiritu zikin guztiaren igestoki, eta egazti zikin eta nazkagarri guziaren ezkutazulo.

3. Zeren jende guziak edan zuten bere aragizko pekatuaren aserreko ardotikan, eta lurreko erregeak berarekin aragizko pekatuak egin zituzten, eta lurreko merkatariak aberastu dira bere atsegiñen indarrarekin.

4. Eta aditu nuen beste boz bat zerutik, esaten zuela: irten zaitezte bertatikan, nere erria, izan etzaitezten bere pekatuen parte, eta artu ez dezazuten bere izurrietatik.

5. Zeren bere pekatuak igo dute zeruraño, eta oroitu da Jauna bere gaiztakeriak.

6. Eman zaiozute berak ere eman dizuten bezela, eta biurtu zaiozute bitan ainbat, bere egiteen araura; edaten eman zizuten edontzian, eman zaiozute bitan ainbat.

7. Zenbat gozatu dan, eta atsegiñetan bizi izan dan, ainbat oñaze eta negar eman zaiozute, zeren bere biotzean esaten du: Eseririk nago Erregiña, eta ez naiz alarguna, eta negarrik ez det ikusiko.

8. Beragatik egun batean etorriko dirade bere izurriak, eriotza, eta negarra, eta gosea, eta suan errea izango da, zeren sendoa da juzgatuko duen Jaungoikoa.

9. Eta negar egingo dute, eta aika ariko dirade bere gañean lurreko erregeak, berarekin aragizko pekatuak egin zituztenak, eta gozotasunetan bizi izan ziranak, ikusten dutenean bere erretzearen kea.

10. Urrutian daudela bere oñazeen beldurra gatik, esaten dutela: Ai, ai, Babilonia erri andi aren, erri sendo aren doakabea: zeren ordu batean etorri da zure galmena.

11. Eta lurreko merkatariak negar egingo dute, eta aubenez egongo dirade bere gañean, zeren beren saldu gaiak iñork ez ditu berriz erosiko.

12. Urrezko, eta zillarrezko, eta arri baliotsuzko, eta perlazko, eta liño txit fiñezko, eta eskarlatazko, eta sedazko, eta granazko salgaiak, eta zur usaitu guzia, eta marfillezko edontzi guziak, eta arri baliotsuzko, eta kobrezko, eta burnizko, eta marmolezko ontzi guziak,

13. Eta kanela, eta usaiezko, eta okenduzko, eta inzensozko, eta ardozko, eta olioizko, eta iriñ lorezko, eta garizko, eta zamarizko, eta ardizko, eta zaldizko, eta karrozazko, eta mendekozko, eta gizonen animazkoak.

14. Eta zure animako gurariaren frutak alde egin zuten zu gandikan, eta gauza gizen eta eder guziak aitu zaizkitzu, eta onezkero ez dituzte berriz arkituko.

15. Oien merkatari, aberastu ziradenak, bera gandik urrutian egongo dirade bere oñazen beldurra gatik, negarrez eta aubenez.

16. Eta esaten dutela: Ai, ai, erri andi aren, liño fiñez, eta eskarlataz, eta granaz estalirik zegoanaren doakabea, eta urreturik zegoanarena urrez, eta arri baliotsuz, eta perlaz.

17. Zeren ordu batean desegiñak izan ziran aberastasun ain andiak. Eta eraentzalle guzia, eta itsasoan dabillen guzia, eta itsas gizonak, eta itsasoan salerosiak dituztenak, urrutian egon ziran,

18. Eta ikusi zutenean bera errea zan tokia deadar egin zuten, esaten zutela: Zeñ erri andi onen antzekoa?

19. Eta ipiñi zuten autsa beren buruen gañean, eta deadar egin zuten negarrez, eta aubenez, esaten zutela: Ai, ai, erri andi aren doakabea, zeñean aberastu ziran, itsasoan ontziak zituzten guziak, bere prezioakin, zeren ordu batean izan da arrasatua.

20. Poztu zaite beraren gañean, zerua, eta apostolu santuak, eta profetak, zeren juzgatu du Jaungoikoak zuen juizioa beraren aldetik.

21. Eta jaso zuen Aingeru sendo batek arri bat errota arri andia bezelakoa, eta bota zuen itsasora, esaten zuela; Onelako bulzakadarekin izango da botatua Babiloniko erri andi ura, eta ez da berriz onezkero arkitua izango.

22. Eta zitararien, eta musikuen boza, eta txilibituaz kantatzen dutenena, eta tronpeta ez da adituko zu gan berriz, eta lantegi guziaren irakslarik ez da berriz zu gan arkituko, eta errota arriaren otsik ez da onezkero zu gan adituko.

23. Eta zuziaren argiak ez du geiago zu gan argi egingo, eta ezkonberrien bozik ez da onezkero zu gan adituko: zeren zure merkatariak ziran lurreko prinzipeak, zeren zure sorginkerietan uts egin zuten jende guziak.

24. Eta beragan izan da arkitua profeten eta santuen odola, eta lurrean illak izan ziradenen guziena.

## EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoren aditu nuen talde askoren boza bezelakoa Zeruan, esaten zutenean: Aleluia. Osasuna, eta gloria, eta eskua da gure Jaungoikoarentzat.





2. Zeren egiazkoak, eta zuzenak dirade bere erabakiak, zeñak juzgatu duen bordion andia, gaiztotu zuena lurra bere aragizko pekatuakin, eta bengatu du bere serbitzarien odola aren eskuetatik.

3. Eta berriz esan zuten: Aleluia. Eta bere keak igotzen du gizaldien gizaldietan.

4. Eta auzpeztu ziran ogeita lau zarrak, eta lau abereak, eta adoratu zuten Jaungoikoa jargoiares gañean eseririk zegoana, esaten zutelana. Amen. Aleluia.

5. Eta boz bat irten zan jargoitik, esaten zuela: Alabantza esan zaiozute gure Jaungoikoari bere serbitzari guziak, eta bere beldur zeratenak, txikiak eta andiak.

6. Eta aditu nuen talde andiaren boza bezelakoa, eta ur askoren boza bezelakoa, eta turmoi andien boza bezelakoa, eta turmoi andien boza bezelakoa, esaten zutenena: Alleluia. zeren erregiñatu zuen gure Jaun Jaungoiko Guzialak.

7. Poztu, eta gozatu gaitezen, eta eman dizaiogun gloria, zeren etorriak dirade Bildotsaren eztaia, eta bere ezkongai gertu da.

8. Eta emana izan zitzaion, estalia izan dedilla liño txit fin, distiatzalle, eta zuriarekin. Zeren liño fiña santuen bertuteak dirade.

9. Eta esan zidan: Eskribatu ezazu, Zorionekoak deituak izan ziran Bildotsaren eztaien aparira, eta esaten dit. Jaungoikoaren itz oiek egiazkoak dira.

10. Eta erori nintzan bere oñen aurrean, bera adoratzeko. Eta esaten dit: Begira ez dezazula egin, zure serbitzarikidea naiz, eta zure anaiena, Jesusen lekukotasuna dutenena. Jaungoikoa adoratu ezazu. Zeren Jesusen lekukotasuna da profeziako espirtua.

11. Eta ikusi nuen zerua idikirik, eta ona emen non agertu zan zaldi zuri bat, eta bere gañean eseririk zegoanari deitzen zaion Leiala eta Egiptia, eta zuzentasunarekin juzgatzen eta gudatzen du.

12. Bere begiak berriz suzko garra bezela, eta bere buruan zinta zuri zabal asko, zuela izen bat eskribaturik, iñork ez dakiana berak baizik.

13. Eta zegoan jantzita odol txipristiñez betetako jantziarekin, eta deitzen zaio bere izena Jaungoikoaren Berboa.

14. Eta zeruan diran martizdiak jarraitzen zioten zaldi zurietan, liño txit fin zuriz eta garbiz jantzirik.

15. Eta bere aotik irtetzen zan alde bietatik zorrozutako ezpata bat, berarekin zauritzeko jendeak. Eta berak zuzenduko ditu burnizko zigorrarekin, eta berak zapatzen du Jaungoiko Guzialaren aserre sumiñeko ardoaren dolorea.

16. Eta dauka bere jantzian, eta bere istarrean eskribaturik, Erregeen Erregea, eta jaunena Jauna.

17. Eta ikusi nuen aingeru bat zegoala eguzkian, eta deadar egin zuen boz andiarekin, esaten ziotela, zeruaren erditik egaan zebiltzan egazti guziaz: Atozte, eta bildu zaitezte Jaungoikoaren apartandira.

18. Jan ditzatzuten erregeen aragiak, eta tribunoen aragiak, eta sendoen aragiak, eta zaldien aragiak, eta beretan eserienenak, eta guzien aragiak, askatuenak, eta mendekoenak, eta txikienak, eta andienak.

19. Eta ikusi nituen pistia, eta lurreko erregeak, eta beren martizdiak bildurik gudaratzeko, zaldian eseririk zegoanarekin, eta bere martizdiarekin.

20. Eta arrapatua izan zan pistia, eta berarekin gezurrezko profeta; egin zituen siñaleak bere aurrean, zeñakin engañatu zituen, pistiaren marka artu zutenak, eta adoratu zutenak bere irudia. Bi oiek bizirik izan ziran botatuak su sufrez irazekizko tokian.

21. Eta gañerakoak illak izan ziraden, zaldiaren gañean eseririk zegoanaren ezpatarekin, zein ateratzen dan bere aotik: eta egazti guziak ase ziran beren aragiakin.

## OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nuen aingeru bat jatxitzen zala zerutik, zuela leizeko gilitza, eta kate andi bat bere eskuan.

2. Eta arrapatu zuen sugula, anziñako sugea, zeñ dan deabrua, eta Satanas, eta lotu zuen milla urterako.

3. Eta sartu zuen leizean, eta itxi zuen, eta sillutu zuen bere gaña, engañatu ez ditzan berriz jendeak, bete ditezen bitartean milla urte; eta oien ondoren askatuak izan bear du denbora gutxi baterako.

4. Eta ikusi nituen esertokiak, eta eseri ziran beren gañean, eta juizioa emana izan zitzaioten, eta Jesusen lekukotasuna gatik, eta Jainkoaren itza gatik lepogabetuak izan ziradenen animak, eta etzutenak adoratu pistia, ez bere irudia, eta etzutenak artu bere marka kopetetan, edo beren eskuetan, eta bizitu izan ziran, eta erreñatu zuten Kristorekin milla urtean.

5. Ille gañerakoak ez ziraden bizi, bete ziran bitartean milla urte. Au da lenbiziko biztuera.

6. Doatsua eta santua, partill dana lenbiziko biztuera; oietan bigarren eriotzak ez du eskubiderik, baizikan izango dira Jaungoikoaren eta Kristoren apaizak, eta erreñatuko dute berarekin milla urtean.

7. Eta bukatuak diranean milla urteak, askatua izango da Satanas bere presondegitik, eta irtengo da, eta engañatuko ditu lurreko lau alda-





menen gañean dauden jendeak, Gog, eta Magog, eta bilduko ditu guda-rako, zeñiaen zenbata da itsasoko area bezela.

8. Eta igo zuten lurreko zabaleraren gañera, eta inguratu zituzten santuen gudatokiak, eta erri maitatua.

9. Eta jatxi zan sua zerutik Jaungoikoa gandik, eta iretsi zituen, eta berak engaiatzan zituen deabrua, izan zan sartua suzko eta sufrezko tokian, non pistia ere.

10. Eta gezurrezko profeta izango dira oñazkatuak gau eta egun gizaldien gizaldietan.

11. Eta ikusi nuen jargoi andi zuri bat, eta bere gañean eseririk zego-ala bat, zeñaren ikusbegitik iges egiten duten lurak eta zeruak, eta beren tokirik etzan izan arkitua.

12. Eta ikusi nituen illak, andiak eta txikiak, zeudela zuti jargoien aurrean, eta liburuak izan ziran idikiak, eta beste liburu bat izan zan idikia, zeñ dan bizitzakoa, eta juzgatuak izan ziran illak, liburuetan eskribaturik zeuden gauzetatik, beren egiteen araura.

13. Eta eman zituen itsasoak bere illak, bertan zeudenak, eta eriotzak eta infernuak eman zituzten beren illak, bertan zeudenak, eta bakoitzaren juizioa izan zan egiña beren egiteen araura.

14. Eta infernua eta eriotza izan ziran botatuak suzko tokira. Au da bigarren eriotza.

15. Eta arkitu etzana eskribaturik bizitzako liburuan, izan zan botatua suzko tokira.

### OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusi nituen zeru berria, eta lur berria. Zeren lenbiziko zerua, eta lenbiziko lurra joan ziran, eta itsasoa ez da onezkero.

2. Eta nik, Juan, ikusi nuen Jerusalem berria jatxitzan zala zerutik Jaungoikoa gandik, gertua, ezkonberria bere senararentzat bezala.

3. Eta aditu nuen boz andi bat jartoki goitik esaten zuena: Ona emen Jaungoikoaren bizitokia gizonakin, eta biziko da berakin. Eta berak izango dirade bere erria, eta Jaungoikoa bera berakin izango da beren Jaungoikoa.

4. Eta leortuko du Jaungoikoak malko guzia beren begietatik, eta eriotzarik ez da onezkero izango, ez negarrik, ez deadarrik, ez miñik izango da geiago, zeren lenengoak igaro ziran.

5. Eta esan zuen eseririk zegoanak esertoki goian: Ona emen non berriak egiten ditudan gauza guziak. Eta esan zidan, eskribatu itzatzu, zeren itz oiek txit leialak dirade, eta egiazkoak.

6. Eta esan zidan: Egiña da. Ni naiz Alpha eta Omega, asiera eta bukaera. Nik egarri danari emango diot doaiñ bizitzako ureko iturritik.

7. Garaitzen duenak idukiko ditu oiek, eta izango naitzaio (sic) Jaungoikoa, eta bera izango zat semea.

8. Koldarrai berriz, eta fedegabeai, eta madarikatuai, eta erallai, eta lasaiari eta sorgiñai, eta idolatrai, eta gezurti guziaz, berak partill izango dirade su irazekizko eta sufrezko tokian, zeñ dan bigarren eriotza.

9. Eta etorri zan zazpi aingeruetatik bat, zituztenetatik edontziak zazpi atzenengo izurritz beteak, eta itz egin zuen nerekin esaten zuela: Atoz, eta erakutsiko dizut ezkongai Bildotsaren emaztea.

10. Eta eraman ninduen espirituari mendi andi eta goi batera, eta erakutsi zidan Jerusalemgo erri santua jatxitzan zala zerutik Jaungoikoagandik,

11. Zuela Jaungoikoaren argiera, eta bere argia arri baliotsuaren antzekoa, arri nabarra bezelakoa, kristala bezela.

12. Eta zeukan murru andi eta goi bat, zituena amabi ate, eta ateetan amabi aingeru, eta izenak eskribaturik, zeñiak diran Israelko semeen amabi etxadien izenak.

13. Sortaldetik iru ate, eta ifarraldetik iru ate, eta egoaldetik iru ate, eta sartaldetik iru ate.

14. Eta erriko murruek zituen amabi zimendu, eta amabi oietan Bildotsaren amabi apostoluen izenak.

15. Eta nerekin itz egiten zuenak zeukan urrezko kañaberazko neurri bat, neurtzeko erria, eta bere ateak, eta murrua.

16. Eta erria ipiñirik zegoan laukian, eta bere luzeera ainbat da zabalerera ere, eta neurtu zuen erria urrezko kañaberarekin eta zituen amabi milla estadu, eta bere luzeera, eta altuera, eta zabaleraren berdiñak dirade.

17. Eta neurtu zuen bere murrua eta zituen eun eta berrogei ta lau beso, gizonaren neurrikoa zeñ dan aingeruarena.

18. Eta bere murruaren gaia zan arri nabarrezkoa, erria bera berriz urre garbia, biderio garbiaren antzekoa.

19. Eta erriaren murruko zimenduak, arri baliotsu guziz apainduak. Lenbiziko zimendua, nabarria; bigarrena zeru arria; irugarrena arri urdiña; laugarrena arriberdiska.

20. Bostgarrena arrigorria; seigarrena arri zuriska; zazpigarrena arri oriberdea; zortzigarrena arri berde argia; bederatzigarrena arri berde oria; amargarrena arri berde illuna; amaikagarrena arri berde zuria; amabi garrena arri moraua.



21. Eta amabi atek amabi perla dirade, bakoitzean bat, eta ate bakoitzan perla batekoa, eta erriko plaza urre utsa, biderio txit argia bezelakoa.

22. Eta elizarik ez nuen ikusi bertan, zeren Jaun Jaungoiko Guziala da bere eliza, eta Bildotsa.

23. Eta erriak ez du eguzkiaren, ez illargiaren premiarik, argi egin dezaten bertan, zeren Jaungoikoaren argitasunak argitu zuen, eta bere argiontzia Bildotsa da.

24. Eta jendeak ibilliko dirade bere argitasunean, eta lurreko erregeak eramango dute bertara beren gloria eta ondra.

25. Eta bere atek ez dira izango itxiak egunaz, zeren gaurik ez da izango an.

26. Eta eramango dute bertara jendeen gloria eta ondra.

27. Ez da an sartuko gauza zikindurik, ez gauza gaiztoa egiten duenik, ez gezurra esaten duenik, baizik Bildotsaren bizitzako liburuan eskribaturik daudenak.

### OGETA BIGARREN KAPITULUA

1. Eta erakutsi zidan bizitzako ureko ibaia, argitsua kristala bezela, irtetzen zana Jaungoikoaren eta Bildotsaren esertokitik.

2. Bere plazaren erdian, eta ibaiaren aldamen bakoitzetik bizitzako zuaitza, ematen dituena amabi frutu, ill bakoitzean bere frutua, eta zuaitzaren ostoa jendeen osasunerako.

3. Eta ez da an berriz izango madarikaziorik, baizik Jaungoikoaren eta Bildotsaren esertokiak egongo dirade an, eta bere serbitzariak serbituko dute.

4. Eta ikusiko dute bere arpegia, eta bere izena beren bekokietan.

5. Eta gaurik ez da berriz izango, eta ez dute idukiko zuziaren eta ez eguzkiaren argiaren premiarik, zeren Jaun Jaungoikoak argi egingo diete, eta erregiñatuko dute gizaldien gizaldietan.

6. Eta esan zidan: itz oiek txit leialak eta egiazkoak dira. Eta profeten espirituen Jaun Jaungoikoak bidaldu zuen bere aingerua erakustera bere serbitzariari, bereala egiñak izan bear duten gauzak.

7. Eta ona emen banator arin. Doatsua gordetzen dituena liburu onen profeziako itzak.

8. Eta ni Juan, oiek aditu eta ikusi nituena. Eta oiek aditu eta ikusi ondoren, auzpeztu nintzan, oiek erakusten ziztan aingeruaren oñetan, bera adoratzeko.

9. Eta esan zidan: Begira ez dezazula egin, zeren zure serbitzari laguna naiz, eta zure anaia profetena, eta liburu onen profeziako itzak gordetzen dituztenena. Jaungoikoak adoratu ezazu.

10. Eta esaten dit: Ez itzatzu sillutu liburu onen profeziako itzak, zeren denbora aldean da.

11. Kalte egiten duenak, kalte egin beza oraindikan, eta zikinkerietan dagoana, zikindu bedi oraindikan, eta justua dana, justutu bedi oraindikan, eta santua, santutu bedi oraindikan.

12. Ona emen banator laister, eta nere saria nerekin da, emateko bakoitzari bere egiteen araura.

13. Ni naiz Alpha eta Omega, lendabizikoa eta atzenekoa, asiera eta bukaera.

14. Zorionekoak garbitzen dituztenak beren soñekoak Bildotsaren odolean, berak partill izan ditezten bizitzako zuaitzean, eta ateetatikan sartu ditezten errian.

15. Kanpora txakurrak, eta sorgiñak, eta lasaiak, eta erallak, eta idoloak serbitzen dituztenak, eta gezurra maitatu, eta egiten duen guzia.

16. Nik, Jesus, bidaldu det nere aingerua, ematera zuei oien lekukotasuna Elizetan. Ni naiz sustraia, eta Dabiden etorkia, izar argia eta goizekoa.

17. Eta Espirituak eta Lagunak diote: Atoz. Eta aditzen duenak esan beza: Atoz. Eta egarri dana, betor; eta nai duenak, artu beza bizitzako ura doan.

18. Zeren adirazten diot liburu onen profeziako itzak aditzen dituen guziari: Baldin iñork irasten badiete ezer oiei, ipiñiko ditu Jaungoikoak bere gañean liburu onetan eskribaturik dauden izurriak.

19. Eta baldin iñork gutxitzen baditu liburu onen profeziako itzak, kenduko du Jaungoikoak bere partiltasuna bizitzako liburutikan, eta erri santutikan, eta liburu onetan eskribaturik dauden gauzetatikan.

20. Esaten du ematen duenak oien lekukotasuna. Egiatzki banator bereala. Amen. Atoz, Jaun Jesus.

21. Jesukristo gure Jaunaren grazia zuek guziokin. Amen.